

FORU BERRIA

eta

NAFARROAKO LEGEDI ZIBILA



Parlamento de Navarra  
Nafarroako Parlamentua

FORU BERRIA

eta

NAFARROAKO LEGEDI ZIBILA

(Lehen argitalpen elektronikoa)

---

Honako hauek atondutako argitalpena:

Enrique Rubio Torrano  
Zuzenbide Zibileko katedraduna

M<sup>a</sup> Luisa Arcos Vieira  
Zuzenbide Zibileko katedraduna

Leyre Elizari Urtasun  
Irakasle kontratatua, Zuzenbide Zibileko doktorea

Itzulpena:

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak

2023ko apirilean eguneratua



Parlamento de Navarra  
Nafarroako Parlamentua

Izenburua: Foru Berria eta Nafarroako Legedi Zibila

© Ohar eta aurkibideena: Enrique Rubio Torrano, M<sup>a</sup> Luisa Arcos Vieira, Leyre Elizari Urtasun

© Argitalpenarena: Nafarroako Parlamentua

© Itzulpenarena: Nafarroako Parlamentua

Argitaratzailea: Nafarroako Parlamentua

Navas de Tolosa kalea, 1

31002 Iruña (Nafarroa)

[www.nafarroakoparlamentua.eus](http://www.nafarroakoparlamentua.eus)

argitalpenak@nafarroakoparlamentua.eus

Lege Gordailua: NA 859-2023

ISBN: 978-84-87460-59-3

**AURKIBIDEA**

AURKIBIDEA .....	4
Laburdurak .....	13
Foru Berriaren itzulpenari buruzko oharra .....	15
Foru Berria aldatu duten arauen zerrenda.....	16
Aldaketak izan dituzten Foru Berriko arauen zerrenda .....	17
<b>§1.- 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren</b>	
<b>    Konpilazioa onesten duena .....</b>	<b>23</b>
<b>ATARIKO LIBURUA .....</b>	<b>30</b>
I. TITULUA Nafarroako Zuzenbidearen iturriak .....	30
II. TITULUA Nafar foruduntasun zibila .....	32
III. TITULUA Eskubideen egikaritzea eta borondate-deklarazioak .....	33
IV. TITULUA Preskripzio azkentzailea eta akzioen iraungitzea .....	35
I. KAPITULUA Akzioen preskripzioa.....	35
II. KAPITULUA Akzioen iraungitzea.....	39
<b>I. LIBURUA Pertsonak, familia Etxe Nafarra .....</b>	<b>41</b>
I. TITULUA Pertsona juridikoak, babes berezidun ondareak eta nortasunik gabeko beste ente batzuk .....	41
I. KAPITULUA Pertsona juridikoak .....	41
II. KAPITULUA Desgaitasuna edo familia-erkidegoarekiko mendekotasuna duten kideentzat babesturiko ondareak .....	43
III. KAPITULUA Nortasunik gabeko beste ente batzuk .....	45
II. TITULUA Pertsona indibidualen gaitasuna eta ordezkaritza.....	45
III. TITULUA Familiaren babes juridikoa .....	48
IV. TITULUA Seme-alabatasuna.....	48
I. KAPITULUA Printzipio orokorrak.....	48
II. KAPITULUA Seme-alabatasun naturala .....	49
III. KAPITULUA Adopzio bidezko seme-alabatasuna .....	54
V. TITULUA Guraso-erantzukizuna.....	56
VI. TITULUA Ezkontzako ondasun-araubidea.....	66
I. KAPITULUA Ezkon-indarraldian zeharreko printzipio amankomunak .....	66

## Aurkibidea

II. KAPITULUA Ezkon-kapitulazioak .....	68
III. KAPITULUA Konkisten ezkon-sozietatea .....	69
IV. KAPITULUA Ondasun-erkidego unibertsalaren araubidea .....	77
V. KAPITULUA Ondasun-banantzearen araubidea .....	77
VI. KAPITULUA Indarraldiaren osteko printzipio amankomunak .....	79
VII. TITULUA Bikote egonkorra Nafarroan .....	81
VIII. TITULUA Ondasun-likidazioa bigarren edo ondorengo elkartzeetan .....	83
IX. TITULUA Elkarki laguntzeko erkidegoak .....	85
X. TITULUA Dohaintzak, familiarentzakoak eta familia-ondarearen batasun eta jarraitutasunerakoak .....	86
XI. TITULUA Etxe Nafarra .....	89
I. KAPITULUA Etxea eta haren batasunerako eta jarraitutasunerako agindutako dohaintzaren bitartez Etxea eskualdatzea .....	89
II. KAPITULUA Konkisten familia-sozietatea .....	91
III. KAPITULUA Familia-erkidegoak .....	92
IV. KAPITULUA Etxe-harrera eta zuzkidurak .....	93
V. KAPITULUA Ahaide nagusiak .....	94
II. LIBURUA Dohaintzak eta oinordetzak .....	97
I. TITULUA Funtsezko printzipioak .....	97
II. TITULUA "Inter vivos" dohaintzak .....	100
III. TITULUA "Mortis causa" dohaintzak .....	102
IV. TITULUA Oinordetza itun edo kontratuak .....	104
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	104
II. KAPITULUA Xedapen bereziak, jaraunslea izendatzeko itunei buruzkoak .....	105
V. TITULUA Testamentua eta horren formak .....	106
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	106
II. KAPITULUA Testamentuaren formak .....	108
III. KAPITULUA Kodiziloa .....	110
IV. KAPITULUA Testamentuko memoriak .....	110
V. KAPITULUA Ermandadeko testamentua .....	111
VI. TITULUA "Mortis causa" xedapenen deuseztasuna eta eragingabetasuna .....	113
VII. TITULUA Jaraunsle-izendapena .....	115
VIII. TITULUA Ordezpenak .....	117
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	117
II. KAPITULUA Ordezpen arrunta .....	117
III. KAPITULUA Fideikomisozko ordezpena .....	118
IV. KAPITULUA Hondakinaren gaineko ordezpena .....	121
IX. TITULUA Legatuak .....	122
X. TITULUA Xedatzeko askatasunaren mugapenak .....	125

## Aurkibidea

I. KAPITULUA Alarguntza-gozamena.....	125
II. KAPITULUA Senipartea.....	130
III. KAPITULUA Mantenua emateko betebeharra.....	132
IV. KAPITULUA Bigarrenez ezkondukoaren erreserba .....	132
V. KAPITULUA Ondasunak lehengoratzea.....	134
XI. TITULUA Fiduziario-komisarioak .....	134
XII. TITULUA Konfiantzazko jaraunsleak.....	137
XIII. TITULUA Albazeak.....	139
XIV. TITULUA Legezko oinordetza .....	141
I. KAPITULUA Xedapen amankomunak .....	141
II. KAPITULUA Ondasun ez-tronkalek gaineko oinordetza.....	141
III. KAPITULUA Ondasun tronkalek gaineko oinordetza .....	142
XV. TITULUA Ordezkaritza-eskubidea .....	143
XVI. TITULUA Gehiagotze-eskubidea .....	144
XVII. TITULUA Jarauntsia eta beste eskuzabaltasun batzuk eskuratzea eta horiei uko egitea.....	144
XVIII. TITULUA Jarauntsia eskatzeko akzioa .....	146
XIX. TITULUA Jarauntsia lagatzea .....	147
XX. TITULUA Jarauntsia banatzea .....	148
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	148
II. KAPITULUA Kausatzaileak egindako banaketa.....	150
III. KAPITULUA Kontulari-banatzailak egindako banaketa .....	151
IV. KAPITULUA Jaraunselek egindako banaketa .....	152
III. LIBURUA Ondasunak .....	153
I. TITULUA Gauzen jabetza eta edukitza .....	153
I. KAPITULUA Printzipio orokorrak.....	153
II. KAPITULUA Jabetzaren mugapenak.....	158
II. TITULUA Ondasun eta eskubideen erkidegoak .....	159
I. KAPITULUA Printzipio orokorrak.....	159
II. KAPITULUA Erkidego indibisioa .....	160
III. KAPITULUA Erkidego bereziak .....	162
IV. KAPITULUA "Bazkalekuak" .....	163
V. KAPITULUA "Fazeriak", "iralekuak", "kontzeju-jabaria" eta "kanpoko auzotartasunak" .....	164
III. TITULUA Zortasunak .....	166
IV. TITULUA Gozamena, biztantea, erabilera eta antzeko beste eskubide batzuk .....	170
I. KAPITULUA Gozamena .....	170
II. KAPITULUA Biztante- eta erabilera-eskubideak eta antzeko beste eskubide batzuk.....	174

## Aurkibidea

V. TITULUA Azalera-eskubidea eta antzeko beste eskubide batzuk .....	176
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	176
II. KAPITULUA Azalera-eskubidea .....	178
III. KAPITULUA Gaineraikitze- eta azpieraikitze-eskubideak .....	179
IV. KAPITULUA Besteren lurzoruan landatzeko eskubidea .....	181
VI. TITULUA Atzera-eskuratzeak eta lehentasunez eskuratzeko beste eskubide batzuk .....	181
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	181
II. KAPITULUA Grazia bidezko atzera-eskuratzea .....	183
III. KAPITULUA Atzera-eskuratze jentilizioa .....	183
IV. KAPITULUA Aukera, eroslehtasun eta atzera-eskuratze borondatezkoak .....	185
VII. TITULUA Berme errealak .....	186
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	186
II. KAPITULUA Berme fiduziariora eta erresen bermea .....	187
III. KAPITULUA Edukitzaren lekualdaketa duen bahia, hipoteka, antikesia, atxikitze eskubidea eta berme gisa egindako gordailua .....	188
IV. KAPITULUA Salmenta, atzera-eskuratze ituna berme gisa duena .....	190
V. KAPITULUA Xedatzeko debekuak .....	191
VI. KAPITULUA Salmenta egitea, jabaria erreserbatzeko itunarekin .....	191
VII. KAPITULUA Komiso-itunarekin egindako salmenta .....	193
IV. LIBURUA Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak .....	194
I. TITULUA Betebeharrak orokorrean .....	194
I. KAPITULUA Betebeharren iturriak eta efektuak .....	194
II. KAPITULUA Betebeharrak betetzea eta azkentzea .....	195
III. KAPITULUA Betebeharrak berrikustea .....	197
IV. KAPITULUA Betebeharren ez-betetzeak .....	197
V. KAPITULUA. Kaltearen ondoriozko hutsaltzea .....	198
VI. KAPITULUA Kontratu kanpoko erantzukizuna .....	200
VII. KAPITULUA II Aberaste kausagabea .....	200
VIII. KAPITULUA Betebeharrak lagatzea .....	202
II. TITULUA Estipulazioak .....	204
I. KAPITULUA Hitzemateak orokorrean .....	204
II. KAPITULUA Fidantza .....	207
III. TITULUA Kontratuak .....	208
I. KAPITULUA Mailegata eta komodatua .....	208
II. KAPITULUA Biziarteko zentsua .....	211
III. KAPITULUA Zaintza- eta gordailute-kontratuak .....	212
IV. KAPITULUA Mandatu-kontratu eta negozio-kudeaketa .....	214
V. KAPITULUA Salerosketa .....	216

## Aurkibidea

VI. KAPITULUA Atzera-eskuratze itunarekin eginiko salmenta .....	219
VII. KAPITULUA Trukea .....	221
VIII. KAPITULUA Gauzen errentamendua .....	222
Xedapen iragankorrak .....	225
Xedapen gehigarria.....	226
Azken xedapenak .....	226
<b>§2.- FORU LEGEAK.....</b>	<b>227</b>
<b>§2.1.- 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa, pertsona zaharrak familian hartzeari buruzkoa .....</b>	<b>228</b>
LEHEN KAPITULUA Pertsona helduen harrera.....	229
II. KAPITULUA Hartutakoaren eta hartzailearen arteko harremana amaitzea .....	232
Xedapen gehigarri bakarra.....	234
Azken xedapen bakarra .....	234
<b>§2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa .....</b>	<b>235</b>
ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak .....	240
I. TITULUA Pertsonak osasuna dela-eta dauzkaten eskubideak .....	243
I. KAPITULUA Pertsonen gaineko esku-hartze publikoak, osasun publikoko eta eskubideak ziurtatzeko arrazoiengatik .....	243
II. KAPITULUA Osasun laguntza eskuratzeko eskubidea .....	244
III. KAPITULUA Laguntza zerbitzuekin loturiko eskubideak.....	245
II. TITULUA Ahultasun handieneko kolektiboen eskubideak .....	247
III. TITULUA Intimitatearekin eta konfidentzialtasunarekin loturiko eskubideak .....	251
I. KAPITULUA Intimitatea.....	251
II. KAPITULUA Konfidentzialtasuna.....	251
IV. TITULUA Informazioaren eta parte-hartzearen arloko eskubideak .....	253
I. KAPITULUA Informazio orokorra.....	253
II. KAPITULUA Laguntzari buruzko informazioa .....	255
III. KAPITULUA Parte hartzea.....	256
V. TITULUA Borondatearen autonomiari buruzko eskubideak.....	257
I. KAPITULUA Hautatzeko eta baimen informatua emateko eskubidea .....	257
II. KAPITULUA Aurretiazko borondateak .....	260
III. KAPITULUA Ikerketarekin eta esperimenduzko zientifikoekin lotutako eskubideak .....	262
VI. TITULUA Osasun dokumentazioaren arloko eskubideak.....	262
I. KAPITULUA Historia klinikoa .....	262



## Aurkibidea

II. KAPITULUA Bestelako dokumentazioa .....	267
VII. TITULUA Pertsonen osasuna dela-eta dauzkaten betebeharrak .....	268
VIII. TITULUA Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako eskubide profesionalak .....	269
IX. TITULUA Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako eskubide profesionalen betebeharrak .....	270
X. TITULUA Zehapen araubidea .....	271
Xedapen gehigarriak .....	274
Xedapen indargabetzaile bakarra .....	274
Azken xedapenak .....	274
<b>§2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa .....</b>	<b>275</b>
I. TITULUA Xedapen orokorrak .....	278
II. TITULUA Pertsonen eskubideak hiltzeko prozesuan .....	280
III. TITULUA Hiltzeko prozesuan dauden gaixoei laguntza ematen dieten profesilak ...	283
IV. TITULUA Zentro eta erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek emanen dituzten bermeak .....	284
V. TITULUA Arau-hauste eta zehapenak .....	286
Xedapen gehigarriak .....	286
Xedapen iragankorra .....	287
Xedapen indargabetzailea .....	287
Azken xedapenak .....	287
<b>§2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzkoa. ....</b>	<b>288</b>
I. TITULUA Xedapen orokorrak .....	292
II. TITULUA Betebeharrak eta debekuak .....	295
III. TITULUA Identifikazioa, osasun kontrola, hilketa eta eutanasia .....	299
IV. TITULUA Lagun egiteko animalien zentroak .....	302
V. TITULUA Animalia abandonatuak, adopzioa eta katu-koloniak .....	304
VI. TITULUA Entitate laguntzaileak .....	306
VII. TITULUA Animalien Babeserako Aholku Komitea .....	307
VIII. TITULUA Animalien babesaren arloko zabalkundea eta heziketa .....	307
IX. TITULUA Ikuskatzea, zaintza eta kautela-neurriak .....	308
X. TITULUA Arau-hauste eta zehapenak .....	311
<b>§2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroako Fundazioei buruzkoa.....</b>	<b>320</b>
I. TITULUA Kontzeptua, sorkuntza eta bilakaera juridikoa .....	325
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	325

## Aurkibidea

II. KAPITULUA Eraketa .....	328
III. KAPITULUA Fundazioen aldaketa, bat-egitea, zatiketa eta azkentzea.....	330
II. TITULUA Jardunbidea eta araubide ekonomikoa .....	333
I. KAPITULUA Fundazioen gobernua.....	333
II. KAPITULUA Fundazioen jardunerako baldintzak eta araubide ekonomikoa .....	341
III. TITULUA Administrazioaren esku-hartzea .....	345
I. KAPITULUA Nafarroako Fundazioen Erregistroa.....	345
II. KAPITULUA Babesletza .....	348
III. KAPITULUA Foru Administrazio Publikoaren Fundazio Publikoak .....	351
<b>§2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko .....</b>	<b>354</b>
ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak .....	360
I. TITULUA Haur eta nerabeen eskubideak .....	364
I. KAPITULUA Printzipio orokorrak.....	364
II. KAPITULUA Eskubideak: haien ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea .....	366
III. KAPITULUA Berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea .....	376
IV. KAPITULUA Gizarte integrazioa helduaroan .....	377
II. TITULUA Antolaketa administratiboa .....	378
I. KAPITULUA Diagnostikoa, plangintza eta ebaluazioa .....	378
II. KAPITULUA Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki erakundeen eskumenak .....	380
III. KAPITULUA Familia, entitate laguntzaile eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioekiko ekintzak.....	382
IV. KAPITULUA Koordinazioa eta partaidetzako organoak.....	388
V. KAPITULUA Zehapenen araubidea.....	391
III. TITULUA Aurreneurriak .....	397
IV. TITULUA Babesa .....	403
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak .....	403
II. KAPITULUA Arrisku egoera.....	413
III. KAPITULUA Babesgabetasun egoera .....	415
IV. KAPITULUA Arrisku eta babesgabetasun egoeretan hartu beharreko babes neurriak eta neurri horiek betearazteko jarduketak .....	422
V. KAPITULUA Arreta espezializatua jokabide arazoengatik .....	469
VI. KAPITULUA Egonaldietarako, asteburuetako irteerretarako eta oporretarako zaintza eskuordetzea .....	470
VII. KAPITULUA Autonomiarako eta bizimodu independenterako prestatzeko programak .....	470
V. TITULUA Jarduketak gazteentzako justizia sisteman.....	472

## Aurkibidea

<b>§2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duena. ....</b>	<b>479</b>
I. TITULUA Xedapen orokorrak .....	481
II. TITULUA Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskubide eta erantzukizunak.....	486
I. KAPITULUA Oinarrizko eskubideak eta eskubide sortu berriak.....	486
II. KAPITULUA Osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea.....	487
III. KAPITULUA Informaziorako eta interes ekonomiko eta sozialen babeserako eskubidea.....	488
IV. KAPITULUA Babes juridiko eta administratiborako eskubidea .....	490
V. KAPITULUA Prestakuntza eta hezkuntzarako eskubidea .....	492
VI. KAPITULUA Ordezkaritza, parte-hartze eta kontsultarako eskubidea .....	494
VII. KAPITULUA Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen erantzukizuna .....	497
III. TITULUA Gatazkak auzibidetik kanpo konpontzea.....	498
I. KAPITULUA Xedapen orokorrak.....	498
II. KAPITULUA Kontsumoko bitartekaritza.....	499
III. KAPITULUA Kontsumoko arbitrajea .....	500
IV. TITULUA Ondasun eta zerbitzuen gaineko zaintza, kontrola eta ikuskapena .....	501
I. KAPITULUA Izaera orokorreko xedapenak .....	501
II. KAPITULUA Kontsumoko ikuskatzailetza .....	502
III. KAPITULUA Laginak hartzea eta analisiak egitea .....	506
IV. KAPITULUA Kautelazko neurriak .....	508
V. TITULUA Zehapen ahalmena .....	509
I. KAPITULUA Arau orokorrak.....	509
II. KAPITULUA Arau-hausteak.....	512
III. KAPITULUA Zehapenak .....	516
IV. KAPITULUA Erantzukizuna.....	519
<b>§3.- FORU DEKRETUAK.....</b>	<b>523</b>
<b>§3.1.- 303/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa, etxean bertan ematen diren zerbitzuak arautzen dituena .....</b>	<b>524</b>
<b>§3.2.- 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, aurreitazio borondateen erregistroa arautzen duena.....</b>	<b>531</b>
<b>§3.3.- 27/2021 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez sortzen eta arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra .....</b>	<b>537</b>
I. KAPITULUA. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra.....	539

## Aurkibidea

LEHEN ATALA Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren sorrera eta araubide juridikoa .....	539
BIGARREN ATALA Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren antolaketa eta funtzionamendua .....	540
HIRUGARREN ATALA Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren edukia.....	541
II. KAPITULUA Inskripzioak eta erregistroko prozedura .....	542
LEHEN ATALA Inskripzio eskaeren xedapen orokorrak.....	542
BIGARREN ATALA Inskripzio eskaera bakoitzaren berariazko beharkizunak .....	543
HIRUGARREN ATALA Inskribatzeko prozedura .....	545
LAUGARREN ATALA Inskripzioen aldaketa, baja eta ezereztea .....	547
III. KAPITULUA Erregistroaren publikotasuna eta ziurtagiriari ematea .....	549
<b>§4.- ERANSKINAK .....</b>	<b>551</b>
<b>§4.1.- 19/1975 Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioko lege batzuk aldatzen dituen.....</b>	<b>552</b>
<b>§4.2.- 38/1978 Errege Lege-dekretua, abenduaren 5koa, Nafarroako Foru Diputazio txit garaiarekin ados Nafarroako Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazioko 50. legea aldatzen duena.....</b>	<b>555</b>
<b>§4.3.- 5/1987 Foru Legea, apirilaren 1koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatzen duena .....</b>	<b>556</b>
<b>§4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzekoa.....</b>	<b>559</b>
<b>§4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa. ....</b>	<b>581</b>

## LABURDURAK

Art.	Artikulu/artikuluak
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala
NAO	Nafarroako Aldizkari Ofiziala
KZ	Kode Zibila
MK	Merkataritzako Kodea
EK	Espainiako Konstituzioa
ZK	Zigor Kodea
D	Dekretua
FD	Foru Dekretua
LegFD	Legegintzako Foru Dekretua
LD	Lege Dekretua
Xed. geh.	Xedapen gehigarria/Xedapen gehigarriak
Xed. ind.	Xedapen indargabetzailea/Xedapen indargabetzaileak
Azk. xed.	Azken xedapena/Azken xedapenak
Xed. ir.	Xedapen iragankor/Xedapen iragankorrak
ZO	Zuzenbideko oinarria
FB	Nafarroako Foru Berria
i.f.	<i>in fine</i>
L	Legea
LEL	49/2003 Legea, azaroaren 26koa, Landa-errentamenduen
HEL	29/1994 Legea, azaroaren 24koa, Hiri-errentamenduen
PZL	1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilar buruzkoa
FL	Foru Legea
NOFL	14/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa
KEBFL	7/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak Babesteari buruzkoa
HL	Hipoteka Legea
BJL	15/2015 Legea, uztailaren 2koa, Borondatezko Jurisdikzioari buruzkoa
NL	1862ko maiatzaren 28ko Legea, Notariotzari buruzkoa
LO	Lege Organikoa

## Laburdurak

LORAFNA	13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa
AEPLO	5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duena
JHL	49/1960 Legea, uztailaren 21ekoa, Jabetza Horizontalari buruzkoa.
EZL	20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa, Erregistro Zibilar buruzkoa
OHESL	28/1998 Legea, uztailaren 13koa, Ondasun Higigarriak Epeka Saltzeari buruzkoa
Zk.	Zenbakia
azk. par.	azken paragrafoa
ED	Errege-dekretua
ELD	Errege Lege-dekretua
LegED	Legegintzako Errege-dekretua
EH	Hipoteka Erregelamendua
NE	1944ko ekainaren 2ko Dekretua, Notariotzaren Erregelamenduari buruzkoa
NJANaren epaia/k	Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia/k
Karen epaia/k	Konstituzio Auzitegiaren epaia/k
KLTB	1/2020 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 5koa, Konkurtso Legearen Testu Bategina onesten duena
KEDLOTB	1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren Testu Bategina eta beste lege osagarri batzuk onesten dituena.

## **FORU BERRIAREN ITZULPENARI BURUZKO OHARRA**

Ohar-egileak:

Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak

Nafarroako Parlamentuak 2001ean argitaratu zuen lehenengo aldiz Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa. Geroztik hainbat aldiz argitaratu da, eta aldaketa ugari izan ditu.

Bereziki aipagarria da bederatzigarren legegintzaldiaren amaieran Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko Foru Legea onetsi zuela (21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa).

Bada, 21/2019 Foru Lege horren azken xedapenetako hirugarrenak honako hau ezarri zuen: “Foru lege hau argitaratzen denetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorri beharko dio, zeinaren bidez araugorputz bakarrean bilduko baitira, testu bategin modura, foru lege honen bitartez egindako aldaketen ondoren Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berria dauden lege-xedapen indardunak.”

Halatan, 2020ko ekainaren 17an, Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektu bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onestekoa. Gaur den egunean, testu hori Parlamentuko ponentzia baten eskuetan dago, lanketa-fasean.

Bitartean, eta Foru Berriaren zabalkundea egitearren, 2022ko maiatzaren 23an Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki zuen “Nafarroako Foru Berria eta Legedi Zibila” liburuaren bosgarren argitalpena egitea, Foru Berriari 2022ko abenduaren amaierara arte egin zaizkion aldaketa guztiak jasotzen dituen. Horretarako prestatlanaren ardura Nafarroako Unibertsitate Publikoko lantalde bati eman zion, María Luisa Arcos, Enrique Rubio eta Leyre Elizari jaun-andreek osatua.

Euskarazko testuari dagokionez, Foru Berriaren testu eguneratu hori apailatu eta argitaratzearen abaguneari heldu nahi izan zaio arau-eguneraketa hutsaz haragoko aldaketak egiteko, euskarazko behialako testua hobetzea xede. Asmoa da hobetze-lan horren emaitza dugun testu berri hau erabiltzea etorkizuneko argitalpen ofizialetan.

Eranskinetan, berriz, apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea bere horretan emana dago; hots, argitaratzean izan zuen testuarekin.

## **FORU BERRIA ALDATU DUTEN ARAUEN ZERRENDA**

1. 19/1975 Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralari buruzko Konpilazioko lege batzuk aldatzen dituena. 7. EAO, 1978-01-08koa.
2. 38/1978 Errege Lege-dekretua, abenduaren 5koa, Nafarroako Foru Diputazio txit garaiarekin ados Nafarroako Zuzenbide Pribatu Foralari buruzko Konpilazioko 50. legea aldatzen duena (291. EAO, 1978-12-06koa).
3. 5/1987 Foru Legea, apirilaren 1koa, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatzen duena (41. EAO, 1987-04-06koa; akats-zuzenketa, 56. EAO, maiatzaren 6koa).
4. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa (84. NAO, 1990-07-13koa).
5. 6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzkoa(82. NAO, 2000-07-07koa; akats-zuzenketa, 118. NAO, irailaren 29koa).
6. 10/2016 Foru Legea, uztailaren 1koa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko Legezko Oinordetzaren gaineko Araubidea Eguneratzeari buruzkoa (136. NAO, 2016-07-14koa).
7. 9/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa Seme-alabatasunari dagokionez aldatzekoa (98. NAO, 2018-05-23koa).
8. 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzekoa.(74. NAO, 2019-04-16koa).
9. 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa (250. NAO, 2022-12-15koa).



## **ALDAKETAK IZAN DITUZTEN FORU BERRIKO ARAUEN ZERRENDA**

Aldatutako arau bakoitzaren aldamenean ageri diren zenbakiek adierazten dute zer xedapenen bitartez egin den aldaketa edo gehikuntza, aurreko zerrendan zehazten direnetatik.

1. legea	8	31. legea	8
2. legea	8	32. legea	8
3. legea	8	33. legea	8
4. legea	8	34. legea	8
5. legea	8	35. legea	8
6. legea	8	36. legea	8, 9
7. legea	8	37. legea	8
10. legea	8	38. legea	8
11. legea	8	39. legea	8
12. legea	8	40. legea	8
13. legea	8	41. legea	8
14. legea	8	42. legea	8
15. legea	8	43. legea	4, 8
16. legea	8	44. legea	8, 9
17. legea	8	45. legea	8, 9
18. legea	8	46. legea	8
19. legea	8, 9	47. legea	3, 8
20. legea	8	48. legea	3, 8
21. legea	8, 9	49. legea	8, 9
22. legea	8	49. bis legea	9
23. legea	8	50. legea	2 (I. p.), 3 (II. p.), 8
24. legea	8	51. legea	8
25. legea	8	52. legea	8, 9
26. legea	8	53. legea	1, 3, 8
27. legea	8	54. legea	1, 3, 8, 9
28. legea	8	55. legea	1, 3, 8, 9
29. legea	8	56. legea	1, 8, 9
30. legea	8	57. legea	1, 8, 9

Aldaketak izan ditzuten Foru Berriko arauen zerrenda

58. legea	1, 8	102. legea	8
59. legea	1, 8	103. legea	3, 8
60. legea	1, 8	104. legea	3, 8, 9
61. legea	1, 8	105. legea	3, 8, 9
62. legea	1 (I. p.), 5 (II. p.), 8	106. legea	8
63. legea	1, 3, 8	107. legea	3, 8
64. legea	3, 8, 9	108. legea	8
65. legea	3, 8	109. legea	3, 8
66. legea	3, 8	110. legea	8
67. legea	3, 8, 9	111. legea	8
68. legea	1, 3, 8	112. legea	8
69. legea	3, 7, 8	113. legea	8
70. legea	3, 7, 8	114. legea	8
71. legea	3, 7, 8, 9	115. legea	8
72. legea	3, 7, 8	116. legea	3, 8
73. legea	3, 8	117. legea	8
74. legea	3, 8	118. legea	8
75. legea	8, 9	119. legea	8
76. legea	1, 3, 8, 9	120. legea	3, 8
77. legea	8	121. legea	1, 3, 8
78. legea	3, 8, 9	122. legea	3, 8
79. legea	1, 8	123. legea	8
80. legea	3, 8	124. legea	3, 8
81. legea	3, 8	125. legea	8
82. legea	3, 8	126. legea	1, 3, 8
83. legea	3, 8	127. legea	3, 8
84. legea	3, 8	128. legea	8
85. legea	3, 8	129. legea	8
86. legea	3, 8, 9	130. legea	8
87. legea	3, 8	131. legea	8
88. legea	3, 8	132. legea	8
89. legea	3, 8	133. legea	8
90. legea	3, 8	134. legea	8
91. legea	3, 8	135. legea	8
92. legea	8	136. legea	8
93. legea	8	137. legea	8
94. legea	3, 8, 9	138. legea	3, 8
95. legea	3, 8	139. legea	8
96. legea	8	140. legea	8
97. legea	3, 8	141. legea	8
98. legea	8	142. legea	3, 8
99. legea	8	143. legea	8
100. legea	8	144. legea	8
101. legea	8	145. legea	8

Aldaketak izan ditzuten Foru Berriko arauen zerrenda

146. legea	8	206. legea	8
147. legea	8	209. legea	3
148. legea	8	210. legea	8
149. legea	8	213. legea	8
150. legea	8	214. legea	8
151. legea	8, 9	215. legea	8
152. legea	8	222. legea	8
153. legea	3, 8	223. legea	8
154. legea	3, 8, 9	224. legea	8
155. legea	3, 8	227. legea	8
156. legea	3, 8	230. legea	8
157. legea	3, 8	233. legea	3
158. legea	8	236. legea	8
159. legea	8	238. legea	8
160. legea	8	240. legea	8
161. legea	8	243. legea	8
162. legea	8	245. legea	8
163. legea	8	248. legea	8
164. legea	8	249. legea	8
167. legea	8	250. legea	8
169. legea	8	252. legea	8
170. legea	8	253. legea	3, 5 (II. p.), 8
171. legea	8	254. legea	3, 8
173. legea	8	255. legea	3, 8
175. legea	8	256. legea	8
178. legea	8	257. legea	3, 8, 9
180. legea	3, 8	258. legea	8
182. legea	8	259. legea	3, 8
184. legea	3, 8, 9	260. legea	8
185. legea	8	261. legea	8
186. legea	8	262. legea	3, 8
187. legea	8	263. legea	8
188. legea	8	264. legea	3, 8
189. legea	8	266. legea	8
190. legea	8	267. legea	8
191. legea	8	268. legea	3, 8
192. legea	8	269. legea	3, 8
193. legea	8	270. legea	3, 8
198. legea	8	271. legea	8
199. legea	8	272. legea	3, 8
200. legea	8	273. legea	8
201. legea	3, 8	274. legea	3, 8
202. legea	8	275. legea	3, 8
204. legea	8, 9	276. legea	3, 8

Aldaketak izan ditzuten Foru Berriko arauen zerrenda

277. legea	3	351. legea	8
278. legea	3	354. legea	8
279. legea	3, 8	356. legea	8
280. legea	8	357. legea	8
281. legea	8	359. legea	8
283. legea	8	367. legea	8
284. legea	3, 8	371. legea	8
285. legea	8	374. legea	8
286. legea	8	376. legea	8
287. legea	8, 9	377. legea	8
288. legea	8	379. legea	8
296. legea	8	382. legea	8
297. legea	3, 8	383. legea	8
298. legea	8	384. legea	8
301. legea	3	387. legea	8
302. legea	3, 8	388. legea	8
303. legea	3, 8	392. legea	8
304. legea	3, 5 (5. p.), 6 (7. p.), 8	394. legea	8
306. legea	8	395. legea	8
307. legea	3, 8	396. legea	8
308. legea	3	397. legea	8
309. legea	8	398. legea	8
318. legea	8	400. legea	8
319. legea	8	402. legea	8
320. legea	8	403. legea	8
321. legea	8	404. legea	8
324. legea	8	405. legea	8
326. legea	8	406. legea	8
328. legea	8	408. legea	8
329. legea	8	410. legea	8
330. legea	8	414. legea	8
331. legea	3, 8	415. legea	8
336. legea	8	417. legea	8
339. legea	8	418. legea	3, 8
340. legea	3, 8	423. legea	8
341. legea	5, 8	424. legea	8
342. legea	8, 9	425. legea	8
343. legea	8	426. legea	8
344. legea	3	427. legea	8
345. legea	3, 8, 9	428. legea	8
346. legea	8	432. legea	8
348. legea	8	436. legea	8
349. legea	8	446. legea	8
350. legea	8	451. legea	8

Aldaketak izan ditzuten Foru Berriko arauen zerrenda

453. legea	3	529. legea	8
458. legea	8	530. legea	8
460. legea	8	531. legea	8
461. legea	8	532. legea	8
463. legea	8	533. legea	8
464. legea	8	534. legea	8
469. legea	8	535. legea	8
471. legea	8	536. legea	8
472. legea	8	537. legea	8, 9
475. legea	8	538. legea	8
477. legea	8	539. legea	8
480. legea	8	540. legea	8
483. legea	8	541. legea	8
487. legea	8	542. legea	8
488. legea	8	543. legea	8
489. legea	8	544. legea	8
490. legea	8	545. legea	8
491. legea	8	546. legea	8
492. legea	8	547. legea	8
493. legea	8	548. legea	8
494. legea	8	549. legea	8
495. legea	8	550. legea	8
496. legea	8	551. legea	8
497. legea	8	553. legea	8
498. legea	8	554. legea	8
499. legea	8	563. legea	8
500. legea	8	565. legea	8
501. legea	8	566. legea	8
502. legea	8	567. legea	8
503. legea	8	569. legea	8
504. legea	8	571. legea	8
505. legea	8	572. legea	8
506. legea	8	573. legea	8
507. legea	8	574. legea	8
508. legea	8, 9	575. legea	8
511. legea	8	576. legea	8
513. legea	8	577. legea	8
514. legea	8	578. legea	8
516. legea	8	579. legea	8
518. legea	8	580. legea	8
520. legea	8	581. legea	8
525. legea	8	582. legea	8
527. legea	8	583. legea	8
528. legea	8	584. legea	8

Aldaketak izan ditzuten Foru Berriko arauen zerrenda

585. legea	8	594. legea	8
586. legea	8	596. legea	3
587. legea	8	Xed. geh.	3
588. legea	8	1. azken xed.	3
589. legea	8	2. azken xed.	3
593. legea	8	6. xed. iraga.	9

## **§1.- 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioa onesten duena**

(EAO, 57-63. zk., 1973ko martxoaren 7, 8, 9, 10, 12, 13 eta 14koak; akats-zuzenketa, EAO, 129. zk., 1974ko maiatzaren 30ekoa)

Justizia ministroak, Foru Diputazioaren ekimenez, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioaren testua igorri dit, eta horrekin amaitzen da Espainiako Foru Konpilazioen prozesua, mila bederatziehun eta berrogeita zazpiko maiatzaren hogeita hiruko Dekretuaren bitartez hasia. Hori horrela, Estatuko Lege Organikoko lehen xedapen iragankorrak ematen dizkidan eskudantziak baliatuz,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.- Jarraian ematen den testua onesten da, eta indarduntzat aitortzen da bertan jasotako Nafarroako Zuzenbide Zibil Forala. Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazio gisa hartzen du indarra.

Hala xedatzen dut Lege honen bidez, Madrilen mila bederatziehun eta hirurogeita hamahiruko martxoaren 1ean emandakoa.

Francisco Franco

## **NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBIL FORALAREN KONPILAZIOA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazio honekin buru ematen zaio Espainiako foru zuzenbideen bildumaratzeari, azken hogeita bost urte honetan zehar eginiko lan ahalegiuaren uzta den horri. Jadanik 1946an, gaudituta egonik harako aurreiritziak, eragotzi egiten zutenak nazio-batasun politiko perfektu baten barranean harmoniaz integraturiko erregio-zuzenbideen ugaritasuna bezain agerikoa eta naturala den egitate historiko bat esanbidez aitortzea, bultzada ofizial tinkoa eman nahi izan zen, Zaragozan egin zen Zuzenbide Zibilaren Biltzarrean, gure Aberriko zuzenbide-pluraltasuna lege bidez formaliza zedin. Horren ondotik, mila bederatziehun eta berrogeita zazpiko maiatzaren hogeita hiruko Dekretuaren bidez, agindu zen tokian tokiko konpilazio-proiektuak idatzi beharko zituzten foru-legelarien batzorde desberdinak eratu zitezten. Foru-kodeketari buruzko egitasmo horrek bazeukan ohartemana Nafarroako araubide juridikoaren berezitasuna; horregatik, mila bederatziehun eta berrogeita zortziko otsailaren hamarreko Aginduak Foru Diputazioari esleitu zion kasuko batzordea izendatzea, zeinaren burutza Iruñeko Lurralde Entzutegiko lehendakariarentzat izanen baitzen. Beste foru-erregioekiko desberdintasun hori mila zortziehun eta berrogeita bateko abuztuaren hamaseiko Lege Itunduaren ondorio huts-hutsa besterik ez zen. Lege horrek beharrezkotzat ezartzen zuen hitzarmen-prozedura, Nafarroan lege-aldaketak egitekoak baziren.

Mila bederatziehun eta berrogeita hemeretzitik mila bederatziehun eta hirurogeita zazpira bitarteko urteetan Bizkaiko eta Arabako, Kataluniako, Balearretako, Galiziako eta Aragoiko konpilazioak formalki argitaratuak izan ondoren, Nafarroakoa baizik ez zen geratzen. Jadanik mila bederatziehun eta berrogeita hemeretzian, foru-bildumaratze proiektu batek lehenbiziko oinarri gisa balio izan zuen foru-erregio horretako legelariak azterlan berri bat egin ahal izateko. Etenik gabeko langintza baten emaitza gisa, mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikan "Bilduma" edo "Nafarroako Foru Berri" bat modu pribatuan idatzita edukitzea lortu zen, zeina Foru Diputazioak izendaturiko Batzorde Ofizial Konpilatzaileak, mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikako ekainaren hogeita hamarrean hartutako erabakiz, aurreproiektu-izaerara jaso baitzuen. Foru Diputazio txit Garaiak, bestalde, abuztuaren 4ko "Aldizkari Ofizialean" aurreproiektua argitaratzeko agindu zuen, urte bereko urriaren hamabostera bitarteko informazio-epea irekitzeaz batera. Aurreproiektuari hamalau zuzenketa besterik ez zitzaion aurkeztu, lege-kopuru oso urri bati buruzkoak; aitortu egin da, horrenbestez, testu hori Nafarroan egiazki hezuramituriko zuzenbidearen araberakoa zela.

Aurreproiektuari behar bezalako onespén-bidea ematearren, Nafarroako araubide itunduaren ildotik, mila bederatziehun eta hirurogeita hamaikako azaroaren hogeita lauko eta abenduaren seiko aginduen bidez hautatu ziren Kodegintzarako Batzorde



## Zioen azalpena

Orokorren atal berezi bateko kideak, zeregintzat zeukatenak testu hura aztertzea, eta iriztea ea onartzeko modukoa ote zen kasuko hitzarmenaren xede izateko. Urtebetez, bi batzordeak –kode-batzorde berezia eta Nafarroako Konpilazioa egitekoa– elkarlan estuan aritu dira, bostehun eta laurogeita hamasei legez osaturiko proiektuaren testuategina finkatzeko. Testu horretan, zenbait oker-zuzenketa ez ezik, hobekuntza batzuk ere nabaritzen dira aurreproiektuaren aldean, zeina seihun eta hamasei legez osatuta baitzegoen. Honetara ezkerro, argitu behar da Konpilazio honetako xedapenei "lege" deitzea Nafarroako legegintza-tradizioari eutsi nahi izatearen ondorio dela.

Aurreproiektuaren testuari bost xedapen iragankor eta bi azken xedapen erantsi zitzaizkion. Lehenengoetan, konpilazio hau aldarrikatu baino lehenagotik sorturikoak diren egoera eta harremanak arautzen dira; eta azken xedapenetan zehazten da etorkizunean izan daitezkeen lege-aldaketak gauzatzeko prozedura, Lege Itunduko sistemari jarraikiz, eta Batzorde Konpilatzaileari izaera egonkorra ematen zaio zuzenbide bildumaratuaren aldzikako informazioarako eta balizko aldaketarako.

Konpilazio hau Nafarroan egiazki indardun den zuzenbide zibilaren erakusgarri argitatz aurkezten da, eta ez, ordea, bitxitasun juridiko gutxi batzuen idazpen soiltzat; horrenbestez, Nafarroako zuzenbidearen ibilbide historiko jarraituaren ildoan, zilegitasunez jasotzen du "Nafarroako Foru Berria" izena. Alde batetik bertan behera utzi baditu ere, erabilerarik ezagatik, Nafarroakoak nahiz erromatar zuzenbidetikoak diren zuzenbide-instituzio ugari –Konpilazioak ordezko zuzenbidetzat dauka erromatar zuzenbidea–, asmatu du beste batzuk bereganatzen, ohitura-instituzioak nahiz egunerokotasunetik hartuak direnak eta gaurkotasun handiko soluzio juridikoak eskaintzen dituztenak, betiere doktrina zorrotz batek onduak, eta Nafarroako zuzenbidearen sistema orokor berekiarekin zentzuz harmonizatuak. Eta ez da muntarik gabekoa norik eta, hain zuzen, Espainiaren batasun politikoa sentitu eta defendatu duen erregio batek jakin izana bere zuzenbide zibil propioaren formulazio bat herabetasunik gabe jendaurreratzen, halatan aldarrikaturik foru-ordenamendu guztiek gure Aberriko zuzenbidearen aurrerabide adosturako bide bezala duten sasoi ederra.

Baldin eta, asmoaren zabala zabal, bildumaren luzera ez bada gehiegizkoa suertatu, hori lortu da berariaz uko eginez legearekin baino gehiago doktrinarekin zerikusia duten hainbat esapideri, eta iruzkingile nahiz epaileen doktrinaren bidez esanbideratu beharrekoak izanen diren kasuistika jakin batzuei.

Konpilazio hau hiru liburutan zatiturik dago, horien aurretik beste bat ere, atarikoak, dagoela. Lehenbiziko liburuak *personak* eta *familia* arautzen ditu, halatan elkarlotuz nafar ikusmolde tradizionalarentzat funtsezkoa dena, nortasunaren eta ordena sozial osoaren oinarritzat jotzen baititu familiaren egitura eta zilegitasuna eta etxearen batasuna. Lehen titulua pertsona juridikoei buruzkoa da, eta bertan jasotzen dira nortasun juridikoa tradizioz aitortuta daukaten nafar instituzioak; ondoren, bigarren tituluan jorratzen da legeriak alboratuta daukan arren ezin saihestuzko gaurkotasuna daukan errealitate bat: nortasun juridikorik gabeko subjektu kolektiboak. III. eta IV. tituluak arautzen dute *persona individualen* eta ezkontideen gaitasun orokorra, eta bereziki zehazten dituzte emakumezkoak senar-baimenik gabe egin ditzakeen egintzak (berrogeita hamazazpigarren legea).

V. tituluak errealismoz zehazten du guraso-botere kontzeptua, jada oso aldendua erromatar kontzeptutik, eta ezkon seme-alaben nahiz ezkontzaz kanpokoen posizioa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Jarraian (IV. titulua), adopzioa eta umeordetzea tratatzen dira, Nafarroan gaurkotasan handia duten instituzioak hain zuzen, eta Nafarroako zuzenbideak ahalbidetzen duen luze-zabalean arautzen da adoptatzailearen eta adoptatuaren arteko oinordetza-ituna.

Hurrengo tituluetan heltzen zaie familiaren baitan ezkontideen dohaintza eta kontratuak arautzen dituen ondasun-araubidearen oinarritzko printzipioei (VII); gero, ezkonkapitulazioei (VIII), zeinak, Nafarroako zuzenbidearen arabera, edozein unetan izan baitaitezke aldatuak; ezkontzako ondasun-araubideari (IX), batez ere "konkisten" araubide ordezkoiari (I. kapitulua), zeina familia-sozietate gisakoa izan baitaiteke (II. kapitulua); erkidego unibertsalari (III. kapitulua), eta ondasun-banaketako araubideari (IV. kapitulua). Nafarroako zuzenbidearentzat garrantzi bereziko da bigarren edo gehiagogarren ezkontzako ondasun-araubidea (X. titulua), zuzenbide horrek lehenagoko ezkontzetako seme-alaben alde egiten duen defentsa tinkoa dela-eta, zeinak zinez murrizten baitu oinordetza-zuzenbideko oinarritzko printzipio gisa aitortzen den xedatze-askatasuna.

XI. tituluaren propter nuptias dohaintzak lantzen dira, eta XII.ean, ezkonsaria eta erresak. Amaitzeko, XIII. tituluak familia-erkidegoen desegitea du aztergai; XIV.ak, Etxeharrerari eta zuzkidurei buruzko nafar araubide peto-petoa, eta XV.ak, ahaide nagusien instituzioa –azken horien esku-hartzeari buruzko erreferentzia zehatzagoa egiten dute Konpilazio honetako beste lege askok–.

Bigarren Liburuan dohaintzak eta oinordetzak elkarloturik agertzen dira. Elkarlotura hori ez bairik gabekoa da Nafarroako zuzenbidearentzat, zeinak eskuzabaltasun-tankera eta modalitateen aukera hagituz joria eskaintzen baitu, hasi inter vivos dohaintzatik eta solemnitare handieneko testamentu aldebakarreraino, tartean ezkon-kapitulazioak, oinordetza-itunak, ermandeko testamentuak eta abar direla, etenik gabeko ildo batean. I. tituluak funtsezko printzipioak jasotzen ditu, eta Nafarroako zuzenbidearen zerizanaren erakusgarririk bizienetako bat eskaintzen du, jasorik testamentua egiteko askatasuna, dohaintza-hartzaile unibertsala jaraunsletzat hartua izatea, oinordetza-fiduzia, post mortem emandako boterea, etorkizuneko jaraunspenari uko egitea eta abar. Gero, II. tituluaren inter vivos dohaintzak eta horien errebokagarritasunaren auzia jorratzen dira; III.ean, mortis causa dohaintzak; IV.ean, oinordetza-itun edo -kontratuak, zeinak instituzio bereziki landua baitira Nafarroako juristen artean; V.ean, testamentua eta horren forma desberdinak, kodiziloak barne (III. kapitulua), testamentu-memoriak (IV. kapitulua) eta, bereziki, Nafarroan oso usua den ermandeko testamentua (V. kapitulua), nafarrek are atzerrian ere eman dezaketena. Mortis causa xedapenen deuseztasun eta eragingabetasuna lantzen ditu VI. tituluak; eta VII.ak eta VIII.ak, hurrenez hurren, jaraunse-izendapena eta ordezen arrunt (II. kapitulua) eta fideikomisoak (III. kapitulua) jorratzen dituzte. Horren modalitateetako bat da "ordezen pupilarra", Nafarroan egiten den modukoa: 227. legea, eta hondakinaren gaineko ordezepena (IV. kapitulua).

Legatuak IX. tituluaren tratatzen dira, zeinei parekatzen baitzaizkie erromatar zuzenbidekoak diren titulu partikularreko fideikomisoak. Eta X.ean zehazten dira Nafarroako testamentugintza-askatasunaren mugak; hots, fidelitasun-gozamena (I. kapitulua), zeina Nafarroan oinordetza-instituzio bat baita, ez ordea ezkontzako ondasun-araubideko bat, halako moldez non kausatzaileak bere heriotza-unean berea zuen lege pertsonalaren bitartez zehazten baita. Instituzio horrek Nafarroan

## Zioen azalpena

horrenbesteko indarra du non beste edozein gozamen-motatarako eredu nagusitzat har baitaiteke. Gero, ondorengo ahaideen seniparte formalak (II. kapitulua) errealitatean esan nahi duena da xedatzaileari inposatzen zaiola ezin preteritzea; izan ere, ez dauka ondare-eduki galdagarririk. Hori dela-eta, komenigarritzat jo da foru-formula zaharrari eustea (bost alokairu «feble» ondasun higigarriei dagokienez, eta herri-mendietako erregu bat lur, higiezinari dagokienez), hobeki agerrarazten duelakoan seniparte-instituzio horren izaera hertsiki formala. Mugapen horri gehitzen zaizkio munta handiagoko beste hauek: aurreko beste ezkontza batzuetako seme-alaben eskubideena (III. kapitulua), erreserbak (IV. kapitulua), eta ondasun-lehengoratzeari (V. kapitulua). Hurrengo tituluetan jasotzen da Nafarroan indarrean dagoen zuzenbidea, mortis causa xedapenak betetzeko bitartekari diren honako kargudun hauei buruzkoa: fiduziario-komisarioak (XI. titulua), konfiantzazko jaraunsleak (XII. titulua) eta albazeak (XIII. titulua).

Oinordetzari dagokionez borondateak duen garrantzi handia dela-eta, ulertzekoa da munta askoz txikiagokoa izatea, Nafarroan, legearen aginduz aplikatzekoa izateagatik "legezko" deitzekoa den oinordetza, eta ez "legitimo" izenekoa, ezen azken horrek aditzera emanen luke oinordetzarako deiak baduela berezkotasun bat, Nafarroan ez daukana. Era berean, ez da "testamentugabe" deitzekoa, zeren eta, alboratua izan baitaiteke, testamentuzkoaren bitartez ez ezik, borondatezko oinordetzaren beste modalitate batzuen bidez ere. Legezko oinordetza horretako hurrenkera antolatzen du XIV. tituluak, bereziki trataturik ondasun tronkalen gaineko oinordetza (III. kapitulua) eta ez-tronkalen gainekoa (III. kapitulua<sup>1</sup>), eta ezarriarik ezen alboko ahaideen gainetik lehentasuna duela ezkontideak, erromatar zuzenbidean ez bezala.

Ordezkapen-eskubideak, zeinaren bitartez ondorengo ahaideak subrogatu egiten baitira lehenagoko heriotzagatik edo gaitasun ezagatik eskurapenera iritsi ez zen aurreko ahaide baten eskubidean, gainditu egiten du, Nafarroan, legezko oinordetzaren esparrua (XV. titulua), eta horrenbestez, asko murrizten da gehiagotze-eskubidearen norainokoa (XVI. titulua).

Bigarren Liburu honetako azken tituluak dira jarauntsia eskuratzeari eta horri uko egiteari buruzkoa (XVII. titulua), hereditatis petitio-ri buruzkoa (XVIII. titulua), jarauntsia lagatzeari buruzkoa (XIX. titulua) eta hori banatzeari buruzkoa (XX. titulua). III. Liburua da zabalena, barne hartzen baitu eskubide errealei (I-VII. tituluak) eta betebeharrei (VIII-XI. tituluak) buruzko gai guztia. Ondasunen jabetzari eta edukitzari dagokienez (I. titulua), azpimarratzekoa da etxaldeetako fruituak agerikoak direnetik aurrera eskuratzeari araubide berezia (354. legea). II. Tituluan ("ondasun eta eskubideen erkidegoak") gardenki adierazten da modalitate berezien araubidea; horiek, usu agertzen diren arren, ez dira beti egokiro interpretatzen; adibidez, bazkalekuak (IV. kapitulua), fazeriak, iralekuak, kontzeju-jabaria eta kanpoko auzotasunak (V. kapitulua). Batzuetan jurisprudentziak iradoki izan duen bezala, eskubide horiek zortasun "personal" gisa oker taxutuak izateak itxuragabetu egiten zuen haien izaera bera, eta luditzea eragozten zuen. Doktrinari finenaren ildotik, zortasuntzat finka-zortasunak bakarrik jotzen dira (III. titulua) –Nafarroan horiek betidanik izan dituzten berezitasun

---

<sup>1</sup> Erreferentzia hori II. kapitulari eginikotzat ulertu behar da.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

batzuk ere jasotzen dira-, eta, eskubide erreal berezizat, gozamerna, biztantzea, erabilera, eta antzeko beste batzuk (IV. titulua).

Araupetze hagitz lagungarria da "Azalera-eskubidea eta antzeko beste batzuk" izeneko (V. titulua), eskubide horien aplikazioa berretu egin baita hirigintza-garapenean. Konpilazioak antolamendu berri bat eskaintzen du, egungo jardunbidearen isla garbia dena, *gaineraikitze- eta azpieraikitze-gaietan* (III. kapitulua).

VI. tituluak antolatzen du atzera eskuratzeko eskubideari eta lehenatasunez eskuratzeko beste eskubide batzuei buruzko guztia. Hemen konplexutasuna handiagoa da, suertatzen diren aldibereko eskubide mota desberdinen eraginagatik.

Azkenik, VII. tituluak berme errealak ditu langai, barne harturik berme gisako atzera-eskuratze itunarekin egindako salmenta (IV. kapitulua), xedatzeko debekuak (V. kapitulua), jabari-erreserbadun salmenta (VI. kapitulua) eta komiso-itunarekin egindako salmenta (VII. kapitulua).

Betebeharren sistematikaren printzipio orokorrak hirugarren liburuko VIII. titulan daude jasota. Lehenik eta behin bereizten dira hitzemate aldebakarrak, erromatar "estipulazio" izenez deituak (IX. titulua), eta horiei gehitzen zaie antzeko egintza den fidantza (II. kapitulua); bigarrenik, mailegu-mota desberdinak (X. titulua) eta kontsignazio-zentsua (XI. titulua); eta, hirugarrenik, zaintza-kontratua (XII. titulua), mandatu-kontratua (XIII. titulua), salerosketa- eta truke-kontratua (XIV. titulua) eta errentamendu-kontratua (XV. titulua, Konpilazioko azkena).

Horrela, bada, bazter uzten da "kuasikontratu" kategoria, eta horren ordez aberaste kausagabea jorratzen da (IV. kapitulua) betebeharrei buruzko titulu orokorrean (VIII. titulua), eta negozio-kudeaketa, mandatuaren antzeko figura gisa (XIII. tituluko 560 eta 561. legeak). Aipatu beharrekoa da halaber zerbitzu-errentamenduaren figura jada gainditua: lan-kontratuaren araubidearen estaldurapean geratzen ez den heinean, mandatuaren erregeletara lotzen da (562. legea), halatan bazter utzirik gaur egun antzua den autoreen arteko eztabaida bat, aspalditik ahaztuta egon behar lukeena.

Atariko liburua hiru liburu hauen egitura organikoaren buru gisa ageri da. Dituen berrogeita bat legeak lau titulutan taldekatzen dira: iturriak (I. titulua), pertsona fisikoen eta juridikoen foruduntasuna (II. titulua), eskubideen egikaritzea (III. titulua) eta akzioen preskripzioa (IV. titulua). Bereziki aipatu behar da lehenbiziko iturritzat aitortua dela ohitura (2. legea), are idatzizko zuzenbidearekin kontraesanean dagoenean, non eta ez den morala edo ordena publikoa urratzen (3. legea). Nahiz eta badirudien aitorten horrek Konpilazioaren beraren indarra ahultzen duela, ezinbestean horretara behartzen du Nafarroako zuzenbide propioak, eta halatan, ordenamendu ireki gisa agertzen da; hain zuzen, etorkizunean praktikaren indarrez garatua izateko irekia. Horrek ez du eragozten, alabaina, Nafarroako ordezko zuzenbide partikularren integrazioa beti egitea bertako tradizio juridikoari helduz –zeina Nafarroako antzinako legeek eta Erromatar zuzenbideak osatua baitago–, gaur egungo jardunean zuzenbide horretatik hartu diren instituzioei dagokienez. Hain zuzen, tradizio horren betegarri dira, kasua denean, Espainiako Kode Zibila eta lege orokorrak (6. legea).

Bestalde, gogoan izan behar da Konpilazio honetako legeak eta Nafarroan indarrean dauden lege guztiak normalki hautazkoak direla (8. legea), zeren eta Nafarroako zuzenbide osoak printzipio eta oinarri nagusi baitu borondate pribatuaren gailentasuna, "paramiento fuero vienze" antzinako erregelari adierazten den moduan (7. legea).

## Zioen azalpena

Nahiz eta kodegintza ezin den inoiz ere azken emaitzat hartu, baizik eta zuzenbidea garatzeko prozesutzat, Konpilazio honekin bete egiten da Nafarroako zuzenbidea argitu eta adierazpide finduagoz berriztatzeko asmoa. Izan ere, berariaz izendaturiko jurista batzuek proiektuaren testua arretaz azterturik, eta hari aurkeztu zitzaizkion zuzenketei abegi egin eta gero, esan daiteke testua bat datorrela zuzenbide indardunarekin.

## **ATARIKO LIBURUA<sup>2</sup>**

### **I. TITULUA NAFARROAKO ZUZENBIDEAREN ITURRIAK**

#### **1. LEGEA**

##### ***Konpilazioa***

Zuzenbide pribatu foralaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berri honek jasotzen du bere onespene-egunean antzinako erresumaren zuzenbidetik indarrean dirauen zuzenbide zibila, tradizioarekin eta bertako ohituren, foruen eta legeen betetze praktikoarekin bat etorritz. Nafarroako errealitate sozialaren arabera eguneratu da, eta harmonizatu da Nafarroako Parlamentuak bere eskumen historikoaz baliatuz emandako gainerako arau zibilekin.

##### ***Nafarroako tradizio juridikoa***

Nafarroako Zuzenbide Pribatu Foralaren esanahi historikoaren eta iraupenaren adierazpen gisa, jatorria zuzenbide horretan duten erakundeei dagokienez Konpilazioko legeen interpretazio eta integrazioa egiterakoan lehenespena dute honako hauek, eta hurrenkera honetan: Bilduma Berri-berriaren ondoren Gorteetan egindako legeek; Bilduma Berri-berriak; Foruaren Hobetzeek; Nafarroako Foru Orokorrak; eta Zuzenbide Erromatarrak, hartua izan den heinean.<sup>3</sup>

#### **2. LEGEA**

##### ***Iturri-hurrenkera***

Nafarroan, zuzenbide-iturrien hurrenkera honako hau da:

1. Nafarroako errealitate sozialak ezarritako ohitura.
2. Konpilazio honetako legeak eta Nafarroako lege zibilak.
3. Nafarroako Zuzenbidearen printzipio orokorrak.<sup>4</sup>

#### **3. LEGEA**

##### ***Ohitura***

Nafarroako errealitate sozialean ezarri eta errotutako ohitura, legez kontrakoa denean ere, gailendu egiten zaio idatzizko zuzenbideari, baldin eta ez badoa moralaren edo ordena publikoaren aurka. Tokiko ohiturak lehentasuna dauka ohitura orokorraren aldean.

Ohitura ez baldin bada nabaria, auzitegietan alegatu eta frogatu beharko da.<sup>5</sup>

---

<sup>2</sup> LORAFNAko 48, 61. art.

<sup>3</sup> EK-ko 149.1.8. art., 1. xed. geh.; KZko 3. art. NJANaren 2/2021 epaia, maiatzaren 19koa; 9/1999 epaia, ekainaren 28koa.

<sup>4</sup> EK-ko 149.1.8. art., 1. xed. geh.; FBko 3, 4, 6, 7. legeak; KZko 1, 3. art.; MK-ko 2. art. Ikus Haur eta nerabeei arreta eta babesaren eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 2.2. xed. geh. NJANaren 10/2006 epaia, maiatzaren 17koa.

<sup>5</sup> KZko 1.3. art.; PZLko 281.2. art. NJANaren 42/2003 epaia, irailaren 30ekoa.

#### 4. LEGEA

##### *Printzipio orokorrak*

Printzipio orokorrak dira Nafarroako ordenamendu zibil osoa itxuratzen dutenak; besteak beste, historiko direnak, bai eta ordenamendu horren xedapenetatik eratorzen direnak ere.<sup>6</sup>

#### 5. LEGEA

##### *Analogia*

Zuzenbide Pribatu Foralean berariaz aurreikusi gabeko kasuetan, haren hutsuneak bete beharko dira haren xedapenen hedarazpen analogiko arrazionala eginez.

##### *Presuntzioak*

Konpilazio honetan ezarritako presuntzioak “*iuris tantum*” erakotzat hartuko dira, salbu eta legeak espresuki baztertzen duenean aurkako froga oro.<sup>7</sup>

#### 6. LEGEA

##### *Lehentasuna eta ordezkotasuna*

Kode Zibila eta Espainiako lege orokorrak ordezko zuzenbide izanen dira Konpilazio honetarako eta 1. legeak azaldutako Nafarroako tradizio juridikorako.<sup>8</sup>

#### 7. LEGEA

##### *“Paramientoa”*

“*Paramiento fuero vienze*” edo “*paramiento ley vienze*” printzipioari jarraikiz, borondate aldebakarra edo kontratuzkoa gailendu egiten zaio edozein zuzenbide-iturriri, salbu eta moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa denean, hirugarren bati kalte egiten dionean, edota Konpilazio honetako debekuzko manu batekin kontraesanean egon eta manu horrek deuseztasun-zehapena dakarrenean.

Ordena publikoaren mugartearen barnekotzat jotzen dira, besteak beste, giza eskubideen eraginkortasuna, instituzio juridikoen oinarria eta Konstituzioan jasotako sistema demokratiko eta sozialak berezko dituen balioen zaintza.<sup>9</sup>

#### 8. LEGEA

##### *Askatasun zibila*

Nafarroako zuzenbideak funtsezko duen askatasun zibila dela-eta, presuntziorik legeak hautazkotzat jotzen dira.<sup>10</sup>

---

<sup>6</sup> FBko 1. legea; KZko 1.4 art. NJANaren 10/2006 epaia, maiatzaren 17koa.

<sup>7</sup> FBko 6. legea; KZko 4.1 art.; PZLko 385, 386. art.

<sup>8</sup> LORAFNAko 40.3. eta 4. art.; FBko 1. legea; KZko 13.2 art. NJANaren 10/2006 epaia, maiatzaren 17koa.

<sup>9</sup> FBko 8, 78. legeak; KZko 1255. art. NJANaren honako epai hauek: 5/2022, martxoaren 30ekoa; 18/2013, abenduaren 4koa; 26/2012, urriaren 29koa; 5/2010, martxoaren 29koa; 2/2010, urtarrilaren 21ekoa; 15/2008, irailaren 12koa; 1/2006, otsailaren 6koa; 2/2005, apirilaren 8koa; 3/2004, otsailaren 10ekoa; 21/2001, urriaren 26koa; 16/2001, ekainaren 25ekoa; 10/2001, apirilaren 7koa; 9/1998, uztailearen 2koa; 11/1996, maiatzaren 7koa; 21/1995, azaroaren 13koa.

<sup>10</sup> FBko 7. legea. NJANaren 9/2011 epaia, maiatzaren 19koa.

**9. LEGEA**

***Eskubideei uko egitea***

Eskubideei uko egitea baliozkoa da, salbu eta horrekin ordena publikoa hautsi edo lege-maula egiten denean.<sup>11</sup>

**10. LEGEA**

***Barneko lege-gatazkak***

Barneko lege-gatazkak ebatziko dira Estatuko arau orokorrak aplikatuz eta ordenamenduen arteko parekotasunaren printzipioaren arabera.<sup>12</sup>

**II. TITULUA**  
**NAFAR FORUDUNTASUN ZIBILA**

**11. LEGEA**

***Izaera zibila erakartzea***

Nafar forudun izateak erakartzen du Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralari lotuta egotea. Auzotasun zibilaren arloko Estatuko arau orokorrek arautuko dute forudun izaera, *ordenamenduen parekotasunaren printzipioa errespetatuz*.<sup>13</sup>

**12. LEGEA**

***Pertsona juridikoen foruduntasuna***

Pertsona juridikoak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumeneko araubidekoak direnean, haien egoitza Nafarroan egoteak erakarriko du foruduntasuna, eta pertsona horiek Nafarroako Zuzenbideari loturik egon beharko dute.<sup>14</sup>

**13. LEGEA**

***Foruduntasunaren efektuak***

Forudun diren pertsonak gauzaturiko egintzek ez dute baliozkotasunik galduko pertsona horiek gero beste zuzenbide bati loturik geratzen badira ere; baina egintza horien efektuak beste ordenamendu horren galdakizunei egokitu beharko zaizkie.

***Izaera-aldaketak***

Era berean, egintzak baliozkotasunez gauzatu eta gero horien egileek foruduntasuna eskuratzen badute, egintza horiek Nafarroako zuzenbidearen arabera beharko dituzte efektuak sortu, baita egintzek beren gauzatze-unean arau-emaile zeukaten ordenamenduaz bestelakorik agintzen duenean ere Nafarroako zuzenbideak.<sup>15</sup>

---

<sup>11</sup> KZko 6.2 eta 4. art.; KEBFLko 6 art. NJANaren 8/2012 epaia, apirilaren 17koa.

<sup>12</sup> KZko 9-12, 16. art.

<sup>13</sup> LORAFNAko 5.3. art.; KZko 14. art. NJANaren 1994ko martxoaren 3ko epaia.

Azken tartekia konstituzio-kontrakotzat eta deuseztat jo zuen KAren irailaren 16ko 157/2021 epaiak.

<sup>14</sup> Legea konstituzio-kontrakotzat eta deuseztat deklaratu zuen KAren 157/2021 epaiak, irailaren 16koak.

<sup>15</sup> LORAFNAko 5, 43. art.; Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Lko 8. art.



### III. TITULUA

#### ESKUBIDEEN EGIKARITZEA ETA BORONDATE-DEKLARAZIOAK

##### 14. LEGEA

###### *Eskubide-egikaritzearen mugak*

Eskubideak libreki egikaritu daitezke, eta muga bakarrak dira haien izaeraren, ohituraren, legearen, moralaren, onustearen eta gauzak beste pertsona batzuek kaltegabeki erabiltzearen ondoriozkoak, eskubide-abusuan edo eskubide-egikaritze antisozialean erori gabe.<sup>16</sup>

##### 15. LEGEA

###### *Eskubideak iruzurrez egikaritzea*

Baldin eta egintzak gauzatu badira hirugarren baten eskubidea bidegabeki baztertzeko asmoarekin, zilegi da egintza horiek aurkaratzea eta,aldi berean, iruzur egin nahi izan zitzaion eskubidea egikaritzea.<sup>17</sup>

##### 16. LEGEA

###### *Egikaritze-ezaren ondoriozko eskubide-azkentzea*

Hala itundu izanez gero, eskubideak azkendu daitezke egikaritze-ezagatik edo ohiturak nahiz legeak aurreikusitako kasuetan.<sup>18</sup>

##### 17. LEGEA

###### *Burutze formala*

Edozein dela ere borondate-deklarazioa egiteko erabilitako forma, deklarazio hori balioduna eta zilegia da berorretatik eratorritako eskubideak egikaritzeko.

Dena den, legeak egintza edo kontratu jakin batzuetarako forma zehatzik ezarri ez arren kasuko forma espresuki hitzartu bada, egintza edo kontratu horiek ez dira burututaz joko, forma hori betetzen ez bada. Egintza bati eskuarki forma zehatz bat ematen bazaio, presuntziaz joko da alderdiek egintzaren burutzea baldintzatu nahi izan dutela forma horren betetzera.

Nafarroako lege zibilaren aginduz forma jakin bat bete behar den kasuetan, hori solemnitatzekotzat hartuko da.<sup>19</sup>

---

<sup>16</sup> FBko 8. legea; KZko 7. art. NJANaren honako epai hauek: 12/2016, irailaren 15ekoa; 13/2015, azaroaren 23koa; 9/2015, ekainaren 29koa; 13/2014, irailaren 17koa; 2/2014, martxoaren 6koa; 2013ko urriaren 25ekoa; 8/2013, maiatzaren 17koa; 6/2013, apirilaren 9koa; 30/2012, abenduaren 4koa; 26/2012, urriaren 29koa; 23/2012, irailaren 12koa; 8/2012, apirilaren 17koa; 21/2011, abenduaren 20koa; 17/2011, urriaren 4koa; 13/2011, irailaren 5ekoa; 19/2009, abenduaren 11koa; 6/2009, apirilaren 17koa; 16/2008, urriaren 22koa; 7/2007, ekainaren 21ekoa; 22/2006, abenduaren 27koa; 11/2005, irailaren 12koa; 23/2004, urriaren 18koa; 18/2004, irailaren 28koa; 46/2003, urriaren 17koa; 43/2003, urriaren 6koa; 7/2003, otsailaren 26koa; 12/1999, urriaren 28koa; 19/1997, azaroaren 28koa; 17/1995, uztailaren 5ekoa.

<sup>17</sup> KZko 6.4. art. NJANaren honako epai hauek: 15/2017, abenduaren 11koa; 17/1994, urriaren 24koa.

<sup>18</sup> FBko 406, 421, 423. legeak.

<sup>19</sup> FBko 18, 563. legeak; KZko 11.1 eta 2, 1278-1280. art. NJANaren 43/2003 epaia, urriaren 6koa.

## 18. LEGEA

### *Isiltasuna edo ez-egitea*

Isiltasuna edo ez-egitea ez dira borondate-deklaraziotzat joko, baldin eta alderdiek ez badute halakorik hitzartu, edo ez bada hala interpretatu behar legeari, ohiturari edo usadioei jarraituz.<sup>20</sup>

## 19. LEGEA

### *Borondate-deklarazioen deuseztasuna, deuseztagarritasuna eta hutsaltzea*

Eragotzi gabe 47. legean xedatutakoa, borondate-deklarazioak deusezak izanen dira baldin eta horiek egin dituzten pertsonak, horiek egitean, egintza edo kontratua eta haren efektu juridikoak ulertu eta nahi izateko ahalmenik de facto ez badute, edo deklarazio horiek xede ezinezkoa edo immorala badute, edo legez debekaturik badaude. Deusezak izanen dira, halaber, desgaitasuna dutenek egindakoak, baldin eta, ezarritako laguntza-neurrien arabera, beste pertsona batek haiek ordezkatzuz jardutea badagokie..

Deuseztagarriak dira adingabe emantzipatugabeek egindako deklarazioak, salbu eta frogatzen denean ez zeukatela inolako arrazoimenik horiek egiteko uanean; zeren eta, kasu horretan, erabat deusezak izanen baitira. Era berean, deuseztagarriak dira pertsona emantzipatuek behar bezalako laguntzarik gabe egindako borondate-deklarazioak, 48. legeak xedatzen duenaren arabera laguntza hori beharrezkoa denean.

Deuseztagarriak izanen dira, halaber, desgaitasuna duten pertsonak egindakoak, baldin eta pertsona horientzat laguntza-neurriak ezarri badira, neurri horietan aurreikusitako osagarriarik gabe jarduten dutenean.

Borondate-deklarazioak hutsalgarriak dira legeak hala xedatzen duenean.<sup>21</sup>

## 20. LEGEA

### *Borondatearen akatsak*

Deuseztagarriak dira okerraren, doloaren nahiz indarkeria fisiko edo moral larriaren eraginez akastun diren deklarazioak, baina ezin izanen da alegatu egitate- edo zuzenbide-erakuntza desenkusaezina.<sup>22</sup>

## 21. LEGEA

### *Bidegabeko eragina*

Borondate-deklarazioak deuseztagarriak dira, egiten direnean noren alde eta, bere menpean egilea edukita, egoera hori abantaila bat, bestela eskuratuko ez lukeena, berarentzat edo beste batzuentzat lortzeko asmoz aprobeztatzen duenaren alde.

---

<sup>20</sup> NJANaren honako epai hauek: 11/2016, irailaren 14koa; 9/2015, ekainaren 29koa; 23/2012, irailaren 12koa; 17/2010, urriaren 28koa; 11/2009, ekainaren 5koa; 6/2009, apirilaren 17koa; 17/2007, abenduaren 14koa; 11/2003, apirilaren 1ekoa; 9/1999, ekainaren 28koa; 3/1992, martxoaren 27koa; 4/1991, irailaren 19koa.

<sup>21</sup> FBko 7, 489. legeak; KEBFLko 6.1 art.; KZko 6.3, 1263, 1290, 1300. art. NJANaren honako epai hauek: 3/2014, martxoaren 7koa; 18/2010, azaroaren 2koa; 5/2010, martxoaren 29koa; 15/2007, azaroaren 13koa.

<sup>22</sup> FBko 489. legea; KZko 1265. art. NJANaren honako epai hauek: 12/2015, azaroaren 19koa; 5/2015, otsailaren 17koa; 3/2014, martxoaren 7koa.

### ***Eragin-abusua***

Era berean, deuseztagarriak dira beste pertsona batek abusuzko eragina baliatzearen ondorioz egiten direnak, noiz eta pertsona horrek aprobetxatu egiten duenean dela berarenganako konfiantza, dela desgaitasun bat edukurik laguntza-neurriak ezarrita dauzkaten pertsonak neurri horietan aurreikusita dagoen osagarririk gabe jarduten dutela, dela deklaratzailaren herstura; halako moldez non aprobetxatze horretatik onura bat lortzen duen.<sup>23</sup>

## **22. LEGEA**

### ***Simulazioa***

Egintzek sortzen dituzten efektuak alderdiek adierazitako deklarazioaren berezkoak dira; baina, simulatuak badira, balioko duena alderdiek benetan egin nahi izan duten hori bakarrik izanen da, zilegi bada eta legean horretarako galdatzen diren betekizun formal guztiak betetzen baditu.

Simulaturiko deklarazioaren deuseztasuna ezin da alegatu onusteko hirugarrenen aurka.<sup>24</sup>

## **IV. TITULUA PRESKRIPZIO AZKENTZAILEA ETA AKZIOEN IRAUNGITZEA<sup>25</sup>**

### **I. KAPITULUA Akzioen preskripzioa**

## **23. LEGEA**

### ***Preskripzioa***

Beren izaeragatik edo legeak hala xedatzeagatik preskribaezinak ez diren akzio guztiak kapitulu honek edo akzioen araubidea ezartzen duten gainerako legeek zehazten dituzten epeetan preskribatuko dira.

Akzioak egikaritzeko ezartzen diren epeak preskripzio-epetzat jotzen dira presuntzioz. Legezko xedapen berezirik ezean, preskripzio-epeak zenbatuko dira, behin akzioak egikaritzeko modua egonez gero, noiztik eta akzioen titular den horrek badakienetik edo, taxuzko ustez, jakin ahal izan duenetik zein diren akzioari oinarria ematen dioten egitateak eta zer pertsonaren aurka bideratu behar den akzioa.

Preskriba daitekeen edozein uzi betiere azkentzen da sortu zenetik hogeita hamar urteko epea igarotzean, berdin delarik preskripzioa eteteko edo geldiarazteko kausarik egon den.<sup>26</sup>

---

<sup>23</sup> FBko 489. legea; KEBFLko 3. art.

<sup>24</sup> KZko 1276, 1277. art. NJANaren honako epai hauek: 4/2021, azaroaren 3koa; 1/2001, urtarrilaren 25koa; 4/2000, martxoaren 7koa; 3/1994, otsailaren 9koa; 19/1996, abenduaren 16koa; 12/1992, urriaren 13koa.

<sup>25</sup> 21/2019 FLko 1. xed. ir. (ikus §4.5).

<sup>26</sup> FBko 31, 37, 507. legeak; KZko 1961. art.; MK-ko 943. art.; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 FLko 16, 25. art.; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 FLko 17-20. art. NJANaren 18/1997 epaia, azaroaren 25koa.

#### **24. LEGEA**

##### ***Uko egitea***

Preskripzioari alde zuzenetik edo zehaztugabeki uko egitea dakarren edozein itun deuseza izanen da.

Preskripzio gauzatuari uko egiteak ez du hirugarrenen eskubiderik kaltetuko, ez eta akzioaren preskripzioaz baliatu nahi dutenen eskubiderik ere, are uko-egileari solidaritate-loturaz elkarturik daudenean.<sup>27</sup>

#### **25. LEGEA**

##### ***Zerbitzu- eta hornidura-ematea***

Emandako zerbitzu profesionalengatik eta merkatari batek saldutako merkatu-gaiengatik edo animalien zaintzaren ordaintzea merkatari ez den norbaiti galdatzeko akzioak bost urteren buruan preskribatuko dira, zerbitzua eman edo gauza entregatu zenetik. Zorra agiri batean jasota badago, akzioa hamar urteko epean preskribatuko da. Epe hori zerbitzua eman edo gauza entregatu zenetik hasita zenbatuko da, agirian bestelakorik ezarri ezean.<sup>28</sup>

#### **26. LEGEA**

##### ***Maileguak***

Interesdun maileguetan, bost urte igarotakoan preskribatuko da kapitala erreklamatzeko akzio pertsonala; interesak erreklamatzeko akzioa, berriz, urtebete igarotakoan. Mailegua interesik gabekoa denean, 35. legean xedaturikoa aplikatuko da.

Kapitala data zehatz batetik aurrera galda badaiteke, hori erreklamatzeko akzioaren preskripzio-epaia data horretan hasiko da. Bestela, 532. legeko bigarren paragrafoan xedaturikoari helduko zaio. Interesei dagokienez, horiek muga-eguneratuta ordaindu ez direnetik aurrera zenbatuko da epea.<sup>29</sup>

#### **27. LEGEA**

##### ***Akzio hipotekarioa***

Akzio hipotekarioa hogeitun urte igarotakoan preskribatzen da.<sup>30</sup>

#### **28. LEGEA**

##### ***Exekuzio-tituluak***

Titulu judizialean, edo exekuzioa dakarten titulu estrajudizialean, bost urte igarotakoan preskribatzen da exekuzio-akzioa. Akzio arruntak indarrean dirau 35. legeak ezarritako epean zehar.<sup>31</sup>

---

<sup>27</sup> FBko 7, 9, 15. legeak; KZko 1935. art.

<sup>28</sup> KZko 1967. art. NJANaren epai hauek: 4/2022, martxoaren 10ekoa; 24/2012, urriaren 2koa.

<sup>29</sup> FBko 531. legea; KZko 1964 *i.f.*, 1966.3., 1970. art. NJANaren honako epai hauek: 12/2012, maiatzaren 22koa; 2/2012 otsailaren 16koa; 3/2003, urtarrilaren 23koa.

<sup>30</sup> HLko 128. art.; KZko 1964. art.

<sup>31</sup> PZLko 517. art. eta hurrengoak; KZko 1971. art.

### **29. LEGEA**

#### ***Zentsuak***

Zentsu-pentsioa erreklamatzeko akzioa bost urte igarotakoan preskribatzen da. Preskripzio-epaia haren ordaintzea galda daitekeen unetik zenbatuko da. Zentsua preskripzio bidez azkentzen da, zentsu-hartzaileak pentsioa erreklamatu gabe hamar urte igarotakoan.<sup>32</sup>

### **30. LEGEA**

#### ***Kaltearen ondoriozko hutsaltzea***

Kalte izugarriaren ondoriozko hutsalketa-akzioa bost urte igarotakoan preskribatzen da; eta kalte oso izugarriaren ondoriozkoa, hamar urte igarotakoan. Preskripzio-epaia kontratua burutzen den unetik zenbatuko da.<sup>33</sup>

### **31. LEGEA**

#### ***Hutsaltzea eta aurkaratzea***

Hutsalketa-akzioak, aurreko legean jasotakoak ez direnak, eta egintza deuseztagarriak aurkaratzeko akzioak, lau urte igarotakoan preskribatzen dira.

Hutsalketa-akzioen preskripzio-epaia kontratua burutzen den unetik zenbatuko da; eta egintza deuseztagarriak aurkaratzeko akzioarena, indarkeria edo larderia amaitu zenetik edo baimen akastuna eman zuenak akatsaren edo doloaren berri izan zuenetik. Gainerako ekintza deuseztagarriei dagokienez, 23. legean ezarritakoari helduko zaio.<sup>34</sup>

### **32. LEGEA**

#### ***Saneamendua***

Tratua hausteko akzioa eta “*quantum minoris*” akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen dira.

Preskripzio-epaia gauza saldua egiazki entregatzen denetik aurrera zenbatu behar da.<sup>35</sup>

### **33. LEGEA**

#### ***Edukitza-akzioak***

Edukitza atxiki edo berreskuratzeko akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen da.

Preskripzio-epaia kasuko traba hasten denetik edo edukitzaren kentzea gauzatzen denetik hasiko da zenbatzen.<sup>36</sup>

### **34. LEGEA**

#### ***Preskripzioari buruzko beste lege batzuetarako igorpena***

Hurrengo akzioak lege hauetan ezarritako epeetan preskribatzen dira:

---

<sup>32</sup> FBko 541-544. legeak; KZko 1620, 1970. art.

<sup>33</sup> FBko 31, 500-506. legeak.

<sup>34</sup> FBko 79, 336. legeak; KZko 1299-1301. art. NJANaren 10/2014 epaia, irailaren 8koa.

<sup>35</sup> FBko 503, 567. legeak; Kode Zibileko 1490, 1496. art.; KEDLOTBko 117. art. eta hurrengoak NJANaren epai hauek: 13/2022, urriaren 21ekoa; 3/2022, martxoaren 7koa.

<sup>36</sup> FBko 364. legea; PZLko 250, 439.1 art.; KZko 1968.1 art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

1. Ezkontide batek beste ezkontidearen baimena beharrezkoa izan eta hori gabe egiten dituen egintzen aurka beste ezkontideak edo haren jaraunsleek duten aurkaratze-akzioa, 79. legeko azken apartatuko lehen paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritz.
2. Jarauntsia eskatzeko akzioa, 324. legeak ezarritakoarekin bat etorritz.
3. Atzera-eskuratze akzioa, atzera-eskuratze itunarekin egindako salmentan, 480. legearekin bat etorritz.
4. Kontratuz kanpoko erruaren ondoriozko erantzukizuna galdatzeko akzioa, 507. legean xedaturikoarekin bat etorritz.
5. Epe mugagabeko grazia-agiriaren akzioa, 582. legeak xedatutakoarekin bat etorritz.<sup>37</sup>

### 35. LEGEA

#### *Preskripzio orokorra*

a) Akzio pertsonalak. Beste epe berezirik ezarri ez zaienean, akzio pertsonalak bost urte igarotakoan preskribatzen dira, edozein dela ere eratu den berme errealak berezko duen preskripzio-epea.

Epe orokorra aplikatuko da baldin eta epe berezi bat ezarrita duen akzioa egikaritzeko baldintza guztiak ez badira betetzen.

b) Akzio errealak. Epe berezirik ezarri ez zaien akzio errealak preskribatzen dira bateraezin duten usukapioaren bidezko eskuratzearen ondorioz bakarrik.

Usukapioz eskuratzeko modukoa ez den eskubide erreal baten aurrean agertua denean bateraezintasuna, akzio errealak berariazko eperik zehaztuta ez badu, preskripzio-epea bost urtekoa izanen da.<sup>38</sup>

### 36. LEGEA

#### *Preskripzioa geldiaraztea*

Preskripzioa geldiarazten dute demanda aurkezteak, adiskidetze eskaera bat aurkezteak, arbitraje prozedura hasteak, auzibidez kanpoko erreklamazioak eta eskubidearen edo betebeharraren esanbidezko errekonozimenduak nahiz errekonozimendu inplizituak.

#### *Etetea*

Preskripzio-epeen zenbaketa eten eginen da honako kasu hauetan:

1. Doako laguntza juridikoa eskuratzeko eskaera bat aurkeztearen ondorioz eta abokatua behin betiko esleitzen den arte.
2. Atariko eginbideak bideratzen diren bitartean edo erlazio juridiko-prozesalaren eraketa baliodunerako ezinbestekoak eta antzekoak diren beste prestaketa-egintza batzuk bideratzen diren bitartean.
3. Aurretiazko erreklamazio administratiboak izapidetzen diren bitartean, nahitaezkoak diren kasuetan.
4. Titulartzat adingabeak dituzten uzietan, legezko ordekaritzarik ez duten bitartean.
5. Uziek titulartzat dituztenean desgaitasuna duten pertsonak, baldin pertsona horiek beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak ezarrita badituzte, haien

---

<sup>37</sup> NJANaren honako epai hauek: 12/2011, uztailaren 22koa; 13/2001, maiatzaren 16koa; 13/1994, ekainaren 14koa.

<sup>38</sup> FBko 26, 28, 356, 397, 458.3 legeak; KZko 1962-1964. art. NJANaren epai hauek: 15/2014, azaroaren 10ekoa; 1/1996, urtarrilaren 22koa.

gaitasuna osatze aldera neurri horietan aurreikusita dagoen ordezkartzarik edo laguntzarik ez duten bitartean.

6. Bitartekaritza-prozesu bat hasi dela formalki frogatuta gelditzearen ondorioz.

7. Jaraunse ezagunik ez duen jaraunspen-ondare baten aurkako uzietan, defendatzaile judizialik hautatu ez den bitartean.

7. Ezinbesteko arrazoiengatik.<sup>39</sup>

### **37. LEGEA**

#### ***Akzio preskribaezinak***

Preskribaezinak dira:

1. Egoera zibilari buruzko akzioak, egikaritze-eperik ezarrita ez daukatena.

2. Jaraunse-izaera deklaratzeko akzioa.

3. Jabariaren deklarazio hutserako akzioa.

4. Erkideen eta jaraunskideen zatiketa-akzioak, eta mugaketa-akzioak, kasuko ondasunen eskuratze-preskripzioaren kalterik gabe.

5. Egintza edo kontratu baten erabateko deuseztasuneko akzioa.

6. Bilatzen dutenak bete dadila harturiko betebeharra, dokumentu pribatuan egin den kontratu bat publiko bihurtzearena.<sup>40</sup>

## **II. KAPITULUA** **Akzioen iraungitzea**

### **38. LEGEA**

#### ***Iraungitzen diren akzioak***

Hurrengo akzioak ondoko legeek aipatzen dituzten epeetan iraungitzen dira:

1. Seme-alabatasunaren aitortpena errefusatzea eta seme-alabatasuna aurkaratzeko nahiz deklaratzeko akzioak, 54., 56. eta 57. legeetan xedatutakoaren arabera.

2. Gurasoei beren seme-alaben ondasunez egin duten administrazioagatik kontu-ematea eta kalte-galeren ordainketa eskatzeko akzioa, 66. legean xedatutakoaren arabera.

3. Ezkontide ez-zordunaren akzioa, galdatzekoa ezen beste ezkontidearen zorrengatik konkista-sozietatearen ondasun amankomunen gainean ezarritako enbargoaren ordez egin dadila enbargoa sozietate horretatik zordunari dagokion partearen gainean, 93. legeak xedatzen duenari jarraikiz.

4. Dohaintzak errebokatzeko akzioa, 163. legeko azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. Atzera-eskuratze akzioak, 383, 390, 392, 446, 451 eta 458. legeetan xedatutakoaren arabera.<sup>41</sup>

---

<sup>39</sup> FBko 41, 398. legeak; KZko 1973. art.; MK-ko 944. art.; PZLko 410. art.; uztailaren 6ko 5/2012 L, auzi zibil eta merkataritzakoetako bitartekaritza buruzkoa; abenduaren 23ko 60/2003 L, arbitrajari buruzkoa; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 FLko 16.2, 25.2 art.; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 FLko 18. art.; KLTBko 155. art. NJANaren 13/2022 epaia, urriaren 21ekoa.

<sup>40</sup> FBko 23, 324, 331, 349, 374. legeak; KZko 1965. art.

<sup>41</sup> Ikus, halaber, FBko 462, 571. legeak; MK-ko 943. art.

**39. LEGEA**

***Epe-zenbaketa***

Hilabeteka edo urteka adierazitako iraungitze-epeak datatik datara zenbatuko dira.<sup>42</sup>

**40. LEGEA**

***Ofizioz hautematea***

Iraungitzea auzitegiek ofizioz hauteman ahal izanen dute, iraungitzeak ukituriko auzialderdiei entzunaldia eman ondoren.<sup>43</sup>

**41. LEGEA**

***Etetea***

Behin hasita, iraungitze-epeak ezin dira geldiarazi, baina eten egin beharko dira, Konpilazio honetako beste lege batzuetan berariaz jasotako kasuetan ez ezik, 36. legeko bigarren paragrafoak preskripzio-epeetarako jasotzen dituen kasu beretan ere.<sup>44</sup>

---

<sup>42</sup> 21/2019 FLko 1.II xed. ir. (ikus §4.5).

<sup>43</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsioan, zuzendu egin dugu NAoren gaztelaniazko testuan ageri den akatsa ("la partes contendientes").

<sup>44</sup> FBko 257, 449, 528. legeak.



**I. LIBURUA  
PERTSONAK, FAMILIA ETXE NAFARRA**

**I. TITULUA  
PERTSONA JURIDIKOAK, BABES BEREZIDUN ONDAREAK ETA  
NORTASUNIK GABEKO BESTE ENTE BATZUK**

**I. KAPITULUA  
Pertsona juridikoak**

**42. legea**

***Fundazioak***

Interes orokorreko xedeetarako diren fundazioak haiei buruzko lege berezian xedatutakoari jarraikiz eratu beharko dira, eta nortasun juridikoa lortuko dute eraketa-egintza kasuko Fundazio Erregistroan inskribatzen denetik.

***Beste pertsona juridiko batzuk***

Nortasun juridikoa, legeek aitortzen dietena duten erakundeez gain, honako hauei ere aitortzen die Konpilazio honek:

1. Santutegi, ermita, kofradia eta horien antzekoen batzarrei edo "mere legos" patronatuei, ezertan eragotzi gabe zuzenbide kanonikoak horiei ematen dien izaera.
2. Irabazi-asmorik gabeko interes pribatuko helburuetara atxikitako ondareei, zeinak hurrengo legean jasotzen baitira.<sup>45</sup>

**43. legea**

***Interes pribatuko helburuetara atxikitako ondareak***

***a) Xedea***

"Inter vivos" edo "mortis causa" egintzen bitartez, edozein pertsonak nortasun juridiko propioa eman ahal izanen dio edozein motatako ondasunek eta eskubideek osatzen duten ondare bati, eta hori atxiki ahal izanen du interes sozial, humanitario edo kulturalako

---

<sup>45</sup> EK-ko 22, 34. art.; LORAFNAko 44.19 eta 20 art.; FBko 391. legea; ekainaren 30eko 13/2021 FL, Nafarroako Fundazioei buruzkoa; abenduaren 26ko 50/2002 L, Fundazioei buruzkoa; otsailaren 17ko 2/2014 FL, Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen; uztailearen 2ko 10/1996 FL, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duena; azaroaren 11ko 613/1996 FD, Fundazioen Erregistroaren Egitura eta Funtzionamendua erregulatzen duena; martxoaren 22ko 1/2002 LO, Elkartegintzarako Eskubidea arautzen duena; martxoaren 11ko 11/2019 FL, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzkoa; Nafarroako Kooperatibei buruzko abenduaren 11ko 14/2006 FLko 6. art.; 2/2015 FL, urtarrilaren 22koa, Lan Elkartuko Mikrokooperatibei buruzkoa; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 FLko 3. art. NJANaren 2/2021 epaia, maiatzaren 19koa; 2/2015 epaia, urtarrilaren 20koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

helburu pribatu jakin batzuk edo izaera solidarioko eta irabazi-asmorik gabeko beste edozein helburu lortzera.

Ondareari nortasun juridikoa esleitzea eta ondarea "inter vivos" egintza baten bidez helburu horietara atxikitzea eskritura publikoz egin beharko dira. Eskritura horretan jasoko dira horrela eraturiko pertsona juridikoaren zuzendaritza-organoaren izendapena, berritzea, funtzionamendua eta eskudantziak arautuko dituzten estatutuak.

Baldin eta "mortis causa" egintza baten bitarteko eraketa bada, eratzailleak zilegi du estatutuak bere kabuz antolatzea edo haien antolaketaren ardura osoki nahiz partez uztea lehenengo zuzendaritza-organoaren edo beste pertsona batzuen eskuetan. Zilegi du, halaber, ondasun- edo eskubide-zuzkidura egitea, dela eratze-egintzan bertan, dela beste egintza bereizi batean, dela ondasun- edo eskubide-esleipena beste pertsona batzuei eskuordetuz, titulu unibertsalaren nahiz banakako tituluaren bidez.

### ***b) Araubidea***

Horrela eratzen diren pertsona juridikoak arautuko dira eratzaillearen borondateak egintza horretan eta estatutuetan adierazitakoaren arabera; aurreikusi gabeko orotan, Konpilazio honen bigarren liburuan jasotako xedapenak izanen dira borondate horren osagarri eta interpretazio-integrabide.

### ***c) Zuzendaritza-organoaren ahalmenak***

Estatutuetan bestelakorik xedatu ezean, zuzendaritza-organoari dagozkio, bete-betean eta inolako mugapenik gabe, ondoko ahalmenak:

1. Zuzkidura-ondarea administratu eta xedatzekoak.
2. Eratzaillearen borondatea interpretatzekoa.
3. Ondasunekin inbertsioak egin, horiek diru bihurtu, eraldatu edo gordailupean jartzekoak, bai eta ondasun horiek eratze-egintzan zehaztu diren xedeetarako erabiltzekoa ere.
4. Aurrekontuak egitekoak eta bere kabuz eta efektu guztiekin kontuak onestekoak.

Borondate pribatuz eta interes pribatuko xedeetarako sortutako pertsona juridikoen kasuan, eratzailleak zilegi izanen du pertsona horiek administrazioaren esku-hartzetik salbuestea. Dena den, edozein pertsonak hala eskatuz gero, Fiskaltzak zilegi izanen du kudeaketa ikuskatzea, eta egoki diren akzioak premiatu eta egikaritzea.

### ***d) Lehengoratzea***

Eratze-egintzak edo estatutuek ondasunen lehengoratzea ezar dezakete, eratzaillearen jaraunleen edo pertsona jakin batzuen mesedetan, eratzaillearen ahaide direla zein ez direla, 224. legean ezarritako mugarekin.

### ***e) Azkentzea***

Lege honen arabera eraturiko pertsona juridiko bat azkentzen denean, zehaztu gabe horren ondasunek zein xede izan behar duten, Nafarroako Foru Komunitateak eskuratuko ditu ondasun horiek, eta interes sozial edo orokorreko xedeetarako erabiliko ditu.

## II. KAPITULUA

### Desgaitasuna edo familia-erkidegoarekiko mendekotasuna duten kideentzat babesturiko ondareak

#### 44. legea

##### *Ondare babestuak*

##### *a) Kontzeptua eta ezaugarriak*

Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat, pertsona horiek familia-erkidegoaren edo -taldearen kide badira are elkarrekin bizi ez direnean ere, ondare bereziki babestuak eratu ahal izanen dira, haien ondareari ondasun eta eskubide batzuen dohainikako ekarpena eginez, eta beharrezkoak diren neurriak ezarriz horiek zer helbururi atxikiak dauden zehazteko, bai eta haiekin lorturiko etekinak pertsona horien premiei erantzuteari lotzeko ere. Horrek ez du eragotziko lege orokor nahiz bereziki haien ondare-babesari buruz xedatzen dutena.

Ondare horiek arautuko dira beren eratze-egintzan xedatutakoari jarraikiz, eta egintza horrek ez dio inolako titulartasunik ez eta eskubide errealik ere emanen onuradunari. Ondareak ez du erantzukizunik izanen, onuradunari, eratzailleari edo ekarpenak egin zituzten gainerako pertsonen ondarearen eraketaren ondoren suerta lekizkiekeen bere helburuaz bestelako betebeharreri dagokienez.

##### *b) Eraketa*

Ondare babestuak eratu ahal izanen dituzte, beren izaeragatik edo errentagarritasunagatik onuradunaren bizi-premiak asetzeko balio duten ondasun eta eskubideen ekarpena eginez, pertsona edo entitate hauek:

- desgaitasuna edo mendekotasuna pairaturik ondarearen onuraduna den pertsonak berak, bere kabuz edo behar duen laguntzarekin,
- ezarritako laguntza-neurriei jarraikiz onuradunaren ordezkari gisa jarduten dutenek, onuradun haren baimenarekin,
- haren familia-erkidegoko edo -taldeko edozein kidek.

Eraketa gauzatuko da notario aurrean egindako eskritura publiko edo testamentu baten bidez, zeinetan honako hauek jaso beharko baitira nahitaez, beste xedapen batzuk ezertan eragotzi gabe:

1. Izen-abizenen bidez identifikatzen den edo diren onuradunari edo onuradunei loturik eginen den ondarearen izena.
  2. Eratzaillearen identifikazioa eta borondatea.
  3. Hasierako ondasun- eta eskubide-inbentarioa.
  4. Ondarearen administratzea eraendu behar duten arauak, eta administratze hori kontrolatzeko neurriak, eta hori egikaritzeaz arduratuko diren pertsonen izendapena.
  5. Gerakinaren likidazioa egitean horri eman beharreko erabilera, zeina izan ahal baita ondasunak lehengoratzeko eratzaillearen jaraunseen alde edo pertsona jakin batzuen alde, eratzaillearen ahaide direla nahiz ez direla, 224. legean ezarritako mugarekin.
- Era berean, zilegi izanen da epailearen bitartezko eraketa, baldin eta laguntzak emateko ardura duen pertsonak, justifikaziorik gabe, uko egiten badio ondare babestua eratzeari interes legitimoa duen edozein pertsonak emandako ondasun eta eskubide egoki eta

## §1.- Nafarroako Foru Berria

nahikoekin. Azken pertsona horrek Fiskaltzarengana jotzen ahalko du, agintaritzaz judizialari horretarako eskaera egin diezaion.<sup>46</sup>

### **45. legea**

#### ***c) Administrazioa***

Eratze-eskrituran administratzaile izendatutako pertsonen beren kudeaketa gauzatu beharko dute eskritura horretan ezarritakoari jarraituz, betiere errespetatuz onuradunaren eskubideak, nahiak, borondatea eta lehentasunak, gehiegikeriak saihesteko beharrezkoak diren babesekin, eta ondasunak beren produktibitateari eusteko edo hori areagotzeko moduko egoeran gordetzeko behar den arretaz, hori guztia eraketan ezarritako baldintzak edo hirugarrenek egindako ekarpenak eragotzi gabe.

Betebeharrak hartu ahal izanen ditu ondarearen kontura, eta haren interesak defendatzeko legitimazio prozesala izanen du.

Eratze-eskrituran aurreikusita ez dagoen orotarako, borondatezko neurrien aurreikuspenak aplikatuko dira, edo, halakorik ezean, kuradoretza-arauak.

#### ***d) Kontuen kontrola eta kontu-ematea***

Eratze-eskrituran ezarritako kontrol neurriak ezertan eragotzi gabe, administrazio-zereginerako izendatutako pertsonen urteroko kontu-emate betebeharra dute eskrituran izendatutako pertsonarekiko, bai eta onuradunarekiko edo haren legezko ordezkarierekiko ere.

#### ***e) Azkentzea eta likidazioa***

Ondare babestua azkenduko da onuradunaren heriotzarengatik edo heriotza-deklarazioarengatik, ondarea eratzeko oinarri hartu zen izaeraren galeragatik edo ondarea eratzean ezarritako epea edo baldintza suntsiarazlea bukatu edo betetzeagatik, kasua bada.

Ondarea azkentzeak berekin ekarriko du administratzaileak ondare hori likidatzea, salbu eta haren eratze-tituluan beste pertsona bat izendatu bazen eginkizun horretarako; kasu horretan, gerakinari eraketan ezarri zen erabilera eman beharko dio pertsona horrek.

Baldin eta ezarri bada ondasunak eratzailaren jaraunsleei itzuli behar zaizkiela, horrelako jaraunslerik ezean Nafarroako Foru Komunitateak eskuratuko ditu, eta aplikatuko ditu desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak babesteko helburuetarako.<sup>47</sup>

---

<sup>46</sup> Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestu eta, xede horrekin, Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea eta zerga-arloko araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Lko 1-4. art.; BJLko 56-58. art.

<sup>47</sup> FBko 255. legea; Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestu eta, xede horrekin, Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea eta zerga-arloko araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Lko 5-8. art.; KZko 199. artikulua eta hurrengoak; Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaz baliatzen laguntze aldera legeria zibila eta prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Lko 2. xed. ir.

### **III. KAPITULUA**

#### **Nortasunik gabeko beste ente batzuk**

##### **46. legea**

###### ***Nortasunik gabeko sozietate eta elkarteak***

Nortasuna aitortu ez zaien sozietate edo izaera zibileko beste elkarte batzuek modua dute zuzenbideko subjektu gisa jarduteko halere, beren ordezkariatasuna esanbidez edo isilbidez jaso duten pertsonen bitartez.

Subjektu kolektibo horiek eskuratutako eskubideen titulartasuna kide guztiei batera dagokiela ulertuko da, eta kide horien ahobatezkotasuna nahitaezkoa izanen da halako eskubideak xedatzeko, ezertan eragotzi gabe alderdien arteko barne-harremanak.

Subjektu kolektibo horiek harturiko betebeharez beren kide guztiek izanen dute erantzukizun pertsonal eta solidarioa.<sup>48</sup>

### **II. TITULUA**

#### **PERTSONA INDIBIDUALEEN GAITASUNA ETA ORDEZKARITZA**

##### **47. legea**

###### ***Gaitasuna***

Gaitasun osoa adin-nagusitasunarekin eskuratzen da, hemezortzi urte betetzean.

###### ***Adingabeak***

Adingabeek gaitasuna dute lorturiko heldutasunaren arabera beren kabuz egikari ditzaketen pertsonaren berezko eskubideei dagozkien egintza guztietarako, legeek haiei beren kabuz nahiz beren legezko ordezkarien laguntzaz egiten uzten dieten egintza eta kontratuatarako, bai eta gizarte-usadioen arabera beren adinari dagozkion ondasun eta zerbitzu arruntei buruzko egintza eta kontratuatarako ere.

Prestazio pertsonalak eginarazten dizkieten kontratuak sinatzeko, alde zurretik baimena eman beharko dute, behar adinako heldutasuna badute eta, betiere, 12 urte baino gehiagoko adina badute, eta kasu horietan ere entzunaldia eman beharko zaie haientzat eragina duten beste edozein egintza edo kontratutarako.

Adingabeen jardute-gaitasunaren mugei buruzko interpretazioa modu murriztailean eta haien interesaren mesedetan eginen da beti.

###### ***14 urte baino gehiagoko adingabeak***

Legeen arabera egin ditzaketen egintza guztiak ezertan eragotzi gabe, 14 urte baino gehiagoko adingabeek gaitasuna izanen dute Konpilazio honetan zehazturiko egintzetarako.

Gainera, beren kabuz onar ditzakete inolako betebeharririk harrarazten ez dieten orotariko eskuzabaltasunak, baita haietan mugapen edo debekuak adierazten direnean ere eskuzabaltasunaren xede diren ondasunen gainean.

###### ***16 urte baino gehiagoko adingabeak***

16 urte baino gehiagoko adingabe emantzipatugabeek zilegi dute beren irabazizko jarduera propioaren bidez eskuratu dituzten ondasunen administrazio arrunteko egintzak gauzatzea.

---

<sup>48</sup> PZLko 6.1.5. art. eta 11.2 art.; KZko 1669. art.; JHL. NJANaren 16/1996 epaia, azaroaren 4koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Halaber, agiri publiko baten bidez baimendu ditzakete 66. legerako bigarren apartatuak gurasoei buruz aipatzen dituen xedatze-egintzak, eta kasu horretan ez da epailearen baimenik behar.<sup>49</sup>

### **48. legea**

#### ***Emantzipazioa***

Emantzipazioa gertatuko da hori guraso-erantzukizuna egikaritzen dutenek onartzearen eta epaileak onartzearen ondorioz.

Lehen kasuan beharrezkoa da adingabeak 16 urteko adina beteta izatea, emantzipazioari onspena ematea eta eskritura publikoan edo Erregistro Zibilaren arduradunaren aurrean ematea.

Epaileak emantzipazioa eman diezaieke horretarako eskaera egiten duten guraso-erantzukizunpeko 16 urte baino gehiagoko adineko pertsonari, entzunaldia eman ondoren gurasoei eta honako kasu hauetan:

1. Gurasoak bananduta bizi badira.
2. Guraso-erantzukizuna gauzatzen duena berriro ezkontzen bada, bikote egonkorra osatzen badu edo ezkon-bizitza egiten badu beste gurasoa ez den pertsona batekin.
3. Guraso-erantzukizunaren egikaritzea larriki eragozten duen edozein arrazoi baldin badago.

Era berean, eman ahal izanen dio tutoretzapean egonik hori eskatzen duen 16 urte baino gehiagoko adineko pertsonari ere, Fiskaltzak txostena egin ondoren.

Ondorio guztietarako emantzipatutzat joko da gurasoen baimenarekin haiengandik beregain bizi den 16 urte baino gehiagoko adineko pertsona, ezertan eragotzi gabe gurasoek adingabearen interes gorenean oinarrituta baimen hori errebokatzea.

Emandako emantzipazioak ez du hirugarrenentzako efekturik izanen harik eta Erregistro Zibilean inskribatzen den arte.

#### ***Adingabe emantzipatuaren gaitasuna***

Adingabe emantzipatuak bere kabuz egin ditzake mota guztietako egintzak eta kontratuak, are epailetan agertzea ere, salbu eta dirua maileguan hartu, abalak edo fidantzak jarri, eta ondasun higiezinak, merkataritza- nahiz industria-establezimenduak, horien oinarritzako osagaiak edo ohiz kanpoko balioa duten objektuak besterendu edo kargatu. Egintza horietarako, bai eta epaiketa batean egintza horiei buruzko edo aipaturiko motetako ondasunei buruzko agerraldia egiteko, gurasoetatik edozeinen laguntza beharko du; eta, horiek ez badaude, bere legezko ordezkariarena.<sup>50</sup>

---

<sup>49</sup> EK-ko 12. art., 2. xed. geh.; FBko 19, 54, 60-61, 184, 186. legeak; KZko 9.1 art.; Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko azaroaren 8ko 17/2010 FLko 51, 54. art. Ikus 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa; 8/2021 LO, ekainaren 4koa, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesteari buruzkoa; 17/2019 FL, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa; 15/2022 L Integrala, uztailaren 12koa, Tratu-berdintasunerakoa eta Diskriminaziorik Ezerakoa.

<sup>50</sup> FBko 19, 54, 75.VI, 83, 106, 190. legeak; KZko 10.8, 239. artikulua eta hurrengoak; Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko azaroaren 8ko 17/2010 FLko 51, 54. art.; Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien

#### **49. legea**

##### ***Ordezkaritza***

Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua den pertsona orok ahalordedunaren bidez egin ditzake berak bere kabuz egin ahal izaneren lituzkeen egintza guztiak, Konpilazio honetan ezarritako mugapenez bestelakorik izan gabe.

##### ***Errebokagarritasuna***

Ahalorde-emaileak askatasunez erreboka dezake ordezkaritza-ahalordea, salbu eta ahalordea berariaz izaera errebokaezinez eman denean ahalordedunaren interes zilegi baten ondorioz edota ahalordedunaren eta ahalorde-emailearen artean errebokaezintasuna justifikatzen duen kontratu-harreman bat egotearen ondorioz.

##### ***Prebentziozko ahalordeak***

Adinez nagusia edo adingabe emantzipatua den pertsona orok prebentziozko ahalordeak eman ditzake eskritura publiko batean, halako moldez non ahalorde horien indarraldia hasi eta garatuko baita hark bere gaitasuna egikaritzeko laguntza behar duen unean.

Prebentziozko ahalorde horiek izaten ahalko dute ahalorde-emaileak pertsoneri eta ondareari dagokienez zehaztuko duen hedadura, eta edozein sostengu- eta kontrol-neurri ezartzen ahalko dute,; halaber, izendatzen ahalko dituzte horiek egikaritzeko dituzten pertsonak.

Ahalorde-emailearen ezkontidearen edo bikotekide egonkoraren alde emandako prebentziozko ahalordea automatikoki azkenduko da elkarbizitza amaitzen den unean, salbu eta ahalorde-emaileak kontrako zentzuko xedapena ematen badu edo ahalordearen iraupena justifikatzen duen arrazoiren bat baldin badago, haren egoerarekin zerikusia duena

Behin gaitasuna egikaritzeko laguntzen premia suertatu denean, ahalorde-emailearen aldeko laguntza-neurriak ezartzen dituen ebazpen judizialak zilegi izanen du ahalordean zehaztuta dauden neurriez bestelakoak xedatzea, baina soil-soilik horiek arrazoitu egiten baditu eta haren interesak babesteko beharrezkoak badira.<sup>51</sup>

#### **49. BIS legea**

##### ***Borondatezko laguntza-neurriak.***

Arrazoi nahikoa dagoenean pentsatzeko ezen guraso-erantzukizuna edo tutoretza duen adingabe batek, adinez nagusi izan aurreko bi urteetan, laguntza beharko duela adinez nagusi izan ondoren bere gaitasun juridikoa egikaritzeko, adingabe horrek adin-nagusitasunera iristen denerako egindako aurreikuspenak hartuko dira kontuan, edo, halakorik ez badago, agintaritza judizialak ezartzen dituenak, adingabeak, gurasoek, tutoreak edo Fiskaltzak hala eskatuta, adingabeari prozesuan parte hartzeko aukera emanez eta haren borondatea, nahiak eta zaletasunak kontuan hartuz.

---

familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 2. art.; BJLko 53-55. art. NJANaren 19/2013 epaia, abenduaren 11koa.

<sup>51</sup> FBko 79. legea; KZko 10.11, 102, 256. artikulua eta hurrengoak, 1259, 1732. artikulua eta hurrengoak; PZLko 30.1.1. art. NJANaren 13/2011 epaia, irailaren 5koa.

**III. TITULUA**  
**FAMILIAREN BABES JURIDIKOA**

**50. legea**

***Familia***

Familiak Nafarroako ordenamendu zibilaren babes juridikoa du, zeinak babesten baititu ezkontzaren, bikote harremanaren, seme-alabatasunaren eta guraso bakarrak bere ondorengoekin osatutako taldearen ondoriozko familia-harremanak.

Familia berrosatueta kide dira guraso bakoitzaren seme-alabak, familia-talde berean bizi direnak; eta familia horietako kide izateak ez du aldatzen beste gurasoarekiko lotura. Efektuak ordenamendu juridikoan ezarritakoak izanen dira.

Inor ezin da diskriminatu familia-talde jakin batekoa izateagatik.<sup>52</sup>

**IV. TITULUA**  
**SEME-ALABATASUNA**

**I. KAPITULUA**  
**Printzipio orokorrak**

**51. legea**

***Motak***

Seme-alabatasuna naturala izan daiteke, laguntza bidezko ugalketako tekniken ondoriozkoa barne harturik, edo adopzio bidezkoa.

Seme-alabatasun guztiek efektu juridiko berberak dituzte.<sup>53</sup>

**52. legea**

***Seme-alabatasunaren edukia eta efektuak***

Behar bezala esleituriko aitatasun eta amatasunak guraso-erantzukizuna esleitzen diete gurasoei, 64. legearen eta hurrengoaren arabera; semeari edo alabari, abizenak, Erregistro Zibilari buruzko legeriarekin bat etorritz; eta bai batzuei bai besteari, Konpilazio honetan aitortutako eskubide eta betebeharrak.

Arestikoa gorabehera, ondoko legeek berariaz aurreikusten dituzten kasuetan aipatzen diren ebazpenetan, epaileak zilegi izanen du xedatzea, arrazoiturik, ezen seme-alabatasunaren efektuak harreman horren deklaratzeko hutsezkoak izanen direla, edo murriztea efektu horien norainokoa.

Aitatasuna edo amatasuna gurasoaren errefusatze funsgabearen aurka zehaztu bada epaiketa bidez, edota guraso hori kondenatzen duen epai penalaren bidez, guraso horrek ez du izanen guraso-erantzukizunik edo seme nahiz alabaren gaineko bestelako babes-eginkizunik, ezta zuzenbidezko eskubiderik ere haren ondarearen gain edota haren

---

<sup>52</sup> EK-ko 39. art.; KZko 9.1 art.; LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 FLko 23. art.

Ikus 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko; 5/2019 FL, otsailaren 7koa, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzkoa.

<sup>53</sup> EK-ko 14, 39. art.; KZko 108. art.; Giza Ugalketa Lagunduko Teknikeri buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Lko 7. art.



## I. liburua.- Pertsonak eta familia

"mortis causa" oinordetzan. Eta seme edo alabaren beraren edo horren legezko ordezkariaren borondatez baizik ez zaizkio jarriko seme edo alabari bere gurasoaren abizenak.

Guraso bakoitzak, nahiz eta guraso-erantzukizunaren titular ez izan edo horren egikaritzea eduki ez, bere seme-alaba adingabeak zaintzeko betebeharra du, bai eta horiei mantenua ematekoa ere. Gauza bera gertatuko da beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak behar dituzten seme-alaba adindunekin eta adingabe emantzipatuekin. Gurasoetako edozeinek edo, kasua bada, laguntza ematearen erantzukizuna duenak eskatuta, agintaritzea judizialak zilegi izanen du zaintza-betebehar hori nola gauzatu behar den ezartzea, kontuan hartuta seme edo alabaren borondatea, interesak eta zaletasunak.<sup>54</sup>

## II. KAPITULUA

### Seme-alabatasun naturala

#### 53. legea

##### *Seme-alabatasun naturala zehaztea*

Seme-alabatasun naturala honako xedapen hauen arabera zehaztuko da:

##### *a) Ezkontzako seme-alabatasuna*

Ezkontzako seme edo alabatza hartzen dira:

1. Ezkontza egin denetik ehun eta laurogei egun igaro ondoren eta ezkontza hori desegin denetik edo ezkontideen banantzea gauzatu denetik hirurehun egun igaro baino lehen jaio direnak.

2. Ezkontza egin eta hurrengo ehun eta laurogei eguneko epearen barrenean jaio direnak, baldin senarrak ez badio bere aitatasunari uko egin agiri kautotan formalizaturiko deklarazio baten bidez, erditzearen berri izan zuenetik sei hilabeteko epean. Bere aitatasunari ezin izanen dio eraginkortasunez uko egin lehenago aitatasun hori esanbidez nahiz isilbidez aitortu duen norbaitek.

3. Ezkontza desegin denetik edo ezkontideen banantzea gauzatu denetik hirurehun egun igaro ondoren jaio direnak, baldin frogatzen bada haurdunaldia luzeagoa izan dela, banandutako ezkontideak berriro elkartu direla edota horiek ados daudela semea edo alaba ezkontzako gisa inskribatzeko.

##### *b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna*

Erregistro Zibilar buruzko legerian xedaturikoa ezertan eragotzi gabe, guraso bakoitzarentzat ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna zehazten da horrek egindako aitopenaren nahiz epai irmoaren bitartez.

##### *c) Ezkontzaren aurreko seme-alabatasuna*

Gurasoen ezkontzaren aurretik jaiotako semea edo alaba ezkontzako seme edo alabatza hartuko da gurasoak ezkontzen direnetik, betiere horrek bi gurasoekiko duen seme-alabatasuna legearen arabera zehaztu bada.

---

<sup>54</sup> FBko 56, 57, 62. legeak; KZko 14. art.; ikus 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesaren eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko; KZko 109, 111. art.; EZLko 44, 49, 53-55. art. NJANren 26/2004 epaia, urriaren 29koa; KAren 178/2020 epaia, abenduaren 14koa.

**d) Laguntza bidezko ernalketaren ondoriozko seme-alabatasuna**

Foru lege berezi batek hori arautzea ezertan eragotzi gabe, ama laguntza bidez ernaltzearen ondoriozko seme-alabatasuna zehazteko, lege orokorretan xedatutakoari helduko zaio.

**e) Xedapen amankomuna**

Seme-alabatasun baten zehaztapenak ez du eraginik izanen, horrekin kontraesanean dagoen beste seme-alabatasun aurretiaz ezarritako bat baliogabetzen ez den bitartean.<sup>55</sup>

**54. legea**

**Aitorpena**

**a) Forma**

Aitorpena egin beharko da Erregistro Zibilaren arduradunari egindako adierazpenaren bidez edota beste agiri publiko baten bidez.

Gurasoek seme-alabatasuna biek elkarrekin edo bakoitzak bere aldetik aitor dezakete. Bakoitzak bere aldetik eginez gero, kasuko aitorpenean ezin izanen dute adierazi beste gurasoa nor den, salbu eta nortasun hori jadanik zehaztuta dagoenean.

**b) Gaitasuna**

Aitorpena 14 urte baino gehiagoko adina duen pertsona orok egin dezake. Adingabe emantzipatugabea bada, beharrezkoa izanen da epailearen onespina, Fiskaltzari entzunaldia eman ondoren. Bere gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita baditu, horietan xedatutakoari helduko zaio, ezertan eragotzi gabe agintaritzaz judizialak modu arrazoituan ezartzen duena bai jadanik ezarrita dagoen neurriaren nahikotasunari buruz bai hori xedatzeko beharrari buruz.

**c) Baldintzak**

Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua aitortzeak haren esanbidezko edo isilbidezko baimena izan beharko du.

Emantzipatu gabeko adingabeari buruzko aitorpena Erregistro Zibilean inskribatzen ahalko da, ezertan eragotzi gabe haren legezko ordezkari duenak errefusa adieraztea, hurrengo apartatuan ezarritakoari jarraikiz eta adingabe aitortuaren interes gailenean oinarrituz.

Gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita dituen pertsonari buruzko aitorpena Erregistro Zibilean inskribatzen ahalko da, ezertan eragotzi gabe ordezkari-laguntza emateko izendatua izan denak errefusa adieraztea.

Adingabeko ama emantzipatugabeak adierazitako errefusaren kasuan, defendatzaile judizial bat izendatuko zaio horretarako, ezertan eragotzi gabe zuzenean Fiskaltzak egitea errefusa.

Errefusa gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita dituen ama batek adierazten badu, neurri horietan xedatutakoari jarraituko zaio, edo, halakorik ezean, defendatzaile judizial bat izendatuko zaio horretarako, ezertan eragotzi gabe zuzenean Fiskaltzak egitea errefusa.

Halaber aitortu ahal izanen da jadanik zendutako seme edo alaba bat, baldin eta ondorengo ahaidetik utzi badu. Horiek adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak

---

<sup>55</sup> EK-ko 14 eta 39. art.; KZko 9.4, 108, 113.II, 115-120. art.; Giza Ugalketa Lagunduko Teknikeri buruzko maiatzaren 26ko 14/2006 Lko 7. art.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

baldin badira, aitorpenak haien esanbidezko edo isilbidezko baimena izan beharko du. Emantzipatu gabeko adingabeak badira, aitorpena inskribatzeko modukoa izanen da, baina halaber zilegi izanen da haien ordezkari legalak errefusa adieraztea, haien interes gailanean oinarriturik.

Beren gaitasun juridikoa egikaritzeko neurriak ezarrita dituzten pertsonak direnean, aitorpena inskribatzeko modukoa izanen da, baina halaber izanen da errefusatzeko modukoa, neurri horietan, kasua bada, aurreikusitakoaren arabera. Laguntza-neurririk ez badago edo daudenak aski ez badira, borondatez edo epai bidez horretarako neurri bat ezarriko da.

### **d) Aitorpena errefusatzea**

Errefusa urtebeteko epean formalizatu beharko da, aitorpena jakinarazten denetik. Jarraitu beharko dituen izapideak Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legeak ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren aitorpenerako ezartzen dituenak dira, eta baietsi eginen da aitorpenak aurka egiten dionean aitorturiko pertsonaren edo haren ondorengo ahaideen interesari.<sup>56</sup>

## **55. legea**

### ***Seme-alabatasunari buruzko akzioak Xedapen orokorrak***

#### **a) Froga**

Aitatasuna eta amatasuna mota guztietako frogabideak erabiliz erreklamatu eta aurkaratu ahal izanen dira, Konpilazio honetako xedapenei jarraiturik. Epailleak ez du demanda onartuko baldin eta horrekin batera ez bada aurkezten demandari oinarri ematen dioten egitateei buruzko froga-hastapenik.

#### **b) Kontraesana**

Ezin da seme-alabatasunik erreklamatu lege zehaztuta dagoenarekin kontraesanean dagoenik, baldin eta aldi berean bigarren hori ez bada aurkaratzen. Konpilazio honek deklaratzeko-akzioa egikaritzeko legitimazioa aitortzen dien pertsonen legitimazioa izanen dute halaber, eta epe berean, kontraesanean dagoen seme-alabatasuna aurkaratzeko; are aurkaratzeko-akzioa bereiz egikaritzeko legitimaziorik ez dutenean ere.

Epai irmoz ezarritako seme-alabatasuna ez da ezein kasutan aurkaratu ahal izanen.

#### **c) Babes-neurriak**

Prozeduran zehar, epailleak egoki deritzen neurri guztiak hartuko ditu adingabe emantzipatugabea babesteko, pertsona horren seme-alabatasuna denean demandaren xede; bai eta haren ondasunak babesteko ere. Araubide bera aplikatuko zaie desgaitasuna duten eta ordezkartzeko laguntza-neurriak dituzten pertsonen.

#### **d) Legitimazioa**

Adingabe emantzipatugabeen dagozkien akzioen egikaritzazale izaten ahalko dira, bereizgabeki, haien legezko ordezkaria nahiz Fiskaltza, eta berdin gertatuko da desgaitasuna izanik ordezkartzarako laguntza-neurriak dituzten pertsonen dagozkienekin.

---

<sup>56</sup> FBko 38, 57, 209. legeak; KZko 120-126. art.; BJLko 23-26., 27-32. art. Ikus KAren 41/2017 epaia, apirilaren 24koa; NJANaren 5/2018 epaia, uztailaren 2koa.

Lege honetako c) letarako bigarren paragrafoa ez da konstituzio-kontrakoa, KAren irailaren 16ko 17/2021 epaiaren 7. ZOaren arabera interpretatua.

*e) Prozesuko ondorengotza*

Demandatzailea hildakoan, horren jaraunsleek zilegi izanen dute jadanik abiatuta dauden akzioak egikaritzen jarraitzea.<sup>57</sup>

**56. legea**

***Aurkaratze-akzioak***

Ezertan galarazi gabe Erregistro Zibilari buruzko legeriak erregistro-idazpenen aurkaratzeari eta zuzenketari buruz dioena, seme-alabatasunaren aurkaratzea honako xedapen hauei jarraikiz eginen da:

***a) Amatasunaren aurkaratzea***

Jaiotza-inskripzioan agertzen den amatasuna auzibide zibilean aurkaratu ahal izanen da, frogatzen baldin bada erditzea sinetsarazi dela edo ustezko seme edo alaba eta jaiotza dena pertsona berbera ez direla.

Amatasunak bat egiten badu egoera-erakundeekin, amatasun hori zuzenean aurkaratu ahal izanen duten bakarrak dira, batetik, semea edo alaba, eta bestetik, emakume hura zeinak ez baitu kontzienteki eta borondatez parte hartu bere amatasunaren inskripzio faltsuaren jatorri diren edo inskripzio horren arabera zehaztua izandako seme-alabatasunaren jatorri diren egitateetan.

Ez baldin badago amatasunaren eta egoera-erakundeen bat-egiterik, interes zilegi eta zuzenekoa dutenek ere aurkaratu ahal izanen dute amatasuna.

***b) Senarraren aitatasuna aurkaratzea***

Amaren senarraren aitatasuna senar horrek aurkaratu ahal izanen du harik eta urtebete igarotzen den arte seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatu zenetik, baina epe hori ez da igarotzen hasiko jaiotzaren berririk ez daukan bitartean, salbu eta, horren berri izanda ere, ez baldin badaki aitatasun biologikorik ez duela; eta kasu horretan, urtebeteko epea igarotzen hasiko da horren jakitun bihurtzen den unean edo horren jakitun izateko modua taxuzko ustez izan duen unean.

Baldin eta senarra hil egiten bada aurreko paragrafoan zehazturiko epea igaro aurretik, horretarako akzioa oinordeko bakoitzak izanen du, epe hori amaitzeko falta den denborartean. Hiltzen bada inskripzio hori egin ez delarik, jaiotzaren edo bere aitatasunaren berri izan gabe, haren oinordekoek zilegi izanen dute aipaturiko epean aurkarapena abiaraztea.

Seme edo alabak berak ere aurkaratzen ahal du aitatasuna, urtebeteko epean, noiztik eta adin-nagusitasuna, emantzipazioa edo beraren jaiotza inskribatzen denetik, hori geroagokoa izanez gero. Laguntza-neurririk aurreikusita badu, zilegi izanen du laguntza-neurriarekin egikaritzea akzio hori.

Amak bere izenean nahiz seme edo alabaren ordezkari gisa egiten ahalko du aurkaratzea, seme edo alaba hori adingabe emantzipatugabea denean edo ama izendatu bada ordezkari-talantza-laguntza emateko. Epea urtebetekoa izanen da, inskripzioaren unetik hasita edo senarraren aitatasunik ezaren berri izan duen unetik hasita.

---

<sup>57</sup> EK-ko 39.2. art.; PZLko 748-755., 764-768. art.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

### ***c) Aitorpenaren aurkaratzea***

Adostasun-akatsa edo eragin-abusua tarteko direla egin den aitorpen baten aurkaratzea aitorpen horren egileak egiten ahalko du, akatsaren edo abusuaeren desagerpenaren ondorengo urtean zehar.

### ***d) Aitorpenaren bitartez zehazturiko aitatasuna aurkaratzea***

Adingabe emantzipatugabearen edo ordezkaritza-laguntza duenaren ordezkariak zilegi izanen du, aitorpenari buruz adierazitako errefusa ezetsi bada, horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea, aitorpena egin duenaren gurasotasuna egiazkoa ez izateagatik. Halaber, seme edo alabaren edo horren ondorengo ahaideen interesetan, zilegi izanen du, hura zendu ondoko aitorpena denean, akzioa egikaritzea aitorpenaren efektuak epaian murriztu daitezzen, 52. legeak adierazitakoaren arabera. Bi kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea urtebetekoa izanen da, seme-alabatasuna zehaztuta geratu denetik.

Adingabetasun-aldian aitortua izan den pertsonak edo adingabe zirelarik aitortua izan zen pertsona zenduaren ondorengo ahaideek zilegi izanen dute horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea adin-nagusitasuna edo emantzipazioa lortu ondoko urtean zehar.

Horrela zehazturiko gurasotasuna halaber aurkaratu ahal izanen dute horrekin kalteturik suertatzen direnek, gurasotasuna inskribatu ondorengo lau urteetan.<sup>58</sup>

## **57. legea**

### ***Deklaratze-akzioak***

#### ***a) Ezkontzako seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa***

Aitak, amak eta seme edo alabak edonoiz erreklama dezakete ezkontzako seme-alabatasuna, semearena edo alabarena. Egoera-edukitza egonez gero, akzioa egikaritu dezakete interes zilegi eta zuzenekoa duten hirugarrenek.

#### ***b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa***

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa honako hauek egikaritu ahal izanen dute:

1. Seme-alabek, beren bizitza osoan zehar. 55. legearen d) letran aurreikusitako kasuetan, manu horretan ezarritakoa beteko da.

Akzio hau semearen edo alabaren ondorengo ahaideek egikaritzen ahalko dute, baldin eta seme edo alaba hori adingabe zelarik edo ordezkaritza-laguntza-neurri bat ezarrita zuenean hil bazen.

2. Gurasoek, ustezko aitatasun edo amatasunaren berri izan ondoko edo horren berri izateko aukera taxuzkoa izan ondoko urtebeteko epean.

Seme-alabatasuna zehaztu gabe dagoenean, beharrezkoa izanen da, guraso batek bere aitatasun edo amatasuna deklaratu izan dadila nahi badu, guraso horrek alde aurretik aitorpena egin izana 54. legeak ezarritako moduan, eta horren araberako seme-alabatasun zehaztapena ezin egin izana aitorturiko pertsonaren edo, kasua bada, haren ondorengo ahaideen baimenik ezagatik, edo kasuan kasuko legezko ordezkarien errefusa judizialki baietsia izateagatik.

---

<sup>58</sup> FBko 38. legea; KZko 136-141. art. Ikus KAren 138/2005 epaia, maiatzaren 26koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea eten eginen da aitortpena egiten den unean, eta epe-kontaketa jarraitu eginen da adostasunik eza frogatzen denetik edo errefusa baiesten duen ebazpena irmo bihurtzen denetik.

Deklaratze-akzioa baiesten duen epaiak zehaztu eginen du seme-alabatasuna, baina zilegi izanen du, seme edo alabaren nahiz haren ondorengo ahaideen interesetan, haren efektuak mugatzea, 52. legeak xedatuari jarraikiz.

3. Zuzeneko interes zilegi bat daukaten pertsonak, baldin eta egoera-erakundeak badago, eta edonoz.<sup>59</sup>

### **58. legea**

#### ***Adopta dezaketen pertsonak***

Edonork adopta dezake, lege orokorren arabera gaitasuna izanez gero, baldin eta hogeita bost urte baino gehiago baditu eta, entitate publikoaren proposamena tartean egonez gero, gaitzat deklaratu izaten bada.

Gainera, adoptatzaile guztiak adoptatuak baino hamasei urte gehiago izan beharko dituzte gutxienez.

Ezin dira adoptatzaile izan guraso-erantzukizuna kenduta edo etenda duten pertsonak edo guraso-erantzukizuna kendua izateko arrazoietakoren bat betetzen dutenak.

#### ***Baterako adopzioa***

Pertsona batek baino gehiagok eginiko adopzioa posible izateko, beharrezkoa izanen da pertsona horiek ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak izatea. Kasu horietan, adopzioa aldeberekoa edo ondoz ondoko izan daiteke, eta nahikoa izanen da adoptatzaileetako batek 25 urteko adina beteta izatea.<sup>60</sup>

## **III. KAPITULUA** **Adopzio bidezko seme-alabatasuna<sup>61</sup>**

### **59. legea**

#### ***Adoptatuak izan daitezkeen pertsonak***

Honako hauek izan ahal dira adoptatuak:

1. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, bestelako babes-neurri bat eratzeko edo mantentzeko moduko kasua ez denean.
2. Adoptatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorren seme-alaba diren adingabeak.
3. Adingabe umezurtzak, adoptatzailearen odol nahiz ezkontza bidezko hirugarren edo laugarren graduko alboko ahaide direnak.

---

<sup>59</sup> FBko 38. legea; KZko 131-134. art. Ikus NJANaren 41/2017 epaia, apirilaren 24koa, eta 273/2005 epaia, urriaren 27koa.

<sup>60</sup> KZko 9.5. art.; Haur eta nerabeei arreta eta babesba eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 142-150. art.; LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 FLko 24. art.; 1/1996 LO, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; KZko 175-176. art.; 168/2002 FD, uztailaren 22koa, Nazioarteko adopzioaren gaietan lankide diren entitateen kreditazioa arautzen duena.

<sup>61</sup> 21/2019 FLko 2. eta 3. xed. ir. (ikus §4.5).

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

4. Adoptatu nahi dituenaren tutoretzapean dauden adingabeak, baldin eta tutoretzako kontuaren azken onespena egin bada.

5. Emantzipatu aurretik adoptatzailearekin edo adoptatzaileekin etenik gabe bizi izan diren pertsona adin nagusiko edo emantzipatuak, edo haren edo haien legezko edo izatezko zaintzapean, edo tutoretza edo harrerapean, egon direnak, kasu guztietan urtebete baino gehiagoz.

Ezin da adoptatu odol nahiz ezkontza bidezko ondorengorik edo anai-arrebarik.<sup>62</sup>

### **60. legea**

#### ***Adostasunak***

Adopzioarako adostasuna bai adoptatzaile den horrek edo diren horiek bai 12 urte baino gehiagoko adoptagaiak eman behar dute.

#### ***Baiespenak***

Adopzioari baiespena eman behar diote bai adoptatzailearen ezkontide edo bikotekide egonkorrak bai adoptagai den adingabe emantzipatugabearen gurasoek, salbu eta guraso horiek guraso-erantzukizuna kenduta badute edo hori kendua izateko arrazoiren bat betetzen badute.

Ez da adoptagaiaren gurasoen baiespenik beharko, baiespena emateko ezintasuna epaileak hauteman eta arrazoitzen duenean.

Gurasoek guraso-erantzukizunaren egikaritzea adingabearen babesgabetasuna deklaratu izatearen ondorioz baldin badute etenda, ez da haien baiespenik beharko, hori aurkaratu gabe bi urte igaro badira edo aurkaratze hori epai irmoz ezetsi bada.

#### ***Entzunaldiak***

Adopzioa eratu baino lehen, entzunaldia eman beharko zaie guraso-erantzukizuna kenduta ez duten gurasoei, haien baiespena beharrezkoa ez denean adopzioa eratzeko, tutoreari edo, hala denean, adoptatzaile ez diren harrera-egileei, bai eta behar adinako heldutasuna duen 12 urte baino gutxiagoko adoptagaiari ere.<sup>63</sup>

### **61. legea**

#### ***Adopzioaren efektuak***

Adopzioak berekin dakar pertsona adoptatuaren eta haren jatorrizko familiaren arteko lotura juridikoak desagitea.

Salbuespen gisa, kasuaren arabera dagokion gurasoaren familiarekiko lotura juridikoek iraun egiten dute:

1. Adoptatua adoptatzailearen ezkontidearen edo bikotekide egonkorren seme edo alaba bada, are bata edo bestea hilik daudenean ere.

2. Gurasoetako bakarra izan denean legalki zehaztua, baldin eta efektu hori eskatu egin badute adoptatzaileak, 12 urte baino gehiagokoa den adoptatuak eta irautekoa den lotura duen gurasoak.<sup>64</sup>

---

<sup>62</sup> Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 142. art.; KZko 175.2 eta 3 art.

<sup>63</sup> B JLko 33-42. art.; PZLko 781. art.; KZko 177. art.

<sup>64</sup> Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 151. art.; KZko 14.2 eta 3, 178. art.

## **62. legea**

### ***Az kentzea Adopzioa erre boka ezina da***

Epaileak adopzioa az kentzea erabakiko du baldin eta hala eskatzen badu seme-alabatasuna adopzioaren aurretik zehaztu dieten eta, errurik izan gabe, adopzio prozeduran esku hartu ez duten gurasoetako edozeinek. Halaber, beharrezkoa izanen da adopzioaren ondoko bi urteko epearen barranean aurkeztea demanda, eta eskatutako az kentzeak adingabea larriki ez kaltetzea. Adoptatua adin nagusikoa bada, beharrezkoa izanen da, adopzioa az kentzeko, hark bere adostasuna esanbidez adieraztea.

Adoptatuari dagokion seme-alabatasun naturala zehazteak eta, kasua bada, epaileak 52. legearen arabera indardun deklaratzten dituen efektuek ez dute ezein kasutan eraginik izanen adopzioan.<sup>65</sup>

## **63. legea**

### ***Ordezko araubidea***

Aurreko legeek aurreikusten ez duten orotan, eta horiekin bateragarria den heinean, adopzioari lege bereziek edo Kode Zibilak ezarritakoa aplikatuko zaio.<sup>66</sup>

## **V. TITULUA GURASO-ERANTZUKIZUNA**

## **64. legea**

### ***Izena eta kontzeptua***

Guraso-erantzukizun deitzen zaio beren seme-alaba adingabe emantzipatugabeen gainean gurasoei dagozkien betebeharrak eta ahalmenen multzoari, zeinak helburutzat baitu haien garapen erabatekoa lortzea, haien nortasun eta interes gorenaren arabera eta haien eskubideak eta osotasuna errespetatuta.

### ***Titulartasuna***

Guraso-erantzukizuna bi gurasoen multzoarena da.<sup>67</sup>

## **65. legea**

### ***Edukia***

Guraso-erantzukizunak honako betebeharrak eta ahalmen hauek hartzen ditu barnean:

1. Seme-alabak zaintzea eta haiekin egotea, bai eguneroko zaintza-lanetan jardutean bai aldi baterako egonaldien eta kontaktuen iraunaldian zehar.

---

<sup>65</sup> KZko 179-180. art.

<sup>66</sup> Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 141-154. art.; LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 FLko 24. art.; Adingabeen adopzioaren esparruko Europako Hitzarmena (berrikusia), 2008ko azaroaren 27koa (berrespen-tresna, 167 zk.ko EAO, 2011ko uztaialaren 13koa); 54/2007 L, abenduaren 28koa, Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.

<sup>67</sup> FBko 52, 76. legeak; KZko 9.4 art.; Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaz baliatzen laguntze aldera legeria zibila eta prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Lko 2. xed. ir.; 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko; KZko 154. art.



## I. liburua.- Pertsonak eta familia

2. Behar duten guztia ematea seme-alabei elikadura, jantze, biztante, hezkuntza eta prestakuntza integral eta artatze fisiko, psikiko eta emozionalari dagokienez.
3. Seme-alaben jokabideak taxuz eta neurritz onbideratzea, haien duintasunarekiko erabateko begirunez eta haien heziketa egokia jomugatzat hartuz.
4. Seme-alabei eragiten dieten eta gaitasunari buruzko legeen arabera beren kasa egin ezin dituzten egintza guztietan haien ordezkari jardutea.
5. Seme-alaben ondasunak administratu eta xedatzea, honako salbuespen hauekin:
  - a) Inoren eskuzabaltasunez eskuratuak izan direnak, baldin eta inor horrek baztertu egin badu gurasoek administratuak izatea ondasun horiek. Kasu horretan, inor horrek ezarritako araubideari helduko zaio.
  - b) "Mortis causa" eskuratutako ondasunak, baldin eta gurasoetako batek edo biek ez bazuten horiek eskuratzeko modurik izan, ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasuna zela-eta. Kasu horretan, beste gurasoak administratuko ditu ondasun horiek; eta, haren ezean, epaileak hautaturiko administratzaile batek.
6. Era berean, gurasoei dagokie seme-alaba kontzebitu eta jaiogabeen interes eta igurikimenak defendatzea.

### ***Seme-alaben betebeharrak***

Guraso-erantzukizunaren pean familiarekin elkarbizitzan dirauten bitartean, seme-alabek honako betebeharrak izan behar dituzte:

1. Gurasoei obeditu eta haiek errespetatzea.
2. Familiaren bizibiderako ekarpena egitea, beren jabetzakoak diren ondasunen fruituak emanaz. Ekarpene hori betetzeko asmoz, gurasoek, beren administrazio-jardunean, zilegi izan behar dute fruitu horiek aplikatzea familia artatzeko, egoki den proportzioan eta ondasunen jabetza duten seme-alaben premiak ase ondoren. Ahalmen horretatik salbuesten dira aurreko apartatuko 5. zenbakiak aipatzen dituen guraso-administratzaileentzat kanpoko ondasunak.<sup>68</sup>

## **66. legea**

### ***Bermeak eta administratzaileen mugak***

Gurasoek eginiko administrazioak arriskuan jartzen badu seme edo alabaren ondarea, epaileak zilegi izan behar du gurasoei galdatzea, alderdi interesdunak edo Fiskaltzak hala eskatuta, berme egokia eman dezaten, edo ondasunen segurtasunerako beste neurri batzuk hartzea; are administrazioa gurasoei kendu eta administratzaile bat izendatzea ere.

Administratzaile-aldia bukatzean eta hurrengo hiru urteko epean, seme-alabek, administratzaile judizialak edo Fiskaltzak zilegi izan behar dute gurasoei eskatzea administratzaile horren kontuak eman ditzaten, eta kasuaren arabera bidezko suertea litekeen kalte-galeren ordaina galdatzea.

### ***Xedatzea***

Gurasoek ezin diezaiekete ukorik egin seme-alaben titulartasunpeko eskubideei, eta, era berean, ezin dituzte besterendu, kargatu edo edozein modutan bermatu ondasun

---

<sup>68</sup> FBko 47, 155. legeak; KZko 9.4, 154-155, 162, 164-165. art.; 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko. NJANaren 13/1995 epaia, ekainaren 14koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

higiezinak, industria nahiz merkataritzako establezimenduak edo horien oinarrizko osagaiak edo aparteko baliodun objektuak, non eta aldez aurretik epaileak, Fiskaltzari entzun eta gero, horretarako baimenik eman ez duen. Baimen hori ez da beharrezkoa izanen kreditu ziurtatu bat kobratu ondoren hipoteka edo beste berme erreal bat kitatzeko, legezko nahiz borondatezko atzeraeskuratze-eskubidea egikaritzeagatiko atzera-eskurapenerako, ez eta zuzenbide-arauen ondorioz bete behar den eta adingabearentzat onuragarria den ezein xedatze-egintzatarako ere.

Gurasoek zilegi izanen dute beren kabuz onartzea, epailearen baimenik behar izan gabe, seme-alaben mesedetan egin den edozein xedatze; alabaina, baimen hori beharrezkoa izanen da horrelako xedatzeak errefusatzeko.

Deuseztagarriak izanen dira gurasoek seme-alaben izenean epailearen aurretiazko baimenik gabe gauzatzen dituzten egintzak, lege honek ezarritakoaren arabera baimen hori beharrezkoa denean.<sup>69</sup>

### **67. legea**

#### ***Guraso-erantzukizuna egikaritzea***

##### ***a) Erregela orokorra***

Hitzartu denaren arabera egikarituko dituzte gurasoek guraso-erantzukizunaren berezko betebehar eta ahalmenak; halaber, hitzartu denaren arabera hartuko dituzte horietatik eratorritako erabaki guztiak. Hitzarmenik ezean, elkar harturik arituko dira, edo guraso bakar bat, bestearen esanbidezko edo isilbidezko baimena duela.

Baliodunak izanen dira, hala ere, haietako edozeinek bere kabuz gauzaturiko egintzak, baldin familiaren inguruabarren eta tokiko usadioaren arabera seme-alaben beharrian aruntak direnak asetzeko egin badira horiek, edo presako konponbidea behar duten egoeretan.

##### ***b) Guraso bakarraren egikaritzea, legez esleiturikoa***

Lege zibil edo penalek beste kasu batzuetarako diotena ezertan eragotzi gabe, gurasoetako batek ordezkaritza-laguntzako neurriak ezarrita baditu edo gurasoetako baten absentsia-deklarazioa badago, beste gurasoak egikarituko du guraso-erantzukizuna.

##### ***c) Guraso bakarraren egikaritzea, epaileak esleiturikoa***

Guraso bakoitzak epailearen esku-hartzea eskatu ahal izanen du honako kasu hauetan:

1. Besteak ezintasuna duenean, eta guraso-erantzukizunaren egikaritzearen esleipen eskusiboa eskatzeko xedez.
2. Guraso-erantzukizunaren elkar hartuzko egikaritzea larriki eragozten duen edozein arrazoi dagoenean, epaileak gurasoei bereizirik esleitu ahal izan diezaien, guztiz edo hein batez, erantzukizunaren egikaritzea, edo horien artean banatu ahal izan ditzan eginkizunak, arrazoiturik egokitzat jotzen den aldirako, eta ezertan eragotzi gabe adingabeen interesak hobekien babesten dituzten neurriak hark zuzenean hartu ahal izatea.

---

<sup>69</sup> FBko 19, 38.2, 47, 75, 155. legeak; 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko; KZko 164, 166-168. art.; BJLko 61-66, 87-89. art. NJANaren 19/2013 epaia, abenduaren 11koa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

3. Guraso-erantzukizuna egikaritzeari buruzko desadostasunik sortuz gero, epaileak gurasoetako bati esleia diezaion erabakitze-ahalmena. Desadostasun horiek behin eta berriro agertzen badira, epaileak zilegi izanen du aurreko zenbakian aurreikusitako ebazpenetako edozein hartzea.

Borondatezko Jurisdikziopeko izapideen bitartez bideratuko dira apartatu honetan aurreikusitako prozedura judizialak.

### **d) Bitartekaritza**

Desadostasunengatik hasitako prozeduretan, gurasoek bitartekaritzara aurkez ditzakete desadostasun horiek.<sup>70</sup>

## **68. legea**

### ***Guraso-erantzukizuna, gurasoen elkarbizitza ez dagoenean edo elkarbizitza hautsi denean***

Gurasoak elkarrekin bizi ez direnean ere, guraso-erantzukizunak berezko dituen betebeharrak eta ahalmenak hitzartu denaren arabera egikaritzeko dira, eta, hitzarmenik ezean, biek batera egikaritzeko dituzte, edo horietako bakar batek, baina bestearen esanbidezko edo isilbidezko baimena duela. Aurreko legean aurreikusitako erregelak aplikatzeko dira.

Hori ezertan eragotzi gabe, kasu horietan, unearen arabera seme-alabak bere ardurapean dituen gurasoak egikaritu beharko ditu zaintza-betebeharraren ondoriozko ahalmen arruntak.

Elkarbizitzaren hausturak ez du aldatzen guraso-erantzukizuna osatzen duten betebeharrak eta ahalmenen titulartasuna, ezta horien egikaritzea ere.

Gurasoek zilegi izanen dute hitzartzea nola egikaritzeko dituzten betebeharrak eta ahalmen horiek ardurakidetzara araubidean, hurrengo legeak ezartzen duenari jarraituz.

Hitzarmenik izan ezean, adingabeengan eragina duten erabaki guztiak epaileak hartuko ditu, haien interes eta onura zehatzak kontuan hartuta, 70. legetik 74. legera bitartekoetan ezarritakoarekin bat.<sup>71</sup>

## **69. legea**

### ***Gurasotasun-ituna***

Gurasoek guraso-betebeharrak eta -ahalmenak ardurakidetzaz egikaritzeko modua adosten dutenean, guraso-plangintzako itun bat aurkeztu beharko dute, kasua bada dagokion hitzarmen arauemailearen zati gisa. Honako hauek jasoko ditu itun horrek:

1. Seme-alabek unean-unean batarekin eta bestearekin bizitzeko erabiliko duten edo dituzten tokia edo tokiak. Erroldatzea horietako zeinetan eginen den ezarriko da, bai eta seme-alaben nortasunaren garapenerako muntadun den erabaki-hartze oro partekatze modua ere.

---

<sup>70</sup> FBko 52. legea; BJLko 86. art.; 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko; 5/2012 L, uztailearen 6koa, Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritza buruzkoa; KZko 156. art. NJANaren 9/2022 epaia, uztailearen 15koa.

<sup>71</sup> KZko 156.V, 159. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

2. Seme-alabek guraso bakoitzarekin bizitzeko eta egoteko dituzten aldiak, unearen arabera seme-alabak ardurapean ez dituen gurasoarekin komunikatzeko zer modu erabiliko duten seme-alabek, eta gurasoen artean zaintza aldatzeari eragiten dioten alderdi pertsonalak eta ekonomikoak.
3. Adingabeen eguneroko eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzei dagokienez gurasoetako bakoitzak ardurapean hartzen dituen zereginak, kasua bada hirugarren pertsonen esku-hartzea edo laguntza aipatuta, eta seme-alabei buruzko informazio muntadun guztia elkari jakinarazteko erabiliko duten bitartekoa ere aipatuta.
4. Gurasoetako bakoitzak seme-alaben premia arrunt eta aparteko guztiei erantzuteko jarriko dituen baliabideak eta nola egingen duen horretarako ekarpen ekonomikoa, batzuk eta besteak zehaztuta eta halaber adierazirik haiek ezartze aldera mota guztietako zer inguruabar aintzat hartu diren oinarri gisa.
5. Elkarbizitza-aldian familia-etxebizitza izan denaren eta bertan bildutako ostilamenduaren erabilera eta zertarakoa, eta horrekin batera, erabilera-eskubidea gurasoetako bati edo biei esleitzea, kasua bada, bai eta eskubide horren iraupena eta baldintzak, eta esleipen horrek adingabeen premiei erantzuteko laguntza emateko orduan duen eragina.
6. Adingabeek beste senide eta hurbileko batzuekin harremanetan egoteko erabiliko duten modua, hori beharrezkotzat jotzen denean haien interesa errespetatzeko, eta betiere horiekin harremanak ezartzen dituzten pertsonen baimena argi badago. Gurasoek gurasotasun-itunean sartu ahal izanen dute haren aplikaziotik heldutako desadostasunak ebazte aldera familia-bitartekaritzara jotzeko konpromisoa.<sup>72</sup>

### **70. legea**

#### ***Neurri judizialak***

Gurasoen arteko adostasunik ezean, epaileak hartuko ditu adingabeen interesak hobekien babesten dituzten neurri guztiak, guraso-erantzukizunean sartuta dauden betebeharrak eta ahalmenei dagokienez.

Horretarako, gurasoetako bakoitzak guraso-erantzukizuneko planerako proposamen bat aurkeztu beharko du bere eskabidean, dena delako prozeduraren barnean. Proposamen horrek aurreko legean aipatzen den edukia jaso beharko du.

Kasuko akzio judiziala egikaritu baino lehen, bi gurasoek familia-bitartekaritzara jo ahal izanen dute beren desadostasunak ebazteko, guraso-plangintzako itun bat lortze aldera. Prozedura hasi ondoren, epaileak bitartekaritza horretara jotzea proposatu ahal izanen die biei, uste badu posible dela haiek itun horretara iristea.<sup>73</sup>

### **71. legea**

#### ***Zaintza eta jagoletza***

Gurasoetako edozeinek epaileari seme-alaba adingabeen eguneroko zaintza eta artatzeari buruzko erabakia hartzea eskatzen dionean, epaileak adingabeetako

---

<sup>72</sup> KZko 90. art.; Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 L.

<sup>73</sup> FBko 68, 73. legeak; KZko 91, 103, 158. art.; PZLko 748-755, 769-778.ter art.; Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 L.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

bakoitzaren interes zehatzerako komenigarriena den zaintza mota erabaki ahal izanen du, dela bi gurasoek partekatua dela horietako bakarrarena.

Horretarako, kontuan hartuko ditu guraso bakoitzak aurkezten dituen eskaera eta guraso-erantzukizunerako plangintzarako proposamenak, eta, hala denean, aditu-txostenetan adierazitakoa ere bai; Fiskaltzari entzunen dio, baita adingabeei buruz entzun beharreko iritzidun deritzen pertsonen ere, eta honako faktore hauek hartuko ditu aintzat:

1. Seme-alaben adina.

2. Gurasoen gaitasuna, gurasoen artean dagoen harremana, eta adingabeek elkarbizitzan zehar guraso bakoitzarekin sortu duten lotura.

3. Guraso bakoitzak agertzen duen jarrera, honako hauei dagokienez: bere betebeharrak bere gain hartzea, bestearen eskubideak errespetatzea, eta, bereziki, beren artean kooperatzea eta harremana bermatzea seme-alaben eta bi gurasoen, haien familia hedatuen eta, hala denean, guraso bakoitzaren bikotekide berrien artean.

4. Seme-alabek gizartean eta familian duten errotzea.

5. Seme-alaben iritzia, baldin eta behar besteko zentzutasuna badute eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte. Arreta berezia eskainiko zaio hamalau urte baino gehiagoko adina dutenenari.

6. Gurasoek seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko duten gaitasuna eta borondatea.

7. Gurasoek familia-bizitza eta lana uztartzeko nolako modua duten.

8. Gurasoen artean alde zuzenetik egon litezkeen akordio eta hitzarmenak, justifikatu egin badizkiote.

9. Elkarbizitza-araubideari begira munta berezia duen beste edozein inguruabar.

Kasua edozein dela ere, erabakiak jomugatzat izanen du posible den heinean interes guztiak uztartzea, lehentasunezkotzat harturik seme-alaba adingabeenak, eta seme-alabekiko beren harremanetan gurasoen berdintasuna ziurtaturik seme-alabentzat onuragarri den orotan, eta ardurakidetza sustaturik.

Epaileak jagoletza partekatua erabakitzen badu, gurasoetako bakoitzarentzat seme-alabekiko elkarbizitzarako araubide bat ezarriko du, familiaren egoerari egokitua, bi gurasoei ziurtatuko diena berdintasunez egikaritu ahal izatea beren eskubideak eta betebeharrak.

Jagoletza gurasobakarra erabakitzen badu, epaileak beste gurasoetikiko komunikazio-eta egonaldi-araubide bat ezarriko du, haren berariazko inguruabarrak ikusita, hark bermatuta izan dezan Konpilazio honetako legeen arabera esleituta dituen guraso-erantzukizunaren berezko ahalmen eta betebeharren egikaritzea.

Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da erabakiko anai-arrebak bereiztea dakarren konponbiderik.

Ez da zilegi izanen gurasoetako bati esleitzea zaintza eta jagoletza, ez gurasobakarra ez eta partekatua ere, hurrengo bi baldintza hauen multzoa betetzen denean:

a) Beste gurasoaren edo seme-alaben bizia, osotasun fisikoari, askatasunari, osotasun moralari edo sexu-askatasun eta -ukigabetasunari eraso egiteagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta baldin bada.

b) Kriminalitate-zantzu arrazoizkoak eta funtsatuak daudela dioten ebazpen judizial arrazoitu bat eman bada.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Era berean, zaintza eta jagoletza ez dira esleituko baldin eta epaileak ondorioztatzen badu, alderdien alegazioei eta froga praktikatuiei erreparatuta, badaudela etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren zantzu funtsatuak eta arrazoizkoak.

Bi kasu horietan hartzen diren neurriak berrikusgarriak izanen dira, jurisdikzio penalean horri buruz eta kasua bada ematen den ebazpen irmoaren arabera.

Ezkontide edo bikotekide baten aurkako salaketa ez da bere horretan nahikoa izanen automatikoki ondorioztatzeko ezen bestearenganako edo seme-alabenganako indarkeria, mina edo mehatxuak badaudela, ez eta hari esleitzeko ere seme-alaben zaintza eta jagoletza.

### ***Hirugarrenen aldeko zaintza***

Salbuespen gisa, epaileak xedatu ahal izanen du seme-alaben zaintza eta jagoletza beste senide edo hurbileko batzuei esleitzea, hori onartzen badute, edo, kasua bada, adingabea babesteko ahalmenak legez esleiturik dituen entitate publikoari; hori guztia, ezertan eragotzi gabe esleipen horri dagokion figura juridikoa gero batean formalizatzea.

Zaintza hori erabakitzen duen ebazpenean, epaileak adingabearen harrera, tutoretza edo babes-neurria era dadila premiatuko du, kasu bakoitzaren arabera, nahiz eta zilegi izanen duen, neurri horiek ezertan eragotzi gabe, bere ustez gurasoek mantendu beharrekoak diren guraso-erantzukizunaren ahalmenak eta betebeharrak ezartzea.

### ***Adingabeen eta beste pertsona batzuen arteko hartu-emanak.***

Guraso-erantzukizunari buruzko neurriak erabakitzen dituen ebazpenean bertan, epaileak zilegi izanen du, gurasoetako edozeinek edo Fiskaltzak eskatuta, adingabeen eta beste senide eta hurbileko batzuen arteko komunikazio-, bisita- eta harreman-sistema ezartzea, batez ere anai-arreba eta aitona-amonekikoa, hori onuragarria bada haientzat, eta pertsona horiei entzunaldia eman ondoren.<sup>74</sup>

## **72. legea**

### ***Adingabeen biztantzze-premia***

Epaileak erabakiko du zer erabilera eta xede eman familia-etxebizitzari, lehentasunezko bermakizuntzat hartuz adingabeen biztantzze- eta egonkortasun-premiaren asetzea eta guraso batekiko nahiz bestearrekiko elkarbizitza, kontaktuak eta egonaldiak.

Zaintza indibiduala ezarrita, epaileak etxebizitzaren erabilera esleituko die adingabeei eta zaintza egoera horrek dirauen bitartean horiekin dagoen gurasoari, salbu eta guraso horrek haien biztantzze-premiak beste baliabide batzuen bidez behar adina eta behar bezala berma baldin baditza; kasu horretan, egokia dena ebatziko du etxebizitza horren esleipenaz eta, hala bada, esleipenaren iraupenaz, babes-premiarik handieneko interesak kontuan hartuta.

Zaintza partekatua ezartzen denean edo seme-alaba ezberdinena gurasoen artean banatzen denean, epaileak honako inguruabar hauek hartuko ditu kontuan, etxebizitza

---

<sup>74</sup> FBko 68. legea; Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 104-140. art.; 1/1996 LO, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; KZko 91, 92, 94. art. NJANaren honako epai hauek: 9/2022, uztailaren 15ekoa; 4/2019, martxoaren 29koa; 3/2011, martxoaren 17koa; 42/2003, irailaren 30ekoa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

erabiltzea guraso bati edo biei zentzutasunez egokitzen jotzen den epealdirako esleitzerakoan:

1. Zaintzarako eta kontaktuetarako denbora banatzeko ezarritako sistema zehatza.
  2. Adingabeetako bakoitzak etxebizitzaren kokalekuaren ingurunean daukan errotze pertsonal, sozial eta hezkuntza-arlokoa.
  3. Guraso batek eta besteak adingabeen zaintza egokitzen zaien aldietan horien etxebizitza-premiak asetzeko daukaten ahalmena.
  4. Familia-etxebizitzaren titulartasuna, eta okupazio-tituluaren izaera.
  5. Gurasoetako edozeinek eskuera beste etxebizitzarik ba ote daukan.
  6. Gurasoen gainerako premiak, eta batak zein besteak horiek asetzeko dituzten baliabide pertsonal eta ekonomikoak, adingabeekiko elkarbizitzari eragiten diotenean.
- Epaileak familia-etxebizitzaren erabilerari eta helburuari buruz harturiko erabakia baloratu beharrekoa izanen da guraso bakoitzak seme-alaben bizibiderako egin beharreko ekarpena zehaztean.

Etxebizitzaren titularrak eginiko xedatze-egintzek inoiz ez diote kalterik eginen erabilera esleituari. Zilegi izanen da erabiltze-eskubidea Jabetzaren Erregistroan inskribatzea edo bertan haren prebentziozko idatzoharra egitea.<sup>75</sup>

### **73. legea**

#### ***Adingabeen bizibiderako ekarpena***

#### ***Gastu arruntak eta bereziak***

Epaileak ezarriko du zein den guraso bakoitzak seme-alaba adingabeen bizibiderako egin beharreko ekarpena.

a) Gastu arruntak dira adingabeen elikadura, biztante, artatze mediko, jantze eta oinarriko prestakuntza integralerako ezinbestekoak diren guztiak.

Guraso bakoitzak gastu horietarako ekarpena eginen du premien arabera eta horiek asetzeko dituen baliabide ekonomikoen proportzioan. Ekarpene hori zehazteko, epaileak halaber kontuan hartuko du ezarritako eguneroko zaintza- eta jagoletza-sistema, bai eta adingabeen beharrezko guztiei erantzute aldera batak eta besteak eskaintzen duten jardun pertsonala ere.

Ekarpene behar den moduan eta denboran ezarriko da eta dagokion eguneratzea izanen du; eta, kasua bada, adingabeen gastuak behar bezala administratu eta ordaintzen direla ziurtatzen duten bermeak egonen dira. Ekarpene hori guraso batek besteari ordaintzen dion aldizkako kopuru batez osatua egon daiteke, edo bakoitzak funts komun batean sartzen duen kopuru batez, zeina beste gurasoarenaren munta berekoa nahiz beste munta batekoa izan baitaiteke. Funts hori kudeatzea guraso bati nahiz biei esleitu die epaileak, elkar harturik nahiz txandaka jardun dezaten.

b) Gastu bereziak dira adingabeen bizibide arrunterako ekarpena zehazteko unean aurreikusitako ezin diren guztiak.

Epaileak ezarriko du guraso bakoitzak zer proportziotan aurre egin behar dien beharrezkoak diren gastuei, guraso baten eta besteari ahalmen ekonomikoaren arabera. Ezertan eragotzi gabe epaileak kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen beste gastu batzuk, betiere talde honetakoak izanen dira beren izaeragatik edo duten urgentziagatik

---

<sup>75</sup> FBko 68, 104. legeak; KZko 96. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

bazterrezin direnak, gurasoen aseguru sozialek edo pribatuek estali gabekoak diren osasun gastuak, eta seme-alaben garapen eta prestakuntza integralerako beharrezko diren hezkuntza arloko gastu osagarriak, horien barne direla unibertsitate ikasketetakoak edo lanbide gaikuntzakoak.

Gainerako gastuei epaileak ezartzen duen proportzioan egingen zaie aurre, baldin eta bi gurasoek horietarako baimena esanbidez edo isilbidez eman badute. Biek emandako baimenik ezean, gastu horiek egitea erabaki duen gurasoa izanen da horien ordaintzaile. Gurasoen artean gastu berezi baten premiazkotasunari buruzko desadostasuna badago, epaileak ebatziko du hori, eta erabakiko du nola ordaindu behar den, ezertan eragotzi gabe 70. legeko azken bi paragrafoek xedatzen dutena.<sup>76</sup>

### **74. legea**

#### ***Beste neurri batzuk***

Aurreko legeetan aurreikusitako neurriez gain, epaileak adingabeen interesa babestera bideraturiko beste edozein xedapen hartu ahal izanen du dena delako prozeduran; bereziki, haien familia-ingurunean edozein arrisku edo kalte edo hirugarren pertsonen eragindakoak ekiditera bideratuta daudenak.

#### ***Behin-behineko neurriak***

Kasuko prozeduran, epaileak zilegi izanen du behin-behinekoz hartzea aurreko legeetan aurreikusita dauden neurrietako edozein, aintzat harturik une zehatz horretan dauden inguruabarrak eta dena delakoa izanda ere hartuko den behin betiko ebazpena.<sup>77</sup>

### **75. legea**

#### ***Etetea***

Lege zibil edo penaletan aurreikusitako kasuak ezertan eragotzi gabe, zilegi izanen da guraso-erantzukizunaren edo horren ahalmenetakoren baten titulartasuna etetea baldin eta absentzia edo ezintasuna badago edo hala aurreikusten bada gaitasuna egikaritzeko ezarritako laguntza-neurrietan, baina betiere salbuetsirik epaileak gurasoen eskuetan utzi beharrekotzat deklaritzen dituen guraso-ahalmenak.

Etetea eragin duen arrazoia amaitzen denean, epaileak zilegi izanen du seme edo alabaren interesa dela-eta ahalmen horien egikaritzeari ezarri beharrekoak diren mugak jartzea.

#### ***Gabetzea***

Zilegi izanen da gurasoetako edozein edo biak epai bitartez gabetzea guraso-erantzukizunaren edo horren ahalmenetakoren baten titulartasunaz, beren betebeharrak larriki edo errepikapenez urratu badituzte, are urraketa horrek adingabearen babesgabetasunik ekartzen ez duenean ere.

Epaia irmo bilakatzen denetik gauzatuko da gabetzea, ezertan eragotzi gabe gabetzearen kautelazko etetea erabaki ahal izatea.

Auzitegiek, adingabearen mesede eta interesetan, berreskuratze osoa edo partziala erabaki dezakete, baldin eta gabetzea eragin zuen arrazoia amaitu bada.

---

<sup>76</sup> FBko 68, 104. legeak; KZko 93. art. NJANaren 26/2004 epaia, urriaren 29koa.

<sup>77</sup> FBko 68. legea; 1/1996 LO, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; KZko 102-106, 158. art.



## I. liburua.- Pertsonak eta familia

### ***Azkentzea***

Seme-alaben gaineko guraso-erantzukizuna azkentzen da:

1. Seme edo alabaren edo bi gurasoen heriotzaren edo heriotza-deklarazioaren ondorioz.
2. Seme edo alabaren emantzipazioagatik edo adin-nagusitasunagatik.
3. Seme edo alabaren adopzioaren ondorioz, haren lehenagoko gurasoei dagokienez, haietakoren batekiko loturak iraun ezean.

Guraso-erantzukizuna azkentzearekin batera, amaitu egiten dira seme edo alabaren arlo pertsonalean eta ondarean zituen efektuak, eta zilegi izanen da eska dadin kontu-ematea eta, kasu bada, kalte-galeren ordainketa, 66. legean ezarritakoaren arabera.

### ***Sorberritzea***

Hildakotzat deklaraturiko seme edo alaba bere adin-nagusitasunera heldu baino lehen berragertzen bada, sorberritu eginen da haren gaineko guraso-erantzukizuna.

Hildakotzat deklaraturiko gurasoa berragertzen bada, haren guraso-erantzukizuna sorberritu eginen da onuragarria baldin bada seme-alabentzat, eta epaileak erantzukizun horretan bilduta dauden ahalmenak mugatu ahal izanen ditu, horretarako arrazoiak emanez.<sup>78</sup>

## **76. legea**

### ***Defendatzaile judiziala***

Gurasoen eta haien ardurapeko seme-alaben artean interes kontrajarriak daudenean, beharrezkoa izanen da defendatzaile judizialaren esku-hartzea.

Interes-kontrajarpena guraso batekin bakarrik gertatzen bada, besteari dagokio seme edo alabaren ordezkaritza, izendapen judizialaren beharrik izan gabe.

Epaileak defendatzailea izendatuko du tutoretza egikaritzea egokitu lekiekeen pertsonen artean, eta zehaztu eginen ditu defendatzaile horri ematen dizkion ahalmenak.

## **77. legea**

### ***Guraso-erantzukizunaren gaineko ikuskapen judiziala***

Konpilazio honetako legean arabera epaileak guraso-erantzukizunetik eratorritako aferei buruzko erabakia eman behar duen prozedura guztietan, zilegi izanen du seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak ikuskatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak erabakitzea arrazoiak azalduta, horien eskubideak bermatze aldera; horretarako, gurasotasun-koordinatzaile bat izendatu ahal izanen du.

Ikuskapen hori gizarte-zerbitzuen edo familia-elkarguneen esku utzi ahal izanen du, baldin adingabeentzako arriskua edo beste edozein justifikaziozko inguruabar dagoela funtsatuki ondorioztatzen badu.<sup>79</sup>

---

<sup>78</sup> 12/2022 FL, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko; KZko 14.3, 92, 111, 158, 163, 169, 170, 235-236, 295. art. NJANaren 13/1995 epaia, ekainaren 14koa.

<sup>79</sup> Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 FLko 63-64, 69-80. art.; 1/1996 LO, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; KZko 158. art.

**VI. TITULUA**  
**EZKONTZAKO ONDASUN-ARAUBIDEA**

**I. KAPITULUA**

**Ezkon-indarraldian zeharreko printzipio amankomunak**

**78. legea**

***Itunak egiteko askatasuna***

Ezkon-kapitulazioen bidez, ezkontideek askatasunez adostu ahal izanen dute beren ezkon-araubide ekonomikoa, 7. legean ezarritako mugak besterik izan gabe.

***Ezkontideen gaitasun indibiduala***

Ezkontide bakoitzak gaitasuna du bere kabuz eskubideak egikaritu eta defendatzeko eta edozein administrazio-, xedatze- eta ordezkaritza-egintza judizial nahiz estrajudizial egiteko, borondatez edo legez ezarritako mugak besterik izan gabe.

Ezkontideen absentsiaren, gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntzaren beharraren edo ezkontideen legezko banantzearen kasuetan, Kode Zibilaren xedapenak aplikatuko dira Konpilazio honetan aurreikusten ez den orotan.<sup>80</sup>

**79. legea**

***Ezkontideen arteko baimenak, baiespenuk eta ahalorde-emateak***

Itunez edo legez beharrezkoa denean egintza batek bi ezkontideen baimena izatea edo bataren egintzari besteak baiespenu ematea, ezkontide bakoitzak zilegi du hori orokortasunez ematea edo egintza bakarerrako nahiz batzuetarako ematea.

Errebokagarria izanen da kasuko egintzaren aurretik emandako baimena edo baiespenu. Ezkon-kapitulazioen bidez emana denean, 86. legeak xedatzen duenari men egin beharko zaio.

Ezkontideen arteko ahalorde-ematea bata besteari aldebakartasunez eginikoa nahiz biek elkarrekikotasunez eginikoa izan daiteke, eta egoki deritzeten ahalmenak bilduko ditu. Ahalordea orokortasunez nahiz egintza bakarrera edo batzuetara zuzendurik eman ahal izanen da, eta betiere izanen da errebokagarria, are ezkon-kapitulazioen bitartez emana denean ere.

***Epailea ordezkoko gisa aritzea***

Lege honetako lehen paragrafoak aipatzen dituen egintzetan, ezkontide baten ordezkariak eman ahal izanen du baimena edo baiespenu, beste ezkontideak hori eskatuz gero. Epaileak Borondatezko Jurisdikzioko prozedura batean ebartziko du.

***Berrespena***

Ezkontide batek egintzak egiten baditu besteak eman beharreko baimenik edo baiespenuk gabe edo epaileak ordezkoko gisa jardun gabe, esku hartu ez duen ezkontideak edo beraren jaraunsleek egintza horiek berretsi ahal izanen dituzte; baina, baliodun izan dezaten, beharrezkoa izanen da hark edo horiek aurkara ez ditzaten lau urteko epean, ezkontzaren desegitea edo legezko banantzea gertatu denetik.

---

<sup>80</sup> LFBko 82, 85, 100, 109, 173. legeak; KZko 9.2, 16.3, 181. artikulua eta hurrengoak, 1323. artikulua eta hurrengoak. NJANaren 43/2003 epaia, urriaren 6koa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

Ondasun amankomunen gaineko dohaineko xedapen-egintzak salbuesten dira, horiek edonoiz aurkara daitezke eta.<sup>81</sup>

### **80. legea**

#### ***Ezkon-gastuak***

Ezkon-gastu dira familiaren bizibiderako beharrezkoak diren guztiak, aintzat hartuta haren maila ekonomikoa eta une bakoitzean haren barnean bizi diren kideak, berdin delarik gastu arruntak nahiz bereziak izatea.

#### ***Ekarpena***

Ezkontide bakoitzak ezkon-gastuen ordainketarako ekarpena egin behar du bere diru-sarrerekin, ondarearekin eta familiarentzat egindako lan pertsonalarekin, ezkon-araubide ekonomikoan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe eta horrekin bat etorrita.

#### ***Etxeko ahala egikaritzea***

Ondasun amankomunetz edozein ezkontidek xeda dezake bere kabuz, erantzute aldera familiak bere inguruabarren eta tokiko usadioaren arabera dituen premia arruntei, bai eta gastu urgenteei ere, are ohiz kanpokoak direnean, ezertan eragotzi gabe bere ezkon-araubide ekonomikoaren arabera egin beharrezkoak diren itzulketak egitea.<sup>82</sup>

### **81. legea**

#### ***Familia-etxebizitzaren eta ostilamenduaren gaineko mugak***

Bi ezkontideen baimena behar da ohiko etxebizitzaren edo bertako altzari arrunten gaineko eskubideez "inter vivos" xedatzeko edo horiek erabilera amankomunetik kanpo uzteko.

Eskubideak ezkontide bakarrarenak baldin badira, izaera pribatibodunak, beharrezkoa izanen da bestearen baiespena.

Epailearen esku-hartzeak baimena edo baiespena ordeztu ahalko du, 79. legeko bigarren apartatuan ezarritakoarekin bat.

Ezkontideetako batek aldebakartasunez egindako egintzei lege horretako azken apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hala ere, ezkontide titularrak errakuntzaz edo faltsukeriaz adierazten badu etxebizitza ez dela ohikoa, adierazpen horrek ez die kalterik egingen onusteko hirugarreni.<sup>83</sup>

### **82. legea**

#### ***Ezkontideen arteko egintza juridikoak***

Ezkontideek beren artean mota guztietako estipulazio, kontratu eta dohaintzak egin ditzakete.

162. eta 163. legeetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, ezkontideen artean egindako dohaintzak errebokatu ahal izanen dira ezkontideen banantze edo dibortzio edo ezkon-deuseztasun kasuetan, baldin eta judizialki deklaritzen bada dohaintza-hartzaileak ez dituela bete ezkontide- edo familia-betebeharrak.

---

<sup>81</sup> FBko 31.I, 34.1, 49, 81, 100. legeak; BJLko 90. art.; KZko 71, 1376, 1377. art. NJANaren 20/2012 epaia, ekainaren 29koa.

<sup>82</sup> FBko 73, 90-93, 100, 101, 104.a) legeak; KZko 1318, 1319. art.

<sup>83</sup> FBko 100, 101, 109. legeak; KZko 1320. art.; HEko 91. art.

### **Bermeak**

Ezkontideetatik edozeinek zilegi du fidantza eman, bestelako betebeharrak bere gain hartu edo berme erreala ematea, bai beste ezkontidearen bai hirugarrenen mesederako, ezertan eragotzi gabe kasuko ezkon-araubide ekonomikorako xedaturik dagoena.<sup>84</sup>

## **II. KAPITULUA**

### **Ezkon-kapitulazioak**

#### **83. legea**

##### ***Ezkon-kapitulazioak egiteko unea eta gaitasuna***

Ezkon-kapitulazio edo -kontratuak ezkontza aurretik nahiz ondoren egin daitezke. Ezkon-loturaren iraunaldian zehar egiten badira, haietan jasotako itunei ezkon-egunerainoko atzeraeragina eman dakieke, ezertan eragotzi gabe hirugarrenek eskuraturiko eskubideak.

Ezkon-kapitulazioen egile izan daitezke bai ezkontideak bai gai izanik ezkontzera doazen pertsonak. Egile adingabe batek bestearen mesedetan 48. legeak aurreikusitako egintzetako edozein egin dezan dakarten xedapenei dagokienez, lege horretan ezarritakoari helduko zaio.

Egite horretan halaber parte hartu ahal izanen dute ezkontzaren egile edo ezkontzaren beraren okasioan beste xedatzeren bat edo beren eskubideen ukoren bat egiten dutenek.

##### ***Eragingabetasuna***

Kapitulazioek eraginkortasuna galduko dute, baldin urtebeteko epean ez bada ezkontzarik egiten. Ezkontzaren deuseztasunak haien eragingabetasuna dakar, deuseztasuna deklaratzeko duen epaia irmo denetik.<sup>85</sup>

#### **84. legea**

##### ***Forma***

Deusezak dira eskritura publikoan egiten ez diren ezkon-kapitulazioak. Ezkon-kapitulazioetan jasotzen badira hirugarrenek ezkontideren bati edo ezkontideek beren artean egindako dohaintzak, dohaintza horien xede diren ondasunak deskribatu egin beharko dira, eskrituran bertan edo horri erantsitako inbentarioan.

##### ***Publizitatea***

Hirugarrenei kontrajartzeko modukoak izateko, kapitulazioak publiko egin beharko dira bai Erregistro Zibilean bai efektu hori izatekoak badira haiek inskribatuta egon behar diren gainerako erregistroetan.<sup>86</sup>

#### **85. legea**

##### ***Edukia***

Ezkon-kapitulazioek zilegi izanen dute haien egileek libreki ezkontzarako ezartzen duten ondasun-araubidea barne hartzea. Konpilazio honetan aurreikusitako beste edozein araubideri ere osorik edo partzialki atxiki ahal izanen zaizkio egile horiek.

<sup>84</sup> FBko 78, 79, 92, 100, 126, 463, 525. legeak; KZko 9.3, 1323. art. NJANaren epai hauek: 23/2000, urriaren 3koa; 2/1999, otsailaren 27koa; 1/1991, urtarrilaren 26koa.

<sup>85</sup> FBko 125, 173. legeak; KZko 1317, 1326. artikulua eta hurrengoak.

<sup>86</sup> FBko 17, 86, 122. legeak; HEko 75. art.; EZLko 60. art.; KZko 1327, 1333. art.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

Halaber, kapitulazioek ezkontzaren ondoriozko edozein xedapen edo uko barne hartu ahal izanen dute, "inter vivos" nahiz "mortis causa" motakoak, eta hala ezkontzaren indarraldirakoak nola banantzearen edo desegitearen osteko garairakoak, ezertan eragotzi gabe izaeraz xedaezinak zaizkien eskubideak.

Era berean, kapitulazioek libreki ezarri ahal izanen dute familiaren ondasun-araubidea, liburu honen XI. tituluari ezarritakoaren arabera, eta X. tituluari aipatzen diren dohaintzak eta beste edozein xedatze (bai "inter vivos" bai "mortis causa" motakoak) agindu ere.<sup>87</sup>

### **86. legea**

#### ***Aldaketa***

Ezkon-kapitulazioak edonoiz alda daitezke, baldin eta 84. legeak ezarritako formari jarraitzen bazaio eta baimena ematen badute, ezkontideek edo ezkongaiak ez ezik, aldaketa egiten den uean bizirik dauden beste egileek, azken horiek emandako edo jasotako ondasun eta eskubideetan aldatze horrek eragina duen neurrian.

Hirugarrenei kontra-jartzeko modukoa izateko, kasuko aldaketa inskribatu egin beharko da, lege horretako bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Ezkontide bat hiltzen bada, edo gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurrien pean badago, eta beraz, ordezkaritza behar izanez gero, itunak ezin izanen dira aldatu, non ez den halakorik aurreikusi itunetan bertan.

Ezkontideren batek edo lege honen lehen paragrafoan ezarritakoaren arabera esku hartu behar duen beste edozein egilek gerora gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza beharko balute, badauden edo horretarako ezartzen diren neurrietan aurreikusitakoa beteko da.

Lege honek ezarritakotik salbuesten dira espresuki egindako itunaren ondorioz edo beren izaeragatik errebokagarriak diren estipulazioak.

Ezkontideen artean eginiko elkarrekikotasunezko oinordetza-itunak ezkontideek berek aldatu edo errebokatu ahal izanen dituzte, eta ez da beharrezkoa izanen itunon gainerako egileen adostasunik.<sup>88</sup>

## **III. KAPITULUA**

### **Konkisten ezkon-sozietatea**

### **87. legea**

#### ***Ordezko lege-araubidea***

Ezkontideek beren ezkon-araubide ekonomikoa ezkon-kapitulazioetan adostu ezean, konkistenari helduko zaio, zeina Konpilazio honetako xedapenek arautuko baitute, haien artean bereziki itundu ez den orotan.<sup>89</sup>

### **88. legea**

#### ***Konkista-ondasunak***

Konkista-araubidean, bi ezkontideen ondasun amankomun bilakatzen dira:

---

<sup>87</sup> FBko 7. legea; KZko 1315, 1325. art.

<sup>88</sup> FBko 79, 95.I.2, 131.2, 182. legeak; KZko 249-250, 287, 1317, 1331-1333. art.

<sup>89</sup> KZko 1316. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

1. Itun edo xedatzen bidez konkistetara bildutako ondasunak.
2. Ezkontide-aldian zehar ezkontideetatik edozeinek konkista-ondasunen kontura kostu bidez eskuraturiko ondasunak.
3. Kostu bidez ondasun pribatiboen kontura eskuratutako ondasunak, baldin eta ezkontideek adosten badute horiek konkista-ondasun izatea, edozein dela ere ondasun horien trukean emandako prezio edo kontraprestazioa eta horiek eskuratze aldera egikarituriko eskubidearen izaera.
4. Ezkontide-aldian zehar ezkontideetako edozeinen lan edo bestelako jarduera baten bidez irabazitako ondasunak.
5. Ondasun amankomunen eta ondasun pribatiboen fruitu eta etekinak.
6. Ezkontide-aldian zehar egindako kontratuen ondoriozko errentari-eskubideak.
7. Halako ondasunak zeinak eskuratu baitira hitzarmenezko edo legezko atzera-eskuratzerako eskubidez, aukera-eskubidez, jabetza-lorpenez, lehentasunezko harpidetzaz edo konkista-sozietatearena den beste edozein eskuratze-eskubidez.
8. Konkista-ondasunen akzesio edo gehikuntzak.
9. Hurrengo legearen arabera pribatiboa ez den beste edozein ondasun.

### **Presuntzioa**

Presuntzioz, konkista-ondasuntzat jotzen dira pribatibo gisa egiaztatuta ez dauden ondasun guztiak.

### **Itzulketak**

3. eta 7. zenbakietan ezarritakoa ulertuko da ezertan eragotzi gabe kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketak, zeinak eguneratu beharko baitira haien gauzatze-uneari heldurik, dela ezkon-sozietatearen indarraldian zehar, dela hura likidatzen denean.<sup>90</sup>

## **89. legea**

### **Ondasun pribatiboak**

Ezkontide bakoitzaren ondasun pribatibo dira:

1. Itun edo xedapen bidez konkistetatik kanpo utzitakoak.
2. Ezkontzaren aurretik eta kostu bidezko titulu bitartez ezkontide bati datozkion ondasunak, are eskuratzea ezkontide-aldian gertatzen denean edo prezio nahiz kontraprestazioa osorik zein zati batez beste ezkontidearen edo konkista-sozietatearen funtsekin ordaindu denean, ezertan eragotzi gabe lege honek familia-etxebizitzarako xedatutakoa.
3. Ezkondu aurretik edo ezkontide-aldian dohainik eskuratuak.
4. Eskuratuak izan direnak erosketaren, trukearen, ordainean ematearen, salmentaren edo transakzioaren bidez, eta ondasun pribatiboen gaineko beste edozein subrogazioren bidez.
5. Konkista-ondasunen kontura eskuratuak, baldin eta eskuratze-tituluan bi ezkontideek adierazi badute beraietako bati pribatibo gisa esleitzen zaizkiola.
6. Halako ondasunak zeinak eskuratu baitira hitzarmenezko edo legezko atzera-eskuratze eskubidez, aukera-eskubidez, jabetza-lorpenez, lehentasunezko akzio-

---

<sup>90</sup> FBko 5.II, 96, 130. legeak; KZko 1344. artikulua eta hurrengoak. NJANaren honako epai hauek: 2/2022, urtarrilaren 24koa; 8/2012, apirilaren 17koa; 6/2006, apirilaren 12koa; 29/2002, abenduaren 27koa; 21/1993, abenduaren 13koa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

harpidetaz edo ezkontideetako batena den beste edozein lehentasunezko eskurapenerako eskubidez.

7. Ondasun pribatiboen akzesio edo gehikuntzak.

8. Ezkontideetako baten ondasun pribatiboetan egindako eraikinak, landaketa berriak eta beste edozein hobekuntza.

9. Ezkontideari berari edo horren ondasun pribatiboei eragindako kalte-galeren ordaina.

10. Pertsonak berezko dituen ondare-ondasun eta -eskubideak, eta "inter vivos" eskualdatu ezin direnak.

### ***Familia-etxebizitza eta -ostilamendua***

Familia-etxebizitzari eta -ostilamenduari dagokienez, baldin eta horiek eskuratzen badira edo haien prezioa osorik edo zati batean ordaintzen bada ezkontide-aldiak irauten duen bitartean, are eskurapena ezkontzaren aurreko titulu batetik datorrenean, honako erregelak hauek hartuko dira kontuan:

a) Ezkontideetako bakar baten ekarpen eksklusiboarekin ordaindu bada, haren ondasun pribatiboa izanen da.

b) Ordainketa bi ezkontideen titulartasun pribatiboko ondasunen bidez egin bada, biena izanen da indibisoan, bakoitzaren ekarpenekiko proportzioan.

c) Ezkontide baten edo bien ondasunen eta konkista-sozietatearen ondasunen bidez ordaindu bada, indibisokoa izanen da bakoitzaren eta konkista-sozietatearen ekarpenekiko proportzioan.

Aurreko apartatuek aipatzen dituzten ekarpenak determinatuko dira familia-etxebizitza edo -ostilamendua erosteko preziorako eginiko ordainketen arabera, kontuan hartu gabe nola egin den erosteta: eskura, epeka edo geroagoko mailegu baten bidez.

### ***Itzulketak***

2., 6., 7. eta 8. zenbakietan ezarritakoa ulertuko da kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketak ezertan eragotzi gabe. Itzulketa horiek eguneratu beharko dira haien gauzatze-unearen arabera, dela ezkon-sozietatearen indarraldian zehar, dela hura likidatzen denean..<sup>91</sup>

## **90. legea**

### ***Konkista-sozietatearen kargak***

Ondare komunaren kargurakoak izanen dira honako hauek:

1. Familiaren bizibiderako gastuak, arruntak nahiz bereziak, aintzat harturik familiaren inguruabarrak eta maila ekonomikoa, bai eta amankomunak diren seme-alaben hezkuntza eta prestakuntza integralerakoak ere.

2. Ezkontideetako edozeinen seme-alaba ekonomikoki menpekoen elikadura- eta biztantzze-gastuak, elkarbizitza partekatzen duten aldietan sortutakoak, bai eta elkarbizitzan partaite diren beregaintasun ekonomikorik gabeko beste familiarteko edo gertukoena ere.

---

<sup>91</sup> FBko 130. legea; KZko 1324, 1346. artikulua eta hurrengoak. NJANaren honako epai hauek: 2/2022, urtarrilaren 24koa; 3/2021, urriaren 13koa; 9/2014, irailaren 2koa; 8/2012, apirilaren 17koa; 15/2011, irailaren 27koa; 12/2005, irailaren 14koa; 5/2005, ekainaren 7koa; 36/2003, ekainaren 30koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

3. Ezkontideetako batek lehenago beste pertsona batekin izandako seme-alaben mantenua eta hezkuntza, baldin eta ezkontideak ez badu egin, bidezkoa denean, 114. legean jasotako ondasun-banaketa eta -entrega.
4. Ondasun amankomunak administratzearen gastu arruntak eta bereziak.
5. Ezkontideek dituzten kontratuz kanpoko betebeharrak, heldu direnak konkista-sozietatearen interesetan edo hori onuradun suertaturik eginiko jarduketetatik, ondasun amankomunak administratzearen alorrean.
6. Hirugarren baten aurka bi ezkontideek dituzten auzien ondorioz sorturiko nahitaezko gastuak; edo ezkontide bakar batek dituen auzien ondoriozkoak, familiarentzat probetxugarri suertatzen badira.
7. Ezkontideen ondasun pribatiboak administratzearen gastu arruntak.
8. Negozio-ustiapen erregularraren gastuak, edo ezkontide bakoitzaren lanbide, arte edo ogibidean aritzeak sortutako gastu arruntak.<sup>92</sup>

### **91. legea**

#### ***Karga pribatiboak***

Ezkontide bakoitzaren kargura izanen dira honako hauek:

1. Bienak ez diren seme-alaben elikadura eta gainerako gastu arruntak, aurreko legearen 2. apartatuak aurreikusitako kasuetatik kanpo, bai eta haien hezkuntza-gastuak ere.
2. Aurreko bikotekide batekiko bere seme-alaben bizibidea, elikadura eta hezkuntza, baldin eta ondasun-banaketa eta -entrega egin badira, bidezkoa bada, 114. legearekin bat, edo bidezkoa ez bada, 115. legearekin bat.
3. Ezkontideetako edozeinek jokoan galdu eta ordaindutakoa, salbu eta diru-kopuru txikiak izanik modu erregularrean eta aldiro-aldiro aplikatzen badira zabalkunde eta jarraipen sozial handiko joko edo apustuetera, bai eta zori, enbido edo ausazko jokoetan galdu den eta ordaindu gabe dagoena ere, horren zenbatekoa legez galdatzeko modukoa denean.
4. Aurreko legearen arabera konkista-sozietatearen karga ez diren gastu eta betebeharrak.<sup>93</sup>

### **92. legea**

#### ***Konkista-sozietatearen erantzukizuna***

Ondasun amankomunek erantzunen dute, kasu bakoitzean zehazturiko moduan, honako hauengatik:

1. 90. legearen arabera sozietatearen karga diren gastu eta betebeharrak, ezkontideetako batek bakarrik hartutakoak direnean ere.

Azken kasu horretan, ondasun amankomunena ez ezik, ezkontide zordunaren ondasun pribatiboen zuzeneko erantzukizuna ere egonen da. Horrez gain, bi ezkontideenak diren legezko betebeharrak nahitaezkoak betez ezkontide bakarrak bere gain hartutako betebeharren kasuan, beste ezkontidearen ondasunek erantzukizun subsidiarioa izanen dute.

---

<sup>92</sup> FBko 50.II, 65, 72-73, 92, 93, 130. legeak. KZko 1318, 1362. artikulua eta hurrengoak. NJANaren honako epai hauek: 9/2014, irailaren 2koa; 15/2011, irailaren 27koa.

<sup>93</sup> FBko 50.II, 65, 72-73, 93. legeak; KZko 1362, 1371-1373. art.



## I. liburua.- Pertsonak eta familia

Aurreko erantzukizun bera egonen da fidantzamenduen kasuan, karga horien ondorioz eginikoak direnean.

2. Bi ezkontideek elkarrekin batera hartutako betebeharrak, edo haietako batek bien izenean eta biak ordezkatur hartutakoak.

Betebehar horien aurrean, bereizgabeki eta solidarioki erantzunen dute ondare amankomunak eta bataren nahiz bestearen ondare pribatiboek. Ondare amankomunaren erantzukizuna zor osoaren gainekoa izanen da; pribatiboena, aldiz, erdiaren gainekoa.

Erantzukizun bera egonen da bi ezkontideek hirugarrenen alde eratutako fidantzetan, ezertan eragotzi gabe 525. legeak ezartzen duena.

Ulertzen da aurreko apartatuetan adierazitakoak ez duela eragozten itzulketak egitea, bidezko direnak kargaren eta hartutako erantzukizuna ordaintzeko erabili zen ondarearen izaera pribatiboaren edo amankomunaren arabera.

3. Ezkontide batek bestearen baimena edukita hartutako betebehar indibidualak.

Kasu horretan, erantzukizuna, ezkontide zordunaren ondasunenaz gain, ondasun amankomunena ere izanen da. Horrez gain, bi ezkontideek amankomunean dituzten legezko betebehar nahitaezkoak betetzean hartutako betebeharren kasuan, beste ezkontidearen ondareak erantzukizun subsidiarioa izanen du.

Horrek guztiak ez du eragozten itzulketak egitea, kargaren izaeraren eta horri aurre egiteko erabilitako ondarearen arabera bidezko direnak.

4. Bi ezkontideenak diren legezko betebehar nahitaezkoak betetzean ezkontide bakar batek hartutako betebehar indibidualen kasuan, erantzukizun solidarioa izanen dute zorpetu zen ezkontidearen ondasunek eta ezkon-sozietatearenek; eta ordezko erantzukizuna izanen dute beste ezkontidearen ondasunek, bidezko diren itzulketak ezertan eragotzi gabe.

Erantzukizun bera eratorriko da ezkontide bakar batek emandako fidantzetatik, fidantza horiek direnean ezkonduet legez eman beharreko arretengatik hirugarren batek bere burua zorpetu izanaren ondoriozkoak.<sup>94</sup>

### **93. legea**

#### ***Ezkontide bakoitzaren erantzukizun pertsonala***

Ezkontide bakoitzaren ondare pribatiboaren erantzukizunekoak izanen dira 91. legean aipatzen diren kargak, bai eta ezkontide bakoitzak bestearen baimenik gabe bere gain hartzen dituen betebehar guztiak ere, konkista-sozietatearen kargu eta erantzukizunekoak ez bada, 90. eta 92. legeetan ezarritakoarekin bat.

Erantzukizun horrek barne hartuko ditu ezkontide bakar batek hirugarrenen alde emandako bermeak ere.

Kasu horietan, ezkontidearen ondare pribatiboa aski ez bada, hartzekodunak konkista-ondasunen enbargoa eska dezake; hori berehala jakinaraziko zaio beste ezkontideari.

Exekuzioa ondasun amankomunen gainean gauzatur gero, ulertuko da ezkontide zordunak bere partaidetzaren kontura ondasun horien balioa jasota daukala bere funtsekin horiek ordaintzen dituen unean edo ezkon-sozietatea likidatzeko unean.

Nolanahi ere, zorduna ez den ezkontideak zilegi izanen du, trabatzearen jakinarazpenaren ondoko edo, kasua bada, bestearen erantzukizun pribatiboa

---

<sup>94</sup> FBko 80, 93. legeak; KZko 1362. artikulua eta hurrengoak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

deklaritzen duen ebazpenaren jakinarazpenaren ondoko bederatzi eguneko epean, zordunaren ondasun pribatiboak seinalatzea, hartutako erantzukizunerako nahikoak direnak, edo galdatzea ordeztu dadila konkista-ondasunen tratatzea, ezkontide zordunari ezkon-sozietatearen likidazioan esleitzen zaion gerakinaren gainekoarekin; kasu horretan, enbargoak berarekin ekarriko du ezkon-sozietatea desegitea eta likidatzea, eta ondasun-banantzearen araubidea aplikatuko da, 101. legean adierazitako zertzeladekin.<sup>95</sup>

### 94. legea

#### *Administratzea eta xedatzea*

Ezkon-kapitulazioetan edo eskritura publikoan hitzarturikoak arautuko ditu konkista-ondasunen administratzea eta xedatzea.

Ezer itundu ezean, halakoak bi ezkontideen multzoari dagozkio, ezertan eragotzi gabe hurrengo apartatuetan ezartzen dena:

1. Ezkontideetako batek ezintasunen bat badu eta, horren ondorioz, ezin badu baimenik eman konkista-ondasunak administratu edo xedatzeko egintza baterako edo batzuetarako, edo baimena ematearen aurka agertzen bada horretarako justifikaziorik gabe, epailea izanen da ebatziko duena.

2. Ezkontideetako edozeinek bere kabuz egin ditzake konkista-sozietatearen ondasun edo eskubideen gaineko administrazio-egintzak eta izaera bereko diruaren edo baloretituluen gaineko xedatze-egintzak, baldin eta horiek beraren esku edo izenean badaude; halaber, beraren alde eraturikotzat agertzen diren kreditu-eskubideak erabil ditzake. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe kasuan-kasuan bidezko diren itzulketak.

3. Bi ezkontideak adingabe badira, beharrezkoa izanen da horien gurasoen laguntza edo, kasua bada, haien legezko ordezkariarena, helburua baldin bada ondasun higiezinak, merkataritza- nahiz industria-establezimenduak, horien oinarritzko osagaiak edo balio bereziko objektu amankomunak besterendu edota kargatzea.

Aurreko paragrafoan aipatzen den laguntza ez da beharrezkoa izanen ezkontideetako bat bakarrik denean adingabe; halakoetan, nahikoa da bi ezkontideen baimena.

4. Gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duen ezkontideari dagokion administratzea eta xedatzea laguntza-neurri ezarrietan aurreikusitakoaren arabera egingen da.

5. Ezin izanen da ezein ezkontideren baimena ordeztu konkista-ondasunak dohainik besterendu edo kargatzeko egintzetarako. Hala ere, bi ezkontideek zilegi izanen dute familiaren posizioaren eta gizarte-usadioen arabera neurritsu diren dohaintzak nork bere kabuz egitea.

6. Ezkontide bakoitzak zilegi du "mortis causa" egintzen bidez bere ondasun pribatiboez xedatzea, bai eta ezkon-sozietatea desegindakoan konkista-ondasunetatik dagokion zatiaz ere. Konkista-ondasun zehatzez xedatzean, bete beharrezkoa izanen da legatuari buruz 251. legeak ezartzen duena.<sup>96</sup>

---

<sup>95</sup> FBko 38, 95. legeak; PZLko 541. art.; BJLko 90. art.; KZko 1362, 1371-1373. art. NJANaren epai hauek: 9/1997, maiatzaren 10ekoa; 10/1995, ekainaren 12koa.

<sup>96</sup> FBko 79, 90, 100. legeak; KZko 1375-1391. art. NJANaren honako epai hauek: 20/2012, ekainaren 29koa; 12/2007, uztailaren 17koa; 43/2003, urriaren 6koa.

## **95. legea**

### ***Desegitea***

Konkisten ezkon-sozietatea desegiteko arrazoi dira:

1. Ezkon-kapitulazioetan ezarritakoak.
2. Bi ezkontideak ados egotea; baina, aldez aurretik ezkon-kapitulazioak eginak badituzte, 86. legean ezarritakoa bete beharko da.
3. Ezkontideetako baten heriotza.
4. Ezkon-deuseztasun, banantze edo dibortzioa deklaritzen duen ebazpen judiziala.
5. Ebazpen judizial batek ezkon-sozietatearen desegitea agintzea, ezkontideetako batek hala eskatuta, honako kasuetako edozeinetan:
  - a) Beste ezkontidearen gaitasuna judizialki aldatu bada, edo horren absentzia deklaratu denean.
  - b) Beste ezkontidea konkurtsoan deklaratu dutenean, baldin eta efektu hori Konkurtso Legean aurreikusita badago.
  - c) Beste ezkontideak bere kabuz halako egintzak egiten dituenean zeinek iruzurra, kaltea edo arriskua ekartzen baitiete desegitea eskatzen duenak konkista-sozietatean dituen eskubideei.
  - d) Ezkontideek urtebete baino gehiago daramatenean de facto banandurik.
  - e) Konkista-ondasunen gainean enbargoa dekretatu denean beste ezkontidearen betebeharrak pertsonalen ondorioz, 93. legearen azken paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Zenbaki honetan jasotako kasu guztietan, desegite-arrazoiari buruzko auzia sortzen bada, behin horren izapidetzea hasi eta gero, epaileak inbentarioa egin dadila xedatuko du, eta behar diren neurriak hartuko ditu konkista-sozietatearen ondasunak administratzeko; halaber, epailearen baimena beharrezkoa izanen da administrazio arrunta gainditzen duten egintza guztietarako.<sup>97</sup>

## **96. legea**

### ***Kausarik gabeko irabaziak itzultzea***

Edozein kasutan, are konkista-sozietatea desegin gabe ere, ondare pribatiboan eta konkista-ondarearen artean itzulketak egin beharko dira, ondare horietako baten mesedetan eta bestearen kaltetan kausarik gabe izan diren irabazienak.

Itzulketen zenbatekoa itzulketa horiek gauzatzen diren unera eguneratu beharko da, hala ezkon-sozietateak dirauen bitartean nola hori likidatzen denean.<sup>98</sup>

## **97. legea**

### ***Likidazioa***

Behin sozietatea desegin eta gero, horren likidazioa egin beharko da, zeina hasiko baita aktibo eta pasiboaren inbentarioa eginez. Ez da beharrezkoa izanen inbentariorik egitea,

---

<sup>97</sup> FBko 102, 131. legeak; KZko 1392. artikulua eta hurrengoak; KLTB.

<sup>98</sup> FBko 508. legea; KZko 1364, 1390. art. NJANaren 8/2012 epaia, apirilaren 17koa, 1/2005 epaia, martxoaren 15koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

baldin eta interesdun guztiek onartu badute hildako baten ezkontideak alarguntza-  
gozamenaren ondorioetarako egin zuen hura.

### ***Aktiboa***

Aktiboan sartuko dira desegite-unean dauden konkista-ondasun guztiak, bai eta  
sozietateak ezkontideekiko dituen kredituak ere. Azken horien artean sartu beharko dira  
konkista-sozietatearen erantzukizuna diren karga pribatiboen ondoriozko itzulketetatik  
eratorritakoak.

### ***Pasiboa***

Pasiboak barne hartuko ditu betekizun dauden sozietatearen erantzukizuneko betebeharrak  
guztiak, are ezkontideek sozietatearen aurka dituzten kredituen ondoriozkoak ere.

### ***Ordainketa***

Behin inventarioa amaitu eta gero, sozietatearen zorrak ordainduko dira, ezkontideekin  
dituenak barne, kredituen pilaketa eta hurrenkerari buruzko xedapenekin bat etorritik.

Sozietatearen hartzekodunek, horren likidazioan, izanen dituzte legez jarauntsiaren  
likidazio eta banaketan dagozkien eskubide berberak.

### ***Mantenua***

Ondasunen masa amankomunetik mantenua emanen zaie ezkontideei edo, kasua bada,  
alargunari eta seme-alabei, dagokien ondarearen entrega egiten ez den bitartean.  
Emandako mantenua haiei dagokien ondarearen fruitu eta etekinetatik kenduko da, eta  
azken horiek gainditzen baditu, ondaretik bertatik, gaindikinari dagozkion heinean.<sup>99</sup>

## **98. legea**

### ***Zatiketa***

Konkista-ondasunen gerakin likidoa hitzarturiko proportzioan zatituko da; edo,  
hitzarmenik ezean, erdi bana, ezkontideen edo horien jaraunseen artean.

### ***Abantaila-eskubideak***

Hobetze- edo abantaila-eskubidea dela bide, alargunaren jabetzakoak izanen dira,  
konkistetan berari dagozkion zatian zenbatuak izan gabe, jantziak eta erabilera  
pertsonaleko gauzak, bai eta etxeko ostilamenduko gainerako objektuak ere, horien  
balioa ez bada gehiegizkoa, familiaren inguruabarren eta maila ekonomikoaren eta  
gizarte-usadioen arabera. Halaber, abantaila gisa ken daitezke ondare  
amankomunarekiko balio neurrigaberik ez duten lanabesak.

## **99. legea**

### ***Lehentasunezko adjudikazioa***

Konkista-sozietatearen likidazioan, ezkontide bakoitzak eskubidea izanen du hurrengo  
ondasunak adjudika dakizkion, dagozkion ondare gisa eta ondare horren mugartean,  
baldin ondasun amankomunak badira:

1. Ezkontideetako edozeinek kapitulazio bidez konkista-sozietatera erantsitako ondasun  
pribatiboak.
2. Etxeko ostilamendua osatzen duten objektuak eta lanabesak, aurreko legearen arabera  
abantaila-eskubidearengatik ez dagozkionak.

---

<sup>99</sup> FBko 114-116, 257, 272. legeak; KZko 1396. artikulua eta hurrengoak; KLTB. NJANaren  
8/2012 epaia, apirilaren 17koa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

3. Ezkontidearen ardurapeko ustiatagia, hori nekazaritza, abeltzaintza, baso, merkataritza nahiz industriakoa izan.
4. Ezkontideak lanbide, arte edo ogibidean aritzeko erabili izan duen lokala.
5. Beste ezkontidea hilez gero, ezkontideen ohiko bizilekua izan den etxebizitza.  
1., 4. eta 5. zenbakietako kasuetan, alargunak zilegi izanen du galdatzea esle dakiola ondasunen jabetza, edo horien gaineko erabiltze- edo biztantz- eskubidea bakarrik. Jabetzaren edo kasuan kasuko eskubidearen balioak ezkontide adjudikaziodunaren hartzekoa gainditzen badu, ezkontide horrek dirutan ordaindu beharko du aldea.<sup>100</sup>

## IV. KAPITULUA

### Ondasun-erkidego unibertsalaren araubidea

#### 100. legea

##### *Efektuak*

Ezkontideek ezkon-kapitulazioetan ondasun-erkidego unibertsalaren araubidea hitzartzen badute, honako erregela hauek aplikatuko dira, baldin eta ez bada espresuki itunik egiten masa amankomuna osatzen duten ondasun eta kargei buruz eta hura administratu eta desegin eta likidatzeari buruz:

1. Araubide honen bidez ezkontideen ondasun amankomun bihurtzen dira haien orainaldiko eta etorkizuneko ondasun guztiak, berdin delarik horiek eskuratzeko titulua kostu bidezkoa nahiz dohainekoa, "inter vivos" ala "mortis causa" izatea.
2. Ondare komunaren erantzukizuna izanen dira bi ezkontideei dagozkien karga eta betebeharrak guztiak, biek batera nahiz batek bakarrik hartuak izan, bai eta haietako edozeini banaka dagozkionak ere, ezkontza aurrekoak nahiz ondokoak izan.
3. Ondasun amankomunak administratu eta xedatzeari dagokionez, aplikatuko da 94. legean konkista-ondasunei buruz aurreikusitakoa, ezertan eragotzi gabe 78. legetik 82. legera bitartekoek orokortasunez ezartzen dutena.
4. Ezkontza desegitean, hitzarturiko proportzioan zatituko da ondasun amankomunen gerakin likidoa, eta, hitzarmenik ezean, erdi bana, ezkontideen edo horien jaraunseen artean.
5. Hitzartu ez diren edo lege honetan aurreikusirik ez dauden gaietan, analogiaz aplikatuko dira Konpilazio honetan konkista-araubiderako ezarritako xedapenak, hori ondasun-erkidego unibertsalaren araubidearekin kontraesanezkoa edo bateraezina ez den neurrian.<sup>101</sup>

## V. KAPITULUA

### Ondasun-banantzearen araubidea

#### 101. legea

##### *Hitzarmenezko banantzea eta edukia, itunik izan ezean*

---

<sup>100</sup> FBko 423-426. legeak; KZko 1321, 1406-1407. art.

<sup>101</sup> HEko 90-96. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Ezkontideek ezkon-kapitulazioetan ondasun-banantzearen araubidea ituntzen badute edo araubide hori lege-xedapenez ezartzen bada, berariaz adierazitakorik ezean honako erregela hauek aplikatuko dira:

1. Ezkontide bakoitza hasierako unean dituen ondasunen titular izanen da, bai eta ondoren edozein tituluren bidez eskuratzen dituenena ere.

Ondasun eta eskubideak bi ezkontideei erdi bana eta indibisioan dagozkiela uste izanen da presuntziaz, baldin eta ez bada frogatzen horien jabetza indibiduala, edo kuota-esleipenik gabe eskuratu badira.

2. Ezkontide bakoitzari banaka dagokio bere ondasunen luperketa, administrazioa eta xedapena, ezertan eragotzi gabe 81. legeak familiaren etxebizitzarako xedatutakoa.

3. Ezkontide bakoitzak erantzukizun eskusiboa izanen du berak hartutako betebeharren gainean. Hala ere, betebeharrak ezkontide batek etxeko ahala erabiliz hartu baditu bere gain, erantzutearren familiak bere inguruabarren eta 80. legean aipatzen den tokiko usadioaren arabera dituen beharizan arunt eta bereziei, orduan, ezkontide zordunaren ondarea ez bada behar adinakoa, beste ezkontidearen ondasunek ordeztu erantzukizuna izanen dute, ezertan eragotzi gabe kasuan-kasuan bidezko diren itzulketak.

4. Ezkon-kapitulazioetan itundutakoa ezertan eragotzi gabe, ezkontide bakoitzak ezkon-gastuei 80. legeak ezartzen duenari jarraikiz eginen die aurre, bere ahalmen ekonomikoaren eta dedikazio pertsonalaren proportzioan.

5. Baldin eta, ezkontide batek modu pertsonalean eta ordainsaririk gabe familiarentzat egindako lanaren ondorioz, gauditut egiten bada ezkontide horri bestearen ekarpen ekonomiko eta pertsonalarekin alderatuta ezkonduen gastuetan proportzionalki dagokion ekarpena, konpentsazioa jaso beharko du, araubidea azkentzen den unean.

Kompentsazio horren zerbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira, familiaren maila ekonomikoaren eta inguruabarren barruan, ezkondata emandako urteak eta seme-alabei eta ezkontideekin bizi diren beste familiarterako batzuei eskainitako dedikazioaren eta arreta pertsonalaren iraupen eta intentsitatea.

6. Horrez gain, ezkontideetako batek bestearen enpresa- edo lanbide-jardueretan lan egin badu, eskubidea izanen du egindako lanaren proportzioko konpentsazioa jasotzeko, baldin lan horren truke ez badu ordainsaririk jaso edo jasotakoa aski izan ez bada. Horrek ez du zerikusirik ezkonduetako bikotearen kargetan laguntzeko betebeharra betetzearren behar baino gehiagoko ekarpena egiteagatiko itzulketekin.<sup>102</sup>

### **102. legea**

#### ***Banantze judiziala***

Zilegi izanen da 95. legeko 5. zenbakian ezarritako arrazoien ondorioz ondasun-banantzea judizialki ezartzea, ezkontzako ondasun-araubidea edozein izanda ere.

Likidazioa Konpilazio honetako erregelei jarraituz eginen da, kasuan kasuko araubidearen arabera.

---

<sup>102</sup> FBko 93, 112. legeak; HEko 90-96. art. NJANaren 3/2004 epaia, otsailaren 10ekoa.

## VI. KAPITULUA

### Indarraldiaren osteko printzipio amankomunak

#### 103. legea

##### *Ituntze-askatasuna*

Ezkontideek zilegi izanen dute ezkon-hausturaren efektu ekonomiko guztiak ituntzea, dela ezkon-hausturaren aurreikuspen gisa, dela haustura gertatu ondoren, ezertan eragotzi gabe haien seme-alaba adingabeen gaineko guraso-erantzukizunarekin zerikusia duten efektuei buruz V. tituluak xedatzen duena.

Itun horiek kasuan kasuko efektuak izanen dituzte, nola egin diren: agiri pribatuz edo publikoz, edo deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa arautzen duen hitzarmenean jasoak izanez.

Itun horietan, ezkontideek konpromiso bat sar dezakete, itunen aplikazioari buruzko desadostasunak ebaztearren bitartekaritaz baliatzekoa..<sup>103</sup>

#### 104. legea

##### *Neurri judizialak*

##### *a) Adin nagusiko seme-alaben bizibiderako ekarpena*

Itunik ez dagoenean, epaileak ezarriko du zein den ezkontide bakoitzak egin beharreko ekarpena, oraindik ekonomikoki haien mendeko diren adin nagusiko seme-alaben bizibiderako, eta baloratuko du bidezkoa den ala ez seme-alabetako edozeinen desgaitasunagatik ezartzea ekarpen hori, 73. legean ezarritakoarekin bat, aplikatzekoa den guztian.

Hala eta guztiz ere, epaileak zilegi du ezartzea, hala eskatzen denean, guraso bakoitzak adin nagusiko seme-alaben bizibiderako ordaindu beharreko kopurua haiei zuzenean helarazia izan dakiela.

##### *b) Familiaren etxebizitza*

Seme-alaba adingabeak dauden kasurako 72. legean ezarritakoa eragotzi gabe, halakorik ez dagoenean edo denak jadanik adin nagusikoak direnean, epaileak premiarik handiena duen ezkontideari esleitzen diezaioke familiaren etxebizitza erabiltzeko eskubidea, are etxebizitzaren titularrak ez denean, eta betiere aldi baterako.

Erabiltzeko eskubidearen epea epaileak ezarriko du zuhurtziaz, kontuan harturik kasuko inguruabarrak eta, batez ere, ekonomikoki mendetasunean egoten segitzen duten adin nagusiko seme-alaben bizitza-beharrak.

Seme-alabaren batek desgaitasuna badu, eta, horren ondorioz, familiaren etxebizitza erabiltzen jarraitzea komeni bada, epaileak eskubide horren iraupen-epea zehazten ahal du, kasuan kasuko inguruabarren arabera.

Etxebizitza osoaz edo zati batez eta adierazitako ondasunez xedatzeko, horien erabilera aurreko paragrafoen arabera esleitu bada, bi ezkontideen adostasuna beharko da, edo, halakorik ezean, epailearen baimena. Familiaren etxebizitzaz xedatzeko ahalmenaren murrizketa hori Jabetza Erregistroan jasoko da. Xedatzaileak etxebizitzaren erabilerari

---

<sup>103</sup> FBko 7, 17, 78. eta hurrengo legeak; Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritza buruzko uztailaren 6ko 5/2012 L.

buruz egindako adierazpen okerrak edo faltsuak ez dio kalterik eginen eskuratzailerik onustedunari.<sup>104</sup>

## **105. legea**

### ***c) Desorekagatiko konpentsazioa***

Ezkontza hausten denean ezkontideetako baten egoera ekonomikoa beste ezkontidearen posizioarekiko desorekan suertatzen bada, familiari eskainitako dedikazioagatik, epaileak desorekagatiko konpentsazio bat ezarri ahalko du haren alde, hala eskatzen bada, zeina gauzatu ahalko baita aldi baterako edo epe zehazgaberako prestazio batean, edo osotarako diru-kopuru batean, aintzat harturik, besteak beste, inguruabar hauek:

1. Bizikidetzaren guztizko iraupena, eta denbora horretan familiari emandako dedikazioa.
2. Haustura-unean ezkontide bakoitzak duen egoera ekonomikoa orokorra eta, bereziki, ezkontide-aldian zehar ezkon-araubide ekonomikoari jarraituz ezkontide batentzat eta bestearentzat egin diren ondare-eskualdaketen ondoriozkoa.
3. Ezkontide bakoitzaren lan- edo lanbide-aukerak, kontuan hartuta haien adina, osasun-egoera, eta haiek seme-alabak zaintzeari etorkizunean eskainiko dioten dedikazioa.
4. Eskuratzailerik galdutako aukerak lanari, lanbideari edo prestazio-jasotzeari dagokionez; batez ere, aukera-galtze hori gertatu denean beste ezkontidearen jardueretarako edo haren prestazio-eskubideen aitortpenerako eman duen laguntzarenagatik.
5. Familia-etxebizitzaren erabilera nori esleitu zaion eta horrek dakarren gastu-araubidea.

### ***Aldaketa***

Kompentsazioa aldizkako prestazio gisa ezarri denean, berdin delarik aldi baterako nahiz epe zehazgabe baterako, zilegi izanen da haren zenbatekoa, ordaintze-modua edo iraupena aldatzea, baldin eta ustekabearen inguruabar batzuk suertatzen bazaizkio ezkontide bati edo besteari, aldarazi egiten dituztenak konpentsazioa ezarri zen unean aintzat hartu zirenak.

### ***Az kentzea***

Kompentsazioaren prestazioa arrazoi hauengatik azkentzeko da: hartzekodunaren heriotza, hura ezkontzea edo hark bikote-harreman egonkorra osatzea, hark beste pertsona batekin ezkon-elkarbizitza egitea, epe ezarria betetzea, bai eta prestazioak bere xedea betetzeari uztea dakarren beste edozein inguruabarren agerpena ere.

Kasu hauetan, prestazioaren aldaketa edo azkentzea deklaritzen duen epaiak bere atzeraeraginezko efektuak eraman ahal izanen ditu aldaketa edo azkentze hori eragin duen arrazoiaren agerpen-uneraino.

### ***Zordunaren heriotza***

Zordunaren heriotzak ez du berez azkentzen konpentsazio gisa ezarritako prestazioa.

Kasu bakoitzean epaileak ebatziko du prestazioaren iraupenaz, haren zenbatekoaren aldaketaz, prestazioa zenbateko oso batekin edo ondasun batzuk entregatzearekin ordezteaz edo hura azkentzeaz, bai eta, kasua bada, betebeharraren erantzukizunaz eta banaketa ekitatiboa egiteaz zordunaren oinordeko unibertsal edo partikularren eta,

---

<sup>104</sup> KZko 93-94. art.



## I. liburua.- Pertsonak eta familia

baleude, biziarteko gozamedunen artean. Horretarako, inguruabar hauek hartuko ditu kontuan, kasuan aplikagarritzat jo ahal dituen beste batzuez gain:

1. Zer balio garbi, errentagarritasun eta likidezia duten jarauntsiaren ondareak eta horren ganean oinordekoek edo gozamedunek dituzten eskubide zehatzek.

2. Ezkontideek dituzten betebeharrak, seme-alaba adingabeen edo gaitasuna egikaritzeko laguntza behar dutenen edo adin nagusiko seme-alaba ekonomikoki mendekoen bizibideari loturikoak, bai eta beste mantenu-betebehar batzuk ere, Konpilazio honetako legeen edo lege orokorren arabera beren gain hartu beharrekoak direnak.

3. Haietariko bakoitzak dituen beharrizan pertsonalak eta ekonomikoak.

Lege honen arabera prestazio horretara beharturik gerta daitezkeen pertsonen zilegi izanen dute eskatzea, kasuko deklarazio- edo exekuzio-prozeduran, ordainketa eten dadila harik eta aurreko apartatuan aipatzen diren gaiak behin betiko ebazten diren arte. Horren efektuak atzeraeraginez aplikatuko dira zordunaren heriotzaren unetik.<sup>105</sup>

## VII. TITULUA BIKOTE EGONKORRA NAFARROAN

### **106. legea**

#### ***Eraketa***

Ezkontzaren pareko bizitza-elkarte afektiboan bizi diren adin nagusiko bi pertsonak edo adingabe emantzipatuk Konpilazio honetan aurreikusten diren efektuekin bikote egonkorra eratu nahi badute, hori egin ahal izanen dute beren borondatea agiri publikoan adieraziz.

Erregistroa

Bikote egonkorra Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro bakarrean inskribatu beharko da erregistro hori eraentzen duen arauan aurreikusitako froga- eta publizitate-efektuak izateko, bai eta beste lege-xedapen batzuetan ezarritako efektuak izateko ere.<sup>106</sup>

### **107. legea**

#### ***Debekuak***

Honakoek ezin dute bikote egonkorra eratu:

1. Ezkonduta dauden edo beste pertsona batekin bikote-harreman egonkorra eratuta daukaten pertsonak.

2. Elkarren artean odol edo adopzio bidez zuzeneko lerroko ahaidetasuna edo bigarren graduako albo-ahaidetasuna duten pertsonak.

Ezin izanen da hitzartu aldi baterako bikote egonkorrik eratzea, ezta baldintza bati lotutakorik ere.<sup>107</sup>

---

<sup>105</sup> FBko 259. legea; KZko 97, 99, 100, 101. art.

<sup>106</sup> 21/2019 FLko 4. xed. ir. (ikus §4.5); FBko 48, 50. legeak; 6/2000 FLko 13. art.; 27/2021 FD, apirilaren 14koa, zeinaren bidez sortzen eta arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra; 22/2021 FA, abuztuaren 2koa, zeinaren bidez garatzen baita apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez sortzen eta arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra.

<sup>107</sup> FBko 118. legea.

### **108. legea**

#### ***Ahaidetasuna***

Bikote egonkorrek ez du inolako ahaidetasun harremanik sortzen bikotekide bakoitzaren eta beste bikotekideak dituen ahaideen artean.

### **109. legea**

#### ***Bikote egonkorraren irauinaldirako araubidea***

Bikotekideek itun bidez arautu ahal izanen dituzte beren harremanaren alderdi pertsonalak, familiarrak eta ondarekoak, bai eta beren eskubide eta betebeharrak ere.

#### ***Familiaren etxebizitza***

Familiaren etxebizitzaren xedatzeari 81. legean adierazitakoa aplikatuko zaio, non eta bikotekideen artean ez den kontrakoa ituntzen.

#### ***Gastu amankomunak eta ekarpena***

Bikotearen gastu amankomunak dira bikotekideen eta haien seme-alaba amankomunen beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren guztiak, bai eta amankomun ez diren seme-alaben mantenuak eta haiek familia-etxebizitzan biztantzak eragindakoak ere.

Itunik ez badago, bikote egonkorreko kideek familiaren etxebizitza mantentzeko eta gastu amankomunetarako eginen duten ekarpena bakoitzaren baliabide ekonomikoen proportziokoa izanen da; horretarako, kontuan hartuko da familiarentzat emandako lan pertsonala eta beraiekin bizi diren seme-alaba amankomun nahiz ez-amankomunen eta gainerako pertsonen zaintzari eskainitako dedikazioa.

#### ***Erantzukizuna hirugarrenen aurrean***

Bi bikotekideek erantzukizun solidarioa izanen dute hirugarrenen aurrean, arestiko apartatuan aipaturiko gastuengatik haietako batek hartutako betebeharrak direla-eta, baldin eta gizarte usadioekin bat badatoz, eta ezertan eragotzi gabe bikotekideen barne-harremanen arabera egin beharrekoak diren itzulketak, halakorik suertatuz gero.<sup>108</sup>

### **110. legea**

#### ***Az kentzeko arrazoiak***

Arrazoi hauengatik azkenduko da bikote egonkorra:

1. Bikotekideetako baten heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik.
2. Bikotekide baten ezkontzagatik eta bien arteko ezkontzagatik.
3. Bikotekideen adostasunagatik.
4. Bikotekide baten borondatez, borondate hori beste bikotekideari modu fede-emailean jakinarazita.
5. Bizikidetzaren amaitu eta horrekin batera bizitza-erkidegoaren egiazko haustura gertatzeagatik.

Bikote egonkorraren azkentzea bikotekideetako edozeinek jakinarazi beharko dio bikotea inskribatuta dagoen erregistro bakarrari, inskribatuta egonez gero. Azkentzeak ekarriko du bizikideteetako edozeinek bestearen alde emandako balizko baimen eta ahalordeak errebokatzea.

---

<sup>108</sup> FBko 78, 120. legeak.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

Bikotea azkentzen bada, kideen artean emandako dohaintzak errebokatu ahal izanen dira, haien tituluan aurreikusitako arrazoiez gain, epaileak deklaritzen duenean dohaintza-hartzaileak ez dituela familia-betebeharrak bete.<sup>109</sup>

### 111. legea

#### ***Bizikidetza amaitzearen kasurako itunak***

Bizikidetza amaitzearen kasurako, zilegi izanen da eskritura publikoan ituntzea bikote egonkorren azkentzeak izanen dituen efektuak.<sup>110</sup>

### 112. legea

#### ***Azkontzearen efektuak***

Bizikidetza amaitzen den unean, zilegi izanen da konpentsazio bat ematea, familiarentzat egindako lanarengatik ez ezik, bikotekide batek bestearen enpresa- edo lanbide-jardueretan egindakoengatik ere, 101. legearen 5. eta 6. apartatuetaan aurreikusitako moduan.

### 113. legea

#### ***Oinordetza-eskubideak.***

Bikote egonkorra azkentzen bada bikotekide baten heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik, bizirik dirauen bikotekidearen oinordetza-eskubideak izanen dira elkari nahiz bietako batek besteari baterako egintzan edo bakoitzak bere aldetik testamentuz, oinordetza-itunez, "mortis causa" dohaintza bidez edo Konpilazio honetan onartzen diren gainerako xedatze-egintzen bidez emandakoak bakarrik.<sup>111</sup>

## **VIII. TITULUA ONDASUN-LIKIDAZIOA BIGARREN EDO ONDORENGO ELKARTZEETAN**

### 114. legea

#### ***Aurreko ezkontza edo bikote egonkor baten ezkon-sozietatea edo ondasun-erkidegoa likidatzea***

Bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkontzen den edo beste pertsona batekin bikote egonkorra eratzen duen gurasoa behartuta egonen da ezkontide edo bikotekidearen heriotzagatik desegindako aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko bere seme-alabekin edo ondorengo ahaideekin batera egitera ezkon-sozietate edo ondasun-erkidego deseginaren likidazioa, eta haiei zilegi dituzten ondasunak formalki eta egiazki entregatzera, seme-alaba edo ondorengo ahaide horiek aurretiaz zendutakoaren jaraunse edo zati alikuotaren legatu-hartzaile direnean.

Seme-alaba adingabe emantzipatugabeen ordezkari gisa defendatzaile judiziala arituko da.

---

<sup>109</sup> FBko 49, 126, 162, 163. legeak; Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra sortzen eta arautzen duen apirilaren 14ko 27/2021 FDko 19-20. art.

<sup>110</sup> FBko 17, 103, 114. legeak.

<sup>111</sup> FBko 253. legea.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

### ***Aurreko elkartzeko edo bikoteko seme-alaben eskubideak***

Baldin eta ezkondu edo bikote egonkorra eratu aurretik gurasoek ez badute aurreko apartatuak ezartzen dien<sup>112</sup> betebeharra bete, aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko seme-alabek edo ondorengo ahaideek zilegi izanen dute likidazioa galdatzea, eta erreklamatzeko beren ondasunek ezkon-sozietate edo ondasun-erkidego berrian eragindako ondare-gehikuntzengatik edo irabaziengatik dagokiena.

Lege honetan xedaturikoa bete beharrekoa izanen da, baldin eta ondasun-erkidegoa bada ezkontza edo bikote egonkor berriaren ondasun-araubidea.<sup>113</sup>

### **115. legea**

#### ***Salbuespenak***

Aurreko legean xedatutakoa ez da kasu hauetan aplikatuko:

1. Lehenik hiltzen denaren heriotza-unean bizirik dirauena haren jaraunsle bakar eta unibertatsala denean.
2. Hildakoak jaraunsle izendatu duenean bere ezkontidea edo bikotekidea, edo bere seme-alabek edo ondorengoez beste hirugarren pertsona batzuk.
3. Hildakoak bere seme-alabak jaraunsle izendatu dituen bere ondasun pribatiboetarako soil-soilik.
4. Hildakoak biziraulea konfiantzazko jaraunsle edo fiduziario-komisario izendatu duenean, izendapen hori baldintzatu gabe ezkontza berririk ez egitera edo bikote egonkor berririk ez eratzerara.
5. Biziraulea jaraunsle-fiduziario denean eta seme-alabak edo ondorengo ahaideak jaraunsle fideikomisodun direnean.
6. Baldin eta ezkon-sozietate edo erkidegoa desegiteko unean ez badago ondasun nabarmenik, oinarria eman ahal izan duenik geroko ezkontza- edo bikote-harremanaren indarraldian inolako irabazirik lortzeko. Bizirik dirauen ezkontzideak edo bikotekideak notario-aktan edo adiskidetzeko-ekitaldian agerrarazi beharko du halako ondasunik ez dagoela, eta interesdunei edo horien ordezkari legitimoei jakinarazpena edo zitazioa egiten die.<sup>114</sup>

### **116. legea**

#### ***Ezkon-sozietate edo ondasun-erkidegoa likidatzea, aurreko elkartzeko batzuetako ondorengoak daudenean***

Ezkon-sozietatean edo ondasun-erkidegoan aurreko elkartzeko batzuetako seme-alaba edo ondorengoen interesik badago, banan-banan eta ondoz ondo egiten da haietako bakoitzaren likidazioa.

Ezkontza bakoitzeko seme-alabei edo ondorengoei dagozkien hartzeoetara bilduko dira:

---

<sup>112</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsioak 2019ko apirilaren 16ko NAOren gaztelaniazko testuan ageri diren akatsak zuzendu ditu (“no hubiere cumplido la obligación que le impone”).

<sup>113</sup> FBko 75, 90-91, 115, 116, 273. legeak. B JLko 27-32. art. NJANaren 5/1994 epaia, otsailaren 23koa.

<sup>114</sup> FBko 91. legea. B JLko 139. artikulua eta hurrengoak. NJANaren 5/1994 epaia, otsailaren 23koa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

1. Geroko ezkontza egin edo bikote egonkorra eratzean 114. legearen arabera jadanik jasoak izan beharko lituzketen ondasunak.

2. Hurrengo edo ondorengo elkartzeekiko legozkiekeen kredituak, aipatutako legearekin bat.

1. zenbakian zehazturiko hartzekoak kobratzeko, lehentasuna izanen dute elkartze zaharreneko seme-alaba edo ondorengoek.

2. zenbakiko hartzekoei dagokienez, lehentasunik gabe parte hartuko dute aurreko elkartzeetako seme-alaba edo ondorengo guztiek.

### ***Banaketa***

Aurreko elkartze bat baino gehiagotako seme-alaba edo ondorengoak batera suertatzen badira, horiek ezkontide edo bikote egonkorreko kide bakarrarenak nahiz bienak izan, ondare-gehikuntzak eta irabaziak buruka banatuko dira seme-alaba horien artean, eta aurretiaz hildako seme edo alabaren ondorengoek ordezkapen-eskubidea izanen dute.<sup>115</sup>

## **IX. TITULUA ELKARRI LAGUNTZEKO ERKIDEGOAK**

### **117. legea**

#### ***Definizioa***

Ohiko etxebizitza berean elkarrekin, hala irauteko asmoz, kontraprestazio ekonomikorik gabe eta gastu amankomunak eta etxeko lanak partekaturik bizi diren adin nagusiko bi pertsona edo gehiagok zilegi dute elkarri laguntzeko harreman bat eratzea, idatzizko hitzarmen baten bidez.<sup>116</sup>

### **118. legea**

#### ***Betebehar pertsonalak eta debekuak***

Elkarri laguntzeko harremana era dezakete gradu-mugarik gabeko albo-ahaidetasunezko, adiskidetasunezko edo kideasunezko lotura duten pertsonak.

Ezin dute halakorik eratu ezkontideek, ez eta bikote egonkorreko kideek edo izatezko bikotekideek ere.<sup>117</sup>

### **119. legea**

#### ***Bizikidetzan zeharreko araubidea***

Bizikideek idatzizko itun bidez arautu ahal izanen dituzte bizikidetzan zehar izanen dituzten harreman pertsonalak, eskubideak eta betebeharrak, bai eta haietako bakoitzak gastu komunetarako eta etxeko lanetarako egingen duen ekarpena ere, zeina berdina nahiz desberdina izan baitaiteke.<sup>118</sup>

---

<sup>115</sup> FBko 97, 273, 308. legeak; KZko 1409. art.

<sup>116</sup> 21/2019 FLko 5. xed. ir. eta 2. azk. xed. (ikus. §4.5); 34/2002 FL, abenduaren 10ekoa, Pertsona Zaharrak Familian Hartzeari buruzkoa.

<sup>117</sup> 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa, Pertsona Zaharrak Familian Hartzeari buruzkoa.

<sup>118</sup> FBko 17. legea; 34/2002 FL, abenduaren 10ekoa, Pertsona Zaharrak Familian Hartzeari buruzkoa.

## X. TITULUA

### DOHAINZAK, FAMILIARENTZAKOAK ETA FAMILIA- ONDAREAREN BATASUN ETA JARRAITUTASUNERAKOAK<sup>119</sup>

#### 120. legea

##### *Familiarentzako dohaintzaren motak*

Familiarentzako dohaintzatza hauek jotzen dira:

1. Ezkontideek edo bikotekideek ezkontzagatik edo bizikidetzaren hasieragatik elkarri egiten dizkioten dohaintzak.
2. Ezkontideek edo bizikideek elkarri egindako dohaintzak, oreka ekonomikoa mantentze aldera ezkontide-aldian edo elkarbizitzan zehar, edo hura amaitzen den unerako.
3. Pertsona batek edo elkar hartutako bat baino gehiagok egindako dohaintzak, ezkontide baten edo bien aldekoak, bikotekide baten edo bien aldekoak, edo familia-taldea eratu duen pertsona baten aldekoak, betiere dohaintza horien bitartez ondasun batzuk eskualdatzen badira ezkontzeagatik, bizikidetzaren hasieragatik edo familia-talde berri hori eratzeagatik.
4. Pertsona batek edo elkar hartutako bat baino gehiagok bere familiak belaualdi berri batean irautearren egindako dohaintzak, ezkontide baten edo bien aldekoak, bikotekide baten edo bien aldekoak, edo familia-taldea eratu duen pertsona baten aldekoak, betiere dohaintza horiek egiten badira ondasunak eskualdatuz, familia-ondarearen edo -enpresaren batasunari eta jarraitutasunari euste aldera.<sup>120</sup>

#### 121. legea

##### *Edukia*

Dohaintzak izan daitezke dauden ondasun zehatz batzuen gainekoak, dauden edo etorkizunean egonen diren ondasun guztien gainekoak, horien guztien gainekoak edo dohaintza-emailea hiltzean geratzen diren gainekoak; eta jabari osoan edo gozamenaren erreserbarekin egin daitezke, xedapen-askatasuna emanez nahiz murriztapenekin, errebokatze edo lehengoritze klausulekin, oinordetza-deiekin eta fideikomisoekin edo zilegi den beste edozein baldintzarekin.<sup>121</sup>

#### 122. legea

##### *Denbora, forma eta onarpena*

Dohaintzak ezkontza egin, bizikidetzaren hasi edo familia-talde berria eratu aurretik nahiz ondoren egin daitezke, eta ezkon-kapitulazioen edo eskritura publikoaren bidez egin beharko dira, betiere ondasunak eskrituran bertan edo erantsitako inbentarioan deskribatuta.

Dohaintzetan nahitaezkoa da dohaintza-hartzailearen onarpena, dohaintzaren eskrituran bertan edo aparteko eskritura batean adierazia.

---

<sup>119</sup> 21/2019 FLko 6. xed. ir. (ikus §4.5).

<sup>120</sup> FBko 50, 160. legeak.

<sup>121</sup> FBko 7, 85, 128, 148, 160. legeak; HEko 77. art.; KZko 1336-1343. art. NJANaren 4/2014 epaia, apirilaren 10ekoa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

Dohaintza-emailearen edo -emaileen bizialdian nahiz heriotzaren ostean egin ahal izanen da onarpena.

Dohaintza-emaileek edo horien jaraunsleek dohaintza errebokatu ahal izanen dute onarpenaren berririk ez badute, salbu eta dohaintza-hartzaileari notario-akta bidez errekerimendua egin eta horrek onarpena ematen duenean.<sup>122</sup>

### **123. legea**

#### ***Araubidea***

Familiako dohaintzei hurrengo erregelak aplikatuko zaizkie:

1. Dohaintza-hartzaile unibertsala jaraunsle gisa da oinordeko, baina ez du erantzukizunik dohaintza-emaileek dohaintzaren ondotik hartutako zorren gainean, salbu eta zor horiek familia-ondarearen edo -enpresaren onurako hartu direnean.
2. Dauden eta etorkizunean egonen diren ondasunen gaineko dohaintza unibertsalean, presuntzios uste izanen da, kontrako itunik izan ezean, dohaintza-emailea zendutakoan bakarrik eskuratuko dituela etorkizuneko ondasunak dohaintza-hartzaileak.
3. Dohaintza unibertsalean dohaintza-emaileek ondasun edo zenbateko batzuk xedapen liberako erreserbatzen badituzte, honako presuntzio hauek aplikatuko dira: a) xedapen librea "inter vivos" nahiz "mortis causa" izanen dela; b) erreserba dohaintza-emaileen multzoaren alde egiten dela, eta oso-osorik bizirik dirauenarentzat; c) dohaintza-emaile guztiak zendu ondoren, xedatu ez dituzten ondasun erreserbatuak dohaintza-hartzailearenak izanen direla, dohaintzan sartuta daudela ulertuta; d) dohaintza-emaileek dohaintza egitean ezkatutu dituzten zorren gaineko erantzukizuna haiek erreserbatutako ondasunen gainekoa izanen dela lehentasunez.
4. Norbaitek bera hiltzen denean geratuko denaren dohaintza egiten badu, bere ondasunak xedatu ahal izanen ditu kostu bidezko "inter vivos" egiten bitartez bakarrik.
5. Dohaintza-emaileek beraiarentzat erreserbatu badituzte gozamina eta administratzea, presuntzios uste izanen da, aurkako xedapenik izan ezean, erreserba dohaintza-emaileen multzoarentzat egin dela, eta oso-osorik, biziraulearentzat.
6. Bestelako xedapenik izan ezean, dohaintza-hartzaileak dohaintza-emaileen hiletagastuak agindu eta ordaindu beharko ditu, tokiko usadioarekin bat etorritik eta familiaren maila ekonomikoaren arabera.
7. Baldin dohaintzarekin batera dohaintza-hartzaileei ezartzen bazaie dohaintza-emaileekin bizitzeko edo haiei laguntza emateko betebeharra, bizikidetzari uzteak edo laguntza emateko betebeharra ez betetzeak aukera emanen die, dohaintza-emaileei edo horietatik bizirik dirauenari, dohaintza errebokatzeko. Errebokatzeko eskritura egin ahal izanen da aurretiaz notarioaren nabaritasun-akta bidez justifikatuz bizikidetzari utzi zaiola edo betebeharra ez dela bete.
8. Etorkizuneko pertsonentzat egindako lehengorazteetan eta fideikomisozko ordezenetan, 223. eta 224. legeek xedaturikoa bete beharko da.
9. Edozein pertsonari egindako oinordetza-deiak ez dira dohaintzat hartuko, espresuki hala adierazten denean baizik. Gainerako kasuetan, deiak oinordetzarako deien balio hutsa izanen dute; hori dela eta, dei horiek ez dakarte ondasunak kostu bidez xedatzeko

---

<sup>122</sup> FBko 17, 83. eta hurrengo legeak, 160-161, 178, 286, 320. legeak; KZko 1336-1343. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

inongo debekurik, eta oinordetzara deituak oinordeko izanen dira, soilik, dohaintza-hartzailea hiltzean geratzen diren ondasunenak.

10. Dohaintzan emandako ondasunen administrazio eta zuzendaritzari buruz ez bada ezer itundu, ulertuko da horiek dohaintza-emailei edo bizirik dirauenari dagozkiela; betiere, horiek beraientzat gozamina erreserbatu badute.

11. Baldin dohaintza-hartzaileen eta dohaintza-emaileen bizikidetzak halako moldez itundu bada non azken horiek beraientzat erreserbatu baitute dohaintzan emandako ondasunen gozamina, horietatik inork ezin izanen du besteen baimenik gabe jabetza soilak besterendu, horren gaineko luperketa laga, ez eta bere eskubideak kargatu ere.<sup>123</sup>

### **124. legea**

#### ***Xedatzea***

Tituluan ez bada bestelakorik ezarri, dohaintza-hartzaileak, dohaintzaren asmotan harturiko senar-emazteen, bikotearen familia-unitatearen eratzzailearen seme-alabek, edota dohaintzan emandako ondasunak jarauntsiaren bidez eta ondoz ondo jaso dituzten ondorengoek, zilegi izanen dute ondasunok xedatzea, kostu bidez betiere; dohaintza xedatu ahal izanen ditu, berriz, dohaintzaren asmotan harturiko senar-emazteen, bikote egonkorren edo familia-unitate eratuaren ondorengoak dituen dohaintza-hartzaileak, testamentua egiteko gaitasuna badu, bai eta hark izandako ondorengoek ere, are azken horiek ondorengorik ez dutenean.

#### ***Lehengoratzea***

Dohaintza-hartzaileak edo berorren ondorengoek ez badituzte modu baliadunetan eta aurreko paragrafoaren arabera xedatu dohaintzan jasotako ondasunak, dohaintza-emaileari lehengoratuko zaizkio, haietatik azkena hiltzen denean. Ondasun horiek dohaintza-emaile diren ezkontideen konkista-ondasunak izanez gero, lehengoratzea bi ezkontideen mesedetan erdi bana gauzatuko da.

Dohaintza-emailea hiltzen bada, dohaintzan emandako ondasunak ahaiderik hurbilenei lehengoratuko zaizkie, lehengoratzea egiteko unean horiek dohaintza-emailearen legezko jaraunslak badira.

Gozamenetik kanpo uzteko itunik egon ezean, lehengoratzea beti gauzatuko da ezertan kaltetu gabe dohaintza-hartzailearen ezkontide alargunarentzat edo bikotekidearentzat eraturiko alarguntza-gozamina, edo aurretiaz hildako dohaintza-emailearen ezkontide edo bikotekideari legokiokeen alarguntza-gozamina. Azken horrek lehentasuna izanen du, bi gozamen horiek aldi berean suertatuz gero.

Lege honetan xedaturikoa hala ulertuko da, salbu eta dohaintza-tituluan bestelakorik ezarri denean; eta ez da lehengoratzerik gertatuko, baldin dohaintza-emaileak eskubide horri uko egin badio edo ez badago lege-hurrenkeraren arabera dohaintza-emailearen oinordeko izateko ahaiderik.<sup>124</sup>

---

<sup>123</sup> 1. zk.: FBko 160, 318. legeak; 2. zk.: FBko 165. legea; 3. zk.: FBko 121, 179.II, 217. legeak; 4. zk.: FBko 160, 179.I legeak; 5. zk.: FBko 409, 412.II legeak; 6. zk.: FBko 318. legea; 7. zk.: FBko 160, 162, 163. legeak; 8. zk.: FBko 155. legea; 9. zk.: FBko 220. legea; 10-11 zk.: FBko 129, 134, 160. legeak. NJANaren 7/2022 epaia, ekainaren 22koa.

<sup>124</sup> FBko 98, 138, 255, 279, 280, 302. legeak.



### **125. legea**

#### ***Eragingabetasuna***

Ezkontzari, bikoteko bizikidetzari edo familia-taldearen eraketari begira egindako dohaintzak eragingabeak izanen dira baldin eta haiek egiteko oinarritzat harturiko egitatea ez bada urtebeteko epean gertatzen.

Era berean, ezkontzari begira egindako dohaintzak eragingabeak izanen dira ezkontza deusez deklaritzen denetik aurrera.<sup>125</sup>

### **126. legea**

#### ***Errebokatzea***

Oro har, dohaintzak errebokatu ahal izanen dira soilik arrazoi itunduengatik eta dohaintza-hartzaileari ezarritako karga funtsezkoak ez betetzeagatik; bestelako kargak ez badira betetzen, dohaintza-emaileak zilegi izanen du bete daitezen galdatzea.

Horrez gain, ezkontideek edo bikote egonkorreko kideek elkarri egindako dohaintzak errebokatu ahal izanen dira 82. legeak eta 110. legeko bigarren paragrafoak aurreikusten dituzten arrazoiengatik, hurrenez hurren.

Konpilazio honen beste xedapen batzuetan xedatutakoa eragotzi gabe, hirugarrenek dohaintzak egiten badituzte familiak belaunaldi berri batean irauteari begira, familiaren ondarearen edo enpresaren batasuna eta jarraitutasuna lortzeko helburuarekin, dohaintza horiek errebokatu ahal izanen dira dohaintzaren kausa den ezkontzako ezkontideen legezko edo egitatezko banantze edo dibortzioagatik, dohaintzak asmotan izan zuen bikotea bikotekideen bizialdian zehar azkentzeagatik edo hausteagatik, eta dohaintzak asmotan izan zuen pertsonaren familia-taldea aldatzeagatik.

Behin dohaintza-emailea hil eta gero, 162. legean xedaturikoari helduko zaio.

Errebokatzeiko ahalmena eskualdaezina da; baina dohaintza-emaileak hiltzen badira demanda bat jarrita daukatenean, errebokazioak arrakasta izanez gero ondasunetara deituak suertatuko liratekeen pertsonen zilegi izanen dute akzioaren erabileran aurrera egitea.

Dohaintza-emaile bat baino gehiagok taldean eginiko dohaintzen kasuan, errebokazioa ondasun guztien gainean egin beharko da, eta dohaintza-emaile edo biziraule guztiek beharko dute egin.<sup>126</sup>

## **XI. TITULUA ETXE NAFARRA**

### **I. KAPITULUA**

#### **Etxea eta haren batasunerako eta jarraitutasunerako agindutako dohaintzaren bitartez Etxea eskualdatzea**

### **127. legea**

#### ***Etxea***

Etxe Nafarrak bere izenez identifikatzen du bertan bizi den edo haren baliabideen mende dagoen erkidegoa edo familia-taldea, bai eta haren ondarea osatzen duten ondasunak ere,

<sup>125</sup> FBko 83. legea; KZko 1342. art.

<sup>126</sup> FBko 122, 182. legeak; KZko 1343. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

auzotasun-harremanetan, zerbitzu-emateetan, finken identifikazioan, eta tokiko ohitura eta usadioek eta arauak ezarritako bestelako harremanetan. Etxearen batasunari eta iraupenari eustearen ardura eta haren ondarea eta izena defendatzearena jabeai dagokie, edo jabetza tituluetan haren administrazioa esleitua edo erreserbatua dutenei.

Etxeari buruzko itun eta borondatezko xedapen guztiak eta aplikatzekoak zaizkion ohitura eta legeak interpretatzean, bete beharko den funtsezko printzipioa da haren ondarearen eta haren jardura ekonomikoak aurrera eramaten dituzten enpresa guztien batasuna da, bai eta familia-erkidegoan edo -taldean jarraitu eta irautearena.<sup>127</sup>

### **128. legea**

#### ***Etxearen dohaintza***

Etxearen dohaintzek, haren batasunari eta jarraipenari begira agindutakoek, 121. legean aurreikusitako edukia jasotzeaz gain, zuzkidurak, mantenua edo seme-alabak nahiz beste pertsona batzuk etxean bizitzeko eskubideak ezarri ahal izanen dituzte, bai eta dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzaileen bizikidetzarako familia-sozietatea eratzeari, zuzendu eta administratzeari, aldatzeari eta desegiteari buruzko itunak eta bizikidetzak hori hausteari buruzkoak ere, eta itun eta estipulazioak gozamenaz eta ondasunen xedapenez, konkistetako parte-hartzeaz eta, oro har, edozein baldintza edo zilegi diren bestelako itunak.

Dohaintza horien bitartez Etxearen eskualdaketa gertatzen denean, liburu honen X. tituluan jasotako xedapenak aplikatuko dira, berezitasun hauekin:

1. Dohaintza-hartzaile unibertuala jaraunse gisa da oinordeko, baina ez du inolako erantzukizunik izanen dohaintza-emaileek dohaintza egin eta gero hartutako zorren gainean, salbu eta horiek Etxearen onurarako direnean.

2. Bestelako xedapenik izan ezean, dohaintza-hartzaileak dohaintza-emaileen hiletagastuak agindu eta ordaindu beharko ditu, tokiko usadioarekin bat etorritik eta Etxeari dagokionaren arabera.

3. Baldin eta dohaintza egiten bada dohaintza-hartzaileari Etxean bizitzearen karga ezarrita, Etxea abandonatzeak dohaintza errebokatzeko aukera emanen die dohaintza-emaileei edo haietatik bizirik dirauenari. Errebokatzeko eskritura egin ahal izateko, Etxe-abandona notarioaren nabaritasun-aktaren bidez justifikatu beharko da aurretiaz. Dohaintza-emaileak hilda egonik norbaitek Etxe-harrerarako eskubidea badu, 137. legean xedatutakoari helduko zaio.

4. Dohaintza-emaileak ez badu behar beste ondasunik erreserbatu, 138. legean aurreikusitakoaren arabera berak eman beharrekoak diren zuzkidurei aurre egiteko, ulertuko da horiek dohaintza-hartzailearen ardurapean geratzen direla, halakorik espresuki adierazi ez denean ere. Dohaintza-emaileak ezin du dohaintza-hartzailea betebeharrak horretatik askatu, salbu eta onuradunak horri uko egiten dionean.

---

<sup>127</sup> FBko 137, 138. legeak. NJANaren honako epai hauek: 7/2022, ekainaren 22koa; 2/2018, otsailaren 13koa; 4/2014, apirilaren 10koa; 9/2004, martxoaren 17koa; 14/1994, ekainaren 30koa; 1991ko urriaren 31koa.

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

5. Dohaintza-emaileak eta dohaintza-hartzaileak Etxean elkarrekin bizi badira, ondasunen luperketa dutenek mantenua zor diete besteei, Etxearen maila ekonomikoaren eta tokiko usadioaren arabera.<sup>128</sup>

## II. KAPITULUA Konkisten familia-sozietatea

### 129. legea

#### *Horren existentziaren presuntzioa eta araubide juridikoa*

Baldin eta ezkon-kapitulazioetan ondasunak dohaintzan emateaz edo jaraunslea izendatzeaz gain hitzartu egiten bada dohaintza-emaile edo izendatzaileak eta dohaintza-hartzaile edo izendatuak elkarrekin biziko direla, presuntzior joko da horiek guztiak parte hartzen dutela lortzen diren konkistetan, salbu eta eskrituran kontrako itunak baldin badaude, edo familia-sozietate hori existitzearekin bateraezinak direnak.

Konkisten familia-sozietatearen araubidea osatzen dute hitzarturikoak, ohiturak eta, halakorik ezean, kapitulu honetako xedapenek. Kapitulu honek arautzen ez duen guztian, ezkon-sozietaterako ezarritakoa aplikatuko zaio konkisten familia-araubideari.<sup>129</sup>

### 130. legea

#### *Familia-sozietatearen ondasunak eta kargak*

Konkista-ondasunak edo familia-sozietatea osatzen duten pertsonetako bakoitzaren ondasun pribatiboak zeintzuk diren zehazteko, 88. eta 89. legeek ezkontideei buruz xedaturikoari helduko zaio.

Konkisten familia-sozietateak dituen kargei dagokienez, 90. legean xedaturikoa aplikatuko zaie partaide guztiei.

#### *Administratzea eta xedatzea*

Kontrako itunik izan ezean, konkista-ondasunak administratzea dohaintza-emaile edo izendatzaileei dagokie, edo horietatik bizirik dirautenei.

Konkistaturiko ondasun higiezinak, industria edo merkataritzako establezimenduak edota horien oinarritzko osagaiak besterendu nahiz kargatzeko, beharrezkoa da partaideen baimena.

### 131. legea

#### *Desegitea*

Konkisten familia-sozietatea desegiteko arrazoiak hauek dira:

1. Ezkon-kapitulazioetan ezarritakoak.
2. Partaide guztien erabakia, 86. legeak kapitulazioen aldaketarako agintzen dituen formalitateekin hartua.
3. Legezko banantzea, dibortzioa eta kapituluek xedetzat harturiko ezkontzari buruzko deuseztasun-deklarazioa.

#### *Sozietate jarraitua*

---

<sup>128</sup> FBko 123.7, 136, 160, 162-163. legeak.

<sup>129</sup> FBko 5, 87. eta hurrengo legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Dohaintza-hartzaileak edo izendatuak diren ezkontideetako baten heriotza, eta 95. legearen 5. zenbakian jasota egonik haiengan betetzen diren desegite-arrazoioak, baldin eta dohaintza-emaileek edo izendatzaileek ez badute haietako bakar batekin bizitzen segitzen.<sup>130</sup> Ezbaian egonez gero bizikidetzarik badagoen ala ez, horri buruzko erabakia Ahaide Nagusiek hartu ahal izanen dute, 147. legean ezarritakoarekin bat.<sup>131</sup>

### 132. legea

#### *Dohaintza-emaileen heriotza*

Dohaintza-emaile edo izendatzailearen bat hiltzen denean, familia-sozietateak indarrean iraunen du, kontrako itunik izan ezean, gainerako partaideen artean.

Dohaintza-emaile edo izendatzaile guztiak zendurik, sozietateak ezkontideen artean iraunen du indarrean, eta konkisten ezkon-sozietateari buruzko legean arabera eraenduko da.

Lege honetan xedaturikoak ez du eragotziko kasuan-kasuan egin beharreko likidazio partziala.<sup>132</sup>

### 133. legea

#### *Zatiketa*

Konkista-ondasunen gerakin likidoa zatituko da itundutako proportzioan eta, ezer itundu ezean, sozietatearen partaideen artean, buruko bana. Horrek ez du eragotziko liburu honen VIII. tituluari aipatutako xedapenak aplikatzea, bidezkoa bada.<sup>133</sup>

## III. KAPITULUA

### Familia-erkidegoak<sup>134</sup>

### 134. legea

#### *Formalki eraturiko erkidegoak*

Formalki eraturiko familia-erkidegoak, haien indarraldian zehar, haien eraketa-tituluan ezarritako erregelaren bitartez arautuko dira.

Erkidegoak desegitean, eraketa tituluan berariazko aurreikuspenik izan ezean, eta ezertan eragotzi gabe borondatez Ahaide Nagusien erabakimenaren menpe jartzea – titulu honen azken kapituluarekin bat –, epaileak erabakiko du desegitearen efektu pertsonalei buruz, eta ahalegina egiten da Etxearen titularrak bertan gera daitezten.

Ondasunei dagokienez, tokiko usadioaren arabera ebatziko da, eta, ahal den neurrian, Etxearen batasunari eutsiko diote, eta erkidego deseginaren kideei ondasun eta eskubideak adjudikatuko dizkiete, hauen arabera: horiek Etxean zenbat denbora lan egin duten, Etxearen maila ekonomikoa, kideok beren ardurapean dituzten pertsonen

---

<sup>130</sup> Tarteki honetan idatzitakoak hitzez hitz jasotzen du 2019ko apirilaren 16ko NAOn argitaratutako testua. Aurreko legea ikusita (97. legea, lege-aldaketaren aurreko testuan), arrazoizkoa da ulertzea ezen paragrafo hau konkisten familia-sozietatea desegiteko laugarren arrazoiari buruzkoa dela.

<sup>131</sup> FBko 134. legea.

<sup>132</sup> FBko 87. eta hurrengo legeak.

<sup>133</sup> FBko 114. eta hurrengo legeak.

<sup>134</sup> 21/2019 FLko 7. xed. ir. (ikus §4.5).

## I. liburua.- Pertsonak eta familia

kopuruaren arabera, eta gainerako inguruabarrak. Pentsioa adjudikatzen bada, erabakiko da pentsio hori egonkortasun-klausularekin edo beste bermeren batekin segurtatu behar den ala ez.<sup>135</sup>

### 135. legea

#### *Egitatezko erkidegoak*

Pertsonen eta familien artean bizikidetzeta eta elkarlan egonkorak izan badira horiek arautzeko erregelarik ezarri gabe, hurrengoak aplikatuko dira:

1. Une oro, erkidego horren kideetatik edozeinek amaiera eman diezaioke erkidegoari, libreki.
2. Erkidegoan egindako lanaren ondorioz onura eta hobekuntzak lortu badira, eta erkidegoa desegiteko unean horiek bertan badiraute, erkidegoaren kideei adjudikatuko zaizkie horiek, tokiko usadioaren arabera; horretarako, kontuan izan beharko dira erkidegora ekarritako ondasunak edo lana, kide bakoitzak jadanik eskuraturiko onurak, desegite-arrazoiak eta gainerako inguruabarrak.
3. Aurreko erregelaren ondorioetarako, ez dira erkidegoaren kideztat hartuko gurasoekin bizi diren seme-alaba ezkongabeak.<sup>136</sup>

### 136. legea

#### *Mantenua ematea*

Bizikidetzeta izan zein ez, seme-alabek beren gurasoei mantenua eman badiete edo haien beharrian pertsonalak ase badituzte, haiek ezin izanen diete ezer erreklamatu gurasoei nahiz horien jaraunslerei.<sup>137</sup>

## IV. KAPITULUA

### **Etxe-harrera eta zuzkidurak<sup>138</sup>**

### 137. legea

#### *Etxe-harrera*

Ezkon-kapitulazioetan, testamentuan edo eskritura publikoaren bidez emandako bestelako xedapenetan, norbaiten mesederako ezartzen badira Etxean bizitzeko, mantenua eskuratzeko eta osasuntsu, gaixo edo horien antzeko egoeretan arreta jasotzeko eskubideak, Etxean lan egiteko betebeharraren menpe edo halakorik gabe, Etxearen ondarearen oinordekoak karga horiek bere gain hartu beharko ditu eskubideok emateko erabili den xedapenarekin, maila ekonomikoarekin eta tokiko usadioarekin bat. Ahaide Nagusien esku-hartzea eragotzi gabe, 147. legearekin bat, epaileak ebartziko ditu lege honetan aipatutako eskubideen interpretazioari, betetzeari edo ez-betetzeari buruz sortzen diren gorabehera guztiak, eskubideei buruzko balorazioak eginen ditu, eta

---

<sup>135</sup> FBko 117-119, 127, 147. legeak.

<sup>136</sup> NJANaren honako epai hauek: 17/2014, abenduaren 9koa; 1/2008, otsailaren 5koa.

<sup>137</sup> FBko 65. legea.

<sup>138</sup> 21/2019 FLko 7. xed. ir. (ikus §4.5).

## §1.- Nafarroako Foru Berria

eskubideok ziurta edo likida ditzake, horiek kapital edota pentsio batekin ordeztuz, eta, onuradunaren ez-betetzea izan bada, horien azkentzea deklaratu dezake.<sup>139</sup>

### 138. legea

#### *Zuzkidurak*

##### *a) Kontzeptua eta araubidea:*

Ezkon-kapitulazioetan, testamentuan edo eskritura publiko bidez egindako beste xedapen batzuetan, kopuru, ondasun edo eskubideak libreki esleitzen bazaizkio Etxearen jaraunsle, dohaintza-hartzaile edo legatu-hartzaile izendatuaz beste pertsona bati, esleipenok zuzkiduratzat hartuko dira, eta haien ezarpen-titulua arautuko ditu halakoak.

##### *b) Zenbatekoa*

Zuzkidurak ezartzen badira Etxearen jaraunsle, dohaintza-hartzaile edo legatu-hartzailearen kontura, horien zenbatekoa edo horiek finkatzeko modua zehaztu gabe, hori guztia honako hauek zehaztuko dute:

1. Izendatzaileek, edo horietatik bizirik dirauenak, betebeharpekoarekin ados etorrituz.
2. Halakorik izan ezean, betebeharpekoak eta zuzkiduraren onuradunak, tokiko usadioaren eta Etxearen maila ekonomikoaren arabera.
3. Aurreko kasuetako edozeinetan, eta adierazitako pertsonen artean adostasunik egon ezean, epaileak ezarri ahal izanen ditu zenbatekoa, epea eta entregatzeko modua, bai eta beharrezkotzat jotzen dituen bermeak ere, Ahaide Nagusien esku-hartzea eragotzi gabe, 147. legean xedatutakoarekin bat.

##### *c) Lehengoratzea*

Ezkontzarenatik eta bikote-elkarbizitzaren edo familiak denboran zehar irauteko beste edozein formaren hasieratik egindako zuzkidurei aplikatuko zaie 124. legeak familiarentzako dohaintzetarako ezartzen duen lehengoratze-eskubidea.

##### *d) Eskualdaezintasuna*

Zuzkidura-eskubidea ezin izanen da eskualdatu, horren onuradunak ez badu hori galdatu eta bera Etxean bizi izan bada hil arte. Kasu horretan, jaraunslea edo dohaintza-hartzailea behartuta egonen da hileta ordaintzera, tokiko usadioaren eta Etxearen maila ekonomikoaren arabera.<sup>140</sup>

## V. KAPITULUA

### Ahaide nagusiak

### 139. legea

#### *Deia eta esku-hartzea*

Ahaide Nagusien deia eta esku-hartzea testamentugileen, dohaintza-emaileen edo kapitulazio-egileen borondatezko xedapenaren bitartez ezartzen bada<sup>141</sup>, aplikatuko da horietan ezarritakoa, eta halakorik izan ezean eta integraziorako, kapitulu honetan xedatutakoa.<sup>142</sup>

<sup>139</sup> FBko 123.7, 127.II, 128. legeak; 34/2002 FL, abenduaren 10ekoa, Pertsona Zaharrak Familian Hartzeari buruzkoa. NJANaren 28/2000 epaia, azaroaren 28koa.

<sup>140</sup> FBko 128, 182, 280, 255, 269, 280, 281, 285, 302. legeak; KZko 1343. art.

<sup>141</sup> 2019ko apirilaren 16ko NAOren jatorrizko testua zuzendu dugu (“ezartzen bada”).

<sup>142</sup> FBko 83. eta hurrengo legeak, 120. eta hurrengoak, 158. eta hurrengoak, 172. eta hurrengoak.

#### **140. legea**

##### ***Zein ahaideri deitu***

Deia egiteko aurreikuspenik izan ezean, bi ahaiderik hurbilenei deitu zaiela ulertuko da, horiek adin nagusikoak izan eta Nafarroan bizi badira; ahaideok zehaztuko dira ondoko erregelekin bat etorriz:

1. Bat aitarengandiko lerrotik aukeratuko da eta bestea amarengandiko lerrotik; arazoa ahaide ezberdinak dituzten pertsonen artean sortzen bada, bat aukeratuko da alderdi bakoitzeko.
2. Edozein kasutan, lehentasuna izanen dute gradurik hurbileneko ahaideek; gradu berekoak direnean, lotura bikoitzeok lotura bakarrekoen gainetik; eta, egoera berean daudenean, ahaide zaharrenek, aurreko ahaideen artean izan ezik; kasu horretan gazteena lehenetsiko da.<sup>143</sup>

#### **141. legea**

##### ***Ordezkoa***

Inork ere ez baditu legezko baldintzak betetzen eta, horren ondorioz, ezin bada lerro edo alderdi bateko ahaiderik izendatu, honetara jardun beharko da:

1. Aitarengandiko edo amarengandiko lerroan ahaiderik ez badago, hutsune hori beste lerroko ahaidearekin beteko da, eta alderantziz.
2. Alderdi batek ahaiderik ez badu, hutsune hori betetzeko, interesdunak beste pertsona bat izendatuko du, ahaide izan zein ez.

#### **142. legea**

##### ***Ezaugarriak***

Ahaide Nagusiaren eginkizuna guztiz pertsonala da, eta eskuordetu daitekeena hartutako erabakiaren exekuzio edo formalizazio hutsa baino ez da.

Ahaide Nagusiek ezin diote uko egin beren eginkizunari, ezta beren esku-hartzeari ezezkoa eman ere, beren kudeaketa eragotzi edo modu larrian zailtzen duen kausarik izan gabe; ahaideok errekusatu ahal izanen dira, zuzeneko interes pertsonala edo ageriko areriotasuna dela eta.

Desenkusatzeko edo errekusatzeko arrazoiak baloratuko dituzte beste Ahaide Nagusiak eta ordezpenerako deia jaso duenak, eta, adostasunik ez badago, epaileak eginen du.

Ordezko izanen da lehentasun-hurrenkeran ordeztuaren hurrengo dagoen ahaidea.

#### **143. legea**

##### ***Erabakia***

Ahaide Nagusiek, horretarako errekerimendua egiten zaienetik, sei hileko epean eman beharko dute beren erabakia. Jaraunslea aukeratu behar bada seme-alaben artean edo dei orokorra jaso duten pertsonen artean, ahaideok ez dute izanen aukera egiteko betebeharririk, harik eta deia jaso duten pertsonetatik gazteena adin nagusikoa izan arte. Erabakia eskritura publikoan jaso beharko da.<sup>144</sup>

---

<sup>143</sup> FBko 147. legea.

<sup>144</sup> FBko 17, 285. legeak.

**144. legea**

***Hirugarren ahaidea***

Ahaide Nagusiak ez badira ados jartzen arazo zehatz bati buruz, ahaideok hirugarren ahaide baten esku-hartzea eskatuko dute; ahaideek berek izendatuko dute ahaide hori, beren arteko adostasunez edo judizialki; eta erabakia gehiengoz hartuko dute desadostasuna eragin duten bi irtenbideen artean.<sup>145</sup>

**145. legea**

***Beste ahaide bat lehenestearen ondoriozko erreklamazioa***

Lehenasuna duen ahaideren bat badagoela ahazteagatik edo hori ez jakiteagatik beste ahaide batek esku hartzen badu, erabakitakoa baliozkoa izanen da, salbu eta Ahaide Nagusiei berei erreklamazioa egiten zaienean hamabost eguneko epean, zenbatzen hasita eskritura publikoa egin izanaren nahiz erabakia jasotzen duen bestelako dokumentu bat egin izanaren berri izaten den datatik aurrera.

**146. legea**

***Aurkaratzea eta erantzukizuna***

Ahaide Nagusien erabakia auzitegietan aurkaratu ahal izateko arrazoi bakarrak izanen dira borondate-akatsa, iruzurra, ohitura- edo lege-urraketa, edo kausatzaileak xedatu duena desobeditzea.

Edozein kasutan, Ahaide Nagusiek erantzukizun pertsonala izanen dute kalte-galerak eragin badituzte beren eginkizunak doloz edo zabarkeriaz betetzeagatik.<sup>146</sup>

**147. legea**

***Borondatezko esku-hartzea***

Familiaren ondare arloko gaiak eta oinordetzakoak, xedatzeko modukoak direnak, Ahaide Nagusien esku utzi ahal izanen dira, haiak erabaki dezaten, hala adosten badute interesdun guztiek eta borondatez onartzen emandako ardura hori agiri publikoan.

Ahaide Nagusien esku-hartzea jarraitu egingen zaie emandako arduraren ezarritako arauari; eta, horien integraziorako, titulu honetako arauari ere, duten helburuaren arabera aplikatzekoa zaien orotan.

Ardura eman ahal izanen zaio 140. legean aipatzen diren Ahaide Nagusietako edozeini, lehenespenik gabe eta haien kopurua edozein izanik.<sup>147</sup>

---

<sup>145</sup> FBko 283. legea.

<sup>146</sup> FBko 7, 15, 19, 20. legeak.

<sup>147</sup> FBko 131, 134, 137, 138, 180, 281, 283, 285, 288. legeak.



## II. LIBURUA DOHAINZAK ETA OINORDEZAK<sup>148</sup>

### I. TITULUA FUNTSEZKO PRINTZIPIOAK

#### 148. legea

##### *Xedatzeko askatasuna*

Nafarrek askatasunez xeda ditzakete beren ondasunak, eta ez dute izanen liburu honetako X. tituluaren ezarritako murrizketak besterik.

Dohainekeo xedatzeak agin daitezke "inter vivos" nahiz "mortis causa" dohaintzaz, oinordetza-itunez, testamentuz eta Konpilazio honetan aitorturiko gainerako xedatze-egintzen bitartez. Halako xedatzerik ez dagoenean aplikatuko da legezko oinordetza, ez beste inoiz.

Dohainekeo xedapen oro egin daiteke huts-hutsean, moduarekin edo baldintza edo epemuga etengarri zein suntsiarazle bati lotuta. Egun zehaztugabea baldintzatzat joko da.<sup>149</sup>

#### 149. legea

##### *Dohaintza-hartzaile unibertsala*

Dohaintza-emailearen orainaldiko eta etorkizuneko ondasunak barne hartzen dituzten "inter vivos" nahiz "mortis causa" dohaintzek jaraunse izaera ematen diote dohaintza-hartzaileari.<sup>150</sup>

#### 150. legea

##### *Oinordetza-fiduzia*

Kausatzaileak fiduziario-komisarioei edo konfiantzazko jaraunselei eskuorde diezaietke jaraunse libreaki nahiz isilpeko jarraibideen arabera xedatu edo ordenatzeko ahalmena, liburu honetako XI. eta XII. tituluaren ezarritakoarekin bat.

##### *Post mortem ahalordea*

Kausatzaileak bera hil ondorenerako emaniko ahalordea baliaduna izanen da hildakoak bere borondatea betetze aldera lehenespenez izendatu zuen pertsonak ahalorde hori errebotatzen ez duen artean, eta betiere, ezertan eragotzi gabe ahalordedunaren ardurapean utzitako kudeatze-lana oso-osorik betetzea.

---

<sup>148</sup> 21/2019 FLko 9. xed. ir. (ikus §4.5); ikus., halaber, FBko 1. xed. ir.; 5/1987 FLko 1. eta 2. xed. ir. (§4. 3).

<sup>149</sup> FBko 7, 8, 11-13, 14, 253-280, 300. legeak; KZko 9.1 eta 8, 10.7, 14.1, 16. art. NJANaren honako epai hauek: 7/2022, ekainaren 22koa; 11/2014, irailaren 9koa; 2/2013, urtarrilaren 15koa; 1994ko martxoaren 3koa.

<sup>150</sup> FBko 123,1, 160. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Ahalorde hori errebokaturik gertatuko da geroko beste baten bidez, zeina bateraezina baita, eta halaber errebokatutzat joko da, presuntzioz, geroko testamentu baliodunaren bidez, baldin bertan ez bada berretsita agertzen.<sup>151</sup>

### **151. legea**

#### ***Xedatzea, beharrezana dagoenean***

Edozein eskuzabaltasun-egintzaren bitartez inori xedatze-ahalmena ematen bazaio beharrian-egoera baterako, honako hauek ulertuko dira, bestelakorik suertatu ezean:

1. Pertsona horren erabakimen askearen mende egonen dela beharrianik ote dagoen baloratzea.
2. Xedatze-ahalmena ematen baldin bada pertsona fisiko jakin baten edo batzuen baimena izanez gero bakarrik, mugapen hori efekturik gabe geratuko dela halako pertsonak hil egin badira, beren zereginari uko egin badiote edo gaitasun juridikoa egikaritzeko ordezkaritzako kuradorezta ezarri badiete baimen-ahalmen horri eraginez, salbu eta adostasuna ematea dagokien pertsonak betetzen duten karguaren edo eginkizunaren arabera izendatu badira.

### **152. legea**

#### ***Eskuratzeko gaitasuna***

Pertsona orok eskura dezake dohainik, "inter vivos" nahiz "mortis causa", horretarako debekua duten pertsona hauek izan ezik:

1. Egintzaren formalizazioan esku hartu duten pertsonak.
2. Tutoreak edo kuradoreak, tutoretza edo kuradoretzapean dituzten pertsonen dagokienez, beren karguak azkendu edo kontuak behin betiko onetsiak izan aurretik, salbu eta xedatzailearen ondorengo ahaide, ezkontide, bikotekide, aurreko ahaide edo anai-arreba badira.<sup>152</sup>

### **153. legea**

#### ***Eskuratzeko baldintzak kasu berezietan***

Kontratu harreman baten bidez xedatzaileari laguntza- edo egoitza- zerbitzuak edo parekoak eman dizkioten pertsona fisiko edo juridikoen eta haien menpekoen, xedatzailearengandik dohainik eskura dezakete, "inter vivos" nahiz "mortis causa", soilik, baldin eta xedatzea notarioaren fede publikoan egindako agiri batean agintzen bada.

Ez da horrelako baldintzarik bete beharko baldin eta gizarte-usadioen arabera balio apalekoak diren kopuruena edo objektuena bada eskurapena.<sup>153</sup>

### **154. legea**

#### ***Ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasuna***

Honako hauek ezduin dira eskuratzeko:

---

<sup>151</sup> FBko 281-295, 559.I legeak.

<sup>152</sup> FBko 153, 215. legeak; KZko 251, 252, 292, 744, 745, 754. art.; Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaz baliatzen laguntze aldera legeria zibila eta prozesala aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Lko 2. xed. ir.

<sup>153</sup> FBko 215. legea; KZko 251. art.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

1. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, atentatu egiteagatik xedatzailearen edo kausatzailearen, haren ezkontidearen edo harekin bikote egonkorrean bizi den pertsonaren edo haren ondorengo ahaideen, aurreko ahaideen edo anai-arreben biziaren kontra, edo horietakoren bati lesio larriak eragiteagatik.
2. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, familiaren esparruan indarkeria fisikoa edo psikikoa erabili ohi izateagatik xedatzailearen edo kausatzailearen kontra edo aurreko zenbakiak aipatzen dituen pertsonetako baten kontra.
3. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, askatasunaren, integritate moralaren eta sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik, baldin horien pairatzaile suertaturikoa xedatzailea edo kausatzailea edo lehen aipaturiko pertsonetako bat bada.
4. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena familia-harremanen kontrako delitua egiteagatik, delituak kaltetu duen pertsonaren edo haren legezko ordezkariaren eskuratzeari dagokionez.
5. Salaketa faltsuagatik edo lekukotza faltsuagatik kondenatua izan dena, akusazioa edo deklarazioa egin izateagatik legearen arabera zigor astuna duen delitu batengatik prozesu judizialean xedatzaile edo kausatzailearen aurrean.
6. Kausatzailearen heriotza bortxazkoaren berri izanik hilabeteko epean justiziari horren salaketarik egin ez diona, justiziak ofizioz jada jardun ez duenean, salbu eta, legearen arabera, akusatzeko betebeharrak ez badu, ezen kasu horretan debeku hau bertan behera geratuko da.
7. Ebazpen judizial irmoaren bidez gabetu dena guraso-erantzukizunaz, edo kausatzaile adingabearen tutoretza, familia-harrera edo zaintza kendua duena, hari egotz dakioken kausagatik.  
Ebazpen judizial irmoaren bidez kuradoretza kendua duena edo gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak ezarriak dituen kausatzaileari laguntza ematea azkendua duena, hari egotz dakioken kausagatik.
8. Desgaitasuna duen pertsona bati juridikoki zor zaion arreta eman ez diona, haren ondasunen edo eskubideen eskuratzeari dagokion afera batean.
9. Mehatxuz, iruzurrez edo indarkeriaz norbait behartzen duena xedatze-egintza bat egitera, edo hori egitea eragozten diona, edo egindakoa errebotkatzea, bai eta egitate horien berri izanik horietaz baliatzen dena ere.
10. Egilearen xedatze-egintza suntsitu, faltsutu, ezkutatu edo eraldatzen duena.  
Ezduintasun-arrazoiak indarrrik gabe gelditzen dira egileak haien berri baldin bazeukan xedatzea egitean edo, haien berri geroago izanda, agiri publikoan barkatzen baditu edo dudarik eragiten ez duten egintzen bidez adiskidetzen bada ezduinarekin.  
Ezduintasuna dagoela iritzeko, delazio-uneari begiratuko zaio, salbu eta kausa kontuan hartzeko beharrezkoa denean ebazpen judizial irmoa edo epea bukatuak egotea.<sup>154</sup>

### 155. legea

#### *"Nasciturus" eta "concepturus" direlakoan aldeko xedatzeak*

Dohaineko xedatzeak, "inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bitartezkoak, egin daitezke kontzebutuaren alde eta, are, dohaintza-unean edo testamentugilearen

---

<sup>154</sup> FBko 215, 270. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

heriotzaren unean bizirik dagoen pertsona zehaztu batek oraindik kontzebitu gabe dituen seme-alaben alde.

"Inter vivos" egintzen bidezko xedatzeetan, eta dohaintza-emaileak ezarritakoa salbu, dohaintzan emandako ondasunen administrazioa dohaintza-emaileari edo haren jaraunseleei dagokie. Dohaintza-hartzailea jaio baino lehenagoko fruituak horri erreserbatzen zaizkio, dohaintza jadanik kontzebituarentzat egin bada; kontzebitugabearentzat egin bada, fruituak dohaintza-emailearentzat edo haren jaraunseleentzat erreserbatzen dira, dohaintza-hartzailea jaio arte. Dohaintza-emailearen jaraunselek fruituak administratu edo jasotzen badituzte, behartuak izan daitezke behar adinako bermea eratzera.

Xedatze hauen onarpena eta seme-alaben interesen eta aukeren defentsa, eskuzabaltasunaren xede diren ondasunei begira, etorkizuneko gurasoei dagokie.<sup>155</sup>

### 156. legea

#### *Etorkizuneko jaraunsiari uko egitea*

Forma. Baliozkoa da etorkizuneko jaraunsiari uko egitea edo horren gainean transakzioa egitea, eskritura publikoan eginez gero.<sup>156</sup>

### 157. legea

#### *Uko egitearen efektuak*

Uko-egilea legeren arabera oinordetzatik kanpo geratuko da; hala ere, onar ditzake berarentzat kausatzaileak agindu dituen xedapenak.<sup>157</sup>

## II. TITULUA "INTER VIVOS" DOHANTZAK

### 158. legea

#### *Kontzeptua*

"Inter vivos" dohaintzak dira dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartu gabe egindakoak.

#### *Dohaintzak egitea, hirugarren baten heriotzari lotuta*

Dohaintzak hirugarren baten heriotzari lotzen bazaizkio, baldintzapeko "inter vivos" dohaintzatat joko dira.<sup>158</sup>

### 159. legea

#### *Dohaintza-emailearentzako erreserba*

Dohaintza-emaileak ez badu behar besteko jabetzarik edo eskubiderik berarentzat erreserbatu bere egoera eta inguruabarren arabera dituen beharrianak asetzeko, urripen-akzioa egikaritu ahal izanen du dohaintza-hartzailearen edo haren jaraunselearen aurka. Akzio hori guztiz pertsonala da, eta eskualdaezina.<sup>159</sup>

<sup>155</sup> FBko 65, 66, 123.8, 161.c), 224. legeak; KZko 627. art.

<sup>156</sup> FBko 9, 17, 172, 270, 301, 316. legeak.

<sup>157</sup> FBko 301, 316. legeak.

<sup>158</sup> FBko 148.III legea; KZko 618. art. NJANaren 1993ko uztailaren 15eko epaia.

<sup>159</sup> KZko 634, 639. art.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### 160. legea

#### *Dohaintza unibertsalak*

Dohaintza unibertsalak baliozkoak izanen dira kasu hauetan bakarrik: 120. legearen 4. apartatuan eta 128. legean ezarritakoarekin bat ondare edo enpresa familiarraren eta Etxearen batasunari eta jarraitutasunari begira egiten direnean, jaraunslea izendatzeko eskriturretan egiten direnean, edo familia-erkidegoko itunak edo dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzaileen arteko laguntzarako itunak ezartzen direnean.

Dohaintzoi 121., 123. eta 128. legeetan xedaturikoa aplikatuko zaie, eta 122. legean araturikoa moduan egin beharko dira.<sup>160</sup>

### 161. legea

#### *Burutzea*

##### *a) Ondasun higiezinaren gaineko dohaintzak*

Ondasun higiezinaren gaineko dohaintzak deusezak dira, eskritura publikoan egiten ez badira. Halako dohaintzak errebokaezinak izanen dira dohaintza-hartzailearen onarpena eskritura berean adierazten denean, edo dohaintza-emaileari onarpen hori eskritura bereizian jakinarazten zaion unetik aurrera.

##### *b) Ondasun higigarrien gainekoak*

Ondasun higigarrien gaineko dohaintzak errebokagarriak izanen dira dohaintza-emaileak ondasunen entrega egin ez duen bitartean, edo dohaintza-hartzailearen idatzizko onarpena jakinarazi ez zaion bitartean.

##### *c) Etorbizuneko pertsonen mesedetan egindakoak*

Ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko dohaintzak etorkizuneko pertsonen mesedetan egiten badira, errebokaezinak izanen dira onarpenaren beharrik izan gabe, bestelakorik ezarri denean salbu.<sup>161</sup>

### 162. legea

#### *Errebokatzeko-kausa orokorrak*

"Inter vivos" dohaintzak behin burututa daudela, errebokatu ahal izanen dira dohaintza-emaileak esanbidez ezarritako kausen ondorioz, edo dohaintza-hartzaileari ezarritako kargak ez betetzeagatik. Dohaintza-emailea hiltzen denean dohaintza-hartzaileak karga horiek bete gabe baditu, ulertuko da horiek barkatu direla, dohaintza-emailearen mesederako ezarrita badaude; hirugarrenen mesederako ezarriak badira, legatutzat joko dira.<sup>162</sup>

### 163. legea

#### *Eskergabekeriagatik errebokatzeko*

Dohaintzak eskergabekeriagatik ere errebokatu ahal izanen dira, kasu hauetan:

1. Dohaintza-hartzaileak edozein delitu edo kalterik egiten badu, edo sozialki gaitzesgarria den jokabidea bat bere borondatez gauzatzen badu dohaintza-emailearen

---

<sup>160</sup> FBko 149. legea.

<sup>161</sup> FBko 17, 122, 155. legeak; KZko 623, 629, 632, 633. art. NJANaren honako epai hauek: 9/2016, irailaren 1ekoa; 2/1999, otsailaren 27koa; 19/1997, azaroaren 28koa; 12/1992, urriaren 13koa.

<sup>162</sup> FBko 82, 123.7, 126, 128, 161.c), 163. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

edo haren ondasunen kontra edo haren familia-talde edo -erkidegoko kideen edo haien ondasunen kontra.

2. Dohaintza-hartzaileak bidegabeki ukatzen badio mantenua dohaintza-emaileari, are mantenua emateko betebeharra duten beste pertsona batzuk badaudenean edo hark bere bizibiderako prestazio publikoak jasotzeko aukera baduenean.

### ***Akzioaren iraungitzea***

Errebokatzeko akzioa urtebeteko epean iraungitzen da, dohaintza-emaileak baduenetik akzioari oinarri ematen dion egitatearen berri, edo horren berri izateko modua taxuzko ustez baduenetik aurrera.<sup>163</sup>

## **164. legea**

### ***Dohaintza fiduziariora***

Dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ezarritako karga modu jarraituan nahiz aldizka bete beharrekoa bada, dohaintza fiduziarioraren exekuzioa bermatu ahal izanen du konfiantzazko dohaintza-hartzaileak ondoz ondo izendatuz. Dohaintza horiei 293. legean xedaturikoa aplikatuko zaie.<sup>164</sup>

## **III. TITULUA "MORTIS CAUSA" DOHAINTZAK**

## **165. legea**

### ***Kontzeptua***

"Mortis causa" dohaintzak dira dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartuta egindakoak.

Presuntziorik joko da dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartuz eginikoa dela dohaintza, baldin eta dohaintzan emandako ondasunen eskurapena haren heriotzara arte geroratu bada.<sup>165</sup>

## **166. legea**

### ***Gaitasuna***

"Mortis causa" dohaintza egiteko, nahikoa da dohaintza-emaileak testamentua egiteko gaitasuna izatea, salbu eta dohaintzaren errebokaezintasuna ituntzen denean edo dohaintza nola eta ondasunak emanez egiten denean; kasu horietan "inter vivos" xedatzeko gaitasuna ere izan beharko du.<sup>166</sup>

## **167. legea**

### ***Forma***

"Mortis causa" dohaintzak eskritura publikoan egin behar dira. Lekukoak egotea 185. legean aurreikusitako kasuetan soilik izanen da beharrezkoa.<sup>167</sup>

---

<sup>163</sup> FBko 39-41. legeak; KZko 648. art.

<sup>164</sup> FBko 38. legea.

<sup>165</sup> FBko 158. legea. NJANaren epai hauek: 21/2001, urriaren 26koa; 1993ko uztailaren 15koa.

<sup>166</sup> FBko 184. legea.

<sup>167</sup> FBko 17, 206. legeak.

**168. legea**

***Onarpena***

"Mortis causa" dohaintzak eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa da dohaintza-hartzailearen edo horren legezko ordezkarien onarpena. Onarpena egin daiteke, esanbidez zein isilbidez, bai dohaintza-emailearen bizialdian zehar bai hori hil ondotik.<sup>168</sup>

**169. legea**

***Errebokatzea***

Dohaintza-emaileak edonoiz eta libreki erreboka dezake dohaintza, salbu eta kontrako ituna dagoenean edo errebokatzeko ahalmenari uko egin zaionean.

Halako dohaintzak errebokatzeko bete beharko diren formalitateak dohaintza horiek egiteko beharrezkoak diren berberak izanen dira. Baldin eta dohaintzaren onarpena dohaintza-emaileari jakinarazi bazaio edo horrek ondasunak entregatu egin baditu, errebokatzeak ez du efekturik sortuko dohaintza-hartzaileari jakinarazten ez zaion bitartean.<sup>169</sup>

**170. legea**

***Gerora gertatutako eragingabetasuna eta ezerezean gertatzearen ondoriozkoa***

Bestelakorik xedatu ezean, "mortis causa" dohaintzak inolako formalitatearen beharrik gabe bilakatuko dira eragingabe, baldin eta dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen bizialdian hiltzen bada, haren ondorengo ahaideen ordezkartza-eskubidea salbu.

Berebat, formalitate gehiagoren beharrik gabe izanen da eragingabe dohaintza baldin eta, dohaintza hori nabarmenki baldintzatua izanik dohaintza-emaileak okasio jakin baterako aurreikusitako bere heriotzari, heriotza hori ez bada aurreikusitako unean gertatzen.<sup>170</sup>

**171. legea**

***Edukitza hartzea***

"Mortis causa" dohaintzaren bidez emandako ondasunak ez dira jaraunsiaren osagai, eta dohaintza-hartzaileak zilegi izanen du horien edukitza hartzea dohaintza-emailearen jaraunse edo albazeen esku-hartzerik gabe.<sup>171</sup>

---

<sup>168</sup> FBko 47, 65, 122, 155, 320. legeak.

<sup>169</sup> FBko 126, 167, 168, 214. legeak.

<sup>170</sup> FBko 214, 308-311. legeak.

<sup>171</sup> FBko 149, 243, 255. legeak.

**IV. TITULUA**  
**OINORDETZA ITUN EDO KONTRATUAK**

**I. KAPITULUA**  
**Xedapen orokorrak**

**172. legea**

***Kontzeptua***

Oinordetza-itunaren bidez, jarauntsi baten edo horren parte baten gainean, eta oinordetzaren kausatzailea bizirik delarik, “mortis causa” oinordetza-eskubideak ezar, alda edo azkendu daitezke, edo horiei uko egin dakieke. Baldin egintza horiek badakarte aipatu eskubideak hirugarren bati lagatzea, beharrezkoa izanen da kausatzailearen baimena.<sup>172</sup>

**173. legea**

***Gaitasuna***

Edozein oinordetza-itunen egileek adin nagusiko izan behar dute. Ezkon-kapitulazioetan jasotakoei dagokienez, ordea, 83. legean ezarritakoari helduko zaio.

***Guztiz pertsonala izatea Eskuordetzea***

Oinordetza-ituna egitea egintza guztiz pertsonala da. Hala ere, zilegi da haren formalizazioa beste pertsona bati eskuordetzea, baldin eta kasuko ahalordean borondatearen funtsezko edukia jasota agertzen bada.

**174. legea**

***Forma***

Deusezak dira ezkon-kapitulazioen bidez edo beste eskritura publiko baten bidez egin ez diren oinordetza-itunak.<sup>173</sup>

**175. legea**

***Ezkon-kapitulazioetan jasotako itunak***

Ezkon-kapitulazioetan jasotako oinordetza-itunak I. liburuko X. tituluko legeetan eta, horiez gain, titulu honetan arautzen dira.<sup>174</sup>

**176. legea**

***Interpretazioa eta integrazioa***

Oinordetza-itunak tokiko ohiturari jarraituz interpretatu eta integratuko dira, eta, ordezko moduan, Konpilazio honetan azken nahiaren beste egintza batzuei buruz jasotzen diren xedapenei jarraituz.<sup>175</sup>

---

<sup>172</sup> FBko 148.II, 156, 177, 181, 182, 210-211, 300, 301. legeak; HLko 14. art.; HEko 77. art.

<sup>173</sup> FBko 17.III, 84-85. legeak.

<sup>174</sup> FBko 85, 86, 120-126. legeak.

<sup>175</sup> FBko 127.II legea. NJANaren 4/2021 epaia, azaroaren 3koa.



## II. KAPITULUA

### Xedapen bereziak, jaraunslea izendatzeko itunei buruzkoak

#### 177. legea

##### *Edukia eta motak*

Oinordetza-itunek edozein motatako "mortis causa" xedapenak jaso ditzakete kontratugileen, horietako baten edo hirugarren baten mesedetan, titulu unibertsalaren nahiz banakako tituluaren bidezkoak, eta itun-egileek ezarritako ordezen, modalitate, erreserba, lehengoratzeko-klausula, zama eta betebeharrekin.

Jaraunsle-izendapena egin ahal izanen da jarauntsira deitutako pertsonak itunean bertan zehaztuz, edo jarauntsia etorkizunean gauzatzeko jarraitu beharreko erregelak ezarri, edota pertsona bati zein gehiagori eskuordetuz oinordetza ordenatzeko ahalmena.

Halaber, jaraunslea izendatzeko itunen edukian oinordetzarako dei hutsak jaso daitezke, edo, horrez gain, ondasun guztien edo batzuen orainaldiko eskualdaketa xeda daiteke.<sup>176</sup>

#### 178. legea

##### *Errebokaezintasuna*

Bi pertsonak edo gehiagok elkarren nahiz hirugarren baten mesederako itundutako jaraunsle-izendapenak errebokaezinak dira. Kontratuzko jaraunsle-izendapena aldebakartasunez egina denean, 122. legeak onarpenerako xedatzen duena aplikatuko zaio.<sup>177</sup>

#### 179. legea

##### *Efektuak*

Ondasun-eskualdaketarik gabeko oinordetza-itunek kontratuzko jaraunslearen izaera baino ez dute ematen; izaera hori besterenduezina eta enbargaezina izanen da. Izendatzaileak bere heriotzara arte eutsiko dio ondasunen jabetzari; baina ezin izanen ditu horiek dohainik xedatu izendatuaren baimenik gabe.

Oinordetza-itunek ondasunen orainaldiko eskualdaketa barne hartzen badute, izendatzaileak bere buruarentzat erreserba dezake edozein tituluren bidez edo bakarrik kostu bidez xedatzeko ahalmena. Erreserbatu ez diren xedatze-egintzak deusezak izanen dira izendatuaren esanbidezko baimenik ezean. Izendatuak eta beraren kausadunek beste inork ezin ditu baliatu deuseztasun-akzioak, are izendatzailearen bizialdian ere.<sup>178</sup>

#### 180. legea

##### *Etxearen batasunari eusteko eskualdatze-eskubidea*

Oinordetza-itunak helburu duenean Etxearen batasunari eustea, itunean izendatutakoa lehenago hiltzen bada izendatzailea baino, ondorengoak bazituelarik, ondorengoi eskualdatuko die bere eskubidea, salbu eta itunean bertan ezarritakoa. Ondorengoak bat baino gehiago badira, eta jaraunslea izendatzearekin batera ez bada orainaldiko ondasun-eskualdatzerik egin, orduan, izendatuaren eskubideetan nor subrogatuko den hautatzea izendatzaileei dagokie, edo horietatik bizirik daudenei, eta, halakorik izan ezean, Ahaide

<sup>176</sup> FBko 148, 215, 268. legeak; HEko 77. art. NJANaren 9/2011 epaia, maiatzaren 19koa.

<sup>177</sup> FBko 182, 320. legeak. NJANaren 4/2006 epaia, apirilaren 4koa.

<sup>178</sup> FBko 123, 148, 183. legeak; HEko 77. art. NJANaren 9/2011 epaia, maiatzaren 19koa; 3/2009 epaia, urtarrilaren 29koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Nagusiei. Baina izendapena egitearekin batera orainaldiko ondasun-eskualdatzea egin bada, izendatuak berak egin ahal izanen du halako hautaketa; eta izendatua hori egin gabe hiltzen bada, ahalmen hori izendatzaileena izanen da eta, halakorik ezean, Ahaide Nagusia.

Edozein kasutan ere, jaraunsle izendatuak ondorengo bat bakarrik badu, hori izanen da oinordeko, eta horrek zilegi izanen du izendatzaileei edo, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei galdatzea jaraunslea bera dela deklaratu dezaten. Ondorengo ahaide bakarra izatea notarioak emandako nabaritasun-aktaren bitartez frogatuko da.<sup>179</sup>

### **181. legea**

#### ***Ordezpen-klausulak***

Oinordetza-itunetan ezarritako ordezpen-klausulei dagokienez, liburu honetako VIII. tituluaren ezarritakoa beteko da.

### **182. legea**

#### ***Errebokatzea eta aldatzea***

Oinordetza-itunak ezin izanen dira errebokatu ez eta aldatu ere, baldin eta itun-egile guztiek ez badute horretarako baimenik ematen, "inter vivos" nahiz "mortis causa" egintza bidez deklaraturik.

Oinordetza-itunetan jasotako xedapenak errebokaturik geratuko dira izendatua aurrez hiltzen bada; salbuespen da eskualdatze-eskubidea, bidezkoa denean, 180. legeak xedatutakoaren arabera.

Xedapen horiek 126. legean familiarentzako dohaintzetarako ezarritako kausengatik errebokatu ahal izanen dira; eta, akzio hori egikaritzeko, izendatzaileak lege horretan xedatzen denari jarraikiko zaizkio.

Kapitulazioetan ezarri badira, 86. legean ezarritakoari heldu beharko zaio.<sup>180</sup>

### **183. legea**

#### ***Jaraunslea izendatzeko hitzematea***

Jaraunsle-izendapentzat hartuko da oinordetza-itunean hori izendatzeko egin den hitzematea, eta sortuko dituen efektuak izanen dira 179. eta 180. legeek orainaldiko ondasun-eskualdaketarik gabeko oinordetza-itunetarako ezarritako berberak.

## **V. TITULUA TESTAMENTUA ETA HORREN FORMAK<sup>181</sup>**

### **I. KAPITULUA Xedapen orokorrak**

### **184. legea**

#### ***Testamentua egiteko ezgaitasuna***

Honako hauek testamentua egiteko ezgaituta daude:

---

<sup>179</sup> FBko 127.II, 139-146, 182-183, 317. legeak.

<sup>180</sup> FBko 211. legea. NJANaren 4/2006 epaia, apirilaren 4koa.

<sup>181</sup> 21/2019 FLko 8. xed. ir. (ikus §4.5).

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

1. Hamalau urte baino gutxiagoko pertsonak.
2. Testamentua sinatzean ulertze-gaitasun eta borondatea adierazteko gaitasun egitatezkorrik ez duten pertsonak, ezta horretarako bitartekoak edo laguntzak edukita ere.<sup>182</sup>

### **185. legea**

#### ***Lekukoen esku-hartzea eta kopurua***

Lekukoen esku-hartzea beharrezkoa izanen da kasu hauetan:

1. Notario-testamentu irekian, bi lekuko, kasu hauetan:
  - a) Testamentugileak edo notarioak eskatzen duenean.
  - b) Testamentugileak deklaritzen duenean testamentua sinatzen ez dakiela edo halakorik ezin duela.
  - c) Testamentugileak deklaritzen duenean testamentua irakurtzen ez dakiela edo ezin duela berak irakurri. Kasu horretan, testamentua lekukoek irakurriko dute, notarioaren aurrean, eta deklaratu beharko dute bat datorrela adierazitako borondatearekin.
2. Testamentugilea hiltzeko arriskuan dagoenean eginiko testamentu irekietan, hiru lekuko.
3. Testamentu itxia egiten denean, bi lekuko, testamentugileak edo notarioak eskatzen duenean edo testamentugileak deklaritzen duenean sinatzen ez dakiela edo halakorik ezin duela.<sup>183</sup>

### **186. legea**

#### ***Lekukoen egokitasuna***

##### ***a) Orokorra***

Testamentua egiten den unean honako ezaugarri hauek dituzten pertsonak ezin izanen dira lekuko izan:

1. Adingabe direnak, salbu eta epidemia-aldian eginiko testamentua denean, halakoetan gaitasuna izanen baitute 16 urte baino gehiagoko pertsonak.
2. Testamentugilearen hizkuntza ulertzen ez dutenak.
3. Lekukotasun-zeregina betetzeko behar den ulermena ez dutenak.
4. Kasuan fede ematen duen notarioaren ezkontide, bikotekide egonkor, laugarren gradurainoko odol-ahaide edo bigarren gradurainoko ezkon-ahaide direnak.

##### ***b) Testamentuen araberakoa***

Honako hauek ere ezin izanen dira lekuko izan:

1. Testamentu irekian, bertan izendatutako jaraunsleak eta legatu-hartzaileak, ez eta haien ezkontideak, bikotekide egonkorak, laugarren gradurainoko odol-ahaideak eta bigarren gradurainoko ezkon-ahaideak ere, salbu eta legatua garrantzi gutxiko ondasun higigarri edo zenbateko baten gainekoa denean, jarauntsiko ondasunen norainokoarekin alderatuta.
2. Notarioaren aurrean egin gabeko testamentuetan, testamentugilea ezagutzen ez duten pertsonak.<sup>184</sup>

---

<sup>182</sup> FBko 19, 47. legeak; KZko 662-666. art. NJANaren 12/2000 epaia, maiatzaren 8koa.

<sup>183</sup> FBko 167. legea; KZko 697, 700, 701, 707. art.

<sup>184</sup> KZko 681-683, 697. art. NJANaren 4/2014 epaia, apirilaren 10ekoa.

**187. legea**

***Lekukoentzako baldintza berariazkoak***

Aurreko legean ezarritako egokitasun baldintzez gain, honako hauek ere bete beharko dira:

1. Notarioaren aurrean egindako testamentuetan, lekuko bat, gutxienez, irakurri eta idazteko gauza izan behar da. Lekuko izan daitezke notarioaren enplegatu edo mendekoak ere.
2. Lekukoan ez beste inoren aurrean egindako testamentuetan, gutxienez horietatik bi izan behar dira irakurri eta idazteko gai.
3. Notario aurrean egindakoak ez diren testamentuetan, lekukoek testamentugilearen gaitasuna baloratu behar dute.<sup>185</sup>

**II. KAPITULUA**  
**Testamentuaren formak**

**188. legea**

***Notarioaren aurrean eginiko testamentua***

Notarioaren aurrean eginiko testamentuetan, Kode Zibilaren xedapenak izanen dira aplikatzekoak, aurreko legeetan aurreikusita ez dagoen orotan.<sup>186</sup>

**189. legea**

***Lekukoan aurrean eginiko testamentua***

Testamentugilea hur-hurreko heriotza-arriskuan badago eta ezin bada lortu notarioa bertaratzea, zilegi izanen du testamentua egitea hiru lekuko bertan daudela.

Testamentua baliozkoa izateko, honako erregela hauek bete beharko dira:

1. Idatziz jaso beharko da, eta, egintza berean edo testamentugileak bere azken nahia xedatze-hitzen bidez deklaratu eta jarraian, adierazi beharko dira eguna, hilabetea eta urtea.
2. Testamentuan sinatuko dute testamentugileak eta egintza horretan esku hartu duten pertsonak. Horietatik edonork ez badaki sinatzen edo ezin badu sinatu, agirian bertan jasoko da inguruabar hori.
3. Lekukoek gorde beharko dute agiria edo notarioari eskatu agiria zaintzeko.
4. Testamentuak eragina galduko du testamentugilea heriotza-arriskutik onik atera eta bi hilabete igaro ondoren.
5. Urtebete eta egun bateko epean, testamentugilearen heriotza-datatik zenbatuta, testamentua esku artean duenak hori aurkeztu beharko dio notario eskudunari, benetakotu eta protokoloan jasotzeko; hori egin gabe, testamentua eraginik gabe geratuko da. Testamentuan interesa duela uste duen edonork galda dezake aurkezpen hori egitea.<sup>187</sup>

---

<sup>185</sup> FBko 188, 189. legeak; KZko 685, 696, 707. art.

<sup>186</sup> KZko 679, 680, 694-699, 707, 714. art.

<sup>187</sup> FBko 199. legea; KZko 700-703. art.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### 190. legea

#### *Testamentu olografoaren kontzeptua*

Olografo esaten zaio adinez nagusia edo adingabe emantzipatua den testamentugileak osorik bere eskuz idatzi eta sinatzen duen testamentuari, zeinean adierazita utziko baitu zein datatan egiten duen testamentua.<sup>188</sup>

### 191. legea

#### *Testamentu olografoaren baldintzak*

Konpilazio honen 199. eta 208. legeetan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, testamentu hori baliozkoa izateko, honako erregelak hauek bete beharko dira:

1. Testamentugileak bere sinaduraren bidez bermatu beharko ditu testuko zuzenketa, hitz-marratze edo lerroarteko eransketa guztiak.
2. Benetakotu eta protokoloan jaso beharko da. Testamentua esku artean duen pertsonak notarioari aurkeztuko dio hamar eguneko epean, testamentugilea hil izanaren berri izaten duen egunetik aurrera zenbatuta. Testamentuan interesa duen edonork ere egin ahal izanen du aurkezpen hori. Epe barruan aurkeztu edo benetakotzen ez bada ere, testamentua eraginkorra izanen da, ezertan eragotzi gabe bere betebeharra bete ez duen pertsonaren erantzukizuna.
3. Protokoloan jaso ezean, testamentugilea hil ondoko bost urteko epean iraungiko da testamentua. Epe horretan demanda bat aurkezten bada, benetakotzea edo horren ezespena aurkaratzen duena, hura protokoloan jaso beharko da, sei hilabeteko epean, epaia irmoa denetik aurrera zenbatuta.<sup>189</sup>

### 192. legea

#### *Euskaraz egindako testamentua*

Nafarrek zilegi izanen dute testamentua euskaraz egitea. Testamentua notarioaren aurrean egiten bada eta horrek ez badaki euskaraz, beharrezkoa izanen da testamentugileak aukeraturiko bi interpreteren esku-hartzea, horiek testamentugilearen xedapena gaztelaniara itzul dezaten; testamentua bi hizkuntzotan idatziko da, Notariotzaren Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorritz.<sup>190</sup>

### 193. legea

#### *Beste testamentu batzuk*

Konpilazio honetan bildutako espezialitateak ezertan eragotzi gabe, Nafarroan aplikatu eginen dira honako testamentu hauei buruz Kode Zibilean dauden xedapenak: epidemia-aldian egindako testamentua, testamentu militarrek eta itsas testamentuak, eta atzerrian egindako testamentua.<sup>191</sup>

---

<sup>188</sup> FBko 199. legea.

<sup>189</sup> FBko 213, 297.b)5 legeak; KZko 688-693. art.

<sup>190</sup> LORAFNaren 9. art.; ikus. 18/1986 FL, abenduaren 15ekoa, Euskarari buruzkoa; KZko 684. art.

<sup>191</sup> KZko 701-703, 716-721, 722-731, 732-736. art.

### **III. KAPITULUA** **Kodiziloa**

#### **194. legea**

##### ***Kontzeptua***

Kodizilo dira azken nahiaren egintzak, baldin eta testamentuari, testamentua bera errebokatu gabe, zerbait gehitzen badiote edo horren xedapenak aldatzen badituzte.

##### ***Forma***

Kodiziloak eginen dira testamentuetarako arauturiko formatetik edozein erabiliz eta horietarako ezarritako betekizunekin.<sup>192</sup>

#### **195. legea**

##### ***Edukia***

Kodiziloaren edukia izan daiteke azken nahiaren edozein xedapen, salbu eta jaraunseizendapena, jaraunsi-ordezpenak, haren eta horien aldaketak, jaraungabetzeak eta foru-senipartearen gaineko izendapena.<sup>193</sup>

### **IV. KAPITULUA** **Testamentuko memoriak**

#### **196. legea**

##### ***Kontzeptua***

Testamentuko memoriak egin daitezke aurreko testamentu baten zuzenketa edo osagarri gisa, baldin eta testamentugileak edo testamentugileek beraientzat erreserbatu badute halakoak egiteko ahalmena, eta, aldi berean, zehaztu badituzte memoria horien eraginkortasunerako horietan nahitaez jaso behar diren ikur, zeinu edo bestelako betekizunak.

##### ***Forma***

Memoriek testamentugilearen edo testamentugileen sinadura izan beharko dute orri guztietan, eta ikur edo zeinuak ere jaso beharko dituzte; halaber, testamentuan adierazitako gainerako betekizunak bete beharko dituzte. Horrez gain, zilegi da memoria hauek egitea azken nahiaren beste edozein egintzaren osagarri gisa.<sup>194</sup>

#### **197. legea**

##### ***Edukia***

Memoriei ere aplikatzekoa izanen da 195. legean kodiziloari buruz ezarritakoa.<sup>195</sup>

---

<sup>192</sup> FBko 188. eta hurrengo legeak, 210, 212. legeak.

<sup>193</sup> FBko 215, 220, 267, 270. legeak.

<sup>194</sup> FBko 208, 210, 212, 213. legeak. NJANaren 2/2013 epaia, urtarrilaren 15ekoa.

<sup>195</sup> NJANaren 2/2013 epaia, urtarrilaren 15ekoa.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### 198. legea

#### *Benetakotzea*

Bost urteko epean, testamentugilearen heriotza-datatik zenbatuta, testamentuko memoriak aurkeztu beharko dira horiek benetakotuak eta protokoloan jasoak izan daitezzen; hori egin gabe, eragingabe geratuko dira. Bi pertsonak edo gehiagok batera egindako memorietan, horietatik azkena hiltzen denetik hasita zenbatuko da epe hori, salbu eta testamentuan edo memorian bertan bestelakorik ezarri denean.

#### *Protokoloan jasotzea*

Memoriak protokoloan jasotzeko, notariotza-legerian ezarritako izapideak bete beharko dira. Memoriak atzerrian egin badira, horiek protokoloan jasotzeko eginbideak Espainiako kontsularen nahiz kontsulordearen aurrean ere gauzatu ahal izanen dira.<sup>196</sup>

## V. KAPITULUA

### Ermandadeko testamentua

### 199. legea

#### *Kontzeptua*

Ermandadekoa da bi pertsonak edo gehiagok agerkai berean egindako testamentua.

#### *Formak*

Forma olografoa salbu, Konpilazio honetan onarturiko formatatik beste edozein izan dezake ermandadeko testamentuak, baldin eta forma horietako bakoitzerako ezarritako betekizun guztiak betetzen badira.

189. legean xedatutakoaren ondorioetarako, nahikoa da egileetatik bakarra egotea hur-hurreko heriotza-arriskuko egoeran.

#### *Lege pertsonala*

Nafarrek ermandadeko testamentua Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo egin dezakete, Espainian zein atzerrian. Nafarroatik kanpo egiten denean, halaber erabili ahal izanen dira Estatuko arau orokorren arabera aplikatzekoa den legeak ezartzen dituen formak.<sup>197</sup>

### 200. legea

#### *Eragingabetasuna*

Ermandadeko testamentua eragingabe bilakatuko da bere xedapen guztietan, honako kasu hauetan:

1. Ezkontideek are ezkondu baino lehen eta bikote egonkorra zirelarik nahiz ez zirelarik eginikoa, legezko banantze, dibortzio edo deuseztasun kasuan. Demanda judiziala aurkezte hutsak eragingabetasuna sorraraziko du, ondoren adiskidetu ezean.

2. Bikote egonkorra osatzen duten bi pertsonak egina denean, are bikote egonkorra osatu baino lehen egin dutenean ere, bikote egonkorra azkentzen bada kideak bizirik daudela; azkentze hori modu fede-emailean agertu beharko da, eta azkentzearen arrazoia ezin da izan bikotekide horien arteko geroagoko ezkontza, kasu horretan aurreko apartatuak xedatutakoa aplikatuko bailitzateke.<sup>198</sup>

<sup>196</sup>NLko 57. artikulua eta hurrengoak; NEko 211-215. art.; NJANaren 2/2013 epaia, urtarrilaren 15koa.

<sup>197</sup>FBko 11, 147, 191. legeak; KZko 11.1, 669, 733. art. NJANaren 9/2011 epaia, maiatzaren 19koa.

<sup>198</sup>NJANaren 2/2020 epaia, apirilaren 23koa.

## **201. legea**

### ***a) Egile guztien bizialdian errebokatzea***

Egile guztiak bizirik daudela, ermandadeko testamentua errebokatu ahal izanen dute:

1. Horiek guztiek batera.

2. Horietatik edonork bere aldetik; kasu horretan, errebokatzeak ez du efekturik izanen, harik eta gainerakoek horren berri izan dutela modu fede-emailean argitu arte.

Errebokazioaren berri eman behar zaion pertsona leku ezezagunean baldin badago, jakinarazpena ediktuen bitartez egin ahal izanen da; horretarako, aldez aurretik egoera hori justifikatu beharko da, notarioak emandako nabaritasun-aktaren bidez. Ediktuok argitaratu beharko dira Estatuko Aldizkari Ofizialean, probintziako aldizkarian eta azken helbide ezaguna izan duen tokian gehien saltzen diren egunkarietako batean.

Bi kasuetan, errebokatzeak eraginik gabe utziko ditu testamentuan jasotako xedapen guztiak, salbu eta testamentuan besterik ezarri denean.

Lege honetan eta aurrekoan xedaturikoa aplikatuko da are egile batek edo guztiek forudunaren izaera galdu badute.<sup>199</sup>

## **202. legea**

### ***b) Heriotza kasuan errebokatzea***

Kotestamentugileetako bat hilez gero, ermandadeko testamentua erreboka ezina izanen da.

Dena den, bizirik dirauenak errebokatu eta berriro ordenatu ahal izanen du:

1. Testamentuan bertan horrela ezarri bada.

2. Betiere, oinordeko izateko ezgai bilakatu den pertsonaren edo aurrez hil denaren alde egindako xedapenak, ezertan eragotzi gabe ordezpena eta kasuan-kasuan izan beharreko ordezkaritza- eta gehiagotze-eskubideak.

3. Testamentugile batek edozein kontzeptutan bere jarauntsiaren gainean ezarritako xedapenak, testamentugileetako beste batek egindako xedapenak ez badira horien arrazoia edo baldintza, kontuan hartu gabe xedapen horiek elkarren mesederako edo hirugarren baten mesederako diren.

### ***c) Testamentua egiteko gaitasunik ez dagoenean errebokatzea***

Kotestamentugileetakoren bat ezgai bilakatzen bada testamentua egiteko, ermandadeko testamentua erreboka ezina izanen da. Hala ere, gainerako kotestamentugileek errebokatu ahal izanen dute, testamentuan aurreikusi bada testamentu-egite gaitasunari eusten diotenek hori egin ahal izatea; eta, betiere, aurreko apartatuko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren xedapenei dagokienez.

Halaber, lege honetan xedaturikoa aplikatu egingen da, baita egileetatik edozeinek edo guztiek forudunaren izaera galdu dutenean ere.<sup>200</sup>

---

<sup>199</sup> FBko 13, 147. legeak.

<sup>200</sup> FBko 13, 147, 184. legeak; NJANaren epai hauek: 11/2010, ekainaren 16koa; 9/1999, ekainaren 28koa.



## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### 203. legea

#### *Efektuak*

##### *a) Kostu bidez xedatzea*

Ermandadeko testamentuak aurkako klausula ezartzen badu ere, testamentugile bakoitzak kostu bidez xedatu ahal izanen ditu bere ondasunak, nahiz eta hori gainerako testamentugileen edo horietako baten heriotzaren ondotik egin.

Aurkako klausularik izan ezean, testamentugile orok xedatu ahal izanen ditu, kostu bidez, aurrez hildako beste testamentugile batengandik jaso dituen ondasunak.

Testamentuak elkarren izendapena eta jaraunsle amankomunaren izendapena biltzen baditu, eta besterentze-debekuean, ulertuko da ezen debekua aurrez hildako testamentugilearen ondasunei buruzkoa dela bakarrik.<sup>201</sup>

### 204. legea

#### *b) Dohainik*

Ezein testamentugilek ezin ditu bere ondasunak dohainik xedatu, ondoko kasuetako edozeinetan izan ezik:

1. Ermandadeko testamentuan bestelakorik ezarri izanez gero.
2. Xedatzea gainerako testamentugile guztien adostasunarekin egiten duenean.
3. Testamentugileetako beste batek ezarritakoa ez izatea ondasun horiek testamentuan xedatzearen kausa, ez eta xedatze horren baldintzatzaile ere.
4. Xedapenek helburutzat dutenean testamentu-sinatzea baino geroagoko desgaitasun-edo mendekotasun-aitorpena egin zaien ondorengo edo aurreko ahaideen bizi-premiei erantzutea.<sup>202</sup>

### 205. legea

#### *Legatuak*

Aurkako xedapenik izan ezean, ermandadeko testamentuan testamentugileetako edozeinek haietako beste testamentugile bat edo batzuk izendatu baditu jaraunsle, hark ezarritako legatuak ez dira galdatzeko modukoak izanen horrela izendatuetako azkena hil arte; baina legatu-hartzaileak zilegi izanen du legatuaren gaineko fidantzamendua galdatzea, testamentugileak betebehar hori bertan behera utzi ez duenean.<sup>203</sup>

## VI. TITULUA

### “MORTIS CAUSA” XEDAPENEN DEUSEZTASUNA ETA ERAGINGABETASUNA

### 206. legea

#### *Deuseztasuna*

Deusezak dira testamentuak eta gainerako "mortis causa" xedatzeak, horiek egitean ez badira bete legeak agindutako baldintzak.

---

<sup>201</sup> HLko 26.3. art. NJANaren 1/2010 epaia, urtarrilaren 19koa.

<sup>202</sup> HLko 26.3. art. NJANaren 29/2008 epaia, abenduaren 19koa.

<sup>203</sup> FBko 242, 243, 245. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Hala ere, testamentuaren ordua ez adierazteak ez du berekin haren deuseztasuna ekarriko, baldin testamentugileak ez bazuen egun berean beste testamenturik egin.<sup>204</sup>

### 207. legea

#### a) Osoa

Jaraunslairen kontratu-izendapena deuseza edo eragingabea bada, deuseztasun edo eragingabetasun horrek berekin ekarriko du kontratuan jasotako xedatze guztiena ere.

#### b) Partziala

Oinordetza-itun batean jasotako beste edozein xedatzeren deuseztasun eta eragingabetasunak berekin ekarriko du xedatze hori kausa duten gainerako xedatzeena. Heriotzaren kausazko gainerako egintzetan, horietako edozein xedatzeren deuseztasun eta eragingabetasunak ez du eraginik izanen besteen baliozkotasun edo eraginkortasunean.<sup>205</sup>

### 208. legea

#### *Testamentuaren errebokagarritasuna*

Testamentuko xedapenak errebokagarriak dira berez, ermandadeko testamentuari buruz ezarritakoa salbu.

#### a) "Ad cautelam" klausula

Jarri gabekotzat joko dira etorkizuneko xedatzeak indargabetzen dituzten klausulak. Hala ere, testamentua egiteko unean, testamentugileak zilegi izanen du agintzea baliogabea izan dadila edo errebokaturat har dadila berak egindakoa izatearen itxuraz ager daitekeen edozein testamentu olografo edo testamentu-memoria, baldin horretan ez badira jaso ikur edo zeinu jakin batzuk, edo bestelako betekizun batzuk.<sup>206</sup>

### 209. legea

#### b) Seme-alabatasunaren aitortpena

"Mortis causa" egintza bat errebokatzek ez du eraginik izanen egintza horrek<sup>207</sup> seme-alabatasunari buruz jasotako aitortpenaren baliozkotasun eta eraginkortasunean, halako aitortpenik egonez gero.<sup>208</sup>

### 210. legea

#### *Geroko testamentu, itun, "mortis causa" dohaintza edo bestelako xedatze-egintzen bidez errebokatzek*

Testamentua zuzenbide osoz errebokatu dela ulertuko da, horren ondoren beste testamentu edo oinordetza-itun baliozko bat egiten bada, salbu eta horietan xedatu denean testamentuak oso-osorik edo zati batez indarrean irautea.

---

<sup>204</sup> FBko 167, 174 eta 185, 188-193, 199. legeak. NJANaren epai hauek: 14/2014, urriaren 28koa; 12/2006, ekainaren 20koa.

<sup>205</sup> FBko 215. legea.

<sup>206</sup> FBko 169, 178, 182, 191, 201, 202, 211, 212. legeak.

<sup>207</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsioan, badirudi "que en él" ulertu beharko litzatekeela, "mortis causa" egintzari erreferentzia eginez.

<sup>208</sup> FBko 53, 54, 56, 57. legeak.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

"Mortis causa" dohaintzek, kodiziloek eta testamentu-memoriek testamentuko xedapenak errebokatzen dituzte bateraezin diren neurrian bakarrik.<sup>209</sup>

### 211. legea

#### *Oinordetza-itunaren errebokatzea*

Oinordetza-itunak errebokatzeari dagokionez, 182. legean xedaturikoari helduko zaio.

### 212. legea

#### *Kodiziloen eta testamentu-memorien errebokatzea*

Kodiziloak eta testamentu-memoriak errebokaturik geratuko dira ondorengo testamentuen bitartez, horietan berretsirik agertzen direnean izan ezik.

Testamentu-memoriak eta kodiziloak ez dira errebokaturik geratuko ondorengo beste batzuen bitartez, bateraezinak diren neurrian baizik.

Aurkako frogarik izan ezean, datarik gabeko testamentu-memoriak kodiziloen eta datadun memorien aurrekoak direla ulertuko da.<sup>210</sup>

### 213. legea

#### *Testamentu eta memoriak bestelakotzea*

Testamentuaren balio gabetasunak berekin dakar horretan oinarria duten testamentu-memoriarena ere. Testamentuaren balio gabetasuna gorabehera, horri lotuta egiten diren testamentu-memoriek testamentu olografo gisa balio izanzen dute, horietarako galdatzen diren baldintzak betetzen badituzte.<sup>211</sup>

### 214. legea

#### *"Mortis causa" dohaintzen errebokatzea eta eragingabetasuna*

"Mortis causa" dohaintzen errebokatzeari eta eragingabetasunari dagokienez, 169. eta 170. legeetan ezarritakoari helduko zaio.

## VII. TITULUA JARAUNSLA-IZENDAPENA

### 215. legea

#### *Nahitaezkoa ez izatea*

Oinordetza-ituna eta testamentua baliozkoak izanzen dira, nahiz eta horietan jaraunsla izendapenik jaso ez, edo izendapen horrek barnean ondasun guztiak hartu ez. Testamentua eragingarria izanzen da, orobat, izendatutakoa 152., 153. eta 154. legeetan xedatutakoarekin bat jaraunsla izateko gai izan ez arren, edo horrek jarauntsia onartu ez arren. Oinordetza-itunei dagokienez, 207. legean xedaturikoari helduko zaio.<sup>212</sup>

---

<sup>209</sup> FBko 169, 172, 194, 196. legeak.

<sup>210</sup> FBko 194, 196, 210. legeak.

<sup>211</sup> FBko 191, 196. legeak; KZko 688. art.

<sup>212</sup> FBko 148. legea.

**216. legea**

***“Institutio ex re certa”***

Gauza zehatz baterako izendaturiko jaraunslea ez bada suertatzen titulu unibertsalaren bidez izendaturiko beste batekin edo batzuekin, ulertuko da hari jarauntsi osora deitu zaiola; baina, beste batekin edo batzuekin suertatzen bada, legatu-hartzaitzat hartuko da.

Jaraunsle guztiak gauza zehatzaren gainean izendatu badira, hainbana jarauntsiko dute, eta gauza zehatzaren gaineko seinalamendua baliozkoa izanen da aurrelegatu gisa.

Erregela horiek beroriek aplikatuko zaizkio gozamenaren gainean bakarrik izendatu denari.<sup>213</sup>

**217. legea**

***Erreserbapeko izendapena***

Jaraunsle-izendapenean, baliozkoa da gauza zehatzaren gaineko erreserba, baina hori jarrigabekotzat hartuko da, izendatzaileak erreserbapeko gauza xedatzen ez badu. Bi pertsonak edo gehiagok talde gisa egiten badute izendapena, eta horietako bat hiltzen bada erreserbapeko zatia osorik edo partzialki xedatu gabe, bizirik dagoenak edo daudenek xedatu ahalko dute zati hori, bestelakorik ezarri denean izan ezik.<sup>214</sup>

**218. legea**

***“Institutio excepta re certa”***

Jaraunsle-izendapena baliozkoa da, gauza zehatz bat beste pertsona baten mesederako salbuetsi arren; baina salbuespen hori jarrigabekotzat hartuko da, onuradunak gauza salbuetsia eskuratzen ez badu.<sup>215</sup>

**219. legea**

***“Legatum partitionis”***

Zati alikuotaren gaineko oinordetza-xedatze guztiak legatutzat hartuko dira, salbu eta izendatzaileak hori jaraunsle-tituluaren bitartez ordenatu duenean, edo jarauntsi osoa legatueta banatzen duenean jaraunslerik izendatu gabe.

Jaraunsleak berak nahi duen moduan ordain dezake zati alikuotaren gaineko legatua, jarauntsiko ondasunez edo diruz, testamentugileak bestelakorik xedatu duenean izan ezik.<sup>216</sup>

---

<sup>213</sup> FBko 241, 250, 300. *i.f.* legeak; NJANaren 14/1997 epaia, irailaren 20koa.

<sup>214</sup> FBko 123.3, 177.I, 179.II legeak.

<sup>215</sup> FBko 217. legea.

<sup>216</sup> FBko 243.II.2 eta 3, 244.II, 330, 337, 341. legeak.

**VIII. TITULUA**  
**ORDEZPENAK**

**I. KAPITULUA**  
**Xedapen orokorrak**

**220. legea**

***Ordezpenak ordenatzeko askatasuna***

“Inter vivos” nahiz “mortis causa” erako edozein eskuzabaltasun-egintzatan xedatzaileak ordezenak ordena ditzake bere ondasun guztien edo batzuen gainean.<sup>217</sup>

**221. legea**

***Efektua***

Ordezpen orok ordezkapen eskubidea eta gehiagotzeko eskubidea baztertzen ditu.<sup>218</sup>

**222. legea**

***Kontzeptua eta efektuak***

Xedatzaileak ordezen bat edo batzuk ezar ditzake, deitua izan dena edo ordezkoak xedatzailea baino lehen hiltzen direnerako, edota horiek eskuzabaltasuna onartu nahi ez edo onartu ezin dutenerako.

Ez denean adierazten ordezena zer kasutan eginen den, ordezen horrek aurreko paragrafoan aipatutako hirurak bilduko ditu, kontrako xedapen espresik izan ezean.

Bat baino gehiago izan daitezke bakar baten ordezko, edo bat bakarra izan daiteke zenbaiten ordezko, edo deituak izan direnak berak izan daitezke elkarren ordezko.

Zati desberdinetara deituak izan direnek elkar ordeztu badute ordezenean zatiei buruzko aipamenik egin gabe, orduan, izendapenean ezarritakoen proportziosko zatiak dagozkie ordezko gisa.

Bi pertsonari eskuzabaltasun berberera multzoan deitzen bazaie, eta horietatik batek bestea ordezten badu, horren ordezkoari bi zatietara deitu zaiola ulertuko da.<sup>219</sup>

**II. KAPITULUA**  
**Ordezpen arrunta**

**223. legea**

***Kontzeptua***

Xedatzaileak agin dezake fideikomisodun bati edo batzuei ondoz ondo eskualdatzeko, berak zehazturiko epe eta forman, berarengandik fiduziarioak eskuratu dituen ondasunak.<sup>220</sup>

---

<sup>217</sup> FBko 121, 123.8 eta 9, 149, 177, 181, 195, 197, 255.1) legeak.

<sup>218</sup> FBko 308-314. legeak.

<sup>219</sup> FBko 225, 228. legeak; KZko 774, 778, 779. art.

<sup>220</sup> FBko 123,8, 155. legeak.

**III. KAPITULUA**  
**Fideikomisozko ordezena**

**224. legea**

*Muga*

Ez dago kopuru-mugarik ondoz ondoko fideikomisodunak izendatzeko, hori egiten bada lehenengo fiduziarioak ondasunak eskuratzen dituen unean bizirik edo, gutxienez, kontzebiturik dauden pertsonen alde. Ordezpenak egiten badira une horretan existitzen ez diren pertsonen alde, ordezenok ezin izanen dute laugarren deia gaintitu; muga hori gaintitzen duten neurrian, ulertuko da ez direla egin.<sup>221</sup>

**225. legea**

*Fideikomisodunek eskuratzea*

Fideikomisodunek fideikomisogilearengandik eskuratzen dute beti, baita ondoz ondoko deien ondorioz jokatzeko dutenean ere.

Fiduziarioak elkarren fideikomisodun izan daitezke fideikomisogileak zehazturiko kuotaren gainean eta, halakorik izan ezean, fiduziario gisa eskuratuko duten kuotaren proportzioan.<sup>222</sup>

**226. legea**

*Fideikomisozko ordezena eta ordezen arrunta*

Fideikomisozko ordezen oro baliadun izanen da fideikomisodunarentzat egindako ordezen arrunt gisa, fiduziarioa ez denean ondasunak eskuratzea iristen.

Fiduziario baten ordezen arrunta ez da hartuko ordezele arruntaren aldeko fideikomisozko ordezenpentzat. Ondasunak eskuratzea iristen den ordezele arruntak bere gain izanen du berak ordezturiko fiduziarioari zegokion fideikomisoaren karga.<sup>223</sup>

**227. legea**

*Ordezen pupilarra eta kuasipupilarra*<sup>224</sup>

**228. legea**

*Presuntzioak*

Zalantzakoa bada xedatzaileak fideikomisoa ezarri, gomendioa eman edo errege hutsa egin duen, presuntzioz uste izanen da azken hori egin duela. Zalantzarik badago ordezena arrunta ala fideikomisozkoa den, arrunta dela uste izanen da presuntzioz.<sup>225</sup>

---

<sup>221</sup> FBko 43.d), 44.b)5, 123, 155, 412, 481, 542. legeak.

<sup>222</sup> FBko 222.IV legea.

<sup>223</sup> FBko 222. legea.

<sup>224</sup> 227. legea indargabetu egin du 31/2022 Foru Legeak, azaroaren 28koak, Nafarroan desgaitasuna dutenei arretea emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoak.

<sup>225</sup> FBko 52. legea.

**229. legea**

***Baldintzak betetzearen unea***

Xedapenaren hitzez hitzekotasunetik ez bada argiro bestelakorik ondorioztatzen, ulertuko da ezen fideikomisoazko ordezpenei jarritako baldintzak, hala nola "seme-alabarik ez izatea" edo horiek "testamentua egiteko adinera ez heltzea" edo antzeko beste batzuk, fiduziarioaren heriotza-uneari buruzkoak direla.

**230. legea**

***Seme-alabak "baldintza gisa" jartzea***

Eskuzabaltasun-egintzaren baldintza gisa ezarri bada eskuratzailleak seme-alabak izatea, ulertu behar da baldintzaren xede diren seme-alabok ez direla xedapenean aipatu edo horiei ez zaiela eskuratzeko deirik egin, salbu eta espresuki hala ezarri denean.

**231. legea**

***Fideikomisodunentzako bermeak***

Xedatzaileak aurkakoa ezartzen duenean izan ezik, fideikomisodunek edozein unetan galda diezaiokete fiduziarioari ondasun eskuratuen inbentarioa egiteko eta horiek itzuliko dituela bermatzeko.

Fideikomisodunekiko akordiorik ezean, bermea izanen da:

- 1) Ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatzea, inskripzio horretan fideikomisoa agerraraziz.
- 2) Balore-titulua banku-establezimenduan gordailatzea, horren gordekinetan fideikomisoa agerraraziz.
- 3) Epaileak nahikotzat jotzen duen kausioa, bestelako ondasunak direnean.<sup>226</sup>

**232. legea**

***Fiduziarioaren eskubideak***

Hurrengo legeetan ezarritako mugapenez bestelakorik gabe, fiduziarioak jabeari dagozkion eskubide guztiak ditu, baina fideikomisodunari itzuli beharko dizkio jasotako ondasunak, subrogatuak, eta berezko akzesio eta hobekuntza banaezin diren gehikuntzak. Banantzeke dauden fruituei eta fiduziarioak eginiko gastuei dagokienez, fiduziarioak gozamenaren eskubide berberak izanen ditu.<sup>227</sup>

**233. legea**

***Besterentze eta kargatzea***

Fiduziarioak hurrengo kasu eta moduetan zilegi du ondasun libre gisa besterendu eta kargatzea ondasunak:

1. Bere kabuz, xedatzaileak horretarako baimena eman badu; kasu horretan, eskuratutako ondasunak besterenduen lekuan subrogatuko dira.
2. Fideikomisodun guztien baimenarekin, xedatzaileak ez duenean ez horretarako baimenik eman, ez eta horretarako esanbidezko debekurik ezarri ere. Fideikomisodun guztien baimenik izan ezean, edo fideikomisodun horietako bat zalantzazkoa,

---

<sup>226</sup> FBko 414, 463, 474. legeak.

<sup>227</sup> FBko 235, 362, 415. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

etorkizuneko edo orainaldian zehaztugabea bada, fiduziarioak zilegi izanen du egitea, epaile eskudunak horretarako baimena emanda, zeina emanen baitu ageriko beharrian- edo baliagarritasun-kasuetan bakarrik, borondatezko jurisdikziopeko egintzan, eta subrogazioa ziurtatzeko neurri egokiak hartuz.<sup>228</sup>

### **234. legea**

#### ***Fiduziarioak bere kabuz dituen ahalmenak***

Fiduziarioak bere kabuz:

1. Eskatu eta egin ahal izanen ditu jarauntsiaren banaketa, gauza komunaren zatiketa eta bereizte eta mugarritatzea, baldin eta horiek banaketa-, zatiketa- edo bereizketa-egintza hutsak badira; hala ez bada, beharrezkoa izanen da fideikomisodunen edo epailearen baimena, aurreko legean xedaturikoarekin bat etorritz.
2. Kreditu hipotekario edo pignoratizioak kobrantzagatik kitatu ahal izanen ditu, bai eta grazia-agiriarekin nahiz atzera-eskuratze itunarekin erositako ondasunak atzera-saldu ere.
3. Fideikomisogileak bere gain hartu badu besterentze batzuk egiteko betebeharra, fiduziarioak besterentze horiek egin ahal izanen ditu; halaber, fiduziarioak jabetzari datzekion betebeharrak betetzeko edozein egintza burutu dezake, betebeharrak fiduziario horrek eskuraketa lortu baino lehenagokoak direnean.
4. Dirua maileguan eman dezake, eta zordunaren kaudimenaren gaineko erantzukizuna izanen du.
5. Fideikomisoari kalterik egin gabe, ondasun kontsumikorak eta erabileraren erabileraz narriatu edo higatzen direnak ordeztu ditzake.<sup>229</sup>

### **235. legea**

#### ***Subrogazioa***

Baldin eta, aurreko legeekin bat etorritz, fiduziarioak kargarik gabeko ondasun gisa besterendu edo ordeztan baditu fideikomisoaren xede diren ondasunak, fideikomisoari atxikita geratuko dira subrogazioz haien ordezle bilakaturiko dirua edo ondasunak.<sup>230</sup>

### **236. legea**

#### ***Fideikomisodunak aukeratzeko baimena ematea fiduziarioari***

Xedatzaileak zilegi du berak zehazturiko pertsonen artean fideikomisodun bat edo batzuk libreki aukeratzeko baimena ematea fiduziarioari, bai eta ondasunak hainbana edo zati desberdinetan banatzeko erabakia har dezan. Xedatzaileak horretarako baimena eman ezean, fiduziarioak ezin izanen die mugarik ezarri fideikomisodunei, salbu eta muga horiek onuragarri direnean xedatzaileak zehazturiko fideikomisodunetako beste batzuentzat.

Fiduziarioak testamentu bidez egin badu fideikomisodun-aukeraketa eta ondasun-banaketa, libreki errebokatu ahal izanen ditu. Oinordetza-kontratuz edo "inter vivos"

---

<sup>228</sup> FBko 235. legea; BJKo 1-22. art.

<sup>229</sup> FBko 235, 331, 349, 352.II, 374, 410.II, 475. eta hurrengo legeak, 536, 575. eta hurrengo legeak. HEko 178.4 art.

<sup>230</sup> HEko 178.4. art.



## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

egintzaz egin baditu, errebokaezinak izanen dira, ezertan galarazi gabe beste fideikomisodun bat izendatu ahal izatea, baldin eta izendatua fideikomisoa gauzatu baino lehen hilik edo ezgaiturik suertatzen bada edo horri uko egiten badio.

Fiduziarioak ez badu ahalmen hori erabiltzen, fideikomisodun guztiak izanen dira halakoak, hainbana. Kasu horretan, eta xedatzaileak ez baditu fideikomisodunak izenaz aipatu, haiek izendatzeko zehaztapena notarioak emandako nabaritasun-aktaren bitartez egin ahal izanen da.<sup>231</sup>

### **237. legea**

#### ***Uko egitea***

Fideikomisozko ordezenak epemugadunak badira, fiduziarioak, uko eginda, fideikomisoaren delazioa aurreratu ahal izanen du.

#### ***Lagapena***

Fiduziarioak eta fideikomisodunak beren eskubideak laga ahal izanen dituzte. Fiduziarioak eginiko lagapena mugatuta geratuko da fideikomisoari ezarritako baldintza betetzearen edo epemuga heltzearen ondorioz, eta fideikomisodunak eginiko lagapenak indarra izanen du une horretatik bertatik aurrera. Hirugarren bati egindako lagapenak ez dio inola ere horri jaraunsle-izaerarik ematen, eta liburu honetako XIX. tituluari jarauntsiaren lagapenari buruz xedaturikoa aplikatuko da.<sup>232</sup>

### **238. legea**

#### ***Fideikomisoa azkentzea***

Besterik xedatzen ez bada, fideikomisoa azkendurik geratuko da, eta, ondorioz, fiduziarioa itzulketa-betebeharretik aske egonen da, fiduziarioaren bizialdian fideikomisodunak hil edo ezgai suertatzen badira, edota fideikomisoari uko egin edo fiduziarioaren alde lagatzen bada.<sup>233</sup>

## **IV. KAPITULUA** **Hondakinaren gaineko ordezena**

### **239. legea**

#### ***Izendatuak ondasunak xedatzea***

Hondakinaren gaineko ordezenetan, izendatuak inter vivos egintzen bitartez eta kostu bidez bakarrik xedatu ahal izanen ditu ondasunak, besterik agintzen ez bada. Izendatuari baimena eman bazaio are dohainik xedatzeko, presuntzioz uste izanen da baimena duela inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez xedatzeko.

#### ***Hondakina***

Izendatuak modu baliiodunean xedatu ez dituen ondasunak eskualdatuko zaizkie, ezarritako unean edo aurreikusitako gertaeran, horien jasotzaile gisa izendaturiko pertsonari edo pertsoniei.<sup>234</sup>

---

<sup>231</sup> FBko 126, 150, 182, 208, 210, 211, 286. legeak. HEko 82.III art.

<sup>232</sup> FBko 9, 315, 325. eta hurrengo legeak.

<sup>233</sup> FBko 9, 237. legeak.

<sup>234</sup> FBko 123.9, 232, 250.IV legeak.

**IX. TITULUA**  
**LEGATUAK**

**240. legea**

***Araubidea***

Borondatezko xedapenik edo lege berezirik izan ezean, Kompilazio honetan legatuak arautzen dituzten legeak banakako tituluaren bitartezko eskuzabaltasun-egintza guztiei aplikatuko zaizkie.

**241. legea**

***Kontzeptua***

Agintza edo legatu dira banakako tituluaren bitartezko "mortis causa" eskuzabaltasun batzuk, ez dutenak jaraunsle-izaerarik eratzikitzen, eta ezartzen zaizkionak xedatzailearengandik haren borondatez edo legearen aginduz ondasunak dohainik jasotzen dituen edozein pertsonari.<sup>235</sup>

**242. legea**

***Efektuak***

Xedatzailearena den gauza jakin eta zehatz baten legatuak eraginkortasun erreala du, eta legatu-hartzaileak jabetza eskuratzen du kausatzailea hiltzen denean.

Bestelako legatuetan, legatu-hartzaileak akzio pertsonala besterik ez du, legatua bete dadin galdatzeko.<sup>236</sup>

**243. legea**

***Edukitzea***

Legatu-hartzaileak ezin du bere kabuz hartu legatuan eman den gauzaren edukitzea, baizik eta gauza hori galdatu beharko dio legatuarekin kargaturiko pertsonari edo gauzaren entregarako gaituta dagoenari. Pertsona horiek zilegi izanen dute edukitzea berreskuratzeako akzioa erabiltzea baldin legatu-hartzaileak aurretiazko entregarik egon gabe hartu badu legatuan eman den gauzaren edukitzea.

Hala ere, legatu-hartzaileak legatuaren edukitzea hartu ahal izanen du:

1. Xedatzaileak horretarako baimena eman duenean.
2. Jaraunserik izan ez, eta legatu-hartzailea zati alikuotaren edo gozamen unibertsalaren gainean izendatu denean.
3. Jarauntsi osoa legatuetan banatuta egonik, legatu-hartzaile guztiak ados daudenean, eta zati alikuotaren gaineko legatu-hartzailearik edo entregarako gaituriko beste pertsonarik ez dagoenean; ados jartzen ez badira, legatu-hartzaileek epailearengana jo ahal izanen dute entrega hori eskatzeko.<sup>237</sup>

---

<sup>235</sup> FBko 126, 162, 216, 219. legeak.

<sup>236</sup> FBko 205, 252, 321. legeak; HLko 47, 48, 56. art.; HEko 147-154. art. NJANaren 1/2005 epaia, martxoaren 15ekoa.

<sup>237</sup> FBko 205, 219, 250, 297.8, 337, 553. legeak; PZLko 250.1.4., 439.1 art.; HLko 42.7., 47, 48, 56. art.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### 244. legea

#### *Urripena*

Xedatzaileak bestelakorik ezarri ezean, legatuak urritu behar badira jarauntsiko zorrak ordaintzeko, edo jarauntsiko ondasunak nahiko ez badira legatu guztiak ordaintzeko, legatu horiek hainbanaketaz urrituko dira.

Halaber eginen da urripena zorrak badaude eta jarauntsia oso-osorik banatu bada zati alikuotaren gainekoak ez diren legatuetan.<sup>238</sup>

### 245. legea

#### *Fruituak*

Legatu-hartzaileek fruitu nahiz errentak bereganatzen dituzte judizialki edo estrajudizialki galdatu dutenetik legatuaren entrega. Salbuespenez, legatuek erruki-, ongintza- edo gizarte-xedea badute edo interes orokorra asetzea helburu, fruitu eta interesak testamentugilea hiltzen den unetik zor izanen dira.<sup>239</sup>

### 246. legea

#### *Unibertsaltasunaren gaineko legatua*

Legatua unibertsaltasun baten gainekoa bada, legatu-hartzaileari dagozkio xedatzailearen heriotza-unean unibertsaltasun horren osagai ziren gauza edo eskubide guztiak.

### 247. legea

#### *Gauza generikoaren gaineko legatua*

Gauza generikoaren gaineko legatuan, legatu-hartzaileari dagokio aukeratzea, ezertan eragotzi gabe xedatzaileak ezarritakoa.<sup>240</sup>

### 248. legea

#### *Hautabidezko legatua*

Hautabidezko legatuek efektu erreala dutenean, legatu-hartzaileari dagokio aukeratzea, eta, efektu pertsonala dutenean, legatuarekin kargaturiko pertsonari, xedatzailearen borondatea bestelakoa izan ezik.

### 249. legea

#### *Besteren gauzaren gaineko legatua*

Besteren gauzaren gaineko legatua edo besteren gauzaren gainean eskubide erreala eratzeko legatua baliozkoa izanen da, bakar-bakarrik, legatu-hartzaileak frogatzen badu xedatzaileak bazekiela besterena zela gauza. Legatua baliozkoa denean, legatu horrekin kargaturiko pertsona bere betebeharretik libre gelditu ahal izanen da balioa zenbatespen bidezkoaren arabera ordainduz.<sup>241</sup>

---

<sup>238</sup> FBko 216, 219, 318, 319. legeak.

<sup>239</sup> FBko 243, 255.5, 321. legeak.

<sup>240</sup> FBko 242.II, 352. legeak.

<sup>241</sup> FBko 251.II, 252. legeak.

## **250. legea**

### ***Gozamen unibertsalaren gaineko legatua***

Aurkako xedapenik izan ezean, gozamen unibertsalaren gaineko legatuak bere barruan hartuko ditu kausatzaileak utzitako ondasun guztiak, salbu eta 255. legeak baztertutakoak.

255. legeko 5. zenbakian aipaturik ez dagoen edozein legatu, gozamen unibertsalarena osatzen duena, horren eraginpean geratuko da, eta eskubide hori azkentzen denean baizik ez da entregatuko.

Testamentugileak gozamenduna aska dezake inbentarioa egiteko eta bermea emateko betebeharretatik.

Gozamendunari espresuki eman bazaizkio xedatze-ahalmenak, ahalmenon erabilerari aplikatuko zaio 239. legean ezarritakoa, eta, jarauntsiko hartzekodunen ordainketari, 318. eta 319. legeek diotena.<sup>242</sup>

## **251. legea**

### ***Konkista-ondasunen gaineko legatua***

Konkista-ondasunen gaineko legatuan, ezkontide batek ondasun horiek legatuan ematen badizkio besteari, edo biek batera egiten badute legatua hirugarren baten alde, ulertuko da bakoitzak legatu-objektuaren erdia ematen duela legatuan.

Ezkontide batek, bere kabuz, hirugarren bati legatuan ematen badio objektu osoa, legatua bere osotasunean izanen da balioduna; baina, konkista-sozietatearen likidazioan kausatzailearen jarauntsiari adjudikatzen ez zaion parteari dagokionez, eragina pertsonala izanen da huts-hutsean, besteren gauza baten gaineko legatu balioduna izanen balitz bezala.<sup>243</sup>

## **252. legea**

### ***Legatua azkentzea***

Xedatzailearen beraren gauza jakin eta zehatz baten legatua azkenduko da, haren heriotza-unean gauzaren jabetza beste pertsona batena bada, xedatzailearen borondatezko eskualdatzea tarteko. Alabaina, baldin legatu-hartzaileak gauza hori kostu bidez eskuratu bazuen xedatzaileaz bestelako pertsona batengandik, ulertuko da legatuan utzitakoa dela legatu-hartzaileak eman zuen kontraprestazioaren prezio edo balioa.

Xedatzaileak ez badu legatupeko gauza bere borondatez eskualdatu, legatuak balio izanen du jasotako ondasun edo eskubideen subrogazioarekin eginiko gauza jakinaren agintzari gisa nahiz legatu orokor gisa.<sup>244</sup>

---

<sup>242</sup> FBko 216.III, 243.2, 265, 410, 414.I legeak.

<sup>243</sup> FBko 88, 94.6, 249. legeak.

<sup>244</sup> FBko 242, 249, 251. legeak. NJANaren 26/2008 epaia, abenduaren 16koa.

**X. TITULUA**  
**XEDATZEKO ASKATASUNAREN MUGAPENAK**

**I. KAPITULUA**  
**Alarguntza-gozamena**

**253. legea**

***Kontzeptua***

Alargunak gozamena du aurrez hildakoari heriotza-unean zegozkion ondasun eta eskubide guztien gainean.

Konpilazio honen I. liburuko VII. tituluaren ezarritakoari jarraituz eratutako bikote egonkor batean bizirik dirauen bikotekideari kapitulu honetan biltzen diren xedapen guztiak aplikatuko zaizkio, baldin gozamena 113. legearen ezarritakoaren arabera eman bazitzaion.

***Bestereenezintasuna***

Eskubide hori bestereenezina da; dena den, jabe soilek eta gozamendunak, elkar harturik, zilegi izanen dute gozamenpeko ondasunen jabetza osoa besterendu edo kargatzea.

***Uko egitea***

Baliozkoa da gozamenari alde zuzenetik uko egitea, ukoa eskritura publiko bidez egin bada, ezkontzaren edo, kasua bada, bikote egonkorra eratzearen aurretik nahiz ondoren.<sup>245</sup>

**254. legea**

***Gozamenetik kanpo uztea***

Honako hauek ez dute gozamena izateko eskubiderik izanen:

1. Heriotza egunean aurrez hildakoarengandik legez edo izatez bananduta dagoen bikotekidea.
2. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, beste bikotekidearen edo haren ondorengo ahaideetakoren baten biziaren aurka eraso egiteagatik edo lesio larriak eragin izateagatik, ohikotasunez indarkeria fisikoa nahiz psikikoa erabili izateagatik edo haien askatasuna, osotasun morala edo sexu-askatasun eta -kaltegabetasuna urratu izateagatik.<sup>246</sup>
3. Familia-harremanen kontrako delitu bat egiteagatik epai irmoaren bidez kondenatua izan dena.
4. Epai irmoaren bidez gabetua izan dena seme-alaba amankomunen gaineko guraso-erantzukizunaz.<sup>247</sup>

---

<sup>245</sup> FBko 9, 11-13, 148, 261.2, 262. legeak; KZko 9.8, 16. art. NJANaren 1/2021 epaia, apirilaren 20koa.

<sup>246</sup> Konpilazio honen gaztelaniazko bertsioan, 2019ko apirilaren 16ko NAOren argitaratutako testuko azken koma kendu dugu.

<sup>247</sup> FBko 75.III-V, 304.2. legeak; KZko 81, 82. art.

## **255. legea**

### ***Hedadura***

Gozamena aurrez hildakoari dagozkion ondasun eta eskubideetaraino hedatzen da, nahiz eta ondasun eta eskubide horiek dei, lehengoratze edo itzultzeari lotuta egon, honako hauen kasuan salbu:

#### ***Ondasun salbuetsiak:***

1. Fideikomisozko ordezenaren peko ondasunak, non eta xedatzaileak ez duen aurkakoa ezartzen.
2. Gozamen, erabilera eta biztantze-eskubideak edota biziarteko izaera pertsonala duten beste batzuk.
3. Aurrez hildakoak dohainik eskuraturiko ondasunak, horiek alarguntza-gozamenetik espresuki kanpo utzi badira.
4. "Mortis causa" dohaintzan emandako ondasunak.
5. Erruki-legatuak edo hiletarako legatuak, seme-alabei edo beste ahaide batzuei zuzkidura egiteko legatuak, testamentugileak horiei zuzkidura emateko betebeharra badu, eta ordain gisa emandako legatuak, ziuerra bada ordaindu beharreko zerbitzua egin dela.
6. Aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko seme-alaba edo ondorengoentzat erreserbatu beharreko ondasunak, 273., 274. eta 275. legeetan ezarritakoarekin bat etorriz.
7. Dohainik eskuratu direnak, baldin eta aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko seme-alaba edo ondorengoei oinordetzara deitu bazaie eta horiek bizirik badaude. Kasu salbuetsia izanen da halakoa non deklaritzen baita gozamen-eskubideak badirauela bigarren edo gehiagogarren ezkontza edo bikote egonkorrei dagokienez, deia ordenatu zuten pertsona guztientzat edo bizirik daudenentzat.
8. Ondare bereziki babestu bat osatzen duten ondasunak, 45. legearekin bat horiek azkentzen diren arte.<sup>248</sup>

## **256. legea**

### ***Familia-enpresen kasuan gozamena ordeztea***

Oinordetzaren xedea familia-enpresa izan eta ondorengo ahaideen alde egiten bada, xedatzaileak testamentuan edo eskritura publiko batean ezarri ahal izanen du alarguntza-gozamena ordeztu dadila jabe soilaren kargurako hileroko errenta batekin.

Errentaren zenbatekoa izanen da heriotza aurreko bost urteetan enpresak izan duen batez besteko etekinaren baliokoa; urtero eguneratuko da, kontsumoko prezioen indizearen arabera; eta fidantzamendu-xede izaten ahalko da baldin gero batean eskuratzailak eskualdatu egiten badu. Berrikusi eginen da inguruabar-aldaketarik izanez gero, eta gozamenaren azkentze-arrazoi berberengatik azkenduko da.

Ordezpena gozamendunaren eta jabe soilaren arteko itunaren bidez ere egin ahal izanen da.<sup>249</sup>

---

<sup>248</sup> FBko 124.IV, 138, 171, 232, 245, 250, 411, 421, 423.2, 425. legeak.

<sup>249</sup> FBko 101.6, 105.4, 260, 421. legeak.

### **257. legea**

#### ***Inbentarioa***

Bere eskubidea egikaritu ahal izateko, gozamedunak gozamen horren hedaduran sartzen diren ondasun guztien inbentarioa egin beharko du honako kasu hauetan:

1. Baldin aurrez hildakoak testamentuan edo eskritura publiko batean hala ezarri badu.
2. Jabe soilak horretarako errekerimendua egiten badio, salbu eta aurrez hildakoak hori espresuki baztertu badu.
3. Jabe soilen artean adingabeak edo heriotza gertatzen den datan beren gaitasuna egikaritzeko laguntza-neurriak ezarrita dituzten pertsonak badaude.

#### ***Forma eta epeak***

Inbentarioa eskritura publikoan jaso behar da, eta sei hilabeteko epearen barnean egin beharko da, heriotza gertatzen denetik, aurreko apartatuko 1. eta 3. zenbakietan aurreikusitako kasuetan, edo errekerimendua egiten denetik, 2. zenbakiko kasuan. Epe hori eten ahalko da ezinbesteko arrazoiak direla eta, arrazoi horiek dirauten bitartean.

Alarguntza-gozamena ez baldin bada hastekoa beste pertsona batzuen alde ezarririk gozamen bat azkendu arte, epe horien zenbaketa hasiko da borondatezko gozamenaren azkentze-datatik aurrera.

Testamentuaren, oinordetza-kontratuaren edo egintza horietan ordenaturiko jaraunsleizendapenaren edozein deuseztasun-kasutan, edo gozamenean eragina duen beste eztabaidarik badago, inbentarioa egiteko epeen zenbaketa hasiko da hura deklaritzen duen epai irmoa gozamedunari jakinarazten zaion datatik aurrera.

#### ***Jabe soilaren eskubideak***

Jabe soilari dei egin beharko zaio inbentario-osaketara, eta gozamedunari galdatu ahal izanen dio adieraz dezan zer notarioren aurrean egin zuen hori edo horren eransketa. Kopia lortzeko eskubidea du, eta gozamedunari eskatu ahal izanen dio balizko oker eta hutsuneak eskritura publikoz zuzendu ditzan.<sup>250</sup>

### **258. legea**

#### ***Eskubideak***

Bizirik dirauenak gozamedunari orokorrean dagozkion eskubide guztiak izanen ditu, hirugarren liburuko IV. tituluaren I. kapituluaren arabera, bai eta, hala denean, aurrez hildakoak borondatez berari eman dizkionak edo itundu direnak ere.

Gainera, alarguntza-gozamena sozietate anonimoen akzioen gainekoa denean, eta sozietateen estatutu, itun edo erabakiek bestelakorik ez xedatuz gero, honako erregelak beteko dira:

1. Jabe soilari dagokio, eta berari bakarrik, akzio berriak harpidetzeko lehentasunezko eskubidea; baina ez badu eskubide hori erabiltzen, gozamedunak zilegi izanen du harpidetza bere kabuz jabe soilaren izenean egitea, kasuko ordainketak eta gastuak eginez. Ez badu ahalmen hori egikaritzen, besterendutako harpidetza-eskubideen balioa galdatu ahalko du.

---

<sup>250</sup> FBko 264, 414. legeak; 21/2019 FLko 10. xed. ir. (ikus §4.5).. NJANaren honako epai hauek: 9/2016, irailaren 1ekoa; 6/2013, apirilaren 9koa; 11/2004, apirilaren 1ekoa; 24/2000, urriaren 5ekoa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

2. Gozamina hedatuko da harpidetu diren akzio berrietara, baina gozamedunak jabe soilari pagatu beharko dizkio harpidetzaren ondorioz horrek izan dituen ordainketa eta gastu guztiak, eta ez badu hori egiten jabe soilaren errekerimendutik hogeita hamar eguneko epean, ez du gozamenik izanen akzio berrien gainean, eta, kasu horretan, jabe soilak gauzatutako harpidetze-eskubideen zenbatekoa egokituko zaio. Gozameduna jabe soilari horrek egindako gastu eta pagamenduen ordaina ematera behartuta dagoen kasuetan, ez du itzulketa-eskubiderik izanen.

3. Tituluak ordeztu edo akzioak amortizatzen badira, gozamina subrogazio bidez izanen da titulu berrien gainekoa edo amortizazioaren zenbatekoaren gainekoa.

4. Gozamina eratu bada akzio bihur daitezkeen obligazioen gainean, gozamina akzioen gainekoa izanen da, eta aurreko zenbakietan xedaturikoa aplikatuko da.

Lege honetan akzioen gaineko gozamenari buruz ezarritako xedapenak halaber aplikatuko zaizkie, beren izaeraren arabera aplikagarri diren neurrian, erantzukizun mugatuko sozietateetako partaidetzen gaineko gozamenari eta sozietate kolektibo, sozietate komanditario edo sozietate zibiletako kuota sozialen gaineko gozamenari.<sup>251</sup>

### **259. legea**

#### ***Betebeharrak***

Gozamedunak ondokoak egin behar ditu:

1. Ondasunak administratu eta ustiatu, familia-eremuan ohikoa eta arrazoizkoa den arretaz.

2. Aurrez hildakoaren azken gaixoaldiaren eta hiletaren ondoriozko gastuak ordaindu.

3. Mantenua eman, luperketaren mugen barruan, aurrez hildakoaren seme-alaba eta ondorengoei, baldin aurrez hildakoa, bizirik egonez gero, horretara behartuta egonen baten; betiere, mantenu-hartzaileak hori galdatzeko moduko zuzenbide-egoeran baldin badaude.

4. Aurrez hildakoaren zor galdagarriak jarauntsiko diruarekin ordaindu. Behar beste dirurik ez badago, jarauntsiko ondasunak besterendu ahal izanen ditu, aldeztatik jabe soilekin akordioa eginez; akordiorik lortu ezean, jabe soilak ezezagunak badira edo ez badaude, ondasunak besterentzeko beharrezkoa izanen da epailearen baimena.

5. Gozamenak berezko dituen karga guztiak ordaindu.

6. Desorekagatiko konpentsazio-prestazioa ordaindu, judizialki horretara beharturik gertatzen bada, 105. legean ezarritakoaren arabera.<sup>252</sup>

### **260. legea**

#### ***Eraldatzea***

Gozamedunak ez badie kasu egiten ondasunen administrazioari eta ustiapenari buruz jabe soilak emandako jarraibide edo ohartarazpenei, horiek epailearengana jo ahal izanen dute horiek betearaz daitezzen, uste baldin badute betetze horrek haien kudeaketa hobetu dezakeela.

---

<sup>251</sup> FBko 408-422. legeak.

<sup>252</sup> FBko 136, 262, 272-297, 318, 319. legeak.



## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

Gozamendunak epailearen erabakia betetzerik ez badauka edo ez badu nahi, jabe soilek zilegi izanen dute eskatzea ondasunak entrega daitezen eta gozamina errenta batez ordeztu dadin, 256. legean ezarritako moduan.

Ordezpena haien arteko itunaren bidez ere egin ahal izanen da.<sup>253</sup>

### **261. legea**

#### ***Azkentzea***

Alarguntza-gozamina azkentzen da:

1. Gozameduna hiltzeagatik.
2. Horri eskritura publikoan espresuki uko egiteagatik.
3. Gozameduna beste pertsona batekin ezkontzeagatik, bikote egonkorra osatzeagatik edo ezkonduen moduan bizitzeagatik, salbu eta aurrez hildakoak aurkakorik itundu edo xedatu duenean.<sup>254</sup>

### **262. legea**

#### ***Gozamen-kentzea***

Gozamendunak, jabe soilek hala eskatuta, alarguntza-gozamina galduko du:

1. Epai judizialez gabetua izan bada seme-alaba amankomunen gaineko guraso-erantzukizunaz.
2. Ondasunak besterendu edo kargatzen baditu, salbu eta 253. legeko bigarren apartatuak eta 259. legeko 4. zenbakiak ezarritako kasuetan, eta aurrez hildakoaren itun edo xedapen bidez horretara behar bezala baimenduta ez badago.
3. Orokortasunez urratzeagatik gozamenaren berezko betebeharrak, 259. legean aipatuak.
4. Legeko 1., 3. eta 6. zenbakietan jasotako betebeharretakoren bat etengabe urratzen badu, doloagatik edo zabarkeria astunagatik ez bada, ezen kasu horretan gozamina galdu egingen da, are urraketa puntuala denean ere.<sup>255</sup>

### **263. legea**

#### ***Edukitze berreskuratzeko akzioa***

Fideltasun-gozamina bukatu eta gero, jabe soilek ondasunen edukitze eskura dezakete edukitze berreskuratzeko akzioaren bidez.<sup>256</sup>

### **264. legea**

#### ***Borondatezko aldaketak***

Xedatzailearen borondatez edo itun bidez, zilegi izanen da:

1. Inbentarioa egiteko betebeharretik askatzea, 257. legearen arabera inbentarioa aginduzkoa den kasuetan. Salbuetsi egiten da 3. zenbakian aurreikusitako kasua, inbentarioa legezko ordezkariak edo Fiskaltzak eskatua denean eta epaileak hartan aipatzen diren pertsonen jaraunspen-ondarea babesteko agintzen duenean hori.

---

<sup>253</sup> FBko 256. legea.

<sup>254</sup> FBko 9, 253 azk. par., 421. legeak.

<sup>255</sup> FBko 75. legea.

<sup>256</sup> PZLko 250. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

2. Ahalmena ematea ondasunak besterendu edo kargatzeko.
3. Baimena ematea gozamenari eusteko are gozamenduna berriro ezkontzen denean, bikote egonkorra osatzen duenean edo beste pertsona batekin ezkonduen gisa bizitzen denean.
4. Galdatzea bermea era dadin gozamena egikaritu ahal izateko.
5. Epe, baldintza eta kargak ezartzea, edo zeinahi modutan aldatzea eskubidearen eskuratzea, erabilera, hedatzea, ordeztzea eta azkentzea.
4. eta 5. zenbakietan aipaturiko kasuetan, beharrezkoak izanen dira gozamedunaren baimena eta onarpena.<sup>257</sup>

### **265. legea**

#### ***Analogia***

Baldin edozein pertsonari borondatezko gozamen unibertzala nahiz ondasun zehatzen gainekoa eman bazaio alarguntasun-baldintzari loturik, kapitulu honetako legeak aplikatuko dira, gozamena emateko itun edo xedapenarekin kontraesanean ez dauden neurrian.<sup>258</sup>

### **266. legea**

#### ***Arau subsidiarioak***

Kapitulu honek zehaztu gabeko gaietan, ulertuko da alarguntza-gozamena hirugarren liburuko IV. tituluaren I. kapituluan gozamenari buruz emandako xedapen orokorreari lotuko zaiela.<sup>259</sup>

## **II. KAPITULUA** **Senipartea**

### **267. legea**

#### ***Kontzeptua***

Seniparte nafarra, zeina tradizioz bost alokairu "feble" edo "carlin"ek osatua baita ondasun higigarriei dagokienez, eta herri-mendietako erregu bat lurrez, ondasun higieizinei dagokienez, ondare-eduki galdagarririk gabekoa da, eta ez du jaraunsle-izaerarik esleitzen. Seniparterako izendatuak ez du inolako erantzukizunik izanen jarauntsiko zorren gainean, eta ezin izanen du jaraunsleari dagokion akziorik egikaritu.

Xedatze-egintzan banaka edo taldeka izendatutako senipartedunei "seniparte nafarra" esleitzeak, dela izen bakar horrekin dela antzeko beste batekin, bete egiten ditu hori formalki eratzeko galdakizunak.<sup>260</sup>

---

<sup>257</sup> FBko 253.III, 261.3, 463. eta hurrengo legeak.

<sup>258</sup> FBko 250. legea.

<sup>259</sup> FBko 408-422. legeak.

<sup>260</sup> FBko 148. legea; KZko 9.8. art. NJANaren 21/2008 epaia, abenduaren 1ekoa.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### **268. legea**

#### ***Senipartedunak***

Testamentuan eta oinordetza-itunetan foru-seniparterako izendatu behar dira:

1. Seme-alabak.
2. Halakorik izan ezean, horien ondorengo ahaideak, gradurik hurbilenekoak.<sup>261</sup>

### **269. legea**

#### ***Salbuespenak***

Ez da beharrezkoa foru-seniparterako izendapenik egitea baldin xedatzaileak senipartedunei zuzkidura eman badie, "mortis causa" tituluz edozein eskuzabaltasun esleitu badie, bidezko arrazoi dela-eta horiek jaraunsgabetu baditu, senipartedunok haren jarauntsiari uko egin badiote, edota horiek aurrez hil badira seniparte-eskubidedun ondorengo ahaiderik utzi gabe.<sup>262</sup>

### **270. legea**

#### ***Jaraunsgabetzea***

Jaraunsgabetzeko bidezko arrazoi izanen dira 154. legeko 1., 2., 3., 5. eta 8. zenbakietan jasotakoak, bai eta honako hauek ere:

1. Edozein delitu egitea, kalte bat egitea edo sozialki gaitzesgarria den jokabide bat borondatez gauzatzea kausatzailearen edo horren ondasunen aurka edo kausatzailearen familia-talde edo -erkidegoa osatzen duten pertsonen edo haien ondasunen aurka.
2. Kausatzaileari edo haren ezkontide edo bikotekide egonkorrari edo ondorengo ahaideetakoren bati mantenua bidegabeki ukatzea, hori emateko lege-betebeharra dagoenean.<sup>263</sup>

### **271. legea**

#### ***Preterizioa***

Preterizioaren efektua jaraunle-izendapenaren deuseztasun osoa edo partziala da. Gainerako xedatzei ez die eragiten.

Aurkaratze-akzioa senipartedun preterituak edo horren jaraunleek beste inork ezin du egikaritu. Hori egikaritzen duen preterituak kausatzailearen legezko oinordetzaren bidez legokiokoen jaraunspen-kuota jasotzeko eskubidea besterik ez du izanen.

Ez dira preteritutzat joko notarioaren aurrean egin gabekoak diren testamentuetan aintzat hartuak diren senipartedunak, are senipartean modu formalean izendatuak izaten ez direnean ere.<sup>264</sup>

---

<sup>261</sup> FBko 51, 195, 197, 269. legeak.

<sup>262</sup> FBko 138, 165, 177, 241, 268, 270, 315. legeak. NJANaren 26/2002 epaia, azaroaren 25ekoa.

<sup>263</sup> FBko 195, 276, 309, 311. legeak.

<sup>264</sup> FBko 206-207, 215, 300. legeak. NJANaren 21/2008 epaia, abenduaren 1ekoa.

### **III. KAPITULUA**

#### **Mantenua emateko betebeharra**

##### **272. legea**

###### ***Kausatzailearen seme-alabentzako eta ondorengo ahaideentzako mantenua***

Alarguntza-gozamenari uko egin edo hori azkendu ondoren, edo hori ez bada kausatzailearen bikotekide egonkorrentzat itundu, edo eskubide hori ez bada nahikoa 259. legeko 3. apartatuak aipatzen duen betebeharra betetzeko, kausatzailearen seme-alabek edo ondorengo ahaideek oinordetza gauzatzen denean kontzeptu eta egoera horrengatik eskubidez galdatu ahalko lioketen mantenua eskatu ahalko diete, legearen arabera lehentasunez behartuta dagoen beste inor egon ezean, nori eta titulu unibertsalaren nahiz banakakoaren bidez haren borondatezko oinordeko direnei, jasotako ondare-esleipenaren mugapean eta horren kargura.

Zor den mantenuaren zenbatekoa finkatuko da mantenu-hartzailearen beharrianen eta betebeharpeko diren oinordekoek kausatzailearengandik jasotako ondasunen balioaren arabera, eta halaber izanen dira kontuan hartu beharrekoak mantenu-hartzaileak berak oinordetzaren bidez eskuratu dituen ondasunak.

Kausatzailearen kargurako legezko mantenu-emate betebeharra halaber dagokionean gradu berekoa den beste aurreko ahaide bati, horietako bakoitzak zor duen mantenuaren zenbatekoa proportzionala izanen da kausatzailearengandik oinordetzan jasotako ondasunen balioarekiko eta emate horretara behartuta dagoen beste aurreko ahaidearen baliabide ekonomikoekiko.

Ondare-esleipen horretan oinordekoak direnak kausatzailearen seme-alaba edo ondorengo ahaide ere baldin badira, mantenu-zorra zehazterakoan haien beharrianen propioak ere kontuan hartuko dira eta, bereziki, eratorriak direnak haien adingabetasunetik, jada adin nagusira iritsiak direnen mendekotasun ekonomikoaren iraupenetik edo haien desgaitasun nahiz mendekotasunetik. Aipatu oinordekoek kontzeptu horrengatik zor duten mantenuaren zenbatekoa inola ere ezin izanen da handiagoa izan kausatzailearen seme edo alabetako bakoitzari ondarea berdintasunez zatituz gero idealki egokituko litzaiokeen kuota baino.

Lege honek ezarritakoari jarraikiz zor den mantenua hartzeak ez du eragozten edo baztertzen legez eman beharrekoa den mantenu orokorra gero batean galdatzeko aukera, hori erreklamatzeko zilegitasuna ematen duten baldintzak sortuz edo baldintza horiek iraunez gero.<sup>265</sup>

### **IV. KAPITULUA**

#### **Bigarren ezkontutakoaren erreserba**

##### **273. legea**

###### ***Erreserba egiteko betebeharra***

Berriro ezkontzen den edo beste pertsona batekin bikote egonkorra osatzen duen gurasoa behartuta dago aurreko elkartzean izandako seme-alabei edo horien ondorengo ahaideei erreserbatu eta uztera berak aurreko ezkontidearen edo bikotekide egonkorraren,

---

<sup>265</sup> FBko 52, 90, 91, 94.V, 101, 113, 136, 259, 270. legeak; KZko 9.7 art.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

horrekin izandako seme-alaben edo horien ondorengo ahaideen eskutik dohaineko edozein titulu tarteko dela eskuratu zituen ondasun guztien jabetza.

Betebehar horrek indarrean dirau erreserba-hartzaile den ondorengo ahaiderik existitu artean, nahiz eta erreserbagilea, bere heriotzaren unean, jada ezkondata ez egon edo bikote egonkorrean ez bizi.

Guraso batek bestea salbuetsi egiten badu erreserba egiteko betebeharretik, bigarren guraso hori gero batean beste norbaitekin ezkontzearen kasurako edo guraso horrek beste pertsona batekin bikote egonkorra osatzearen kasurako, salbuste hori deuseza izanen da.

Era berean, deuseza izanen da berriz ezkontzen den edo beste pertsona batekin bikote egonkorra osatzen duen gurasoak egindako edozein xedatze, halakoa non beste edonola urratzen baitu lege honek ezartzen duena.<sup>266</sup>

### **274. legea**

#### ***Xedatzeko askatasuna***

Erreserbatzeko betebeharra duen gurasoak ondasun erreserbagarriak askatasun osoz xeda ditzake seme-alaba edota ondorengo ahaide erreserba-hartzaileen artean. Ondasunak xedatzen ez baditu, erreserba-hartzaileak ondasunon jaraunse izanen dira, legezko oinordetzari buruz ezarritakoarekin bat etorritz.<sup>267</sup>

### **275. legea**

#### ***Erreserba-hartzaileak nortzuk diren zehaztea***

Erreserba-hartzaileak legezko oinordetzarako hurrenkeraren araberako jaraunse izan behar badira, notarioak egindako nabaritasun-aktaren bitartez zehaztu ahal izanen da nortzuk izanen diren.<sup>268</sup>

### **276. legea**

#### ***Erreserba azkentzea***

Erreserba egiteko betebeharra azkenduko da erreserba-hartzaile guztiek beren eskubideari uko egiten diotenean, oinordeko izateko gaitasunik ez dutenean, legez jaraunsgabetuak izan direnean edota erreserbagilea baino lehenago hil direnean, salbu eta aurrez hiltzerako edo ezgaitasuna gertatzen den kasuetarako ordezkaritza-eskubidea.<sup>269</sup>

### **277. legea**

#### ***Ondasun erreserbagarriak besterentzea***

Ondasun erreserbagarri higarri edo higiezinaren gaineko besterentze- edo kargatze-egintzei Kode Zibileko eta hipoteka-legeriako xedapenak aplikatuko zaizkie. Hala ere, baliozkotasuna eta behin betiko eraginkortasuna izanen dute erreserbagileak gauzaturiko

---

<sup>266</sup> FBko 114, 116, 255, 274-278, 303. legeak.

<sup>267</sup> FBko 51, 255, 273, 303. legeak; 5/1987 FLko 3.3 xed. ir. (§4. 3); HLko 168.2., 184-189. art.; HEko 259-265. art.

<sup>268</sup> FBko 255, 300, 303-304. legeak; NEko 209, 209.bis art.

<sup>269</sup> FBko 9, 152-156, 270, 303, 308-311. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

egintzek, baldin eta besterentzea edo kargatzea gauzatzeko unean aurrez hildakoen seme-alaba erreserba-hartzaile edo ondorengo ahaide diren guztien baimenarekin gauzatuak badira.

Ondasun erreserbagarriak besterenduz gero, erreserbapean ondasun subrogatuak egonen dira.<sup>270</sup>

### **278. legea**

#### ***Arau osagarriak***

Kapitulua honetan ezarritako erreserbari aplikatu beharrekoak izanen dira Kode Zibilean eta Hipoteka Legean inbentarioari eta erreserba-hartzaileen bermeei buruz jasotako xedapenak.<sup>271</sup>

## **V. KAPITULUA** **Ondasunak lehengoratzea**

### **279. legea**

#### ***Aurreko ahaideei eskuzabaltasunak lehengoratzea***

Dohaintza-emaileak uko egin ezean, edo kontrako itunik edo xedapenik izan ezean, aurreko ahaideari lehengoratuko zaizkio horrek seme edo alaba edo beste ondorengo ahaide bati dohainik eskualdaturiko ondasunak, baldin seme, alaba edo ondorengo ahaide hori dohaintza-emailea baino lehenago eta ondorengo ahaiderik gabe hil bada. Ondasun horiek besterendu egin badira, lehengoratzek ez du subrogatutako ondasun edo eskubideak besterik ukituko.<sup>272</sup>

### **280. legea**

#### ***Lehengoratzea kasu berezietan***

Kausatzaileak familiarentzako dohaintzaren edo zuzkiduraren bidez eskuratutako ondasunen kasuan, 124. legeak eta 138. legeko c) apartatuak berariaz xedatzen dutenari helduko zaio.

## **XI. TITULUA** **FIDUZIARIO-KOMISARIOAK**

### **281. legea**

#### ***Kontzeptua***

Kausatzailea oinordetza beste modu batean ordenatu gabe hiltzearen kasurako, zilegi du fiduziario-komisario bati testamentuan, ezkontzako kapitulazioetan edo beste eskritura publiko batean ahalmenak eskuordetzea jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsalak izendatzeko, zuzkidurak seinatzeko, legatuak xedatzeko eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat bereziki babesturiko ondare bat osatzeko, eskuordetzeari ezartzen dizkion muga barruan eta titulu honetan xedatuarekin bat

---

<sup>270</sup> FBko 273, 303. legeak; HLko 34, 37, 168.2., 184-189. art.

<sup>271</sup> FBko 303. legea; KZko 977, 978. art.; HLko 168.2., 184-189. art.; HEko 259-265. art.

<sup>272</sup> FBko 148, 280, 302. legeak.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

etorritz. Eskuordetzea ezkontideari, bikotekide egonkorrari edo beste pertsona batzuei egin dakieke, banaka, talde gisa edo modu subsidiarioan; baldin orokorki egin bazaie «ahaideei», ulertuko da Ahaide Nagusiei egin zaiela.

### ***Interpretazioa***

Oinordetza-fiduzian, kausatzailearen borondateari buruzko interpretazioa eta haren integrazioa tokiko ohiturari eta familiaren usadioei egokitu behar zaizkie. Bestelakorik ezarri ezean, hurrengo legeak bete beharko dira.<sup>273</sup>

### **282. legea**

#### ***Eskuordetzea***

Fiduziario-komisarioaren eginkizuna guztiz pertsonala da; baina zilegi izanen da egintzaren exekuzio edo formalizazio hutsa beste pertsona bati eskuordetzea, baldin eta kasuko ahalorde-agirian jasota agertzen bada borondatearen eduki nagusia.<sup>274</sup>

### **283. legea**

#### ***Jarduteko modua***

Fiduziarioak bat baino gehiago badira, gehiengoz hartuko dituzte erabakiak. Ahaide Nagusiak badira fiduziario, 144. legean xedaturikoari helduko zaio.<sup>275</sup>

### **284. legea**

#### ***Gaitasuna***

Fiduziarioak adin nagusiko izan behar du bere eginkizuna betetzean, salbu eta ezkontide edo bikotekide egonkor baldin bada, zeren kasu horretan nahikoa izanen baita testamentua egiteko gaitasuna izan dezan.

Ezkontide batek bestea izendatu badu fiduziario, izendapen hori eraginik gabe geldituko da deuseztasun, banantze edo dibortziorik baldin badago, horretarako demanda aurkezten den unetik.

Bikotekide batek bestea izendatu badu fiduziario, izendapen hori eragingabea izanen da bikotekidearen bizialdian modu fede-emailean egiten den azkentzetik aurrera, salbu eta azkentze hori bi kideak bata bestearekin ezkontzeagatik gertatzen denean; kasu horretan, aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu beharko litzateke.

Ezkontide alargunak edo bizirik dirauen bikotekideak fiduziario izateari utziko dio baldin beste pertsona batekin ezkontzen, bikote egonkorra osatzen edo harekin ezkontuen gisa bizi bada.<sup>276</sup>

### **285. legea**

#### ***Ahalmenak***

Kausatzaileak beste pertsona batzuk izendatu baditu fiduziario, banaka edo ezkontideari, bikotekide egonkorrari nahiz aurreko ahaideei elkarturik, 143. legean Ahaide Nagusiei

---

<sup>273</sup> FBko 123.1, 138, 139. eta hurrengo legeak, 149, 150, 176, 177.II, 180, 236, 241. legeak.

<sup>274</sup> FBko 142, 292. legeak.

<sup>275</sup> FBko 292. legea.

<sup>276</sup> FBko 47, 48, 184. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

buruz xedatuarekin bat etorritz egin beharko dira jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsalaren izendapenak.

Fiduziarioak edozein izanda ere, zilegi dute, izendapenak egin baino lehen, egintza batean edo batzuetan zuzkidurak eta bestelako eskubideak seinalatzea eta entregatzea Etxearen kontura. Seinalamendu horiek ez dakarte inolako eragozpenik jaraunslatzat edo dohaintza-hartzailetzat onuradunetakoren bat izendatua izateko geroago, baldin seinalamenduak egitean ez bada bestelakorik ezarri.<sup>277</sup>

### **286. legea**

#### ***Forma***

Fiduziarioek izendapenak testamentuan edo eskritura publikoan egin behar dituzte; azken kasu horretan, izendapenok errebokaezinak izanen dira, 122. legeko azken paragrafoan xedaturikoari dagokionez izan ezik.<sup>278</sup>

### **287. legea**

#### ***Mendekotasun-egoera***

Fiduziarioak kausatzailearen ezkontidea, bikotekide egonkorra edo aurreko ahaideak izanez gero, beren eginkizuna osorik beteta ez daukaten bitartean administratze- eta xedatze-ahalmenak izanen dituzte oraindik xedatu ez dituzten ondasunen gainean. Fiduziarioak beste batzuk badira, jaraunsi-erkidegoari buruzko erregelak aplikatuko dira deitzen artean, baina horietako bat adingabea bada edo gaitasuna egikaritzeko laguntza-neurriak baditu ezarrita, fiduziarioen adostasuna beharko da xedatze-egintzak gauzatzeko.

### **288. legea**

#### ***Exekutatu ezina***

Baldin eta heriotzaren, uko egitearen, ezintasunaren edo beste edozein kausaren ondorioz fiduziarioek ez badute burutzen jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsalaren izendapena, eta halaber ezinezkoa bada Ahaide Nagusiek izendapen hori egitea, seme-alabek zilegi izanen dute jaraunsle deklaratuak izan daitezen eskatzea, beren adinaren hurrenkeran, edo, halakorik ezean, eta Etxea baldin bada eskualdatuko dena, Etxean bizi diren gainerako ondorengo ahaideetatik zaharrenak; betiere, kasu batean nahiz bestean, ez badira baztertuak izan eta uko ere ez badute egin. Inork ere ez badu halakorik eskatzen, legezko oinordetza irekiko da.<sup>279</sup>

---

<sup>277</sup> FBko 137-138. legeak.

<sup>278</sup> FBko 236.II legea.

<sup>279</sup> FBko 139. eta hurrengo legeak, 156-157, 270, 300. eta hurrengo legeak.



**XII. TITULUA**  
**KONFIANTZAZKO JARAUNSLEAK**

**289. legea**

***Kontzeptua***

Testamentugileak konfiantzazko jaraunsle edo fiduziario izenda ditzake norbanakoak nahiz pertsona juridikoak, eta horiei ahalmenak eman ahal dizkie jarauntsi osoaren edo jarauntsi-zati baten ardura beren gain hartu eta xeda dezaten halako moldez non testamentugileak idatziz edo ahoz sekretupean eman dizkien jarraibideetan adierazita utzi duen erabilera emanen baitiote.<sup>280</sup>

**290. legea**

***Konfiantzaren berri ematea***

Aurkakorik adierazita egon ezean, jaraunsle-fiduziarioa ez da inoiz ere behartuta egonen berak jasotako konfiantzaren berri ematera ez eta berak eginiko kudeatze-lanari buruzko kontuak ematera ere.

Zerga-legerian ezarritako epeen ondorioz fiduziarioak konfiantza deklaratu behar badu, aski izanen da horri buruzko adierazpen generikoa egitea.

Testamentugileak xeda dezake ezen, izendapenaren eraginkortasunari edo jaraunsle-fiduziarioak egindako kudeaketari buruz liskarra sortuz gero, besterik gabeko jaraunsletzat hartua izan behar dela aipatu jaraunsle-fiduziarioa.

**291. legea**

***Izaera***

Konfiantzazko jaraunsleak konfiantza horren berri ematen ez duen artean, jaraunsleari dagozkion eskubide guztiak egikari ditzake. Behin konfiantza adierazi eta gero, jaraunslea testamentugilearen borondatearen betearazletzat hartuko da izendapenera bildutako ondasunei begira; jaraunsle horrek izanen ditu albazeari, kontulari-banatzaleari eta jarauntsiaren ordezkariari dagozkien ahalmen guztiak, eta horiek egikaritu ahal izanen ditu denbora-mugarik gabe, salbu eta testamentugileak horretarako epea zehaztu dionean.<sup>281</sup>

**292. legea**

***Jarduteko modua***

Ez bada besterik ezarri, konfiantzazko jaraunsleek gehiengoz jardunen dute; jaraunsle horiek bi badira, biek multzoan; eta bat bakarrik geratuz gero, bere kabuz.

***Eskuordetzea***

Testamentugileak esanbidezko baimena eman badu, konfiantzazko jaraunsleak, "mortis causa" egintza bidez, bere eginkizuna osorik edo zati batez eskuorde diezaieke beste pertsona bati edo batzuei, dela konfiantzaren berri emanez, dela testamentugilearengandik jasotako jarraibideak modu erreserbatuan jakinaraziz, ahoz edo idatziz.<sup>282</sup>

---

<sup>280</sup> FBko 150, 281, 295. legeak.

<sup>281</sup> FBko 296. eta hurrengo legeak, 340. eta hurrengo legeak.

<sup>282</sup> FBko 282-283. legeak.

### **293. legea**

#### ***Fiduzia jarraitua***

Testamentugileak fiduzia jarraitua ezar dezake, zeina ez baita azkenduko konfiantzaren berri emate hutsagatik edo fiduziarioaren pertsona desagertzeagatik. Fiduzia horretan, ondokoa beteko da:

1. Testamentugileak fiduziaren aldi baterako jarraitutasuna edo jarraitutasun mugagabea ziurta dezake, bai konfiantzazko jaraunslentzat ordezkioak izendatuz, bai ondoz ondoko ordezenak egiteko modua zehaztuz, bai hasierako edo geroko jaraunsl-fiduziarioei ahalmena emanez geroko izendapenak egiteko.
2. Ondasunen gaineko titulartasuna kausatzailearen konfiantzazko jaraunsiari dagokio beti, eta ondoz ondoko fiduziario-aldaketek ez dute ondasun horien eskualdatzerik ekarriko.
3. Testamentugileak beste modu batera ordenatu duenean izan ezik, konfiantzaren berri emateak ez die lehenengo edo geroko fiduziarioei kentzen ordezkiritza judizial edo estrajudizialeko ahalmenik, ezta ondasunen edukitza, administrazioa edo horien gaineko xedapen askea ere, testamentugilearen borondatea betetzea xede.
4. Aurkako xedapenik izan ezean, fiduzia eratzetik eskubide-igurikimenak eratorzen badira pertsona jakinentzat edo aurreikusitako baldintzak betetzen dituztenentzat, horiek erreklamazioa egin ahal izanen diote fiduziarioari.
5. Fiduzia azkentzearen kasurako, testamentugileak zilegi izanen du ondasunen xedea ezartzea nahiz fiduziarioei ahalmena ematea hori zehaztu dezaten. Zehaztapenik izan ezean, oinordetza irekiko da testamentugilearen ahaide hurbilenekoen alde, eta fiduzia azkentzean horiek izanen lirateke haren legezko jaraunslak.<sup>283</sup>

### **294. legea**

#### ***Ordainsaria***

Ulertuko da ezen, baita jaraunsl-fiduziarioak testamentugilearen edozein eskuzabaltasun jaso duenean ere, testamentugileak ahalmena eman diola horri, bestelakorik xedatu ezean, bere lanaren arabera egokituz jotzen duen ordainsaria bere buruari esleitzeko, jaraunsiaren edo horren fruituen kontura.<sup>284</sup>

### **295. legea**

#### ***Oinordetza-itunari aplikatzea***

Titulu honetako xedapen guztiak aplikatuko zaizkio oinordetza-itun bidez izendaturiko fiduzia edo konfiantzazko jaraunsiari.<sup>285</sup>

---

<sup>283</sup> FBko 164, 291, 292, 300. eta hurrengo legeak.

<sup>284</sup> FBko 298, 343. legeak.

<sup>285</sup> FBko 172. eta hurrengo legeak.

**XIII. TITULUA**  
**ALBAZEAK**

**296. legea**

***Ahalmenak***

Kausatzailearen borondatea exekutatzeko izendaturiko albazeek izanen dituzte kausatzaileak eman dizkien ahalmen guztiak; besterik ezarri ez bada, beren kabuz egikaritu ahal izanen dituzte ahalmenok, are ondasun higiezinex xedatzea dakartenean.

***Baztertzea***

Kausatzaileak bestelakorik ezarri ezean, jaraunsleek ahobatezko adostasunez albazearen esku-hartzerik gabe egin dezakete banaketa, albazea horrek kontulari-banatzailerean eginkizunak ere badituenean, ezertan eragotzi gabe kausatzaileak ezarri dizkion gainerako eginkizunak.<sup>286</sup>

**297. legea**

***Motak***

***a) Albazea bereziak***

Albazea bereziek, soilik egintza edo xede zehatz eta jakinetarako izendatuak izanik, ez dute ahalmen gehiagorik izanen esleitu zaien eginkizuna betetzeko beharrezkoak direnak baino.

***b) Albazea unibertsalak***

Albazea unibertsalek, orokortasunez izendatuak izanik, xede zehatz batzuei buruzko aipamenarekin nahiz gabe, ondoko eginkizunak ere izanen dituzte, kausatzaileak espresuki eman dizkien ahalmenez gain, non eta azken horrek ez duen bestelakorik xedatu:

1. Jarauntsiaren edukitza hartzea, eta jarauntsiko ondasunak administratu, inbentarioa egin, kredituak kobratu eta zorrak ordaintzea.
2. Jarauntsia judizialki nahiz estrajudizialki ordezkatzeta, eta prokuradoreak izendatzea, behar diren akzioak egikari ditzaten.
3. Mota guztietako zergak likidatzeko beharrezkoak diren aitortenak egitea, zerga horiek ordaintzea eta bidezkoak diren errekursoak jartzea.
4. Testamentua interpretatzea, bai eta kausatzaileak agindutakoak diren azken nahiaren gainerako egintzak ere.
5. Testamentu olografoak benetakotzeko eta protokoloan jasotzeko eskatzea, bai eta hori beharrezkoa duten gainerako dokumentuak eta testamentuko memoriak ere.
6. Epaietan eustea testamentuaren baliozkotasunari, bai eta kausatzailearen azken nahia jasotzen duten gainerako egintzen baliozkotasunari ere.
7. Hiletari dagokion guztia xedatu eta ordaintzea, kausatzaileak agindutakoarekin bat etorritz edo, halakorik ezean, hiletaren inguruabarren eta tokiko usadioaren arabera.
8. Diruaren edo bestelako ondasunen gaineko legatuak entregatzea.
9. Edozein motatako ondasun higigarriak besterentzea gastu, zor, karga nahiz diru-legatuak ordaintzeko, baldin eta jarauntsian ez badago behar adina dirurik, eta jaraunsleek hori ez badute behar besteko neurrian jartzen.

---

<sup>286</sup> FBko 198, 243, 291, 344, 553. legeak. BJLko 91. art.; HLko 20.IV art. NJANaren 6/2018 epaia, irailaren 26koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

10. Orokorrean, kausatzailearen azken nahia exekutatzea, nahi hori betez eta bete dezaten galdatuz.<sup>287</sup>

### **298. legea**

#### ***Epea***

Albazeek beren eginkizunak beteko dituzte kausatzaileak emandako epean. Kausatzaileak epe hori mugarik gabe luza dezake.

Testamentugileak hasierako eperik edo luzapen-eperik ez badu adierazi, ulertuko da urtebetekoa dela kasu batean zein bestean, eta epearen zenbaketa hasiko da testamentua onartzen denetik edo, kasua bada, testamentuaren edo xedapenaren baliozkotasunari buruzko auziak amaitzen direnetik.

Luzapen hori igaro denean ez bada oraindik bete testamentugilearen borondatea, Justizia Administrazioaren letraduak edo notarioak beste luzapen bat baimendu ahal izanen du, kasuaren inguruabarren arabera beharrezkoa den denborarako.

Jaraunsleek eta legatu-hartzaileek zilegi izanen dute, guztiok ados jarrita, beharrezkotzat jotzen duten denboraz luzatzea albazea-aldia. Adostasuna ez bada guztiena, gehiengoarena baizik, luzapena ezin izanen da urtebete baino gehiagokoa izan.

Ermandadeko testamentuan, testamentugileen albazea amankomunari ezarritako epearen zenbaketa hasiko da, oinordetza bakoitzari dagokionez, kasuan kasuko kausatzailea hil ondorengo onarpen-egunean.

#### ***Ordainsaria***

Albazei ordainsaria emateko, kausatzaileak besterik xedatu ez duenean, tokiko usadioari helduko zaio, edo, halakorik ezean, ekitatezkoa denari.<sup>288</sup>

### **299. legea**

#### ***Ongintza-agintzak jakinaraztea***

Albazeak, kargua onartzen duenetik zenbatutako bi hilabeteko epean, testamentugilearen azken nahian jasotako erruki- edo ongintza-agintzak jakinarazi behar dizkie interesdun diren pertsona nahiz erakundeei edo haiek betetzeko ardura dutenei. Betebehar bera dagokio jarauntsia onartu edo banatzeko eskriturak egiten dituen notarioari, eskritura-egitearen ondorengo bi hilabeteetan.<sup>289</sup>

---

<sup>287</sup> FBko 198, 243, 291. legeak; HLko 20.IV art.

<sup>288</sup> FBko 199. eta hurrengo legeak, 294, 343. legeak.

<sup>289</sup> FBko 241, 245, 255,5, 343. legeak.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### **XIV. TITULUA** **LEGEZKO OINORDETZA**<sup>290</sup>

#### **I. KAPITULUA** **Xedapen amankomunak**

##### **300. legea**

###### ***Kontzeptua***

Legezko oinordetza gauzatzen da noiz eta ez den jarauntsiaren osotasuna edo haren parte bat baliozkotasunez xedatu testamentu bidez, oinordetza-itun bidez edo Konpilazio honekin bat etorrita oinordetza gauzatzeko beste formatatik edozein erabiliz. Legezko oinordetza ez da irekiko 216. legeko kasuan.<sup>291</sup>

##### **301. legea**

###### ***Baztertutako pertsonak***

Legezko oinordetzatik baztertuta geratzen dira beren eskubideari kausatzailearen bizialdian nahiz hura hildakoan uko egin dioten pertsonak.<sup>292</sup>

##### **302. legea**

###### ***Lehengoratzea***

Lehengoratzearen mendeko ondasunei aplikatuko zaizkie, kasuan-kasuan, 124. legearen, 138. legeko c) apartatuaren eta 279. legearen xedapenak.

##### **303. legea**

###### ***Erreserbatzea***

Erreserbapeko ondasunei aplikatuko zaizkie, kasuan-kasuan, 273. legetik 278. legera bitartekoetan jasotako xedapenak.

### **II. KAPITULUA** **Ondasun ez-tronkalen gaineko oinordetza**

##### **304. legea**

###### ***Oinordeko izateko hurrenkera***

Ondasun ez-tronkalen gainean, legezko oinordetza hurrengo dei-hurrenkeraren arabera gauzatuko da; dei bakoitza aurreko deirik ezean egingen da, eta ondorengo guztiak baztertuko ditu:

1. Seme-alabak, norbere ondorengoan aldeko ordezkaritzaren eskubidearekin.
2. Konpilazio honetako 254. legearen arabera alarguntza-gozamenetik kanpo utzita ez dagoen ezkontidea.

---

<sup>290</sup> 21/2019 FLko 11. xed. ir. (ikus §4.5). Ikus, halaber, FBko 4. xed. ir.; 5/1987 FLko 3. xed. ir. (§4. 3).

<sup>291</sup> FBko 148, 288, 293.5. legeak; HLko 14. art. NJANaren 14/1997 epaia, irailaren 20koa.

<sup>292</sup> FBko 9, 156-157, 172, 311, 315-316. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

3. Gradurik hurbileneko aurreko ahaideak. Horiek lerro desberdinetakoak badira, jarauntsia bi lerroen artean erdibanatuko da, eta lerro bakoitzaren barruan, parte berdinetan.
4. Lotura bakarreko zein lotura bikoitzeko anai-arrebak, parte berdinetan; eta aurrez hildakoen ondorengoak, ordezkaritza bidez.
5. Aurreko zenbakian jasotzen ez diren alboko ahaideak, laugarren graduraino, lerro-bereizketarik gabe, gradurik hurbilenekoek urrunagokoak baztertuz, ordezkaritzarik gabe eta betiere parte berdinetan.
6. Aurreko zenbakietan aipaturiko ahaiderik izan ezean, Nafarroako Foru Komunitatea izanen da oinordeko, zeinak, jaraunspeneko ondasun eta eskubideen likidazioa egin ondotik, interes sozialeko xedeetarako erabiliko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan xede horietarako aurreikusia dagoen aurrekontu-zuzkidura handituz.<sup>293</sup>

### **III. KAPITULUA** **Ondasun tronkalen gaineko oinordetza**

#### **305. legea**

##### ***Noiz gertatzen den***

Ondasun tronkalen gaineko oinordetza gertatzen da, 304. legeko 1. zenbakiarekin bat etorritz, ondasun horiek xedatu ez dituen kausatzailea bere jaraunse izanen den ondorengo ahaiderik gabe hiltzen denean.

#### **306. legea**

##### ***Ondasun tronkalak***

Ondasun tronkalak dira kausatzaileak laugarren gradurainoko bere ahaideengandik dohainik eskuratutako ondasun higiezinak edo beste ondasun tronkal batzuekin truke eginda lortutakoak.

Izaera horri utsiko diote atzera-eskuratze jentilizioaren bidez eskuratutako ondasun higiezinek.<sup>294</sup>

#### **307. legea**

##### ***Ahaide tronkalak***

Ondasun tronkalen oinordeko izatera deituak dira ondasunak zein familiarengandik etorri, familia horretakoak diren kausatzailearen ahaideak, ondoko hurrenkerarekin bat etorritz:

1. Gradurik hurbileneko aurreko ahaidea.
2. Lotura bikoitzekoak zein bakarrekoak diren anai-arrebak, norik bere ondorengo ahaideen aldeko ordezkaritza-eskubidea izanen dutela.
3. Gainerako albo-ahaideak, laugarren graduraino, gradurik hurbilenekoek urrunagokoak baztertuz, ordezkaritza-eskubiderik gabe eta zati berdinetan beti; baina,

---

<sup>293</sup> FBko 51, 305, 307, 308. eta hurrengo legeak, 314. legea; ikus 10/2016 FL, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzaren gaineko araubidea eguneratzeari buruzkoa eta 166/1988 FD, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen aldeko legezko oinordetzari aplikatu behar zaion administrazio araubideari buruzkoa; NOFLko 24. art.

<sup>294</sup> FBko 347, 452. eta hurrengo legeak.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

kausatzailearen aurreko ahaide ez-tronkalekin batera suertatuz gero, azken horiek biziarteko gozamina izanen dute ondasun tronkalen gainean, baita berriro ezkontzen edo bikote egonkor berri bat osatzen dutenean ere.

Halako ahaiderik izan ezean, oinordetza 304. legearekin bat etorritz gauzatuko da.<sup>295</sup>

## XV. TITULUA ORDEZKARITZA-ESKUBIDEA

### 308. legea

#### *Kontzeptua*

Ordezkaritza-eskubidea da aurreko ahaide baten lekuan subrogatzekoa, horri jarauntsia edo "mortis causa" erako beste eskuzabaltasunen bat eskuratzeko deitu zaionean eta, aurrez hiltzeagatik edo ezgai izateagatik, ezin izan duenean.<sup>296</sup>

### 309. legea

#### *Noiz sortzen den*

Ordezkaritza-eskubidea gertatuko da kausatzaileak hala ezarri duen guztietan. Kausatzaileak, halaber, zilegi izanen du eskubide hori edozein kasutan baztertzea.

Aurreko ahaide batek egindako jaraungabetzeak ez du bertan behera utziko jaraungabetuaren ondorengo ahaideen ordezkari-tza-eskubidea, non eta hark ez duen bestelakorik xedatu.

Kausatzailearen xedapenik izan ezean, honela gertatuko da ordezkari-tza-eskubidea legezko nahiz borondatezko oinordetzan: haren ondorengo ahaideen alde, mugarik gabe; eta haren anai-arreben ondorengo alde, laugarren graduraino, kausatzailearengandik hasita zenbatuta.<sup>297</sup>

### 310. legea

#### *Leinuk*

Ordezkaritza-eskubidea leinuka gertatuko da beti, nahiz eta eskubide horretan pilatzen diren pertsona guztiak gradu berekoak izan. Leinu bakoitzaren barruan, banaketa zati berdinetan eginen da gradu berekoen artean.

### 311. legea

#### *Baztertzea*

Ez dute ordezkari-tza-eskubiderik izanen jarauntsiari nahiz "mortis causa" erako beste eskuzabaltasun bati uko egin dion pertsonaren ondorengo ahaideek. Hala ere, ondorengo ahaideek beren kausatzailearen jarauntsiari uko egiten badiote, uko horrek ez die eskubiderik kenduko haren ordezkari-tzaz beste ahaide baten oinordeko izateko.

---

<sup>295</sup> FBko 308. eta hurrengo legeak.

<sup>296</sup> FBko 116.V, 152, 170, 202.b), 221, 276, 304, 307, 311, 314, 334. legeak.

<sup>297</sup> FBko 304, 307. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Aurreko ahaide batek egindako jaraungabetzeak ez du baztertuko jaraungabetuaren ondorengoen ordezkartza-eskubidea, hark bestelakorik xedatu ezik.<sup>298</sup>

### **XVI. TITULUA GEHIAGOTZE-ESKUBIDEA**

#### **312. legea**

##### *Noiz sortzen den*

Ordezpenei eta ordezkartza-eskubideari edo xedatzaileak izandako aurkako borondateari kalterik egin gabe, jaraunsleren batek ez badu bere kuota eskuratzen, hori jaraunskideei gehiagotuko zaie, haietako bakoitzak eskuratutako kuotaren proportzioan. Xedatzaileak taldeka ezarri baditu deiak, gehiagotze-eskubidea talde bereko jaraunskideen mesederako gertatuko da eta, halakorik izan ezean bakarrik, gainerakoen mesederako.

Gehiagotze-eskubideari ezin zaio uko egin jarauntsitik berezita. Gehiagotzeak berarekin dakar, orobat, esleitu gabeko kuotari ezarritako zemetan subrogatzea, salbu eta kuota eskuratu ez duen jaraunslak beste inork bete ahalko ez zituen zemetan.<sup>299</sup>

#### **313. legea**

##### *Legatukideen artean*

Ondasun berberetara talde gisa deituak diren legatukideen artean, horien arteko gehiagotze-eskubidea jaraunskideen artean gertatzen den modu berean gertatuko da.<sup>300</sup>

#### **314. legea**

##### *Legezko oinordetzan*

Legezko oinordetzan, jaraunskide batek eskuratu ez duen kuota beti gehiagotuko zaie beste jaraunskideei, salbu eta ordezkartza-eskubidea gertatu behar denean.

Aurreko ahaideen aldeko oinordetzan, gehiagotze-eskubidea lerro berekoen artean gertatuko da, eta, halakorik izan ezean, eta orduan bakarrik, beste lerrokoen alde.<sup>301</sup>

### **XVII. TITULUA JARAUNTSIA ETA BESTE ESKUZABALTASUN BATZUK ESKURATZEA ETA HORIEI UKO EGITEA**

#### **315. legea**

##### *Onartzea eta uko egitea*

Ulertzen da jaraunslak jarauntsia kausatzailearen heriotzatik eskuratzen duela.

Jaraunslak zilegi izanen du jaraunsiari uko egitea, hori esanbidez edo isilbidez onartzen ez duen bitartean; ordura arte, ezin izanen da jaraunslaren aurka inolako

---

<sup>298</sup> FBko 156-157, 301, 316. legeak.

<sup>299</sup> FBko 157, 221, 301, 308-311. legeak.

<sup>300</sup> FBko 240, 241, 412. legeak.

<sup>301</sup> FBko 304, 307, 308-311. legeak.



## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

akziorik egikaritu, ez bazaio alde aurretik errekerimendu judiziala edo estrajudiziala egiten jarauntsia hogeita hamar eguneko epean onar dezan edo horri uko egin diezaion; epaileak zilegi izanen du, jaraunsleak hala eskatuta, epe hori bere sen onaren arabera luzatzea. Epe hori igarotzen bada jaraunsleak uko egin gabe, ulertuko da jarauntsia behin betiko eskuratu dela.

Uko egiteak kausatzailearen heriotza-egunerainoko atzeraeragina izanen du.

Onarpena eta uko egitea errebokaezinak dira, jarauntsi osoari buruzkoak izan behar dira, eta ezin izanen dira eperako egin, ezta baldintzapean ere.<sup>302</sup>

### **316. legea**

#### ***Uko egitearen efektuak***

Norbaitek uko egiten badio kausatzailearen borondatez antolatutako jarauntsiari, haren legezko oinordetzatik baztertuta geratuko da.

Legezko oinordetzari uko egiten dionak borondatezkoari ere uko egiten dio, salbu eta deiaren berririk ez duenean.<sup>303</sup>

### **317. legea**

#### ***Eskualdatze-eskubidea***

Jaraunsleak bere jaraunsleei eskualdatzen die jarauntsia onartu edo horri uko egiteko duen eskubidea: baina jaraunsleok ez dute halako eskubiderik izanen beren kausatzailearen jarauntsiari uko egin badiote. Bat baino gehiago badira, bakoitzak besteeikiko loturarik gabe egikaritu ahal izanen du eskubidea.<sup>304</sup>

### **318. legea**

#### ***“Intra vires” erantzukizuna***

Jaraunsleak erantzukizuna izanen du, jarauntsiko ondasunen balioarekin bakarrik, jarauntsiaren hartzekodunekiko eta legatu-hartzaileekiko; baina hartzekodunei ordaintzean balio hori gairitzen badu, horiek ez dute itzulketa-betebeharririk izanen. Jarauntsiaren hartzekoduntzat hartuko dira, halaber, azken gaixotasunak eta hiletak erakarritako gastuen ondorioz hartzekodun direnak.<sup>305</sup>

### **319. legea**

#### ***Banantze-onura***

##### ***a) Nork eska dezakeen***

Jarauntsiaren hartzekodunek, sei hilabeteko epean, kausatzailearen heriotza-egunetik zenbatuta, epaileari eska diezaioke jarauntsiko ondasunen inventarioa eta banantzea egin ditzan, ondasun horiekin beren kreditu propioak asetzeko, horien lehentasunaren arabera, eta jaraunslearen beraren hartzekodunak baztertuz, harik eta aipatu kredituak

---

<sup>302</sup> FBko 156-157, 242, 301, 311, 316, 320-321. legeak; BJLko 93-95. art. NJANaren 6/2007 epaia, maiatzaren 16koa; 12/2006 epaia, ekainaren 20koa.

<sup>303</sup> FBko 156-157, 301, 311, 321. legeak.

<sup>304</sup> FBko 180, 321. legeak.

<sup>305</sup> FBko 244, 250.IV, 259, 319. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

oso-osorik ordaindu arte. Une horretara arte, ez dira bateratuko jaraunslearen eta kausatzailearen arteko zor eta kredituak, eta kasuko bermeak ere ez dira azkenduko.

Legatu-hartzaileek eskubide hori bera izanen dute, ziurtatzeko bete eginen direla legatuak, hartzekodun horiei ordaindu osteko jarauntsi-gerakinarekin.

### **b) Efektuak**

Jarauntsiko ondasunen banantzeak ondasun horiek atxikiko ditu banantzea eskatu duten hartzekodun eta legatu-hartzaileei lehentasunez ordaintzeko. Epaileak, borondatezko jurisdikzioko prozeduran, interesdunek hala eskatuta eta ezagunak diren hartzekodunei zitazioa eginda, inbentarioa egiteko epea zehaztuko du, eta prebentziozko idatzohar eta enbargoak, jakinarazpenak eta gainerako segurtatze-neurriak dekretatuko ditu.

Banantzea eskatu duten jarauntsiaren hartzekodunei eta legatu-hartzaileei ordaindu ondoren, ordainketa eginen zaie banantzerik eskatu ez duten hartzekodun eta legatu-hartzaileei; horien artean ezarriko den lehentasun-hurrenkera bakarra izanen da beren kredituen izaeragatik edo Hipoteka Legean xedatutakoagatik dagokiena.<sup>306</sup>

## **320. legea**

### **Eskuratzea**

#### **a) Itun edo "mortis causa" dohaintzaren bidez**

Oinordetza-itunaren bidez utzitako jarauntsiaren eskuratzea arautzen du, 178. legean xedatutakoaren arabera, familiarentzako dohaintzei buruz 122. legean ezarritakoak; eta "mortis causa" dohaintzen eskuratzea, 168. legean xedaturikoak.<sup>307</sup>

## **321. legea**

### **b) Legatuak**

Legatuak kausatzailearen heriotza-UNETIK bertatik eskuratuko dira, eta 315., 316. eta 317. legeetan jarauntsia eskuratzearen inguruan xedaturikoa aplikatuko zaie.

Testamentugilearen borondatea bestelakoa izan ezean, aldi berean legatu-hartzaile eta jaraunsle denak jarauntsia onartu eta legatuari uko egin diezaioke; edo legatua onartu, eta jarauntsiari uko egin.

Legatu-hartzailea legatu bat baino gehiagoren hartzailea bada, horietatik batzuei uko egin diezaike eta beste batzuk onar ditzake; baina, xedapen horietakoren bat kargaduna bada, uko egitea edo onartzea baterakoa izan beharko da.<sup>308</sup>

## **XVIII. TITULUA JARAUNTSIA ESKATZEKO AKZIOA**

## **322. legea**

### **Legitimazioa**

Jaraunsleak jarauntsia eskatzeko akzioa du jarauntsiko ondasunen edozein edukitzaileraren aurka, jarauntsiko zordunen aurka edo jarauntsitik irabaziren bat lortu

---

<sup>306</sup> FBko 244, 250.IV legeak; BJLko 93-95. art.; HLko 42.7., 47, 48, 50-58. art.; KLTB.

<sup>307</sup> FBko 315, 321. legeak.

<sup>308</sup> FBko 242, 245. legeak.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

duen pertsonaren aurka, baldin eta horrek demandatzaileari jaraunsle-izaera ukatzen badio.<sup>309</sup>

### **323. legea**

#### ***Edukitzaileak jarauntsiko ondasunak saltzea***

Demandatuak jarauntsiko ondasunak besterendu baditu, ondasun horien truke lorturikoa itzuli beharko du, salbu eta ondasunok fede gaiztoz besterendu dituenean; azken kasu horretan, berak eragindako kalte guztien gaineko erantzukizuna izanen du. Fruitu eta hobekuntzei dagokienez, 362. legea aplikatuko da.

### **324. legea**

#### ***Preskripzioa***

Jarauntsia eskatzeko akzioa preskribatzen da berarekin bateraezina den usukapioaren ondorioz bakarrik.<sup>310</sup>

## **XIX. TITULUA JARAUNTSIA LAGATZEA**

### **325. legea**

#### ***Efektuak***

Jarauntsi-lagapenak ez dio jaraunsle-izaerarik ematen lagapen-hartzaileari. Lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak erantzukizun solidarioa dute jarauntsiko zamen gainean, ezertan eragotzi gabe lagatzaileak duen itzulketa-eskubidea.<sup>311</sup>

### **326. legea**

#### ***Akzioak***

Lagapen-hartzaileak bere kabuz egikari ditzake lagatako jarauntsiaren gaineko akzio guztiak, jarauntsia eskatzeko akzioa barne.

Banaketan lagatzaileak ere esku hartu behar du, bere kabuz edo ordezkari bidez, salbu eta ezintasunaren, absentziaren edo justifikatu gabeko ezezko judizialki deklaratuaren kasuan.<sup>312</sup>

### **327. legea**

#### ***Forma***

Jarauntsiaren lagapena deuseza izanen da, ez bada eskritura publikoaren bidez egiten.<sup>313</sup>

### **328. legea**

#### ***Edukia***

Kontrako itunik izan ezean:

1. Ulertzen da jarauntsia laga dela lagapen-unean zegoen egoera berean.

---

<sup>309</sup> FBko 326. legea; HLko 42.6., 46. art.

<sup>310</sup> FBko 35.b, 37.2, 356. eta hurrengo legeak.

<sup>311</sup> FBko 172, 237, 238. legeak; HLko 46.III art.

<sup>312</sup> FBko 322, 330.2, 345. legeak.

<sup>313</sup> FBko 17.III legea. NJANaren 4/2008 epaia, martxoaren 6koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

2. Lagapenaren barruan sartuko dira lagatzaileak besterendutako ondasunen ordez subrogatu diren diru edo ondasunak, eta jasotako fruituak; baita gehiagotze- eskubidearen ondoriozko gehikuntzak ere.
3. Lagatzaileak erantzukizuna izanen du bere doloaren ondorioz jarauntsiak pairatzen dituen urripen guztien gainean.
4. Lagatzaileak lagapen-hartzaileari galda diezaioke jarauntsiko ondasunen ondoriozko mantentze-gastuak eta nahitaez egin beharrekoak ordain ditzan, baldin eta lagapen- unean horien berri badu lagapen-hartzaileak.
5. Kostu bidezko lagatzaileak erantzukizuna izanen du, lagapen-hartzaileari begira, bere titulartasunaren gainean bakarrik, eta ez du betebeharririk izanen jarauntsiko ondasunen ebikzioarengatik erantzuteko; hala ere, beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatu beharko ditu jarauntsiko ondasunetako bakoitzaren eskualdatzea erabat eraginkorra izan dadin.
6. Dohaineko lagatzaileak, kargadun dohaintza denean edo ordaintze-dohaintza denean, bere titulartasunaren gaineko erantzukizuna izanen du ezarritako kargaren edo ordaindutako zerbitzuaren balioraino bakarrik.<sup>314</sup>

### **329. legea**

#### ***Atzera-eskuratzea***

Jarauntsi indibisoan, jaraunsle batek bere eskubidea prezio baten truke lagatzen badio gainerako jaraunskideez edo zati alikuotaren legatu-hartzaileez bestelako pertsona bati, haiek 372. legean ezarrita dagoen atzera-eskuratze eskubide bera izanen dute.

Jaraunselek eskubide hori ez badute erabiltzen, zati alikuotaren legatu-hartzaileek erabili ahal izanen dute.<sup>315</sup>

### **330. legea**

#### ***Zati alikuotaren legatu-hartzailea***

Zati alikuotaren legatu-hartzaile batek, 219. legearen arabera jaraunse-izaerarik ez duenak, bere kuota lagatzen badu, orduan:

1. Lagapen horri 328. legean ezarritakoa aplikatuko zaio.
2. Banaketa eskatu ahal izanen du, eta bertan esku hartu beharko du, 326. legeak lagatzaile den jaraunsearentzat adierazitako modu berean eta salbuespen berekin.
3. Lagatzailearekin batera legatukideari ere dei egin bazaio, legatukide horrek atzera-eskuratze eskubidea izanen du, eta, legatukiderik izan ezean, jaraunselek erabili ahal izanen dute eskubide hori, 329. legean xedaturikoarekin bat etorriz.<sup>316</sup>

## **XX. TITULUA JARAUNTSIA BANATZEA**

### **I. KAPITULUA Xedapen orokorrak**

### **331. legea**

---

<sup>314</sup> FBko 330.1. legea.

<sup>315</sup> FBko 330.3, 445. eta hurrengo legeak.

<sup>316</sup> FBko 337. legea.

## II. liburua.- Dohaintzak eta oinordetzak

### *Zatiketa-akzioa*

Jaraunsleetatik edozeinek edonoiz galdatu ahal izanen du jaraunsiaren zatiketa, ondoko kasuetan izan ezik:

1. Kausatzaileak indibisio-egoera agindu duenean, dela alarguntza-gozamenaren iraunaldi osorako, dela jaraunserik gazteena adin-nagusitasunera edo emantzipazioa heltzeko falta den denborarako, dela, beste edozein kasutan, hamar urteko gehieneko eperako, heriotzatik zenbatuta.

2. Jaraunsleek hala adosten dutenean, 1. zenbakian arauturiko eperako eta hor adierazitako kasuetako edozeinetan. Zilegi izanen da akordio berri baten bidez epe horiek luzatzea, baina luzapen bakoitza ezin da hamar urte baino gehiagokoa izan.

Nolanahi ere, bi kasu horietan epaileak deklaratu ahal izanen du, zatiketa hori eskatzeko legitimatuta daudenetako edonork eskatuta, indibisio-egoeraren erabilgarritasunik eza funtsatuta dagoela.<sup>317</sup>

### **332. legea**

#### *Kolazioa*

Kolazionatzeko betebeharra egoteaz ez dago presuntziorik.

Kolazioa gertatuko da esanbidez ezarri denean bakarrik, edo, jaraunskide diren ondorengo ahaideei dagokienez, kausatzailearen borondatetik argi eta garbi ondorioztatzen denean. Edozein kasutan ere, borondate hori agerrarazi behar da eskuzabaltasun-egintzan bertan edo bestelako egintza batean zeinaren efektuak onartu egin baititu eskuzabaltasun hori jaso zuen pertsonak.

Kolazionatze-betebehardun eskuzabaltasuna egin denean ere, kausatzaileak betebehara hori kendu ahal izanen du geroko "inter vivos" nahiz "mortis causa" egintza baten bidez.<sup>318</sup>

### **333. legea**

#### *Eskuzabaltasun kolazionaezinak*

Baldin kausatzaileak xedatu badu berak eginiko eskuzabaltasunen kolazioa, ulertuko da horretara ez direla biltzen, esanbidez hala adierazi ezik, elikagai, jantzi eta gaixotasun-tratamenduen ondoriozko gastuak, ohituraren araberako operari xumeak eta hezkuntza, ikasketa edo karreraren ondoriozko gastuak.

### **334. legea**

#### *Kolazioa eta ordezkariak*

Oinordetza-ordezkaritzaren kasuetan, kolazioa bidezkoa bada, horretara bilduko da ordezkariak eskuraturikoa, bai eta horren heriotzaren ondoren ordezkariak jasotakoa ere.<sup>319</sup>

---

<sup>317</sup> FBko 37.4, 234.1, 285, 326, 330.2, 335.I eta II, 375. legeak; PZLko 782. eta hurrengo art.

<sup>318</sup> FBko 148. legea.

<sup>319</sup> FBko 308-311. legeak.

**335. legea**

***Kolazionatzeko moduak***

Kolazioa eginen da, betebeharpekoak aukeratuta, dela eskuzabaltasunaren objektu diren ondasunen ekarpena eginez, dela kausatzailearen heriotzaren unean halako ondasunek duten balioa edo lehenago besterenduek izanen luketen balioa zenbatuz.

Ondasunak berak kolazionatzen direnean, kausatzailearen heriotza-unetik sorturiko fruituak ere zor izanen dira. Ondasunen balioa zenbatzen bada, horren legezko korrituak zor izanen dira, lehen aipatutako unetik aurrera.

Hobekuntzei dagokienez, aplikatuko da 362. legean onusteko edukitzaileari buruz ezarritakoa.

Kolazionatzeko betebeharra duenak ez du erantzukizunik izanen ondasunen galera edo narriaduren gainean, doloz jardun duenean izan ezik.

**336. legea**

***Banaketa hutsaltzea***

Banaketa hutsaldu ahalko da, gauzek adjudikatuak izateko unean zuten balioaren prezio justuaren erdia baino gehiagoko kalteagatik. Hutsaltzea eskatzeko akzioari 31. legean xedaturikoa aplikatuko zaio.<sup>320</sup>

**337. legea**

***Zati alikuotaren legatu-hartzailea***

Banaketaren ondorioetarako, zati alikuotaren legatu-hartzailea jaraunslatzat hartuko da.<sup>321</sup>

**II. KAPITULUA**

**Kausatzaileak egindako banaketa**

**338. legea**

***Formak***

Kausatzaileak bere ondasunen banaketa egin ahal izanen du "mortis causa" erako xedatze-egintzan bertan edo Konpilazio honek heriotza-arrazoiatikiko xedatzeetarako onartzen dituen formatako bat hartzen duen egintza bereizi batean.

Banatzea xedatze-egintzan bertan egiten bada, eta kontraesanik suertatzen bada xedatze-klausulen eta banatze-klausulen artean, azken horiek gailendu egingen zaizkie lehenengoei, kontraesanaren neurrian.

Banatzea egintza bereizian egiten bada, banatze-klausulek ezin izanen dituzte aldatu xedatze-egintzan jasotako klausulak, salbu eta xedatze-egintza hori erreboagarria izan eta banatze-egintza gauzatzeko erabilitako formaren bitartez erreboka daitekeenean.<sup>322</sup>

---

<sup>320</sup> FBko 19.III, 500. legeak.

<sup>321</sup> FBko 219, 330.2, 341. legeak.

<sup>322</sup> FBko 148. legea.

**339. legea**

***Kausatzaileak izendatutako kontulari-banatzaillea***

Kausatzaileak, edozein "mortis causa" egintzatan, kontulari-banatzaile bat edo batzuk izendatu ahal izanen ditu, eta horiek, kausatzaileak ezarritako salbuespenekin, ahalmenak izanen dituzte jarauntsiaren banaketa beren kabuz egiteko; kasua bada, ezkon-sozietatea alargunarekin elkar harturik likidatzeko; eta kausatzailearen ondasunak banatu nahiz horri eskubidez legezkiokkeen ondasunen zatiketari parte hartzeko beharrezkoak diren gainerako ahalmen guztiak.

Testamentugileak kontulari-banatzaillea gaitu dezake modua izan dezan, epaileak banaketari onespena eman edo horretan esku hartzeko beharrik gabe, jarauntsiko ondasun guztiak edo batzuk jaraunslere bati nahiz batzuei adjudikatzeko, eta gainerakoei dagokien kuota diruz ordain edo osa dadila xedatzeko.

**III. KAPITULUA**

**Kontulari-banatzailleak egindako banaketa**

**340. legea**

***Kontulari datiboa***

Kausatzaileak ez badu banaketarik egin, eta kontulari-banatzailerik ere ez badu izendatu edo kargu hori hutsik geratu bada, bai eta legezko oinordetza aplikatzen den kasuetan ere, gutxienez jaraunsi likidoaren erdia ordezkatzeko duten jaraunslere eta legatu-hartzaileak epailearengana jo ahaliko dute, banaketa eginen duen kontularia izenda dezan. Banaketa hori epaileak onetsi beharko du, salbu eta jaraunslere eta legatu-hartzaile guztiak berresten dutenean.

Ulertzen da aurreko paragrafoan xedaturikoak ez diela jaraunslere eta legatu-hartzaile horiei ezertan eragozten notarioarengana joan ahal izatea izendapena lortzera, notariotza-legerian xedatutakoaren arabera.<sup>323</sup>

**341. legea**

***Ezgaitasunak***

Ezin dira kontulari-banatzaille izan jaraunslere, zati alikuotaren legatu-hartzaile, alarguna edo bizirik dirauen bikotekide egonkorra.<sup>324</sup>

**342. legea**

***Inbentarioa***

Jaraunslereatik bat adingabe emantzipatugabea bada, gaitasuna egikaritzeko laguntza-nerriak baditu ezarrita edo horren absentzia-deklarazioa egin bada, kontulari-banatzailleak jaraunslere ondasunen inbentarioa egin beharko du, kausatzaileak hori salbuetsi ezik, jaraunslere, hartzekodun eta legatu-hartzaileei zitazioa eginda.

---

<sup>323</sup> FBko 553. legea.

<sup>324</sup> FBko 337. legea.

### **343. legea**

#### ***Epea eta ordainsaria***

Kontulari-banatzailleen eginkizuna betetzeko epeari buruz, horien ordainsariari buruz eta erruki- edo ongintza-agintzak jakinarazteko betebeharrari buruz, 298. eta 299. legetan xedaturikoa beteko da, hurrenez hurren.

### **344. legea**

#### ***Kontularia baztertzea***

Kausatzaileak bestelakorik ezarri ezean, jaraunsleek aho batez adostuta egin dezakete banaketa, kontulari-banatzaillearen beharrik gabe.

#### ***Kontulari datiboa***

Kausatzaileak ez badu banaketarik egin, eta kontulari-banatzailerik ere ez badu izendatu edo kargu hori hutsik geratu bada, gutxienez jaraunsi likidoaren bi heren ordezkatzan duten jaraunsleek eta legatu-hartzaileek epailearengana jo ahalko dute, banaketa eginen duen kontularia izenda dezan. Banaketa hori epaileak onetsi beharko du, salbu eta jaraunse eta legatu-hartzaile guztiek berresten dutenean.<sup>325</sup>

## **IV. KAPITULUA**

### **Jaraunsleek egindako banaketa**

### **345. legea**

#### ***Banaketa egiteko moduak***

Banaketa ez bada egiten III. kapituluan arauturiko moduetako bat erabiliz, jaraunsleek, aho batez adostuta, komenigarritzat jotzen duten moduan bana dezakete jarauntsia.

Horrela egindako banaketa baliozkoa eta erabat eraginkorra izanen da, epailearen esku-hartze edo onespeneraren beharrik gabe, baldin eta emantzipatu gabeko jaraunse adingabeak legez ordezkaturik badaude banaketan, eta jaraunseleen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko ezarri diren edo ezarrita zeuden neurrietan izendatutako pertsonak jarduten badu.

Jaraunseleen arteko akordiorik ezean, horietako bakoitzak eutsi eginen dio bere eskubideari, eta Prozedura Zibilaren Legean ezarritako moduan egikaritu ahal izanen du. Nolanahi ere, beren desadostasunak bitartekaritza edo erabaki arbitralaren esanetara jarri ahalko dituzte.<sup>326</sup>

---

<sup>325</sup> FBko 296. legea.

<sup>326</sup> PZLko 782. eta hurrengo art. 5/2012 L, uztailaren 6koa, Auzi Zibil eta Merkataritzakoetako Bitartekaritzari buruzkoa. NJANaren 6/2001 epaia, martxoaren 1ekoa.



**III. LIBURUA  
ONDASUNAK**

**I. TITULUA  
GAUZEN JABETZA ETA EDUKITZA**

**I. KAPITULUA  
Printzipio orokorrak**

**346. legea**

***Jabetza pribatua eta publikoa***

Jabetza pribatuko ondasun dira pertsona partikularren, indibidual nahiz juridikoen, ondarean daudenak.

Ondasun publiko dira administrazio publikoei jabari publikoko gisa dagozkienak, horien barne daudela herri-ondasunak eta auzotar guztienak direnak.

Ondare-ondasunak edo “propioenak” dira administrazio publikoenak, jabari publikoko ondasun edo herri-ondasun ez direnak.<sup>327</sup>

**347. legea**

***Ondasun higiezinak eta ondasun higigarriak***

Ondasun higiezin dira finkak eta horien gaineko eskubideak, bai eta, aurkako frogarik izan ezean, horiekin modu banaezinean lotuta dagoen guztia eta horien zerbitzuplean dauden erantsiak ere. Gainerako gauza guztiak ondasun higigarri dira. Fruituak ondasun higigarritzat hartzen dira agerikoak diren unetik aurrera, 354. legeari jarraikiz.<sup>328</sup>

---

<sup>327</sup> EK-ko 132.2 art.; LORAFNAko 45.6 art.; Lagun egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 FLko 3-4. art.; NOFL; 1/2017 LegFD, uztailearen 26koa, Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena; 5/2007 FL, martxoaren 23koa, Nafarroako Errepideei buruzkoa; Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 FLko 5, 8-16. art.; Nafarroako Abelbideei buruzko abenduaren 15eko 19/1997 FLko 4, 7.bis art.; 8/1991 FL, martxoaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatearen Jabetzakoak diren zenbait Mendiren Jabaria Toki Entitate jakin batzuei lagatzeari buruzkoa; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 FLko 97-178. art.; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 1-14. art.; 14/2007 FL, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa. Ikus KArean 40/2018 epaia, apirilaren 26koa. NJANaren honako epai hauek: 3/2013, otsailaren 6koa; 11/2011, ekainaren 22koa; 12/2010, ekainaren 30koa; 6/1997, martxoaren 22koa; 15/1996, urriaren 8koa.

<sup>328</sup> FBko 353, 427. legeak; KZko 10.1 eta 5, 333-337. art.; 19/2019 FL, apirilaren 4koa, Lagun egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzkoa; Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 FLko 18. art. NJANaren epai hauek: 4/2014, apirilaren 10koa; 5/1992, apirilaren 28koa.

**348. legea**

***Finkak ixtea***

Jabe orok du bere finkak ixteko eskubidea, baina errespetatu beharko du finka horien gaineko eskubide errealean egikaritzea.

Finka itxizat joko da pezo-horma edo hormaz, alanbredun sare, palaxuz, oholesiz nahiz beste edozein modutara inguraturik dagoena, baldin eta horretan atea, “langa”, “keleta” edo “kereta” jarri bada, tokiko usadio edo ohiturarekin bat etorriz.

Hesia berrezartzen denean, 368. legean xedaturikoa beteko da.<sup>329</sup>

**349. legea**

***Mugaketa***

Ondasun higiezin baten jabeak eta ondasun horren gaineko eskubide erreale baten titular den beste edonork epaileari eska diezaiokete beren finka mugatu eta horretan mugariak jartzeko. Finka baten ageriko mugei buruz ez bada eztabaidarik izan preskripzio arrunterako ezarritako epean eta baldintzetan, muga horiek ezin izanen dira aipaturiko ondorioetarako berrikusi.<sup>330</sup>

**350. legea**

***Obra berria salatzea***

Jabeak auzotar baten obra berria salatzen badu bere eskubidearen aurkakoa delakoan, eraikitzeak aurrera jarraitu ahalko du, egin behar litekeen eraispenaren edo kasuko kalte-ordainaren gaineko bermea emanaz gero; bestela, helduko zaio obra eteteko sumario-akzioa erabiltzeari buruz Prozedura Zibilaren Legeak xedatzen duenari.<sup>331</sup>

**351. legea**

***Inguruko finka batek eragindako kalteak***

Ondasun higiezin baten edukitzaileak ezin izanen ditu inguruko norbaiten kalterako aldatu bere finkatik igaro diren uren oraingo forma eta ibilbidea.

Nola edo hala beldurra izan badaiteke finka batek inguruko beste batetik kalteak jasan ditzakeela, eta betiere, Administrazioak ez baditu agintzen horiek ekiditekoak diren prebentzio-neurriak, orduan, kalteturik suertatuko dela beldur den jabeak zilegi du honako biak nahiz edozein galdatzea: beste finkaren edukitzaileari, kaltegabetasun-berme bat; eta Administrazio eskudunari, prebentzio-neurriak hartzea.<sup>332</sup>

---

<sup>329</sup> FBko 402. legea; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 242. eta hurrengo art.

<sup>330</sup> FBko 37.4. legea; PZLko 250. artikulua eta hurrengoak; BJLko 104. eta hurrengo art.; NOFLko 53, 56. art.; Nafarroako Abeltzaintzari buruzko abenduaren 15eko 19/1997 FLko 7-8. art.; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 114. art.; Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 FLko 14. art.; HEko 12. art. NJANren honako epai hauek: 21/2005, abenduaren 23koa; 11/2005, irailaren 12koa.

<sup>331</sup> PZLko 250. art.

<sup>332</sup> FBko 367, 394.1. legeak; PZLko 250. art.; ikus 1/2017 LegFD, uztailaren 26koa, Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena. NJANren epai hauek: 4/2017, apirilaren 18koa; 22/2004, urriaren 6koa.

### III. liburua.- Ondasunak

#### 352. legea

##### ***Gauza suntsikorrak***

Gauzak zehazten dira beren banakakotasun berariazkoaren arabera, edo, bestela, gauza horiek partaide diren generoaren kantitatearen arabera. Azken horiei gauza suntsikor deritze.

Gauzak kontsumikorrak dira ezin direnak egokiro erabili, egitatez haiek kontsumitu gabe edo haien gaineko jabetza galdu gabe.

#### 353. legea

##### ***Fruituak***

##### ***a) Orokorrean***

Fruituak gauza nagusiaren jabeari dagozkio. Jabeaz bestelako norbaitek fruituetarako eskubidea badu, fruitu naturalak eskuratzen ditu horiek jasotzean, hurrengo legean xedaturikoa salbu; diru-kopuruak badira, egunean-egunean. Fruituak apartzeroaren bitartez jasotzen badira, fruitu naturalei buruz xedaturikoa beteko da.

Onusteko edukitzaileak jabeari itzuli behar dizkio berak jasotako fruituetatik kontsumitu ez dituenak.<sup>333</sup>

#### 354. legea

##### ***b) Landetan***

Jabea edo fruituetarako eskubidea duen beste pertsona bat behartuta dagoenean fruitu horiek ematen dituen etxaldea edukitzeari uztera, fruituak ageriko fruitu gisa eskuratuko ditu, hurrengo erregelei jarraikiz:

1. Lur zuriko edo zerealak hazteko etxaldea denean, martxoaren 25aren ondoren uzten badio edukitzeari.

2. Mahasti edo olibadien kasuan, ekainaren 24aren ondoren uzten badio edukitzeari.

3. Beste edozein motatako lugintzetan, edukitzeari uzten badio fruituak tokiko usadioen arabera jadanik agerikotzat jotzen direnetik aurrera.

Fruituak edukitzaile hasiberriari badagozkio, edukitzaile izateari utzi dionari ordaindu beharko dizkio lugintzaren eta gainerako lanen gastuak.<sup>334</sup>

#### 355. legea

##### ***Jabetza eskuratzea***

Gauzen gaineko jabetza eskuratzen da "mortis causa" erako xedatze-egintza bidez edo, eskualdaketa justifikatzen duen hitzarmen bat dela eta, jabeak gauza horiek entregatuz. Era berean, eskuratzea gerta daiteke usukapio edo eskuratze-preskripzioaren bitartez, gauza bat beste gauza nagusi baten gauza erantsi bihurtzeagatik eta legearen aginduz.<sup>335</sup>

---

<sup>333</sup> FBko 245, 347, 362, 415, 450, 471, 479, 505, 581. legeak; LELko 27. art.

<sup>334</sup> FBko 347, 415, 450, 479, 505, 581. legeak.

<sup>335</sup> FBko 243, 356, 357, 564, 568. legeak; Lagun egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 FLko 16. art.; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 23. art. NJANaren honako epai hauek: 4/2018, maiatzaren 23koa; 13/2011, irailaren 5koa; 12/2010, ekainaren 30koa; 10/2009, maiatzaren 29koa; 21/2006, abenduaren 22koa; 3/1999, martxoaren 2koa.

**356. legea**

***Usukapioa***

**a) *Epeak***

Ondasun higigarrien usukapioa hiru urtekoa da. Ondasun higiezinena hogei urtekoa da.<sup>336</sup>

**357. legea**

**b) *Baldintzak***

Usukapioaren bidez jabetza eskuratzeko, beharrezkoa da eskuratzailak jabe gisa edukitzea gauza, bidezko arrazoia tarteko dela eta onustez. Edukitza justifikatzen duen arrazoia frogatuz gero, presuntzios uste izanen da edukitza onustekoa dela, eta ez da frogarik onartuko onustea edukitza hasi ondotik galdu izateari buruz. Onustetzat ulertzen da eskubidearen titular gisa edukitza izan ahal izateari buruzko ustea.

***Preskripzio berezia***

Ezin bada frogatu bidezko arrazoirik dagoenik, jabetza eskuratuko da jabe gisa hogeita hamar urteko edukitza baketsua izateagatik.

***Uko egitea***

Nolanahi ere, preskripzio gauzatuari beti ahal izanen zaio uko egin.<sup>337</sup>

**358. legea**

***Entitate publikoen ondasunak***

Estatuaren erakundeengandik edo entitate publikoengandik jasotako gauzak eskuratzeko ez da beharrezkoa denbora-iragaterik.<sup>338</sup>

**359. legea**

***Geldiarazpena***

Usukapioa geldiaraziko da edukitza galtzeagatik, erreklamazio judizialagatik, aribideko usukapioaren aurka judizialki egiteagatik, adiskidetze eskaera bat aurkezteagatik, arbitraje prozedura abiarazteagatik, erreklamazio estrajudizialagatik eta edukitzaileak jabearen eskubidea aitortzeagatik.<sup>339</sup>

---

<sup>336</sup> 21/2019 FLko 1.II. xed. ir. (ikus §4.5). FBko 35.b), 361, 397. legeak. NJANaren epai hauek: 4/2018, maiatzaren 23koa; 11/2011, ekainaren 22koa; 11/2003, apirilaren 1ekoa.

<sup>337</sup> FBko 9, 361, 397. legeak. NJANaren honako epai hauek: 12/2022, irailaren 29koa; 10/2022, irailaren 14koa; 2/2021, maiatzaren 19koa; 3/2017, otsailaren 9koa; 3/2015, urtarrilaren 28koa; 11/2011, ekainaren 22koa; 17/2010, urriaren 28koa; 10/2010, ekainaren 14koa; 11/2009, ekainaren 5ekoa; 22/2008, abenduaren 1ekoa; 9/2008, apirilaren 28koa; 21/2004, urriaren 5ekoa; 19/2004, urriaren 1ekoa; 11/2003, apirilaren 1ekoa; 18/2002, ekainaren 24koa; 1991ko azaroaren 30ekoa.

<sup>338</sup> NOFLko 35. eta hurrengo art.; 6/1990 FL, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 122-140. art.; 33/2003 L, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.

<sup>339</sup> FBko 364, 398. legeak; KZko 1942-1947. art.

**360. legea**

***Eskubide-itxura***

Norbaitek, bere kabuz edo beste inoren bitartez, aurkakotasunik gabe egikaritzen badu berak itxuraz duen eskubide bat, presuntzios uste izanen da eskubide horren titularrak dela, aurkakorik frogatzen ez den bitartean.

***“Abolengo-liburuak”***

“Abolengo-liburuak” froga egiten dute finkaren jabari-titulartasun jatorrizkoari buruz.

**361. legea**

***Edukitzaren gaineko oinordetza***

Jaraunseak jarauntsiko ondasunen edukitza izanen du horien ardura bere gain hartzen duenetik aurrera bakarrik; baina bere alde zenbatu ahalko du, usukapioaren ondorioetarako, kausatzailea edukitzaile izandako epea. Banakako tituluaren bitartezko eskuratzzaileak ere bere alde zenbatu ahalko du kausatzailea edukitzaile izandako epea. Nolanahi dela ere, kasuan kasuko usukapioarentzat beharrezkoak diren edukitzaren betekizunak bete beharrekoak izanen zaizkie kausatzaileari eta kausadunari.

**362. legea**

***Onusteko edukitza***

Edukitako gauza itzuli behar duen onusteko edukitzaileak eskubidea du gauza hori atxikitzeko, gauza horretan egin dituen nahitaezko gastuen eta hobekuntza onuragarrien ordainketa galdatze aldera, gastu eta hobekuntza horiek ezin direnean kitatutzat jo jaso zituen fruituekin. Gauzari erantsi dizkion apaintze hutsezko edo luxuzko hobekuntzei dagokienez, kentzeko eskubidea izanen du gauza nagusitik horren narriadurarik gabe bereiz daitezkeen hobekuntzen gainean bakarrik.

***Gaitzusteko edukitza***

Gaitzusteko edukitzaileak, baldin eta edukitza hori ez badu gauza hori ostuz lortu, zilegi izanen du nahitaezko gastuak erreklamatzeko eta gauzatik modu berean kentzea erabilgarritasunezkoak edo luxuzkoak direnak.<sup>340</sup>

**363. legea**

***Edukitzailea ordezkatzeko***

Edukitza beste pertsona baten bitartekotzaz eskuratu eta atxiki daiteke. Pertsona horrek ordezkari bezala egikaritzen du gauzaren gaineko ahalmena. Hori ezin da hasi jabe gisa gauza pertsonalki edukitzen baldin edukitzaileak ez badio baimen berezirik eman.

**364. legea**

***Edukitza galtzea***

Edukitza galtzen da hori eskualdatu edo bertan behera uzten denean, edota eskubidearen egikaritza gauzatua bertan behera geratzen denean edozein modutan, beste pertsona baten mesedetan. Ondasun higiezin baten ukaitea galduz gero, ulertuko da edukitza

---

<sup>340</sup> FBko 323, 335, 420. legeak; Lagun egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 FLko 15. art. NJANaren 13/2011 epaia, irailaren 5ekoa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

galdu dela beste pertsona batek urtebete eta egun batez ondasun horren ukaite gauzatua izan duenean.<sup>341</sup>

## **II. KAPITULUA** **Jabetzaren mugapenak**

### **365. legea**

#### ***Motak***

Jabetzaren mugapenak legez nahiz borondatez ezartzen dira, hala nola zortasunak edo besteren gauzaren gainean eratutako beste eskubide erreal batzuk.<sup>342</sup>

### **366. legea**

#### ***Gauza auzigaiak***

Gauza auzigaiak ezin dira saldu, dohaintzan eman, ezta, orokorrean, xedatu ere, horretarako eskubidea nork duen deklaratu arte, salbu eta hori egiten denean xedatzailearen jabetza egiaztatzearen baldintza etengarriarekin.<sup>343</sup>

### **367. legea**

#### ***Ondasun higiezinaren gaineko mugapenak***

##### ***a) Printzipio orokorra***

Ondasun higiezinaren jabeek edo beste erabiltzaile batzuek ezin diete beren auzokideei arriskurik sortu, ezta beren eskubidearen egikaritze zentzuzkotik erator daitekeen baino deserosotasun handiagorik jasanarazi ere, kontuan harturik finka bakoitzaren beharrianak, tokiko usadioa eta ekitatea.

##### ***b) Zuhaitzak***

Zuhaitz baten sustraiak alboko finkaren lurlean sartzen badira, finka horren jabeak zuzenean moztu ahal izanzen ditu sustraiok, muga gainditzen duten neurrian. Finkan sarturikoa adarrak izanez gero, zuhaitzaren jabeak horiek moztu beharko ditu, salbu eta finka kaltetuaren jabeak nahiago badu berak zuzenean egin mozketa; kasu horretan, adarrotatik sorturiko fruituak jabeari emanen dizkio eta mozketa onduzko gastuak kobratuko ditu, edo bestela, adarrotatik sorturiko fruituen erdiak berarentzat gordeko ditu kalte-ordain gisa.

---

<sup>341</sup> FBko 33, 36, 243. legeak; PZLko 250.1.4. art.

<sup>342</sup> Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 LegEDko 11. eta hurrengo art.; 1/2017 LegFD, uztailaren 26koa, Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena; Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 FLko 42 bis-42 septies art.; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 6.4, 50.3 art. NJANaren epai hauek: 10/2012, maiatzaren 14koa; 23/2008, abenduaren 4koa; 1/1993, urtarrilaren 22koa.

<sup>343</sup> FBko 502.I legea; HLko 107. art.

### III. liburua.- Ondasunak

#### *c) Larrainak*

Larrainaren jabeak eragotz dezake finka mugakideetan eraikinak egitea, frogatzen baldin badu horiek kalte egiten diotela bere lanari eta bera egiazki ari dela larraina erabiltzen.<sup>344</sup>

#### **368. legea**

##### *Itxiturak berregitea*

Jabeak bere finkako itxiturak berregin edo hobetu nahi baditu, zilegi izanen du horretarako behar duen lurraren erdia finka mugakidean okupatzea; baina lehenagotik ez bada itxiturarik egon, horiek altxatu nahi dituenak osoki bere lurreen jaso beharko ditu, salbu eta jabe mugakidea prest dagoenean bere lurretik beharrezkoa den zatia lagatzeko.<sup>345</sup>

#### **369. legea**

##### *Erlauntzak*

Ezin da erlauntz berririk, «menturahodirik» edo erlekumeak erakartzeko gailu berezirik jarri, berrehun eta hogeita hamabost metroko tartean gutxienez, beste erlauntz okupatu batetik edo finka biztandu batetik neurtuta.<sup>346</sup>

## **II. TITULUA ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ERKIDEGOAK**

### **I. KAPITULUA Printzipio orokorrak**

#### **370. legea**

##### *Eraketa*

Erkidegoak honela eratzten dira:

1. Bi pertsonak edo gehiagok elkarrekin batera ondasun edo eskubide batzuk eskuratzen dituztenean borondatezko edo legezko edozein tituluren bitartez.
2. Gauzaren jabe bakarrak edo eskubide baten titularrak kuota indibisoa besterentzen duenean.
3. Bi pertsonak edo gehiagok amankomunean jartzen dituztenean norbere jabetzako ondasun jakin batzuk, ondasunok beraiei guztiei batera kuota indibisoetan esleitzeko. Amankomunean jarritakoak finka mugakideak baldin badira, horiek batu daitezke finka bakarra eratzeko, eta finka hori erkideena izanen da, haiei kuota indibisoetan esleituta, norberak eginiko ekarpenaren proportzioan.

---

<sup>344</sup> FBko 14, 351, 394,1, 404.II legeak. NJANaren honako epai hauek: 4/2017, apirilaren 18koa; 31/2012, abenduaren 7koa; 3/2007, martxoaren 20koa; 10/2006, maiatzaren 17koa; 12/2004, maiatzaren 3koa; 12/2002, apirilaren 25ekoa; 12/1997, ekainaren 3koa.

<sup>345</sup> FBko 348. legea.

<sup>346</sup> Erlezaintzako Ustiategiak Antolatuzeko Arauak ezartzen dituen otsailaren 22ko 209/2002 EDko 8. art.

**371. legea**

***Araubidea***

Ondasun edo eskubideen erkidegoa bere eratze-tituluak arautzen du, eta, halakorik izan ezean, usadio eta ohiturek, eta titulu honetako xedapenek.

***Erkidego indibisoaren arau ordezkakoak***

Erkidego berezien eta bazkalekuen araubide izanen dira, hurrenez hurren, III. eta IV. kapitulutako xedapenak eta, ordezeko moduan, titulu honetako II. kapitulukoak.<sup>347</sup>

**II. KAPITULUA**  
**Erkidego indibisioa**

**372. legea**

***Xedatze-egintzak***

Jabetza indibisioan, titular bakoitzak bere kuota xeda dezake, gainerako jabekideek bere horretan eutsirik daukaten atzera-eskuratze eskubideari, Kode Zibilean xedatutakoari jarraikiz.

Zortasuna edo beste eskubide zatiezin bat eratu ahal izateko, beharrezkoa da jabekide guztien ahobatezko xedapena; baina eraketa partzialak horren egilea behartzen du eratu nahi izan zuen eskubidearen egitatezko egikaritzea jasatera. Kasu horretan, eskuratzaileak ez badu lortzen gainerako jabekideek eraterik, kontratuaren suntsiarazpena eskatu ahal izanen du.

Jabekide eraketa-egilea gauza osoaren jabe edo eskubide hark benetan kargatzen duen zatiaren jabe bilakatuz gero, eskubide horren eskuratzaileak galdatu ahal izanen du eskubidea osorik era dadila, prezioaren osagarriaren bidez, hori bidezkoa bada.

***Erabiltze- edo administratze-egintzak***

Gauza komuna besterik gabe erabili, administratu edo materialki aldatzeko egintzetan, titular bakoitzak zilegi du judizialki aurka egitea halakoak gauzatu nahi dituenari, eta jadanik gauzaturiko kudeaketa oro eraginik gabe geratuko da, epailearen iritziz erkidegoaren interesetarako kaltegarri den neurrian.<sup>348</sup>

**373. legea**

***Hitzarmenak***

Titularrek erkidegoaren araubidea alda dezakete hitzarmen bidez, eta horrek haien artean sozietate-kontratu gisa balioko du. Hitzarmenik egin ezean, presuntzioa izanen da kuotak berberak direla, erkidegoaren zamei nahiz probetxuei dagokienez.<sup>349</sup>

---

<sup>347</sup> FBko 373. legea.

<sup>348</sup> FBko 329, 330.3, 428, 445, 446. legeak; KZko 1522. art. NJANaren honako epai hauek: 13/2011, irailaren 5ekoa; 9/2007, ekainaren 26koa; 12/2001, apirilaren 14koa; 9/2001, martxoaren 31koa; 3/1998, otsailaren 12koa.

<sup>349</sup> KZko 1665. eta hurrengo art.; HEko 54.1 art. NJANaren epai hauek: 6/2000, martxoaren 10ekoa; 1993ko abenduaren 16koa.



**374. legea**

***Zatigarritasuna***

Erkidego indibisioa edozein unetan zati daiteke, titular batek edo gehiagok hala eskatuta. Dena den, erkidegoaren esanbidezko nahiz isilbidezko akordioari zor zaion onustearen aurka eskatzen denean zatiketa, eginiko kaltea ordaintzeko betebeharra egonen da.

Zatiketa-akzioari aldi baterako uko egiteko ituna baliozkoa da, eta betebeharrean jartzen ditu, jabeak ez ezik, horien kausadunak ere; dena den, ituna eraginik gabe utzi ahalko du epaileak, indibisio-egoeraren erabilgarritasunik ezean funtsaturik. Gauza bera gertatuko da, baldin eta jabetza indibisioaren eratzailak deklaritzen badu jabetza hori zatitu gabe iraunarazteko borondatea. Zatiezintasuna aldi baterakoa dela ulertuko da, laurogeita hemeretzi urte baino gehiagokoa ez denean.

Titularrek itundutako zatiketa aho batez onetsi beharko da. Akordiorik ez badago, zatiketa judizialki egingen da.

1. Gauza bakarra eta zatiezina izanez gero, lehenbizi haren zatiezintasuna deklaratu, tasazio judiziala egin eta jabeak bakoitzak duen eskubidearen balioa zehaztu ondoren, epaileak proposatuko du gauza osoa jabeak bati adjudikatzea, jabeak horrek onartu egiten badu gauza, epaileak horretarako egingen dion errekerimenduaren ondorengo hamar eguneko epean eta tasazio judizialean, eta baldintza etengarria izanik gainerako jabeakideei konpentsazio egokia diruz ordaintzea.

Adjudikazioa balio horretan hartzeko interesa duten jabeak hainbat badira, agerraldi batera joateko deia egingen zaie guztiei, eta ondasuna baliorik handiena eskaintzen duenari adjudikatuko zaio.

Zatiketa judiziala egiteko unean, zilegi izanen da, beharrezkoa izanez gero, ondasuna jabeakideetako batzuei adjudikatzea, gozamina jabeakideetatik bati, eta jabetza soila beste bati; eta zortasunak eratzea zatiketaren ondorioz suertaturiko finken artean.

Adjudikazioa egin badaiteke, adjudikaziodun deklaraturiko jabeak edo jabeek nori bere kuotaren balioaren zenbatekoa ordaindu beharko diete gainerakoei, adjudikazio horren gaineko ebazpena jakinarazi eta hamar eguneko epean. Zenbateko hori ordaindu ondoren, behin betiko adjudikazioa egingen da.

Finkaren gaineko kargak kontuan hartu beharko dira adjudikaziodunak ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, eta adjudikaziodun horrek kargak ezereztu beharko ditu behin betiko adjudikazioaren ondoren.

Adjudikazioa ezin bada egin, epaileak jendaurreko enkantean salduko du gauza, Prozedura Zibilaren Legearekin bat etorriz, salbu eta alderdi guztiek 574. legean aurreikusten den enkantera jotzeko nahia adierazten dutenean.

2. Zaitzen dena ondasun bat baino gehiago bada eta jabeakideetako edozeinek eskatuz gero, sortaka multzokatuko dira, eta sorta bakoitzaren adjudikazioa egingen da ondasun bakarra izanen balitz bezala, aurreko 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Gauza komunaren zatiketak ez du eraginik izanen horretan parterrik izan ez dutenen eskubide errealetan.<sup>350</sup>

---

<sup>350</sup> FBko 37, 331, 396, 409. legeak; 1/2002 FL, martxoaren 7koa, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa; HLko 123. art.; HEko 46. art. NJANaren honako epai hauek: 7/2014, ekainaren 5koa; 3/2011, martxoaren 7koa; 8/2008, apirilaren 10koa; 8/2007, ekainaren 22koa; 22/2002, irailaren 27koa; 6/2001, martxoaren 1ekoa.

**375. legea**

***Beste eskubide batzuen gaineko erkidegoa***

Aurreko legeen erregelak aplikatuko zaizkio beste eskubide zatigarri batzuen gainean eraturiko erkidegoari.

**III. KAPITULUA**  
**Erkidego bereziak**

**376. legea**

***Osagai amankomunak***

Ahobatezko akordiorik ezean, erkidegoa badago finka bat baino gehiagoren zerbitzura dauden elementuen gainean, hala nola mehelin-zeregina betetzen duten pareta, murre, hesi edo itxurak, bai eta ezpondak, errotak, labeak, larrainak, putzuak, noriak, erretenak edo antzekoak, erkidego hori zatiezina izanen da, eta erkidegoko kideetatik inork ere ezin izanen du bere zatia xedatu elementu horiek zerbitzatzan dituzten finketatik berezita.

Presuntzios uste izanen da eraikinen osagai amankomun direla hiri-finken arteko baoak, “belena” edo “etxeoarte” izenaz ezagutzen direnak, zeinak eraenduko baitira lege honetan eta 404. legeko bigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera.<sup>351</sup>

**377. legea**

***Amankomuneko erkidegoa***

Amankomuneko erkidegoa ohituraz eratu edo eratzailen borondatez ezarri bada, zatiezina izanen da, auzotar guztiei badagokie. Bestela, hori zatitzeko ezinbestekoa izanen da erkide guztien ahobatezko akordioa.

Auzotar bakoitzari erkidegoan dagokion zatia xedaezina da, salbu eta kasuko entitate publikoak hori interes orokorren mesedetan eskuratzen duenean. Horretarako, beharrezkoa izanen da auzotar gehienak ados egotea.

Gainerako kasuetan, bere zatia xedatu nahi duen erkideak gainerako titular guztien baimena beharko du.

**378. legea**

***Erkidego solidarioa***

Jabetzaren edo edozein eskubide errealean gaineko erkidegoa, zenbait titularren aldekoa, solidarioa izanen da, horren eraketa-tituluak hala ezarri duenean. Erkidego solidarioan, erkide bakoitzak bere kabuz egikari dezake eskubidea bete-betean, bai eta hori osorik xedatu ere, ezertan galarazi gabe gainerako titularrei begira duen erantzukizuna.

---

<sup>351</sup> KZko 571. art. NJANaren honako epai hauek: 11/2013, uztailaren 29koa; 21/2012, uztailaren 2koa; 17/2011, urriaren 4koa; 10/2010, ekainaren 14koa; 3/2010, martxoaren 1koa; 17/2009, azaroaren 3koa; 22/2008, abenduaren 1koa; 2/2006, otsailaren 14koa; 19/2005, abenduaren 20koa; 4/2004, otsailaren 17koa; 2/2003, urtarrilaren 17koa.

**IV. KAPITULUA**  
**"Bazkalekuak"**

**379. legea**

***Kontzeptua***

Salbu eta "bazkaleku" hitza huts-hutsik finka baten edo finka-multzo baten izaera edo xedea adierazteko erabiltzen denean, "bazkaleku" gisa ulertzen da, dela besterena den finka baten gaineko aprobetxamendu partzialeko eskubidea, dela jabariaren titular batzuen pilaketaz eraturiko erkidego zatiezin bat zeinean titular horietako bati edo batzuei esleitzen baitzaizkie bazka, belarrak, urak, egurra, ereintzak edo antzeko aprobetxamendu bereziak. Eskubide berezi horiek "inter vivos" nahiz "mortis causa" eskualda daitezke.

"Bazkalekuak" herri-finken gain eratu badira, presuntzios uste izanen da lurzoruaren jabetza toki-erakundeari dagokiola, aurkakoa suertatzen denean izan ezik.<sup>352</sup>

**380. legea**

***Araubidea***

"Bazkalekuak" eraentzen dute tituluak eta usadioek, eta, halakorik ezean, tokiko ohiturak edo ohitura orokorrak. Horietatik ez bada bestelakorik eratoritzen, titular bakoitzak zilegi izanen du bere aprobetxamendua erabiltzea gainerako titularrei dagokien luperketak ahalbidetzen duen neurri osoan.<sup>353</sup>

**381. legea**

***Ohiko mugapenak***

Kontrako itun, usadio edo ohiturarik izan ezean, ulertuko da «bazkalekuak» gaineko bazka-eskubidea mugatuta dagoela uztak bilduta dauden denborara, eta eskubide hori egikaritu beharko da "urgainak" eta "zuhain-lurrak" errespetatuz.

**382. legea**

***Luditzea***

"Bazkalekuak" luditu ahal izanen dira:

1. Partaideen ahobatezko borondatez.
2. Herri-finkak kargatzen dituztenean, toki-erakundearen borondatez.
3. Gainerako finken kasuan, epaileak auzibidezko epailetan erabakitzen duenean eskubide horiek beren horretan segitzeak finka horietan neurri handian oztopatzen duela finken izaeraren arabera izanen diren laborantza edo ustiapen arrazionala egitea.

---

<sup>352</sup> Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 141-173. art.; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 19. art.; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 152-216. art. NJANaren honako epai hauek: 2/2011, otsailaren 18koa; 12/2008, ekainaren 2koa; 25/1995, abenduaren 28koa; 1991ko abenduaren 17koa.

<sup>353</sup> FBko 14. legea. NJANaren epai hauek: 10/2004, martxoaren 31koa; 25/1995, abenduaren 28koa.

4. Eta, edozein kasutan, bazkaleku-eskubidedunek errefusatzan dituztenean finketan hobekuntza-asmoz egiten diren aldaketak, osoki edo partzialki bateraezinak direnean “bazkaleku” eskubidearen erabilerarekin.

Hirugarren eta laugarren zenbakietan aipaturiko kasuetan, luditzeagatik ordaindu beharreko kapitala zehaztuko da kontuan harturik aprobetxamenduen balioa eta luditzeak lurraren jabeari dakarkion onura. Epaileak egoki deritzenean, zilegi izanen du zenbatespenaren pagamendua ordeztzea lurraren jabetza adjudikatzearekin.

Herri-ondasunak badira, luditzearen kapitala zehaztuko da kontuan hartuz aprobetxamenduak eskubidearen titularrentzat luditzearen gauzatze-unean duen balioa huts-hutsik.<sup>354</sup>

### **383. legea**

#### ***Atzera-eskuratzea***

Titularretakoren batek bere eskubidea besterentzen badu, partaideek zilegi izanen dute erkidegoko kideen arteko atzera-eskuratzea egikaritzea; eta, pilaketa-kasuan, lehentasuna izanen du besterendutakoaren izaera bereko aprobetxamendu baten titular den atzera-eskuratzaileak.

Finkaren lurzati zehatz baten gaineko landatze-eskubidea besterentzen denean, atzera-eskuratze lehentasuna emanen zaio hedadurarik handieneko lurzatiaren gaineko landatze-eskubidea duenari.

Herri-ondasunen gainean eraturako bazkalekuei dagokienez, atzera-eskuratze eskubidea toki entitateak baino ezin izanen du erabili.<sup>355</sup>

## **V. KAPITULUA**

### **“Fazeriak”, “iralekuak”, “kontzeju-jabaria” eta “kanpoko auzotartasunak”**

### **384. legea**

#### ***“Fazeria”***

“Fazeria” da jabetza publiko edo pribatuko finka batzuen arteko elkarrekiko zortasun bat.

“Fazerien” araubidea osatzen dute kasuan-kasuan ezarritako tituluak, itunek edo hitzarmenek, haiei buruz Konpilazio honek jasotzen dituen xedapenek eta, aurreikusitako gabe dagoen orotan, zortasunetarako edo, kasua bada, erkidegoetarako xedaturikoak.<sup>356</sup>

### **385. legea**

#### ***Ohiko mugapenak***

“Fazeria” izenekoetan abelburuek bazka egin dezakete argi hastetik ilundu arte fazeriako eremuan, baina abelburuok ezin izanen dira hurbildu ereindako lurretara edo biltzeke dauden fruituak dituzten lurretara.

---

<sup>354</sup> FBko 387, 390, 392, 444. legeak; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 119.1 art.; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 152. eta hurrengo art. NJANaren epai hauek: 2/2011, otsailaren 18koa; 15/1994, urriaren 17koa.

<sup>355</sup> FBko 372.I, 387, 445-450. legeak.

<sup>356</sup> FBko 372-375, 393-407. legeak.

**386. legea**

**“Fazeriako erkidegoa”**

“Fazeriako erkidegoa” da zenbait jabari-titularrek elkar hartu eta aprobetxamendu solidario jakin baterako eraturiko erkidegoa, zeina 377. eta 378. legeek xedatzen dutenari lotuko baitzaio, kapitulu honetan ezarrita dagoenarekin kontraesanean ez dauden heinean.

**387. legea**

**Zatigarritasuna**

“Fazeriako erkidegoa” zatigarria da, salbu eta epe zehatz baterako eratua denean edo denbora mugagaberako zatiezin gisa eratu denean; azken kasu horretan, salbuespenez bakarrik zatitu ahal izanen da, epailearen ustez larriki kaltegarria denean zatitugabetasun-egoerari eustea.

“Fazeriako erkidegoak» toki entitateen artekoak badira, eta horietako bakoitzaren kuota edo ekarpenak ez badira zehaztuta ageri, orduan, bestelako erregela aplikagarririk izan ezean, irizpide gisa helduko zaio entitate bakoitzak zatiketa eskatzen den unean duen auzotar kopuruari.

**Atzera-eskuratzea eta luditzea**

“Fazeriak” eta “fazeriako erkidegoak” luditzeari eta haien atzera-eskuratzeari buruz, 382. eta 383. legeek “bazkalekuei” buruz xedaturikoari helduko zaio.<sup>357</sup>

**388. legea**

**“Iralekuak”. Kontzeptua**

“Iraleku” adieraz-moldearekin, presuntzioz ulertzen da izen horretara biltzen dela auzotarrek herri-mendietan berez sorturikoak diren iratzeak aprobetxatzeko duten eskubidea, finken titulartasun pribatuari buruzko aurkako frogarik ez dagoeneko.<sup>358</sup>

**389. legea**

**Ohiko mugapenak**

Aprobetxamenduaren jabeak ezin du iralekuan itxitura, landaketa edo ereiterik egin, ezta lurraren jabeak aprobetxamenduarentzat kaltegarri den ezein egintzarik gauzatu ere.<sup>359</sup>

**390. legea**

**Atzera-eskuratzea eta luditzea**

“Iralekuak” luditzeari eta atzera-eskuratzeari dagokienez, 382. eta 383. legeek “bazkalekuei” buruz xedaturikoari helduko zaio.

---

<sup>357</sup> FBko 373, 374. legeak.

<sup>358</sup> Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 118, 173. art.; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 33, 216. eta hurrengo art. NJANaren honako epai hauek: 12/2022, irailaren 29koa; 9/2010, ekainaren 3koa; 6/2010, apirilaren 23koa; 7/2005, ekainaren 14koa; 14/1992, azaroaren 3koa.

<sup>359</sup> FBko 14, 348. legeak.

**391. legea**

**“Kontzeju-jabaria”**

Erronkariko Iboxaren Batzordearenak eta Zaraitzuko Iboxaren Batzordearenak diren baso-ondare eta beste edonolako jabetza, aprobetxamendu edo eskubideak, baldin xede badute haran horietako auzotarren beharrian kolektiboak asetzea, «kontzeju-jabariakoak» dira. Jabari hori arautuko dute ordenantzek, zilegitasunez hartutako erabakiek, hitzarmenek eta tokiko ohiturek. “Kontzeju-jabaria” zatiezina da.

Iboxaren Batzordeari dagozkio administratze- eta xedatze-ahalmen guztiak, eta horiek egikaritu beharko ditu haranak nahiz bertako auzotarrek dituzten zuzeneko nahiz zeharkako beharrian eta komenentziak aintzat hartuz.<sup>360</sup>

**392. legea**

**“Kanpoko auzotasuna”**

Toki-erakundeek “kanpoko auzotasun” gisa eman badute herri-ondasunen luperketan parte hartzeko eskubidea, are administrazio-tituluz eratua denean ere izaera zibila du eta eskubide erreala da, ezertan eragotzi gabe administrazio-legeriak herri-ondasunetarako ezarritakoa, aplikatzekoa den heinean.

“Kanpoko auzotasunarekin” kargatuta dauden herri-lurrak dituzten toki entitateek zilegi dute lurrok kargetatik luditzea, 382. legean bazkalekuetarako ezarritakoarekin bat etorritz.

“Kanpoko auzotasuna” besterentzen bada, toki entitateak eskubidea du hori auzotarren erkidegoarentzat atzera-eskuratzeke. Epeei dagokienez, eskubide hori arautuko du 458. legean atzera-eskuratze jentilizioari buruz ezarritakoak, eta lehentasuna izanen du horren gainetik. Truke kasuan, auzotasunaren balioa zehaztuko da alderdiek –bakoitzak bat–izendaturiko bi adituren tasazioa erabiliz, eta, desadostasunik egonez gero, hirugarren aditu baten tasazioa erabiliz, haien adostasunez aukeratua edo, adostasunik izan ezean, epailearen erabakiz.<sup>361</sup>

**III. TITULUA  
ZORTASUNAK**

**393. legea**

***Kontzeptua***

Zortasunak dira finka baten gain ezarritako eskubide errealak, mugakide den edo inguruetan dagoen beste finka baten onurakoak. Zortasunon bitartez, haren erabilera zehatz bat egikaritzen da, edo jabearen ahalmenetako edozein mugatzen da.<sup>362</sup>

---

<sup>360</sup> Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 3, 45. art.; 13/1990 FL, abenduaren 31koa, Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzkoa.

<sup>361</sup> FBko 445-450. legeak; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 119.2 art.; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 4-6, 141. eta hurrengo art.

<sup>362</sup> NJANaren epai hauek: 1/2014, urtarrilaren 29koa; 10/2006, maiatzaren 17koa.

**394. legea**

***Bereizketa***

Ez dira zortasun:

1. Auzotasunagatiko lege-mugapenak.
2. Pertsona batentzat besteren finkaren gain ezarritako erabiltze- edo aprobetxatze- eskubideak, finken arteko edozein harremanez kanpokoak. Eskubide horiek arautuko dira liburu honetako IV. tituluaren II. kapituluaren ezarritakoari heldurik.<sup>363</sup>

**395. legea**

***Ezaugarriak***

Zortasun-eskubidea ezin da zatitu edo banandu finka nagusitik, eta izaeraz iraunkorra da, epe edo baldintzapean eratu ez denean. Baldintzapean eraturikotzat joko dira bai etorkizunean eraiki edo eraitsiko diren ondasun higiezinaren gaineko zortasunak, bai eta eduki gisa etorkizuneko erabileraren bat dutenak ere.<sup>364</sup>

**396. legea**

***Eraketa***

Zortasunak "inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bidez era daitezke, bai eta zatitze-epaiketan egindako adjudikazio judizialaren bidez edo banaketa-egintzaren bidez.

Eratze-egintzan ez bada argi zehaztu zein den zortasunaren edukia, zehaztaper hori eginen du, interesdunen arteko akordiorik ezean, eratzailak horretarako ahalguzatu duen pertsonak edo, halakorik izan ezean, epaileak, zeinak kontuan hartuko baititu ageriko zeinuak, finken inguruabarrak eta tokiko usadioak.<sup>365</sup>

**397. legea**

***Preskripzioa***

Zortasunak eskuratzen dira ondasun higiezinaren preskripzio arruntaren bidez edo preskripzio bereziaren bidez. Epearen zenbaketa hasiko da, zortasun positiboetan, lehenbiziko egitaritze-egintzatik; ageriko zortasun negatiboetan, zortasun-zeinuak agertzen direnetik; eta, ez-ageriko zortasun negatiboetan, formalki debekatzen denetik zortasunak eragotziko lukeen egintza.

Nolanahi ere, preskripzio gauzatuari beti uko egin ahal izanen zaio.

***Epe luzea***

Kasu guztietan errespetatuko da ageriko zortasun baten erabilera, haren aspaldidaniko baliatze liskargabeari irizten zaionean iraun ahal duela kalterik egin gabe baliatze hori pairatzen duen finkari.

Era berean, zortasuntzat hartuko dira jabe berberaren finken artean ageriko zeinuarekin ezarritako zerbitzuak, finka horien gaineko jabetza banandu egiten denean "inter vivos" egintzen bidez nahiz haren azken nahiaren egintzen bidez, baldin eta banantzea

---

<sup>363</sup> FBko 351, 365, 367, 369, 423-426. legeak. NJANaren epai hauek: 10/2006, maiatzaren 17koa; 10/1996, maiatzaren 6koa.

<sup>364</sup> NJANaren 7/2004 epaia, martxoaren 2koa.

<sup>365</sup> FBko 372.II, 374, 378, 428.6 legeak; HLko 13.2. art. NJANaren honako epai hauek: 2/2017, otsailaren 6koa; 1/2014, urtarrilaren 29koa; 15/2002, ekainaren 6koa; 4/1991, irailaren 19koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

gertatzean zeinuak bere horretan badirau eta xedatze-tituluak ez badu zortasuna esanbidez bazterten.<sup>366</sup>

### **398. legea**

#### ***Preskripzioa geldiaraztea***

Preskripzioa geldiaraziko da erreklamazio judizialagatik, ondasunaren titularrak aribideko preskripzioari judizialki aurka egiteagatik, adiskidetze eskaera bat aurkezteagatik, arbitraje prozedura abiarazteagatik, auzibidetik kanpoko erreklamazioagatik eta egintza eragozle bat formalizazteagatik edo debekuzko zeinu nabaria egoteagatik.<sup>367</sup>

### **399. legea**

#### ***Legez eratu edo aldatzea***

Lege batek zortasun bat eratzera edo aldatzera behartzen badu, onuradun suertaturiko finkaren titularrak hori galda dezake halako moldez non eratze edo aldatze hori zamarik txikiena sortzeko modukoa izan dadin jasan behar duenarentzat; eta, betiere, bidezko kalte-ordaina aldez aurretik emanda. Hitzarmenik izan ezean, zortasunaren eratzea edo aldatzea epailearen edo Administrazioaren erabakiz eginen da, kasuaren arabera. Eskubide bera izanen du enklabe-finka baten jabeak, bide-zorra eratzekoa zortasun horrek zamarik txikiena sortzen duen etxaldeetan.<sup>368</sup>

### **400. legea**

#### ***Zortasuna areagotzea***

Bide-zorra ez-nahikoa bilakatzen bada finka nagusiaren beharrianak asetzeko, finka nagusiaren jabeak zilegi izanen du zortasuna areagotzeko eskatzea, beharrian horiei erantzuteko premiazkoa den neurrian; betiere, zortasunpeko finkaren egoerak modua ematen duenean hori kalte larririk gabe egiteko, eta bidezko kalte-ordaina tarteko.<sup>369</sup>

### **401. legea**

#### ***Zortasuna aldatzea***

Zortasunarekin kargaturiko finkaren jabeak ezin dio zortasunaren erabilerari kalterik egin; baina, zortasunak ukituriko finka-zatiaren erabateko eskuragarritasunaren premia

---

<sup>366</sup> FBko 9, 356, 357. legeak. NJANaren honako epai hauek: 4/2020, azaroaren 5ekoa; 6/2015, maiatzaren 18koa; 11/2009, ekainaren 5ekoa; 22/2008, abenduaren 1ekoa; 7/2008, apirilaren 9koa; 7/2004, martxoaren 2koa; 11/2003, apirilaren 1ekoa; 18/2002, ekainaren 24koa.

<sup>367</sup> FBko 359. legea; PZLko 410. art.

<sup>368</sup> FBko 396, 400, 401. legeak; Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 FLko 29. art.; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailearen 26ko 1/2017 LegFDko 81. art. NJANaren honako epai hauek: 8/2022, uztailearen 15ekoa, 2/2019, otsailaren 13koa; 2/2017, otsailaren 6koa; 1/2014, urtarrilaren 29koa; 17/2007, abenduaren 14koa; 15/2002, ekainaren 6koa; 4/1991, irailaren 19koa.

<sup>369</sup> NJANaren epai hauek: 6/2015, maiatzaren 18koa; 17/2007, abenduaren 14koa.



### III. liburua.- Ondasunak

taxuzkoa daukanean, zilegi izanen du auzibidez eskatzea zortasunaren forma alda dadila, baldin eta zortasunaren titularrari ez badio horrela kalterik egiten.<sup>370</sup>

#### **402. legea**

##### ***Larreak***

Larreak. Bazka-zortasunarekin kargaturiko finkaren jabeak zilegi izanen du finka ixtea, baina bidea, "langa", "keleta" edo «kereta» zabaldu beharko du, lursail nagusiko abelburuei sarbidea emateko.<sup>371</sup>

#### **403. legea**

##### ***Argi-bistak***

Argi-bisten zortasunek beren titularrari eskubidea ematen diote titularrak bere horman irekiguneak izateko, modua ematen diotenak zortasunpeko finkatik argia jasotzeko edo haietatik begiratzeko. Halako zortasunek zortasunpeko finkaren jabeari ez diote uzten horma edo hegalkinetik hiru metro baino gutxiagoko distantzia eraikitzen, horrekin argiak edo bistak urritzen edo oztopatzen diren neurrian.

#### **404. legea**

##### ***Argiak hartzeko zuloak***

Finka baten jabeak, alboko finkarekin mugakide den horman, 0,80 metrorainoko irekiguneak egin ditzake, edo kana beteko zabaleradun laukikoak, kana horren neurria ezberdina denean tokiko usadioaren arabera. Irekigune horiek estalita egon behar dira hormara jositako burdin barraz eta sare metalikoz, salbu eta erabilerek bestelako eraikuntza-soluzioak ahalbidetzen badituzte, haietan zehar alboko finkaren ikuspegia izatea eragozten dutenak. Irekigune horiek itxi ahal izanen dira alboko finkan eraikina egiten denean, eta ez dira ageriko zortasunaren zeinuzat hartuko preskripzioaren ondorioetarako.

Jabe bati baino gehiagori dagozkien "belena" edo "etxeokarte" amankomunetan, jabe horietatik edozeinek zilegi izanen du bere horman hegalkinik gabeko irekiguneak egitea, gainerako jabeek eragozpenik ez ekartzearen mugapenarekin.<sup>372</sup>

#### **405. legea**

##### ***Zortasunpeko finkaren jabeak dituen betebeharrak***

Zortasunek ahalmena ematen badute besteren horma edo egituren bat eraikin baten euskarri gisa erabiltzeko, zortasunpeko finkaren jabeak bere kontura egin behar ditu zortasunpeko egituraren sendotasunari eusteko beharrezkoak diren konponketak. Gainerako zortasunetan, zerbitzuaren erabilera onerako beharrezkoak diren obrak egitea jasan behar du.

---

<sup>370</sup> NJANaren honako epai hauek: 1/2011, urtarrilaren 25ekoa; 17/2010, urriaren 28koa; 11/2009, ekainaren 5koa ; 4/1991, irailaren 19koa.

<sup>371</sup> FBko 348. legea.

<sup>372</sup> FBko 14, 367, 376. legeak. NJANaren honako epai hauek: 11/2013, uztailaren 29koa; 10/2012, maiatzaren 14koa; 10/2010, ekainaren 14koa; 6/2008, apirilaren 2koa; 1994ko apirilaren 29koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

### ***Bertan behera uzte askatzailea***

Zortasunpeko finkaren jabeak zilegi izanen du, zortasunaren titularraren mesedetan finka abandonatuz, aske geratzea aurreko paragrafoan aipaturiko betebeharretik eta berak espresuki hartua duen beste konponketa-betebehar orotatik.

### **406. legea**

#### ***Az kentzea***

Zortasunak az kentzen dira haien titularrak haiekiko ukoa formalizatzen duenean ondasun higiezinaren gaineko xedatze-egintza gisa, bai eta jabetza-eskubideen bateratzea gertatzen denean ere. Azken kasu horretan, nahikoa izanen da hertsiki zortasunaren eraginpekoa den luze-zabaleko lursail zehatza eskuratzea. Kargapeko finkaren gainerakoa zortasunetik libre geldituko da. Eraginpeko lurraren zati bat baizik ez bada eskuratzen, zortasuna zati horretan bakarrik joko da az kendutzat.

Eskuratutakoa zati indibisioa bada, zortasuna ez da az kendutzat joko.

Zortasunak halaber az kentzen dira preskripzio-epean zehar erabiliak ez izateagatik. Zortasun positiboetan, preskripzio askatzaileko zenbaketa eginen da horiek erabiltzeari utzi zaion unetik; eta, negatiboetan, egintza eragozle bat egin denetik.<sup>373</sup>

### **407. legea**

#### ***Aldi baterako ezintasuna***

Finken egoeraren ondorioz zortasunak erabilgarritasuna galdu badu eta preskripzio az kentzaileko epea igaro ez bada, zortasuna berriro erabili ahal izanen da egoera eragozlea amaitzearekin batera.

## **IV. TITULUA GOZAMENA, BIZTANTZEA, ERABILERA ETA ANTZEKO BESTE ESKUBIDE BATZUK**

### **I. KAPITULUA**

#### **Gozamena**

### **408. legea**

#### ***Kontzeptua***

Gozamen-eskubide errealak horren titularrari jabari-ahalmenak ematen dizkio, epe mugatu baterako, salbu eta gozamenpeko gauza xedatzeko ahalmena.<sup>374</sup>

### **409. legea**

#### ***Eraketa***

Gozamena eratzen da legearen aginduz edo jabearen borondatez, borondate hori "mortis causa" nahiz "inter vivos" egintzetan adierazten denean, dela beste norbaiten mesedetan zuzenean eratuz, dela jabetza-eskualdatze egintza batean eskubide hori erreserbatuz.

---

<sup>373</sup> FBko 9, 16, 35, 356, 357, 397. legeak; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 123. art.

<sup>374</sup> FBko 592. legea; NJANaren 3/2009 epaia, urtarrilaren 29koa.

### III. liburua.- Ondasunak

Gozamena halaber era daiteke zatitze-epaiketari egindako adjudikazioaren bidez, edo banaketa-egintzaren bidez.<sup>375</sup>

#### **410. legea**

##### ***Xedea***

Gozamena era daiteke mota guztietako ondasunen gainean, baita horiek fruiturik ematen ez dutenean ere, eta ondare baten osotasunaren nahiz horren zati alikuotaren gainean.

Gozamena gauza kontsumigarrien gainekoa denean, gozamedunak erabateko xedamena eskuratuko du horien gainean, baina genero eta kalitate bereko beste horrenbeste itzuli beharko du.

##### ***Iraupena eta bermea***

Gozamedunari ondasunak entregatzeko, edo beste edozein unetan, jabeak galdatu ahal du inbentarioa egin dasdin eta eta berme bat era dadin itzulketa-betebeharra eta egindako kalteen ordaina emateko betebeharra ziurtatzeko. Inbentarioa edo bermea eratzetik ez da beharrezkoa izanen legeak edo gozamen-eratzailak horretatik salbuesten dutenean gozameduna, edo epaileak horretarako beharrik ez dagoela jotzen duenean.

Bermea eratzeko, 231. legeak fiduziarioarentzat xedaturikoari helduko zaio.<sup>376</sup>

#### **411. legea**

##### ***Iraupena***

Gozamena bizi artekoa izanen da, salbu eta gozamen hori epe zehatzerako eratu izanaren froga dagoenean.

Titularra pertsona juridikoa bada, gozamena ehun urte igarotakoan azkentzen da, gozamen horrek beste eperik ez badu.<sup>377</sup>

#### **412. legea**

##### ***Pertsona bat baino gehiagoren aldeko gozamena***

Gozamena ezar daiteke gozamen-eraketaren unean bizirik nahiz kontzebiturik dauden pertsonen alde, dela haiek taldean hartuz, dela ondoz ondo. Beste pertsona batzuei dagokienez, gozamena eratu ahal izanen da 224. legearen bigarren paragrafoak ezarritako muga barruan bakarrik.

Gozamena pertsona bat baino gehiagoren alde eratzen denean, horiek modu solidarioan erabili ahal izanen dituzte beren eskubidepeko gauzak, eta fruituak haien artean hainbanatuko dituzte, gozamena eratzeko tituluan bestelakorik xedatu denean salbu. Gozamenkideetako baten eskubidea azkendutakoan, horren zatia beste titularrei gehiagotuko zaie.<sup>378</sup>

---

<sup>375</sup> FBko 65, 121, 123, 243, 250, 253-266, 374.1.III legeak.

<sup>376</sup> FBko 250, 416-419, 428,6. legeak.

<sup>377</sup> FBko 421. legea.

<sup>378</sup> FBko 370,1, 378. legeak.

### **413. legea**

#### ***Luditzea***

Eraketa-tituluak aurkakoa ezarri ezean, gozamen eskubidea ezin izanen da luditu gozamedunaren borondatearen aurka.

### **414. legea**

#### ***Jabe soilaren eskubide eta betebeharrak***

Jabe soilak zilegi izanen du gozamedunari galdatzea, hari ondasunak entregatu baino lehen edo beste edozein unetan, inbentarioa egin dezan, eta berme bat era dezan itzulketa-betebeharra eta egindako kalteen ordaina emateko betebeharra ziurtatzekoa, salbu eta legeak edo eratzaileren borondateak gozameduna betebeharrak libre uzten duten edo epaileak ez-beharrezkotzat jotzen duen kasuetan. Bermea eratzeko, 231. legeak fiduziarioarentzat xedaturikoari helduko zaio.

Halaber, gozamenpeko gauzarako aseguru bat sinatzea galdatzeko eskubidea izanen du. Honako hauek dira jabe soilaren betebeharrak:

1. Gozamena egikaritzeko behar den guztia onartzea.
2. Zorrozki jabetzaren gainekoak diren karga eta kontribuzio guztiak ordaintzea.
3. Bere eskubidearen balioarekiko proportzioan ordaintzea gozamenpeko gauza kontserbatzeko beharrezkoak diren ez-aldizkako gastuak, ezohikoak edo aurreikusezinak eta gozamenpeko gauzaren aseguruen primak.

### **415. legea**

#### ***Gozamedunaren eskubide eta betebeharrak***

Gozamedunak honako eskubide hauek ditu:

1. Bere ahalmenak egikaritzeko beharrezkoa dena jabe soilari eskatzekoa, eta horretarako egokiak diren akzioak egikaritzekoa.
2. Fruituak eskuratzekoa, 353. eta 354. legeetan xedatutakoarekin bat etorritz. Gainera, gozamena amaitzean, kalte-ordaina galdatu ahal izanen du, berak eskuratzen ez dituen fruituen ekoizpen-gastuen arabera.
3. Gozamenpeko gauza segurta dadin galdatzekoa.
4. Gozamenpeko gauzan hobekuntzak egitekoa, erabilgarritasunekoak zein luxuzkoak edo jostetakoak, berekin ez badakarte gauzaren aldaketarik.
5. Bere eskubidearen erabilera lagatzekoa, gozamenak dirauen eperako. Gozamedunak ezarritako errentamendua suntsiarazi egingen da, betiere, gozamena azkentzean; baina landa-errentamenduek indarrean iraunen dute nekazaritza-urtea amaitu arte.

Gozamedunak honako betebeharrak ditu:

1. Inbentarioa egin eta bermea ematekoa, aurreko legean xedaturikoarekin bat etorritz.
2. Gozamenpeko gauzak haiek duten izaeraren arabera aprobetxatu eta gozamena amaitutakoan itzultzekoa.
3. Bere eskubidearen titulartasunari eustekoa. Horrek ez du ezertan eragotziko titulartasun-egikaritzea lagatzea.

### III. liburua.- Ondasunak

4. Gozamenpeko gauza kargatzen duten karga guztiak eta gauza horrek sorrarazten dituen gastuak ordaintzekoa, jabe soilari osorik edo proportzioan dagozkionak izan ezik, aurreko legean ezarritakoarekin bat etorritz.<sup>379</sup>

#### **416. legea**

##### ***Abere-taldearen gaineko gozamena***

Abere-taldearen gozamendunak, hori osorik irauarazteko, kontsumitutako abelburuak beste batzuekin ordeztu beharko ditu, eta bere eginen ditu gaindikin direnak.

#### **417. legea**

##### ***Mendien gaineko gozamena***

Mendien gaineko gozamenean, horren eraketa-tituluak bestelakorik agintzen ez badu, ondoko erregelak beteko dira:

1. Gozamendunak aprobetxamendu arruntak egin ahal izanen ditu finkaren izaeraren eta tokiko usadioen arabera.
2. Mendi zurgaien kasuan, halaber mehazketa eta ebaketak egin ahal izanen ditu, aurreko zenbakian adierazitakoarekin bat etorritz. Ekoizpen espontaneoak ez diren mendietan arraseko mozketak egiten badira, gozamendunak birlandatze-betebeharra izanen du.
3. Mozketetatik lorturiko etekina gozamendunari dagokio, horrek gozamenean emandako denborak zuhaitzen ekoizpen-eperearekiko egiten duen proportzioan.
4. Edozein kasutan ere, gozamendunak, jabe soilari alde aurretik horren berri emanez, zuhaitzak ondotik ebaki ahal izanen ditu, finkan gauzatu nahi dituen konponketa eta hobekuntzak egiteko. Jabe soilak hobetze-ebaketaren aurka egin ahal izanen du, bai eta konponketen ondoriozkoaren aurka ere, horiek bere ardurapean hartzen dituenean.<sup>380</sup>

#### **418. legea**

##### ***Kredituaren gaineko gozamena***

Kredituaren gaineko gozamenean, ulertzen da horren zenbatekoaren gainean eratu dela eskubidea. Gozamendunak jaso eginen ditu kredituak sortutako interesak, eta kredituaren kobrantzari 410. legearen bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio.

##### ***Errenta edo zentsu baten gaineko gozamena***

Errenta edo zentsu baten gozamendunak muga-egunetik muga-egunera eskuratzen du kopuru hori, harik eta gozamena azkentzen den arte.

##### ***Akzioen gaineko gozamena***

Gozamena sozietatearen akzio, partaidetza edo kuoten gainekoa denean, 258. legeak ezartzen duena aplikatuko da.<sup>381</sup>

---

<sup>379</sup> FBko 592. legea; HELko 13.2 art.; LELko 10. art.; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 23. art.; HLko 107.1. art.; HEko 175.1. art.

<sup>380</sup> Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 FLko 50-60. art.

<sup>381</sup> FBko 353. legea; Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 LegEDko 106. artikulua eta hurrengoak.

#### **419. legea**

##### ***Atzera-eskuratze eskubidearen gaineko gozamena***

Gozamen unibertsalaren xede den ondare batean atzera-eskuratze eskubiderik baldin badago, atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriarekin saldutako ondasunen gainekorik, zilegi izanen dute atzera-eskuratzea egikaritzea bai jabe soilak bai gozamendunak, eta gozamena hedatuko da atzera-eskuratutako ondasunetara; gozamendunak egikaritu badu atzera-eskuratzea, zenbatekoa itzultzeko galdatu ahalko du gozamena amaitutakoan.

Gozamenaren gainontzeko kasuetan, atzera-eskuratzea jabe soilari dagokio modu eskusiboan, eta gozamena ez da hedatuko atzera-eskuratutako ondasunetara.<sup>382</sup>

#### **420. legea**

##### ***Atxikitze eskubidea***

Zehazturik ez dagoen pertsona batek eskuratu beharrekoak edo hari itzuli beharrekoak diren ondasunen gaineko gozamena azkentzean, gozamendunak edo horren jaraunleek ondasun horien administratzaile gisa irau beharko dute aipatu ondasunak nori eman behar zaizkion zehazten den arte, eta zilegi izanen da gastuak kobratzea jasotako fruituen kontura, bai eta guztiz ordaintzen diren arte edukitzea atxikitzea ere.

#### **421. legea**

##### ***Az kentzea***

Gozamen-eskubidea azkentzen da gozamenduna hiltzeagatik edo horrek uko egiteagatik, jabetzaren usukapiorako epe arruntean zehar gozamena ez egikaritzeagatik, epemuga heltzeagatik edo baldintza suntsiarazlea betetzeagatik, gozamena eta jabetza soil bateratzeagatik, edo gozamenpeko gauza galtzeagatik.<sup>383</sup>

#### **422. legea**

##### ***Eraldatzea***

Nahitazko desjabetze nahiz ordezpenaren kasuetan, edo galera erabateko nahiz partzialagatik kalte-ordainaren kasuan, gozamen-eskubidea kalte-ordainei edo beste ondasun subrogatu batzuei aplikatuko zaie.<sup>384</sup>

## **II. KAPITULUA**

### **Biztantz- eta erabilera-eskubideak eta antzeko beste eskubide batzuk**

#### **423. legea**

##### ***Araubidea***

Biztantz- eta erabilera-eskubideak edo besteren gauzaren aprobetxatze partzialerako antzeko beste eskubide batzuk horien eratze-tituluan ezarritakoaren bidez arautzen dira, eta horrelakorik ezean, ondoko xedapenen bidez:

---

<sup>382</sup> FBko 410, 575-583. legeak.

<sup>383</sup> FBko 9, 16, 356, 411. legeak; HEko 190, 192. art.

<sup>384</sup> FBko 442. legea; Nahitazeko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Lko 1, 3, 4, 8. art.; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 23. art.

### III. liburua.- Ondasunak

#### ***Eraketa***

1. Gozamina eratzeko modu berean era daitezke, baina 414. legeak bermeari buruz ezarritakoa aplikatu ahalko zaie, bakarrik, eratzaileak hala agindu duenean edo ondasun higigarriak ere barne hartzen badituzte; azken kasu horretan, inbentarioa egin beharko da, eratzaileak betebeharrak salbuesti duenean izan ezik.

#### ***Gastuak***

2. Presuntzioz, eskubide horiek dohainekotzat eta biziartekotzat jotzen dira. Titularraren betebeharrak bakarrik izanen da honako hauek ordaintzea: kontribuzioak, hornidurak, zerbitzu banakatuak eta hark gauzari ematen dion erabilera eskusiboaren gastu zehatzak. Halaber egin beharko ditu erabilera arruntaren ondoriozko higadurak derrigortzen dituen konponketak.

#### ***Azkentzea***

3. Eskubide horiek azkenduko dira gozamina azkentzeko arrazoi berberengatik eta gauzaren gaineko abusu larriengatik. Orobat azkenduko dira ezinezko suertatzen denean haien jomuga den erabilera edo aprobetxamendu zehatza; baina jabeak kalte-ordaina eman beharko du eskubidearen jomuga den gauza egin dituen aldaketek eskubidearen egikaritzeari ekarritako galerengatik edo urritzeengatik. Biztantzaren eskubidea ezin da inola ere luditzen horren titularraren borondatearen aurka. Gainerako eskubideak ez badira epe zehatzerako eratu, luditzeko modukoak izanen dira, 382. legean «bazkalekuei» buruz ezarritakoarekin bat etorriz.<sup>385</sup>

#### **424. legea**

##### ***Biztantzaren eskubidearen edukia***

Salbu eta biztantzaren eskubideari legearen edo borondatearen xedatze mugak ezartzen zaizkionean, presuntzioz uste izanen da eskubide horrek bere titularrari ahalmena ematen diola etxebizitza osorik eta modu eskusiboan okupatzeko, berarentzat eta berarekin batera bizi direnentzat, bai eta etxebizitza osorik edo partzialki errentan emateko ere; errentamendua biztantzaren eskubidea azkentzean amaituko da, inolako luzapenik gabe.<sup>386</sup>

#### **425. legea**

##### ***Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen ohiko etxebizitzaren gaineko biztantzaren eskubidea izatea***

Ohiko etxebizitzaren gaineko biztantzaren eskubidea izanen dute etxebizitza horretan titularraren heriotza-unean harekin bizi diren aurreko edo ondorengo ahaide desgaitu edo mendekoek, baldin titularrak ez bazuen aurreikusitako pertsona horien etxebizitza-beharra bestela asetzetik, edo halakorik espresuki baztertu bazuen.

Lege honetan aitortzen den eskubidea existituko da etxebizitzaren gainean beste pertsona batzuei Konpilazio honen arabera legozkiekeen eskubideekin batera, eta titularrari etxebizitza hori berarentzat eta berarekin bizi direnentzat okupatzeko

---

<sup>385</sup> FBko 99, 382, 394.2, 409, 414, 421. legeak; HLko 108.3 art. NJANaren honako epai hauek: 5/2022, martxoaren 30ekoa ; 46/2003, urriaren 17koa; 10/1996, maiatzaren 6koa.

<sup>386</sup> HLko 108.3. art. NJANaren 28/2000 epaia, azaroaren 28koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

ahalmena ematen dio, duten etxebizitza-beharra asetzearren, eta ez beste ezertarako. Etxebizitza ezin izanen da alokatu.<sup>387</sup>

### **426. legea**

#### ***Erabileraren edukia eta beste eskubide batzuk***

Aurreko legeek biztantzeari buruz ezarritako salbuespenarekin, eskubide hauen titularrek eskubide-egikaritzea eginen dute jabeak edo haren ordeztatuak diharduen pertsonak erabilera arrunta egitearekin batera, eta ez dute zilegi izanen beren eskubidea guztiz lagatzea, baina bai horren egikaritzea beste pertsona batzuekin partekatzea, ordain baten truke nahiz halakorik gabe.

Fruitu eta produktuak

Eskubideak ez badira fruituen edo produktu naturalen aprobetxamendu jakin baten gainekoak, titularrak zilegi izanen du gauzak sortu dituen guztiak aprobetxatzea, baina eskubidearen egikaritzean parte hartzen duten pertsonen kontsumo arruntaren neurrian bakarrik, eta horiek saltzeko ahalmenik gabe.<sup>388</sup>

## **V. TITULUA**

### **AZALERA-ESKUBIDEA ETA ANTZEKO BESTE ESKUBIDE BATZUK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Xedapen orokorrak**

### **427. legea**

#### ***Printzipio orokorra***

Presuntzioz uste izanen da ezen lurrari modu separaezinean lotutakoa horren jabetzapean sartzen dela, baina besteren lurra erakitakoaren edo landatutakoaren gaineko eskubide erreala egon daiteke, hala nola azalera-eskubidea, gaineraikitze- edo azpieraikitze-eskubidea, jabetza horizontaleko eskubidea eta landatzeko eskubidea.

Gainera, osoki nahiz partzialki besteren lurra gainean onustez egindako eraikinek modua emanen diote, horien eraikitzaile denari, lur horren gaineko jabetza eskuratzeko, eraikitakoak lurra baino balio handiagoa izan eta lurraekin batera unitate zatiezina osatzen duenean, baldin eta aurretiaz kalte-ordaina eman badu haren balioagatik eta, kasua bada, ekarri diren kalte-galerengatik.

#### ***Aplikatu beharreko legea***

Jabetza horizontalaren araubideari dagokionez, Kode Zibilean eta hori garatzen duten legeetan xedaturikoari helduko zaio. Aipaturiko beste eskubideei buruz, titulu honetan xedaturikoa beteko da.<sup>389</sup>

---

<sup>387</sup> FBko 99, 253,423-424. legeak.

<sup>388</sup> FBko 353, 423. legeak.

<sup>389</sup> FBko 355, 430-434, 435-442, 443-444. legeak; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 239. art. eta hurrengoak; JHL; LEL; Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 LegEDko 53-54. art.; HEko 16. art. NJANaren epai hauek: 1/2014, urtarrilaren 29koa; 10/2002, apirilaren 6koa.



### III. liburua.- Ondasunak

#### **428. legea**

##### ***Araubidea***

Aurreko legean aipatutako eskubideak ondoko erregelen bitartez arautuko dira:

1. "Inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bidez era daitezke, kostu bidez nahiz dohainik, dela besterentze edo emakida bidezko zuzeneko eraketaz, dela jabetza-eskualdaketako egintza bateko erreserba edo atxikitze bidez.
2. Epe mugaturako edo mugagaberako ezar daitezke. Presuntzioz, azken hori uste izanen da, aurkakorik xedatu ezean.
3. Jabetza Erregistroan inskriba daitezke, nahiz eta osagai akzidentalak zehaztu ez, hala nola egin beharreko obra hasteko edo amaitzeko epeak, horren ezaugarriak, aurrekontuak, hobekuntzak, erabilerak, ustiapena, xedea edo kontserbazioa.
4. "Inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bidez eskualda daitezke, salbu eta guztiz pertsonal gisa eratu direnean, edo horien eskualdatzea jabeak baimena emateari baldintzatu zaionean, edo horien eskualdagarrtasuna beste moduren batean mugatu denean.
5. Hipotekagarri dira eskualdagarri diren hein berean. Eskubide horiek egikaritzuz eraiki edo landaturikoa hipoteka beraren pean geratuko da.
6. Gozamenaren eta antzeko beste eskubide batzuen xede izan daitezke, baina ezin dira zortasunekin kargatu jabearen baimenik gabe. Baldin eta halako baimenik izan gabe ezartzen badira, 372. legeak erkidegoari buruz xedaturikoa aplikatuko da.
7. Titularrak zilegi du bere kabuz zortasunak eratzea eskubide horien xede den ondasun higiezinaren mesedetan, eta jabeak ezin du inolako kasutan bere kabuz zortasunik azkendu eskubide horien kaltetan.
8. Aurkako xedapenik izan ezean, eskubideok ezin daitezke ludituz beren titularraren borondatearen aurka.
9. Eskubide horiek edo jabetza besterentzen direnean, ez da egonen eroslehentasun eta atzera-eskuratzerik.<sup>390</sup>

#### **429. legea**

##### ***Bateratzea***

Titular berberak eskuratzen baditu luraren jabetza eta horren gaineko eskubide berezi horietako bat, batari eta besteei eragiten dieten eskubide errealek segitu egingen dute, zeinek bere aldetik, haiei eragiten.<sup>391</sup>

---

<sup>390</sup> FBko 444. legea; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 239-240. art.; HLko 106, 107. art.; HEko 16. art.

<sup>391</sup> Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 240. art.

**II. KAPITULUA**  
**Azalera-eskubidea**

**430. legea**

***Kontzeptua***

Azalera-eskubide errealak ahalmena ematen du besteren lurrean eraikitzeko eta eraikitakoaren jabetzari aparte eusteko. Eskubide horrek lurpeko eraikinak ere barne har ditzake.

***Norainokoa***

Azalera-eskubidedunaren eskubidearen norainokoak bere barruan hartzen du azalera aprobetxatzeko normalki behar izaten den lurpe-zatia, dela zimenduetarako, hustubideetarako, aireztapenerako nahiz eraikinak bere izaeraren arabera dituen gainerako beharrianetarako.<sup>392</sup>

**431. legea**

***Zamak***

Kontrako itunik izan ezean, azalera-eskubidedunak, eraikuntzari hasiera ematen dionetik, ondasun higiezinaren ondoriozko zerga, kontribuzio eta zama guztiak ordainduko ditu. Eraikin anitz izanez gero, titular bakoitzak osorik eta bakarrik ordainduko ditu bere eraikinari dagozkionak.

**432. legea**

***Eraentze-arauak***

Azalera-eskubidedunak ezarriko ditu eraikinaren eta behar beste zehazturikoa eta aprobetxamendu independenterako modukoa den espazio bakoitzaren erabiltze eta lupertzea eraentzeko arauak, zeinek ezin izanen baitute lurzoruan eraginik izan.

**433. legea**

***Eraikina suntsitzea***

Eraikina suntsitzen baldin bada azalera-eskubidea ez da azkenduko, eta azalera-eskubidedunak zilegi izanen du berreraikitzeari ekitea.<sup>393</sup>

**434. legea**

***Lehengoratzeta***

Azalera-eskubidea epe zehazturako edo baldintza suntsiarazle bati loturik ezartzen bada, eraikitakoa jabetzari lehengoratuko zaio kasuko muga-eguna iristean, konpentsaziorik gabe edo konpentsazioarekin, itundu denaren arabera.<sup>394</sup>

---

<sup>392</sup> FBko 427. legea; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 239. eta hurrengo art.; Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 LegEDko 53-54. art.; HEko 16. art. NJANaren 7/2017 epaia, azaroaren 28koa.

<sup>393</sup> FBko 427, 430, 441. legeak.

<sup>394</sup> FBko 428.2. legea; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 240. art.

### III. KAPITULUA

#### Gaineraikitze- eta azpieraikitze-eskubideak

##### 435. legea

###### *Kontzeptua*

Gaineraikitze- eta azpieraikitze-eskubide errealek ahalmena ematen diote horien titularrari eraikin baten gainean edo azpian solairu bat edo gehiago eraikitzeko, hurrenez hurren, jadanik eginda dagoen edo etorkizunean eginen den eraikin batean.

###### *Egikaritzea*

Eskubide horiek egikaritzeko, beharrezkoa da beti, administrazio-onespena ez ezik, eraikinaren elementu komun gaineko eskubideen zehaztapena ere, obraren izaerari, eraikinaren segurtasunari eta legezko mugapenei dagokienez. Edozein kasutan, eraikinaren jabe, errentari edo bestelako erabiltzaileei kalte-ordaina eman beharko zaie eskubide horien egikaritzak eragin dizkien kalte-galerengatik.<sup>395</sup>

##### 436. legea

###### *Jabekidetasuna eta jabetza horizontala*

Eraikina jabekidetasuneko edo jabetza horizontaleko araubidepean badago, jabekideei dagokie gaineraikitze- edo azpieraikitze-ahalmena, jabetzan edo elementu komunetan dituzten kuoten proportzioan. Bi kasuotan beharrezkoa izanen da, halako eskubideak emateko, partaide guztiak baimena ematea. Partaide horiek adierazi beharko dute zer erregela aplikatu behar diren jabetza-kuotak zehaztean edo solairu berrietan kokatuta dauden elementu pribatiboei dagozkien elementu komunetan, eta zein diren lehenagotik dauden solairuetan kokatuta daudenei dagozkienak.<sup>396</sup>

##### 437. legea

###### *Edukia*

Titularrak eraiki dezake tituluan zehazturiko solairu-kopurua. Zehaztapenik ezean, ulertuko da baimenduta dagoela eraiki ahal diren solairu guztiak egiteko, muga bakarrak izanik administrazio-arlokoak eta eraikinaren segurtasunak behartzen dituenak. Kontrako itunik ezean, eskubideok azkenduko dira horiek egikaritzuz eginiko eraikuntza burutu ondoren.<sup>397</sup>

##### 438. legea

###### *Administrazio-mugapenak*

Kontrako itunik ezean, titularrari bere eskubidea osorik nahiz partzialki egikaritzea eragozten dioten administrazio-mugapenak ez dute eskubide hori azkenduko, ez eta eskubide-emailearen erantzukizunik ekarriko ere.

---

<sup>395</sup> HEko 16. art.; JHLko 10.3. art.

<sup>396</sup> HEko 16. art.; JHLko 10.1 eta 3 art.

<sup>397</sup> HEko 16.2. art.

**439. legea**

***Eraikin berrien araubidea***

Eskubide horiek egikaritzuz eginiko eraikinek jabetza horizontaleko araubidea izanen dute eraikinaren gainontzekoarekin batera.

Tituluan ez bada elementu komun gaineko kuotarik ezarri eta kuota horiek zehazteko prozedurarik ere ez bada adierazi, beharrezkoa izanen da eraikinaren jabe guztien baimena. Hala ere, lurpeko eraikinei dagokienez, hitzartu ahal izanen da horiek osagarri izatea lehenagotik eginda dauden beste eraikin batzuekiko, eta aldatu gabe uztea elementu komun gainean jadanik ezarritako kuotak.<sup>398</sup>

**440. legea**

***Obra berriaren adierazpena***

Kontrako itunik ezean, titularrak zilegi du bere kabuz sinatzea obra berriaren adierazpenerako eta eraikinaren deskripzioaren zuzenketarako eskritura publikoa.<sup>399</sup>

**441. legea**

***Eraikina suntsitzea***

Eraikina suntsitzen bada eskubide horiek ez dira azkenduko, eta haien titularrek, eraikin eginari dagokionez, lehen zuten eskubide bera izanen dute.<sup>400</sup>

**442. legea**

***Hiri antolamendua***

Baldin eta, lurraren antolamendu edo urbanizazioaren ondorioz, ondasun higiezinaren ordezkari bat bada beste eraikigarritasun-bolumen bat duen lurzati bat, gaineraikitze- edo azpieraikitze-eskubideen titularrak lehen zuten eskubidearen portziozko zati bat izanen du bolumen berri horretan.<sup>401</sup>

---

<sup>398</sup> FBko 427, 436. legeak; JHLko 2, 3, 5, 10.1 eta 3. art.

<sup>399</sup> Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 LegEDko 28. art.; HLko 202. art.; HEko 16, 308. art.; Hirigintzako Egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzko uztailaren 4ko 1093/1997 EDko 45-55. art.

<sup>400</sup> FBko 433, 437, 442. legeak.

<sup>401</sup> 1/2017 LegFD, uztailaren 26koa, Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duena; Lurzoruaren eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 LegEDko 53. art. eta hurrengoak.

### III. liburua.- Ondasunak

#### IV. KAPITULUA

##### Besteren lurzoruan landatzeko eskubidea

#### 443. legea

##### *Kontzeptua*

Zilegi izanen da besteren lurzoruan landatzeko eskubide erreala eratzea. Kasu horretan, emakidadunari landakinaren gaineko jabetza dagokio, lurzoruaren gaineko jabetzaz bestelakotzat.<sup>402</sup>

#### 444. legea

##### *Luditzea*

Eskubide hori epemugarik gabe eratu bada, ez da aplikatuko 428. legeko 8. eta 9. zenbakietan xedaturikoa, baizik eta luditzeko moduko eskubidea izanen da, eta atzera-eskuratze eskubidea egonen da, 382. eta 383. legeetan “bazkalekuei” buruz ezarritakoari jarraikiz.

### VI. TITULUA

#### ATZERA-ESKURATZEAK ETA LEHENTASUNEZ ESKURATZEKO BESTE ESKUBIDE BATZUK

#### I. KAPITULUA

##### Xedapen orokorrak

#### 445. legea

##### *Efektua*

Legezko eroslehentasuneko eta atzera-eskuratzeo eskubideek eta gainerako eskuratze-eskubide errealek mugatu egiten dute gauzaren jabeak duen xedatze-ahalmena, eta gauza eskuratzeo ahalmena ematen diote beren titularrari, hirugarrenetikiko lehentasunez, gauza hori kostu bidez eskualdatzen denean.

Atzera-eskuratze eskubideak beti aurreuposatzen du eroslehentasun-eskubidea; baina eroslehentasun-eskubidea egikaritzeko beharrezkoa den jakinarazpena egin denean eskubide hori erabiltzen ez bada, kasuan-kasuan egoki den epean, atzera-eskuratze eskubidea baztertuta geratuko da.<sup>403</sup>

#### 446. legea

##### *Lehentasuna*

Grazia bidezko, “kanpoko auzotasun”, “bazkaleku” edo “iralekuen” gaineko legezko atzera-eskuratzeek eta atzera-eskuratze jentilizioak, hurrenkera horretan, lehentasuna dute erkide, mugakide, errentari eta enfiteusidunen atzera-eskuratzeen aldean, bai eta lehentasunez eskuratzeo bestelako eskubide zibil edo administratiboan aldean ere,

---

<sup>402</sup> FBko 379, 388, 427. legeak; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 46. art.; HEko 30.3. art.

<sup>403</sup> HLko 37.2.3. art.; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 242. art. eta hurrengoak; Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 FLko 19-20 art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

zeinek, beren artean, aplikatu beharrekoa suertatzen den legediaren arabera lehentasuna izanzen baitute.

Atzera-eskuratze mota bakoitzerako ezarritako berariazko lehentasunik ezean, izaera bereko eskubide bat egikaritu nahi duten zenbait titular egonez gero, horiek guztiak egikaritu ahalko dute, gauza komunean duten parte-hartzearekiko proportzioan.

Betiere, legezko atzera-eskuratzeek lehentasuna dute hitzarmenezkoak diren aukera-eskubidearen, eroslehentasun-eskubidearen eta atzera-eskuratze eskubidearen gainetik.<sup>404</sup>

### **447. legea**

#### ***Uko egitea***

Baliozkoa da legezko eroslehentasuneko eta atzera-eskuratze eskubideari uko egitea besterentze jakin bati dagokionez, are besterentze hori baino lehenago egiten denean ere.<sup>405</sup>

### **448. legea**

#### ***Egikaritzea***

Baldintza edo epemuga etengarri bati loturik eginiko besterentzeetan, atzera-eskuratze eskubidea egikaritu ahal izanzen da, soilik, baldintza betetzen denetik edo epemuga heltzen denetik.

Atzera-eskuratzea gauzatuko da baita besterentzea enkante judizialean edo estrajudizialean eginikoa denean ere.<sup>406</sup>

### **449. legea**

#### ***Prezioa aurkaratzea***

Prezioa aurkaratzen bada, atzera-eskuratzea egikaritzeko epea etenda geratuko da harik eta aurkaratze hori ebatzi arte.<sup>407</sup>

### **450. legea**

#### ***Prezioa, gastuak eta fruituak***

Atzera-eskuratze akzioa egikaritzeko, beharrezkoa da atzera-eskuratzaileak besterentzearen prezioa zainpean jartzea edo, prezio hori ezaguna ez bada, eskaintza egitea, hori ezaguna denean berori zainpean jartzeko eta, edozein kasutan,

---

<sup>404</sup> FBko 329, 372, 383, 390, 392, 451-459, 460-462. legeak; Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 LegFDko 242-246. art.; Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 FLko 49-51. art.; NOFL; Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 FLko 50. art.; HELko 25, 31. art.; LELko 22. art.; Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Lko 27. art.; Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Lko 81. art.

<sup>405</sup> FBko 9, 15. legeak. NJANaren 6/2003 epaia, otsailaren 23koa.

<sup>406</sup> FBko 519. legea; HEko 234-236. o) art.

<sup>407</sup> NJANaren epai hauek: 5/2017, apirilaren 26koa; 3/2016, martxoaren 29koa.

### III. liburua.- Ondasunak

legebidezko<sup>408</sup> ordainketaren gastuak ordaintzeko. Fruituak eratzikitzeko, 353. eta 354. legeetan xedatutakoari jarraituko zaio.<sup>409</sup>

## II. KAPITULUA

### Grazia bidezko atzera-eskuratzea

#### 451. legea

##### *Kontzeptua eta epea*

Ondare-exekuzioaren kasu guztietan, exekuziopeko zordunak zilegi izanen du behin betiko adjudikatu diren ondasunak atzera-eskuratzea, behin betiko adjudikazioaren ebazpena jakinarazten den egunetik bederatzi eguneko epean, prezioaren eta legebidez ordaindu beharreko gastuen pagamendua eginez.<sup>410</sup>

## III. KAPITULUA

### Atzera-eskuratze jentilizioa

#### 452. legea

##### *Kontzeptua*

Atzera-eskuratze jentilizioa, ahaideen artekoa nahiz odolekoa, egikaritu ahal izanen da ondasun higiezin zehatzak edo horien gaineko kuota indibisoak berreskuratuzeko.

##### *Aplikatu beharreko legea*

Atzera-eskuratze eskubide hori Nafarroan dauden ondasun higiezinen gainekoa izanen da, eta Nafarroako foruduntasuna duten pertsonen mesedetan bakarrik.<sup>411</sup>

#### 453. legea

##### *Atzera-eskuratzaileak*

Atzera-eskuratze eskubidea egikari dezakete, bakar-bakarrik:

1. Abolorio- edo ondare-ondasunei dagokienez, besterentzailearen ondorengoek, eta horren laugarren gradurainoko alboko ahaideek, ondasunen jatorriaren lerro beraren barrenean.

2. Besterentzaileak edo horren gurasoek konkistatu edo eskuraturiko ondasunei dagokienez, haren ondorengoek.

Ondorio horietarako, ulertzen da abolorio-ondasun direla besterentzailearen aitonarenak izandakoak izanik, besterentzaileak aitona horrengandik dohainik eta zuzenean jasotako guztiak; ondare-ondasun direla aitonarenak izandakoak izanik, besterentzaileak aitaren bidez edo aitona beraren beste ondorengo ahaide baten bidez betiere dohainik jasotako guztiak; eta ondasun konkistatuak direla besterentzaileak edo horren gurasoek dohainik nahiz kostu bidez eskuraturiko ondasun guztiak.<sup>412</sup>

---

<sup>408</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsioan, EAoren gaztelaniazko testuko tilde-falta zuzendu dugu.

<sup>409</sup> NJANaren 15/2015 epaia, abenduaren 11koa.

<sup>410</sup> NJANaren epai hauek: 7/2009, apirilaren 20koa; 18/1997, azaroaren 25koa.

<sup>411</sup> FBko 11-13. legeak. NJANaren epai hauek: 22/1993, abenduaren 21ekoa; 1991ko abenduaren 10ekoa.

<sup>412</sup> NJANaren honako epai hauek: 6/2017, ekainaren 27koa; 28/2008, abenduaren 18koa; 22/1993, abenduaren 21ekoa; 1991ko abenduaren 10ekoa; 1991ko urriaren 31koa.

**454. legea**

***Ahaideari besterentzea***

Ondasunak besterentzen bazaizkio horiek atzera-eskuratzeko eskubidea duen ahaide bati, gainerako ahaideek ezin izanen dute atzera-eskuratzerik egikaritu, nahiz eta ahaide horiek lehentasunezkoak izan.

**455. legea**

***Atzera-eskuratzaileen aniztasuna***

Gradu desberdinetako ahaideak suertatzen badira atzera-eskuratzeko, lehentasuna izanen du gradurik hurbileneoak; gradu berekoak izanik, lehentasuna izanen du aurreko ahaideak; eta, alboko lerroan, lehenagokoa den aurreko ahaidearen oin beretik datorrenak. Bi kasuotan, lehentasuna izanen du, baldintza-berdintasuneko kasuan, ahaiderik zaharrenak.

**456. legea**

***Demanden aniztasuna***

Atzera-eskuratzeari buruzko demandak modu bananduan jarri badira demandatu berberaren aurka eta finka berberari dagokionez, demanda horien arteko hurrenkerak ez du aldaraziko demandatzaileen arteko hurrenkera. Era berean, hurrenkera hori ez da aldatuko egikaritutako akzioetako edozeini demandatuak amore ematearen ondorioz.

**457. legea**

***Objektuen aniztasuna***

Finka bat baino gehiago prezio bakarraren truk besterentzen badira, atzera-eskuratze jentilizioa egikaritu ahal izanen da prezio horri loturiko finken ganean bakarrik; ondorio horretarako, guztizko prezioetik horiei dagokien zatia zehaztuko da.

Debeku izanen da atzera-eskuratze jentilizioa egikaritzea besterendutako finka batekiko edo batzuekiko bakarrik eta egikaritu gabe uztea hari loturiko gainontzeko finkekiko.

**458. legea**

***Epea***

Atzera-eskuratze hori egikaritu ahalko da ondoko iraungitze-epéen barruan:

1. Besterentzea modu fede-emailean jakinarazi bada, halaber zehazturik prezioa, ordaintze-modua eta kontratuaren gainerako baldintzak, jakinarazpena egiten denetik zenbaturiko bederatzi eguneko epean.
2. Jakinarazpen hori ez bada egin, bi hilabetean, Jabetza Erregistroan egindako inskripzioaren egunetik.
3. Jakinarazpenik eta inskripziorik ez bada egin, urtebete eta egun bateko epean, besterentzea egin denetik zenbatuta; salbu eta besterentze hori asmo gaiztoz ezkutatu denean, ezen kasu horretan akzioa ez da iraungiko, ezertan eragotzi gabe eskuratze-preskripzioa. Dena den, atzera-eskuratzaileak informazio osatugabea izan badu, hogeita hamar eguneko epea izanen du eskualdatzaileari eskualdaketa gaineke informazio osoa eskatzeko; behin informazio hori jaso eta gero, bederatzi eguneko epea izanen du akzioa egikaritzeko.



### III. liburua.- Ondasunak

Nahitaezko besterentzeen kasuetan, lege honek aurreikusten dituen epeen "dies a quo" izanen da errematearen behin betiko adjudikazioa egiten duen ebazpena jakinarazten den eguna.

448. legeak arauturiko kasuetan, epe horien zenbaketa ez da hasiko atzera-eskuratzeo eskubidea egikaritu ahal izan arte.<sup>413</sup>

#### **459. legea**

##### ***Besterentzeko debekua***

Ondasun higiezin atzera-eskuratze jentilizioaren bitartez eskuratu bada, bi urtez ezinezkoa izanen da ondasun hori "inter vivos" egintzen bitartez besterentzea.<sup>414</sup>

### IV. KAPITULUA

#### **Aukera, eroslehentasun eta atzera-eskuratze borondatezkoak**

#### **460. legea**

##### ***Izaera eta ezaugarriak***

Aukera, eroslehentasun eta atzera-eskuratze borondatezkoak eskubide erreal izanen dira hala ezartzen denean; izaera pertsonaleko gisa eratu badira, IV. liburua II. tituluko xedapenek arautuko dituzte eskubide horiek. "Inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bidez eskualdatzeko modukoak izanen dira, horren aurkako xedapenek izan ezean.<sup>415</sup>

"Inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bidez era daitezke, kostu bidez nahiz dohainik, dela besterentze edo emakida bitartezko zuzeneko eraketaz, dela jabetza-eskualdaketako egintza batean erreserba edo atxikitzea eginez.

Eskubideok ondasun higiezin gainekoak edo merkataritza- nahiz industria-establezimenduen gainekoak izan daitezke, bai eta sozietateen akzio, partaidetza edo kuoten gainekoak, jabetza industrial nahiz intelektualeko eskubideen gainekoak, eta identifikatzeko modukoak diren beste edonolako ondasun higigarrien gainekoak ere.

Eragingarriak izateko, legearen arabera kasuan-kasuan izan beharreko forma-betekizunak bete beharko dituzte. Eskubide horiek Jabetza Erregistroan edo, haien xedearen arabera, dena delako erregistroan inskribatu ahal izanen dira.<sup>416</sup>

#### **461. legea**

##### ***Aukera***

Aukera-eskubide erreala hamar urte baino gehiagokoa ez den epe jakin baterako era daiteke.

Aurreko paragrafoan xedaturikoa gorabehera, baldin eta erosteko aukera-eskubidea eratzen bada erantsirik errentamendu, azalera edo Jabetza Erregistroan inskriba daitekeen beste eskubide erreal bati, haren iraupena horien epe osoa bezainbestekoa izan

---

<sup>413</sup> FBko 392. legea. NJANaren honako epai hauek: 20/2004, urriaren 4koa; 2/2001, urtarrilaren 29koa; 16/1992, abenduaren 31koa; 1991ko ekainaren 29koa.

<sup>414</sup> HLko 26.1. art.

<sup>415</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsioan, 2019ko apirilaren 16ko NAOren gaztelaniazko testuan ageri den akatsa zuzendu dugu ("salvo disposición el, contrario").

<sup>416</sup> FBko 515-524. legeak; HEko 14. art. NJANaren 18/1996 epaia, azaroaren 27koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

ahalko da, baina ez du haien luzapenena barne hartuko. Finantza-errentamendu bati erantsitako erosteko aukera berariazko araudian arautuko da.

### ***Egikaritzea***

Erosteko aukera egikaritu beharko da finkatutako prezioan, edo prezioa zehazteko ezarritako prozesutik suertaturikoan.

Aukeradunak aukera-emaileari jakinaraziko dio bere nahia dela aukera erabiltzea itundu den eran eta horretarako espresuki adierazitako helbidean. Horrela aurreikusi bada, aukeradunak bere eskubidea aldebakartasunez egikaritu ahal izanen du, baldin eta gauzaren edukitza badu eta prezioaren ordaina notarioaren zaintzapean uzten badu.

Aukera-eskubideak ukitzen duen gauzaren jabeak gauzaturiko xedapen-egintzek ez diote aukera-eskubideari kalterik egingen; eskubide horrek indarrean iraunen du harik eta epea mugaeguneratu arte, Hipoteka Legean xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.<sup>417</sup>

### **462. legea**

#### ***Eroslehentasuna eta atzera-eskuratzea***

Eroslehentasun-eskubideak berarekin dakar atzera-eskuratze eskubidea, baldin eta jakinarazpena ez bada forma egokian gauzatu edo eskualdatzea jakinarazitakoez bestelako baldintzetan egin bada.

Eskubide horiek era daitezke epe zehaztu baterako nahiz epe zehaztugabe baterako edo "betiko". Bestelakorik xedatzen ez bada, eskubideok egikaritu ahal izanen dira horiei loturiko ondasunen lehenbiziko besterentzeari dagokionez bakarrik.

Ez bada eroslehentasuna edo atzera-eskuratzea egikaritzeko eperik zehaztu, ulertuko da hogeita hamar egunean iraungitzen direla, jakinarazpen-egunaren edo, kasua bada, besterentzearen berri izandako egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

## **VII. TITULUA BERME ERREALAK**

### **I. KAPITULUA Xedapen orokorrak**

### **463. legea**

#### ***Bermeak***

Zilegi izanen da betebeharraren betetzea edo horren ez-betetzeak ekarriko dituen ondorioak aseguratzea, horretarako erabiliz fiduzia, erresak, bahia, hipoteka, antikresia, atxikitze-eskubidea, berme gisa egindako gordailua, atzera-eskuratze ituna, jabari-erreserba, baldintza suntsiarazlea, xedatze-debekua edo berme erreal nahiz pertsonaleko beste edozein forma.

---

<sup>417</sup> FBko 517, 587. eta hurrengo legeak; HEko 14. art. NJANaren honako epai hauek: 20/2012, ekainaren 29koa; 11/2000, apirilaren 22koa; 1995eko ekainaren 28koa; 4/1994, otsailaren 10ekoa; 4/1992, apirilaren 2koa.

### III. liburua.- Ondasunak

#### **464. legea**

##### ***Araubidea***

Ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko hipotekari eta edukitzaren lekualdaketarik gabeko bahiari dagokienez, kasuan kasuko legeria berezian xedaturikoa beteko da.

Fidantza 525. legetik 530. legera bitartekoaren arabera izanen da. Beste berme motei dagokienez, titulu honetan xedaturikoari helduko zaio.<sup>418</sup>

#### **465. legea**

##### ***Oinarria***

Berme erreala eratzeko betebeharra oinarritu daiteke estipulazio batean, kontratu batean, "mortis causa" xedapen batean edota legean.

## **II. KAPITULUA**

### **Berme fiduziariora eta erresen bermea**

#### **466. legea**

##### ***Fiduzia***

Berme-fiduzia dela bide, hartzekodunari gauza baten jabetza edo eskubide baten titulartasuna eskualdatzen zaio, hirugarrenetik eraginkorra den forma baten bidez. Bermedun betebeharra bete ondoren, eskualdatzaileak fiduziariora galda diezaioko lagatako jabetza edo eskubidea berriro eskualdatzeko; fiduziariora, kasua bada, itzulketa-betebeharra eta erantzukizuna ditu, 470. legeak hartzekodun pignorazioari buruz ezarritakoaren arabera. Dena den, hala ituntzen bada, eta zordunaren berandutzea gertatuz gero, hartzekodunak modu errebokaezinean eskuratu ahal izanen du gauzaren jabetza edo eskubidearen titulartasuna, eta bermatutako betebeharra azkenduko da.<sup>419</sup>

#### **467. legea**

##### ***Erresak***

###### ***a) Zigor gisa itundutakoak***

Kontratuan erresak edo seinalea eman badira, esanbidez ezarri denean baino ezin izanen du alderdietatik edozeinek kontratua hitzartutakoaren arabera suntsiarazi, ondorio bakartzat izanik emandako erresak galtzea edo jasotakoak bikoiztuta itzultzeko betebeharra izatea.

###### ***b) Erresak bai esleak direlako presuntzioa***

Halako itunik izan ezean, alderdi batek berari dagokion betebeharra betetzen ez badu besteak aukeran izanen du kontratua bete dadin eta kasuan kasuko kalte-ordaina paga dadin galdatzea edo kontratua aurreko paragrafoan xedatuari jarraikiz suntsiaraztea.

---

<sup>418</sup> Ikus 1954ko abenduaren 16ko L, Ondasun Higigarrien gaineko Hipotekari eta Lekualdaketarik gabeko Bahiari buruzkoa; 5/2019 L, martxoaren 15koa, Kreditu Higiezinako Kontratuak arautzen dituenak.

<sup>419</sup> NJANaren epai hauek: 11/1999, urriaren 26koa; 1994ko urtarrilaren 22koa.

Kontratuaren betetzea galdatzen badu, erresak prezioari egotziko zaizkio edo, hala denean, kalte-ordainari.<sup>420</sup>

### III. KAPITULUA

#### **Edukitzaren lekualdaketa-dun bahia, hipoteka, antikresia, atxikitze- eskubidea eta berme gisa egindako gordailua**

#### **468. legea**

##### ***Bahia***

##### ***a) Eraketa***

Bahia eratzen da gauza higigarri edo higiezinaren edukitza emanez.<sup>421</sup>

#### **469. legea**

##### ***b) Saltzeko eskubidea***

Ordaintze-errekerimendua modu fede-emailean egin eta gero betebeharraren ez-betetzea gertatzen bada, hartzekodun pignorazioak gauza pignoratua enkante judizialean saldu ahal izanen du edo, bestela, enkante estrajudizialean, notarioaren esku-hartzearekin. Gauza saltzeko beste modu bat itundu daiteke, gauzaren izaerak halakorik ahalbidetuz gero; baina deuseza da ordainketarik ezean hartzekodunari gauzaren jabetza esleitzen dion ituna.

Hartzekodunak ezin izanen du gauza bestelako moduan xedatu edo erabili pignoratzailearen baimenik gabe, fruituak jasotzea izan ezik, 471. legearekin bat etorriz.<sup>422</sup>

#### **470. legea**

##### ***c) Erantzukizuna***

Hartzekodunak, kontrako itunik izan ezean, erantzukizuna izanen du ebasketaren gainean; ez, ordea, lapurretaren edo ezusteko beste kasu baten gainean.

##### ***d) Itzulketa***

Hartzekodunak gauza itzuli beharko du berak eskuratu zuen egoera berean, eta halaber justifikatu beharko du, kasua bada, jasotako fruituen egozpena.<sup>423</sup>

#### **471. legea**

##### ***Antikresi-ituna***

Hala bahiaren nola hipotekaren kasuan, zilegi da ituntzea antikresia, edo zorraren interesekin osorik edo partzialki konpentsatzea gauzaren erabilera edo horren fruituak. Bestelako kasuetan, hartzekodunaren edukitzan dagoen gauzak fruituak ematen baditu, hark jasoko ditu, horiek interesen zorrari eta, gero, kapitalaren zorrari egotzeko.

---

<sup>420</sup> NJANaren epai hauek: 5/2014, apirilaren 22koa; 8/2013, maiatzaren 17koa.

<sup>421</sup> Ikus 1954ko abenduaren 16ko L, Ondasun Higigarrien gaineko Hipotekari eta Lekualdaketarik gabeko Bahiari buruzkoa.

<sup>422</sup> FBko 574. legea.

<sup>423</sup> FBko 466, 471, 473. legeak.

### III. liburua.- Ondasunak

#### ***Antikresia***

Era berean, bahi edo hipotekarik eratu gabe itundu daiteke diruzko zor bat gauza higigarri edo higiezin baten erabilera edo luperketarekin osoki nahiz partzialki konpentsatua izatea.

#### ***Inskripzioa***

Antikresi-itunak inskriba daitezke, haien xedearen arabera, Jabetza Erregistroan edo beste erregistro batzuetan.<sup>424</sup>

#### **472. legea**

##### ***“Pignus Gordianum”***

Bahia azkendu denean betebeharrak bermatua betetzeagatik, hartzekodunak gauza pignoratuaren edukitza atxiki ahalko du, zordun berberaren ondorengo beste zor baten betetzea bermatzeko.

#### **473. legea**

##### ***Hitzarmenezko atxikitzea***

Betebeharrak orobat berma daitezke itunduz hartzekodunak gauza edo eskubidearen edukitza atxikiko duela harik eta betebeharrak betetzen den arte, baina horien gaineko xedatze-ahalmen inolakorik izan gabe.

Eskubide hori inskribatzeko modua egonen da gauzaren izaerak hala ahalbidetzen duenean.

Behin betebeharrak bete eta gero, hartzekodunak itzulketa egin eta kalte-ordaina eman beharko du, 470. legeak hartzekodun pignorazioari buruz ezarritakoarekin bat etorriz.<sup>425</sup>

#### **474. legea**

##### ***Berme gisa egindako gordailua***

Betebeharrak baten betetzea bermatzeko, diruzko edo bestelako gauza suntsikorrezko gordailua era daiteke hartzekodunaren alde. Hartzekodunak bere eskuetan gordailuak diren gauzen jabetza eskuratzen du, gauza horiek gordailugileari itzultzeko betebeharrak, hori bidezkoa bada, kontratuan ezarritakoaren arabera.

Gordailua hirugarren baten eskuetan egiten bada, hori behartuta egonen da gordailua hartzekodunari eman edo gordailugileari itzultzera, itundutakoaren arabera.<sup>426</sup>

---

<sup>424</sup> FBko 469.II, 470.II legeak.

<sup>425</sup> FBko 463. legea.

<sup>426</sup> FBko 550, 554. legeak. NJANaren 14/2009 epaia, ekainaren 23koa.

## IV. KAPITULUA

### Salmenta, atzera-eskuratze ituna berme gisa duena

#### 475. legea

##### *Bermea, atzera-eskuratze ituna duen salmentaren bitartekoa*

Diruzko betebeharraren betetzea berme daiteke salmenta eginez atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriarekin, halako moldez non zordunak berarentzat erreserbatzen baitu betebeharraren bete edo azkentzean gauza saldua atzera-eskuratze eskubidea.

##### *Presuntzioa. Araubidea*

Atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriarekin eginikoa denean salmenta, berme errealtzat hartuko da<sup>427</sup>, ez bakarrik tituluan espresuki halakotzat ezarri denean, baizik eta kontratutik hala ondorioztatzen denean edo 583. legeari jarraikiz presuntzio hori dagoenean ere; eta aplikatzeak izanen zaizkio kapitulu honetako xedapenak eta 577, 578 eta 579. legeetakoak.<sup>428</sup>

#### 476. legea

##### *Edukitzea, luperketa eta gastuak*

Salmenta atzera-eskuratze itunaren bermearekin egin bada, eta kontrako itunik izan ezean, presuntziorik uste izanen da saltzaileak eskubidea duela gauza edukitzeko eta lupertzeko, eta behartuta dagoela haren ondoriozko gastu, aseguru eta kontribuzioak ordaintzera.<sup>429</sup>

#### 477. legea

##### *Gauzatzea*

Betebeharraren epea igarotze hutsak ez dakar hartzekodunak irmoki eskuratzetik jabetza; aitzitik, hori gertatuko da hilabete eta egun bateko epea edo kontratuan ezarritako epe luzeagoa igarotakoan bakarrik, eta horren zenbaketa hasiko da hartzekodunak zordunari betebeharraren betetzea galdatzeko errekerimendua modu fede-emailean egiten dionetik.

Lege honetan araututakoa beteko da baita kontratuan ezer ezarri ez bada edo aurkakoa itundu bada ere. Zordunarentzat onuragarriagoa den edozein itunek betiere eutsiko dio bere indarrari.<sup>430</sup>

#### 478. legea

##### *Kalte izugarria baztertzea*

Aurreko legearekin bat etorriko eskuraketa irmoa gauzatzen bada, eskuraketa hori ezin izanen da hutsaldu prezioak izandako kaltearen ondorioz.<sup>431</sup>

---

<sup>427</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsiotan, NAOren 2019ko apirilaren 16ko gaztelaniazko testuan falta den tildea zuzendu dugu.

<sup>428</sup> FBko 463, 536, 572, 575-583. legeak, 5. xed. ir.

<sup>429</sup> FBko 353, 354, 583. legeak.

<sup>430</sup> FBko 484, 486, 520. legeak.

<sup>431</sup> FBko 499, 502.II legeak. NJANaren 11/1999 epaia, urriaren 26koa.

### III. liburua.- Ondasunak

#### 479. legea

##### *Fruituak*

Behin hartzekodunak jabetza eskuratu eta gero, 353. eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko zaio fruituen banaketari.

#### 480. legea

##### *Preskripzioa*

Beste eperik ez bada itundu, atzera-eskuratze akzioaren preskripzio epea hamar urtekoa izanen da.

Epe-zenbaketa hasiko da zordunak betebeharra betetzen duen unetik edo atzera-eskuratzeke asmoa duela erosleari jakinarazten dion unetik.<sup>432</sup>

## V. KAPITULUA

### Xedatzeko debekuak

#### 481. legea

##### *Dohaineko egintzetan*

Xedatzeko debekua ezarri bada "inter vivos" nahiz "mortis causa" erako dohaineko egintzetan, pertsona jakinen mesederako edo 224. legearen bigarren paragrafoko<sup>433</sup> mugen barruan zehaztutako edo zehazteko moduko pertsonen mesederako, debeku horrek eragingarritasun erreala du beti, eta erregistroan inskribatu ahal izanen da.<sup>434</sup>

#### 482. legea

##### *Kostu bidezko egintzetan*

Kostu bidezko egintzetan ezarritako xedatze-debekuak betebehar-izaerako eragingarritasuna du hamar urteko gehieneko eperako, baldin unean zehaztuta dauden pertsonen mesederako egina bada. Debeku hori inskribatzeko modukoa da, horretarako esanbidezko hitzarmena badago; behin erregistroan inskribatutakoan, debekuak eragingarritasun erreala izanen du lau urteko gehieneko epean.<sup>435</sup>

## VI. KAPITULUA

### Salmenta egitea, jabaria erreserbatzeko itunarekin

#### 483. legea

##### *Kontzeptua. Efektuak*

Jabaria erreserbatzeko itunaren bidez, saltzaileak eutsi egiten dio berak saldutako gauzaren jabetzari, prezioa oso-osorik ordaintzen den arte; eta zilegi izanen du egikaritzea bai jabari-hirugarrenagoa, bai eta bere eskubidea defendatzeko gainerako akzioak ere. Kontratua burututa egonen da sinatzen denetik, baina gauza eskualdatzearen efektua geroratuta geratuko da ordainketa oso-osorik egin arte. Bien bitartean, erosleari dagozkio saldutako gauzaren edukitza eta luperketa, kasua bada itunduak izandako

---

<sup>432</sup> FBko 36, 582, 583. legeak.

<sup>433</sup> 21/2019 FLk indarra hartu duenetik, FBko 224. legeak paragrafo bakarra dauka.

<sup>434</sup> HLko 26, 27. art.; HEko 57. art.

<sup>435</sup> HLko 27. art.; HEko 57. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

mugapenekin, eta haren ardurapekoak izanen dira gauzak berez dituen arriskua eta gastu guztiak; saltzaileak, bestalde, gauza ez xedatzeko betebeharra izanen du.

Salmenta Jabetza Erregistroan edo beste erregistro batean inskribatu eta gero, saltzaileak gauza xedatzeko buruturiko egintza oro kalterik gabekoa izanen da eroslearen eskubidearentzat.

Ondasunak enbargatzen direnean edo saltzailearen konkurtsoa suertatzen denean, bere indarrari eutsiko dio eroslearen eskubideak, hitzarturiko epeetan prezioa osorik ordainduz jabetza eskuratzekoak.<sup>436</sup>

### **484. legea**

#### ***Suntsiarazpena***

Erosleak prezioaren edozein ordainepe pagatu gabe uzten badu, saltzaileak ahalmena izanen du kontratua suntsiarazteko; baina suntsiarazpena gertatuko da hilabete eta egun bateko epea edo itundutako balizko epe luzeagoa igaro ondoren, saltzaileak erosleari betebeharraren betetzea galdatzeko errekerimendua modu fede-emaillean egiten dionetik zenbatuta.

Suntsiarazpena gertatzean, saltzaileak gauzaren gaineko xedatze-ahalmena berreskuratuko du, eta jaso dituen kopuruak itzuli beharko ditu; era berean, eskubidea izanen du gauzaren erabileragatiko eta eragindako kalte-galerengatiko konpentsazioa itundutakoaren arabera atxikitzeko edo erreklamatzeko; edo, itunik izan ezean, kalte-ordain egokia eskatzeko.<sup>437</sup>

### **485. legea**

#### ***Lagapena***

Bestelakorik itundu ezean, erosleak bere eskubidea "inter vivos" laga badu eta saltzaileak ez badu horretarako adostasunik eman, lagapen horrek ez du saltzailearengan eraginik izanen.

#### ***Betearazpena***

Eroslearen hartzekodunek ezin dute gauza eskuratzeko eskubidea subrogazio bidez egikaritu, baizik eta epaiketa bidez jardun beharko dute, beren kredituak eskubide horren kontura kobratzeko.<sup>438</sup>

---

<sup>436</sup> FBko 563, 565, 569, 574. legeak; OHESLko 7, 15, 16. art.; KLTB. NJANaren epai hauek: 15/2009, irailaren 1ekoa; 1992ko ekainaren 17koa.

Legearen bigarren paragrafoa konstituzio-kontrakotzat eta deuseztat jo zuen KAren irailaren 16ko 157/2021 epaiak.

<sup>437</sup> FBko 477, 486. legeak. NJANaren epai hauek: 5/2014, apirilaren 22koa; 15/2009, irailaren 1ekoa; 1992ko ekainaren 17koa.

<sup>438</sup> FBko 513, 581. legeak.



**VII. KAPITULUA**

**Komiso-itunarekin egindako salmenta**

**486. legea**

***Kontzeptua***

Prezioa guztiz edo partzialki geroratua duen salerosketan zilegi da komiso-ituna ezartzea. Horren bidez, hitzarturiko epean prezio osoa edo horren zati bat ez ordaintzeak saltzaileari ahalmena emanen dio kontratuaren suntsiarazpena zuzenbide osoz egikaritzeko. Suntsiarazpen hori gertatuko da hilabete eta egun bateko edo itundutako balizko epe luzeagoa betetzen denean bakarrik, kontatzen hasita saltzaileak erosleari betebeharraren betetzea galdatzeko errekerimendua modu fede-emailean egiten dionetik.

Saltzaileak aukeran du kontratua suntsiarazi edo, prezio geroratua jasoz, kontratuaren betetzea eskatu.<sup>439</sup>

**487. legea**

***Suntsiarazpena***

Suntsiarazpenaren kasuan, behin hori jakinarazi eta gero, saldugabetzat joko da gauza, eta efekturik gabe geratuko dira gauza besterendu eta kargatzeko egintzak, bai eta erosleak hitzarturiko errentamendu guztiak ere, Hipoteka Legean xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.<sup>440</sup>

---

<sup>439</sup> FBko 477, 484. legeak; HLko 11. art.; HEko 59. art.

<sup>440</sup> FBko 592. legea; HELko 13. art.; HLko 11. art.; HEko 59, 175.6. art. NJANaren 5/2014 epaia, apirilaren 22koa.

**IV. LIBURUA**  
**BETEBEHARRAK, ESTIPULAZIOAK ETA KONTRATUAK**

**I. TITULUA**  
**BETEBEHARRAK OROKORREAN**

**I. KAPITULUA**  
**Betebeharren iturriak eta efektuak**

**488. legea**

***Iturriak***

Betebeharrak sortzen dira borondate aldebakarretik nahiz adosturikotik, egitate kaltegarritik, kausarik gabeko aberastetik eta legetik.

Hitzarmenetik sortzen diren betebeharrak beharrezko dute askatasunez adierazitako baimena, objektu zehatza eta bidezko arrazoia izatea.

***Interpretazioa***

Betebeharrak interpretatu beharko dira horiek eratu zituen borondate deklaratuarekin, usadioarekin eta onustearekin bat etorriz.

Kontrako itunik izan ezean, prestazio bat egiteko betebeharra duenak bere kontura bete beharko ditu titulazio-formalitateak, hala nola traktuari jarraipena ematea erregistro eta bulego publikoetan, agiriak aurkeztea, eta betebeharra osorik betetzeko bai eta karga nahiz mugapen azkenduen erregistro-ezerezpenerako gainerako egintzak ere.

Itunak zordunaren mesederako egin direla uste izanen da presuntzioz, salbu eta presuntzio hori egintzak dituen izaeraren edo inguruabarren aurkakoa denean.<sup>441</sup>

**489. legea**

***Deuseztasuna, deuseztagarritasuna eta hutsalgarritasuna***

Betebeharrak deusez, deuseztagarri edo hutsalgarriak izanen dira, 19., 20. eta 21. legeetan xedaturikoaren arabera.<sup>442</sup>

**490. legea**

---

<sup>441</sup> FBko 7, 18, 127.II, 176, 281. legeak; KZko 10.5, 8, 9 eta 10. art. NJANaren honako epai hauek: 4/2021, azaroaren 3koa; 1/2017, urtarrilaren 13koa; 14/2016, azaroaren 9koa; 12/2016, irailaren 15koa; 1/2016, otsailaren 5koa; 12/2015, azaroaren 19koa; 2/2014, martxoaren 6koa; 18/2013, abenduaren 4koa; 14/2013, urriaren 25koa; 8/2013, maiatzaren 17koa; 23/2012, irailaren 12koa; 6/2012, martxoaren 12koa; 21/2011, abenduaren 20koa; 15/2011, irailaren 27koa; 18/2010, azaroaren 2koa; 24/2008, abenduaren 9koa; 5/2007, apirilaren 17koa; 13/2006, ekainaren 23koa; 20/2005, abenduaren 22koa; 14/2005, azaroaren 9koa; 10/2005, ekainaren 21koa; 18/2004, irailaren 28koa; 2/2004, urtarrilaren 27koa; 43/2003, urriaren 6koa; 33/2003, ekainaren 24koa; 16/2001, ekainaren 25koa.

<sup>442</sup> FBko 500-506. legeak; KEBFLko 6. art. NJANaren honako epai hauek: 5/2020, abenduaren 2koa; 15/2007, azaroaren 13koa.

#### IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

##### ***Berandutze-interesak***

Diruzko zor guztiek legezko interesak sortzen dituzte betebeharra mugaeguneratzen denetik, are interes-estipulaziorik izan ez denean ere.<sup>443</sup>

##### **491. legea**

###### ***Zatigarritasun-presuntzioa***

Non eta legeak edo itunak ez duten deklaritzen ezen betebeharrean esku hartzen duten zordun edo hartzekodunetako batzuk solidarioki direla halakoak, edo ez den hala suertatzen betebeharraren izaeratik nahiz inguruabarretatik, ulertuko da parte zatituka direla halako, bai aktiboki bai pasiboki.

###### ***Betebehar zatietzinak***

Prestazioa berez zatietzina bada, osoaren gaineko erreklamazioa egin beharko da, baina zordun baten kaudimengabeziak ez die gainerako zordunei kalterik egingen.<sup>444</sup>

## **II. KAPITULUA**

### **Betebeharrak betetzea eta azkentzea**

##### **492. legea**

###### ***Betebeharra betetzea***

Betebeharrak azkentzen dira betetzen direnean.

###### ***Baldintzak***

Betebeharra zatigarria denean ere, hartzekodunak zilegi izanen du ezezkoa ematea betebeharraren betetze osatugaberako edo zor den objektuaz beste baterako eskaintzari.<sup>445</sup>

##### **493. legea**

###### ***Ordainketaren aitortpena***

Norbaitek agiri bidez aitortzen badu kopuru bat kobratu duela, ezin izanen du galdatu kopuru hori egiazki ordaindu izanaren frogarik, baina aipatu agiria aurkaratu ahal izanen du ordainketa hori egin ez dela frogatuz.<sup>446</sup>

##### **494. legea**

###### ***Ordainketa partziala***

492. legean xedatutakoa gorabehera, hartzekoduna behartu daiteke kopuru baten ordainketa partziala onar dezan, baldin eta zordunak gainerako kopuruaren ordainketa bermatzen badu.

Hartzekodunak ez-nahikotzat jotzen badu zordunak emandako bermea, epaileak horri buruz egokia dena erabakiko du, bidezko prozesu deklaratiboan alderdietako edozeinek eskatu ondoren edo zordunak ordainketa partziala eta zorraren gainerako zatiaren

---

<sup>443</sup> FBko 535. legea; NJANaren 6/2022 epaia, maiatzaren 4koa.

<sup>444</sup> NJANaren epai hauek: 27/2002, azaroaren 26koa; 16/1996, azaroaren 4koa.

<sup>445</sup> FBko 494, 497, 518. legeak.

<sup>446</sup> FBko 534. legea; PZLko 217. art.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

bermearen nahikotasuna oinarri harturik dena delako betearazpen-prozeduran adierazi ahalko duen aurkako jarreraren ondorioz.

### **495. legea**

#### ***Ordainean ematea***

Hartzekodunak onartzen badu ordainean eman dakion zor den objektuaz beste gauza bat, betebeharra azkendutzat joko da hartzekodun horrek gauza subrogatuaren jabetza eskuratzen duen unetik soilik; baina betebeharraren bermeak onarpen-unean azkenduko dira, horiei espresuki eusten zaienean salbu.

#### ***Ordainean nahitaez ematea***

Diru-zenbateko baten hartzekodunak diruaz bestelako objektu bat onartu beharko du baldin eta epaileak ordezpen hori bidezkotzat jotzen badu kontuan hartu duelako zorduna likidezariak gabeko posizio batean dagoela bere ondasunak diru bihurtu ezinaren ondorioz, eta prestazioa nahitaez betearazteak edo ez betetzeak zordunari neurrigabeki astunduko liokeela prestazioa, proportziorik ez egoteagatik horren ondorio edo bermeen eta diru-zorraren artean.

Ezertan eragotzi gabe zordunak bidezko prozesu deklaratihoan eskaera aurkeztea, zilegi izanen du, betearaztea abiarazi bada, aurkaritza formulatzea, ordainean emate hori kausatzat hartuta, kasuko betearazpen-prozeduran prestazioa neurrigabeki astunduta suertatzeagatik.

#### ***Ordaintzeko ematea***

Ordaintzeko emateak zorduna askatzen du lagatako ondasunen zenbateko likidoaren neurrian bakarrik.<sup>447</sup>

### **496. legea**

#### ***Epailearen zainpean jarritz ordaintzea***

Hartzekodunak bidegabeki ezezkoa ematen badio berari zor zaion kopuruaren edo gauza higigarriaren ordainketa onartzeari, zorduna erantzukizunetik aske geratuko da kopuru edo gauza hori epailearen zainpean jarritz. Gauza higiezina bada, zorduna erantzukizunetik askatu ahalko da gauza hori epailearen eskura jarritz.

#### ***Hirugarrenek egindako ordainketa***

Baldin betebeharrak, bere izaeraren nahiz itun baten ondorioz, ez badu zorduna behartzen betetze pertsonal batera, betebeharra hirugarren batek bete ahalko du, baita zordunak horren berri ez duenean ere. Hirugarrenek ordainketa egin badu zorduna horren jakitun izanik eta horren aurka jarri gabe, edo ordainketa egin badu betetze horretan interesa duelako, hirugarren hori hartzekodunaren eskubidean subrogatuko da. Gainerako kasuetan, zordunaren aurka berreskaera-eskubidea erabili ahal izanen du horrek ordainketaren ondorioz izan duen onuraren heinean bakarrik.<sup>448</sup>

---

<sup>447</sup> Legearen bigarren paragrafoa ez da konstituzio-kontrakoa, KAren irailaren 16ko 157/2021 epaiaren 10.b) ZOaren arabera interpretatua. NJANaren 17/2013 epaia, azaroaren 12koa.

<sup>448</sup> PZLko 449. art.; ikus 19/2018 ELD, azaroaren 23koa, Ordainketa-zerbitzuak eta Finantza-arloko Presako Beste Neurri batzuk arautzen dituen.

## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### 497. legea

#### *Azkontzeko beste modu batzuk*

Betebeharrak azkentzen dira, berebat, nobazioagatik, konpentsazioagatik, zordunaren eta hartzekodunaren titulartasunak bateratzeagatik, zorra barkatzeagatik eta betetzea ezinezkoa denean zordunarekin zerikusirik ez duen kausa baten ondorioz, haren errurik gabekoa.<sup>449</sup>

## III. KAPITULUA

### Betebeharrak berrikustea

### 498. legea

#### *“Rebus sic stantibus”*

Epe luzekoak edo segidako traktudunak diren betebeharrei dagokienez, betetze-epean zehar funtsean eta larriki aldatzen bada betebeharraren eduki ekonomikoa edo prestazioen arteko proportzionaltasuna, ustekabeko inguruabarrak gertatu direlako, alderdietako batentzat karga handiegikoa egiten dutenak betebeharren betetzea, alderdi horrek epailearen bitartezko berrikuspena eskatu ahalko du, betebeharra ekitate-irizpideen arabera aldatze edo horren suntsiarazpena deklaratzeko aldera.<sup>450</sup>

## IV. KAPITULUA

### Betebeharren ez-betetzeak

### 499. legea

#### *Ez-betetzea*

Betebeharraren ez-betetzea dago zordunak prestazioa ez duenean egiten aginduzkoak zaizkion zertzeladekin, salbu eta 497. legeko azken oharrean aipaturiko kasuan.

#### *Efektuak*

Ez-betetze errudunaren kasuan, zorduna behartuta dago eragin diren kalteak ordaintzera.<sup>451</sup>

---

<sup>449</sup> FBko 499. legea. NJANaren honako epai hauek: 5/2013, martxoaren 1ekoa; 4/2013, otsailaren 21ekoa; 15/2010, urriaren 8koa; 17/2003, ekainaren 5ekoa; 43/2003, urriaren 6koa; 12/2003, apirilaren 2koa.

<sup>450</sup> FBko 530. legea. NJANaren 9/2013 epaia, ekainaren 5ekoa.

<sup>451</sup> FBko 492, 495, 496, 497. legeak. NJANaren honako epai hauek: 1/2019, urtarrilaren 14koa; 2/2016, otsailaren 10ekoa; 1/2015, urtarrilaren 14koa; 12/2015, azaroaren 19koa; 7/2013, apirilaren 22koa ; 15/2010, urriaren 8koa; 43/2003, urriaren 6koa; 2/2000, urtarrilaren 26koa ; 4/1997.

**V. KAPITULUA.**

**Kaltearen ondoriozko hutsaltzea.**

**500. legea**

***Kontzeptua***

Norbaitek kalte izugarria jasan badu premiazko beharrezanaren edo esperientziarik ezaren ondorioz kostu bidezko kontratua onartu duelako, horren hutsaltzea eskatu ahal izanen du.

Kalte izugarritzat hartuko da prestazioak duen balioaren erdia baino gehiagokoa, prestazioa kontratuaren garaian zenbatetsirik.

Kalteak balio horren bi herenak gainditzen baditu, kaltea oso izugarria dela ulertuko da.

***Subjektua***

Inolako kasutan ere ezin du kalteagatiko hutsaltzerik eskatu kontratuaren xede diren gauzen trafikoa lanbidez nahiz ohikotasunez diharduenak edo gauza horietan aditu denak.

***Xedea***

Hutsaltzearen xede izanen dira ondasun higiezinaren gaineko kontratuak ez ezik higigarrien gainekoak ere, baldin eta, aintzat harturik ondasun horien balioa eta kontratuak ondarearearekiko eginiko kaltea, akzioa justifikatuta dagoela jotzen bada.<sup>452</sup>

**501. legea**

***Gauza-multzo baten gaineko kontratua***

Zilegi izanen da kalteagatik osoki hutsaltzea gauza-multzo baten gainean prezio bateratuaren truke egiten den kontratua, gauza bakoitzaren prezio, balio edo zenbatespena banaka zehazten denean ere.

**502. legea**

***Salbuespenak***

Ez dira hutsalduko eskuzabaltasun hutseko kontratuak, ausazko kontratuak edo auzipeko xedea duten kontratuak.

Salmentak grazia-agiriarekin edo atzera-eskuratze itunarekin egin badira, hutsaltzea gertatuko da epea iraungitzen edo atzera-eskuratze eskubidea azkentzen denean bakarrik. Eperik ez denean finkatu, 577. legean xedatuari helduko zaio.<sup>453</sup>

**503. legea**

***Akzioa***

Kalteagatiko hutsaltze-akzioa pertsonala da, eta jaraunseei eskualda dakieke. Ez da halako akziorik izanen baldin eta bidezkoak badira gauzaren akats edo hutsen ondoriozko saneamendu-akzioak edo kontratu-deuseztasuneko akzioa.

Kalteagatiko hutsaltze-akzioa 30. legean ezarritako epeetan preskribatuko da.<sup>454</sup>

---

<sup>452</sup> FBko 19, 21, 336. legeak; KZko 10.5, 16. art.; MK-ko 334. art. NJANaren 14/1994 epaia, ekainaren 30ekoa.

<sup>453</sup> FBko 366, 478, 576. legeak.

<sup>454</sup> FBko 36. legea; HLko 37. art.

#### IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

##### **504. legea**

###### ***Uko egitea***

Hutsaltze-akzioari uko egiten bazaio horren jomuga den kontratuaren aldi berean nahiz ondoren, uko hori baliozkoa izanen da baldin eta egiten bada kontratu hori egiteko erabilitako formari jarraikiz gutxienik ere, eta xeheki, argiro eta ulertzeko moduan adierazten baditu berekin dakartzan ondorio juridikoak eta ekonomikoak.

Hala ere, uko egitea ez da baliozkoa izanen, premiazko beharrianaren edo esperientzia- ezaren ondoriozkoa bada.<sup>455</sup>

##### **505. legea**

###### ***Itzulketa***

###### ***a) Fruituak***

Behin hutsaltzea deklaratu eta gero, gauza bere fruituekin batera itzuliko da. Fruitu horiei dagokienez, 353. eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

###### ***b) Hobekuntzak***

Ez da hobekuntzen ordainketarako inolako eskubiderik izanen, baina demandatuak zilegi izanen du hobekuntza horiek erretiratzea baldin eta, hobekuntza haiek zer gauzari atxiki zaizkion, gauza horren kalterik gabe desatxiki badaitezke.

###### ***c) Prezioaren osagarria***

Itzulketa ezin bada gauzatu demandatuak gauza bere esku ez izateagatik, prezio, balio edo zenbatespenaren osagarria bakarrik ordaindu beharko du, legezko interesekin batera.

###### ***Kalte-ordaina***

Betiere, hutsaltzea saihestu ahal izanen da aurreko paragrafoan aipaturiko kalte-ordaina emanez.

##### **506. legea**

###### ***Akzioaren zatiezintasuna***

Hutsalketa-akzioa zatiezina da, eta betebeharreko guztien aurka multzoan egikaritu beharko dute<sup>456</sup> egikaritzeko eskubidea duten guztiek edo horietako edozeinek, osotasunari dagokionez.

Ez da hutsalketarik gertatuko betebeharreko guztiak kalte-ordaina ematearekin ados daudenean, eta kalte-ordain hori eman beharko dute bakoitzari dagokion proportzioan. Batek bakarrik baldin badu akzioa egikaritzeko asmoa, asmo hori aldeztu aurretik jakinarazi behar die hutsalketarako eskubidea duten gainerakoei, auzian parte hartzeko aukera izan dezaten. Horietako batek akzioa egikaritu ondoren, gainerakoekin banatu beharko du berak egikaritutako akzioaren emaitza onuragarria, auzi-gastuak kenduta.

---

<sup>455</sup> FBko 9, 500. legeak.

<sup>456</sup> Liburu honen gaztelaniazko bertsioan, 2019ko apirilaren 16ko NAOren gaztelaniazko testuan, ageri den akatsa zuzendu dugu (“deberá se ejercitada”).

## **VI. KAPITULUA**

### **Kontratuz kanpoko erantzukizuna**

#### **507. legea**

##### ***Kontratuz kanpoko erantzukizuna***

Norbaitek zabarkeriaz edo arriskuzko jardunez kalte egiten badio besteren pertsona, ondare edo interesari, kalte-ordaina eman beharko dio kaltetuari, kasuan kasuko inguruabarren arabera.

Baldin eta, hainbat eragilek eginiko kaltea izanik, ekintza bakoitzak kalteko emaitzan izan duen eragina ezin bada zehaztu, horiek guztiak erantzukizun solidarioa izanen dute. Kalte-ordaina galdatzeko akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen da. Epe hori zenbatuko da, akzioa egikaritzeko modua egonda, kaltearen berri izan zenetik edo haren ondorioen norainokoa zehaztu ahal izan zenetik. Kalte jarraituen kasuan, “dies a quo” delakoa kalte horien behin betiko zehaztapena egiten den unea izanen da.<sup>457</sup>

## **VII. KAPITULUA II**

### **Aberaste kausagabea**

#### **508. legea**

##### ***Motak***

##### ***Aberaste kausagabea, oro har***

Baldin eta norbaitek, bere kabuz nahiz hirugarren baten bitartez, ezer eskuratzen edo atxikitzen badu edo beste edonola aberasten bada halakorik justifikatzen duen kausarik egon gabe, irabazi bat lorturik beste pertsona batengandik edo haren kaltetan, haren ondarea urritzen duena, behartuta egonen da jaso duena itzultzera edo lortu duen ondare-abantailaren balioa ordaintzera. Halaber, ondare-urritzea jasan duenari egindako kaltearen ordaina eman beharko dio, legez hori ezartzen denean edo epaileak egokitatzat jotzen duenean.

##### ***Egintza ez-zilegiaren edo immoralaren bitartezko eskurapena***

Ulertzen da eskurapen kausagabea dela egintza ez-zilegi baten edo hitzarmen debekatu edo eskuratzailearentzat immoral den baten ondorioz eginikoa.

---

<sup>457</sup> ZK-ko 109. eta hurrengo art.; AEPLOko 61. eta hurrengo art.; KEBFLko 10. art.; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 FLko 116. art.; KEDLOTBko 128. eta hurrengo art. NJANaren honako epai hauek: 1/2018, urtarrilaren 22koa; 15/2016, abenduaren 5koa; 22/2012, irailaren 5koa; 17/2012, ekainaren 15koa; 9/2012, maiatzaren 7koa; 3/2012, otsailaren 24koa; 16/2011, urriaren 3koa; 12/2011, uztailaren 22koa; 18/2009, azaroaren 18koa; 11/2008, maiatzaren 26koa; 10/2008, maiatzaren 14koa; 20/2006, abenduaren 21koa; 18/2005, azaroaren 28koa; 16/2005, azaroaren 24koa; 14/2003, apirilaren 28koa; 1/2003, urtarrilaren 15koa; 24/2002, urriaren 23koa; 20/2002, irailaren 6koa; 6/2002, otsailaren 19koa; 3/2002, otsailaren 6koa; 2/2002, otsailaren 6koa ; 1/2002, otsailaren 6koa; 13/2001, maiatzaren 16koa; 11/2001, apirilaren 14koa; 10/2000, apirilaren 13koa; 3/2000, otsailaren 19koa ; 20/1999, abenduaren 31koa; 16/1999, azaroaren 25koa; 15/1999, azaroaren 24koa; 14/1998, azaroaren 28koa; 13/1998, urriaren 20koa; 13/1997, ekainaren 10koa; 7/1996, martxoaren 30koa; 20/1994, azaroaren 26koa; 7/1994, martxoaren 11koa; 13/1993, uztailaren 30koa.



#### IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

Kasu horretan, eskuratzailleak betebeharra du berak jasotakoa haren fruitu, etekin edo interesekin batera itzultzeko eta egindako kaltearen ordaina emateko. Gauza galdu egin bada, are ezusteko kasu baten ondorioz izan denean ere, betebeharrak bere horretan iraunen du, eta haren balioa itzuli beharrekoa izanen da, kasua bada kaltearen ordaina emateaz gain.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez da aplikatuko eskuratzaillea adingabe emantzipatugabea bada edo bere gaitasuna egikaritzeko laguntza behar badu eta ez badu laguntza hori jaso; halakoetan, bere aberastearen gaineko erantzukizuna baizik ez du izanen.

##### ***Atxikitze kausagabea***

Ulertzen da kausarik gabe atxikitzen dela gauza bat, baldin eta kontraprestazio bat egiteko jasotakoa izanik ez bada kontraprestazio hori gauzatu; edo zor ez zen betebeharrak baten kobrantza gisa jaso bazen, bai ordaintzailearen bai kobratzailearen okerra tarteko; edo gauza bat hasieran baliodun izandako kausa batengatik jaso ondoren, kausa horrek une batetik aurrera jada ez duenean justifikatzen eskuratutakoa atxikitzea.

Kasu horietan, eskuratzaillea behartuta dago bere aberaskina itzultzera. Horrez gain, aplikatzekoa izanen da Konpilazio honek edukitarako xedatzen duena.<sup>458</sup>

#### **509. legea**

##### ***Zor ez dena ordaindu izana frogatzea***

Norbaitek erreklamatu bada zor ez zenarengatik ordaindutakoa, frogatu behar du ordainketa hori egin duela eta ez zegoela horretara behartua.

Kobratu duenak formalki ukatzen badu kobratu duela, bera egonen da behartuta, ordainketa egin zela frogatzen denez geroztik, horretarako betebeharra bazegoela frogatzera.

Zor ez zena kobratu duenak zilegi izanen du kobratutakoa atxikitzea, baldin eta frogatzen badu ordainketa egin duenak okerreko usterik gabe egin duela.

Kobratu duenaren gaitzusteak frogatzen bada, kobratzaile hori egintza ez-zilegiaren bitarteko eskuratzaitzat hartuko da.<sup>459</sup>

#### **510. legea**

##### ***Betebeharrak naturalak***

Ezin izanen da ordaindutakoa erreklamatu baldin ordainketa hori betebeharrak moral bat edo usadioaren ondoriozko bat betetzeko egin bada, are judizialki ezin galdatuzkoa denean ere. Betebeharrak naturalen gaineko aitortpenak, nobazioak, konpentsazioak eta berme-emateak efektu zibilak sortzen dituzte.

---

<sup>458</sup> FBko 96, 488, 509, 510. legeak; KZko 10.9.III eta 10. art.; NJANaren honako epai hauek: 5/2022, martxoaren 30ekoa; 1/2019, urtarrilaren 14koa; 11/2015, irailaren 24koa; 12/2015, azaroaren 19koa; 15/2010, urriaren 8koa; 17/2003, ekainaren 5koa; 4/1998, otsailaren 16koa; 4/1997, martxoaren 11koa; 1/1997, urtarrilaren 31koa.

<sup>459</sup> FBko 508. legea.

***Ordaintzailearentzat immorala den kausa***

Era berean, erreklamaezina da ordaindu zuenarentzat immorala den hitzarmen baten ondorioz emandakoa, nahiz eta kobratu zuenarentzat ere immorala izan.<sup>460</sup>

**VIII. KAPITULUA**  
**Betebeharrak lagatzea**

**511. legea**

***Kredituak lagatzea***

Hartzekodunak zilegi du berak zordunaren aurka duen eskubidea lagatzea; baina lagapena kostu bidezkoa bada, zorduna aske geldituko da lagapen-hartzaileari ordaintzen badizkio horrek ordaindutako prezioa, legezko interesak eta kreditu-errekamazioaren ondorioz izan dituen gastuak.

Hipoteka-legeriak ezartzen dituen formalitateak ezertan eragotzi gabe, lagatzaileak zordunari modu fede-emailean jakinarazi beharko dio lagapena, horrez gain berariak eta banan-banan adierazirik lagapen-hartzailearen identitate eta helbidea eta kredituagatik ordainduko prezioa.

Zordunak bere eskubidea egikaritu ahal izanen du prozesu deklaratihoan dagokion akzioaren edo salbuespenaren bidez, edo gehiegizko eskaeraren ondoriozko aurkaritza aurkeztuz dena delako betearazpen-prozeduran.

Lagapena egiten bada betearazpen-prozedura abiarazi ondoren, organo judizialak lagatzaileari errekerimendua eginen dio lagapenaren prezioa adierazteko, zordunak bere eskubidea erabili ahal izan dezan ezartzen zaion epean.<sup>461</sup>

**512. legea**

***Zorrak bereganatzea***

Besteren betebeharrak bat bere gain hartzen duen hirugarrena betebeharrean geratzen da, betebeharraren nondik norakoek zehazten duten moduan, betebeharrak bereganatzea zer zordun edo hartzekodunekin hitzartu duen, horrekiko; eta, bestelakorik ez bada ezarri, hirugarrenak bere gain hartzen ditu, halaber, betebeharrak nagusiari erantsitako edo betebeharrak horretatik eratorritako betebeharrak guztiak.

Hartzekodunak ez badu betebeharrak bereganatzea onartu, bereganatzea horrek ez du zorduna erantzukizunetik askatzen, betebeharrak betetzen ez den bitartean.

Hartzekodunak zordun-ordezpenari onarpena eman ahal izanen dio dela esanbidez dela lehenengo hartzekodunaren askapena zalantza-biderik gabe aditzera ematen duten egintzen bidez.<sup>462</sup>

Betebeharraren betetzea bermatu duten hirugarrenak aske geratuko dira bereganatzearen ondorioz, salbu eta horri beren baimena eman badiote.<sup>463</sup>

---

<sup>460</sup> NJANaren 1993ko martxoaren 25eko epaia.

<sup>461</sup> FBko 485. legea; MK-ko 347. art. Legearen lehenengo paragrafoa ez da konstituzio-kontrakoa, KAREN irailaren 16ko 157/2021 epaiaren 9.g) ZOaren arabera interpretatua. NJANaren epai hauek: 13/2016, azaroaren 7koa; 13/2012, maiatzaren 29koa.

<sup>462</sup> Badirudi "lehenengo hartzekoduna" dioen tokian "lehenengo zorduna" ulertu behar dela.

<sup>463</sup> HLko 118. art.

## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### 513. legea

#### *Kontratua lagatzea*

Kontratugile orok zilegi du kontratua hirugarren bati lagatzea, hirugarren horrek kontratugilea ordeztu dezan oraindik gauzatzeko egon eta guztiz pertsonalak ez diren harremanetan.

Alderdi batek prebentzioz baimena eman badu kontratua hirugarren bati lagatzeko, betiere lagapen hori egin bada ondorio juridikoak eta ekonomikoak zehatz-mehatz, argiro eta modu ulergarrian adierazten dituen klausula batekin, ordezpena eragingarria izanen da, alderdi hari begira, jakinarazten zaion unetik; ez badio prebentziozko adostasunik eman lagapenari, edo inguruabar horiek adierazi gabe egin badu, lagapen horrek alderdiarengan eragina izanen du alderdiak lagapen hori onartzen baldin badu bakarrik.

Jakinarazpenaren edo onarpenaren bidez, kasuan-kasuan, ordezpena eragingarria denetik, lagatzailea kontratutik aske geratzen da eta lagapen-hartzailea horren lekuan subrogatzen da.

Lagatako kontratugileak zilegi du lagapen-hartzaileari kontrajartzea kontratutik eratorritako salbuespen guztiak, baina ez, ordea, lagatzailearekiko beste harreman batzuetan oinarritzen direnak.

Kontratuaren betetzea bermatu duten hirugarrenak aske geratzen dira lagapenaren ondorioz, salbu eta horretarako baimena eman dutenean.<sup>464</sup>

### 514. legea

#### *Subrogatzeko ahalmena jasotzen duen kontratua*

Zilegi da kontratu bat hitzartzea kontratugileetatik edozeini ahalmena ematen diona beraren eskubide eta betebeharretan subrogatu behar den pertsona gero izendatzeko. Kasu horretan, zehatz-mehatz, argiro eta modu ulergarrian adierazi behar dira horrek ekarriko dituen ondorio juridiko eta ekonomikoak. Beste kontratugileak edozein unetan errekerimendua egin ahal izanen dio ahaldunduari, izendapena egin dezan urtebete eta egun bateko gehieneko epean, errekerimendua egiten denetik zenbatuta, kontratuan edo lege-aginduz beste epe bat ezarri denean izan ezik.

Dena delako pertsona izendatzeko adierazpena epean jakinarazi behar zaio besteari. Behin jakinarazpena egin eta gero, pertsona izendatua subrogatu egiten da izendapen hori egin duen alderdiaren eskubideetan, eta bere gain hartzen ditu alderdi horren betebeharrak, efektua sorturik kontratuaren sinatze-unetik aurrera.

Baldin eta epe barruan ez bada pertsona-izendapenik jakinarazten, kontratuak efektu guztiak kontratu-sinatzaile izan ziren alderdien artean sortuko ditu.

---

<sup>464</sup> FBko 485, 594. legeak; HELko 8, 32. art.; LELko 23. art.; 2/2018 FL, apirilaren 13koa, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzkoa. NJANaren honako epai hauek: 13/2016, azaroaren 7koa; 4/2012, otsailaren 29koa; 2/1998, urtarrilaren 27koa; 1999ko ekainaren 9koa.

**II. TITULUA**  
**ESTIPULAZIOAK**

**I. KAPITULUA**  
**Hitzemateak orokorrean**

**515. legea**

***Kontzeptua***

Estipulazioak egintza batzuk dira, zeinen bitartez pertsona bat bere hitzematearen bidez beste baten zordun bihurtzen baita, beste pertsona hori kontratuz behartuta gertatu gabe kontraprestaziorik betetzera.<sup>465</sup>

**516. legea**

***Kontratua egiteko hitzematea***

Norbaiten kontratu bat etorkizunean egiteko hitza ematen badu, hitzemate horrek betebeharraren jartzen du bere egilea; betiere, zein kontraturen onarpena hitzeman, eta kontratu horren funtsezko elementuak zehaztu direnean.

Etorkizuneko kontratu bat prestatzeko adostasun-hitzarmenak, aurreikusitako kontratua egiteko betekizun guztiak betetzen ez dituenean ere, bi alderdiak jartzen ditu betebeharraren.

Hitzemate horietatik sortzen den kontratatze-betebeharra eraenduko da hitzemandako kontratuari aplikatu behar zaizkion erregelaren bitartez. Hitzematean aurreikusi ez diren kontratu-elementu akzidentalak usadioari, ohiturari eta legeari jarraikiz zehaztuko dira; eta, halakorik ez, epeile batek ekitatearen arabera harturiko erabakiaren bidez.<sup>466</sup>

**517. legea**

***Erosteko aukera***

Erosteko aukerari buruzko hitzemateak efektu erreala baldin baditu, hitzemate hori 460. eta 461. legeek eraenduko dute.<sup>467</sup>

**518. legea**

***Estipulazio penala***

***a) Zigortzailea***

Prestazio zilegi baten ez-betetzearen zigor gisa kopuru bat ordainduko dela estipulatzeak betebeharraren jartzen du estipulazio horretan espresuki jasotako jokabidea egin duen hitzemailea.

Zigorra ordaintzeko betebeharrak izaera subsidiarioa du, eta hartzekodunak zilegi du estipulazioko zigorra ordaintzeko eskaintza errefusatu eta betebeharraren nagusiaren ez-betetzearatik zor den kalte-ordaina galdatzea.

Hartzekodunak bere borondatez onartzen badu betebeharraren betetzea, nahiz eta hori partziala izan, ulertuko da estipulazio penalarari uko egin zaiola, non eta ez den bestelakorik itundu.

---

<sup>465</sup> FBko 82, 128. legeak; KZko 10.5, 8, 9 eta 10. art., eta 11. art.

<sup>466</sup> FBko 517, 547. legeak.

<sup>467</sup> FBko 516. legea; HEko 14. art. NJANaren 1995eko ekainaren 28ko epaia.

#### IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

Zigorra kobratu ondoren ez-betetzeagatiko kalte-ordaina eskatuz gero, kobraturiko zigorra kendu egingen da kontratuaren arabera zor den kalte-ordainetik.

Hitzarturiko zigorra epailearen erabakiz murriztu ahal izanen da, suertaturiko inguruabarren ondorioz oso garestia edo proportziorik gabea gertatzen bada prestazioaren xedearekin alderatuta.

Kausarik egonez gero zorduna betebeharrak nagusitik askatuko lukeenik, zordun hori zigorretik aske geratuko da.

##### **b) Likidaziokoa**

Zigorra ez-betetzearen alternatiba gisa estipulatzen bada, hartzekodunak ezin izanen du diru kopuru handiagorik galdatu kaltearengatik, salbu eta epaileak kopuru hori kaltearen norainokoarekiko proportziorik gabea jotzen duenean.

##### **c) Fakultatiboa**

Betetzearen alternatiba modura diru kopuru bat ordaintzearen estipulazioak zorduna salbuetsi egiten du, kopuru hori ordainduz, betebeharrak betetzetik.<sup>468</sup>

#### **519. legea**

##### ***Baldintza eta epemuga***

Hitzemateak baldintza bati nahiz epemuga bati lot dakizkioke. Baldintzapekoak ez dira sortzen harik eta baldintza bete arte, baina baldintzak atzeraeragina du. Epemugapekoak hasiera-hasieratik sortzen dira; baina ezin da horien betetzea galdatu epemuga heldu baino lehen. Hitzemateak baldintzapetuta badaude ezezkoa, immorala edo legez kontrakoa den egitate bati, deuseztat hartuko dira.<sup>469</sup>

#### **520. legea**

##### ***Errentaren gaineko estipulazioa***

Nahitaezkoa da mugapen bat ipintzea diru-kopuru edo gauza suntsikor bat aldi behin ordaintzeko hitzemateari, dela epemuga bat ezarriz, dela haren indarraldia bat etorraraziz hartzekodunaren bizialdiarekin edo beste pertsona zehatz jadanik bizidun edo etorkizunean bizitzekoa den baten bizialdiarekin. Beste pertsona zehatz horren existentzia frogatu beharrekoa izanen da aldi behingo diru-kopuruaren ordaintzea eskatzen denean.

Betebeharrak hori halaber era daiteke horren truke ondasunak lagatzeko kontratu bat eginez, bai eta "mortis causa" xedatze baten bidez ere. Lagapena egitean ez bada bestelakorik itundu, behin betebeharraren betetzea hasi eta gero kontratua ezin izanen da suntsiarazi gero ez-betetzearen ondorioz, baina lagatzaileak zilegi izanen du galdatzea etorkizunean sortuko diren kopuruaren ordaintzaren bermea. Itun bidez erabaki bada ez-betetzeak baldintza suntsiarazlearen balioa izatea, itun horrek eragingarritasun erreala izanen du, eta Erregistroan inskribatu ahal izanen da. Suntsiarazte-akzioa egikaritu beharko da 477. legeak atzera-eskuratze ituna duen salmentarako ezartzen dituen

---

<sup>468</sup> MK-ko 56. art.; 2/2018 FL, apirilaren 13koa, Nafarroako Kontratu Publikoetarako buruzkoa. NJANaren honako epai hauek: 9/2015, ekainaren 29koa; 8/2013, maiatzaren 17koa; 6/2012, martxoaren 12koa; 12/2009, ekainaren 11koa; 18/2007, abenduaren 28koa; 14/2005, azaroaren 9koa; 2/2004, urtarrilaren 27koa; 5/2000, martxoaren 8koa; 10/1997, maiatzaren 20koa.

<sup>469</sup> NJANaren 5/2012 epaia, martxoaren 2koa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

zertzelada eta baldintzekin. Kontrako itunik izan ezean, lagapen-hartzaileak ezin izanen ditu berreskaera-eskubidearen bitartez erreklamatu ordaindutako kopuruak.<sup>470</sup>

### 521. legea

#### *Eskaintza publikoa*

Gauza baten gain eta baldintza zilegipean hitza eman bada, hitzemate horrek hitzemailea betebeharean jartzen du hitzemate horri behar adinako publizitatea ematen zaionetik, baita haren onarpenik inork jakinarazi ez duenean ere. Hitzemaileak ez badu eperik finkatu, ulertuko da eskaintzari eusten zaiola epailearen iritziaren arabera beharrezkotzat jotzen den denboraz. Pertsona zehatz batek hitzemaileari bere onarpena jakinarazten badio eskaintza iraungi baino lehen, ulertuko da eskaintzari eutsi egiten zaiola, onartzaileari dagokionez, urtebete eta egun batez, salbu eta onarpenaren unean beste epe bat hitzartu denean.<sup>471</sup>

### 522. legea

#### *Heriotza osterako estipulazioak*

Hitzemailearen heriotzaren osterako eginiko hitzemateak hitzemailearen jaraunslea jartzen du betebeharean, eta hartzekodunaren heriotzaren osterako eginikoa horren jaraunsearentzat da onuragarri.<sup>472</sup>

### 523. legea

#### *Hirugarrenaren mesederako estipulazioa*

Baliozkoa da hirugarrenaren mesederako egindako estipulazioa, hirugarren hori estipulaziogilearen jaraunslea bada, bai eta pignoratzailearen mesederako eginikoa ere, pignoratutako eta gero saldutako objektua berreskuratzeko denean. Estipulazioa baliozkoa da, berebat, dohaintza-hartzaile bat kargatzeko egiten denean, edota ezkonsariaren nahiz komodatu edo gordailupeko gauzaren itzulketarako kreditu bat eratzeko xedez; halaber, hirugarren baten interes zentzuzkoa antzeman daitekeen kasu guztietan.

Betebehar hori betetzea galdatu ahal izanen du, estipulaziogileak ez ezik, betebeharraren mesederako eratu, pertsona horrek ere bai, beharrezkoa izan gabe pertsona horrek aurretiaz onarpenik ematea; alabaina, onarpena estipulaziogileari jakinarazi baino lehen, estipulaziogileak zilegi izanen du estipulazioa errebokatzea, salbu eta estipulazioa egin denean estipulaziogileak estipulazioaren onuradun den hirugarrenarekiko aurretiaz hartu duen betebehar bat betetzeko.

Estipulaziogileak bat baino gehiago badira, ulertuko da, kontrako itunik izan ezean, horietako bakoitzak elkarrekiko betebehar bat beterik eginikoa dela estipulazioa; horrenbestez, errebokazioa estipulaziogile guztiek multzoan soilik egin ahalko dute; haietako bat hildakoan, estipulazioa errebokaezina izanen da bizirik dirautenentzat.<sup>473</sup>

---

<sup>470</sup> FBko 224, 502, 541. eta hurrengo legeak.

<sup>471</sup> FBko 7, 519. legeak. NJANaren 25/2008 epaia, abenduaren 11koa.

<sup>472</sup> FBko 523, 524, 559. legeak.

<sup>473</sup> FBko 522, 552. legeak; KZko 1257,2. art.

## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### 524. legea

#### ***Hirugarrenen konturako estipulazioak***

Hirugarren baten kontura egindako estipulazioek ez dute betebeharraren jartzen hirugarren hori, hitzemailearen jaraunsle ez bada, ezta hitzemailea bera ere; baina, kontratuetan, alderdietako batek bere burua behartu dezake hirugarren batek prestazio bat egin dezan, halako moduz non alderdi horrek erantzukizuna hartuko baitu hirugarrenaren ez-betetzearengatik.

Hirugarrenak bere kontura estipulatu den betebeharra onartzen badu, betebeharraren pertsonala hartuko du hitzemaile gisa.<sup>474</sup>

## II. KAPITULUA

### Fidantza

### 525. legea

#### ***Fidantzaren hitzematea***

Fidantzaren hitzematearen bidez, hitzemaileak bere gain hartzen du betebeharra betetzeko ardura, zordun nagusiak halakorik ez egitearen kasurako.

Eratze-tituluan zehatz-mehatz, argi eta modu ulergarrian adierazi beharko da bere gain hartzen duen erantzukizunaren norainokoa.

#### ***Onurak***

##### ***a) Eskusiokoa***

Kontrako itunik izan ezean, fidantza-emaileak hartzekodunaren erreklamazioari ezezkia eman diezaioke, baldin horrek alde zuzenetik ez badu zordun nagusiaren kaudimena agortu.

##### ***b) Atzerabidezkoa***

Fidantza-emaileak zordun nagusia askatu badu, horren aurka atzerabidezko akzioa izanen du.

##### ***c) Zatiketakoa***

Fidantza-emaileak bat baino gehiago badira eta aurkakorik itundu ez bada, hartzekodunak horien artean zatitu beharko du erreklamazioa, baina horietako bakoitza gainerakoen fidantza-emaile ere izanik.<sup>475</sup>

### 526. legea

#### ***Kreditu-mandatua***

Norbaitek inori mandatatu gisa ezartzen badio eman diezaion hirugarren bati diru-kopuru bat mailegatu edo kreditu bat, fidantza-emaile bihurtuko da hirugarren horrek bere gain hartutako betebeharrari dagokionez. Mandataria mandatutik askatu ahal izanen da, baldin eta mandatugilearen edo hirugarrenaren ondare-egoera halakoa bilakatu bada non zailago suertatzen den zorra ordaintzea.<sup>476</sup>

---

<sup>474</sup> FBko 522. legea.

<sup>475</sup> FBko 463-464. legeak.

<sup>476</sup> FBko 556. legea.

**527. legea**

***Kaudimena***

Legez, epailearen aginduz edo hitzarmenez galdatzen delarik fidantza-emaileak aurkeztea, hartzekodunak ez baditu kaudimenduntzat jotzen zordunak aurkezturikoak, fidantza-emaileen kaudimenari buruz epaileak erabakiko du, bidezko prozesu deklaratiaboko alderdietako edozeinek eskatuta. Horrek ez du ezertan eragotziko 494. legean xedatutakoa, hori aplikatu behar denean.

**528. legea**

***Luzamendua***

Hartzekodunak fidantza-emailearen aurka jotzen badu, zorduna non dagoen jakiterik ez dagoela alegatuz, modu fede-emailean frogatu beharko du hura aurkitzeko egindako alferreko ahalegina. Kasu horretan, fidantza-emaileak legezko luzapen bat baliatu ahalko du, hogeita hamar egunekoa, zordun nagusia non dagoen ikertzeko. Halaber, beharrezkoak diren lokalizazio-baliabideak eskatu ahalko ditu judizialki, eta kasu horretan, epea etenda geldituko da emaitza jakin arte.<sup>477</sup>

**529. legea**

***Bermeak***

Fidantza-emaileak auzibidean eska dezake zordunaren ondasunen besterentze edo kargatzea eragotz daitezen, eta Erregistroan prebentziozko idatzoharra egin dadin, salbu eta zordunak fidantza ematen dionean bere balizko itzulketa-betebeharraren gain.<sup>478</sup>

**530. legea**

***Jaraunsteen erantzukizuna***

Fidantza-emailearen betebeharra horren jaraunstei eskualdatzen zaie. Hala ere, fidantzaren ondoriozko erantzukizunak karga handiegia badakarkie jaraunstei, zilegi izanen dute eskatzea epaileak berriker dezan betebeharra, 498. legeak ezarritakoari jarraikiz.

**III. TITULUA  
KONTRATUAK**

**I. KAPITULUA  
Mailegua eta komodatua**

**531. legea**

***Mailegua***

Norbaitek maileguan diru-kopuru bat edo gauza suntsikor baten kantitate bat hartzen badu, horren jabetza bereganatzen du eta askatasunez xeda dezake hori, behartuta geraturik genero eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeraz.<sup>479</sup>

---

<sup>477</sup> FBko 525.a) legea.

<sup>478</sup> HLko 26.2, 42.4., 44. art.; HEko 145. art.

<sup>479</sup> FBko 26, 36, 554. legeak; MK-ko 311. eta hurrengo art. NJANaren epai hauek: 12/2012, maiatzaren 22koa; 15/1997, urriaren 8koa.



## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### 532. legea

#### *Itunak*

Mailegu orotan zilegi da epeak eta baldintzak hitzartzea, bai eta edozein motatako bermeen bitartez itzulketa segurtatzea ere.

#### *Epea*

Itzulketarako eperik ez bada itundu, ulertzen da betebeharra hasiera-hasieratik sortzen dela; epaileak, alabaina, ekitatezko epea finka dezake betebeharrari betetzeko.<sup>480</sup>

### 533. legea

#### *Interesa*

Diruzko maileguan, interesak muga zilegien barruan estipula daitezke; intereson zenbatekoa ez bada zehaztu, legezkoak bakarrik sortuko dira; eta, interesik estipulatu ezean, legezkoak sortuko dira zorduna berandutze-egoeran jartzen denetik.

#### *Interes-itunaren deuseztasun partziala*

Ordain- edo luzamendu-interes ilegal edo abusuzkoak ituntzea erabat deuseza da. Maileguaren gainerako epe, baldintza eta bermeei eutsi egingen zaie.<sup>481</sup>

### 534. legea

#### *Maileguaren aitortpena*

Norbaitek agiri bidez aitortzen badu kopuru bat maileguan hartu duela, hori itzultzera behartuta egonen da, salbu eta agiria aurkaratu eta kopuru-ematerik izan ez dela frogatzen duenean.<sup>482</sup>

### 535. legea

#### *Bihurketa*

Kopuru jakinaren zor muga-eguneratu guztiak mailegu-zor bihur daitezke alderdien arteko akordio hutsaren bitartez. Kasu horretan, presuntzios uste izanen da legezko interesak akordioaren unetik sortzen direla.<sup>483</sup>

### 536. legea

#### *Salmenta egitea, atzera-eskuratze itunarekin*

Salmenta atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriarekin egin bada, 583. legearen arabera presuntzios uste izan behar bada horrek berme-xedea duela, ulertuko da prezio gisa adierazitako kopuruaren mailegu bat dagoela, berme gisa daukana saldatukotzat agertzen den objektuaren jabetza atxikitzea eta horren behin betiko jabetza eskuratzea baldin eta kopuru hori ez bada itzultzen epe itunduan.<sup>484</sup>

---

<sup>480</sup> FBko 538, 554. legeak; MK-ko 313. art. NJANaren 5/1998 epaia, otsailaren 25ekoa.

<sup>481</sup> FBko 19, 490, 499, 554. legeak; MK-ko 314-316. art.; Lukurreriarri buruzko 1908ko uztailaren 23ko Lko 1, 9. art.; 16/2011 L, ekainaren 24koa, Kontsumorako Krediturako Kontratuei buruzkoa.

<sup>482</sup> FBko 493. legea. NJANaren epai hauek: 12/2012, maiatzaren 22koa; 28/2002, abenduaren 23koa.

<sup>483</sup> FBko 490, 565. legeak. NJANaren 12/2012 epaia, maiatzaren 22koa.

<sup>484</sup> FBko 463, 475. legeak.

**537. legea**

***Itzulketa***

Adingabeentzako mailegua edo gaitasuna egikartzeko laguntza behar duten pertsonentzako mailegua deuseza dela deklaratu denean, ez da egonen itzulketa-betebeharririk, salbu eta haien beharrak asetzeko edo probetxuzko inbertsio baterako erabilia izan dela justifikatzen bada.<sup>485</sup>

**538. legea**

***Komodatua***

Erabilera-mailegua edo komodatua dela bide, dohainik esleitzen da gauza higigarri edo higiezin jakin baten erabilera zehatza, are gauza hori besterena denean ere, eta komodatudunak bere gain hartzen du gauza hori erabilera hitzartua amaitu ondoren itzultzeko betebeharra. Aplikatzekoa izanen zaio 532. legea.<sup>486</sup>

**539. legea**

***Komodatudunaren erantzukizuna***

Komodatudunak ordaindu beharrekoak dira gauza mailegatua zaindu eta konpontzeko gastu arruntak, eta erantzukizuna du gauza horren galeraren gainean, salbu eta ezinbesteko kasuaren ondorioz gertatzen bada; aipatu kasuan, erantzukizuna izanen du, bakarrik, salbatu egin baditu bere intereseko beste gauza batzuk ezbehar beretik. Mailegatutako gauza ezinbesteko kasuaren ondorioz galdua denean, erantzukizuna izanen du baldin hitzartutako denbora-muga edo epea iragan ondoren gertatua bada galera.

Komodatudunak gauza erabiltzen badu hitzarturikoaz bestelako moduan, edota gauza tasaziopean jasotzen badu, erantzukizuna izanen du gertaera ororen gainean.

Komodatudunen erantzukizuna solidarioa da.

Gauzaren galeragatik erantzuten duen komodatudunak ordaindu beharko du ondasunak itzulketa-betebeharraren garaian izandako balioa, non eta ez den espresuki tasazio-balioa itundu.

**540. legea**

***Bestelako gastuak Akatsak***

Kontrako itunik izan ezean, komodatugileak ordaindu beharrekoak dira zergak, tasak eta aseguruak.

Komodatugileak komodatudunari gauzaren ondoriozko aparteko gastuak ordaindu behar dizkio, eta halaber eman behar dio mailegatutako gauzaren akatsen ondoriozko kalteen ordaina, baldin komodatugileak, akats horiek ezagutu arren, ez bazuen horietaz ohartarazi.

---

<sup>485</sup> FBko 19, 47, 508, 510. legeak.

<sup>486</sup> NJANaren 8/2014 epaia, ekainaren 23koa.

## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### *Atxikitzeako eskubidea*

Komodatudunak zilegi izanen du gauza mailegatua atxikitzea harik eta komodatugileak gauza mailegatuaren akatsagatiko kalte-ordaina eman arte.<sup>487</sup>

## **II. KAPITULUA** **Biziarteko zentsua**<sup>488</sup>

### **541. legea**

#### *Definizioa*

Biziarteko zentsua dela eta, zentsu-hartzaileak urteko pentsio bat ordaindu beharko du pertsona baten edo batzuen bizialdian zehar, kontraprestazio gisa, izaera errealez lotuta dauden ondasun higiezin baten edo batzuen nahiz diru edo balore ez diren beste ondasun higigarri batzuen jabaria zentsu-emaileak eskritura publikoz eskualdatzeagatik, eta haien ordainketaren berme gisa.

"Mortis causa" xedatze baten bidez ere eratu ahal izanen da zentsua.

Gozamena eta laguntza-prestazioak

Halaber, zilegi izanen da eskualdatzailearen edo hirugarrenen alde gozamen-, erabilera- edo biztantz-eskubideak ezartzea, aldi baterakoak nahiz biziartekoak, bai eta haien alde zentsu-hartzailea behartuko duten laguntza-izaerako beste betebeharrak batzuk ere.<sup>489</sup>

### **542. legea**

#### *Titularitasuna*

Zentsua multzoan nahiz ondoz ondo era daiteke, zentsu-eratzearen unean bizirik edo kontzabiturik dauden pertsonen alde. Beste pertsona fisiko batzuei dagokienez, ezin izanen da 224. legean adierazitako muga gainditu.

Halaber, pertsona juridikoen alde ere eratu ahal izanen da, eta kasu horretan ezin izanen da ehun urtetik gorakoa izan.

Kontrako itunik izan ezean, pentsioak gehiagotuta iraunderen du azken onuraduna hil arte.

### **543. legea**

#### *Eskualdatzea*

Zilegi izanen da biziarteko zentsuaren pean dauden finkak eskualdatzea, horrek ezertan eragotzi gabe ordainketa erreklamatzeko akzio erreala edo pertsonala. Kontrako itunik izan ezean, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak ordainketa horren erantzukizun solidarioa izanen dute.

#### *Ludiezintasuna*

Biziarteko zentsua ludiezina da, non eta ez dagoen kontrako itunik zeinean espresuki adierazten baita luditze gisa adosturiko diru-kopurua eta, hala bada, haren egonkortzea.

---

<sup>487</sup> NJANaren 13/2008 epaia, ekainaren 17koa.

<sup>488</sup> Kontsignazio-zentsuetarako, ikus 21/2019 FLko 12. xed. ir. (ikus §4.5); NJANaren 57/2003 epaia, abenduaren 31koa.

<sup>489</sup> FBko 408. eta hurrengo legeak, 520. legea.

**544. legea**

***Erregistroko inskripzioa***

Zentsua Jabetza Erregistroan inskribatzen denean, honako hauek adierazi beharko dira: eratzetitulua, urteko pentsioaren zenbatekoa, luditze gisa adostu den diru kopurua –eta, hala bada, egonkortzea–, eta hipoteka-legeriak ezartzen dituen gainerako inguruabarrak

**III. KAPITULUA**

**Zaintza- eta gordailutze-kontratuak**

**545. legea**

***Zaintza-kontratua***

Zaintza-kontratuen bidez, norbaitek gauza bat bere konfiantzazko pertsona baten ardurapean uzten du, horrek zintzoki zaindu dezan gauza hori, ordainsariaren truke edo halakorik gabe.<sup>490</sup>

**546. legea**

***Aplikazio analogikoa***

Zaintza-betebeharra ezartzen duen harreman orotan gordailuzain-betebeharrak galdagarri izanen dira, salbu eta itunez, legez edo egintzaren izaeragatik bestelakorik aplikatu behar denean.<sup>491</sup>

**547. legea**

***Gordailutze-kontratua***

Gordailua eratzen da norbaiti gauza higigarri bat eman eta jasotzen duenak zaintzeko helburuz hartzen duenean.

Norbaitetik gauza bat gordailuan jasotzeko hitza eman badu, hitzmate horrek estipulazio gisa jartzen du betebeharrean hitzemailea.

***Doakotasuna***

Kostubidezkotasunari buruzko adostasunik izan ezean, gordailua dohainekoa dela ulertzen da; hala ere, gordailuzainak horrelako eragiketak ohiko moduan egiten baditu, presuntzioz kostu bidezkoa dela uste izanen da.<sup>492</sup>

**548. legea**

***Betebeharrak***

Itundu denaren araberakoa izanen da gordailuzainak gauza zaindu eta horren kontserbazioaz arduratzeko betebeharra, baina betiere izanen du dolo edo erruagatik galeraren gaineko erantzukizuna.<sup>493</sup>

---

<sup>490</sup> MK-ko 303-310. art. NJANaren 6/2018 epaia, irailaren 26koa.

<sup>491</sup> FBko 5. legea. NJANaren 6/2018 epaia, irailaren 26koa.

<sup>492</sup> FBko 516. legea; MK-ko 304-305. art.

<sup>493</sup> MK-ko 306. art.

**549. legea**

***Gastuak***

Gordailuzainak akzioa izanen du gordailuaren ondorioz jasan dituen gastu eta galeren ordaina gordailugileari erreklamatzeko. Dena den, ez du zilegi izanen eskubide horrengatik edo gordailugilearen aurka duen beste edozeinengatik gauza gordailutua atxikitzea.

**550. legea**

***Itzulketa***

Gordailuturiko gauza gordailugileari edo horrek hautaturiko pertsonari itzuli behar zaio, berak hala eskatzen duenean; baina zehazturiko epea igaro gabe dagoenean ere.

Gordailugileak bat baino gehiago badira, horien guztien taldeari egin beharrekoa izanen da itzulketa, salbu eta itundu denean itzulketa egitea horietatik bati, zeina aldez aurretik nahiz gero gertaera baten arabera zehaztuta egon baitaiteke.<sup>494</sup>

**551. legea**

***Gordailuzain bat baino gehiago izatea***

Gordailua eratu bada halako moduz non gordailuzain bi pertsona edo gehiagoko taldea baita, gordailugilearen akzioa pertsona horietako edozeinen aurka zuzendu ahal izanen da, gordailu osoa eskatzeko.<sup>495</sup>

**552. legea**

***Hirugarren baten interesetan gordailutzea***

Gordailua hirugarrenaren interesetan egin bada, eta horrek bere onarpena gordailugileari eta gordailuzainari jakinarazi badie, gordailuzainak ez du zilegi izanen interesdun den hirugarrenaren baimenik gabe gordailugileari gauza itzultzea. Kontratu horretan helduko zaio hirugarrenaren mesedetan egindako estipulazioaz 523. legean ezarritakoari.<sup>496</sup>

**553. legea**

***Gordailugilea hil eta gero***

Gordailugilea hil eta gero, eta bestelakorik ezartzen denean izan ezik, gordailuzainak zilegi izanen du gauza gordailutua itzultzea albazeei, jarauntsia ordezkatzeko gaituta dauden beste pertsona batzuei edo, kasua bada, gozamedun unibertsalari edo gauza gordailutuaren legatu-hartzaile baimenduari. Halako pertsonarik izan ezean, jaraunslari egin beharko zaio itzulketa, eta jaraunslak bat baino gehiago izanez gero, horien guztien multzoari edo, horien artean ahobatezko adostasunik ez badago, 340. legearekin bat etorritz izendaturiko kontulariari.<sup>497</sup>

---

<sup>494</sup> FBko 474, 552, 553. legeak; MK-ko 306. art. NJANaren 13/2012 epaia, maiatzaren 29koa.

<sup>495</sup> FBko 491. legea.

<sup>496</sup> FBko 474, 550. legeak.

<sup>497</sup> FBko 171, 243, 255, 291, 296, 408, 409. legeak.

**554. legea**

***Gordailutze irregularra***

Gauza suntsikoraren gordailuan esanbidez nahiz isilbidez xedatze-ahalmenak eman bazaizkio gordailuzainari, aplikatuko da 531., 532. eta 533. legeek diruzko maileguari buruz xedaturikoa.<sup>498</sup>

**IV. KAPITULUA**

**Mandatu-kontratua eta negozio-kudeaketa**

**555. legea**

***Kontzeptua***

Mandatu-kontratua dela bide, mandatariak onartu egiten du mandatugilearen intereseko kudeaketa bat egiteko enkargua, eta bere gain hartzen du kudeaketa hori arretaz bete eta horren kontuak emateko betebeharra; baina ez du erantzukizunik hartzen horren emaitzaren gainean. Beste norbaiten arazoan esku hartzen bada horrek hala eskatuta, baina mandaturik onartzeko asmorik gabe, norberaren doloaz baizik ez da erantzunen.

***Kalte-ordaina***

Edozein kasutan, norbaiti kudeaketa bat enkargatzen diona behartuta egonen da mandatariari ordaintzera bai horrek kudeaketaren ondorioz izandako gastu eta galerak, bai eta kudeaketa egiteko behar diren diru-kopuruak ere.<sup>499</sup>

**556. legea**

***Mandatugilearen interesa***

Mandaturia interesekoa izan behar da mandatugilearentzat, eta interesekoa dela ulertzen da 526. legean arauturiko kasuetan.

Besterik gabeko aholkuak horren emaileari ez dakarkio doloaz eragindako kaltearen ordaina emateko betebeharra baizik.

**557. legea**

***Mandatugilearentzako efektuak***

Mandatariaren jardunak mandatugileari eskubide eta betebeharrak dakartzkio horrek alde aurretik nahiz ondoren baimena eman duela frogatzen denean bakarrik.<sup>500</sup>

**558. legea**

***Doakotasuna***

Presuntzios, mandaturia doakotzat jotzen da, salbu eta mandatariak ohiko jardueratzat duenean bere ardurapean ipini zaion kudeaketa bezalakoetan aritzea.<sup>501</sup>

---

<sup>498</sup> MK-ko 309. art.

<sup>499</sup> FBko 25, 560, 562. legeak; MK-ko 244. eta hurrengo art. NJANaren honako epai hauek: 2/2005, apirilaren 8koa; 9/1998, uztailaren 2koa; 26/1995, abenduaren 30ekoa; 17/1995, uztailaren 5koa; 1995eko maiatzaren 3koa.

<sup>500</sup> FBko 49, 561. legeak.

<sup>501</sup> FBko 547. legea; MK-ko 277. art.

## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### **559. legea**

#### ***Az kentzea***

Mandatua azkentzen da mandatugilearen edo mandatariaren heriotzarengatik. Mandataria behartuta dago berari mandatugilea hil eta geroko agindu zitzaion enkargua betetzera.

Mandatua azkendu ahal da mandatugilearen edo mandatariaren borondate hutsez.

Mandatua azkenduta dagoelarik, mandatariak uko egin behar dio kudeaketa berriak egiteari, eta behartuta dago mandatugileari itzultzera horrek eman dizkion agiri guztiak, bai eta ahalordea ere, halakorik eman badio. Mandatugileak eta mandatariak edo, hala denean, horien jaraunsleek, erantzunen dute beren erruz egin diren kalteez, kontratua amaitu edo likidatzen denean.<sup>502</sup>

### **560. legea**

#### ***Negozio-kudeaketa***

Norbaitek beste inoren intereserako kudeaketa egiten badu horren enkargurik jaso gabe, behartuta dago hasitako kudeaketa amaitu eta horri buruzko kontuak ematera. Kudeaketa noren interesetan egin, pertsona horrek kudeatzaileari gastu eta galera guztiak ordaindu beharko dizkio, baldin eta kudeaketa taxuzko moduan bereganatu eta gauzatu bada, baita nahi zen emaitza lortu ez denean ere, presuntziorik uste izan badaiteke kudeatzaileak ez duela eskuzabaltasun asmoz jardun.<sup>503</sup>

### **561. legea**

#### ***Berrespena***

Kudeaketa noren interesetan egin, pertsona horrek berretsi egiten badu kudeaketa, mandatugile baten baldintza beretan geratuko da behartuta. Aldez aurretik debekatu badu kudeaketa, ez da behartuta egonen inolako kalte-ordainik ematera.

### **562. legea**

#### ***Zerbitzu-emate kontratua***

Titulu honetako xedapenak zerbitzu-emate kontratuari aplikatuko zaizkio hori xedapen berezietan arauturik ez dagoen neurrian.<sup>504</sup>

---

<sup>502</sup> FBko 49, 150, 522. legeak. NJANaren epai hauek: 4/2022, martxoaren 10ekoa; 5/2020, abenduaren 2koa; 6/2018, irailaren 26koa.

<sup>503</sup> FBko 555. legea; KZko 10.9.II eta 10. art.

<sup>504</sup> FBko 25. legea; 34/2022 FL, abenduaren 12koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duena; 17/2010 FL, azaroaren 8koa, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa; 303/1997 FD, urriaren 20koa, etxean bertan ematen diren zerbitzuak arautzen dituena. NJANaren honako epai hauek: 4/2022, martxoaren 10ekoa; 5/2020, abenduaren 2koa; 14/2013, urriaren 25ekoa; 10/2003, martxoaren 29koa; 9/2003, martxoaren 26koa.

## V. KAPITULUA

### Salerosketa

#### 563. legea

##### *Salerosketa-kontratua*

Salerosketa-kontratua burutzen da alderdiek horren oinarriko osagaien gain baimena ematen dutenean; baina gauza suntsikorrak saltzen badira unitate bakoitzeko hainbesteko baten truke, salerosketa ez da burutuko unitateak zenbatu, pisatu edo neurtu arte. Salerosketa burutzeko forma zehatz bat hitzartu denean, 17. legean xedaturikoa aplikatuko da.<sup>505</sup>

#### 564. legea

##### *Jabetza eskuratzea*

Erosleak jabetza eskuratzeko, beharrezkoa da saldutako gauza entregatzea.<sup>506</sup>

#### 565. legea

##### *Baldintza etengarria*

Salerosketan jabari-erreserbako itunik egin ez denean ere, erosleak prezioa ordaintzen ez duen bitartean presuntzioz uste izanen da ezen jabariaren eskualdatzea baldintza etengarriean geratzen dela, salbu eta prezioa ordaintzeko epe jakin bat finkatzen, prezioa kopuru mailegatutzat hartzea adosten edo berme erreal nahiz pertsonala eratzen denean.<sup>507</sup>

#### 566. legea

##### *Salmenta anizkoitza*

Baldin eta kontratu ezberdinen bitartez bi pertsonak edo gehiagok onustez gauza bera erosi badute, gauzaren gainean lehentasuna izanen du horren edukitza lehenago eskuratu duenak. Pertsona horietatik inork ez badu edukitzarik, saltzaileari modu hitzartuan ordaindu dionak; eta, batek baino gehiagok ordaindu badiote, data fede-emaile antzinakoena duen kontratua egin duenak. Betiere, onusteko erosleak lehentasuna izanen du gaitzusteakoaren aldean; eta guztiak gaitzusteakoak badira, guztiak onustekoak izatearen kasurako ezarritako erregelak aplikatuko dira.

Aurreko paragrafoarekin bat etorritz gauzatik baztertuta geraturiko erosleek saltzaileari kalte-galeren ordaina baizik ezin izanen diote erreklamatu.

Erosleetakoren batek inskripzioa egin badu Jabetza Erregistroan, Hipoteka Legeak xedatzen duenari helduko zaio.

---

<sup>505</sup> FBko 352. legea; MK-ko 325, 326. art.; Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 L integraleko 20.2 eta 3 art.; 10/2010 FL, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzkoa; 17/2001 FL, uztailaren 12koa, Nafarroan Merkataritza arautzen duena; KEBFL; OHESL; KEDLOTB. NJANaren epai hauek: 3/2022, martxoaren 7koa; 1/2016, otsailaren 5ekoa; 13/2011, irailaren 5ekoa.

<sup>506</sup> FBko 355, 568. legeak. NJANaren honako epai hauek: 4/2021, azaroaren 3koa; 13/2011, irailaren 5ekoa; 21/2006, abenduaren 22koa; 3/1999, martxoaren 2koa.

<sup>507</sup> FBko 355, 483, 536, 564, 569. legeak. NJANaren honako epai hauek: 4/2018, maiatzaren 23koa; 15/2009, irailaren 1ekoa; 7/2007, ekainaren 21ekoa; 1992ko ekainaren 17koa.



#### IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

Lege honetan ezarritakoa halaber aplikatuko zaie trukeari, ordainean egindako adjudikazioari, bai eta kostu bidezko beste eskualdatze-kontratu batzuei ere.<sup>508</sup>

##### **567. legea**

###### ***Saltzailearen betebeharrak***

Salerosketa-kontratuaren bidez, saltzaileak bere burua behartzen du gauza salduaren edukitza askea entregatzera, bai eta erosleak gauza horren jabetza eskuratzeko posible den guztia egitera ere. Halaber, saltzaileak bere burua behartzen du ebikzioaren eta ezkutuko akatsen saneamendura, alderdiek kontrakoa itundu dutenean izan ezik.

Betebeharren bat betetzen ez denean, erosleak aukeran izanen du kontratuan atzera egin eta ordaindu zituen gastuak kobratzea, edo prezioa adituek deritzotenaren arabera proportzionalki jaistea.

Baldin eta saltzaileak, gauza salduaren akatsak edo ezkutuko okerrak ezaguturik, ez bazion erosleari horien berri eman, erosleak aukera bera izanen du eta, gainera, kaltegaleren ordaina jasoko du, kontratua hutsaltzea erabakitzen badu.<sup>509</sup>

##### **568. legea**

###### ***Gauza entregatzea***

Ulertuko da gauza saldua entregatzen dela eroslearen esku jartzen denean, gauzaren izaeraren arabera eta tokiko usadioei jarraituz.

Entregatzearen baliokidetzat jotzen da erosleak gauza erabiltzea edo eskubidea egikaritzea. Salerosketaren eskritura publikoa sinatzea ere entregatzearen baliokidea da, kontrako itunik izan ezean.<sup>510</sup>

##### **569. legea**

###### ***Arriskuak***

Behin salmenta burutu eta gero, saltzaileak gauza saldua arretaz zaindu behar du harik eta entregatzen den arte, eta egon daitezkeen balizko arriskuez ohartarazi behar du eroslea. Erantzukizuna izanen du betebehar hori zabarkeriaz betetzeagatik gertaturiko galerez edo kalteez. Gainerako arrisku guztiak eroslearen konturakoak izanen dira, are gauzaren entregatzea berandutzerik gabe onartu duenean ere. Eroslearen berandutzearen kasuan, saltzailearen betebeharra ez da izanen saldutako gauzatik geratzen dena entregatzea baizik.

---

<sup>508</sup> FBko 355. legea; HLko 17, 20, 32, 34, 38. art. NJANaren epai hauek: 4/2018, maiatzaren 23koa; 7/2007, ekainaren 21ekoa; 16/2003, maiatzaren 15ekoa.

<sup>509</sup> FBko 32, 503, 564, 568, 570. legeak; MK-ko 336, 337, 342, 345. art.; Lagun egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 FLko 14. art. Ikus KEBFL, KEDLOTB. NJANaren honako epai hauek: 13/2022, urriaren 21ekoa; 3/2022, martxoaren 7koa; 11/2007, uztailaren 5ekoa; 21/2006, abenduaren 22koa; 7/2001, martxoaren 15ekoa; 3/1999, martxoaren 2koa.

<sup>510</sup> FBko 355, 564. legeak; KZko 1462. artikulua eta hurrengoak. NJANaren honako epai hauek: 4/2018, maiatzaren 23koa; 14/2016, azaroaren 9koa; 11/2007, uztailaren 5ekoa; 2/2001, urtarrilaren 29koa; 1991ko azaroaren 21ekoa.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

Baldintza etengarripean eginiko salmentetan, baldintza bete baino lehen galdu egiten bada gauza, kontratua efekturik gabe geratuko da; alabaina, baldintza beteta dagoelarik, gauzak aurretiaz izandako kaltea eroslearen konturakoa izanen da.<sup>511</sup>

### **570. legea**

#### ***Ebikzioa***

Saldutako gauzaren ebikzioa gertatzen bada, saltzailea behartuta egonen da erosleari ordaintzera horrek ebikzioaren ondorioz jasandako ondare-kalte oro.<sup>512</sup>

### **571. legea**

#### ***Ados ez egoteko ahalmena***

Alderdiek beraientzat erreserbatu badute salerosketarekin ados ez egon eta hori efekturik gabe uzteko eskubidea, eta ez bada zehaztu eskubide hori egikaritzeko eperik, ulertuko da eskubidea iraingitzen dela entregatzetik hilabete eta egun bat igarotakoan.<sup>513</sup>

### **572. legea**

#### ***Salmentak berme-eginkizuna betetzea***

Salmentak atzera-eskuratze itunarekin, jabaria erreserbatzeko itunarekin edo baldintza suntsiarazlearekin egin badira, salmenta horiek berme-eginkizuna beterik, hurrenez hurren helduko zaio hirugarren liburuko VII. tituluko IV., VI. eta VII. kapituluetan xedatuari.<sup>514</sup>

### **573. legea**

#### ***Salerosketaren ondoriozko gastuak***

Kontrako itunik izan ezean, erosleak eta saltzaileak erdi bana ordainduko dituzte eskritura edo bestelako agiri bat egiteagatiko gastuak.

Zerga-ordainketari eta salerosketaren ondoriozko beste gastu batzuei buruzko itunak baliozkoak dira eta alderdien artean efektu guztiak sortuko dituzte, ezertan eragotzi gabe Administrazioarekiko betebeharrak eta legezko beste xedapen batzuetan ezarritakoa.<sup>515</sup>

### **574. legea**

#### ***Jendaurreko enkantean egindako salmenta***

Partikularren artean borondatzeko zein nahitaezko gauza-salmenta jendaurreko enkante bidez eginez gero, salmenta hori arautuko dute baldintzen pleguan ezarritakoek eta, halakorik izan ezean, hurrengo erregelek:

---

<sup>511</sup> FBko 546. legea; MK-ko 331-335, 339. art. NJANaren epai hauek: 10/2003, martxoaren 29koa; 9/2003, martxoaren 26koa; 1995eko ekainaren 28koa.

<sup>512</sup> FBko 567, 585. legeak; KZko 1474. art. eta hurrengoak; MK-ko 345. art.

<sup>513</sup> FBko 39-41. legeak; KEDLOTBko 68-79. art.; OHESLko 9 art. NJANaren 6/2012 epaia, martxoaren 12koa.

<sup>514</sup> FBko 475-480, 483-485, 486-487. legeak.

<sup>515</sup> FBko 7, 488.IV legeak; Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 FL Orokorreko 28. art.; KEBFL; KEDLOTB. NJANaren 14/2012 epaia, maiatzaren 31koa.

#### IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

1. Enkantearen iragarkiak honako hauek adieraziko ditu: enkante-eguna, enkantearen eta enkante-ondasunen baldintza orokorrak eta partikularrak, enkante-ondasunen balorazioa, enkante-egilearen kalitatea eta lizitatzailleen baldintzak.

2. Plegu itxien bitarteko enkanteetan, pleguak, aurkeztuak izan ondoren, ezin izanen dira erretiratu. Plegu-irekitze ekitaldia jendaurrekoa izanen da. Errematea proposamenik onuraragarrinari adjudikatuko zaio behin-behinekoz; proposamenak berdinak badira, ekitaldian bertan ahozko posturen bidezko lizitazioa egingen da proposatzaileen artean hamar minutuz; denbora hori amaitutakoan berdintasunak bere horretan badirau, zozketaz erabakiko da behin-behineko adjudikazioa.

3. Ozenki edo ahoz egindako posturen bitarteko enkanteetan, lizitatzailleek usadio eta ohiturei jarraituz egingin dituzte posturak.

4. Bilera amaitu baino lehen, enkantearen akta egingen da, bete beharreko formalitateekin. Behin akta irakurri ondoren, akta hori sinatu beharko dute adjudikaziodunak, sinatu nahi duten interesdunek eta, kasua bada, baimentzaileak ere.

Prozedura Zibilaren Legeak eta administrazio legeek arautuko dituzte, hurrenez hurren, enkante judizialak eta administratiboak.

Enkantean eskuraturiko ondasun higiezinaren salerosketak eskritura publikoan jaso beharko dira, salbuespen izanik Prozedura Zibilaren Legean, Hipoteka Legean eta administrazio legeetan xedaturikoa.<sup>516</sup>

### VI. KAPITULUA

#### Atzera-eskuratze itunarekin eginiko salmenta

##### 575. legea

###### *Kontzeptua*

Salmenta-kontratua atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriarekin eginez, saltzaileak berarentzat erreserbatzen du saldutako gauza berreskuratze eskubide erreala; horretarako, itzuli egin beharko ditu berak jasotako prezioa, legebidez ordainduriko gastuak, eta inpentsa nahitaezkoak eta onuraragariak.<sup>517</sup>

##### 576. legea

###### *Epea*

Saltzaileak gauza berreskuratze eskubidea epe jakin baterako nahiz epemugarik gabe ezar daiteke. Betiko ezarri dela ulertuko da, soilik, espresuki erabiltzen direnean “betiko”, “beti”, “gogo duenean” edo antzeko hitzak, izaera hori argiro aditzera ematen dutenak.<sup>518</sup>

##### 577. legea

###### *Prezioa*

Atzera-eskuratze eskubidea denbora mugagaberako edo epemugarik gabe ezarri bada, gauza atzera-eskuratze unean horrek duen balio justuaren bi herenak ordaindu

<sup>516</sup> FBko 374, 469. legeak; PZLko 643. art. eta hurrengoak, 655. eta hurrengoak; HLko 129. art.

<sup>517</sup> FBko 475, 502, 593. legeak; HLko 23. art.; HEko 175.6. art.

<sup>518</sup> FBko 502, 582, 583. legeak.

## §1.- Nafarroako Foru Berria

beharko ditu atzera-eskuratzaileak; betiere, kopuru hori handiagoa bada berak eskuratu zuen prezioa baino.<sup>519</sup>

### **578. legea**

#### ***Eskualdagarritasuna***

Atzera-eskuratzeko eskubidea "inter vivos" nahiz "mortis causa" egintzen bidez eskualdatzeko modukoa da, bai eta hipotekatu edo adjudikatzeko modukoa ere, non eta ez den eskubide guztiz pertsonal gisa ezarri.

Eskubide hori erabili ahal izanen da eroslearen aurka eta horren eskutik eskuratu duten guztien aurka.<sup>520</sup>

### **579. legea**

#### ***Pertsona-aniztasuna***

Erosleak zilegi izanen du atzera-eskuratzearen egikaritze partzialari ezezkoa ematea.

Pertsona bat baino gehiagorena izanez gero atzera-eskuratzekoa den gauza, atzera-eskuratzea horietako bakoitzaren aurka egikaritu ahal izanen da, bakoitzari dagokion zatiaren gainean.

Atzera-eskuratze eskubidea batera badagokio pertsona batzuek osaturiko multzoari, horietako edozeinek modu solidarioan egikari dezake eskubidea gauza osoaren gainean. Beren eskubidea erabili ez duten titularkideek zilegi izanen dute atzera-eskuratzaileari erreklamatzeko atzera-eskuratutako gauzatik haiei dagokien zatia, jakinarazpenetik aurrerako hogeita hamar eguneko epearen barruan, edo atzera-eskuratzea egikaritzeko epea agortzeko falta den denboraren barruan, denbora hori luzeagoa izanez gero; edo urtebete eta egun bateko epearen barruan, jakinarazpenetik aurrera zenbatuta, atzera-eskuratze eskubidea epemugarik gabe ezarritakoa baldin bada. Luzapenak izateko aukera ezarri bada, titularkide batek atzera-eskuratze eskubidea egikaritzeak gainerakoei eragotziko die haren aurka luzapen berriak baliatzea.

Eskubide hori erabiltzen duten titularkideek atzera-eskuratzaileari ordaindu behar diote dagokien prezio-zatia gehi interesak eta gastuak.<sup>521</sup>

### **580. legea**

#### ***Saltzailearen hartzekodunek eskubidea egikaritzea***

Saltzailearen hartzekodunek ezin dute atzera-eskuratze eskubidea subrogazio bidez egikaritu, baizik eta judizialki jardun beharko dute beren kredituak eskubide horren kontura kobratzeko.<sup>522</sup>

### **581. legea**

#### ***Fruituak***

Eskubide hori egikaritzean fruituak esleitzeko, 353. eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

---

<sup>519</sup> FBko 475. legea.

<sup>520</sup> FBko 234, 419, 475. legeak; HLko 107.8. art.

<sup>521</sup> FBko 419, 475, 492, 494. legeak.

<sup>522</sup> FBko 485, 578. legeak.

## IV. liburua.- Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak

### **582. legea**

#### ***Preskripzioa***

Epemugarik gabeko grazia-agiriari dagokionez, atzera-eskuratze akzioa hamar urte igarotakoan preskribatuko da.<sup>523</sup>

### **583. legea**

#### ***Grazia-agiria, berme gisa***

Salmenta atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriarekin egin bada epe jakin baterako, presuntzios berme erreal baten formatzat joko da, baldin eta saltzaileak edozein tituluren bidez gauzaren edukitzari eusten badio; kasu horretan, III. liburuko VII. tituluko IV. kapituluko xedapenak aplikatuko zaizkio.<sup>524</sup>

## **VII. KAPITULUA**

### **Trukea**

### **584. legea**

#### ***Kontzeptua***

Trukean, kontratugileek zenbait gauzaren gaineko jabetza elkarri emateko betebeharra hartzen dute beren gain, eta ulertuko da alderdi bakoitza aldi berean erosle eta saltzaile dela beste alderdiarekiko.<sup>525</sup>

### **585. legea**

#### ***Ebikzioa***

Trukean emandako gauza bat ebikzioaren xede denean, gauza hori jaso zuenak aukeran izanen du kontratua suntsiaraztea edo ebikzioaren ondoriozko kalte-ordaina eskuratzea, 570. legearekin bat etorritz.<sup>526</sup>

### **586. legea**

#### ***Ordezko araubidea***

Bateragarri den orotan, kontratu horri salerosketaren gaineko xedapenak aplikatuko zaizkio.<sup>527</sup>

---

<sup>523</sup> FBko 36, 480, 576. legeak.

<sup>524</sup> FBko 475-480, 536. legeak, 5. xed. ir.

<sup>525</sup> FBko 306, 392. legeak; KZko 1538. art.; MK-ko 346. art.; NOFLko 41. art.; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 FLko 135. art.; Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko urriaren 18ko 280/1990 FDko 129-131. art.

<sup>526</sup> FBko 567. legea.

<sup>527</sup> FBko 563-574. legeak.

**VIII. KAPITULUA**  
**Gauzen errentamendua**

**587. legea**

***Araubidea***

Gauzen errentamenduen arautzaile dira itundutakoa, tokiko usadio eta ohiturak eta, osagarri gisa, Nafarroan jasotako lege bereziekin kontraesanean ez dauden heinean, Konpilazio honetako xedapenak.<sup>528</sup>

**588. legea**

***Lege bereziak baztertea***

Jasotako lege bereziak aplikatzearen ondoriozko bazterketak ezertan eragotzi gabe, honako hauek baztertuta geratzen dira: 596. legean aipaturiko establezimendu eta ustiategiaren errentamenduak eta merkataritza, industria, nekazaritza, abeltzaintza edo meatzaritzako jardueren osagarriak, nahiz eta horiek berekin ekarri halako jarduerak gauzatzeko erabiltzen denaren luperketa.

**589. legea**

***Iraupena***

Errentamendurako epea alderdiek askatasunez itunduko dute, ezertan eragotzi gabe lege bereziek ezarritako gutxieneko iraupena. Itunik izan ezean, ulertuko da iraupena dela errentaren ordainketari dagokion denbora-unitatea.

Ondasun higiezinaren errentamenduetan, kontratua isilbidez luzatu dela ulertuko da, alderdi batek ez badio besteari aurkako borondaterik jakinarazi lege edo ohituretan ezarritako epeetan.

Hiri-finken errentamendua isilbidez eta eperik gabe luzatzen dela ulertuko da, errentatzaileak onartzen badu errentariak finkaren okupazioari eustea.

Hiri-finkaren errentamendua indarrean dagoen epean, errentatzaileak finka hori bertan bizitzeko behar badu, zilegi izanen du kontratua suntsiaraztea, eta errentariak zor duen errenta urrituko da ondasun higiezina okupatu duen epeari dagokionera.<sup>529</sup>

**590. legea**

***Konponketak***

Errentariari dagokio gauzaren erabilera arruntaren ondoriozko higadurak behartzen dituen konponketak ordaintzea.<sup>530</sup>

---

<sup>528</sup> FBko 2, 3, 7. legeak; HELko 1-5. art.; 10/2010 FL, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzkoa; LELko 1, 5-7. art., 2. azk. xed.; Landa Errentamendu Historikoei buruzko otsailaren 10eko 1/1992 Lko 1. xed. geh.; ikus Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako uztailaren 12ko 15/2022 L integraleko 20.2 eta 3 art. NJANaren honako epai hauek: 24/2008, abenduaren 9koa; 9/2006, maiatzaren 15ekoa; 4/2003, urtarrilaren 27koa; 22/1993, abenduaren 21ekoa; 1/1992, martxoaren 12koa.

<sup>529</sup> FBko 461. legea; HELko 9, 10. art.; LELko 12, 31. art.; Landa Errentamendu Historikoei buruzko otsailaren 10eko 1/1992 Lko 2, 3. art. NJANren 16/2004 epaia, ekainaren 17koa.

<sup>530</sup> FBko 414-415, 423. legeak; HELko 21, 30. art.; LELko 17-21. art. NJANaren 7/2012 epaia, martxoaren 15ekoa.

### **591. legea**

#### ***Gauza-multzo baten errentamendua***

Batera ematen badira errentan gauza bat edo batzuk, errenta berberaren truk eta xede independenteetarako, kontratu bakoitzean horren araubidea beteko da, eta kontratu horietako baten edo batzuen deuseztasun- edo suntsiarazpen-arrazoiek ez dute gainerakoen gain eraginik izanen.

Xede nagusi bat edo batzuk eta bigarren mailako beste xede bat edo batzuk itundu baziren, xede nagusiari edo nagusiei dagokien araubidea gailenduko da; gainerako araubideei dagokienez, nagusiarekin bateraezinak ez diren neurrian baizik ez dira aplikatzekoak izanen.<sup>531</sup>

### **592. legea**

#### ***Az kentzea***

Errentamendu-kontratua amaitzen da errentan emandako gauzaren gainean errentatzaileak duen xedatze- edo administratze-ahalmena az kentzen denean. Horrek ez du ezertan eragotziko Hipoteka Legean xedatzen dena.<sup>532</sup>

### **593. legea**

#### ***Salmenta egitea, atzera-eskuratze itunarekin***

Errentan emandako gauza bat norbaitek atzera-eskuratze itunarekin erosten badu, ezin izanen du, jabetza behin betiko eskuratzen ez duen bitartean, errentamendu-kontratua suntsiarazi, non eta errentaria ez den horretarako arrazoi batean erortzen.

Atzera-eskuratzea egikaritzeak ez du bere horretan ahalmenik emanen kontratua suntsiarazteko.<sup>533</sup>

### **594. legea**

#### ***Az pierrentamendua eta lagapena***

Az pierrentamendua eta errentamendu-kontratuaren lagapena zilegi dira, kontrako itunik egin ezean; hala ere, lagapena egiteko, nahitaezkoa izanen da errentatzailearen baimena, non eta lege bereziek ez duten bestelakorik xedatzen.<sup>534</sup>

### **595. legea**

#### ***“Mortis causa” eskualdaketa***

Errentariaren harreman juridikoa "mortis causa" eskualdatzeko modukoa izanen da errentamendu-kontratuaren indarraldian zehar, salbu eta kontrakoa itundu denean edo kontratutik ondorioztatzen denean sinatu zela errentariaren inguruabar pertsonalak eta ez besterik kontuan hartuta.<sup>535</sup>

---

<sup>531</sup> NJANaren 3/2003 epaia, urtarrilaren 23koa.

<sup>532</sup> FBko 415.5, 424, 593. legeak. HELko 13. art.; LELko 24. art.; HLko 2.5 art.

<sup>533</sup> FBko 475, 575-583, 592. legeak.

<sup>534</sup> FBko 513, 596.4 eta 5. legeak.; HELko 8, 32. art.; LELko 23. art.

<sup>535</sup> HELko 16, 33. art.; LELko 24. art.

**596. legea**

***Establezimendu edo ustiategien errentamenduak***

Merkataritza- nahiz industria-establezimenduen edo baso-, abeltzaintza-, nekazaritza- edo meatzaritza-ustiategien errentamenduaren araubidea honako xedapenetan ezarrita egonen da, kontrako itunik egin ezean:

1. Errentatzailearen baimenik gabe, errentan emandako ondasunak ezin izanen dira erabili itunduaz bestelakoa den jarduera baterako edo kontratua egin aurretik ondasun haiek zeukaten jardueraz bestelakoa den baterako.
2. Errentaria behartuta dago gauzak zaindu eta itzultza haiek entregatu zitzaizkion egoera berean, bai eta ordaintzera ere errentan emandako negozioko jarduna zuzenean kargatzen duten kontribuzio eta zergak.
3. Gisa berean, negozioa halako moduan ustiatu beharko du non ez baita andeatuko errentatzaileari kalte larria sorturik; ezen, kasu horretan, bai eta errentaria kaudimengabea izatearen kasuan ere, errentatzaileak kontratuaren suntsiarazpena eskatu ahal izanen du.
4. Errentariak ezin izanen du azpierrementamendurik egin, ez osorik ez partzialki.
5. Errentamendua eskualdatzeko modukoa izanen da, 595. legeari jarraituz.<sup>536</sup>

---

<sup>536</sup> FBko 588, 595. legeak; Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 FLko 50-60, 63. art.; LELko 1-2. art., 1. xed. geh.; 1/2002 FL, martxoaren 7koa, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa; 150/2002 LegFD, uztailearen 2koa, Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.



## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**<sup>537</sup>

### **Lehenengoa**

#### ***Printzipio orokorra***

Nafarroako zuzenbide zibila, Konpilazioan aintzatetsia, aplikatuko zaie bera aldarrikatua izan baino lehen burututakoak diren egintzei eta sortutakoak diren harremani; eta ez dute Konpilazioaren kontrako efekturik izanen berarekin kontraesanen dauden lege- nahiz erregelamendu-xedapen zibil, administratibo edo fiskalek, orokorrak izan nahiz foru-xedapenak izan.<sup>538</sup>

### **Bigarrena**

#### ***Baimen uxorioa***

Baldin emazteak, Konpilazio honek indarra hartu aurretik, soilki nahiz Kode Zibilaren 1413. artikulua ildotik bere senarrari baimena eman badio konkista-ondasunak nahiz irabazpidezko ondasunak kostu bidez xedatzeko, baimen horren efektuak 86. legearen arabera izanen dira.

### **Hirugarrena**

#### ***Fideltasun-gozamena***

Ez da aplikatuko 256. legean xedaturikoa bigarren edo gehiagogarren ezkontzako alargunaren aldeko fideltasun-gozamenari dagokionez, baldin eta, Konpilazio honek indarra hartu aurretik, jabe soilen aurkakotasunik gabe inbentarioa formalizatu bazen.

### **Laugarrena**

#### ***Legezko oinordetza***

Konpilazio honek indarra hartu baino lehen hildako kausatzaileen legezko oinordetzari dagokionez, honakoari helduko zaio:

Bat. Kode Zibilaren xedapenei jarraituz abintestato jaraunseak deklaratzeko auto irmoa eman den oinordetzetan, salburik geratuko dira deklarazio horretatik eratorritako eskubideak.

Bi. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, deklarazio horiek eragingabetzat joko dira, halako heinean non jaraunse izendatzen baitute jarauntsiari Konpilazio honetan ezartzen denaren arabera uko egin dion edonor, berdin delarik uko hori kausatzailearen heriotzaren aurretik nahiz ondoren egin izana.

Hiru. Aurretiaz kausaturikoak baina jaraunse-deklarazioko auto irmorik gabekoak diren jaraunspenak Konpilazio honetako 300.etik 307.era bitarteko legeetako xedapenetan araututa egon beharko dira orotan.<sup>539</sup>

---

<sup>537</sup> Ikus 5/1987 FLko eta 21/2019 FLko xed. ir. (§4. 3 eta 5).

<sup>538</sup> 5/1987 FLko 1. xed. ir. (§4. 3). NJANaren 9/1999 epaia, ekaainaren 28koa.

<sup>539</sup> FBko 155, 156, 301, 316. legeak; 5/1987 FLko 2. xed. ir. (§4.3); 21/2019 FLko 9. xed. ir. (§4.5).

### **Bosgarrena**

#### ***Berme gisa atzera-eskuratze itunarekin egindako salmenta***

Berme gisa atzera-eskuratze itunarekin egindako salmentari buruz 475. legetik 480.era bitartekoetan eta 584. legean ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie lehenago egindakoei, eta ondoko itunak deuseztat joko dira:

Bat. Atzera-eskuratze eskubidea egikaritzeko ezarritako epea mugaeguneratzean salerosketa besterik gabe eta zuzenbide osoz gauzatutzat hartzearen ituna.

Bi. Atzera-eskuratze eskubidea egikaritzeko ezarritako epea mugaeguneratzean erosleak gauza jendaurreko enkantean saltzea sustatu beharko duela ezartzen duen ituna.

Edozein kasutan, salerosketa ez da gauzatuta geratuko 477. legeak xedatuari jarraituz baizik, salbu eta eroslearen eskuratze-preskripzioa gertatzen denean, edo gauzatze hori jadanik jasoarazi denean Jabetza Erregistroan.

Zordunarentzat Konpilazio honetakoa baino araubide onuragarriagoa ezartzen duen edozein itun balioduna izanen da.

### **Seigarrena**

#### ***Zarrastelkeriak ezkon-kapitulazioetan duen eragina***

Ezkon-itunetan beren ezkontzaren ondasun-eraentza itunduta duten ezkontideetako batek zarrastelkeriaz jardunez gero, aplikagarri izanen dira Kode Zibilaren xedapenak, ekainaren 2ko 8/2021 Legearen bigarren eta bosgarren xedapen iragankorrekin bat etorritik hartutako neurriek indarrean jarraitzen duten bitartean. Lege horren bidez, legedia zibila eta prozesala aldatu zen, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko.

Araubide bera aplikatuko da beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten ezkontideetako bati buruz aipatu legearen aurretik hartutako neurriek bere horretan badiraute.<sup>540</sup>

## **XEDAPEN GEHIGARRIA<sup>541</sup>**

## **AZKEN XEDAPENAK<sup>542</sup>**

---

<sup>540</sup> Seigarren xed. ir. azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legeak gehitua da, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoak.

<sup>541</sup> 21/2019 FLko 3. artikulua bidez kendu da.

<sup>542</sup> 5/1987 FLko 3. artikulua bidez kendu dira.

## **§2.- FORU LEGEAK**

## **§2.1.- 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa, pertsona zaharrak familian hartzeari buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Parlamentuak pertsona zaharrei laguntzeari buruzko plangintza-tresna gisa onetsi zuen 1997-2000 eperako Nafarroako Plan Gerontologikoa, eta helburu zuen Nafarroako Foru Komunitatean pertsona zaharrentzako laguntzaren esparruan azterturiko edo aplikatzen hasitako neurri guztiak koordinatzea.

Plan horrek biltzen zituen 1993an Kontuen Ganbarak hirugarren adinari buruz egindako fiskalizazio txostenean egindako gomendioak, eta bizikidetasun-modu ezberdinei nahiz haien babes juridiko eta ekonomikoari buruzko aipamenak egiten zituen.

Nafarroako gaur egungo gizarteak elkarri laguntzeko harremanak barnean hartzen dituzten bizikidetasun-egoerak agertzen ditu; bereziki, pertsona zaharrei dagokienez. Horrela, haiek dauzkaten zailtasunak gainditzea bilatzen da.

Pertsona zaharrei elkartasuna eta sostengua emateko balore familiarak oso erroturik daude gure gizartean eta beste modu batean heldu behar izan zaie emakumeak lan munduan kopuru nabarmenean sartzearen ondorioz. Horregatik ezinbestekoa zen errealitate hau kontuan hartu eta estatuan arautzea, eta hala eginda Langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeari buruzko azaroaren 5eko 39/1999 Legearen bidez, eszedentziak edo lanaldi murriztuak aurreikusten baititu, familia osatzen duten pertsona guztiak, ez soilik emakumeak, aukera izan dezaten senide zaharrak zaintzeko.

Pertsona bati familian hartuz laguntzeko modua, ukiturikoez berek pentsio moduko egoeratzat hartzen dute. Horrelakoetan abusuak edo babesgabeziak gerta daitezke; hori dela-eta, normalki kanpoko bitartekotzarik gabe alderdiek iritsitako akordio baten bidez hasten den harreman hori arautzea beharrezkoa da.

Horrela, ikusi da egoki dela bizikidetasun-egoerak arautzea pertsona batzuk etxebizitza berean bizi direnean, familia bat osatu gabe, alboko lineatik urruneko ahaide izanik edo, soilik, adiskidetasun edo elkartasunagatik baturik, eta ahulenari laguntzeko eta bizikidetasuna iraunkorra izateko asmoa dutenean.

Zehazki, pertsona batek edo bikote batek beste pertsona bati edo batzuei, pertsona batzuen eta euren ondorengoen artean sortzen diren harremanen antzeko baldintzetan, etxean hartzeko eginiko eskaintzaren ondorioz sortzen den bizikidetasuna arautzen da. Bizitzaren luzapena eta jaiotza-tasaren beherakada direla-eta, biztanleria zahartzen doa pixkanaka, eta bizikidetasun-mota hori egituratuz arautuko duen lege babes-emaile bat soluzioa izan daiteke bizikidetasun-mota horren aldeko hautua egiten duten pertsona zaharren ongizate orokorrerako, haien zailtasun ekonomiko eta sozialak konpondu ditzake eta pertsona horiek instituzio geriatrikoetan sartzeaz bestelako aukera bat ekar dezake.

Foru lege honek bi kapitulu ditu ardatz: lehen zatia pertsona zaharrak hartzeko hitzarmena eratzeari buruzkoa da; bigarrenak pertsona zaharra hartzearen amaiera eta

## §2.1.- 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa

amaiera horren ondorioak aztertzen ditu. Xedapen gehigarri bat eta amaierako xedapen bat ere baditu.

Lehen edo bigarren mailako ahaidetasun graduak ez diren familiaren, pertsonen arteko harremanen, auzoen edo herrien esparruetan pertsona zaharrak aldi baterako edo modu iraunkorrean hartzea kuantifikatu gabeko baliabide soziala da, ez baitago daturik ez erregistrorik administrazio publikoetan, baina badago baliabide hori herrietan nola hirietan errealitate bat izateari buruzko estimazioa.

Horregatik, bidezkoa da arautzea norberarena ez den familia esparruetan familiako elkarbizitza egoerak arautzea hartzaileek dirua jasotzen dutenean hartutako pertsonengandik, nahiz eta elkarbizitza hori loturik egon adiskidetasunari, auzo hurbiltasunari edo zaharrari, ongizatea handiagoa izan dezan, familia tratua eman nahiari.

Lege honen xedea da norberaren familian ez den batean zaharrei emandako zaintza eta laguntza bestelako egoera hauek arautzeko oinarriak ezartzea, Foru Komunitatean erabilgarri dauden bizitokirako zerbitzu guztien artean adineko pertsonak libreaki aukeratu dezaketen beste gizarte zerbitzu publiko bat, laguntza pertsonalizatua eta familiarra haien elkarbizitza inguruetik urrundu gabe emateko helburua duen zerbitzu bat alegia.

## **LEHEN KAPITULUA PERTSONA HELDUEN HARRERA**

### **1. artikulua. Aplikazio eremua**

Foru lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan egiten diren familiako harrerei, pertsona zaharren eta familien, bikoteen edo bakarrik bizi diren pertsonen artekoei.

### **2. artikulua. Kontzeptua**

Familiako harrera da pertsona zaharrei familiako zainketa arrunt eta pertsonalizatuak ematea; horren bidez, haien bizi kalitatea hobetzen da eta modua ematen zaie bizitza independente bat izateko ohiko ingurune baten baitan. Familiako harreraren ondoko irizpideei jarraituko zaie:

1. Pertsona hartzaileak eta hartutako pertsonak ohiko etxebizitza berean biziko dira, pertsona hartzaileena nahiz hartutako pertsonena izan, lehenbizikoek bigarrenak zaintzeko, jaten emateko, laguntza emateko, haien ongizate orokorraren alde egiteko eta gaixorik daudenean zaintzeko.
2. Pertsona hartzaileek eta hartutako pertsonak laguntza emanen diote elkarri, eta etxeko lanak hitzartutako moduan partekatuko dituzte, betiere alderdi bakoitzaren aukera errealean arabera.
3. Prestazio honetarako prezio bat ezarriko da, pertsona zaharrentzako zentro eta zerbitzuetan ezarritakoen esparruaren barnekoa, eta laguntzak emanen zaizkie osoki ordaindu ezin dutenei.
4. Pertsona hartzaileek tutoretza eta kuratela eratzea sustatu ahaliko dute, baldin eta hartutako pertsonak haren menpe jartzeko egoeran badaude.

### **3. artikulua. Modalitateak**

1. Familiako harrera izan ahalko da aldi baterakoa edo iraunkorra, famili bizikidetasuneko modalitate hau aukeratzen duen pertsona zaharrak erabakitakoaren arabera, eta ikuskapenaren ardura daukaten gizarte-zerbitzuen txostena beharko da.
2. Iragankorra izanen da aldi baterako harrera, pertsonari zuzeneko bere ahaideak atsedena hartzen ari direnean edo gaixorik daudenean laguntza eman ahal izateko, edo erakunde batean sartu aurreko egokitzapen-fase gisa.
3. Behin betiko harrera gertatuko da pertsona zaharraren egoerak edo haren borondateak halakorik komenigarri egiten dutenean; eskualdeko gizarte zerbitzuek aurretiaz aldeko txostena eman beharko dute horretarako.

### **4. artikulua. Harrera-hitzarmena**

1. Harrera-hitzarmena da hirurogeita bost urte baino gehiagoko pertsona bat pertsona bati edo familia bati lotzea, ahaidetasun harremanen antzeko baldintzetan eta behar duten laguntza emateko betebeharrarekin.
2. Harrera-hitzarmenaren bitartez hartzaileak edo hartzaileek pertsona bat bakarra hartu ahal izanen dute, salbu eta behar bezala kreditatu beharko diren aparteko egoeretan.
3. Harrera-hitzarmenak ez dakar berekin ondasunen legezko administrazioa ez eta hartzaileak hartutako pertsonen legezko ordezkariak izatea ere.
4. Harrera-hitzarmen bat izenpetu nahi duten pertsona edo familia hartzaileek administrazioaren baimena lortu beharko dute. Baimenaren ebazpena ezinbesteko baldintza izanen da harrera-hitzarmena foru lege honen bitartez sorturiko erregistroan inskribatzeko.
5. Administrazioak aldizka hitzarmena egoki betetzen ote den begiratu beharko du, bai eta hartutako pertsonen baldintzak ere; bereziki, pertsona horien ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala.
6. Hartutako pertsonaren osasuna, segurtasuna eta ongizate psikikoa harrera-baldintzek mehatxaturik edo konprometiturik badaude, edo harrerarako eskaturiko baldintzak modu larrian urratzen badira, administrazioak egoki jotzen dituen kautelazko neurriak hartu ahal izanen ditu.
7. Harrera-hitzarmenak nahitaez jaso beharko duen edukia erregelamenduz ezarriko da.

### **5. artikulua. Harrera, gizarte-zerbitzu gisa**

Foru lege honek araututako pertsona zaharren harrera antolatzen da erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzu gisa, erabiltzaileei familia- giroko laguntza pertsonalizatu egokia eta haien erkidego-ingurunean egotea bermatzeko.

### **6. artikulua. Foru lege hau garatu eta aplikatzeko eskudun den administrazioa**

1. Foru administrazioari dagokio, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuaren bitartez, foru lege hau garatu eta aplikatzea eta zerbitzuaren plangintza, kudeaketaren kontrola, erregistroa, ikuskaritza, prezioak zehaztea eta hartutako pertsona zaharren ongizate-baldintzak bermatzeko esku-hartze babeslearen eginkizunak.
2. Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez arautuko du zerbitzu hori ematea, xede gisa izanik zerbitzua hurbiltzea hura eskatzen duten herritar zaharrei; halaber, botere publikoen babes- ekintza ere arautuko du.

### **7. artikulua. Hartzaileen eta hartutakoek betekizunak eta hautaketa**

1. Harrerak eskatzen du hartzaileek eta hartutako pertsonak ez edukitzea haien artean bigarren gradu bitarteko ahaidetasunik, adindunak izatea eta jarduteko gaitasun osoa izatea, edo hartutako pertsonari dagokienez gaitasun hori haien legezko ordezkariak, haien kuratela duen pertsonaren edo testamentuz besteko tutoretza izendatzeko agirian hautaturiko pertsonen baimenez ordezte edo osatzea. Borondate ordeztu edo osatuaren kasuan, epailearen baimena beharko da, eta hartutako pertsonari edo pertsonari entzun beharko zaie, ezaguera nahikoa badute.

2. Pertsona zaharren adina ezin da hirurogei urte baino gutxiagokoa izan, eta pertsona hartzaileak edo hartzaileak osasun- egoera egokia izan behar du pertsona hartuak edo hartuek beharrezko dituzten zainketak edo/eta laguntzak eskaini ahal izateko.

3. Pertsona hartzaileak edo pertsona hartzaileak hartutako pertsonaren edo pertsonen onura bilatuz jardun dute betiere, harrera-hitzarmenean ezarritako epean. Oro har, epe hori hiru urte baino gutxiagokoa ez da izanen, salbu eta aparteko egoeretan.

4. Pertsona hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitza baten titularrak izatea, jabetzapean nahiz alokairuan.

b) Zaintzaile nagusiak 25 eta 65 urte bitarteko adina izan beharko du, osasun ona izan beharko du eta etxeko lan arruntei aurre egitea galaraziko dioten eragozpenik ez du izan beharko.

Hala eta guztiz ere, hartzaile gisa jarduten jarraitu ahal izanen dute, administrazioak horretarako aurretiazko baimena emanda, 65 urte baino gehiago izan eta zerbitzua ematen jarraitzeko baldintzetan dauden pertsonak, betiere onuradunak hala nahi badu eta adina denean zerbitzua baldintza egokietan ematen jarraitzeko betetzen ez den baldintza bakarria.

Salbuespen horrek eragina galduko du hartzailea laguntza egokia emateko baldintzetan ez dagoela kreditatzen denean.

Adinaren salbuespena ezin izanen da aplikatu familiako beste kideren bat zerbitzua ematen jarraitzeko prest dagoenean, baldin eta harrerako titulartzat hartzea eskatzen badu.

c) Hartzaile nagusiak denbora, gaitasuna eta berezko joera izan beharko ditu harreran ezinbestekoak diren laguntzak emateko.

d) Familia bakoitzak ezin izanen ditu bi pertsona baino gehiago hartu, salbu eta behar bezala kreditaturiko aparteko egoeretan.

e) Aurretik ez amaitu izana harrera-kontratu bat ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.

5. Familiako harrera egiten den etxebizitza iristeko erraza den hiri edo herri ingurune batean egongo da, eta behar diren baldintza higieniko eta osasunekoak, ur korrontea, argi elektrikoa eta komuna izanen ditu; ez du izanen pertsona helduaren ibilera zailduko duten arkitektura oztoporik ez eta trabarik ere.

### **8. artikulua. Espedienteen tramitazioa**

1. Espedienteen tramitazioa, bai pertsona zaharren eskabidearena bai pertsona hartzaileena ere, oinarritzko gizarte zerbitzuek egiten dute, eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura bidaliko dira, interesdunek haiek

sinatu ondoren, behar diren txosten teknikoekin eta eska daitekeen gainerako dokumentazioarekin batera.

2. Oinarrizko gizarte zerbitzuek harrera eskatu duten pertsona zaharrak zaintzeko egokien jotzen dituzten familia hartzaileak hautatu eta proposatuko dizkiote Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari. Horretarako, laguntza-zerbitzu tekniko bat izanen dute.

3. Egokitasun-adierazpena egingen da familia hartzaileei buruz, pertsona zaharrei buruz eta kasuan kasuko harrera-hitzarmenari buruz, eta egingen da txosten teknikoak, hala psikologikoak nola sozialak, eman ondoren. Horretarako, oinarrizko gizarte-zerbitzuek Gizarte Ongizate Departamentuak eskainitako harrerari laguntzeko zerbitzu berariazko bat izanen dute.

4. Aipatutako txosten teknikoetatik ondorioztatuko balitz familia hartzaileak edo harrera eskatu duten pertsonak ez direla egokiak harrerarako, eskabide hori ezetsia geldituko litzateke.

Txosten teknikoetatik ondorioztatuko balitz egokitasunik eza kasu zehatzerako dela, baina beste harrera batzuk posible direla, eskabideak itxaron zerrendara pasako dira.

5. Harrerarako egokitzat deklaraturiko familia hartzaileen eta pertsona zaharren eskabideen zerrenda Nafarroako Gobernuo Ongizate Departamentuak zentralizatu eta gaurkotuko du.

## **9. artikulua. Eraketaren baldintza formalak**

1. Harrera-hitzarmena eskritura publiko bidez eratu behar da; eskritura hori behar den erregistroan inskribatu beharko da.

2. Eskritura publikoak adierazi behar ditu alderdi bakoitzari dagozkion eskubide eta betebeharrak.

## **II. KAPITULUA HARTUTAKOAREN ETA HARTZAILEAREN ARTEKO HARREMANA AMAITZEA**

### **10. artikulua. Harremana amaitzeko arrazoiak**

1. Harrera ondoko arrazoiengatik amaituko da:

a) Harrera-hitzarmenean ezarritako arrazoiengatik.

b) Hartzaileak eta hartutakoak ados jarri eta hala erabakitzen dutelako.

c) Bi aldeek nahi dutelako; borondate hori idatziz adieraziko da. Harremanaren amaiera fede emateko moduan jakinaraziko zaio beste aldeari, hiru hilabete lehenagotik.

d) Alde batek nahi duelako, beste aldeak dagozkion betebeharrak ez baditu betetzen edo bizikidetasuna zailtzen duen arrazoiaren bat egozten ahal bazaio. Halakoetan, harremanaren amaierari buruzko jakinarazpenean arrazoiak azaldu beharko dira eta berehalako eragina izanen du.

e) Hartutakoa edo hartutakoak hiltzean edo haren/haien heriotza deklaratzean.

f) Hartzailea edo hartzaile biak, baldin eta bikote hartzailea bada, hiltzean edo haren/haien heriotza deklaratzean. Haietako baten heriotzak orobat ekar dezake harrera-hitzarmenak ezarritako kontraprestazioa berrikustea eta harrera-hitzarmena amaitzea,



## §2.1.- 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa

baldin eta bizirik dirauenak onartutako betebeharreri aurre egiterik ez duela justifikatzen bada. Hala bada, hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio pertsona hartuari.

2. Harreraren amaitzeak ukituriko pertsona hartuak administrazioak beste harrera-hitzarmen bat eskaintzeko lehentasuna izanen du.

### **11. artikulua. Harrera amaitzearen ondorioak**

1. Harrera amaitzen den kasu guztietan, pertsona hartuak edo pertsona hartuek etxebizitza uzteko epe eta baldintzei dagokienez, aldeek harrera-hitzarmenean adierazitako borondateari begiratuko zaio.

2. Amaiera 10.1 artikuluko c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, eta harrera egiteko baldintzak eta denbora direla medio aberaste bidegabea gertatu bada, bere burua kaltetuztat jotzen duen aldeak kalte-ordaina eskatu ahalko dio beste aldeari.

3. Harreraren amaiera foru lege honen bidez sortutako erregistroari jakinarazi beharko zaio.

### **12. artikulua. Plan gerontologikoa**

Nafarroako Gobernuak prestatutako duen plan gerontologikoan jasoko da pertsona zaharrak familian hartzearen modalitatea laguntza-formuletako bat gisa, zeinak, berezkoa duen kontratu askatasuna errespetatuz, bete behar duen helburu soziala aintzat hartzen duen beren buruaz baliatzeko zailtasunak dituzten adineko pertsonen baldintza batzuk, hau da, familian integratzea eta gizartearen parte izaten segitzea, eskaintzeari dagokionez.

### **13. artikulua. Onuradunen hautaketa, uko egitea eta finantzaketa**

1. Administrazioak ebatziko ditu interesatuen eskaerak, eta horretarako pertsona zaharren beharrak eta hartzailearen ezaugarriak bateratu beharko ditu, zenbait alderdi aintzat hartuta, hala nola, hartua den pertsona edo pertsonak eta hartzaileek batak bestearekiko onarpena ematea, gizarte zerbitzuen aldeko txostena, hartzaileen eta hartzea eskatzen duen pertsonaren txosten medikoak eta pertsona zaharra haren ohiko ingurunetik mugitzea desegokia izatea.

2. Eskaerei uko egiteko kausak hauexek dira: eskatzailearen adimeneko gaixotasuna, hartua den pertsonak bizi behar duen lojamenduaren desegokitasuna, familia hartzailearen osasuna eta eskatzailearen eta familia hartzailearen arteko bateraezintasuna.

3. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak laguntza zehatzak finkatuko ditu hartutako pertsonentzat, beste lojamendu mota batzuetarako ere ezarritakoen ildotik.

§2.1.- 34/2002 Foru Legea, abenduaren 10ekoa

## **XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA**

### **Familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa**

Nafarroako Gobernuak familietan hartutako pertsona zaharren erregistroa sortuko du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren menpe. Bertan erregistratuko dira pertsona zaharrak beraienak ez diren familietan kontraprestazio ekonomikoarekin hartzeko Nafarroako Foru Komunitatean formalizaturiko itun edo akordioak, administrazio publiko eskudunak esku hartzen duenean horietan.

Erregistroan bilduko dira gainera hartzaileen eta hartutakoen bajak, bertan behera utzitako harrerak eta horren arrazoiak, bai eta egokitzat jotzen diren bestelako datu garrantzitsuak.

## **AZKEN XEDAPEN BAKARRA**

### **Indarra hartzea**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

## **§2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa<sup>543</sup>**

### **Atarikoak**

#### **I**

Osasun laguntzako sistemen aurrean pertsonak -erabiltzaile nahiz gaixo- dituzten eskakizunak, beharrak eta itxaropenak pixkanaka aldatzen joan dira. Bilakaera hori, izan ere, kokatu behar da pertsonen autonomian eta haien eskubideen baieztatpenaren oinarrituriko eredu bat sustatzen duen aldaketa sozialeko testuinguru zabalago batean. Pertsonak osasunaren arloan dauzkaten eskubideak, horrela, giza eskubideen beste adierazpide bat dira, eta eskubide horiek aitortzea askatasunak osasun-harremanen esparru zehatzean duen proiektzio bat besterik ez da, ulertuta askatasuna antolamendu juridikoaren goreneko balio bat dela, bai eta pertsonaren duintasunarekiko eta haren nortasunaren garapen librearekiko errespetuaren agerpen bat ere. Adierazi beharra dago duintasuna pertsonak berezko duen balio espiritual eta moral bat dela, bereziki adierazten dena norberaren bizitzaren autodeterminazio kontziente eta arduratsuan.

Mendebaldeko gizartearen ingurune kulturean, osasun lanbideen jarduera eta medikuntza-lana iragan dira eredu paternalista batetik -ongintzaren printzipio etikoan oinarrituriko harreman-sistema batekin- funtsean pertsonaren autonomia-printzipioan bermatzen den beste eredu batera, non profesionalak beren irizpide profesionala gaixoaren borondatearen menpe edo haren baldintzapean jartzen baitute, gaixoa bera baita laguntza-prozesuaren protagonista eta ardurakidea.

XX. mendearen bigarren erdian zehar, nazioarteko erakunde ugari, bai eta haien menpeko organismo eta erakundeek ere, eskubideei buruzko deklarazio-agiriak argitaratu izan dituzte, eraginkortasun juridiko ez beti berdinarekin. Nolanahi ere, agiri horietan pertsonak osasun arloan parte hartzeko eta hartan ardurakide izateko borondate argia izan dezaten sustatu nahi izan da. Bereziki nabarmendu beharra dago gaixoen borondatearen autonomiarekiko errespetua, haiengan eragina duten osasun jarduera guztietan.

Gaixoen eskubideak harreman kliniko eta laguntzazkoen oinarritzko ardatz gisa egituratu dira, eta haien substratua dira. Deklarazio horiek isla argia izan dute osasun arloko arauetan, nazioartean nahiz nazioan, bai eta arau horien jurisprudentziaren bidezko interpretazioan ere.

Nazioarteko esparruan, honakoak aipa daitezke nabarmentzeko moduko arau gisa: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948ko abenduaren 10ekoa; Giza Eskubideak eta Oinarritzko Libertateak Babesteari buruzko 1950eko azaroaren 4ko Hitzarmena; Europako Gutun Soziala, 1961eko urriaren 18koa; eta, azkenik, Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Hitzarmena, 1966ko abenduaren 16koa.

---

<sup>543</sup> Kontuan har bedi zer dioten azaroaren 14ko 41/2002 Oinarritzko L-ak, zeinaren bidez arautzen baitira pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak, eta martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak, Eutanasia arautzekoak.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

Nabarmentzekoa da, gaixoarekiko errespetuaren eta babesaren joera modernoaren hastapen gisa berebiziko garrantzia izan baitzuen, Giza Eskubideak eta Gizakiaren Duintasuna Biologiaren eta Medizinarekin Aplikazioetatik Babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, 1997ko apirilaren 4an sinatutakoa eta Espainian 2000ko urtarrilaren 1ean indarra hartu zuena.

Halaber, nabarmentzekoak dira Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Lisboako Itunera eta lehenago uztailaren 30eko 1/2008 Lege Organikoaren bidez gure antolamendu juridikora ekarritakoa; Europako Gaixoen Eskubideak Sustatzeari buruzko Deklarazioa, 1994koa; eta 2002ko azaroko Gaixoen Eskubideei buruzko Europako Gutunaren oinarrizko dokumentua, zeinak gaixoen eskubideei buruzko hamalau printzipio zehaztu baititu, erreferentzia bat izan daitezen osasun sistema nazionalak harmonizatzen, herritarren eskubideak babeste aldera.

## II

Espainiako Konstituzioak, 43. artikuluan, osasun babesaren eskubidea aitortzen du, eta orobat ezartzen du botere publikoei dagokiela, prebentzioko neurrien eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez, osasun publikoa antolatu eta zaintzea. Konstituzioaren VIII. tituluak Estatuaren lurralde-antolamendu berri bat diseinatu zuen, zeinak bidea ematen baitzuen autonomia erkidegoek osasunaren arloko eskumenak izateko. Halaber, Estatuaren eskuetan uzten zuen oinarri horiek erregulatzea eta koordinazio orokorra egitea.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legeak herritarren eskubideen arloko konstituzio-aurreikuspenak garatu zituen, dauden osasun administrazio publikoei dagokienez. Halaber, herritarren betebeharrak ere erregulatu zituen, osasun sistemako erakunde eta organismoek dagokienez. Eskubide eta betebeharrak Gaixoaren autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legearen bitartez modulatu eta zabaldu dira.

Nabarmentzekoak dira, halaber, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak prestazioen alorrean eginiko ekarpenak.

Estatuko aipatutako legedia garatzeko, zenbait foru lege onetsi dira. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 3. artikulua, zeina maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legearen bitartez aldatu baitzen, ezartzen du Nafarroan bizi diren herritar guztiak, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere, Foru Komunitatearen esparruko osasun laguntzarako eskubidearen titularrak direla.

Gero, zenbait foru arauen bitartez, beste eskubide batzuk sartu dira Nafarroako Foru Komunitatean. Horien artean, bereziki nabarmentzekoa da pertsona bakoitzak bere osasunari buruz erabakitzeke duen eskubidea, Biziazen gaineko aurretiazko borondateak egiteko eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzeko eskubideei buruzko maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean islatutakoa, eta programatutako osasun laguntza espezializatua, ez larrialdikoa, jasotzeko gehieneko aldien ezarpena, hain zuzen ere Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean jasotakoa.

### III

Estatuko eta foru erkidegoko legedi hori erreferentzia gisa hartuta, foru lege honek pertsonak osasunaren arloan dituzten eskubideak arautzen ditu, honako helburuarekin: haien edukia antolatu, gaurkotu eta zabaltzea; halaber, gaixoen eskubideen ikuspegian sakontzea, eta zenbait tresna ezartzea, herritarrak, banaka edo taldeka, protagonista izan daitezten osasungintzaren arloko erabakiak hartzeko prozesuan, hala osasun publikoaren arloan, nola banakako osasun laguntzaren arloan. Arauak gaixoei bidea eman behar die ez soilik hobeki ezagutzeko beren eskubideak eta betebeharrak, baita haietaz baliatu ahal izateko ere, halako moduz non areagotu egingen baita herritarren eta osasungintzaren arloko profesionalen eguneroko lanaren segurtasun juridikoa.

Helburu horiek erdiesteko, foru legeak osasunaren arloan pertsonak dauzkaten eskubideak definitzeaz gainera, tresna batzuk ezartzen ditu herritarrak protagonista izan daitezten osasunaren arloari buruzko erabakietan eta beren gaixotasun prozesuaren kudeaketan. Hala eta guztiz ere, herritarrek banakako osasunaren eta osasun kolektiboaren arloko beren ardurak ezagutu behar dituzte eta bere ere egin behar dituzte. Hori dela eta, foru legeak pertsonak zenbait arlotan dituzten betebeharrak zehazten ditu: bere osasunaren zaintza, osasun zerbitzuen erabilera egokia eta osasun arloko profesionalakiko eta beste erabiltzaile batzuekiko errespetua.

Bestalde, foru legeak osasunaren arloan lan egiten duten osasun profesionalen eskubideak eta betebeharrak ere modu sistematikoan arautzen ditu.

Oro har, aipatutako estatu-legeek eta foru legediak berak oinarri gisa ezarritakoen bilduma sistematizatu bat da, baina beste eskubide batzuk ere gehitu dira.

Hartara, gaixoen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak definituz, foru legeak harremanetarako marko seguru eta orekatua ezartzen du, hain zuzen ere harreman kliniko-laguntzazkoen arloan konfiantza legitimoa sorraraziko duena. Izan ere, harreman horretako aldeek elkarri duintasuna, gaitasunak eta ardurak aitortzen dizkiote. Norberaren eskubideez eta betebeharez modu arduratsuan baliatzea, konfiantzako esparru batean, beharrezko baldintza bat da pertsonen osasuna mantentzeko eta hobetzeko eta osasun sistemaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko.

### IV

Foru legeak, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden kolektiboak dagokienez, halakoak baitira esaterako gutxiengo etnikoak edo dauzkaten ezaugarri bereziengatik sentiberenak edo ahulenak diren taldeak, araupetze zehatza dakar, haiei babes berezia emateko. Honako kolektiboak jaso dira: ezgaituak, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, prozesu terminalak dituzten gaixoak, transexualak, atzerriko herritarrak eta, bereziki, gaixo mentalak.

### V

Foru legeak 87 artikulua dauzka, eta hamaika titulutan egituratuta dago: atariko bat eta beste hamar. Gainera, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako bi xedapen dauzka.

Foru legearen atariko tituluak xedea eta aplikazio esparrua ezartzen ditu, bai eta oinarri dituen printzipio orokorrak ere, osasun publikoari dagokionez zein osasun laguntzaren esparruari dagokionez.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

Pertsonak osasunaren arloan dituzten eskubideak zabal garatzen dira foru legean, I. tituluan.

I. tituluak hiru kapitulu dauzka:

I. kapituluan, osasun publikoaren arazoak direla medio pertsonengan izan daitezkeen interbentzio publikoak jasotzen dira, bai eta pertsona horien eskubideen bermea ere. Halaber, osasun publikoaren kontzeptu berri baterako oinarri batzuk ezartzen dira.

II. kapituluan ezartzen da zein diren osasun laguntza publikorako eskubidearen titularrak.

III. kapituluak osasun zerbitzuekin lotutako eskubideak arautzen ditu. Esate baterako: osasun laguntzarako eskubidea; osasun arloko profesionalak libreki hautatzeko eskubidea; bigarren iritzi medikorako eskubidea; osasun laguntzarako eskubidea, gehienezko berandutza-aldi batzuekin; sendagaiak lortzeko eskubidea eta lagundua izateko eskubidea; eta askatasun ideologiko, erlijioso eta kulturorako eskubidea. Halaber, giza kalitate eta kalitate zientifiko oneko osasun laguntzarako eskubidea jasotzen du.

Kolektibo ahulenen eskubideak zehatz-mehatz eta berariaz jasota ageri dira II. tituluan.

III. tituluan, intimitaterako eta konfidentziasunerako eskubideak ageri dira jasota, eta nabarmentzen da osasunari eta datu genetikoei buruzko -eta datu pertsonalei eta osasun laguntzaren arloan garrantzi berezia duten alderdiei buruzko- informazioaren konfidentziasunak behar duen errespetua. Era berean, konfidentziasunerako eskubideak dauzkan salbuespenak jasotzen dira.

IV. tituluan, zeina hiru kapitulutan baitago egituratuta, osasun informaziorako eskubidea arautzen da. I. kapituluan informazio orokorra eta II. kapituluan laguntzari buruzko informazioa -osasun laguntzarako prozesu zehatz bati dagokionez- jasotzen dira. III. kapituluan, azkenik, parte-hartzerako eskubidea jasotzen da.

V. tituluan borondatearen autonomiari buruzko eskubideak jasotzen dira.

Hiru kapitulutan dago egituratuta.

I. kapituluan, hautatzeko eta baimen informatuari buruzko askatasuna arautzen da, ulertuta askatasun hori sendagilearen eta gaixoaren arteko komunikazio- eta informazio-prozesu bat dela, zeinak helburu baitu gaixok diagnosi- nahiz terapia-prozedurari buruz libreki erabakitze eskubidea, balizko arrisku, onura eta aukerak ezagutu ondoren.

II. kapituluak gaixok beren borondateak aurrez adierazteko eskubidea jasotzen du; horretarako, gaixoei ahalmena ematen zaie jaso nahi duten osasun laguntzan parte hartzeko, baldin eta osasun-inguruabarrak direla medio beren kasa erabakitze modurik ez badute, betiere bizitzarekiko eta pertsonaren duintasunarekiko errespeturik handienarekin.

III. kapituluak ikerketarekin eta esperimendazio zientifikoarekin loturiko eskubideak jasotzen ditu.

VI. kapituluak osasunari buruzko dokumentazioaren arloko eskubideak aipatzen ditu. Bi kapitulu dauzka: I. kapitulua historia klinikoari buruzkoa da, hura osasunari buruzko dokumentazioaren eta osasun laguntzaren arloko elementu nagusizat harturik. Haren edukiari, tratamenduari, jabetzari, zaintzari, sarbideari eta erabilerari buruzko alderdi batzuk arautzen ditu. II. kapitulua bestelako dokumentazio klinikoari buruzkoa da.

VII. tituluak pertsonak osasunaren arloan dauzkaten betebeharrak arautzen ditu. Betebehar horien artean honakoak daude: gaixoei, haiek laguntzen dituztenei eta osasun-

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

etxe, -zerbitzu eta -establezimenduetan lan egiten duten langileei zor zaien errespetuari eustea; pertsonen osasun baliabideen erabilera egokia dela-eta dauzkaten betebeharrak: instalazioak eta osasun ekipamenduak zaintzeko betebeharra, eta haiek modu egokian eta arduraz erabiltzea; pertsonen beren osasunarekiko dituzten betebeharrak, eta osasun agintariei laguntza emateko betebeharra, gaixotasunen prebentzioari eta beren osasun egoerari dagokienez.

VIII. tituluan, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako profesionalen eskubideak arautzen dira. Besteak beste, honakoak arautzen dira: beren eginkizunak betetzeari dagokionez, ohorerako eta prestigio profesionalerako eskubidea; segurtasunerako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea; beren osasuna lanetik eratorritako arriskuetatik egoki babesteko eskubidea; autonomia zientifiko eta teknikorako eskubidea, beren eginkizunetan ari direla; eta kontzientzia eragozpenerako eskubidea.

IX. tituluan, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako profesionalen betebeharrak arautzen dira. Betebehar horien artean, honakoak ageri dira: gaixoei eta erabiltzaileei osasun laguntza egokia ematekoa; gaixoek libreki eta boluntarioki hartutako erabakiak errespetatzekoa; informaziorako eta dokumentazio klinikorako betebeharrak betetzekoa; eta jarduera profesionala dela-eta isilekotasuna gordetzekoa.

Foru legearen azken tituluak, X. tituluak, foru lege honen edukia dela-eta aplikatzekoa den zehapen araubidea arautzen du.

## **ATARIKO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Foru legearen xedea.**

Honakoak dira foru lege honen xedeak:

1. Osasuna dela eta, pertsonen eskubideak eta betebeharrak bete daitezen arautu eta sustatzea.
2. Nafarroako osasun sistema publikoan lanean diharduten profesionalen eskubideak eta betebeharrak bete daitezen arautu eta sustatzea.
3. Irizpide orokorrak zehaztea, eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta haiek babestera eta ziurtatzera zuzendutako neurri administratiboen esparrua ezartzea; neurri horiek administrazio publikoentzako kudeaketarako irizpidetan gauzatu behar dira.

### **2. artikulua. Aplikazio eremua.**

1. Foru lege honen aplikazio-esparruak 11. artikuluan aipatzen diren pertsona guztiak hartzen ditu. Gizartearen ikuspuntutik ahulak diren pertsonen edo kolektiboen kasuan, egoera hori eragiten duten determinante sozialak gutxitzeko neurriak hartu beharko dira.
2. Foru Lege hau Nafarroako Foru Komunitatean dauden osasun-zentro, zerbitzu edo establezimendu publiko nahiz itundu guztietan izanen da aplikatzekoa, eta haien zerbitzuan lan egiten duten profesional guztiei.
3. Halaber, Nafarroan garatzen den osasun jarduera orotan da aplikatzekoa, dela osasuna sustatzekoa, prebentziokoa, laguntzakoa edo ikerketa zientifikoaren arlokoa.

### **3. artikulua. Foru lege honen printzipio orokorrak.**

Pertsonak Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren arloan dauzkaten eskubideak eta betebeharrak honako printzipio orokor hauetan oinarritzen dira:

1. berdintasuna izatea eskueran dauden osasun-zerbitzu guztietarako eta osasun arloko profesioletarako sarbidean, eta osasun egoera bakoitzari dagozkion osasun laguntza eta zainketak jasotzean, egoera pertsonalarengatik inongo bazterketarik eragin gabe.
2. Irisgarritasun unibertsala. Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoez eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasun eta erosotasun egoeran eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Printzipio honek ororentzako diseinua estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanen erabaki beharrekoak diren arrazoizko egokitzapenak egiteko.
3. Ororentzako diseinua. Erabiltzekoak diren osasun-zerbitzuen eta instalazioen multzoa, ahal dela, ahalik eta pertsona gehienek erabiltzeko moduan pentsatu edo proiektatu behar dira hasiera batetik.
4. Pertsonen duintasunarekiko eta haien balio moral eta kulturalerekiko errespetua, bai eta haien sinesmen erlijioso eta filosofikoekiko errespetua ere. Ez da inor baztertuko jaioleku, etnia, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonalengatik.
5. Pertsonak ere arduratzea eta parte hartzea prestazioen eta baliabideen erabilera egokian, eta osasun-zentro eta -zerbitzuetako profesionalak eta antolamendu- nahiz funtzionamendu-arauak errespetatzea.



## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

6. Pertsonak parte hartzea beren osasunarekin loturiko osasun jardueretan.
7. Gaixoaren borondatearen autonomia errespetatzea.
8. Informazioaren eta dokumentazio klinikoaren bermea.
9. Osasun zerbitzuen eta osasun prestazioen kalitatea eta segurtasuna.
10. Osasunaren arloko politikaren formulazioan eta haren betearazpenaren gaineko kontrolean parte hartzea.
11. Pertsonak osasuna dela-eta daukaten interesa sustatzea, informazio egokia emanez eta osasunari buruzko heziketa gehiago emanez.

### **4. artikulua. Osasun publikoaren esparruko eskubide orokorrak.**

Nafarroako Foru Komunitatean bizilekua duten pertsonak, foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoari jarraituz, osasun publikoaren arloko eskubide orokor hauek aitortuko zaizkie:

1. Osasuna sustatzeko eta gaixotasunaren prebentziorako neurrietarako eskubidea, bai eta osasunaren arloko heziketa-ekintzetarako eskubidea ere.
2. Osasuna garatzeko ekintzak lehenetsuz osasunaren sustapenera eta gaixotasunak prebenitzera orientatuta egotea, bai osasun erakundeen ekintzetan, bai osasunaren gaineko gai determinagarrietan jarduten duten gainerako administrazioen ekintzetan; esate baterako, osasun ekintzak, gizarte ongizatekoak, etxebizitzakoak edo ingurumenekoak, besteak beste.
3. Osasuna dimentsio psikologiko eta soziala dituen fenomeno baten gisara hartzea osasunaren arloko politikak formulatzerakoan, bai eta zerbitzuak antolatzerakoan ere, osasunaren sektoreak bestelako sektoreek osasuna hobetzeko egiten dituzten ekintzak jasoz, eta osasunaren sektorearekin koordinatzea.
4. Osasuna sustatzeko eta osasun publikorako arrisku kolektiboen aurka babestuta egoteko neurrietarako eskubidea, bereziki transmititzekoak diren gaixotasunen esparruan, elikagaien segurtasunaren arloan, lan osasunean eta ingurumenaren arloko sanitarian.
5. Informazio epidemiologikorako eta prebentziorako programei eta ekintzei buruzko informaziorako eskubidea.
6. Osasun arazo zehatzei buruzko ezagutza egokia edukitzeko eskubidea, baldin eta norberaren osasunerako arriskutsuak badira, eta eskubidea, era berean, zabaltzen den informazioa zabal dadin modu egiazkoan, ulergarrian eta osasuna babesteko egokia den moduan.
7. Eskubidea, batez ere elkarrean bitartez, artikulua honetan ezarritako eskubideak eraginkor egiteko eta babesteko interes orokorreko jarduerak egin daitezten, politikak, planak eta osasun publikoaren arloko kudeaketak babesteko eta haietan parte hartzeko jarduerak eginez. Eskubide hori honakoetan zehatz daiteke:
  - a) Osasun agintariekin elkarrizketa publikoa izateko eskubidea, osasun publikoko programak garatzeko.
  - b) Foru lege honetan aitorturiko eskubideekiko errespetuari buruzko auditoriak egiteko eskubidea, Osasun Administrazioaren arloko osasun publikoko jardueretan.
  - c) Osasuna babesteari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, modu ulergarrian, egiazkoan eta osasuna babesteko egokia den moduan. Informazio hori ezagutza zientifikoan oinarritu beharko da, eta betiere Osasun Administrazioaren ardurapean.

### **5. artikulua. Osasun laguntzaren esparruko eskubide orokorrak.**

Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema publikoaren erabiltzaileei, foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoari jarraituz, osasun laguntzaren arloko honako eskubide orokorrak aitortuko zaizkie:

1. Osasun laguntza integral eta jarraiturako eskubidea, laguntza maila desberdinetan, Nafarroako osasun zerbitzuen zorroan ezarritakoari jarraituz. Osasun laguntzarako eskubidea berdintasunez gauzatzen dela ziurtatuko da, betiere pertsonaren nortasuna, duintasuna eta intimitatea guztiz errespetatuz, eta sexu, arraza, erlijio, iritzi, hizkuntza, ideologia edo beste edozein inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialengatik inongo bereizkeriarik egin gabe.
2. Kasuan kasuko osasun prestazioak eskuratzeko eta lortzeko eskubidea, legez ezarritako baldintzetan, osasun-egoera babestu, zaindu edo lehengoratzeko xedez.
3. Zein osasun-zerbitzutara jo dezaketean eta horiek erabiltzeko behar diren baldintzez informazio egoki eta ulergarria lortzeko eskubidea.
4. Nafarroako osasun zerbitzuen zorroan bildutako tekniken, teknologien edo prozeduren multzoa jasotzeko eskubidea, ahal dela Nafarroako Foru Komunitateko zentro eta zerbitzu publikoetan.
5. Fakultatiboa eta zentroa libreki hautatzeko eskubidea, foru lege honetan eta une bakoitzean indarra duen araudiaren arabera.
6. Norberaren osasun egoerari buruzko eta kasuko laguntza-prozesuan aplikatu daitezkeen teknika diagnostikoetarako, terapeutikoetarako eta farmakologikoetarako aukerei buruzko informazio irisgarri, ulergarri, nahikoa eta egokia jasotzeko eskubidea.
7. Norberarengan eragina duten erabaki terapeutikoak hartzen modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko, eta, kasua bada, erabakitzeko eskubidea; bereziki, ebidentzia zientifikoan oinarrituriko tratamendu-aukera bat baino gehiago dagoen kasuetan.
8. Eskubidea norberaren baimena eska dadin eta norberaren borondatea errespetatu dadin, foru lege honetan eta arau indardunetan ezarritakoari jarraituz, gaixoaren erabakiaren autonomia ziurtatu behar den osasun jarduera guzti-guztietan; bereziki, formalizatutako aurretiazko borondateei dagokienez.
9. Medikuntzaren arloko langileak esleituak izateko eskubidea, betiere gaixorentzat identifikatuta egonen direnak. Izan ere, langile horiek gaixoaren mintzakide nagusiak izanen dira laguntza-taldearekiko harremanetan, eta informazio eta, kasua bada, parte hartzeko eskubideak ziurtatzearen ardura hartuko dute. Erizaintzako langileak ere esleitu dira, bidezkoa den kasuetan.
10. Osasun laguntza jasotzeko eskubidea gehieneko epe jakin batean; eta, berandutze kasuetan, berme-sistema bat aplikatzeko eskubidea.
11. Norberaren prozesuan bigarren iritzi fakultatiboa lortzeko eskubidea, foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera.
12. Parte hartzeko eta iritzia izateko eskubideak betearazteko eskubidea, foru lege honetan eta hura garatzeko arauetan jasotako aurreikuspenekin bat.
13. Norberaren historia klinikoan jasotako datu, dokumentu eta txostenak eskuratzeko eskubidea, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.
14. Tratu gizatiarra, errespetuzkoa eta baldintza pertsonalei eta ulermenezkoei egokitutakoa jasotzeko eskubidea.

15. Aplikatzen zaizkien pronostiko- eta diagnostiko-prozedurak eta prozedura terapeutikoak irakaskuntza-, prestakuntza- edo ikerketa-proiektu baterako erabiltzen badira, horri buruz ohartarazia izateko eskubidea. Proiektu horiek ezin izanen dira izan, inolaz ere, arriskutsuak gaixoen osasunerako. Edonola ere, ezinbestekoa izanen da gaixoak alde aurretik eta idatziz baimena ematea eta sendagileak eta kasuko osasun-zentroko zuzendaritzak hura onartzea.

## **I. TITULUA**

### **PERTSONEK OSASUNA DELA-ETA DAUZKATEN ESKUBIDEAK**

#### **I. KAPITULUA**

#### **Pertsonen gaineko esku-hartze publikoak, osasun publikoko eta eskubideak ziurtatzeko arrazoiengatik**

##### **6. artikulua. Pertsonen gaineko esku-hartze publikoak.**

Osasun Publikoaren arloko neurri bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoak ezarri bezala, osasunaren arloko agintariak honako esku-hartze publikoak gauzatzen ahalko dituzte hirugarren pertsonentzako arriskuak dauden kasuetan:

1. Aztertze, diagnostia egiteko, tratamenduko, ospitaleratzeko edo kontroletako neurriak, biztanleriaren osasunerako arriskuari buruzko aztarna arrazionalak atzematen direnean, pertsona baten edo pertsona-talde baten osasun egoera zehatzaren ondorioz, edo jarduera bat garatzen deneko osasun baldintzen ondorioz.
2. Transmittitzekoak diren gaixotasunak kontrolatze aldera, prebentzioko ekintza orokorrak egiteaz gainera, behar diren neurriak hartzen ahalko dira gaixotasuna duten pertsonak, haiekin harremanetan egon direnak eta haien hurbileko ingurunea kontrolatzeko, bai eta transmititzeko arriskua dela-eta beharrezkotzat jotzen diren neurriak ere, haien premiari buruzko ebidentzia zientifikoaren arabera.
3. Aurreko neurriak aplikatzerakoan Konstituzioak herritarrei aitorturiko eskubideak errespetatu beharko dira; bereziki, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, bai eta intimitate pertsonalerako eskubidea ere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eta arau horiek eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ezarritako prozeduren arabera, betiere aginduzkoak diren baimenez baliatuta.

##### **7. artikulua. Informaziorako eskubidea eta aurretiazko baimenaren eskubiderako mugak.**

Pertsonari informazio osoa eta egiazkoa eman behar bazaio ere, zenbait egoeratan ez zaio alde aurreko baimena eskatu beharko bere osasunaren alde ezinbestekoak diren interbentzio klinikoak egiteko. Horrela, salbuespen hori aplikatuko da osasun publikorako arrisku larria dagoenetan, baldin eta, aplikatzekoa den legediarekin bat, osasun arrazoiak badaude horretarako.

##### **8. artikulua. Pertsonen gaineko esku-hartze publikorako mugak egotea, haien eskubideak ziurtatze aldera.**

6. artikuluan zehaztutako esku-hartze publikoetan honako arauak bete beharko dira:
- a) Osasun agintarien borondatezko lankidetzari lehentasuna ematea.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

- b) Aurretik baimen judiziala edo, kasua bada, berrespen judiziala lortzea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeari jarraituz, osasun agintariak osasun publikorako presakotzat eta beharrezkotzat jotzen dituzten neurriak hartzeko, hain zuzen ere neurri horiek pertsonari askatasuna nahiz bestelako oinarriko eskubideak kentzea edo murriztea ekartzen dutenean. Nolanahi ere, behin osasun- edo administrazio-neurriak harturik, neurriok badakarte pertsonak nahitaez ospitaleratu beharra, horren berri eman beharko zaio aginte judizialari 24 orduko epean gehienez ere, hala ezartzen baitu Osasun Publikoaren Alorreko Neurri Bereziei buruzko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoak.
- c) Pertsonen zirkulazio askearen gaineko eragina ahal den gutxian gutxitzea.
- d) Bizitzarako arriskua dakarten nahitaezko neurriak agintzeko debekua.
- e) Interbentzioak kasuan kasuko xedeetarako proportzionalak izatea.

### **9. artikulua. Esku-hartzea izan duten pertsonentzako laguntzaren bermeak.**

1. Beren borondatearen kontrako ospitaleratzea edo tratamendua jasan duten pertsonari informazio puntuala eman beharko zaie, hitzez eta idatziz, beren eskubideei buruz eta abia ditzaketen errekurso edo ekintzei buruz.
2. Informazioa eman beharko zaie, halaber, modu erregular eta egokian, erabaki hori hartzeko izan diren osasun publikoko arrazoiei buruz eta borondatez kontrako ospitaleratzea edo tratamendua luzatzeko nahiz eteteko aplikatutako irizpideei buruz.

### **10. artikulua. Beren borondatearen kontra ospitaleratutako pertsonen komunikazioetarako eta bisitetarako duten eskubidea.**

Beren borondatearen kontra ospitaleratutako pertsonen honako eskubideak izanen dituzte:

1. Beren abokatuarekin, senideekin edo edozein agintari administratibo nahiz judizialekin komunikatzeko eskubidea.
2. Bisitak jasotzeko eskubidea. Eskubide hori arrazoiz mugatzen ahalko da, pertsona horiek babesteko beharra kontuan izanda.

## **II. KAPITULUA**

### **Osasun laguntza eskuratzeko eskubidea**

### **11. artikulua. Osasun laguntza publikorako eskubidearen titularrak.**

1. Osasun laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Halaber, Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen ditu, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera.
2. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean iragaitzaz daudenei osasun laguntza publikoa ziurtatuko zaie indarreko legeetan, Europako zuzenbidean eta aplikatutakoak diren nazioko nahiz nazioarteko hitzarmenetan ezarritako moduan eta baldintzetan.
3. Halaber, osasun laguntza publikoa ziurtatuko zaie artikulu honetako 1. eta 2. idatz-zatietan jasota ez dauden adingabeei eta emakume haurdunei.
4. Gainera, larrialdi nahiz emergentzia egoeran dauden pertsona guztiei ziurtatuko zaie osasun laguntza publikoa.

### **III. KAPITULUA**

#### **Laguntza zerbitzuekin loturiko eskubideak**

##### **12. artikulua. Fakultatiboa eta zentroa hautatzeko eskubidea.**

1. Nafarroako osasun sistema publikoko erabiltzaileek eskubidea dute sendagile orokorra eta sendagile pediatra libreki hautatzeko oinarrizko osasun laguntzan, uanean-uean indarra duten arauen arabera. Termino beretan, sendagile psikiatra hautatzeko eskubidea egonen da.
2. Osasun sistema publikoko erabiltzaileek eskubidea dute emakumeari laguntzeko zentroetan obstetriaziako eta ginekologiako espezialista libreki hautatzeko, uanean-uean indarra duten arauen arabera.
3. Kanpoko kontsulten bidezko osasun laguntza espezializatuaren arloan eta zehazten diren espezialitateei dagokienez, oro har, herritarra libreki edo oinarrizko osasun laguntzako langileen agindu medikoaren bidez sartuko da laguntza maila horretan. Eskubide horretaz baliatzeko, uanean uneko arau indardunak bete beharko dira.
4. Osasun laguntza publikoa jasotzeko eskubidea duten herritar guztiek eskubidea dute foru erkidegoko lurraldean kokaturiko zentroa nahiz ospitale-zerbitzua hautatzeko, dauden aukerei buruzko agindu fakultatiboa jaso ondoren, betiere erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Fakultatibo eta zentro edo ospitale zerbitzu itundua hautatzeko eskubideari dagokionez, kasuan kasuko itunetan ezarritakoari begiratu beharko zaio.

##### **13. artikulua. Osasun laguntza berandutzako gehieneko epe batean jasotzeko eskubidea.**

Nafarroako osasun sisteman, pertsona orok du eskubidea osasun laguntza behar den denboran jasotzeko, eta eskubidea du, halaber, Osasun Laguntza Espezializatuko Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean eta hori garatzeko araudian ezarrita dauden erantzuteko gehieneko epeak ziurtatuak izateko.

##### **14. artikulua. Bigarren iritzi medikorako eskubidea.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko osasun administrazioek osasun-zentro eta -zerbitzu propio eta itunduetako gaixoei ziurtatuko diete bigarren iritzia jasotzeko eskubidea, eta erregelamendu bidez ezarriko dituzte norberarentzat garrantzi handia duten gomendio terapeutikoei edo jokaera diagnostikoei buruzko informazio gehigarri edo aukerakoa lortzeko prozedurak.
  2. Gertakari kliniko bakar batean, oinarrizko osasun laguntzako sendagileak, bere ekimenez nahiz gaixoak eskatuta, zentroak esleituta dauzkan sendagile espezialisten arteko batekin beste kontsulta bat egiteko agindua eman dezake, hori justifikatzen duten arrazoiak baldin badaude.
- Oinarrizko osasun laguntzako sendagileak bigarren kontsulta hori egokitatzat jotzen duenean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko espezialisten artean aukeratzen ahalko du.

### **15. artikulua. Sendagaiak eta osasunerako behar diren osasun produktuak lortzeko eskubidea.**

Pertsona orok eskubidea du osasuna sustatzeko, zaintzeko edo lehengoratzeko behar dituen sendagaiak eta osasun produktuak lortzeko, erabilera arrazionalari buruzko oinarritzko irizpideei jarraituz, betiere Medikamentuen eta osasun produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko uztailaren 26ko 29/2006 Legean ezarritako moduan. Osasun administrazioek sendagaien erabilera arrazionalari buruzko neurriak sustatuko dituzte, horren barne direla ebidentzia zientifikoak abalaturako erabilera terapeutikoa duten sendagaien preskripzioa, laguntza maila guztietan sendagai generikoen erabilera areagotzea eta sistemako profesionalen sendagaien buruzko aholkua ematea, interesak alde batera utzita.

### **16. artikulua. Lagundua izateko eskubidea.**

1. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek erraztasunak emanen dituzte senide batek edo konfiantzako pertsona batek gaixoak laguntzeko, salbu eta presentzia hori gomendagarria ez den edo osasun prestazioarekin bateraezina den kasu eta egoeretan.
2. Adingabeek eskubidea dute beren gurasoek edo tutoreek lagunduta egoteko, salbu eta horrek osasun laguntza kaltetzen edo oztopatzen badu. Baldintza beretan, desgaitasuna dutenek, beren gaitasuna egikaritzeko laguntza behar badute, eskubidea dute laguntza hori ematen dietenek lagunduta egoteko.
3. Emakume orok eskubidea du erditzean bere bikotea edo hark izendatutako beste pertsona bat bertan egon dadin, salbu eta inguruabar klinikoak direla medio hori gomendagarria ez denean; inguruabar kliniko horiek, betiere, azaldu egin beharko zaizkie, modu ulergarrian, erabakiak ukitutakoei.
4. Mendetasun egoeran dauden pertsonen eskubidea izanen dute familiarteko batek edo konfiantzako pertsona batek lagunduta egoteko, salbu eta presentzia hori gomendagarria ez den edo osasun prestazioarekin bateraezina den kasu eta egoeretan.
5. Zeinuen hizkuntza erabiltzen duten gorrek, nolana ere, eskubidea dute zeinuen hizkuntzako interprete batekin egoteko, informaziorako eta komunikaziorako irisgarritasuna ziurtatzeko. Komunikaziorako irisgarritasuna ziurtatzeko, osasun zentroek zeinuen hizkuntzako interpreteen zerbitzu bat eduki beharko dute kontratatuta, gaixo gor batek haren premia duenerako, Espainiako zeinuen hizkuntzak arautu eta gorren, entzumen-egaitasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak aitortzen dituen urriaren 23ko 27/2007 Legea betetzeko.

### **17. artikulua. Ideologia- eta erlijio eta kultu-askatasunerako eskubidea.**

1. Pertsona orok eskubidea du bere balio moral eta kulturalak, bai eta bere sinesmen erlijioso eta filosofikoak, errespetatuak izan daitezen. Haien praktikak bateragarri gertatu behar du praktika medikoarekin, eta zentroko arauak errespetatu beharko ditu.
2. Errespetatu beharrekoa izanen da laguntza espiritualaren errefusatzeko edo jasotzeko eskubidea, inongo sinesmenik bereizi gabe.

**18. artikulua. Giza kalitate eta kalitate zientifiko oneko osasun laguntza jasotzeko eskubidea.**

1. Herritarrentzako osasun jardueretan, erabiltzaileen baldintza pertsonal eta familiarretarako egokiak diren jardun etikoko jarraibideen eta arauen arabera osasun laguntza eskaini beharko da.

Osasun laguntza hori gaurkotasuneko ezagutza zientifikoetan oinarrituta egonen da, pertsona bakoitzaren premia eta ezaugarrietara egokituko da eta, gaixotasunik izanez gero, gaixotasun horrek dakarren larritasunari eta konplexutasun medikoari eta sozialari egokituko zaie.

Ildo horretan, Osasun Administrazioak bultzatuko ditu osasun laguntza gizabidezkoa izan dadin sakontzen duten ekintzak, eta bereziki bultzatuko du osasun arloko profesionalen eta gaixoen artean elkarrekiko konfiantzako, errespetuko eta ulermeneko esparru bat egon dadin.

Laguntza ahal den kalitate eta segurtasun handieneko baldintzetan emanen da.

2. Pertsonen eskubidea izanen dute osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan ematen den laguntzaren kalitatearen gaineko ebaluazioari buruzko informazio egiazkoa eta etengabea jasotzeko.

3. Ospitaleraturiko pertsonen alta planifikatzeko eskubidea ziurtatuko zaie, halako moduz non, alta ondoren zainketak behar badituzte, zainketa hauek bermatuta egon daitezzen.

4. Ospitaleratzeak egiten diren erakundeetan, ohe kopuru aldakorrekoko gelen premiei eta lehentasunei buruzko azterlanak eta plangintza egingen dira. Halaber, osasunaz besteko ostatu-laguntzetarako sarbideari buruzko azterlanak eta plangintza egingen dira.

5. Osasun Administrazioak, eskudunak diren beste administrazio batzuekin batera lan egingez, sustatuko du Nafarroako osasun sisteman ezbeharrak erregistratzeko sistemak abian jar daitezzen, lege indardunetan ezarritakoari jarraituz.

## **II. TITULUA**

### **AHULTASUN HANDIENeko KOLEKTIBOEN ESKUBIDEAK**

**19. artikulua. Kolektibo espezifikoak.**

1. Osasun laguntza gizatasunez ematearen printzipioarekin bat, profesionalak eta osasun-zentroek ahalegindu beharko dute haien erabiltzaileei laguntza pertsonalizatua eta horien inguruabar pertsonalen arabera ematen, foru lege honetako eskubideak errespetatu eta betetzearen lagungarri, erabiltzaile horiek babes berezia merezi duten kolektiboetakoak direnean, hala nola adinekoak, desgaitasuna dutenak, nahasmendu mentalak dauzkatena, bereziki mendekotasun egoeran daudenean, adingabeak, gaixotasun kronikoak dituztenak, gaixotasun arraroak dituztenak, gaixo terminalak, tratu txarren biktimak, droga-mendekotasuna dutenak, etorkinak, bazterketa soziala jasateko arriskuan daudenak, gutxiengo etnikoak kasu, eta, oro har, bazterketa soziala pairatzeko arriskuan dauden talde zehatzak.

2. Osasun Administrazioak kolektibo berezi horiei eta mendekotasuna daukaten gainerako pertsonen zuzendutako osasun planak edo programak sustatuko ditu, eta behar den kasuetan bideratuko du egoki koordinatzea gizarte gaietako, etxebizitza eta kirol gaitan eskudunak diren Departamentuekin.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

Era berean, oinarrizko osasun laguntzaren esparruan, ahaleginak eginen dira dauden osasun baliabideak eta baliabide sozialak funtzionalki integratzeko, eta osasun arloko profesionalen eta gizarte zerbitzuetako profesionalen diziiplina arteko lana bideratuko da.

### **20. artikulua. Adingabeak.**

1. Osasun Administrazioak bereziki zainduko ditu adingabeen osasunarekin loturiko eskubideak, Nafarroako Foru Komunitateko Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoarekin bat.

2. Adingabeek, foru lege honetan orokorrean adierazitakoez gainera, hurrengo eskubideak izanen dituzte:

a) Arrisku soziosanitarioa duten herritar taldeetako adingabeei lehentasuneko arreta emanen zaie, dauzkaten premien arabera. Osasun-zentroetako titularrek eta osasun langileek, ikusten badute badela egoeraren bat adingabeen babesgabetasuna eragiten duena edo haientzat arriskua dakarrena, horren berri eman beharko diete adingabeak babestearen arloko erakundeei, eta egoera horiek prebenitzen eta konponbidea ematen lagundu beharko dute.

b) Osasun-zentroetan, arreta berezia ziurtatuko zaie adingabeei. Zentro horien titularrek behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak sustatuko dituzte, bai eta adin pediatrikorako egokiak diren eta hari egokitutako eremuak ere.

c) Adingabe bat ospitaleratu behar denean, bidea emanen da haurrei egokitutako eremuak egon daitezen, kontuan hartuta haurrek jokorako duten eskubidea; eremu horietan, eskolako eta familiako bizimoduarekiko hausturarik ez gertatzeko modua eginen da.

d) Adingabe orok eskubidea izanen du ospitalean dagoen bitartean eskolako prestakuntza eman dakion, bereziki gaixotasun luzeren bat baldin badu, betiere jarduera horrek bere ongizateari kalte egiten ez badio, haren autonomia errespetatzen badu edo behar dituen proba eta tratamenduak oztopatzen ez baditu.

3. Berariaz, jaioberriek eskubidea izanen dute errespetuz eta duintasunez tratatuak izateko jaiotzen direnetik, bai eta jaio eta berehala identifikatuak izateko eskubidea ere. Halaber, eskubidea izanen dute jaioberrientzat egokitzat jotzen diren atzimate-probak egin dakizkien, eta, kasua bada, estimulazio goiztiarreko neurriak aplikatu dakizkien, behar izanez gero.

### **21. artikulua. Gaixo mentalen eskubideak.**

Gaixotasun mentalen bat duten pertsonak honako eskubideak izanen dituzte:

1. Borondatezko ospitaleratzetan, baldin eta gaixoak senda-agiri boluntarioa eskatzen badu edo tratamendua jasotzeko uko egiten badio, gaixoaren ardura duen sendagileak baloratu eginen du gaixoak bere kabuz erabakitzeko duen ahalmena. Sendagilearen iritziz gaixoak erabakitzeko gaitasunik ez badu, berrespen judiziala eskatu beharko du ospitaleratzeak jarraitu dezan, Prozedura Zibileko Legearen 763. artikuluan ezarritako moduan.

2. Ospitaleratzeak eta borondatearen kontrako tratamenduak, betiere, aplikatzekoa den legedian xedaturiko bermeak hertsiki betez eginen dira.



3. Adingabeak izan eta gaixotasun mentalak dituzten adingabeek eskubidea dute haurrentzako eta gazteentzako osasun mentaleko zentro edo unitateetan sar ditzaten.

**22. artikulua. Gaixo mentalentzako laguntza ziurtatuko direnak.**

1. Beren borondatearen kontrako ospitaleratzea edo tratamendua jasan duten pertsonen unean uneko informazioa eman beharko zaie, hitzez eta idatziz, beren eskubideei buruz eta abia ditzaketen errekurtso edo ekintzei buruz.
2. Informazioa eman beharko zaie, halaber, aldian-aldian eta modu egokian, erabaki hori hartzeko izan diren arrazoiei buruz eta ospitaleratzea edo tratamendua luzatzeko nahiz etetea aplikatutako irizpideei buruz.
3. Interesdunaren ordezkariak, kasua bada, informazio horiek ere jaso beharko ditu.
4. Osasun mentaleko laguntzako etika batzordea sortzea sustatuko da; batzorde horrek laguntza emanen du gaixoen, familiartekoen eta profesionalen interesak errespetatzen dituzten laguntzako protokoloak definitzeko, bai eta gaixotasun metaleko prozesuekin lotutako egoerei egokitutako ekitate arauak ere.
5. Beren laguntzarako laguntza baliabide sozio-sanitarioak behar dituzten pertsonen kasuan, ziurtatuko zaie zerbitzu horietarako sarbidea izatea; zerbitzu horiek koordinatu beharko dira laguntza konplexua behar duten arazoek dagokien erantzuna jaso dezaten.

**23. artikulua. Beren borondatearen kontra ospitaleratutako gaixo mentalek komunikazioetarako eta bisitetarako duten eskubidea.**

Beren borondatearen kontra ospitaleratutako gaixo mentalek honako eskubideak izanen dituzte:

1. Beren abokatuarekin, ordezkariarekin nahiz bestelako agintari egokiarekin hitz egiteko eskubidea, inongo murriztapenik gabe.
2. Haiek izendatutako konfiantzako pertsonarekin edo beste pertsona batzuekin komunikatzeko eskubidea. Eskubide hori ezin izanen da arrazoizkoa ez den modu batean mugatu.
3. Bisitak jasotzeko eskubidea. Eskubide hori arrazoiz mugatzen ahalko da, hirugarren pertsonak babesteko beharra kontuan izanda.

**24. artikulua. Desgaitasuna duten pertsonak.**

Artikulu honek helburu du Nazio Batuen Erakundeak Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioan aitortutako eskubideak betetzea. Espainiak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen Konbentzioa, eta 2008ko maiatzaren 3az geroztik dago indarrean.

Halaber, aplikatzekoak dira desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko araudi orokorraren artikulua eta araudi hori garatzeko xedapenak.

Edozein motatako desgaitasuna duten pertsonen osasun laguntza egokia emateko eta horiek informaziorako duten eskubidea bideratzeko, administrazio publikoek behar diren jarduketak sustatuko dituzte hizkuntza- eta ulermen-oztopoak minimizatzen. Nolanahi ere, administrazio publikoek Espainiako zeinu hizkuntzak arautu eta gorren, entzuteko desgaitasuna dutenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

bitartekoak aitortzen dituen urriaren 23ko 27/2007 Legean ezarritako betebeharrak errespetatuko dituzte.

### **25. artikulua. Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak.**

Osasun Administrazioak ekintza eta neurri berariazkoak bultzatuko ditu gaixo kronikoentzat, laguntza-maila desberdinen artean behar den koordinazioa bilatzeko eta gaixotasun kronikoak dauzkaten pertsonak behar dituzten zainketei behar den jarraitutasuna emateko. Bereziki, eta osasun informazioko sistemen bitartez, gaixo horiek egin beharreko izapideak arintzea sustatuko duten prozesuak kudeatzeko mekanismoak indartuko dira.

### **26. artikulua. Prozesu terminaletan dauden gaixoak.**

Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu guztiek eta osasun arloko profesional guztiek ahal den guztian ziurtatu beharko dute pertsonaren duintasunarekiko errespetua hil aurreko prozesu terminaletan, bai eta gaixo horiek foru lege honetan aitorturiko eskubide guztiez baliatzen ahalko direla ere. Bereziki, honako eskubideez:

1. Proposaturiko interbentzioa errefusatzeko eskubidea, nahiz eta bizia arriskuan jarri.
2. Gaixoaren sufrimendua premiarik gabe luzatuko duten bizi-euskarriko tratamenduak errefusatzeko eskubidea.
3. Kasua bada, erabiltzaileak eginiko aurretiazko borondateak betetzeko eskubidea, 54.3 artikuluan ezarritako mugekin.
4. Minaren eta behar diren zainketa aringarrien tratamendu egokia jasotzeko eskubidea.
5. Bereziki onartuko da ospitaleratze prozesuetan familiartekoei eta hurbileko pertsonak lagunduta egoteko eskubidea, bai eta erlijio laguntzarako eskubidea ere.
6. Banakako gela batean egoteko eskubidea, gaixoaren intimitatea eta familiarena zaintze aldera.

### **27. artikulua. Transexualak.**

Transexualek osasun laguntzarako eskubidea izanen dute, Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legean finkaturiko moduan.

### **28. artikulua. Herritar atzerritarrek.**

Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzen dituzten eta haietaz baliatzen diren herritar atzerritarrek foru lege honetan jasotako eskubideak eta betebeharrak izanen dituzte. Osasun laguntza egokia lortzeko xedez eta eskubide horiek bete daitezzen, administrazio publikoek bultzatuko dute behar diren jarduerak egin daitezzen hizkuntzaren oztopoak ahal den guztian gutxitzeko.

### **III. TITULUA**

## **INTIMITATEAREKIN ETA KONFIDENTZIALTASUNAREKIN**

### **LOTURIKO ESKUBIDEAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Intimitatea**

#### **29. artikulua. Intimitaterako eskubidea.**

1. Pertsona orok eskubidea du laguntza jasotzeko bere intimitatea ziurtatuko duen ingurune batean; ingurune horretan bereziki errespetatuko da gorputzaren intimitatea diagnosi-azterketetan, kontsultetan eta tratamendu mediko nahiz kirurgikoetan, zainketetan, higiene jardueretan eta osasunaren arloko gainerako jardueretan.
2. Pertsona orok eskubidea du indarreko arauetan ezarritako moduan mugatzeko irudien grabazioa eta hedapena, argazkien bidez, bideoen bidez nahiz gaixoa identifikatzeko bidea ematen duten bestelako bitartekoen bidez.
3. Ikerketa biomedikoko edozein jardueratan nahiz irakaskuntza proiektuetan pertsonen intimitaterako eskubidea ziurtatuko da, arau indardunetan ezarritako moduan.
4. Jarduketa horietan zuzeneko arduradunak ez diren beste profesional batzuk ere parte hartzen badute, ikasleak edo ikerlariak kasu, gaixoari ahal den neurrian prestakuntza-eta ikerketa-premia horiei buruzko informazioa emanen zaio.

#### **30. artikulua. Banakako gelak.**

Nafarroako osasun sistema publikoko ospitaleetan edo harekin itundutakoetan ziurtatuko da banakako gelak egotea gaixoaren inguruabar bereziak direla-eta behar direnerako, arauz ezartzen denari jarraituz. Eskubide horretaz baliatzeak ez dio inongo kalterik ekarriko sistemako beste erabiltzaile batzuen osasun laguntzarako eskubideari. Nafarroako osasun sistema publikoaren politika izanen da eskubide hori pixkanaka zabaltzen joatea harik eta eskatzen duten gaixo guztiei ziurtatu ahal izateraino, osasun sistemaren etorkizuneko aukeren arabera.

#### **II. KAPITULUA**

##### **Konfidentziasuna**

#### **31. artikulua. Informazioaren konfidentziasunerako eskubidea.**

1. Pertsona orok du eskubidea bere osasunari buruzko datuekin eta osasun-zentro publiko edo pribatuetan izandako egonaldiekin zerikusia duen informazio guztia isilpekoa izan dadin. Era berean, eskubidea du bere baimenik ez duen inork horiek ezin izan ditzan eskuratu, indarreko legediak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusirikoari jarraituz, interes orokorrari dagozkion arrazoien ondorioz horretarako baimena ematen duenean izan ezik; eskubidea du, halaber, jakiteko nor ikusi dituen bere osasunari buruzko datuak, zergatik ikusi dituen eta haiekin zer egin duen, salbu eta haien erabilera kodetua egiten bada.
2. Nafarroako Osasun Administrazioak eta osasun-zentroek 1. idatz-zatiak aipatzen dituen eskubideak ziurtatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu behar dituzte, eta, kasua bada, arauak eta protokoloak eginen dituzte, gaixoei buruzko datuak zilegi den

moduan eskuratzen direla bermatzeko. Kasu horretan, informazio horiek ematearen arrazoiak eta horretarako modua azaldu beharko zaizkie erabiltzaileei.

### **32. artikulua. Erregistro ikonografikoen grabazioa eta hedapena mugatzeko eskubidea.**

Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako erabiltzaileek, osasun laguntzen hartzaileak diren aldetik, eskubidea dute horietan guztietan muga dadin, estatuko arau indardunetan ezarritako moduan, haien irudien grabazioa eta hedapena, argazkien, bideoen nahiz gaixoaren identifikazioa bideratzen duten bestelako bideen bitartez. Jarduera horietarako, behin haien arrazoiak eta hedatze-esparrua argiki azalduta, aurretik ukitutako pertsonaren edo dagokionaren berariazko baimena beharko da.

### **33. artikulua. Datu orokorren konfidentzaltasuna.**

1. Konfidentzaltasunerako eskubidea ondare genetikoari buruzko informazioari ere badagokio. Nafarroako Foru Komunitateko osasunaren arloko agintariek begiratuko dute inor ez dadila baztertua izan bere ezaugarri genetikoaren ondorioz.
2. Osasun- eta ikerketa-zentroek ziurtatuko dute pertsonen intimitatea eta analisi genetikoaren emaitzen trataera konfidentziala babesten direla. Eragin horietarako eta dagozkien eskumenen barruan, zainduko dute datu genetikoaren erregistroek behar diren mekanismoak edukitzea antolamendu juridikoan aitorturiko eskubideak eraginkorrak izan direla ziurtatzeko.
3. Beren eginkizunetan dihardutela, analisi genetikoak egitearen ondoriozko datuak eskuratzeko modua duten pertsonak datuok isilpean gordetzeko betebeharra izan dute.
4. Lortutako informazioa, irizpide mediko arduratsu bati jarraikiz, beharrezkoa bada gaixo baten edo haren familiarterako biologikoen osasunean kalte larri bat saihesteko, informazioa emanen zaio gaixoari berari eta harekin familia- edo egitate-lotura duen pertsona bati, dagokion Etika Batzordeari kontsulta egin ondoren. Komunikazioa soilik xede horietarako beharrezkoak diren datuetara mugatuko da.

### **34. artikulua. Bereziki babestutako beste datu batzuen konfidentzaltasuna.**

Osasun-zentroek, -zerbitzuek eta -establezimenduek zainduko dute konfidentzaltasuna gorde eginen dela ideologiari, erlijioari, sinesmenei, arraza-jatorriari, sexu-bizitzari, tratu txarrak pairatu izateari edo pertsonen nahiz familiarterkoen intimitatea gordetzeko garrantzi berezia izan dezaketenean datu edo informazioei dagokienez.

### **35. artikulua. Konfidentzaltasunerako eskubidearen salbuespenak.**

Kapitulu honetan jasotako konfidentzaltasunari buruzko eskubideak honako muga hau izanen du: gertatukoaren jakinarazpena edo salaketa egiteko legezko betebeharra, legedian aurreikusitako kasuetan; bereziki, gertatutako horiek baldin badira haurrei, adineko pertsonari, emakumei, gaixotasun mentalak dituzten pertsonari eta ezgaitasun fisiko, psikiko nahiz sensoriala duten pertsonari eginiko abusu, tratu txar eta isekak. Ez da ulertuko konfidentzaltasunari buruzko eskubidea urratu dela gaixo batek kontzienteki edo bere borondatez zeinuen hizkuntzako interpretearen edo familiarterko baten edo konfiantzako pertsona baten presentzia baimentzen duenean.

**36. artikulua. Babes eta berme araubidea.**

1. Titulu honetan jasotako datu pertsonalak edo osasunaren arlokoak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, osasunaren arloko Estatuko oinarrizko legeetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako berme- eta babes-araubidearen menpe egonen dira.
2. Beren eginkizunengatik informazio konfidentziala eskuratzeko bidea duten pertsona guztiek sekretu profesionala gorde beharko dute, estatuko arau indardunetan ezarritako moduan, eta eskuratzen duten informazioaren erreserba eta konfidentziasuna zaindu beharko dute, baita lanbide-bizitza amaitzen dutenean ere.
3. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek behar diren neurri teknikoak eta antolamenduzkoak jarri beharko dituzte intimitaterako eta konfidentziasunerako eskubideak ziurtatzeko, eta Osasun Administrazioak horiek egoki betetzen direla zaindu beharko du.

**IV. TITULUA**  
**INFORMAZIOAREN ETA PARTE-HARTZEAREN**  
**ARLOKO ESKUBIDEAK**

**I. KAPITULUA**  
**Informazio orokorra**

**37. artikulua. Osasun-programa eta -planei buruzko informazioa.**

1. Osasun Administrazioak sustatuko du herritarren artean egoki zabaltzen direla egokitzat jotzen diren bide eta tresnen bitartez erabakitzen diren osasun-plan edo -programak eta plan edo programa sozio-sanitarioak, halako moduan non ziurtatuko baita, kasuko eskumenen esparruan, osasun-ekintza horien hartzaileek informazio hori jasotzen dutela.
2. Osasun Administrazioari dagokio osasunaren arloko informazioari eta hezkuntzari buruzko lan eraginkorra egitea.
3. Programei buruzko informazioa egiazkoa, nahikoa eta egokia izanen da hartzaile izanen dituen herritarren edo herritar-taldearen prestakuntzarako eta asimilazio-gaitasunerako.

**38. artikulua. Nafarroako osasun sistemari buruzko informazioa.**

1. Pertsona guztiek eskubidea dute osasunaren esparruan dauzkaten eskubide eta betebeharrak guztiei buruzko informazio orokorra jasotzeko, apirilaren 25eko 14/1986 Osasunari buruzko Foru Legeko 9. artikuluari eta foru lege honi jarraituz.
2. Berariaz, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaileek hari buruzko informazioa jasoko dute, eta, bereziki, Nafarroako osasun sistema publikoaren prestazioen katalogoari eta eskaintzen diren zerbitzuen zorroari buruzkoa.
3. Halaber, eskubidea dute eskuera dauden osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduei, haien kalitate-adierazleei eta haietara sarbidea izateko baldintzei buruzko informazio zehaztua jasotzeko. Bereziki, ziurtatu beharko da erabiltzaileek aurretiko informazioa edukitzeko eskubidea izatea, fakultatiboa eta osasun zentroa hautatzeko eskubideaz baliatzeko aukera izateko, foru lege honetako 12. artikuluan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoari jarraituz.

4. Artikulu honetan jasotako informaziorako eskubidez baliatu ahal izatea ziurtatzeko, Osasun Administrazioak, besteak beste, honako ekintzak sustatuko ditu:

- a) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak bultzatzea eta zabaltzea.
- b) Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistemari buruzko eta erabiltzaileek eskura ditzaketen osasun prestazioei buruzko informazio orokorra bultzatzea.
- c) Begiratzea osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu guztiek erabiltzaileentzako informazio gida bat daukatela, eta hartan, gutxienez ere foru lege honetan erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak buruz ezarritakoa jasotzen dela, bai eta eskueran dauden prestazioak, zentro edo zerbitzuaren laguntzaren ezaugarriak, langile-kopurua, instalazioak eta baliabide teknikoak ere. Halaber, parte hartzeko bideei eta iradokizun eta erreklamazioak aurkezteko moduari buruzko informazioa emanen da, titulu honetako III. kapituluaren ezarritakoari jarraituz.
- d) Halaber, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen laguntzaren kalitatearekin lotutako alderdiei buruzko informazioa eskuratzeko bidea sustatzea.

### **39. artikulua. Laguntza-zentroen kalitate maila ezagutzeko eskubidea.**

Pertsona guztiek eskubidea dute ezagutzeko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu bakoitzak kalitatea ziurtatzeko aplikatzen dituen mekanismoak, bai eta kalitate hori egiaztatzen duten erakunde eta antolamenduak ere. Halaber, gaixoak eskubidea dauka osasun-laguntzaren emaitzak ezagutzeko, behar diren adierazleen bitartez ebaluatuarak.

### **40. artikulua. Itxaron zerrendei buruzko informazioa.**

1. Osasun Administrazioak hileroko egiazko informazioa emanen du, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez eta herritarrek eskueran dituzten bestelako komunikazio ofizialeko bide batzuen bitartez, kirurgia-prozeduretarako, kanpoko kontsultetarako eta proba diagnostikoetarako Nafarroako osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzu guztietan dauden gaixo-kopuruari buruz eta itxaron zerrendei buruz.
2. Osasun Administrazioak banakako informazioa emanen du, gaixoak edo erabiltzaileak eskatuta, osasun laguntza jasotzeko itxaron zerrendei buruz, bai eta berme-sistemei buruz ere, arau bidez finkaturiko gehieneko itxaronaldiak gainditzen baldin badira.
3. Nafarroako Gobernuak webguneak eta informazio hau transmititzeko hedabide ofizialeko azaroaren 12ko 1494/2007 Errege Dekretuan jasotako irisgarritasun baldintzei buruzko baldintzak bete beharko dituzte; izan ere, errege dekretu horren bidez, ezgaitasunen bat duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta hedabideekin lotutako teknologietarako, produktu etarako eta zerbitzu etarako sarbidea izatearen gaineko erregelamendua onetsi zen.

### **41. artikulua. Herritarrari informazioa eta laguntza emateko zerbitzuak.**

1. Osasunaren arloko informaziorako eskubide horiek ziurtatzeko sistema integral eta koordinatu bat faboratzeko, Osasun Administrazioak, laguntza-maila guztietan, herritarrari informazioa eta laguntza emateko zerbitzuen jarduera eta lana indartuko ditu, osasun sistema publikoari buruzko informazioa eskuratzeko eta erabiltzaileen parte-

hartzeta eta iritzia bideratzeaz arduratzen diren oinarrizko unitateak baitira horiek, hain zuzen ere aurkezten diren iradokizun, erreklamazio, kexa eta esker onei dagokienez, foru lege honetako 47. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Nafarroako osasun sistema publikoko osasun zentro guztiak herritarrari informazioa eta laguntza emateko unitate edo zerbitzu bat edukiko dute; hori, halere, ez da eragozpen izanen laguntzazkoak ez diren bestelako osasun egitura batzuk ere egoteko.

## **II. KAPITULUA**

### **Laguntzari buruzko informazioa**

#### **42. artikulua. Laguntzari buruzko informazioa izateko eskubidea.**

1. Pertsona guztiak dute eskubidea beren prozesuari eta jasotako osasun laguntzari buruz eskueran dagoen informazio gutzia jasotzeko.

2. Informazioak laguntza-jarduera guztien parte izan beharko du, eta bidea emanen du ulertzeko esku-hartze bakoitzaren xedea eta izaera, bai eta haien arrisku eta ondorioak ere.

3. Informaziorik ez jasotzeko gaixoak duen borondatea errespetatu egin beharko da. Uko egiteko idazkia historia klinikoari gehituko zaio, eta gaixoak edozein unetan ezeztatzen ahalko du. Informaziorik ez jasotzeko eskubidea murrizten ahalko da gaixoaren, hirugarrenen edo kolektibitatearen osasunaren intereserako edo kasuaren betekizun terapeutikoetarako beharrezkoa denean. Inguruabar hori, betiere, historia klinikoan jaso beharko da.

4. Informazioa, oro har, ahoz emanen zaio gaixoari, eta historia klinikoan hori idatziz jasoko da. Informazio hori modu ulergarrian eman beharko da, egoera bakoitzari egokiturik, modu jarraituan eta laguntza-jarduera jaso baino lehen, behar den aurretiaz, halako moduz non pertsonak askatasunez eta behar dena jakinez hautatu ahal izan dezan.

5. Gaixoaren ardura daukan osasun arloko profesionalari dagokio informaziorako eskubidea bete dadin ziurtatzeko.

#### **43. artikulua. Laguntzari buruzko informazioa izateko eskubidearen titularra.**

1. Laguntzari buruzko informazioa izateko eskubidearen titularra gaixoa da. Gaixoarekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonen informazioa emanen zaie, gaixoak hori espresuki edo isilbidez baimentzen duen neurrian.

2. Informaziorako eskubidearen titullarrak izanen dira, halaber, adingabearen guraso edo tutoreak, adingabe horrek hamasei urte baino gutxiago baldin baditu eta baimen informatua haren izenean eman behar badute; hori, halere, ez da eragozpen izanen adingabeak eskubidea izan dezan bere osasunari buruzko informazioa jasotzeko, daukan adinaren, heldutasunaren eta egoera psikologikoaren arabera egokitutako hizkera batean.

3. Sendagile arduradunaren irizpidearen arabera, gaixoak informazioa ulertzeko edo bere egoeraren jakinaren gainean egoteko gaitasunik ez duenean, daukan egoera fisiko edo psikikoaren ondorioz, harekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonen informazioa emanen zaie informazioa, ezertan ere kendu gabe gaixoari informazioa emateko betebeharra, haren ulermen-mailak horretarako bidea ematen duen neurrian.

4. Desgaitasuna duten pazienteen kasuan, beren gaitasuna egikartzeko laguntza behar badute, informazio-eskubidearen titular izanen dira pertsonak beraiek, hura ulertzea

ahalbidetzen duen hizkuntza egokian, edo, hala badagokio, ezarrita dauden laguntza-neurrietan aurreikusitako pertsonak.

#### **44. artikulua. Laguntzari buruzko informazioa izateko eskubidea ziurtatzeko bideak.**

1. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu guztietan gaixoari, prozesu bakoitzean, prozesu bakoitzerako osasun arloko profesional bat esleitu beharko zaio, eta hura izanen da laguntza-taldearekiko informazioaren eta mintzakidetasunaren arduraduna; hori, halere, ez da eragozpen izanen gaixoari laguntza ematen dioten langile guztiek informazioa emateko betebeharra izateko.
2. Osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimendu bakoitzeko zuzendaritzak behar diren mekanismoak edukitzeko betebeharra dauka, informaziorako eskubide hori beteko dela ziurtatzeko.

### **III. KAPITULUA**

#### **Parte hartzea**

#### **45. artikulua. Parte hartzeko eskubidea.**

Osasun Administrazioak sustatu eta ziurtatu beharko du herritarrek parte hartzeko duten eskubidea, bai eskubide kolektibo edo soziala, bai banakakoa, Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema publikoaren esparruan.

#### **46. artikulua. Gizartearen parte hartzea.**

1. Aitortzen da herritarrek, erakundeen, korporazioen eta antolamendu sozialen bitartez, eskubidea dutela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueretan parte hartzeko, betiere arauz ezarritako bideak erabiliz horretarako. Horretarako, Osasun Administrazioak bultzatu eta zainduko du osasunaren arloan parte hartzeko organoek zuzen funtzionatzen eta jarduten dutela. Honakoak dira organo horiek: Osasun Kontseilua, zeina organo aholku-emaile goren eta erkidegoaren osasun publikoan herritarrek parte hartzeko organoa baita, eta osasun barrutiko osasun kontseiluak, zeinak Nafarroako Foru Komunitatearen osasun mapa antolatuta dagoen osasun barrutietan parte hartzeko organoak baitira.
2. Gaixoen elkarteen parte-hartze aktiboa sustatuko da; bereziki, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat onuragarriak diren jardueretan.

#### **47. artikulua. Erreklamazioak eta iradokizunak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko osasun sare publikoaren zentroak eta zerbitzuak eta sistema publikoarekin itundutako zentroak erabiltzen dituzten herritarrek eskubidea dute egokitzat jotzen dituzten iradokizun, kexa eta erreklamazioak egiteko jaso duten arretari buruz.
2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu ziurtatze aldera erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko prozedurak erabiltzeko eskubidea eta kexa edo erreklamazioa aurkeztu eta 20 egun naturaleko epean erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea. Zentroak erreklamazio-egileari idatzizko komunikazio bat igorriko dio, arau indardunetan ezarritakoari jarraituz.



3. Foru lege honen menpean dauden osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko orriak edukiko dituzte, bai eta jendearen informazio-eskariei, erreklamazioei eta iradokizunei erantzuteko bitartekoak ere, arau bidez ezartzen diren baldintzetan.

4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esparruko osasun laguntzarako zerbitzuen funtzionamenduari buruz aurkezten diren kexak eta iradokizunak aurkezterakoan, ez da nahitaezkoa izaneren erabiltzailea identifikatzea.

## **V. TITULUA**

### **BORONDATEAREN AUTONOMIARI BURUZKO ESKUBIDEAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Hautatzeko eta baimen informatua emateko eskubidea**

###### **48. artikulua. Gaixoaren erabakitze askatasuna.**

1. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu guztiek errespetatu beharko dituzte gaixoei, beren egoera baloratu ahal izateko informazio egokia jaso ondoren, beren osasunari buruz hartutako erabakiak.

2. Gaixoaren borondatearen autonomiak honakoak hartzen ditu: gaixoak osasun arloko profesional arduradunak eskaintzen dizkion aukeren artean hautatzeko askatasuna; diagnosirako, pronostikorako edo terapiarako prozedura bat aplikatu dakion ezezkoa emateko askatasuna; eta, halaber, bere osasunari buruz lehendik hartua duen erabakia ezeztatze askatasuna.

3. Beren osasunari buruz adingabe ez-emantzipatuek hartzen dituzten erabakiak, betiere, beren osasunaren gaineko jardueren norainokoa ulertzeko duten ahalmenaren arabera izan dira, hau da, beren gaitasun mentalak eta emozionalak ematen diren ahalmenaren arabera, eta lege indardunetan aurreikusitako mugekin errespetatu beharko dira.

###### **49. artikulua. Baimen informatua.**

1. Pertsona bati osasunaren esparruko edozein interbentzio egin behar zaionean, haren baimen berariazkoa eta librea beharko da, baina, aldezturik, horri buruzko argibideak eman beharko zaizkio. Baimen horrek idatzizkoa beharko du izan ebakuntzen eta prozedura diagnostiko inbaditzaileen kasuan, eta, oro har, gaixoaren osasunean eragina izan dezaketen arrisku edo arazo agerikoak eta aurreikusteko modukoak ekar ditzaketen prozedurak egin behar direnean. Baimena libreki ezeztatzen ahalko da edozein unetan, eta ezeztatze hori idatziz jaso beharko da historia klinikoan.

2. Baimen-agiriak gertakari kliniko bakoitzerako berariazkoa izan beharko du; hori, hala ere, ez da eragozpen izaneren orriak eta bestelako informazio-bitarteko orokorrak eransteko. Agiri horrek kasuan kasuko prozedurari eta horren arriskuei buruzko behar adinako informazioa agertu beharko du. Informazio hori historia klinikoan jasoko da.

3. Informazioa laguntza-ekintza guztietan eman beharko da, baita diagnostikoetan, pronostikoetan eta aukera terapeutikoetan ere. Egiazkoa izan da, eta modu ulergarrian eta gaixoaren beharrezan eta eskakizunen arabera eman beharko da, gaixoari erabakiak autonomiaz hartzen laguntzeko.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

4. Gaixoaren ardura daukan sendagileari dagokio informaziorako eskubidea bete dadin ziurtatzea. Gaixoari laguntzen dioten edo teknika nahiz prozedura zehatz bat aplikatzen dioten osasunaren arloko laguntza-profesionalek ere ardura hartu behar dute informazio-prozesuan.
5. Baimen informatua ematea gaixoaren eskubide bat da, eta hura lortzea, berriz, haren laguntzaz arduratzen den osasun profesionalaren betebeharra.
6. Gaixoak baimen informatua idatziz adierazten badu, eskubidea izanen du agiri horren kopia bat lortzeko.
7. Gaixoari argibideak aurretiaz emanen zaizkio, nahikoa denbora izan dezan gogoeta egin eta libreki erabakitzeko.
8. Informazioa, oro har, ahoz emanen da. Idatzizko baimena honako kasuotan emanen da: interbentzio kirurgikoen kasuan, diagnosi-prozedura eta prozedura terapeutiko inbaditzaileen kasuan, eta gaixoaren osasunarentzat arrisku edo eragozpen negatibo argi eta aurreikusteko modukoak inplikatzan dituzten prozeduren kasuan.
9. Gaixoari proposatzen zaion informazioak honakoa jaso beharko du, gutxienez ere:
  - a) Prozeduraren identifikazioa eta deskribapena.
  - b) Prozeduraren helburuak.
  - c) Lortu nahi diren onurak.
  - d) Proposatutako prozeduraz besteko aukerak.
  - e) Aurreikusitakoaren arabera, prozedurak izan ditzakeen ondorioak.
  - f) Aurreikusitakoaren arabera, prozedura ez gauzatzek izan ditzakeen ondorioak.
  - g) Maiz gertatzen diren arriskuak.
  - h) Gutxitan izaten diren arriskuak, larritasun berezikoak direnean eta prozedurari irizpide zientifikoen bidez lotuta daudenean.
  - i) Gaixoaren egoera klinikoaren eta haren inguruabar pertsonalen araberako arriskuak eta ondorioak.
  - j) Kontraesanak.

### **50. artikulua. Baimen informatua exijitzeko salbuespenak.**

1. Honako hauek baimena ematearen baldintza orokorraren salbuespen-kasuak dira, eta kalteturiko pertsonaren osasunaren alde nahitaezkoak diren ekintza klinikoak egitea ahalbidetzen dute:
  - a) Osasun publikorako arrisku larria dagoenean, osasun-arrazoiak direla-eta beharrezkoa denean, aplikatzekoa den legediari jarraituz.
  - b) Sendatu ezinezko lesioak edo heriotza eragiteko arriskua egoteagatik gaixoaren osotasun fisiko edo psikikorako arrisku larri eta berehalakoa izanik, gaixoaren edo harekin familia- edo egitate-lotura dutenen baimena lortzea ezinezkoa denean. Aurreko kasuetan, soilik ikuspuntu klinikotik ezinbestekoak diren interbentzioak gauzatzen ahalko dira gaixoaren osasunaren alde. Kasu honetan, behin larrialdiko egoera gairiditurik, gaixoari prozesuari buruzko informazioa eman beharko zaio; hori, halere, ez da eragozpen izanen bitartean harekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonen informazioa emateko.
  - c) Gaixoak espresuki adierazi baldin badu ez duela informaziorik jaso nahi, haren borondatea bete beharko da, nahiz eta, hori gorabehera, interbentziorako alde aurretiko baimena lortu beharko den; informazioari uko egitea agiri batean agerraraziko da.

Halere, ez jakiteko eskubidea murrizten ahalko da gaixoaren beraren osasunaren onerako denean, betebehar terapeutikoengatik edo hirugarrenen edo gizartearen interesarengatik.

### **51. artikulua. Baimena ordezkartiaz ematea.**

1. Baimen informatua ordezkartiaz emanen da honako kasu hauetan:

a) Pazientea, hura artatzeaz arduratzen den sendagilearen iritziz, erabakiak hartzeko gauza ez denean, edo haren egoera fisiko edo psikikoak egoeraz jabetzeko biderik ematen ez dionean. Pazienteak legezko ordezkariarik ez badu, pazientearekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonak emanen dute baimena, edo ezarritako laguntza-neurrietan aurreikusitakoak. Pazienteak aurretik pertsona bat izendatu badu bere izenean baimen informatua emateko, hari egokituko zaio erabakia hartzea.

b) Pazienteak laguntza behar duenean erabakia hartzeko. Kasu horretan, ezarritako laguntza-neurrien arabera eman beharko da baimena.

c) Hamasei urtetik beherako pazienteak gaitasun intelektualik eta emozionalik ez duenean interbentzioaren norainokoa ulertzeko. Kasu horretan, adingabearen legezko ordezkariak emanen du baimena, adingabearen iritzia entzun ondoren, horren heldutasun-mailaren arabera.

2. Adingabe emantzipatuak edo hamasei urte beteta dituzten adingabeak direnean, ez badute laguntzarik behar beren gaitasuna egikartzeko, baimena ezin izanen da ordezkartiaz eman. Hala eta guztiz ere, arrisku larriko jardueren kasuan, medikuaren irizpidearen arabera, gurasoei informazioa emanen zaie, eta haien iritzia kontuan hartuko da kasuan kasuko erabakia hartzeko.

3. Ordezkaritza bidez jarduten duenaren erabakia adingabearen edo gaitasuna egikartzeko laguntza behar duenaren osasunaren aurkakoa dela uste izanez gero, profesional arduradunak egitateak agintari eskudunari jakinarazi beharko dizkio, hala ezartzen baita legedi zibilean.

4. Haurdunaldiaren borondatezko etenduraren legezko kasuetan, entsegu klinikoetan, giza ugalketa lagunduko teknketan eta bizidunen arteko organoen dohaintza kasuetan, aplikatzekoak diren berariazko arauetan oro har ezarritakoari begiratuko zaio.

5. Ordezkaritza bidezko baimenen kasuetan, erabaki eta interbentzio medikoek proportzionatuak izan beharko dute, eta gaixoaren onura objektiboa lortzera bideratuko dira.

6. Gaixoak eta, kasua bada, harekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonak, ahal den guztian, erabakietan parte hartuko dute osasun prozesuan zehar. Hori guztia historia klinikoan islatuta geratuko da.

### **52. artikulua. Baimen informatuko agiriaren edukia.**

1. Baimenaren dokumentuak enuntziatu laburrak jasoko ditu eta hizkera ulergarrian idatziko da, gaixo gehienek kontzeptu medikoak ulertu ahal izateko.

2. Baimen informatuaren dokumentuak, 49.9 artikuluan aipatzen den informazioaz gainera, gutxienez ere honako datuak jaso beharko ditu:

a) Osasun-zentro, -zerbitzu edo establezimenduaren identifikazioa.

b) Prozeduraz arduratzen den osasun profesionalaren identifikazioa.

c) Gaixoaren identifikazioa, eta, kasua bada, legezko ordezkariarena edo gaixoarekin familia- edo egitate-lotura duen pertsonarena.

- d) Prozeduraren identifikazioa eta deskribapena, irizpide medikoen arabera muntakoak eta garrantzitsuak diren gai guztiak jasoz.
- e) Baimena ematen duen pertsonaren deklarazioa, non jasoko baita informazioa egoki ulertu duela, badakiela baimena edozein unetan ezeztatzea -ezeztatzeko arrazoia adierazi gabe ere- eta agiriaren kopia bat jaso duela.
- f) Tokia eta eguna.
- g) Prozeduraz arduratzen den osasun profesionalaren eta baimena ematen duen pertsonaren sinadura.

### **53. artikulua. Osasun-tratamendu bat jasotzeari ezezkoa ematea.**

1. Gaixoak tratamendu bat jasotzeari ezezkoa ematen dion kasuetan, prozedura hori aplikatzeaz arduratzen den profesionalak informazioa eman beharko dio dauden gainerako aukerei buruz eta, kasua bada, haiek eskainiko dizkio, irispidean badaude. Egoera hori egoki dokumentatu beharko da historia klinikoan. Agindutako tratamendua ez onartzeak ez du berekin ekarriko nahitaezko senda-agiria ematea, baldin eta aukerako tratamenduak badaude, nahiz eta tratamendu aringarriak izan, betiere osasun zentroak haiek ematen baditu eta gaixoak jaso nahi baldin baditu.
2. Irispidean aukerako tratamendurik ez badago edo dauden guztiak errefusatzen badira, gaixolari borondatezko senda-agiria sinatzeko proposatuko zaio. Sinatzen ez badu, zentroko zuzendaritzak, osasun profesional arduradunak proposatuta, gaixoaren nahitaezko senda-agiria agintzen ahalko du, lege indardunetan ezarritako moduan.

## **II. KAPITULUA** **Aurretiazko borondateak**

### **54. artikulua. Aurretiazko borondateak.**

1. Pertsona guztiek eskubidea dute etorkizunean haiengan eragina izan dezaketen osasun-jardueren gainean erabakitzeke, kasuko erabakia hartu behar duten unean horretarako ahalmenik izanen ez badute ere. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria sendagile arduradunari zuzendutako agiri bat da, non adindun pertsona batek edo foru lege honi jarraituz gaitasuna aitortzen zaion adingabeko batek bere aurretiazko nahiak adierazten baititu, balizko jarduketa medikoei buruz, zenbait baldintzaren ondorioz pertsonalki haiek adierazi ezin dituen egoeran kontuan hartu beharrekoak; adierazpen hori baimen informatuaren bitartez eginen da, eta sendagile arduradunak eta egoera horretan hari laguntza ematen dion talde medikoak kontuan hartu beharrekoa izanen da. Aurretiazko borondateetan oharrak jasotzen ahalko dira egoera kritiko, hil ala biziko eta sendaezinetan, neurri aringarrien bitartez sufrimendua saihestu dadin -bizi prozesua laburtu arren-, neurri-gabeko edo ohiz kanpoko teknologia eta tratamenduen bitartez bizia artifizialki luza ez dadin eta heriotza-prozesua gehiegikeriaz eta irrazionalki atzera ez dadin. Pertsonak berak, aurretiazko borondateen agirian, horretarako ordezkari bat izenda dezake, bere borondatea adierazterik ez duen kasurako. Pertsona hori solaskide baliodun eta beharrezko bakarra izanen da sendagile edo osasun-taldearentzat.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

Aurretiazko borondatearen adierazpenean, interesdunak agertzera eman ahal izanen du bere organo guztiak edo haietako batzuk helburu terapeutikoetarako, irakaskuntza helburuetarako edo ikerketa helburuetarako emateko erabakia. Halakoetan, ez da inongo baimenik eskatuko emandako organoak atera edo erabiltzeko.

2. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria osasun-zerbitzuek eta haren egilearekin nolabaiteko zerikusia daukaten pertsona guztiak errespetatu beharrekoa izanen da, testamentu bat bailitzan.

3. Aurretiazko borondateak zuzentzen zaizkien sendagileek edo talde medikoek ez dituzte kontuan hartuko ordenamendu juridikoaren edo praktika kliniko egokiaren edo eskura dagoen ebidentzia zientifiko onenaren kontrakoak diren jarraibideak, ez eta xedapen-egileak xedapenak adieraztean aurreikusitako egitatezko baldintzak zorrozki bat ez datozenean ere. Kasu horietan, gaixoaren historia klinikoan behar bezalako ohar arrazoitua idatziko da.

Osasun Administrazioak gaixoak agirian adierazitako borondatea betetzen dela ziurtatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu.

4. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria gaixoari laguntza ematen zaion osasun-zentroari entregatuko dio agiri-egileak, bere ahaideek edo bere ordezkariak. Agiri hori gaixoaren historia klinikoari erantsi beharko zaio.

### **55. artikulua. Aurretiazko borondateak formalizatzea eta erregistroa.**

1. Guztiz eraginkorra izateko, aurretiazko borondateen adierazpen-agiria aurreko artikuluan zehazturiko baldintzetan egin beharko da, eta honako prozedura hauetakoren bat jarraituz formalizatuko da:

a) Notarioaren aurrean. Kasu honetan, lekukorik egotea ez da beharrezkoa izanen.

b) Adindunak diren eta jarduteko gaitasun osoa daukaten hiru lekukoren aurrean. Horietatik bik, gutxienez ere, ezin izanen dute agiri-egilearekin bigarren mailarainoko ahaide-loturarik ez eta ondare-harremanik izan.

c) Aurretiazko Borondateen Erregistroaz arduratzen diren langileen aurrean, edo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun etxeetako profesionalen aurrean.

2. Aurretiazko borondateak aldatu, zabaldu eta zehatz daitezke, edo edozein unetan indarrik gabe utz daitezke, haiek egiletsi dituen pertsonaren borondate soilaz, betiere haren ahalmenari eusten badio eta hori berariaz eta zalantza-tarterik gabe jaso ondoren. Kasu horietan, ondoren emandako dokumentu baliiodunak aurrekoa ezeztatuko du, salbu eta berariaz erabakitzen denean aurrekoak indarrean irautea, osorik nahiz zati batean.

3. Nafarroako aurretiazko borondateen erregistro bat egonen da. Erregistro horretan, aurretiazko borondateen dokumentuak inskribatuko dira, bai eta haien aldaketak, ordezteak eta ezeztatzeak ere, alde batera utzita hori formalizatzeke zein prozedura erabiltzen den. Horren helburua izanen da, laguntza zentro guztiak, publikoak nahiz pribatuak, haien jakinaren gainean egotea. Formalizatzeke eta inskribatzeke prozedura erregelamenduz ezarri beharko da, eta bidea eman beharko du osasun arlo bakoitzetik hura bete ahal izateko.

### **III. KAPITULUA**

#### **Ikerketarekin eta esperimenezko zientifikoarekin lotutako eskubideak**

##### **56. artikulua. Informazioa eta baimena osasunaren arloko prozedura esperimentaletan edo ikerketa prozeduretan.**

1. Gaixoari aplika dakizkiokeen pronostikoko, diagnosiko eta terapiako prozedurak esperimentalak diren kasuetan, zientifikoki baliozkotzeko prozesuan dauden kasuetan edo irakaskuntza nahiz ikerketa proiektu batean erabil daitezkeen kasuetan, osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduek egoera horren berri eman beharko diote gaixoari. Prozedura horiek ezin izanen dute inoiz ere gaixoaren osasunerako arrisku gehigarrikerri ekarri, indarreko ezagutza zientifiko eta teknikoaren arabera.
2. Gaixoak informazio ulergarria jaso beharko du bilatzen diren helburuei buruz, onurei buruz, aurreikusitako enbarazu eta arriskuei buruz, balizko aukerei buruz eta prozedurek berekin dakartzaten eskubide eta ardurei buruz. Nolanahi ere, prozedura abiarazteko, gaixoak, alde aurretik, baimena eman beharko du eta osasun arloko profesionalak eta osasun-zentroko zuzendaritzak baiezkota eman beharko dute.
3. Gaixoak prozedura baimentzeko, baimen informatuari buruzko arauak izanen dira aplikatzekoak.

##### **57. artikulua. Ehun edo lagin biologikoei buruzko eskubideak.**

1. Foru lege honen menpeko osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduetan biopsia edo erazketa bat egiten den kasuetan, prozedura hori aplikatu zaizen pertsonen eskubidea izanen dute haietatik heldu diren ehunen edo lagin biologikoen prestakinez baliatzeko, bigarren profesional baten iritzia eskatzeko edo beste osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduren batean laguntzaren jarraipena ziurtatzeko.
2. Aplikatzekoak diren arauen esparruan, eta betiere interesdunak aurrez baimena emanda, foru lege honen menpeko osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek ehun edo lagin biologikoak gorde eta erabiltzen ahalko dituzte, biopsia edo erazketa egiteko arrazoiak izan zenaz beste xederen baterako, xede hori zilegi den bitartean.

### **VI. TITULUA**

#### **OSASUN DOKUMENTAZIOAREN ARLOKO ESKUBIDEAK**

### **I. KAPITULUA**

#### **Historia klinikoak**

##### **58. artikulua. Historia klinikoaren definizioa eta tratamendua.**

1. Historia klinikoak gaixo bakoitzaren laguntza-prozesuari buruzko dokumentu-multzoa biltzen du, eta prozesu horretan parte hartu duten sendagileak eta gainerako laguntza-profesionalak identifikatzen ditu. Gaixo bakoitzaren dokumentazio klinikoak neurrikerri handieneran bategina egoteko ahaleginak egin behar dira. Gutxienez ere, bategite hori zentro bakoitzaren esparruan egin beharko da; bertan, gaixo bakoitzerako historia kliniko bakarra egon beharko da.
2. Historia klinikoak euren segurtasuna, behar bezalako kontserbazioa eta informazio-berreskuratzea ziurtatzen duten instalazioetan gorde behar ditu osasun-zentroak.

3. Historia klinikoak paperezko, ikus-entzunezko eta informatikako euskarrien bidez egin daitezke, baldin eta haien edukia egiazkoa eta etorkizunean osoki eskuragarria izatea ziurtatzen bada. Edozein kasutan ziurtatu beharrekoa da aldaketa guztiak haietan jasotzen direla, eta haiek egin dituzten sendagileak eta osasun-profesionalak identifikatzen direla.

Historia klinikoak erraz irakurtzeko modukoak izanzen dira, eta ahal dela ikur eta laburduren erabilera saihestuko da; historiak, halaber, normalizaturik egonen dira egitura logikoaren aldetik, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraituz. Historia klinikoari gehitzen zaion informazio guztiak data eta sinadura eraman beharko du, hura nork egin duen argi ikus dadin.

4. Bildutako datu pertsonalak babesteko eta horiek istripuz suntsitu edo galdu edo baimenik gabe eskuratu, aldatu, komunikatu edo beste edonola prozesatzea saihesteko behar diren neurri tekniko eta antolaketakoak hartu behar dituzte osasun-zentroek.

### **59. artikulua. Historia klinikoaren edukia.**

1. Historia klinikoak identifikazio-zenbaki bat izan behar du, eta honako datu hauek jaso behar ditu:

a) Gaixoa eta laguntza identifikatzeko datuak:

-Gaixoaren izen-deiturak.

-Jaiotza-eguna.

-Sexua.

-Norbanakoaren osasun-txartelean jasotako identifikazio pertsonalerako kodea.

-Ohiko helbidea eta telefonoa.

-Laguntzaren eta, kasua bada, ospitaleratzearen eguna.

-Jatorria, baldin eta gaixoa beste laguntza-zentro batetik bidali baldin badute.

-Laguntza ematen den zerbitzu edo unitatea, kasua bada.

-Gela eta ohearen zenbakia, gaixoa ospitaleratuta badago.

-Gaixoaren ardura daukan sendagilea.

b) Datu klinikoak eta laguntzari buruzkoak:

-Aurrekari familiarrak eta pertsonalak, fisiologikoak nahiz patologikoak.

-Unean uneko eritasunaren edo osasun-arazoaren deskribapena eta hortik aurrerako kontsulten zioak.

-Erabilitako prozedura klinikoak eta horien emaitzak, prozedura edo azterketa espezializatuen kasuan emandako irizpenak eta sail arteko orriak.

-Bilakaera klinikoari buruzko orriak, gaixoa ingresatu baldin badute.

-Medikuntza-tratamenduari buruzko orriak.

-Baimen informatuari buruzko orria, kasua bada.

-Gaixoari diagnostikoaren berri emateko luzatu zaion informazio-orria eta agindu zaion plan terapeutikoa, kasua bada.

-Epikrisiari edo senda-agiria emateari buruzko txostenak, kasua bada.

-Borondatezko senda-agiria, kasua bada.

-Nekropsia-txostena, halakorik baldin badago.

-Ebakuntzarik egin bada, ebakuntza-orria eta anestesia-txostena erantsi behar dira, eta, erditze kasuan, erregistro-datuak.

-Larritasunari buruzko txostena.

-Ingresatzeko baimena.

-Anatomia patologikoaren txostena.

-Halakorik egonez gero, aurretiazko borondateen adierazpen-agiria, bai eta organo-emaile izateari buruzkoa ere.

-Erizaintzako zainketen bilakaera eta plangintza.

-Erizaintzako aplikazio terapeutikoa.

-Konstanteen grafikoa.

-Senda-agiriari buruzko txosten klinikoa.

c) Datu sozialak:

-Txosten soziala, kasua bada.

2. Sendagile edo osasun laguntzako talde batek baino gehiagok parte hartzen duteneko ospitale-historia klinikoetan, xehakaturik adierazi behar dira profesional bakoitzak eginiko ekintzak, esku-hartzeak eta preskripzioak.

3. Osasun-zentroek historia klinikoan eredu normalizatu bat izan behar dute. Eredu horrek artikulu honetan ezarritako edukiak islatu beharko ditu, zentro bakoitzaren osasun laguntzaren mailari eta ematen duen prestazio-motari egokituak.

## **60. artikulua. Historia klinikoaren erabilerak.**

1. Historia klinikoa nagusiki da gaixoari ematen zaion osasun-laguntza behar bezalakoia izanen dela ziurtatzen laguntzeko tresna bat. Horretarako, gaixoaren diagnostiko edo tratamenduarekin zerikusia daukaten zentroko osasun arloko profesionalak historia klinikoa eskuratzeko aukera izan behar dute.

2. Zentro bakoitzak jardunbide bat ezarri beharko du posible izan dadin gaixo jakin bati osasun laguntza ematen zaion bitartean hura zaintzen duten profesionalak uneoro eskuratu ahal izatea kasuan kasuko historia klinikoa.

3. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean eta horiekin bat datozen xedapenetan ezarritakoari jarraikiz, epidemiologia, ikerketa edo irakaskuntzako helburuetarako eskura daiteke historia klinikoa. Historia klinikoa aipaturiko xedez eskuratzeko gaixoaren identifikazio pertsonaleko datuak babestera behartzen du, izaera klinikoa eta osasun laguntzaren arlokoa dutenetatik bereiziz, hark aurretiaz baimena eman duenean izan ezik.

4. Osasun-zentroetako administrazio eta kudeaketa eginkizunegaz arduratzen diren langileek historia klinikoan aipaturiko eginkizunekin zerikusia daukaten datuak baizik ezin dituzte eskuratu.

5. Ikuskatze, ebaluatzeko, kreditatze nahiz plangintza arloko eginkizunak betetzen dituzten eta behar bezala kreditaturik dauden osasun-arloko langileek historia klinikoak eskura ditzakete, baldin eta osasun laguntzaren kalitatea, gaixoaren eskubideekiko errespetua edo zentroak gaixoekiko, erabiltzaileekiko edo osasun-administrazioarekiko duen beste edozein betebeharrak bete ote den egiaztatzeko eginkizunak betetzeko bada.

6. Dituzten eskumenen erabilera-esparruan historia klinikoko edozein datu eskuratzen duten langileek datu horiek isilpean edukitzeko betebeharra izanen dute.

7. Administrazioak begiraturiko du gaixoen datuen artxiboak behar bezala erabiltzen direla, eta horretarako datuez egiten den erabilera ororen gaineko segurtasun, kontrol eta erregistro neurriak aplikatuko ditu.



**61. artikulua. Agiri klinikoak gordetzea.**

1. Osasun zentroek gorde behar dituzte agiri klinikoak halako moduan non ziurtatuta egonen den agirion segurtasuna eta mantentze egokia, baina ez nahitaez jatorrizko euskarrian; agiri klinikoak gorde behar dira gaixoari behar bezalako laguntza emateko kasuan-kasuan beharrezkoa den bitartean, eta, gutxienez ere, laguntza-prozesu bakoitzeko senda-agiriaren egunetik bost urte igaro diren arte.

2. Edozein kasutan, historia klinikoan, gaixoa identifikatzeko datuekin batera, honako hauek gorde behar dira gaixoa hil denetik gutxienez ere bost urte igaro diren arte: baimen informatuaren orriak, senda-agiria emateari buruzko txostenak, txosten kirurgikoak, erditze-erregistroa, anesthesiari buruzko datuak, azterketa osagarriari buruzko txostenak eta nekropsia-txostenak.

3. Dokumentazio klinikoa, indarreko legeriarekin bat, ondorio judizialeterako ere gordeko dira. Orobat gordeko da epidemiologia, ikerkuntza edo Osasun Sistema Nazionalaren funtzionamendu- nahiz antolamendu-arrazoiak daudenean. Ukitutako pertsonen identifikazioa ahal den neurrian ekiditeko moduan erabiliko dira agiri horiek.

4. Osasun arloko profesionalak gaixoen laguntza-prozesuari buruzko dokumentazio kliniko ordenatu eta sekuentziala sortu eta gordetzen lagundu behar dute.

5. Gaixo ospitaleratuak dituzten zentroek nahiz osasun arloko zerbitzuen irizpideari jarraikiz beste edozein laguntza mota jasotzen duten behar beste gaixo artatzen dituztenek harrera eta dokumentazio klinikoko unitatearen bidez kudeatuko dute historia klinikoa, unitate horren ardura baita historia klinikoak artxibo bakar batean biltzea. Historia kliniko horien zaintza osasun zentroko zuzendaritzaren ardura izanen da.

6. Euren jarduera banaka garatzen duten osasun arloko profesionalak dira sortzen duten laguntza-agiriak kudeatu eta zaintzeko arduradunak.

Dokumentazio klinikoari aplikatzekoak dira datu pertsonalak dituzten fitxategiak gordetzeari buruzko legerian eta, oro har, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritako segurtasuneko neurri teknikoak.

**62. artikulua. Zaintza eta kudeaketa.**

1. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek beren gaixoen historia klinikoak - euskarria edozein dela ere- artxibatu eginen dituzte segurtasuna, kontserbazio zuzena eta informazioa berreskuratzeko bidea ziurtatzen duten instalazioetan. Gainera, behar diren neurri tekniko eta antolamenduzkoak hartuko dituzte jasotako datu pertsonalak babesteko eta haien suntsitzea edo ustekabeko galera saihesteko, bai eta baimendu gabeko sarrerak, alterazioak, komunikazioak edo bestelako tratamenduak saihesteko ere.

2. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek behar diren mekanismoak ezarriko dituzte historia klinikoaren edukiaren benetakotasuna eta hura etorkizunean berriz erabili ahal izatea ziurtatzeko. Nolanahi ere, ziurtatu beharrezkoa da aldaketa guztiak eta haiek egin dituzten osasunaren-profesionalen identifikazioa haietan jasotzen direla.

**63. artikulua. Historia klinikoak suntsitzea eta muntako datuak kontserbatzea.**

Erregelamendu bidez, historia klinikoak suntsitzeko prozedura ezarriko da, legez jasotako kasuetan, bai eta ikuspuntu zientifikotik beren garrantzia dela-eta muntakoak izan daitezkeen datuak kontserbatzeko prozedura bat ere.

**64. artikulua. Historia klinikoa eskuratzeko eskubideak.**

1. Gaixoak eskubidea izanen du 59. artikuluan deskribatutako historia klinikoaren gaineko dokumentazioa eskuratzeko, bai eta hartan jasotako datuen kopia bat jasotzeko ere. Administrazioari dagokio historia klinikoa eskuratzen dela ziurtatzeko prozedura arautzea.

2. Gaixoak historia klinikoa eskuratzeko daukan eskubidea ordezkaritza bitartez ere erabil daiteke, baldin eta ordezkaritza behar bezala frogatua badago.

3. Gaixoak ez du historia klinikoaren dokumentazioa eskuratzeko duen eskubidea ezin izanen du baliatu baldin eta gaixoaren interes terapeutikoarengatik hartan jasotako datuen konfidentzialtasunerako hirugarren pertsonak duten eskubidearen kaltetan bada, ez eta dokumentazioa taxutzen parte hartu duten profesionalen eskubidearen kaltetan ere, profesional horiek ohar subjektiboan gaineko zuhurtasuna balia baitezakete dokumentazioa eskuratzeko eskubidearen aurrean.

4. Foru lege honetan xedatuaren eraginetarako, ohar subjektibo gisa hartuko dira osasun arloko profesionalen uste edo balorazio pertsonalak, datu objektiboetan edo proba osagarrietan zuzenean oinarriturik ez daudenak eta, profesional horien iritziz, interesekoak izan daitezkeenak gaixoaren osasun laguntzarako. Ohar subjektibotzat joko dira soilik hurrengo ataletako batean sar daitezkeenak:

-Demostratu gabeko hipotesi diagnostikoei buruzko balorazioak.

-Ez-betetze terapeutikoei buruzko susmoak.

-Aitortu gabeko tratamenduei buruzko susmoak.

-Aitortu gabeko ohiturei buruzko susmoak.

-Tratu txarren biktima izateari buruzko susmoak.

-Jokabide harrigarriak.

Osasun arloko profesionalak ez dute jasoko gaixoaren osasun laguntzarekin zerikusirik ez duten adierazpen, iruzkin edo daturik, edo osasun-baliorik ez dutenak.

**65. artikulua. Historia klinikoaren edukiari dagozkion eskubideak.**

Gaixoak eskubidea dauka osasun zentroek historia klinikoaren zaintza aktibo eta arduratsurako jardunbide bat ezar dezaten. Zaintza horrek posible egin behar du foru lege honetako 31. artikulua ezarritakoari jarraituz konfidentzialtasunaren printzipioaren pean dagoen informazioa bildu, eskuratu, bat egin eta komunikatzea.

**66. artikulua. Historia klinikoa osatzea.**

1. Historia klinikoa osatzea, gaixoaren osasun-laguntzarekin loturiko alderdiei dagokienez, hartan esku hartzen duten osasun-profesionalen betebeharra da. Osasun profesional batek edo laguntza-talde batek baino gehiagok parte hartzen dutenean, banakatuta agertuko dira profesional bakoitzaren ekintzak, interbentzioak eta aginduak. Gehitutako informazio guztiek data eta sinadura izanen dute, halako moduz non argi eta garbi agertuko baita zein izan den informazioa gehitu duen pertsona.

2. Laguntza prozesuan esku hartzen duten profesionalen ohar subjektiboak, hirugarrenen intimitatean eragina duten datuak eta gaixoari premia terapeutiko frogatu baten ondorioz eman ez zaion informazioa argi identifikatuta egonen dira, historia klinikoan jasotako gainerako informaziotik bereizteko moduan, bi eratako informazio horiek, behar izanez gero, banandu ahal izateko.

**67. artikulua. Beste sarrera batzuk.**

1. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduaz kanpoko pertsona, ente edo entitateak historia klinikoan sartu ahal izateko, oro har, pertsona interesdunaren baimena beharko da, aurretik datu pertsonalak eta datu klinikoak eta laguntzazkoak bereizi ez badira, hain zuzen ere gaixoaren anonimatua ziurtatua egon dadin.

2. Aurreko idatz-zatitik salbuetsiko da historia klinikoan sartzea Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 11.2 eta 22. artikuluetan aurreikusitako kasuetan.

3. Gaixoa hiltzen bada, harekin familia- edo egitate-lotura duten pertsonak historia klinikoan sartzeko modua izanen dute, salbu eta hildakoak hori berariaz debekatu badu eta hala egiaztatuta badago. Kasu horietatik kanpo, hirugarren bat hildako gaixo baten historia klinikoan sartzeko, bere osasunerako arrisku bat existitu beharko da, osasun profesional batek behar bezala egiaztatutakoa. Bi kasu horietan, bidezkoak diren datuak emanen dira, baina informazioak ez du jasoko hildakoaren edo hirugarren pertsonen intimitatea uki dezakeen daturik, ez eta profesionalen ohar subjektiborik ere.

**II. KAPITULUA**  
**Bestelako dokumentazioa**

**68. artikulua. Senda-agiriari buruzko txostena.**

1. Gaixo guztiek eskubidea izanen dute beren laguntza-prozesuarekin lotutako txosten klinikoak lortzeko. Txosten horiek kasuko osasun profesionalak eginen ditu, eta alta emateko unean emanen dira.

2. Behin laguntza-prozesua amaiturik, gaixo orok edo harekin familia- edo egitate-lotura duen orok eskubidea izanen du osasun-zentrotik nahiz osasun-zerbitzutik senda-agiri bat jasotzeko, non gutxienez ere gaixoaren datuak, historia klinikoaren laburpen bat, emandako laguntza-jarduera, diagnosis eta gomendio terapeutikoak jasoko baitira. Senda-agiriaren ezaugarriak, betebeharrak eta baldintzak arauz ezartzen direnak izanen dira.

3. Halaber, pertsona orok eskubidea du baja-agiriak, baja berresteko agiriak, senda-agiriak eta ezgaitasuna nahiz bestelako eraginak baloratzeko gainerako txosten edo dokumentu klinikoak jasotzeko, indarreko legeei jarraituz.

**69. artikulua. Ziurtagiri medikoak ematea.**

1. Pertsona orok eskubidea du bere osasun-egoerari buruzko txostenak edo ziurtagiriak jasotzeko. Ziurtagiri horiek doakoak izanen dira, legezko nahiz erregelamenduzko xedapenen batean hala ezarrita dagoenean; nolana ere, Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistemaren esparruan, ziurtagiri horiek doakoak izanen dira Foru Administrazioarentzat direnean.

2. Pertsonak eskubidea dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboek ziurtagiri medikoak egin ditzaten Erregistro Zibilerako, jaiotzari, heriotzari eta gainerakoei buruz.

## **VII. TITULUA**

### **PERTSONEK OSASUNA DELA-ETA DAUZKATEN BETEBEHARRAK**

#### **70. artikulua. Norberaren osasunarekiko ardura.**

Foru lege honen esparruan, pertsona guztiek, antolamendu juridikoan ezarritakoaren arabera, honako betebeharrak izanen dituzte: beren osasunari buruzko erabakiak onartzea; dauden aukeren artean hautatutako diagnosi- edo terapia-bideei buruzko erabakiak idatziz jasotzea eta borondatezko senda-agiria sinatzea. Nafarroako Osasun Administrazioak herritarren sentsibilizatzea sustatuko du, beren osasunaren erantzukizuna beren gain hartzeari dagokionez hain zuzen.

#### **71. artikulua. Osasun-aginduak eta -neurriak errespetatzea.**

Nafarroako Osasun Administrazioak, batetik, zainduko du herritar guztientzat eman beharreko osasun agindu orokorrak eraginkorrak izan daitezela, eta, bestetik, sustatuko du pertsonak agindu horiek errespetatzeko betebeharra bete dezatela. Berdin jardunen du, eraginkortasuna zainduz eta errespetua sustatuz, beste neurri hauekin ere: arriskuen prebentziorako osasun neurriekin, osasunaren babeserako neurriekin edo osasun publikoa hobetzeko eraginkortasun aitortua duten neurriekin, nola baitira hartzen direnak besteak beste tabakoa, alkoholismoa, trafikoko istripuak edo txertoen zein bestelako prebentzio neurrien bidez prebenitzeko moduko gaixotasun kutsagarriak bezalako arazoen aurrean hartzen diren neurriak, edota bestelako prebentzio neurri batzuekin. Nafarroako Osasun Administrazioak zainduko du, halaber, eraginkorra izan dadila agindu eta neurri horien xedeak lortzeko lankidetzan jarduteko betebeharra, eta betebehar horren betetzea ere sustatuko du.

Txertoen bidez edo bestelako prebentzio neurrien bidez prebenitzeko modukoak diren gaixotasun kutsagarrien aurrean, haietan banakako erabakiak garrantzitsuak baitira prebentziorako, jokabide osasungarriak izatea sustatuko da, lehentasuna emanez haiek hartzen dituzten pertsonen interesei, osasunerako erabaki kaltegarriak hartzen dituzten pertsonen interesen aurrean, interesen talkarik izanez gero.

#### **72. artikulua. Osasun baliabideak eta prestazioak egoki erabiltzea, osasun premien arabera.**

1. Pertsona guztiek osasun instalazioak eta ekipamenduak zaintzeko betebeharra izanen dute; halaber, egoki eta arduraz erabiliko dituzte, haien kontserbazioa eta funtzionamendua ziurtatzeko, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu bakoitzean ezarritako arauei jarraituz.

2. Pertsona guztiek errespetatu beharko dituzte osasun-zentro eta -zerbitzuek bisitetarako ezarritako araubidea, bai eta haien jarduera arautzeko gainerako ordutegiak ere.

3. Pertsona guztien betebeharra eta ardura da osasun-baliabide eta -prestazioak egoki erabiltzea, beren osasun premiekin bat eta Nafarroako osasun sistemak baliabide eta prestazio horiek bideratzeko dituen aukeraren arabera.

4. Norbaiti ezinezkoa gertatzen bazaio aurretiaz programatutako osasun-hitzorduko edo -zerbitzuko batera joatea, osasun sistemari ahal bezain laster abisatzeko betebeharra du.

**73. artikulua. Pertsonetikiko errespetua.**

Pertsona guztiak gaixoen, haiek laguntzen daudenetik eta osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan zerbitzua ematen duten pertsonetikiko errespetua gordetzeko betebeharrak izan behar dira, kasu bakoitzeko zentroaren barruan nahiz kanpoan eta duintasun pertsonalari eta profesionalari dagokienez.

**74. artikulua. Leialtasuna eta egiazotasuna datuak ematerakoan.**

1. Pertsona guztiak betebeharrak osasun agintariekin lankidetzan aritzeko gaixotasunen prebentzioan, eta, bereziki, interes publikoko arrazoiak tarteko direnean.
2. Pertsona guztiak eman behar dituzte laguntza-prozesurako edo interes orokorreko arrazoiengatik beharrezkotzat jotzen diren datuak, beren egoera fisikoari edo beren osasunari buruzkoak. Datu horiek leialtasunez eta egiaz eman behar dituzte.

**VIII. TITULUA**  
**OSASUN-ZENTRO, -ZERBITZU ETA -ESTABLEZIMENDUETAKO**  
**ESKUBIDE PROFESIONALAK**

**75. artikulua. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako eskubide profesionalak.**

Langileen Estatutuan, funtzionarioen arauetan, lan arauetan eta osasunaren arloko lanbideak antolatze arauetan aitorturiko eskubideak ezertan ere kendu gabe, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako profesionalak honako eskubideak izan behar dituzte:

1. Beren eginkizunak betetzeari dagokionez, ohorea eta prestigio profesionala errespetatzeko eskubidea.
2. Segurtasunerako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea. Horretarako, Osasun Administrazioak osasun-langileen aurkako erasoen erregistro-sistema bat sortzea sutatuko du, eta haien prebenitzeko eta zuzentzeko behar diren jarduerak prozedurak landuko ditu.
3. Beren osasuna lanetik heldutako arriskuetatik babestuta edukitzeko eskubidea, lan arriskuen prebentzioari buruzko arauetan ezarritakoari jarraituz; bereziki, istripu biologikoen aurka babestuta egoteko eskubidea, behar diren diagnosi- edo terapia-jardueren bitartez.
4. Beren eginkizunetan ari direnean, autonomia zientifikoa eta teknikoak edukitzeko eskubidea, soilik legeak eta antolamendu juridiko eta deontologikoan jasotako balioek ezarritako mugekin.
5. Irain, mehatxu edo eraso egoeretan, osasun-laguntza emateari uko egiteko eskubidea, horrek arretarik eza ekartzen ez duen bitartean. Uko egite hori gauzatuko da erregelamenduz ezartzen den prozeduraren bitartez. Hori, nolahi ere, formalki jaso behar da, eta gaixoei uko egitearen arrazoiak eman behar dira; halaber, laguntzaren jarraitasuna bere gain hartuko duen osasun-zentro, -zerbitzu edo -profesionalaren berri emanen da.
6. Etengabeko prestakuntzarako eskubidea.
7. Kontzientzia eragozpena.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

Haurdunaldiaren borondatezko etenduran zuzenean inplikaturiko osasun arloko profesionalak eskubidea izanen dute kontzientzia eragozpenaz baliatzeko, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoan ezarritako moduan.

Emakumezkoek, eskubideen subjektu diren herritarrak baitira, aitortua dute, Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren osasun-prestazioa, betiere legez aurreikusitako baldintzetan.

Osasun-arloko agintariak bermatuko dute ematen dela zerbitzu hori zerbitzu-sare publikoan eta Nafarroaren osasun-eskualdearen barrenean, sare publikoko nahiz kontratatutako lan-talde mediko eta osasuneko bidez, osasun-prestazio hori bermatua egon dadin.

8. Egoera problematikoetan laguntza profesionala jasotzeko eskubidea.

9. Bere lanposturako arazoizkoak diren irisgarritasun neurri eta doikuntza guztiak edukitzeko.

### **IX. TITULUA**

## **OSASUN-ZENTRO, -ZERBITZU ETA -ESTABLEZIMENDUETAKO ESKUBIDE PROFESIOALEN BETEBEHARRAK**

### **76. artikulua. Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako eskubide profesionalen betebeharrak.**

Berariazko arauetan erregulatutako betebeharrak ezertan kendu gabe, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

1. Gaixoei eta erabiltzaileei osasun laguntza egokia ematea.
2. Gaixoei informazioa ematea beren osasunari buruzko edozein jarduerari buruz. Osasun laguntza ematen duten profesional guztiek, teknika edo prozedura zehatz bat aplikatzen den laguntza prozesuetan, beren jardueretatik berariaz heldu den informazioa emateko erantzukizuna ere izanen dute.
3. Gaixoak libreki eta boluntarioki hartutako erabakiak errespetatzea.
4. Informazioari eta dokumentazio klinikoari buruzko betebeharrak betetzea; besteak beste, gaixoen laguntza-prozesuari buruzko dokumentazio kliniko ordenatua, egiazkoa, gaurkotua, sekuentziala eta ulergarria sortzen eta mantentzen lan egitea edo laguntzea, dokumentazioa edozein euskarri materialetan dagoela ere.
5. Gordetzen duten dokumentazio klinikoak kudeatu eta zaintzea, lanean banaka jarduten dutenean.
6. Jarduera profesionaletik heldu den edo irispidean duten gaixo eta erabiltzaileei buruzko informazio eta dokumentazio kliniko guztia isilpean gordetzea.
7. Esku hartzen duteneko prozesu klinikoekin lotura duten protokolo, erregistro, txosten, estatistika eta gainerako dokumentazioa osatzea, horren barne direla ikerketa medikoa eta informazio epidemiologikoa.

## **X. TITULUA** **ZEHAPEN ARAUBIDEA**

### **77. artikulua. Zehapen araubidea.**

Foru lege honetan tipifikatutako arau-hauste administratiboren bat egiten dutenei titulu honetan ezarritakoaren arabeko zehapena ezarriko zaie. Hori, halere, ez da eragozpen izanen gerta daitezkeen zigor arloko erantzukizunetarako, erantzukizun zibiletarako edo beste mailaren bateko erantzukizunetarako.

### **78. artikulua. Zehapenak pilatzea.**

Subjektu berei ez zaie inolaz ere bi zehapen administratibo ezarriko egintza berberengatik, babestu nahi den interes publikoa berdina baldin bada, baina horri loturiko beste egintza edo arau-hausteengatik datozen erantzukizunak eskatu beharko dira.

### **79. artikulua. Arau-hausteen motak.**

Arau-hauste administratiboa dira hurrengo artikuluan tipifikatutako egiteak edo ez-egiteak, foru lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten zehaztasunekin, kasua bada.

### **80. artikulua. Arau-hausteak.**

1. Arau-hauste arinak honako hauek dira:

- a) Dokumentazio klinikora zabarkeria hutsez sartzea, hori zilegi izateko baldintzak bete gabe, betiere hartan bildutako informazioa bidegabeki erabili ez bada, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.
- b) Gaixoen edo erabiltzaileen osasun egoera egiaztatzen duten txostenak eta ziurtagiriak betetzeari buruzko arauak ez betetzea.
- c) Premia objektibo batekin bat ez datozen osasun-baliabide eta -prestazioak behar ez bezala, abusuz edo arduragabekeriaz erabiltzea.
- d) Osasun-instalazio edo -zerbitzuak suntsitzea, kaltetzea edo hondatzea, baldin eta osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduaren erabilera normalean eraginik ez badu.
- e) Pertsonak beren osasun-egoeraz arduratzeko duten betebeharra ez betetzea edo biztanleria osorako diren osasun izaerako agindu orokorrak ez betetzea, horretatik hirugarrenen osasunerako arriskuak edo kalteak erator daitezkeenean.
- f) Osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduaren funtzionamendu normala edo haren bizigarritasun baldintzak aldarazten edo kaltetzen duten ekintzak egitea.
- g) Foru lege hau betetzearen arloko irregulartasun soilak, osasunean eraginik zuzenekorik ez dutenak, zabarkeria arinez egindakoak. Ondorio horietarako, zabarkeria arintzat joko da zaintzaren betebeharra ez betetzea edo profesional bakoitzari osasun jarduerak exijitzekoak zaizkion kontrol edo arretak ez betetzea, betiere haien erantzukizun-mailaren arabera.

2. Arau-hauste larriak hauek dira:

- a) Dokumentazio klinikora sartzea hori zilegi egiten duten baldintzak faltsutuz edo haren gaineko bidegabeko erabilera eginez, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.
- b) Informazio eta dokumentazio klinikoa eskura dezaketen langileek ez betetzea informazioaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko betebeharra.

## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

- c) Gaixoaren autonomia errespetatzetik heldu diren eskubideak gutxitzeko edo murrizteko jarduerak egitea.
  - d) Osasun-instalazio edo -ekipamenduak suntsitzea, kaltetzea edo hondatzea, baldin eta osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimenduaren erabilera normalean eraginik ez badu.
  - e) Pertsonak beren osasun-egoeraz arduratzeko duten betebeharra ez betetzera edo biztanleria osorako diren osasun izaerako agindu orokorrak ez betetzea, horretatik hirugarrenen osasunerako egiazko kalteak eratorzen direnean.
  - f) Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako profesionalen, gaixoen edo gaixoen laguntzaileen aurkako erresistentzia, errespetu falta, mehatxuak, irainak, errepresaliak edo beste edozein motatako presioak.
  - g) Bi urteko epean bi arau-hauste arin edo gehiago egiteagatik zehapena jaso izana.
3. Arau-hauste oso larriak:
- a) Aurreko idatz-zatietan aurreikusitako jokabideak, foru lege honetako aginduak kontzienteki eta nahita ez betetzea suposatzen dutenean eta kalte larria eragiten dutenean.
  - b) Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetako profesionalen, gaixoen edo gaixoen laguntzaileen aurkako eraso fisikoa.
  - c) Hiru urteko epean bi arau-hauste larri edo gehiago egiteagatik zehapena jaso izana.

### **81. artikulua. Ezgaitasunaren ondoriozko aukeren berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasunaren arloko arau-hausteak eta zehapenak.**

Aukeren berdintasunaren, bazterketa ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren arloko arau-hauste administratiboren bat egiten dutenei zehapena ezarriko zaie, Ezgaitasunaren bat duten pertsonen aukera berdintasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteei eta zigorrei buruzko abenduaren 26ko 49/2007 Legean ezarritakoaren arabera. Hori, halere, ez da eragozpena izanen zigor arloko edo beste maila bateko gainerako erantzukizunetarako.

### **82. artikulua. Pertsona erantzuleak.**

- 1. Arau-haustearen erantzuleak izanen dira, haren egile gisa hartuta, foru lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako egiteak edo ez-egiteak gauzatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- 2. Zehapena ordaindu beharko dute, halaber, honako pertsonak:
  - a) Gurasoek edo tutoreek solidarioki ordainduko dituzte adingabeek eginiko arau-hausteetatik heldu diren zehapenak.
  - b) Pertsona juridikoen administratzaileek subsidiarioki ordainduko dituzte pertsona juridiko horiek eginiko arau-hausteak.

### **83. artikulua. Zehapenak.**

- 1. Foru lege honetan jasotako arau-hausteengatik zehapenak, kasua bada, isun bidez ezarriko dira; hori, halere, ez da eragozpen izanen artikulua honetako 4. idatz-zatian ezarritakoa aplikatzeko.
- 2. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteengatik honako zehapenak ezarriko dira:
  - A.-Arau-hauste arinengatik:
    - a) Maila txikienean: 600 euro bitarteko isuna.



## §2.2.- 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa

b) Maila ertainean: 601 euro eta 1.800 euro bitarteko isuna.

c) Maila handiengan: 1.801 euro eta 3.000 euro bitarteko isuna.

B.-Arau-hauste larriengatik.

a) Maila txikiengan: 3.001 euro eta 6.000 euro bitarteko isuna.

b) Maila ertainean: 6.001 euro eta 10.500 euro bitarteko isuna.

c) Maila handiengan: 10.501 euro eta 15.000 euro bitarteko isuna.

C.-Arau-hauste oso larriengatik.

a) Maila txikiengan: 15.001 euro eta 120.000 euro bitarteko isuna.

b) Maila ertainean: 120.001 euro eta 350.000 euro bitarteko isuna.

c) Maila handiengan: 350.001 euro eta 600.000 euro bitarteko isuna.

3. Oso larritzat kalifikatutako arau-hausteengatik, gainera, establezimendua aldi baterako itxeko zehapena ere ezartzen ahalko da, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu pribatuaren kasuan, eta lanbidean jarduteko urtebetetik bost urtera bitarteko inhabilitazioa ere ezartzen ahalko da.

4. 80. artikuluko ) eta 3 b) idatz-zatietan tipifikatutako arau-hausteengatik zehatutako pertsoneri honako zehapena ere ezartzen ahalko zaie: osasun zentroz aldatzea eta esleitzen zaion zentroari nahitaez atxikitzea, eta hiru urtez beste zentro bat hautatzeko debekua.

### **84. artikulua. Mailaketa.**

1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteetarako ezarri diren zehapenak maila txikiengan, ertainean eta handiengan mailakatuko dira, honako inguruabarrei erreparatuta:

a) Prozedura administratiboari buruzko legeek orokorrean ezarritakoak.

b) Asmo txarraren norainokoa.

c) Aurretiazko ohartarazpenak ez betetzea.

d) Eragindako osasun-nahastearen edo nahaste sozialaren larritasuna.

e) Eragindako kaltea eta ukitutako pertsonen kopurua.

f) Bereziki babestutako pertsonen talde bat zuzenean kaltetzea.

g) Arau-haustearekin lorturiko onurak.

h) Arriskuen iraunkortasuna edo aldi baterakotasuna.

i) Osasunaren arloko beste arau-hauste batzuk egotea edo haiek egitea erraztu edo ezkatatu izatea.

2. Nolanahi ere arau-haustearen ekintzaren eta aplikatutako zehapenaren artean behar den proportzionaltasuna gordeko da.

### **85. artikulua. Organo zehatzaile eskudunak.**

1. Nafarroako Gobernua da arau-hauste oso larriengatik 120.000 eurotik gorako zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

2. Osasun Departamentua da 15.000 eurotik 120.000 eurora bitarteko zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari-kudeatzailea da 15.000 eurotik beherako zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

**86. artikulua. Zehapen prozedurak ebazteko epea.**

Sei hilabetekoa izanen da foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteengatik hasitako zehapen prozedurak ebazteko epea.

**87. artikulua. Hertsatzeko neurriak.**

Foru lege honetan oinarrituta erabakitzen diren ebazpen administratiboak betearazteko, isun hertsatzaileak jartzen ahalko dira, hilez hilekoak. Haien zenbatekoa ez da 1.000 eurotik gorakoa izanen.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehena.-** Osasun Departamentuak behar diren ikuskapenak eginen ditu ziurtatzeko eta egiaztatzeko bere zerbitzuan ari diren osasun-erakundeek eta langileek foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela.

**Bigarrena.-** Foru lege honetako 38. artikuluko 4. idatz-zatiko c) letrak aipatzen dituen gidak erabiltzailearen eskura egonen dira foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean; egitura erraza izanen dute; erraz ulertzeko modukoak izanen dira eta aldizka gaurkotuko dira.

**XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

1. Indarrik gabe utzi dira Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 3. eta 5. artikulua.
2. Indarrik gabe utzi da maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legea, Nafarroan bizi diren etorkin guztiak Nafarroako osasun sistema publikoaren babesean geratzeari buruzkoa.
3. Indarrik gabe utzi da maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituena.
4. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapenak.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.-** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko behar diren erregelamenduzko arauak eman ditzan.

**Bigarrena.-** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra..

## **§2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa<sup>544</sup>**

### **ATARIKOA**

Azken hamarkadetan, izugarritzko aldaketak izan dira gizartean, eta, hori dela-eta, bizi itxaropena handitzeaz gain, populazioa zahartu egin da. Horrek gaixotasun kronikoak eta itzulezinak areagotzea ekarri du, eta, medikuntzan nahiz hari lotutako beste zientzia batzuetan izandako aurrerabideen ondorioz, galdera eta erironka berriak sortzen dira hiltzeko prozesuen inguruan, bizi-funtzioak orain arte pentsaezinak ziren mugetaraino luzatzea ahalbidetzen baitute.

Osasun-laguntza erabat teknifikatuko testuinguru honetan, gero eta prozesu gehiagoren ezaugarri dira bizi-pronostiko laburra, gaixotasunaren sendaezintasuna, sufrimendu pertsonal, fisiko edo moral eta familiar handia; halatan, gizarte demokratiko batean, pertsonaren askatasuna, erlijio-sinesmenak eta borondatearen autonomia errespetatu beharra dago gaixotasunak dirauen bitartean eta, bete-betean, hiltzeko prozesuan.

Hortik heldu da duintasunez hiltzeko nahia ziurtatuko duten bermeak eta askatasunak legez arautzeko beharra, horrek berekin dakarren guztiarekin. Sufrimendu fisiko, psikiko edo espiritual txikienarekin hiltzea. Maite diren pertsonen ondoan hiltzea. Ongi informatuta hiltzea, hala nahi baldin bada, eta ez esperantza irreal baten gezur errukior faltsu batean. Jaso nahi ez diren tratamenduei uko egin ahal izanez hiltzea. Bizi-testamentu batean alde zuzenetik adierazitako barru-barruko desiren arabera hiltzea. Intimitate pertsonal eta familiarrean hiltzea. Alegia, baliagarriak ez diren eta amaiera alferrik luzatu besterik egiten ez duten tratamenduak -asmo oneko profesionalak, sendatzen ez duten terapietan tematuek, emanak- jaso gabe hiltzea.

Ongi zainduta hiltzea, garaiz hiltzea, nahi izanez gero lo hiltzea. Bakean hiltzea. "Era naturalean" hiltzea, luzamendu artifizialik gabe, garaia heltzen denean.

Sufrimendua giza izaeraren parte da. Gaixoen bizitzaren amaierako sufrimenduak mina funtsezko osagarri du, nahiz eta ez den hori osagarri bakarra. Badira aldagai psikosozial batzuk sufrimenduaren esperientzia baldintzatzen dutenak. Interbentzio egokiak eginda, gutxitu egin daiteke sufrimenduaren intentsitatea, iraupena eta maiztasuna. Baina gaixoak eta bere familiak, gaixotasunean, nahitaez sufritzen dute. Eta heriotza, bizitzaren amaiera, prozesu gogorra da berez. Horregatik, foru lege honek helburutzat hartzen du, besteak beste, sufrimendua arintzea eskura dauden baliabide guztiak. Legegilearen iritziz, ezin dugu sufrimenduaren ukatze erabatekoaren lagungarri izan, arriskua baitago nolabait uste izateko kontrola erabatekoa izan daitekeela, eta arrisku horri aurrea hartu behar zaio. Izan ere, ekidin behar da gaixoei, beren ahaideei, profesionalak eta gizarte osoak uste izatea sufrimendua, berez, erabat saihestu daitekeela.

---

<sup>544</sup> Kontuan har bedi zer xedatzen duen martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak, Eutanasia arautzekoak.

### §2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa

Ordenamendu juridikoak heriotza duinaren ideala zehaztu eta babestu behar du. Giza eskubideak eta gizakien duintasuna biologiaren eta medikuntzaren aplikazioetatik babesteari buruzko Europako Kontseiluaren Itunak -Giza Eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Ituna, 1997ko apirilaren 4an Oviedon sinatua- 5. artikuluan ezartzen duenez, osasun arloko interbentzio bat egin ahal izateko, ezinbestekoa izanen da ukitutakoak alde aurretik baimena libreki eta zalantzarik gabe ematea. Unescoren Konferentzia Nagusiak 2005eko urriaren 19an onetsitako Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsaleko 5. artikulua ezartzen duenez, berriz, pertsonaren autonomia errespetatuko da, erabakiak hartzeko ahalmenari dagokionez.

Heriotza duinaren idealari buruz adostasuna duen funtsezko beste edukietako bat da gaixoen eskubidea dutela kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko. Hala ezarri zuen Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarraren 1418/1999 Gomendioak, "Gaixo terminalen eta hil-hurren daudenen giza eskubideen eta duintasunaren babesari buruzkoak". Organo horren beraren Zainketa aringarriak antolatzeari buruzko 24/2003 Gomendioak, berriz, zainketa aringarriei buruzko esparru koherente bat ezartzeko lege-neurriak hartzeko gomendatzen du. Helburua da jada ezarrita dagoen ideia oinarritzko eskubidearen mailara eramatea.

Aitzitik, ez dago adostasun ez etikorik ez juridikorik sufritzen duen gaixoak bizitza amaiarazte aldera hirugarren pertsonen laguntza eskatzeari dagokionez. Egoera hori "eutanasia" terminoarekin dago lotuta. Etimologiari erreparatuta, "heriotza ona" esan nahi du, baina delitu gisa dago tipifikatuta Zigor Kodean.

Foru lege honek tratamenduari uko egitea, biziari eusteko neurriak mugatzea eta sedazio aringarria arautzen ditu. Horiek, ordea, ez dira eutanasia-ekintza gisa kalifikatu behar, ez dutelako heriotza berariaz bilatzen, ezpada sufrimendua arintzea edo ekiditea, gaixoaren autonomia errespetatzea eta bizitzaren amaierako prozesua leuntzea.

Hitz hori, hala ere, esanahi ugari eta gehigarri emozionalez zamatuta da; era horretan, zehaztugabea bihurtu da, eta foru lege honetan definizio zehatza behar du. Horrela, eutanasia hitzaren esanahia mugatu nahian, gaur egun joera gero eta handiagoa dago eutanasiatzat honako hauek bakarrik hartzeko: a) gaixoen heriotza modu zuzenean eta nahita eragitea, kausa-ondorio erlazio bakar eta arartegabeko baten bidez; b) gaixoak espresuki eskatuta eragitea heriotza, gaixoak eskaera hori denboran zehar behin eta berriz egin badu eta, gaitasuna izan duen garaian, informatuta egin badu eskaera hori; c) sendaezina den gaixotasun baten ondoriozko sufrimendu-egoera batean eragiten den heriotza, gaixoak egoera hori onartezina dela jotzen badu eta sufrimendua arintzeko modurik izan ez denean, zainketa aringarrien bidez, esate baterako; eta d) profesional sanitarioek eragindako heriotzak, profesionalok gaixoak ezagutzen dituztenean eta haiekin harreman kliniko esanguratsua dutenean eragindakoak hain zuzen. Foru lege honek ez du eutanasiaren araubiderik jasotzen.

Funtsezko beste eduki bat da aurretiazko borondateen adierazpen-agiria edo bizi-testamentua egiteko eskubidea, zeinetan jasota utziko baita zer tratamendu jaso nahi den baldin eta nork bere erabakiak hartzeko modurik ez badu.

Hori izanen litzateke pertsonaren borondatearen autonomia printzipioaren ikuspuntutik erabakitzeke bi tresnetarik bat, legez araututa. Bestea informazio klinikoari, baimen informatuari eta erabakiak hartzeari buruzko eskubidea da. Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria, izatez, horren zuzenketa bat baizik ez da.

### §2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa

Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria betetzerakoan herritarren irisgarritasuna areagotzea eta osasun arloko profesionalena hobetzea aurreikusten da.

Bizi-testamentuak ordezkari bat izendatzera mugatu ohi dira, inolako jarraibiderik edo egoera klinikorik ezarri gabe; hori dela eta, foru lege honen bidez bizi-testamentuen egitekoa osatu nahi izan da, bai eta ordezkari horrek, ueña iritsiz gero, eta ezgaitasun kasuetan bakarrik, kontuan izan ahal dituen interpretazio-irizpideak ere, halako moduz non beti jardunen duen ordezkaturako pertsonaren onurarik handiena bilatu nahian eta haren duintasun pertsonalarekiko errespeturik handienarekin.

Hiltzeko prozesuko duintasun osoa egiaz ziurtatze aldera, foru lege honek, ataka horretan pertsona dagozkien eskubideak ezarri eta garatzeaz gain, pertsonak hiltzeko prozesuan artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak ezartzen ditu, eta zenbait betebeharrak ezartzen dizkie erakunde publiko nahiz pribatuei, pertsonen eskubideak ziurtatzea helburu; hartara, historia klinikokoan jasota ageriko dira prozesu terminalari buruzko informazioa eta gaixoaren lehentasunak erabakiak hartzerakoan.

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 48. eta 53. artikuluek arautzen dute Nafarroako Foru Komunitatearen arlo horretako legegintza-ekimena.

Halatan, osasunaren babeserako eskubidea 1978ko Konstituzioko 43. artikuluan dago jasota. Konstituzio-eskubide hori, berriz, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrek garatu zuen.

Estatuko legedian ez ezik, osasunari buruzko foru legeetan ere jasota daude foru lege honek arautu nahi dituen osasun arloko eskubideak. Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrak buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 3. artikuluan jasota ageri dira, herritarren eskubideen artean, herritarren nortasuna, giza duintasuna eta intimitatea inongo diskriminaziorik gabe errespetatua izatearekin zerikusia dutenak.

Foru lege honek bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen eskubideak arautu eta garatu nahi ditu, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen espirituan eta araudian sakonduta, bereziki horren 54. artikuluari dagokionez.

Badago oinarritzko adostasun etiko eta juridikoa heriotza onaren idealaren eduki eta eskubideetako batzuen gainean: zainketa aringarri integralak eta kalitatezkoak jasotzeko eskubidea, biziari eusteko neurriak ez hastekoa edo kentzekoa baldin eta bizitza biologiko hutsari artifizialki eusteko baizik ez badute balio, eta pertsonaren autonomia errespetatzekoa hiltzeko prozesuan. Foru lege honek, hartara, eskubide horiek ziurtatzeko oinarritzko tresnak zehaztu nahi ditu, eta, horretarako baliatzen ditu informazio klinikoa, baimen informatua, erabaki-hartzea (pertsona gai denean) eta aurretiazko borondateen adierazpen-agiria (pertsona gai ez denean). Lege honetako artikuluek hori guztia jorratzen dute.

Horrenbestez, foru lege honek harreman klinikokoan erdigunean jartzen du pertsona, pertsona baita eskubideen titularrak eta bere prozesua gidatu behar duena, laguntza-langileekin batera hausnartuta. Profesionalak ezin dute informazioa baliatu eta ez dute informazioa baliatu behar pertsona alde batera utzita, ez eta hura kontuan hartu gabe erabakiak hartu ere.

Ondoko artikuluen bidez orobat jaso nahi dira profesionalen eginbeharrak eskubide horiek baliagarri bihurtze aldera, besteak beste informazioa eta dokumentazio klinikoko emateko beharra eta norik bere borondatez libreki hartutako erabakiekiko errespetua.

Hori guztia, finean, pertsonen erabaki-autodeterminaziorako eta informazio-autodeterminaziorako eskubideak ezartzeko harreman klinikoaren esparruan.

## **I. TITULUA** **XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Xedea**

Foru lege honen xedea da honakoak arautzea: pertsonaren eskubideen erabilera hiltzeko prozesuan, gaixo horiek artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak, eta prozesu horri dagokionez erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek eman beharreko bermeak.

### **2. artikulua. Helburuak.**

Hona foru lege honen helburuak:

- a) Pertsonaren duintasuna zaintzea hiltzeko prozesuan.
- b) Pertsonaren autonomia eta haren borondatearekiko errespetua ziurtatzea hiltzeko prozesuan, aurretiazko borondateen adierazpen-agirian aldeztu aurretik adierazitakoarekikoa barne, betiere gaixoaren autonomia arautzen duen azaroaren 14ko 41/2002 Legean ezarritako mugen barruan.
- c) Arautzea pertsonak hiltzeko prozesuan dituen eskubideak, gaixo horiek artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak eta prozesu horri dagokionez erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek gaixoei zein profesionaleri eman beharreko bermeak.

### **3. artikulua. Norainokoa eta aplikazio eremua.**

Foru lege hau Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko zaie hiltzeko prozesuan dauden pertsona guztiei edo prozesu horrekin lotutako erabakiak hartzen dituztenei, bai eta horien laguntza sanitarioan nahiz soziosanitarioan inplikaturako langileei eta Foru Komunitatean zerbitzu ematen duten zentro publiko nahiz pribatu guztiei ere, zentrook zerbitzua zuzenean nahiz etxean eman.

### **4. artikulua. Oinarrizko printzipioak.**

Hona foru lege honen oinarrizko printzipioak:

- a) Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasun osoarekiko errespetua ziurtatzea.
- b) Pertsonaren askatasunaren, autonomiaren eta borondatearen sustapena, haren desirarekin, lehentasunekin edo balioekin bat, bai eta haren intimitatea eta konfidentzialtasuna gordetzea ere.
- c) Tratamendu bat pertsonaren borondatez ukatzeak edo eteteak laguntza soziosanitario integrala eta hiltzeko prozesuan pertsonak duintasun osoa izateko duen eskubidea kaltetuko ez diren bermea.
- d) Pertsona guztiek zainketa aringarri integralak eta hiltzeko prozesuan minaren eta bestelako sintoma batzuei aurre egiteko tratamendu egokia jasotzeko eskubidearen bermea.
- e) Egiazko berdintasuna eta diskriminazio eza hiltzeko prozesuan gizarte nahiz osasun arloko zerbitzuak jasotzerakoan.

## 5. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondorioetarako, horrela ulertuko dira hurrengoak:

a) Bizi kalitatea: bizi-baldintza objektiboekiko norbanakoaren gogobetetasuna, norberaren balioak eta sinesmenak oinarri.

b) Baimen informatua: Gaixoaren autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoan alorreko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 3. artikuluan ezarritakoarekin bat, "gaixo baten adostasun libre, borondatezko eta kontziente, informazio egokia jaso eta ulertu ondotik bere ahalmenak osotara baliatuta adierazia, bere osasunari eragiten dion jarduketa bat egin dadin".

c) Zainketa aringarriak: osasun arloko interbentzioen multzo koordinatua, gaixoen eta haien ahaideen bizi kalitatea hobetzera zuzendua, ikuspuntu integral batetik; horien bidez, gaixotasun edo egoera terminal baten ondoriozko arazoei aurre egiten zaie, prebentzioaren eta oinazearen arintzearen bidez, bai eta minaren eta beste sintoma fisiko, psikosozial eta espiritual batzuen identifikazio, balorazio eta tratamenduaren bidez ere.

d) Aurretiazko borondateen adierazpen-agiria: Biziaren gaineko aurretiazko borondateak egiteko eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzeko eskubideei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 54. artikuluan ezartzen denez, sendagile arduradunari zuzendutako agiri bat da, non pertsona adindun batek edo foru lege honi jarraituz gaitasuna aitortzen zaion adingabeko batek bere aurretiazko nahiak adierazten baititu, balizko jarduketa medikoei buruz, zenbait baldintzaren ondorioz pertsonalki haiek adierazi ezin dituen egoeran kontuan hartu beharrekoak; adierazpen hori baimen informatuaren bitartez egingen da, eta sendagile arduradunak eta egoera horretan hari laguntza ematen dion talde medikoak kontuan hartu beharrekoa izanen da.

e) Osasunaren alorreko interbentzioa: azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, helburu prebentibo, diagnostiko, terapeutiko, errehabilitaziozko edo ikerketazkoekin eginiko jarduerara oro da.

f) Ahalegin terapeutikoa mugatzea: biziari eusteko neurri bat kentzea edo ez hartzea, gaixoa tratatzen ari diren osasun arloko profesionalak uste dutelako haren pronostiko txarraren ondorioz, etorkizuneko bizi kantitateari eta kalitateari dagokionez, erabat hutsala dela, eta soilik balio duela hobetzeko arrazoizko aukerarik ez duen egoera klinikoa denboran luzatzeko.

g) Biziari eusteko neurria: pertsonaren bizi-konstanteak mantentzera bideraturiko osasun arloko interbentzioa, kontuan hartu gabe interbentzio horrek eragin terapeutikoa duen edo ez pertsonaren bizitza arriskuan jartzen duen oinarrizko gaixotasun edo prozesu biologikoarengan.

h) Mediki arduraduna: azaroaren 14ko 41/2002 Foru Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, mediku arduraduna da "gaixoari edo erabiltzaileari buruzko informazioa eta haren osasun arloko laguntza koordinatzeko ardura duen profesionala. Bera izanen da solaskide nagusia gaixoaren arretari eta informazioari dagokionez laguntza-prozesu osoan, ezertan galarazi gabe laguntza-jardueretan parte hartzen duten beste profesional batzuen betebeharrak."

i) Setatze terapeutikoa: hiltzeko prozesuan dagoen pertsona bati erabilgarritasun klinikorik ez duten neurriak aplikatzen hastea edo jarraitzea; neurri horiek gaixoaren bizi kalitatea okertu dezakete, eta haren bizitza biologikoa luzatzeko besterik ez dute balio,

## §2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa

hobera egiteko edo sendatzeko aukera errealik gabe; hori dela eta, neurri horiek mugatu egin daitezke.

j) Hiltzeko prozesuan dauden pertsonak: gaixotasun sendaezina eta itzulezina duten pertsonak, egoera terminalean edo hiltzorian daudenak.

k) Ordezkarria: pertsona adinduna eta gaitasuna duena, eta beste baten ordezkarri gisa baimena ematen duena, horretarako izendatua izan ondoren aurretiazko borondateen adierazpen baten bidez, edo, halakorik izan ezean, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenei jarraikiz.

l) Sintoma immunea: tratamendu egokiari erantzuten ez diona eta, kontrolatu ahal izateko, gaixoaren konortea murriztea eskatzen duena.

m) Hiltzorian egotea: heriotzaren aurreko fase graduala, ondoko adierazpen klinikoak dituen: hondatze fisiko larria, erabateko ahuldadea, kognizio- eta konorte arazoak, harremanak izateko eta jateko zailtasunak eta, azkenik, egun batzuetako bizi-itxaropena.

n) Izatezko ezgaitasun egoera: pertsonak, de facto, beren bizitza modu autonomoan gobernatzeko behar adina entendimendu eta borondatea falta duten egoera.

ñ) Egoera terminala: gaixotasun aurreratu, etengabeko, sendaezin eta itzulezin bat edukitzea, berariazko tratamenduari erantzuteko arrazoizko aukerarik gabe, bizi-pronostiko mugatuarekin eta sintoma bizi eta aldakorrekin; eta gaixotasun horrek eragin emozional handia izatea gaixoengan eta ahaideengan, eta, azkenean, eragin horren ondorioz, osasun arloko profesionalek askotan berariaz esku hartu behar izatea.

o) Sedazioa hiltzorian: sedazio aringarria, hiltzorian dagoen gaixo baten sufrimendu fisiko, psikologiko edo espiritual bizia arintzeko behar den graduan, aurretiazko baimenarekin, hain zuzen ere foru lege honetako 8. artikuluan ezarritako moduan, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritakoa ezertan kendu gabe.

p) Sedazio aringarria: botikak ematea, behar diren dosi eta konbinazioen arabera, gaixo baten kontzientzia gutxitzeko hiltzeko prozesuan, sintoma immune bat edo gehiago egoki arintze aldera, aurretiaz baimena eman ondoren, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritako moduan.

q) Bizi-testamentua: aurretiazko borondateen adierazpenaren sinonimo bat da.

r) Bizi-balioak: pertsona baten bizi-proiektuari zentzua ematen dioten balioen eta sinesmenen multzoa, pertsona horren erabakiak eta lehenetsunak oinarritzen dituen gaixo eta hiltzeko prozesuan dagoenean.

## **II. TITULUA** **PERTSONEN ESKUBIDEAK HILTZEKO PROZESUAN**

### **6. artikulua. Informazio klinikorako eskubidea.**

Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoa ezertan kendu gabe, informazio klinikorako eskubidearen titularrak hiltzeko prozesuan dagoen pertsona da. Informazioa emanen zaie, halaber, harekin arrazoi familiarrengatik edo izatezko arrazoiengatik lotutako pertsonak, gaixoak horretarako baimena ematen badu, betiere 10. artikuluan ezarritakoa ezertan ere kendu gabe.

### **7. artikulua. Erabakiak hartzeko eta informazioan oinarrituriko baimena.**

Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 49. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.



**8. artikulua. Interbentzio bat errefusatzeko eta erretiratzeko eskubidea.**

1. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 26. eta 53. artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio.
2. Sinatu ahal ez badu, haren ordezkari beste pertsona batek sinatuko du, zeina lekukoa izanzen baita aurrez eskatuta, eta lekuko haren identifikazioa jasota geratuko da, bai eta baimen informatua atzera botatzen duen pertsonak ezin sinatzeko arrazoia ere. Hori guztia idatziz jaso beharko da historia klinikoan.
3. Nolanahi ere, osasun agintariek, osasun administrazioak eta profesional medikoek uneoro zainduko dute gaixo guztiek, beren inguruabarrak gorabehera, beren duintasunaren arabera gutxienezko zainketak jaso ditzaten, lex artis delakoari jarraituz.

**9. artikulua. Aurretiazko borondateen adierazpena egiteko eskubidea.**

1. Pertsona orok eskubidea du aurretiazko borondateen adierazpena egiteko, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean eta aplikatzeak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzetan.
2. Behin aurretiazko borondateen adierazpena egin ondoren, hori historia klinikoan - ospitalekoan nahiz pertsonaren oinarritzko osasun laguntzakoan- jasoko da, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.
3. Halaber, Nafarroako Aurretiazko Borondateen Erregistroan jasotako aurretiazko borondateen adierazpena aurretiazko jarraibideen erregistro nazionalean sartuko da, 1214/2007 Errege Dekretuan ezarritako moduan.

**10. artikulua. Aurretiazko borondateen adierazpenean izendatutako ordezkaria.**

1. Aurretiazko borondateen adierazpenean ordezkari bat izendatzen denean, ordezkari horrek beti jardunen du ordezkatzeko duen pertsonarentzat onurarik eta errespeturik handiena bilatzeko moduan. Nolanahi ere, zainduko du adierazpenean jasotako egoera klinikoetan, ordezkariak ezarritako jarraibideak betetzen direla.
2. Agirian berariaz jaso gabeko egoera klinikoetako buruzko erabakietan, ordezkariak kontuan hartuko ditu bai adierazpenean jasotako bizi-balioak edo -aukerak, bai ustez kasuko pertsonak izanzen zukeen borondatea, baldin eta une horretan gaitasuna izan bazuen.
3. Interesdunak ordezkariaren eginkizunak mugatu edo zabaldu ahalko ditu, eta ordezkariak haiek bete egin beharko ditu.

**11. artikulua. Ezgaitasun egoeretan dauden pertsonen informaziorako, erabakiak hartzeko eta informazioan oinarrituriko baimenerako duten eskubidea.**

1. Aurreko 6. eta 7. artikuluen esparruan, laguntza emateaz arduratzen den sendagilearen iritziz pertsona bat, izatez, ezgaitasun egoera batean dagoenean, bai informazioa jasotzea bai informazioan oinarrituriko baimena ematea honako pertsona hauen bitartez gauzatuko dira, hemen ezartzen den hurrenkeran: aurretiazko borondateen adierazpen-agirian xede horretarako izendatutako pertsona, ezkontideak edo hari afektibotasun-harreman batez loturiko pertsona, maila hurbilenean ahaideek eta gradu beraren barrenean zaharrena edo, azken kasuan, agintari judizialek erabakitzen dutena.
2. Judizialki ezgaitutako pertsonen kasuan, ezgaitzeari buruzko epaian ezarritakoari begiratuko zaio, salbu eta hartan berariazko inongo debeku edo mugarik ez dagoenean

### §2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa

informazioa jasotzeari buruz edo informazioan oinarrituriko baimena emateari buruz; izan ere, egoera horretan, sendagile arduradunak baloratuko du izatez pertsona horiek zer gaitasun duten, 20. artikuluan ezarritako moduan.

3. Ezgaitasun egoera ez da oztopoa izanen artatutako pertsonen informazioa emateko edo erabakiak hartzeko prozesuan parte har dezaten, daukaten bereizmen graduaren arabera egokia den moduan.

4. Ezgaitasun egoeran dauden pertsonen beren eskubideez baliatu ahal izateko, beti haien onurarik handiena eta haien duintasunarekiko errespetua bilatuko dira. Gaixoaren borondatea interpretatzeko kontuan hartuko dira bai haren nahiak, aurretiaz adierazitakoak, bai orain gaitasun egoeran egonen balitz ustez adieraziko lituzkeenak ere.

#### **12. artikulua. Adingabeen eskubideak.**

Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritakoa ezertan kendu gabe, adingabe emantzipatuek edo hamasei urte bete dituztenek beren kabuz emanen dute baimena, baina, kasua denean, haien gurasoei edo legezko ordezkariari informazioa emanen zaie eta haien iritzia kontuan hartuko da amaieran erabaki bat hartzeko. Gatazkarik izanez gero, adingabearen iritzia emanen zaio lehenetsuna, azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 9.3.c) artikuluan ezarritakoari jarraituz. Halaber, adingabe emantzipatuek edo hamasei urte beterik dituztenek eskubidea izanen dute informazioan oinarrituriko baimena ezeztatzeko eta osasun arloko profesionalek proposaturiko interbentzioa errefusatzeko, foru lege honetako 8. artikuluan aurreikusitako moduan.

#### **13. artikulua. Pertsonen zainketa aringarri integralak jasotzeko eta haiek hartzeko helbidea hautatzeko daukaten eskubidea.**

1. Egoera terminalean edo hiltzorian dauden pertsona guztiek eskubidea dute kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko.

2. Kontraindikaturak ez dagoenean, hiltzeko prozesuan dauden pertsonen eskubidea dute behar dituzten zainketa aringarriak eman diezazkieten Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean izendatzen duten helbidean, beren premia kliniko eta sozialetarako eta helbidearen ezaugarrietarako egokiak diren baldintzetan.

#### **14. artikulua. Pertsonen sufrimendua (mina eta bestelako sintomak) arintzeko duten eskubidea.**

Pertsonen eskubidea dute laguntza egokia hartzeko, min fisikoari aurrea hartzeko eta hura arintzeko, horren barne sedazioa dela, baldin eta sintoma berariazko tratamenduaren eragina baldin bada.

#### **15. artikulua. Intimitate pertsonal eta familiarerako eta konfidentzialtasunerako eskubidea.**

Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritakoa ezertan kendu gabe, hiltzeko prozesuaren aurrean, gaixoen eskubidea dute beren intimitate pertsonala eta familiarra zain dakien eta osasun laguntzarekin loturiko datu guztiak babestuta edukitzeko.

### **III. TITULUA**

## **HILTZEKO PROZESUAN DAUDEN GAIXOEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN PROFESILAK**

#### **16. artikulua. Informazio klinikoaren inguruko betebeharrak.**

Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 76.2 eta 76.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio.

#### **17. artikulua. Erabaki klinikoak hartzearen inguruko betebeharrak.**

1. Sendagile arduradunak, pertsona batentzako hiltzeko prozesuan osasun arloko interbentzio bat proposatu aurretik, segurtatu beharko du interbentzio hori klinikoki indikatua dela, eta horri buruzko bere ebazpen klinikoa egin beharko du, honakoetan oinarrituta: eskueran dagoen ebidentzia zientifikoa, daukan esperientzia eta ukituta dagoen pertsonaren egoera klinikoan, larritasunean eta pronostikoan. Ebazpen profesional horren ondorioa baldin bada osasun arloko interbentzio bat dela indikatuta dagoena, interesdunaren baimen libre eta borondatezkoa eskatuko da; izan ere, kasuko pertsonak aukera izanen du proposatutako interbentzioa onartzeko, eskaintzen zaizkion aukera klinikoen artean libreki hautatzeko edo interbentzio horri ezezkoa emateko, profesionalaren eta gaixoaren arteko komunikazio egokiko prozesu batean, hain zuzen ere foru lege honetan eta azaroaren 14ko 41/2002 Legean ezarritako moduan.

2. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean ezarritakoa ezertan kendu gabe, laguntzan inplikaturik dauden osasun arloko profesional guztiek pertsonen balioak, sinesmenak eta lehentasunak errespetatu beharko dituzte erabaki klinikoak hartzerakoan, lege honetan eta azaroaren 14ko 41/2002 Legean ezarritako moduan. Nolanahi ere, ez dituzte inposatuko beren sinesmen eta konbikzio pertsonal, erlijioso edo filosofikoetan oinarrituriko jarduera-irizpideak.

#### **18. artikulua. Aurretiazko borondateen adierazpena dela-eta bete beharrekoak.**

1. Osasun arloko profesional guztiek, harreman klinikoaren uneren batean, informazioa eman beharko dute aurretiazko borondateen adierazpena egiteko eskubideari buruz.

2. Gaixoei hiltzeko prozesuan laguntza ematen dieten osasun arloko profesionalak nahitaez galdetu behar diete ea aurretiazko borondateen adierazpena egina duten, eta, baiezkoan, hura kontsultatuko dute.

3. Artatutako pertsona izateko ezgaitasun egoeran baldin badago, profesionalak nahitaez zuzenean kontsultatuko du aurretiazko borondateen adierazpena.

4. Osasun arloko profesionalak aurretiazko borondateen adierazpenean jasotako balio eta jarraibideak errespetatu beharko dituzte, foru lege honetan eta azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean eta haiek garatzeko arauetan ezarritako moduan.

#### **19. artikulua. Izatezko ezgaitasun-egoeran egon daitezkeen pertsonetikiko betebeharrak.**

1. Sendagile arduraduna izan beharko da baloratuko duena ea artatutako pertsona izatezko ezgaitasun egoeran dagoen, eta egoera horrek bere kabuz erabakiak hartzea eragozten ote dion. Balorazio hori behar den bezala jaso beharko da historia klinikoan.

## §2.3.- 8/2011 Foru Legea, martxoaren 24koa

Izatezko ezgaitasun egoera bat ezartzeko, klinikoki komenigarritzat jotzen diren faktoreak ebaluatuko dira; honakoak, besteak beste:

- a) Ematen zaion informazioa ulertzeko zailtasunik ote duen.
  - b) Erabakiak hartzeko prozesuan informazio hori modu okerrean barneratzen ote duen.
  - c) Erabakiak hartzeko prozesuan informazioa modu logikoan erabiltzen ote duen.
  - d) Egon litezkeen aukeren balizko ondorioak atzematerakoan huts egiten ote duen.
  - e) Amaieran erabaki bat hartzea edo hura komunikatzea lortzen ote duen.
2. Irizpide horiek baloratzeko, gaixoei arreta ematen zuzenean inplikaturiko beste profesional batzuen iritzia eskatu beharko da. Halaber, ahaideei eta maite diren pertsoneri kontsultatu ahalko zaie, ahal den informaziorik onena lortzeko.
3. Behin izatezko ezgaitasun egoera dagoela ezarrita, sendagile arduradunak historia klinikoa jaso beharko ditu pertsona ezgaituaren ordezkari jardun behar duen pertsonaren datuak, betiere foru lege honetako 10. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

### **20. artikulua. Ahalegin terapeutikoa mugatzearekin lotutako betebeharrak.**

1. Gaixo bakoitzaren arduraren sendagileak, praktika kliniko egokiaz baliatuta, egoera klinikoak hala eskatzen badu, ahalegin terapeutikoa mugatuko du eta saihestuko du setatze terapeutikoa. Mugatzearen justifikazio hori gaixoaren historia klinikoa jasoko da.
2. Mugatze horrek eskatuko du, gaixoa zaintzeko arduraren erizainaren irizpide profesionala entzun ondoren, gutxienez ere gaixoari osasun arreta ematen parte hartzen ari diren osasun arloko beste bi profesional erabaki berekoak izatea. Profesional horien identitatea eta haien iritzia historia klinikoa jasoko da.
3. Edonola ere, sendagile arduradunak eta gaixoa ardatzen dituzten gainontzeko osasun arloko langileek haren zainketa eta erosotasun egokiak bermatzeko behar diren osasun arloko interbentzio guztiak eskaini beharko dizkiote.

## **IV. TITULUA**

### **ZENTRO ETA ERAKUNDE SANITARIOEK ETA SOZIOSANITARIOEK EMANEN DITUZTEN BERMEAK**

### **21. artikulua. Artatutako pertsonen eskubideak bermatzea.**

1. Nafarroako administrazio publikoek eta 3. artikuluan jasotako erakundeek bermatu beharko dute foru lege honetako I. tituluaren ezarritako eskubideak betetzen direla.
2. Pertsoneri zuzeneko arreta emateko arduraren erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek behar diren bitartekoak jarri beharko dituzte pertsona horien eskubideak ez daitezen inoiz ere murrizturik egon, ezta profesionalak ezezkoa ematen duenean edo falta denean edo beste edozein arrazoi dagoenean ere.

### **22. artikulua. Gaixoei laguntzea.**

1. Osasun arloko zentro eta erakundeek uneoro bideratuko dute eta bermatuko dute ahaideen laguntza hiltzeko prozesuan, eta laguntza hori koordinatuko dute gaixoari kalitatezko laguntza eskaintzeko behar diren laguntza-neurriekin, bereziki bizitzaren amaierako fasean.

2. Artatutako pertsonak, haien ordezkariak edo haien ahaide eta hurbilekoak eskatuta, osasun zentro eta erakundeak, haien konbikzio eta sinesmenen arabera laguntza espiritualala eman dezaketenen sarbidea erraztuko dute, eta begiratuko dute pertsona horiek, nolana ere, ez dituztela oztopatzen osasun taldearen jarduketak.

### **23. artikulua. Gaixoak artatzeko laguntza.**

1. Zentro eta erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek egoera terminalean dauden gaixoei laguntza profesional egokia ziurtatuko diete, zainketa aringarrietan haiei laguntza integrala, banakatu eta jarraitua emate aldera, bai gaixoaren etxean, bai osasun zentroan. Horretarako, behar diren tresnak ezarriko dituzte laguntzaren jarraitutasuna eta bestelako baliabideekiko koordinazioa ziurtatze aldera.

2. Laguntza profesional honek honakoak hartuko ditu bere baitan: egoera terminalean dauden gaixoen identifikazioa; haien premien balorazio integrala eta zainketetarako plan baten ezarpena; sintoma fisiko eta psikikoen balorazioa eta kontrola; minaren eta gainerako sintomen tratamendu farmakologikoaren eta ez farmakologikoaren indikazioa; gaixoarentzako informazioa eta laguntza prozesuaren fase desberdinetan eta erabakiak hartzerakoan; eta gaixoarekin zerikusia duten pertsonentzako informazioa, aholku sanitarioa, aholkularitza eta laguntza. Beharrezkoa den egoeretan, eta batez ere kasu zailetan, osasun-laguntzako edo/eta laguntza sozialeko nahiz zerbitzu espezializatuetakoko egituren bitartezko arreta erraztuko da, bai kontsultetan, bai gaixoaren etxean edo gaixoa ospitaleratuz, kasua bada.

### **24. artikulua. Familiari eta zainzaileei laguntza ematea.**

1. Zentro eta erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek bermatuko dute bai gaixoaren etxean, bai zentro sozio-sanitarioetan, hiltzeko prozesuan dagoen gaixoaren pertsona zainzaileei eta familiei babes eta laguntza ematea, haren laguntza eta zainketak errazteko, eta konfiantzazko giroa erraztuko du, emozioak intimitate giroan adierazi ahal izan dezan eta familiak amore eman dezan ekiditeko.

2. Zentro eta erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek laguntza integrala bermatuko du ahaideen eta zainzaileen doluan, eta neurriak sustatuko dituzte lagun maitearen heriotza onartzeko eta dolu zailak ekiditeko.

### **25. artikulua. Aholku espezializatua zainketa aringarrirei eta aurretiazko borondateei buruz.**

1. Hiltzeko prozesuan dagoen pertsonari bere osasun egoerari buruzko eta bere prozesuan zehar jasoko dituen zainketa aringarrirei buruzko informazioa bermatuko zaio, betiere bere premien eta lehentasunen arabera.

2. Herritarrari bermatuko zaio, eskatzen duen laguntza mailan, garrantzizko informazio klinikoa izatea, nahi baldin badu bere iritziak eta jarraibideak adierazi ahal ditzan aurretiazko borondateen bitartez.

### **26. artikulua. Hiltzeko prozesuan dauden pertsonak banakako gelan egotea.**

Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 26.6 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

**27. artikulua. Osasun laguntzaren etika batzordeak**

1. Osasun zentro edo erakunde guztiek sarbidea edo, kasua bada, lotura izanen dute osasun laguntzaren etika batzorde batekin. Batzorde horrek aholkua emateko eginkizunak izanen ditu gatazka etikoak planteatzen diren erabaki klinikoaren kasuan.
2. Komiteek aztertu, aholku eman eta erraztu ahalko dute erabaki kliniko hartzeko prozesua, aukera edo konponbide etikoak proposatuz hiltzeko prozesuan profesionalen, herritarren eta erakundeen artean sor daitezkeen gatazketan. Inolaz ere ez dituzte ordeztuko osasun arloko langileek, erakundeek edo gaixoei edo haien ordezkariak daukaten erantzukizuna.
3. Osasun laguntzaren etika batzordeetako kideek nahitaez isilekotasuna gorde beharko dute deliberazioen edukiaren inguruan, eta batzordeko kide gisa osasun arloko langileei, gaixoei edo haien ahaide eta hurbilekoei buruz ezagutu dituzten datuen konfidentzialtasuna babestu beharko dute.
4. Batzordeen osaketa, funtzionamendu-tresnak eta kreditatze prozesuak abuztuaren 24ko 435/2001 Foru Aginduan eta haren ondorengo arauetan ezarritakoa izanen da.

**V. TITULUA**  
**ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK**

**28. artikulua. Arau-haustek eta zehapenak.**

Oro har, arau-hauste arinen, arau-hauste oso larrien eta zehapenen kasuan, 17/2010 Foru Legan ezarritakoari jarraituko zaio.

17/2010 Foru Legean ezarritakoaz gain, ondokoak joko dira arau-hauste larritzat:

- a) Datu klinikoak edo aurretiazko borondateei buruzkoak betetzeko arauak ez betetzea, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 54.3 artikuluan ezarritako baldintzetan.
- b) Ahaideen laguntza eragozte, salbu eta hori justifikatzen duten inguruabar klinikoak daudenean.

**29. artikulua. Eskumena.**

Zehapen ahalmenaz baliatzea azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 85. artikuluan ezarritako organo zehatzaile eskudunei egokituko zaie.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa. Azterlana.** Osasun Departamentuak, urtebeteko epean, azterlan bat eginen du foru lege honetan ezarritakoaren betetze-mailari buruz eta, bereziki, Nafarroako herritarrek hura dela eta erakusten duten gogobetetze mailari buruz. Azterlana bi urtez behin gaurkotuko da, foru lege honen aplikazioa eta eraginak erregulartasunez ebaluatu ahal izateko.

**Bigarrena. Legea zabaltzea.** Osasun Departamentuak, lege honek indarra hartu eta gehienez ere bi hileko epean, behar diren tresnak ezarriko ditu foru lege honi ahal den zabalpen handiena emateko profesionalen artean eta, oro har, herritarren artean.

**Hirugarrena. Zainketa aringarriak.** Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, zainketa aringarriak direla-eta foru lege honetan ezarritakoa hobeki betetze aldera, behar diren neurriak sustatuko dituzte Nafarroako Osasun Sistema Publikoan zainketa aringarrien unitateen eta euskarri-ekipoen kopuru eta dotazio egokiak egon daitezen, eta ekitatea bermatuko du

herritarrek haietarako sarbidea izatearen arloan, edozein dela ere herritar horien bizitokia.

**Laugarrena. Aurretiazko borondateen adierazpenak.** Osasun Departamentuak osasunaren arloko profesionalen artean eta herritarren artean modu aktiboan sustatuko du aurretiazko borondateen adierazpenak egin daitezen. Horretarako, prestakuntza ikastaroak, informazio kanpainak, protokoloak eta egokitutak jotzen diren gainerako bitartekoak erabiliko dira.

**Bosgarrena. Aurretiazko Borondateen Erregistroa historia kliniko informatizatuan sartzea.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bidea eman du bi hileko epean Nafarroan dauden aurretiazko borondateen adierazpen guztiak zuzenean eta modu arinean kontsultatu ahal izan daitezen historia kliniko informatizatua bitartez, bai osasun etxeetan, bai ospitaleetan ere, betiere datu horiei buruz behar den konfidentzialtasuna gordez.

**Seigarrena. Osasun laguntzaren etika batzordea.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, hiru hilabeteko epean, oinarritzko osasun laguntzaren arloko osasun laguntzaren etika batzordea sor dadin sustatuko du, oinarritzko osasun laguntzaren osasun arloko profesionaleri eta erabiltzaileei, eztabaida eta gatazka eragiten dituzten gai etikoetan, aholkua eta laguntza bermatzeko, betiere ezertan kendu gabe Osasun laguntzako etika batzordeen sorrera eta kreditatzea arautzen dituen abuztuaren 24ko 435/2001 Foru Ainginduan ezarritakoa.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

**Bakarra. Aurretiazko borondateen erregistroa kontsultatzea.** Aurretiazko borondateen adierazpenaren edukia historia klinikoan sartzen ez den bitartean, foru lege honetako 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hiltzeko prozesuan dauden gaixoen ardura duten osasun arloko profesionalak aurretiazko borondateen erregistroa kontsultatu beharko dute.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**Bakarra. Arauen indargabetzea.** Foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indarrak gabe geratu dira.

### **AZKEN XEDAPENAK**

**Lehen. Erregelamendu bidezko garapena.** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

**Bigarrena. Indarra hartzea.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

## **§2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzkoa<sup>545</sup>.**

### **ATARIKOA**

Animalien ongizatea eta haiei pertsonen babesa ematea balio komunitario bat da, Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuaren gehigarria den Animalien babesari eta ongizateari buruzko 33. zk.ko protokoloan mamitua, eta Europa eta nazio mailetako araudi desberdinetan jaso da.

Espainiak berriki berretsi du Estrasburgon 1987ko azaroaren 13an egin zen Lagun Egiteko Animalien Babesari buruzko Europako Hitzarmena, zeinak herrialde sinatzaileak behartzen baititu lagun egiteko animalien babesari dagozkion zenbait xedapen bermatzera.

Europako Hitzarmenaren kontuan hartuzkoetan, aitortzen da gizakiak izaki bizidun guztiak errespetatzeko betebeharrak morala duela, bai eta gizakiaren eta lagun egiteko animalien artean dauden harreman bereziak gogoan izatekoa ere; horiei aitortzen die bizi-kaliterako egiten duten ekarpenaren eta gizarterako duten balioaren garrantzia. Halaber, aitortzen du lagun egiteko animaliak edukitzeko baldintzek ez dutela beti ahalbidetzen haien osasuna eta ongizatea sustatzea; orobat, aitortzen du haiekiko jarrerak nabarmen aldatzen direla, batzuetan arduragabetasunaren eta ezagutza ezaren ondorioz, eta xedatzen du ezen jarrera eta oinarritzko jokabide amankomun batzuk edukitzea, lagun egiteko animalien jabeek jokabide arduratsua edukitzea ekarriko dutenak, helburu desiragarria ez ezik errealista ere badela.

Bestalde, Europar Batasunaren Lisboako Tratatuaren 13. artikulua esaten du animaliak “sentient beings” edo “sentitzen duten izakiak” direla, hau da, sentitzeko gai diren izaki bizidunak, eta Europar Batasuneko kide diren herrialde guztiak horren arabera egokitu behar dute beren legedia.

Nafarroako Foru Komunitateak etxeko animalien babesa eta defentsa lege bidez arautu zuen Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legearen bitartez. Foru lege horrek bere baitan jaso zuen etxeko animalien eta fauna aloktonoaren babesa, halakotzat hartuz fauna autoktonokoak ez diren basa animalia etxekotuak, ekoizpenerako animaliak eta lagun egiteko animaliak.

Ia hogeita bost urte hauetan, foru legeak lagundu du animaliekiko tratu txarreko egoerak saihesten, haiekiko errespetua indartu du eta eraginkortasun juridikoa eman die aplikatzeko den araudian ezarritako betebeharrei, arau-hausteen multzo eta zehapen-arabide propioak taxutuz.

Azken urteek aldaketa aipagarria ekarri dute animalien ongizatea dela eta. Animalien ustiaketa eta sufrimendua gero eta gehiago aitortzen dira; animalien babesarekin oso kezkatuta dagoen korrante bat badago gizartean, gero eta indar handiagoa hartzen ari

---

<sup>545</sup> Ikus 94/2022 Foru Dekretua, urriaren 26koa, zeinaren bidez onesten baita Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea garatzeko erregelamendua (238. N.A.O., 2022ko azaroaren 29koa).



## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

dena, eta korrante horrek erkidegoei, erakundeei eta gobernuei dei egiten die animaliekiko errespetu-, zaintza- eta erruki-jarrerak har ditzaten.

Gaur egun, animalien ongizatearen baitakotzat hartzen dira gizakiek animaliangan dituzten eraginak; betiere, animaliairen ikuspegitik, eta ez alderantziz. Animalien babesaren ulertzeko modu horrek eta gizartearen animalien ongizateaz eta babesaz dagoen kezka gero eta handiagoak beharrezko egin dute aldaketak egin daitezela haiekiko gure jarrerak eta jokabideak ikusteko moldean, pertsonak animaliak tratatu behar dituzten moldean.

Egiazko aldaketa bat dago jarreretan eta animaliei ematen zaien babes praktikoan, baina ez da nahikoa. Egiazki eraginkorra izateko, legeriak beharrezko ditu bai kezkatzen den gizarte bateko herritarren babesaren, bai eta legeko aplikazio egokia ere. Hezkuntzak hobekuntza iraunkorak ekar ditzake, baina legeriak segurtasun-sarea ematen du animaliekiko ankerkeria eta gehiegikeria saihesteko.

Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legeak, alderdi askotan eraginkorra izan bada ere animaliak babesteko, gabezia batzuk badauzka, sortu zenetik igaro den denbora dela eta. Horregatik, beharrezkoa da Nafarroak foru lege berri bat izan dezan, animalien babesaren dela-eta izan diren gertakariei neurria hartuko diena, gizarteak animalien ongizateaz dauzkan eskaerak jasoko dituen eta animaliei eta haien jokabideari buruzko zientzia- eta albaitaritza-eragutzen araberakoa izanen dena.

Erkidego eta nazio mailetan badago animalien babesari buruzko araudi berariazkoa, zeinak ongizate-eskakizunak eta arau bakoitzaren xede diren espezieak zehaztu eta ezartzen baititu. Arau horiek, nagusiki, abeltzaintza-ustategietan dauden ekoizpenerako animaliei, esperimentaziorako animaliei eta parke zoologikoetan bizi diren animaliei buruzkoak dira.

Lagun egiteko animaliei dagokienez –multzo horretan gehienbat txakurrak eta katuek sartzen dira–, ez dago haien babes eta ongizateari buruzko araudi nazionalik. Egoera hori dela-eta onetsi dituzte autonomia erkidegoek lagun egiteko animalien babesari buruzko legeak beren lurraldeetan. Horregatik, egokiagotzat jo da foru lege berriaren jarduketarenuma mugatzea Nafarroan dauden lagun egiteko animalietara; izan ere, horrek aukera emanen du erkidegoko edo nazioko lege-esparru berariazkorik ez duten animalia horien babesaren areagotzeko.

Animaliak Babesteari buruzko Foru Legeak indarra hartu zuenetik urte ugari igaro ondoren, oraindik ere gertatzen dira egoera ez-desiragarriak; nagusiki, txakur eta katuei tratatu txarrak ematea eta haiek abandonatzea. Gure lurraldean, abandonua animalien ongizaterako arazo garrantzitsu bat da oraindik ere.

Agerian geratu da esterilizazioa, identifikazioa eta adopzioa direla lagun egiteko animalien abandonuari aurrea hartzeko eta haren inpaktua minimizatzen hiru estrategia garrantzitsuenak, eta edukitze arduratsuen kontzeptu zabalagoaren parte dira.

Herritarren parte-hartzea funtsezkoa da abandonuaren arazoaren kontra borrokatzeko, parte-hartze horren baitakoa da-eta abandonuaren aurkako borrokan funtsezkoak direla erakutsi duten hiru estrategia aipatuak aplikazio eraginkorra. Baina arazoak kontzientzia hartzeaz harago, hezi egin beharra dago lagun egiteko animalia bat edukitzeak berekin dakartzen abantaila eta betebeharrak buruz, bai eta haien etorrerak gure bizimoduan izan dezakeen eraginari buruz ere.

Gaur egun, jabeek jokabide oker eta desegokiak izaten dituzte lagun egiteko animaliekiko. Maiz gertatzen dira animalien ezaugarri etologikoekiko eta jokabide-

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

ezaugarriekiko proportzionalak ez diren zainketa eta arretak, animaliei sufrimendu edo kalterik eragiteko asmorik gabe gauzatuak baina zuzenak ez direnak eta, gainera, animalien ongizatea bermatzen ez dutenak. Halako zainketak gertatzen dira gizakien eta animalien ezaugarri fisiologikoak eta jokabide etologikoak parekotzat jotzeko gero eta maizago gertatzen den sentimendu batengatik.

Animaliekiko tratu txarrak, desaxola, abandonua eta babesgabetasuna amaitzearen eta, batez ere, gizakiak animaliekiko errespeturako duen kezka eta interes gero eta handiagoengatik gaur egun haiekiko dagoen protekzionismorako joera dela eta, beharrezkoa da eta justifikatuta dago foru lege berri bat onestea.

Lagun egiteko animalia bat edukitzearen helburua da elkarbizitza egitea pertsonarekin, taldearekin edo familiarekin, eta horiek behartuta daude hari garapenerako behar duen guztia ematera. Baina ez da ahaztu behar ezen animalia batzuek –txakurrek, esate baterako– zenbait jarduera egiten dituztela gizakiarekin, edo harekiko lankidetzan aritzen direla lanerako animalia gisa, poliziaren arloan, pertsonen erreskatean, desgaituei gida edo laguntza emateko, ehizan edo artzaintzan eta abarretan. Eta hori guztia ere kontuan hartzen da foru lege berrian.

Foru lege honetan, animalien edukitze arduratsua indartzeko eta sustatzeko neurri egokiak arautzen dira, eta horri begira, zabalkundeko eta prestakuntzako ekintzak garatuko dira, animalien zainketa eta babesa sustatu eta ongizatea bermatzeko, animalia-erosketa konpultsiboa ekiditeko, gure animalien ugalketa kontrolatzearen garrantzari buruz kontzientziatzeko, nahi gabeko umealdiak edo sabelaldiak saihesteari begira, halakoek abandonua ekarri ohi dutelako.

Entitate eta agente ezberdinekiko lankidetzaz ezartzen da, bai eta animalien abandonuari eta tratu txarrei eta haien ondorioei buruzko heziketa eta prestakuntza programak ere.

Animaliekiko praktika batzuk debekatzeko, zeinak baztertu beharrekoak izanen baitira, zeren eta sufrimendua, kaltea eta are heriotza ere eragiten baitizkiete. Horretarako, haien debekua ezartzen da, hartara animalien ongizatea zainduz eta beharrezkoak ez diren sufrimendu eta heriotza horiek ekidinez.

Arau-hausteak animaliak babesteari ikuspuntutik egokitzen eta tipifikatzen dira, eta haien ongizatean eragiten den kaltearekiko proportzionalak dira: astunagotzat jotzen dira kalte handiena eragiten dietenak edo nahaste larriak edo oso larriak sortzen dizkietenak. Zehapenak gogortzen dira, behar den disuasio-efektua lortzeko; horrekin, animalientzako tratu txarrak gutxitu eta saihestea lortu nahi da, eta progresiboak, proportzionalak eta disuasiokoak dira. Zehapen osagarri batzuk ere ezartzen dira, ekonomikoez gainerakoak, animaliekiko kalte-egoera berriak saihesteko; esate baterako, animalien edukitza kentzea eta haiek edukitzeko debekua ezartzea haien zainketa eta edukitze egokia bermatzen ez dituenari. Halaber, behin-behineko neurriak artikulatzen dira arau-haustea detektatzen denetik, animalia-errespetuaren berehala amai dadin.

Foru lege honen justifikazioa interes orokorreko arrazoi bat da, eta ezinbesteko gertatzen da lagun egiteko animalien babesa eta ongizatea bermatzeko tresna egokia den aldetik. Horretarako, artikulua erraz eta argi batzuen bitartez argi zehaztutako xedeak dauzka, honako egitura honekin: hamar titulu, zazpi xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

I. tituluak, “Xedapen orokorrak” izenekoak, foru legearen xedea eta helburua ezartzen ditu, animalien babesa gidatzen duten printzipioen adierazpen orokor gisa. Argi

#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

zedarritzen da jarduketa-eremua, lagun egiteko animaliak eta foru legearen aplikazioa baztertzen den kasuak, bai eta artikuluetan aplikatzen diren definizioak ere; horrekin, ulergarriago egin nahi dira bilatzen diren xedeak lortzeko erabiltzen diren kontzeptuak.

II. tituluak animalien jabe eta edukitzaileentzako betebeharrak eta debekuak ezartzen ditu, animalien zainketari eta haien edukitze arduratsuari dagokienez; horren xedea da nagusiki animaliekiko tratu txarreko edo tratu desegokiko egoerak ekiditea, egitezkoak zein ez-egitezkoak.

III. tituluak animalien identifikazio zuzenerako printzipio orokorrak arautzen ditu eta identifikazio-prozesua ezartzen du; prozesu hori erregelamendu bidez garatuko da gero, eta edukitze arduratsua bermatzeko oinarriko zutabeetako bat izanen da. Orobat, Lagun Egiteko Animalien Nafarroako Erregistroaren funtzionamendua ezartzen da, eta bera izanen da lagun egiteko animalien jarraipen eta kontrol egokiak egiazki bermatuko dituen.

Titulu horretan, derrigorrezko osasun kontroletarako printzipio orokorrak ezartzen dira, bai eta, soilik arrazoi justifikatuak daudenean, animalien hilketarako eta eutanasiarako betekizunak ere.

IV. tituluak lagun egiteko animalien zentroek bete beharreko baldintza eta betekizun orokorrak jasotzen ditu, gune zoologikotzat hartuta, bai eta lagun egiteko animalien salmentarako eta hazkuntzarako establezimenduek bete beharreko baldintzak ere. Betekizun eta baldintza horiek erregelamenduz garatuko dira Nafarroako mota guztietako gune zoologikoetarako.

V. tituluak, abandonatuztat edo galdutzat jotako lagun egiteko animaliak direla-eta jarduteko eskumen eta prozedura orokorrak ezartzen dira, bai eta haiek adoptatzekoak ere, eta harrera-zentroak eta katu-koloniak jotzen dira animalia horien kudeaketa etikorako bide egokientzat.

VI. tituluak animalien babeserako eta defentsarako elkarteei buruzkoa da. Halakoak entitate laguntzaile gisara aitortzen dira, foru lege honetan aipatutako xedeak lortzeko funtsezko zutabetzat harturik.

VII. tituluak “Animalien Babeserako Kontsulta Batzordea” sortzeko oinarriak ezartzen ditu, hura Nafarroako animalien babesean inplikaturako eragile guztiek parte hartzen duten aholkularitza- eta kontsulta-organotzat hartuta.

VIII. tituluak animalien babesari buruzko zabalkunderako eta heziketarako printzipioak ezartzen ditu; xedea da lagun egiteko animalien edukitze arduratsurako printzipioen zabalkundea egitea eta herritarrak haiei buruz kontzientziatzea.

IX. tituluak, animalien babesaren arloan udalek, udalez gaindiko entitateek edo eskualdeek eta Nafarroako Gobernuako departamentuek dauzkaten eskumenak ezartzen dira, eta beren gain hartu behar dituzten eginkizunak zedarritzen dira. Ikuskatze-jarduketa eta animalientzako arrisku egoeretan aplikatuzkoak diren kautela-neurriak edo behin-behineko neurriak arautzen dira.

Azkenik, X. tituluak tipifikatzen ditu foru legeak araututakoa urratzearen ondoriozko arau-hausteak, eta kasuan kasuko zehapenak ezartzen ditu, bai eta horien mailakatzea, preskripzioa eta zehapen-eskumenak ere.

Zazpi xedapen gehigarriren bidez, lagun egiteko animaliatzat hartzen ez diren animalien babesari estaldura egokia ematearren foru legean integratu beharrekoak diren alderdi batzuk ezartzen dira, haiei buruzko arauetan aurreikusi gabeko alderdiei dagokienez;

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

halaber, sustatuko da lagun egiteko animalien bat daukatenez beren animaliekin egon ahal izateko aukera izan dezatela titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuetan.

Lau xedapen iragankorren bidez, foru legearen aplikazio eraginkorrerako behar den egokitzapena egiten da, aurreko foru legea indarrik gabe uzten baita.

Foru lege hau egin da honako hauei kontsulta egin eta haiekin ados ondoren: animalien babesaren eta ongizatearen arloan eskudun diren Nafarroako Gobernuako Departamentuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Albaitarien Elkargoa, Foruzaingoa, Seprona eta Nafarroako animalien babeserako elkarte eta ehiztarien elkarte nagusiak.

# I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

## **1. artikulua. Helburua.**

Foru lege honen helburua da Nafarroan lagun egiteko animalien babeserako, ongizaterako eta edukitze arduratsurako arauak erregulatzeko.

## **2. artikulua. Xedea.**

Foru lege honek oinarritzko helburu hauek ditu:

1. Bere aplikazio eremuan sartzen diren animalien babes- eta ongizate-maila ahal den handiena lortzea.
2. Animalientzako tratu egokia bermatzea, tratu txarren edo sufrimendu egoerak ekidinez, haiei baldintza higieniko-sanitario ezin hobeak bermatuz eta aukera emanez animalien espeziearen, adinaren eta jardueraren arabera jokabidea eduki ahal dezaten.
3. Animalien edukitze arduratsua sustatzea, abandonuaren aurka borrokatuz, identifikazioa, adopzioa, esterilizazioa, hazkuntza eta ugalkortasunaren kontrola arautuz eta animalien populazioaren kontrola haien hilketan gauzatzen diren metodoen bidez ez egitea lortuz.
4. Animalien babesari buruzko prestakuntza-, zabalkunde- eta informazio-jarduerak sustatzea, jabeen animalien etologiari eta gobernatzeari buruzko heziketa emanez.

## **3. artikulua. Aplikazio-eremua.**

Foru lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan dauden lagun egiteko animaliei, erregistratuta non dauden begiratu gabe, bai eta haien jabe eta edukitzaileei ere.

## **4. artikulua. Aplikatzekoak diren baztertzeak.**

Lege honen aplikazio-esparrutik baztertuta daude:

1. Ekoizpenerako animaliak, foru lege honen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan galarazi gabe.
2. Basa faunako animaliak, ehizakitzat hartutako basa faunako espezieak, subespezieak eta populazioak, eta araututako ehiza-jarduera.
3. Zehen-ikuskizunetan erabiltzen diren animaliak.
4. Esperimentaziorako eta beste xede zientifiko batzuetarako erabiltzen diren animaliak.
5. Parke zoologikoetan dauden animaliak.

## 5. artikulua. Definizioak.

Foru lege honen ondoreetarako, honako hauek ulertuko dira:

1. Lagun egiteko animaliak: gizakiak dauzkan animaliak, baldin eta haien kontsumorako edo produkzioez aprobetxatzeko ez badira edo, oro har, merkataritza-xedeekin edo irabazi asmoekin edukitzen ez badira, espeziea edozein dela ere.

Definizio horretan txakur, katu eta hudo guztiak sartzen dira, alde batera utzita zertarako erabiltzen diren edo non bizi diren, bai eta aisiarako edo kirol-xedeetarako erabiltzen diren ekidoak ere, baldin eta haiek edukitzearen xedea kontsumoa edo haien produkzioen aprobetxamendua ez bada.

Definizio horren barruan sartzen dira, halaber, elikagaiak ekoizteko erabiltzen direnez bestelako ugaztunak, ornogabeak (erleak, erlastarrak, moluskuak eta krustazeoak izan ezik), uretako apaintze-animaliak, anfibioak, narrastiak, hegaztiak eta beste edozein animalia-espezie, hala nola legezko jatorria duten basa animaliak edo itxian hazitakoak ere, lagun egiteko animalia gisa edukitzen direnak.

Ez dira lagun egiteko animaliatzat hartuko babes bereziko araubidea duten espezieei, espezie mehatxatuei edo espezie exotiko inbaditzaileei buruz Estatuak edo autonomia erkidegoek egindako zerrenda edo katalogoetan jasota dauden espezieak, baldin eta haien edukitza ez badago legez baimenduta.

2. Ekoizpenerako animaliak: ekoizpenerako, ugalketarako, gizengarritarako edo hiltzeko animaliak, larrugintzarako edo ehiza-jardueretako direnak barne, zeinak mantendu, gizendu edo haziak baitira animalia-jatorria duten elikagai edo produktuak ekoizteko, edozein industria-erabileretarako edo bestelako merkataritza- edo irabazi asmoko xedeetarako.

3. Lanerako animaliak, laguntzakoak edo eginkizun soziala edo kirolekoa dutenak: jarduera edo xede jakin baterako erabiltzen diren lagun egiteko animaliak; esate baterako, zaintzarako txakurrak, artzain-txakurrak, laguntza-txakurrak, txakur biltzaileak, erreskate-txakurrak eta segurtasun indar eta kidegoek erabiltzen dituzten txakurrak.

3. bis. Ehizarako txakur edo hudoak: lanerako animaliak dira, araututako ehiza-jarduera batean jabearen laguntzarako erabiltzen direnak.

4. Basa fauna: basa egoeran modu naturalean bizi eta ugaltzen diren espezieen, subespezieen, populazioen eta banakako animalien multzoa, negu-pasan edo pasaeran daudenak barne, alde batera utzita autoktonoak edo aloktonoak diren eta haien ehiza-aprobetxamendua egin daitekeen.

5. Animalia abandonatua: animalia identifikatugabea edo identifikatua, zeinaren galera edo desagerketa ez baitzaio inongo agintari eskuduni jakinarazi araudian ezarritako gehieneko epean; eta, oro har, jabeak edo edukitzaileak nahita eta berariaz jabetzari eta kasuan-kasuan aplikatzekoa den araudian ezarritako zaintza- eta gobernantza-betebeharrak betetzeari uko egin dion edozein animalia. Animalia abandonatutzat hartuko da, halaber, lagun egiteko animalientzako zentro batean egon eta epe adostuan jabeak edo edukitzaileak erretiratu ez duena.

Foru lege honen ondoreetarako, animalia abandonatutzat hartzen da Lagun Egiteko Animalien Nafarroako Erregistroan titulartasunez alda daitekeena, dela harrerako zentroaren alde, dela hari harrera egiten dion edo hura jasotzen duen pertsonaren alde.

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

6. Animalia galdu edo desagertua: Identifikatuta nahiz identifikatu gabe egon eta kontrolik gabe alderrai dabilen animalia, baldin eta haren jabe edo edukitzaileak edozein agintari eskuduni komunikatu badio galera edo desagerketa.
7. Animalia identifikatuak: agintaritzak eskudunak aitortutako identifikazio sistemaren bat daramaten animaliak, izena emanda daudenak Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan edo beste autonomia erkidego bateko erregistro baliokidean.
8. Animalia potentzialki arriskutsuak: etxeko animalia gisa edo lagun egiteko animalia gisa erabiltzen diren basa faunako animaliak, zeinak pertsonen nahiz beste animalia batzuei heriotza edo lesioak eragiteko eta gauzei kalte egiteko ahalmena duten espezie edo arrazetakoak baitira, duten agresibitatea zein ere den. Halaber, erregelamenduz zehaztutako etxeko animaliak edo lagun egiteko animaliak, bereziki txakur-espeziekoak, halako arraza-tipologia batekoak non, beren izaera oldarkorragatik, tamainagatik edo masailezurreko potentziagatik, pertsonen edo beste animalia batzuei heriotza edo lesioak eta gauzei kalteak eragin baitiezazkiekete. Animalia Potentzialki Arriskutsuak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean araututakoari erreparatuko zaio, bai eta hura garatzen duen araudi indardunari ere.
9. Jabea edo titularra: animalia baten zaintzaren erantzukizuna duen pertsona fisiko edo juridikoa, zeinak bere jabaripean baitauka animalia, eta Animalien Identifikaziorako Erregistroan haren jabe bezala izena emanda baitago. Erregistroko izen-ematerik ez dagoen kasuetan, jabetzat hartuko da zuzenbidean titulartasun eta jabariaren frogatzeaz onarturiko edozein metodo erabiliz izaera hori demostra dezakeen pertsona.
10. Edukitzailea: aurreko puntuan ezarritakoaren arabera jabea izan gabe, animalia bat daukan edo haren zaintza bere ardurapean duen pertsona fisikoa.
11. Animalien babeserako eta defentsarako elkarteak: legez eratuta dauden irabazi asmorik gabeko entitateak, xede nagusi gisa dutenak animaliak defendatu eta babestea Nafarroako Foru Komunitatearen jarduketaren eremuan.
12. Entitate laguntzaileak: animalien babeserako eta defentsarako elkarteak, albaitaritzazentrotak eta bestelako entitateak, halakotzat aitortuta eta erregistratuta daudenak Foru Komunitatearen jarduketaren eremuan.
13. Edukitza arduratsua: animalien ongizatea eta haien beharrezan etologiko eta fisiologikoen arabera bizi-kalitatea bermatu eta segurtatze aldera jabe eta edukitzaileek beren gain hartu behar dituzten eta foru lege honen aplikazio eremuan sartuta dauden betebeharrak, baldintza eta konpromisoen multzoa.
14. Eutanasia: lagun egiteko animalia bati modu justifikatuean eragindako heriotza, animalien ongizate egokiarekin bateragarria den bizi kalitatea ahalbidetzen ez dion gaixotasun edo lesio bat edukitzearen ondoriozko alferreko sufrimendua hari saihesteko, betiere metodo ez-anker eta ez-mingarriak erabiliz, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.
15. Hilketak: lagun egiteko animalia bati animalien osasun-arrazoiengatik, osasun publikoagatik, ingurumen-arrazoiengatik edo larrialdi- nahiz arriskugarritasun-arrazoiengatik eta ahal den sufrimendurik txikiena dakarten metodoen bidez eragindako heriotza, foru lege honetan ezarritakoaren arabera.
16. Tratu txarra: Sozialki onartezina den jokabidea, nahita animalia bati beharrik gabeko mina, sufrimendua, ondoeza edo heriotza eragiten diona.

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

17. Lagun egiteko animalien zentroak: gune zoologiko gisa erregistratutako establezimenduak, titulartasun publikokoak nahiz pribatukoak, haien xedea denean lagun egiteko animaliak mantentzea, kostu bidez edo dohainik, salbu eta albaitaritzako klinika, zentro edo ospitaleak.

Foru lege honen ondoretarako, definizio horren barruan sartzen dira salmenta-establezimenduak, hazkuntza-zentroak, egoitzak, trebakuntza-eskola edo -zentroak, animalia abandonatuak hartzeko zentroak, kirolerako txakurtegiak, ehiza-txakur saldoak, animaliekiko terapiako zentroak, bilduma partikularrak, baserri-eskolak, santutegiak, erreskate-zentroak, lagun egiteko animaliei aterpea eman eta erregelamenduz zehaztua den beste edozein zentro, eta lagun egiteko animaliekin lotutako jarduera ekonomikoak dauzkaten gune zoologiko guztiak, haien kopurua edozein dela ere.

Bereziki honako hauek ulertuko dira:

a) Salmenta-establezimendua: lagun egiteko animalien zentroa, titulartasun pribatukoa, zeinaren helburua baita salmentarako animaliak aldi baterako mantentzea.

b) Merkataritzaxedea duten hazkuntza-zentroak edo haztegiak: lagun egiteko animalien titulartasun pribatuko zentroa, animaliak ugalketarako mantentzen dituen eta kumeak salmentara edo geroko lagapenera bideratzen dituen.

c) Harrera-zentroa: lagun egiteko animalien zentroa, titulartasun publiko zein pribatukoa, animalien defentsarako elkarteenak barne, animalia abandonatu edo galduen harrera egiten duena.

d) Txakurren trebatzailea: behar den lanbide kualifikazioa daukan pertsona, txakur bat hezten eta trebatzen duena pertsona bati zerbitzu egokia eskaini ahal izateko bete beharko dituen eginkizun desberdinak bete ditzan.

18. Harrera-etxea: bizileku partikular erregistratua eta harrera-zentro baten menpekoa, zeinean animalia abandonatu edo galduak mantentzen baitira haiek behin-behineko zaintzeko, animalia baldintza higieniko-sanitario egokietan zaindu, artatu eta mantenduko dela bermatuz.

19. Katu-kolonia: aske baina giza-ingurune baten menpe bizi den katu-multzoa, espazio publikoetan dagoena baina udalen, udalez gaindiko entitateen edo eskualdeen baimen eta kontrolaren menpean.

20. Albaitari ofiziala: Albaitaritzako lizentziaduna edo graduduna, funtzionario- nahiz lan-araubidean administrazio publiko baten zerbitzura diharduena, agintari eskudunak horretara jarria.

21. Albaitari gaitu edo baimendua: albaitaritzako lizentziadun edo graduduna, agintari eskudunak aitortua erregelamenduz ezartzen diren eginkizunak betetzeko.

## **II. TITULUA** **BETEBEHARRAK ETA DEBEKUAK**

### **6. artikulua. Betebeharrak.**

Animalia baten edukitzazalea edo jabea honako betebeharrak hauek betetzearen erantzulea da:

1. Animaliak tratatzea haien espeziearen, arrazaren eta adinaren arabera, haien beharrezko fisiko eta etologikoak aintzat harturik, haiei honako hauek emanez:

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

- a) Behar adinako arreta, gainbegiratzea, kontrola, heziketa eta zainketak;
  - b) Elikagai eta edari osasungarriak, egokiak eta haien garapen normalerako komenigarriak.
  - c) Gutxienez ere foru lege honetan eta bera garatzeko arauetan ezarritakoa betetzen duten baldintza higieniko-sanitarioak.
  - d) Mugimendu-askatasuna, euste iraunkorreko sistemarik gabe.
  - e) Bizitzeko toki egokia tamainari eta kalitateari dagokienez, ingurune-baldintza egokiek.
  - f) Espezie bakoitzerako kontaktu sozial egokia, adinaren eta jardueraren arabera.
2. Animalia bat edukitzea aurreko apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badira soilik, edo, baldintza horiek beteta ere, animalia itxian bizitzera egokitu ahal bada soilik.
  3. Animalia bat ugalketarako erabiltzerakoan kontuan hartzea haren ezaugarri anatomiko, fisiologiko eta jokabidekoak, kumeen edo emearen osasuna eta ongizatea arriskuan jar dezaketenak.
  4. Animaliak egoki garraiatzea, eta legeria indardunean ezarritako moduan beti, garraioak dirauen bitartean bide-segurtasuna eta animalien erosotasuna bermatuz, baita ibilgailu partikularretan garraiatzen direnean ere.
  5. Animaliei ematea beren ongizaterako eta osasun publikoa zein animalien osasuna babesteko nahitaezko zat deklaraturako tratamendu prebentiboak, bai eta beste edozein motatako albaitarizta-tratamendu prebentibo, aringarri edo sendagarria ere, egoera sanitario ona bermatzeko funtsezkoa dena.
  6. Behar diren neurriak hartzea animalien ugalketa kontrolgabea saihesteko, foru lege honetan araututakoarekin bateragarria den edozein kontrol-metodo erabiliz. Ugalketa kontrolgabetzat jotzen da jabeak nahita ez eragindakoa.  
Beste txakur edo katu batzuekin kontrolik gabeko kontaktua izan dezaketen txakur eta katuek esterilizatuta egon beharko dute.  
Honako animalia hauek ez dira joko beste animaliekin kontrolik gabeko kontaktua izan dezaketen txakurtzat: 5. artikulua 3. eta 3. bis apartatueta definituriko animaliak, baimendutako ehiza-jardueretan edo ehizarako entrenamenduetan parte hartzen ari diren bitartean, edo artzain-txakurrak beren eginkizuna betetzen ari direnean.
  7. Beren animaliak identifikatzea foru lege honetan eta bera garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera.
  8. Animalia baten galera edo heriotza eta animalia baten edo jabearen datu aldaketa oro erregelamenduz zehaztutako epeetan komunikatzea, eta araudi indardunean ezarritako nahitaezko erregistroak gaurkoturik mantentzea. Tratu txarregatik salaketa bat izanez gero, heriotzaren arrazoia albaitari batek identifikatu eta ziurtatu beharko du.
  9. Behar diren neurriak hartzea saiheste aldera animaliak edukitzea edo haien zirkulazioa arrisku edo mehatxu bat izan daitezen, eragozpenak sor ditzaten edo kalteak eragin diezazkieten pertsonen, lagun egiteko edo produkzioko beste animalia batzuei edo gauzei, haiek funtsean ez erasokor eta ez indarkeriazko ez diren metodoen bidez heziz, eta jokabide-aldaketarako teknikak erabiliz albaitari batek egoki jotzeagatik hala agintzen duenean. Bestetik, animaliek ezin izanen dute borroketan parte hartu. Hiri eremu publikoetan, txakurrak uhalez edo katez eraman beharko dira, eta ekidinen da haien eginkariekin bide eta eremu publikoak zikintzea.



10. Agintari eskudunaren edo haren agenteen eskura jartzea eskatzen zaion eta kasuan-kasuan aginduzkoa den dokumentazioa, une bakoitzean beharrezkoa den informazioa lortze aldera lagunduz, eta, oro har, agintari eskudunek egiten dizkioten gomendio guztiak betez.

### **7. artikulua. Debekuak.**

Debekatuta dago animaliekin honako praktika hauek egitea:

1. Animaliei tratu txarra ematea edo haiekin sufrimendu, kalte edo larritasuna justifikaziorik gabe eragin diezaieketen edozein jokabide izatea, modu aktiboan nahiz ez-egitez.

2. Animaliak hiltzea foru lege honetan eutanasiarako edo hilketarako araututakoa urratuz.

3. Animaliak abandonatzea.

4. Animaliei elikadura ez-nahikoa edo desegokia ematea edo elikagai debekatuak ematea, bai eta haiei ur garbia ez ematea ere; animaliak baldintza higieniko-sanitario onik gabeko tokietan edukitzea, eguraldi txarretik babesteko modurik ematen ez dutenetan, dimentsio desegokiak dituztenetan edo, ezaugarriak, distantzia edo beste edozein arrazoi direla eta, animalien arreta, kontrol eta gainbegiratze egokia posible ez den tokietan.

5. Denbora luzez haiek lotuta edo giltzapetuta edukitzea, sufrimenduak edo kalteak eragiteko moduko baldintzetan; edo haiek gizakiarengandik edo beste animalia batzuegandik etengabe isolatuta edukitzea, espezie taldekoeien kasuan. Txakurrak ez dira modu iraunkorren lotuta edukiko; soilik behin edo behin eta denbora batez lotu ahalko dira, arduradunaren gainbegiratzearen pean, halako moduz non loturak ez dien kalterik eginen eta mugitzeko, etzateko, elikatzeo, edateko eta, beharrezkoa bada, estalperatzeko aukera emanen dien.

6. Lagun egiteko animalia baten itxura aldatzeko edo sendaketakoak ez diren beste xede batzuk lortzeko ebakuntzak; bereziki, buztana moztea, belarriak moztea, ahots-kordak ebakitzea eta azkazalak edo hortzak erauztea. Sendaketarako ez diren ebakuntzetan, salbuespena izanen da albaitari batek haiek beharrezkotzat jotzea, dela albaitaritzamedikuntzako arrazoiengatik, dela animalia jakin baten onurarako edo ugalketa eragozteko. Hori adierazita utzi beharko da sendaketarako ez zen ebakuntza egin zuen albaitariaren txosten edo ziurtagiri baten bitartez.

7. Animaliak dohaintzan ematea sari, publizitate-erakargarri edo esker gisa edo kostu bidezko animalia-eskualdaketaz bestelako izaera duten eskuraketengatik opari gisa.

8. Animaliak hemezortzi urtez beherakoei eta ezgaituei saltzea edo haien izenean erregistratzea haien guraso-ahala edo zaintza dutenen baimenik gabe.

9. Salmenta ibiltaria.

10. Laugarren xedapen gehigarrian zerrendatzen diren animaliak –edo, kasua bada, lagun egiteko animalia gisa edukitzea baimenduta dauden animalien zerrendan jasota ez dauden animaliak– edukitzea, erostea, saltzea edo salmentarako erakustea.

11. Hazkuntza eta salmenta, Internet bidezko salmenta barne, behar diren baimenak eduki gabe edo salmenta-establezimendu edo haztegi gisa baimendurik eta erregistraturik egon gabe. Halaber, edozein zerbitzu ekonomiko edo salmenta

#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

argitaratzea, lagun egiteko animalien zentroaren edo gune zoologikoaren erregistrozenbakirik gabe.

12. Animaliei alferrikako kalteak edo oinazeak sortu ahal dizkieten substantziak ematea.

13. Animaliak erabiltzea ikuskizunetan, lehiaketetan, borroketan, animalien arteko aurrez aurrekoetan, jai herrikoietan, beste animalia batzuen harrapaketan eta haien osasuna eta ongizatea arriskuan jartzen dituzten bestelako jardueretan, baldin eta jarduera horiek ankerkeria, tratu txarrak, sufrimenduak, heriotza edo naturaren aurkakoak edo laidogarriak diren tratamenduak barne hartzen badituzte. Salbuespena lanerako animaliak izanen dira, baldin eta baimendutako jardueretan parte hartzean zauriak edo heriotza pairatzen badituzte, halakoak tratu txarraren ondorio izan gabe.

14. Haiek heztea beren oldarkortasuna gara dezaten edo haiek borroketarako prestatzea, bai eta haiek trebatzea edo haiei lan eginaraztea halako moduz non haien osasuna edo ongizatea kaltetuko baita, beren indar edo gaitasun naturalak gaindiarazteagatik edo beharrezkoak ez diren lesio, min, sufrimendu edo larridura eragiten dieten bitarteko artifizialak erabiltzeagatik. Salbuetsita geratzen dira 5. artikuluaen 3. eta 3. bis apartatueta definituriko animaliak haien defentsa-eginkizunei edo ehizarako gaitasunei dagokienez, salbu eta jarduera hori dela-eta justifikatu gabeko lesio, min, sufrimendu edo larridura eragiten bazaie.

15. Animaliak behartzea ikuskizun, jai herrikoi, azoka, erakusketa, lehiaketa, erakustaldi, filmaketa, publizitate-xedeetarako argazki- edo zinemagintza-saioretan edo antzeko beste edozein jardueratan parte hartzera -ehiza-jardueretako azokak, erakusketak edo filmaketak kasu-, halako jarduerak egiteko behar den baimen edo lizentzia eduki gabe.

16. Bide publikoetan dauden erakusleioetan edo aisiarako zein jostetarako lokaletan erakusgai ipintzea haiek, bai eta haiek salmentarako erakustea ere bide publikotik edo merkataritza-establezimenduen barnealdeko korridoreetatik ikusteko modukoak diren tokietan.

17. Animaliak karrusel, ferietako atrakzio edo zirkoetan erabiltzea.

18. Animaliak aparkatutako ibilgailuetan edukitzea bizitzeko toki moduan edo eguraste eta tenperatura egokirik gabe.

19. Animaliak garraiatzea espeziearen berezitasun propioak errespetatu gabe edo horretarako berariaz egokiturik ez dagoen ibilgailu baten maletategian.

20. Abian diren ibilgailu motordunei lotuta eramatea animaliak.

21. Urkatze-lepokoak erabili edo saltzea, ziridunak edo elektrikoak, animalientzat kaltegarri direnak. Lepoko elektrikoak erabili ahalko dira halakoak beharrezkoak diren ale jakin baten trebakuntzan, betiere albaitari edo aitortutako trebatzaile batek hala zehazten duenean.

22. Animaliei tiro egitea edo eraso egitea, suzko, airezko edo gas konprimituzko armekin, baleztekin, arkuekin, arma zuriekin edo haien ongizatea edo bizia arriskuan jartzen duen beste edozeinekin. Salbuetsita geratzen dira foru lege honetan araututako kasu bereziak, bai eta ehiza-espezieak ere baimendutako ehiza-jardueretan.

23. Animaliak edukitzea haiek foru lege honetan eta foru lege hau garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera identifikatuta edo erregistratuta egon gabe.

24. Lagun egiteko animalia moduan edukitzea horretarako debekaturik dauden basa faunako animaliak edo fauna aloktonokoak, salbu eta agintari eskudunak baimendutako gune zoologiko edo parke zoologikoetan.
25. Animaliak giza kontsumorako edo animalien kontsumorako erabiltzea.
26. Animaliak edukitzea beren arduradunek haien gaineko gainbegiratze-kontrol egokia egin ezin duten tokietan. Salbuetsita geratzen dira 5. artikulua 3. eta 3. bis apartatuetan definituriko animaliak, bere jardueraren berezko eginkizunak betetzen ari diren bitartean.
27. Tratamendu, prozedura kirurgiko, zerbitzu edo jarduerak egitea horretarako kualifikazioa edo baimena eduki gabe, hura aurrez edukitzea nahitaezkoa denean.
28. Animaliei sufrimendua edo heriotza eragiten dieten hazkuntza-prozedurak erabiltzea. Horren barnean sartzen da ugalketarako animaliak erabiltzea, haien ondorengoei halako gaixotasun hereditario larriak dituztenak non heriotza goiztiarra eragiten duten, edo ondorioak arintzeko albaitaritzak ebakuntzak egin beharra dakarten.
29. Animaliak artifizialki manipulatzeko salmentarako erakargarri egiteko, jostetarako edo adierazpen artistikorako.

### III. TITULUA

## IDENTIFIKAZIOA, OSASUN KONTROLA, HILKETA ETA EUTANASIA

### 8. artikulua. Identifikazioa.

1. Lagun egiteko animaliak banan-banan identifikatuko ditu albaitari gaitu batek, erregelamenduz garatuko den sistema eta prozedura baten bitartez, espezie bakoitzerako ezartzen denaren arabera.
2. Nahitaezkoa da txakurrak, katuak eta hudoak mikrotxip homologatu batez identifikatzea; mikrotxip horrek Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroak baliozkotutako kode bakarra eramanen du. Esleitutako eta ezarritako mikrotxip-kodea animalia pasaporte ofizialean ageriko da, erregelamenduz ezarritakoari jarraituz. Hala eta guztiz ere, udalek, udalez gaindiko entitateek edo eskualdeek eskatu ahalko dute txakurrak mikrotxipaz gain beste bide batzuez identifikatzea.
3. Lagun egiteko gainerako animalietarako erabiltzen diren identifikazio-bitartekoak espezie bakoitzaren arabera izanen dira; nolana ere, modu frogagarrian bermaturik egonen dira animalia identifikazioa eta haren kokalekua, abandonu edo desagertze kasuetan.
4. Aurreikusitako sistemen arabera identifikatutako animaliak Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan izen eman edo erregistratu beharko dira. Ulertuko da erregistro horretan edo autonomia erkidego batean ofizialki aitortutako beste erregistro batean erregistratuta ez dauden animaliak ez daudela zuzen identifikatuta.
5. Europar Batasuneko beste herrialde batzuetatik datozen txakur, katu eta hudoek beren identifikazio-kodea duen jatorrizko pasaporteari eutsi beharko diote, eta ezin izanen da pasaporte horren ordez identifikaziorako beste dokumentaziorik erabili; hori, halere, ez da eragozpena izanen Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

Erregistroan izen emanda egotea nahitaezkoa izateko, eskuratzen diren une berean, haien ardura hartzen duen pertsonaren –adoptatzailea zein eroslea izan– datuekin batera.

6. Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan alta eskatuko da, animalia jabearen datuak eta jardun duen albaitariaren datuak jasoz, animalia identifikatu eta gehienez ere bost egun balioduneko epean. Baldin eta udalak, udalez gaindiko entitateak edo eskualdeak beste identifikazio-bide batzuk eskatu baditu, kasuko datuak ere erregistroan jasoko dira. Alta identifikazioa egin duen albaitari gaituak ere izapidetu ahalko du.

7. Lagun egiteko animaliak identifikatzeko epea, espeziearen eta adinaren arabera, erregelamenduz zehaztuko da. Hala eta guztiz ere, edozein animalia kostu bidez edo doan eskualdatu baino lehen, nahitaez identifikatuta egon beharko da; hori betetzen ez bada, egindako transakzioa deuseza izanen da.

8. Titularrak edo jabeak Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroari animalia baten titulartasun-aldaketa edo baja eskatuko dio bajaren egunetik edo animalia eraginkorra denetik gehienez ere bost egun balioduneko epean.

9. Hildako animalia bat erretiratzekoan, errepideetan edo bide publikoan, haren identifikazioa egiaztatuko da, eta jabeari abisua emanen zaio, kasua bada. Animalia identifikatuta ez badago, haren argazki bat gordeko da, haren balizko identifikazioari begira.

10. Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan izena emateko betebeharretik salbuetsita geratuko dira beste lurralde batean identifikatuta eta erregistratuta egon eta Nafarroako Foru Komunitatean hiru hilabete baino aldi laburrago baterako dauden animaliak.

### **9. artikulua. Lagun Egiteko Animalien Erregistroa.**

1. Lagun Egiteko Animalien Nafarroako Erregistroa animalien ongizatearen eta identifikazioaren arloan eskuduna den Nafarroako Gobernu departamentuaren menpe egonen da. Erregelamenduz garatuko dira Lagun Egiteko Animalien Nafarroako Erregistroaren kudeaketa, funtzionamendua eta egitura.

2. Erregistroa datu-base informatiko bat izanen da, eta hartan, gutxienez, animaliei eta haien jabeiei buruzko datuak egonen dira jasota. Potentzialki arriskutsuak diren lagun egiteko animaliak ere jasoko ditu, Animalia Potentzialki Arriskutsuak Edukitzeari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legeko 6.3 artikuluari jarraituz, eta izaera dutela adieraziko da.

3. Gaitutako edo baimendutako albaitariak aurreko apartatuan aipatutako datuak haiek erregistroan sartzeko ardura duenari komunikatuko dizkio; halaber, geroztik egiten den edozein aldaketa komunikatuko dio, animalia heriotzari buruzko datuak barne, horren berri izanez gero.

4. Erregistro horretako informaziorako sarbidea izanen dute Foru eta Toki Administrazioek, segurtasun indar eta kidegoek, Nafarroako Albaitarien Elkargoak eta animaliak identifikatzeko gaitutako edo baimendutako albaitariak.

### **10. artikulua. Animalien osasun kontrola.**

1. Animalien ongizatea edo osasuna direla-eta eskuduna den agintaritzak lagun egiteko animalien txertatzea edo nahitaezko tratamendua zehaztuko ditu, eta animaliak isolatzea

#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

erabakiko du baldin eta gaixotasun bat diagnostikatu bazaie edo gaixotasun hori izatearen susmoa baldin badago, haiek zaintzeko, sendaketa-tratamendua emateko edo eutanasia aplikatzeko, beharrezkoa bada.

2. Animalien tratamenduak eta txertatzeak, bai eta nahitaezkoak diren azterketa sanitarioak eta haien aldizkakotasuna ere, erregelamenduz ezarriko dira. Txakur eta katuen kasuan, errabiaren kontrako txertoa nahitaezkoa denez, nahitaezkoa izanen da urtean behin edo bi urtez behin albaitari-bisita egitea osasun-kontrol baterako, zeina dokumentu bidez egiaztatuko baita animaliaaren pasaportearen txertoaren zigilua jarritz eta egoera orokorrari buruzko txostenaren bidez.

3. Albaitariak eta albaitaritzako klinika, kontsultategi zein ospitaleek animalia bakoitzaren datu klinikoen fitxategi bat eduki beharko dute, eta hari eutsi beharko diote gutxienez ere hiru urtez, eta agintari eskudunen esku jarriko dute.

4. Albaitaritzazentroek, establezimendu sanitarioak diren aldetik, detektatzen dituzten eta nahitaez aitortzekoak diren gaixotasunen zaintza epidemiologikoan lagunduko dute, bai eta haien kontrolean ere. Haien susmoa eta diagnosia badaudenean, albaitariak hori animalien ongizatearen edo osasunaren arloan eskuduna den agintariari komunikatu beharko diote, gehienez ere berrogeita zortzi orduko epean. Alerta sanitarioa dagoenean, komunikazio hori 24 orduko gehieneko epean eginen da.

5. Albaitariak animalien ongizatearen arloko agintaritzazentroari eskudunari komunikatuko diote beren lanbidean dihardutela aurkitzen duten edozein aztarna, animalien aurkako tratu txarren ondorio izan daitekeena.

#### **11. artikulua. Osasun publikoko kontrolak.**

1. Pertsona edo beste animalia batzuei lesioak eragin dizkieten animaliak albaitari ofizialaren edo gaitutako albaitariaren kontrolaren pean jarriko dira hamalau egunez, baldin eta lesio horiek, beren ezaugarriak tarteko, errabia transmititzeko modukoak badira, edo arrazoi batzuk identifikatzen badira animalia horrek errabia izan dezakeela susmarazten dutenak. Etxeko animalien errabia kontrolatzeko Espainiako kontingentzia planaren arabera jokatu da.

2. Behaketa epea osasun publikoaren arloko agintaritzazentroari eskudunak adierazitako zentroan emanen da. Jabeak eskatuta, txakur erasotzaile baten behaketa jabearen etxean egin ahalko da.

3. Animalia horiek atxikitzeak eta kontrolatzeak eragindako gastuak jabeek berek ordaindu beharko dituzte.

#### **12. artikulua. Hilketa eta eutanasia.**

1. Animalia baten hilketa albaitari batek edo eskuduna den beste pertsona batek egin ahalko du soilik, animalien ongizatearen eta osasunaren, osasun publikoaren edo ingurumenaren arloko agintaritzazentroari eskudunak behar bezala justifikatutako eta baimendutako larrialdi- edo arrisku-egoeretan. Su-armak erabili behar diren kasuetan, haien aplikazioa segurtasun indar eta kidegoek ezarritakoaren arabera izanen da.

2. Animalia baten eutanasia albaitari batek agindu eta burutuko du, arin eta minik eragin gabe, aldeaz aurreko anestesia parenteral edo sedazioa aplikatuz, animaliaaren erabilpenak sufrimendu gehigarria ekar dezakeenean, eta ahal den sufrimendurik txikiena eta berehalako konorte-galera eragiten duten metodoak erabiliz.

3. Jarduketa-protokoloak ezarriko dira lagun egiteko animalien hilketarako edo eutanasiarako.

#### **IV. TITULUA**

### **LAGUN EGITEKO ANIMALIEN ZENTROAK**

#### **13. artikulua. Baldintza eta betekizun orokorrak.**

1. Honako hauek dira lagun egiteko animalien zentroek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak, animalia baten edukitzaileari dagozkion betebeharez gainera, eta beren sailkapenaren arabera, erregelamenduz ezartzen direnak kendu gabe:

a) Agintaritzza eskudunak baimenduta eta erregistratuta egotea kasuko jarduera egiteko.  
b) Baldintza higieniko-sanitario egokiak edukitzea, bai eta animaliek ariketa fisikoa egin ahal izateko behar adina toki ere, aterpean hartzen dituzten animalien behar fisiologiko eta etologikoen arabera.

c) Instalazio egokiak edukitzea animalia isolatuta edukitzeko, sartzen den unetik zentroko albaitaritzza zerbitzuak haren egoera sanitarioaren irizpina egiten duen arte. Halaber, gaixorik dauden animalien edo zainketa edo mantentze-baldintza bereziak behar dituzten animalien isolamendua ere ahalbidetzea, eta animalia horiek behar den laguntza jaso ahal izatea edo, kasua bada, berrogeialdian jarri ahal izatea.

d) Biosegurtasun-neurri egokiak edukitzea, kanpoko animalien balizko sarrera edo aterpeturiko animalien balizko irteera ekiditeko, hartara animalia egoiliarren eta ingurukoaren arteko kutsatzeak saihesteko.

e) Behar adina langile kualifikatu edukitzea animaliak gobernatzeko, erregelamenduz zehazten denari jarraituz, eta langile horiek haietan aterpetutako animaliei behar diren zainketa guztiak ematea, ikuspuntu higieniko-sanitariotik eta animalien ongizatearen ikuspuntutik, horren barne direla elikadura egokia, eguraldi txarraren aurkako babes, ariketa egitea eta, oro har, haien beharren araberrako arreta, baita zentroa itxita dagoen orduetan ere.

f) Paper euskarrian edo euskarri elektronikoan erregistroak edukitzea, zeinetan gutxienez ere animalien trazabilitatea, jatorria, xedea, gorabehera sanitarioak, albaitaritzza-tratamenduak eta, kasua bada, baje arrazoiak ezagutzeko behar adina datu egonen diren. Erregistro horiek gutxienez ere hiru urtez mantendu beharko dira, eta agintari eskudunaren esku eduki beharko dira.

g) Albaitaritzza-zerbitzu bat edukitzea, programa higieniko-sanitaria, animalien ongizaterakoa eta animalien identifikaziorakoa mantentzeko eta aplikatzeko ardura izanen duena. Nafarroako Gobernu albaitaritzza-zerbitzuei komunikatuko dizkiete nahitaez aitortzekoak diren gaixotasunak.

h) Trebakuntzarako zentro edo eskolek trebakuntza-lanak egiten dituzten langileen lanbide-prestakuntza eta gaikuntza egiaztatu beharko dituzte. Erregelamenduz garatuko dira halakotzat aitortutako trebatzaileak inskribatzeko egiaztatpena eta baldintzak.

2. Animalia abandonatu edo galduak hartzeko zentro publikoek zein pribatuek boluntario-programa berariazkoak eduki ahalko dituzte, bai eta animalien babeserako elkarteekin lankidetzan jardutekoak ere.

#### **14. artikulua. Salmentarako eta hazkuntzarako establezimenduak, merkataritza-xedea dutenak.**

Lagun egiteko animaliak hazten edo saltzen jardun eta merkataritza-xedea duten establezimenduek, aurreko artikuluan xedatutakoaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ez haztea edo saltzea edukitzea debekatuta dauden animaliak, laugarren xedapen gehigarrian zerrendatzen direnak, edo, kasua bada, lagun egiteko animalia gisa edukitzea baimenduta dauden animalien zerrendan jasota ez dauden animaliak.

b) Animalien salmenta egin ahalko da, soilik, lagun egiteko animalien zentro gisa baimendutako eta erregistratutako salmenta-zentroetatik eta haztegietatik.

c) Salmenta-zentroek soilik hazle baimendu eta erregistratuengandik datozen animaliak merkaturatuko dituzte.

d) Establezimenduko langileek erosleri aholkua eman beharko diote animalia mota egokienari buruz, haren ezaugarriei begirata, eta informatu beharko diote lagun egiteko animaliak adoptatzeari buruz, erosleak eskatzen badu.

e) Salmenta-establezimenduetan, animaliak ezin izanen dira erakusgai eduki, foru lege honen 7.16 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ahal dela, katalogoen eta animaliak establezimenduan fisikoki egotea eskatzen ez duten antzeko bitartekoen bidez egin beharko da txakurren eta katuen salmenta.

f) Animaliak hedabideen, aldizkarien eta haien antzeko argitalpenen eta gainerako zabalkunde-sistemen bidez –esate baterako, Internet– saltzeko, iragarkian nahitaez jaso beharko da haztegiak edo salmenta-establezimenduak lagun egiteko animalien zentro gisa duen erregistro-zenbakia, bai eta animalia-identifikazio-zenbakia ere, kasua bada.

g) Haztegiak edo salmenta-zentroak, transakzioa egin baino lehen, egiaztatuko du eroslea ez dagoela animaliak edukitzeko ezgaitua, horretarako Arau-hausleen Erregistroko arduradunari aurrez kontsulta eginda. Erosleri, paper-euskarrian edo bitarteko elektronikoez, animalia-identifikazio-jatorriari, ezaugarriei, zainketei eta erabilpenari buruzko informazio guztia emanen dio, animalia-identifikazio-osasuna bermatzeko, bai eta animalia-identifikazio arduratsuen printzipioei buruzko informazioa ere. Halaber, tratu txarrak eta animalien abandonuak berekin dakartzaten eta foru lege honetan arautzen diren arau-hauste eta zehapenei buruzko informazioa emanen dio. Komunikazio hori eta Arau-hausleen Erregistroko kontsulta egin direla jasotzen duen eta egiaztatzeko bidea ematen duen dokumentazioa gutxienez ere hiru urtez gorde beharko du zentroak.

h) Animaliak osasuntsu, parasitoak kenduta, gaixotasunik batere gabe, nahitaezko txerto guztiak jarrita eta identifikatuta salduko dira, eta erosleri zentroaren izenean ziurtagiri bat emanen zaio, establezimenduko albaitari erantzuleak emana, zeinak animalia-identifikazio-egoera sanitario egokiaren berri emanen baitu eta, txakurren eta katuen kasuan, animalia-identifikazio adina adieraziko baitu, hortzeriaren garapena erreferentzia hartuta.

i) Gutxienez zortzi asteko adina dutela salduko dira txakurrak eta katuek, albaitari batek egindako identifikazio elektronikoen bidez identifikatuta eta animalia-identifikazioaren izenean

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

formalki eta modu efektiboan izen emanda dagoela Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan. Beste herrialde batzuetatik datozen animalien kasuan, haien salmenta ezin izanen da egin kumeek hamalau aste bete baino lehenago. Salmenta-establezimenduek beren instalazioetan ezin izanen dute eduki salmentarako gutxieneko adinetik beherakoa den animaliarik.

j) Behar diren neurriak hartu beharko dira txakurkumeen edo katakumeen sozializazio egokia segurtatzeko, haiek saldu aurretik.

## **V. TITULUA** **ANIMALIA ABANDONATUAK, ADOPTZIOA ETA KATU-KOLONIAK**

### **15. artikulua. Animalia abandonatu eta desagertuak.**

1. Honakoak dagozkie udalei, udalez gaindiko entitateei eta eskualdeei:

a) Beren udal barrutian dauden animalia abandonatu edo galduak jasotzea, eta haiek animalien harrerarako zentroetan sartzea. Horretarako, animaliak jasotzeko zerbitzu iraunkor bat edukiko dute, propioa, mankomunatua zein itundua.

b) Animalien harrerarako zentroak edukitzea, edo harrera-zerbitzua ituntzea Foru Komunitateko Administrazioarekin, beste toki entitate batzuekin, animalien babeserako eta defentsarako elkarteekin edo horretan diharduten beste pertsona juridiko edo fisiko batzuekin.

2. Harrera-zentroek, gehienez ere 24 orduko epean, Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroari komunikatuko diote identifikatutako animalia bat sartu dela, eta epe horretan beharrezko izapideak eginen dituzte jabea berehala aurkitzeko.

3. Jabeak edo baimendutako pertsonak hamar egun balioduneko epea du animalia identifikatu edo identifikatugabe bat berreskuratzeko, jakinarazpena jasozten duenetik kontatzen hasita.

4. Jabeak edo pertsona baimenduak titulartasuna behar bezala egiaztatu beharko du animalia berreskuratzeko, eta animaliak harrera-zentroak jasotzeak eta zentro horretan izandako egonaldia sortutako gastu guztiak ordaindu beharko ditu hura berreskuratu baino lehen, behar izan diren albaitaritza-gastuak eta identifikazio-gastuak barne, animalia identifikatuta ez bazegoen. Kasuko lizentzia aurkeztuko du, baldin eta animalia potentzialki arriskutsu bat bada.

5. Animalia berreskuratu gabe hamar eguneko epea iraganda, animalia hori abandonatutzat joko da, eta adopzioan eman ahalko da animaliak horretarako baldintzak betetzen dituela zentrokoi albaitari erantzuleak zehaztu bezain laster.

### **16. artikulua. Animalien adopzioa.**

1. Nafarroako Gobernuak eta udalek, udalez gaindiko entitateek edo eskualdeek sustapen-neurriak jarriko dituzte abian animalia abandonatuen adopzioa errazteko. Harrera-zentroek une oro sustatuko dute animalien adopzio arduratsua.

2. Pertsona fisiko adindunak izan ahalko dira adoptatzaileak, foru lege honen ez-betetzak direla-eta arau-hauste oso astun batengatik zehatu ez direnak. Arau-hausleen Erregistroari kontsulta eginen zaio jakite aldera ea adoptatzailea ezgaituta dagoen



#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

animaliak edukitzeko, eta egiaztatuko da legeria indardunari jarraituz ebazpen judizial irmo batez ezgaituta ez dagoela.

3. Adopzioa gauzatzeko da titular berriari animalia emanez eta animalia horren jatorriari eta haren ezaugarriei buruzko informazio guztia eta zentroko albaitari erantzuleak emandako ziurtagiri bat eskuratuz; ziurtagiri horretan, animaliak jaso beharko dituen tratamendu, jarraibide eta zainketak deskribatuko dira, bai eta adoptatzaileak bere gain hartzen dituen erantzukizunak ere, ez-betetzeak ekar ditzakeen zehapen-ondorioak edo ondorio penalak barne. Harrera-zentroak eta entitate laguntzaileek gutxienez ere hiru urtez gorde beharko dute komunikazio hori egin izana jasotzen duen dokumentazioa.

4. Adopzioaren xede diren animaliek aginduzkoak diren prebentzio- edo sendaketa-tratamenduak jasota eduki beharko dituzte, identifikatuta eta esterilizatuta egon beharko dute, edo epe jakin batean esterilizatzeko konpromiso bat egonen da, baldin eta arrazoi sanitarioak tarteko adopzioaren uanean gomendagarria ez bada, eta animalia ez ugaltzeko konpromiso bat ere egonen da; agiri horien kopiak zentroan geratzeko dira agintari eskudunaren esku, gutxienez ere hiru urtez. Esterilizazioa albaitariaren ziurtagiri batez demostratu beharko da.

5. Adopzioa ez da inolaz ere merkataritza-transakzioaren xede izanen. Soilik ordainarazi ahalko dira tratamenduen eta albaitaritza-arretaren behar bezala zehaztutako eta justifikatutako kostuak eta identifikazioaren eta esterilizazioaren kostuak, baldin eta hura egin bada. Harrera-zentroek ez dute inola ere zilegi izanen beren instalazioetan animaliak hazi edo ugaltzea, kumeak adopzioan emateko.

6. Harrera-zentro batean dauden animaliek gaixotasun infekzioso-kutsakorrek edo parasito-gaixotasunak dauzkatenean, gizakiari edo animaliei transmititu ahal zaizkienak, eta gaixotasun horiek, zentroko albaitari erantzulearen iritziz, osasun publikorako edo animalien osasunerako arrisku bat izan daitezkeenean, ezin izanen dira adopzioan eman.

7. Harrera-zentroak animalia baten behin-behineko zaintza eman ahalko dio animalia-erantzuleak gisa jardunda haren zainketa, arreta eta baldintza higieniko-sanitarioen mantentzea bermatu ditzakeen pertsona fisikoari. Animalia horiek edukiko diren bizilekua harrera-etxetat hartuko da. Arau-hausteen Erregistroan kontsulta eginen da jakite aldera animalia bat hartzen duen pertsona ezgaituta ote dagoen animaliak edukitzeko.

8. Animalia bat harrera-etxe bati lagatzean, baldintza gisa ezarriko da harrera-zentroari animalia-erantzulearen buruzko edozein gorabehera komunikatzea eta hura berehala entregatzea, baldin eta jabea agertzen bada edo adoptatzaile bat aurkitzen bada.

9. Erregelamenduz ezarriko da harrera-etxe batean gehienez ere zenbat animalia hartu ahalko diren. Harrera-zentroak harrera-etxeen erregistro gaurkotu bat edukiko du animalien ongizatearen arloan eskuduna den Nafarroako Gobernuaren departamentuaren eta kokatuta dauden udalerriri dagokion udalaren, udalez gaindiko entitatearen edo eskualdearen eskura.

#### **17. artikulua. Katu-koloniak.**

1. Udalez, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek, beren udal barrutian aske bizi diren katuen populazioa babestu eta kontrolatzeko neurri gisa, katu-koloniak ezarri beharko dituzte, katu horientzako balizko destino gisa, harrapaketa, esterilizazioaren, identifikazioaren eta askatzearen bidez. Koloniaren zaintzarako eta osasun kontrolerako

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

eskuduna den udalaren, udalez gaindiko entitatearen edo eskualdearen izenean identifikatuko dira animaliak.

2. Udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek katu-kolonien kokalekuak ezarriko dituzte, eta koloniek erregelamenduz ezarriko diren gutxieneko baldintza higieniko-sanitario batzuk eta kokapeneko baldintza batzuk bete beharko dituzte.

3. Udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek partikularrekiko eta entitateekiko lankidetzat sustatuko dute, animalien zaintza errazteko. Kudeaketa, ahal dela, animalien babeserako entitate edo elkarteekin lankidetzan egingen da.

## **VI. TITULUA ENTITATE LAGUNTZAILEAK**

### **18. artikulua. Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteak.**

Irabazi asmorik gabekoak izan eta legez eratuta dauden animalien babeserako eta defentsarako elkarteek, animalien defentsa eta babesa xede nagusitzat izan eta erregelamenduz zehazten diren baldintzak betetzen dituztenek, horretarako sortutako erregistro batean izen emanda egon beharko dute.

### **19. artikulua. Entitate laguntzaileak.**

1. Animalien babeserako eta defentsarako elkartei entitate laguntzaileen titulua eman ahalko zaie, eta haiekin itundu ahalko da animalien babesera eta defentsara bideratutako jarduerak egitea.

2. Entitate laguntzaileen erregistroan izena emateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Legez eratuta egotea eta irabazi asmorik ez izatea.
- b) Jarduera Nafarroan garatzea.
- c) Xede nagusi gisa animalien babesa eta defentsa edukitzea.
- d) Animalien babesa eta defentsa sustatzeko jarduerak egitea.
- e) Harrera-zentro baimendu eta erregistratu bat eduki ahal izanen dute.

3. Erregistroan mantentzeko, aurreko apartatueta ezarritako baldintzak bete beharko dira, bai eta erregelamenduz ezartzen direnak ere.

4. Entitate laguntzaileek:

- a) Aktiboki parte hartu beharko dute animalien babesa eta lagun egiteko animalien edukitze arduratsua sustatzeko prestakuntza- eta zabalkunde-programetan.
- b) Lagun egiteko animalien harrerarako eta adopzioarako programetan parte hartu beharko dute.
- c) Lankidetzan jardun ahalko dute animalia abandonatuen mantentzean edo adopzio-programetan, animaliak aldi baterako edukiz beren harrera-zentroan.

5. Entitate laguntzaileek egindako jardueri buruzko oroitidazki bat igorriko diote urtero animalien ongizatearen arloko agintaritzak eskudunari, erregelamenduz ezarritako erudian.

6. Ezarritako baldintza horiek ez betetzeak berekin ekarri ahalko du entitate laguntzailearen titulua kentzea.

## **VII. TITULUA**

### **ANIMALIEN BABESERAKO A HOLKU KOMITEA**

#### **20. artikulua. Animalien Babeserako Aholku Komitea.**

1. Animalien Babeserako Aholku Komitea sortzen da, kontsultarako eta aholkularitzarako organo gisa. Haren helburua da animalien edukitza arduratsurako eta lagun egiteko animalien aurkako tratu txarraren eta abandonuaren aurka borrokatzeko ekintza nagusiak aztertu eta proposatzea.

2. Animalien Babeserako Aholku Komiteak honako eginkizun hauek izanen ditu besteak beste:

a) Txosten eta irizpenak ematea, bai eta animalien ongizatearen arloko departamentu eskudunak eskatzen dituen azterlanak egitea ere.

b) Arloari buruzko plangintza- eta koordinazio-azterlanak sustatzea.

c) Nafarroako Gobernuari aholku ematea, animalien babesari eta defentsari hobetzerari eta sustatzerari bideratutako araudiak egin edo jarduketak proposatzeko.

d) Araudia garatzerakoan detektatu diren arazo nagusiei eta haiek zuzentzeko balizko neurriei buruzko kontsulta eta berrikuspena.

e) Animalien babesari eta defentsari buruzko aholkularitzarekin lotutako beste edozein jarduketa, erregelamenduz ezarritakoa.

3. Komitearen osara eta funtzionamendua erregelamenduz zehaztuko dira, eta lagun egiteko animalien babesarekin eta ongizatearekin lotutako departamentu, erakunde edo elkarte guztien ordezkaritza bermatuko da.

## **VIII. TITULUA**

### **ANIMALIEN BABESAREN ARLOKO ZABALKUNDEA ETA HEZIKETA**

#### **21. artikulua. Zabalkundea eta prestakuntza.**

1. Nafarroako Gobernuak eta udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek animalien babesari buruzko prestakuntza-, zabalkunde- eta informazio-jarduketak sustatuko dituzte; honako hauek, besteak beste:

a) Behar diren neurriak hartuko dituzte foru lege honen edukien zabalkundea egiteko, animalien edukitze arduratsuari buruzko sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak, animaliak identifikatzeko betebeharrari buruzko zabalkunde-kanpainak, eta animalien ugalketa kontrolgabea eta abandonua saihesteko neurriak hartzeari buruzko kanpainak bultzatuz, bai eta harrera-zentro baimenduetan adopzioak sustatzeko kanpainak eginez ere.

b) Foru lege honen edukuari buruzko zabalkundea eginen dute eskola-ikasleen eta herritarren artean, betiere zainduz animalien babesarekin lotutako edukiak sar daitezela lurralde-eremuan garatzen diren hezkuntza-programetan.

c) Sustatuko dute prestakuntza kanpainak egin daitezela animalien jabe eta edukitzaileentzat, animalien behar etologiko eta fisiologikoekin bat datorren edukitza berma dadin, bai eta animaliek ingurunean errotze eta elkarbizitza ezin hobea lor dezaten ere.

2. Entitate laguntzaile deklaratura dauden animalien babeserako eta defentsarako elkartek eta Nafarroako Albaitarien Elkargoa oinarritzko tresnak izanen dira foru lege honetan ezarritakoaren zabalkunde- eta informazio-lanetan.

## **IX. TITULUA**

### **IKUSKATZEA, ZAINTZA ETA KAUTELA-NEURRIAK**

#### **22. artikulua. Eskumenak eta kontrolak.**

1. Udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek honako hauek egin beharko dituzte:
  - a) Abandonatutako edo desagertutako animaliak jaso, ostatatu eta mantentzeko jarduerak, bai eta katu-kolonien kudeaketa ere. Eskumen hori baliatuta, Nafarroako Gobernuarekin lankidetzeta-mekanismoak ezarri ahalko dituzte, edo itunak egin ahalko dituzte animaliak babestu eta defendatzeko elkartekin edo horretarako baimena duten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin.
  - b) Baldintzak ezarri beharko dituzte lagun egiteko animaliak etxe partikularretan, bizilagunen erkidegoetan eta bide publikoetan edukitzeari buruz, foru lege honetan ezarritako printzipioei jarraituz, bai eta haien kontrolari buruz ere.
  - c) Beren udalerrian erroldatutako lagun egiteko animalien kontrola eta zaintza, egiaztatze aldera zuzen identifikatuta eta erregistratuta daudela, araudiak haiek identifikatzea eskatzen duen kasuetan.
  - d) Lagun egiteko animaliak konfiskatu, baldin eta haiengan tratu txarren aztarnak detektatzen badira, eraso fisiko baten edo desnutrizioaren sintomak agertzen badituzte edo instalazio desegokietan badaude.
  - e) Lagun egiteko animalien zentroak zaindu eta ikuskatu. Eskumen hori baliatuta, lankidetzeta-mekanismoak ezarri ahalko dituzte Nafarroako Gobernuarekin.
  - f) Animalien babesari buruzko prestakuntza-, zabalkunde- eta informazio-jarduerak sustatu.
2. Nafarroako Gobernuak honela banatuko ditu bere eskumenak:
  1. Animalien osasun, identifikazio eta ongizatearen arloko departamentu eskudunak honako hauek egin beharko ditu:
    - a) Subsidiarioki jardunen du udalek, udalez gaindiko entitateek eta eskualdeek jarduten ez dutenean, foru lege honetan xedatutakoaren arabera zaintza eta ikuskapen lanetan.
    - b) Foru lege honetan ezarritako Lagun Egiteko Animalien Nafarroako Erregistroaren kudeaketaz eta funtzionamenduaz arduratuko da.
    - c) Lagun egiteko animalien nahitaezko tratamenduak eta txertatzeak zehaztuko ditu, bai eta haien isolatzea xedatu ere, animalia-osasuneko arrazoiengatik.
    - d) Lagun egiteko animalien zentroak gune zoologiko gisa baimentzea eta erregistratzea, bai eta bete behar dituzten gutxieneko baldintza higieniko-sanitarioak ezartzea, baita katu-kolonien kasuan ere.
    - e) Entitate laguntzaileen erregistroaren eta Animalien Babeserako Aholku Komitearen sorrera eta kudeaketa arautuko ditu.
    - f) Animaliekin ikuskizun, feria, erakusketa, lehiaketa, filmazio eta abarrekoak egiteko behar den baimen administratiboa emanen du.
    - g) Animalien hilketarako edo eutanasiarako protokoloak egingen ditu.

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

h) Animalien babesari buruzko prestakuntza-, zabalkunde- eta informazio-jarduerak sustatuko ditu.

2. Osasun publikoaren arloko departamentu eskudunak osasun publikoaren babesarekin lotutako jarduketak eginen ditu, lagun egiteko animaliekiko kontaktuaren ondorioz pertsonengan eragina izan dezaketean gaixotasun kutsagarrien aurrean.

### **23. artikulua. Ikuskatzaileak.**

1. Ikuskatze-jarduketak Nafarroako Gobernuako animalien ongizatearen, animalien osasunaren eta osasun publikoaren arloetako departamentu eskudunetako langile funtzionarioek eginen dituzte, bai eta udaletako, udalez gaindiko entitateetako eta eskualdeetako funtzionarioek ere, bakoitzak foru lege honetan esleitzen zaizkion eskumenez baliatzearen esparruan. Langile horiek agintaritzaren agenteen izaera edukiko dute, eta agintari eskudunei eta, oro har, eginkizun publikoak betetzen dituztenei –Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko segurtasun indar eta kidegoei ere bai– behar dituzten sostengu, laguntza eta babesa eskatu ahalko dizkiete.

2. Ikuskatzaileek honako hauek egiteko baimena izanen dute:

a) Libreki sartzea, aurrez abisatu gabe, enpresa, establezimendu, ustiategi, instalazio, ibilgailu, edukiontzi edo garraibide edo, oro har, toki guztietan, foru lege honetan agindutakoaren betetze-maila egiaztatzeko. Ikuskatze-bisita bat egitean, nor den frogatu beharko dio titularrari, haren legezko ordezkariari edo, halakorik ezean, kasuko tokian dagoen pertsonari. Ikuskapena pertsona fisiko baten etxebizitzan egiten bada, haren berariazko baimena lortu beharko dute edo, bestela, aginduzkoa den baimen judiziala.

b) Animalien egoera eta foru lege honen betetzea egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen edozein ikerketa-diligentzia, azterketa edo proba egitea.

c) Enpresa, establezimendu, ustiategi, instalazio, ibilgailu, edukiontzi edo garraibidearen titularra edo arduraduna edo haren langileak ikuskapen-jarduketan tokian ager daitezen exigitzea; halaber, haiei informazioa eskatu ahalko diete animalien egoera dela-eta ustez garrantzia izan dezakeen edozein gairi buruz, bai eta ikuskatzeak eskatzen duen lankidetzat aktiboa ere.

d) Animalien edo beste edozein material susmagarriren laginak hartzea, erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituz, araudia betetzen den egiaztatzeko egokitutako jotzen diren proba eta azterketa kliniko edo laborategikoak egiten edo proposatzeko.

e) Animalien identifikazioa, dokumentazioa, liburuak, erregistroak eta artxiboak aztertzea, baita euskarri edo programa informatikoetan daudenak ere, kasuko enpresa, establezimendu, ustiategi, instalazio, ibilgailu edo garraibideari dagozkionak, foru lege honen betetzea egiaztatzeko garrantzia badute.

f) Behar diren kautela-neurriak hartzea, foru lege honetan araututakoari jarraituz.

### **24. artikulua. Ikuskapena egin zaien betebeharrak.**

Ikuskapena egiten zaien pertsona fisiko edo juridikoen betebeharrak hauek izanen dituzte:

1. Ikuskatzaileek establezimendu, ustiategi, instalazio, ibilgailu, edukiontzi edo garraibide edo, oro har, toki orotarako sarbidea izan dezaten ahalbidetzea, ikuskatze-jarduketa egiteko, betiere ikuskatzaileak behar bezalako ikuskatzaile-agiria aurkezten badien enpresaburuari, haren legezko ordezkariari edo behar bezala baimendutako pertsonari edo, halakorik ezean, kasuko tokian dagoen edozein langileri.

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

2. Mota guztietako informazioak ematea instalazio, bitarteko, animalia edo zerbitzuei buruz, bai eta, oro har, animalien babesaren dela-eta eskatzen zaizkien alderdiei buruz ere, eta ikuskatzaileei haiek egiaztatzeko modua ematea.
3. Animalien babesaren arloko informazioaren kopia edo erreprodukzioa egiten uztea.
4. Animalien babesaren arloko araudi indardunaren ez-betetzea frogatzeko diligentziak egin daitezzen uztea.
5. Orokorrean, ikuskapena onartu eta hura gauzatzeko laguntzea.

### **25. artikulua. Kautela-neurriak eta behin-behineko neurriak.**

1. Agintari eskudunek eta, kasua bada, agintaritzako eskudunaren baimena duten ikuskatzaileek, zilegi izan den dute kautelazko behin-behineko neurriak hartzea zioak emanda, urgentzia- edo beharrian-arraziak tarteko, baldin eta ikuskapen edo kontrol batean zehar egindako aurretiazko jarduketetatik ondorioztatzen bada animalientzako arrisku larria dagoela, edo foru lege honen urraketa bat badagoela astun nahiz oso astuntzat jo daitekeena.
2. Animalientzako arrisku larriko egoera bati amaiera emateko kautela-neurriak edo behin-behineko neurriak, zehapen prozedura hasi aurrekoak, honako hauek izan ahalko dira:
  - a) Animaliak konfiskatzea.
  - b) Agintari eskudunak ez ematea legez animaliak garraiatzeko aginduzkoak diren dokumentuak.
  - c) Jarduerak, instalazioak edo garraiobideak etetea edo geraraztea eta establezimenduak ixtea, aginduzkoak diren baimen edo erregistroak ez badituzte.
3. Kautela-neurri horiek ez dute inolaz ere izan zehapen-izaerarik.
4. Kautela-neurriak ikuskapenean edo kontrolean zehar hartuko dira animalientzako arrisku larriko kasuetan eta haien jabe edo erantzuleak, ikuskatzailearen edo agintaritzako agentearen eskariz, arrisku hori saihesteko behar diren bitartekoak berehala jartzen ez dituenen. Neurri hori, halaber, aurrez errekerimendurik egin gabe hartu ahalko da, baldin eta animalia jabea edo erantzulea identifikatzeko edo aurkitzeko epea arrisku-egoera larriagotzeko modukoa bada.
5. Ikuskatzaileek hartzen dituzten kautela-neurriak berehala jakinarazi beharko zaizkio organo eskudunari; horrek, ebazpen ziodun batez, ahal den epe laburrean –edonola ere, epe hori ez da sekula hamar egunetik gorakoa izan, neurria hartu zenetik– haiek berretsi, aldatu edo kenduko ditu, eta, kasua bada, osatu ere egingen ditu, egokitzat jotzen dituen bestelako berme- eta arreta-neurriak ezarriz.
6. Neurri horiek, nolana ere, doitu egingen zaizkie kasu zehatz bakoitzean lortu nahi diren helburuen intentsitate, proportzionaltasun eta beharrian teknikoei.
7. Baldin eta animaliak prozedura horren bitartez konfiskatzen badira, haiek gordailatu eta zaindu ahalko dira Nafarroako Gobernuak edo kasuko udalak, udalez gairik entitateak edo eskualdeak horretarako gaituta dituen edo gaitzen dituen egoitzetan, bai eta entitate laguntzaile gisa aitortutako animalien babeserako eta defentsarako elkarrekin ere, harik eta ebazpenak haien behin betiko destinoa zehazten duen arte.
8. Konfiskatze-eragiketek eta konfiskatutako animalia mantentzeak eta tratamenduek sortzen dituzten gastuak animalia jabe edo erantzulearen kargura izan behar dira betiere.

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

9. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak animalia konfiskatuaren behin betiko destinoa zehaztuko du, eta erabakiko du hura besterentzea, jabe edo erantzuleari itzultzea, bere ingurune naturalera itzulia izatea edo animalia iren izazari berari begira egokitzea jotzen dena.

10. Jabeari edo erantzuleari itzultzea erabakitzen ez den kasuetan, konfiskatutako animaliak horretarako gaitutako instalazioetan zainduko dira, eta, ahal dela, animalien babeserako eta defentsarako elkarte baimendu eta erregistroak lagako zaizkie.

## **X. TITULUA ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPENAK**

### **26. artikulua. Arau-haustek.**

Foru lege honen ondoretarako, arau-haustek arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

1. Honako hauek arau-hauste arinak dira:

- a) Foru lege honek eskatzen dituen erregistroak ez edukitzea, edo haiek osatu gabe nahiz gabeziekin edukitzea.
- b) Lagun egiteko animaliak edukitzea foru lege honetan aurreikusitako baldintzetan identifikatu edo erregistratu gabe.
- c) Lagun egiteko animaliak hemezortzi urteko adinaz beherakoei eta ezgaituei eskualdatzea, guraso-ahala, tutoretza edo jagoletza duten pertsonen baimenik gabe.
- d) Edozein espezieetako animaliak erakusleihu, merkataritza-establezimendu edo aisiarako edo jostetarako lokaletan erakustea.
- e) Udalak, udalez gaindiko entitateak edo eskualdeak baimendutako kopurua gainditzen duen txakurren, katuen edo erregelamenduz zehazturiko beste edozein espezieetako aleen kopuru bat etxebizitza batean edukitzea, kasuko baimena eduki gabe.
- f) Lagun egiteko animaliak baldintza desegokietan edo horretarako bereziki egokitu gabeko maletategietan garraiatzea, animaliek kalterik pairatzen ez badute.
- g) Edozein espezieetako animaliek parte hartzea ferietan, erakusketetan, lehiaketetan, erakustaldietan, filmaketetan, kultur jardueretan edo antzekoetan, kasuko baimena eduki gabe.
- h) Edozein espezieetako animaliak artifizialki manipulatzeko salmentarako erakargarri egiteko, jostetarako edo adierazpen artistikorako.
- i) Lagun egiteko animaliei ez egitea jendetasun- eta heziketa-probarik, animalia iren aiurria eta portaera direla-eta gomendagarria denean.
- j) Lagun egiteko animalia galduak edo abandonatuak biltzeko jarduerak egitea horretarako baimenik ez duten entitate pribatuek.
- k) Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Erregistroan jabeek gaurkoturik ez edukitzea lagun egiteko animalien datuak, eta animalien galera, heriotza, salmenta edo titulartasun-aldaketa ez komunikatzea ezarritako epeetan.
- l) Hiri eremu publikoetan txakurrak uhalez edo katez ez eramatea.
- m) Hiri eremu publikoak zikintzea eta ez garbitzea lagun egiteko animalien eginkari solido edo likidoekin.
- n) Norberaren zaintzaren pean dauden edozein espezieetako animaliek egin ditzaketen kalteak saihesteko behar diren neurriak ez hartzea.

#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

o) Foru lege honetan jasotako aginduen ez-betetzea den edozein egite edo ez-egite, arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat tipifikatuta ez dagoena.

p) Artikulu honen hurrengo apartatuan tipifikatutako arau-hausteetakoren bat egitea, haren zenbateko edo garrantzi eskasa dela-eta arau-hauste astunaren kalifikazioa merezi ez duenean.

2. Honako hauek arau-hauste astunak dira:

a) Edozein espezieta animaliak nahikoa edo egokia ez den modu batez edo debekatuta dauden elikagaiekin elikatuta edukitzea.

b) Edozein espezieta animaliak toki edo instalazio desegokietan edukitzea, baldintza higieniko eta sanitario onak betetzen ez dituztenetan, dimentsio desegokiak dituztenetan edo beren ezaugarriak, distantzia edo beste edozein arrazoi dela-eta haiek egunero egoki kontrolatu eta gainbegiratzerik ez dagoenetan.

c) Edozein espezieta animaliak denbora luzez lotuta edo entzerratuta edukitzea, edo sufrimendu edo kalteak eragin diezazkieten baldintzetan; edo gizakiarengandik edo beste animalia batzuegandik beti isolatuta edukitzea, baldin eta espezie taldekoietakoak badira; eta txakurrak etengabe lotuta edukitzea, hartara foru lege honen 7.5 artikuluan araututakoa urratuz.

d) Lagun egiteko animaliak ez txertatzea edo agintari eskudunek nahitaezkozat deklaraturako tratamenduak ez egitea, bai eta haiek ez esterilizatzea ere, 16.4 artikuluan ezarritako konpromisoa urratuz edo agintari eskudunek erabakitzen dutenean.

e) Albaitari batek egin ez dituen esterilizatzea, txertatzea, tratamenduak edo edozein ebakuntza kirurgiko, edo halakoak foru lege honetan ezarritako baldintzen eta betekizunen aurka egitea.

f) Foru lege honetan ezarritakoaren arabera edo agintari eskudunak agindutakoari jarraituz, lagun egiteko animaliei albaitari-azterketa ez egitea.

g) Lagun egiteko animalien zentroetarako, gune zoologiko gisa, ezarritako baldintzak eta betekizunak ez betetzea, arau-hauste arin gisa tipifikatuta ez dagoenean.

h) Lagun egiteko animaliak haztea edo saltzea foru lege honetan ezarritakoa urratuz.

i) Lagun egiteko animaliak laborategi edo klinikei eskualdatzea arau indardunetan ezarritako betekizunak bete gabe.

j) Edozein espezieta animaliak dohaintzan ematea, zozketa bidez ematea edo sari bidez ematea; edo publizitate-erakargarri moduan, sari moduan edo kostu bidezko transakzioak ez diren eskuratzeez gatik opari moduan ematea.

k) Lagun egiteko animaliak parasitoekin edo gaixorik saltzea, edo gaixotasunik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria eduki gabe.

l) Albaitaritzaren zerbitzu ofizialei ez komunikatzea nahitaez deklaratzekoak diren gaixotasunak, alerta sanitario bat deklaratu ez denean.

m) Edozein espezieta animaliak ferietako atrakzio edo karruseletan eta zirkoetan erabiltzea.

n) Edozein espezieta animaliak modu iraunkorrean edukitzea aparkatutako ibilgailuetan, edo aldi baterako ibilgailuetan edukitzea egurasterik edo tenperatura egokirik gabe.

o) Edozein espezieta animaliak abian den ibilgailu motordun bati lotuta eramatea.



#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

- p) Urkatze-lepokoak, ziridunak edo elektrikoak, erabili eta saltzea, baldin eta lagun egiteko animalientzako kaltegarriak badira, edo haiek erabiltzea foru lege honetan ezarritakoa urratuz.
  - q) Edozein espezieetako animaliei ez ematea nahitaezkoak diren albaitari-tratamenduak, tratamendu aringarriak, prebentzio-tratamenduak edo behar ditzaketen funtsezko tratamendu sendagarriak.
  - r) Behar diren neurriak ez hartzea lagun egiteko animalien ugalketa ez-kontrolatua saihesteko.
  - s) Uztea edo ez eragozteko edozein espezieetako animaliak arrisku bat izan daitezela pertsonen eta animalien osasunerako edo segurtasunerako, edo gauzei kalte materiala eragin diezaietela.
  - t) Lagun egiteko animaliak giza kontsumorako edo animalien kontsumorako erabiltzea.
  - u) Istripua izan duen, zaurituta dagoen edo arriskuan dagoen edozein espezieetako animalia bati laguntzarik ez ematea, laguntza hori norberarentzat edo hirugarrenentzat arriskurik gabe eman daitekeenean.
  - v) Albaitari batek eginkizun batzuk betetzea haietarako gaikuntzarik eduki gabe, edo gaituta egonda ere, gaikuntzan ezarritakoa ez betetzea.
  - w) Lagun egiteko animaliak baldintza desegokietan edo horretarako bereziki egokitutako mailetegitan garraiatzea, animaliek kalteak pairatzen badituzte.
  - x) Hiru urteko epean arau-hauste arin bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu eta jakinarazi denean.
  - y) Hurrengo artikuluan tipifikatutako arau-hausteetatik bat egitea, haren zenbateko eta garrantzi eskasa dela-eta arau-hauste astuna ez denean.
3. Honako hauek arau-hauste oso astunak dira:
- a) Edozein espezieetako animaliei tratu txarrak ematea.
  - b) Edozein espezieetako animalien arteko borrokak antolatzea, eta haiei buruzko publizitatea egitea edo haiek egitea.
  - c) Edozein espezieetako animaliak erabiltzea ikuskizunetan, jai herrikoietan, borroketan, animalien arteko aurrez aurrekoetan, beste animalia batzuen harrapaketan, erasoetan, simulatuta ez dauden eszenen filmazioan edo ankerkeria edo tratu txarra inplikatzeko duten beste jarduera batzuetan, edo animaliei sufrimenduak, naturaren aurkako tratamendu edo tratamendu laidogarriak edo heriotza eragin ahal dizkieten jardueretan, 7.13 artikuluan araututakoari jarraituz.
  - d) Edozein espezieetako animaliak trebatzea edo hezteko beren oldarkortasuna gara dezaten, eta borroketarako prestatzea, borroka egin dezaten akuilatzea edo haiei lan eginaraztea beren osasuna edo ongizatea kaltetzen duen modu batez.
  - e) Edozein espezieetako animaliak abandonatzea.
  - f) Galdutako edo desagertutako lagun egiteko animaliak ez berreskuratzea horretarako ezarritako epean, 15.3 artikuluan araututakoari jarraituz.
  - g) Lagun egiteko animalia bat hiltzea foru lege honetan eutanasiarako edo hilketarako araututakoa urratuz.
  - h) Lagun egiteko animaliei ebakuntza kirurgiko debekatuak egitea, foru lege honetan aurreikusitako salbuespenekin.
  - i) Edozein espezieetako animalia bati sufrimendua edo heriotza eragiten dioten edo eragin ahal dioten hazkuntza-prozedurak erabiltzea; horren barnean sartzen da heriotza behar

#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

baino lehenago eragin dezaketen edo ondorioak arintzeko albaitaritza-ebakuntzak egitea eskatzen duten gaixotasun hereditario larriak dituzten animaliak ugalketarako erabiltzea.

j) Edozein espezieetako animaliei nahita tiro egitea, foru lege honetan jasotako kasuetan izan ezik eta baimendutako ehiza-jardueretan ehizakiei izan ezik.

k) Edozein espezieetako animaliei ematea alferrikako kalteak edo oinazeak sortu ahal dizkieten gaiak.

l) Espainiako Estatuan indarrean diren nazioarteko itun eta hitzarmenen bidez babestuzat edo desagertzeko arriskuan daudela deklaraturako espezieen kasuan, bai eta foru lege honetan berariaz debekatutako animalien kasuan edo, kasua bada, lagun egiteko animalia gisa edukitzea baimendutakoen zerrendetan ez daudenen kasuan, debekatuta dago haien ale, kume, arrautza edo beste edozein atal edo produktu merkaturatzea, saltzea, edukitzea, erakustea eta naturalizatzea.

m) Aktaz edo administrazio ebazpenez behin-behinekoz immobilizaturik dauden edozein espezieetako animaliak garraiatzea.

n) Lagun egiteko animalia baten kontrol sanitarioko neurriak ez hartzea edo ez betetzea, eta agintaritza eskudunari ez komunikatzea transmititu daitekeen gaixotasun bat susmatzen edo diagnostikatzen deneko kasuak.

o) Foru lege honetan ezarritako eginkizunak betetze aldera agintaritza eskudunak edo haren agenteek eskatutako datuak edo informazioa emateari ezezkoa ematea edo horretarako trabak jartzea, bai eta okerreko informazioa edo dokumentazio faltsua ematea ere.

p) Foru lege honen behin-behineko neurrietatik edozein bete dadin oztopatzea.

q) Hiru urteko epean arau-hauste astun bat baino gehiago egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu eta jakinarazi denean.

#### **27. artikulua. Zehapenak.**

Honako hauek dira foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteengatik aplikatuko diren zehapenak:

a) Arau-hauste arinengatik, 200 eta 1.000 euro bitarteko isuna. Arau-hauslearengan intentzionalitatearik aurkitzen ez den arau-hauste arinen kasuan, baldin eta arau-hausle horri bide administratiboan aurreko hiru urteetan foru lege honetan aurreikusitakoetatik beste zehapenik ezarri ez bazaio, zehapena ohartarazpen bat izan daiteke, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera ezar daitezkeen zehapen osagarriak ezertan kendu gabe.

b) Arau-hauste astunengatik, 1.001 eta 6.000 euro bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunengatik, 6.001 eta 100.000 euro bitarteko isuna.

#### **28. artikulua. Zehapen osagarriak.**

Aurreko artikuluan araututako zehapenak ezertan kendu gabe, zehapen-espeditentia ebaztea dagokion organoak honako zehapen osagarri hauek erabaki ahalko ditu:

a) Instalazio, lokal edo establezimenduak gehienez ere bi urtez ixtea, arau-hauste astunen kasuan, eta lau urtez ixtea arau oso astunen kasuan.

b) Aldi baterako debekua edo ezgaitzea foru lege honek araututako jardueretan aritzeko, gehienez ere bi urtez arau-hauste astunen kasuan, eta lau urtez arau-hauste oso astunen kasuan.

#### §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

- c) Animaliak konfiskatzea arau-hauste astunen edo oso astunen kasuan.
- d) Animaliak edukitzeko debekua, gehienez ere bi urtez arau-hauste astunen kasuan, edo betiko arau-hauste oso astunen kasuan, animalia iragindako minaren krudelkeria eta nahita egitea norainokoak diren.
- e) Albaitari gaituaren aitortza kentzea.

#### **29. artikulua. Zehapenen mailaketa.**

1. Zehapenak ezartzerakoan, behar den oreka gordeko da arau-haustea sortu duen egintzaren larritasun benetakoaren eta ezartzen zaion zehapenaren artean. Honako irizpideak hartuko dira bereziki aintzat zehapena mailakatzeko:
  - a) Nahita egitea.
  - b) Animalien babesari, animalien sanitateari, osasun publikoari edo ingurumenari eragindako kaltea edo arriskua, edo ukitutako animalia-kopurua.
  - c) Berrerorketa, urtebetean, animalien babesari buruzko araudia behin baino gehiagotan hausteagatik, bide administratiboan horrela deklaratu denean, ebazpen irmo baten bidez.
  - d) Arau-hauslearen kargua edo eginkizuna, edo jardueraren ezagueraren maila, haren lanbideagatik eta haien ikasketengatik.
  - e) Hausleak agintari eskudunari lagundu dion ala ez gertaerak argitzen eta babespeko ondasuna lehengorutzen.
  - f) Jokabide berean arau-haustek pilatu direnean.
2. Bi urteko epean berreroriz gero edo araua hautsiz gero, zehapenaren zenbatekoa ehuneko 50 gehituko da. Epe horretan bi aldiz gehiago berreroriz edo hautsiz geroz, gehitzea ehuneko 100ekoa izanen da.
3. Ekintza berean bi arau-hauste administratibo edo gehiago pilotzen badira, arau-hauste larrienari dagokion zehapena ezarriko da, erdiko edo goiko mailan.

#### **30. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.**

1. Animalien babesaren arloko arau-hauste arinek urtebeteko epean preskribatuko dute; astunek, bi urteko epean; eta oso astunek, hiru urteko epean.
2. Arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenek urtebeteko epean preskribatuko dute; larrien ondoriozkoek, bi urteko epean; eta oso larrien ondoriozkoek, hiru urteko epean. Zehapenaren gaineko ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik aurrera hasiko da epea kontatzen.
3. Arau-hausleen Erregistroa sortuko da, eta hartan jasoko da animaliak edukitzeko edo animaliekin jarduerak egiteko ezgaitzea. Erregistro hori kontsultatuko da animalia baten salmenta edo adopzioa baino lehen. Erregistro horrek izatera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian xedatutakoa beteko du.

#### **31. artikulua. Erantzukizun penala.**

1. Foru lege honetan araututakoaren aurkako arau-hauste administratiboa delitua izan badaiteke, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, espedientea irekita, jurisdikzio eskudunari jakinaraziko dizkio egitate horiek.
2. Prozedura penal bat hasita, zehapen prozedura administratiboa bertan behera utziko da haren ebazpen irmorik ez dagoen bitartean.

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

3. Ezin ezarriko da behin ere zehapen administratiborik prozesu penal batean kondena eragin duten gertaerengatik; bai, ordea, kondena eragin ez duten beste gertaera batzuenengatik.

### **32. artikulua. Zehapen-eskumena eta prozeduraren ebazte-epea.**

1. Lagun egiteko animaliekin eginiko arau-hausteengatik zehapen prozedurak abiatzeko eta ebazteko eskumena arau-haustea gertatzen deneko udalei dagokie. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organoek subsidiarioki baliatu ahalko dute zehapen-ahalmena artikuluko honetan ezarritako moduan.

2. Udalak, udalez gaindiko entitateak edo eskualdeak bere eskumenekoa den zehapen-ahalmena baliatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak falta badituzte, Nafarroako Gobernuako organo eskudunak, berariaz onartuta, baliatu ahalko du ahalmen hori, horri buruzko eskaera arrazoidunaren ondoren.

3. Nafarroako Gobernuako arloko departamentu eskudunak arau-hauste bat egin dela jakiten duenean, toki entitate eskudunari emanen dio horren berri, kasuko zehapen-espeditentea hasteko borondatea berariaz adieraz dezan. Hilabeteko epean erantzuten ez badu edo aukera horri berariaz uko egiten badio, zehapen-eskumena departamentu horrek baliatuko du.

4. Zehapen-ebazpena egin eta jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, zehapen-prozeduraren hasiera-datatik kontatzen hasita.

### **33. artikulua. Zehapenetatik datozen diru-sarreraren zertarakoa.**

Toki administrazioek eta administrazio autonomokoak foru lege honetan bildutako arau-hausteengatik zehapenetatik datozen diru-sarrerak baliatuko dituzte animalien babesaren sustatzeko xedea duten jarduketetarako, erregelamenduz garatzen den moduan.

### **Lehen xedapen gehigarria. Ekoizpenerako animalien babesaren.**

Ekoizpenerako animaliei aplikatzeko izanen zaie foru lege honen 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitako betebeharren eta debekuen araubidea, 6.6 artikuluan eta 7.2, 7.6, 7.10, 7.11, 7.21, 7.24 eta 7.25 artikuluan araututakoa izan ezik.

Halaber, aplikatzekoak izanen zaizkie 26. artikuluan tipifikatutako arau-hausteak, baldin eta haietan jasota ageri bada arau-hauste hori edozein espezieetako animaliei aplikatzen zaiela, bai eta 27. artikuluan jasotako zehapenak ere.

Hori guztia eginen da ezertan kendu gabe ekoizpenerako animaliei buruzko arau berariazkoa aplikatzea, animalien ongizatearen, animalien sanitatearen eta animalien identifikazioaren ondoreetarako.

### **Bigarren xedapen gehigarria. Animalia potentzialki arriskutsuak.**

Animalia potentzialki arriskutsuei, foru lege honetan xedatutakoaz gainera, animalia mota horretarako onetsitako berariazko araudia aplikatuko zaie.

### **Hirugarren xedapen gehigarria. Laguntza-txakurrak.**

Laguntza-txakurrei, foru lege honetan xedatutakoaz gainera, haiei buruzko araudi berariazkoa aplikatuko zaie, gaur egun Ezgaitasuna duten pertsonak, laguntza-txakurrekin daudenean, gune irekietan eta mugatutako beste gune batzuetan sartu, ibili

## §2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

eta egoteko askatasuna arautzen duen otsailaren 2ko 3/2015 Foru Legean jasota dagoena, edo hura ordeztzen duen arauan jasotakoa.

### **Laugarren xedapen gehigarria. Animaliak edukitzeko debekua.**

1. Debehatuta dago honako animalia hauek parke zoologiko erregistratuetatik edo agintaritza eskudunak berariaz baimendutako gune zoologikoetatik kanpo edukitzea:

a) Artropodoak, arrainak eta anfibiaok: Haien hozkada edo pozoia pertsonen eta animalien integritate fisikorako edo osasunerako arrisku larria denean.

b) Narrastiak: Espezie pozoitsu guztiak, krokodiloak eta kaimanak, bai eta helduaroan bi kilogramoko edo hortik gorako pisua duten espezie guztiak ere, kelonioak izan ezik.

c) Ugaztunak: Primate guztiak, bai eta helduaroan hamar kilogramoko edo hortik gorako pisua duten basa espezie guztiak ere, espezie haragijaleen kasuan izan ezik, horietan muga bost kilogramokoa izanen baita.

d) Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan jasotako animaliak.

2. Animalia potentzialki arriskutsuei buruz ezarritakoa gorabehera, aurreko puntuan aipatutako animalia-espezieak ez dira inolaz ere pertsonekin batera biziko lagun egiteko animalia moduan.

3. Jabeek eutsi ahaliko diete 1. apartatuan jasotako animalia-espezieetako aleei –foru lege honek indarra hartu aurretik lagun egiteko animalia moduan erositakoei–, baina edukitze horri buruz informatu beharko diote animalien ongizatearen arloko departamentu eskudunari, gehienez ere foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean. Animaliek zuzen identifikaturik egon beharko dute, eta jabeek animaliak segurtasunaren, babesaren eta animalien sanitarearen arloko baldintza egokietan edukitzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko du. Halakoak nahigabe aske geratuz gero, berehala informatu beharko dute horri buruz, eta ezin izanen dituzte ale horiek ez merkaturatu, ez ugaltu ez eta beste partikular bati laga ere.

4. Lagun egiteko animalia moduan edukitzea baimenduta dauden espezieak aipatzen dituzten animalien zerrenda positiboek dagokienez, Nafarroako Foru Komunitatean edo nazio mailan arautzen dena aplikatuko da.

### **Bosgarren xedapen gehigarria. Basa animalia autoktonoak edukitzea.**

1. Agintari eskudunaren berriazko baimenik eduki gabe, debehatuta dago espezie autoktonoetako animaliak edukitzea, ehiza espezieetakoak barne, bai gune zoologikoetan bai eremu partikularrean ere.

2. Basa animaliak itxian edukitzeko, haien legezko jatorria frogatu beharko da; horretarako, jarraituko zaio araudi sanitarioan, merkataritzakoan zein naturaren kontserbazioari buruzkoan eta kasuaren arabera aplikatzekoa den gainerakoan ezarritakoari.

3. Nahitaezkoa izanen da animalia horiek banaka identifikatzea mikrotxip batez, identifikazio-uztai batez edo beste edozein sistema erabiliz, erregelamenduz ezartzen den prozedurari jarraituz.

4. Ez da baimenik emanen gizakiak eduki dituen animaliak ingurune naturalean askatzeko, agintaritza eskudunak berariaz baimendu ezean.

**Seigarren xedapen gehigarria. Hiri-hegaztien populazioen gaineko kontrola.**

Udalek, udalez gaidiko entitateek eta eskualdeek hiri-hegaztiak kontrolatzeko programak egin ahalko dituzte, animaliei sufrimendurik edo kalterik eragiten ez dieten metodoak erabiliz. Erregelamenduz ezarriko dira baimendutako metodo edo prozedurak.

**Zazpigarren xedapen gehigarria. Lagun egiteko animaliak titulartasun publikoko egoitza-zerbitzuetan.**

Nafarroako Gobernuak sustatuko du titulartasun publikoko egoitza-zerbitzu guztietan, beren ezaugarriengatik zerbitzu horiek horretarako bidea ematen badute, pixkanaka berma dadila lagun egiteko animalia bat daukaten pertsona guztiak beren animaliekin egon ahal daitezela egoitza horietan.

**Lehen xedapen iragankorra. Departamentuen egiturak egokitzea.**

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak bere departamentu-egiturak eta aurrekontu-partidak egokituko ditu foru lege honetan xedatutakoa eraginkortasunez betetzeko. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan bermatuko da behar adina finantza-baliabide badaudela foru lege honek toki entitateei eta Nafarroako Gobernuari esleitzen dizkien betebeharrak garatu eta betearazteko. Nolanahi ere, animalien ongizatearen arloko departamentu eskudunaren plantilla organikoa handitu egin beharko da, plantillaren aldaketa baten bidez, “Animalien Ongizatearen Atala” izeneko unitate organikoa sortzeko; foru lege honetan ezarritakoa betearazi, koordinatu, kontrolatu eta garatzea izanen da unitate horren egitekoa.

**Bigarren xedapen iragankorra. Erregelamendu bidezko garapena.**

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honen erregelamenduzko garapena egiteko; foru legeak indarra hartzen duenetik urtebeteko epean egin beharko da garapen hori.

**Hirugarren xedapen iragankorra. Udal ordenantzen onespena.**

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako udalek, udalez gaidiko entitateek eta eskualdeek arlo honetako beren ordenantzak egokituko dituzte foru lege honen xedapenetara.

**Laugarren xedapen iragankorra. Lagun egiteko animaliak identifikatzea eta txertatzea.**

Lagun egiteko animalien identifikazioarekin eta txertatzearekin zerikusia duten alderdien erregelamenduzko garapena egin bitartean, indarrean mantenduko dira alderdi horiek arautzen dituzten arauak; hau da, Nafarroako Foru Komunitatean txakurren identifikazioa arautzen duen azaroaren 9ko 370/1992 Foru Dekretua garatzen duena eta Osasuneko kontseilariaren 1994ko irailaren 19ko Foru Agindua, errabiaren aurkako txertatzea arautzen duena eta Nafarroako Foru Komunitatean txakurren identifikazioa arautzen duen azaroaren 9ko 370/1992 Foru Dekretua garatzen duena.

§2.4.- 19/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

**Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe gelditzen dira Animalien babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten edo harekin kontraesanean dauden edo bateraezinak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena. Indarra hartzea.**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen denetik hiru hilabetera.

## **§2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroako Fundazioei buruzkoa<sup>546</sup>**

### **HITZAURREA**

#### 1

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berriak, zeina martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bidez onetsi baitzen, 44., 45., 46. eta 47. legeetan arautu zituen fundazioak, baliaturik Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 48. artikuluan Nafarroari foru zuzenbide zibilaren arloan berariaz aitortzen zaion eskumen historiko eta eskusiboaz. Halaber, lege organiko horrek berak 44.20 artikuluan xedatzen duenez, Nafarroak eskumen eskusiboa du Nafarroako Foru Zuzenbideko arauari jarraikiz eratutako fundazioei dagokienez.

Horrez gain, lege organiko horren 45. artikuluan ezartzen da Nafarroak, bere foru araubidearen kariaz, "... bere zerga-araubideari eusteko eta hura ezarri eta arautzeko ahalmena du, kasuko hitzarmen ekonomikoan xedatzen dena deusetan ukatu gabe. Hitzarmen horrek errespetatu beharko ditu 1969ko Hitzarmen Ekonomikoaren Atariko Tituluaren barnean dauden printzipioak eta lege organiko honen 1. artikulua aipatzen duen elkartasun printzipioa".

Eskumen horiek garatzeko onetsi zen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duena. Haren xedea da Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren 44. legearen babesean eratutako fundazioei aplikatu beharreko tributu araubidea ezarri eta erregulatzea.

Foru lege horrek xedatu zuen bertan arautzen diren zerga onurez baliatu ahal izateko baldintza zela bere aplikazio esparruko fundazioak erregistratu beharra, eta horretarako onetsi zen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Fundazioen Erregistroaren Egitura eta Funtzionamendua arautzen dituen.

Halere, apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea onetsi ondoren, hau da, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa (Foru Berria) aldatu eta eguneratzen duen araua, aldaketa funtsezkoa gertatu da fundazioen araubide juridikoan, zehazki foru legeak 2019ko urriaren 16an indarra hartu zuenetik.

Foru Berria aldatzen duen arauaren zioen azalpenean jasota dagoenez, fundazioek araubide berria izanen dute, Konstituzioaren 34. artikuluan ezarritakora guztiz egokitzeko asmoarekin. Orobat, zioen azalpen horretan halaber adierazten den bezala, Foru Berria zuzenbide pribatuaren konpilazio bat denez, eta interes orokorreko fundazioek zuzenbide publikoaren arlokoa den alderdi garrantzitsu bat dutenez, egokiagoa da horiek lege berezi batean arautzea. Horrela, argi uzten da fundazio izan daitezkeela interes orokorreko helburuei atxikiriko ondareak soilik, Konstituzioan xedatzen den bezala; eta, beren nortasun juridikoa eskuratzeko, galdakizun modura

---

<sup>546</sup> Ikus 10/1996 Foru Legea, uztailaren 2koa, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duena, eta 104/2022 Foru Dekretua, azaroaren 30ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Fundazioen Erregistroa eta haren eskumeneko prozedurak.



## §2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa

ezartzen da, etorkizuneko lege berezian arautuko diren baldintzak betetzeaz gain, ezinbestez publikotasuna eman behar zaiela Fundazioen Erregistroan inskribatuz. Zioen azalpenean adierazitako ildotik, Foru Legeak lege bakarra mantentzen du Foru Berrian fundazioentzat, 42. lege berria hain zuzen, zeinak xedatzen baitu “interes orokorreko xedeetarako diren fundazioak haiei buruzko lege berezian xedatutakoari jarraikiz eratu beharko dira, eta nortasun juridikoa lortuko dute eraketa-egintza kasuko Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik. Bestalde, azken xedapenetako bigarrenean, ezartzen du botere exekutiboak eta legegileak legegintzako ekimenaz baliatu beharko dutela lege berezi bat onesteko, fundazioen araubidea Konpilazioaren testu berrira egokituko duena.

### 2

Konpilazioaren aldaketa egin arte, 44. legetik 47. legera bitartekoek jasotzen zuten fundazioen araubidea. Lege horietan zeuden araututa fundazioen eraketa, fundazioa fundatzailearen borondatearen menpe egotea, patronatuaren ahalmenak, fundatzaileak ahalmena izatea fundazioa esku-hartze administratibo orotatik salbuesteko, ondasunen itzulketa eta fundazioen azkentzea.

Nafarroako fundazioen araubidea zuzenbide substantibo batek osatzen zuen, zeina, balio handikoa izanik ere, oso espezifikoa eta edukiz oso urria baitzen, halako moldez non ez baitziren erantzuten entitate horiek gaur egungo errealitatean dituzten behar, aurreikuspen eta garapenari.

Araubide horren osagarria zen lehen aipatutako uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, fundazioen eta babes jardueren tributua araubidea erregulatzen duena. Hori dela eta, foru lege honek jasotzen du, Foru Berriaren arabera eraturako fundazioetan aplikatzekoak diren tributua arloko xedapenak ez ezik, haienzako egiazko araubide substantibo bat ere. Nolanahi ere, araua aplikatzen zitzaizkien fundazioei baldin eta erregulatzen zituen zerga onurak bereganatu nahi bazituzten.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa (Foru Berria) aldatu eta eguneratzen duen apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legeak egindako aldaketaren ondotik, beharrezkoa da foru lege berezi bat onestea, dagoen araudia Forura egokituko duena eta Foruaren 42. legearen babesean eraturako fundazio guztiei aplikatu beharreko araudi substantiboa bilduko duena, fundazio horiek tributua araubide bereziaren aplikazioa eskatu nahiz ez. Araubide berri honetarako, beharrezkoa da indargabetzea uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean jasotako tributuen arlokoak ez diren xedapenak, eta indarrean jarraituko du, berriz, tributua araubideari berez dagokion zatian.

Azaldutakoagatik, foru lege berriak fundazioen aruketa substantibo osoa egiten du, eta egitura hau hartzen du: 68 artikulua, hiru titulutan banatuak; bi xedapen iragankor; xedapen indargabetzaile bat, eta hiru azken xedapen.

### 3

I. tituluak, “Kontzeptua, sorrera eta bilakaera juridikoa” izenekoak, hiru kapitulu ditu. I. kapituluaren fundazioei buruzko xedapen orokorrak biltzen dira. Esparru horretan, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak egiten duen bezala, xedatzen da araua aplikatzen zaiela Foru Berriaren arabera eraturako fundazioei, baina berdin delarik tributua araubide

berezia eskatzen duten edo ez, uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legeak horretara behartzen bazuen ere.

Berritasun nagusia, Foru Berriaren aldakuntzan ezarritakoa, fundazioek nortasun juridikoa eskuratzeko modua da, hemendik aurrera beharrezkoa izanen baita eratze-egintza Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzea. Alegia, jada ez da aski izanen haiek eskritura publikoan eratzea, aldakuntzaren aurretik behartuta zegoen ez bezala; baizik eta, fundazioak erabateko indar juridikoa izateko, beharrezkoa izanen da Erregistroan inskribatuta egon dadila aurretik, berdin delarik entitate hauetarako aurreikusitako zerga onurak ere eskatzen dituen edo ez dituen eskatzen.

Helburuei dagokienez, foru legeak premisa gisa ezartzen du fundazioak interes orokorreko helburuetarako eratu behar direla nahitaez, eta helburu horien zerrenda zabal eta xehakatuagoa jasotzen du, horien artean sartuz, besteak beste, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, irisgarritasun unibertsalaren sustapena eta pertsonen integrazio osoa eta berdintasuna eragozten dituzten oztopoen desagerrarazpena, garapen teknologikoa eta informazioaren gizartea sustatzea, enplegu betea eta lanbide arloko aukera-berdintasuna, kulturaren zabalkundea eta kultur ondarearen defentsa. Ahalegintzen da erantzuna ematen egungo nafar gizartearen premia, kezka eta gabezieta batzuei.

Nabarmendu beharreko beste berritasun bat, kontzeptuak argitu beharren ondoriozkoa, fundazioen jardueren onuradunak eta haien hartzaiak bereizteari dagokiona da. “Hartzaiak” dira fundazioaren helburuen arabera bere jardueren xede diren pertsonak osaturiko populazio-partea. “Onuradun” dira, berriz, hartzaiak diren pertsonetatik nahiz pertsona-taldeetatik fundazioaren jardueren onuradun gertatzen direnak azkenean, inpartzialtasunaren, diskriminazio ezaren eta objektibotasunaren irizpideak betez egindako hautapen prozesua bukatu ondoren.

Fundazioen izenari dagokionez, eta euskararen erabilerean gaineko arauak aplikatuz lehenago ere onartu ohi zen arren, berariaz ezartzen da posible dela “Fundazio” hitza nahiz “Fundación” hitza erabiltzea.

II. kapituluaren arabera dira fundazioaren eraketa eta eratze-aktaren nahiz estatutuaren edukia, Nafarroan indardun den araudian zehazturikoen oso antzeko zertzeladekin.

Berritasun gisa gehitzen da “inskribatzeko dauden fundazioen” egoeraren arauak. Halakotzat jotzen dira eskritura publikoan eratzeko Erregistroan inskribatzen diren arterainoko aldiak dauden fundazioak. Horiei buruz ezartzen da fundazioa ez inskribatzearen balizko ondorioak bere gain hartuko dituela inskribatzeko betebeharraren legezko erantzukizuna duenak.

Halaber azpimarratzeko modukoa da ezen, fundazioei buruzko beste araudi batzuek ez bezala, Nafarroako foru legearen hautua dela uztailearen 2ko 10/1996 Foru Legean jadanik araututako sistema mantentzea, zeinak ez baitu gutxieneko kopururik ezartzen hasierako zuzkidurarako. Horrela, xedatzen da hasierako zuzkidura behar bezalakoa eta behar adinakoa izan behar dela, eta fundatzaileek baldintza horiek betetzen dituztela frogatu beharko dute fundazioaren lehenbiziko urterako jardun programa eta bideragarritasun-azterlan ekonomikoa bat aurkeztuz. Bi elementu horiek eratze-egintzaren parte izan beharko dira.

III. kapituluaren arabera dira estatutu-aldaketa eta fundazioaren azkentze eta likidazioa, eta ex novo erantzen da fundazioen bat-egitearen eta zatiketaren araubidea.

II. tituluak, “Funtzionamendua eta Araubide Ekonomikoa” izenekoak, bi kapitulu ditu. I. kapituluan Fundazioaren gobernua arautzen da. Patronatua da organo nagusia eta kide anitzeko organo gisa antolatzen da, bere gain hartuz Fundazioaren gobernua, administrazioa eta ordezkariak. Xehetasunez arautzen da haren osaera, patronatuko kide izateko betebeharrak, izendatzeko modua, bateraezintasun kasuak, onartzeko eta uko egiteko modua, karguaren doakotasuna, haren eginkizunak eta, azkenik, kargualdien iraupena eta egoerak (kargu uztea, etetea, ordeztea, hutsik dauden karguak).

Aurrenekoz ezartzen dira zer ondorio dituen eta zer egin patronatuak behar adinako kide ez dituenean, estatutuetan edo foru lege honetan ezartzen den gutxieneko kopurua alegia. Fundazioei buruzko beste arau batzuetan ez bezala, foru lege honetan ere mantentzen dira patronatuko kide karguaren doakotasuna eta bateraezintasuna fundazioari edozein motatako zerbitzuak ordainduta ematearekin. Uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ere hala zegoen jasota.

Patronatuaren ahalmenen zerrenda zehatza ematen da, patronatua fundazioaren organo nagusia delakoan eta, horrenbestez, ahalmen garrantzitsuenak bere baitan biltzen dituelakoan, funtsezko erabakiak eta akordioak hartuz betetzen dituenak fundazioaren helburuak lortze aldera. Halere, ez da “numerus clausus” bat, zeren fundazioek, pertsona juridiko pribatuak diren aldetik, bestelako ahalmenak ere ezartzen ahalko baitituzte, autoantolaketarako duten ahalaz baliatuz, eta ahaztu gabe inola ere patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkariak organoa dela.

Nolanahi ere, foru legeak fundazioen beharrak ere aintzat hartzen ditu, gizarte moderno eta dinamiko batean bestelako organoak eta autoantolaketarako bideak behar dituztelako, fundazioaren lana eraginkorra izanen bada; horrenbestez, legeak jasotzen du estatutuetan beste organo batzuk, haien izaera eta patronatuarekin duten harremana arautzeko aukera, hura baita fundazioaren organo nagusia.

Azkenik, kapitulu honetan foru legeak egungo aurrerapen teknologikoak kontuan hartu eta beste aukera bat aurreikusten du, alegia patronatuak bilera telematikokoak egin ahal izatea, kideak toki desberdinetan egonda, baldin eta baldintza batzuk betetzen direla ziurtatzen bada.

II. kapituluan ezartzen da zein diren fundazioek jarduteko betebeharrak eta haien araubide ekonomikoa. Kapitulu hau bi ataletan antolatuturik dago: lehenbizikoan arautzen da onuradunen hautaketa eta bigarreanean araubide dokumental eta ekonomikoa.

Araubide ekonomikolari dagokionez, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean jasotako arauak mantentzen dira, operatiboak direla frogatu delako; horren salbuespen bakarra da, halere, araubidea fundazio guztiei aplikatuko zaiela, ez bakarrik tributu araubide berezia lortua zutenei.

III. tituluak, “Esku-hartze administratiboa” izenekoak, hiru kapitulu dauzka.

I. kapituluan Nafarroako Fundazioen Erregistroa arautzen da. Lehenago azaldu bezala, beritasun nagusia da erregistro horretako inskripzioa konstitutiboa dela Foru Berriaren aldatetarik indarra hartu zuenez geroztik.

Horrez gain, beste beritasun aipagarri batzuk dira erregistroaren funtzionamendua zuzentzeko printzipioen zerrenda, teknologia berriak erabiltzen laguntzeko betebeharrak,

## §2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa

bai prozeduren kudeaketan bai herritarrekin eta fundazioekin duen harremanean. Ondorio horietarako, foru legeak hartu duen bidea da sustatzea, batetik, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa txertatuko den informazio sistema bat sortzea, eta, bestetik, koordinazio, lankidetzeta eta elkarlan harremanak ezartzea fundazioen beste erregistro batzuekin eta notariotzekin eta notarioen elkargoekin, zein bere eginkizunak betetzean efizienteagoak eta eraginkorragoak izateko.

Bukatzeko, kapituluak arautzen ditu erregistroaren eginkizunak, inskribatu beharreko egintzak eta erregistroaren publizitatea, baina gai horiek zehatzago garatu beharko dira aurrerago erregelamendu bidez.

II. kapituluan biltzen dira babesletzari buruzko xedapenak; izan ere, aurrenekoz ezartzen da babesletza nahitaezko izaeraz fundazio guztientzat, dagoeneko erregistraturik daudenak barne. Kontuan hartuz horrek fundazioen esparruan jauzi kualitatiboa dakarrela Foru Komunitateari dagokionez, foru legea aldentzen da fundazioei buruzko beste arau batzuetatik eta diseinatzen duen babesletzak, erakunde horren funtsezko oinarri guztiak biltzen baditu ere, ez du gehiegizko esku-hartzerik fundazioan, haren eginkizuna mugatzen baita gai batzuetara, zeinak funtsezkoak baitira hain zuzen ere fundazioek beren lana bete dezaten fundazioen zuzenbidearen muina errespetatuz eta fundaziorako eskubidearen erabilera egokia dela bermatuz, bai eta fundatzaileen borondatea eta fundazioaren helburuak egiaz betetzen direla ere.

Babesletzak eginkizun horiek bete ditzan, foru legeak patronatuek hartutako akordio eta erabakiak komunikatzeko sistema bat ezartzen du, haien garrantziaren arabera; aurreikusten du, halaber, muturreko egoera batean, fundazioan aldi baterako esku hartzeko aukera, agintaritzaren judizialari eskaera egin ondoren, kudeaketa ekonomikoaren irregulartasun larri batek arriskuan jartzen badu fundazioaren biziraupena bera, edo fundazioaren helburuen eta egindako jardueraren artean desbideratze larria gertatzen bada, betiere patronatuak ez-entzunarena egin ondoren babesletzak egindako errekerimenduari irregulartasunak zuzen ditzala eskatuz. Horrekin batera, foru legeak aurreikusten du fundazioak, beren borondatez, onar dezaketela babesletzaren esku-hartze handiagoa, beren estatutuetan jasotzen ahal dutelako organo horren baimena beharko dela jarduketa zehatz batzuk betetzeko.

Azkenik, foru legeak arautzen du aholkularitza lana, babesletzari dagokiona, eta haren egintzen eta erabakien aurkako errekurtsoak.

III. kapitulua Foru Administrazio Publikoaren fundazio publikoei buruzkoa da eta dio arlo hori honakoek arautzen dutela: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, aurrekontu, ekonomia eta finantza araubideari dagokionez; eta 44.3 artikuluko e) letra, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean.

### 6

Amaiera aldeko xedapenei dagokionez, foru legeak bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azkeneko hiru xedapen ditu.

Lehen xedapen iragankorrean aurreikusten da babesletza ofizios esleituko zaiela egun Erregistroan inskribatuta dauden eta Foru Berriaren aurreko arabei jarraikiz, babesletzaren menpe ez jartzea erabaki zuten fundazioei hain zuzen.

Bigarrenean, Erregistroan inskribatuta dauden fundazioentzako araubide iragankorra jasotzen da, haien estatutuak egokitu beharko baitituzte arau berrietara, bi urteko epean foru legeak indarra hartzen duenetik, eta hala egin ezean izanen dituzten ondorio juridikoak ere zehazten dira.

Xedapen indargabetzaile bakarrak foru legean ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapenen indargabetze orokorra jasotzen du. Horrekin batera, Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen I. tituluko II., III., IV. eta V. kapituluak berariaz indargabetzea jasotzen du, eta gainerako edukiak indarrean jarraituko duela; aurrerantzean ere arau horren zerga onurak aplikatuko zaizkie fundazioei. Xedatzen da, halaber, Nafarroako Fundazioen Erregistroaren Egitura eta Funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretuaren zenbait agindu indargabetzea, foru legean aurreikusitakoari aurka egiten diotenak hain zuzen.

Azken xedapenak erregelamenduzko garapenari, arau-igorpenei eta foru lege honek indarra hartzeari buruzkoak dira.

## **I. TITULUA** **KONTZEPTUA, SORKUNTZA ETA BILAKAERA JURIDIKOA**

### **I. KAPITULUA** **Xedapen orokorrak**

#### **1. artikulua. Legearen xedea.**

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren 42. legearen lehen paragrafoaren babesean interes orokorreko helburuetarako eratzen diren fundazioen araubide juridikoa ezartzea.

#### **2. artikulua. Aplikazio eremua.**

1. Foru lege hau aplikatuko zaie 1. artikuluaaren arabera eratuta egonik beren jarduerak nagusiki Nafarroako Foru Komunitatean egiten dituzten fundazioei, ezertan galarazi gabe harreman instrumentalak ezartzea beste lurralde esparru batzuetan.

2. Ondorio horietarako, halaber ulertzen da fundazio batek bere jarduerak nagusiki Nafarroako Foru Komunitatean egiten dituela baldin eta, 1. artikuluaaren arabera eratuta egonda, bere jarduera nagusiki atzerrian egin eta bere patronatuaren egoitza Nafarroan badu.

3. Foru lege hau Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako atzerriko fundazioen ordezkarietzi ere aplikatuko zaie, baldin eta beren jarduerak nagusiki Nafarroan egiten badituzte.

#### **3. artikulua. Kontzeptua eta araubide juridikoa.**

1. Fundazioak irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak dira, beren ondarea interes orokorreko xedeak betetzei modu iraunkorrean atxikia dutenak.

2. Fundazioak honakoek arautzen dituzte: fundatzaileen borondateak, fundazioen estatutuek eta, kasu guztietan, Nafarroako Foru Berriak eta foru lege honek, bai eta fundazioen arloko gainerako arau indardunek ere.

#### **4. artikulua. Helburuak.**

1. Fundazioek interes orokorreko helburu hauetako bat edo batzuk izan behar dituzte:

- a) Giza eskubideak, bortxazko egintzen biktimak eta bestelako hondamendienak defendatzea.
- b) Printzipio demokratikoak eta zibikoak defendatzea.
- c) Hezkuntza, zientzia eta ikerketaren arlokoak.
- d) Osasun eta kirol arlokoak eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzekoak.
- e) Kulturaren sustapena eta zabalkundea; kultur ondarearen defentsa, bai eta hizkuntz-aberastasuna eta -dibertsitatea sustatzea ere.
- f) Ingurumena eta garapen-eredu jasangarria defendatzea.
- g) Ekonomia eta ekintza soziala sustatzea.
- h) Garapenerako lankidetzeta eta boluntarioritza soziala sustatzea.
- i) Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, zeharkakotasunez; hau da, fundazioek dituzten interes orokorreko helburu guztietan eraginez.
- j) Irigarritasun unibertsala sustatzea eta pertsonen erabateko integrazio eta berdintasunerako traba diren oztopoak kentzea, zeharkakotasunez; hau da, fundazioek dituzten interes orokorreko helburu guztietan eraginez.
- k) Garapen teknologikoa eta informazioaren gizartea.
- l) Enplegu betearren eta lanbide-arloko aukera-berdintasunaren sustapena.
- m) Interes orokorreko antzeko beste edozein helburu.

2. Ezin izanen da fundaziorik sortu, helburu nagusia denean haien prestazioak edo jarduerak zuzenduta egotea fundatzaileei, patronatuko kideei, haien ezkontideei edo antzeko afektibitate harreman baten bidez haiekin lotutako pertsoneri, haien odol edo ezkontza bidezko laugarren gradurainoko ahaideei (gradu hori barne), bai eta interes orokorreko helbururik ez duten pertsona juridikoei ere.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez zaie aplikatuko helburu bakar edo nagusitzat Espainiako ondare historikoaren parte diren ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea duten fundazioei, baldin eta betetzen badituzte beraiei buruzko araudian ezarritako betekizunak; bereziki, ondasun horietarako bisitak baimendu eta ondasun horiek jendaurrean ikusgai jartzeko betebeharrak. Era berean, ez zaie aplikatuko balio erantsiaren gaineko zergatik salbuetsita dauden gizarte-laguntzako edo kirol arloko jarduerak egiten dituzten entitateei.

#### **5. artikulua. Hartzaileak eta onuradunak.**

1. Hartzaile dira pertsona-kolektibitate orokor eta zehaztugabeak, fundazioaren xedearen arabera entitatearen jardueren jomuga direnak. Halakotzat jotzen dira, halaber, enpresa bateko edo batzuetako langileak eta haien senitartekoak.

2. Onuradun dira hartzaile edo hartzaile-taldeak, inpartzialtasunaren, diskriminaziorik ezaren eta objektibotasunaren printzipioei jarraikiz patronatuak hautaturik suertatzen direnak fundazioaren jarduera eta onura zehatzak jasotzeko.

3. Fundazioen jardueren onuradun izan daitezke aurreko artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren pertsonak, baldin, hartzaileen kolektibitate orokor eta zehaztugabeetako kide izanik, aurreko apartatuan ezarritako irizpideekin bat hautatu badira, aukeraketa horretan absteniturik prozesu edo erabaki horien onuradunekin zerikusia duten pertsonak.

## **6. artikulua. Nortasun juridikoa.**

1. Nafarroako Foru Berriarekin bat, 1. artikuluan aipatzen diren fundazioek nortasun juridikoa lortzen dute eratze-egintza Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzen den unean.
2. Inskripzioa ukatzen ahalko zaie egintza hori araudi indarduneko aginduen arabera ez denean bakarrik.
3. Erregistroan inskribatutako entitateek baizik ez dute “Fundación” eta/edo “Fundazio” izena erabiltzerik izanen.

## **7. artikulua. Izena.**

1. Fundazioen izenak bete beharko ditu indarreko legedian izenari buruz aurreikusitako baldintzak, debekuak eta erreserbak.
2. Fundazioen izenak ondoko arau hauek beteko ditu:
  - a) “Fundación” eta/edo “Fundazio” hitza erabili beharko da, eta ez da izen-kointzidentziarik edo -antzekotasunik izanen, halakorik non inolako nahasbiderik ekar baitezake fundazioen edozein erregistrotan lehendik inskribatuta dagoen beste ezein fundaziorikiko, edo beste erregistro publiko batean inskribatuta dagoen lehenagotiko beste ezein entitatekiko.
  - b) Ezin izanen da erabili legeek ezarritakoaren kontrako terminorik edo adierazpiderik, edo pertsonen oinarrizko eskubideak urra ditzakeenik.
  - c) Ezin izanen da eratu Espainia izena edo autonomia erkidegoen nahiz toki entitateen izenak soilik erabiliz, eta ezin izanen dira baliatu erakunde ofizial edo publikoen izenak ere, nazionalak nahiz nazioartekoak izan, non eta ez den entitate fundatzaileen izena bera.
  - d) Fundatzailea ez den pertsona fisiko baten izena edo izenordea edo pertsona juridiko baten izena edo akronimoa erabili nahi izanez gero, hark edo haren legezko ordezkariak emandako esanbidezko baimena beharko da.
  - e) Ezin izanen da hartu fundazioaren helburuei ez dagozkien jarduerak aipatzen dituen izenik, ez eta fundazioaren izaeraz edo jardueraz nahasbidea edo okerreko ideia sor dezakeenik ere.
  - f) Ez dira onartuko beste entitate publiko edo pribatu batzuek beren lege berariazkoen bidez babestuta edo erreserbatuta dituzten izenak.

## **8. artikulua. Helbidea.**

Nafarroako Foru Komunitatean izan beharko dute helbidea Foru lege honen arabera eratuta egonda eta beren patronatuaren egoitza Nafarroan edukita beren jarduera nagusia Nafarroan egiten duten fundazioek, bai eta, beren jarduera nagusiki atzerrian eginik, beren patronatuaren egoitza Nafarroan dutenek ere.

## **9. artikulua. Atzerriko fundazioen ordezkariak.**

1. Baldin eta atzerriko fundazioek, beren lege pertsonalaren arabidepean egonda, beren jarduerak nagusiki eta modu egonkorrean Nafarroako Foru Komunitatean egin nahi badituzte, foru lurraldean ordezkari bat izan beharko dute, zeina haien helbidea izanen baita foru lege honen ondorioetarako; halaber, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.

2. Ordezkaritza Nafarroako Foru Komunitatean inskriba dadila nahi duten atzerriko fundazioek frogatu beharko dute modu baliiodunean eratu direla beren lege pertsonalaren arabera, eta ordezkaritza horren eraketa eskritura publikoz formalizatu beharko dute, zeinak jasoko baitu Nafarroarako ordezkarari iraunkor baten izendapena.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa frogatzen ez denean zilegi izanen da inskripzioa ukatzea, bai eta helburuak ez direnean interes orokorrekoak, foru lege honen 4. artikulua arabera.

3. Atzerriko fundazioek Nafarroako Foru Komunitatean dituzten ordezkaritzak gaia dela-eta dagokien departamentuko babesletzaren menpe geldituko dira, eta foru lege honetan aurreikusten den araubide juridikoa aplikatuko zaie.

## **II. KAPITULUA**

### **Eraketa**

#### **10. artikulua. Fundatze ahalmena.**

1. Pertsona fisikoek eta pertsona juridiko publiko edo pribatuek eratzen ahal dituzte fundazioak.

2. Pertsona fisikoek ahalmena izan beharko dute zuzkidura osatzen duten ondasun eta eskubideak doako izaeraz, “inter vivos” edo “mortis causa”, xedatzeko.

3. Pertsona juridiko pribatuek organo eskudunaren esanbidezko erabakia beharko dute beren ondasunak doako izaeraz xedatzeko, aplikatzekoa zaien legeriarekin edo beren arau propioekin bat.

4. Pertsona juridiko publikoek gaitasuna izanen dute fundazioak eratzeko edo haien eraketan parte hartzeko, beren araudiarekin bat.

#### **11. artikulua. Eraketa motak.**

1. Fundazioa “inter vivos” edo “mortis causa” egintzen bidez eratzen ahalko da.

2. Fundazioaren “inter vivos” egintzen bitartezko eraketa eskritura publikoan egingen da.

3. Fundazioaren “mortis causa” egintzaren bitartezko eraketa testamentuz, oinordetza-itunez edo oinordetza emateko beste edozein moduz egingen da, Nafarroako Foru Berriarekin bat etorrita. Egintza horretan bildu beharko dira eratzeko eskritura publikoari dagokionez arau honetan aurreikusten diren zehaztasun guztiak, salbu eta hurrengo apartatuan xedatutako kasuan.

4. Baldin fundazioa “mortis causa” egintzaren bidez eratzean xedatzailea mugatu bada fundazio bat sortzeko eta hasierako zuzkidurako ondasun eta eskubideak baliatzeko borondatea adieraztera, foru lege honetan eskatzen diren gainerako baldintzak jasotzen dituen eskritura publikoaren sinatzaile izanen dira “mortis causa” izaerako liberalitateen egikaritzea zuzenbidez dagokien pertsonak.

#### **12. artikulua. Eratze-eskritura publikoa.**

Fundazio baten eratze-eskrituran gutxienez ere zertzelada hauek jaso beharko dira:

a) Fundatzaile guztien izen-deiturak, adina eta egoera zibila, pertsona fisikoak badira; eta haien sozietate-izena, pertsona juridikoak badira. Eta, bi kasuetan, haien nazionalitatea, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Fundazio bat eratzeko borondatea.

c) Hasierako zuzkidura, haren balorazioa eta hartarako ekarpenaren modu eta gauzatzea.



## §2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa

- d) Fundazioaren izena. Eskritura publikoan adierazten den izenak zehatz-mehatz kointziditu beharko du izen-ziurtagiri negatiboan ageri denarekin.
- e) Fundazioaren estatutuak.
- f) Patronatua osatzen duten pertsonen identifikazioa, eta haien onarpena, fundazio-eraketaren unean egiten bada.

### **13. artikulua. Estatutuak.**

- 1. Fundazioaren estatutuetan honako hauek jasoko dira:
  - a) Entitatearen izena, non “Fundación” eta/edo “Fundazio” hitzak agertu beharko baitira.
  - b) Fundazioaren helbidea eta nagusiki zer lurralde-eremutan eginen dituen bere jarduerak.
  - c) Fundazioaren iraunaldia, izaera mugagabearekin eratzen ez bada.
  - d) Fundazioaren helburuak.
  - e) Helburuak betetzera bideraturiko jarduera nagusiak zein diren.
  - f) Fundazio-helburuen betetzeari baliabideak aplikatzeko eta onuradunen zehaztapenerako oinarritzko arauak.
  - g) Patronatuaren osaera; haren kideak eta kargudunak hautatu eta ordeztzeko arauak; agintaldiaren iraupena, baldin eta epemuga edo epea baldin badu; kargua galtzeko arrazoiak; haren eskudantziak; eta eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko modua.
  - h) Kasua bada, fundazioaren beste organo batzuen araubidea eta beren gain hartu behar dituzten eginkizunak edo ahalmenak.
  - i) Ondarearekin zer egin, fundazioa azkenduz gero.
  - j) Legezko beste edozein xedapen eta baldintza, fundatzaileek ezarri gogo dutena.
- 2. Fundazioaren estatutuetakoa xedapenen bat edo fundatzaileen borondatearen adierazpenen bat foru lege honen kontrakoa izanez gero, ulertuko da ez dela ipini. Xedapen horrek fundazioaren beraren eratze-baliozkotasunari eragiten badio, ukoa emanen zaio Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzeari.

### **14. artikulua. Inskribatzeko dauden fundazioak.**

- 1. Fundatze-agiria sinatuta egonik eta Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskripzioa egin bitartean, fundazioaren patronatuak, pertsona hautatuek beren izendapena onartu ondoren, inskripziorako beharrezkoak diren urratsak soilik eginen ditu, eta, horiez gain, haren ondarea kontserbatzeko ezinbestekoak diren bestelakoak eta fundazioarentzako kalterik gabe berandutu ezin direnak. Ulertuko da fundazioak ezinbesteko egintza horiek automatikoki onartuko dituela nortasun juridikoa eskuratzearekin batera.
- 2. Inskripzioa ez badute eskatzen edo prozeduraren ondoriozko zuzenketa-eskaerei ez badiete erantzuten horretara behartutako pertsonak, modu solidarioan hartuko dute beren gain kasuko erantzukizuna, fundazioa inskripzio prozesuan zegoelarik ez jardutearen eta aldi horretan egindako egintzen ondoriozkoa.

### **15. artikulua. Hasierako zuzkidura eta ondorengo gehikuntzak.**

- 1. Fundatzaileek eratze-unean fundazioaren helburuen betetzera atxikitzen duten ondare-edukiko ondasun- eta eskubide-multzoak osatuko du hasierako zuzkidura.
- 2. Hasierako zuzkidura errebokaezina eta itzulezina izanen da, eta egokia eta nahikoa fundazioaren helburuak betetzeko; haren zenbatekoa eurotan adierazi beharko da

eskritura publikoan, edozein motatako ondasun eta eskubideekin osatuta egon badaiteke ere. Diruaz bestelako ekarpenak berdin kuantifikatuko dira, eta eskriturari aditu independente baten tasazioa erantsiko zaio, erabili diren balorazio irizpideak zehazten dituen.

Kasu guztietan, ekarpenak egiazkoak direla frogatu beharko zaio notarioari. Diruzko ekarpenak banku-ziurtagiriaren bidez frogatuko dira. Diruaz bestelako ekarpenak frogatuko dira erregistroko datuen bidez, baldin badaude, akzioen edo partaidetzen zenbakiak aurkeztuz, kasua bada, edo zuzenbidean baliozkoa den edozein bitarteko erabiliz, baldin eta frogatzen badu ekarpenak egiazkoak direla haien izaeraren arabera.

3. Hasierako zuzkidura fundazioaren helburuetarako behar bezalakoa eta behar adinakoa dela justifikatze aldera, fundatzaileak edo fundatzaileek Erregistroan lehen jarduketa-programa aurkeztu beharko dute, zeinak urtebeteko epea hartuko baitu, bai eta fundazioaren bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomikoa bat ere, zeinak barne hartuko baitu programako jarduera guztien finantzaketa osoa, xehakaturia eta identifikagarria.

Aurrekoa gorabehera, hasierako zuzkidura behar bezalakotzat eta behar adinakotzat joko da presuntzioz, horren balio ekonomikoa 10.000 euro baino gehiagokoa bada. Kasu horretan, gainera, ez da beharrezkoa izanen aurreko paragrafoan aipaturiko azterlan ekonomikoa aurkeztea.

4. Hasierako zuzkiduraren diruzko ekarpenak emanalditan egin daitezke. Horrela egiten bada, hasierako emanaldia ez da izanen fundatzailearen borondateak aurreikusitako guztizko zenbatekoaren %25 baino txikiagoa, eta gainerakoa gehienez ere bost urteko epean ipini beharko da, eratze-eskritura publikoa sinatzen denetik.

5. Hirugarrenek konprometitutako ekarpenak hasierako zuzkiduratzat hartzen ahalko dira, baldin eta betebeharrak hori jasota badago betearazpena daukaten tituluetan.

6. Inola ere ez da hasierako zuzkiduratzat hartuko dohaintzak biltzeko asmo hutsa, are kuotak edo aldizkako dirulaguntzak badira ere, edo doako izaera duen beste edozein diru-sarrera.

7. Fundazioaren bizitzan zehar handitzen ahalko da fundazioa eratze egokia eta nahikoa dela frogatuta dagoen hasierako zuzkidura, diruzko ekarpen gehiago eginez nahiz ondare horretan jada agertzen ziren erreserbak edo soberakinak eraldatuz, dela borondatez, dela legeak behartuta. Handitzen ahalko da, halaber, fundatzaileek edo hirugarrenek ondare-ondasunen edo -eskubideen zuzkidura gisa egindako ekarpenaren bidez, edo patronatuak fundazioaren helburuetarako atxikipen iraunkorra egitea erabakirik. Fundazioa eratu ondoko zuzkidura-gehikuntzak ez dira hasierako zuzkiduratzat hartuko, non eta ez den eratze-eskritura aldatzen, esanbidez hala ezartzeko; horrenbestez, gehikuntza horiek ez dira ez errebokaezinak ez eta itzulezinak ere izanen.

### **III. KAPITULUA**

#### **Fundazioen aldaketa, bat-egitea, zatiketa eta azkentzea**

##### **16. artikulua. Fundazio-agiriaren edo estatutuen aldakuntza.**

1. Patronatuak zilegi izanen du arrazoituz hartzea fundazio-agiriaren edo fundazioaren estatutuen edukia aldatzeko erabakia, baldin eta fundatzaileek ez badute halako

egintzarik debekatu, fundazioaren helburua errespetatzen bada eta komenigarria bada entitatearen interesei begira eta haren helburuak hobeki lortzeko.

2. Patronatua behartuta dago estatutuen aldakuntza erabakitzea fundazioaren eraketa ekarri zuten inguruabarrak halako moduan aldatu direnean non ezinezkoa gertatzen baita fundazioak haiei jarraiturik egokiro jardutea. Aldakuntza horretarako erabakia ezin izanen da hartu baldin eta fundatzaileek kasu horretarako erabaki bazuten fundazioa azkendu beharra dagoela. Kasu horretan, azkentzea erabaki beharko du patronatuak. Bi kasuetan, patronatua behartuta egonen da bere jarduketa arrazoitzera, eta ez badu jarduten, horrek ekar ditzakeen erantzukizunak hartuko ditu bere gain.

3. Aldakuntzarako erabakia arrazoitua izan beharko da, eta eskritura publikoan jaso.

### **17. artikulua. Fundazioen bategitea.**

1. Patronatuak erabaki dezake fundazioak bat egin dezala beste fundazio batekin edo batzuekin, baldin eta fundazioaren helburua errespetatzen bada eta erabaki hori fundatzaileek ez badute debekatu. Bat-egitea gauzatuko da parte hartzen duten fundazioetako patronatu guztiak erabakia hartu ondoren.

2. Fundazioen bat-egitearen arrazoia izanen da fundazioen helburuak hobeki betetzea, eta bide hauetatik gauzatzen ahalko da:

a) Fundazio bat edo batzuk beste batek irensten dituenean, zeinak oinordetza unibertsalaren bidez eskuratuko baititu irenstitako fundazioaren edo fundazioen ondareak. Irenstitakoak likidaziorik gabe azkenduko dira, baina oinordetza unibertsalerako beharrezkoak diren balantzeak onartu beharko dira.

b) Bat egindako fundazioen likidaziorik gabeko azkentzearen bitartez fundazio berri bat sorturik, eta haien ondareak fundazio berriari eskualdaturik. Fundazio berriak oinordetza unibertsalaren bidez eskuratuko ditu.

3. Bat-egite erabakiak arrazoitua izan beharko du, bat-egitean parte hartzen duten fundazioek hartua, eta eskritura publikoan jaso beharko da. Erabakian jaso beharko dira, parte hartzen duten fundazioen inguruabar orokorrez gain, bat-egitearen ondorioz sortzen den fundazioaren estatutuak, lehen patronatua osatzen duten pertsonen identifikazioa, azkendutako fundazioen bat-egitearen balantzea eta haren data, kontabilitate-ondorioetarako. Bat-egitearen eskritura publikoari erantsiko zaio, halaber, parte hartzen duten fundazioetako patronatuek onetsitako bat-egite erabakien egiaztatzea.

4. Fundazio berri bat bi fundazioen edo gehiagoren bat-egitearen bidez sortzeko, fundazioen eraketarako aurreikusitako izapideak bete beharko dira.

5. Irentsizko bat-egiteetan bete beharreko izapideak estatutu-aldaketarako aurreikusitakoak izanen dira.

6. Araubide desberdinen menpeko fundazioen bat-egiteetan, Nafarroako araudia aplikatuko da baldin sortzen den fundazio berriaren helbidea Foru Komunitateko lurraldean ezartzen bada, bere jarduerak nagusiki esparru horretan gauzatu behar izateagatik.

7. Patronatuek bete beharko dituzte erabakitako bat-egiteari dagokionez indarreko araudiak eta bakoitzaren estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak.

### **18. artikulua. Fundazioen zatiketa.**

1. Patronatuak erabakitzen ahalko du zatiketa egitea, eta helburu horrekin bere ondarearen parte bat banandu, beste fundazio bat sortzeko nahiz lehendik dagoen beste fundazio bati eskualdatzeko, baldin eta horrela jokatzea ez badute debekatu fundatzaileek eta justifikatzen bada zatiketa hori fundazio zatituaren helburuak hobeki betetzearren egiten dela.
2. Zatitze-erabakiak arrazoitua izan beharko du, zatiketan parte hartzen duten fundazio guztiek sinatua, eta eskritura publikoan jaso beharko da. Erabakiaren edukiak bilduko ditu parte hartzen duten fundazioen inguruabar orokorrak, zatiketaren ondorioz sortzen den fundazioaren dokumentazio-sortzea eta zatituaren dokumentazio-aldaketa, eta bi fundazioen balantzea. Eskritura publikoari halaber erantsiko zaizkio parte hartzen duten fundazioetako patronatuek onetsitako zatitze-erabakien egiaztagiriak.
3. Fundazio berri bat beste baten ondarea zatituz sortzeko, fundazioen eraketarako aurreikusitako izapideak bete beharko dira.
4. Fundazio baten ondarea beste baten ondarea zatituz handitzeko, estatutu-aldaketarako aurreikusitako izapideak bete beharko dira.
5. Patronatuak behartuta daude erabakitako zatiketari dagokionez indarreko araudiak eta kasuko estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak betetzera.

### **19. artikulua. Fundazioen azkentzea.**

1. Estatutuetan xedatzen ahalko da fundazioa azkenduko dela patronatuak hala erabakita, erabaki hori estatutuetan bertan zehazten den gehiengoarekin harturik. Erabakian adierazi beharko da zein diren erabakia hartzeko oinarri izandako inguruabarrak. Horrez gain, fundazioaren azkentze-zergatiak izanen dira:
  - a) Zein epealditarako eratu zen, epealdi hori bukatzea.
  - b) Fundazioaren helburua osotara betetzea.
  - c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa izatea.
  - d) Fundazioaren jardueren edo helburuen ilegaltasun zibil edo penala, epai irmoz deklaratu.
  - e) Azkentzea dakarren bat-egite prozedura.
  - f) Fundazio-agirian, estatutuetan edo indarreko araudian aurreikusitako beste arrazoi batzuk.
2. Fundazioaren azkentzea patronatuak erabaki beharko du, salbu eta tartean arrazoi automatikorik badago edo ebazpen judizial baten bidez agintzen denean.
3. Azkentze-erabakia arrazoitua izanen da eta eskritura publikoan jaso beharko da. Erabakiak azkentzearen data zehaztuko du, kontabilitate-ondorioetarako.
4. Patronatuak bete eginen ditu erabakitako azkentzeari dagokionez indarreko araudiak eta bere estatutuek ezartzen dituzten betebeharrak, eta bere gain hartuko ditu, halakorik bada, bere jarduterik ezaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunak.

### **20. artikulua. Gerakin den hartzekoaren likidazioa eta adjudikazioa.**

1. Fundazioaren azkentzeak ekarriko du, hala bada, likidazio prozedura bat irekitzea, indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriko dena.

2. Patronatuak zilegi izanen du bere burua likidazio-batzorde gisa eratzea, edo batzorde hori osatuko duten pertsonak izendatzea. Batzorde hori izendatuta eta karguak onartuta daudenean, patronatuak funtzionatzeari utziko dio zeharo.
3. Likidazio egintzei dagokienez, likidazio batzordeko kideek fundazioaren patronatuko kideen eskubide, betebeharrak eta erantzukizun berberak izanen dituzte.
4. Likidazio eragiketarako eskritura publikoan formalizatuko dira, eta bertan jasoko da onartutako likidazio balantzea ere. Egiteko dauden eragiketarako eta horiek egiteko modua ere zehaztuko dira.

### **21. artikulua. Geratzen den ondarearen erabilera.**

Azkenetara erabakitzean, patronatuak halaber erabakiko du likidazioa egin ondoren geratzen diren ondasun eta eskubideen norakoa. Geratzen den ondareak izanen du fundatzaileek estatutuaren edo fundazio-agirian aurreikusitako norakoa, baldin eta norako hori fundazioarenak bezalako interes orokorreko helburuak dituzten entitate publikoek edo irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuak osatuta bada.

## **II. TITULUA JARDUNBIDEA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA**

### **I. KAPITULUA Fundazioen gobernua**

#### **LEHENENGO ATALA Patronatua**

### **22. artikulua. Patronatua.**

1. Fundazioaren gobernua, administrazioa eta ordezkaritza Patronatuari dagozkio. Patronatuak izanen eta erabiliko ditu indarreko araudian xedatutakoaren arabera eta eratze-egintzan eta estatutuaren adierazten den fundatzaile(ar)en borondateari jarraikiz dagozkion ahalmen eta eginkizun guztiak.
2. Patronatuari dagozkio fundazioaren xedeak bete eta betearaztea eta fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzea, horien errendimendua eta erabilgarritasuna osorik mantenduz, kudeaketa onaren irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.

### **23. artikulua. Patronatuaren osaera.**

1. Patronatua hiru pertsonak osatuko dute gutxienez, eta estatutuaren finkatuko da haren osaera zehatza. Zilegi izanen da osaera-zehaztapen hori gehieneko kide kopurua eta gutxienezkoa adieraziz egitea. Osaera zehaztean, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da.
2. Pertsona fisikoek pertsonalki jardun beharko dute karguan. Dena den, zilegi izanen da lehendik hautaturiko beste patronatu-kide batek haren izenean eta hura ordezkatzu jardutea. Ordezkaritza hori ekintza zehatzetarako izanen da, eta kide ordezkatuak, kasu bada, idatziz horretarako adieraziko dituen jarraibideak beterik.
3. Karguagatik kideen ordezkari jarduten ahalko dute haien ordezkari egitea dagozkien pertsonak.

4. Lehendabiziko patronatua fundazioaren eratze-eskrituran izendatutakoa izanen da. Eskritura horretan nahiz estatutuetan aurreikusten ahalko da patronatuan biziarteko kideak edo karguagatikoak egotea.
5. Biziarteko kide izanen dira agintaldiaren iraupena hil artekoa dutenak. Karguagatiko kide izanen dira hautatzen direnak estatutuek ezarritako alde zuzeneko baldintza betetzeagatik, eta haien agintaldiak iraunen du baldintza hori betetzeak eskatzen duen kargua, lanbidea, duintasuna edo inguruabarra betetzen den denbora-epaia.
6. Estatutuetan ezarriko da patronatuko kideak hautatzeko edo berritzeko bidea, haien agintaldiaren iraupena edo epemuga, jarraian berriz hautatuak izateko aukera, kargu hutsak betetzeko prozedura eta kideak kanpoan, eri edo aldi baterako ezindurik dauden kasuan ordezpena egiteko modua.
7. Kasu guztietan, patronatuak lehendakari bat eta idazkari bat izanen ditu. Idazkaria organoko kide ez denean izan ezik, kargu horietan eta patronatuko beste batzuetan - horiek aurreikusita badaude eratze-agirian edo estatutuetan- jardun behar duten pertsonak patronatuko kideen artean hautatuko dira, agiri horietan aurreikusitako moduan. Hautatzeko moduz ezer aurreikusirik ez badago, patronatuak aukeratuko ditu erabaki bidez. Patronatuko idazkaria patronatuko kide ez den bat izan daiteke, eta, kasu horretan, hizpidea izanen du, baina botorik ez.
8. Estatutuetan berariazko izen edo eginkizunik esleiturik ez duten karguak dituzten patronatuko kideak bokalak izanen dira.

#### **24. artikulua. Patronatuko kideak.**

1. Patronatuko kide izaten ahalko dira pertsona fisikoak eta juridikoak.
2. Pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan behar dute eta, horrez gain, ez dute kargu publikoetan aritzeko desgaiturik egon ez eta inolako bateraezintasun-arrazoitan eroriak egon behar.
3. Pertsona juridikoek beren ordezkari aritzeko pertsona fisikoa edo fisikoak hautatuko dituzte, eta halaber zehaztuko dute, horiek bat baino gehiago direnean, horiek ordezteko hurrenkera, hori guztia estatutuetan ezarritako moduan.
4. Patronatuko kideek betebehar hauek izanen dituzte:
  - a) Beren eginkizunak ordezkariak leialari dagokion arduraz bete, eta, beren jarduketetan, indarreko lege xedapenek eta fundazioaren estatutuek ezarritakoa bete.
  - b) Fundazioari buruzko informazio konfidentzialak isilean gorde, are kargua utzi ondoren ere.
5. Patronatuko kideek independentzia erabiliko dituzte beren ahalmenak, oztopo edo mugarik gabe, eta haien ebazpen edo erabakiak hartzeko ezin izanen zaie inolako baldintzarik ezarri, estatutuetan eta indarreko araudian esanbidez jasota daudenez harago.
6. Patronatuko kideak ezin izanen dira patronatuan duten tokiaz baliatu onura pertsonalak edo materialak lortzeko, eta, beren karguaren ondorioz jarduketa irregularren berri izanez gero, edozein dela ere, organo eskudunei jakinarazi beharko diete.

**25. artikulua. Onartzea eta uko egitea.**

1. Patronatuko kideak beren eginkizunak gauzatzeko hasiko dira izendapena -eta kargua, kasua bada- berariaz onartu ondoren.
2. Agiri publiko nahiz pribatu batean gauzatu beharko da onarpena edo ukoa, notarioak legeztatutako sinadurarekin. Patronatuaren aurrean ere egiten ahalko dira onarpena nahiz ukoa, eta idazkariak jaulkitako ziurtagiri baten bidez frogatuko dira, Fundazioen Erregistroan pertsonalki agertuz edo zuzenbidean balio duen edozein bitarteko erabiliz, horren berri modu fidagarrian ematen badu.
3. Patronatuko kideak izendatzeko eta kargugabetzeko erabakiak Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

**26. artikulua. Patronatuko kideen erantzukizuna.**

1. Patronatuko kideak erantzule solidarioak izanen dira fundazioaren aurrean, araudiaren edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sortzen dituzten kalte eta galerengatik, edota beren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den ardurarik gabe egindakoengatik.
2. Patronatuko kideak inbentario-onura galtzearen erantzule izanen dira fundazioaren aurrean, Kode Zibilaren 1204. artikulua aipatzen dituen egintzengatik, bai eta Nafarroako Foru Berriaren 318. legean aipatzen den itzulketa faltaren erantzule ere.
3. Ez dute erantzukizunik izanen erabakiaren aurka bozkatu dutenek edo frogatzen dutenek ez zekitela, erabakiaren hartze eta gauzatzeko esku hartu gabe, erabakia zegoenik, edota, haren berri izanda ere, kaltea saihesteko komeni zen guztia egin zutela edo, gutxienez, erabakiaren aurka esanbidez egin zutela.

**27. artikulua. Karguaren doakotasuna.**

1. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren eginkizunak, baina eskubidea izanen dute eginkizun horietan jarduteak eragiten dituen eta behar bezala justifikatzen diren gastuak ordain dakizkien. Nolanahi ere, kontzeptu horrengatik jasotako diru-kopuruek ezin izanen dituzte gainditu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko araudian zergarik gabeko dietatzat hartu ahal izateko ezartzen diren mugak.
2. Pertsona horiek, gainera, ezin izanen dute partaidetzarik izan entitatearen emaitza ekonomikoetan; ez beraiek zuzenean, ez bitarteko pertsonen edo erakundeen bidez.

**28. artikulua. Bateriaezintasunak.**

1. Bateriaezina da patronatuko kidearen kargua eta fundazioari edonolako zerbitzu ordaindu ematea. Bateriaezintasun bera izanen du fundatzaileak eta bere ezkontideak edo antzeko afektibitate harreman baten bidez harekin lotuta dagoenak.
2. Kargua bateriaezina izanen da beste kargu eta lanpostu batzuekin ere, hala ezarrita baldin badago foru lege honetan edo indarreko beste arau batzuetan.

**29. artikulua. Karguaren iraupena.**

Patronatuko kide izateko denbora mugagabea edo aldi batekoa izan daiteke, baita patronatuko karguduna izatekoa ere. Kargudunen kasuan, mugarik gabe aukeratzeko ahalko dira, fundazioaren estatutuetan kontrarik aurreikusita ez badago.

**30. artikulua. Kargu uztea eta etetea.**

1. Fundazioko patronatuko kideak kargua kasu hauetan utziko du:

- a) Hiltzen denean edo hilda dagoela deklaritzen denean; baita pertsona juridikoa azkentzen denean ere.
  - b) Ezintasuna, desgaiakuntza edo bateraezintasuna dagoenean, indarreko araudian ezarritakoaren arabera.
  - c) Izendatzeko arrazoia izan zen kargua uzten duenean.
  - d) Kargua behar den arduraz ez betetzeagatik, hala deklaritzen badu patronatuak berak, entzunaldia eman ondoren eta estatutuetan aurreikusitako moduan, edo ebazpen judizial bidez.
  - e) Erantzukizun-akzioaren ondoriozko ebazpen judizialak hala agintzeagatik, indarreko araudian aurreikusitako moduan.
  - f) Agintaldia amaitzen denean, izendapena aldi zehatz baterako izan bazen.
  - g) Uko egiten zaionean. Onarpenerako aurreikusitako izapideen bidez gauzatuko da.
  - h) Estatutuek kargu-uztea baliozkoa izateko ezarritako arrazoiengatik.
2. Patronatuko kide izaeraren etetea kautelaz erabaki dezakete organo judizialek, kideen kontra erantzukizun akzioa aurkezten denean.

**31. artikulua. Patronatuan hutsik dauden kide postuak betetzea eta ordezea.**

1. Patronatuan hutsik dauden kideen postuak betetzeko, eta kideak eri edo aldi baterako kanpoan daudenean ordezteko, estatutuetan aurreikusitakoa beteko da.
2. Patronatuko kideen kopurua noizbait ere hiru baino txikiagoa bada, patronatuak berehala hautatu beharko ditu gutxieneko kopuru hori iristeko beharrezkoak diren kideak, eta sei hilabeteko epea izanen du horretarako. Epe horretan gutxieneko kide kopurua izatea lortu ezean, patronatuko kideek fundazioaren azkentzea sustatu beharko dute berehala, edo patronatuaren osaeraren aldaketa, gutxieneko kopuru hori errespetatzen bada.
3. 16.1 artikuluan xedatutakoa ukatu gabe, patronatuko kideen kopurua noizbait ere estatutuetan ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada, patronatuak berehala hautatu beharko ditu estatutuetao gutxieneko kopuru hori iristeko beharrezkoak diren kideak, eta sei hilabeteko epea izanen du horretarako. Epe horretan gutxieneko kide kopurua izatea lortu ezean, patronatuko kideek fundazioaren azkentzea sustatu beharko dute berehala, edo estatutuen aldakuntza, zeinak patronatuaren osaera berria ezarriko baitu, halakoa non betetako karguen kopurua izanen baita dagoen kide kopuruaren arabera, betiere hiru kideko gutxieneko kopurua errespetatuz.
4. Fundatzaileek edo, halakorik ezean, patronatuak, estatutuetao arautuko dute nola jokatu behar den patronatuko kideak izendatzeko, fundazioaren bizitzako unerren batean hura osatzen duten kide guztiak falta izatearen kasuan.

**32. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.**

Eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Fundazioaren ordezkarietza legala, judiziala edo estrajudiziala izatea.
- b) Patronatuaren bileretarako deia egin, gai-zerrenda finkatu, eztabaidak moderatu eta bilerei bukaera ematea.
- c) Patronatuaren erabakiak betetzen direla zaintzea.



- d) Estatutuak eta indarreko araudia betetzen direla zaintzea.
- e) Araudian edo estatutuetan esleitua duen beste edozein ahalmen, eta berariaz eskuordetzen zaizkionak.

### **33. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.**

Eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Patronatuaren bileretarako deia egitea lehendakariak hala aginduta, eta organoko kideentzako zitazioak egitea.
- b) Bileretara joatea eta haien aktak egitea, akta horietan honakoak jasorik: bilerako partaideen izenak (bertaratu direnak zein ordezkaturik daudenak), bileraren gai-zerrenda, noiz eta non egin den, eztabaiden puntu nagusiak -patronatu-kideek hala eskatzen badute-, eta hartutako erabakien edukia.
- c) Fundazioaren dokumentazio guztia zaintzea.
- d) Ziurtagiriak ematea lehendakariak edo haren ordezkariak ontzat emanik, eta behar diren txostenak egitea.
- e) Diruzaintzako eginkizunak bere gain hartzea patronatuan diruzain kargurik ez badago.
- f) Araudian edo estatutuetan esleitua duen beste edozein ahalmen, eta berariaz eskuordetzen zaizkionak, patronatuko kidea baldin bada.

### **34. artikulua. Lehendakariordearen eginkizunak.**

Estatutuetan aurreikusten ahalko da patronatuak kargu hau izatea eta haren eginkizunak zein diren, baina, edozein kasutan, lehendakariorde kargua betetzen duen patronatuko kideak beteko ditu -izendatutakoak bat baino gehiago badira, izendapenaren hurrenkeran- lehendakaria ordezteko eginkizunak, kargu hori hutsik badago edo hura kanpoan edo eri dagoenean, edo bateraezintasuna duenean.

### **35. artikulua. Diruzainaren eginkizunak.**

Estatutuetan aurreikusten ahalko da kargu hau egotea eta zer eginkizun dituen; baina, kasu guztietan, diruzain kargua betetzen duen patronatu-kideak eginkizun hauek izanen ditu:

- a) Fundazioaren funtsak zaintzea eta kontabilitateaz arduratzea.
- b) Lehendakariarekin batera, funts-xedapena baimentzea.
- c) Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua eta oroitidazki ekonomikoa prestatzea.
- d) Araudian edo estatutuetan esleitua duen beste edozein ahalmen, eta esanbidez eskuordetzen zaizkionak.

**BIGARREN ATALA**  
**Patronatuaren ahalmenak eta jardunbidea**

**36. artikulua. Patronatuaren ahalmenak.**

1. Patronatuaren ahalmenen esparrukoak dira fundazioaren gobernuari, ordezkariari eta administrazioari dagozkien afera guztiak, eta, horrekin batera, estatutuen interpretazioari eta aldaketari dagozkienak ere, kontrakoa aurreikusita egon ezean, ahalmen horietakoren bat fundatzailearentzat gorde delako; horrek ez du ukatzen 31. artikuluan xedatutakoa.

2. Patronatuak eskudantzia eta ahalmen hauek izanen ditu:

- a) Fundazioaren zereginaren goi zuzendaritza, ikuskapena, zainketa eta orientazioa.
- b) Estatutuen aldakuntza erabakitzea horietan aurreikusitako moduan, eta estatutuak interpretatzea.
- c) Fundazioaren bat-egitea erabakitzea estatutuetan aurreikusitako moduan.
- d) Fundazioaren azkentzea erabakitzea, horretarako arrazoiren bat dagoenean.
- e) Fundazioaren jarduketarako lehentasunak ezartzea eta ildo orokorrak finkatzea funts erabilgarrien banaketa eta aplikaziorako, entitatearen helburuak ahal den hobekien bete beharrez.
- f) Hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua onestea.
- g) Inbentarioa, egoeraren balantzea, emaitzen kontua, jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa jasotzen dituen oroitidazkia eta aldi horretako diru-sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa onestea.
- h) Objektibotasunez hautatzea fundazioaren prestazioen onuradun izanen diren pertsonak.
- i) Prestazioak eta elkarlanerako bideak ezartzea fundazioaren helburuekin zerikusia duten pertsona edo erakunde publiko nahiz pribatuekin.
- j) Jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo arbuiatzea, fundazioarentzat komenigarria dela iritziz gero.
- k) Mailegu- edo kreditu-eragiketen eta kreditu-entitateekiko beste edozein eragiketa finantzarioren formalizazioa hitzartzea.
- l) Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak erabili, administratu, kontserbatu, zaindu eta defendatzeko eginkizun guztiak betetzea oro har, epaiketetan zein horietatik kanpo.
- m) Ordezkaritzak ireki eta ixtea erabakitzea.
- n) Bere ahalmenak patronatuko kide bati edo batzuei eskuordetzea, foru lege honen 39. artikuluan ezarritako moduan.
- ñ) Ahaldunak izendatzea, orokorrak nahiz bereziak izan.
- o) Halakorik bada, fundazioaren beste organoak, estatutuetan aurreikusitakoak, osatzeko kideak izendatzea.
- p) Baimentzea Babesletzak egiazta dezan fundazio-eskubidearen egikaritze egokia eta entitatearen jardunbidea legezkoa dela, eta betetzea, babesletzari dagokionez, komunikatu eta baimena eskatzeko betebeharrak, araudian edo estatutuetan aurreikusita daudenak.
- q) Fundazioaren administrazio eta gobernurako eta ordezkariarako bete behar dituen gainerako ahalmenak, indarreko araudiak eta estatutuek esleituta dituenak.

### **37. artikulua. Patronatuaren bilerak.**

Estatutuetan bestelakorik aurreikusi ezean, arau hauek zuzenduko dituzte patronatuaren bilerak:

1. Patronatua gutxienez urtean bi aldiz bilduko da, eta, gainera, lehendakariak dei egiten duen guztietan, edo kideen herenak gutxienez eskatzen duenean. Kasu horretan, lehendakariari zuzenduriko deialdi-eskaeran jasoko dira jorratu beharreko gaiak.
2. Deialdietan adierazita egonen dira eguneko gai-zerrenda eta bileraren inguruabarrak; garaiz jasoko direla egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliko da deialdiak helarazteko.
3. Ez da beharrezkoa izanen bilerarako deialdirik egitea baldin eta, patronatuko kide guztiak bilduta egonik, aho batez erabakitzen badute patronatuaren bilera bat egitea. Idazkari lanak organoko kide ez den norbaitek betetzen baditu eta une horretan bilkuran ez bada, bilera unibertsal horren idazkari lanak egingen ditu patronatuak bilkuren hasieran horretarako izendatzen duen kideak.
4. Aurrez aurre edo urrutitik egin ahal izanen ditu bilerak patronatuak, eta kideak toki desberdinetan egoten ahalko dira, betiere, bide elektronikoen bidez egiaztatu daitekeenean haien nortasuna, eztabaidetan parte-hartzea, adierazpenen edukia eta noiz gertatzen diren. Horrez gain, interaktibitatea eta interkomunikazioa bermatu behar dira denbora errealean, eta ziurtatu behar da baliabide horiek saio guztian zehar eskuragarri daudela, baita boto ematea ere.
5. Patronatuaren eraketa baliozkoa izanen da, biltzearen eta erabakiak hartzearen ondorioetarako, patronatuko lehendakaria eta idazkaria bileran direnean, bertaratuta nahiz urrutitik, edo estatutuen arabera haiek ordeztzen dituztenak, eta gutxienez ere patronatuko kideen erdiak, kopuru horretan sartuta lehen aipatutako kideak.
6. Idazkariak bilkuren akta egingen du, eta lehendakariak ontzat eman. Patronatuaren bilkura horretan bertan edo hurrengoan onetsiko dira aktak.

### **38. artikulua. Erabakiak nola hartu.**

Estatutuetan bestelakorik aurreikusi ezean, patronatuaren bilerak arau hauek zuzenduko dituzte:

1. Oro har, patronatuaren eraketa baliozkoa bada, erabakiak hartuko dira bertaratutako kideen botoen gehiengo soilaz; hau da, aldeko botoen kopuruak kontrakoena gainditzen duenean. Berdinketa izanez gero, lehendakariak kalitatezko botoa izanen du.
2. Halere, botoen bi herenen aldeko botoa beharko da gai hauei buruzko erabakiak onesteko:
  - a) Estatutuen aldakuntza.
  - b) Fundazioaren bat-egitea.
  - c) Fundazioaren azkentzea.
  - d) Patronatuko kideen kargu-uztea.
  - e) Estatutueta halakotzat ezartzen diren erabakiak.

**HIRUGARREN ATALA**  
**Ahalmenak eskuordetzea eta ahalduntzeak**

**39. artikulua. Eskuordetzea eta ahalduntzeak.**

1. Estatutueta debekaturik ez badago, patronatuak bere kide bati edo batzuei eskuordetzen ahalgo dizkie bere ahalmenak.
2. Gai hauek ezin dira eskuordetu, ordea: kontuen, aurrekontuaren eta jarduketa planaren onspena, estatutuaren aldakuntza, fundazioaren bat-egitea, azkentzea eta likidazioa, ez eta Babesletzaren baimena behar duten egintzak ere, indarreko araudiak hala behartzeagatik edo baimentze hori estatutueta aurreikusirik egoteagatik.
3. Patronatuak ahal orokorrak eta bereziak eman eta errebokatzan ahalgo ditu, estatutueta kontrakorik xedatu ezean.
4. Ahalen eta eskuordetzeen erabilera, betiere, patronatuak berezkoak dituen eskumene errespetuaren menpe egonen da, patronatua baita fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkarietako organo gorena; halaber, fundazioaren estatutueta erabilera horri dagokionez ezarritakoa bete beharko da.

**LAUGARREN ATALA**  
**Fundazioaren beste organo batzuk**

**40. artikulua. Organo delegatuak.**

1. Patronatuak batzordeak eta beste edozein motatako organo delegatuak sortzen ahalgo ditu, patronatuko kideek osatuak, baldin eta estatutueta aurreikusita baldin badago.
2. Estatutueta ezarriko dira organo horien osaera, eskudantziak eta jarduteko arauak.
3. Patronatuarekin duten harremanak bete beharko ditu aurreko artikuluan eginkizunen eskuordetzea eraentzen duten arauak.

**41. artikulua. Zuzendaritza, laguntza eta lankidetzako organoak.**

1. Patronatuak, bere eginkizunak betetzeko, beste organo batzuk, kide bakarrekoak nahiz kide anitzekoak, izaten ahalgo ditu gerentzia eginkizunak betetzeko edo kudeaketan laguntzeko, estatutueta aurreikusita baldin badago.
2. Estatutueta ezarriko dira organo horien osaera, eskudantziak eta jarduteko arauak, bai eta patronatuarekin duten harremana ere. Organoen osaeran, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea sustatuko da.
3. Organo horien helburua da patronatuak edo, halakorik bada, organo delegatuek hartutako erabakiak gauzatea, eta beti jardunen dute patronatuaren jarraibideen menpe eta fundazioaren estatutueta horretarako ezarritakoari loturik.
4. Patronatuko kideak ezin dira organo horietako kide izan, salbu eta lan horiek ordainsaririk jaso gabe betetzen badituzte.

**42. artikulua. Kontsulta organoak.**

1. Fundazioak aholkularitza organoak izaten ahalgo ditu fundazioarentzat kontsulta eta laguntza zereginak betetzeko.
2. Organo horiek kide bakarrekoak nahiz kide anitzekoak izan daitezke, baita teknikoak edo parte-hartzeakoak ere. Nolanahi ere, estatutueta ezarriko da nola sortu organo

horiek, horien osaera, eskudantziak, jardunbiderako arauak eta patronatuarekin izan beharreko harremana.

3. Organo horiek ez dute inola ere eginkizun exekutiborik izanen, eta beren ezagutza eta esperientzia eskuratuko dizkiote patronatuari, hark bere erabakiak hartzeko; eta haien ekarpenak ez dira inoiz ere lotesleak izanen, informatiboak eta teknikoak baizik.

4. Patronatuko kideak ezin dira izan organo horietako kide, bateraezintasun arrazoitzat hartuko baita.

## **II. KAPITULUA**

### **Fundazioen jardunerako baldintzak eta araubide ekonomikoa**

#### **LEHENENGO ATALA**

#### **Baliabideak aplikatzeko eta onuradunak zehazteko oinarrizko arauak**

#### **43. artikulua. Fundazioaren baliabideen aplikazioa.**

1. Fundazioaren ondasun eta errentak fundazioaren xedeak betetzeari zuzen eta berehala atxikita daudela ulertzen da.

2. Fundazioak aldian behin programatuko ditu bere helburuari dagozkion jarduerak, eta, horretarako, urtean behin prestazioen plangintza eginen da eta horiek nola egin eta adjudikatu erabakiko da.

#### **44. artikulua. Onuradunak hautatzea.**

1. Fundazioaren helburuak onuragarria izan behar du hartzaile-talde generikoentzat. Fundazioaren prestazioen onuradun izan daitezke patronatuaren iritziz horiek jasotzea merezi duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

2. Patronatuak hautatuko ditu onuradunak, inpartzialtasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideei jarraikiz, ezaugarri hauek dituzten pertsonen artean:

a) Fundazioak artaturiko populazio-sektorearen parte izatea.

b) Fundazioak eskaintzen ahal duen prestazioa edo zerbitzua eskatzea.

c) Haiek hautatuak izatea beren merezimenduak, gaitasuna, premia edo komenigarritasunaren arabera.

d) Bestelako baldintza batzuk betetzea, berariaz ezar daitezkeenak hain zuzen.

3. Inork ezin izanen du alegatu, ez bakarka ez taldean, onura horiek izateko eskubidea fundazioaren edo patronatuaren aurrean, haiek eman aurretik, ez eta pertsona jakin batzuei edo jende talde zehatzei esleitzeko beharra inposatu ere.

4. Inolaz ere ezin izanen dira hartzaile izan banaka zehaztutako pertsonak.

5. Fundatzaileak eta horien ezkontideak edo haiekin antzeko afektibitate harreman baten bidez lotuta daudenak, edo ahaideak, laugarren gradurainokoak barne, ezin izanen dira fundazioaren jardueren hartzaile nagusi izan, eta ezin izanen dute zerbitzuak jasotzeko baldintza berezirik izan.

Aurreikuspen hori ez zaie aplikatuko 4.3. artikulua aipatzen dituen fundazioei.

6. Fundazioak onuradunei ematen dizkien zerbitzuak ordainpekoak izaten ahalko dira, baldin eta eskuratutako dirua fundazioen helburuetara bideratzen bada, eta ez badu eragiten hartzaile izan daitezkeen pertsonen esparruaren mugapen justifikaziogaberik.

## **BIGARREN ATALA**

### **Araubide dokumentala, ekonomikoa eta kontabilitatekoa**

#### **45. artikulua. Ondarea.**

1. Fundazioaren ondarea orotariko ondasun, eskubide eta betebeharez osatuta egon daiteke, ekonomikoki baloratu ahal izanen direnak.
2. Zilegi izanen da fundazioaren ondarea jarauntsi-onarpenen bidez gehitzea, zeinak beti inbentario-onurarako egindakotzat hartuko baitira.
3. Fundazioaren ondarea inbertituko da fundazioaren helburuak bete eta errendimenduak edo ondare-gehikuntzak lortzeko egokiena den moduan.

#### **46. artikulua. Betebehar dokumentalak.**

1. Fundazioek patronatuaren eta fundazioko gainerako kide anitzeko organoen bilkuren akta liburu bat izan beharko dute.  
Akta horiek estatutuetan ezarri bezala kautotuta egonen dira. Estatutuetan bestelako aipamenik ez badago, idazkariaren sinaduraz eta lehendakariak ontzat emanda izapidetuko dira.
2. Fundazioek halaber liburu egunkari bat eta inbentarioa eta urteko kontuak jasotzeko liburu bat izan behar dituzte; horien edukia eta egitura merkataritza-legerian horri buruz ezarritakoarekin bat etorriko dira.

#### **47. artikulua. Errenten eta dirusarreraren erabilera.**

1. Fundazioaren xedeak betetzeko erabili beharko da, gutxienez, fundazioaren kontabilitate-emaizaren ehuneko 70, artikulua honetan adierazten diren doikuntzekin zuzenduta.  
Kontabilitate-emaizaren gainerakoa, fundazioaren xedeak betetzeko erabiltzen ez dena, alegia, zuzkidura edo erreserbak handitzera bideratu beharko da, patronatuak erabakitzen duenaren arabera.
2. Honako hauek ez dira diru-sarrera gisa sartuko:
  - a) Fundatzaileak edo hirugarren pertsonak zuzkidura gisa emandako ondasunak eta eskubideak, baita modu iraunkorrean patronatuak fundazioaren xedeari atxikitako beste batzuk ere, besterentzeagatik edo kargatzeagatik lortzen den kontraprestazioa, sortuko zen gainbalioa barne.
  - b) Ondasun higiezinak (non entitatea bere berariazko xedeko jardueran aritzen baita) kostu bidezko eskualdaketan lortutako diru-sarrerak, betiere aipatu eskualdaketaren zenbatekoa berriro inbertitzen bada ondasun higiezinetan, zeinetan inguruabar hori gertatzen baita.
  - c) Fundazioa eratzen denean edo geroago zuzkidura gisa jasotako ekarpenak edo dohaintzak.
3. Ez dira honako gastu hauek kenduko:
  - a) Fundazioaren xedeak betetzeko gauzatzen diren jarduerekin lotura zuzena dutenak, amortizaziorako eta jarduera horiei atxikiak dauden ibilgetu-hornikuntzetarako zuzkidurak barne.

## §2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa

b) Fundazioaren xedeak betetzeko gauzatzen diren jardueren multzoari dagozkion gastu komunen zati proportzionala zehaztuko da jarduera bakoitzari baliabideak egiaz aplikatuta ondorioztatzen diren irizpide objektiboak erabiliz.

Aipatu gastu komun horietan, halakorik bada, ondoko hauek sartzen ahalko dira: kanpoko zerbitzuak, langileria, finantzak, tributuetakoak eta kudeaketa eta administrazioko bestelako gastuak, baita patronatuko kideei ordaindu behar zaizkien ere, horretarako eskubidea dutenean, indarreko araudian ezarritakoari jarraikiz.

4. Diru-sarrera eta gastu horiek zehaztuko dira fundazioak egindako kontabilitatearen arabera, indarreko araudiari jarraikiz.

5. Fundazioaren xedeetarako egintzat hartzen da ekitaldi bakoitzean egindako gastu eta inbertsioen zenbatekoa, betiere fundazioaren estatutuetan zehaztutako horren berariazko xedeak betetzeko benetan erabili badira horiek, amortizazioetarako eta hornikuntzarako zuzkidurak izan ezik.

Errenten eta diru-sarreraren erabileraren gaineko baldintza betetzen dela zehazteko, fundazioaren xedeak betetzeko erabili diren inbertsioak finantzatu badira zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerekin (hala nola, dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak) edo besteren finantza baliabideekin, aipatu inbertsio horiek konputatuko dira diru-sarrerak konputatzen diren proportzio berean edo besteren finantzaketa amortizatzen den moduan.

6. Fundazioak errentak erabiltzen ahalko ditu aurreko 1. apartatuak aipatzen duen proportzioan, haiek jasotzen dituenetik lau urteko epean. Artikulu honetako 2., 3., 4. eta 5. zenbakietan ezarritako doikuntzak aplikatzean zuzendutako kontabilitate-emaizta negatiboa bada, emaitza horrek hurrengo urteetako helburuetara bideratzeko betebeharra murriztuko du.

7. Oroitidazkian eman beharreko informazioaren ondorioetarako, fundazioaren xedeon betetze-mailari dagokionez, ehuneko 70eko portzentajea zer emaitzaren gainean aplikatzen den zehaztuko da, eta fundazioaren xedeetarako erabiltzen diren gastuak eta inbertsioak, baita administrazioko gastuen zenbatekoa ere.

Aurreko ekitaldietako saldo aplikatugabeei dagokienez ere sartuko da informazio hori.

8. Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen administratzeak zuzenean sortutako gastuen zenbatekoa eta patronatuko kideei ordaindu beharreko gastuena -horretarako eskubidea dutenean- batuta, horien baturak ez du gaindituko zenbateko hauetako handiena:

a) Funts berekien ehuneko 5.

b) Fundazioaren kontabilitate emaitzaren ehuneko 20, artikulu honetan ezartzen diren doikuntzekin zuzendu ondoren.

### **48. artikulua. Jarduera ekonomikoak.**

1. Fundazioek jarduera ekonomikoak betetzen ahalko dituzte baldin eta horien helburua fundazioaren xedeekin loturik badago edo horien osagarria nahiz gehigarria bada.

2. Halaber, era guztietako jarduera ekonomikoetan esku hartzen ahalko dute sozietateetan duten parte-hartzearen bidez, indarreko araudian aurreikusitakoarekin bat.

3. Fundazioek ezin izanen dute partaidetzarik izan merkataritza-sozietateetan, horietan modu pertsonalean hartu behar badute sozietatearen zorren gaineko erantzukizuna.

Zuzkiduraren parte baldin badira aurreko paragrafoan aipatzen diren sozietateetan fundazioak dituen partaidetzak, eta partaidetza horiek gehiengoa osatzen badute, fundazioak berehala egin beharko ditu sozietate horiek eraldatzeko behar diren jarduketak, fundazioaren erantzukizuna mugatzen duen forma juridikoa har dezaten.

#### **49. artikulua. Kontabilitatea, auditoretza eta aurrekontuak.**

1. Fundazioak kontabilitate ordenatua eta bere jarduerari egokitua izan beharko du, egindako eragiketen jarraipen kronologikoa egitea ahalbidetzen duena. Fundazioei nahitaez aplikatu beharrekoak izanen dira Kontabilitateko Plan Orokorreko egokitzapen arauak, irabazi-asmorik gabeko entitateentzat ezarritakoak.

2. Urtero, fundazioaren patronatuak ondasunen inventarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua eginen ditu, zeinetan egiazkotasunez jaso behar baita zein den fundazioaren ekonomia-, finantza- eta ondare-egoera; horrez gain, oroitidazki bat prestatuko du, fundazioaren jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa zein izan diren azaltzeko, finantzaketa-taula ere barne dela, eta fundazioaren helburuak zenbateraino bete diren adierazteko. Oroitidazkian zehaztuko da, halaber, ondarea nola aldatu den eta gobernu, zuzendaritza eta ordezkari organoetan zer aldaketa izan diren.

3. Fundazioek Babesletzari aurkeztuko dizkiote aurreko apartatuan aipatzen diren agiriak, hurrengo ekitaldiko lehenbiziko sei hilabetean.

4. Fundazioen kontuei kanpoko auditoretza eginen zaie, ekitaldia ixten den egunean, inguruabar hauetako bi gutxienez gertatzen badira:

a) Aktiboko partidek guztira 1.803.000 euro baino gehiago egitea.

b) Urteko diru-sarreraren zenbateko garbia 3.606.000 euro baino gehiagokoa izatea.

c) Ekitaldian lanean izandako langileak batez beste berrogeita hamar baino gehiago izatea.

Kanpoko auditoretza eginen zaie, halaber, fundazioko patronatuaren iritziz hala komeni den kontuen kasuan, haien inguruabar bereziengatik.

Auditoretzako txostenak Babesletzari aurkeztuko zaizkio, jaulki eta hiru hilabeteko epean.

5. Babesletzak Nafarroako Fundazioen Erregistroan gordailutuko ditu kontuak. Kontuen publikotasunari dagokionez, erregelamenduz horri buruz ezartzen dena beteko da.

6. Patronatuak jarduketa plan bat egin eta bidaliko dio Babesletzari ekitaldi bakoitzeko azken hiruhilekoan, eta bertan jasoko ditu hurrengo ekitaldirako helburuak eta aurreikusitako jarduerak.

7. Jarduera ekonomikoak egiten direnean, fundazioen kontabilitatea indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriko da. Urteko kontu bateratuak egin beharko dira fundazioa baldin badago araudian sozietate nagusietarako aurreikusitako kasu batean.

Nolanahi ere, informazio zehaztua jaso beharko da oroitidazkiaren berariazko atal batean, eta bertan adierazi merkataritza jarduerari atxikitako ondare elementu guztiak.

8. Erregelamenduz ezartzen ahalko dira artikulua honetan aipatzen diren agiriak aurkezteko nahitaez erabili beharreko ereduak.

#### **50. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa.**

Fundazioaren ekitaldi ekonomikoa urte bakoitzeko urtarilaren leian hasi eta abenduaren 31n amaituko da, estatutuetan bestelakorik xedatzen ez bada.



**III. TITULUA**  
**ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA**

**I. KAPITULUA**  
**Nafarroako Fundazioen Erregistroa**

**LEHENENGO ATALA**  
**Xedapen orokorrak**

**51. artikulua. Xedea.**

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroaren xedea da foru lege honen aplikazio esparruaren menpe dauden fundazio eta ordezkariak inskribatzea, bai eta fundazioen egintzak ere, haien bizitzarako garrantzia dutenak.
2. Nafarroako Fundazioen Erregistroaren xedea da publikotasuna ematea inskribatutako fundazio eta ordezkarietzi, indarreko araudian aurreikusitako ondorio juridikoeekin.

**52. artikulua. Izaera eta atxikipena.**

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroak izaera administratiboa du eta publikoa da, eta biltzen dituen idazpenak egiazkotzat hartzen dira, foru lege honetan eta ordenamendu juridikoaren gainerakoan ezarritakoarekin bat.
2. Nafarroako Fundazioen Erregistroa bakarra izanen da eta Nafarroako Gobernuan lehendakariaren arloan eskumena duen departamentuari atxikita egonen da.
3. Erregistroaren egitura, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez garatuko dira.

**53. artikulua. Erregistroaren printzipioak.**

Nafarroako Fundazioen Erregistroak, inskripzio eta publikotasun eginkizunak betetzeko, printzipio hauei loturik jardun behar du:

- a) Titulazio Publikoa: Erregistroko inskripzioa eginen da, oro har, agiri publiko kautotu batean, erregelamenduz ezartzen denarekin bat.
- b) Legitimazioa: erregistroaren edukia zehatz eta baliozkotzat hartzen da. Erregistroko idazpenak epaitegien zaintzapean daude eta ondorioak izanen dituzte harik eta inskribatu arte haien zehaztasun ezaren edo balioabetasunaren gaineko adierazpen judiziala edo, kasua bada, ebazpen administratiboa. Inskripzioak ez ditu baliozkotzen ordenamendu juridikoaren arabera baliogabeak diren egintzak eta kontratuak.
- c) Fede Publikoa: Erregistroko idazpenen zehaztasun ezaren edo balioabetasunaren gaineko deklarazioak, bai eta inskribatu beharrekoak diren baina inskribatu ez diren egintzek ere, ez dituzte kaltetuko hirugarrenek fede onez eskuratutako eskubideak. Hirugarrenen fede ona dagoela uste izanen da egintza horien berri zutela frogatzen ez den bitartean.
- d) Lehentasuna: edozein titulu behin erregistroan inskribatuta, ezin izanen da besterik inskribatu edo idatzi, data berekoa nahiz lehenagokoa, inskribatutakoaren kontrakoa edo bateraezina bada.
- e) Lehentasuna: erregistroan aurrena sartzten den agiriak lehentasuna izanen du ondoren sartzten direnen aldean, eta kasuan kasuko erregistro eragiketak agiriak aurkezten diren ordenan bete beharko dira.

- f) Hasierako egintzaren segidako traktua: fundazio edo ordezkaritza bati dagozkion egintzak inskribatzeko, beharrezkoa izanen da aurretik inskribatzea hura.
- g) Aurreko egintzaren segidako traktua: aurretik sinaturiko egintzak aldatu edo azkentzen dituzten egintzak inskribatzeko, aurretik horiek inskribatu beharko dira.
- h) Publikotasuna: Erregistroa publikoa da eta erregistroaz arduratzen den organoari dagokio erregistro-idazpenen edukiaren tratamendua, haren zuzeneko publikotasuna gauza dadin eta berma dadin, aldi berean, idazpenetan manipulazio edo okerreko sarbiderik ezinezkoa izatea.

#### **54. artikulua. Izapidetze elektronikoa.**

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroak erraztuko du informazioaren eta komunikazioen teknologietan oinarritutako sistemak erabil daitezzen prozedurak kudeatzeko, erregistro-idazpenak egiteko eta herritarrekiko eta fundazioekiko harremanak bideratzeko; eta, horretarako, informazio sistema bat ezarriko du, Nafarroako Gobernuaren egoitza elektronikoa txertatuko dena, administrazio prozedura arautzen duen oinarritzko legerian ezarritakoari jarraikiz.
2. Bide telematikoa erabiliz egiten den izapidetzeak errespetatu beharko ditu datu pertsonalen babesaren arloko indarreko legeriak bide horien erabilerari ezartzen dizkion mugak.

#### **55. artikulua. Fundazioen beste erregistro batzuekiko harremanak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak koordinazio, lankidetzeta eta elkarlanerako behar diren harremanak izanen ditu fundazioen erregistroen titular diren beste administrazio publiko batzuekin, inskripzio bikoitzak saihestearren.
2. Era berean, erregistroak, bere eskudantziak baliatuz, informazio edo laguntza eskatzen ahaliko die Estatuko Administrazio Orokorrean edo autonomia erkidegoetako administrazioetan erregistro eta babesletza eginkizunak betetzen dituzten organo eta entitateei, eta sustatuko du behar diren neurriak har eta behar diren teknologiak ezar daitezzen, Nafarroako Fundazioen Erregistroa eta fundazioen beste erregistro batzuk elkarlotzea ahalbidetzeko.

#### **56. artikulua. Notarioen bulegoekiko lankidetzeta.**

1. Nafarroako Gobernuak ahaleginduko da ezartzen behar diren bideak, eraginkorrak eta, gehienbat, telematikoa, bai Nafarroako Fundazioen Erregistroak bai notarioek azkar, efizientziaz eta prozedura sinplifikatuekin bete ahal izan ditzaten fundazioen arloan dituzten eskumen eta eskudantziak.
2. Hala izan dadin, Nafarroako Gobernuak sustatuko du lankidetzeta hitzarmenak sinatzea Nafarroako Notarioen Elkargoarekin eta Notarioen Kontseilu Nagusiarekin, honakoa izanik helburua: foru lege honen menpe dauden fundazio edo ordezkartzeekin lotuta dauden erregistro-inskripzioak eskatzen direnean, erraztea notarioen agiri publikoen igorpen telematikoa, agiri horien bidez fundazio edo ordezkartze horiek eratu, arautu, egintzak edo izendapenak erabaki, aldatu, bat egin edo azkentzen badira. Era berean, erraztuko da notarioek, beren eginkizun publikoko jardunean, modua izan dezaten Fundazioen Erregistroko liburuen edukia bide telematikoz kontsultatzeko.

**BIGARREN ATALA**  
**Nafarroako Fundazioen Erregistroaren edukia,**  
**prozedurak eta oinarrizko antolaketa**

**57. artikulua. Eginkizunak.**

Nafarroako Fundazioen Erregistroari dagokio eginkizun hauek betetzea:

a) Izapidetzea eta ebaztea inskripzio eskaerak, erregistroan sartu behar direnak foru lege honetan eta bere garapen-araudian xedatutakoarekin bat. Erregistroak inskripzioen gaineko kontrola eginen du, eta, horretarako, babesletzaren eta tributu arloko eskumena duen departamentuaren lankidetzara eskatzen ahalko du.

Erregistroak arlo penaleko legezkotasun ezaren arrazoizko zantzuak aurkitzen baditu fundazio baten eraketan, ebazpen arrazoitua emanen du, eta dokumentazio osoa igorriko du Fiskaltzara edo organo jurisdikzional eskudunera, eta horren berri emanen dio fundazio interesdunari; horrelakoetan, inskripzioa egiteko prozedura etenda geldituko da ebazpen judizial irmoa eman arte.

b) Erregistroan gordailututako agiriak artxibatzea eta zaintzea.

c) Erregistroaren publikotasuna.

d) Izenaren erreserbari buruzko ziurtagiriak jaulkitzea, bai eta izenari buruzko ziurtagiri negatiboa ere, frogatzen duena Nafarroako Fundazioen Erregistroan ez dagoela izen bereko fundaziorik, ez eta nahasbidea sor dezakeen antzeko izen bat duenik ere.

e) Txosten teknikoak eta estatistikoak egitea, beste organo edo erakunde publiko batzuek beren eskumenak betez eskatzen badituzte.

f) Babesletzari komunikatzea egindako inskripzio guztiak.

g) Tributuaren arloan eskumena duen departamentuari komunikatzea tributu araubide bereziari atxikita dauden fundazioez egindako inskripzio guztiak.

h) Estatuaren eskumeneko fundazioen erregistroari komunikatzea, jasota gera eta publikoa izan dadin, fundazioak eratzeko inskripzioak edo, kasua bada, azkentzekoak, baita beste edozein inskripzio ere, indarreko araudiaren arabera horiek komunikatzea nahitaezkoa bada.

i) Fundazioek Erregistroan gordailutu dituzten kontuen publikotasuna, erregelamenduz ezartzen den moduan.

j) Indarreko araudiak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

**58. artikulua. Egintza inskribagarriak.**

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira:

a) Nafarroako Foru Berriaren eta foru lege honen xedapenen arabera eratutako fundazioa.

b) Estatuako araudiaren arabera edo arlo honetako eskumena duten autonomia erkidegoetako araudi berekien arabera eratutako fundazioak, beren estatutuak aldatzen badituzte foru araudira egokitzeko, helbidea Nafarroako lurralde-esparruan ezarri nahi dutelako eta nagusiki bertan garatu beren jarduerak.

c) Inskribatutako fundazioen fundazio-agiriaren edo estatutuen eduki-aldakuntza. Kasu hauetan ukatzen ahalko da aldaketaren inskripzioa:

Lehena. Indarreko araudiaren kontrakoa denean.

Bigarrena. Fundatzaileen berariazko debeku bat urratzen duenean.

Hirugarrena. Fundazioaren helburua errespetatzen ez duenean.

d) Patronatuko kideak berritzea.

e) Inskribatutako fundazioen bat-egitea eta zatiketa.

f) Inskribatutako fundazioen azkentzea eta likidazioa, ondasunen erabileraren berri ere emanez. Behin likidazioa burututa dagoela, erregistroak erregistro-baja emanen dio entitateari.

g) Inskribatutako fundazioek ahalak ematea eta errebokatzeta.

h) Erregistroan inskribatutako fundazioek beste autonomia erkidego batzuetan jarduteko eratzen dituzten ordezkariak eta jarduera Nafarroako Foru Komunitatean egiten duten atzerriko fundazioen ordezkariak.

i) Inskribatutako fundazio eta ordezkarizentzat muntadun den beste edozein egintza, horren inskripzioa patronatuak eskatzen duenean.

2. Erregistroan idazpen bidez jasoko dira epaitegiek eta auzitegiek, inskribatutako fundazioei dagokienez, jakinarazten dituzten ebazpen judizialak, beste erregistro batzuek egindako inskripzioen komunikazioak, baldin eta ondorioak badituzte Foru Komunitatean ukitzen dituzten fundazioen jardunean, eta aurrekoen pareko beste ebazpen publiko batzuk.

3. Erregistroan jasoko da, halaber, tributu araubide berezia eskuratzea eta galtzea, horien idazpena eginez.

4. Erregistroan gordailutuko dira fundazioen kontuak, foru lege honen 49.5 artikuluaekin bat.

5. Erregistroko inskripzioak eta erregistroaren publikotasun egintzak tasen eta prezio publikoen arloan inskribatzeko uenean indarra duen foru araudiaren menpe egonen dira.

### **59. artikulua. Erregistroaren publikotasuna.**

1. Fundazioen Erregistroa publikoa da haren edukia ezagutzeko interesa duten pertsona edo entitate guztientzat, eta erregistroaren publikotasuna gauzatzen da idazpenen edukiari buruzko ziurtagiriak jaulkiz, egindako inskripzioekin lotura zuzena duten idazpenen eta agiri gordailutuen gaineko informazio-ohar soilaren bidez edo kopiaren bidez, bai eta zerrenden bidez ere, ahal dela bide informatikoak edo telematikoak erabiliz.

2. Erregistroaren publikotasuna gauzatzeko prozedura erregelamenduz ezarriko da, eta datu pertsonalen babesaren arloko araudi indardunean ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

## **II. KAPITULUA**

### **Babesletza**

### **60. artikulua. Xedea eta izaera.**

1. Nafarroako Fundazioen Babesletza fundazioei aholkua eta laguntza teknikoa emateko erakunde bat da, fundazio eskubidea behar bezala baliatzea zaindu, erraztu eta sustatuko duena, bai eta fundatzaileen borondatea eta fundazioaren xedeak egiaz betetzea ere.

2. Babesletzak bere eginkizunak betetzen ditu fundazioen kudeaketa eta jardunbiderako autonomia errespetatuz.

3. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazio guztiak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Babesletzaren menpe egon dira, zeina kasu bakoitzean departamentu batek beteko baitu, hain zuzen ere gaia dela-eta fundazioaren xede nagusiek in lotutako eskudantziak dituenak, fundazio bakoitzaren estatutuetan horiek nola deskribatzen diren kontuan hartuz. Modu horretara zehazterik ez badago zein den departamentu eskuduna, lehendakaritzaren arloko eskumena esleiturik duena izanen da.

4. Departamentu bakoitzaren esparruan, babesletza idazkaritza tekniko nagusiek beteko dute, salbu eta departamentuak beste organo bati esleitu baldin badio eskumen hori bere egitura organikoan.

### **61. artikulua. Babesletzaren eginkizunak.**

1. Hauek dira babesletzaren eginkizunak:

a) Zaintzea fundazio eskubidea behar bezala baliatzen dela, egiaz betetzen direla fundazioaren xedeak, eta elkarri egokituta egotea fundazioaren xedeak eta egiaz egindako jarduerak.

b) Erregistroarekin elkarlanean aritzea, fundazio eskubidearen erabilera bermatzearen, inskripzioen legezotasuna zainduduz. Hala izan dadin, Erregistroak informazioa eskatuz gero inskripzioak egin edo ukatzeko, babesletzak honen berri emanen dio: fundazioaren helburuak egokiak diren, zuzkidura nahikoa den, estatutuei edo haien aldakuntzei buruz duen iritzia, eta fundazioen bat-egite, zatiketa, azkentze eta likidazio kasuetan aurkeztutako dokumentazioari buruzko iritzia.

c) Onuradunak zein diren zehaztean inpartzialtasunaren eta diskriminazio ezaren irizpideak behar bezala aplikatzen direla zaintzea, hori guztia fundatzaileen borondatearekin bat, eta kontuan hartuz interes orokorra erdiestea.

d) Noiznahi zaintzea zuzkidura egokia eta nahikoa dela fundazioaren helburuak egiaz bete daitezen, horrek ukatu gabe gai horretan patronatuak duen erantzukizuna.

e) Zaintzea fundazioaren baliabide ekonomikoak fundazioaren xedeetarako erabiltzen direla.

f) Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioei aholku ematea haien araubide juridikoaz, araubide ekonomiko-finantzarioaz eta kontabilitatekoaz, bai eta fundazioek beren helburuak betetzeko garatzen dituzten jarduerekin lotutako gaiak buruz, eta horretarako behar den laguntza ematea.

g) Foru lege honetan eta indarreko gainerako arauetan ezartzen diren gainerako eginkizunak.

2. Babesletzaren eskumeneko eginkizunak betetzeko, fundazioek kudeaketa txosten bat aurkeztu beharko dute urtero, aurreko apartatuaren arabera ebaluatzea ahalbidetuko duena.

3. Babesletza legitimaturik dago patronatuaren egintzak eta erabakiak aurkaratzeko, fundazioa eraentzen duten lege aginduen edo estatutuetaoekin kontrakoak badira.

4. Babesletzak, bere eginkizunak betetzen ari delarik, arlo penaleko legezotasun ezaren arrazoizko zantzuak aurkitzen baditu fundazio baten jardueran, ebazpen arrazoitua emanen du, eta dokumentazio osoa igorriko du Fiskaltzara edo organo jurisdikzional eskudunera, eta horren berri emanen die fundazio interesdunari eta Fundazioen Erregistroari.

**62. artikulua. Aldi baterako eskuhartzea.**

1. Babesletzak, bere eginkizunak betetzen ari delarik, kudeaketa ekonomikoan irregularitasun larri bat aurkitzen badu, fundazioaren iraupena arriskuan jar dezakeena, edo desbideratze larri bat fundazioaren helburuen eta egindako jardueraren artean, patronatuari eskatuko dio, hari entzun ondoren, hura zuzentzeko behar diren neurriak hartzeko.
2. Aurreko apartatuan aipatzen den errekerimenduari horretarako adierazten den epean erantzun ezean, Babesletzak agintaritzaren eskatzen ahalko dio erabaki dezala, patronatuari entzun ondoren, fundazioan aldi baterako esku hartzea.
3. Fundazioan esku hartzeko baimen judiziala lortu ondoren, Babesletzak bere gain hartuko ditu patronatuak lege eta estatutuaren arabera dituen eskudantzia guztiak, agintari judizialak ezartzen duen denborarako. Esku-hartzea bertan behera geratuko da ezarritako epea bukatzean, non ez den onartzen hura luzatzea beste ebazpen judizial baten bidez.
4. Fundazioan aldi baterako esku hartzea erabakitzen duen ebazpen judiziala Nafarroako Fundazioen Erregistroan idatziko da.

**63. artikulua. Baimenak.**

1. Foru lege honen aplikazio esparruan dauden fundazioek, estatutuetan hala xedaturik badago, Babesletzari baimena eskatuko diote fundazioaren zuzkiduraren parte diren ondasun edo eskubideak erabili, besterendu, dela kostu bidez dela dohainik, edo zergapetzeko, bai eta fundazioaren helburuekin zuzenean lotuta daudenen kasuan ere, eta baimen hori lortzeko bidezko arrazoia dutela frogatu beharko dute.
2. Ulertzen da fundazioaren ondasunak eta eskubideak haren helburuekin zuzenean lotuta daudela lotura jasota baldin badago berariazko borondatearen adierazpen batean, dela fundatzaileena, patronatuarena edo fundazioari borondatezko ekarpena egiten dion pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatu batena, betiere ekarritako ondasun eta eskubideen gainekoa. Lotura hori egiten ahalko da, halaber, Babesletzaren edo agintari judizialaren ebazpen bidez.
3. Babesletzak baimen eskaeraren gaineko ebazpen arrazoitua eman eta fundazioari jakinaraziko dio gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskaera jaso zenetik hasita; Nafarroako Fundazioen Erregistroari ere komunikatuko dio.
4. Epe hori berariazko ebazpenik komunikatu gabe iraganik, baimena eman egin dela ulertuko da.

**64. artikulua. Komunikazioak.**

1. Fundazioek honako egintza hauen berri emanen diote Babesletzari, horrek behar bezala eta egiaz bete ditzan bere eginkizunak:
  - a) Karga duten legatuak edo kostu bidezko edo ordainsaripeko dohaintzak onartzea eta jaraunspenak, dohaintzak edo kargarik gabeko legatuak arbuiatzea.
  - b) Fundazioaren beste ondasun eta eskubide batzuk, zuzkiduraren parte ez direnak edo fundazioaren helburuak betetzearekin zuzenean loturarik ez dutenak, erabiltzeko egintzak, transakzio edo konpromisoa barne, eta ondasun higiezinak, merkataritza edo industria establezimenduak, kultur intereseko ondasunak eta, onetsitako azken balantzearen arabera, fundazioaren aktiboaren 100eko 20 baino gehiagoko zenbatekoa dutenak (zein den ere haien xedea) kargatzekoak.

2. Patronatuak aurreko 1 zenbakiko a) letran aipatzen diren egintzen berri emanen dio Babesletzari gehienez ere egin ondoko hamar egun balioduneko epean, eta hogeita hamar egun balioduneko epean b) letraren kasuan.

3. Komunikazioak ikusirik, Babesletzak dagozkion erantzukizun egintzak baliatzen ahalko ditu patronatuko kideen aurka, patronatuaren egintzak kaltegarriak badira fundazioarentzat, foru lege honetan aurreikusitako moduan.

#### **65. artikulua. Errekurtso juridikzionalak.**

Babesletzaren egintzek amaiera ematen diote bide administratiboari eta aurkaratzen ahalko dira administrazioarekiko auzien ordena juridikzionalan.

#### **66. artikulua. Fundazioei aholku ematea.**

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du bere web orrian behar diren bitartekoak eskura jartzea fundazioek informazioa izan dezaten eta haien gaineko araubidearekin zerikusia duten kontsultak egin ahal izan ditzaten.

2. Babesletzak kontsulta horiei emandako erantzunak informatiboak izanen dira eta aplikatuko dira soilik kontsulta egiten duen pertsonak edo entitateak planteatutako egitatezko kasuetan, eta ezin dira inola ere erabili interpretaziorako irizpide orokor gisa.

### **III. KAPITULUA**

#### **Foru Administrazio Publikoaren Fundazio Publikoak**

#### **67. artikulua. Definizioa eta nortasun juridikoa.**

1. Fundazio publikoak dira Foru Administrazio Publikoaren esparruan bere eskumeneko helburuak gauzatzeko sortutakoak, Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioari eta foru lege honi jarraikiz. Sortzaile den entitatearen eskumen esparruarekin zerikusia duten jarduerak bakarrik egiten ahalko dituzte.

2. Sortzen direnean, fundazioaren ondarea gehienbat osatuko dute fundatzailearen zuzeneko edo zeharkako diru-ekarpenek.

3. Foru Administrazio Publikoaren fundazio publikoak dagokien arloko eskumena duen departamentuaren tutoretzapean egonen dira, eta ordenamendu juridiko pribatuak zuzenduko ditu, ezertan ukatu gabe foru lege honetan eta kontratazioari, aurrekontuei, kontabilitateari eta finantzen kontrolari buruz aplikatzekoa den araudi administratiboan ezarritako berezitasunak.

4. Nafarroako fundazio publikoek ez dute inolaz ere izanen aginte publikoa erabiltzeko ahalmenik.

#### **68. artikulua. Araubide juridikoa.**

1. Foru Administrazio Publikoaren fundazio publikoen sorkuntza, hasierako zuzkidura, estatutuak eta araubide juridikoa bat etorriko dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 67. eta 68. artikuluetan, foru lege honen xedapenetan eta fundazioen arloan aplikatzekoa zaien gainerako araudian ezarritakoarekin.

2. Fundazio publikoen aurrekontu, ekonomia eta finantza araubidea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritakoa izanen da.

## §2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa

3. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 44.3 artikuluan, e) letran, xedatutakoarekin bat, Nafarroako fundazio publikoek berdintasun planak egin beharko dituzte.

4. Pertsona juridiko-publikoek eraturako fundazioek aurreikusten ahalko dute beren estatutueta likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak fundatzaileari itzultzea.

### **Lehen Xedapen Iragankorra. Babesletza ofizioz esleitzea.**

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatuak izanik, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen bidez egin zen erreforma baino lehenagoko testuarekin bat Nafarroako Fundazioen Babesletzari atxikita ez dauden fundazioei Erregistroaren bidez jakinaraziko zaie Nafarroako Gobernuaren zer departamentuk eman beharko dien Babesletza hori.

2. Babesletza esleitzeko epea sei hilabetekoa izanen da foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita.

### **Bigarren Xedapen Iragankorra. Inskribatutako fundazioak.**

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan foru lege honek indarra hartu aurretik inskribatuta dauden fundazioak foru lege honen menpe egonen dira, beren nortasun juridikoa eta gaitasun osoa gordeta. Fundazio horiek bi urteko epea izanen dute beren estatutuak foru lege honen aurreikuspenetara egokitzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den epea iraganik, Nafarroako Fundazioen Erregistroak ez du eginen fundazio batek eskatutako inskripziorik aurreko apartatuan aipatzen den estatutuaren egokitzapena egin gabe badu.

### **Xedapen Indargabetzaile Bakarra. Arauak indargabetzea.**

1. Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

2. Bereziki, hauek indargabetzen dira:

a) Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen I. tituluko II., III., IV. eta V. kapituluak eta lehen xedapen gehigarria.

b) Nafarroako Fundazioen Erregistroaren egitura eta funtzionamendua arautzen dituen azaroaren 11ko 613/1996 Foru Dekretua, honen aurka egiten duen guztian; gainerako artikuluek indarrean segituko dute.

### **Azken Xedapenetako Lehena. Erregelamendu bidez garatzea.**

Nafarroako Gobernuan lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuaren titularrari gaikuntza ematen zaio behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan foru lege honetan xedatutakoa aplikatzeko, garatzeko eta betearazteko.

### **Azken Xedapenetako Bigarrena. Arauigorpenak.**

Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean bere artikulua indargabetuetara egindako arau-igorpenak foru lege honetako artikuluetara egindako arau-igorpenetzat hartuko dira.



§2.5.- 13/2021 Foru Legea, ekainaren 30ekoa

**Azken Xedapenetako Hirugarrena. Indarrean sartzea.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **§2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, Haur eta nerabeei arreta eta babes eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa**

### **Atarikoak**

#### **I**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikulua 17., 18. eta 23. apartatuen arabera, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusiboa du honako arlo hauetan: gizarte laguntza, haur eta gazteen arloko politika, eta adingabeen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak; horrekin batera, foru zuzenbide zibilaren arloan ere eskumen eskusiboa du, lege organiko horren 48. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Arlo hauetan, berriz, eskumenak ditu: liburutegiak, kirola eta aisialdia, ikuskizunak, elkarteak, hezkuntza, osasuna, kontratuak, ingurumena eta ekologia, enplegua, toki administrazioa eta prozedura administrazioa, zuzenbide substantiboan edo erkidegoaren antolaketa Nafarroak dituen berezitasunen ondoriozkoa, 44. artikuluko 10., 14., 15. eta 19. apartatuetan eta 46., 47., 49.1 c) eta d), 53., 57. eta 58. 1 b) artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua arabera, botere publiko guztiak beharturik daude familiaren babes soziala, ekonomikoa eta juridikoa ziurtatzera, bai eta adingabeen babes integrala ere, haien eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioetan aurrekusi bezala, bereziki Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartutakoan.

Konbentzioak dakartzan betebeharrak bi jardun-eremu nagusitan banatzen dira.

Batetik, Nafarroan egoitza edo aldi baterako bizilekua duten adingabeak izateagatik, Nafarroako Administrazio Publikoetatik, modu koordinatuan, babes integrala jasotzeko eskubidea duten haur eta nerabe guztiak; babes horrek esan nahi du Konbentzioak ematen dizkien eskubideak aitortu ez ezik zaindu behar dela ere horiek benetan izatea, adingabeak eskubideen subjektu eta beren bizitzaren protagonista nahitaezkoak diren aldetik, eta, horretarako, haien familiei laguntza eman behar zaie haien eginkizunak betetzeko, betiere ulertuta adingabeen interesa interes nagusi bat edo interes nagusia dela.

Bestetik, Konbentzioak berak dakarren beste jardun-eremua da babes sistema bat bermatu beharra, erabakiko duena, beharrezkoa denean eta salbuespeneko kasuetarako bada ere, adingabeak beren familietatik bereiztea, adingabe horien interes gorenaren izenean. Nolanahi ere, bigarren eremu honetan egoera irregularren paradigma gainditzeko asmoa dago, helburu nagusia ez dadin izan, eredu paternalista bati jarraikiz, zaurgarritasun egoerak sortzen dituzten gabeziei erantzutea, baizik eta familien eta adingabeen gaitasunetatik abiatzea, horiek osatu eta laguntzeko behar diren baliabide guztiak erabiliz, eta ikuspegi integralari gurasotasun positiboaren printzipioa gehitzea.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Guztiarekin ere, beste printzipio gidari funtsezkoena, aipatutako bi eremuak elkarlotzen dituena, esku-hartzeak aurreratzea da, lehenetasuna emanez prebentzioari, arreta goiztiarrari eta detekzio goiztiarrari, arreta eta babesa ez daitezten abian jarri konponbidea zailagoa denean egoeraren ondorioz, jakinik kalteak larriagotzen direla pertsonen bizitzaren hasieran, eta kontuan hartuta garrantzitsua dela haurtzaro ona izatea etorkizuneko gizarte integrazioa ere ona izan dadin.

Aipatutako guztiak ez du eragozten zaurgarritasun handieneko egoeretan daudenei eman beharreko arreta areagotzeko, eta, horretarako ezinbestekoak dira neurriak, diskriminazio mota oro -sexuak, desgaitasunak, baldintza ekonomikoek edo egiturazkoek nahiz desberdintasun kulturalak eragindakoak- ezabatzea bermatzen dutenak, eta ekintza positiboak, berdintasuna eraginkorra eta benetakoa izatea ahalbidetuko dutenak.

Familiek eta Administrazio Publikoek antolatu behar dute betebeharrak onartu eta sarean betetzeko modu integral hori, zeinetan bi alderdi hauek ere presentzia izan eta ekintza gidatzeko baliatu beharko baitira: pertsonarengan zentratutako arreta, ikuspegi etiko ukaezintzat hartuta, eta adingabeen parte-hartzea.

Pertsonarengan zentratutako ereduaren aldeko apustuak esan nahi du banakako formatuetan lan egitea, pertsonen beharretan, beraiek adierazitakoetan, zentraturik, berezitasun biografiko, pertsonal eta sozialak aitortuz, pertsonaren eta haren ingurune informal edo pribatuaren baliabideak bilduz, errekerimendu judizialak eta arauzkoak bilduz, lankidetzazko moldeekin; horrek esan nahi du zerbitzu eta profesional anitz daudela inplikaturik eta kontuan hartu behar direla eboluzioaren alderdiak ere; esan nahi du, halaber, uneoro akonpainamendua behar dela kasuek instituzioetan egiten duten ibilbideetan, eta zailtasunak gainditu gizarte integrazioa eta garapen pertsonala lortzeko. Araudi hau ez da soilik egin adingabeentzat, adingabeekin baizik, haiei entzunez, adin talde bakoitzera eta egoera bakoitzera egokituz, protagonista nagusitzat hartuz; horri esker, sustatzen den inklusioa integrala da, ez bailitzateke halakoa adingabeek herritartasun demokratiko eta osoaren parte ez balira.

Foru lege honek izaera zibileko arauak jasotzen ditu, azken xedapenetako lehenengoan adierazten den bezala, bai eta Nafarroako Arartekoari buruzko arau batzuk ere. Bi gaiak, 13/1982 Lege Organikoaren arabera, gehiago osoko foru legee loturik daude.

## II

Foru lege honek bost titulu, zazpi xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta sei zuzen xedapen ditu.

Atariko tituluan, xedarekin eta aplikazio eremuarekin batera, printzipio gidariak jasotzen dira, aurreko araudikoak foru lege honen helburu nagusiekin osatu eta indartzeko, atarikoaren aurreko apartatuan aipatu den moduan.

Era berean, erantzunkidetasunaz gain, beste tresna garrantzitsu batzuk sartzen dira legean, hala nola aurrekontuetan lehenetasuna emateari, eraginaren ebaluazioei eta inguruneen eta komunikazioaren baldintzei dagokienez, adingabeekin eta familiekin.

I. tituluko gaiak dira, batetik, eskubide horien, Konbentzioaren eta Haurren Eskubideen aldeko Batzordearen lanaren zabalkunde eta sustapenerako arau orokorrak; Nafarroan haurren ongizatearen jarraipena egiteko sistema instituzionalizatu baten beharra jasotzen da; asistentziarako telefono bat izateko elkarlana aurreikusten da; eta sustapenerako

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

instituzioen multzoa osatzen da Nafarroako Gizarte Laguntzaren Etika Batzordearekin. Beren horretan uzten dira babes betebeharrak eta instituzioak, Nafarroako Arartekoa, adibidez, eta haien izaera subsidiarioa familien erantzukizunekiko.

Halaber, familientzat, Administrazioentzat eta gizartearentzat dakartzan betebeharren ikuspegitik, Konbentzioak adingabeei aitortzen dizkien eskubide nagusiak ere arautzen dira: bizitzarako eta osotasun fisiko eta psikikorako, Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak ezarritako betebeharrak onartuz; garapenerako; ohorerako, intimitaterako, norberaren irudirako eta datu pertsonalei dagokiena; nortasunerako; informaziorako; partaidetzarako eta entzunak eta adituak izateko, elkartegintzarako eta adierazpen askatasunerako; haien osasunaren babeserako; hezkuntzarako, kulturarako, aisialdirako eta harremanetarako; ingurumenerako eta jasangarritasunerako; gizarte inklusiorako; eta eskubide ekonomikoak eta lan arlokoak.

Arau berariazkoak ezartzen dira diskriminazio mota oro ekiditeko eta berdintasuna genero ikuspegitik sustatzeko, desgaitasuna duten pertsonak New Yorkeko Konbentzioak erabaki bezala hartzeko, zaugarritasun sozioekonomikoaren aurreko ekintzak eta kulturartekotasunarekin lotutakoak.

II. tituluan, antolaketa administratiboari buruzkoan, I. kapituluan indartu egin dira diagnostiko, plangintza eta ebaluazioari buruzko arauak, dagoeneko eginik dauden planetan eskuratu den esperientzian eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren ebaluazioetan oinarrituta, erreferente tekniko eta metodologikoak zabaldu ondoren.

II. kapituluan, eskumenen banaketa mantentzen da, uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuak berriki toki esparruan egin duen esleipenarekin bat, ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuak emandakoak osatuz.

III. kapituluko 1. atala familiei buruzkoa da, eta aitortzen da familia molde asko daudela eta gerta daitezkeen diskriminazio guztien aurrean babestu beharra dagoela, LGTBI+ familiek jasan dezaketena aipatuz, adibidez; haur pobreziaaren prebentzioa jorratzen da, bai eta haur-eskoletan sartzea, gurasotasun positiboaren sustapena, familien parte-hartzea plangintzan eta beste eremu batzuetan, eta arreta goiztiarrekin lotutako guztia ere.

III. kapituluko 2. atalean mantendu egiten da adingabeen arreta eta babeserako zentroak baimentzeko araubidea. Beharraren printzipioa, zeina betetzen dela justifikatu behar baita, abenduaren 12ko 2006/12/EE Zerbitzuen Zuzentzarauak hala exijituta, betetzen da adingabeen babesaren arloan, arrazoi hauengatik: adingabeei zerbitzuak ematean gertatzen diren ezaugarri bereziengatik; pertsona horiek bizitzaren etapa horretan duten zaugarritasunagatik, zeren etapa horretan, alde guztietatik ikusita, nortasuna sortzen eta garatzen ari baitira; babesa behar izateagatik gabezia motaren bat jasan dutelako; eta politika sozialarekin lotu nahi diren helburuengatik. Inguruabar horiek interes orokorreko premiazko arazoak dira, arau honetan ezarritako baimenen araubidea justifikatzen dutenak.

Proporzionaltasun printzipioari dagokionez, adingabeen babesaren arloan justifikatuta dago baimena eskatzean, ez baitago hain murriztailea ez den beste neurririk, emaitza berberak lortzea ahalbidetzen duenik. Izan ere, mota honetako zerbitzuak abian jartzeko komunikazioa eta kontrol sistema “a posteriori” izatea ez litzateke nahikoa izanen zerbitzu horiek artatzen dituzten adingabeen osasuna, segurtasuna eta ongizate fisiko eta

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

emozionala bermatzeko, eta gerta liteke “a posteriori” kontrol hori lesioa gertatu ondoren egitea, eta askotan konponbiderik gabekoa izatea, kontuan harturik kalteak handiagoak izaten direla txikitan.

Printzipio horiez gainera, Zerbitzuen Zuzentzarauaren beste agindu batzuen ildotik, diskriminazio ezaren printzipioa aipatu beharra dago, aurreikusitako baimen araubideak ez baitu inolako diskriminaziorik ezartzen, ez zuzenean, ez zeharka, zentroaren titularraren nazionalitatean oinarrituta, edo zentroaren titulartasuna duen entitatearen edo pertsonaren egoitza soziala dela kausa, edo pertsona edo entitatea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldearen barruan egoteagatik edo ez egoteagatik.

Azkenik, aurreko guztiak ez du eragozten, ordea, prozedura espezifiko baten beharra kentzea, babes zerbitzuak kontratu edo itun sozialaren bidez eman nahi dituen entitate bat baimendu edo akreditatu behar denean; horrenbestez, zerbitzuak adjudikatzeako erabiliko den prozedura bera baliatuko da behar diren egiaztapenak egiteko, eta, horrela, bikoizteak eta atzerapenak saihestuko dira eta Zerbitzuen Zuzentzarauaren 10.3 artikulua emandako agindua beteko da, hots, akreditazioak emateko prozedurak ez sortzea baldintza eta kontrol berriak, adingabeentzako zerbitzu bat eman nahi duenak bete behar dituenen parekoak edo parekagarriak direnak funtsean.

III. kapitulu 3. atalean jasotzen dira metodologiaren erregulazioa eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak.

IV. kapitulu berritzailearen gaia sareko lana da, eta haren helburua da bermatzea, batetik, adingabeak beraiek eta haien familiak erdigunean egonen direla departamentuek eta administrazioek, beren lan sektoriala betetzen duten esparruetan, adingabeei eragiten dieten gaiak buruz hartzen dituzten erabakietan, eta, bestetik, ekintza administratiboak ikuspegi guztiak landuko dituela konponbide bateratu eta partaidetzazkoak eraikitze, pertsonekin batera hirugarren sektoreko entitateak ere partaide direla. Arauan sartzen dira jadanik lanean ari diren batzorde zehatz batzuk, esate baterako, Pertsonarengan zentratutako arretari sostengua emateko Batzordea, edo zenbait esparrutan abian jarri behar diren beste batzuk, esparru sektorial nahiz nuklearretan -arreta goiztiarra edo harrerak, adibidez-.

Nafarroako Adingabeen Kontseiluaren ordez Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua ezartzen da eta haren osaketa osatzen da bermatuz bertako kide izanen direla, adingabeentzako arretan interesa duten pertsonak ez ezik, adingabeak beraiek ere.

V. kapitulu osatzen da arau-hausteen tipifikazioa eta zehapenak egokitzen dira tipifikatutako jokabideen larritasunera.

III. tituluan, aurreko araubidearekin alderatuta, osatzen eta zehazten dira prebentzioaren helburuak eta prebentziorako jarduketak esparru material desberdinetan. Halaber, haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen figura garatzen da alor komunitarioan.

Komunitatea unitate sozial bat da, ezaugarri, interes, elementu edo funtzioaren bat amankomunean duten kideak dituen, taldekotasun-kontzientziadunak eta eskualde geografiko jakin batean kokatuak, zeinetan pertsonak elkarrekintza mamitsuagoa baitaukate beren artean, ezen ez beste testuinguru batean; eta toki-komunitatea da, auzoek, herriek eta ibarrek, haien elkarrekin eta bizilagun-sareek osatua, Nafarroan haur eta nerabeen babesaren maila komunitarioa osatzen duena. Lurralde-testuinguru sozial horretantxe daude kokatuta familiak, eta, halaber, hor ehuntzen dira sostengurako gizarte-sareak, eta da nagusiki garatzen haur eta nerabeen eta haien familien bizitza

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

publikoa haurtzaroan eta nerabezaroan zehar. Horregatik, bereziki garrantzitsua da gizarte-babeseke neurriak hartzea familiari eta komunitateari laguntzeko, haiei baliabideak helaraziz, haur eta nerabeen beharrezanez haien ingurunean erantzutera bideratuak.

Komunitateak erantzunkidetasun-esparru bat eskaintzen du, haur eta nerabeak beren ingurunean babestuak izatearen sustapenean, batetik herritarrentzat, bizilagun diren aldetik, eta bestetik zerbitzu eta zentro publikoetako profesionalentzat. Kontua ez da proiektu isolatuak deslari abiaraztea, baizik eta modu desberdinetan eszenatokiak eraikitzea, toki bakoitzean dagoen ehundurarekin konektatuak eta errotuak. Komunitatearekiko eta komunitatearengandiko lana egiten da haur eta nerabeen sustapenaren helburuarekin komunitatean bertan oinarrituta dauden proiektu zerbitzu eta zentro publikoen babeslana halaber indartuko dutenak.

Tokiko komunitateak bateralekuak eta elkarguneak sortzen ditu komunitate bateko sektore desberdin guztientzat. Tokiko komunitatea ohartematen da prebentziorako eta haur eta nerabeen babeserako nahitaezkoak diren lokarri sozialen dentsitate-, iraupen- eta intentsitate-esparru egokia eskaintzen duen lurralde-oinarri bezala.

IV. tituluan, funtsean mantentzen da babes sistemaren eskema, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak osatu zuena, eta bereizten dira, batetik, arrisku eta babesgabetasun egoerak, bi baldintzaren arabera: egoeraren larritasun maila eta, hortaz, familia-nukleotik bereiztea beharrezkoa izatea edo ez. Bien definizioan sartu dira 2015eko erreforman 1996ko araudiari gehitutako gai nagusiak, 2005eko foru legea onetsi zenean hura zegoelako indarrean.

Zehatz-mehatz garatu da babesgabetasuna deklaratzeko prozedura, bai eta zer kasutan aplikatzen ahalko den prozedura laburtua edo noiz jarduten ahalko den berehalakoan; horrekin lotutako gai batzuk ere zehazten dira, hala nola espedienteen zaintza eta sarbidea.

Berariak gehitu da borondatezko zaintza (108. artikuluan garatzen da haren araubidea), egoera desberdina baita, arriskua eta babesgabetasuna saihesten dituen.

Orain arte gatazka edo zailtasun soziala deitu dena, berriz, aurrekoetatik bereizten da eta haren izena aldatzen, kontzeptu horiek adierazten dutelako adingabea dela gatazka edo zailtasun bat sortzen duena gizartearentzat, eta ez arriskuaren biktima edo subjektua, nahiz eta halakoa eragin beste pertsona batzuentzat ere. Hori dela eta, egoera horretarako babesa beste apartatu batean eta beste izen batekin jorratzen da, jokabide arazoena, alegia, horrek babesaren jomuga jartzen duelako adingabeak babestean, egokitzapen falta larriaren ondorioz bere buruari edo beste pertsona batzuei kalte egiteko arriskua dagoenean.

Babestutako adingabeen eskubideak indartu egin dira, bai eta adingabeen ardura duten pertsonen betebeharrak espezifikokoak ere.

Berritasunak sartu dira zaintzaren araubidean, eta nabarmenenak hauek dira: zaintzak egitea jatorriko familiara pixkanaka itzultzeko aukerarekin; zaintzaren aldi baterako izaeraren bermeak eta egonkortasun helburuarenak areagotzea; borondatezko eta behin-behineko zaintzari buruzko xehetasunak gehitzea.

Harreraren erregulazio espezifikoa sartu da, eta arautu dira haren eraketa, babeserako banakako plana, harreraren jarraipena, harrerei laguntza emateko neurriak, bisiten araubidea, harrera modalitateak, aplikatu beharreko irizpideak.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Zehaztu dira, halaber, familia harreraren araubidea, haien helburuak, harrera egiten dutenen eskubide eta betebeharrak, harrera familia gehiago eta hobeki erakartzeko eta haiei laguntzeko aurreikuspenak, harrerarako prozedura eta aurretiazko faseak.

Era berean, erregulazio espezifikoak garatu da egoitza harrerei buruz, gai hauen gainean: adingabeekiko dauden betebeharrak, adinari dagozkion mugak eta nukleo txikiak lehenestea, ikuskapenak eta gainbegiratzea, egoitzetan dauden adingabeen eskubideen eta betebeharren zerrenda, zentroetako bizikidetzak; azken gai horretan, aurreko ikuspegia, diziplinan oinarrituta zegoena, aldatu egin da eta lehentasuna ematen zaie orain hezkuntzan oinarritutako neurri eta metodologia produktiboagoei, bizikidetzak hobetzeko eta harremanetan giro ona egon dadin.

Adopzioen arloan, zenbait printzipio sartzen dira, adibidez, babes sisteman dauden nerabeen adopzioa sustatzea, edo adopzioan dauden adingabeak Arreta Goiztiarrean sar daitezzen sustatzea, eta beste batzuk aldatzen dira, denbora lehentasunarena, kasu, adingabe bakoitzaren beharretarako egokitzearen printzipioa indartzeko.

Adopzio pribatuaren arloan, kasu batzuk ezartzen dira, Foru Berrian ez zeudenak.

Zehaztasunez arautzen da egokitasunarekin lotuta dagoena, eta zenbait berritasun sartzen dira, esate baterako erabakia atzeratzea arrazoi koiunturalengatik edo aldi baterako egokitasun eza. Aldez aurreko eskaintzarik gabeko adopzio nazionalerako kasu batzuk sartzen dira. Familia adoptatzaileen hautapenerako araubidea zehazten da. Adopzioaren ondoko jarduketan erregulazioa osatzen da.

Sartu eta arautzen diren beste figura batzuk dira adopzio irekia eta adopzioa helburu duen zaintza eskuordetzea.

Autonomia programak zirenak bizimodu independenterako prestatzeko programak dira orain, eta haien araubidea osatzen da, batez ere laguntzen eta segimenduaren definizioarekin edo mentoreen figuren sustapenarekin.

V. tituluan mantentzen da erabaki judizialen erregulazioa, gehienbat exekutiboa, lehen erreforma eta orain gazteentzako justizia deitzen denaren barruan.

Gehigarriak daude gai hauei buruz: estigmatizazioaren prebentzioa, adingabeen babesa telebistako eta ikus-entzunezko beste komunikabide batzuetako programazioaren aurrean, Haurren Eguna eta foru legearen beraren sustapena, garapenerako lankidetzak eta eskolatzearen berezitasunak adingabeak babesteko neurrien ondorioz.

Azkenik, araubide iragankor bat ezartzen da adingabeak babesteko zentroen kalitate estandarrak finkatu bitarte, eta printzipio etiko espezifiko batzuk ezartzen dira, erreferente izan daitezkeen adingabeen arloan.

## **ATARIKO TITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Xedea.**

Foru lege honen xedeak ondoko hauek dira:

Haur eta nerabeentzako arreta integrala ziurtatzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, haurrak eta nerabeak eta haien familiak eta eskubideak babesteko esparru juridikoa ezarri, bai eta horien prebentzio eta sustapenerako neurri eta jarduketa administratiboak ere.

Garzteentzako Justizia Sistemaren menpe dauden adingabeen arloan orientazioa eta gizarteratzea helburu dituen esku-hartzea, organo jurisdikzionalak ezarritako neurriak betearaztearen esparruan.

Bi kasuetan bermatzea haien eskubideen erabilera, haien interesen defentsa eta, bizikidetzaren eremu guztietan, haien garapen integrala, eta haien askatasuna eta berdintasuna egiazkoak eta eraginkorrak izatea eragotzi edo zailtzen duten trabak kentzea.

### **2. artikulua. Aplikazio eremua, pertsona eta lurraldekoa.**

1. Foru lege honetan aipatzen diren neurriak aplikatuko zaizkio egoitza Nafarroako Foru Komunitatean duen edo aldi baterako bertan dagoen edozein adingaberi, beste administrazio batzuek eta adingabeekin eta haien familiekin lan egiten duten zerbitzuetako pertsonak izan ditzaketen ahalmenak galarazi gabe.

2. Halaber, foru lege hau aplikatuko zaie Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren eraginpean dauden adingabeei eta, kasua bada, adin nagusikoei ere.

3. Foru lege honen ondorioetarako, adingabea izanen da Espainiako Konstituzioak ezarritako adin-nagusitasunera iritsi ez dena, baldin eta emantzipatuta ez badago edo adin-nagusitasunera iritsi ez bada aplikatzekoa zaion legean ezarritakoaren ondorioz.

4. Lehen haurtzarora da pertsona jaiotzen denetik 3 urtera arteko bizitza-aldia.

5. Haurtzarora da 4 urtetik 12 urtera arteko bizitza-aldia.

6. Nerabezarora da 13 urtetik adin-nagusitasunera arteko bizitza-aldia.

### **3. artikulua. Adingabearen interes gorena.**

Adingabe orok du eskubidea bere interes gorena baloratu eta lehenets dadin hari dagozkion ekintza eta erabaki guztietan, hala esparru publikoan nola pribatuan, bai eta interes goren horren interpretazioa eta aplikazioa kasu guztietan egin daitezen kontuan hartuz eta aztertuz adingabeen babes juridikoari buruzko estatuko araudian ezarritako irizpide orokorrak eta Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartutako Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan aurreikusitakoa; horrekin batera, desgaitasuna duten adingabeen kasuan, aintzat hartuko da 2006ko abenduaren 13an onartutako Desgaitasuna dutenen eskubideei buruzko Konbentzioan aurreikusitakoa.



#### **4. artikulua. Printzipio gidariak.**

1. Nafarroan helbidea edo bizilekua duten pertsonak edo erakundeak eta Nafarroako Administrazio Publikoak adingabeei arreta emateko betetzen dituzten lanak adingabearen interes gorenaren printzipioarekin bat etorriko dira beti, bai eta printzipio hauekin ere:

a) Adingabeen inguruan hartzen den neurri orok nagusiki hezkuntzara eta gizartearen parte izatera bideratuta egon behar du.

b) Adingabeak familian integratzea eta gizartean integratzea bilatuko da, eta beren familia eta gizarte ingurunean iraun dezatela bermatuko, horrek haien interesei kalte egin ezean.

c) Edozein adingaberi haren zainketaz eta garapenez arduratzen direnek eman behar dioten arretaren izaera integrala.

Alderdi guztietara zabalduko da, materialak, moralak, psikologikoak nahiz sozialak izan, horren barnean dela zaintzen dutenekin loturak atxikitzeko eskubidea, haren kaltetan ez bada, adingabeak izan dezan, finean, bizitza betea eta bere eskubide guztiak baliatzeko modua.

Orobat, eskubide horiek errespetatzea eta adingabeak eskubide horien titular aktibotzat hartzea sustatuko da.

d) Ekitatea eta diskriminazio ooren debekua.

e) Babesgabeziaren egoeren prebentzioa, eta ahaleginak egitea adingabearen garapen pertsonal eta sozial egokia eragozten edo zailtzen duten gabeziak atzeman eta apaltzeko.

f) Sustatzea adingabeen parte-hartzea adierazgarria izan dadila, haur eta nerabeentzat moldatuak eta egokiak diren metodologiak eta bideak erabiliz, eta, horrekin batera, herritarren sensibilizazioa ere sustatzea, bereziki babesgabeziaren aurrean.

Parte hartzeko bideak eskuragarriak izanen dira desgaitasuna dutenentzat, adinen eta heldutasunaren araberakoak; horrekin batera, adingabeen eta haien familien arazoak kontuan hartuko dira.

g) Adingabeengan balioak sustatzea, hala nola, tolerantzia, elkartasuna, begirunea, berdintasuna eta diskriminazio eza, eta, oro har, Konstituzioan jasotzen diren bizikidetzako printzipio demokratikoak.

h) Adingabearen interesen alde edo hura babesteko egiten diren jarduketan konfidentzialtasuna.

i) Gurasotasun positiboa, adingabeen, aiten, amen eta familiako beste kideen ahalmenak eta baliabideak sendotzera zuzenduta, dituzten indarrak eta gaitasunak kontuan hartuz eta areagotuz, haien gabezien gainetik, eta haien zailtasunak gainditzen laguntzeko, materialak eta harremanetakoak barne.

j) Haurtzaroen eta nerabezaroen lagunak eta denbora izatea funtsezkoa dela aintzat hartzea, haur eta nerabeek uzta ditzaten beren heziketarekin lotuta bereganatzen doazen erantzukizunak eta beren behar ludikoak eta harremanetakoak.

k) Adingabeek pairatutako kalteak oneratzeko.

m) Printzipio etikoak aintzat hartuko dira, erreferente gisa.

n) Familiei aitorpena eta sostengua ematea, adingabeen garapen normalerako babetesingurunea diren aldetik.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

2. Nafarroako Administrazio Publikoek printzipio hauek beteko dituzte adingabeekin, haien familiekin eta adingabeen arretaren edo babesaren arloan jarduten duten erakunde publiko edo pribatuekin dituzten harremanetan:

a) Sarean lan egitea, ingurune komunitariotik, adingabeen arretaren eta haien eskubideen defentsan eta sustapenean esku hartzen duten administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean.

Ukitutako toki eta foru erakundeek eta departamentuek elkarri emanen diote beren jarduketan helburu, plan, metodologia eta jarraipenaren berri; horretarako, eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak beharrezkoa den prestakuntza bultzatuko du.

b) Lehenestea prebentzio jarduketak eta familian errotzea eta arreta goiztiarra zaintzeko bide ematen dutenak.

c) Jarduketa testuinguru komunitarioetan sustatzea, ingurune desberdinetan belaunaldien arteko harremana atxiki eta sendotzeko, lehendik dauden lotura komunitarioak indartuz.

d) Babes lanaren objektibotasuna, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa, eta neurriak modu kolegiatuan eta diziplina artekoan hartzen direla bermatzea.

e) Pertsonarengan zentratutako arreta, adingabe bakoitzarentzat dagoen baliabide onena aukeratuz, adingabearen eta haren ingurunearen parte-hartzearekin, eta artatzen duten entitate, zerbitzu eta profesional guztien eta instituzioen laguntzarekin.

Lehen haurtzaroko adingabeen kasuan, familiari eta berezko inguruneei zuzendutako arreta.

f) Arrazionalizazioa eta bizkortasuna kudeaketa prozeduretan eta jarduera materialetan.

g) Neurriek adingabeen ongizatean duten eraginaren jarraipena eta ebaluazioa, horren barnean direla planak, programak eta protokoloak, eta kontuak ematea.

h) Zerbitzuetako langileak banakako kasura egokituko dira, eta taldeko lana horretan zentratuko da, zerbitzu desberdinek esku-hartzeagatik disfuncziorik edo etenik sor ez dadin, sareko bilerak eginez, langileak eta zerbitzuak elkarlanean eta koordinatuta arituz.

i) Profesionalen taldean zuzeneko erreferente bat egotea, kasuan garrantzia duena, lagun eginen duena konpondu eta zerbitzutik atera arte, kasua zein den, horretan esku hartu behar duen bitartekoa edozein dela ere.

j) Kasu bakoitzari bideratutako lana, adingabearen eta haren inguruneko zailtasunak, testuinguru eta behar pertsonalak kontuan hartuz.

3. Diskriminazio mota oro galarazteko eta tratua egiaz berdintasuneko eta ekitatiboa dela bermatzeko, bereziki zaindu eta sustatuko dira honakoak:

a) Genero ikuspegia, erantzunkidetasunari esparru zabalagoa eta esanahi sakonagoa emanen dizkiona, neskentzat eta emakumeentzat aukerarik eza edo aukera desberdintasuna dakarten egoerak eta jarduketak identifikatuz eta horien inguruan kontzientziatu eta esku hartuz, eta haien premia eta eskaera espezifikoek erantzunen diena eta haien ahalduntzea sustatuko.

b) Desgaitasuna duten adingabeei eman beharreko tratua, desgaitasuna dutenen eskubideei buruzko Konbentzioak aitortzen dizkien eskubideak benetan baliatzea ahalbidetuko duena.

c) Ikuspegi sozio-ekonomikoa, baliabideen birbanaketa sustatuko duena, adingabeek eta haien familiek oinarritzko beharrak beteta izan dezaten ziurtatzeko.

d) Kultur arteko ikuspegia, adingabeekin eta haien familiarekin harrera eta esku-hartze egokiak egitea erraztuko duena, migrazio egoera eta errealitateetan eta kultura desberdinak elkarren ondoan daudenean.

### **5. artikulua. Lehenetsuna aurrekontuetan.**

1. Foru Komunitateko Administrazioak bere aurrekontuetan jasoko ditu lehenetsunez Foru Komunitate honetako adingabeen zailtasunen atzemate goiztiarra eta horiek konpontzeko bitartekoen aktibazioa, sustapena, arreta, heziketa, babes, gizarteratzea, integrazioa eta aisialdia; kontsignazio hori handituko da gutxienez ere gastu-mugaren gehikuntza adina, gastu-muga handitzen denean. Gastu-muga handitzen ez bada, mantenduko dira, baldin eta foru lege honen xede diren beharrak murriztu ez badira.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Nafarroako toki erakundeek beren gain har dezaten lehenetsun hori, eta hitzarmenen bidez elkarlanean arituko dira eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuaren laguntza eta aholkularitzarekin beren plangintza garatu edo zehaztu nahi dutenekin.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak haur eta nerabeekin lotura duen gastuaren betetzearen gaineko jarraipena egingen du.

### **6. artikulua. Erantzunkidetasuna eta herritarren lankidetzak.**

1. Adingabeen gaineko erantzukizunik duen orok haien garapen eta integrazio osoa laboratuko duten bizi baldintza duinak izan ditzaten behar diren arreta eta zainketak eman beharko dizkiete.

2. Lehenik eta behin adingabeen gurasoek edo adingabeen tutoretza edo zaintza dutenek, eta, aldi berean edo modu subsidiarioan, kasuan-kasuan, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek, erakundeek eta oro har herritarrek, Fiskaltzak eta organo jurisdikzionalak, elkarrekin koordinaturik, lagundu behar dute foru lege honen bidez lortu nahi diren helburuak betetzen, norik bere esparruan, ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien betebeharrak, eskumen eta erantzukizunak erabiliz eta betez.

3. Pertsona edo agintaritzak orok, eta, bereziki, beren lanbide edo eginkizunengatik adingabeekin lotura dutenek, adingabe baten arrisku egoera baten edo balizko babesgabetasunaren berri jakiten badute, edo haren eskubideak urratzen ari direla, hari beharrezkoa duen berehalako laguntza emateaz gain, agintaritzak eskudunetan edo agintaritzaren agente hurbilenetan salatuko dute, neurri egokienak har ditzaten, foru lege honetara xedaturikoarekin bat eta, kasua bada, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko araudi organikoan ezarritakoarekin bat.

Salaketetan, salaketa aurkezten duen pertsonaren edo pertsonen nortasuna adierazi beharko da, bai eta Administrazioari jakinarazten zaizkion egitateen kontakizuna ere. Salbuespenez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ofizios irekiko du ikerketa, salaketak aurkezten dituztenek beren nortasuna adierazten ez dutenean, baldin eta egitateen eta inguruabarren kontakizuna zehatza bada, salatutako egoera benetan gertatu dela egiaztatzeko behar bestekoa.

**7. artikulua. Arauen eraginaren ebaluazioak eta beste jarduketa administratibo batzuk.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek eraginaren ebaluazioak eginen dituzte arau proiektuak prestatzean, horrela aurreikusi ahal izateko zer eragina izan dezaketen haur eta nerabeengan eta haien eskubideen erabileran.
2. Era berean, haur eta nerabeengan eta haien eskubideen erabileran eragina duten planak eta protokoloak ebaluatuko dituzte, bai eta izaera orokorreko edozein erabaki administratibo ere, eta eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuaren sostengua izaten ahalko dute horretan.
3. Ebaluazio horietarako kontuan hartuko diren irizpide eta metodologiak Haurren Defendatzaileen Europako Sareak bultzatzen dituenak bezalakoak izanen dira.

**8. artikulua. Ingurune atseginak eta komunikaziorako modua.**

1. Adingabeek erabili behar dituzten espazio eta ingurune publikoak, bereziki horietan zain egon behar badute, seguruak eta atseginak izan daitezten antolatuko dira, eta bertan egotea eta itxoitea errazago egiten duten eta tentsioa arintzen duten elementuak izanen dituzte.  
Indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeentzat espazio bereziak egon dira, arreta integrala eta diziplina anitzekoa ematen laguntzeko eta bigarren mailako biktimizazioa saihesteko.
2. Administrazio publikoek adingabeekin duten komunikazioa haien mailara moldatu beharko da, errespetuzkoa, positiboa, beroa, enpatikoa, interakzio eragilea eta egoerara egokitu izateko. Desgaitasuna edo zailtasunen bat duten pertsonen kasuan, saihestuko da beti begirada partziala, hau da, gaixotasuna edo muga ikusten duena, pertsona bera osotara eta bere balio osoarekin ikusi ordez.
3. Aurreko apartatueta aurreikusitako komunikazio inguruneak eta moduak sustatuko dira gizarte eremu guztietan.
4. Familiei informazioa emanen zaie haien seme-alabei edo beren kargura harreraren dituzten adingabeei eragiten dieten erabakiei buruz, prozedura mota bakoitzean ezartzen diren protokoloekin bat, batez ere 91.2 artikuluan jasota dauden kasuetan.  
Begirunea eta humanizazioa nagusi izanen dira erabiliko den komunikazio moduan, eta, erabaki zailetan, ziurtatuko da informazio argia ematen dela, funtsezkoena idatziz, eta baloratzeko denbora, erabakiak hartzeko presaren eta haien ondorioen proportzioan.

**I. TITULUA  
HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK**

**I. KAPITULUA  
Printzipio orokorrak**

**9. artikulua. Adingabeen eskubideak babestea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen barruan, bermatuko dute errespetatzen eta behar bezala betetzen direla adingabeen eskubide eta askatasunak salbuespenik gabe eta arraza, etnia, sexu, hizkuntza, kultura, erlijio, iritzi, jaioterri, egoera ekonomiko, egoera edo desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezko edo norberaren, familiaren edo gizartearen esparruko beste edozein egoeraren araberrako

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

bereziketak edo diskriminaziorik egin gabe. Eskubide eta askatasun horiek dira aitorturik daudenak Konstituzioan eta Espainiak berretsiriko nazioarteko tratatueta, bereziki Nazio Batuen Erakundeak 1989ko azaroaren 20an onarturiko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan eta Desgaitasuna dutenen eskubideei buruzko 2006ko abenduaren 13koan, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan eta oro har antolamendu juridikoan adierazten direnak.

2. Era berean, eskubide horiek eraginkorrak izan daitezzen beharrezkoak diren legegintza-, administrazio- eta beste edozein izaeratako neurri guztiak hartuko dituzte.

3. Nafarroako Arartekoa haur eta nerabeen eskubideak babestean arduratuko da, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, honakoak besteak beste:

a) Jardutea, ofizioz edo norbaitek eskatuta, eskubideen urraketari buruzko keax jarritz. Egitateek ondorio penala izan dezaketenean, berehala emanen diote horien berri Fiskaltzari.

Haur eta nerabeek Nafarroako Arartekora jotzen ahalko dute ordezkari gabe, mota guztietako keax eta proposamenak aurkezteko.

b) Nafarroako Administrazio Publikoari jardun dezaten eskatzea, foru lege honekin zerikusia duten gaietan.

c) Nafarroako Foru Komunitateko haur eta nerabeek duten egoera baloratzea urteko txostenean.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari edo Nafarroako toki erakundeak eskatzea legean jasotako programak eta jarduketak benetan bete daitezela.

e) Bitartekaritzako erakundearen eginkizunak betetzea foru lege honekin lotutako gaietan, bere araudian jasotakoarekin bat.

4. Sostengua emanen da baldintzak onak izan daitezzen (materialak, harremanetakoak, eskolakoak eta komunitarioak, mota orotakoak), haurtzarora modu seguruan eta zorigaitz larrietatik salbu bizitzeko.

### **10. artikulua. Haur eta nerabeen eskubideak sustatu eta haien berri zabaltzea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek behar diren ekintzak gauzatu dituzte haur eta nerabeen eskubideak zabalkunderik handiena izan dezaten lortzeko, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren edukiak eta Haurren Eskubideen aldeko Batzordearen lanak ezagutarazteko ekitaldiak eta jardunaldiak antolatuz, zeinetan parte hartuko baitute eskubide horiek eraginkorrak izan daitezzen laguntzen duten eragileek eta familiek, bereziki harrera familiek.

2. Era berean, behar diren baldintzak sustatu dituzte, gurasoek, tutoreek edo zaintza dutenek eta adingabeekin aritzen diren profesionalak modu egokian bete dezaten haien gainean duten erantzukizuna, prestakuntzarako eta informaziorako behar dituzten baliabideak emanaz eta gizartea nahiz profesionalak sentsibilizatuz haur eta nerabeen eskubideak eraginkorrak izateak duen garrantziaz.

Aipatutako baldintza horietako batzuk izanen dira jardunaldiak eta beste ekimen batzuk antolatzea, horien bidez sustatu eta partekatzeko, besteak beste, haurrei zuzendutako tratua ona, gizarte berrikuntza eta ebaluazioa, gardentasunez eta kontuak emanaz.

3. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak datuak bildu eta aztertzeko sistema instituzionalizatu bat izanen du, erkidego eta toki mailako informazioa jasoko duena, bai eta Nafarroan haurren ongizatearen jarraipena egiteko ere, arlo horretako

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

politiken norabidea ezartzeko eta informazio hori zabaltzeko, gizartearen sentsibilizazioari begira.

4. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak txostenak eskatzen ahalko dizkio Nafarroako gizarte laguntzako Etika Batzordeari, adingabeen eskubideen eraginkortasuna indartzeko.

5. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentua elkarlanean arituko da adingabeentzat eskuragarriak diren laguntza telefonoak dituzten erakundeekin, zerbitzu horien ezagutarazpena errazteko eta haien esku-hartzea antolatzeke, dei horien bitartez beharra dagoela antzematen denean.

6. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak lagundu eta sustatuko du jardunbide egokiak sor daitezen, eta prestakuntza programak eta gogoetarako guneak garatuko ditu zerbitzuetan, haiek ikaskomunitate gisa sustaturik.

### **11. artikulua. Subsidiariorotasuna.**

Nafarroako Administrazio Publikoen jarduketa subsidiarioa izanen da gurasoei, tutoreei edo zaintza dutenei, baita harrera egiten dutenei ere, dagokienaren aldean, haiek baitira, ahal duten heinean eta behar duten sostenguarekin, adingabeen garapen integralerako beharrezkoak diren bizi baldintzak ziurtatzeko ardura dutenak.

## **II. KAPITULUA**

### **Eskubideak: haien ezagutza eta erabilera babestu eta sustatzea**

### **12. artikulua. Bizitzarako, osotasun fisiko nahiz psikikorako eta garapenerako eskubidea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen esparruan, prebentzio jarduketak eginen dituzte eta arreta emanen diete, haien gurasoen baimena izan gabe ere, edozein indarkeria mota pairatzen duten adingabeei, indarkeria instituzionala barne, bai eta tratu txarrak, ankerkeria, manipulazioa, arduragabekeria, esplotazioa, pederastia edo mota guztietako sexu abusua jasaten dutenei ere.

Era berean, adingabeak babestuko dituzte lan esplotazio mota orotatik eta eskean ibiltzetik ere, eta neskato adingabeak bereziki babestuko dituzte, haien segurtasuna bermatzeko, plangintzarako kontuan hartuz toki eta ordutegi jakin batzuetako arriskuak.

2. Adierazitako egoerak atzeman eta salatzeke xedez, koordinaziorako bide eta protokolo eguneratu eta egokiak ezarriko dira, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko araudi organikoarekin bat, batez ere osasunaren, hezkuntzaren, gizarte zerbitzuen eta poliziaren sektoreetan.

Arreta espezializatua sustatuko da eta Haurren kontrako Indarkeriaren arloko Gizarte Zerbitzuen Erregistro Bateratua erabili eta zabalduko da, bai eta sexu delitugileen eta gizakien salerosketaren Erregistro Zentralaren bidezko kontrolak eginen ere.

3. Foru lege honetan ezartzen diren babes neurriak deusetan galarazi gabe, Nafarroako Administrazio Publikoek Fiskaltzari jakinaraziko dizkiote adingabeen osotasun fisiko eta psikikoaren kontrako gertaerak, eta bidezko diren lege-akzio guztiak beteko dituzte.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek edozein adingaberi bermatuko diote garapenerako eskubidea, gizaki ororen giza eskubide besterenezina den aldetik. Eskubide horrek ahalmena ematen dio giza eskubide guztiak eta oinarrizko askatasun

guztiak osotara bete ahal izateko garapen ekonomiko, sozial, kultural eta politikoan parte hartzeko.

Era berean, garapen horretan laguntzea bermatuko diote, garapen hori lortzeko eragile nagusi eta parte-hartzaile aktibo gisa, eta eskubide horretaz gozatzea, haren onuraduna baita.

### **13. artikulua. Ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea.**

1. Adingabeen babes juridikoari buruzko legeria organikoan jasotakoarekin bat:

a) Haur eta nerabeek eskubidea dute ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako, eta eskubide horretan sartzen dira familiaren egoitzaren eta gutunen bortxaezintasuna, bai eta komunikazioen sekretua eta haien ohorearen eta izen onaren kontrako erasoan aurrean babestea ere.

b) Baldin eta aurreko letran aipatzen diren eskubideak urratu egiten badira informazioa jendartean hedatuz edo haur eta nerabeen irudiak edo izenak hedabideetan erabiliz, eta horrek zilegi ez den intromisioa badakar haien intimitateari, ohoreari edo izen onari dagokionez, edo haien interesen aurkakoa bada, orduan, Fiskaltzari horren berri emanen zaio eta legean aurreikusitako kautela eta babes neurriak hartzeko eskatuko da eta, hala badagokio, kalte-ordainak ere bai eragindako kalteengatik. Eta hala jardutea bidezkoa izanen da haurrak, nerabeak edo haren legezko ordezkariak baimena eman badute ere.

c) Aurreko letran aipatzen diren kasuetan, haur edo nerabeen legezko ordezkarien legeakzioak galarazi gabe, Fiskaltzak ere jardun ahal izanen du, bai ofizioz, bai haurrak edo nerabeak berak eskatuta nahiz beste edozein interesdun fisiko edo juridikok zein erakunde publikok eskatuta.

d) Haur edo nerabeen gurasoek edo haien zaintza dutenek eta botere publikoek errespetatu eginen dituzte eskubide horiek, eta babestu ere bai beste batzuek erasoz gero.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du bete dadila datu pertsonalen babesari buruzko araudia, eta haren zabalkundea eginen du, haren berri izateko. Bereziki zainduko du adingabeen babesa esparru digitalean eta haien eskubide digitalen errespetua, haietaz balia daitezzen Espainiako Gobernuak populazio osoarentzat sustatzen dituen hein berean.

### **14. artikulua. Nortasunerako eskubidea.**

1. Adingabeen nortasunerako eskubidea modu egokian bermatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jarduketa hauek beteko ditu:

a) Haurrak jaiotzen direneko ospitale publiko edo pribatuetan jaioberriak zalantzarik gabe identifikatzeko behar diren bermeak ezarriko ditu.

b) Halaber, behar diren neurriak sustatuko ditu haur bakoitzaren jaiotza Erregistro Zibilean inskribatzeko, inskripzio hori eskatzeko legezko betebeharra dutenek halakorik egiten ez dutenean.

2. Errespetatuko da adingabeak libreki aukeratzen duen kultur nortasuna eta erkidego baten parte izatea edo ez, diskriminaziorik, bazterketarik edo asimilazio beharturik ezarri gabe, bai eta bere eskubidea ere bere kultur nortasuna libreki adierazteko, bere kultur jardunbideak gauzatzeko eta bere bizimodua egiteko, bizikidetzaren arauak betez betiere.

3. Adingabeen sexu nortasuna eta orientazioa adieraztea errespetatuko da, eta errespetu dadin sustatuko da; haien garapen librean babestuko da, bai eta bigarren iritzia jasotzeko eta baimen informaturako eskubidea ere, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren arloko eskubide eta betebeharrak eta Nafarroan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialaren tutoretza juridikoa arautzen duten legeetan aurreikusitako moduan.

### **15. artikulua. Informazioerako eskubidea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek erraztasunak emanen dizkiete adingabeei argibide eta dokumentazio zerbitzuak, liburutegiak eta gainerako kultur zerbitzuak erabiltzeko.

2. Nafarroako Administrazio Publikoak arduratuko dira hedabide guztiek adingabeei arreta berezia eman diezaieten hezkuntza arloan, eta haiekin lan eginen dute adingabeek modurik izan ez dezaten beren garapenera kalte egin diezaioketen zerbitzuak telekomunikazioen bidez erabiltzeko.

3. Nafarroako Administrazio Publikoek zainduko dute adingabeak erabil ez daitezten Foru Komunitatean zabaltzen diren eta adingabeentzat debekaturik dauden jarduerak bultzatzen dituzten publikitate iragarkietan.

Zainduko dute, halaber, arlo horretan, ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak ematen dituzten erakundeek errespetu ditzaten debekuak, ikus-entzunezko komunikazioari buruzko estatuko araudi orokorrean, adingabeen babeserako ezartzen diren ordutegietan, jasotakoak, eta merkataritza komunikazioetan araudiak aurreikusten dituen mugak ere bai, adingabeei kalte moral nahiz fisikorik ez sortzeko.

4. 16 urte bete dituzten adingabeei beti adieraziko zaie zein diren adingabeentzat indarrean dauden lan baldintzak lan egin nahi duten arloan.

### **16. artikulua. Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna.**

Nafarroako Administrazio Publikoek errespetatu eta jarduketak garatuko dituzte gurasoek eta legezko ordezkariak errespetu dezaten adingabeek beren askatasun ideologikoz baliatzea, beren ideiak inposatu gabe; horrek ez du galarazten adingabeei orientabideak ematea haien garapenerako egokiena irizten diotenean.

### **17. artikulua. Gizartean parte hartzeko eta elkartegintzarako eskubidea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek edozein adingabek bere inguruneke gizarte, kultur, arte eta josteta bizitzan parte har dezan bultzatuko dute; halaber, adingabeengan eragina duten gaietan esku har dezaten ere bultzatuko dute, bakoitzaren garapenera eta gaitasunaren arabera betiere.

Horretarako, batetik, jarduketa eta zerbitzu espezifikoak jarriko dira, eta, bestetik, formulak, bitartekoak eta laguntzak jarriko dira adingabeen eskura, horien bidez errazagoa izan dadin dituzten interes eta iritziak adieraztea, haien eskariak jasotzea eta egiten dituzten proposamenak bideratzea; bitarteko horietan zentzuzko egokitzapenak eginen dira desgaitasuna duten adingabeentzat.

2. Adingabeek eskubidea dute ekimen eta proposamen jardueretan parte hartzeko, beren eskubideen sustapen eta defentsa jarduerari dagokienez nahiz haiei bideratutako laguntza eta babes jarduketei dagokienez.



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Parte hartzeko moduetako bat Gazteen Parlamentua izanen da, zeinak eskatzen ahalko baitu bertan hitz egin dezatela eztabaidatu nahi dituzten gaietan edo haien ekimen eta proposamenen xede direnetan eskumena duten departamentuen ordezkariak.

3. Administrazio publikoek sustatuko dute haur eta gazte elkarteak eta adingabeentzako beste antolakuntza mota batzuk egotea, erraztasunak emanen dituzte horietako eta horien organoetako kide izan daitezen eta horien jardueretan parte har dezaten, elkartzeko eta adingabearen babes juridikorako eskubidearen arloko arauetan aurreikusitako moduan, inola ere behartu edo baldintzatu gabe horietan sartu edo egotera, eta laguntza emanen diete zuzendaritza organoetan adin nagusikorik ez izateagatik aholku eskatzen dietenei.

4. Administrazio publikoek sustatuko dute adingabeek boluntarioritza-jardueretan parte hartzea.

### **18. artikulua. Entzunak eta adituak izateko eskubidea eta adierazpen askatasunerako eskubidea.**

1. Gurasoek edo tutoretza edo zaintza dutenek eta Nafarroako Administrazio Publikoek eta, zehazki, adingabeei laguntza emateko kasuetan erreferente diren taldeek bermatuko diete adingabeei entzunak eta adituak izateko eskubidea, bai familian bai edozein prozedura administratibotan, eta, beharrezkoa bada, jakinaraziko diete eskubide hori bera dutela zuzenean diharduten esparru judizialean ere bai, legeek ezartzen duten moduan.

Informazio hori desgaitasuna dutenek eskuratzeko moduan egonen da beti.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatu eta errespetatu egingen dute eskubide hori, kontuan hartuz adingabearen gaitasun intelektuala eta emozionala eta haren heldutasun baldintzak, adina edozein dela ere, baita haren egoera eta gaiak harengan duen eragina ere, haren intimitatea babestuta; ziurtatuko dute eskubidearen erabilera, gurasoak edo haren gaineko zaintza edo tutoretza dutenak bertan ez badira ere, beharrezkoa denean presako arrazoiengatik edo haiekin interes-gatazka dagoelako, edo haiek bertan egotea edo laguntza terapeutikoa jasotzea, beharrezkoa denean.

3. Adingabeak eskatzen duenean entzuna eta aditua izatea, zuzenean edo hura ordezkatzeko duen pertsonaren bidez, administrazio bidean entzutea ukatzen bazaio, ukoa arrazoitua izan behar da eta Fiskaltzari eta haiei jakinaraziko zaie berehala. Jurisdikzio zibil eskudunaren aurrean dagozkion akzioak betetzen ahalko dira halakoetan, aldez aurretik errekurso administratiborik aurkeztu gabe.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek aintzat hartuko dute adingabeek adierazitakoa eta berariaz justifikatuko dute haren kontra ebazteko arrazoiak, beti jasota utziz adingabearen interes gorena baloratu dela, eta adingabeen adierazpen askatasuna erazten duten bitartekoak sustatuko dituzte.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zabaldu eta kontuan hartuko du partaidetzarako tokiko kontseiluek edo egitura egonkorrek, haurrek eta nerabeei osatutakoek, adierazitako irizpidea, udal esparruan kontsulta eta partaidetzarako eginkizunak badituzte.

6. Nafarroako administrazio publikoek adingabeen adierazpen askatasuna errazten duten balia bideak sustatuko dituzte arlo guztietan.

**19. artikulua. Osasunaren babeserako eskubidea.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adingabeei bermatuko dizkie osasuna babestu eta sustatzeko eskubidea eta osasun laguntza jasotzekoa, behar denean etxean ere bai, indarra duten legeetan xedaturikoarekin bat.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adingabeei bermatuko die beren osasunari buruz argibideak hartzeko eskubidea eta, bereziki, jasan behar dituzten prozedura medikoei buruzkoak, beren adina, heldutasuna, egoera psikologikoa eta desgaitasuna aintzat hartuz egokia den hizkera erabiliz. Era berean, haien baimena eskuratu beharko du legez ezarritako baldintzetan eta, 16 urtetik beherakoen kasuan, honakoak kontuan hartuz:

- a) Adingabea, 12 urte baino gutxiago izanik ere, bere iritzia izateko gai izan daitekeela.
- b) Haren iritzia entzun eta haren gaitasunekin bat datozten argibideak emateko betebeharra dagoela, nahiz eta ondorioztatu esku-hartze baten norainokoa ulertzeko adina gaitasun intelektual eta emozionalik ez duela, hala ezarrita baitago Nafarroako Foru Komunitatean osasun arloko eskubide eta betebeharrei buruzko foru legerian.
- c) Osasun langileek ez badute informaziorik edo segurtasunik adingabearen gaitasun intelektual eta emozionalaz, hau da, haren osasunari eragiten dion esku-hartze baten norainokoa ulertzeko gai ote den jakiteko, aukera izanen dute erabakia hartzeko beste heldu batzuegandik lor dezaketen informazio osagarria kontuan hartuz, esate baterako ikastetxean edo familian.

3. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatuko diete haur eta nerabeei haien historia klinikoaren eta, baldin badago, historia sozialaren, konfidentzialtasuna babestea, bai eta haien familia-egoerari eta egoera sozioekonomikoari buruzko beste edozein daturena ere.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du haur eta nerabeekin haien osotasuna eta osasuna arriskuan jar dezakeen esperimentu zientifikorik edo medikurik egin ez dadin.

Ordezkaritza dela-eta baimena eman behar dutenen artean desadostasuna egonez gero, esku hartzen ahalko da, osasun langileen iritziz adingabearen osotasun fisiko edo psikikorako arrisku larria dagoenean edo lesio fisikoak nahiz kalte psikiko konponezinak eragitea gerta daitekeenean.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko die adingabeei osasun zerbitzuetan hartzen dituztenean gurasoek, legezko ordezkariak edo bestelako ahaideek, edozein familia motatakoek, edo beren konfiantzako pertsonak laguntzeko eskubidea, kostu gehigarriak gabe, baita tentsio uneetan haiekin harremanetan jartzeko ere, salbu eta laguntza hori komeni ez denean, osasun langileek ematen dituzten jarraibideen arabera. Betiere, adingabeen interesak izanen du lehentasuna.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko die adingabeei ospitalean dauden bitartean edo etxean suspertzen ari diren bitartean eskolako prestakuntzari lotzeko eskubidea. Eskola agintariek haien esku uzten dituzten langile eta baliabideez baliatuko dira, bereziki luzaz dirauten gaixotasunetan, baldin eta jarduera horrek haien ongizateari kalterik egiten ez badio edo tratamenduei traba egiten ez badie.

Osasun zentroetan, adingabeak bertan egotea beharrezkoa denean, haurrentzat egokiak diren guneak sortuko dira. Horieta, jolasteko eskubidea erraztuko da, eta eskura jarriko

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

zaizkie jostailuak, liburuak eta ikus-entzunezkoak, eta adingabeen eskola eta familiarekiko loturak haustea eragotziko da ahalik eta gehien.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko die osasun laguntza publikoa bere tutoretzapean dituen adingabe guztiei. Horretarako, behar diren agiriak luzatuko ditu, gurasoei dagozkienez gain.

Familia harrera bat eratzean, harrera familiek eskubidea izanen dute hartzen dituzten adingabeen buruzko informazio sanitarioa ofizios jasotzeko, bai eta osasun zentroan hitzordu bat izateko ere, harreran duten pertsonari buruzko osasun aurrekarien berri jasotzeko.

7. Nafarroako osasun publikoaren sisteman orientabide hauei helduko zaie:

a) Humanizazioa beti aplikatuko da, besteak beste, arreta atsegina eta zainketak ematean, jaitozean eta edoskitzean eta zainketa aringarri pediatrikoetan.

b) Familiarengan eta inguruneetan zentratutako arreta, osasunaren, eskubide sozialen eta hezkuntzaren arloko eskumenak dituzten departamentuen artean koordinatuta.

c) Gaixotasun kronikoak artatzeko estrategia, prozesu diagnostiko-terapeutikoen eta hezkuntza eta gizarte arlokoen ezaugarri nagusi bihurtuz, besteak beste, honakoak: informazio erraza, egokitu eta eskuragarria ematea hasieratik bertatik eskakizun eta baliabide erabilgarri buruz, loturako erizaintza sustatzea eta psikologoak jartzea adingabeentzat eta haien familientzat.

8. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du haur eta nerabeen eskubidea, osasun laguntza emateko jarduketa guztiek atxikia izan behar duten informazioaren barruan, argibideak eman dakizkien jarduketa horien eraginkortasunaz eta efektibitateaz, zer ondorio kaltegarri dituzten eta jarduketaren onurak baino gehiago diren, baita zer onura dituzten ere arriskua-onura ikuspegitik, ebidentzia zientifikoen oinarrituta.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du sufrimendu fisiko, psikologiko nahiz bestelakorik ez pairatzeko eskubidea, osasun jarduketa horien ondoriozkoak direnean eta ekidin daitezkeenean.

9. Arlo pediatrikoan, jokabide-laguntza positiboaren eredia sustatuko da adingabeentzat eta haien familientzat; bereziki, desgaitasun intelektuala edo autismoaren espektroko nahasmenduak eta autoerregulazio arazoak dituzten pertsonen kasuan egoera akutu kritikoak kudeatzeko.

10. Babes-neurriak ezarrita dituzten adingabeentzako osasun laguntza ematen denean, erreferentziako taldeak haien arazo medikoak ezagutzen ahalko ditu, babes eginkizunak betetzeko beharrezkoa den neurrian. Kasu horietan, taldean mediku instantzien aurrean erreferente izateko izendatutakoak jardunen du.

### **20. artikulua. Hezkuntzarako eskubidea.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du behar adinako ikaspostu egoki dagoela adingabeen eskola arreta ziurtatzeko.

Protokolo bat ezarriko da, hezkuntza laguntza behar duten ikasleek gizarte eta hezkuntza aldetik duten zaurgarritasun egoera berariaz zehazteko irizpideak homogeneoak izan daitezen; protokolo hori prestatzen parte hartuko dute hezkuntzaren eta eskubide sozialen arloetako eskumenak dituzten departamentuen, ikastetxeen eta oinarritzko gizarte zerbitzuen ordezkariak.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du hezkuntzak eman diezaiola adingabeari prestakuntza integrala, bere nortasuna eratzeko aukera emanen diona, adingabearen gaitasunak eta edozein motatako erronka eta zailtasunei aurre egiteko trebetasunen garapenari zuzenduta, tolerantziaz, elkartasunez, askatasunez eta diskriminaziorik gabe joka dezan.

Hezkuntza emozionala eta pertsonalizatua emanen zaie, haurren eskubideak sustatzen dituen, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioari jarraikiz, eskolako espazio, jarduera eta ordutegi orotan, horrek erraztuko baitu autonomiaz esku hartzea Nafarroaren garapen prozesuan eta erkidego honetako herritar diren aldetik.

Balio horiei buruz eta uanean-uean kezkatzen dituzten beste batzuei buruz tutoretzak eta debateak egitea sustatuko da, bereziki lantzeko 4.3 artikuluan eta titulu honen hurrengo kapituluan aipatzen diren desberdinkeriak, baita beste gai batzuk ere, hala nola sexualitatea, feminismoa, norberaren hizkuntzen balioa edo gatazkak.

3. Nafarroako Administrazio Publikoak ahaleginduko dira adingabeak lehen urteetan zaintzen dituzten zentro eta zerbitzuek, edozein delarik horien izen generikoa, sailkapena edo titulartasuna, adingabeen arreta sozialean eta hezkuntza arlokoan lagundu dezaten, haurren gaitasunak garatuz (harremanetarako, behaketarako, nork bere gorputza ezagutzeko eta autonomia modu progresiboan bereganatzeko). Sustatuko dute haien prestazioak bideratu daitezen gehienbat haur eta nerabeen beharrak asetzera eta haien ongizatea giro osasuntsu eta seguru batean sustatzera.

Ikastetxeek hezkuntza arloko departamentu eskudunak ezartzen dituen curriculumak, instalazioak, langileak eta baldintzak izanen dituzte. Baldintza horiek betetzen ez dituztenek eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak ezartzen dituenak bete beharko dituzte, horien barne direla prestakuntzakoak, eta hazkuntza-moldeari dagozkion gutxieneko batzuk, bermatzekoak arreta emozional egokia izatea eta bizikaltatea iristea alderdi psikofisiko, emozional eta sozialean.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek zainduko dute nahitaezko eskolatzea bete dadin eta nahitaezkoen ondoko ikasketak egiten jarraitzea bultzatuko dute, indarra duten legeen arabera. Ekintzak eta batzordeak koordinatu eta bultzatuko dituzte, beharrezkoak direnak adingabeak ikastetxeetara erregularitasunez joan daitezen eta eskola huts egin ez dezaten eta ikasteari utz ez diezaioten, lehenetsiz, betiere, motibazioa, metodologia malguak eta familien inplikazioa.

5. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa ahaleginduko da adingabeek ongi ezagut ditzaten Nafarroaren errealitate historiko eta kulturala, bai eta bertako errealitate sozial, natural eta instituzionala ere.

6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak familiei lagunduko die adingabeen hezkuntza prozesuan, eta ikastetxeetan gurasoen elkarteak eta eskolak sortzea bultzatuko du, eta horietan aitona-amonek edo guraso lanak betetzen dituzten beste figura batzuek ere parte har dezaten sustatu eta lagunduko du, laguntza, hezkuntza eta prebentziorako neurri egokia delakoan.

7. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak honakoak egin beharko ditu haur eta nerabeen artean jazarpen eta bortxa egoera orori aurrea hartu eta horiek zuzentzeko xedeaz:

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

a) Emozioak lantzea, enpatia, asertibitatea, harremanak eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko sistema, tratu onaren kultura eta pertsonen arteko harreman orekatuak talde trinkotuen barnean sortzeko, eskola giroa egokia dela ziurtatzeko.

b) Ikastetxeetako bizikidetzak batzordeak eta planak arautu eta sustatzea, bai eta curriculum tresna zeharkakoak ere.

c) Ongizatea eta babesak koordinatzeaz arduratuko diren pertsonak izatea, bai eta programa espezifikoak ere, mentoretzakoak, kasu, ikasle etorri berrien edo bizikidetzak arazoak dituztenen harrera errazteko.

8. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak eskola inklusiboa sustatuko du, kontuan hartuko duena integrazioa bai gizartean bai hezkuntzan; horrek ekarriko du ikastetxeetan:

a) Bizikidetzak planak izatea.

b) Honako hauek izatea funtsezko piezak:

- Familiak eta irakasle dinamikokoak, eskola erakargarria bultzatzea.

- Tresna eta metodologia malguak eta motibatzaileak, kolektibo eta adingabe bakoitzaren egoerara egokituak.

- Talde desberdinen arteko trukeak, aniztasunarekin bizitzeko.

- Eskola-sustapenerako edo -bitartekotzarako figuren laguntza.

c) Edozein motatako familietako edo zaurgarritasun egoeratako ikasleei irekita egotea. Normalizatzen eta harrera egiten saiatuko dira, harrera-planak bezalako tresnak sustatuz, familiei eta ikasleei lehentasuneko tratamendua emateko.

Hor sartuko dira migrazioak edo kultura-desberdintasunak ukitutakoak, desgaitasunak dituztenak, egoera sozioekonomiko ahulean daudenak eta babes-sisteman sartuta daudenak edo egoera bereziki zaurgarrian jartzen duen edozein alderdik ukitutakoak.

d) Hezikidetzaren arloko plan bat izatea, hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak ezarritako estrategiak garatzen dituenak.

Plan horretan sartuko da emakumezko erreferenteekin egin beharreko lana, ikasteko lehentasunak hautatzean genero joerak ezabatzen eta genero estereotipoak desagitzen laguntzeko.

e) Irakasleek informazioa eta berriazko prestakuntza eskaintza izatea adopzioan edo harreran dauden ikasleei arreta emateko gaietan.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du ikastetxeen digitalizazioa prozesu planifikatuen bidez, horiek erabiltzeko aukeretan berdintasuna zainduz eta eten digitala eta soziala saihestuz.

Halaber, teknologia berriak baliatuko ditu bai hezkuntzarekin lotutako eskubideak erabiltzeko bai haurren partaidetzarako.

10. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du eskualdeko ikastetxeek jantoki zerbitzua ematea eta sustatuko du gainerako ikastetxeek ere zerbitzu hori emateko aukera izan dezaten.

### **21. artikulua. Kultura eta aisialdirako eskubidea eta harremanen sustapena.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute adingabeen eskubidea jolaserako, aisialdirako eta kultur zerbitzuak eta kirol, arte eta aisialdiko jarduerak erabiltzeko, funtsezko osagaiak baitira haien garapenean eta sozializazio prozesuan; betiere, prozesu

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

hori adingabe guztiengana iristen dela zainduko da eta neurriak sustatuko dira bakardadea ekiditeko eta zoriona lor dezaten laguntzeko.

2. Agintari eskudunek bermatuko dute jolas, aisialdi eta kirol jarduerak haien beharrekin eta garapenarekin bat etortzea, desgaitasunak dituztenentzat behar diren egokitzapenak eginda, eta adinaren arabera gune seguruak sustatuko dira bertan zuzeneko ikuskapenik gabe jolas daitezten eta haien autonomia eta gaitasunak gara ditzaten; nerabeentzat eskaintza berezia egitea sustatuko da.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki erakunde eskudunek elkarlanean sustatuko dute kirol, aisialdi, udaleku eta beste jarduera batzuen eskaintza handitzea, lehenetsiz horien prezioak bat etortzea familien egoera ekonomikoarekin eta familien adingabe kopuruarekin, eta sustatuko dute, halaber, familien atsedenerako jarduerak egotea, terapeutikoak-aisialdikoak, oporrak egitekoak, egokiak babes sistemako adingabeentzat, eta zaurgarritasun egoeran edo bazterketa arriskuan daudenentzat.

### **22. artikulua. Ingurumenerako eta jasangarritasunerako eskubidea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute zehaztu dadila Nafarroako Foru Komunitateak egin beharreko ekarpena nazioartean, Parisko Akordioa eta Nazio Batuen 2030 Agenda oinarri hartuta, jasangarritasunarekin eta klima aldaketaren aurkako borrokarekin dagoen konpromisorako, eredu sozioekonomiko eta energetiko berri batera igarotzea erraztuz. Eredu horrek karbono gutxi darabilen ekonomia izanen du, eta efizientzian eta energia berriztagarrietan oinarrituta egonen da, baliabide naturalen erabilera arrazionala eta solidarioa bermatuz, mugikortasun jasangarriaren alde eginez eta horren plangintza bultzatuz, emisiorik ez sortzeko helburuarekin.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek, adingabeek ingurumen osasungarri eta kutsatugabea izateko duten eskubidea garatuz, honakoak bultzatuko dituzte:

a) Adingabeek natura errespetatu eta ezagutzea, eta, klima aldaketa geldiarazteko eta ingurumen osasungarria izateko helburuarekin, egokitzeko eta elkarlanean aritzeko garrantziaz jabeaztea.

b) Hondakinen birziklatzeari eta naturako baliabideen erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza, hedapen eta kontzientziazio programak eta ingurumena zaintzeko ohitura egokiak hartzea.

### **23. artikulua. Gizarte inklusiorako eskubidea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatuko dute adingabe guztien gizarte inklusiorako eskubidea.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek desgaitasuna duten adingabeei bermatuko diete gainerako haur eta nerabeei duten gizarte inklusio berbera jasotzeko eskubidea.

3. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen esparruan, aurrea hartuko diote haurren pobrezia profesionalen laguntza soziala emanez eta diru-sarrerak bermatzeko sistema baten bidez, oinarritzko premiak ase gabe dituztenentzat. Diru-sarreraren bermea gauzatzen ahalko da ardurapeko seme edo alaba bakoitzagatik prestazioak edo zerga kenkariak ezarri eta gizarte inklusiorako eskubidea baliatuz, prozesu pertsonalizatu baten bidez, zaurgarritasun edo gizarte bazterketako egoerei aurrea hartzeko eta erantzuna emateko. Aipatutako gutzia gauzatu beharko da errenta

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

bermatuari eta gizarte inklusiorako eskubideari buruzko foru araudian edo kasuan kasuko foru araudian ezarritako moduetan eta baldintzak betez.

4. Nafarroako Administrazio Publikoen etxebizitza arloko politikek aintzat hartuko dituzte seme-alabak dituzten familien beharrak, bereziki familia gurasobakarrenak eta harrera bidez babestu diren pertsonenak.

5. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatuko diete beren egoera pertsonalagatik edo beren familia egoeragatik gizarteratzeko zailtasunak dituzten adingabeei behar duten laguntzarako eskubidea, eskola edo lanbide arloko prestakuntza bukatzeko, haien inklusioa eta bizitza sozialaren jardueretan erabateko parte-hartzea ahalbidetzeko.

6. Nafarroako Administrazio Publikoek Nafarroako Foru Komunitatean dauden atzerritar adingabeei bermatuko diete, edozein delarik haien legezko egoera, haien arretarako eta gizarte, hizkuntza eta kultur inklusiorako laguntza ematen dieten baliabide eta zerbitzu publikoetarako eskubidea.

7. Foru Komunitateko Administrazioak begiratu du hezkuntza behar bereziak dauzkaten adingabeek hezkuntza eta lanbide arloko prestakuntza har dezaten, gizarte inklusiorako, norbera garatu eta errealizatzeko eta ahalik eta egoera normalizatuenean lanpostu bat lortzeko modukoa, haien asmo eta gaitasunen arabera.

8. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatuko dute 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei arreta goiztiarra ematen zaiela, haien gizarte inklusioa segurtatzeko, garapeneko alterazio edo nahasmenduen ondorioz edo faktore biologiko edo psikosozialak direla-eta arrisku handiko egoeran egoteagatik dituzten behar iraunkorrei edo iragankorrei erantzuteko.

### **24. artikulua. Eskubide ekonomikoak eta lanekoak.**

1. Nafarroako botere publikoek behar diren ekintzak bultzatuko dituzte adingabeen esplotazio ekonomikoa ekiditeko, eta, lan arloko indarreko legedian ezarritakoarekin bat, adingabeek babesa izanen dutela ziurtatuko dute, hau da, gutxieneko adina izan gabe ez dutela lan eginen, edo ez dutela eginen lan arriskutsurik, osasunarentzat kaltegarria denik edo haien hezkuntza eta prestakuntza nahiz garapen integrala oztopatuko duenik.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek ahalik eta modurik zorrotzenez aplikatuko dute kontratu publikoei buruzko legerian ezarritako debekuen araubidea baldin eta legeri horretan jasotako gertakarien ondoriozko kondenarik edo zehapenik atzeman badute eta delitu edo arau-hauste horrek adingabeen esplotazio ekonomikoa, haien lan eskubideen urratzea edo genero indarkeria, biktimak adingabeak izan direnean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek edozein herrialdetako adingabeen esplotazioa ekiditen laguntzeko konpromisoa abiapuntu hartuta bideratuko dituzte beren ekintzak.

4. Lanerako gutxieneko adina lortu eta lan merkatuan sartu nahi duten adingabeek administrazio publikoen laguntza jasoko dute prestakuntzarik eta gaikuntzarik egokienak bermatuta izan ditzaten, eta, horrenbestez, laneraterik egokiena izateko aukera izan dezaten, eta zailtasun erantsiak dituztenei laguntza berezia emanen diete.

### III. KAPITULUA

#### Berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea

##### **25. artikulua. Generoa eta orientazio desberdinak errespetatzea.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek behar diren baldintzak sustatuko dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubide konstituzionala Foru Komunitatean egiazkoa izan dadin haur eta nerabeen bizitzaren esparru eta etapa guztietan, eta, halaber, balio aldaketa bultzatuko dute, haur eta nerabeen lekua indartuko duena eta haien autonomia eta ahalduntzea sendotuko dituena, Nafarroako gizartea bere adingabe guztientzat librea, zuzena, demokratikoa eta solidarioa izan dadin lortzea eragotzi edo zailtzen duten trabak kenduta.

2. Esparru guztietan eta bereziki eskolan errespetatu eta onartuko da sexu orientazioa eta sexu identitatearen adierazpena, eta kontuan hartuko dira adingabe eta nerabe LGTBI+en behar espezifikoak, osasun laguntza berdintasun baldintza objektiboetan jasotzeko eskubidea ziurtatzearen.

##### **26. artikulua. Desgaitasuna.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek bermatuko diete desgaitasuna duten haur eta nerabeei foru lege honetan eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan aipatzen diren eskubideak erabili ahal izatea desgaitasun hori dela-eta inolako diskriminaziorik jasan gabe.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek sustatuko dute desgaitasuna duten haur eta nerabeek bizitza bete eta gizabidezkoa izan dezaten, baldintza egokiek, haien duintasuna ziurtatzeko, etorkizunean laguntza gutxiago behar izatea, edo laguntzarik behar ez izatea lortu eta, berdintasunez, ahalik eta autonomia handienarekin moldatzeko aukera emateko, eta beren ingurune komunitarioan eta gizartean parte-hartze aktiboa izan dezaten errazteko.

##### **27. artikulua. Zaurgarritasun sozioekonomikoa.**

Nafarroako Administrazio Publikoek familientzako politikak eta prestazioak egokituko dituzte, haur eta nerabeentzako laguntza bereziki bermatzeko, pobrezia eragindako arrisku egoerak daudenean, eta pobrezia arriskuan dauden etxeetan behar adinako elikagai osasuntsuak eskuratzeko aukera izateko estrategiak garatuko dituzte.

Nafarroako Administrazio Publikoek arreta integrala planifikatuko dute adingabeentzat eta haien familientzat arrisku faktoreak daudenean, eta saiaturiko dira etxebizitza eskuratzeko eta gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko neurriak hartzen.

Nafarroako Administrazio Publikoek bermatuko dute zaurgarritasun ekonomiko handieneko adingabeek hezkuntza eremuan garapen egokirako beharrezkoak diren euskarri informatikoak eskura ditzaten, horrela eten digitala saihesteko.

##### **28. artikulua. Kulturartekotasuna.**

1. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute gizartearen sentsibilizazioa eta adingabe migratzaileekin edo beste kultura batzuetakoekin diharduten langileen prestakuntza, honako gai hauei buruz: migrazio-prozesu eta -errealitateak, migrazio-doluak, kulturarteko bizikidetzeta, gure erkidegoan dauden gutxiengo etnikoetako babes-



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

neurriak behar dituzten haur eta nerabeen egoera, eta arrazakeriaren, ijitoaurkotasunaren eta xenofobiaren kontrako borroka.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek estrategia bat sustatuko dute migratzaileen harrerarako eta haiekin esku-hartze espezializatua egiteko, migrazio dolua behar bezala artatu eta beharrezkoa den akonpainamenduaren bidez arintzeko, batez ere familia berriz batzeko egoeretan, tartean diren kultura gakoak kontuan hartuta.

3. Nafarroako administrazio publikoek prebenitu egingen dituzte portaera arrazistak eta langile publikoen artean prestakuntza-jarduerak sustatuko dituzte arrazakeria- edo diskriminazio-kutsudun ekintza oro saiheste aldera.

Halaber, adingabeen arteko bizikidetzak sustatzeko jarduketak egingen dira, diskriminazioa onartu gabe.

4. Nafarroako Administrazio Publikoek bigarren eta hirugarren belaunaldiak esku-hartze espezifikoko planifikatuko dituzte, ikusgai jartzeko eta gainerako berdinaren arteko inklusio egokia bermatzeko.

5. Nafarroako Administrazio Publikoek neurriak sustatuko dituzte familia migratzaileentzat hizkuntza oztoporik izan ez dadin, horrek seme-alaba adingabeekin komunikatu behar duten guneetan behar bezala komunikatzeko eragozpena ekar dezakeenean.

6. Migrazio gaietan eskumenak dituen departamentuak, errealitate soziala aztertzearen arloko eskumena duen departamentuarekin batera, azterketak egingen ditu migrazioaren egoeraz Nafarroan, haur eta nerabeak adin-talde gisa aintzat hartuz.

## **IV. KAPITULUA** **Gizarte integrazioa helduaroan**

### **29. artikulua. Erantzukizunak norberaren gain hartzea.**

1. Babesetik emantzipaziora eta helduaroan gizarte integrazioa bitarteko trantsizio progresiboan eta eraginkorrean lagun egiteko, gurasoek eta legezko ordezkariak lagunduko diete adingabeei esparru hauetan, besteak beste, dituzten erantzukizunak jabetzen, alde batera utzi gabe lege zibilek adingabeei ezartzen dizkien betebeharrak haien gurasoei eta legezko ordezkariak dagokienez eta familian, hezkuntzan eta gizartearen parte hartzeaz denaz bezainbatean:

a) Nahitaezko irakaskuntzan zehar ikastea, horrela beren prestakuntza lortu eta beren nortasuna osoki garatzeko. Ikastetxera joan beharko dute eta bertan bizikidetzako arauak errespetatu beharko dituzte.

b) Ikasketak egiten dituzten ikastetxeko irakasleak eta gainerako langileak, bai eta ikaskideak eta adinekoak ere, errespetatzea beti.

c) Aitortzen zaizkien eskubideen titulartasunari eta erabilerari dagozkien betebeharrak erantzukizunak bere gain hartu eta betetzea.

d) Gizalegezko portaera izatea, tolerantzia eta legearen eta beste pertsonen eskubideen errespetuan oinarritutako gizarteko bizikidetzak arauarekin bat datorrena, sexuak, desgaitasunak, jatorri kulturalak edo egoera sozioekonomikoak eragindako inolako diskriminaziorik gabe.

e) Etxeko lanetan ekitatez parte hartzea, rola sexuaren arabera bereizi gabe.

f) Ingurumena eta kultura ondarea eta ondare historikoa errespetatzea eta hura zaintzen eta hobetzen laguntzea.

g) Jabari publikoko ondasunak eta, bereziki, hiri-ondarea errespetatzea.

h) Babes-sistemaren barruan sartuta dauden adingabeen kasuan, haien erreferente profesionalekin harremanetan jarraitzea, beren kezken berri eman ahal izateko

2. Nafarroako Administrazio Publikoek adingabeek beren eskubideak ezagutu ditzaten bultzatzeko ekintzak eginen dituzte, eta horiek baliatuko, halaber, bide batez zabaltzeko eskubideek betebeharrak dituztela atxikita, eta beste pertsonetikiko betebeharrak dituztela, artikulua honetan ezartzen direnak, hain zuzen.

### **30. artikulua. Debekuak, mugak eta jarduketak.**

1. Gurasoek edo legezko ordezkariak aintzat hartuko dute badirela, adingabeak babesteko helburuarekin, debekuak, mugak edo jarduketak, zenbait jarduera, bitarteko eta produktu zehatzi buruzko araudian ezarrita daudenak edo ezarriko direnak, batez ere establezimendu eta ikuskizun publikoen arloan, eta, horien artean, hauekin lotuta: jokoa, argitalpenak, ikus-entzunezko eta telekomunikazioetako bitartekoak eta bitarteko telematikoak, eta, horien barruan, sare sozialak, publizitatea, kontsumoa eta merkataritza.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adikzioen errehabilitaziorako zerbitzu espezifikoak emanen ditu edo ematen lagunduko du.

## **II. TITULUA ANTOLAKETA ADMINISTRATIBOA**

### **I. KAPITULUA Diagnostikoa, plangintza eta ebaluazioa**

### **31. artikulua. Diagnostikoa, plangintza eta jarduketan programazioa.**

1. Plan bakoitza prestatu aurretik, diagnostiko bat eginen da Nafarroan haurrek duten egoeraz, eta horretarako kontuan hartuko dira unibertitateek eta adingabeen arloko eskumena duen departamentuak eginiko azterketak, bai eta Nafarroako Arartekoak gai honi buruz egindako txostenak ere.

2. Ekintzetan ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko, foru lege honetan xedatutakoaren esparruan haurrentzat gauzatu beharreko jarduketa guztien plangintza integrala eginen da, autonomia erkidegokoa eta tokikoa; plangintza hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki erakundeek (hauek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako gutxienekoak betez) egin beharko dute hurrenez hurren, horietako bakoitzak bere esparruan zer arreta eta babes eginkizun dituen kontuan hartuta.

Nafarroako toki erakundeek eskatzen ahalko dute haur eta nerabeen arloko politikak egiteko eskumenak dituen departamentuak txostena edo laguntza ematea planak prestatzeko.

3. Nafarroan, haurrentzako laguntza eta babes politiken plangintzak hurrengo printzipioak izanen ditu gidari: erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, inklusioa, familia babestea adingabearen garatze-ingurune natural bezala, esku-hartze ordezkoa eta normalizatua, pluraltasuna, erakundearteko lankidetzeta, solidaritatea eta parte-hartzea.

Plangintza hori genero ikuspegiak gauzatuko da, haren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetuko duten helburuak eta adierazleak zehaztuz, datuak sexuaren arabera berezita.

4. Nafarroako Gobernuak behar diren sistemak eta mekanismoak ezarriko ditu administrazioen arteko elkarlana arlo guztietan bermatzeko, batez ere familiaren, hezkuntzaren, osasungintzaren eta gizarte zerbitzuen arloetan, eta bereziki toki erakundeekin eta beste erakunde publiko batzuekin. Haien eta familien eta adingabeen ordezkarien ekarpenak aintzat hartuko dira plan estrategikoak eta urteko plan operatiboak egiteko.

5. Nafarroan haurren arreta eta babesera bideraturiko politiken alorreko diagnostikoa, planifikazioa eta ekintzen programazioa halaber egonen dira oinarrituta Foru Komunitateko auzo, herri eta ibarretan haur eta nerabeekin diharduten tokiko erakunde komunitario eta sareen kooperazioan, lankidetzan eta sustapenean.

### **32. artikulua. Jarduketan ebaluazioa eta jarraipena.**

1. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumeneko esparruetan, sistema bat izanen dute foru lege honetan aurreikusitako jarduketak gauzatzeko baliabide, zerbitzu eta prozedura espezifikoan eraginkortasuna eta kalitatea ebaluatzeko, haur eta nerabeen arreta eta babeserako politikatako planak ebaluatu ahal izatea bermatuko duen sistema bat alegia, horretarako kontuan hartuz Nafarroako Foru Komunitatean politika publikoen ebaluagarritasun protokoloan ezarritakoa.

Nafarroako toki erakundeek eta haur-gaietako erakunde laguntzaileek zilegi izanen dute eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuari eskatzea aipatu protokoloari buruzko informazioa, horrek ezertan galarazi gabe hari buruzko publizitate aktiboa, gardentasunari buruzko foru araudiari jarraikiz.

2. Plangintzan jasotakoaren jarraipen eta ebaluazio egokia bermatzeko:

a) Haurren ongizatea, arreta komunitarioa eta sareko lana sustatzeko batzordea arduratuko da jarraipen sistema bat taxutzeaz, ebaluaziora bideratua, genero ikuspegiarekin, eta jarraipenaren urteko txostenak emanen ditu foru esparruko plangintza integralerako.

b) Ebaluaziora bideratutako jarraipen sistemak gauzatzea, emaitza eta eragina neurtzeko adierazleak izanen ditu, gutxienik ere honakoen ebaluazio irizpideak barne hartuta: parte-hartzea, eskuratzea, estaldura, eraginkortasuna, eragimena eta eragina, Errealitate Sozialaren Behatokiaren Politika Sozialen Ebaluazio Gidan ezarritakoari jarraikiz; Nafarroako toki erakundeek horri buruzko informazioa eskatzen ahalko dute, galarazi gabe haren publizitate aktiboa ere egitea, gardentasunari buruzko foru araudiarekin bat. Jarraipen sistemek sexuaren arabera bereizitako datuak izanen dituzte, eta kontuan hartuko dituzte neurriek, sexuaren arabera, haur eta nerabeentzat dakartzaten eragin desberdinak.

c) Aurreko apartatuan aipatzen diren adierazleetatik, baten bat egon beharko da nahitaez plangintza integralean, bide ematen duena familia harreraren lehentasuna ebaluatzeko, eta tokiko plangintzetan ere baten bat egon beharko da nahitaez, prebentzio ekintzen edo familian laguntzeko babes ekintzen emaitza ebaluatzeko.

d) Eskubide sozialen arloko eskumenak dituen departamentuko unitateek eta organismoek, haurren ongizatearen jarraipen instituzionalizatuaren ardura duen

organismo edo unitatearekin elkarlanean, zehaztuko dute zein diren ebaluazio galderak, haien tipologia eta diseinua; horrez gain, prozesua koordinatu eta gainbegiratzearen erantzukizuna ere izanen dute, eta haiek komunikatuko dituzte, aipatu organismo edo unitatearen bitartez, 31.2 artikuluan jasotzen den foru-plangintzari dagozkion emaitzak, konklusioak eta gomendioak. Nafarroako toki erakundeei ere laguntzen ahalko diete haienak prestatzen.

e) Aurreikusitako ekintzen ardura duten erakundeak edo unitateak identifikatuko dira, zeinak beharturik egonen baitira, organo eskudun bakoitzeko titularraren bidez, egindakoaren, ez egiteko arrazoien eta egiteko aurreikuspenen berri ematera, baita hori jakinaraztera ere plan batek indarra duen bitartean erakunde, organismo edo unitateen ardura edo titulartasuna bere gain hartzen dutenei.

3. Foru lege honen menpeko entitateen eta zentroyen jardueren memorieta berariaz jasoko dira gogoetarako espazioak, prestakuntza jarduerak, egindako ponentziak edo ikastaroak, gainbegiratze instituzionala eta sareko jarduerak.

## **II. KAPITULUA**

### **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki erakundeen eskumenak**

#### **33. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa da erakunde publiko eskuduna, bere lurraldean, adingabeen prebentzioan eta babesean eta organo jurisdikzionalak harturiko neurriak betearazteko, foru lege honetan ezarritako baldintzetan, eta legeria zibilean eta arlo honetan aplikatzekoak diren Estatuko beste legeetan xedatutakoarekin bat.

2. Adingabeen arloko eskumenak dituen departamentuak, bere egitura organikoari buruzko arauetan zehazten diren organo administratiboen bidez, eginkizun hauek beteko ditu:

a) Adingabeentzako prebentzio, babes eta erreformaren arloko jarduketak zuzendu, planifikatu eta programatzea.

b) Toki erakundeek gai horiei buruz, zeinek bere esparruan, prestatu behar dituzten planen helburu, lehenbaita eta gutxieneko edukiak zehaztea.

c) Adingabeen eskubideak sustatu eta aldeztuko eginkizun orokorrak, gehienbat gizartearen sentsibilizaziorako kanpainak eta harrera familienak antolatuz.

d) Foru Komunitateko Administraziooko beste organo batzuekin, gainerako administrazio publikoekin eta foru lege honen esparruan diharduten erakunde pribatuekin elkarlanean aritzeko bideak sortzea, haiek denek esparru horretan egiten dituzten jardueren jarraipena eta ebaluazioa bermatzearen.

Hori horrela, urtero toki erakundeek memoria bat igorri beharko diote adingabeen babesaren arloko eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administraziooko organoari, adingabeen babesaren esparruan eginiko jarduketa guztiak bilduko dituen eta 32. artikuluan aurreikusitako adierazleei buruzko informazioa ere jasoko duena, kasuko hitzarmenean jasotzen den bezala.

e) Adingabeen prebentzio, babes eta erreformaren gaietan egokiak diren baliabide eta programak eman, kudeatu eta sustatzea.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- f) Babesgabeziaren egoeran dauden adingabeentzako eta erantzule penal deklaraturako adingabeentzako zerbitzu eta zentro guztiak baimendu, ikuskatu eta kontrolatzea.
  - g) Adopzioaren arloko erakunde laguntzaileak akreditatu, ikuskatu eta kontrolatzea.
  - h) Foru lege honetan aurreikusten den Adingabeen Erregistroa kudeatzea.
  - i) Arlo honetako profesional eta laguntzaileentzat antolatzen dituen prestakuntza eta espezializazioko ekintzak prestatu, gainbegiratu eta, kasua bada, gauzatzeko.
  - j) Foru lege honen xede diren gaiei buruzko azterketa eta ikerketa programak antolatu eta garatzea, horietan genero ikuspegia erabiliz.
  - k) Gogoetarako eta esperientziak trukatzeko espazioak, prestakuntza eta sareko lana sustatzea.
  - l) Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen akreditazioa, ikuskapena eta kontrola.
  - m) Foru Komunitateko auzo, herri eta ibarretan haur eta nerabeen alorrean diharduten erakunde komunitarioek kudeaturiko baliabide eta zerbitzuak sustatzeko udal-ekintzen aldezpena eta gainbegiratzea.
3. Bereziki, adingabeen arloko eskumenak dituen departamentuak eginkizun hauek beteko ditu:
- a) Babesgabeetasun egoerak deklaratzeko eta tutoretza administratiboa bereganatzeko prozedurak ebatzea, bai eta edozein babes neurri hartu eta bertan behera uztea eta erreforma neurriak betetzea, horrek galarazi gabe Fiskaltzari eta adingabeen arloan eskudun diren organo jurisdikzionaleri dagozkien eginkizunak.
  - b) Toki erakundeekin elkarlanean aritzea haien eskumenekoak diren familiarentzako laguntzarako zerbitzuak garatzen, bereganatuz arrisku-egoeretan neurriak egikaritzearen zeregina noiz eta, toki erakunde eskudunen lana denean ere, horiekin adosten baitute aipatu zeregina bereganatzea kasuaren konplexutasunagatik edo bitartekorik ezagatik. Desadostasuna egonez gero, hasiera batean alderdiek zilegi izanzen dute desadostasun hori 45. artikuluan aurreikusitako batzordeen esku uztea, edo haiek horretarako erabakitzen dituzten bideak jorratzea.
  - c) Adingabeen harrerak gauzatu, burutu eta haien jarraipena egitea, bai eta harrera egin behar dutenak informatu, erakarri, haien egokitasun balorazioa, trebakuntza, hautapena eta jarraipena egitea ere.
  - d) Adopzioaren gaineko araudiak babeserako erakunde publikoari esleitzen dizkion eginkizunak, horren barne direla adopzio nazionala nahiz nazioartekoa, aurreko lotura afektiboak atxikita nahiz atxiki gabe egiten dena, eta jatorria bilatzeko eskubidea baliatzeko modua, besteak beste:
    - Adopzio-eskatzaileei informazioa ematea eta eskatzaileak erakarri, baloratu eta trebatzea.
    - Adopzio-eskatzaileen egokitasun baldintzak baloratzea eta haien egokitasun ziurtapenez ebatzea.
    - Adoptatzaileen hautaketa.
    - Adoptagarritasuna deklaratzeko eta legerian jasotzen diren kasuetan hura eratzeko proposatzea.
    - Adopziorako helburua duen zaintza esleitu eta formalizatzeko prozedura.
    - Prestakuntza, orientazio eta jarraipen jarduketak eta adopzio ondoko programari dagozkion guztiak.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- e) Arreta eta babeserako sistema publikoko baliabide bakoitzean jarduteko irizpide teknikoak ezartzea.
  - f) Adingabeei arreta emateko zentro eta zerbitzu bereziak sortzea.
  - g) Foru lege honek edo gainerako ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion beste guztiak.
4. Foru Komunitateko Administrazioiko departamentuek, zeinek bere eskumenak erabiliz, zainduko dute foru lege honetan adingabeentzat ezartzen diren eskubideak sustatu eta aldezen direla.

### **34. artikulua. Nafarroako toki erakundeen eskumenak.**

1. Nafarroako toki erakundeei dagokie betetzea, gizarte zerbitzuen arloan dituzten eskumenak erabiliz, araudiak esleitzen dizkien eginkizunak, zehazki oinarritzko programak eta oinarritzko gizarte zerbitzuen finantzaketa sistema arautzen dituen araudiak, gizarte zerbitzu orokorren zorra onesten duenak eta gainerako ordenamendu juridikoak esleitutakoak.
2. Nafarroako toki erakundeek, gainera, eginkizun hauek betetzen ahalko dituzte, Foru Komunitateko Administrazioan eskudun den organoak eginiko kudeaketa-esleipenen bidez:
  - a) Adingabeen zaintza gauzatzeko jarduketa material, tekniko edo zerbitzukoak.
  - b) Foru Komunitateko Administrazioarekin elkarlanean aritzea, ikertzen, ebaluatzen, erabakiak hartzen, esku hartzen, jarraipena egiten eta adingabeak familian eta gizartean integratzen, foru lege honetan arreta eta babeserako aurreikusten diren jarduketan esparruan.
  - c) Erantzule penalak diren adingabeei ezartzen zaizkien neurrien betearazpen materialean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin elkarlanean aritzea, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan, eta laguntzea adingabe horiek familian eta gizartean integratzeko jarraipena egin eta sostengua emateko lanetan.
3. Toki erakundeek proposatzen ahalko dute jarduketak zedarritzea, eskumen partekatuen esparruan, adostu dituzten hitzarmen edo organoen bitartez, foru lege honen 33.3 b) artikuluan aurreikusten den bezala.

## **III. KAPITULUA**

### **Familia, entitate laguntzaile eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioekiko ekintzak**

#### **1. ATALA Familiak**

### **35. artikulua. Familien sustapena.**

1. Familien balioa eta garrantzia sustatzean, ulertuko da familia dela bai Nafarroako Zuzenbide Zibilarren Konpilazio edo Foru Berriaren 50. artikuluan aipatzen diren familia harremanetatik sortutakoa bai foru lege honekin bat eratutako familia harreretan sortutakoa.
2. Oinarritzko beharrei erantzuteko prestazioetan, errenta bermatuan, kasu, kontuan hartuko da seme-alaben kopurua haren zenbatekoa zehazteko ondorioetarako.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

3. Nafarroako Administrazio Publikoek faboratuko dute haur-eskoletan sar daitezen arrazoi sozioekonomikoek eraginda zaurgarritasun handiagoa duten familien seme-alabak, babes neurriak dituzten adingabeak eta desgaitasuna duten adingabeak.
4. Administrazio publikoek lan eginen dute erantzunkidetasun askoz ere handiagoa duen gizarte baterantz pausoak emateko. Horretarako, laguntzak eta zerbitzuak ezarri eta sustatuko dituzte norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko, erantzunkidetasunaren eta genero-rolen hausturaren ikuspuntutik.
5. Erakunde eta enpresentzako aholkularitza sustatuko da, adingabeen zainketaren gaineko erantzukizun partekatua eta kontziliazioaren gaietan laguntzeko eta sentsibilizatzeko, batez ere guraso gazteen kasuan.
6. Nafarroako Administrazio Publikoek familiak sentsibilizatuko dituzte eta sustatuko dute haiei orientabideak nahiz trebakuntza ematea, haien gurasotasuna positiboa izan dadin, haien gaitasunen inguruan eratuta.
7. Familiak sustatu eta laguntzeko ekintzak eta neurriak sartuta egonen dira 31. artikuluan aurreikusitako plangintzan, eta 32. artikulua araberako ebaluazioa izanen dute.
8. Familia osoak parte hartzeko espazioak sustatuko dira esku-hartzearen esparru desberdinetan.
9. Foru Komunitateko Administrazioak berariazko laguntza larroak mantenduko ditu familia ugariarentzat, harrera familientzat eta familia gurasobakarrentzat edo gurasobakartasun-egoeran daudenentzat.
10. Foru Komunitateko Administrazioak bultzatuko du eta erraztuko du, egokia denean, laguntza eman dakien harremanetarako eta hezkuntzako zailtasunak dituzten adingabeen familiei.
11. Lehen haurtzaroan, familiari eta berezko inguruneei zuzendutako arreta ereduak sustatuko dira.
12. Nafarroako Administrazio Publikoek diskriminazio mota oroan aurrean babestuko dituzte LGTBI+ pertsonen bikoteak.  
Horretarako, informazio programak sartuko dituzte familientzat, generoko errealitate eta errealitate afektibo desberdinen berri zabaltzeko eta sexu orientazioan, genero adierazpenean eta sexu edo genero identitatean oinarritutako diskriminazioari aurka egiteko; LGTBI+ familietan, jaiotza, harrera edo adopzioa dela eta, bizi diren umeenganako errespetua eta babesa sustatuko dituzte; beharrezkoak diren tresnak ezarriko dituzte dokumentazio administratiboa bat etor dadin LGTBI+ pertsonen harreman afektiboekin eta familia egitatearen heterogeneotasunarekin.  
Familia indarkeriatzat hartuko dute familia barruan, kideetako edozeinen sexu orientazioa, genero adierazpena eta sexu edo genero identitatea dela eta, gertatzen den indarkeria mota oro.  
Adingabeengan kalte psikikorik dagoen ebaluatu behar duten langileen artean adingabeen transexualitateari buruzko ezagutza sustatuko da.

## **2. ATALA**

### **Erakunde laguntzaileak**

#### **36. artikulua. Kontzeptua eta betebeharrak.**

1. Adingabeen arretarako erakunde laguntzaileak dira adingabeei arreta integrala emateko jarduerak eta eginkizunak betetzeko, Foru Komunitateko Administrazioaren baimena jaso duten elkarte, fundazio edo bestelako erakunde pribatuak.
2. Halakotzat aritzeko baimena dutenez gain, adingabeei arreta emateko erakunde laguntzaileen akreditazioa izanen dute pertsona juridikoek ere, kontratazio edo itun sozialerako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen bada:
  - a) Legez eratuak eta erregistratuak egotea.
  - b) Beren estatutuetan edo eratze-arauetan adingabeen sustapena eta babes helburu gisa agertzea.
  - c) Adingabeen arretarako esleituta dituzten eginkizunak betetzeko antolaketa eta diziplinarteko lantalde egokiak edukitzea.
  - d) Erakunde horietan diharduten langileen prestakuntza eta kualifikazioa bermatzea.
  - e) Haien jardunbideei eta jardunari buruzko gogoetarako espazioak sortzen direla bermatzea, profesionalentzat eta zuzendaritzarentzat, ikasteko komunitateak eratzeko helburuarekin, horietan bermaturik egon dadin departamentuen, hierarkien eta profesional mota desberdinen arteko komunikazio librea, espazio horiek eraiki eta aktibatzeke proiektu bat izanik.
3. Erakunde horiek ezin dute irabazi-asmorik izan, honako kasuetan badaude: Adingabeen Erantzukizun Penalaren arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aipatzen direnak badira, organo jurisdikzionalak harturiko neurriak betearazteari dagokionez, eta Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan aipatzen direnak, nazioarteko adopzioaren arloko bitartekaritza-erakunde gisa akreditatzeko moduari dagokionez, bai eta itun sozialaren bidez zerbitzuak ematen dituztenean ere, sistema hori lehentasunezkoa izanen baita adingabeen babesarekin lotutako zerbitzuen zeharkako kudeaketa sistema gisa.

#### **37. artikulua. Jarraipena, erregistroa, publizitatea eta zerbitzuen baimena.**

1. Erakunde horiek, jardutean, Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunaren jarraibide, ikuskapen eta kontrolak onartu beharko dituzte, eta bakarrik arlo horretan aplikatzekoa den araudian aipatzen diren muga barruan hartzen ahalko dituzte beren gain zaintza eta bitartekotza eginkizunak. Ziurtatu beharko dute eginkizun horiek adingabeen onerako baizik ez direla.
2. Erakunde laguntzaileak ofizios inskribatuko dira Gizarte Zerbitzuen eta Baimen Espezifikoen Erregistroan, kasuko zerbitzuaren titular gisa.
3. Erakunde laguntzaile bati zerbitzuak adjudikatzeko ebazpen administratiboetan espresuki adierazi beharko dira adingabeei arreta emateko lan edo jarduerak, akreditazioaren xede direnak. Ebazpen horiek Kontratazio Atarian argitaratu beharko dira.
4. Adingabeei arreta emateko zerbitzuak Administrazioak esleituak direnean, horiek ireki eta aritzeko, baimen administratiboa lortu beharko da alde zuzenetik, eta



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Administrazioak esleituak ez direnak, berriz, aldez aurretik jakinarazi beharko dira, indarreko araudian ezarritako baldintzekin eta prozedurarekin bat betiere.

### **38. artikulua. Erakunde laguntzaileen eskubide eta betebeharrak.**

1. Foru Komunitateko Administrazioeko organo administratiboek lankidetzeta eta laguntza emanen diete erakunde laguntzaile akreditatuiei.

2. Adingabeei arreta emateko eginkizunak, akreditazioaren xede direnak, betetzeko, erakunde laguntzaileek betebeharrak izan behar hauek izan behar dituzte:

a) Ordenamendu juridikoak adingabeei aitortzen dizkien eskubideak errespetatzea eta betearaztea, eta horretarako entzutea adingabeari, gurasoei eta harrera nahiz adopzio familiei, elkarrekin lan eginez esku-hartzea egokia izan dadin.

b) Akreditazioaren xede diren lan eta jarduerak egitea, Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak ematen dituen arau, jarraibide eta gidalerroekin bat.

c) Barne funtzionamendurako arauak izatea, kasu guztietan jasoko dutenak gai hauekin lotutako guztia: adingabeen eskubideak mugatzea, neurri zuzentzaileak, tratamendu pertsonalen motak eta maiztasuna.

d) Foru Komunitateko Administrazioari erraztasunak ematea ikuskapen eta kontrol eginkizunak betetzeko.

e) Ezarriko erregistro administratiboetan inskribatuta irautea.

f) Gogoetarako eta ikasteko espazioak ziurtatzea.

g) Erregelamenduetan aurreikusirik edo akreditazioetarako ebazpenetan espresuki ezarriko dagoen beste edozein.

### **39. artikulua. Erakunde laguntzaileen akreditazioa errebokatzea.**

Organo eskudunak, aldebiko espedientean emandako ebazpen arrazoitu baten bidez, errebokatzen ahalko du erakunde laguntzaile gisa aritzeko akreditazioa, erakunde horiek 36. artikuluan eskatzen diren baldintzak edo betebeharrak edo kasuan kasuko itun sozialean edo kontratu publikoan jasotako baldintzak betetzen ez dituztenean.

## **3. ATALA**

### **Metodologia komunitarioa eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak**

#### **40. artikulua. Haur eta nerabeen babeserako metodologia komunitarioa.**

Komunitetasuna gizarte- eta hezkuntza-lan publikorako metodologia bat da, lan hori komunitateko kideen artean nahiz horiek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzu eta zentro publikoekin eginkizuna dela ere. Horren bitartez erantzunkidetasun soziala garatzen da erantzukizun publikoko maila desberdinak dauzkaten eragileen artean, horretarako plan, proiektu eta baterako ekintzen bidez.

#### **41. artikulua. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak.**

1. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitario dira harako elkarte, federazio, fundazio edo bestelako entitate sozial haiek, zeinek plan, proiektu eta ekintza komunitarioak egiten baitituzte Foru Komunitateko auzo, herri eta ibarretako haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko.

2. Aipatu entitate sozialak honakoek osatuak dira:

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- a) Hezitzaile komunitario gisa jardutearen zeregina beren gainean hartzen duten toki-komunitateko bizilagunek.
- b) Haur eta nerabeek, erakundearen parte hartzeko beren taldeen ekintza komunitarioaren protagonista izanda.
- c) Gizarte-langileek eta hezitzaile profesional edo boluntarioek, babes-ekintza komunitarioa aldeztuz eta zentro eta zerbitzu publikoekiko lan komunitarioan bitartekari arituz.
3. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioek haur eta nerabeak babestu egiten dituzte beren lurralde komunitarioan, prebentziorako eta babeserako egiten dituzten plan eta proiektuen bitartez.
4. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioek zilegi dute sare komunitarioak eratzea auzo, herri edo ibarreko haur eta nerabeekin diharduten zerbitzu edo zentro publikoekin edo komunitateko beste entitate batzuekin, prebentzio eta babeserako elkarlaneko plan eta proiektuak garatzeko.
5. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioek zilegi dute komunitatearteko sareak eratzea beste auzo, herri eta ibar batzuetako antzeko beste erakunde batzuekin, elkarlaneko prebentzio- eta babes-plan eta -proiektuak garatzeko.
6. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, eta ez dute inolako antola-loturarik edukiko erakunde politiko eta erlijiosoekin, hain zuzen ere beren izaera komunitarioa bermatzearen: plurala, kulturartekoa eta irekitasunezkoa.
7. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak behartuta daude:
  - a) Legalki eratuta egotera eta erregistratuta egotera, elkartze-eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren ildoan, edo Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legearenean.
  - b) Beren estatutuetan edo fundatze-arauetan helburu gisa jasota edukitzera haur eta nerabeen eskubideen sustapena eta babesa.
  - c) Antolamendu eta profesional- edo boluntario-lantalde tekniko egokiak edukitzera adingabeen arretarako diharduten proiektu komunitarioetan esleituta dituzten eginkizunak betetzeko.
  - d) Jarduten duten auzo, herri edo ibarreko sare sozial eta komunitarioen aitorpen publikoa edukitzera.
  - e) Bai esparru komunitarioan bai Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen programa desberdinetan haur eta nerabeak artatzen dituzten zerbitzu eta zentro publikoekin sarean lan egitera.
  - f) Erakunde horietan diharduten boluntarioen eta langileen prestakuntza eta kualifikazioa bermatzera.

### **42. artikulua. Jarraipena, erregistroa, publizitatea eta zerbitzuen baimena.**

1. Erakunde horiek beren jarduna moldatuko dute Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunaren jarraibideetara, ikuskapenera eta kontrolera, eta gaiari aplikatzekoa zaion araudian aipatzen diren mugapenen barenko berezko eginkizunak besterik ez dute hartu ahalko, betiere ziurtaturik eginkizun horiek eskusiboki adingabeen interesen mesedetan betetzen direla.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

2. Erakunde laguntzaileak ofizioz inskribatuko dira Gizarte Zerbitzuen Erregistroan, “erakunde komunitario” nolakotasunaren aipamen esplizitua eginez.
3. Erakunde komunitario bati zerbitzuak adjudikatzeak ebazpen administratiboetan espresuki adierazi beharko da adingabeei arreta emateko zer zeregin edo jardueratarako dagoen akreditatua.
4. Adingabeei arreta emateko zerbitzuak administrazioek esleituak direnean, horiek ireki eta aritzeko, aldez aurretik Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari homologazio administratiborako jakinarazpena egin beharko zaio behin zerbitzua esleituta, eta Administrazioak esleituak ez direnak, berriz, aldez aurretik jakinarazi beharko dira, indarreko araudian ezarritako baldintzekin eta prozedurarekin bat betiere.

### **43. artikulua. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen eskubideak eta betebeharrak.**

1. Foru Komunitateko administrazio eskudunetako organo administratiboek beren lankidetzeta eta laguntza helaraziko diete erakunde komunitario akreditatuei, bai proiektugarapenean, bai haur eta nerabeak komunitate-esparruan babesteko agente gisa urratsak egiten hasteko.
2. Adingabeak artatzeko akreditazioa duteneko eginkizunak betetzean, entitate laguntzaileek betebeharrak izanen dituzte:
  - a) Ordenamendu juridikoak adingabeei aitortzen dizkien eskubideak errespetatzea eta betearaztea eta, horretarako, adingabeari, gurasoei eta harreragile edo adoptatzaile diren familiei entzutearen izapidea mantentzea, esku-hartzea egokia izateko moduko elkarlana eginez.
  - b) Barne funtzionamendurako arauak izatea, gutxienez ere jasoko dutenak bizikidetasun arauarekin eta tratamendu pertsonalen motekin zerikusia daukana.
  - c) Foru Komunitateko administrazioek eginiko ikuskapen- eta kontrol-ekintzak erraztea.
  - d) Laguntza ematea ezarritako administrazio-erregistroetan jasotako informazioa egunean mantentzeko.
  - e) Erregelamenduetan edo akreditazio-ebazpenetan espresuki ezartzen den beste edozein.

### **44. artikulua. Akreditazioa errebokatzea.**

Organo eskudunak aldebiko espedientean emandako ebazpen arrazoitu baten bidez errebokatzen ahalko du akreditazioa, erakunde horiek ez badituzte gehiago betetzen aplikatu beharreko araudian edo kasuko itun sozial edo kontratu publikoan ezartzen diren betekizun edo baldintzak.

**IV. KAPITULUA**  
**Koordinazioa eta partaidetzako organoak**

**1. ATALA**  
**Sareko lana**

**45. artikulua. Batzordeak.**

1. Gizarte-zerbitzuen eta adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuak gainerako gaietako eskumena duten departamentuekin sarea osatuz lan egingen du buru gisa, haur eta nerabeengan eragina duen edozein gai jorratzeko; eta, bidezkoa denean, toki erakundeekin ere bai, haien ordezkariari proposamena egin ondoren edo ordezkari horien ekimenez.

Horretarako, tresna batzuk prestatu, berrikusi edo eguneratzea sustatuko du, horien bidez bermatze aldera modu homogeneoan garatzen direla beharrezkoak diren esku-hartzeak eta ukitutako departamentuetako langileen prestakuntza, bai eta beste administrazio batzuekiko elkarlana ere, ekintza-gidak partekatzea. Hori guztia, pertsonengan eta haien beharretan zentratutako eredu baten arabera, zeinak funtsezko zeresana esleitzen baitie kasu bakoitza kudeatzen duen taldeari eta ikaskomunitateak eratzeari.

2. Gizarte-zerbitzuen eta adingabeen alorreko eskumena duen departamentuak koordinazio-lana eta elkarlana egingen ditu departamentu eskudun desberdinekin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileekin, haur eta nerabeen alorrean eginkizun diren urratsetarako, beharrezkotzat jotzen diren batzordeen edo mahaien bitartez, eta, betiere:

a) Arlo hauetan: etxebizitza, hezkuntza, osasuna, enplegua, aisialdia eta kirola.

b) Adingabeekin zerikusia duten suizidio-portaeren prebentzioan eta artatzean.

c) Gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren alorretako eskumenak dituzten departamentuek haurren ongizatea, arreta komunitarioa eta sareko lana sustatzeko batzorde bat eratuko dute, zeinak, besteak beste, sarean lan egiteko oinarrizko eredu adostu bat ezarriko baitu, ahalbidetuko duena informazio-lanabesak partekatzea, lan-metodologiak bateratzea eta haur eta nerabeen arloan aritzen diren profesionalen multzoa koordinatzea.

3. Eskubide sozialen eta adingabeen arloko eskumena duen departamentuak adingabeen arloko bere politikak eta ekintzak planifikatu eta garatuko ditu bere berdintasun unitatearen bitartez elkarlana eginez gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko eskumena duen erakundearekin, genero-ikuspegia bermatzearen.

4. Haur edo nerabeei arreta edo babesa emateko zerbitzuen titularrak diren pertsona eta erakundeak Pertsonarengan Zentratutako Arreta Sareko kide izaten ahalko dira; sare hori aurreikusita dago gizarte zerbitzuen esparruan egoitza-zerbitzuen, egunekoan eta ambulatorioen jarduna eta baimen, aldez aurreko komunikazioen eta homologazioen araubidea arautzen duen foru araudian.

Horrekin batera, sektore horretako adituak ere sartuko dira Pertsonarengan Zentratutako Arreta Sareari laguntzeko batzordean, bertan aurreikusitakoan, eta ordezkari sindikalei jakinaraziko zaie batzordean foru lege honen aplikazioaz hitz egiten denaz, halaxe baitago jasota araudian.

5. Familia eta egoitza harrerretarako mahaiak eratuko dira, honakoen ordezkariak osatuak: harrera familiak, administrazio publikoetako langile espezializatuak,

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

adingabeen babesaren arlokoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta haietako profesionalak, Arartekoa-Adingabearen Defendatzailea; mahaien zeregina izanen da foru lege honetan familia harrera sustatzeko aurreikusten diren ekintzetan esku hartzea.

6. Babes-mahaiak eratuko dira arlo komunitarioan, gurasoen elkarleen ordezkariekin, adingabeak komunitatean babesteko espezializazioa daukaten administrazio publikoetako langileekin, haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioekin eta udal eta kontzejuen ordezkariekin, esku hartze aldera foru lege honek prebentzioaren eta babes komunitarioaren sustapenari dagokionez aurreikusitako ekintzak direla-eta.

7. Arreta goiztiarrari dagokionez, 0 eta 6 urte bitartekoentzat Arreta Goiztiarraren Sarea bultzatuko da, eta jarduketa guztiak gauzatu beharko dira Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Goiztiarraren Sarearen barruan, Administrazio Publikoko organoen jarduketa integrala bultzatuz erantzunkidetasuneko espazio komuna indartuz, eta zerbitzu eraginkorra, efizientea eta kalitatezkoa bermatuz.

Toki erakundeaz gaindikoa mailetan, departamentuen arteko lana faboratuko da, Arreta Goiztiarraren Batzorde Gidariaren eta Arreta Goiztiarraren departamentu arteko Batzordearen bitartez, zeinak kide izanen baititu irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta familien eta toki mailako profesionalen ordezkariek.

Bestalde, toki mailan eta maila komunitarioan, arreta goiztiarreko taldeak haurren sustapenerako dauden toki sareetan egotearen alde egingen da.

Sareko lana bultzatuko da inplikaturik dauden unitate eta talde desberdinen lana koordinatzea beharrezkotzat jotzen denean, eta esku hartzeko baterako planak sortuko dira.

Aldi berean, informazio sistema bakar bat ezarriko da Arreta Goiztiarreko Sareko eragileen artean, 0 eta 6 urte bitarteko adinekoekin zerikusia duten departamentu guztiakentzat.

8. Koordinazioerako batzorde eta ekintza guztietan erraztuko da administrazio publikoetako langileen parte-hartzea, sustatuko da gurasoek ere parte hartzea eta guneak izatea, arazo edo kezka berdinak dituztenek bilerak egiteko, eta bermatuko da adingabeek beraiek ere parte hartzeko aukera izatea.

9. Horietan guztietan berariaz aurreikusiko da beren lana nola zabaldu toki esparruan, tokiko sareak eta auzokideenak sendotuz eta bultzatuz eta transmisoreen figura sustatuz, beren gain har dezaten toki mailako erreferenteekiko koordinazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumen esparru desberdinetan.

10. Guztietan zainduko da osaketan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioa errespetatuko dela.

11. Adingabeei laguntza emateak berekin ekarriko du lana antolatzea kasuaren zuzeneko erreferente nagusi bat izanen duten bitartekoen bidez.

Sareko gainerako profesionalak kasuaren inguruko gogoetan, koordinazio-lanetan eta bileretan parte hartuko dute, eta, hala badagokio, nagusia ordeztuko dute solaskide lanetan hura ez dagoenean.

### **46. artikulua. Funtzionamendu arauak.**

Aurreko artikuluekin bat eratzen diren batzorde edo kide anitzeko organo guztietan, organo horiek beraiek onetsiko dituzte beren helburuak, egutegiak eta jardunerako barne

erregelamenduak, horrek galarazi gabe kide anitzeko organoak sortzeko arauetan eta horiek arautzen dituen foru legerian organo horietarako aurreikusita dagoena.

## **2. ATALA**

### **Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua**

#### **47. artikulua. Sorrera.**

1. Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua sortzen da, haur eta nerabeen arloko sustapen, arreta eta babeserako aholkularitza, parte-hartze eta kontsulta eginkizunak dituen kide anitzeko organo gisa.
2. Funtzionamenduaren ondorioetarako, Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseilua adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuari atxikitzen zaio.

#### **48. artikulua. Eginkizunak.**

1. Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:
  - A. Aholku emanen du, nahitaezko txosten ez-lotesleen bidez, gai hauei buruz:
    - a) Adingabeen babesaren arautzeko foru lege aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak.
    - b) Adingabeen eta haien familien babes eta arretarekin eta haur eta nerabeentzako prebentzio-zerbitzuekin zerikusia duten plan integralak eta urteko plan operatiboak.
  - B. Kontsulta organoa izanen da eta txostenak eginen ditu Nafarroako Gobernuak edota haren departamentuek egiten dizkioten galderei buruz.
  - C. Parte-hartze eta informazio organoa izanen da, haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko edo haien beharrei erantzuteko, toki erakundeek eta adingabeekin lotura duten elkarte sozialek helarazten dizkioten proposamenak edo ekimenak ezagutzera emateko edo eztabaidatzeko, baita adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuak jakitera ematen duenaz ere, hala nola jardueren urteko laburpenaz.
2. Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluak txostenak eskatzen ahalko dizkie Nafarroako Gobernuko departamentuei eta Nafarroako Arartekoari, adingabeen eskubideen defentsaren eta babesaren arloan dituen eginkizunak bete ahal izateko.

#### **49. artikulua. Antolaketa.**

1. Kontseiluaren Osoko Bilkura antolaketa eta funtzionamendurako erregelamenduak zuzenduko du eta, horretan aurreikusirik ez dauden gaietan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako kide anitzeko organoetarako ezarrita dauden arauak.
2. Dituen eginkizunak bete ahal izateko, Kontseiluak baliabide material eta giza baliabide nahikoak izanen ditu. Baliabide horiek adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuak emanen dizkio.
3. Kontseiluak batzordeak eratzen ahalko ditu, haren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduak xedatzen duenari jarraikiz.

#### **50. artikulua. Kontseiluaren osaera.**

1. Haur eta Nerabeen Nafarroako Kontseiluak kide hauek izanen ditu, gutxienez:
  - a) Adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilaria Kontseiluko lehendakaria izanen da.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- b) Adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuaren bi ordezkari; horietatik maila altueneko lanpostua duena Kontseiluko lehendakariordea izanen da. Lehendakariordea lehendakariaren ordezkari arituko da hura kanpoan dagoenean, edo gaixo, edo haren lanpostua aldi baterako hutsik dagoenean. Halaber, lehendakariak esleitzen dizkion edo erregelamendu bidez ezartzen diren eginkizunak izanen ditu.
- c) Adingabeen babesarekin eta arretarekin lotura zuzena duten gainerako departamentuetako ordezkari bana; zuzendari nagusiaren maila izanen dute.
- d) Gehienez ere sei ordezkari, erakunde bakoitzeko bat, adingabeen babesaren eta arretaren arloan diharduten erakunde edo elkarte nagusietakoak; haietako bat, gutxienez, harrera egiten duten familiak edo adopzio familiak ordezkatzeko dituztenetakoak izanen dira.
- e) Gehienez ere sei ordezkari, erakunde bakoitzeko bat, adingabeen eskubideak aldeztuko eratuta dauden elkarreetakoak.
- f) Nafarroako toki erakundeen lau ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatuak, zeinetatik hiru, gutxienez, hautetsiak izanen baitira.
- g) Desgaitasuna duten adingabeen eskubideak ordezkatzeko dituen erakunde bat, edo sektore horretako erakundeak biltzen dituen.
- h) Ordezkaritza handiena duten sindikatuen lau ordezkari, horietatik bi Nafarroan orokorrean dutenak eta beste biak, berriz, ordezkari itzulia handiena dutenak gizaritza zerbizuen sektorean, beste biak ez direnak.
- i) Nafarroako Arartekoa-Adingabearen Defendatzailea, edo instituzioaren ordezkari bat.
- j) Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen bi ordezkari.
- Sustatuko da Kontseiluko kide izan daitezkeen, 1 d) eta 1 e) letretan aipatzen diren erakunde ordezkatzeko, haietako haur edo gazteen ataletako kide diren adingabeak edo haien jarduerara edo zerbizuetan laguntzen dutenak edo haien onuradun direnak.
- Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen 56. artikuluan aurreikusitako Partaidetzarako Tokiko Kontseiluetan ordezkari diren adingabeak gonbidatuta egonen dira osoko bilkuretan parte hartzera eta proposamenak egiten ahalko dituzte haiekin erabakitzen den moduan.
2. Kontseiluko idazkariak zuzenbideko graduduna edo lizentziaduna eta adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuko funtzionarioa edo langilea izan beharko du, eta hitzarekin baina botorik gabe jardunen du.
3. Adingabeen babesaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariak izendatuko ditu Kontseiluko kideak, lau urterako, ordezkatzeko organismoen proposamenak, halakorik egiten badute, kontuan hartuta eta, gainerako kasuetan, osaketan emakumeen eta gizonen arteko ordezkari itzulia orekatuaren printzipioa errespetatuz.

## **V. KAPITULUA** **Zehapenen araubidea**

### **51. artikulua. Arau-hauste administratiboak eta erantzuleak.**

1. Arau-hauste administratiboak erantzuleen egiteak edo ez-egiteak dira, kapitulu honetan tipifikatuak, deusetan galarazi gabe arlo zibilean, penalean edo bestelakoetan

gerta litekeen erantzukizuna eta arlo sozialean Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzari dagozkion eskumenak.

2. Erantzuleak dira foru lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteak diren egite edo ez-egiteak egozten ahal zaizkien pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke.

4. Baldin eta hurrengo artikuluetan jasotako egite edo ez-egiteetakoren bat, bere larritasunagatik edo garrantziagatik eta tipifikazio penal baten osagai guztiak biltzeagatik, Zigor Kodean jasotako delitua izan badaiteke, zigor arloko jurisdikzioak izanen du lehentasuna, eta ezin izanen da administrazio-zehapenik ezarri zigor arloan epaitutako subjektua, gertakaria eta oinarria berberak direla ikusten den egitateengatik; zehapena ezartzeko organo eskudunak ezin izanen du prozedura hasi eta gertakizunak Ministerio Fiskalari jakinarazi beharko dizkio.

5. Zehapen-prozedura bat hasi ondoren, egitate berberengatik zigor arloko prozedura bat izapidetzen ari dela jakiten bada, administrazio-prozedura eten egingen da, zigor arloko erabaki irmoa eman arte.

## **52. artikulua. Arau-hauste arinak.**

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

a) Zentro edo zerbitzuetako titularrek adingabeei behar duten tratamendua eta arreta ez ematea, haiei kalterik sortzen ez badiete.

b) Nahitaezko eskolatze aldiaren dauden adingabeentzat ikasposturik ez eskatzea, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.

c) Adingabeen edo haien familien txosten sozialak edo psikologikoak erabiltzea, edo babes sisteman lan egiten dutenen datuak, intimitatea edo pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera zilegi ez diren tratamenduetarako, horrek ez badie kalte nabarmenik ekartzen ukitutakoei.

d) Foru lege honetan adingabeei aitortzen zaizkien eskubideak lesionatzea edo aintzat ez hartzea dakarten egite edo ez-egite guztiak.

e) Prebentzioan edo babesean aritzen diren zentro eta zerbitzuetan adingabeei arreta ematen dieten profesionalekin kontra eginez, begirune faltaz, mehatxuka, irainka, errepresaliekkin jokatzeko edo haien kontrako beste edozein presio mota arina baliatzea.

f) Adingabeen arretan edo babesean esku hartzen duten langile espezializatuek haien seme-alabentzat beharrezkotzat jotzen dituzten hezkuntza eta gizarte arloko esku-hartzei edo esku-hartze terapeutikoei aurka egitea justifikaziorik gabe, horrek esku-hartzeak atzeratzen baditu.

g) Adingabeei eskaini, saldu, alokatu, edozein bitarteko erabiliz zabaldu edo ikusgai jarri, haien esku libreki geratzeko moduan, argitalpenak, objektuak, ikus-entzunezko materialak, joko informatikoak edo mota guztietako materialak, bultzatzen dutenak delituzko ekintzak nahiz edozein diskriminazio mota egitera, edo eduki pornografikoa dutenak edo bultzatzen dutenak substantziak kontsumitzera edo adikzioak sortzen dituzten jokabideak izatera, edo haur eta nerabeek aitortuak dituzten eskubide eta printzipioak urratzen dituzten jarrera edo portaerak izatera.

h) Aurreko letran deskribatutako edukiak dituen ikus-entzunezko materiala, edozein motatakoa, proiektatzea toki publikoetan edo adingabeentzat eskura dauden ikuskizunetan.



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

i) Gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez betetzea, babesgabetasunaren espedientea tramitatzen den bitartean, deituta dauden entzunaldiaren tramitera joateko betebeharra, arau-hauste astuna ez bada.

### **53. artikulua. Arau-hauste astunak.**

Arau-hauste astunak honako hauek dira:

a) Arau-hauste arinetan berrerortzea.

b) Adingabe baten balizko arrisku edo babesgabetasun egoeraren berri ez ematea agintaritza eskudunei.

c) Administrazioak akreditatu gabe adingabeen harreran edo adopzioan bitartekotza-zereginetan esku hartzea.

d) Adingabeentzako arretaren arloan ematen diren administrazio ebazpenak ez betetzea edo erakunde publiko eskudunak arrisku edo babesgabetasun arloan erabakitako babes neurriak bete daitezen oztopatzea edo galaraztea, arau-hauste oso astuna ez bada.

e) Hedabideen bitartez zabaltzea adingabeen edo babes sisteman lan egiten dutenen irudiak edo datu pertsonalak, edo haien txostenak, adingabeei buruzkoak, hori zilegi izateko arrazoirik egon gabe edo pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteari buruzko araudian ezarritako debekuaren salbuespenik egon gabe, horrek kalte nabarmena ekartzen badie ukituei.

f) Neurri judizialen menpeko adingabeei gehiegizko neurri zuzentzaileak ezartzea edo adingabeen eskubideak murriztea epaileen erabakietan edo adingabeak dauden zentro eta erakundeen barne funtzionamenduari buruzko arauetan xedatzen denaz gaindi.

g) Osasun zentroak edo osasun langileek ez betetzea jaioberriak identifikatzeko betebeharra, foru lege honetako 19.6 artikuluan ezarritakoaren araberakoa.

h) Adingabearen guraso-erantzukizunaren titularrek, tutoreek edo haren zaintza dutenek adingabea ikastetxera joatea oztopatzea, horretarako arrazoi justifikaturik gabe.

i) Adingabeak erabiltzea haientzat debekatutako jarduera edo ikuskizunetan.

j) Adingabeei debekatuak dituzten establezimendu edo lokaletan sartzen uztea.

k) Saldu, eman, erakutsi edo zabaltzea adingabeentzat kaltegarriak izan daitezkeen irudi, mezu, gauza edo argitalpenak, edo Konstituzioan eta antolamendu juridikoaren gainerakoan aitorturiko eskubide eta printzipioak urratzen dituzten jarrera edo portaerak bultzatzen dituztenak.

l) 12 urtetik beherakoei saldu, alokatu, zabaldu edo proiektatzea zuzenean edo zeharka bortizkeria edo delituak edo edozein diskriminazio mota egitera bultzatzen duten bideoak, bideo-jokoak edo beste edozein ikus-entzunezko material, eta, halaber, eduki pornografikoa dutenak edo Konstituzioan eta antolamendu juridikoaren gainerakoan aitorturiko oinarrizko eskubide eta askatasunen kontra jotzen dutenak.

m) Adingabeen egoeren erregistroa behar ez bezala erabiltzea.

n) Foru lege honetan adingabeei aitortzen zaizkien eskubideak modu larrian lesionatzea edo aintzat ez hartzea dakarten egite edo ez-egite guztiak.

o) Prebentzioan edo babesean aritzen diren zentro eta zerbitzuetan adingabeei arreta ematen dieten profesionalekin kontra eginez, begirune faltaz, mehatxuka, irainka, errepresaliekjin jokatzera, edo haien kontrako beste edozein presio mota baliatzea.

p) Seme-alabek jasandako kalte larriak, adingabeei arreta edo babes emateko esku hartzen duten langile espezializatuek haien seme-alabentzat beharrezkotzat jotzen

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

dituzten gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeei edo esku-hartze terapeutikoei aurka egiteagatik justifikaziorik gabe.

q) Administrazio publiko eskudunari edo beste agintaritza publiko bati ez jakinaraztea haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabetasun egoeran dagoela edo etxetik ihes egin duela, zerbait egiteko benetako aukerak daudenean eta hala ez egiteak argi eta garbi dakarrenean babesgabeziaren egoera luzatzea, betiere foru lege honek eta adingabearen babes juridikoari buruzko gainerako legeek xedatzen dutenarekin bat.

r) Administrazio publiko eskudunaren edo beste agintaritza publiko baten edo familiaren esku ez jartzea, 24 orduko epean, abandonatuta, galduta edo etxetik ihes eginda dagoen haur edo nerabe bat.

s) Foru lege honetan ezarritako debekuen edo printzipioen aurkako publizitatea eman edo zabaltzea Nafarroako Foru Komunitatean. Ekintza hauen erantzukizuna publizitate hori eman edo zabaltzen duten hedabideena da.

t) Nafarroako Foru Komunitatean eman edo zabaltzen den publizitatean adingabeak erabiltzea foru lege honetan ezartzen denari aurka eginez. Ekintza horren erantzukizuna iragarlearena eta publizitate hori eman edo zabaltzen duten hedabideena da.

u) Familiakoa ez den haur edo nerabe bat hartzea, etorkizunean adoptatzeko asmoz, erakunde publikoaren organo eskudunaren esku-hartzerik gabe.

v) Haur eta nerabeei arreta emateko irabazi-asmorik gabeko zentro edo zerbitzuen titularrek edo haien zerbitzuko langileek irabazizko jardunbideak babestu edo betetzea, barne dela baimendu gabeko diru-kopuruak jasotzea haur eta nerabeei edo haien familiei emandako arreta zerbitzuen kontraprestazio gisa.

w) Gurasoetako batek edo haur edo nerabearen tutoretza edo zaintza duten pertsonetako batek ez betetzea, babesgabetasun espediente baten tramitazioan, deia helarazi dien egoitza administratiboan agertzeko betebeharra, ez betetzeak ekartzen badu edo ekar badezake arrisku larri edo oso larri bat adingabearen osotasun fisiko edo psikikorako.

x) Adopzio ondoko jarraipen txostenak edo haurren adopzioaren edo harreraren aurreko beste babes neurri batzuen jarraipeneak egin edo bidali behar dituen erakunde edo organismoak egindako errekerimenduak ez betetzea aplikatzekoa den legeriak ezarritako moduan eta epean, edo trabak jartzea erakundeari edo organismoari aipatutako txostenak egin edo bidaltzeari dagozkion lanetan.

### **54. artikulua. Arau-hauste oso astunak.**

Arau-hauste oso astunak honako hauek dira:

a) Arau-hauste astunetan berrerortzea.

b) Aurreko artikuluan aipatzen diren arau-hauste astunak egitea, baldin eta adingabeen eskubideei kalte konpongaitz edo konponezina ekartzen badiete.

c) Prebentzioan edo babesean aritzen diren zentro eta zerbitzuetan adingabeei arreta ematen dieten profesionalen kontrako eraso fisikoak.

d) Adingabeen kontrako eraso fisikoak.

e) Edozein pertsona fisiko edo juridikok esku hartzea haur edo nerabe baten harrera edo adopzioarako bitartekaritza lanak betez, kasuko gaikuntza izan gabe, tartean prezioa, iruzurra edo ageriko arriskua egon bada haur edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikorako.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- f) Familiakoa ez den haur edo nerabe bat hartzea, etorkizunean adoptatzeko asmoz, erakunde publikoaren organo eskudunaren esku-hartzerik gabe, tartean prezioa, iruzurra edo ageriko arriskua egon bada haur edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikorako.
- g) Haurrak edo nerabeak erabiltzea publizitate jardueretan edo ikuskizunetan lege honek debekatzen badu, tartean prezioa, iruzurra edo ageriko arriskua egon bada haur edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikorako.
- h) Haurrak edo nerabeak erabiltzea debekatutako publizitate jardueretan edo ikuskizunetan, tartean prezioa, iruzurra edo ageriko arriskua egon bada haur edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikorako.
- i) Nazioarteko adopzioa formalizatzea atzerriko herrialde batean, beste herrialde baterako emandako adopziorako egokitasun deklarazio batean babestuta.
- j) Haur edo nerabe baten babesgabetasun egoera ezagutzen duenak ez betetzea haren berri emateko betebeharra, foru lege honetan ezarritakoa, ez betetzeak ekartzen badu edo ekar badezake arrisku larri edo oso larri bat adingabearen osotasun fisiko edo psikikorako.
- k) Babesgabetasunaren arloko eskumena duen erakunde publikoak erabakitako babes neurriak betetzeko trabak jartzea edo galaraztea, egoerak ekartzen badu edo ekar badezake arrisku larri edo oso larri bat adingabearen osotasun fisiko edo psikikorako.
- l) Babestutako adingabe baten zaintza esleitua dutenek haren duintasunari eragiten dion tratu umiliagarria ematea, eta haren eskubideak urratzea, kaltea eraginez, foru lege honetan eta urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan aitortuta dituenak, hain zuzen ere.
- m) Adopzio ondoko jarraipenaren txostenak edo haurren adopzioaren edo harreraren aurreko beste babes neurri batzuen jarraipenekoak egin edo bidali behar dituen erakunde edo organismoak egindako errekerimenduak behin eta berriro ez betetzea aplikatzekoa den legeriak ezarritako moduan eta epean, edo trabak jartzea erakundeari edo organismoari aipatutako txostenak egin edo bidaltzeari dagozkion lanetan.

### **55. artikulua. Berrerortzea.**

Berrerortzea gertatzen da arau-hauste baten erantzuleak, urtebeteko epean, foru lege honetan ezarritako izaera bereko arau-hauste bat edo gehiago egiteagatik ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso duenean.

### **56. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.**

Arau-hauste oso astunek hiru urte pasatzean preskribatuko dute; astunek, bi urte pasatzean; eta arinek, urtebete pasatzean, arau-haustea egin denetik hasita.

### **57. artikulua. Zehapen administratiboak.**

1. Kapitulu honetan tipifikatutako arau-haustek honelaxe zehatuko dira:

- a) Arau-hauste arinak: idatzizko ohartarazpena edo 1.000 eurora bitarteko isuna.
- b) Arau-hauste astunak, 1.001etik 30.000 eurora bitarteko isuna.
- c) Arau-hauste oso astunak, 30.001etik 100.000 eurora bitarteko isuna.

2. Ezartzen diren zehapenek ez dute eragotziko kalte-ordainak egotea, bidezkoak direnak, zehatutako jokabideek kalteak eta/edo galarak eragin badizkiete adingabe batzuei.

**58. artikulua. Zehapen osagarriak.**

1. Arau-haustearen erantzulea den pertsonak edo erakundeak, adingabeak babesteko dirulaguntzarik hartu badu, eskatuko zaio dirulaguntza itzul dezala.

Halaber, arau-hauste astun edo oso astunen kasuan, urtebetetik bost urte bitarteko epean gaikuntza kentzen ahalko zaio Foru Komunitateko Administrazioaren edozein laguntza edo dirulaguntza hartzeko.

2. Arau-hauste astunak edo oso astunak izanez gero, erantzuleak adingabeei laguntzeko erakunde laguntzailezat jotzen diren zerbitzu, etxe funtzional edo zentroen titularrak izanez gero, aurreko apartatuan aipatzen direnez gain, zehapen osagarriak honako bat edo batzuk izanen dira:

a) Arau-haustea gertatu zeneko zentroa, etxe funtzionala edo zerbitzua ixtea aldi baterako edo betiko, osorik edo hein batean.

b) Erakunde laguntzailearen aitortza errebokatzea.

c) Urtebetetik bost urtera bitarte gaikuntza kentzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoarekin kontratuak izenpetzeko.

3. Erantzuleei, hedabideen titularrak badira eta arau-haustea hedabideen bitartez egin badira, zehapen osagarri gisa, 1. apartatuan aipatzen direnez gain, ezartzen ahalko zaie hedabide beretan zehapen-ebazpena publikoki zabaldu beharra.

4. Arau-haustea adingabeiei debekaturiko produktu edo ondasunak saldu, eman edo helaraztea bada edo adingabeek debekatuta dituden establezimendu edo lokaletan sartzen uztea bada, zehapen osagarri gisa ezartzen ahalko da, 1. apartatuan aipatzen direnez gain, arau-haustea gertatu zeneko establezimendu, lokal, instalazio, esparru edo guneak bost urte bitarte edo betikoz ixtea.

**59. artikulua. Zehapenen mailakatzia.**

1. Zehapenak eta isunen zenbatekoa zehazteko, haiek bat etorri beharko dute arau-haustearen astuntasunarekin. Gehienbat irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Hutsegitea zenbatean egin den nahita edo arduragabekeriak.

b) Beren egoeratik adingabeiei, edo beste batzuei, eginiko edozein kalte.

c) Arau-haustearen oihartzun ekonomiko eta soziala.

d) Arau-hausteetan berrerortzea.

2. Arau-haustearen ondorioz lorturiko etekin ekonomikoa foru lege honetan ezarritako zehapenaren zenbatekoa baino handiagoa bada, zehapena etekinaren zenbatekoa berdindu arte handituko da.

**60. artikulua. Zehapenen preskripzioa.**

Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenek hiru urte pasatzean preskribatuko dute; astunengatik ezarritakoek, bi urte pasatzean; eta arinengatik ezarritakoek, urtebete pasatzean, ebazpena irmo bilakatu eta biharamunetik hasita.

**61. artikulua. Kautelazko neurriak.**

1. Ebazpenak emateko eskudun den organoak noiznahi ere, arrazoiak emanda, behin-behineko neurriak hartzen ahalko ditu ebazpenaren eraginkortasuna eta prozeduraren bukaera ona ziurtatzeko eta arau-haustearen ondorioen iraupena saihesteko.

Betiere, adingabeen osotasun fisikoa eta psikikoa gordetzeko behar diren neurriak hartu beharko dira.

2. Kautelazko neurriek bat etorri beharko dute kasu bakoitzean lortu nahi diren helburuen garrantziarekin, proportzionaltasunarekin eta beharrekin.

3. Kautelazko neurriak hartzen ahalko dira haiek ez hartzeak adingabeei edozein motatako kaltea ekartzen ahal diela aurreikusten den guztietan.

4. Ezarritako kautelazko neurriak kenduko dira horiek hartzeko zergatikoak desagertu orduko edo adingabeak babesteko beharra beste modu batean betetzen denean.

### **62. artikulua. Zehapenak publiko egitea.**

Organo zehatzaileak erabakitzen ahalko du arau-hauste astunak edo oso astunak egiteagatik foru lege honetan aurreikusten diren zehapenak ezartzeko ebazpen irmoak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

## **III. TITULUA AURRENEURRIAK**

### **63. artikulua. Lehentasunezko izaera eta helburuak.**

1. Adingabeentzako arreta integrala emateko, lehentasuna izanen dute prebentziorako jarduketek, balizko babesgabeziaren egoerei eta haien garapena kaltetzen duten edo haien eskubideak urra ditzaketen gabezia larriei aurrea hartzekoek.

2. Prebentzioak helburu hauek izanen ditu:

a) Adingabeen eskubideak errespetatu eta bermatzen direla zaintzea, informazio, dibulgazio eta sustapen jardueren bidez, eta erantzuna sustatuz lehen adinetan, loturaren hastapenetan, jaio aurreko etapa barne, jaio aurretik eta jaiotzean jarraipena eginez.

b) Integrazio soziofamiliarra eta aisialdiaren jolas- eta sozializazio-erabilera mesedetzen eta bermatzen dituzten jarduera publikoak egin eta irabazi asmorik gabeko jarduera pribatuak sustatzea, era horretan autonomia indartze aldera, esparru komunitarioan batez ere.

c) Adingabeek beren garapen integralari kalte egiten dioten baliabide, produktu eta jarduerak eskura ditzaten mugatzea.

d) Adingabeentzat segurtasun falta edo arrisku egoera ekar dezaketen faktoreak murriztea, arrisku faktoreen aurrean garaiz jardunez, babesten ez duten egoerak bideratzeko, eta haurren beharrak, bai fisikoak bai emozionalak, ekonomikoak eta hezkuntzakoak, modu egokian asetzea, ingurune seguru eta egokitueta eta hasierako adinetatik, harreman egonkor eta seguruak ezar daitezen.

e) Gizarte eta familia ingurunea hondatzen ahal duten arrazoiak saihestea, eta ahalmenak eta gaitasunak areagotzearen alde egitea, orientabideak, formakuntza eta laguntza emanez.

f) Sarean lan egitea edozein eskubide-urraketaren antzemate goiztiarrerako, barne harturik erakundeen egintzetatik erator litezkeenak.

g) Hazkuntzarako lanei sostengu iraunkorra emateko, Nafarroa osoko sare lokal guztietan txertatzea prebentzioaren ikuspegia, prebentziotik helduz detekzioari, sentsibilizazioari eta esku-hartzeari, bai eta ikuspegi lokal eta komunitarioa ere.

h) Haur eta nerabeei arian-arian eta beren garapenaren esparru ezberdinetan prestakuntza ematea beren buruaren babesaren beren gain har dezaten, dituzten heldutasun-mailaren eta gaitasunen arabera. Prebentzio-prestakuntza hori haien autonomia errespetatuz eginen da, eta horretan laguntzaile izanik haien familiak, irakasleak, erreferente komunitario profesional nahiz boluntarioak, gizarte- eta osasungintza-zerbitzuetako profesionalak, eta haren inguruneko erreferentziazko beste edozein pertsona heldu.

#### **64. artikulua. Prebentzio jarduketak.**

Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen esparruan, foru lege honetan ezarritakoaren esparruan, prebentzio lanak garatu eta bultzatuko dituzte, lehenetsiz 32. artikuluan aipatzen den plangintza integralean zehazten direnak, besteak beste jarduketa hauen bitartez:

1. Adingabeen eskubideen sentsibilizazioaren arloan:

- a) Adingabeei eta haien familiei informazioa ematea haien eskubideez eta haientzako arreta eta babeserako Nafarroako Foru Komunitatean dauden baliabideez, bai familia ingurunean bai publikoan, babes sistema eta, bereziki, harrera familien lana horien barnean direla.
- b) Adingabeen eskura jartzea beren egoeraz zerbitzu publikoekin komunikatu eta kontsultatzeko bideak, laguntza iraunkorrerako telefonoekin lankidetzan aritzea barne.
- c) Adingabeen beharrez eta behar horiei erantzuteko gaitasunak indartzeko modu egokiez jabeaztea.
- d) Haurren eskaletza desagerrarazteko prebentzioa eta kontrola, horrelako jardunak sortzen dituzten zergatiak aintzat hartuta.
- e) Generoarekin, transexualitatearekin, desgaitasunarekin, zaurgarritasun sozioekonomikoarekin edo kulturartekotasunarekin lotutako egoerek sor ditzaketen zailtasun erantsiak.
- f) Haur eta nerabeei indarkeriarik gabeko ingurune batean bizitzeko eskubidea dutela sentsibilizatzeak.
- g) Neskek haurtzaroan eta nerabezaroan genero indarkeriarik gabeko ingurune batean bizitzeko eskubidea dutela sentsibilizatzeak.

2. Hezkuntzaren eremuan:

- a) Haur-eskolak sustatzea eta faboratzea bertan sar daitezten desgaitasuna duten adingabeak eta gizarte, kultura eta ekonomiaren aldetik ahulenak diren populazio taldeetakoak.
- b) Irakaskuntza nahitaezkoa ez den adinetan, adingabeei arreta emateko gainerako hezkuntzaz kanpoko zentroetan gutxieneko hezkuntza jarraibideak finkatzea.
- c) Nahitaezko eskolatzearen bermea eta eskolako absentismoa gutxitzeko ekintzak.
- d) Eskola porrotaren prebentzioa.
- e) Programak garatzea ohiko eskola sistema onartzen ez duten adingabeentzat, porrot egin dutenentzat edo eskola huts egiten dutenentzat.
- f) Gizarte inklusiorako programak garatzea zailtasun bereziak dituzten adingabeentzat, goiz agertzen den zoritxarra barne, baita bestelakoak ere, eskola inklusiboari dagozkionak, aniztasunarekin lotuak (sexu edo kultur arloan, eta gaitasunetan).
- g) Ingurune behartsuetako adingabeentzako konpentsazio neurri zehatzak.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

h) Haur eta nerabe etorkinentzako eta babespean dauden adingabeentzako neurri espezifikokoak biltzen dituzten hezkuntza programak garatzea. Programa horiek gauzatuko dira hezkuntzako profesionalak, gizarte hezitzaileak eta populazio talde zehatz honek beharrezkoa duen arretan adituak diren langile espezializatu guztiak aintzat harturik, hizkuntzaren ezagutzarekin lotutakoak barne.

i) Zeharkako hezkuntza-programak sartzea, helburu gisa dutenak genero indarkeriaren prebentzioa eta detekzio goiztiarra, -berdintasuna sustatuz-, eta jarrera xenofoboena -ezberdinak direnekiko errespetua eta haien integrazioa faboratuz-.

j) Ikastetxeetan haur eta nerabeek jasaten duten eskola-jazarpena kontrolatu eta desagerrarazteko programak garatzea langile kualifikatuak bitartez.

k) Programa guztietan kontuan hartzea landa eremuko behar espezifikokoak.

l) Adingabeen kontrako bortizkeriaren eta sexu abusuen prebentzioa.

3. Osasungintzaren eremuan:

a) Osasunerako hezkuntza, txertaketa kanpainak edo bestelako programak, populazio ahulenari edo arriskuan dauden giza taldeei zuzenduak, ezgaitasunak sortzen dituzten gaixotasunen prebentziorako ekintza espezifikokoak eta arreta goiztiarreko programak garatzea.

b) Adingabeen edo haien gurasoen osasun mentaleko arazoaren prebentziorako programak.

c) Haurren bilakaerako etapa bakoitzerako egokia den hezkuntza afektiboa eta sexuala.

d) Alkohol, tabako eta bestelako drogen kontsumoaren eta adikzioen prebentzioa.

e) Adingabekoen artean norbere burua lesionatzeko jokabideen prebentzioa eta prebentzio lana eremu psikosozialean eta ongizate emozionalekoan.

f) Istripuen prebentzioa, etxean bereziki.

g) Guraso izanen diren prestakuntza, haurdunaldiaren hasieratik. Osasun etxeetako langileekin egiten den prestakuntzan sartuko dira atxikimendu seguruaren kontzeptua, aitatasun eta amatasunaren arlo psikologikoko trebetasunak garatzea, eta zaurgarritasun edo arrisku egoerak detektatzea.

h) Gizentasunaren prebentzioa eta elikadura osasuntsua eta aisialdi osasungarria sustatzea, eta, halaber, pantailen erabilera segurua eta bizimodu osasuntsuak, atsedeneren garrantzia barne, autonomiatik eta norbere buruaren zainketa bideratuta.

i) Prebentzioa 16 urte baino gehiagoko adingabeen lanari dagokionez.

j) Haurtzaroan eta nerabezaroan gertatzen den sexu indarkeria goiz detektatzea eta programa terapeutikoak sexu indarkeriaren biktimak diren haur eta nerabeekin; sexu esplotaziorako “salerosketaren” biktimak diren haur eta nerabeekin goiz detektatzeko eta esku hartzeko programa; garaia baino lehenagoko ezkontzak -hau da, ezkontza hitzartuak edo behartuak- detektatzeko eta saihesteko jarduketako protokoloa; emakumeen genitalen mutilazioa jasateko arriskuan dauden neskek detektatzeko programa.

4. Familientzako sostengua:

a) Adingabe bakoitzarentzat egoki diren zainketak bermatzea helburu nagusi duen guraso-erantzukizun positiborako hezkuntza sustatuko da eta, bereziki, harako hezkuntza zeina zuzenduta baitago familia gurasobakarrei, gizarte-sarerik gabeko edo oinarrizko heldulekurik gabekoak izan eta desgaitasuna edo gaixotasun mentalen bat duten seme-alabak dauzkaten familiei.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- b) Familian zigor fisikoen erabilera desagertzeko eta tratu onaren garrantziaz sentsibilizatzeko programak, tratu ona eta edozein motatako zigor fisikoa bateraezinak direla ulertzeko, eta horri buruzko kanpainak, jardunaldiak edo tailerrak sustatzea.
- c) Jarduketa sozial edo terapeutikoak, gurasoen eginkizunak egoki betetzeko, familiaren dinamika egokia garatzeko eta beren ingurunean deserrotzea saihesteko.
- d) Gabezia ekonomiko eta materialen ondoriozko gabeziak konpentsatzeko dirulaguntzak, oinarrizko beharrei aurre egiteko, errenta bermaturako eta inklusio sozialerako eskubideari buruzko araudiarekin bat.
- e) Familiendako orientazio eta bitartekotza programak eta guraso bereiziei eta haien seme-alabei elkarrekin biltzeko erraztasunak emateko tresnak, familia-gatazkak konpontzeko bide alternatibo gisa, genero-indarkeria dagoen kasutan izan ezik, nazioarteko, estatuko eta foru araudiak jasotako moduan.
- f) Etxeko laguntza ematea.

### 5. Gizarte harremanen, aisialdiaren eta animazioaren eremuan:

- a) Adingabeek beren buruak babesteko programak, arrisku egoerei aurre egin ahal izan diezaieten.
- b) Adingabeen kontrako indarkeriaren eta sexu abusuen arloko prebentzioa, nola jokatu eta laguntzeko bitartekoak azaltzeko informazioa barne.
- c) Gizartearen kontrako portaeren eta delinkuentziaren arloko prebentzio ekintza orokor edo bereziak gauzatea, batez ere nesken segurtasuna bermatzeko emakumeen kontrako indarkeria egoeretan, eta gizartearekin ongi moldatzen ez diren adingabeen gizarte inklusioan laguntzen dutenak.
- d) Balioak eta trebetasunak sustatzea: elkarlana, elkartasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, gizalegezko jokabidea eta indarkeriarik eza.
- e) Aisialdia modu egokian ingurune komunitarioan erabiltzeko orientatzea.
- f) Helduarorako prestatzea.

### 6. Prestakuntzaren, enpleguaren eta lan baldintzen eremuan:

- a) Enplegurako prestatu eta orientatzea.
- b) Gazteen enplegua sustatzea. Sostengu berezia emanen zaie beren egoera pertsonal edo sozialarengatik laneratzeko zailtasun handiagoak dituztenei, oinarrizko mailako prestakuntza gabeziak dituztenen ezaugarrietara ere egokitua.
- c) Lan esplotazioari aurrea hartzea.

### 7. Arreta goiztiarraren eremuan:

Arreta goiztiarra dira Otik 6 urtera bitarteko haurrei, haien familiei eta inguruneari modu koordinatuan zuzendutako prebentzio, ebaluazio eta esku-hartze jarduketak, horien helburua delarik ikuspegi integral batetik erantzuna ematea haurrek dituzten behar iraunkor edo aldi baterakoek, haur horiek garapenean alerazioak nahiz nahasmenduak dituztenean, edo horiek izateko arrisku handian daudenean faktore biologiko eta/edo psikosozialen eraginpean egoteagatik.

Nafarroako Gobernuak Arreta Goiztiarreko Zerbitzua bermatu beharko du jaiotzatik 6 urteko adinera arte, bai eta arreta hori artikulua honek xedatzen duenari jarraikiz ematen dela bermatu ere.

Adingabeen familiei eta haien ingurune komunitarioetako eragileei akonpainamendu egokia bermatuko zaie, haien gaitasunari lagunduko zaio eta familien eta adingabeen parte-hartzea bermatuko da.



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Arreta goiztiarreko jardunbideen oinarrian ebidentzia zientifikoa eta etika izanen dira, eta familiaren inguruan ardaztuta; haien xedea eta asmoa izanen da familiaren ahalduntzeari eta autogaitasunaren sentimenduari laguntzea, horrek hobetu dezan adingabeen eta haien familien bizi kalitatea. Familiak parte hartuko du lan helburuen diseinuan, planifikazioan eta gauzatzean, eta esku-hartzeak haurrei, haien familiei eta inguruneari zuzenduta egon dira.

Horrekin batera, testuinguru babesle eta inklusiboak sortzen lagundu beharko da.

Jarduketak gauzatuko dira printzipio hauek oinarri hartuta: irisgarritasun unibertuala, aukera berdintasuna, doakotasuna, parte-hartzea, inklusioa, diziplinartekotasuna, zerbitzuen kohesioa, kalitatea, batez ere berezko inguruneetara zuzendutako esku-hartzea, arreta prozesuaren izaera dinamikoa eta banakakoa, deszentralizazioa Foru Komunitateko zona guztietan, eta esku-hartze integrala.

8. Esparru komunitarioan, topagune gisa:

- a) Komunitatearen baitan gertatzen diren arrisku- eta babesgabetasun-egoeren antzemate goiztiarra.
- b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuekiko lankidetzak, arrisku- eta babesgabetasun-egoeren jarraipena egiteko.
- c) Banakako eta taldekako gizarte- eta hezkuntza-akonpainamendua, babes-harremantetik, kaleetan eta arrisku-egoerako haur eta nerabeen zentro komunitarioetan.
- d) Haur eta nerabeen partaidetzarako taldeei laguntzea.
- e) Askotarikoen berdintasuneko elkarbizitza eraikitzea eta gatazka-ebazpena erraztea.
- f) Komunitatera iristen diren haur eta nerabeen harrera komunitarioa.
- g) Esparru komunitario seguruak eratu eta garatzea, ekipamendua daukatenak eta haur eta nerabeen ongizate psikosoziala sustatzen dutenak, horrekin batera helduei modua emanik adingabeak babesteko zereginen laguntzeko.
- h) Belaunaldiarteko zainketa komunitarioak sustatzea bai krisialdietan bai komunitateko eguneroko bizitzan.
- i) Hezitzaile komunitarioak prestatzea.
- j) Errealitatearen analisi iraunkorra egitea diagnostiko komunitarioen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuekiko koordinazioan.
- k) Haurrak eta nerabeak protagonista gisa txertatzea komunitatearen prozesu sozial eta kulturaletan.
- l) Adingabeen eta gizarte- nahiz hezkuntza-erreferente diren helduen artean pertsonarteko harremanak lantzea.
- m) Nafarroako, beste autonomia erkidego batzuetako eta munduko beste komunitate batzuetakoak diren beste haur eta nerabeekiko solidaritatea eta harremana suspertzea.
- n) Sostengua ematea Nafarroako foru Administrazioaren tutoretzapekoak diren komunitateko haur eta nerabeei, beren helduleku komunitarioei eutsi ahal izan diezaieten familia- edo egoitza-harrerako egoeran dauden bitartean.
- o) Auzoko, herriko edo ibarreko pertsonen eta familien arteko familia-harrera sustatzea.

### **65. artikulua. Prebentzio-jarduketa.**

31.2. artikuluan aurreikusitako prebentzio-plan orokorreko prebentzioari buruzko atalean zehaztuko dira 64. artikulua jasotzen dituen orotariko prebentzio-jarduketak egiteko neurriak.

**66. artikulua. Ikastetxeen betebeharrak.**

1. Ikastetxeetako arduradunek, eskola kontseiluek eta irakasleek elkarlanean aritu beharko dute toki erakundeekin eta Foru Komunitateko Administrazioan hezkuntzaren arloko eskumena duen departamentuarekin, nahitaezko eskolatzea bermatzeko. Hartarako, betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Laguntzea, motibazioa, metodologiaren malgutasuna eta familien inplikazioa lehenesteko, 20.4 artikuluekin bat.

b) Ikastetxera ez agertzeko hutsegite guztiak erregistratzea eta justifikatu gabeko hutsegiteen berri ematea.

c) Eskola-absentismoaren kontra egiteko neurriak aplikatzea, Hezkuntza Departamentuaren protokoloetan toki erakunde eskudunen adostasunez jasotakoak, hain zuzen, edo departamentuak berak hartutakoak ukitutako gainerako departamentuekin, bidezkoa bada, koordinatu ondoren.

2. Erakunde pribatuekin eta partikularrekin izenpetzen diren hezkuntza itunetan berariaz adieraziko dira artikuluko honetan aipatzen diren jakinarazpen eta elkarlan betebeharrak.

**67. artikulua. Prebentzio komunitarioa.**

1. Prebentzio komunitarioa da auzo, herri eta ibarretan egiten diren arlo desberdinetako prebentzio-jarduketaren multzoa.

2. Prebentzio komunitarioa erantzukizun partekatua da, Nafarroako foru Komunitateko Administrazioaren, toki administrazioen eta haur eta nerabe alorreko sare komunitarioen artekoa.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erkidegoaren lurraldean dituen zerbitzu eta zentroek bai eta toki administrazioek ere lurralde horretako haur- eta nerabe-alorreko sare komunitarioekin elkar harturik lan egingen dute plan eta proiektu komunitarioetan.

4. Toki administrazioek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sostenguarekin, beren lurraldean sustatuko dute haur- eta nerabe-alorreko erakunde komunitarioen abiarazpen eta garapena, baliabide ekonomikoak, lokalak eta lantokiak horretara bideratuz.

**68. artikulua. Prebentzio arloko plangintza.**

1. Prebentzio-jarduketa plangintza orokorrean jasoko da eta bertan alor desberdinetako jarduketak zehaztuko dira:

- Gizarte eta hezkuntzarena: parte-hartzea eta prestakuntza.

- Sozioekonomikoa: zerbitzuak eta prestazioak.

- Soziosanitarioa: osasunaren sustapena eta arriskuaren kudeaketa.

- Informatiboa: informazioa eskuratu eta kudeatzea.

2. Gizarte zerbitzuen arloan eskumena daukan departamentuak deialdi bat egingen du toki entitateek haur eta nerabeen babeserako prebentzio-plan komunitarioak prestatu ahal ditzaten.

## **IV. TITULUA BABESA**

### **I. KAPITULUA Xedapen orokorrak**

#### **69. artikulua. Babes sistema.**

1. Babes sistemaren sartuko dira babesik ez duten adingabeak, arrisku edo babes gabeziaren egoeran daudelako, bai eta babeserako erakunde publikoaren zaintzapean daudenak ere, inguruabar larri eta iragankorrak direla-eta gurasoek edo legezko ordezkariak hala egiteko eskatu ondoren.

2. Arrisku-egoerako esku-hartzea administrazio publiko eskudunari dagokio, ikastetxeekin eta gizarte- nahiz osasungintza-zerbitzuekin koordinazioan, bai eta, kasu bada, dagokion lurralde-esparruko entitate laguntzaileekin edo beste edozeinekin koordinatuta.

Toki-entitateek jakiten dutenean adingabe bat arrisku-egoera batean egon daitekeela, hori egiaztatu eta ebaluatzeko egokiak diren urratsak egiten dituzte.

Arrisku-egoera baloratzeak barne hartuko du familiari buruzko gizarte- eta hezkuntza- alorreko esku-hartze proiektu bat abiaraztea, non jasota egon beharko diren helburuak, ekintzak, baliabideak eta epe-aurreikuspena, betiere sustaturik adingabearen babeserako faktoreak eta adingabea bere famili ingurunean mantendurik. Lan egiten da gurasoek, tutoreek, zaintzaileek edo harreragileek proiektuaren prestaketa parte har dezaten. Edozein kasutan ere, horien iritzia entzun eta aintzat hartuko da proiektua adosteko ahaleginean. Proiektua alderdiek sinatua izan beharko da, eta, horretarako, modu ulergarrian eta formatu eskuragarrian komunikatuko zaie. Adingabeari ere komunikatu eta egiten zaio kontsulta, baldin behar adinako heldutasuna badu eta, betiere, hamabi urteko adinetik aurrera.

3. Arrisku egoerak dira hezkuntzaren, norberaren, familiaren edo ingurune sozialaren inguruabarren, gabezien edo gatazken ondorioz, kalte egiten diotenak adingabearen garapen pertsonalari edo hezkuntza, familia edo gizarte garapenari, edo haren ongizateari edo eskubideei, adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak egoera horiek arintzeko beren erantzukizunak osorik beren gain hartzen ez dituztenean edo ezin hartu dituztenean, egoera horietarako babesgabetasun deklaraziorik egiteko beharrik ez badago eta legeak aginduta tutoretza hartu beharrik ere ez, egoeraren garrantzia, intentsitatea edo maiztasunagatik, eta bai ordea administrazio publiko eskudunak esku hartzea, zailtasunak edo egokitzeko ezintasuna baztertu, gutxitu edo konpentsatzeko eta babesgabetasuna eta bazterketa soziala saihesteko, adingabeak haien familia ingurunetik bereizi gabe. Ondorio horietarako, arrisku adierazlea izan da, besteak beste, egoera horretan deklaraturako anai-arrebarik izatea, non ez diren modu agerikoan aldatu familiaren inguruabarrak. Inguruabar edo gabezia materialak egotea ere arrisku adierazletzat hartuko da, baina ez du inoiz ekartzen ahalko familia ingurunetik bereiztea. Arrisku egoeran esku hartzeko eskuduna den administrazio publikoa, kasuan kasuko osasun zerbitzuekin elkarlanean, jaioren aurreko arrisku egoerarako prebentzio, esku-hartze eta jarraipen neurri egokiak hartuko ditu, geroago gerta ez dadin jaioberriaren arrisku edo babesgabetasun egoera deklaratu beharra. Horretarako, ulertuko da jaioren

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

aurreko arrisku egoera dela haurdun dagoen emakumearen zainketa fisikoen falta edo adikziorako ahalmena duten substantzien gehiegizko kontsumoa, bai eta emakumeak berak edo beste batzuek egin eta emakumeak onartzen duen edo onartzen ez duen beste edozein ekintza ere, jaioberriaren garapen normala kaltetzen duena edo eritasun nahiz anomalia fisiko, mental edo zentzumenezkoak eragiten ahal dizkiona. Osasun zerbitzuek eta osasun arloko langileek horren berri jakinarazi beharko diote administrazio publiko eskudunari eta Fiskaltzari. Jaio ondoren ere eutsiko zaio esku-hartzeari adingabearekin eta haren familia unitatearekin, beharrezkoa bada, arrisku edo babesgabetasun egoera deklaratzeko, egokiro babestarren.

Adingabe baten gurasoek, tutoreek edo haren zaintza dutenek, edo harrera egiten dutenek, haren bizia edo osotasun fisiko nahiz psikikoa zaintzeko beharrezkoak diren tratamendu medikoetarako baimena emateari uko egitea arrisku egoera da. Horrelakoetan, osasun agintaritzak agintaritzak judizialari zuzenean edo Fiskaltzaren bitartez jakinaraziko dizkiote egoera horiek, adingabeen interes nagusia zaintzeko behar den erabakia har dadin.

4. Babesgabetasun egoera da adingabeak zaintzeko xedez legeek ezarritako babes betebeharrak ez betetzeagatik, bete ezin izateagatik edo ongi bete ez izateagatik sortutakoa, adingabeak beharrezkoa zaien laguntza moral edo materialaz gabetarik suertatzen direnean.

5. Inguruabar larri eta iragankorreatatik babesgabetasun-egoera, gurasoek edo tutoreek arrazoi behar bezala frogatuengatik adingabea zaindu ezin izatearen ondoriozkoa. Entitate publikoari eskatu ahalko diote zaintza beregana dezan beharrezkoa den denboraz, zeina ez baita bi urte baino gehiagokoa izanen adingabea aldi baterako zaintzeko aldi gisa, non eta adingabe horren interes gailenak ez duen komenigarri egiten, salbuespen gisa, neurriak luzatzea. Epea edo, kasua bada, luzapena igarota, adingabeak guraso nahiz tutoreengana itzuli beharko du; bestela, horretarako baldintza aproposik suertatzen ez bada, legezko babesgabetasun-egoera aitortu beharko zaio.

Borondatezko zaintza-eskualdatzea idatziz eginen da, jasota utzirik ezen guraso edo tutoreei jakinarazi egin zaizkiela adingabearekiko izaten segitzen duten erantzukizunak eta entitate publikoak zaintza hori zein modutan egikarrituko duen. Bermatu eginen da, batik bat desgaitasunen bat duten adingabeen kasuan, ordura arte jaso dituzten laguntza espezializatuen etengabetasuna, edo haien premietarako egokiagoak diren beste sostengu batzuk abian jartzea.

### **70. artikulua. Babes neurriak.**

1. Honakoak hartzen dira neurri babesletzat:

- a) Arrisku egoerak deklaratu eta horietan esku hartzea.
- b) Legearen aginduz tutoretza hartzea, babesgabetasun egoera deklaratu ondoren edo adingabeentzako tutoreen izendapen judiziala sustatzea.
- c) Tutoretza arrunta.
- d) Familiarentzako sostengua, babes neurriaren izaera duela zehazten bada horretarako emandako erabakian edo ebazpenean edo moduren batean jasota gelditzen bada.
- e) Adingabearen zaintza hartzea, adingabeen berehalakoan arreta ematea barne, haien zaintza behin-behinekoz hartuz.
- f) Epaitegi eskudunaren aurrean adingabea adoptatzeko proposamena egitea.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

g) Jokabide arazoak dituzten adingabeei dagokienez foru lege honetan ezartzen diren neurriak.

h) Adingabeen onerako den beste edozein neurri, adingabearen egoera pertsonala, familiakoa eta soziala kontuan hartuz.

2. Egoera konplexu edo larriagoetarako aurreikusitako babes neurriak hartzea proposatzen ahalko da, justifikatuz gero, soilik, babes gabeziaren egoera oso larria denean, justifikatuta, edo arrisku egoeraren nahitaezko balorazioa eginda, horrek berarekin ekarri badu familiarentzako hezkuntza eta gizarte arloko esku-hartzerako proiektu bat abian jartzea, non jasotzen baitira helburuak, jarduketak, baliabideak eta epeen aurreikuspena, adingabearen babes faktoreak sustatuz eta bere familia ingurunean mantenduz.

### **71. artikulua. Babes neurriak bertan behera uztea.**

Aipaturiko babes neurriak bertan behera utziko dira:

a) Adingabea adin-nagusitasunera heltzean edo emantzipatzean.

b) Adingabea adoptatzean.

c) Epaileek ebazpen irmoa ematean.

d) Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunaren ebazpena, edo toki erakunde bakoitzaren barne araudiaren edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen antolaketaren arabera dagokion organo edo unitatearena, neurria hartzera bultzatu zuen egoera desagertu denean eta adingabearen onerako komeni denean.

e) Neurria ezarri zuen ebazpenean eta, hala bada, haren luzapenean aurreikusiriko epea betetzea.

### **72. artikulua. Adingabeen egoeren erregistroa.**

Administrazioak adingabeei arreta eta babesa emateko ekintza administratiboan segurtasun juridikoa eta haren antolaketa egokia bermatzeko, Adingabeen Egoeren Erregistroan idatzi eta jasoko dira edozein adingabe, foru lege honetan arauturiko jarduketa edo neurrien ondorioz, egon daitekeen egoera guztiak, bai eta hura adoptatzeko arrazoitzat jotzen diren beste batzuk ere; hori erregelamendu bidez garatuko da.

### **73. artikulua. Esku hartzeko irizpideak.**

Babes neurriak hartzerakoan, irizpide hauei jarraituko zaie kasuan-kasuan eskudunak diren administrazio publikoen jardunean:

a) Gizarte zerbitzuen sistema publikoaren irizpide orokorrak, gizarte zerbitzuen arloko Nafarroako legeria indardunetan eta haren arauetan eta garapen planetan jasotakoak.

b) Adingabeen autonomia pertsonala, haien askatasuna, duintasuna eta banakako eta taldekako nortasun-bereizgarriak errespetatzea.

c) Esku-hartzea adingabearen familia ingurunean egin dadin lehenetsiko da, gurasoek eta ingurune horretako gainerako kideek integrazio eta normalizazio prozesuan parte har dezaten lagunduz; posible bada, prozesu horrek erraztu beharko du adingabeak bere ingurune horretan jarraitzea eta gelditzea, eta egoitzako arreta azken neurri gisa ikusi behar da, beste aukerarik ez dagoelarik aplikatu beharrekoa, dela gainerako neurriak ez direlako eraginkorrak izan, dela kasuaren ezaugarriak direla-eta beharrezkoa delako, eta, ahal dela, aldi baterako baizik ez da izanen, ezinbestekoa den denbora laburrenerako.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- d) Adingabea familiatik bereizi beharra dagoenean, aukerako baliabideak erabiliko dira, ahal den guztietan familia harrera, eta bere familiara itzultzeko aukera kontuan hartuko da egoerak horretarako aukera eman orduko; esku-hartzeak lagundu behar dio haur edo nerabeari neurria hartzea eragin duen jatorrizko egoera ulertzen. Familiatik behin betiko bereziz gero, lan egingen da adingabea ahalik eta lasterren haren behar eta ezaugarrietarako egokiena eta egonkorrena den beste familia nukleo batean sartzeko, eta ahalegina egingen da, adingabeentzat kaltegarri ez denean, anai-arrebak elkarrekin egon daitezen eta jatorrizko taldearekin eta beste pertsona garrantzitsu batzuekin harremanak izan ahal ditzaten. Bi kasuetan adingabeek bermatuko zaizkie haien beharretarako egokiak diren bizi kalitatea eta hezkuntza.
- e) Esku-hartze administratiboa ahal den txikiena izan da, babes egokia ziurtatzeko behar-beharrezkoa dena, adingabearen eta familiaren bizitzan ahalik eta gutxien sartuz eta, bereziki, polizia ere esku-hartzea beharrezkoa izanez gero, saihestuko da ibilgailu errotulatuetan eramatea eta agente uniformedunek jardutea.
- f) Adingabeak -bai eta bere gurasoek ere, adingabearen interes gorenerako onuragarriena bada- bere gaitasunen arabera parte hartuko du bere egoeraz eta hartu beharreko neurriez erabakiak hartzen.
- g) Objektibotasuna, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa babesteko jardueran, eta bermatzea modu kolegiatuan, diziplina anitzekoan eta administrazioartekoan egiten direla kasuen diagnostikoa eta esku-hartzea, erabakiak ere horrela hartzen direla.
- h) Babesgabetasun-egoeren balorazioa egingen da eskubide sozialen alorreko departamentuak onetsiko dituen jardun-eskuliburuei jarraikiz. Departamentu horrek eskuliburu bat prestatuko eta ezagutaraziko du, babesgabetasun-egoerak eta haien larritasun-maila baloratuko. Eskuliburu horren berri emanen zaie esku hartzen duten sistema eta eragile desberdinei, eta haiek aldiroko prestakuntza jasoko dute eskuliburua behar bezala erabiltzeko.
- i) Abian diren neurrien jarraipena eta kontrola eta aldizkako berrikuspena, kasu bakoitzean ebatzi ahal izateko horiek mantendu, aldatu edo bertan behera uzteaz, betiere errespetatuz araudian edo departamentuak onartu eta babes arloan esku hartzen duten langileen artean zabaltzen dituen esku-hartzerako esku-liburuetan aurreikusten diren epeak, eta kontuan hartuz beti denborak duen eragin konponezina, adingabe bakoitzaren eboluzioaren unearen arabera.
- j) Neurrien progresibitatea, halako moduan non babesgabeziaren egoera guztiak baloratu beharko baitira eta larritasun maila desberdinetarako egokiak diren neurri guztiak saiatu, neurri larriagoak proposatu edo onartu aurretik, horretarako arrazoiak emanez.
- k) Arretari dagokionez, pertsonarengan eta kasu bakoitzean zentratutako eredu bati jarraituko zaio; eredu horretan zeregin funtsezkoa izanen du kasu bakoitza kudeatzen duen taldeak, horrela bermatuko baitira laguntzaren jarraitutasuna eta kasu bakoitzean zentratutako jarduna.
- l) Sareko lan asistentzialaren helburua izan beharko du laguntzaren jarraitutasuna mantentzea hasieratik bukaerara, landutako egoera konpontzera bideratzea, zerbitzu eta bitartekoen arteko mugak igarotzen laguntzea eta ikuspegi orokor bat lortzea, banakako kasuari begiratzen ez diona, testuinguruari baizik.

m) Nafarroako Gobernuak zainduko du langileek eta entitateek etengabeko prestakuntza egin dezaten, eta, horrela, ikasteko komunitateak izan daitezten; horrekin batera, sustatuko du, gisa horretako komunitate diren aldetik, gogoeta eta gainbegiratze instituzionalerako espazioak gara ditzaten, jardunbide onak garatzeko eta horien berri emateko sare asistentzialetan. Sareko lana bultzatuko du, zerbitzu estanko eta bereizien eredia gainditzeko eta lanbide eta zerbitzu desberdinetako langileen artean elkarlan malgua lortzeko.

#### **74. artikulua. Babestutako adingabeen eskubide espezifikoak.**

1. Babespean dauden adingabeek, foru lege honek eta antolamendu juridikoaren gainerakoak adingabe guztiei aitortzen dizkieten eskubideez gain, berriaz honakoak izanen dituzte:

a) Babestuak izateko, haien gurasoek edo lege ordezkariak nahi ez badute ere, arrisku edo babesgabetasun egoera egiaztatzen denean, eta, hamasei urte betetzen dituztenean, bereziki haien nahia kontuan har dadin, bizimodu independenterako prestatuak izateko. 155. artikuluan aipatzen diren kasuetan, arreta espezializatua eta integrala jasotzeko, izan ditzaketen jokabide arazoei erantzuteko.

b) Beren egoera pertsonalaren, hartu beharreko neurrien, horien iraupenaren eta edukiaren, eta dagozkien eskubideen berri izateko, bai eta babesgabetasuna edo adopzioa deklaratzeko edo babes neurriak hartu, eten, aldatu edo bertan behera uzteko prozeduren berri izateko ere. Horretarako, esku hartzeko prozesuak dirauen bitartean, egiazko informazioa emanen zaie, ulergarria, beren egoerarako egokia, etengabea eta ahalik eta osoena.

c) Beren iritzia adieraztean entzunak izateko eta, hamabi urte beteak dituztenean edo aski den heldutasun eta gaitasuna dutenean, beren kasuari buruzko erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko eta babes neurriari eta babesgabetasuna deklaratzeko prozedurei aurka egiteko prozesuan parte izateko, beren defentsa juridikoarekin, hori dena legeria zibilean xedaturikoarekin bat beraiek adostasuna ematea beharrezkoa den kasuak deusetan galarazi gabe.

d) Beren beharrak bilatu eta asetzeko prozesuan subjektu aktibotzat hartuak izateko. Nafarroako Administrazio Publiko guztiek haien autonomia pertsonala gizarteari eta legeei dagokienez sustatu eta bermatu beharko dute.

e) Tramitazioa ahalik eta eraginkorra eta azkarrena izateak ematen dien segurtasun juridikoa eta emozionala izateko, horrek behin-behineko neurriak luzatzea eragotzi, behar-beharrezkoa denaz gaindi haien intimitatean esku sartzak saihestu eta jarduteko gaitasunaren mugak eta haien eta beren familien bizitzan esku sartzea ere ahalik eta gehien murriztuko baitu.

f) Ahal dela, beren familian gelditzeko eta, familiatik bereizi badituzte, ahal bezain laster haiekin itzultzeko aukera kontuan har dadin eta, hori gauzatzetik ez badago, ahalik eta lasterren beste familia nukleo batean sartzeko eta jatorrizko taldearekin eta garrantzitsuak diren beste pertsona batzuekin harremanak izateko, lotura afektiboak eusteko, horrek babesaren xedean eraginik ez badu edo kalterik egiten ez badio, Foru Komunitateko Administrazioko organo eskudunak, interesdunei jakinarazitako ebazpen arrazoituaren bidez ezarritako bisita araubidearen barruan, bai hasierako bisitetarako bai ondoren erabakitzen diren berrikuspenetarako.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Senide biologikoekiko lotura afektiboak atxikitzeko, ahalegina egingen da familia berak egin dezan guztien harrera edo adopzioa eta, ezinezkoa bada, erakunde publiko eskudunak egingen du bitartekari lana lotura horiek atxikitzen direla ziurtatzeko.

g) Jatorrizko familiara itzultzea ezinezkoa denean, familia alternatiba bat eman dakien, babes sisteman dauden haur eta nerabeen adopzioa bultzatuz, bereziki iragan direnean neurri iraunkorrak hartzeko gehieneko epeak, araudian aurreikusitakoak.

h) Haien gizarte inklusioan laguntzen duten bitartekoak izateko, haien kultur nortasuna eta hizkuntza errespetatuz, eta haien esku bitartekoak jar daitezzen harreman sozialak izateko eta jardueretan parte hartzeko bera bezalakoek bezala.

i) Beren familiek aski den laguntza eta sostengua izan dezaten, adingabeak gutxieneko baldintza egokietan tratatu ahal izateko.

j) Harrera kasuetan, beren adinare eta beren gaitasunaren arabera, beren eta beren familien historia ezagutzeko eta, jatorrizko familiatik behin betiko bereziak izan badira, beren kultur eta gizarte aurrekariak ere bai. Horiek beti errespetatuko dira.

k) Beren eta beren familien egoera erabat isilpekoa izan dadin, salbu eta eraginkortasunez esku hartzeko behar-beharrezkoa den heinean, betiere haien onerako.

l) Harreman zuzenak izateko Fiskaltzarekin, Nafarroako Arartekoarekin, babeserako erakunde publikoarekin eta bere babesaren arduradun tekniko eta administratiboekin, bai eta bere erreklamazio edo kexak haiei helarazteko ere.

m) Babesgabetasun egoeran daudenean, doako laguntza juridikorako eskubidearen onuradun direla aitortzeko.

n) Desgaitasuna duten adingabeen eskubideak gauzatzeko behar diren informazioa, zerbitzuak eta laguntzak planifikatu eta eman daitezzen.

ñ) Behar duten laguntza jasotzeko, hezkuntzakoa eta psikoterapeutikoa, barne dela laguntzea behaketan eta hasierako harrera egoeretan, ikastetxeetara joatea ezinezkoa edo zaila denean, eta beharrezkoak diren orientabideak eta laguntza jasotzeko etorkizun akademiko eta profesionalari begira aukeraketak egiteko orduan.

o) Beraien espedientea ikusteko eta beraien jatorriari eta ahaide biologikoei buruzko datuak jakiteko, adin-nagusitasunera iristen direnean.

p) Administrazioak epaitegi edo auzitegietan sala ditzan haien osotasun fisikorako eskubidearen urraketak edo delitu izan daitezkeen beste egoera larri batzuk, horien berri duenean.

q) Administrazioetik lortzea beren bizi eta familia egoeraz hark daukan informazio guztia, beren gaitasun intelektual eta emozionalerako egokituta, batik bat familian bizitzeari utzi baldin badiote.

Eskubidea izanen dute, halaber, informazioa izateko hezkuntzan haiei buruz hartzen diren prozesu eta erabaki guztiei buruz eta, bereziki, dituzten eskubideei buruz.

2. Familia harreraren kasuan, aurrekoaz gain honetarako eskubidea ere izanen dute:

a) Harrera egiten duen familiaren edo pertsonaren bizitzan osotara parte hartzeko, eta konpainia eta garapen psikoafektiboa, elikadura, hezkuntza eta heziketa integrala jasotzeko.

b) Harrera bukatzen delarik, harremanak atxikitzea harrera familiarekin, Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunaren iritziz adingabearen interes gorenarekin bat baldin badator eta horrekin ados baldin badaude adingabea, heldutasuna



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

duenean eta, kasu guztietan, hamabi urte baino gehiago dituenean, harrera familia eta jatorrizko familia, edo, kasua bada, adopzio familia edo harrera iraunkorrekoa.

c) Aurreko paragrafoko l) letran aipatzen diren pertsona edo erakundeetatik edozeini informazioa eskatzeko familia harrerari buruz, eta eskatzeko, beren ekimenez, heldutasun nahikoa badute, familia harrera eten edo bertan behera uzteko.

3. Adopzioen kasuan gainera, honetarako eskubidea izanen dute:

a) Adopzioaren aurreko eta ondoko zerbitzu publikoak, foru lege honetan aurreikusten direnak, eskatu eta haiei buruzko informazioa lortzeko, bai eta horiek jasotzeko ere, bidezkoa denean.

b) Kontuan har daitezzen, bere kasuan, abandonua, zoritxar goiztiarrak eragindako trauma edo atxikimendu faltak sortutako arazoak.

c) Adopzioa dakarren babes neurri berrirako prestatzeko, egokitze eta moldatzeko faseetan laguntza jasotzeko.

d) Adoptatuak direla jakiteko eta beren egoera pertsonalari eta familiarrari buruz dagozkien eskubideen berri izateko, adopzioaren arloan indarrean dagoen legedian ezartzen diren baldintzekin.

e) Adopzioen kasuan edo adopzioa helburu duten zaintzen kasuan, beranduago eskolatzeko, berehalakoan, eskolatzeko aldi arrunta bukatuta ere.

### **75. artikulua. Langile espezializatuak.**

1. Foru Komunitateko Administrazioan adingabeen arloko eskumena duten organoek eta Nafarroako toki erakundeek langile espezializatuak izanen dituzte, erregelamenduz ezartzen diren osara, eginkizun eta atxikipenarekin, eta langile horiek eskubidea izanen dute adingabeen babesaren eta genero ikuspegiaren arloan beharrezkoa den prestakuntza osagarria jasotzeko gai horietako adituen eskutik.

2. Langile espezializatu horiek edozein organo administratiboren laguntza eta lankidetzara eskatzen ahalko dute, eta horrek informazioa eta laguntza aktiboa eman beharko die, foru lege honetan edo berau garatzen duen araudian esleituak dituzten eginkizunak betetzeko beharrezkoa dena, inongo baimenik eskatu beharrik gabe eta ondorengo konfidentzialtasunaren betebeharra galarazi gabe.

Langile espezializatuak identifikaziorako ziurtagiri bat emanen zaie, beren eginkizunak betetzean beste pertsona edo erakunde batzuegandik behar duten informazioa eskuratzea errazteko.

3. Beren segurtasuna babesteko, langile hauek beren datuen ordez identifikazio zenbaki bat baliatzen ahalko dute, beren identifikazio datu pertsonalak izanen dituen erregistro batekin lotuta.

4. Foru lege honen 33.2 eta 64.1 artikuluetan aurreikusitako sentsibilizazio ekintzetan, adingabeen babesaren arloan dihardutenen lana aitortu eta balioetsiko da.

5. Zaintza sistema bat arautuko da, ohiko egun eta ordutegietatik kanpo adingabeei arreta eman behar zaien egoerarako edo agerraldietara joan beharra dagoenerako, Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 28.2 artikuluan aurreikusirik dagoen bezala.

6. Adingabeei arreta emateko sortzen diren laguntza taldeen eginkizunak hauek dira:

a) Kasuan erreferente iraunkorra izatea adingabearentzat, familiarentzat eta kasuarekin zerikusia duten instituzio, zerbitzu eta bitartekoentzat.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Zuzendariak, erreferente nagusiak, bere gain hartuko du adingabearekin oso maiz mintzatzeko ardurua, eta familiarekin nahiz inplikaturako profesionalekin aldizka eta jarraitutasunez, eta, halaber, adingabearen eta kasuaren bilakaera orokorra idatziz erregistratuko duen sistema bat ezarriko du, hartu-emanen, planen eta uneko erabakien berri emanen duena.

b) Departamentuak ezarritako printzipio etikoak bildu, sustatu eta egokitzea kasuak lantzean.

c) Modu proaktiboan jasotzea adingabea artatzean eta kasuaz profesionalei, familiei eta adingabeari sortzen zaizkien kezkak.

d) Beharrezkoa denean, sareko bilerak deitzea; bilera horietan adingabea eta familiartekoak ere sartuko dira, beharrezkoa den guztietan. Haiek bideragarri egitea, metodoa eta egitura sortuz eta akordioak bilduz, gero parte hartu duten guztiei helarazteko.

e) Erreferentziako taldeak sareko bilerak deitzea, bere ekimenez edo familiak nahiz beste interesdun batzuek eskatuta, eta sare pribatuari deitzea gaiari buruz hitz egiteko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren osasun zerbitzuetako langileekin batera.

f) Kasuaz ikuspegi orokor eta globala izatea, kasuaren formulazio batean jasoko dena eta adingabearekin, familiarekin eta langileekin prestatuta. Formulazioa aurkeztutako egoeraren hipotesi eskematiko bat izanen da, garatzen ari dena etengabe, eta bertan identifikatuko dira inplikaturako faktoreak, kasuan modu globalean lan egiteko aukera ematen dutenak, eta alderdi zehatzak.

g) Inplikaturako langileekin harremanetan jartzea, bideratzeak garatzea eta kasuari buruzko ezagutza helaraztea langileen eta zerbitzuen koordinazioari, profesionalen eta familien kezkak biltzen eta apaltzen laguntzeko.

h) Kasuarekin lotura mantentzea lehen hartu-emanetik sarean alta eman arte, eta ondoren ere aldizkako jarraipena egitea.

### **76. artikulua. Balorazio batzordea.**

1. Balorazio batzordea kide anitzeko organo bat da, babesgabeziaren egoerak deklaratu beharraz eta adingabeak babesteko hartu beharreko neurriez informatzeko eskumena duena. Foru Komunitateko Administrazioako langile espezializatuak dira batzordeko kideak.

2. Haren osaketa, eginkizunak, ezaugarriak eta funtzionamendua erregelamendu baten bidez zehaztuko dira.

### **77. artikulua. Epaileen eta poliziaren laguntza.**

1. Adingabeen gurasoak edo legezko ordezkariak ados ez egoteagatik edo bestelako eragozpen larri batzuk egoteagatik, kasua ikertzea edo jadanik erabakiriko babes neurriak betetzea eragotzi edo ezinezko eginez gero, agintaritza judizialari eskatuko zaio behar dena xeda dezala neurri horiek betearazteko, horrek galarazi gabe berehalako esku- hartzeak, adingabeen bizi edo osotasunerako berehalako arriskuak saihestu eta haien oinarritzko eskubideak bermatzeko beharrezkoak direnak.

2. Halaber, Segurtasun Indar eta Kidegoen lankidetzeta eta laguntza eskatzen ahalko da ezinezkoa denean Administrazioak dituen baliabideen bidez bakarrik ikerketa egitea edo babes neurriak betetzea.

**78. artikulua. Erantzukizuna hazieran eta heziketan eta eskubideak eta betebeharrak babes ekintzan.**

1. Haurrak eta nerabeak hazi eta hezteko erantzukizun oinarrizkoa aitari eta amari, tutoreari edo haien zaintza esleitua dutenei dagokie, indarrean dagoen legediak ezarritako eran. Erantzukizun hori gauzatzeko orduan, bermatu egin behar dituzte, ahal duten neurrian, haur eta nerabeen garapen integrala lortzeko beharrezko bizi baldintzak.
2. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen esparruan, zaindu egin behar dute gurasoek, edo guraso izanen direnek, tutoreek eta zaintza esleitua dutenek beren erantzukizunak era egokian bete ditzaten, eta, horretarako, haur eta nerabeen garapenari eragiten dioten arlo guztietan diren zerbitzu guztiak jarriko dituzte haien eskura, baita diru-prestazioak ere, baldin eta horietarako eskubidea badute, batik bat errenta bermatua edo kasu bakoitzean aplikatzeko den prestazioa.
3. Nafarroako Administrazio Publikoek, beren eskumenen esparruan, modu subsidiarioan beteko dituzte haur eta nerabeak hazi eta hezteko lanak.
4. Nafarroako Administrazio Publikoetako edo foru sektore publiko instituzionaleko erakundeetako langileek, adingabeei arreta ematen aritzen direnek, gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea edo esku-hartze terapeutikoa egiten ahalko dute, guraso edo legezko ordezkarietako batek bakarrik eskatuta, larrialdia dagoenean eta beste gurasoa edo ordezkaria ados ez dagoenean, horretarako arrazoirik gabe; beste guraso edo ordezkariari helaraziko zaio erabakia hartzen duen ebazpena, edo eskatzailea premiatuko da desadostasuna epaitegietan planteatzera, guraso erantzukizunaz baliatuz, ez-egiteak ekar dezakeen arriskuaren arabera.
5. Babes ekintzaren izaera eta helburuarekin bateragarriak badira, bai eta familia harrera formalizatuaren modalitate eta motarekin ere, harreran dagoen adingabearen gurasoek edo tutoreek eskubide hauek izanen dituzte, babes ekintzaren ondorioz bertan behera gelditzen ez direnez gain:
  - a) Jakinaraz dakizkien ebazpen administratiboak, babes gabeziaren egoera bat baloratu, babes neurriak ezarri edo bertan behera utzi, bisiten araubidea aldatu edo eteko prozedura hasi eta bukatzeari buruzkoak eta adingabeari dagokionez interesekotzat jotzen den beste edozein.
  - b) Familia harrera planifikatzen eta garatzen parte hartzekoa, bai eta babes ekintzaren barruan beren seme-alabei edo tutoretzapekoei eragiten dieten erabakiak hartzen ere.
  - c) Harreran dagoen adingabearekin bisitak, harremanak, komunikazioa edo, kasua bada, egonaldiak izatekoa, salbu eta horrek arrisku larria edo kalte nabarmenak eragiten badizkio adingabeari edo ez bada komenigarria haren interes gorenarako.
  - d) Laguntza teknikoa jasotzekoa, horren helburua baldin bada adingabea jatorrizko familiara itzul dadin ahalbidetzen laguntzea, bai eta gurasoen edo haren tutoretza dutenen eta adingabearen arteko harreman afektiboa hobetzen laguntzea ere.
  - e) Erakunde publikoari eskatzekoa, legez ezarritako epeen barruan, babesgabetasun egoeraren deklarazioa errebokatze eta adingabea jatorrizko familiara itzultzeko.
  - f) Erakunde publikoari informazioa ematekoa, babesgabetasun egoera deklaratu eta bi urtera, babesgabetasun egoeraren deklarazioa eta babes neurria hartzea eragin zuten inguruabarren aldaketari buruzkoa, inguruabar horiei esker adingabearen guraso erantzukizuna edo tutoretza bere gain hartzeko moduan daudela iritzirik.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

g) Erakunde publikoak egin dezan familia berriz batzearen ondoko jarraipena, eta familiak behar dituen laguntza teknikoak eman ditzan.

h) Kasu guztietan, haur eta nerabeei babes emateari buruzko legerian eta hura garatzeko araudian, aplikagarria denean, aitortzen zaizkion eskubideak.

6. Babes ekintzaren izaera eta helburuarekin bateragarriak badira, bai eta familia harrera formalizatuaren modalitate eta motarekin ere, harreraren dagoen adingabearen gurasoek edo tutoreek betebeharrak izan behar dituzte:

a) Beren seme-alaben ongizatea eta interes gorena zaintzekoa.

b) Beren guraso gaitasunak baloratu eta hobetzeko ezarritako laguntza teknikoari dagokionez lankidetzaren eta inplikazioarako jarrera izatekoa.

c) Kasurako erabakitako babes neurriak eta jarduketak betetzea erraztekoa eta, kasu bada, parte hartzeko horiek betetzen, kasuaz arduratzen diren teknikariei laguntzeko eta, hala aurreikusi denean, harrera familiari edo pertsoneri ere, babes ekintzaren bidez lortu nahi diren helburuak betetzea faboratzeko.

d) Nafarroako Foru Komunitateak ezarri dituen diru-kopuruak ordaintzeko, mantenuaren kontzeptuan eta haien ahalmenen arabera, adingabearen zainketak eta arretak dakartzan gastuetan laguntzeko, bai eta adingabeak berak egindakoengatik egotzen ahal zaion erantzukizun zibilak eragindako gastuetan ere.

e) Harrera egiten duten pertsonen edo familien pribatutasunerako eskubidea errespetatzeko eta haietaz dakizkiten datuen konfidentialtasuna gordetzeko. Egoitza harreraren kasuan, adingabeekin bizi direnen eskubide hori bera babesteko.

### **79. artikulua. Haur eta nerabeei etxebizitzarako eta familiako bizitzarako duten eskubidea babestea.**

Administrazio publikoek, utzarazpen-prozedura judizial baten ondoriozko familien ohiko etxebizitzaren utzarazpen edo etxebizitzatik botatze kasuetan, noiz eta haien kideren bat adingabea denean, bizitoki-soluzio egokia bermatzeko neurriak bultzatuko dituzte, eta neurriak sustatuko dituzte, haien bidez bermatze aldera Haurren Eskubidearen Konbentzioan jasotako eskubideak, haren interes gailena aintzat harturik, bai eta Eskubide ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikuluan jasotakoak ere.

Era berean, etxebizitzatik botatzea edo utzarazpena gertatzen den kasuetan, gertatu ondoren, administrazio eskudunak urgentziaz sustatuko ditu sostengu psikosozialeko neurriak, balizko inpaktu emozionala murriztearen, ezertan galarazi gabe beste zaugarritasun-egoera larri batzuk aintzat hartuak izatea.

### **80. artikulua. Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanerako eskubidea eta bizikidetzaren.**

1. Adingabeek eskubidea dute beren gurasoekin bizitzeko, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoaren arabera bereiztea beharrezkoa denean izan ezik. Era berean, eskubidea dute beste ahaide batzuekin eta gertuko pertsonekin bizitzeko eta harremanak izateko, batez ere aitona-amonekin eta anai-arrebekin, eta ezin zaie eskubide hori kendu haien interes gorena babestea ez den inolako arrazoirengatik.

2. Aitarekin, amarekin edo legezko ordezkariarekin edo ez bata ez bestearekin bizi ez badira, adingabeek eskubidea dute haiekin harremana izateko, indarrean dagoen

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

ordenamendu juridikoan xedatutako baldintza eta mugekin eta, horrekin bat, babeserako erakunde publikoak babesgabetasun egoeran dauden adingabeentzat bisitetarako aurreikusitakoa betez; nolana ere, bisitak etetea erabakitzen ahalko du inplikaturako alderdi guztiei entzunaldia emanen dien prozedura baten bidez, alderdi horietako edozeinek hala eskatuta, galarazi gabe bisita horiek berehalakoan bertan behera uztea, mantenduz gero arrisku larria dagoela ikusita, eta horren berri emanen die Fiskaltzari eta aitari edo amari, aurkaratzeko eskubidea erabili ahal izan dezaten.

Adingabeak bisitatzeako eskubidea egonen da, halaber, espetxeetara sartzea dakarrenean, epaitegi eskudunak ezartzen duenak baldintzatuta betiere.

3. Aurrekoarekin lotuta, eta familia barruko gatazkak konpontzeko ordezkotako bide bat eskura jartzeagatik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak familia-bitartekaritza arautu eta sustatuko du. Era berean, guraso eta seme-alaben arteko harremana bermatzeko modua emanen duten elkarguneak sortzea sustatuko du, egoera dela-eta bisita ikuskatzea komeni denean edo elkargunea neutroa izateak harremanari on egin liezaiokeela uste denean.

## II. KAPITULUA

### Arrisku egoera

#### 81. artikulua. Arrisku egoerak eta adierazleak.

1. Honako hauek arrisku egoerak dira beti, ez badira larriak ez eta kronikoak ere:

a) Gurasoek edo legezko erantzuleek adingabeek laguntza fisiko edo psikikorik ez ematea, horrek haien osasun fisiko edo emozionalerako kalte arina dakarkienez, oinarritzko beharretarako zabarkeria ez-larria denean edo haien eskubideak erabiltzea eragozten duenean, baldin eta ikusten bada haien izaeragatik edo maiz gertatzeagatik iraun dezakeela edo adingabeek pairaturiko ondorioak larriagotzen ahal direla.

b) Aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonak gai ez izatea adingabeek laguntza fisiko, psikiko edo emozionala emateko, hala egin nahi badute ere, eta horrek garapenerako kalteak sortzen baditu, zehazki 69.3 artikuluan aurreikusitakoak.

c) Zigor fisiko edo emozionala erabiltzea adingabeekin, indarkeria gertaera larria edo errepikapen kronikoa ez bada.

d) Mota guztietako gabeziak, familiar modu egokian konpentsatu ezin direnak, ez eta familiarik bideratu ere zerbitzu eta baliabide normalizatuera tratamendua ematera, sortzen ahal dutenak adingabeen gizarte bazterketa, egokitzeko ezintasuna edo babesgabetasuna.

e) Gurasoen arteko gatazka ireki eta etengabea, banatuta egonda nahiz ez, beraien beharrak lehenesten badituzte haur edo nerabearen beharren gainetik, eta genero indarkeria kasu arin eta ez-kronikoak, fisikoak ez direnak.

f) Jaio aurreko arriskua, hau da, haurdun dagoen emakumearen zainketa fisiko falta edo adikziorako ahalmena duten substantzien gehiegizko kontsumoa, bai eta emakumeak berak edo beste batzuek egin eta emakumeak onartzen duen edo onartzen ez duen beste edozein ekintza ere, jaioberriaren garapen normala kaltetzen duena edo eritasun nahiz desgaitasun fisiko, mental edo zentzumenezkoak eragiten ahal dizkiona, adingabearen babes juridikoari buruzko araudian aurreikusitako jarduketak egitea nahitaez ekartzen duena.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

g) 69. artikuluko 3. apartatuan jasotzen diren guztiak, baldin eta, iraunez gero, adingabeen babesgabetasuna sortzen ahal badute.

h) Familiarekin izandako esku-hartze programen bilakaera negatiboa eta horiek garatu edo abian jartzea oztopatzea.

i) Guraso erantzukizuna dutenen diskriminaziozko jokabideak haur eta nerabeen kontra, horiek adingabeen ongizateari eta osasun mental eta fisikoari kalte egiten badiete, bereziki honakoak:

Lehena. Diskriminaziozko jokabideak, genero, adin edo desgaitasuna dela eta areagotu ditzaketenean haur eta nerabeak etxean itxita gelditzeko aukerak, hezkuntza ez jasotzeko, aisialdirako aukerarik eta arteaz eta kultur bizitzaz loturarik ez izateko, bai eta beste edozein inguruabar, genero, adin edo desgaitasunean oinarritua, beren eskubideak berdintasunez baliatzeko eragozpena bada.

Bigarrena. Ez onartzea adingabearen sexu orientabidea, genero identitatea edo sexu ezaugarriak.

j) Emakumeen genitalen ablazioa, mutilazioa edo generoan oinarritutako beste edozein indarkeria mota jasateko arriskua nesken kasuan, bai eta ezkontza beharturako hitz-emateak edo akordioak ere.

k) Amak salerosketaren biktima gisa identifikatzea.

l) Adingabeak maiz ospitaleratzea zentro desberdinetan errepikatzen diren, azaldu ezin diren edo diagnostiko bidez baieztatzen ez diren sintomekin.

m) Adingabeen aldetik droga toxikoak edo edari alkoholodunen kontsumo ohikoa.

n) Adingabeen gaineko indarkeria dakarren beste edozein inguruabar, iraunez gero, larriagotu eta haur edo nerabearen babesgabetasuna ekar dezakeena.

2. Arrisku adierazleak dira, halaber, arrisku egoeran dagoen anai-arrebarik izatea, familiaren baldintzak aldatu ez badira, eta inguruabar edo gabezia materialak ere tartean izatea.

### **82. artikulua. Administrazioaren jarduketaren helburua.**

Adingabeen arrisku egoeren kontra administrazioak eginiko jarduketek haien eskubideak bermatuko dituzte eta helburu hauek lortzera bideratuko dira:

a) Familia ingurunea hobetzea, adingabeen gurasoen edo legezko ordezkarien eta adingabeen beraien laguntzarekin.

b) Arrisku faktoreak desagerrarazi, indargabetu edo gutxitzea, adingabeen beharrak egoki betetzeko, gurasoen gaitasunak indartuz; horretarako, etxean gelditzea ahalbidetuko duten baliabide tekniko eta ekonomikoak emanen zaizkie.

c) Zerbitzu eta baliabide normalizatuek adingabeen behar nagusiak egoki betetzea.

d) Gurasoen edo legezko ordezkarien jardunaren osagarri izatea, behar den heinean. Adingabeen itzulera bultzatuko da haien zaintza hartu denean.

### **83. artikulua. Arrisku egoera amaitzea.**

1. Arrisku egoera amaituko da:

a) Egoera sortu zuten inguruabarrak desagertzen direnean edo behar bezala bideratuta daudela ulertzen denean.

b) Foru lege honen 70. artikuluan aurreikusiriko beste babes neurri batzuk hartzen direnean, familiari sostengua ematekoak galarazi gabe.

2. Arrisku egoera amaituz gero halaxe jakinaraziko zaie egoera bera hasia zela jakinarazi zitzaizen pertsona eta erakundeei.

### **III. KAPITULUA** **Babesgabetasun egoera**

#### **1. ATALA** **Ondorioa eta kasuak**

##### **84. artikulua. Babesgabetasunaren deklarazioaren ondorioa.**

Edozein adingabe babesgabetasun egoeran dagoela iritiz gero, foru lege honetan ezarritakoarekin bat, Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak egoera hori deklaratu du, zuzenean adingabearen tutoretza hartuko du bere gain, eta etenda geldituko da guraso erantzukizuna.

##### **85. artikulua. Babesgabetasun egoerak.**

69. artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, babesgabetasun egoerak, besteak beste, honakoak dira:

a) Adingabea abandonatzea, ordenamendu juridikoaren arabera haren zaintza bete beharko luketen pertsonak ez daudelako, edo ez dutelako nahi edo ezin dutelako bete.

b) Tratu txar fisiko nahiz psikiko larriak edo arinak, kronikoak badira, ematea, familia inguruneke genero indarkeria barne, eta familiako kideren batek egindako sexu abusua, edo beste batzuek, adingabearentzat babesgabezia egonda, gertatzen direlako, baimentzen edo egiten uzten direlako edo berriz ez gertatzeko behar diren neurriak hartzen ez direlako.

c) Eskaletza, delinkuentzia edo prostituziora bultzatzea edo horien aurrean ezer ez egitea.

Bai, halaber, adingabea gizakien salerosketaren biktima denean eta interes gatazka dagoenean gurasoekin edo legezko arduradunekin.

d) Lan esplotazioa, aldiak aldikoa edo iraunkorra, edo antzeko beste edozein esplotazio ekonomiko.

e) Zabarkeria fisikoa edo emozionala arretari dagokionez, larria edo kronikoa, barne dela zabarkeria larria mantenu eta osasun betebeharretan, familia unitateko kideen edo beste batzuen aldetik, familiako kideek onartuta.

f) Adingabeen drogamenpekotasunera edo alkoholismora edo bestelako adikzio jokabideetara bultzatzea, edo horiek onartu edo toleratzea, errepikatua denean.

g) Administrazioak zaintza bere gain hartzeko zergatikoa desagertzean zaintza berriro ez eskuratzea.

h) Borondatezko zaintzarako epea iragan izana, adingabearen legezko arduradunak adingabearen zaintza beren gain hartzeko moduan egonik ere ez badute hartu nahi, edo, hartu nahi badute ere ez badaude hartzeko moduan, salbuespeneko kasuetan izan ezik, borondatezko zaintzarako bi urteko epea luzatzen ahal denean.

i) Adingabearen ohiko eskolatzea ez betetzea, haren ikastetxeari modu egokian justifikatu gabe.

j) Gizarte edo familiaren inguruneak edo bizi baldintzek adingabeen osotasun morala edo osasun mentala modu larrian endekatzea edo haren nortasunaren garapena kaltetzea.

k) Familia unitatea osatzen duten pertsonen ohiko drogamenpekotasuna edo alkoholismoa, bereziki adingabeen guraso erantzukizuna dutenena, adingabeen garapenari eta ongizateari kalte egiten dionean; babesgabetasun adierazle bat da tratamendurik ez hartzea edo tratamenduan behar adina ez laguntzea.

l) Gurasoen edo zaintza bere gain dutenen nahasmendu mental larria, guraso erantzukizuna, tutoretza edo zaintza normaltasunez betetzea eragozten duena; babesgabetasun adierazlea izanen da tratamendurik ez jasotzea edo tratamendua jaso bitartean behar adina ez laguntzea.

m) Zaintza eginkizunak bete behar dituztenak ez egotea, edo horiek ezin bete ditzaketenean edo adingabeari arrisku larria eraginez betetzeko egoera daudenean.

n) Jaioberriari kalte larriak eragiten zaizkionean jaiο aurreko tratu txarren ondorioz.

ñ) Adingabeen zaintzarako legeek ezarritako babes betebeharra ez betetzeagatik edo ezin bete izateagatik edo gaizki betetzeagatik egitez sortzen den beste edozein egoera, ondorio saihestezinak dituztenak adingabeak bere bizikidetzaz ingurunean iraunez gero, horrek ekartzen badu behar duen laguntzarik gabe gelditzea.

## **2. ATALA**

### **Prozedura**

#### **86. artikulua. Babesgabetasun egoera deklaratzeko prozedura eskatzea.**

Babesgabetasun egoera deklaratzeko eta beharrezkoak diren neurriak hartzeko, ebazpen arrazoituaren bidezko erabakia beharko da, balorazio batzordeak txosten loteslea eman ondoren, edo batzorde horrek erabaki arrazoitua ematea, baldin eta ebazpen hori emateko eskumena duen organoa batzorde horretan integratuta badago eta dagokion erabakirako sinatu duela jasota badago, betiere ezarritako prozedura betez eta berariaz jasota utziz adingabearen interes goren nola hartu den aintzat.

#### **87. artikulua. Prozedura hasi aurreko neurri behin-behinekoak.**

1. Lehenbiziko ikerketak bukatuta eta zantzuei esker baieztatu denean babesgabeziaren egoera bat egon daitekeela, prozedura ireki ondoren instrukzio faseari ekinen zaio, adingabearen eta haren familiaren egoeraz dakiten pertsonak eta organismoek eman ditzaketan datu garrantzitsu guztiak biltzeko.

2. Espedientearen instruktore bat izendatuko da, kasuaz eta espedientearen tramitazioaz arduratzeko; babeserako erakunde publikoko teknikari bat izanen da. Espedientearen instruktoreak babeserako erakundearen diziplina anitzeko talde teknikoaren lankidetzaz eta laguntza izanen ditu.

3. Jarduera dela-eta, kasuarekin lotura duten profesional eta erakunde publiko edo pribatu guztiak, Espainiakoak edo atzerrikoak izan, edo babeserako erakunde publikoak edo espedientearen instruktoreak hala eskatuta, beharturik egonen dira elkarlanean aritzera babes zerbitzuekin, eta adingabearen egoera baloratzeko garrantzitsua izan daitekeen informazio eta laguntza oro ematera. Ikerketan ez laguntzeak edo hura oztopatzeak ekar dezake zehapen administratiboak eta/edo penalak ezartzea eta erantzukizuna eskatzea.

4. Gurasoak eta tutoreak edo zaintza dutenak beharturik daude ebaluazioan laguntzera eta eskatzen zaien informazio eta dokumentazio guztia helarazi eta ematera.



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

5. Ebaluazioaren helburua izanen da ezagutzea, ahalik eta zehatzen, zein den adingabearen egoera, haren beharrak eta inguruabarrak, sozialak nahiz familiakoak. Prozeduraren instruktoreak txostenak eskatuko ditu haur edo nerabeaz, haren familiaz edo zaintza duten pertsonen edo adingabearen egoera baloratzeko garrantzia duten pertsonen: osasun arlokoak, psikologikoak, gizarte eta familia arlokoak, hezkuntzakoak, lege arlokoak eta egokitatz jotzen dituen guztiak, txosten horietan oinarrituko baitu bere proposamen teknikoak. Txostenak espedienteari erantsiko zaizkio.

6. Adingabeari buruzko azterketa espezializazioa duten profesionalak eginen dute, eta adingabearen egoera pertsonalari buruzko egiaztapenak prozeduran parte hartzen duten guztientzat, batez ere adingabeentzat, gutxien traumatikoak diren modu eta baldintzetan gauzatzeko dira.

### **88. artikulua. Aldez aurreko informazioa.**

1. Prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, organo eskudunak aldez aurreko informaziorako epe bat irekitzen ahalko du, kasu zehatzaren ezaugarriak ezagutzeko eta prozedura hastea komeni den edo ez zehazteko.

2. Aurreko apartatueta deskribatutako hasierako jarduketa horiek guztiak idatziz jasoko dira osorik.

3. Hasierako egiaztapenen ondorioz frogatzen bada babes prozedurari ekiteko eskumena duen organoa beste administrazio publiko bat dela, irekitako espediente horretara bideratzeko da ofizioz.

### **89. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

1. Prozedura ofizioz hasiko da, erakunde publiko eskudunak emandako ebazpen administratiboaren bidez, bere ekimenez edo salaketa baten ondorioz. Era berean, ofizioz hasiko da hala eskatzen dutelarik agintaritzak judizialek edo Fiskaltzak, agintaritzek edo haien agenteek jakinarazita, edo funtzionarioek eta profesionalak jakinarazpena, txostena edo komunikazioa igorrita.

Prozedura hasiko da, halaber, aitak, amak edo tutoreak eskatzen badu adingabearen zaintza erakunde publikoak bere gain hartzea.

Haurren kontrako Tratu Txarren Erregistro Bateratuaren bidez egindako jakinarazpenak ere prozedura ofizioz hasteko eskaeratzat hartuko dira.

2. Babes espediente bat irekitzea ekar dezaketen gertaerak jakitera ematen dituztenen segurtasuna eta intimitatea bermatze aldera, errespetatu beharko da adingabearen, familiako edozein kideren edo familiakoak ez diren anonimotasuna, hala nahi badute.

3. Prozedurari hasiera emateko ebazpenean, ebazteko eskumena duen organo administratiboak, ofizioz nahiz alderdi batek eskatuta eta arrazoiturik, behin-behineko neurriak hartzen ahalko ditu prozeduran bukatuko den ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko egokitatz jotzen dituenak. Hartu beharreko behin-behineko neurrietako bat da adingabearen zaintza hartzea behin-behinekoz.

### **90. artikulua. Instrukzioa.**

1. Lehenbiziko ikerketak bukatuta eta zantzuei esker baieztatu denean babes gabeziaren egoera bat egon daitekeela, prozedura ireki ondoren instrukzio faseari ekinen zaio,

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

adingabearen eta haren familiaren egoeraz dakiten pertsonak eta organismoek eman ditzaketan datu garrantzitsu guztiak biltzeko.

2. Espedientearen instruktore bat izendatuko da, kasuaz eta espedientearen tramitazioaz arduratzeko; babeserako erakunde publikoko teknikari bat izanen da. Espedientearen instruktoreak babeserako erakundearen diziplina anitzeko talde teknikoaren lankidetzara eta laguntza izanen ditu.

3. Jarduera dela-eta, kasuarekin lotura duten profesional eta erakunde publiko edo pribatu guztiak, Espainiakoak edo atzerrikoak izan, edo babeserako erakunde publikoak edo espedientearen instruktoreak hala eskatuta, beharturik egon behar dira elkarlanean aritzera babes zerbitzuekin, eta adingabearen egoera baloratzeko garrantzitsua izan daitekeen informazio eta laguntza oro ematera. Ikerketan ez laguntzeak edo hura oztopatzeak ekar dezake zehapen administratiboak eta/edo penalak ezartzea eta erantzukizuna eskatzea.

4. Gurasoak eta tutoreak edo zaintza dutenak beharturik daude ebaluazioan laguntzera eta eskatzen zaaien informazio eta dokumentazio guztia helarazi eta ematera.

5. Ebaluazioaren helburua izanen da ezagutzera, ahalik eta zehatzen, zein den adingabearen egoera, haren beharrak eta inguruabarrak, sozialak nahiz familiakoak. Prozeduraren instruktoreak txostenak eskatuko ditu haur edo nerabeaz, haren familiaz edo zaintza duten pertsonaz edo adingabearen egoera baloratzeko garrantzia duten pertsonaz: osasun arlokoak, psikologikoak, gizarte eta familia arlokoak, hezkuntzakoak, lege arlokoak eta egokitzen jotzen dituen guztiak, txosten horietan oinarrituko baitu bere proposamen teknikoak. Txostenak espedienteari erantsiko zaizkio.

6. Adingabeari buruzko azterketa espezializazioa duten profesionalak egiten dute, eta adingabearen egoera pertsonalari buruzko egiaztapenak prozeduran parte hartzen duten guztientzat, batez ere adingabeentzat, gutxien traumatikoak diren modu eta baldintzetan gauzatuko dira.

### **91. artikulua. Entzunaldia.**

1. Prozeduran bermatuko da hamabi urte beteak dituen adingabeak eta, adin hori izan gabe ere, heldutasun eta gaitasun nahikoak dituenak, aukera duela entzuna eta aditua izateko; eskubide horretaz bera baliatzen ahalko da edo berak izendatutako ordezkari bat, eta batak edo besteak egokitzen jotzen dituen alegazioak egin eta frogak proposatzen ahalko ditu.

2. Entzun egiten zaie, halaber, adingabearen gurasoei, tutoreei edo zaintza dutenei, eta, horrez gain, alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituzten frogak proposatzen ahalko dituzte.

3. Aurreko bi apartatuetan aipatzen diren pertsonak entzuterik izan ez bada, espedientearen jasoko dira horren arrazoiak.

### **92. artikulua. Behinbehineko neurriak prozeduran.**

1. Prozeduraren tramitazioan erakunde publikoak larrialdiko egoera bereziki larri baten berri badu, adingabearen zaintza hartzea beharrezko delarik, baimena ematen ahalko du, titularraren ofizio bidez, adingabearen babeserako behar diren jarduketak betetzeko, haren zaintza behin-behinekoz hartzea barne.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Behin larrialdiari erantzuna emanda, gurasoei edo zaintzaren ardura dutenei adingabeen egoeraren berri emateko behar diren kudeaketak eginen dira. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak lehenbailehen jakinaraziko dio Fiskaltzari hartutako neurria, haren berri izan dezan.

Neurri hori hartu eta hamabost eguneko epean, hartutako neurria berretsi, aldatu edo kentzen duen ebazpena eman beharko da.

2. Era berean, prozedura hasita dagoela, organo eskudunak hartzen ahalko ditu, arrazoiturik, adingabea babesteko behar diren neurriak.

Gehienez ere sei hilabete irauten ahalko dute.

### **93. artikulua. Alegazioak eta entzunaldiaren tramitea.**

1. Prozedura instruiturik eta ebazpen proposamena organo eskudunari igorri aurretik, adingabearen gurasoek edo haren tutoretza edo zaintza betetzen dutenek espedientea ikusi eta haren kopia eskatzen ahalko dute, salbu eta ukitutakoen edo beste batzuen eskubide eta askatasunen babes arriskuan jar dezaketen informazio edo datuei dagokiena, batez ere haien intimitaterako, datu pertsonalen babeserako eta segurtasunerako eskubidea, edo gauzatzen ari diren ikerketen beharrei dagokiena.

Kasu horietan, espedientea emanen da pertsona horiei buruzko informazioa eta haien identifikazioa ezabatuta.

2. Interesdunek egokitzen jotzen dituzten agiriak edo justifikazioak alegatu eta aurkezten ahalko dituzte, bai eta komenigarri iruditzen zaizkien froga elementu guztiak baliatu ere.

3. Entzunaldiaren tramitea aurrez aurre eginen da, prozeduraren instruktorearengana bertaratuz. Entzutea emanen zaie adingabearen gurasoei edo haren tutoretza edo zaintza betetzen dutenei eta haurrei edo nerabeari, behar besteko heldutasuna badu eta, kasu guztietan, hamabi urte baino gehiago baditu. Horretarako, hamabi urte baino gutxiago dituzten adingabeen gurasoak edo haien zaintza betetzen dutenak beharturik daude bertaratzeko deialdian adierazten den egoitza administratiboan agertzera. Agertu ezean tramitea egintzat joko da.

Pertsona guztien eskubideak zaintzeko, debekaturik egonen da tramite hori grabatzea, parte hartzen dutenen onarpena jasota egonda ere.

Adingabeak bere adin eta gaitasunarekin bat datorren hizkeran jasoko ditu azalpenak.

4. Entzunaldiaren tramitea kendu edo eteten ahalko da kasu hauetan:

a) Interesdunek idatziz adierazi badute ados daudela ezarri beharreko babes neurriarekin, ebazpen proposamena eman aurretik adierazi ere.

b) Heziera oneko edo kortesiazko gutxieneko neurriak betetzen ez badira, instruktorea bortxaz tratatzen bada, irainak edo jarrera mehatxagarriak badaude edo mehatxuak egiten badira instruktorearen edo erakunde publikoko langileen aurka. Kasu horietan, gainera, egoera horren berri emanen zaio Fiskaltzari, eta jokabide horiek dituztenen kontrako ekintzak eskatzen ahalko dira. Era berean, foru lege honetan aurreikusitako zehapen prozedurari hasiera ematen ahalko zaio.

5. Entzunaldiaren tramiteaz kasuko akta eginen da, agertu direnen adierazpenak jasoz.

### **94. artikulua. Bukatzeko ebazpena.**

1. Prozedura bukatzen duen ebazpenak behar bezala arrazoiturik egon beharko du, eta egitateak eta hartutako erabakia justifikatzen duten zuzenbideko oinarriak bildu beharko

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

ditu. Horrez gain, ebazpenerako zioetako bat izaten ahalko da prozedura instruitu bitartean erantsi zaizkion txostenen onarpena.

2. Babes neurrirako beharrezkoa bada adingabearen zaintza hartzea, nahitaezkoa izanen da espediente txosten juridikoa sartzea.

3. Prozedurari bukaera ematen dioten ebazpenek egoera hauetako bat deklaratu dute, egindako balorazioaren emaitza kontuan hartuta:

a) Babesgabetasun egoera.

b) Egoera larria eta iragankorra gertatzea, aitak eta/edo amak alegatutakoa.

c) Adingabearen arrisku egoera; kasu horretan espedientea bideratuko da toki erakunde eskudunera, adingabea babesteko neurri egokiak hartzeko.

4. Ebazpena eman eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa da, eta beste hiru hilabetez luzatzen ahalko da informazio eta balorazio beharra dela eta. Prozedura geldiarazten bada gurasoei, tutoreei edo harrera egiten dutenei eta adingabeari berari ere egozten ahal zaizkien arrazoiengatik, eten egingen da ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen kontaketa.

5. Prozeduraren bukaera eraginen du, halaber, hura aurrera eramateko ezintasun materialak, gerora gertatutako arrazoiengatik, besteak beste, adingabearen adin-nagusitasuna edo adingabea Nafarroako Foru Komunitatetik kanpora joatea. Ebazpena arrazoitua izan beharko da kasu guztietan.

### **95. artikulua. Babes ebazpenen aurka egitea.**

Adingabea babesteko hartzen diren neurrien aurka egiten ahalko dute horretarako interes legitimoa dutenek, lege prozesal zibiletan aurreikusitakoarekin bat.

### **96. artikulua. Babes erabakiak eta jakinarazpena tramitazioan.**

Prozeduraren tramitazioan zehar ematen diren ebazpen eta erabaki administratiiboak, adingabearen zaintza hartzea dakartenak eta, bereziki, babesgabetasun egoera eta hartutako neurriak deklaratzeko dituen ebazpena, legeak agindu bezala jakinaraziko zaizkie Fiskaltzari, gurasoei, tutoreei edo zaintza dutenei eta ukitutako adingabeari, behar besteko heldutasuna baldin badu, eta, kasu guztietan, hamabi urte baino gehiago baditu, berehalakoan eta berrogeita zortzi orduko gehieneko epea iragan aurretik.

Informazioa argia eta ulergarria izanen da eta formatu eskuragarrian emanen da, Administrazioaren esku-hartzea eragindako arrazoiak eta hartutako erabakiaren ondorioak ere azalduta, eta, haur edo nerabearen kasuan, haren heldutasun mailara egokituta.

Posible den guztietan, eta bereziki adingabearen kasuan, informazio hori aurrez aurre emanen da.

### **97. artikulua. Prozedura laburtua eta berehalako ebazpena.**

1. Prozedura laburtu bat tramitatzen ahalko da kasu hauetarako:

Eskuratzen den lehenbiziko informazioa ikusita, egiaztatzen bada adingabearen egoera kritikoa dela.

Uste denean haren osotasun fisiko edo psikikorako arrisku larri eta berehalakoa dagoela edo ondorioztatzen denean lehenbailehen esku hartu beharra dagoela. Kasu horietan beharrezkoak diren kautelazko neurri guztiak hartuko dira.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Gurasoak edo legezko ordezkariak babesgabetasunarekin ados daudenean.

2. Prozedura horretan arau hauek aplikatuko dira:

a) Prozeduran zehar, ebazpena eman aurretik noiznahi, erabakitzen ahalko da ohiko tramitazioaren arabera jarraitzea.

b) Tramitazioa erraztua denean, prozedura hogeita hamar egunean ebatzi beharko da, prozeduraren tramitazio erraztua egiteko erabakia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta tramite hauek besterik ez du izanen:

Lehena. Prozeduraren hasiera.

Bigarrena. Prozeduraren hasieran egindako alegazioak, bost eguneko epean.

Hirugarrena. Entzunaldiaren tramitea.

Laugarrena. Zerbitzu juridikoaren txostena, nahitaezkoa denean.

Bosgarrena. Ebazpena.

c) Prozedura batek eskatzen badu aurreko apartatuan aurreikusi gabeko tramite bat egitea, modu arruntean tramitatu beharko da.

3. Inguaruabar hauek gertatzen direnean, adingabe baten babesgabetasun deklarazioa egiten ahalko da dagokion ebazpen administratiboa eman beste tramiterik gabe:

a) Adingabe baten babes espedientea bereganatzea, babesgabetasun egoera beste autonomia erkidego batek deklaratu duenean. Kasu horretan, espedientea eta ezarritako babes neurriak bereganatuko dira.

b) Adingabearen zaintza inguruabar larri eta iragankorreatatik bereganatu zenetik gihieneko epea iragan denean, luzapenak barne.

### **98. artikulua. Espediente administratiboa, zaintzea eta eskuratzea.**

1. Adingabeen babesari buruzko espediente administratiboa dokumentu eta jarduketan multzo ordenatua da, ebazpen administratiboaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.

2. Zaintza eta jagoletza egiteko, espedientea artxibatuko da segurtasuneko neurri tekniko eta antolaketakoak hartuz, tratamendurako sistema eta zerbitzuen konfidentzialtasuna, integritasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko gai direnak, horrek galarazi gabe bermaturik egotea erakunde publikoei edo agintaritza judizialei ematea, beren eskumenak betetzeko eskatzen dutenean, bai eta interesdunari ere, eskatzen duenean.

3. Babes jarduketari buruzko espedientea interesdunek eskuratzekotan, espedientearen dauden datu pertsonalak barne, bete beharko da datu pertsonalen babesari buruz Europako, Estatu eta autonomia erkidegoko ordenamendu juridikoan xedatutakoa, bai eta aplikagarria den gainerako legerian xedatutakoa ere, batez ere espedienteak eskuratzeko mugak jartzen dituena adingabeen edo espedienteak ukitzen dituen pertsonen segurtasunagatik. Eskubide hori espedientea zaintzeko ardura duen organoari zuzendutako eskaera baten bidez baliatu beharko da.

4. Motibaziorik eta legitimazio espezifikorik gabe informazio publikoa eskuratzeko eskubidetik kanpo daude adingabeak babesteari buruzko espedienteak, horrek galarazi gabe inoren identifikazioa ez duten edo horretarako bide ematen ez duten datuak eskuratzeko eskaera egiteko eskubidea.

### **99. artikulua. Babes jarduketaren bukaera.**

Babes jarduketak bukatzeko zergatiak:

- a) Erakunde publiko eskudunaren ebazpena, jarduketak eragin zituzten inguruabarrak desagertu direla ulertzen denean eta, halaber, adingabeen interesa dela-eta komeni denean.
- b) Hasiera batean ezarritako mugaeguna edo epea edo erabakiriko luzapena bukatzea.
- c) Epaileen ebazpen irmoa, legeetan ezarritako kasuetan.
- d) Adingabe babestuak adin-nagusitasunera iristea edo emantzipatzea.
- e) Adingabe babestuak hiltzea, desagertzea edo behin betikoz Komunitatetik kanpora bizitzera joatea.

## **IV. KAPITULUA**

### **Arrisku eta babesgabetasun egoeretan hartu beharreko babes neurriak eta neurri horiek betearazteko jarduketak**

#### **1. ATALA**

#### **Familiarentzako sostengua**

### **100. artikulua. Kontzeptua eta edukia.**

1. Familiarentzako sostenguen xedea da diru, material, gizarte, hezkuntza eta terapia arloetako laguntzak ematea, familiaren ingurunea eta haur edo nerabearen ongizatea eta adingabeen beharrak asetzeko modua hobetzeko, familiaren bereizketa saihestearren edo, bereizketa gertatu bada, familiara itzultzea lortzeko.
2. Sostengua toki erakundeetako oinarriko arretako zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen esku-hartze teknikoaren bidez eta Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzu espezializatuen bidez gauzatuko da.

### **101. artikulua. Familiari sostengu emateko jarduketak.**

1. Hona hemen familiei laguntzeko jarduketa batzuk:

- a) Aholkuak eta orientabide teknikoak, bai guraso eginkizunak modu egokian betetzen laguntzeko, gaitasunak indartuz, eta familia dinamika normalizatua izateko, bai gerta daitezkeen gatazka larriak gainditzeko.
- b) Familien hezkuntza, guraso-eginkizuna betetzen dutenak seme-alabak artatu, hezi eta zaintzeko eginkizunetarako modu positiboan gaitzeko.
- c) Familiaren esparruan esku hartzeko nahitaezko programak, familia zaindu edo berriz batzeko eta haren baitako bizikidetzara normalizatuz.
- d) Adingabeak familian duen bilakaeraren jarraipena egitea.
- e) Eguneko zentroetan eta adingabeei laguntzeko zentroetan laguntzea, eskolatzea nahitaezkoa ez den adinetan.
- f) Aldi baterako dirulaguntzak eta prestazio ekonomikoak.
- g) Etxeko laguntza, adingabeak etxean gelditu ahal daitezen bertan zaindu eta lagundu ahal izateko.
- h) Bitartekaritza, gatazken konponketaz ikasteko.
- i) Aurreko artikuluan aipatzen diren helburuak lortzen laguntzen duen beste edozein.

2. Jarduketa horiek eta 70. artikuluan aipatzen direnen artetik egiten ahal diren besteez babes neurrien izaera izanen dute hartzen den erabakian edo ebazpenean hala zehazten denean.

### **102. artikulua. Familia onuradunaren lankidetzeta.**

1. Sostengatzeko neurri eta jarduketan onuradun den familiak lagundu beharko du esku-hartzeari ezarritako helburuak lortzen.

2. Familia onuradunak lankidetzarik eskaini ezik edo neurriak eta jarduketak oztopatuz gero, horiek bertan behera utzi eta beste batzuk hartzea aztertzen ahalko da, babesgabetasunaren deklarazioa barne, eta familiari beti eman beharko zaio informazio hori modu argi eta ulerterrazean.

### **103. artikulua. Familiarentzako laguntzaren lehenespena.**

Familiari sostengua emateko neurria, haur eta nerabeen beharrak asetzea eta haien familia ingurunea hobetzea helburu dituen, babes neurri lehenetsia izanen da, baita nahitaezkoa ere, adingabeen interes gorenaren kalterako ez bada.

## **2. ATALA**

### **Zaintza**

### **104. artikulua. Kontzeptua, eskumena eta edukia.**

1. Foru lege honi dagokionez, zaintza da adingabeak babesteko neurrietako bat, babesgabeziaren egoeraren ondorioz hartzen dena.

2. Foru Komunitateko Administrazioari dagokio zaintza bere gain hartzea, eta legeria zibilean aipatzen diren eduki eta betebeharrak dakartza berarekin, baita, kasua bada, agintaritza judizialak ezartzen dituenak ere, Foru Berriaren 71. legean aurreikusitakoarekin bat.

3. Familia harreraren bitartez beteko da zaintza, eta egoitza harrera erabiliko da soilik familiakoa ezinezkoa bada edo komenigarria ez bada adingabearen interes gorenerako. Familia harrera erakunde publikoak zehazten duen pertsonak edo pertsonak beteko dute. Egoitza harrera beteko du adingabea harreran dagoen zentroko zuzendariak edo arduradunak, adingabeen babesari buruzko legerian ezarritako baldintzetan eta, behin-behineko zaintzaren kasuetan, Orientazio eta Harrera Zentroko edo kasuan kasuko baliabideko zuzendariak edo arduradunak beteko du, adingabearen egoera baloratu arte eta/edo babes neurri egokia hartu arte.

4. Genero ikuspegia kontuan hartu beharko da, zaintza betez egiten den esku-hartzearen zeharkako ardatz gisa.

### **105. artikulua. Zaintza betetzeko kasuak.**

Foru Komunitateko Administrazioiko organo eskudunak kasu hauetan erabakiko du adingabearen zaintza betetzea babes neurri gisa, legez egokia den kasuetan hartzen diren erabaki judizialak galarazi gabe:

- a) Babesgabetasunaren deklarazioaren ondorioz, legearen aginduz adingabeen tutoretza bere gain hartzen duenean.
- b) Guraso erantzukizunaren titularrek edo legezko ordezkariak hala eskatzen dutenean, baldin eta justifikatzen badute inguruabar larri eta iragankorrenetatik ezin diotela arreta

eman eta, ezintasun hori egiaztatu ondoren, Familia berriz Batzeko Plan batekin konpromisoa hartzen badute.

c) Behin-behineko zaintza hartzen denean.

### **106. artikulua. Zaintza betetzea, iraupena eta helburuak.**

1. Zaintza betetzeak berekin ekarriko du adingabe bakoitzarekin banakako esku-hartze bat egitea. Hori Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunaren eta guraso erantzukizunaren titularren, legezko ordezkarien, harrera familien eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak aktiboaren bidez gauzatu da, babeserako banakako planean ezarritakoarekin bat.

2. Zaintza betetzearen lehen helburua da babesgabeziaren egoerak eragindako kaltea oneratzeta eta bereizketaren ondorioak arintzea. Halaber, adingabearen beharrezko fisikoak, hezkuntzakoak, afektiboak, psikologikoak eta sozialak ere ase beharko ditu.

3. Adingabe bakoitzaren zaintzak ezinbesteko iraupena baizik ez du izan, zaintza hartzea eragin zuten inguruabarrek iraun bitartean eta adingabearentzat ingurune hori familiara itzultzea baino onuragarria den bitartean, errespetatuz betiere babeserako banakako planetan ezarritako epeak eta, plan horietan aldi baterako bereizteko neurria ezartzen den kasuan, familia berriz batzeko planetan daudenak ere; plan horiek Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak egin beharko ditu, jatorrizko familiari aipatutako itzulerarako eman beharreko sostenguekin batera.

4. Aldi horretan, adingabeen onerako bada, ahaleginak egingen dira adingabeen familia eta gizarte harremanak ahalik eta gutxien aldatzeko. Beren ingurunetik ahal bezain hurbil geldituko dira, eta jatorrizko familiara itzul daitezela izan da beti helburua. Babeserako banakako planaren arabera harreman horiek mugatuz gero, berehala emanen zaio horren berri Fiskaltzari. Babeserako banakako planean adingabea bere familiarekin itzultzea bazterturik dagoenean izan ezik, gainerako kasuetan hasiera-hasieratik lan egingen da helburu horrekin, eta familiei, 101. artikuluan aipatzen diren jarduketan bidez, behar den sostengua emanen zaie.

5. Adingabeentzat edo besterentzat kaltegarri izan daitezkeen egoera, jarduera edo portaerak aintzat harturik, adingabeei mugak jartzen ahalko zaizkie, neurri pedagogikoen bidez. Horrek ez du inolara ere haien oinarritzko behar edo eskubideei eman beharreko arreta kaltetuko eta ez du arriskuan jarriko haien osotasun fisiko edo psikikoa.

6. Zaintza betetzean edozein aldaketa egiteko erabakiak arrazoitua izan beharko du, baita zentroz aldatzeari buruzkoak ere, eta harrera familiari eta, egoerak horretarako aukera ematen badu, adingabeei ere entzun ondoren hartuko da. Gurasoei edo legezko ordezkariak jakinaraziko zaie eta Fiskaltzari eta agintaritzak judizialari haren berri eman, erabaki ondoren. Desgaitasuna duten adingabeen kasuan, ebazpen horretan adieraziko dira adingabeak jasotzen dituen eta mantendu behar dituen laguntzak edo haren beharretarako egoki direnak.

7. Fiskaltzari goi mailako zaintzarako dagozkion eskumenak galarazi gabe, Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunari dagokio harturiko zaintza neurriaren jarraipena egin eta begiratzeta. Horretarako, aldi-aldi behar den informazioa jasoko du, indarreko araudian aurreikusitako epeetan.



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

8. Zaintzaren ondoriozko harrera bukatzean, 101. artikuluan aipatzen den sostengua luzatzea komenigarria eta egokia ote den edo beste neurri edo jarduketa zehatz batzuk hartzea baloratuko da, adingabea gizarteratzeko prozesua erraztu edo sendotzearen.

9. Gurasoei eskatuko zaie inplika daitezela seme-alabei arreta ematen eta, horretarako, errenta bermatua jasotzeko eskubidea ematen duten baliabideak baino gehiago dituztenek lagundu beharko dute adingabeen zaintzak dakartzan kargei aurre egiten, eta Administrazioari ordainduko dizkiote hark zehaztuko dituen diru kopuruak, zaintzak sortzen dituen gastuen arabera, gutxienez ere seme edo alaba bakoitzeko dagokion errenta bermatua adinako zenbatekoa, edo gurasoek hartuko dute bere gain zuzenean.

10. Foru Komunitateko Administrazioaren zaintzapean dauden adingabeen defentsa judiziala Nafarroako Gobernuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak hartuko du bere gain, adingabeen arloko gaietan espezializatuta dauden langileen bidez, hurrengo artikuluan arautzen diren borondatezko zaintzako kasuetan izan ezik, kasu horietan adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak hartuko baitute beren gain haien defentsa.

11. Harrera bukatzen denean adingabea bere jatorrizko familia itzuliz, beharrezkotzat jotzen den babesgabetasun kasuetan, familia berriz batzeko plan bat ezarriko da. Horretarako, adingabea bere jatorrizko familia itzuli ondoko sei hilabeteetan, babesgabetasun egoera luzatzen ahalko da, eta zaintza betetzea bere gain hartuko dute gurasoek edo legezko ordezkariak, egoera eragin zuten arrazoiak desagertu direla egiaztatzearen.

12. Herreran dauden adingabeek lehentasunezko gizataldea izanen dira hezkuntza, osasun eta desgaitasun arloetako baliabideak eskuratzeari begira, eta behin adin-nagusitasunera iritsita, etxebizitza, prestakuntza, enplegua eta haien autonomia prozesuan laguntzeko beste prestazio batzuk lortzeari begira ere.

13. Legez esleitutako eginkizunetz gain, erakunde publikoak igorriko du Fiskaltzara adingabe baten egoera justifikatzen duen txosten bat baldin eta adingabea aldi baterako egoitza edo familia herreran bi urte baino gehiago eman dituenean, eta erakunde publikoak justifikatu beharko du zergatik ez den hartu babes neurri egonkorragorik denbora epe horretan.

### **107. artikulua. Borondatezko zaintza.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartuko du haur edo nerabe baten zaintza haren gurasoek edo tutoretza dutenek eskatzen dutenean, behar bezala frogatutako inguruabar larri eta iragankorrak direla-eta beraiek zaintzerik ez dutenean.

2. Eskaera baiesteko, frogatuta gelditu beharko da inguruabar larriek galarazten dietela babestutako pertsona modu egokian zaintzea, eta inguruabar horiek iragankorrak direla eta, beraz, zaintza bukatuta posible izanen dela familia berriz batzea, eta gurasoek lagunduko dutela familia berriz batzeko plana ongi atera dadin; horretarako, foru lege honetan aurreikusitako babes prozedura tramitatuko da.

3. Oro har, guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren titularren adostasuna beharko da. Aurrekoa gorabehera, guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren titularrak bat baino gehiago direnean eta soilik haietako batek eskatzen badu erakunde publikoak bere gain hartzea borondatezko zaintza, erakunde publikoak hartzen ahalko du besteen adostasuna eskatu gabe, betiere kasu hauetan:

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- a) Epai judizial batek beste pertsona horri guraso erantzukizuna edo tutoretza kendu badio edo eten baldin badu.
- b) Zaintza soil-soilik eskatzaileari esleitzen dion epai judiziala dagoenean, eta beste pertsonak uko egiten badio edo ezin badu adingabearen ardura hartu.
- c) Guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren beste titularrak ohiko bizilekua atzerrian duenean.
- d) Adingabea eta guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren beste titularra urtebetez elkarrekin bizi ez badira eta ohiko harremanik edo kontakturik bat ere ez badute.
- e) Guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren beste titularraren egoitza ezezaguna denean edo espetxeraturik dagoenean.
- f) Guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren beste titularra genero indarkeriarekin lotutako delitu batengatik kondenatu dutenean.

Gainerako kasuetan, erakunde publikoak borondatezko zaintza bere gain hartzea eskatu duenean guraso erantzukizuna edo tutoretza duten pertsonetako batek bakarrik, zaintza hartuko du baldin eta alderdi guztiak ados badaude edo, legeak agindu bezala errekerimendua jakinarazi ondotik, berariaz kontra egotea adierazten ez badute hamar eta hogeigun bitarteko epean.

4. Era berean, erakunde publikoak borondatezko zaintza bere gain hartzeko, zaintza eskaeraren xede den adingabearen adostasuna beharko da hark 14 urte baino gehiago dituenean. Haren adostasunik izan ezean, haren zaintza hartzeko beharrezkoa izanen da aurretik adingabearen babesgabetasun egoera deklaratzeko.

5. Prozedura tramitatzean ikusten bada haurra edo nerabea babesgabetasun egoeran dagoela, egoera horren deklarazioa egingen da.

6. Zaintza hartzearen formalizazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak emandako ebazpen administratibo baten bidez gauzatzeko da, zeinean jasoko baita neurriaren iraupena, zaintza betetzeko modua eta, desgaitasuna duten adingabeen kasuan, ordura arte izan eta mantendu behar dituen laguntza espezializatuak edo haren beharretarako egoki direnak, bai eta legeria zibilean eta 1/1996 Lege Organikoan bilduta dauden gainerako edukiak ere.

Ebazpen horri erantsiko zaio adingabea borondatez uzteko akordioa, familiarekin sinatutakoa, zeinean familiak konpromisoa hartuko baitu babestutako pertsonaz arduratzea galarazten dion egoera gainditzeko behar diren esku-hartze profesionalak onartzeko.

7. Zaintza hartzeari buruzko ebazpen administratiboa, bai eta hura betetzeko moduan gerora egindako edozein aldaketari buruzkoa, oinarritua egonen da eta jakinaraziko zaie guraso erantzukizuna dutenei edo tutoreei eta Fiskaltzari.

8. Gehienez ere bi urtez hartuko da haur edo nerabeen zaintza guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren titularrak egindako eskaeraren ondorioz. Epe hori salbuespenez luzatzen ahalko da, gehienez ere beste urtebetez, babestutako pertsonaren interesa dela eta komeni denean eta epe horretan familia berriz batuko dela aurreikusten bada. Gehieneko epea eta luzapena iraganik, borondatezko zaintza bukatu egingen da, non adingabearen legezko arduradunek ez duten nahi adingabearen zaintza bere gain hartu edo, nahi badute ere, horretarako egoeran ez dauden. Horrelakoetan bidezkoa izanen da adingabearen babesgabetasun egoera deklaratzeko, egoera deklaratzeko duen ebazpena eman beste tramiterik gabe.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

9. Borondatezko zaintzaren bitartean, guraso erantzukizunaren edo tutoretzaren titularrek eragozten badute adingabeari zainketa egokia ematea, oztopatzen badute babes ekintza, onartutako konpromisoak sistematikoki betetzen ez badituzte, edo profesionalen esku-hartzeari uko egiten badiote, erakunde publikoak adingabearen babesgabetasun egoera deklaratzeko ebazpena ematen ahalko du.

10. Borondatezko zaintza besterik gabe bukatuko da babesutakoa adin-nagusitasunera heltzean, emantzipatzean edo hiltzean. Bukatuko da, halaber, familia berriz batzeko ebazpen administratiboaren ondorioz, hura ofizioz nahiz alderdi batek eskatuta emanda, horretarako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero; iraunaldia bukatzen denean; babesgabetasun egoera deklaritzen denean; edo egoera hauetakoren bat dagoela deklaritzen duen ebazpen administratiboaren bidez:

a) Zaintza hartzeko arrazoiak desagertu direla.

b) Adingabea bere borondatez beste herrialde batera joan dela.

c) Adingabea beste autonomia erkidego bateko lurraldean dagoela eta hango erakunde publikoak ebazpena eman duela babesgabetasun egoeraren deklarazioaz bai eta kasuko adingabearen tutoretza bere gain hartu ere, edo dagokion babes neurria, edo haren ustez ez da beharrezkoa babes neurririk hartzea, adingabearen egoera kontuan hartuta.

d) Adingabeak bere borondatez babes etxetik alde egin zuenetik hamabi hilabete iragan badira eta non den jakiterik ez badago, hura lokalizatzeko eta egoera egiaztatzeko ahaleginak egin ondoren.

11. Borondatezko zaintza behin bukatuta, familiari laguntzeko neurriak ezartzen ahalko dira, edo jarraipenekoak, adingabearen zainketa egokia dela bermatzeko.

### **108. artikulua. Zaintza amaitzea.**

1. Adingabe baten zaintza amaituko da:

a) Babes ekintza amaitzen denean ebazpen judizialaren edo erakunde publikoaren ebazpen bidez, ofizioz edo honakoek proposatuta: guraso erantzukizuna kenduta ez duten gurasoek, tutoreek, adingabea harreran dutenek edo adingabeak berak, behar besteko heldutasuna badu, edo, kasu guztietan, 12 urte baditu.

Bidezkoa izanen da adingabearen interesa babesteko beharrezkotzat jotzen denean hura bukatzea edo babes neurri egonkor edo iraunkorrago bat hartzea, alderdi guztiei entzun ondoren.

Guraso erantzukizuna edo tutoretza berriz onartzeko proposamena onartzea dakar.

Administrazioak zaintza bere gain hartzea eskatu zutenek lagun-egitea eskatzen badute, egiaztatu beharko da bidezkoa ote den beste babes neurriren bat hartzea adingabearen onerako, Administrazioak zaintza bere gain hartzea eragin zuten gainerako inguruabarrek beren horretan dirautenean.

Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak, babesgabetasun egoera dagoela ulertuta, egokitzen jotzen ez badu zaintza bukatzea, gurasoek edo legezko ordezkariak eskatu bezala, berehala babesgabetasun egoera hori deklaratu beharko da.

b) Hasiera batean ezarritako mugaeguna edo epea edo erabakitako luzapena bukatzean.

c) Aurreikusitako helburuak neurriaren bidez lortu direla ulertzen denean, neurria desegokia bihurtu denean edo lehenasunezko beste batek ordeztzen ahal duenean.

Horrelakoetan, Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak baldintza batzuk jartzen ahalko ditu, ebazpen bidezkoak, neurrien aldaketak egiteko, familia azkarrago

itultzeko, betiere ziurtatuz familia berriz batzeak adingabeentzat espero diren emaitzak dakartzala.

Xede horrekin berarekin, Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak eteten ahalko du denbora batez zaintza edo aldatzen ahalko ditu hura formalizatzeko baldintzak.

d) Fiskaltzak proposatuta

e) Harreran zutenen heriotzagatik edo heriotzaren deklarazioagatik.

f) Adin-nagusitasunera heltzeagatik edo emantzipazioagatik.

2. Zaintza bukatzen bada adingabea jatorrizko familiara itzultzeagatik, itzulera erabakitzeke ezinbestekoa izanen da erakunde publikoak egiaztatzea familian bilakaera positiboa dagoela, familiako bizikidetzaren berreskuratzeko adinakoa objektiboki ikusita, loturak mantendu direla, guraso erantzukizunak egokiro betetzeko asmoa dagoela eta familiara itzultzeak ez dakarrela arrisku nabarmenik adingabearentzat; hori guztia kasuari buruzko txosten teknikoan jasoko da.

Familia harreraren kasuan, adingabearen itzulerari buruzko erabakia hartzean kontuan hartu beharko da harrera familian eta ingurunean zenbat denbora eman duen eta nolako integrazioa izan duen, bai eta harekin lotura afektiboak sortu diren.

### 3. ATALA

#### Zuzeneko tutoretza administratiboa eta tutoretza arrunta

##### **109. artikulua. Administrazioak tutoretza bere gain hartzea.**

Babesgabetasun egoeraren deklarazioa egiteko prozedurak ebazteak berarekin dakar babesgabe dauden adingabeen tutoretza hartzea.

##### **110. artikulua. Berehalako arreta eta behin-behineko zaintza.**

1. Administrazioak tutoretza bere gain harturik, adingabeek berehalako arreta jasoko dute lehen harrera egiteko zentroetan edo horretarako gaitzen diren larrialdiko harrera familiekin. Behin-behineko neurri horiek adingabeen beharretarako jarduketarik egokiena zehazteko behar-beharrezkoa den indarraldia izanen dute, gehienez ere sei hilabete.

2. Erregelamenduz garatuko da larrialdiko harrera familiek zer laguntza hartzeko eskubidea duten, izan ditzaketen kostuak ordaintzen laguntzeko, eta beti jasoko dituzte harrera iraunkorrak betetzen dituzten familiek dituztenak.

3. Berehalako arreta emateko betebeharra betetzeko, Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak bere gain hartzen ahalko du adingabeen behin-behineko zaintza, Fiskaltzari komunikatu beharko zaion ebazpen administratibo bat emanaz, zaintza hartu eta berrogeita zortzi orduko epean komunikatu ere, eta, horrekin batera, babesgabetasuna lehenbailehen deklaratzeko edo bidezkoa den babes neurria hartzeko behar diren eginbideak eginen dira.

4. Lehen harrerako zentroetan arreta jasotzen duten haur edo nerabeek sexu abusuen biktima izan direla susmatzen bada, informazioa jasoko da, adingabeak berak emana, ahalik eta biktimizazio txikiena eraginez, salaketa aurkeztuko da behar izanez gero, eta adituen txostena eskatuko da, biak 15 eguneko epean gehienez ere.

**111. artikulua. Administrazioak tutoretza baliatzea.**

1. Adingabeen tutoretza, legeria zibilean xedaturikoarekin bat, familia harreraren bidez beteko da posible eta adingabearen interesarekin bateragarria den guztietan.
2. Horrez gain, Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak beste edozein neurri edo jarduketa erabakitzen ahalko du, adingabeen onerako bada, haren egoera pertsonala, familiakoa edo soziala kontuan hartuz, adingabeak jatorrizko familiara itzultzeko, haien onerako bada, babesgabeziak eragindako kaltea oneratzeko eta, haien eskubidea baita, familia harremanak mantentzeko.
3. Administrazioak tutoretza bere gain hartzeak berekin dakar Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunari adingabeen eginkizun pertsonalak, legezko ordezkaritza eta ondarearen administrazioa esleitzea, legeria zibilean ezartzen denaren arabera.
4. Foru Komunitateko Administrazioaren tutoretzapean dauden adingabeen defentsa juridikoa Nafarroako Gobernuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak hartuko du bere gain, borondatezko zaintza kasuetan izan ezik.

**112. artikulua. Tutoretza arrunta.**

1. Aurreko artikuluetan adierazitakoa gorabehera, tutorea arau arrunten arabera izendatzea sustatuko da honelakoetan:
  - a) baldin badago norbait, adingabearekin duen harremana edo beste arrazoi batzuk direla eta, tutoretza bere gain hartzen ahal duena, adingabearen onerako;
  - b) haur edo nerabearen interes gorenari begira, baztertzen denean harreran dagoen adingabea bere jatorrizko familiara itzultzea, eta, kontuan hartuta harrera egiten duen pertsonak edo familiak dituen baldintzak eta inguruabarrak, komenigarritzat hartzen denean familia harrerako neurria tutoretza bihurtzea, hura ebatzi bitartean tutoretza ahalmenak hari esleitzeko eskatuz, egokia bada.
2. Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak, tutoretza arruntak edo harrerak sustatzeko, egoeraren arabera, informazioa eta aholkua emanen die adingabeen egitatezko zaintza dutenei, modu egokian betetzen dutela egiaztatu ondoren.

**4. ATALA**

**Ezaugarri bereziak dituzten adingabeak**

**113. artikulua. Ezaugarri bereziak dituzten adingabeak.**

- Foru lege honen ondorioetarako, ezaugarri bereziak dituzten adingabeak dira hezkuntza arreta eta arreta psikologiko espezializatuagoa eta intentsiboagoa behar dutenak, banakako akonpainamendu iraunkor baten eredutik, eta beti:
- a) Desgaitasuna edo eritasun larria duten adingabeak, tratamendu kronikoa behar dutenak, herentziazko osasun arazoan aurrekari klinikoak dituztenak, osasun arazo bereziak dituztenak, edo desgaitasuna garatzeko aukera handiak dituela dioen txosten medikoa dutenak -nahiz eta momentuan ez izan-, autonomia pertsonalean zailtasunak dakartzatenak edo arreta egokirako zainketa espezializatuak behar dituztenak.
  - b) Senide taldeak edo familia batzean daudenak, haien arteko lotura afektiboak direla eta komeni ez denean bereiztea.
  - c) Lau urte baino gehiago duten adingabeak, adopzioaren kasuan, eta zazpi urte baino gehiagokoak harreraren kasuan.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- d) Aurretik beste adopzio edo familia harrera bat izan duten adingabeak.
- e) Arazo emozionalak edo erregulazio emozionalerako zailtasunak dituzten adingabeak, haien garapenerako traba direnean, loturarako gaitasuna mugatzen dietenean edo haien egokitzapen sozialari eragiten diotenean.
- f) Babesgabezia larriko egoerak bizi izan dituzten eta arazo emozional bereziak dituzten adingabeak.
- g) Genero indarkeria gertatu den familia ingurune batean bizi izan diren adingabeak.
- i) Erakunde publikoak aurreko apartatuak ez diren behar bereziak justifikatzen dituen kasuak.

## 5. ATALA Harrera

### 114. artikulua. Harrera ezartzea.

1. Adingabearen zaintza bere gain hartu ondoren, erakunde publikoak baloratuko du zein harrera motak erantzuten dion hobekien haur edo nerabearen interes gorenari, galarazi gabe behin-behineko zaintzaren kasuan egon daitezkeen berezitasunak.
2. Espedientea aztertu eta baloratu ondoren, profesionalen talde teknikoak entzunaldiaren tramitea eman die adingabeari, jatorrizko familiari eta, kasua bada, harrera egiten duen familiari egokitzat jotzen dituzten alegazioak egin eta agiriak eta justifikazioak aurkez ditzaten.
3. Entzunaldiaren tramitea bukatuta, eta haren emaitza ikusirik, profesionalen talde teknikoak txosten bat prestatuko du, behar bezala arrazoitua, proposatutako harrera neurriaz bere iritzia emanaz. Txosten hori, babeserako banakako planarekin batera, zeinean zehaztuko baitira planifikatutako esku-hartzeak edo jarduketak, igorri egingen da dagokion ebazpena eman dadin.
4. Ebazpen horretan jaso beharko dira gutxieneko eduki hauek, non horietakoren bat ez den beste ebazpen baten xede:
  - a) Aurrekariaren azalpen laburra.
  - b) Babeserako banakako planean esku-hartzerako proposatzen den helburua.
  - c) Proposatzen den babes neurria. Familia harrerak egoitza harreraren gainetik lehentasuna duela bermatzeko, egoitzakoa ezartzen denean berariaz jaso beharko da ezinezkoa izan dela familiakoa izatea edo zergatik ez zen komeni, bai eta egoitza harrera ahalik eta motzeta izan dadin ezarri diren ekintzak edo epeak ere.
  - d) Familia harrerarako proposatzen den modalitatea. Familia harreraren kasuan, larrialdikoa, aldi baterako edo iraunkorra den, eta adingabearen familia zabalean edo harena ez den familia batean eratzen den. Azken kasu horretan, zehaztuko da ez dagoela familia zabalik familia harrerarako, edo, baldin badago, ez dela egokia baloratu dela. Egoitza harreraren kasuan, zehaztuko da jokabide nahasmenak dituzten adingabeentzako zentro espezifikoan egiten den, eta, halakoetan, hura proposatzeko arrazoen justifikazioa.
  - e) Ezinezkoa denean anai-arreba guztien zaintza batera mantentzea, arrazoiak justifikatuko dira.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

f) Berariaz adieraziko da zein egunetan egin diren adingabeari, jatorrizko familiari eta, kasua bada, harrera egiten duen pertsonari edo familiari entzunaldia emateko tramitea. Adingabearen eta jatorrizko familiaren adostasuna nahiz adostasun eza ere jasoko da.

g) Proposatutako bisita araubidea eta haren justifikazioa.

h) Harrera ezarri den eguna.

i) Hartutako neurria berrikusteko eguna.

5. Hartutako ebazpena hamar eguneko epean jakinarazi beharko zaie harrera egiten duen pertsona edo familiari, harreran dagoen adingabeari, Fiskaltzari eta adingabearen gurasoei edo haren tutoretza edo zaintza dutenei.

### **115. artikulua. Babeserako banakako plana.**

1. Erakunde publikoak bere gain hartzen duenean adingabearen tutoretza edo zaintza, babeserako banakako plan bat prestatuko du, zeinean ezarriko baitira zein diren jatorrizko familiarekin hartu beharreko esku-hartze neurrien helburuak, aurreikuspena eta epea, baita familia berriz batzeko plana ere, pronostiko horren ondorioa denean jatorrizko familiara itzultzeko aukera.

2. Esku-hartzea, banakakoa nahiz familiakoa, babeserako banakako planean ezarritakoarekin bat gauzatuko da, bai eta, kasua bada, familia berriz batzeko planean ezarritakoarekin ere.

3. Babeserako banakako plana hura egin duten eta haren jarraipenaz arduratuko diren teknikariek aurkeztu eta azalduko diete adingabeari, jatorrizko familiari eta, kasua bada, harrera egiten duen pertsona edo familiari, aurrez aurre.

4. Babeserako banakako plana eman edo igorriko zaie jatorrizko familiari, adingabeari, heldutasun nahikoa badu, edo, kasu guztietan, 12 urte baino gehiago baditu, eta, kasua bada, harrera egiten duen pertsona edo familiari. Edukitik kentzen ahalgo da ukituak gerta daitezkeen beste pertsona batzuen intimitaterako eskubidearekin nahiz eskubide pertsonala eta familiakoarekin lotura izan dezaketen gaiak, datuak edo informazioa biltzen duen edukia, baita datu pertsonalen babesarekin zerikusia duena ere.

5. Babeserako banakako planean adieraziko da zein den haren jarraipenaz arduratuko den teknikaria, bertan aurreikusten den maiztasunaz eta moduz. Era berean, haren lan izanen da plana berrikustea eta, hura ikusita, planaren eguneratzeak edo aldaketak egitea, esku-hartzea ahal den hobekien eta egokien garatzen dela bermatzeko xedea dutenak, haur edo nerabearen interes goren aintzat hartuta beti.

6. Babeserako banakako planak honakoak zehaztu beharko ditu, besteak beste, eta beti proposatutako esku-hartzearen helburua kontuan hartuz:

a) Adingabearen lege egoera.

b) Proposatutako babes neurria.

c) Esku-hartzearen xedea eta jarraitu beharreko jarduketa ildoak.

d) Esku-hartzearen helburuak, adingabearentzat eta jatorrizko familiarentzat proposatutakoak.

e) Haur edo nerabeari, jatorrizko familiari eta, kasua bada, harrera familiari akonpainamendua emateko bete beharreko jarraibideak.

f) Adingabearen eta jatorrizko familiaren bisita araubidea.

g) Kontingentzia plana, adingabearentzat eta jatorrizko familiarentzat proposatutako helburuen bilakaeraren arabera.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

h) Planaren jarraipena eta berrikuspena egiteko aldizkakotasuna.

7. Sexu-abusuen biktima izan diren haur eta nerabeei laguntza eta arreta espezializatua emateko bitartekoak sustatuko dira.

8. Hurrengo artikuluan aipatzen diren jarraipen txostenetan oinarrituta, babeserako banakako plana eta erakunde publikoak hartutako erabakiak berrikusiko dira, eta, halakorik bada, haien eguneratzea edo aldaketa, eta berrikuspenerako epean babeserako banakako planean bertan jasoko dira, edozein kasutan:

a) Babes neurri ez-iraunkorren esparruan, hiru hilabetean behin berrikusiko da, hiru urte baino gutxiagoko haurrek direnean, eta sei hilean behin, hiru urtetik gorako haurrei eragiten dietenean.

b) Babes neurri iraunkorren esparruan, lehen urtean sei hilean behin berrikusi beharko da, eta bigarren urtetik aurrera hamabi hilean behin.

Babeserako banakako planaren eguneratzeak edo aldaketak eman edo igorriko zaizkie jatorrizko familiari, adingabeari, heldutasun nahikoa badu, edo, kasu guztietan, 12 urte baino gehiago baditu, eta, kasua bada, harrera egiten duen pertsona edo familiari. Edukitik kentzen ahalko da ukituak gerta daitezkeen beste pertsona batzuen intimitaterako eskubidearekin nahiz eskubide pertsonala eta familiakoarekin lotura izan dezaketen gaiak, datuak edo informazioa biltzen duen edukia, baita datu pertsonalen babesarekin zerikusia duena ere.

### **116. artikulua. Harreraren jarraipena.**

1. Foru lege honen 75. artikuluan aipatzen diren langile espezializatuak eginen dute familia eta egoitza harreraren aldizkako jarraipena, oinarritzko laguntzako gizarte zerbitzuen laguntzarekin.

2. Hartutako harrera neurriaren jarraipenak xede hauek ditu:

a) Adingabeari dagokionez, ziurtatzea arreta eta zainketa onak jasotzen dituela, eguneroko oinarritzko beharrak ase dituela eta bermatzen zaiola bere eskubideak erabiltzea eta akonpainamendua ematen zaiola pixkanaka erantzukizunak bere gain hartzen.

Horretarako, harreran dagoen adingabea egokitzen edo aldatzen ari dela egiaztatu beharko da, hezkuntza eta ikaskuntza prozesuan daraman integrazioaren, garapenaren eta aurrerapenaren alderdi guztietan, zaintza dutenekin eta jatorrizko familiarekin dituen harremanetan, gizarteratzean eta garapen emozionalean; atzemanen dira alde positiboak eta egon daitezkeen arazoak, zailtasunak eta gabeziak, eta lortu beharreko helburuak planifikatuko dira.

Horrekin batera, baloratuko da babeserako banakako planean jasotako helburuak bete diren, hau da, babes gabeziaren egoerak eragindako kaltea oneratu den, adingabea babes neurri egokitu den eta jatorrizko familiarekin ezarritako hartu-emanen araubidea egokia den.

b) Jatorrizko familiari dagokionez, jarraipenaren xedea da haren bilakaera ebaluatzea, babeserako banakako planean jasotako helburuak betetzen diren baloratzea, adingabea bere jatorrizko familiara itzultzeko aukera baloratzea aldi baterako bereizteko neurriak ezarri direnean, eta, neurri iraunkorren kasuan, adingabearen eta jatorrizko familiaren arteko harremana mantendu behar den baloratzea.



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

c) Familia harreraren kasuan, jarraipenaren beste xede bat izanen da bermatzea harrera egiten duen pertsonak edo familiak trebetasunak eta bitartekoak badituela haur edo nerabearen behar material eta emozionalak asetzeko eta egonkortasuna emateko.

3. Jarraipena egiteko informazioa lortuko da adingabearengandik beragandik, jatorrizko familiarengandik, haren zaintza duen edo duten pertsonengandik eta aurrekoekin harremana duten profesionalengandik, bai eta zuzeneko egiaztapenekin, etxeetara egindako bisitetan eta elkarrizketetan.

4. Jarraipena ez da bukatuko hartu den harrera neurria bukatu bitarte, eta babeserako banakako planean aurreikusitako aldizkakotasuna izanen du, kasu bakoitzaren beharrek agindutakoaren arabera. Halere, jarraipenaren maiztasuna aldatzen ahalko du erakunde publikoak larrialdi berezi baten aurrean, krisi batean nahiz egoeraren ezaugarriengatik beharrezkoa den guztietan, betiere haur edo nerabearen interes goren aintzat hartuz.

5. Adingabearekin, jatorrizko familiarekin eta harrera egiten duen pertsona edo familiarekin esku hartzen duten langileek idatzizko jarraipen txostenak eginen dituzte babeserako banakako planean ezarritako aldizkakotasunarekin, eta kasuari buruzko espedienteari erantsiko zaizkio.

Edozein kasutan, nahitaezkoa izanen da adingabeak, jatorrizko familiak edo harrera egiten duen pertsonak edo familiak parte hartzea jarraipen txostenak egitean. Horretarako, parte-hartze hori sustatzen duten beste jarduketa batzuk baztertu gabe betiere, adingabearekin, jatorrizko familiarekin edo harrera egiten duen pertsona edo familiarekin esku hartzen duten langileek itzulketa eginen dute eta jarraipen txostena emanen diete adingabeari, jatorrizko familiari eta harrera egiten duen pertsona edo familiari.

Edukirik kentzen ahalko da ukituak gerta daitezkeen beste pertsona batzuen intimitaterako eskubidearekin nahiz eskubide pertsonala eta familiakoarekin lotura izan dezaketen gaiak, datuak edo informazioa biltzen duen edukia, baita datu pertsonalen babesarekin zerikusia duena ere.

6. Harreran dauden pertsonak beren jatorria ezagutzen ez duten kasuetan lagundu eta esku hartuko da.

### **117. artikulua. Harrerari laguntzeko neurriak.**

1. Erakunde publikoak, hartutako harrera neurria formalizatu aurretik, neurriak iraun bitartean, bukatu ondoren eta adin-nagusitasunera iritsi ondoren ere, eman beharko dizkie adingabeari, jatorrizko familiari eta harrera familiei aholkularitza, heziketa, orientazio eta akonpainamendu eta sostengu tekniko eta espezializatuko neurriak, programak, baliabideak edo zerbitzuak, beharrezkoa bada haur edo nerabearen interes goren aintzat hartuz, eta begiratuko du arreta espezializatua eskaintzen dela desgaitasuna duten adingabeen beharretarako.

Nolanahi ere, familia harrerako neurri baten hautapen edo formalizazioaren zain dauden eta egokitzen deklaratu diren pertsonen edo familien eskaintzen zaien trebakuntza jasotzea nahitaezkoa izanen da haientzat, behinik behin adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuak ezartzen duen gutxienekoa.

2. Neurri horiek garrantzia emanen diote, batez ere, adingabeak, jatorrizko familiak eta harrera familiek, harrera neurria formalizatu aurretik eta garatzen den bitartean, jasotzen duten trebakuntzari esker ulertuko dituztela bere gain hartzen dituzten betebeharrak,

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

beharkizunak eta erantzukizunak, eta aurre egiten ahalko dietela harrerak dituen zailtasun eta inplikazioei; finean, trebakuntzak prestatuko ditu harreran duten adingabearekiko erantzukizunak modu egokian betetzeko.

3. Familia harreraren kasuan, erakunde publikoak laguntza ekonomikoa eman beharko die harrera familiei, familia harrerak dakartzan kostuak konpentsatzeko bai eta, behar denean, familien prestasun berezia ere behar bereziak dituzten adingabeei arreta emateko. Laguntza horiek erregelamenduz garatuko dira familia harreraren modalitate desberdinetarako, larrialdiko familia harrera barne.

4. Jatorrizko familiari laguntzeko jarduketak ez dira eginen gurasoak edo tutoretza duena non diren jakiterik ez dagoenean, ez eta, hasiera batean erabaki bada ere adingabea familia-nukleotik bereiztea, ulertzen bada jarduketa horiek egitea ez dela ona haur edo nerabearen interes gorenerako, edo proiektatutako harrera neurriaren helburuetarako.

5. Harrerarako aurrez trebatu eta trantsiziorako jarduketa hauek eginen dira:

a) Adingabeari dagokionez, trebatzeko jarduketak orokorrak izanen dira, bere adin eta heldutasunarekin bat datozenak, uler ditzan familia-nukleotik bereizteko arrazoiak, proposatutako neurria onar dezan, hartu beharreko erabakietan inplika dadin, harrera neurria azaltzeko, eta informazioa emateko haren zaintzaren ardura hartu behar duten pertsoneri eta hori egiteko arrazoiei buruz eta jatorrizko familiarekin izanen duen bisita araubideari buruz. Erraztasunak emanen zaizkie, halaber, adieraz ditzaten beren sentimenduak eta beldurrak, eta ahalegina eginen da haien zalantzak argitzeko; erabakiko da adingabearen eta harrera egin behar duten pertsonen arteko aurreneko hartu-emana egitea, progresiboa, zuzeneko nahiz sinbolikoa, eta haur edo nerabearen interes gorenerako komenigarritzat jotzen bada, bizikidetzako ingurune edo nukleo berria ezagutzekoa ere.

b) Jatorrizko familiari dagokionez, informazio ulergarria eta argia jasoko dute babeserako banakako planaren xedeaz eta bertan ezarritako helburuez, harrera neurriaren ezaugarri eta edukiaz, eta neurria formalizatzeko prozeduraz. Erabakiak hartzen eta neurria planifikatu, garatu eta betetzen parte har dezaten bultzatuko da, neurria garatzen eta betetzen lagundu eta inplikatzea beharrezkoa dela uler dezaten sustatzen ahalegintzearekin batera.

c) Harrera egiten duen pertsona edo familiari dagokionez, behin hautatu ondoren, bilera bat eginen da harekin, informazioa emateko adingabeaz eta proposatutako harrera neurriaren ezaugarri orokorrez. Proposamena onartzen bada, harrera egin behar duen pertsona edo familiaren trebakuntzaren gaiak izanen dira familia harrerako akordioetan jasotako baldintzak, proposamenari lotuta espero direnak eta sentimenduak eta kasurako erreferente diren profesional taldearekin izan beharreko komunikazioa eta harremana. Adingabeek dituzten behar espezifikoei modu egokian erantzuteko, trebakuntza osagarriko jarduketak antolatzen ahalko dira.

Hasierako prestakuntza bukatuta, adingabeak bizikidetzako testuinguru berrira trantsizioa egiteko faseari helduko zaio. Fase horretan, jarduketan helburua izanen da sustatzea pixkanaka elkarrengana hurbiltzen joan daitezen adingabea eta haren zaintza bere gain hartu behar dutenak, edo harrera egin behar duen pertsona edo familia edo, egoitza harreraren kasuan, egoitza zentroko langileak.

6. Adingabea harreran dagoen bitartean, bermatze aldera harrera neurria bat datorrela adingabearen beharrekin, jarduketa hauek beteko dira:

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

a) Adingabeari dagokionez, haren egokitzapenaren eta eboluzioaren jarraipena eginen da, arreta, integrazio eta garapenaren alderdi guztietan, bereziki haren prozesu fisikoa, hezkuntzakoa eta ikaskuntza, eta haren zaintza duten pertsonekin eta jatorrizko familiarekin dituen harremanak, gizareratzea eta garapen emozionala. Adingabearentzako akonpainamendua ezarriko da, hezkuntza arloko esku-hartzea eta laguntza psikoterapeutikoa, haren premiei erantzuteko beharrezkoa dena.

b) Jatorrizko familiari dagokionez, laguntzak haren gaitasunak eta bitartekoak baliatuko ditu, eta orientabide orokorra eta laguntza zehatzagoak ere bilduko ditu, gai hauei hobeki heltzeko:

Lehena. Inplikatzeko delako babes neurria garatzen eta betetzen.

Bigarrena. Lan egiten duela espedientearen arduraren profesionalen taldearekin.

Hirugarrena. Guraso gaitasuna sustatu eta hobetzen duela adingabearen beharrei arreta egokia emate aldera.

Laugarrena. Trebatu eta prestatzen dela etorkizunean familia berriz batzeko, adingabearen onerako bada.

Bosgarrena. Gaitasunak sustatzen direla adingabearekin bisita araubidea, harremana edo komunikazioak izateko eta harrera egiten duten pertsonekin izan behar dituzten hartu-emanetarako, behar denean.

Seigarrena. Behin betiko bereizketa neurriak daudenean trebakuntza eta laguntza ematen zaiola uko egitea eta itzulerarik eza onartzeko.

c) Harrera egin behar duen pertsona edo familiari dagokionez, akonpainamendua ezarriko da aurre egin diezaien familia harreraren behar eta zailtasunei, bai eta estrategia egokiak emateko eta banakako nahiz taldekako sostengua ere eskaintzeko. Harrera egiten duten pertsonak edo familiak, familia harreraren modalitatearen eta adingabearen beharren arabera, laguntza ekonomikoak jasoko dituzte, indarreko araudiari jarraikiz dagozkienak.

7. Hartutako harrera neurria formalizatu eta garatzen hasten denetik hasita, adingabea prestatuko da uler dezan, bere adina eta heldutasuna kontuan hartuta, neurria behin-behinekoa dela eta, neurria bertan behera uzten ahal denean, bukatu dela uler dezan; horrez gain, posible den guztietan, neurria bertan behera uztea aurreikusitako edo planteatu delarik, prestakuntza horri helduko zaio modu planifikatuan eta behar bezain garaiz, bai adingabearekin bai haren jatorrizko familiarekin, bai eta, kasu bada, harrera egiten duen pertsona edo familiarekin ere, koordinatuta aritzeko, besteak beste alderdi hauek aintzat hartuta:

a) Adingabeari behar adinako informazio egokia ematea gertatuko den aldatetaz.

b) Erraztasunak ematea bere iritziak, zalantzak eta beldurrak adieraz ditzan.

c) Bere harreman pertsonalak pixkanaka egokitzen joatea.

d) Bere loturak berrantolatzea eta bere espektatibak egoera berrira moldatzea.

Prestakuntza hori egokituko da behar edo inguruabari bereziak dituzten adingabeen ezaugarri edo baldintza berezietara, 113. artikuluan adierazi bezala.

Neurria ustekabearen bertan behera uzten denean, jarduketaren jomuga nagusia izanen da egoerak adingabearengan sor ditzakeen ondorio negatiboak ahalik eta gehien apaltzea, egoera gertatzeko arrazoiak argi eta aski azalduz, eta baloratuko da zer aukera dauden kasu horretan egin beharreko esku-hartzea prestatu eta egokiro planifikatzeko.

8. Harrera neurriaren indarraldia bukatzen denean haur edo nerabea adin-nagusitasunera iritsi delako, laguntza programak emanen zaizkio, babes neurriari jarraipena eman ahal izateko.

Harrera bukatu ondoren emantzipazio prozesu bati ekiten dioten adinekoen kasuan, aukera izanen dute autonomiari laguntzeko eta bizimodu independenterako prestatzeko programetan parte hartzeko.

Familia harrera bukatu ondoren harrera egin duen pertsona edo familiarekin bizitzen jarraitzen duten adin nagusikoen kasuan, indarreko araudian eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badira, laguntza teknikoak eta ekonomikoak luzatzen ahalko dira indarreko araudian ezarritakoari jarraikiz.

### **118. artikulua. Bisita, harreman edo komunikazio araubidea jatorrizko familiarekin.**

1. Erakunde publikoak haur edo nerabearen interes gorenara kontuan hartuz arautuko du harreran dagoen adingabeak gurasoekin (nahiz eta guraso-ahala ez erabili), haren tutoretza edo zaintza dutenekin, aitona-amonekin, anai-arrebekin eta gainerako ahaide eta gertukoekin, adingabeak bere lotura afektiboak atxikitzen dituela bermatzeko, baldin eta horrek ez badio kalte egiten haren ongizateari, garapen fisiko edo psikiko normalari, integrazio pertsonalari nahiz familia, gizarte edo hezkuntza integrazioari, edo oztopatzen ez badu garatutako babes ekintza.

2. Horretarako, erakunde publikoa ahaleginduko da anai-arreba taldeen zaintza pertsona, familia edo zentro bakar bati esleitzen, elkarrekin egon daitezen. Ezinezkoa denean, haien guztien arteko harremanak erraztuko dira eta, oro har, jatorrizko familia osatzen duten kide guztiekin harremanak izatea faboratuko da, dagokion bisita araubidearen barnean, bai eta haien bizitzan garrantzitsuak diren pertsonekin ere, adingabeen interes gorenara gailenduko delarik betiere.

3. Adingabearen eta haren gurasoen arteko bisita araubidea ebazpen arrazoituaren bidez ezarriko da, eta babes neurria formalizatzen duen ebazpenean berean jasotzen ahalko da.

4. Nolanahi ere, erabakitako bisita, harreman edo komunikazio araubideak arau hauek bete beharko ditu:

a) Berrikusi beharko da babeserako banakako planean ezarritako maiztasunarekin eta, horretan ezarritakoaren arabera, adingabearen eta jatorrizko familiaren arteko bisita edo komunikazioen aldizkako jarraipena egiten da, baloratzeko nola gauzatzen diren eta adingabearen ongizatean, garapen normalean eta integrazioan duten eragina.

b) Harrera egiten duen pertsonak edo familiak, adingabearen ahaideek, gertukoek edo harekin harremana edo komunikazioa dutenek, edo kasuan inplikaturik dagoen beste edozein profesionalak erakunde publikoari eman beharko diote bisitek, harremanek edo komunikazioek haur edo nerabearengan ondorio kaltegarriak dituelako edozein zantzuren berri.

c) Erakunde publikoak arrazoiturik erabakitzen ahalko du, kontuan hartuta familia, gizarte edo hezkuntza egoera, baita adina edo baloratu den beste edozein inguruabar adierazgarri ere, betiere haur edo nerabearen interes gorenari erantzunez, bisita, harreman edo komunikazio araubidea aldatzea edo aldi baterako etetea.

d) Bisita, harreman edo komunikazio araubidea aldatzea edo aldi baterako etetea erabaki aurretik entzunaldia eman beharko zaie ukitutakoei, bereziki harrera egiten duen

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

pertsona edo familiari, eta adingabeari, heldutasun nahikoa badu eta, kasu guztietan, hamabi urte baino gehiago baditu.

e) Bisita, harreman edo komunikazio araubidea aldatzea edo aldi baterako etetea erabakitzen duen ebazpena hamar eguneko epean jakinarazi beharko zaie Fiskaltzari, harrera egiten duen pertsona edo familiari, harreraren hartutako adingabeari eta adingabearen gurasoei edo haren tutoretza edo zaintza dutenei.

f) Ebazpenak ukitzen dituen pertsonak eta, bereziki, adingabeak, haren kontra egiten ahalko dute eta indarreko legerian aurreikusitako errekursoak aurkezten.

5. Bisita, harreman edo komunikazio araubidea erakunde publikoak horretarako gaitutako elkarguneetan edo familiaren bisitetarako gunean gauzatzen ahalko da, haur edo nerabearen interes gorena dela-eta komeni denean, eta jatorrizko familiaren nahiz harrera egiten duen pertsona edo familiaren pribatutasunerako eskubidea babesteko.

Gurasoak preso daudenean, eta haur edo nerabearen interes gorena dela-eta komeni denean haiekin bisita, harreman edo komunikazio araubidea izatea, erakunde publikoak baloratuko du, adingabeen onerako, non eta nola egin hartu-eman horiek.

Horiek espespetean egiten badira, lagundu beharko du adingabearen joan-etorriak eta akonpainamendua egin daitezkeen harrera egiten duen pertsona edo familiarekin edo profesional batekin, zeinak zainduko baitu adingabea eta gurasoa bisitarako prestatuturik egonen direla.

Nolanahi ere, bisita espespetean egitekotan, eskola ordutegitik kanpo egingen da eta adingabearentzat egokia den ingurunean.

### **119. artikulua. Harreraren modalitateak.**

1. Harrera familiakoa edo egoitzakoa izan daiteke. Familia harrera sailkatzeko irizpideak iraupena eta helburuak dira, eta kontuan hartzen dira, halaber, adingabeak harrera egiten duen pertsona edo familiarekin duen lotura eta haren ezaugarriak.

2. Hortaz, familia harreraren iraupena eta helburuak kontuan hartuz, honakoak izan daitezke:

a) Larrialdiko familia harrera, batez ere sei urte baino gutxiago dituzten haurrentzat, dagoen familia babeserako neurria erabaki bitartean.

Harreraren modalitate honen iraupena ez da inoiz izanen sei hilabete baino gehiagokoa.

b) Aldi baterako familia harrera, berriz, iragankorra izanen da, adingabearen egoera dela-eta aurreikusirik dagoelako bere familiarekin berriz batzea, edo bitarte bat behar delako babes neurri egonkorrago bat erabakitzeko, familia harrera iraunkorra edo adopzioa, esate baterako.

Harrera mota honen gehieneko iraupena bi urtekoa izanen da, salbu eta haur edo nerabearen interes gorena dela-eta komeni bada neurria luzatzea aurreikusirik dagoelako berehala batzea berriz familiarekin, edo behin betirako beste babes neurri bat hartzea. Horrelakoetan, erakunde publikoak egoera justifikatzen duen txostena igorriko du, eta organo eskudunak arrazoitu beharko du zergatik ez den hartu babes neurri egonkorragorik bitarte horretan.

c) Familia harrera iraunkorra, zeina eratuko baita behar bereziak dituzten adingabeen kasuan, adingabearen eta bere familiaren egoera dela-eta komeni denean, edo aldi baterako harrerarako bi urteko epea amaitutakoan, egiaztatuta dagoelarik ezinezkoa dela familia berriz batzea.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Erakunde publikoak eskatzen ahalko dio epaileari harrera egiten duen pertsona edo familia iraunkorrei tutoretza ahalmenak esleitzeko, haien erantzukizunak betetzen laguntzeko, betiere haur edo nerabearen interes gorenari erantzunez.

3. Adingabeak harrera egiten duen pertsona edo familiarekin duen lotura eta haren ezaugarriak kontuan hartuz, harrera izan daiteke:

a) Adingabearen familia zabalean, harrera egiten duen familiaren edo pertsonaren eta adingabearen artean ahaidetasun harremana dagoenean.

b) Adingabearena ez den familian, hau da, familia zabaleko harreraren modalitateak ez diren guztiak.

4. Adingabearena ez den familian egiten den harrera espezializatua izan daiteke, hura garatzen duen araudian legez ezarritako inguruabarrak eta baldintzak betetzen badira.

Familia harrera espezializatua profesionalizatua izanen da harrera egiten duen pertsonak edo adingabearena ez den familiako kideetako batek kualifikazio, esperientzia eta prestakuntza espezifikoak duenean eta, horrez gain, harrera egiten duten pertsonen lan harremana dutenean erakunde publikoarekin.

Adingabeak babesteko figura horren modalitateen edukia eta prozedura erregelamendu bidez garatuko dira.

### **120. artikulua. Harreretan erabili beharreko irizpide orokorrak.**

Harreretan, Foru Komunitateko administrazioeko organo eskudunak irizpide hauek erabiliko ditu:

a) Adingabeak beren ingurunean gelditzearen alde lan egingen da. Ahalegina egingen da harrera familia zabalean egin dadin, egokitaz hartzen bada, salbu eta ez bada komenigarria adingabearen interesetarako.

b) Familia harrerak egoitza harreraren gainetik lehenasuna duela bermatzeko, egoitzakoa eratzen denean berariaz jaso beharko da ezinezkoa izan dela familiakoa izatea edo zergatik ez zen komeni, bai eta egoitza harrera ahalik eta motzena izan dadin ezarri diren ekintzak edo epeak ere.

c) Adingabe bakoitzaren eta bere familia naturalaren arteko harremanak erraztuko ditu, berriz batzea ahalbidetzeko, kaltea oneratzeko eta familiako lotura afektiboak atxikitzeko.

d) Ahaleginduko da anai-arreba guztien zaintza harrerarako pertsona edo familia bakar bati esleitzen.

e) Harrera behar-beharrezkoa den denborarako izanen da bakarrik, adingabe bakoitzarentzat planifikatutakoaren eta Esku-hartzearen Esku-liburuaren jarraibideak kontuan hartuz. Ahalegina egingen da adingabea gizarteratzeko eta hezkuntza, osasun eta lan arloetako sistemak erabil ditzaten.

f) Harreran dauden pertsonen beren jatorria ezagutzen ez duten kasuetan lagundu eta esku hartuko da, 151.5 artikuluan aurreikusitako moduan.

g) Egokitasunaren baldintzak eta irizpideak baloratuko dira, baita horien deklarazioarekin lotutakoa ere, erregelamenduz ezarritakoarekin bat; horrela aurreikusitakoak berdin aplikatuko dira adopzio-eskatzailentzat ere.

h) Adin tarte bertsuan daudenak familia-nukleo edo egoitza bakar batean biltzeko ahalegina egingen da, eta posible ez denean prebentzio eta jarraipen neurri espezifikoak hartuko dira.

**121. artikulua. Harrera familiei laguntza ematea.**

Familia harreretan, harrera familiek dituzten beharrezanean erantzuna emateko neurriak ezarriko dira erregelamenduz, eta behar diren laguntza ekonomikoak, materialak nahiz bestelakoak emanen dira, familia ingurunea hobetzeko eta adingabeari baldintza egokietan arreta emateko.

**122. artikulua. Harreraren aldaketa.**

1. Harreraren modalitatea aldatuko da adingabe bakoitzarentzat onuragarritzat jotzen denean edo aldaketa egiteko ezarritako epea iragan denean. Harrera epai bidez ezarri baldin bada, epaitegi eskudunean sustatuko da aldaketa.

2. Harrera familiek komunikatu beharko dituzte bai egokitasunaren baloraziorako baliatu ziren baldintzen aldaketa orokorrak, balorazioa eguneratzeko eta, kasua bada, gaitasunen eta beharrezaneren arteko uztartze egokia ziurtatzeko behar den trebakuntza edo laguntza emateko, bai senar-emazteen edo bikote egonkorren banaketak ere, bietako edozeinek izanen baitu eskubidea Administrazioak zehatz dezan zein diren irizpideak, banaketa gertatu ondoren, harreraren dagoen pertsonari arreta emateko.

**6. ATALA**  
**Famili harrera**

**123. artikulua. Xedapen orokorrak.**

1. Familia harrerak, zaintza babes neurri gisa betetzeko modua den aldetik, helburu orokorra du adingabeari ordezko edo osagarritzko arreta ematea, familia edo bizikidetzako testuinguru egoki batean, hura familiatik bereiztea erabaki denean babesgabatasunaren deklarazioaren ondorioz, edo borondatezko zaintzapean dagoenean, eta, horretarako, adingabearen zaintza hori ematen zaio pertsona zehatz bati edo batzuei.

2. Familia harreraren ondorioa da adingabeak osotara parte hartzen duela haren zaintza bere gain hartzen duen familiaren bizitzan.

3. Harrera bateragarria izanen da adingabearen lotura afektiboak atxikitzearekin, baldin eta ez bada haren interesaren kontrakoa, kaltegarria ez bada haren garapen edo integrazioarako, edo oztopatzen ez badu babes ekintza, eta hala izanik, ahalegina eginen da anai-arreba guztien zaintza pertsona edo familia bakar bati ematen, haien arteko harremanak erraztuko dira batera esleitzerik ez dagoenean, eta faboratuko da jatorrizko familiarekin harremanak izatea dagokion bisita araubidearen barruan, bai eta, kasua bada, haren bizitzan garrantzitsuak diren pertsonekin ere.

4. Adingabearen interesaren printzipio gorenak gidatuko du haren aplikazioa bidezkoa den zehazteko balorazioa, neurria hartu aurrekoa, eta, horrez gain, oinarria izanen da neurriaren modalitatea eta mota ezartzeko, edukia eta betetzeko baldintza bereziak zehazteko, eta zaintza bere gain hartu behar duen familia edo pertsonak hautatzeko. Horretarako, ziurtatuko da, posible denean, adingabearen nahia ere aintzat hartuko dela hamabi urte baino gehiago dituenean, edo haren iritzia baloratuko dela heldutasun eta gaitasun nahikoak dituenean, gazteagoa bada ere.

5. Posible bada, sustatuko da harreraren formalizazioa eta garapena oinarritu daitezen adingabearen beraren, jatorrizko familiaren eta harrera egiten duen pertsonaren edo familiaren parte-hartzean, ahalegina eginez guztien nahiak bat etor daitezen eta lankidetzara egon dadin erabakiak hartzen eta neurria betetzen.

**124. artikulua. Harrera egiten duten pertsonen edo familien eskubide eta betebeharrak.**

1. Harrera egiten duten pertsonen edo familiek eskubide hauek dituzte:

- a) Informazioa jasotzeko, harreraren izaeraz eta ondorioez, eta, halaber, aldez aurreko prestakuntza, jarraipena eta laguntza tekniko espezializatua ere, bai harrera bitartean bai bukatutakoan. Desgaitasuna duten adingabeen kasuan, harrera egiten duten pertsonen edo familiek eskubidea izanen dute orientazioa, akonpainamendua eta laguntza izateko, adingabearen desgaitasunerako egokituak.
- b) Erakunde publikoak entzun eta aditu ditzan, adingabeari eragiten dion edozein ebazpen hartu aurretik, bereziki jatorrizko familiarekiko bisita, harreman edo komunikazio araubidea aldatu edo aldi baterako eten aurretik.
- c) Informazioa jasotzeko, babeserako banakako planaz eta, harrerarekin lotuta, harreran dagoen adingabeaz hartzen diren neurriez eta aldzakako berrikuspenez; halaber, adingabearen espedienteari buruzko informazioa lortzeko, beren eginkizunak betetzeko beharrezkoa dutena, beste batzuen intimitaterako eskubidearekin eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia dutenak izan ezik.
- d) Harreran dagoen adingabea babesteko neurrien eta haren babesgabetasun egoeraren deklarazioaren kontrako prozesu guztietan parte izateko, bai eta tutoretza eginkizunekin formalizatu den familia harrera iraunkorreko neurriarekin lotutako aurkaratze prozesu guztietan ere.
- e) Erakunde publikoarekin lankidetzan aritzeko, harrerarako ezarritako jarduketak eta jarraipen planetan.
- f) Harreran duten adingabearen dokumentazioa izateko, identifikaziokoa eta osasun eta hezkuntza arlokoa.
- g) Zaintzak atxikiak dituen eskubide guztiak baliatzeko.
- h) Harreran duten adingabeak errespeta ditzan.
- i) Erakunde publikoari laguntza eskatzeko, beren eginkizunak betetzeko.
- j) Adingabearekin bidaiatzeko, baldin eta horren berri ematen bazaio erakunde publikoari eta hura aurka ez badago.
- k) Konpentsazio ekonomikoa eta bestelako laguntza jasotzeko, halakorik ezarri bada.
- l) Harreran duten adingabeari seme-alaba biologikoei edo adoptatuei ematen zaizkien baldintza berberak emateko, adingabea haiek bizi den bitartean familiako eskubide eta betebeharrak berberak izan ditzan.
- m) Adingabearekin harremanak izateko, harrera bukatu ondoren ere, erakunde publikoaren ustez adingabearen interes gorenerako komeni bada eta jatorrizko familia edo, kasua bada, adopziokoa edo harrera iraunkorrekoa, horrekin ados baldin badago, baita adingabea bera ere, heldutasun nahikoa badu eta, kasu guztietan, hamabi urte baino gehiago baditu.
- n) Bere datu pertsonalak babesteko, jatorrizko familiari dagokionez, indarreko legeriarekin bat.
- ñ) Erakunde publikoari formalki kexak eta iradokizunak aurkezteko, 30 egun iragan aurretik tramitatu daitezkeen, eta, entzunaldia eskatuz gero, epe hori iragan aurretik entzun dakien.
- o) Harrera egiten duen pertsonak edo familiak, halaber, Administrazioak gainerako familia unitateei aitortzen dizkien eskubide berberak izanen ditu.



2. Harrera egiten duten pertsona edo familiek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Adingabearen ongizateaz eta interes gorenaz arduratu, ondoan izan, elikatu, hezi eta heziketa integrala emateko, ingurune afektibo batean. Desgaitasuna duten adingabeen kasuan, ordura arte jasotzen zituen laguntza espezializatuak ematen jarraitzeko edo haren beharretarako egokiagoak diren beste batzuk emateko.
- b) Adingabeari entzun eta aditzeko, hari eragiten dioten erabakiak hartu aurretik, heldutasun nahikoa baldin badu eta, kasu guztietan, 12 urte baino gehiago baldin baditu, desgaitasunak eragindako inolako bazterketarik gabe, eta erakunde publikoari adingabeak egiten dituen eskaerak helarazteko, haren heldutasunaren arabera.
- c) Adingabeak familiaren bizitzan osotara parte hartzen duela ziurtatzeko, eta parte-hartze hori adierazgarria eta benetakoa dela.
- d) Erakunde publikoari adingabeari dagokionez garrantzia duen edozein gertaera jakinarazteko.
- e) Adingabearen jatorrizko familiarekiko harremanak errespetatu eta errazteko, harrera egiten duten pertsonen edo familien aukeren arabera, jatorrizko familiarentzat ezarritako bisita araubidearen barruan eta familia berriz batzeari begira, halakorik bada.
- f) Erakunde publikoekin lankidetzak aktiboak izateko, adingabearen banakako esku-hartzea gauzatzean, eta neurriaren jarraipenean, haren oharra eta orientabideak betetz.
- g) Adingabearen aurrekari pertsonalei eta familiakoei buruzko datuen konfidentzialtasuna errespetatzeko.
- h) Erakunde publikoari familiaren egoeran gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko, harrerarako oinarri gisa hartu ziren datu eta inguruabarrei dagokienez.
- i) Harreran dauden adingabeen intimitate eta nortasunerako eskubidea bermatzeko, baita norberaren irudiaren errespetua ere, eta haren oinarrizko eskubideak betetzen direla zaintzeko.
- j) Proposatzen diren prestakuntza ekintzetan parte hartzeko.
- k) Adingabearen babes neurritik jatorrizko ingurunera, adopzioa edo beste harrera mota batera igarotzean laguntzeko, edo babes neurri egonkorrago bat hartu ondoren ezartzen den ingurunera.
- l) Harrera egiten duten pertsona edo familiek izanen dituzte, adingabearekiko, legeak guraso erantzukizunaren titularrentzat ezartzen dituen betebeharrak berberak.

### **125. artikulua. Harrera familiak erakartzea eta haiei laguntza ematea.**

1. Adingabeen gaineko eskumenak dituen departamentuak sensibilizaziorako estrategia bat ezarriko du harrera familien beharri eta horiek erakartzeari buruz, irizpide hauekin: familiak erakartzeko kanpainak antolatzea, dauden harrera familien irizpidea eta gaiari buruzko azterketak eta esperientziak kontuan hartzea eta emaitzen jarraipena egiteko sistema bat ere jasotzea.

Adingabeen arloko eskumena duen departamentuak mota horretako ekintzak ere erantsiko ditu, kanpainak eta ekintzak osatu eta indartuko dituenak, onesten diren dirulaguntza deialdietan.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako strategiaren baitan, irabazi-asmorik gabeko erakundeekin, adopzioan interesa duten familiekin eta Nafarroako Administrazio Publikoekin elkarlanean, kanpainak eta informazioa zabalduko dira eta familia harreraren gaian sensibilizaziorako eta sustapenerako baterako saioak antolatuko dira.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

3. Interesa duten familiei informazioa eta trebakuntza bermatuko zaizkie eta, ondoren, haien lanaren jarraipena egingen dela, behin harrera ezarri ondoren; kasu bakoitzean gutxienekoak ezarriko dira: informazioa eta sostengua, batez ere jasan duten galera edo kaltea arintzekoa, halakorik bada, eta ohikoenak diren zailtasunei aurre egitekoa, etxetik alde egiteari, lotura atxikitzen denean, familiek beraiek eskatzeko aukera bermatuz.
4. Harrera familientzako laguntza eta konpentsazio ekonomikoen sistema mantendu eta berrikusiko da, kontuan hartuta dituzten gastuak.
5. Familia harrera bat ezartzen duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko langileek eskubidea izanen dute familia laguntza gisa aurreikusitako ordainsaria jasotzeko familia biologikoen baldintza berdinetan.
6. Familien parte-hartzearekin (45. artikuluan aurreikusitako batzordearen bidez), kalitate irizpide eta estandarrak ezarriko dira, erabakitzen diren gaietan gutxienekoak eta hobetzeko bideak ere jasoz, honako hauek gutxienez: egokitasuna baloratzeko jarraibideak, konpentsazio ekonomikoak, harrera eta elkartegintzaren sustapena, harrera egiteko guneak egokitzea adingabeen beharretara, neurrien arteko trantsizioetarako prestakuntza, loturetarako arriskuak, batez ere harrerak bukatzeko prozesua, eta adingabeen arloko eskumena duen departamentuak harrera familiei tutoretza eginkizunak emateko eskatzeko baldintzak.
7. Adingabearen babes juridikoari buruzko araudian eta foru lege honetan harrera egiten duten pertsonen edo familiei aitortzen zaizkien eskubide guztiak errespetatuko dira eta erraztuko da haien erabilera, eta laguntza emanen da ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, halako moduan non bidaietarako baimenen araubidearen ordezkari komunikaziorako baliatuko baita adingabearen eta familiaren intereserako komeni denean.
8. Aurrekontuetan lehenetsiko dira harrera familien jarraipena egitea eta erakartzea, foru lege honen 32. artikuluan arabera ezartzen diren familia harreraren portzentajeak lortu bitarte.

### **126. artikulua. Familia harrerarako prozedura eta alde aurreko faseak.**

1. Familia harrerako neurria formalizatzeko fase hauek bete beharko dira:

Lehen. Familia harrerarako eskaintzaren eskaera aurkeztea.

Bigarrena. Familia harrerarako eskaintza egiten duten pertsonen edo familien egokitasunaren azterketa eta balorazio psikosoziala; horretarako, kontuan hartu beharko da, besteak beste, familia egoera eta heziketarako gaitasuna; kasuko adingabearen edo adingabeen mota guztietako beharrak ongi asetzeko gaitasuna; haren motibazioa eta harreraren izaera eta helburua, zein den modalitatea, bat datozen; eta babeserako banakako planaren helburuak betetzen laguntzeko jarrera, bai eta familia berriz batzeko programakoak ere, halakorik balego, adingabearen eta jatorrizko familiaren arteko harremana faboratuz.

Hirugarrena. Familia harrerarako eskaintza egiten duten pertsona edo familien egokitasunaren deklarazioa, ezarri nahi den harreraren modalitatearen arabera.

Laugarrena. Egokitutako deklaraturako harrera egiten duen pertsona edo familien hautaketa.

Bosgarrena. Hartutako familia harrerako neurria ezarri eta formalizatzeari.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

2. Familia harrerako neurri bat garatzeko egokitasuna da ahalmen, gaitasun eta motibazioa egokiak izatea zaintzari datzekion erantzukizunak betetzeko, adingabearen beharrak asetzeko eta arreta eta heziketa integrala emateko ingurune afektibo batean, kontuan hartuz beti haur edo nerabearen premiak eta interes gorena, bai eta familia harrerako neurriak dakartzan ondorioak, berezitasunak eta ardurak bere gain hartzeko ere, adingabeari eskaini ahal izateko egonkortasuna, afektua, estimulazioa, zainketa eta haren nortasunaren ezaugarrien errespetua, garapen integralerako aukera emanen diotenak.

3. Adingabean harrerarako eskaintza egiten duten pertsonen edo familien egokitasunaren balorazio psikosoziala egitean, lehentasuna emanen zaio haur edo nerabearen interes gorenari, egon daitekeen beste edozein interes legitimoren gainetik; eskaintza ez onartzea ekarriko duten egoerak hauek izanen dira:

a) Guraso erantzukizuna baliatzeak gabeturik edo hura etenda izatea ebazpen judizial edo administratiboaren bidez, edo hura gabetu edo eteteke kausan egotea.

b) Tutoretza egoera batetik legez baztertuta egotea.

c) Arriskuagatik edo babesgabetasunagatik, beren ardurapean dituzten adingabeak babesteko gauzatzen ari den ikerketa batek edo erabakitako neurri edo jarduketa batek ukituta egotea.

d) Askatasuna kentzen duen zigor baten kondena jaso izana, hura bete bitartean.

e) Epaia irmoaren bidez kondenatuta egotea delitu hauengatik: giza hilketaren dolozko delitua, edozein dela ere modua, edo lesioena, askatasunaren, osotasun moralaren edo familiako eskubide eta betebeharren kontrako delitua, genero indarkeriarekin lotutakoa, sexu askatasunaren eta sexu ukigabetasunaren kontrakoa, horren barne direla sexu erasoa eta abusua, sexu jazarpena, exhibizionismoa eta sexu probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa eta adingabeak galbidean jartzea eta gizakien salerosketa.

f) Kautelazko neurrien menpe egotea, genero indarkeriaren edo emakumeen kontrako indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimentzako babes agindu batekin lotuta.

g) Haur baten jaiotzaren edo adingabe baten adopzioarako auresleipenaren zain egotea, ugalketa lagundurako prozesu edo teknikak hartzen, seme edo alaba baten jaiotza edo adopzioa, azken kasu horretan sei hilabete iragan ez badira jaiotzetik edo adopziotik familia harrerarako eskaintzaren eta egokitasun deklarazioaren eskaera aurkeztu den egunera arte.

h) Kasu guztietan, araudi zibilean aurreikusitako xedapenen arabera tutoretza egitea galarazten duten egoera guztiak.

4. Horrez gain, kontuan hartuko da familia harrerarako eskaintza egiten duten pertsonak edo familia egotea ondotik aipatzen diren egoeretako batean, izan ere, horrek ekarriko baitu haiek ezestea, bai eta, larritasunaren edo nahitasunaren arabera, egokitasun eza deklaratzeko edo prozedura etetea, edo emandako egokitasuna indarrrik gabe uzten duen ebazpena ematea, egoera gertatzen bada edo haren berri izaten bada deklarazioa egin ondotik:

a) Ez izatea familia harrera egiteko behar diren baldintza egokiak (jarrera, ahalmena, gaitasuna, prestasuna, espektatibak, trebetasunak eta motibazioa), hain zuzen ere zaintzari datzekion eginkizunak eta erantzukizunak betetzeko behar adinako bermea eman eta ahalbidetzen dutenak adingabeari arlo guztietan arreta behar bezala emanen zaiola.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- b) Balorazioa egiteko garrantzitsuak diren datuak ezkutatu edo faltsutu izana, balizko legezko erantzukizunak baztertu gabe.
- c) Balorazio psikosozialaren prozesua ez onartzea.
- d) Kasuan kasuko espedienteari aplikatu beharreko prozeduraren arauak ez betetzea, espedientearen tramitazioari oztopoak jartzea edo ezartzen diren betebeharrak ez betetzea.
- e) Hartutako familia harrerako neurriaren bilakaeraren gaineko jarraipen teknikoan egiaz laguntzeko borondaterik ez izatea, ez eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jatorrizko familiarekin esku hartzeko hartu diren neurrietan ere.
- f) Adingabeen babeserako erakunde publikoak haur edo nerabearen onerako eskaintzen duen aholku, orientazio, laguntza nahiz arreta tekniko espezializatua ez onartzea.
- g) Diskriminazio jarrerak, harrera baldintzatzen dutenak adingabeen ezaugarri fisikoen, sexuaren edo jatorri soziofamiliarren arabera.

5. Erakunde publikoak berariazko ebazpena emanen du familia harreraren interesa dutenen egokitasunaz eta, kasua bada, zehaztuko du familia harreraren zer modalitatetarako edo zer adingaberentzat den egokia ere.

Pertsona edo familia eskatzailea harrerarako ez-egokitzat ezartzen duen deklarazioak zehaztu beharko ditu horretarako arrazoiak.

Ebazpen hori gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, familia harrerarako eskaintzaren eta egokitasunaren deklaraziorako eskaera tramitaziorako organo eskudunaren erregistroan sartzen denetik hasita.

Aipatutako epean ez da denbora kontatuko baldin eta espedientea etenda badago familia harrerarako eskaintza egiten dutenei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

Familia harrerarako egokitasunaz emandako ebazpenen kontra legez ezarritako errekurtsioak aurkezten ahalko dira, ebazpen horiek egokitasuna eman edo ukatzen badute edo deklaraturako egokitasuna bertan behera uzteko helburua badute.

### **127. artikulua. Balorazioa eguneratzea.**

1. Familia harrerarako egokitasunaren deklarazioa eman ondoren, bidezkoa izanen da egindako balorazioa eguneratzea kasu hauetan:

- a) Egokitasunaren ebazpena eman zenetik hiru urte iragan direnean. Kasu hori ez da aplikatuko familia harrera formalizatua duten familietan, salbu eta berriz aurkeztu badute familia harrerarako eskaintza.
- b) Egokitasunaren deklaraziorako zio izandako inguruabarretan aldaketa garrantzitsurik gertatzen bada, familia banatzea, adibidez. Horretarako, interesdunak beharturik egonen dira komunikatzaera horrelako aldaketa esanguratsuak gertatu orduko, eta, hala egin ezean ulertuko da e) atalean jasotzen den kasuan daudela.
- c) Interesdunek eskatzen dutenean, egokitasunaren deklarazioaren balorazioa eguneratzeko arrazoiak edo egoera aipatu beharko direla.
- d) Familia harrerarako esleitutako adingabea onartu dutela epean komunikatzen ez badute edo esleipen bat justifikatu gabe onartzen ez badute.
- e) Egiaztatzen denean interesdunek gerora ez dituztela betetzen familia harrerarako egokitasuna deklaratzeko ekarri zuten irizpideak, edo horri buruzko datu garrantzitsuak isildu edo faltsutu badituzte.

f) Erabakitzen bada harrera bertan behera uztea harrera egiten dutenen egoera aldatu delako, halako moldez non egokitasun eza dakarren edo den kasu batean dauden, edo ez badituzte betetzen hautatzeko kontuan hartu ziren baldintzak edo irizpideak, familia harrera bertan behera uzteko aurreikusitako kasuez gain.

2. Egokitasunaren deklarazioaren balorazioa eguneratzeak berekin ekar dezake lehenago emandako deklarazioari eustea edo hura errebokatzea eta, horren ondorioz, ukitutako pertsona edo familiari emandako egokitasuna galtzea.

### **128. artikulua. Egokitasuna zuzenean galtzea eta errebokatzea.**

1. Emandako egokitasuna zuzenean galdu eta errebokatzea ekarriko dute egoera hauek:

a) Familia harrerarako eskaintza egindako pertsonetako bat hiltzea edo hilik deklaratzeta, familia harrerarako eskaintza egindako pertsonen dibortzioa, ezkontza-deuseztasuna eta banaketa, egokitasunaren deklarazioa eman ondoren formalizatu ez bada familia harrerako inolako neurririk eratzea.

b) Familia harrerako neurri bat eratzeari dagokionez proposatutako esleipena ez onartzea behar bezala justifikaturik ez dagoenean.

Horrelakoetan, erakunde publikoko organoak, familia harrerarako egokitasunaren deklaraziorako prozeduraz ebazteko eskumena duenak, berariazko ebazpena eman beharko du, behar bezala arrazoitua, hurrengo apartatuan aurreikusitako prozedura bete beharrik gabe, baldin eta aipatutako inguruabarrak espedientearen berariaz jaso badira; ebazpen horren bidez errebokatuko da lehenago emandako egokitasuna, eta hamar eguneko epean jakinarazi beharko zaio ukitutako harrera egiten duen pertsona edo familiari, indarreko legeriaren arabera bidezko diren errekursoak aurkezteko aukera ematearekin batera.

Emandako egokitasuna errebokatu eta galtzeak ukitutako pertsonak edo familiak interesa badu familia harrerarako eskaintzeko, beste eskaera bat aurkeztu beharko du eskaintza egin eta egokitasun deklarazioa jasotzeko, eta hura lege honetan xedatutakoaren arabera tramitatuko da.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, horretan aurreikusitako egoerak gertatzen badira formalizatuta dagoen familia harrerako neurri bat gauzatzen ari delarik, erakunde publiko eskudunak beste ebazpen bat emanen du, haren bidez egokitzeo eratuta dagoen familia harrerako neurriaren baldintzak errealitate berrira, pertsonala nahiz familiakoa izan.

Era berean, harrera egiten duen pertsonak edo familiak izenpetutako akordioen baldintzak aldatu beharko dira, harrera familiaren ezarpena formalizatzeko ebazpen berriari erantsi behar zaizkionak.

Jarduketa horiek beteko dira familia harreraren aldaketari buruz aurreikusitakoari jarraikiz, galarazi gabe emandako egokitasun deklarazioaren balorazioa eguneratzeko prozedurari ekiteko aukera.

3. Egokitasunaren deklarazioa errebokatzeak berekin ekarriko du lehenago emandako egokitasun deklarazioa indarririk gabe gelditzea.

**129. artikulua. Harrera egin behar duen pertsona edo familiaren hautaketa.**

Adingabe zehatz batentzat familia harrerako neurria hartu beharra dagoela detektatu ondoren, ofizios hasiko da hautaketa prozedura, egokitasun deklarazioa indarrean dutenen artean, arau hauei jarraikiz:

Lehena. Adingabea bere ingurunean gelditzen laguntzeko, egokituz jotzen den familia zabala baldin badago, haien artean eginen da hautaketa. Era berean, aintzat hartuko dira gertuko pertsonak edo familiak ere, adingabearekin aurretik harremana edo bizikidetzaren esanguratsua, positiboa eta egokia izan badute. Halere, familia-nukleo egoki bakarra baldin badago, ez da beharrezkoa izan hautaketa prozedurarik.

Bigarrena. Hautaketa egin beharko da ezarri beharreko harrera modalitaterako egokitasunaren deklarazioa duten pertsona edo familien artean.

Hirugarrena. Hautaketa prozeduran ez dira aintzat hartuko familia harrerarako eskaintza egin duten pertsona edo familiak baldin eta egoera hauetako batean badaude:

a) Egokitasun deklarazioa etenda izatea.

b) Adingabearena ez den familia batean harrera egiteko hautaketa prozesua denean, hamabi hilabete iragan arte gertaera hauetatik:

- Seme edo alaba baten jaiotze datatik;

- Adopzioa eratzeko ebazpen judizialaren datatik, edo, kasua bada, atzerriko agintaritzaren publikoak, horretarako eskumena duenak, neurri edo ebazpen baliokidea eman duen datatik; edo

- Zaintza adopziorako helburuarekin eratu dela ebazpen administratiboaren bidez formalizatu denetik.

Laugarrena. Harrera neurriaren xede den adingabearentzat egokiena den pertsona edo familia hautatzeko, irizpide orokor hauek kontuan hartu beharko dira, eta beharrendaren eta proportzionaltasunaren printzipioen arabera baloratu eta ponderatu, aintzat hartuz beti haur edo nerabearen interes goren eta hura betetzeko erarik onena:

a) Hautapen prozeduraren hasieraren xede den adingabearen anai-arrebak harreraren egotea lehenagotik.

b) Adingabearekin harreman edo bizikidetzaren garrantzitsua, positiboa eta egokia egotea lehenagotik.

c) Pertsona edo familiaren familia edo gizarte inguruabarrak egokiagoak izatea adingabearen ezaugarri eta beharretarako.

d) Adingabea hazi den ingurune soziokomunitarioan mantentzea edo, kontrako, handik urruntzea komeni den.

e) Pertsonaren edo familiaren ingurunean baliabideak izatea.

f) Adingabeak bere familia eta gizarte ingurunean erabili ohi duen hizkuntza jakitea.

Bosgarrena. Aurreko arauan jasotako irizpideetatik salbuespena ezartzen ahalko da harrera egiteko pertsona edo familia bat hautatzeko prozedura hastearren xede den adingabea behar edo inguruabar bereziak dituen adingabea denean foru lege honetan definitzen den bezala.

Seigarrena. Eratu gogo den familia harreraren modalitatea zein den, irizpide hauek ere kontuan hartu beharko dira, eta beharrendaren eta proportzionaltasunaren printzipioen arabera baloratu eta ponderatu, aintzat hartuz beti haur edo nerabearen interes goren eta hura betetzeko erarik onena:

a) Familia harrerako neurri bat familia zabalean eratu nahi denean:

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- a.1) Adingabearen familia arazoak hobeki ulertzea.
- a.2) Adingabeari harrera neurria hartu aurretik interes handiagoa erakutsi edo arreta handiagoa eman izana.
- a.3) Dena delako pertsonak edo familiak egonkortasun handiagoa ematea harrera neurriari eusteko.
- a.4) Dena delako pertsonak edo familiak harreman ez gatazkatsua izatea adingabearen gurasoekin edo tutorearekin.
- b) Familia harrerako neurri bat eratu nahi denean adingabearena ez den familia batean eta nukleo bat baino gehiago egokiak direnean, lehentasuna emanen zaio adingabearekin lotura afektibo handiagoa duen familiari, edo lehenagotik harekin harreman edo bizikidetzatza positibo eta egokia izan duenari.
- c) Familia harrera iraunkorreko neurri bat eratu nahi denean eta egokiak diren familia nukleoetan baldintza berdinak daudenean, lehentasuna emanen zaie adingabearekin, hautaketaren unean, berrogeita bost urtetik beherako adin tartea dutenei. Bikote bat bada, kontuan hartuko da bikotekide gazteenaren eta adingabearen arteko adin tartea.
- d) Familia harrera espezializatuko neurri bat eratu nahi denean, ahal dela hautatuko da harreraren xede den adingabearen ezaugarri eta behar espezifikoei hobekien bat datorren pertsona edo familia, haren prestasuna, kualifikazioa edo esperientzia profesionala edo pertsonala dela eta, haren alde lehenago formalizatu den familia harrera espezializatu batean frogatuta.

### **130. artikulua. Familia harrerako neurria aldatzea.**

1. Familia harrera formalizatua duten pertsona edo familiak beharturik egonen dira, familia harrerako neurria hasten den egunetik beretik, haren jarraipenaz arduratzen den teknikariari komunikatuz egokitasun deklarazioa egiteko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen den edozein aldaketa adierazgarri; horretan sartzen dira harrera egiten duten pertsonetako baten heriotza edo heriotzaren deklarazioa, haien banaketa, dibortzioa, eta ezkontza-deuseztasuna edo ezkontzaren parekoa den bikotearen edo harreman afektibo-sexualaren bukaera.
2. Behin ezagutu ondoren harrera egiten duen pertsona edo familiaren egoera berria, familiakoa, pertsonala nahiz soziala, haren balorazioa egin beharko da, harreraren dagoen adingabearen egoerari dagokionez, eta horrek ekartzen ahalko du aldaketak egitea, dela neurrian, harrera egiten duen pertsona edo familiaren egoera berrira eguneratzen laguntzeko, dela harrera egiten duen pertsona edo familiaren egokitasun deklarazioan.
3. Familia harreraren neurri bat hartzea eragin zuten inguruabarrak funtsean aldatzen badira, eta, horren ondorioz, eta haur edo nerabearen interes gorenari begiratuta, erreferentziako pertsona gisa esleituta dagoen profesionalen talde teknikoaren pertsonaren iritziz hartutako familia harrerako neurria aldatu behar bada funtsezko baldintzei dagokienez edo harreraren modalitateari dagokionez, txosten bat eginen du zeinean justifikatu beharko baitu neurriaren aldaketa, arrazoiak emanez, eta adierazi zein diren lehenago hartutako familia harrerako neurriak izan beharreko baldintza berriak edo zein izan beharko lukeen neurriaren modalitate berria.
4. Espedientea aztertu eta baloratu ondoren, profesionalen talde teknikoak entzunaldiaren tramitea emanen die, hamar egunez, adingabeari, harrera egiten duen

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

pertsona edo familiari eta, kasua bada, jatorrizko familiari, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin eta agiriak eta justifikazioak aurkez ditzaten.

5. Entzunaldiaren tramitea bukatuta, eta haren emaitza ikusirik, profesionalen talde teknikoak txosten bat prestatuko du, behar bezala arrazoitua, familia harreraren aldaketaz bere iritzia emanez. Txosten hori igorri egingen da babeserako banakako planarekin batera, zeinean zehaztuko baitira planifikatutako esku-hartzeak edo jarduketak, dagokion ebazpena eman dadin.

6. Nolanahi ere, familia harrerako neurria aldatu aurretik, neurriak ukitzen dituen pertsonen adostasuna eskatu beharko da, familia harrerako neurriak dituen baldintza berriak ezartzeko. Harrera egiten duen pertsonak edo familiak ez baditu onartzen familia harrerako neurriaren baldintza berriak, edo adostasunaren berri ematen ez bada, bertan behera geldituko da ukitutako adingabeari dagokionez indarra zuen familia harrerako neurria, foru lege honetan aurreikusitako baldintzetan.

7. Hartutako ebazpena hamar eguneko epean jakinarazi beharko zaie harrera egiten duen pertsona edo familiari, harreran dagoen adingabeari, Fiskaltzari eta adingabearen gurasoei edo haren tutoretza edo zaintza dutenei.

8. Familia harrerako neurri bat hartzea eragin zuten inguruabarrak aldatu baldin badira harrera egiten duten pertsonen bizikidetzeta edo harreman afektibo-sexuala bukatu delako, banaketa, dibortzio edo ezkontza-deuseztasunaren ondorioz, haur edo nerabearen interes gorena aintzat hartuz, familia harrerako neurriaren aldaketa egiten ahalko da, zaintza eta jagoletza bi bikotekideek modu partekatuan betetzea dakarrena, baldin eta inguruabar hauek badira tartean:

a) Harreran dagoen adingabea gutxienez ere bi urtez bizi izana harrera familiarekin.

b) Bi pertsonak egokiak izatea familia harrerako neurri bat betetzeko.

c) Bi pertsonak elkarrengandik gertu bizitzea.

d) Bi pertsonak adostasuna adieraztea familia harrerako neurriaren baldintza berriei.

9. Familia harrerako neurri bat larrialdi batean edo aldi baterako eratzea formalizatzen denean, eta haren indarraldian edo behin bukatuta egiaztatzen bada ezinezkoa dela harreran dagoen adingabea jatorrizko familiara itzultzea, edo adingabearen eta bere familiaren inguruabarrak direla-eta komeni denean, haur edo nerabearen interes gorena aintzat hartuz, baldin eta familia harrerako neurriaren jarraipenean lortutako informazioak erakusten badu modu egokian gauzatzen ari dela, proposatzen ahalko da familia harreraren modalitatea aldatzea eta larrialdikoa zena aldi baterako edo iraunkor bihurtzea, edo aldi baterako familia harrera iraunkor bihurtzea, bidezkoa dena.

Horretarako, familia harrera baten indarraldia bukatzen denean, izan larrialdikoa izan aldi baterako, horren berri emanen zaio harrera egiten duen pertsona edo familiari, eta hark adierazten ahalko du neurria betetzen ez segitzeko asmoa.

Dena dela, lehendik dagoen familia harrerako neurriak indarrean jarraituko du edo luzatu egingen da familia harreraren modalitatea aldatzea erabakitzen duen ebazpena eman arte edo, harrera egiten duen pertsonak edo familiak adostasunik eman ezean familia harrerako neurriaren modalitate berriari, familia harrerako neurri berriaren eraketa formalizatzen duen ebazpena eman arte.



### **131. artikulua. Familia harrerako neurria etetea.**

1. Erakunde publikoak erabakitzen ahalko du, betiere haur edo nerabearen interes gorena aintzat hartuz eta harrera egiten duen pertsona edo familiarekin eta adingabearekin entzunaldiaren tramitea bete ondoren, hartutako familia harrerako neurria aldi baterako etetea, eta beraz harreran dagoen adingabea harrera nukleotik bereiztea berriz batzeko perspektibekin.

2. Profesionalen talde teknikoak entzunaldiaren tramitea emanen die, hamar egunez, adingabeari, harrera egiten duen pertsona edo familiari eta, kasua bada, jatorrizko familiari, egokituz jotzen dituzten alegazioak egin eta agiriak eta justifikazioak aurkez ditzaten.

3. Entzunaldiaren tramitea bukatuta, eta haren emaitza ikusirik, profesionalen talde teknikoak txosten bat prestatuko du, behar bezala arrazoitua, familia harrera aldi baterako eteteaz bere iritzia emanez. Txosten horrek adieraziko du etetea zenbat denbora luzatu beharko litzatekeen, gutxi gorabehera, eta igorri egingen da dagokion ebazpena eman dadin.

4. Ematen den ebazpenean erabakiko da familia harrerako neurria etetea eta zehaztuko da haren ondorioak aldi baterako etetea eta harrera egiten duen pertsonak edo familiak dituen betebeharrak eta eskubideak; eta, bereziki, adingabearen bisiten, egonaldien, harremanaren edo komunikazioaren araubideari dagozkionak.

5. Ebazpena hamar eguneko epean jakinarazi beharko zaie harrera egiten duen pertsona edo familiari, harreran dagoen adingabeari, Fiskaltzari eta adingabearen gurasoei edo haren tutoretza edo zaintza dutenei.

6. Familia harrerako neurriaren aldi baterako etenaldian, mantenduko dira adingabearen eta harrera egiten duen pertsona edo familiaren arteko bisiten, egonaldien, harremanaren edo komunikazioaren araubideari dagozkion eskubideak, bai eta haur edo nerabearen interes gorenari begira beharrezkoak diren aholku, trebakuntza, orientazio eta laguntza eta arreta tekniko espezializatuko neurriak ere.

7. Hartutako familia harrerako neurria aldi baterako eteteak ez du inola ere ekarriko familia harrerako neurriak indarra galtzea, baina etenaldi horretan eten egiten ahalko da, halaber, ezarritako konpentsazio edo laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea.

8. Familia harrerako neurria aldi baterako etetea erabaki ondoren, etenaldiak dirauen bitartean adingabearen zaintza izanen duen baliabidea edo familia zein izanen den zehaztuko da; etenaldiak, oro har, sei hilabete iraunen du gehienez.

9. Erabakitako etenaldia iraganik, bidezkoa izanen da adingabea harrera egiten duen pertsona edo familiara itzultzea edo, ezinezkoa bada, familia harrerako neurria behin betiko bukatzea, hasiera batean formalizatu zen baldintzetan.

### **132. artikulua. Familia harrerako neurria bukatzea.**

1. 108. artikuluan zaintza bukatzeko jasotzen diren arrazoiez gain, familia harreraren kasuan hauek ere izanen dira bukatzeko arrazoiak:

a) Harrera egiten duen pertsonak edo familiak bere gain hartu dituen konpromiso, betebeharrak eta beharkizunen ez-betetze larria edo errepikatua.

b) Atzematea harrera egiten duen pertsonak edo familiak ez duela gaitasunik edo motibaziorik adingabeaz arduratzeko.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- c) Erabaki zen familia harrerako neurria aldi baterako eteteko aldia iragan dela edo, eteterako aurreikusitako gehieneko epea, sei hilabetekoa, eta egiaztatzen bada ezinezkoa dela adingabea harrera nukleoarekin berriz batzea.
  - d) Harrera egiten duen pertona bakarra denean, haren heriotzagatik edo heriotzaren deklarazioagatik, edo hura gaitasun juridikoaz baliatzearen gaineko neurriak hartzeagatik, horrek galarazten badio adingabeari dagokionez bere gain hartu dituen konpromisoak, betebeharrak eta beharkizunak betetzea.
  - e) Aldi baterako familia harreraren modalitatea familia harrera iraunkor bihurtzea, haur edo nerabearen interes gorenenerako komeni bada.
  - f) Bizikidetzeta edo harreman afektibo-sexuala bukatzea, banaketa, dibortzio edo ezkontza-deuseztasunaren ondorioz, salbu eta bidezkoa bada indarra duen familia harrerako neurrian aldaketa egitea eta, beraz, zaintza eta jagoletza bi bikotekideek batera betetzea, partekatuz.
  - g) Harrera egiten duen pertsonak edo familiak ez onartzea familia harrerako neurriaren baldintza berriak, edo horiekiko adostasunaren berri ez ematea.
2. Familia harrerako neurria bukatzea erabakitzen bada harrera egiten duen pertona edo familiaren egoera pertsonala edo familiakoa aldatu delako, halako moldez non familia harreraren eskaintza ez onartzea ekarriko zuketean egoeretako bat gertatu den, bukatzea erabakitzen duen ebazpenak erabakitzen ahalko du, halaber, harrera egiten duen pertona edo familiaren egokitasun deklarazioa errebotkatzea.
3. Familia zabalean egindako harrera bat bukatzeak zuzenean ekarriko du harrera egiten duen pertona edo familiari lehenago emandako egokitasun deklarazioa errebotkatzea, eta bukatzea erabakitzen den ebazpenean hala dela jasoko da berariaz. Nolanahi ere, aurrekoaren salbuespena da familia harrera bukatzeak berekin ez dakarrenean familia harrerarako formalizaturik dauden beste neurri batzuk bukatzea.
4. Adingabearena ez den familia bateko harrera bukatzeak, harrera egiten duen pertsonari edo familiari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, ez du ekarriko azkentzea haren egokitasunaren inskripzioa harrera egiten duten pertsonen erregistroan.
5. Erakunde publikoak ezartzen ahalko du adingabearen eta harrera egiteari utziko dion pertsonaren edo familiaren arteko bisita eta komunikazio araubidea, betiere haur edo nerabearen interes gorenaren menpe.

## 7. ATALA Egoitza harrera

### **133. artikulua. Egoitza harreraren dauden adingabeekiko betebeharrak.**

Egoitza harreraren dauden adingabeei dagokienez, erakunde publikoek eta adingabeak dauden zerbitzu eta zentroak kudeatzen dituzten erakundeek foru lege honen aginduzko printzipioen arabera jardun beharko dute, osotara errespetatuz harreraren dauden adingabeen eskubideak, eta oinarrizko betebeharrak hauek izanzen dituzte:

- a) Eguneroko bizitzaren beharrezkoak ase dituztela ziurtatuko dute, eta bermatuko dituzte adingabeen eskubideak, haien proiektu orokorra adingabe bakoitzaren ezaugarri pertsonaletara moldatuz, gizarte eta hezkuntza arloko banakako proiektuen bitartez, adingabearen ongizatea eta garapen fisikoa, psikologikoa, soziala eta hezkuntzakoa

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

helburu, erakunde publikoak zehazten duen babeserako banakako planaren barruan eta foru lege honetan jasotako eskubideak bermatuta.

b) Adingabeen garapenerako egokia den bizikidetza esparru bat eskainiko dute, oinarrizko beharrianak, psikologikoak, hezkuntzakoak, afektiboak eta sozialak aseko dituen.

c) Gizarte eta hezkuntza arloko proiektu orokor bat izanen dute eta banakako proiektu bat arreta jasotzen duten pertsonetako bakoitzari eta haren familiari arreta emateko. Banakako proiektu horrek babeserako banakako plana garatuko du, eta argi eta garbi ezarri beharko du zein den egoitzan sartzeko xedea, lortu beharreko helburuak, lortzeko epea eta jarduketak, ebaluazio adierazleak eta adingabea prestatzeko jarduketak, egoitzan sartzean eta handik ateratzerakoan.

d) Adingabeen egoitza harrerarekin lotuta hartzen diren erabaki guztiak haien hobe beharrez hartuko dira.

e) Senideen arteko bizikidetza eta harremana sustatuko dituzte, baldin eta haien onerako bada, eta ahaleginduko dira adingabeek egoitza egonkortasuna izan dezaten.

f) Familiarekiko harremana eta lankidetzat bultzatuko dituzte eta, horretarako, jatorrizko familia itzultzea edo harremana atxikitzea ahalbidetzeko behar diren baliabideak programatuko dira, erakunde publikoak ezarritako babeserako banakako planean ezarritakoari jarraikiz.

g) Adingabeen hezkuntza integrala eta inklusiboa bultzatuko dute, kasu eginez, bereziki, desgaitasuna duten adingabeen beharrei, eta zainduko dute bizitza betea izan dezaten trebatzen direla, batez ere haien eskolatzea eta heziketa.

h) Hamasei urtetik hemezortzi urtera bitarteko adingabeen kasuan, lehentasunezko helburuetako bat izanen da bizimodu independenterako prestatzea, lanerako orientazioa ematea eta laneratzeko trebatzea.

i) Funtzionamendurako eta bizikidetzarako barne araudia izanen dute, hezkuntza nahiz babes beharrei erantzunen diena, eta kexak eta erreklamazioak egiteko prozedura bat izanen dute jasota.

j) Adingabeei, sendagileak aginduta eta hark jarraipena eginda, behar dituzten medikamentuak emanen dizkiete, osasun arloko profesionalen praxisa betez. Horretarako, adingabe guztien osasun historia biltzen duen erregistro bat izanen dute.

k) Aldizka berrikusiko dute babeserako banakako plana, egoitzako baliabidea adingabearen egoera pertsonalarekin bat ote datorren baloratzeko.

l) Adingabeentzat onuragarria den guztietan, haien gurasoekin harreman egokia izan dezaten bultzatuko dute, erakunde publikoak ezarritako bisita araubidearen barruan betiere. Bisita araubidearen aldaketa nabarmena egiteko edozein proposamenaren oinarrian familiako esku-hartze planaren aurrerapena egonen da eta, edozein kasutan, baloratu beharko da eta erakunde publikoaren onarpena jaso beharko du.

m) Harreran dauden adingabeen zainketa eta arretarako alternatiba familiarak sustatuko dituzte, familia harrerak, egonaldietarako eskuordetzeak, asteburuko irteerak edo oporrak eta mentoretza programak baliatuz. Horretarako, erakunde publikoekin elkarlanean arituko dira aktiboki, harrera egiteko pertsona edo familia horiek erakartzeko eta familia harrera sustatzeko, babeserako neurri lehenetsi gisa.

n) Adingabeak beren ingurune komunitarioan dauden zerbitzuetan eta aisialdi, kultura nahiz hezkuntza jardueretan normaltasunez integratu daitezten sustatuko dute.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- ñ) Babes neurrien jarraipena eta doikuntza egiteko, oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuekin eta zerbitzu espezializatuekin koordinatzeko behar diren bitartekoak ezarriko dituzte.
- o) Zainduko dute prestakuntza izan dezaten bizimodu independenterako, eragiten dieten erabakietan parte har dezaten bultzatuz, horren barne dela zentroaren kudeaketa bera, autonomia bereganatzea eta erantzukizunak bere gain hartzen joatea pixkanaka.
- p) Hezkuntza eta ikuskapen neurriak ezarriko dituzte, adingabeak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta sare sozialak erabiltzen dituen haren datu pertsonalak babesturik daudela bermatzeko.
- q) Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osotara babesteari buruzko araudiak eskatzen dituen protokoloak eta horien eraginkortasuna ebaluatzeko tresnak izanen dituzte.
- r) Adingabeen arloko eskumena duen departamentuak gai hauetan ezartzen dituen kalitate estandarrak beteko dituzte: langileen gutxieneko portzentajea eta kualifikazioa, zerbitzuak eta instalazioak eman eta kudeatzeko baldintzak, eta erabiltzaileen gogobetetze maila jakitekoa.
- s) Adingabeek, haien familiek eta zerbitzua ematen dieten langileek parte hartzeko bitartekoak aurreikusi beharko dituzte.
- t) Adingabeek babesa edo arreta emateko moduari dagokionez, itun soziala hobetsiko da, eta edozein bidetatik zerbitzuen adjudikaziorako irizpide gisa zerbitzuaren kalitatearekin lotutakoak erabiliko dira, lehenetsua emanez langileak ahalik eta gutxien aldatzeari, eta zerbitzua betetzeko baldintza berezietako bat, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta egon da.
- u) Eskatuko da zentroetan diharduten langileen zati batek behintzat gaikuntza izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloan.

### **134. artikulua. Egoitza harrera mugatzea adinagatik eta familiakoa lehenesteagatik.**

Hiru urtetik beherako adingabeentzat ez da egoitza harrera egitea erabakiko, non ez den une horretan ezinezkoa familia harrerako neurria hartzea edo neurri hori ez den komenigarria adingabearen interes gorenerako; kasua behar bezala egiaztatu beharko da. Egoitza harrera erabakitzeko muga hori sei urtetik beherakoei ere aplikatuko zaie ahalik eta eperik laburrenean egoera horretan egon daitezen. Nolanahi ere, oro har, adingabe horien egoitza harrerako aldia hiru hilabetekoa izanen da gehienez. Era berean, erakunde publikoak sustatuko du egoitza harrera egin dadin adingabeen nukleo txikietan, familiako baldintzen antzeko bizimoduarekin.

### **135. artikulua. Ikuskapena eta gainbegiratzea.**

Adingabeen eskubideen babesa ziurtatzeko, erakunde publikoak sei hilean behin egin beharko du zentro eta zerbitzuen ikuskapena eta gainbegiratzea, bai eta egoera dela-eta beharrezkoa den gizartean ere.

**136. artikulua. Egoitzetan dauden adingabeen eskubideak.**

Adingabeek, egoitzetan bizi diren bitartean, foru lege honen 74. artikuluan, gizarte zerbitzuei buruzko foru araudian eta antolamendu juridikoaren gainerakoan aitortzen zaizkienez gain, eskubide hauek dituzte:

- a) Arreta jasotzeko, ezein arrazoi, baldintza edo ezaugarri pertsonal edo sozialetan oinarritutako diskriminaziorik gabe.
- b) Zentroko langileen eta beste egoiliarren aldetik tratu duina hartzeko.
- c) Eguneroko bizitzaren funtsezko beharrak ase izateko, garapen pertsonal egokirako aukera ematen dietenak, barne direla doako osasun laguntzarako eskubidea, nahitaezko oinarrizko irakaskuntza jasotzea, bakoitzaren adinari dagokiona, zentroan duten egoera edozein dela ere, eta haien inguruabarren araberako prestakuntza jasotzeko, hezkuntzakoa edo profesionala.
- d) Haien intimitate pertsonala eta haien jabetzako gauzak errespetatu dakizkien, zentroan indarra duen hezkuntza arloko testuinguruan desegokiak ez badira.
- e) Haien historiala eta bertan ageri diren datuak isilpean erabil daitezten eta haiekin harremanak dituzten langileak isilpeari atxiki dakizkion.
- f) Beren legezko egoera ezagutzeko eta beren banakako proiektua prestatzen parte hartzeko.
- g) Beti entzun eta aditu dakien garrantzia duten erabakiak hartzerakoan eta haien iritzia kontuan har daitezten 12 urte beteak dituztenean eta, gazteagoak izanda ere, nahikoa zentzuzkoak badira; eskubidea izanen dute, halaber, haien legezko ordezkariak informazioa jaso dezaten haien egoeraz eta bilakaeraz eta dagozkien eskubideez.
- h) Harremanak izateko familiakoekin eta gertuko beste batzuekin eta Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak ezarritako bisita araubidea izateko, barneratze araubidean dauden adingabeen kasuan hiru urtetik beherako seme-alabak ondoan izateko eskubidea barne, erregelamenduz ezartzen diren baldintzekin betiere.
- i) Zentroko jarduerak, barrukoak zein kanpokoak, prestatu eta garatzen modu aktiboan parte hartzeko.
- j) Eguneroko bizitzan lo, jarduera eta aisialdirako aldi orekatuak izateko.
- k) Haien nortasuna egoki garatzeko aukera eman dakien.
- l) Kexa aurkezten dutenean entzun eta informazioa eman dakien zentroak kexa eta iradokizunetarako ezarritako sistemaz, eta horiek eta emandako erantzunak jasota gelditzeko, eta, halaber, informazioa eman dakien kexa eta erreklamazioetarako zentrotik kanpoko bidez, foru lege honen 74 l) artikuluan jasotakoez hain zuzen.

**137. artikulua. Egoitzetan dauden adingabeen betebeharrak.**

Egoitzetan dauden bitartean, adingabeek, besteak beste, betebeharrak hauek izanen dituzte:

- a) Zentroetako funtzionamendu eta bizikidetzarako arauak betetzeko.
- b) Zentroko langileen eta beste egoiliarren duintasuna eta eginkizunak errespetatzeko.
- c) Hezkuntza, lan eta prestakuntza arloetako jarduerak kemenez eta etekinez egiteko.
- d) Egoitzako instalazioak eta haien esku jartzen diren bitarteko materialak egoki erabiltzeko.

**138. artikulua. Bizikidetzaren zentroetan.**

1. Administrazio publiko eskudunak zentroko bizikidetzaren bermatzeko neurri egokiak hartzen ahalko ditu, jokabide desegokiaren kasuan hezkuntza arloko neurriak baliatuz, inolaz ere ez dutenak adingabeen duintasunaren kontra joko. Adingabe egoiliarrek zentroetan egiten dituzten diziplina faltak arinak, astunak edo oso astunak izanen dira, faktore hauen arabera: erabilitako bortizkeria, nahitasuna, emaitzaren garrantzia eta ukitutako pertsonen kopurua.

2. Adingabe egoiliarren portaera hauek izanen dira falta arinak:

- a) Zentroko bizikidetzarako arauak arin urratzea.
- b) Zentroko edo kanpoko edonoren errespetuari arin huts egitea.
- c) Barne araubideko arauak debekatzen ez dituzten gauzak edo gaiak gehiegikeriaz eta modu kaltegarrian erabiltzea.
- d) Zentroko gela, material eta tresnei eta besteren jabetzakoak diren gauzei kalte egitea edo horiek erabilezin uztea, ardurarik gabe edo utzikieriaz erabiltzeagatik.
- e) Artikulu honetako 3. apartatuan aipatzen diren egite edo ez-egiteak, ez-betetzea edo kaltea larria ez bada, gertatzen diren gorabeheren arabera.

3. Adingabe egoiliarren portaera hauek izanen dira falta astunak:

- a) Zentroko bizikidetzarako arauak modu larrian urratzea.
- b) Zentroko edo kanpoko edonoren errespetuari modu larrian huts egitea, modu arinean eraso egin, mehatxatu edo derrigortzea.
- c) Barneratzean dauden beste adingabe batzuk bultzatzea taldean matxinadak egitera, men ez egitera edo desordenetara, besteek kasurik egiten ez badiete.
- d) Baimendutako aldi baterako irteera bat izan ondoren, ezarritako egunean eta orduan zentrorara ez itzultzea, horrela jokatzeko justifikaziorik izan gabe.
- e) Modu agerikoan zentrotik ihes egiten saiatzea.
- f) Zentroko langileek, beren eskudantziak legitimoki betetzen ari direla, emandako aginduei men ez egitea, edo modu pasiboan aginduak betetzeari aurka egitea.
- g) Zentroko gela, material eta tresnak edo beste pertsona batzuen gauzakiak nahita erabilezin uztea, kostua 300 euro baino gutxiagokoa bada.
- h) Ausarkeriaz zentroko gela, material eta tresnei edo beste pertsona batzuen gauzakei kalte egitea edo horiek erabilezin uztea.
- i) Barne araubideko arauetan debeku diren gauzaki edo gaiak zentroan sartu, eduki edo kontsumitzea, 4. apartatuko g) eta i) letretan aipatzen direnak ez badira.
- j) Errebindikazio gisa beren buruak zauritzea edo nahitaezko lanak saihesteko itxura egitea zauriturik edo gaixo daudela.
- k) Baimenduriko irteeretan kontrolatzeko ezarritako baldintza eta neurriak ez betetzea.
- l) Artikulu honetako 4. apartatuan aipatzen diren egite edo ez-egiteak, ez-betetzea edo kaltea oso larria ez bada, gertatzen diren inguruabarren arabera.
- m) Falta arinetan berrerortzea.

4. Adingabe egoiliarren portaera hauek izanen dira falta oso astunak:

- a) Zentroan edo kanpoan edonori eraso egitea, mehatxatzea edo derrigortzea, modu larrian denean.
- b) Taldean matxinada, men ez egiteko ekintzetan edo desordenetan parte hartzea edo horietara bultzatu izana, halakorik gertatu bada.
- c) Zentrotik ihes egitea edo horretarako laguntza ematea.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- d) Zentroko langileek, beren eskudantziak legitimoki betetzen ari direla, emandako aginduei modu aktibo eta larrian aurka egitea.
- e) Zentroko gela, material edo tresnak edo beste pertsona batzuen gauzak nahita erabilezin uztea, kostua 300 euro baino gehiagokoa bada, eta haietan nahita txikizioak egitea.
- f) Zentroko material edo tresnak edo beste pertsona batzuen gauzakiak lapurtzea.
- g) Zentroan alkohola, droga toxikoak, gai psikotropikoak edo sorgorgarriak sartu, eduki edo kontsumitzea.
- h) Zentroan armak edo pertsonentzat arriskutsuak diren gauzak sartzea edo edukitzea.
- i) Falta astunetan berrerortzea.

### **139. artikulua. Adiskidetzea, erreparazioa eta neurri zuzentzaileak.**

1. Adingabeek eginiko faltetarako neurri zuzentzaileen eduki eta funtzioa gehienbat hezkuntza arlokoak izanen dira eta zuzenean edo zeharka ez dute ekarriko gorputz zigorrik, lotura mekanikorik, umilaziorik, elikagaiez gabetzerik, ahaideen bisitarako eskubideaz gabetzerik, nahitaezko hezkuntzarako eta ikastetxera joateko eskubideaz gabetzerik, eta ez dute ekarriko inolako indarkeriarik edo adingabeen osotasun fisiko edo psikikoa kaltetzerik edo haien duintasunaren kontra joko ere.

Adingabearentzat edo beste batzuentzat ohiz kanpoko edo berehalako arriskua, ihes egiteko arriskua edo instalazioetan kalteak eragiteko arriskua badago, lehenik eta behin, emozioak eta gatazkak kudeatzeko hitzeko teknikak erabiliko dira, tentsioa murriztu, eta bizikidetzaren leheneratze aldera. Soilik azken baliabide gisa, eta aurreko teknikak aplikatu ondoren arriskua bukatu ez bada, fisikoki lotzeko neurriak hartzen ahalko dira, indarkeriarik gabekoak betiere, eta aplikatuko dira kasu guztietan printzipio hauek betez: adingabearen interes gorena, duintasun pertsonalaren, haurraren pribatutasunaren eta eskubideen errespetua, salbuespeneko izaera, beharra, proportzionaltasuna, banakotasuna, behin-behinekotasuna eta esku-hartze txikiena. Neurri horien guztien legezkoatasun-kontrola egin eta ikuskatzen ahalko dituzte administrazio edo instituzio eskudunek, eta foru lege honetan aurreikusitako bitartekoen bidez entzunaldia, erreklamazioa edo kexa egiteko aukera bermatuko da.

2. Ez da bidezkoa izanen neurri zuzentzailearik aplikatzea aurretik ahalegindu gabe gatazka modu baketsuan konpontzen eta oneratzeko edo erreparazioa egiten zigorrez kanpoko bitartekoak erabiliz, horren barne dela bizikidetzarako konpromisoak hartzea Nafarroako ikastetxeetako bizikidetzari buruzko araudian aurreikusitako baldintzetan. Neurri zuzentzaileek ez dute kaltetuko adingabeen oinarritzko beharrei eta eskubideei eman beharreko arreta, eta hartuko dira beti kontuan hartuz adingabearen egoera pertsonala eta jarrera eta haren portaerak eragindako emaitzak.

3. Falta arinen kasuan, adingabeei aplikatzen ahal zaizkien neurri zuzentzaileak hauek dira:

a) Ohartarazpena.

b) Zentroko aisialdiko jardueraz gabetzea, egun batetik seira bitarte.

4. Falta astunen kasuan, adingabeei aplikatzen ahal zaizkien neurri zuzentzaileak hauek dira:

a) Egun batetik hamabostera bitarte asteburuetan irteerez gabetzea, ezarritako bisita araubideari traba egin gabe.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

- b) Aisialdirako irteerez gabetzea, gehienez ere hilabetez.
  - c) Zazpi egunetik hamabostera bitarte zentroko aisialdiko jardueretan parte hartzeko aukeraz gabetzea.
  - d) Taldetik bereiztea, oldarkortasuna, bortizkeria edo bizikidetzaren asaldatze larrien kasu nabarmenetan, gehienez ere bi egunez.
  - e) Taldetik asteburu batean edo bitan bereiztea.
5. Falta oso astuneren kasuan, adingabeei aplikatzen ahal zaizkien neurri zuzentzaileak hauek dira:
- a) Hamabost egunetik hilabete batera bitarte asteburuetakoa irteerez gabetzea.
  - b) Aisialdirako irteerez gabetzea, hilabete batetik bira bitarte.
  - c) Taldetik bereiztea, oldarkortasuna, bortizkeria edo bizikidetzaren asaldatze larrien kasu nabarmenetan, hiru egunetik zazpi egunera bitarte.
  - d) Taldetik hiru asteburutik bostera bitarte bereiztea.
6. Neurri zuzentzaileak mailakatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- a) Adingabeen adina eta ezaugarriak.
  - b) Hezkuntza arloko banakako proiektua.
  - c) Hutsegitea zenbatean egin den nahita edo arduragabekeriak.
  - d) Arau-hausteak behin eta berriro egitea.
  - e) Berrerortzea, urtebetean eite bereko falta bat baino gehiago egin bada, foru lege honen araberrako neurri zuzentzaile bat aplikatu zaionean falta horregatik.
  - f) Zentroko funtzionamendua asaldatzea.
  - g) Beste egoiliarrei, langileei edo zentroko ondasun edo instalazioei eginiko kalteak.
7. Falta bat egitearen ondorioz halabeharrez beste falta bat edo batzuk egin badira, egingadako falta astunenari dagokion zehapena bakarrik ezarriko da.
8. Eraso egin zaion pertsonari barkamena eskatzeak, ondasunak itzultzeak edo kaltea konpontzeak eten edo apaltzen ahal ditu neurri zuzentzaileak, jokabide arau-hauslea errepikatu ezik.

### **140. artikulua. Prozedura.**

1. Gatatzak konpontzeko edo neurri zuzentzaileak ezartzeko prozedura erregelamenduz edo zentroetako barne arauetan garatuko da, baina beti bermatuko dira adingabeen eskubide hauek:
- a) Neurriak ezartzeko prozedurarik ez da hasiko aurreko artikulua 2. apartatuan jasotzen denaren arabera konponbidea saiatu gabe.
  - b) Prozedurari buruzko informazioa eta orientazioa eskuratzeko, bai eta horretan dituen eskubideez eta ondorioez eta tramitatzen dituztenak identifikatzeko eta, kasua bada, errekusatzeko ere.
  - c) Entzun eta aditu dakien eta, kasu guztietan, haien iritzia eta alegazioak kontuan har daitezzen ebazpena ematean, nahikoa zentzudunak badira eta beti 12 urtetik gora.
  - d) Frogak aurkezteko.
  - e) Zentroan horretarako izendatzen duten pertsonaren aholkuak hartzeko.
  - f) Aplikaturako neurriei buruz eta neurriak eten edo apaltzeko aukera ematen duten inguruabarrei buruz azalpen argiak eta errazak jasotzeko.
2. Adingabe egoiliarrei ezartzen zaizkien neurri zuzentzaileen berri emanen zaie berehala adingabearen gurasoei, tutoreei edo legezko ordezkari, Fiskaltzari eta,



adingabeak zentrora epaileen ebazpenaren ondorioz eraman badira, kasuan kasuko organo jurisdikzionalari ere bai. Halaber, Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunari ere jakinaraziko zaizkio, espediente pertsonalean ager daitezen.

## **8. ATALA**

### **Adopzio nazionala eta nazioartekoa**

#### **1. Azpiatala. Printzipio orokorrak**

##### **141. artikulua. Adopzio nazionalari eta nazioartekoari buruzko printzipio orokorrak.**

Babes neurri hori proposatzean, Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak printzipio orokor hauek hartuko ditu kontuan:

a) Orogen gainerik, adingabeen interes gorenak lehentasuna izanen du zilegi den beste edozein interesen gainerik, funtsezko printzipio gisa.

b) Adingabeak esleitzeko, kontuan hartuko da adoptatu nahi duten pertsonengan baloratu diren gaitasunak bat datozen adoptatu beharrekoengan atzeman diren beharrekin. Kontuan hartzen ahalko da aldi baterako lehentasunaren irizpidea ezaugarri bereziak dituzten adingabeen adopzioak ez direnean.

c) Adingabeen adopzioa sustatuko da bakarrik, familiaren egoera zehatz-mehatz baloratu ondoren, adingabea familian gelditzerik edo hartara itzultzerik ez dagoenean.

Egoera hori adieraziko da adingabea adoptatua izateko aukerei buruzko agiri bakoitzeko babeserako banakako planean.

d) Adingabe bakoitza beren familia berrian erabat integratzen dela bermatzeko, adopzioa helburu duen zaintzako aldi bat sustatzen ahalko da, eta adopzio proposamena igorri aurretik edo ondoren egiaztatu ongi joan den.

e) Adopzio arloko jarduketa guztiak isilpekoak eta konfidentzialak izanen dira.

f) Adopzioa eskatzen dutenek beren eskaeran ezin dezakete egin inolako diskriminaziorik adingabeen sexu, arraza, etnia edo desgaitasunean oinarrituta; horrez gain, ezaugarri bereziak dituzten adingabeak adoptatzeko baldintzak bete eta konpromisoak bere gain hartu behar izanen dituzte, adopzio horietarako eskaerak onar daitezen.

g) Adoptatuko denari, 12 urte baino gehiago baditu, adostasuna eskatuko zaio, entzun eginen zaio beti eta haren iritzia baloratuko da gazteagoa bada, aski zentzuduna bada.

h) Adoptatzeko eskaera bost urtetik bost urtera gaurkotuko da, eskabide berri baten bidez. Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunari aldatzen diren identifikazio datu guztien berri emanen zaio.

i) Babes sisteman dauden nerabeak adoptatzea sustatuko du, batez ere egoitza harreretakako aurreikusitako gehieneko epeak iragan direnean.

j) 6 urtetik beherakoak Arreta Goiztiarreko sisteman sartzea bultzatuko du.

k) Kontuan hartuko du adopzio irekia proposatu behar den, babeserako banakako planean adingabearen onerako aholkatuta dagoelako, bi familien inguruabarrek horretarako aukera ematen dutenean.

l) Adoptatutakoen eskubidea beren jatorria ezagutzeko, eta laguntza ematea bai gurasoen identitateari eta anai-arrebarik izateari buruz informazioa emateko bai, kasua bada, pertsona horiekin harremanetan jartzea erraztea, bi aldeek hala nahi badute.

## 2. Azpiatala. Adopzio nazionala eta nazioartekoa

### 142. artikulua. Adopziorako bete beharrekoak.

1. Babeserako erakunde publikoak proposatuta adopzioa gauzatzeko, beharrezkoa da erakundeak deklaratzeko, babes neurri gisa, adingabe bat adoptatua izan daitekeela, hau da, haur edo nerabe bat adoptatua izateko egoeran dagoela, familia batean bizi proiektu egonkor eta iraunkor bat sustatzeko xedeaz.

Haur edo nerabeak adoptatuak izateko egoeran egon daitezke arrazoi hauengatik:

- Filiazio ezezaguna.
- Gurasoei guraso erantzukizuna kendu zaielako edo tutoretza kendu delako.
- Gurasoek edo legezko ordezkariak beren seme-alabak adopzioan ematearekin ados daudelako.

- Babeserako erakunde publikoaren erabakia babestutako haur eta nerabeen gainean, kasu hauetan:

- a) Gurasoekiko lotura afektiboak hautsita edo oso hondatuta daudelako.

- b) Lotura afektiborik garatu ez delako gurasoekin edo jatorrizko familiako beste kide batzuekin, horiek izanik inoiz adingabeaz arduratu direnak edo haren zainketa bere gain har dezaketenak.

- c) Adingabearen osasun fisiko, emozional, mental edo espiritualerako arriskua dagoelako.

- d) Adingabearen eskubideak urratzeko arriskua dagoelako eta haren egoerarako egokiak diren lotura afektibo berriak ezartzea eta horrekin babes osoa lortzea posible dela ulertzen bada.

- e) Babesgabetasun egoerak ezegonkortasuna eragiten dionean eta horrek okerrerako baldintzatzen badu haren garapena, eta babes neurri iraunkor bat behar duenean, premiazkoa duen egonkortasuna emateko.

- f) Harrerako babes neurria ezarria duen adingabeak eskatzen duelako.

2. Erakunde publikoak honetan oinarrituta baloratuko du adoptatua izateko aukerak daudela:

- a) Babes neurriaren jarraipena egiten duen talde tekniko espezializatuak egindako txostenak. Txosten horiek egin beharko dira adingabearen familia integrazioa eta gizarteratzea lortzen ahalegintzeko egin diren gizarte eta familia esku-hartzei buruz, arrazoiu beharko dute bidegabekoa dela familia berriz batzea eta adoptatua izateko egoeran dagoela baloratzea sustatzea. Halakoetan, ulertuko da familia biologikoan berriz sartzetik ez dagoela itzultzeko aukeraren bat egonda ere denbora gehiegi behar denean horretarako, hain zuzen ere adingabearen garapen psikosozialean kalte handiagoa ekarriko lukeen denbora.

- b) Txosten teknikoak, sozialak, medikoak, psikologikoak eta hezkuntza arlokoak, adingabeari bere familian bertan arreta emateko aukerei buruzko informazioa ematen dutenak, eta familiarekin dituen lotura afektiboen balorazioa, bai eta familiarekin berriz bat egitea bideragarria den edo ez.

- c) Erakunde publikoari egoitza edo familia harreran dagoen adingabearen ezaugarrien berri emateko protokoloa, adoptatua izateko haren egoera baloratzeko; protokoloa adingabearen erreferentziako talde teknikoak eginen du.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

d) Familia zabalarekin balizko harrera planteatzea ez dela bideragarria arrazoiekin justifikatzea, eskaerarik izan ez delako edo adingabearen harrera egiteko ez egokiak baloratu direlako, eskaera egin ondoren.

e) Adingabea prestatzea, ezagutu eta uler dezan bere bizitzaren historia, familia-nukleora itzultzeko aukerarik ez dagoela eta eskaintzen ahal zaizkion alternatiba familiarak.

3. Balorazio batzordeak berretsiko du talde teknikoak egindako txostena. Berretsi ondoren, ebazpena emanen da, gurasoei, zaintza dutenei edo legezko ordezkariak jakinaraziko zaie, eta adingabea Adopzioen Erregistroan inskribatuko da, “Adoptatuak izateko egoeran dauden adingabeak” izeneko atalean.

4. Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak proposaturik, adopzioa eskatzen dutenek adoptatzen ahalko dute baldintza hauek betetzen badituzte, Foru Berrian aurreikusitakoez gain:

a) Nafarroan bizitzea.

Salbuespen gisa, Nafarroako Foru Komunitatean adingabe batzuentzat familia egokirik egon ezik, adingabeen interesa, goragokoa baita, kontuan hartuz, adopzioa eskatzen dutenak Nafarroako Foru Komunitatean ez bizitzea onartzen ahalko da.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak egokituz deklaratu ondoren, organo horrek berak proposatzea, haien gaitasunak adoptatu beharreko adingabearen beharrekin bat datozela egiaztatzen ondoren.

c) Ez edukitzea zigor-aurrekaririk. Behar den ziurtagiriarekin egiaztatzen beharko da hori.

5. Horrez gain, babeserako erakunde publikoaren proposamen beharrik gabe adoptatzen ahalko da, babes sistematik kanpo, adoptatua egoera hauetako batean baldin badago: Lehena. Umezurtza izatea eta adoptatzailearen laugarren graduko odol edo ezkontza-ahaidea.

Bigarrena. Ezkontidearen edo bikotekide egonkorren semea edo alaba izatea.

Hirugarrena. Adoptatzailearekin urtebetetik gora egon izana adopzioa helburu duen zaintzan edo tutoretzapean.

Laugarrena. Adin nagusikoa izatea, edo adingabe emantzipatua.

### **143. artikulua. Adopziorako ordena.**

Eskaeren tramitazio eta balorazioaren hasiera ordenatuko da eskaintzan jasotzen den adopzio proiektua kontuan hartuz eta lehentasuna emanez adopzio irekirako eskaintzei eta ezaugarri bereziak edo adoptatuak izateko aukera gutxiago dituzten haur eta nerabeentzat familia alternatiba dakarten eskaintzei. Esleitzeko irizpideak haien inguruabar berezietara egokituko dira. Erakunde publikoak baloratutako familien egoeraren aldizkako jarraipena egingen du.

### **144. artikulua. Adopzioari buruzko informazioa eta trebakuntza.**

Adingabe baten adopzioa eskatzen dutenek eskubidea dute informazio orokorra jasotzeko prozeduraz, adingabeen ezaugarriez, hautatu eta baloratzeko irizpide orokorrez eta adopzio prozesuan laguntza teknikoak izateaz; eskubidea dute, halaber, trebakuntza jasotzeko, 8.3 artikuluan aurreikusitako jarraibideak aintzat hartuz, eta haiek, beren aldetik, lagundu beharko dute prozesu horietan eta balorazio edo berrebaluaziokoan, eskatzen zaien informazioa aurkeztuz.

#### **145. artikulua. Egokitasuna.**

1. Babeserako erakunde publikoak ebartziko ditu egokitasun eskaerak, edo 147.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan, bermatze aldera pertsonak edo familiek ahalmena dutela kasuko adingabeen beharrak asetzeko eta foru lege honi eta aplikagarriak diren gainerako arauarekin bat adopzioari datzekion betebeharrak betetzeko, adingabeei egonkortasuna, afektua, estimulazioa eta zainketa emanez eta haien nortasun ezaugarriak errespetatuz, horrek osotara garatzea ahalbidetu dezan.
2. Egokitasunerako baldintzak izanen dira erregelamenduz aurreikusitakoak, errespetatuz betiere foru lege honetan ezarritako printzipio orokorrak, bai eta aurrekari penalik ez izatea, dagokion ziurtagiriaren bidez frogatuta, eskaeran adingabearen sexuak edo jatorri etnikoak eragindako diskriminaziorik ez egitea, aldez aurreko trebakuntza jarrera positiboarekin egin izana eta Nafarroako Foru Komunitatean biziitzea, administrazioen arteko lankidetzaren dela-eta salbuespenak egitea galarazi gabe.
3. Egokitasunaren baloraziorako irizpideak eta egokitasun eza deklaratzeko, prozedura etetea edo deklaraturako egokitasuna indarrak gabe uztea eragin dezaketenguruabar negatiboak zein diren erregelamenduz ezarriko da eta adingabeen arloko eskumena duen departamentuak garatu eta argituko ditu, adopzioarako interesa dutenei haien berri emateko, bai eta, balorazioa egin ondotik, haren emaitza eta indartu beharreko faktoreak edo trebakuntza behar dutenak jakinarazteko
4. Egokitasunaren balorazioa hasita, inguruabar koiunturalak agertzen direnean, eta izan dezakeen bilakaeragatik edo desagertu, konpentsatu edo alda daitezkeelako, komeni bada prozedura jakin bati buruzko erabakia atzeratzea, interesdunek eskatzen ahalko dute egokitasunaren baloraziorako prozedura epe baterako etetea, babeserako erakunde publikoak kasu bakoitzean zehazten duen gehieneko eperako, gehienez ere bi urtez.

#### **146. artikulua. Egokitasunaren deklarazioa.**

1. Eskatzaileek elkarrizketa batzuk egin beharko dituzte Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak izendaturako teknikariekin, adopzioarako egokitasuna zehazteko zenbait arlotan (materialak, fisikoak, psikologikoak, esperientzia, familia eta gizarte ingurunea), horren arabera aurreikusteko beteko direla edozein adingabek behar dituen errespetua, segurtasuna, egonkortasuna, moldagarritasuna, malgutasuna, motibazioa eta jarrera positiboa. Erregelamendu bidez, elkarrizketa horien kopurua eta ezaugarriak zehaztuko dira.
2. Ebazpen proposamena ikusirik, adingabeen babesaren arloko eskumena duen erakunde publikoak ebartziko du eskatzaileen egokitasunaz, egokitasun ezaz edo egokitasun iragankorraz.
3. Egiaztatzen denean eskatzaileek gaitasun, ahalmen eta motibazio egokiak dituztela guraso erantzukizuna betetzeko eta bere gain hartzeko adopzioak berekin dakartzan berezitasunak, ondorioak eta erantzukizunak, egokitasun ebazpena emanen da, arau hauekin bat:
  - a) Egokitasunaren deklarazioa gehienez zazpi hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da, adopzio eskabidea eta harekin nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazio gutzia adingabeen babesaren arloko eskumena duen organoaren erregistroan edo Administrazio Publikoaren administrazio prozedura erkidearen estatuko araudian aurreikusitako edozein erregistrotan edo tokitan sartzen denetik zenbatzen hasita.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Epe hori berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe iraganez gero, ezetsizat emanen da egokitasunaren deklarazioaren eskaera.

Egokitasunaren edo egokitasun ezaren deklarazioei buruzko berariazko nahiz presuntziosko ebazpenen aurrean, interesdunek haien aurka egiten ahalko dute zuzenki jurisdikzio zibilean.

Administrazio Publikoen administrazio prozedura erkidearen estatuko araudian aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan eten eta luzatzen ahalko da ebazpena emateko eta jakinarazteko legeak ezartzen duen gehieneko epea.

b) Ebazpenean jaso beharko da adingabearen zer adin-tartetarako egiten den eskaintza; pertsona horiek onartzen duten adoptatzea jatorrizko familiarekin harremana atxikitzen duen adingabe bat, eta onartzen duten adoptatzea behar bereziak dituen adingabe bat, hau da, 113. artikuluan bilduta dauden beharrak; aldez aurreko baloraziorik gabeko adopzioaren kasu espezifikoen, berariaz jaso beharko da adingabe zehatzaren adopzioarako egokitasunaren kalifikazioa.

c) Ebazpenak hiru urterako balioa izanen du gehienez, baldin eta ezertan aldatzen ez badira kalifikazio hura egiteko kontuan hartutako inguruabar psikosozialak, eta eskubidea emanen du eskaera Adopzioen Erregistroan dagokion atalean inskribatzeko, baina ez ordea adingabe bat esleitzeko eskubidea.

Egokitasunaren deklarazioa ofizios eguneratuko da.

4. Egokitasun ezaren deklarazioak zehaztu beharko ditu eragin zuten arrazoiak eta, eskatzaileek eskatuz gero, azalpen pertsonal bat ere jasoko dute hari buruz, 8.3 artikuluan adierazitako jarraibideekin, eta, kasua bada, orientazioa emanen da aldatu beharreko alderdiez edo indartu beharreko baldintzez.

5. Aldi baterako egokitasun ezaren ebazpena emanen da egiaztatzen denean eskatzaileek balorazioaren unean ez dituztela betetzen guraso erantzukizuna baliatzeko eta adopzioari datxezkiekin berezitasunak, ondorioak eta erantzukizunak bere gain hartzeko behar diren gaitasun, ahalmen eta motibazio egokiak, eta ebazpenean epe bat ezarriko da, edo ekintza batzuk, prestakuntzakoak, hezkuntzakoak, terapeutikoak edo bestelakoak, edo bi baldintzak aldi berean; hori egin ondotik beste balorazio bat egin eta bidezkoa den ebazpena emanen da.

### **147. artikulua. Adopzio nazionalerako proposamena.**

1. Bidezko diren kasuetan, Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak agintaritza judizialari igorriko dio adopzioarako proposamena, legeria zibilean ezarriko betebeharrak eta prozeduren arabera egokienak diren eta adingabe bakoitzaren beharretarako egokiak diren adoptatzaileen aldekoa.

2. Aldez aurreko eskaintzarik gabeko adopzio proposamena igortzen ahalko da aintzat hartuz Foru Komunitateko Administrazioaren tutoretzapean dagoen pertsona baten harreman bereziak, babeserako erakunde publikoak ezartzen duenean pertsona edo bikote zehatz bati dagokionez tutoretzapean dagoenaren interesari erantzuten diola. Halakoetan, adopzio proposamena atzeratuko da interesdunen adostasuna izan arte eta adopzioarako haien egokitasuna deklaratu arte.

Egokitasunaren prestakuntza eta balorazioaren helburua izanen da, kasu horretan, familiak adopzio zehatz horretarako baldintza egokiak betetzen dituela sustatu eta egiaztatzea, eta adopzio horretara mugatuko da egokitasunaren deklarazioa.

**148. artikulua. Nazioarteko adopzioarako eskaerak.**

1. Ez da tramitera onartuko nazioarteko adopzioarako eskaera bat baino gehiago herrialde batzuetan aldi berean.

Adopzio nazionaleko eskaintza bat eta nazioarteko beste bat aurkezten ahalko dira, aldi berean nahiz ez, eta batera tramitatzen ahalko dira.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, ebazpen arrazoitu bidez, aldi baterako eteten ahalko du nazioarteko adopzioen espediente berrien izapidetzea herrialde jakin baterako, baldin eta alde handia bada go edo aurreikusten bada dagoeneko izapidetzen ari diren adopzioen kopuruaren eta herrialde horretan egiten diren esleipenen artean, eta espediente kopurua mugatu behar baldin bada espedienteak izapidetu ahal izateko.

Horretarako arrazoi objektiboak baldin badaude, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, ebazpen arrazoitu bidez, nazioarteko adopzio eskaeren aurkezpena ixten ahalko du, edo aurrerago berriz ireki.

3. Aurreko apartatuan ezarritako kasuetan, ebazpena interesdunei jakinarazi beharko zaie.

**149. artikulua. Balorazio prozeduraren berezitasunak nazioarteko adopzioan.**

1. Balorazio irizpideak erregelamenduz ezarriko dira, betiere errespetatuz foru lege honetan ezarritako irizpide eta printzipio orokorrak eta jatorriko herrialdeko araudia eta han eskatzen diren baldintzak.

2. Nazioarteko adopzioarako balorazio eskaeren egokitasuna egokitasun ziurtagiriaren bidez ebatziko da. Ziurtagiri hori eginen da adingabearen jatorriko legeriaren formatuak, ereduak eta irizpideak errespetatuz.

3. Eskaera ez onartzeko, foru lege honetan orokorrean ezarritako egoerez gainera, eskatzaileek jatorrizko herrialdean ezarritako baldintzak ez betetzea ere izanen da eskaera ez onartzeko inguruabarra.

**150. artikulua. Familia adoptatzaileen hautaketa eta trantsizioaren prestaketa.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak adopzioa sustatuko du babestutako pertsonaren onerako baldin bada, onura horretarako egokiena den familia baloratuko duen talde teknikoak edo balorazio batzordeak hala erabaki ondoren. Adopzioa adoptatzen ahal den pertsonaren interes gorenarekin bat datorren zehazteko, kontuan hartuko dira, hori ulertzeko eta ponderatzeko irizpide orokorrez gain, honakoak ere:

a) Jatorrizko familian sartzeari adingabearen interesaren kontrakoak izatea eta egoera aldatzeko aukerarik ez aurreikustea, dauden arrisku faktoreak eta egoera lehengoratzeko egindako jarduketak ere aintzat hartuta.

b) Babestutako pertsonari entzun ondoren, egiaztatzea beste familia batean sartu nahi duela edo horren aldeko jarrera duela eta, heldutasun nahikoa badu, berariaz bere adostasuna adierazten badu.

c) Adopzioa izatea beste babes neurri batzuk baino hobea adingabearen onerako. Helburu horrekin, kontuan hartuko dira, beste irizpide batzuen artean, neurri desberdinen egonkortasuna eta epe luzera babestutako pertsonaren beharrak asetzeko dituzten

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

aukerak, bai eta bere ingurunean erroturik dagoen eta bertan dauzkan loturak, eta horiek adopzio irekiaren bidez mantentzeko aukera dagoen.

2. Egiaztatuta dagoenean adoptatuak izateko aukerak dituzten adingabeak daudela, haurra edo nerabea esleituko zaio familiarik egokienari, egokitasun ziurtagiria indarrean dutenen artean. Eskatzaile egokien hautaketa irizpide hauek aintzat hartuz eginen da:

a) Adingabearen integrazio eta garapenerako berme onenak eskaintzen dituzten pertsonak.

b) Adoptatzen ahal den adingabearen adina bat datorren familiaren eskaintzan adierazitako adin tartearekin.

c) Familia biologikoa bizi den herriraino dagoen distantzia. Salbu eta adingabearen interesa dela-eta besterik egitea komeni denean, ahalegina eginen da adingabea adopzioan hartzen duten pertsonak bizi diren herria ez dadin izan familia biologikoaren jatorriko herria, familia zabala barne, lokalizatzea, identifikatzea eta harekiko harremanak saihesteko.

d) Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea. Irizpide hau ez da kontuan hartuko Foru Komunitatean ez badago adingabe zehatz baten adopzioarako familia egokirik, adoptatzeko egoeran dagoen adingabearen beharrak, ezaugarriak edo inguruabar bereziengatik, eta beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren familia egokiengana jo behar bada.

e) Adingabea eta adopzioko familia-nukleoaren arteko etorkizuneko integrazio hobereana lortzeko xedearekin aplikatu beharko den beste edozein irizpide tekniko, behar bezala justifikatua.

3. Lehentasunez, aintzat hartuko da adoptatu beharreko pertsonaren onerako beharrezkoa den familiaren baldintza partikularren bat, adopzioarako bereziki egoki bihurtzen duena. Irizpide hori aplikaezina bada edo aski ez bada, adopzioko familia hautatuko da aurrez ezarritako beste irizpide objektibo batzuen arabera, adoptatu beharreko pertsonarentzat onuragarrienak ustez direnak eta, azken irizpide gisa adopzioaren eskaintzaren antzinatasuna erabiliko da. Eskatzaileen baldintzak berdintsuak badira, antzinatasun handieneko eskaeraren alde eginen da hautaketa.

4. Adopzioaz arduratzen den talde teknikoak beharrezkotzat jotzen badu, elkarriketak egiten ahalko ditu familia izangaiarekin, formalki hautatu aurretik.

5. Hautaketaren proposamenaren berri eman beharko zaio familiari aurrez aurre, baina, eraginkorra izateko, proposatutako adingabearen adostasuna ere beharko da eta ondoren adingabea eta hautatutako familia bat etortzea.

6. Erabakia hartzeko prozesua errazteko, proposatutako eskatzaile guztiei emanen zaie adingabeari eta haren familia biologikoari buruz dagoen informazioa guztia, bereziki babestu behar ez dena eta beharrezkoa dena, baina jasotako informazioaren konfidentzialtasuna gorde beharko dute. Agerraldi hori eginda, 7 eguneko gehieneko epean adierazi beharko du familiak, aurrez aurre, adopzioa onartzen duen. Epe horretan adierazten ez bada, esleipena ez dela onartu ulertuko da.

7. Adopzioa justifikaziorik gabe ez onartzeak, espresuki nahiz esan gabe, berekin ekarriko du familiaren alde emandako egokitasunaren inskripzioa ezabatzea adopzioen erregistroan dagokion atalean.

8. Adopzioa denean neurririk egokiena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren tutoretzapean dagoen pertsona batentzat, baina hura, haren

ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuz, adoptatzeko egokitasunaren deklarazioa duen familiarik ez dagoenean, familia izangai bat bilatuko da modu aktiboan, beste erakunde publiko batzuekin elkarlanean, edo adopzio proiektua adopzioaren zain dagoen pertsonaren beharretatik gertukoa duten beste familia batzuei informazioa emanaz eta haien balorazioa eginez.

9. Trantsizioa familia edo egoitza harreratik egiten bada, prozesu hori prestatuko da harrerarako aurreikusitako moduan, 45.5 artikuluan jasotzen diren mahaietan erabakitzen diren protokolei jarraikiz.

### **151. artikulua. Adopzioaren ondoko jarduketak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, erakunde publiko eskudunaren bidez, adoptatutako adingabeen eta adopzio familien esku jarriko ditu laguntza, akonpainamendu, aholku, orientazio eta trebakuntza zerbitzuak, bizitako babesgabeziaren egoerek eta babes neurri honen berezitasunek ekartzen dituzten behar espezifikoek aurre egitera bideratuta. Babes eta segurtasun faktoreak sustatuko dira loturak sortzean eta zerbitzuen arteko koordinazioa.

Horretarako, aholkularitza, laguntza eta orientazio espezializatua emanen zaie adoptatutako pertsoneri eta haien familiei, betiere familia-harremana hausteko arriskua duten familiendako esku-hartze goiztiarra eta esku-hartze bereziak jasoko dituen, bai eta laguntza eta bitartekaritza ere beren jatorri biologikoak ezagutzeko eskubidea baliatu nahi duten adoptatuei ere.

Adoptatuen edo adopzio familien elkarteek xede horrekin egiten dituzten trebakuntza eta elkarren laguntzarako jarduketak bultzatuko dira.

2. Adopzio familia inguruneek adopzioaren ondoko esku-hartze eta laguntza jarduketak hasten ahalko dira adopzio familiek eskatuta, edo erakunde publikoak ere eskatuta, jarraipenetan ikusten badu adingabeak integrazio zailtasunak dituela familian nahiz gizarte edo hezkuntza arloetan, edo adopzio familiako edozein kidek egokitze zailtasunak.

Jarduketa horiek banakakoak, familiakoak edo taldekoak izan daitezke, atzemandako beharren arabera. Horretarako, erakunde publikoak zerbitzu espezializatu bat izanen du jarduketa horiei erantzuteko.

3. Erakunde publikoa arduratuko da adopzio nazionalaren bidez adoptatutako adingabeen jarraipenaz, eta babes neurri hau egoki garatzeko behar diren akonpainamendua eta laguntzak bermatuko ditu, arau hauekin bat:

a) Jarraipen hori adoptatuaren babeserako banakako planaren edukietan oinarrituko da. Planean jasotako helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren jarduketak garatuko ditu.

b) Adopzio irekiak direnean edo adopzioan aurreikusi denean adoptatuak harremanak atxikiko dituela bere anai-arrebekin, xede hori duten jarduketak ere sartuta egonen dira planean.

c) Plana familia adoptatzaileari aurkeztuko zaio, bai eta adingabeari ere heldutasun nahikoa badu edo hamabi urte edo gehiago.

d) Plana berrikusten ahalko da eta egokitzen joanen da adoptatuaren bilakaerara, babes neurriaren egokitzapenera eta helburuak lortzera. Berariazko laguntza psikosoziala emanen da sei urte baino gehiagoko adingabeak, tratu txar larriak edo bestelako



## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

esperientzia traumatikoak jasan dituztenak, osasun arazo larriak dituztenak edo familian integratzea zailtzen duten beste egoera batzuetan daudenak adoptatu ondoren.

e) Nolanahi ere, jarraipenak sei hilean behin eginen dira adopzioa eratu ondoko bi urteetan, eta bermaturik egonen da urtean behin bisitan joatea etxera. Epe horiek laburragoak izan daitezke ezaugarri bereziak dituzten adingabeen kasuan eta adopzio proposamenak alde aurreko eskaintzarik gabe egiten direnean.

4. Atzerrian adoptatutako adingabekoen jarraipen elkarriketak egiteko, arau hauek beteko dira:

a) Familia adoptatzaileak beharturik egonen dira horiek egiten laguntzera, bai eta adingabeen jatorrizko herrialdera bidaltzera ere jarraipenen ondorioz sortzen diren txostenak, jatorrizko herrialdeko agintaritzak eskudunak eta/edo adingabeen babesaren arloko eskumena duen erakunde publikoak ezartzen duen pautak eta aldizkakotasuna betez.

b) Jarraipen elkarriketak Nazioarteko Adopzioarako akreditazioa duten erakundeek, prozeduretan parte hartu dutenek, egiten dituzte, edo horretarako alde aurretik baimena jaso duten beste erakunde batzuek. Elkarriketa horiek adopzioa egin dutenen etxean egiten dira.

c) Erakunde akreditatu baten bidez egin ordez, protokolo publiko baten bidez egin diren nazioarteko adopzioen kasuan, erakunde publikoak bidaliko ditu zuzenean jarraipen txostenak jatorrizko herrialdera. Informazio guztia profesionalak itzuli beharko dute, eta familiek bere gain hartu itzulpen horren gastuak eta beharrezkoak diren beste guztiak.

d) Adingabearen jatorrizko herrialdeak eskatzen ez badu ere jarraipen elkarriketarik egiterik, egin egiten dira, adingabeak eta familiak elkar hartzeko prozesuan ebaluazioa egin eta laguntza emateko xedearekin. Kasu horretan, elkarriketak egin beharko dira familia-nukleo berrira iritsi eta 6 hilabetera, urtebetera eta bi urtera, baina pautak hori aldatzen ahalko da justifikatzen duten argudio teknikoak egonez gero.

5. Jatorriaren bilaketarako ekintzek printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Adoptatutako pertsonaren ekimen askatasuna bere jatorria ezagutzeko. Adingabeen kasuan, beren gurasoek behar bezala ordezkatuta egin beharko dute.

b) Konfidentziasuna eta sekretu profesionala: adopzio espedienteetan bildutako datuak isilekoak dira, eta erakunde publikoak horrela aritu beharko du arlo honetan, eta neurri egokiak hartu, daukan informazioari eta informazio hori dagoen fitxategi edo erregistroei tratamendu konfidentziala ematen zaiela bermatzeko, intimitaterako eskubidea aplikatuz, datu pertsonalen babesari buruzko araudian jasotako baldintzetan.

6. Erakunde publikoak ziurtatu behar du haur edo nerabeen jatorriari buruz duen informazioa eta haien bizi-historia gordetzen dela, bereziki gurasoen identitateari buruzko informazioa, haien eta haien familien osasun historia eta jarduketetan bildutako dokumentazio guztia. Informazio hori berrogeita hamar urtez gorde beharko da gutxienez, adopzioa behin betiko bihurtzen denetik aurrera. Informazioa gordeko da soilik adoptatutako pertsonak baliatu ahal izan dezan hurrengo paragrafoan aipatzen den eskubidea.

Adoptatutako pertsonak, adin-nagusitasunera iristen direnean edo adingabeak direnean haien legezko ordezkarien bidez, eskubidea dute beren jatorriari buruz erakunde publikoek dituzten datuak ezagutzeko, horrek galarazi gabe jatorrizko herrialdeetako legeria dela-eta egin daitezkeen mugak, nazioarteko adopzioaren kasuan.

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

Eskubide hori betetzeko, erakunde publikoak eskatuko ditu adoptatutako pertsonaren edo haren jatorrizko familiaren txosten eta aurrekari guztiak, beharrezkoak direnak, eta eskaera jasotzen duen erakundeari ohartaraziko dio eman egin behar dituela, indarreko araudian xedatutakoarekin bat.

Eginkizun horiek betetzeko, datu pertsonalen tratamendurako eta lagapenerako ez da titularraren baimenik behar, baina erakunde publikoa ahaleginduko da lortzen posible den guztietan eta, lagatzeko kontrako jarrera espresua dagoenean, adoptatuari baizik ez dizkio komunikatuko, edo beste batzuei, disoziazio prozedurak bete ondoren, datu pertsonalen babesari buruzko araudiarekin bat.

Edozein erakunde publiko nahiz pribatu beharturik dago ematera erakunde publikoari eta Fiskaltzari, eskatzen zaizkionean, haur edo nerabeari eta haren jatorrizko familiari buruz beharrezkoak diren txostenak eta aurrekariak. Zehazki, nazioarteko adopzioan bitartekari izan diren organismoek informazioa eman beharko diete erakunde publikoei haur edo nerabearen jatorriaz dituzten edo herrialdean biltzen dituzten datuei buruz.

Eskubide horren erabilera zehazki nola gauzatu eta erakundeei informazioa eskatzeko modua ere erregelamenduz zehaztuko da.

7. Jatorria ezagutzeko aholku eta laguntza emateko jarduketa teknikoan helburua izan den adoptatutako pertsonak ezagutzea bere babes espedientean eskura dauden datu garrantzitsuak eta erraz diezaiotela bere historia pertsonala erakitzea eta prestatzea eta hartaz jabetzea modu egokian, alderdi horrek pertsonarentzat berebiziko garrantzia duelakoan.

Jatorriak ezagutzeko aholku eman eta bitartekaritza egiteko jarduketak hauek dira:

- a) Informazioaren berri izateko prozedurari buruzko alde aurreko informazioa.
- b) Entitate publiko eta pribatuei informazioa eskatzea.
- c) Espedientean haren jatorriaz dagoena ezagutu eta transmititzea erraztea, bai eta, bidezkoa bada, beste pertsona batzuei eragiten dieten datu pertsonalen disoziazioa ere.
- d) Bidezkoa denean, Nafarroako Adopzioen Erregistroan dauden idazpenei eta haien edukiei buruzko informazioa ematea, noizbait ere haren familia biologikoko kide batek edo beste pertsona garrantzitsu batzuek eskatutako adierazpenak direnean.
- e) Haren jatorriari buruzko datuen berri ematea, eskatutako jardueraren emaitza direnean, datu horiek haren identitate pertsonalari dagokion mota orotako informazioa dela ulertuta.
- f) Ukitutako gurasoei jakinaraztea adoptatutako pertsonak egin duen eskaera, eta eskatutako aholku eta laguntza zerbitzuak ematea, datuak komunikatu aurretik.
- g) Beharrezkoa bada, gurasoak eta ahaide biologikoak aurkitzeko lanak kudeatzea, kasuaren arabera, eskatzaileak adierazten badu interesa duela haiek ezagutzeko eta haiekin egoteko.
- h) Sostengu psikologikoa eta soziala, datuen berri emateak eragin dezakeen inpaktu emozionala arintzeko eta jatorrizko errealitatean interesa duen pertsonaren espektatibak lantzeko.
- i) Informazioa aurrez aurre transmititzea adoptatutako pertsonari. Adingabeen kasuan, alde aurretik bilera bat eginen da adopzio gurasoekin, garrantzitsua izan daitekeen informazioa eskatzeko.
- j) Aldeen arteko elkartzeta, bi aldeak ados badaude, gertatzen bada, eta prestatzeko saioak egitea aurretik nahiz ondoren, behar diren guztiak.

k) Jatorria ezagutzeko eskubidea gauzatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak.

8. Akonpainamendua egiteaz arduratzen den talde teknikoak prestakuntza eta esperientzia egokiak izan behar ditu arlo psikologikoan, sozialean, bitartekaritzan, adopzioan eta artxiboen bilaketan, prozeduraren helburuak betetzen direla bermatzeko, eta, halaber, ezagutza juridiko nahikoa datu pertsonalen babesaren eta filiazioaren arloetan.

### **152. artikulua. Nafarroako Adopzioen Erregistroa.**

1. Nafarroako Adopzioen Erregistroa adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuari atxikirik dago, eta kudeaketarako bitarteko publiko bat da, sarrera mugatukoa, barne antolamenduan ataletan egituratua. Adopzioei buruzko datuen inskripzio, kontrol, inbentario eta mantentze lanak betetzen ditu. Erregistroko langileak eta hartaz arduratzen den agintaritzak beharturik daude konfidentzialtasuna gordetzera egiten diren inskripzioez.

2. Ondoko atal hauek ditu:

1. atala. Adopzio nazionalerako eskaerak.

2. atala. Adopzio nazionalaren eskatzaileak, egokitasunaren deklarazioa dutenak.

3. atala. Nazioarteko adopzioerako eskaerak.

4. atala. Nazioarteko adopzioaren eskatzaileak, egokitasun ziurtagiria dutenak.

5. atala. Adoptatuak izateko egoeran dauden adingabe baloratuak.

6. atala. Adopzioa helburua duten zaintza eskuordetze formalizatuak eta adopzio nazionalak, auto judizial irmoaren bidez eratuta daudenak.

7. atala. Nazioarteko adopzio eratuak.

8. atala. Adoptatutako pertsonen eskaerak, jatorria bilatzeko.

9. atala. Adopzioaren ondoko aholku, esku-hartze eta laguntza eskaerak adingabe eta familientzat.

10. atala. Familia biologikoaren eta beste pertsona garrantzitsu batzuen adierazpenen inskripzioa.

3. Ataletako informazioa eta inskribatzeko modua erregelamenduz garatuko da.

4. Erregistroan sartzeak ez du esan nahi aitortzen zaienik inskribatutako pertsonen adingabe bat kontzeptu horretan benetan emateko eskubidea. Erregistroko inskripzioak eta idazpenak interesdunei ematen dieten eskubide bakarra da inskribatzeko eman behar diren ekintzak eta datuak garbi islatuta geratzekoa.

3. Azpiatala. Adopzio irekia eta adopzioa helburu duen zaintza eskuordetzea

### **153. artikulua. Adopzio irekia.**

1. Adopzio irekia lehenetsiko da beti, baldin eta erantzuten badio babestutako pertsonaren interesari, batez ere posible denean neurri horren bidez faboratzea lotura bateko edo biko anai-arreba biologikoen arteko harremana; erabakitzen ahalko da harreman edo lotura motaren bat atxikitzea, bisita, komunikazio edo harremanetarako beste modu batzuk erabiliz adingabearen, kasuko jatorrizko familiako gainerako kideen eta adopzio familiaren artean.

2. Adopzio irekiak babestutako pertsonaren interesari erantzuten dion zehazteko, babeserako erakunde publikoak kontuan hartuko du, hori ulertzeko eta ponderatzeko irizpide orokorrez gain, atxiki beharreko harremanek pertsona horrentzat duten

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

garrantzia afektiboa, ematen dioten segurtasun emozionala eta horiek atxikitzeak epe luzera izan ditzakeen ondorioak haren nortasunaren garapenean eta adopzio familian lotura eta integrazioa lortzeko prozesuan.

3. Adopzio irekirako hautatuko dira soilik beren adopzio proiektuan halakoa berariaz jasotzen dutenak eta horretarako egokitasunaren deklarazioa jaso dutenak.

4. Agintaritzak judizialean aurkezten den adopzio irekirako proposamenean zehaztuko dira jarraibide orokorrak, adoptatu beharreko pertsonarentzat onuragarri jotzen direnak harremanaren maiztasunaz, iraupenaz, modalitateaz eta baldintzez.

5. Erakunde publikoak eginen du sustatzen dituen adopzio irekien jarraipena, eta esku hartuko du bultzatzeko harremanak eta loturak modu egokian garatzen direla eta familian integratzeko prozesuaren arrakasta, inplikaturakoei behar duten laguntza eta aholkua emanez. Erregelamenduz zehaztuko dira horretarako jarduketak, harremanetan bitartekari lanak egiteko baldintzak eta prozedura, beharrezkoa bada, eta eskatzen diren txostenen edukia.

### **154. artikulua. Adopzioa helburu duen zaintza eskuordetzea.**

1. Adopzioa helburu duen zaintza eskuordetzeari buruzko ebazpen bat eman aurretik eta familiak onartu ondoren, adingabearen eta hautatutako familiaren arteko harremana egiten lagunduko da, adingabea bere familia-nukleo berriarekin ongi etor dadin prestatzeko eta egokitzeke. Horretarako, adopzioaren talde teknikoak, adoptatu beharreko adingabearen babeserako banakako planean oinarrituta, banakako proiektu bat diseinatuko du prestatetarako eta adingabea eta familia-nukleo berria bat etortzeko, kontuan hartuz adingabearen adina eta haren berezitasun pertsonalak.

2. Adopziorako talde teknikoak bat etortzeko prozesua gainbegiratzeari egiaztatzen bada zailtasun nabarmenak daudela, edo egokitasunarekin bateraezinak diren aldagai psikosozialak daudela familian, balorazio batzordeak, emandako txostenak aztertu ondoren, egokitasuna berrikusteko proposamena egiten ahalko du.

3. Familian sartu eta harekin bat egiteko prozesua ongi garatzen denean, erakunde publikoak ebazpena emanen du, adopzioa helburu duen zaintza eskuordetzeko; ebazpenean hau jaso beharko da:

a) Jatorrizko familiarekin bisita araubidea etetea, erakunde publikoak ahalmen hori lehenago erabili ez badu.

b) Guraso erantzukizunaz gabetzeko prozesua, bidezkoa bada.

c) Adingabearen behar bereziak, halakorik bada.

d) 113. artikuluan jasotzen diren kasu berezietako bat izatea.

4. Ebazpen hori gurasoei, tutoreei eta zaintza dutenei jakinarazi beharko zaie. Era berean, ebazpen hori Fiskaltzari komunikatu beharko zaio eta, atzerriko adingabeen kasuan, zein estatu edo herrialdetako nazionalak diren, hango kontsul-agintaritzari.

5. Adingabe baten adopzioa helburu duen zaintza formalizatu ondoren, Adopzioen Erregistro Orokorrean dagokion atalean inskribatuko da.

6. Adingabearen interesa zaintzeko, erakunde publikoak akonpainamendua eta jarraipenak eginen ditu, adingabea familia berrian nola integratzen den baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituenak. Horretarako, adoptatua izateko egoeran dagoen pertsonaren babeserako banakako planean oinarrituta, familiako akonpainamendu plan bat prestatuko da, familiari aurkeztuko zaiona, jarraipen horien edukia eta maiztasuna

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

zehaztuta, adingabea bere errealitate familiar eta sozial berrian egoki garatu eta egokitzen den egiaztatzeko, eta, horretarako, koordinatu eta bideratu beharko dira hezkuntza, osasun eta gizarte sistemekin.

7. Adopzioa helburu duen zaintza egoeraren indarraldian eta adopzio proposamena epaitegi eskudunak ebatzi arte, Administrazioak zainduko du pertsona edo familia horiek prozedura judizialaren tramitazioari buruzko informazio egokia jaso dezaten.

### **V. KAPITULUA**

#### **Arreta espezializatua jokabide arazoengatik**

##### **155. artikulua. Kontzeptua.**

Babes sistemaren parte izanen dira Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak egokitzeko ezintasun larriaren egoera dela-eta adingabeen arazoen aurrean betetzen dituen jarduketak, adingabe horiek bere buruari edo beste pertsona batzuei kalte egiteko arriskuan egon daitezkeenean eta jarduketa horien helburu nagusia denean haiek gizarteratzea, banakako hezkuntza edo terapia tratamendu baten bidez eta, ahal dela, haien ingurune soziokomunitarioan, denboraldi zehatz baterako.

##### **156. artikulua. Jarduteko neurriak.**

1. Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak, halako arazoen aurrean, laguntzeko neurriak hartuko ditu, hala nola:

a) Orientazioa eta jarraipena. Horien funtsa izanen da hezkuntza programa espezializatu bat egitea, esate baterako lan komunitarioko zereginak edo lan boluntarioa edo, hezkuntza eta prebentzio arloan, adikzioen biktimei arreta ematen dieten zentroetara bisitan joatea.

b) Lanean hasi aurreko lanerako prestakuntza ematea, oinarri duena lanerako prestakuntza lantegietan eta lanean hasi aurreko laneratze tailerretan aktiboki parte hartzea.

c) Gizarte, hezkuntza edo terapia arloetako arreta espezializatua. Horretarako, gabezia nabarmenak atzeman ondoren, profesionalen esku-hartzea onartu beharko dute. Neurri horrek adingabeak zentro espezializatu batean sartzeko aukera ematen du. Hala eta guztiz ere, zentro espezializatu batean sartzeko beti planteatuko da beste neurri batzuek -esate baterako, familia-hezkuntzako profesionalen esku-hartzea, familiako terapia eta abar- porrot egin ondoren edo posible izan ez direnean.

2. Aurreko neurriak gauzatzeko, adingabeek eta haien familiek beren borondatez hartutako konpromisoa eduki beharko da, parte hartzekoa.

3. Konpromisorik ez badago, Foru Komunitateko Administraziooko organo eskudunak organo judizialari baimena eskatzen ahalko dio. Fiskaltzari jakinaraziko dio.

## **VI. KAPITULUA**

### **Egonaldietarako, asteburuetao irteeretarako eta oporretarako zaintza eskuordetzea**

#### **157. artikulua. Egonaldietarako, asteburuetao irteeretarako eta oporretarako zaintza eskuordetzea.**

1. Harreran dagoen adingabearen integrazio pertsonala eta soziala faboratzeko, harrera egiten duen pertsonari edo familiari haren zeregina betetzen laguntzeko, edo haren onurarako komeni denean beste arrazoi batzuegatik, erakunde publikoak erabakitzen ahalko du, familia edo egoitza harreran dagoen adingabeari dagokionez, egonaldiak, asteburuetao irteerak edo oporraldiak egitea eginkizun horietan aritzen diren familia edo instituzioekin.
2. Horretarako, adingabearen beharretarako egokiak diren pertsonak edo instituzioak besterik ez dira hautatuko. Haur edo nerabearekin aldizka irteerak egiten dituen familiak erakunde publikoak emandako egokitasun ziurtagiria izan beharko du.
3. Hautatu den pertsona edo familiaren eta neurriaren xede den adingabearen adostasuna lortu ondoren, adingabeak nahikoa heldutasun badu edo, kasu guztietan, hamabi urte baino gehiago baditu, profesionalen talde teknikoak txosten bat igorriko du zaintza eskuordetzea proposatuz, zein den hautatutako pertsona edo familia adierazita, dagokion ebazpena emateko.
4. Edonola ere, ematen den txostenari erantsi beharko zaizkio zaintza eskuordetzen zaion pertsona edo familiaren eta erakunde publikoaren arteko akordioak, zeinetan jasoko baita adingabearen ongizatea ziurtatzeko beharrezkoa den informazio guztia, arreta berezia emanez administrazioak edo epaileak hartutako neurri murriztaileei.
5. Zaintza eskuordetzea onartzen duen ebazpen administrazioak ezarriko du zein esparrutan proposatzen den, eta komunikatuko zaie Fiskaltzari, guraso erantzukizuna edo tutoretza kenduta ez duten gurasoei edo tutoreei, eta, kasua bada, harrera egiten duten pertsona edo familiei ere. Pertsona edo familia horien datuak babestuko dira hala egitea komeni denean adingabearen onerako edo zilegi den arrazoiren bat dagoenean.
6. Egokitasun deklarazioa duten familiek, adingabe baten zaintza eskuordeturik dutenek egonaldietarako, asteburuetao irteeretarako edo oporraldietarako, araudian aurreikusitako akonpainamendu teknikoak eta sostengua jasoko dituzte.

## **VII. KAPITULUA**

### **Autonomiarako eta bizimodu independenterako prestatzeko programak**

#### **158. artikulua. Kontzeptua eta edukia.**

1. Bizimodu independenterako prestatzeko programa da babes neurri batean, bereziki egoitza harreran edo zaurgarritasun bereziko egoeran, dauden adingabeei, 16 urte baino gehiago dituztenei, egiten zaien jarraipen pertsonalizatua, adin-nagusitasunera iritsi baino bi urte lehenagotik edo horretara iritsi ondoren, baita adin nagusikoei ere, neurri administrazio edo judizialen bat ezarria izan dutenean; jarraipen hori profesionalak egiten dute denboraldi zehatz batean, erregelamenduz zehazten den bezala, prestakuntzarako konpromiso edo programa baten bidez, heziketa beharrak asetzeko, pertsona horien gizarteratze eta laneratze progresiboak, haien independentzia eta,

egoitza nahiz familia harrera bukatutakoan, bizimodu independenterako beharrezkoak diren autonomia sozial eta pertsonalerako gaitasunak lortzeko.

2. Bizimodu independenterako prestatzeko programek sostengu eta jarraipen pertsonalizatua eman beharko dituzte, zeinak, gazteak bere garapen pertsonalerako, gizarteratzeko eta laneratzeko dituen beharren arabera, ematen ahalko baitio gizarte eta hezkuntza arloko akonpainamendua, laguntza psikologikoa, akonpainamendua kudeaketa ekonomikoan eta ostatua izateko, gizarteratzea eta laneratzeta eta laguntza ekonomikoak. Arreta berezia emanen zaie desgaitasuna duten pertsonen behar espezifikoei.

### **159. artikulua. Jarduketak**

1. Autonomia pertsonalerako edo bizimodu independenterako prestatzeko programetan aurreikusten ahalko da dirulaguntzak ematea bertan parte hartzen duten adingabeei. Laguntza horiek zuzenean gainbegiratu dituzte kasuaz arduratuko diren langileek eta ordainduko dira programa garatzeko komeni den moduan eta erreferentzia gisa hartuta ohiko gastuei eta gastu bereziei buruz Foru Berrian ezarritakoa.

2. Programa horietan sustatuko da erreferentziako pertsonak edo mentoreak egotea, harrera ahaideak barne, hala eskatzen dutenei bizimodu independenterako prestatzeko prozesuan akonpainamendua edo sostengu puntuala eman dezaketanak; erreferente horiei adieraziko zaie adin nagusikoak ere adoptatzeko aukera dagoela, Foru Berriaren 59. legearekin bat.

3. Hamasei urte bete dituzten adingabeek eta, arrisku egoeratik, babesgabetasun egoeratik edo jokabide arazoengatik babeserako edo jarduketa judizialen baten xede izan diren adin nagusikoek eskatzen ahalko dute bizimodu independenterako prestatzeko edo autonomia pertsonaleko programa batean parte hartzea. Edonola ere, programa pertsona horien beharretara egokitzeko, erakunde publikoaren balorazioa eta onarpena beharko dira beti.

4. Bizimodu independenterako prestatzeko programa abian jarri aurretik, adingabearen edo adin nagusikoaren konpromisoa jasoko da, bere borondatez aktiboki parte hartzeko, programan dagoen bitarte osoan mantendu beharko duena, hura ez betetzeak programatik bazterturik gelditzea ekartzen ahalko baitu.

5. Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunak lankidetzta hitzarmenak edo itunak izenpetuko ditu beste administrazio batzuekin eta erakunde publiko eta pribatuekin, programa horietan laguntza jasotzen duten adingabeei laneratzeko laguntzeko. Horretarako, administrazioek eta erakundeek gazteen lan trebakuntzarako eta gazteentzako enplegurako neurriak eta deialdiak diseinatzean, babes neurriren bat ezarria izan duten gazteak sartzeta faboratuko da, bai eta bizimodu independenterako prestatzeko programa horietan egon diren gazteak ere, sartzeko baldintzetan diskriminazio positiboa aplikatuz.

6. Erakunde publikoak gazte horien laneratzearan alde egingen du, eta egiten dituen kontratu edo itun sozialetan adjudikaziorako irizpide edo exekuziorako baldintza sozial gisa erabiliko du. Ekintza positiboko neurriak ezarriko dira, gizarteratze eta laneratzeta programetako gazteak sartzeta eta baliatze sustatuko dutenak.

7. Erakunde publikoaren tutoretzapean dauden adingabeak, adin-nagusitasunera iritsi ondoren ere, alokairurako eta etxebizitza eskuratzeko laguntzen onuradunak izaten

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

ahalko dira lehentasunez, bizimodu independenterako prestatzeko programa horiek osatzeko helburuarekin. Era berean, arretarako lehentasunezko gizataldea izanen dira oinarrizko osasun laguntzako gizarte zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen gizarteratze eta laneratze programa eta neurrietan.

8. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere departamentuen bitartez, sustatu eta erraztuko du bere tutoretzapean egondako ikasle gazteek ikasketa eta lanbide prestakuntzan sartzea eta hura jasotzea, diskriminazio positiboa aplikatuz ikasketa horietan sartzeko, tasen eta matrikulen ordainketaren salbuespena eta bekak eskuratzeko lehentasuna izateko, halako moldean non ziurtatzen ahalko baita tutoretzapean egondako pertsonak prestakuntza jasotzen jarraitu ahal izatea adin-nagusitasunera iritsi ondoren ere, adin horretako edozein gaztek bezala, eskubide horri uko egin gabe familia testuingururik eta autonomia ekonomikorik ez izateagatik.

9. Bizimodu independenterako prestatzeko programetan aurreikusten diren jarduketek erabiliko dituzte, ahal den guztietan, populazioari oro har, gazteei, edo bazterketa arriskuan daudenei zuzendutako baliabide orokorrak, babeserako erakunde publikoaren laguntza edo prestazioekin osatuz.

10. Programa hauetako jarduketak genero ikuspegiarekin gauzatuko dira.

11. Programa horietan parte hartzen dutenak desgaitasuna duten gaztean direnean, jarduketa guztiak eginen dira haien autonomia pertsonala faboratzeko behar dituzten doikuntzekin.

## **V. TITULUA** **JARDUKETAK GAZTEENTZAKO JUSTIZIA SISTEMAN**

### **160. artikulua. Gazteentzako justizia sistemaren menpe dauden adingabeak.**

1. Gazteentzako justizia sistemaren menpeko adingabeak dira Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aipatzen direnak, bersozializaziorako eta gizarteratzeko neurriak behar dituztenak.

2. Organo jurisdikzionalak ezarritako neurriak betetzearen esparruan egiten den esku-hartzea gehienbat hezkuntza arlokoa izanen da eta haren helburua adingabearen garapen integrala eta gizarteratzea eta familian integratzea lortzea izanen da.

3. 14 urte baino gutxiago dituztenean, foru lege honen III. eta IV. tituluetan aurreikusitako prebentzio eta babes neurriak sustatuko dira.

### **161. artikulua. Gazteentzako justiziaren arloko eskumenak.**

1. Foru Komunitateko Administrazioari dagokio adingabeen jurisdikzioa arautzen duten estatuko arauak betetzeko adingabeen epaitegiek harturiko neurriak betearaztea.

2. Epaileen ebazpena Foru Komunitateko administrazioako organo eskudunari jakinarazi ondoren, berak neurriak betetzeari dagozkion kontu zehatzak erabakiko ditu, ebazpen hartan xedatzen denarekin bat.

3. Halaber, Foru Komunitateko Administrazioako organo eskudunari dagokio Fiskaltzak edo adingabeen epaitegiek arau-hausleei buruz igortzen dizkieten kasuak baloratzea, jurisdikzio horretan espediente irekitzea bidezkoa ez denean, largestea erabakitzen denean edo arloa arautzen duten legeetan aurreikusiriko gainerako kasuetan. Orduan, aplikatzekoak diren neurri eta jarduketa administratiboak zehaztu eta betearaziko ditu.



4. Horretarako, aurreko apartatuetan aipatzen diren eginkizunak betetzeko behar diren zerbitzu, erakunde eta programak sortu, antolatu, kudeatu, ikuskatu, kontrolatu eta haien zuzendaritza-lana egitea ere hari dagokio.

### **162. artikulua. Neurriak betearaztea zuzentzen duten printzipioak.**

Neurri judizialak betearaztean Foru Komunitateko Administrazioaren jardunbidean indarra izanen duten printzipioak, Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan ezarritako printzipioak galarazi gabe, honakoak izanen dira:

- a) Neurria betearazteko prozesuan, zainduko da adingabeen interesak eta aitortzen zaizkien eskubideen errespetuak lehentasuna izan dezaten.
- b) Neurri horiek aplikatzean, hezkuntzaren arloko edukia eta helburuak izanen dira nagusi.
- c) Neurriak materialki betearaztean, zainduko da ahalik eta denbora laburrena pasa dadin jakinarazten denetik egiazki betetzen den arte.
- d) Esku-hartzea bana-banakoa izanen da eta, ikuspegi integral batetik, adingabe bakoitzaren behar eta inguruabarrak hartuko ditu kontuan eta bateragarria izanen da haien intimitatearekin eta nortasunarekin; horrez gain, eskatuko du haiei entzuna eta aditzea, eta, haien adinaren eta haien heldutasunaren arabera haien iritziak eta haien nahiak aintzat hartzea.
- e) Adingabeen garapen pertsonala sustatuko da, eta autonomia eta beren buruekiko erantzukizuna bultzatuko.
- f) Ahal denean arreta emanen zaie zerbitzu orokorren bidez. Ahaleginak eginen dira egoki den familiar eta gizarte-ingurunean geldi daitezen edo hara itzuli daitezen, berezkoa dutenari lehentasuna emanez.
- g) Adingabeak gizarteratzeko prozesuan familiaren, beren ingurune hurbileko pertsonen eta helburuen artean jarduera hori duten instituzio eta erakunde publiko eta pribatuen parte-hartzea eta lankidetzat bultzatuko dira. Erregelamendu bidez ezarriko dira horiek gauzatzeko bideak, eta familiei komunikatu zaie laguntza eman behar dutela, horren gaineko sentsibilizazioa ere landuz.
- h) Jarduketak, murriztaileak diren heinean, esku-hartze txikienaren printzipioak gidatuko ditu. Adingabeei miaketak egitea mugatuko da ezinbesteko premia dagoen kasuetara, segurtasun arazoiek eraginda, eta, eginez gero, Adingabearen Erantzukizun Penal arautzen duen Lege Organikoan eta hura garatzen duen araudian ezarritako bermeak bete beharko dira.

### **163. artikulua. Neurriaren ondoko laguntza eta jarraipen jarduketak.**

Organo jurisdikzionalak edo administrazioak ezarritako neurria bukatu ondoren, gizarteratzea burutzeko laguntza behar duten adingabeei Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunak orientazio eta/edo sostengu jarduketak eskainiko ditu, gizarteratzen eta gizartearekin egokitzen laguntzeko ekintzak luzatzen dituztenak; horietako bat izanen da bizimodu independenterako prestatzeko programetan sartzea, foru lege honen 158. artikuluan aipatzen diren horietan.

### **164. artikulua. Neurriak betearaztea eta horretarako esparrua.**

1. Erregelamendu bidez, adingabeen jurisdikzioa arautzen duen Estatuko legeriaren barruan organo judizialek hartzen dituzten neurriak betearazteko modua arautuko da.
2. Adingabeen epaitegiak ezarritako neurriak materialki betearaziko dira edukiaz, iraupenez eta helburuez ebazpenean xedatuarekin bat, eta indarra duten legeek agindu bezala; Foru Komunitateko Administrazioak zerbitzuak izanen ditu Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako neurri guztietarako.
3. Adingabeen onerako, neurriak betearazteko osagarri gisa, foru lege honetan aipatzen diren beste jarduketa batzuk ere egiten ahalko dira, familian egoki integratzen direla bermatzeko.
4. Gurasoen edo legezko ordezkarien erantzukizun zibil solidarioaren ondorioetarako, kontuan hartuko dira Adingabeen Erantzukizun Penal arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan aurreikusitako irizpideak.

### **Lehen Xedapen Gehigarria. Estigmatizazioaren prebentzioa.**

Foru lege honetan bezala, ahalegina eginen da adingabeak ez sailkatzeko izenekin, BDA erabiliz (erdaraz MENA), adibidez, edo gatazka edo zailtasun sozialekin, erreferentzia sozial eta pertsonal negatiboa eragin dezaketelako. Horrek ez du galaraziko haien beharrei babes sistematik heldzea; bereziki zainduko da hitz egiteko modua nazioan nahiz nazioartean adoptatutakoekin, migratzaileak, atzerritarrak edo beste jatorri batzuetakoak direnean.

### **Bigarren Xedapen Gehigarria. Publizitatea eta telebistako nahiz beste ikus-entzunezko komunikabide batzuetako programazioa.**

Adingabeak publizitatetik eta telebistako nahiz ikus-entzunezko beste komunikabide batzuetako programaziotik babesteari dagokionez, haien garapenerako kaltegarria izan daitekeenean, sustatuko da ezagutu daitezzen aplikatu beharreko babes indartuko debekuak, mugak eta ordutegiak, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Legean ezarri bezala.

### **Hirugarren Xedapen Gehigarria. Haurren Eguna.**

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitatean Haurren Egunaren ospakizuna bultzatuko du urtero, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak hautaturiko egun berean, eta baliatuko du harrera familien eta adingabeentzako arreta eta babesaren arloko langileen inguruko zabalkunde, sentsibilizazio eta balioespen ekintzak egiteko.

### **Laugarren Xedapen Gehigarria. Foru lege honen sustapena.**

Foru lege honetako xedapen guztiak ahalik eta gehien ezagutzeko eta oso-osorik betetzeko, eta horiek betearazteko jarduketan eraginkortasunik handiena lortzeko, Nafarroako Administrazio Publikoek bultzatuko dute lege hau ahalik eta gehien zabaldu dadin eta ahalik eta sentsibilizazio handiena lor dadin adingabeen, orokorrean, eta zehazki babes sistemaren inguruan dauden arazoez, bereziki adingabeen eta haien familien artean eta legean aipatzen diren esparruetan diharduten profesional, erakunde

## §2.6.- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa

eta instituzioen artean; bultzatuko du, halaber, pertsona eta erakunde horien lan sozialaren balioa nabarmentzea eta, batez ere, harrera familiaena.

### **Bosgarren Xedapen Gehigarria. Garapenerako lankidetzak.**

1. Garapenerako lankidetzaren esparruko dirulaguntzak banatzean, haurren arretari eta babesari zuzendutako proiektuei lehentasuna emanen zaie, Nafarroako Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 5eko 5/2001 Foru Legean aurreikusitako baldintzekin.

2. Nafarroako Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 5eko 5/2001 Foru Legean arautzen diren jarduketei dagokienez, horien oinarrian den elkartasun printzipioa eta Haur eta Nerabeen Eskubideak aitortu eta bermatzeko erantzunkidetasuna direla eta, dirulaguntzak baloratzean aintzat hartuko dira laguntzen hartzaile diren herrialdeetan adingabeen bizi baldintzak hobetzea sustatzen duten lankidetzak ekintzak; horrez gain, proiektu horietan ziurtatu beharko da bat datozela Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartutako Haurren Eskubideen Konbentzioarekin. Nafarroako Administrazio Publikoek, haur eta nerabeei babes eta arreta emateko eskumenak dituzten unitate administratiboek bitartez, lankidetzak teknikoko proiektuetan parte hartzen ahalko dute, haien helburua denean Nafarroako lankidetzaren bazkide diren herrialdeetako babes eta arreta sistemetak gaitasunak sendotzea.

### **Seigarren Xedapen Gehigarria. Ikasketak direla-eta aldi baterako Nafarroako familiek hartzen dituzten atzerritar adingabeak.**

Ikasketak direla-eta aldi baterako Nafarroako familiek hartzen dituzten atzerritar adingabeei foru lege honetan jasotako eskubide guztiak aitortzen zaizkie.

Ikasketak direla-eta aldi baterako atzerritar adingabeak hartzen dituzten pertsona edo familiek adingabeen arretaren eskumena duen departamentuaren baimena izan beharko dute nahitaez. Gobernuak aipatu baimenaren tramitazioa erraztu eta soilduko du, bere eskumenen barruan.

Ikasketak direla-eta aldi baterako atzerritar adingabeak hartzen dituzten pertsona edo familiek eskubidea dute beren eskakizunak Foru Administrazioan entzunak izan daitezen, bai bakarka eginikoak bai jada errotutako elkarten edo sor litezkeen beste batzuen bidez eginikoak.

Foru Gobernuak aztertuko du adingabe horiek Nafarroako etxeetan urtean zehar emandako denbora aintzat hartzeko aukera hartzen dituzten familien ondorio fiskalagarako.

Adingabe horiek hartzen dituzten pertsona edo familiek hartutako adingabearen ongizateaz eta interes gorenez arduratzeko betebeharra dute, bai eta ondoan izan, elikatu, hezi eta heziketa integrala ematekoa ere, ingurune afektibo batean, harrerak irauten duen bitartean.

### **Zazpigarren Xedapen Gehigarria. Planak Nafarroako Parlamentura igortzea.**

Nafarroako Gobernuak Parlamentuari helaraziko dizkio onesten dituen haur eta familia arloan onesten dituen plan orokorrak, horien berri izan dezan.

### **Lehen Xedapen Iragankorra. Zentroen kalitate-estandarrik.**

133. artikuluari jarraikiz, adingabeentzako zentroetarako kalitate-estandar espezifikokoak ezartzen ez diren bitartean, erabiliko dira horietan abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuaren III. eranskinean aurreikusitakoak; foru dekretu horrek, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen du adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte inklusioaren arloetan, eta, bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea.

### **Bigarren Xedapen Iragankorra. Printzipio etikoak.**

4.1 m) artikuluari jarraikiz, adingabeen arlorako printzipio etiko espezifikokoak ezartzen ez diren bitartean, erreferente gisa erabiliko dira abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuaren IV. eranskinean aurreikusitakoak; foru dekretu horrek, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen du adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen eta gizarte inklusioaren arloetan, eta, bestetik, baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea.

### **Hirugarren Xedapen Iragankorra. Haurren eta Nerabeen Nafarroako Kontseilurako izendapenak.**

Foru lege honek indarra hartzen duenean Nafarroako Adingabearen Kontseilurako egindako izendapenen gehieneko epea amaitu ez bada, Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseiluko kide izaten jarraituko dute Nafarroako Adingabearen Kontseilurako izendatutako pertsonak, izendapenaren gehieneko epea amaitu arte, eta foru lege honen 50. artikulua araberan sartu behar direnak izendatuko dira, azken izendapenetik 4 urtera arte geratzen den eperako.

### **Xedapen Indargabetzaile Bakarra**

1. Indargabetzen dira Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.
2. Foru lege honi aurka egiten ez dion guztian, indarrean dirau uztailaren 22ko 168/2002 Foru Dekretuak, nazioarteko adopzioaren gaietarako erakunde laguntzaileak arautzen dituenak.

### **Azken Xedapenetako Lehena. Artikuluaren izaera.**

1. 69.4, 71, 84, 85, 95, 96, 104, 105, 106.2, 106.3, 106.4, 106.6, 106.7, 107.1, 107.2, 107.3, 107.4, 107.5, 107.8, 107.9, 107.10, 108, 110, 111, 112, 119.1, 122.1, 130, 141 g), 142, 146.3, 147, 149.2 artikulua izaera zibilekoak dira eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren babesean ematen dira.
2. Gainerako artikulua Espainiako Konstituzioaren 148.1. Hogeigarrena artikulua eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 10., 14., 15., 17., 18., 19. eta 23. apartatuen eta 46., 47., 49.1.c) eta d), 53., 57. eta 58.1.b) artikuluen babesean ematen dira.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. Ordezko legeak.**

1. Gizarte laguntzaren arloan, foru lege honetan eta aplikatzekoak diren foru legeetan aurreikusirik ez dagoen guztian Estatuko legeak aplikatuko dira ordezko gisa.
2. Foru zuzenbide zibilaren arloan, Foru Berriaren 2. eta 6. legeetan xedatu bezala egingen da.

**Azken Xedapenetako Hirugarrena. Eskolatzea harrera eta adopzioetan.**

Eskolatzeari buruzko araudian jasoko dira, Estatuko oinarrizko araudian aurreikusitakoarekin bat, onarpen irizpideetan harreran dauden seme-alaben alde egiteko neurriak, biologikoentzat edo adopziokoentzat daudenen parekoak, bai eta berehalako eskolatzeko berantiarra bermatzeko neurriak ere, harrerak edo adopzioak eskolatzeko epe arrunta iragan ondoren eratzen diren kasurako.

**Azken Xedapenetako Laugarrena. Terminoen glosarioa.**

Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuko kontseilariak termino glosario bat onetsiko du, foru lege honetako terminologia garrantzitsuen ulertzen laguntzeko eta foru legeak indarra hartzen duenean zabaltzeko.

**Azken Xedapenetako Bosgarrena. Erregelamendu bidezko garapena.**

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken Xedapenetako Seigarrena. Indarra hartzea.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabetera hartuko du indarra.



## **§2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duena.**

### **HITZAURREA**

2006ko ekainaren 20an, Nafarroako Parlamentuak Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzko 7/2006 Foru Legea onetsi zuen, eta haren bidez gure lurralde historikoko herritarrei gai honi buruzko Nafarroako aurreneko arau orokorra eman zien. Izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikulua Foru Komunitateari eskumen osoa ematen dio kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloan, ezertan eragotzi gabe prezioei buruzko politika, Estatuko lurraldearen barneko ondasunen joan-etorri librea eta lehiaren defentsari buruzko legeria.

Kontsumitzaile edo erabiltzaileen babesa politika sozial eta ekonomikoa zuzentzen duen printzipio bat dela aurreikusirik dago Espainiako Konstituzioan, zeinak 51. artikuluan agintzen baitie botere publikoei babes hori berma dezatela, prozedura eraginkorren bidez haien segurtasuna, osasuna eta interes ekonomiko legitimoak zainduz.

Ildo berean, Konstituzioaren 53. artikuluan aurreikusten da babes horretan oinarritu behar direla legeria positiboa, jardunbide judiziala eta botere publikoen jarduketara. Finean, kontsumitzaile edo erabiltzaileen babesa Administrazio Publikoaren erantzukizuna da argi eta garbi, eta, beraz, Foru Administrazioarena ere bai.

7/2006 Foru Legea promulgatu eta indarra hartu zuenetik ia hamabost urte iragan direlarik, arrazoi asko daude arauaren aldaketaren beharra justifikatzeko, haren balioa eta eraginkortasuna babestearren; batetik, arauak jomuga duten errealitate soziala ere aldatu delako, eta bestetik, azken urteetan arau multzoa asko handitu delako, bereziki Europar Batasunean.

Nafarroako Parlamentuak berak, ordenamendu juridikoa berrikusteko ildo horretan, berriki eguneratu du Foru Berria, Nafarroako errealitate sozialera ireki eta hurbiltzeko, eta horixe da kontsumitzaile eta erabiltzaileen estatutua arautzen duen foru lege berriaren xede nagusia ere.

Foru Komunitate honek dituen eskumenen erabilera arduratsua eginez, eta Estatuko nahiz Europako arau-esparruaren barruan, helburua da ondasunen kontsumitzaileak eta zerbitzuen erabiltzaileak babesten dituen erregulazioa osatzea.

Garapen jasangarrirako helburuak direla eta, kontsumo arduratsua aintzat hartu eta sustatu beharra dago, eta horren baitan sartu elkarrekiko informazioaren kultura eta kontsumo ekintza orotan arduraz jabetzearen kultura, etorkizuneko belaunaldiak ingurune hobea izan dezaten, sozioekonomikoa nahiz ingurumenari dagokiona.

Gaur egungo kontsumo merkatua, neurri handi batean, teknologikoa da, eta gehienetan eskaintza webguneen bidez egiten da; etorkizunerako, gainera, pentsatzekoa da urrutitik edo saltokietatik kanpo egindako kontratazioen kopurua askoz gehiago handituko dela.

Foru arau hau sortzeko, herritar askorentzat egoera bereziki zaugarria ekartzen duten zailtasun ekonomikoko garaietan eskuratu den esperientzia baliatu da. Egoera horretan, pertsona horien babesa areagotu beharra dago, kontsumitzaile eta erabiltzaile diren aldetik, arrazionalizazio eta jasangarritasun arau eta printzipioak aplikatuz.

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

Ildo horretan, I. tituluak, "Xedapen orokorrak" izenburupean, hainbat gai orokor arautzen ditu, hala nola arauaren xedea eta irismena, kolektibo zaurgarrienen babes, plangintza –kontsumoko plan estrategikoa onartuz–, kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoak, eta administrazio publikoek kontsumo arduratsu eta jasangarria sustatu beharra, administrazioen arteko lankidetzaren bidez eta kontsumitzaileen parte-hartzearen bidez.

Foru lege berri honek kontsumitzaile eta erabiltzaileen egiazko estatutu baten izaera izanen du, eta, hala, II. tituluan haien eskubideak aipatu eta garatzen dira, honako hauek, besteak beste: haien osasuna edo segurtasuna konprometitu dezaketen arriskuen aurrean babestea; haien interes ekonomiko eta sozial legitimoak babestea; babes juridiko, administratibo eta teknikoak ematea prozedura eraginkorren bidez, batez ere gutxiagotasun, menpekotasun, babesgabezia edo diskriminazio egoeretan; eragindako kalte eta galeren egiazko konpentsazioa, ordaina eta ordainketa; kontsumoaren arloko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza eta haien interes orokorren ordezkaritza, legez eraturako kontsumitzaile edo erabiltzaileen erakundeen bidez.

II. tituluan, eskubide sorta bat aurreikusten da, eskubide sortu berriak deitzen direnak, haietako asko garapen jasangarriaren helburuekin bat datozenak, hala nola: garapen jasangarria sustatuko duen kontsumo arduratsurako behar diren baldintzak ekar ditzakeen ingurumen osasuntsua izateko eskubidea; elikagai burujabetzarako eskubidea, merkaturatze zirkuitu laburretan banatzen diren bertako eta sasoian sasoiko produktuen kontsumoarekin eta kontsumo arduratsuekin lotuta, elikagaiak eta oinarrizko baliabideak alferrik galtzearen prebentzioan oinarrituta; funtzionalitatea bermatzeko eskubidea, ondasun edo zerbitzu orotan espero den balio-bizitzaren zikloarekin bat; eta produkzio eta kontsumo eredu etiko eta jasangarrien bidez lortutako ondasunak edo zerbitzuak izateko eskubidea.

Babes juridiko eta administratiborako eskubidearen barruan, nabarmentzen da bezeroentzako arreta zerbitzuen erregulazioa eta keaxak, salaketak eta erreklamazioak egin eta tramitatzearena. Ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legean ez zen jaso erregulazio hori, eta, oraingoa, "bezeroentzako arreta zerbitzuak" arautzen dira, bi zuzentarau hauen edukia ekarriz: 2006/123/EE Zuzentaraua, barne merkaturako zerbitzuei buruzkoa, eta 2013/11/EB Zuzentaraua, kontsumoaren arloko auziak bestelako moduetan konpontzeari buruzkoa.

Bestalde, foru legeak eskubide horiek babesteko hainbat bitarteko jasotzen ditu, eta horien artean azpimarratzekoak dira gatazkak auzibidetik kanpo konpontzekoak eta merkatuaren zaintza.

Alde horretatik, III. tituluak arautzen ditu bitartekaritza eta arbitrajea, kontsumoaren arloko gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko tresnak diren aldetik, eta berritasunen artean agertzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sozietate publikoak kontsumoko arbitraje sistemari atxiki beharko zaizkiola nahitaez, kontsumo harreman batean zerbitzuak emateko jarduerak eragindako gatazkak konpontzeko.

IV. tituluan arautzen den merkatuaren zaintzari dagokionez, berritasun nabarmena da arautzen direla lagingarri hartzeko eta kontsumitzaileentzako produktuen analisiak, III. kapituluan, eta kautelazko neurriak, IV. kapituluan, horrelakoak hartzeko prozedura espezifiko bat ezarri.



Merkatuaren zaintzarekin lotura zuzena du zehapen ahalmenaren erabilerak, V. tituluaren aurreikusitakoak, zeinak, arau-hausteen legezketasunaren printzipioarekin bat, ezartzen baititu arau-hauste mota zabalagoak, espezifikagoak eta egokiagoak ondasun eta zerbitzuen kontsumoan gaur egun dagoen errealitaterako, ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legean jaso zirenen aldean. Era berean, legezketasunaren eta zehapenen proportzionaltasunaren printzipioak aplikatuz, horien mailakatzea ere aurreikusten da, gerta daitezkeen zenbait inguruabarren arabera.

Finan, foru lege honen asmoa da kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen defentsa sendotzea, kontsumo harremanak gertatzen diren agertoki berrietara moldatuz, eta aintzat hartuz, gainera, Europar Batasunean eta estatuan gertatu diren arau aldaketak, bai eta jurisprudentzia ere, alde batera utzi gabe azken urteetan bildu den esperientzia.

## **I. TITULUA** **XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.**

1. Foru lege honen xedea da kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak babestu, defendatu eta sustatzea Nafarroako Foru Komunitatean, Konstituzioaren aginduarekin bat eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aitortutako eskumenaz baliatuz.

2. Arau juridiko hau kontsumo harremanetan aplikatuko da. Haren aplikazio eremutik kanpo daude Nafarroako administrazio publikoen edo sektore publikoko erakundeen eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen arteko harremanak, lehenbizikoek zerbitzu bat eman edo ondasun edo produktu bat eskura jartzeko jarduerak betetzen dituztelarik eta kontsumitzaileak edo erabiltzaileak kontraprestaziorik ordaindu behar ez duenean edo ordaindu behar duen kontraprestazioa tributu arlokoa denean.

3. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa, defentsa eta sustapena izanen da beti administrazio publikoen jarduketaren oinarri, bai eta Nafarroako sektore publikoan sartuta dauden erakundeena ere.

### **2. artikulua. Zehaztapen terminologikoak.**

Arau honen ondorioetarako, esanahi hau dute hitz hauek:

a) Kontsumitzailea edo erabiltzailea: bere jarduera enpresarial edo profesionalaz kanpoko xede batekin jarduten duen pertsona fisikoa, bai eta jarduera enpresarial edo profesional batetik kanpoko arlo batean irabazi-asmorik gabe jarduten duen pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak ere.

Helburu mistoa duten kontratuen kasuan, hau da, zati batean baizik ez badago pertsona fisiko edo juridikoaren jarduera enpresarial edo profesionalarekin lotuta, eta baldin eta helburu hori oso mugatua bada, kontratuaren testuinguru orokorrean nagusia izan gabe, pertsona hori ere kontsumitzailea edo erabiltzailea izanen da.

b) Kontsumitzaile zaurgarria eta pertsona zaurgarrien kolektiboa: pertsona fisikoa, bakarka nahiz taldeka, bere zaurgarriak, beharrak edo egoera pertsonala, ekonomikoa, hezkuntzako edo soziala direla eta, menpekotasun, defentsa falta edo babesgabetasun egoera berezian dagoena, egoera hori lurralde edo sektore batean edo aldi baterako bada

ere, eta horrek galarazten badio kontsumitzaile gisa dituen eskubideak berdintasunez erabiltzea.

c) Enpresaburua edo profesionala: pertsona fisiko edo juridikoa, publikoa nahiz pribatua, bere jarduera enpresarial edo profesionalarekin lotutako asmo batekin jarduten duena, bai eta haren izenean edo haren jarraibideak betez aritzen dena ere.

d) Kontsumo harremana: harreman juridikoa, kontsumitzaile edo erabiltzaile baten eta enpresaburu edo profesional baten artean ezartzen dena, eta barne hartzen duena ondasun edo zerbitzuen informazioa, eskaintza, sustapena, publizitatea, merkaturatzea, erabilera, salmenta eta hornidura, bai eta alderdi horietatik eratorritako betebeharrak ere.

e) Ondasun eta zerbitzuak: enpresaburuak edo profesionalak merkatuan kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskura jartzen dituen ondasun higigarriak edo higiezinak eta jarduerak.

f) Prezioa: kontsumitzaileak edo erabiltzaileak egin behar duen ekarpena ondasun bat erosteko edo zerbitzu bat hartzeko; halakoa izanen da kontsumitzaileak edo erabiltzaileak bere gain hartu beharreko kontraprestazio oro, edozein dela ere haren izena, esate baterako, puntuak, matrikula, kanona edo antzekoak.

g) Jardunbide egokien kodea: borondatezko arauen multzoa, autoerregulazioaren esparruan, merkatuan duten jarduera ekonomikoan haiek betetzeko konpromisoa hartzen duten enpresaburu edo profesionalen portaera definitzen duena; arau horien helburua da hobetzea kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako informazioa, babesa eta defentsa.

h) Kontsumo arduratsua eta jasagarria: modu neurtuan eta gogoetaturik egiten den kontsumo jarduera, erabakiak libre, kontziente eta informatuta hartzean oinarrituta, etorkizuneko belaunaldiei begira irizpide ekonomikoak, sozialak eta lan eta ingurumen arlokoak kontuan hartuz.

i) Interes orokorreko oinarrizko zerbitzuak: kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako Europako nahiz estatuko legedietan horrela definituta daudenak. Horien artean daude garraio, energia eta komunikazio sareak, posta zerbitzukoak, finantzarioak eta aseguruak.

j) Erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasunak: erabilera arrunt, ohiko eta orokorreko ondasunak dira irailaren 1eko 1507/2000 Errege Dekretuan araututakoak.

k) Elikadura-subiranotasuna: herriek duten eskubidea, beren ekoizpen, banaketa eta kontsumoaz denaz bezainbatean dituzten politikak eta estrategiak definitzeko, lortzearen elikadura nutritibo eta kulturalki egokia, eskuragarria eta modu jasagarrian, ekologikoan eta sozialki bidezkoan ekoiztua.

l) Pobrezia eta energia-zaurgarritasuna: energia-pobreziatzat joko da etxe baten gaitasun falta energia-zerbitzuen eta zerbitzu horiei lotutako bestelako hornigaien gutxienekoa asetzeko eta oinarrizko beharrak bermatzeko, aintzat hartuta kasuko faktore pertsonalak, geografikoak eta materialak. Energia-zaurgarritasuntzat jotzen da neurri egokiak hartuta prebeni daitekeen energia-pobreziako arrisku egoera.

### **3. artikulua. Babes berezirako kasuak.**

Nafarroako administrazio publikoek neurri eraginkorrak hartuz bermatuko dute kontsumitzaile edo erabiltzaileen babesa eta ongizatea beren eskumenen esparruan, eta modu berezian eta lehentasunez zainduko dituzte babes berezia behar duten pertsona eta kolektiboak.

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

2. Besteak beste, pertsona eta kolektibo hauek har daitezke zaurgarritzat: haurrak, nerabeak, zaharrak, alergiak eta elikagai-intolerantziak dituztenak, genero indarkeriaren biktimak, desgaitasuna dutenak, gabezia ekonomikoak dituztenak edo edonolako bazterketa-arriskuan (soziala, finantzarioa, digitala edo beste edozein) daudenak, eta gutxiagotasun, menpekotasun edo zaurgarritasun egoeran nahiz babesgabetasun handiagoan dauden guztiak.

3. Halaber, kontsumitzaileen eskubideei babes berezia emanen zaie erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorreko zat jotzen diren produktu edo zerbitzuekin zuzeneko lotura dutenean.

### **4. artikulua. Administrazio publikoen arteko koordinazioa, elkarlana eta lankidetzak.**

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, koordinazio eta lankidetzak administratibo egokiak ezarri beharko dituzte Nafarroako kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskubideen babes homogeneoa ziurtatzeko eta, halaber, babes hori jarraitua eta eraginkorra dela bermatzeko.

2. Halaber, hitzarmenak sinatzen ahalko dituzte beraiei lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko beste erakunde eta entitate batzuekin, edo unibertsitate publikoek elkarren artean, edo zuzenbide pribatuko subjektuekin, helburu komun bat lortzeko.

3. Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen arteko lankidetzak ekonomiko, tekniko eta administratibo borondatezkoa izanen da, ordenamendu juridikoan aurreikusitako modu eta baldintzekin.

### **5. artikulua. Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak emateko bulegoak.**

1. Nafarroako Gobernuak kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak emateko bulegoen sorrera bultzatu eta sustatuko du, titulartasun publikokoak izan nahiz kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarrean menpekoak.

2. Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoek ezin izanen dute produktu edo zerbitzuen inolako publizitaterik egin.

3. Nafarroako Gobernuak, kontsumo gaietan eskumena duen departamentuaren bidez, kontsumitzaileen informaziorako bulegoen lana koordinatuko du eta ezarpenerako eta funtzionamendurako laguntza tekniko eta ekonomikoa emanen die, erregelamenduz zehazten den moduan.

### **6. artikulua. Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak emateko bulegoen eginkizunak:**

Hauek dira kontsumitzaileei eta erabiltzaileei argibideak emateko bulegoen oinarriko eginkizunak:

a) Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei informazioa, laguntza eta orientazioa ematea, beren eskubideak egoki balia ditzaten.

b) Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen salaketa administratiboak eta erreklamazioak jasotzea, erregistratzea eta jaso izana adieraztea, haiek entitate edo erakunde egokiak igortzea, eta haien jarraipena egitea, interesdunei behar bezalako informazioa emateko.

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

- c) Alderdi interesdunek eskatuz gero, irizpena edo arbitrajea eskatzea organo eskudunari, eta eskabidearekin batera auziari buruzko informazio osoa eta zehatza ematea.
- d) Gatazketan borondatezko bitartekaritzarako bidea izatea.
- e) Kontsumitzaileek agintari edo erakundeen eskumeneko zerbitzuei buruz egiten dituzten eskaerak kasuan kasuko agintari edo erakundeari helaraztea.
- f) Kontsumoaren arloko elkartegintza, arbitraje sistemaren erabilera eta bitartekaritza sustatzea gatazkak ebazteko bide gisa.
- g) Kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio kanpainak egitea, eta haien prestakuntza hobetzeko programak garatzea.
- h) Kontsumoko Arbitraje Batzordearekin lankidetzan aritzea, bai enpresak eta profesionalak batzorde horri atxikitzeko sustapen lana eginez, bai kontsumitzaileei edo erabiltzaileei lagunduz arbitraje-demandak batzordearen aurrean behar bezala aurkez ditzaten.

### **7. artikulua. Kontsumoaren plan estrategikoa.**

Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoaren arloko politikaren plangintza orokorra egitea Nafarroako Gobernuari dagokio. Horretarako, kontsumoaren arloan eskumena duen departamentuak plan estrategiko bat prestatuko du, planaren beraren ebaluazio prozesua aurreikusiko duena eta Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluan eztabaidatu beharko dena.

### **8. artikulua. Administrazioen arteko erantzunkidetasuna eta elkartasuna kontsumo jasangarriaren sustapenerako.**

1. Foru Komunitateko administrazio publikoek kontsumo arduratsua eta jasangarria sustatuko dute.
2. Jarduketa publikoek sustatuko dute kontsumo harremanak arrazionaltasun eta jasangarritasun irizpideekin bat etortzea, horrek lagundu dezan kontsumoa moderatua, informatua, gogoetatsua eta kontzientea izaten gai hauen inguruan: ingurumenaren babesa, bizi-kalitatea, laneko eskubideen errespetua, kontsumitzaileen osasuna, kultur espezifikotasuna, familien zorpetzea, arrisku onargarriak eta gainerako faktoreak, norberaren nahiz gizartearen garapen sozioekonomiko arduratsua izatea dakartenak.
3. Administrazio publikoek, administrazioen arteko elkartasun irizpideekin bat, sinergiak antolatuko dituzte, kontsumitzaile edo erabiltzaileen eskubideak ahalik eta azkarren, gutuenera eta modu jasangarriean betetzen lagunduko duten baliabideak partekatuz.
4. Administrazio publikoek sustatuko dute kontsumitzaileek parte har dezaten ekodiseinurako prozesuetan, ekonomia zirkularraren esparruan eta balio eta erabilera partekatua elkarrekin sortzeko ekimenetan, kontsumoaren berrikuntza soziala eta banatua eta aurrerapen teknologikoak eskura jartzea bultzatuz.

### **9. artikulua. Autonomia erkidegoen arteko elkarlana.**

1. Nafarroako Gobernuak Estatuarekin eta beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzak akordio eta hitzarmenak egitea sustatuko du, kontsumoaren arloan eta lehia

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

askearen defentsari dagokionez lankidetzan aritzeko, bereziki administrazio mugakideekin.

2. Lankidetzan hori jarduketak trukatzeko erabiltzen ahalko da, bai eta beste autonomia erkidego batzuekin batera kontsumitzaileen edo erabiltzaileen eskubideen babeserako programak planifikatu eta gauatzeko ere.

### **10. artikulua. Egoera juridikoak kontsumitzailearen alde interpretatzea eta haien oreka.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileak babesteko arauak haien alde interpretatuko dira.

2. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen alde ebatziko dira kontsumo harreman bati aplikatzen ahal zaion publizitate, komunikazio, eskaintza, merkataritza jardunbide edo kontratu klausula orok interpretazioan sor ditzaketen zalantzak edo desadostasunak.

3. Kontsumitzaile edo erabiltzaileei aitortutako eskubideak erabili aurreko ukoa baliogabea izanen da, eskubide horiek aurreikusten dituen araua gorabehera, eta baliogabeak izanen dira, halaber, lege-iruzurrean gauzatutako egintzak.

4. Kontsumo harremanetan, alderdien egoera juridikoen oreka zuzenaren eta fede onaren printzipioen aplikazioa sustatuko da, eta debekatuko dira merkataritza jardunbide desleialak edo lehiaren kontrakoak eta kontratuetan abusuzko klausulak jasotzea.

5. Ebatzi beharreko kasua foru lege honetan eta beste edozein arautan ere (zibila, merkataritzakoa edo administratiboa) xedatua badago, kontsumitzailearentzako baldintza onenaren printzipioari jarraikiko zaio.

### **11. artikulua. Diskriminaziorik ezaren eta eskuragarritasun unibertsalaren printzipioak kontsumo harremanetan.**

1. Ondasunak eskuratzean edo kontratatutako zerbitzuak ematean ezin izanen da kontsumitzaile edo erabiltzaileen kontrako diskriminaziorik egin.

2. Jendearentzat irekiak diren eta bezeroei sarrera ukatzeko eskubidea erreserbatua duten establezimenduetan, ongi ikusten den kartel bat jarri beharko da sarreran, eskubide hori erabiltzeko ezarritako baldintzak aditzera emateko. Baldintza horiek ezin izanen dira zehaztugabeak, diskriminatzaileak, arbitrarioak edo establezimenduaren izaera eta jarduerarekin kontraesankorrak izan.

3. Kontsumo harremanen esparruan jendearentzat ondasun eta zerbitzuak ematen dituzten enpresaburuak eta profesionalak beharurik daude aukera eta tratu berdintasunaren printzipioa betetzera desgaitasuna dutenekin, eta ez dute zuzeneko nahiz zeharkako diskriminaziorik egingen desgaitasunak eraginda edo desgaitasunagatik; horretarako, irisgarritasunaren eta diskriminazio ezaren oinarritzko baldintzak beteko dituzte, desgaitasuna dutenek jendearen esku jartzen diren ondasun eta zerbitzuak eskuratu eta erabil ditzaten, aplikatzeko den araudi sektorialean ezarritako epe eta baldintzetan.

4. Era berean, saihestuko dira sexu orientazioak, sexu adierazpenak eta sexu eta genero identitateak eragindako diskriminazioak ere.

5. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura jarritako produktu edo zerbitzu berdinei dagokienez, ezin izanen zaie prezio desberdinik jarri hartzailearen generoaren arabera.

## **II. TITULUA**

### **KONTSUMITZAILEEN EDO ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA ERANTZUKIZUNAK**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Oinarrizko eskubideak eta eskubide sortu berriak**

#### **12. artikulua. Oinarrizko eskubideak.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen oinarrizko eskubideak dira honakoak:

a) Beren osasuna edo segurtasuna arriskuan jar dezakeenaren aurkako babesa, arrisku horien artean daudela ingurumenari eta bizi kalitateari mehatxu egiten dietenak, edo kontsumitzaile edo erabiltzaileen osotasun fisikoari, psikikoari edo emozionalari eragiten ahal dietenak.

b) Beren interes ekonomiko eta sozial legitimoen babesa, bereziki desoreka egoeretan, hala nola merkataritza jardunbide desleial edo abusuzkoetan, edo abusuzko klausulak jasotzen direnean kontratuetan; garrantzia ematen zaie batez ere interes kolektiboari eta kontsumitzaile edo erabiltzaile kopuru zehaztugabe bati eragiten dioten egoerei.

c) Babes juridiko, administratibo eta teknikoak, prozedura eraginkorrak erabiliz, gehienbat kontsumitzaile zaurgarriari dagokienez; bai eta jasandako kalte eta galeren egiazko konpentsazioa, ordaina eta ordainketa jasotzea ere, halakorik bada.

d) Kontsumoaren arloko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza, helburu duena simetria informatiboa, merkatuaren oreka eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzea eta kontsumitzaile edo erabiltzaileak ahalduz laguntzen duena, batez ere zaurgarritzat hartzen direnak.

e) Beren interesen ordezkariak izatea legez eraturako kontsumitzaile edo erabiltzaileen erakunde bidez, eta erakunde horiek iritzia eman eta parte hartu ahal izatea haiengan eragin zuzena duten xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran, legez ezarrita dagoen moduan.

2. Botere publikoek kontsumitzaile zaurgarrien eskubideak berdintasunez bermatzeko politikak eta jarduketak sustatuko dituzte, bakoitzaren zaurgarritasun egoera zehatzari begiratuta, eta, edozein kasutan, eskubideez baliatzeko orduan haientzat traba izan daitezkeen tramiteak ekidinez.

#### **13. artikulua. Eskubide sortu berriak.**

Hona hemen eskubide sortu berriak:

1. Kontsumitzaile edo erabiltzailearen burujabetzarako eskubidea, ondasunak erosteko edo zerbitzu bat kontratatzeko erabakia libreki, kontzienteki eta informazioa jaso ondoren hartzeko.

2. Ingurumen osasuntsurako eskubidea, garapen jasangarria sustatuko duen kontsumo arduratsua egiteko beharrezkoak diren baldintzak bultzatuko dituena.

3. Elikadura burujabetzarako eskubidea, merkaturatzeko zirkuitu laburretan banatzen diren bertako eta sasoian sasoko produktuen kontsumoarekin, eta elikagaiak nahiz oinarrizko baliabideak alferrik galtzearen prebentzioan oinarritutako kontsumo arduratsuekin lotuta.

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

4. Aplikagarria den araudiarekin bat, merkatuan eskura jartzen den edozein ondasun edo zerbitzuek izan behar lukeen balio-bizitzaren araberako funtzionalitatea bermatzeko eskubidea.
5. Kontsumo harremanetan tratu gizabidezkoa, adeitsua, duina eta begirunezkoa jasotzeko eskubidea, eta tratu ez-laidogarria ondasun edo zerbitzuen eskaintzan, publizitatean nahiz merkaturatzean, batez ere kolektibo zaurgarriei zuzenduta dagoenean.
6. Erabilera eta luperketako ondasun ukiezinei buruzko informazioa eta ezagutza izateko eskubidea kontsumitzaile edo erabiltzaileen babesaren arloan.
7. Merkaturatzeko edozein bidetan ezarritako kontsumo harremanetan segurtasuna eta pribatutasuna izateko eskubidea, eta, bereziki, komunikazio telematikoei, online egiten direnei eta gailu elektronikoen, sentsore biometrikoen eta QR kodeen erabilerari dagokienez, bai eta etorkizunearan xede horrekin erabiltzen den beste edozein metodo edo tresna teknologikoren erabilerari dagokionez ere.
8. Ekoizpen eta kontsumo eredu etiko eta jasangarrien bidez lortutako ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko eskubidea, parte-hartze aktiboa izanez ekoizpen eta kontsumoko prozesu zirkularretan, bai eta hondakinen prebentzioan eta birziklatzean ere, horrek aukera eman dezan erabilerarik gabeko ondasun bat edo hondakina izan behar duena eraldatu eta identitate eta balio berriak emateko.
9. Kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilerak dakartzan onurak eskuratzeko eskubidea.

## II. KAPITULUA

### Osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea

#### **14. artikulua. Ondasunak eta zerbitzuak osasunerako eta segurtasunerako arriskurik gabe izateko eskubidea.**

1. Europar Batasuneko nahiz Estatuko araudian aurreikusitakoarekin bat, merkatuan jarritako ondasun eta zerbitzuek ez dute inolako arriskurik ekarriko kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasunerako ez eta segurtasunerako ere, baldintza normaletan edo zentzuz aurreikusten direnetan erabiltzen badira, edo arrisku txikiak ekarriko dituzte, produktuaren edo zerbitzuaren erabilerarekin bateragarriak eta onargarritzat hartzen direnak osasunaren eta segurtasunaren babes-maila altuarekin.
2. Nafarroako Gobernuak, Europako eta Estatutuko araudiarekin bat, informazio etiketa eskuragarri eta borondatezkoen erabilera sustatuko du, haien bidez arrisku mota horietaz ohartarazteko, eta arlo honetan autoerregulazioa eta erregulazio partekatua bultzatuko ditu. Administrazio publikoek tresna horien erabilera egokia eta proportzionatua bermatuko dute.
3. Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu bereziki bermatzeko haurren eta zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboen kontsumora zuzendutako ondasun eta zerbitzuen segurtasuna.

### **15. artikulua. Ondasunen eta zerbitzuen arriskuei buruzko informaziorako eskubide orokorra.**

Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresaburuek edo profesionalek, bakoitzak bere jardueren barruan, aldez aurreko informazio argi eta egokia emanen dute horiek atxikiak dituzten eta berehalakoan atzeman ezin diren arriskuei buruz, bitarteko egoki eta eskuragarrien bidez. Aurrekoa gauzatzeko, kontuan hartuko dira ondasun edo zerbitzu horien izaera, ezaugarriak, iraupen baldintzak eta norentzat diren. Arreta berezia jarriko da halako sektoreetan zeinetan, beren konplexutasuna edo ezaugarri berekiak direla eta, kontsumitzaile zaurgarrien proportzioa handiagoa den beren bezero edo erabiltzaileen artean, kasu zehatzeko zaurgarritasun-egoera sortzen duten inguruabarrei doitasunez begiraturaz.

## **III. KAPITULUA**

### **Informaziorako eta interes ekonomiko eta sozialen babeserako eskubidea**

### **16. artikulua. Produktuen eta zerbitzuen benetakotasuna.**

Kontsumitzaile eta erabiltzaileek eskubidea dute, exijitzekoa ondasun eta zerbitzuek izan ditzaten egiten den eskaintza, sustapen eta publizitatetik eratorritako eta kontratuan nahiz aplikatzekoa den araudian ezarritako kalitatea, egokitasuna eta bat-etortzea. Horretarako, kontsumoaren arloan eskumenak dituzten administrazio publikoek, kontsumitzaile edo erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozialen interes legitimoak babestearren, neurriak hartuko dituzte, merkaturatu ez dadin ondasunik edo zerbitzurik, horren ezaugarriek okerreko ulermena eragin dezaketenean horren osaketaz, aurkezpenaz, sorlekuaz edo jatorriaz.

### **17. artikulua. Gardentasun informatiboa.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileek eskubidea dute informazio osatu eta ulergarria jasotzeko merkatuan haien esku jarritako ondasun eta zerbitzuen funtsezko ezaugarriei buruz, kontratazioa egin aurretik argi eta zalantzarik gabe jakin dezaten zein den salmentaren edo prestazioaren xede den ondasuna edo zerbitzua.
2. Kontsumoaren arloko eskumenak dituzten administrazio publikoek neurri egokiak sustatuko dituzte ahalik eta gardentasun handiena bermatzeko merkataritzako harremanetan.
3. Kontsumoaren arloko eskumenak dituzten administrazio publikoek begiratu dute kontsumitzaile edo erabiltzaileek, bereziki zaurgarriak direnek, informazio garrantzitsua, egiazkoa eta nahikoa eskuratu eta erabili ahal izan dezaten, gero erabaki informatuak arrazionaltasun irizpideen arabera hartzeko.

### **18. artikulua. Aurrekontua.**

1. Kontsumitzaileek edo erabiltzaileek eskubidea dute aldez aurreko aurrekontu bat prestatu eta eman dakien ondasunak erosterakoan edo zerbitzuak kontratatzerakoan, prezioa zuzenean zehazterik ez dagoenean.
2. Aurrekontua egitearen truke kobratzen ahalko da soilik enpresaburuak edo profesionalak horren berri ematen badio kontsumitzaile edo erabiltzaileari aldez aurretik eta espresuki, prezioa ere adierazita.



## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

3. Aurrekontu bat prestatzen denean, idatziz formalizatu beharko da, edo beste euskarri iraunkor batean jaso, eta nahitaez elementu hauek adieraziko dira:

- a) Enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazioa, izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia edo kodea aipatuta.
- b) Aurrekontuaren balio-epea, hamabost egun naturaletik gorakoa betiere.
- c) Eskaintzen dituzten zerbitzuen deskribapena edo ondasunen identifikazioa eta haien kostua.
- d) Eskulanaren, garraioaren edo joan-etorriaren kostua, hala dagokionean.
- e) Aplikagarriak diren beste kontzeptu, errekaratu eta zerga batzuk, behar bezala xehatuak.

4. Kontsumitzaile edo erabiltzaileek ez dituzte beren gain hartuko aurrekontua prestatzean egindako kalkulu akatsak edo bestelakoak, salbu eta ageriko akatsa bada eta aurrekontuaren hartzaileak fede txarrez jokatu badu.

5. Aurrekontua loteslea izanen da hura ematen duen enpresaburu edo profesionalarentzat. Aurrekontu eskaerak, ordea, ez du lotuko hura egiten duen kontsumitzailea edo erabiltzailea.

6. Artikulu honetan ezarritakoak ez du galarazten aurrekontuaz berariazko araudi sektorialean jasota dagoena.

### **19. artikulua. Prezioari edo kontraprestazioari buruzko informazioa, eta ordaintzeko moduari edo bideari buruzkoa.**

1. Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak ondasun bat erosi edo zerbitzu bat hartzearen truke ordaindu beharreko prezioari edo kontraprestazioari buruzko edozein informazio garrantzitsua da ondoren kontsumitzaileak edo erabiltzaileak erabaki funtsatua har dezan.

2. Ordainketa aurreratua aurreikusten denean, horren berri emanen da berriaz eta beti produktua erosi edo zerbitzua kontratatu aurretik.

3. Ordainketarako moduetan mugak aurreikusten direnean, horien berri eman beharko da ondasuna edo zerbitzua kontratatu aurretik.

4. Era berean, aurretik jakinarazi beharko da ondasunaren edo zerbitzuaren azken prezioa zein den, zergak barne.

### **20. artikulua. Egindako kontratazioaren ziurtagiria.**

Kontsumitzaile edo erabiltzaile direnek eskubidea dute kontsumitzaileak aurretiazko baimena emanda egindako kontratazioaren ziurtagiri bat jasotzeko, paperezkoa edo beste edozein euskarri iraunkorrezkoa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako estatuko oinarritzko legedian ezartzen denaren ildotik.

Formari dagokionez, ziurtagiri horrek faktura, ordainagiri, frogagiri edo beste edozein formatu har dezake, baldin eta honako ezaugarri hauek biltzen baditu:

- a) Hartzailearentzat modu argi eta ulergarrian idatzirik egon behar du.
- b) Jaso behar dituen gutxieneko datuak honako hauek dira: enpresaburuaren edo profesionalaren identifikazioa (identifikazio fiskalaren kodea edo zenbakia eta helbidea adierazita), kontratuaren xedea osatzen duten kontzeptuak, formalizazio data eta prezioa, zeina xehatua agertuko baita ondasun edo zerbitzu bakoitzarentzat, ziurtagirian prestazio bat baino gehiago daudenean.

### **21. artikulua. Gordailuaren gordekina.**

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileak ondasun bat ematen duenean kontsumo harreman baten barruan, gordailuaren gordekin bat jaso beharko du, zeinetan adierazita egonen baitira beharrezkoak diren datuak, enpresaren eta kontsumitzaile eta erabiltzailearen identifikazio egokia ahalbidetzen dutenak, bai eta objektua, ematearen arrazoa, ondasunaren egoera eta itzultzeko eguna eta epea. Era berean, adieraziko da ondasunaren itzulera eskatzeko eskubidea preskribatzeko epea zein den, itzultzeko epea bukatzen denean, legedi zibilean edo merkataritzako legedian ezarritakoarekin bat.
2. Ondasuna egoera onean ematen dela ulertzen da, non ez den bestelakorik adierazten gordailuaren gordekinean, espresuki eta zehatz-mehatz.
3. Gordailuan utzitako ondasuna jasotzeko, kontsumitzaile edo erabiltzaileak gordailuaren gordekina aurkeztuko du eta, gordekinik ez badu, bere eskubidea frogatu beharko du zuzenbidean onartzen diren bideetako bat erabiliz. Edonola ere, enpresaburuak edo profesionalak, gutxienez, 1. apartatuan zehazten den preskripzio epeak iraun bitartean gorde beharko du gordailuaren gordekinaren kopia bat.
4. Gordekinean bestelakorik espresuki eta zehatz-mehatz adierazten ez bada, ondasuna eman zen toki berean itzuliko zaio kontsumitzaile edo erabiltzaileari.

### **22. artikulua. Kontratuaren klausulak.**

1. Klausula orokorrak, edo kontsumitzaile edo erabiltzaileekin banaka negoziatu ez diren beste batzuk, kontratuan jaso direnak, zehaztasunez, argi eta erraz idatzita egonen dira, alderdien eskubide eta betebeharren arteko oreka zuzenaren eta fede onaren printzipioak betez eta alde batera utziz, beraz, abusuzko klausulak, irakurtezinak edo ulertezinak erabiltzea. Informazioaren gizartearen testuinguruan egindako transakzioak kontrataziorako baldintza orokorrak betez eginak direla ulertuko da.
2. Kontsumitzaile edo erabiltzaileek eskubidea dute klausula eta jardunbide abusuzkoak edo desleialak kendu eta bertan behera utz daitezela eskatzeko, eta kontsumoaren arloko eskumena duten administrazioei dagokie horien kontrola eta, kasua bada, zehapena jartzea.

### **23. artikulua. Kalte-ordainak ordaintzea eta kaltearen ordaina ematea.**

Kontsumoaren arloan indarra duen legeriarekin bat, kontsumitzaile edo erabiltzaileek eskubidea dute egiazko konpentsaziorako, beharrik gabe ordaindutako kopuruak itzultzeko, eta behar bezala frogatuta dauden eta ondasun eta zerbitzuak erosi edo erabiltzearen ondorio diren kalte-galeren ordaina, ordainketa eta kalte-ordaina jasotzeko, kontratu-erantzukizuna dela eta, ondasun edo zerbitzuekin ados ez egoteagatik edo kontratua ez betetzea edo akatsekin betetzea ekarri duen beste edozein arrazoiengatik.

## **IV. KAPITULUA**

### **Babes juridiko eta administratiborako eskubidea**

### **24. artikulua. Bezeroentzako arreta-zerbitzuak.**

1. Ondasun eta zerbitzuak ekoitzi, merkaturatu edo eskaintzen dituzten enpresek eta profesionalak kontsumitzaile eta erabiltzaileen esku jarri beharko dute posta helbide bat eta, halaber, helbide elektronikoa bat edo telefono zenbaki bat, haiekin harremanetan jartzeko lehenbailehen, honakoak egin ahal izateko, beharrezkotzat jotzen badute:

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

a) Kontsumo harremanaren xede den ondasun edo zerbitzuaren gaineko aholkua edo informazioa eskatzea.

b) Egokitzat jotzen dituen kezak edo erreklamazioak egitea.

Informazio hori kontsumitzaile eta erabiltzaileen esku jarriko da euskarri iraunkor baten bitartez eta, kasu guztietan, aurrekontuan, kontratuan edo kontratazioaren egiaztatgarian. Enpresaburuak eta profesionalak, aurrekoaz gain, beren legezko helbidea emanen dute, ez bada posta-trukerako ohiko helbide bera.

2. Arreta zerbitzua ematen bada telefonoz edo bitarteko elektronikoenkin, zuzeneko arreta pertsonala ziurtatu beharko da, horrek galarazi gabe beste bitarteko tekniko batzuk ere erabiltzea, horren osagarri.

3. Asmoz modu jarraituan ematekoak diren interes ekonomiko orokorreko zerbitzu eta hornidurretan, esate baterako energiaren eta telekomunikazioen kasuan, enpresak doako telefono bat edo berehalako beste bide eraginkor bat jarriko du kontsumitzaile edo erabiltzaileen esku, matxuren eta presako mezuen arretarako, urteko egun guztietan 24 orduetan erabilgarri izanen dena.

4. Enpresek eta profesionalak, banatzaile edo bitartekari hutsak direnek barne, prestasunez jokatu behar dute aurkeztutako erreklamazioei konponbide egokia emateko, eta, zehazki, betebeharrak hauek dituzte:

a) Kexa eta erreklamazioak jaso izana adieraztea, identifikaziorako gako bat eta idatzizko ziurtagiri bat emanaz, paperean nahiz beste edonolako euskarri iraunkorretan, jasotze data ere adierazita.

b) Erantzuna ematea ahalik eta epe laburrenean, gehienez ere hilabete batean erreklamazioa aurkezten denetik hasita.

Edonola ere, galarazi gabe aplikagarria den araudi sektorialean ezarritakoa, interes orokorreko eta jarraian eman beharreko zerbitzuak ezin izanen dira eten erreklamazio bat aurkeztu ondoren, enpresak erantzuna eman arte, salbu eta etendura loturik badago erreklamazioaren arrazoiarekin.

c) Erreklamazioa adierazitako epean ongi ebatzi ezean, enpresaburuak kontsumitzaileari jakinarazi beharko dio ea atxikirik dagoen kontsumo-auzien ebazpen alternatiborako entitate bati, edo ea beharturik dagoen, jokabiderako kode edo arau baten ondorioz, prozeduran entitate jakin baten aurrean parte hartzea. Hala ez bada, erreklamazioaz arduratzeko eskumena duen entitate bati buruzko informazioa eman beharko dio, gutxienez, eta adierazi parte hartuko duen edo ez prozeduran entitate horren edo entitate horien aurrean.

Informazio hori paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan emanen da erreklamazioari erantzuteko unean edo hilabeteko epean gehienez, erreklamazioa jartzen denetik, enpresaburuak erantzun ez badio espresuki.

5. Bezeroei informazioa emateko zerbitzuak irisgarritasun unibertsalaren printzipiora egokituko dira.

### **25. artikulua. Jardunbide egokien kodea.**

1. Administrazio publikoek jardunbide egokien kodeak sustatuko dituzte, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen babeserako eta merkatuaren araubidea hobetzeko tresna gisa.

2. Kode horiek egiteko prozesuan kontsumitzaileen elkarteek eta ukitutako sektoreek parte hartuko dute.
3. Jardunbide egokien kodeak ezartzea borondatezkoa izanen da enpresarientzat, eta ez du loturarik izanen administrazio publiko eskudunek egiten dituzten ikuskapen-, kontrol- eta egiaztapen-jarduerekin.

## **26. artikulua. Kexak, erreklamazioak eta salaketak.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileek, banaka nahiz haien ordezkari diren elkarte edo erakundeen bitartez, kexak, erreklamazioak eta salaketak egin eta aurkezten ahalko dituzte bai enpresaburu edo profesionali zuzenduta bai kontsumo arloko eskumena duten administrazio erakundeetan.
2. Kexa da kontsumitzaile baten adierazpena, zeinaren bidez enpresari gertaera batzuk jakinarazten baitizkio, arau-hauste administratiboa edo kontsumitzailearen eskubideen urraketa izan gabe ere kontsumo harremanak behar zuen funtzionamenduari eragin diotenak, eta kontsumitzaileari arrangura sortu.
3. Erreklamazioa da kontsumo harremanean gertatutako gatazka baten azalpena, eta haren bidez konponbidea eskatzen da. Kontsumo erakundeen aurrean erreklamazio bat aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izanen da aldez aurretik enpresaburuari edo profesionalari erreklamazioa egin izana eta legez ezarritako epean erantzunik jaso ez izana egiaztatzea, edo bestela, erreklamazioa bere interesentzat egokia ez den zentzuan jaso izana.
4. Salaketa da kontsumoaren arloko eskumena duen administrazioari helarazitako komunikazioa, zeinaren bidez jakinarazten baitira kontsumo arloko araudia urra dezaketen egitate, inguruabar eta gertaera batzuk.  
Aurkeztutako salaketak kontsumo arloko agintaritzak aztertuko ditu, eta aurretiazko jarduketa batzuk egitea eragin dezakete, gertatutakoa argitzeko, bai eta gero zehapen prozedura bat irekitzea ere, arau-hauste administratiboa dagoela iritziz gero, eta kautelazko neurriak hartzea, behar direnak, edo artxibatze erabaki arrazoitu bat hartzea, aurkeztutako salaketarekin lotuta arau-hausterik ez dagoela iritziz gero.  
Administrazio publiko eskudunak jakinaraziko dio erabakia edo ebazpena salaketa jarri duen pertsonari edo kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarteari.  
Salaketan falta badira beharrezkoak diren baldintzak, eta salaketaren egileak zuzentzen ahal badu gabezia hori, administrazio eskudunak epe bat emanen dio, hamar eguneko gutxienez, zuzenketa egin dezan, eta ohartaraziko dio zuzendu ezean salaketa artxibatu eginen dela.  
Salaketa zer organori aurkeztu zaion, organo hori eskuduna ez bada gaia edo lurraldea dela kausa, gai- edo lurralde-eskumen hori esleitua duen organoari igorriko zaio, eta salaketa egin duen pertsonari edo erakundeari ere jakinaraziko zaio.

## **V. KAPITULUA**

### **Prestakuntza eta hezkuntzarako eskubidea**

## **27. artikulua. Kontsumo arduratsua eta jasangarria.**

Administrazio publikoek kontsumitzaileen eta erabiltzaileen prestakuntza eta heziketa sustatuko dute, eta, bereziki, dagozkien eskubideak eta betebeharrak ezagutzea

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

bultzatuko dute, kontsumo arduratsu eta jasangarriko jarraibideen arabera jardun ahal izan dezaten oso teknifikatua eta aldakorra den merkatu globalean. Horretarako, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen lankidetzak izan dezakete, batez ere prestakuntzari eta orientazioari dagokion guztian, komunikabideen bidez eta informazio kanpainak eginez.

Era berean, kontsumitzaileen heziketak eta prestakuntzak honako helburu hauek izanen ditu:

- a) Arrazionaltasuna ondasunen kontsumoan eta zerbitzuaren erabileran, kontsumo-ondasunen ekonomia zirkularra sustatuz.
- b) Produktuen kontsumoak edo zerbitzuen erabilerak ekar ditzaketen arriskuei aurrea hartzea.
- c) Kontsumoa baliabide naturalen eta energetikoen zentzuzko erabilerari egokitzea.
- d) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartegintza sustatzea, haien eskubideak defendatzeko bitarteko eraginkorrak baitira.
- e) Kontsumoaren arloko informazioaren ulergarritasuna eta erabilera erraztea.

### **28. artikulua. Heziketa eta prestakuntza arloak.**

1. Hezkuntza eta kontsumo arloetako eskumenak dituzten administrazio publikoek modu koordinatuan sustatuko dute kontsumitzaile edo erabiltzaileen hezkuntza, hezkuntza-komunitatearen esparruan, elkarlaneko ikaskuntza eta teknologia berrien erabilera aldeztuz eta, horretarako, kasuan kasuko organoen artean behar den interakzioa ezarriz.

2. Hezkuntza eta kontsumo arloetako eskumenak dituzten administrazio publikoek neurri egokiak hartuko dituzte kontsumo arduratsu, jasangarri, solidario eta inklusiborako heziketa errazteko, eta neurri horiek bat etorriko dira laguntza beharrekin, jarduketaren ingurune desberdinak kontuan hartuta.

3. Botere publikoek kontsumoaren arloan informazio, hezkuntza, prestakuntza, ikuskapen eta kontrol lanak egiten dituzten pertsona guztien etengabeko prestakuntza sustatuko dute.

### **29. artikulua. Ikerketa eta dibulgazio jarduerak.**

1. Administrazio publikoek azterketak, txostenak eta ikerlanak egitea sustatuko dute, bai eta funts bibliografikoak eta dokumentalak eskuragarri izatea ere, kontsumitzaile edo erabiltzaileen informazio, prestakuntza eta hezkuntzarako eskubidea erraztuko dutenak.

2. Kontsumoaren arloko eskumena duen administrazio publikoak dibulgazioko jarduketa orokorrak edo espezifikokoak egiten ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideen eta erantzukizunaren gaian.

### **30. artikulua. Ahalduntze finantzarioa eta digitala.**

1. Administrazio publikoek behar diren neurriak sustatuko dituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileen ahalduntze finantzario eta digitala ziurtatzeko, haien interes ekonomiko eta sozial legitimoak dagokienez, bereziki kolektibo zaurgarriari begira eta gizonen eta emakumeen egiazko berdintasuna xede dutela.

2. Era berean, administrazio publikoek sustatuko dute informazioa ematea bestelako finantza tresnei buruz, esate baterako mikrokredituei edo mikromezenasgoari eta finantzaketa kolektiborako beste formula batzuei buruz; bai eta gizarte eta

ingurumenaren ikuspuntutik arduratsuak diren inbertsioei buruz eta egon daitezkeen beste finantza tresna edo lanabesei buruz ere, merkatuaren bilakaeraren edo merkatuan dauden aukeren arabera.

## **VI. KAPITULUA**

### **Ordezkaritza, parte-hartze eta kontsultarako eskubidea**

#### **31. artikulua. Eskubidea erabiltzea.**

1. Kontsumitzaileek eskubidea dute elkarte edo erakundeak sortzeko eta haietako kide izateko, haien bidez beren eskubide eta interes legitimoak babestu, ordezkatu eta kontsultatzeko.
2. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen ordezkaritza, parte-hartze eta kontsultarako eskubidea kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeek erabiliko dute zuzenean edo Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bidez.

#### **32. artikulua. Kontsumoaren arloko elkarteak aitortzea eta sustatzea.**

1. Aitortzen da Nafarroako Foru Komunitatean aritzen diren kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte edo erakundeak direla kontsumitzaile edo erabiltzaileen interesak babesteko ordezkaritza eta parte-hartzerako bidea.
2. Kontsumoaren arloko eskumena duten administrazio publikoek kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarteak sortzea sustatuko dute eta ziurtatuko dute haien parte-hartzea beren eskubide edo interesetan zuzeneko nahiz zeharkako eragina duten bizitza publikoaren esparru guztietan. Emakumeek kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartegintzan parte hartzea sustatuko da.

#### **33. artikulua. Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarteak edo erakundeak.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarteak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, elkarten arloko legeriaren babesean eratutakoak, xede dutenak pertsona horien eskubideak eta interesak babestu eta defendatzea, dela orokorrean dela ondasun edo zerbitzu zehatzei dagokienez.
2. Era berean, kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarteak dira kontsumo kooperatibak, beren gaineko lege espezifikoaren arabera eratuak, baldintza hauek betetzen badituzte:
  - a) Elkartearen estatutuetan, sozietatearen xedeen artean, jasotzea bazkideei kontsumoari buruzko informazioa, heziketa eta prestakuntza ematea.
  - b) Sozietatearen funts bat eratzea aurreko atalean aipatutako helbururako soilik, eta sozietatearen ekitaldi bakoitzeko soberakin garbien 100eko 10, gutxienez ere, funts horretara bideratzea.

#### **34. artikulua. Jarduketa-printzipioak.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeek, beren xedeak betetzeko, gardentasun eta independentzia irizpideekin bat jokatu behar dute merkatuaren operadoreen eta botere publikoen aurrean. Ondorio horietarako, ez da independentzia faltatzen hartzen dirulaguntzak edo beste baliabide publikoak eskuratzea, irizpide objektiboaren arabera emanak badira.
2. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte eta erakundeek fede onaren, leialtasunaren eta prestasunaren printzipioekin bat jardunen dute, eta ezin izanen dute ezagutarazi

daturik, ofizialki berariaz akreditaturiko entitate, enpresa edo erakundeek egindako akreditazio, emaitza analitiko edo kalitate kontroletan oinarririk ez duenik, nahiz eta horrek ez duen galaraziko haiek egokitatzat jotzen dituzten akzioak abiarazteko daukaten eskubidea.

### **35. artikulua. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteen eta erakundeen erregistroa.**

1. Beren lege espezifikoan arabera eraturiko kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeek, bai eta kide diren batasunek edo federazioek ere, Nafarroako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute foru lege honen baldintzekin bat ematen zaizkien eskubideak izateko.

2. Erregelamenduz arautuko dira erregistro horren funtzionamendua, izena emateko baldintzak eta prozedura, bai eta bertan aldi baterako nahiz behin betiko baja ematekoa ere, inskribatutako entitateek dituzten betebeharrekin batera. Betiere, erregistro horretan izena eman ahal izateko, kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Irabazi-asmoa duten pertsona juridikoak ez sartzea elkarteko kide gisa.

b) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei ondasun edo zerbitzuak ematen dizkieten enpresen edo enpresa taldeen laguntza ekonomiko edo finantzariorik ez jasotzea. Elkartearen independentzia murrizten ez badute, ez dira laguntza ekonomikotzat hartuko estatuko legerian ezarritako gardentasun baldintzetan egiten diren ekarpenak, jatorria legeria horretan araututako lankidetzat hitzarmen edo akordioetan badute eta hitzarmen horiek kontsumoko eskumena duen agintaritzan gordailutzen badira.

c) Ondasun eta zerbitzuen merkataritza komunikaziorik ez egitea. Ondorio horietarako, ulertzen da merkataritza komunikazioa dela ondasun eta zerbitzuen sustapenarekin edo salmentarekin zuzeneko lotura duen egintza, jokabide edo adierazpen oro, publizitatearen barne, informatibo hutsa ez dena.

d) Kontsumitzaile edo erabiltzaileen interesen babesa ez diren beste jarduera batzuetan ez aritzea lehenetsunez, salbu eta kontsumitzaileek kooperatibei buruzko legeriari jarraikiz eraturiko entitateak badira, foru lege honetan ezarritako baldintzetan.

e) Erakundea edo haren lege ordezkariak ez aritzea ageriko ausarkeriaz, judizialki halakotzat hartu bada.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei foru lege honek eta garatzen duten xedapenek ezarritako beste edozein betebeharrak.

### **36. artikulua. Baldintzak betetzearen gaineko kontrola.**

1. Kontsumoaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuaren departamentuak eskatzen ahalko die kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei, Nafarroan aritzen direnei, foru lege honetan eta garatzen duten xedapenetan arautzen diren baldintzak betetzen eta mantentzen direla egiaztatzeko behar den dokumentazioa eta informazioa.

2. Halaber, helburu berarekin, kontuen auditoretzak ere egiten ahalko ditu kanpoko entitate independenteak kontratatuz.

**37. artikulua. Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeen eskubideak.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeek eskubide hauek izanen dituzte ordezkaritza eta parte-hartzeari dagokionez:

- a) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei eragiten dieten gaiez hitz egiten den parte-hartze eta ordezkaritzako kide anitzeko organo orokor eta sektorialetan egotea.
  - b) Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bidez, kontsulta egin dakiela ordezkatzen dituzten eskubide eta interesei zuzenean eragiten dieten xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran.
  - c) Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zerbitzua emateko kontratu ereduak prestatzen eta onesten parte hartzea, zerbitzu horiek administrazio publikoek enpresa publiko edo pribatuaren bitartez ematen dituztenean.
  - d) Kontsumoko arbitraje sistemaren parte hartzea.
  - e) Beren helburuetarako onesten diren laguntzak eta dirulaguntzak jasotzea.
  - f) Kasuan kasuko egintzak betetzea elkarteko kideak, entitatea edo, orokorrean, kontsumitzaile edo erabiltzaileen interes orokorrak edo lausoak babesteko, aplikagarria den legeriarekin bat.
  - g) Administrazio publikoen informazioa lortzea lege ezarritako baldintzetan.
  - h) Doako laguntza juridikoa, indarrean dagoen legeriaren arabera.
  - i) Onura publikoko entitate gisa deklaratuak izatea, indarrean dagoen legeriaren arabera.
2. Artikulu honen aurreko apartatuko a) letratik e) letrara bitartekoetan aipatzen diren eskubideak baliatzeko, bai eta f) letrakoa ere, interes kolektibo edo lausoak babesteko ekintzak gauzatzeari dagokionez, elkarrekin inskribatuta egon beharko dute Nafarroako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartearen Erregistroan.

**38. artikulua. Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeen betebeharrak.**

Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeek betebeharrak hauek izanen dituzte:

- a) Administrazio publikoek ematea eskatzen zaien informazioa, kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasunerako edo segurtasunerako arriskua dagoenean edo haien interes ekonomiko eta sozial legitimoak urratzen ahal direnean.
- b) Administrazioarekin elkarlanean aritzea kontsumitzaile edo erabiltzaileen eskubideen babesari eragiten dioten jarduerak eta jardunbide irregularrak atzeman, lokalizatu eta jakinarazteko.
- c) Beren jarduketara koordinatzea administrazio publiko eskudunek kontsumoaren arloan ezarritako lehentasuneko politiken barruan.
- d) Beren lana modu profesional eta autonomoan betetzea, edozein botere edo erakunde publiko edo pribaturekiko independentzia bermatuz.

**39. artikulua. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua.**

1. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua gai honetarako ordezkaritza, kontsulta eta parte-hartze organoa da. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeek, enpresaburuen edo profesionalen elkarteek, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganbera Ofizialak eta administrazio publikoek ordezkaritza izanen dituzte



kontseilu horretan. Ahaleginak eginen dira kontseiluaren osaerak parekidetasun irizpideak bete ditzan.

2. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua arlo horretako eskumena duen organoari atxikita egonen da.

3. Nahitaezkoa izanen da Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak txostenak egitea kontsumoaren arloan ematen diren arauei buruz; betiere, txostenak arau horiek onetsi aurretik eginen dira.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko dira haren egitura, osaketa eta gainerako eginkizunak. Organoen osaeran, ahaleginak eginen dira orekatua izan dadin emakumeen eta gizonen presentzia.

## **VII. KAPITULUA**

### **Kontsumitzaileen edo erabiltzaileen erantzukizuna**

#### **40. artikulua. Garrantzi sozialaren zentzua.**

1. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen erantzukizuna da kontsumo egintzetan garrantzi kolektiboaren zentzuaz jokatea.

2. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen erantzukizunak, bakarkakoa nahiz kolektiboa izan, bere baitan hartzen du bai enpresen erantzukizun sozialaren arloan duten parte-hartzea, bai kontsumo arduratsua eta jasagarria egiteko duten erantzukizuna, erabakiak hartzeko irizpide ekonomiko, sozial eta ingurumenekoei dagokienez.

#### **41. artikulua. Erantzukizunaren adierazpenak.**

Kontsumitzaile edo erabiltzaileen erantzukizunaren adierazpenak dira honakoak:

a) Eskatzea beren eskubideak osotara aitortu eta egiaz erabiltzea, batez ere kontratazioari eta fakturazioari dagokien dokumentazioaren arloan.

b) Ondasun edo zerbitzuak alde batera uztea, jakina denean haiek ekoitzi, banatu edo merkaturatzeko, etikaren kontrako jardunbideak baliatzen direla, edo tartean direla beste inguruabar batzuk: lan esplotazioa, haurren lana, generoan oinarritutako diskriminazioa, sexu orientazioak, generoaren eta sexu identitatearen adierazpenak eragindako diskriminazioa edo desgaitasuna duten pertsonen esplotazioa edo erabilera bidegabea, bai eta haien irudiarena ere.

c) Modu egokian erabiltzea ondasunak edo zerbitzuak eskaintzen diren instalazioak eta ekipamenduak.

d) Tratu adeitsua eta begirunezkoa ematea bezero gisa arreta ematen dietenei, tratu bera jasotzeko.

e) Kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa ondasun edo zerbitzuak kontratatzean jasotzen dituzten oharrak eta ohartarazpenak aintzat hartzea.

f) Trabarik ez jartzea edo ez eragozte besterik kontsumitzaile edo erabiltzaile batzuek beren eskubideak erabil ditzaten, ez eta ondasun eta zerbitzuak erosi eta erabiltzeko haien erabaki eta egintzak ere.

g) Baimenik ez duten jardueretatik datozen ondasun edo zerbitzuen eskaintzari uko egitea, baimena izatea beharrezkoa denean.

- h) Administrazio publikoei jakinaraztea kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasunerako edo segurtasunerako arriskua ekar dezakeen edozein gorabehera, edo kaltea edo eskubideak murriztea ekar dezaketenak.
- i) Elikagairik alferrik gal ez dadin ahalegintzea, pertsonok elikatzeko hartzen ditugun gaien kontsumo arduratsuaren bitartez, eta, oro har, produktuak zaharkitu ez daitezen ahalegintzea, konpontzeko eta ordezkatzeko modukoak diren ondasunak hautatuz.
- j) Kontsumo jasangarria egiteko jokabideak izatea, hondakinen prebentzioari dagokionez eta gauzak birziklatzeari, berrerabiltzeari eta berreskuratzeari dagokionez.
- k) Ez eragozteia ekonomia zirkularraren, ekodiseinuaren eta berrikuntza partekatuaeren prozesuak.
- l) Laguntzea jasangarritasunean eta natura-baliabideen erabilera zentzuzko eta efizientean.
- m) Portaera edo ohitura ez arduratsuak eta ondasunen nahiz kontratatutako zerbitzuen erabilera desegoki edo arduragabeek dakartzaten kostuak ekiditea, haien mugikortasunari dagokiona barne.
- n) Ez eskatzea administrazio publikoen babesa, justifikatu gabeko kostua eragin behar badu.

### **III. TITULUA** **GATAZKAK AUZIBIDETIK KANPO KONPONTZEA**

#### **I. KAPITULUA** **Xedapen orokorrak**

#### **42. artikulua. Gatazkak konpontzeko bestelako sistemak sustatzea.**

Administrazio publikoek behar diren jarduketak eginen dituzte kontsumitzaile edo erabiltzaileek eta enpresaburu edo profesionalak kontsumo harremanetatik datozen gatazken konponbiderako bestelako sistemak izan ditzaten, kontsumitzaile edo erabiltzaileen elkarte edo erakundeekin eta enpresaburuaren elkarrekin elkarlanean, eta, horretarako, beren eskumenen esparruan, sistema horiek sustatu, kudeatu eta garatzeko lanak beteko dituzte, bereziki kontsumoko bitartekaritza eta arbitrajea.

#### **43. artikulua. Printzipio komunak.**

1. Kontsumo gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko sistemak kontsumitzaile edo erabiltzaileen erreklamazioei erantzuteko tresnak dira eta lotesleak dira borondatez haien menpe jartzen diren alderdientzat, horrek galarazi gabe bidezko babes administratibo eta judiziala ematea, bai eta gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko beste tresna lotesle batzuk sortzea ere, sektore espezifikoetarako legerian aurreikusita daudenak.
2. Bitartekaritza eta arbitrajearen menpe jar daitezke erabilera libreko gaien gaineko kontsumo egintza bat dela-eta sortutako gatazkak, bakoitzaren gaineko araudi orokor aplikagarriari jarraikiz.
3. Kontsumitzaile edo erabiltzaileek erantzukizun partekatua dute gatazkak konpontzeko bestelako sistemen erabilera eta luperketan, eta horrek berekin dakar elkarrizketa onartu, erraztu eta bultzatzea, eta adiskidantza akordio bat lortzeko ahalegin zintzoa.
4. Kontsumoaren arloko gatazkak konpontzearen esparruan, kontsumitzaile edo erabiltzaileek administrazio publikoekin elkarlanean aritzeko betebeharra dute, eta

horrek bere baitan hartzen du gatazkaz arduratzen ari den organoari berehala jakinaraztea enpresaburuak edo profesionalak bete dituen kontsumitzaile edo erabiltzailearen uziak.

5. Gatazkak konpontzeko bestelako sistemei dagozkien jarduketetan, sustatuko da bitarteko elektronikoa eta telematikoa erabiltzea, batez ere idatziak eta agiriak aurkezteko.

#### **44. artikulua. Lankidetzaren Europar Batasunaren esparruan.**

Nafarroako Gobernuak sustatu egingen du Europar Batasunean, mugaz haraindiko erreklamazioen kudeaketa bultzatzeko, ezarri diren kudeaketa elektronikoko sistemei buruzko informazioa ematea, haien zabalkundea eta erabilera.

## **II. KAPITULUA**

### **Kontsumoko bitartekaritza**

#### **45. artikulua. Ezaugarriak.**

Kontsumoko bitartekaritzaren prozeduraren ezaugarri nagusia da hirugarren pertsona batek –inpartziala eta aditua– esku hartzen duela, alderdiei laguntzeko, haiek beraiek lor dezaten gogobeteko dituen akordio bat.

#### **46. artikulua. Kontsumoko bitartekaritzaren nolakotasun bereziak.**

1. Kontsumoko bitartekaritzaren printzipioak dira borondatezkotasuna, fede ona, neutraltasuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna eta unibertsaltasuna.

2. Borondatezkotasunaren printzipioarekin bat, alderdiak libre dira bitartekaritzari atxikitzeko, bai eta noiznahi uzteko ere.

3. Inpartzialtasunaren eta neutraltasunaren printzipioekin bat, bitartekariak inpartziala izan behar du eta, beraz, parte-hartzaileei lagundu behar die behar diren akordioak lortzen, berak inolako konponbide edo neurri zehatzik inposatu gabe. Halako batean interes gatazka bat gertatzen bada alderdien eta bitartekariaren artean, bitartekariak uko egin beharko dio esku hartzeari.

4. Konfidentzialtasunaren printzipioarekin bat, bitartekariak eta alderdiek konfidentzialtasuna gorde beharko dute esku artean duten informazioaz. Betebehar hori betetzeko, alderdiek hitz ematen dute sekretua gordeko dutela eta, beraz, uko egiten diote bitartekaria lekuko gisa proposatzeari bitartekaritzaren xedeari eragiten dion prozeduraren batean. Halaber, bitartekariak uko egin beharko dio peritu gisa jarduteari kasu horietan beretan.

5. Horrez gain, konfidentzialtasunaren printzipioarekin bat, kontsumo arloko bitartekaritza prozesuan egiten diren agiriak eta aktak isilpekoak dira. Halere, ofizioz pertsegitu beharreko delituzko egitateak daudela agerian utz dezaketen datuen kasuan, bitartekaria ez da egonen konfidentzialtasunaren betebeharrari loturik eta horien berri eman beharko die agintari eskudunei.

6. Unibertsaltasunaren printzipioarekin bat, Nafarroako administrazio publikoek bitartekaritza gauzatzeko eskumena dute, eta horrek bere baitan hartzen du kontsumitzaile edo erabiltzaileei kontsumoaren arloan eragiten dien edozein gai, legeetan ezarritako salbuespenekin, betiere.

**47. artikulua. Bitartekaritza bultzatu eta sustatzea.**

1. Nafarroako Gobernuak bitartekaritza bultzatuko du, kontsumoaren arloko gatazkak konpontzeko sistema gisa.
2. Era berean, kontsumitzaile edo erabiltzaileen eskubideen arloko bitartekaritza gaietan barneko eta kanpoko prestakuntza sustatuko du.

**48. artikulua. Bitartekaritzan lortutako akordioen izaera.**

1. Kontsumo arloko bitartekaritza prozesuaren ondotik alderdiek lortzen dituzten akordioak lotesleak izanen dira alderdiek beraiek ezarritako modu eta baldintzetan.
2. Akordio horiek alderdiek eta bitartekariak sinatutako idatzi baten bidez formalizatzen ahalko dira.
3. Akordioak exekutiboak izanen dira bitartekaritzaren arloko araudi orokorrean xedatutakoaren babesean.

**III. KAPITULUA**  
**Kontsumoko arbitrajea**

**49. artikulua. Kontsumoko arbitrajearen sustapena eta bidezketasuna.**

1. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordea da Foru Komunitatean kontsumoko arbitrajearen sustapenaz eta garapenaz arduratzen den organo administratiboa, horrek galarazi gabe toki entitateekiko koordinazio lana, alderdiei ezagutzera emateko gatazkak konpontzeko bestelako bitarteko hau.
2. Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek lankidetzatza-hitzarmenak izenpetzen ahalko dituzte arbitrajea herritarrei ezagutzera emateko, hala eskatzen duten udalerrietan edo beste toki entitate batzuetan.
3. Arbitraje Batzordeak areagotuko du enpresaburu edo profesionalak eta haien ordezkariak erakundeak kontsumoko arbitrajeari atxikitzekeo sustapen lana, eta, horretarako, lankidetzatza hitzarmenak izenpetzen ahalko ditu haiekin.
4. Kontsumo arloko eskumena duen departamentuak Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordearen jarduera bultzatuko du, eta eginkizunak bete ditzan beharrezkoak dituen baliabideak emanen dizkio, materialak nahiz langile arlokoak.

**50. artikulua. Kontsumoko arbitrajea eta sektore publikoa.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko sozietate publikoek formalizatu beharko dute beren atxikipena kontsumoko arbitraje sistemari, kontsumo harreman batean zerbitzuak emateko egiten dituzten jardueren ondoriozko gatazkak konpontzeko.
2. Administrazio publikoek sustatuko dute kontsumoko arbitraje sistemari atxiki dakizkion zerbitzu publikoak edo zerbitzu orokorrak administrazio emakida bidez kudeatzen dituzten enpresa edo entitate pribatuak, bai eta funts publikoak jasotzen dituztenak ere.
3. Nafarroako administrazio publikoen kontratazio organoek aintzat hartzen ahalko dute kontsumoko arbitraje sistemari atxikita egotea adjudikatzeko irizpide edo exekuzio baldintza gisa, kontratuak kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako prestazio bat dakarrenean.

**51. artikulua. Kontsumoko arbitrajeari atxikitzearen bereizgarria eta balorazioa.**

1. Kontsumoko arbitrajeari atxikita egotea egiaztatzen duen bereizgarria kalitate zigilu enpresarial edo profesional bat da.
2. Kontsumoko arbitraje sistemari atxikita egotea merezimendu gisa baloratzen ahalko da administrazio publikoek kalitate enpresarial edo profesionalaren arloan ematen dituzten sariak baloratzeko.
3. Kontsumoko arbitraje sistemari atxikita egotea aintzat hartzen ahalko da laguntza eta dirulaguntza publikoak emateko orduan.
4. Kontsumoko arbitraje sistemari atxikitako enpresaburuek edo profesionalak argi jakinarazi beharko diete kontsumitzaile edo erabiltzaileei arbitrajeari atxikita daudela, dagokion bereizgarriaren bidez.

**IV. TITULUA**

**ONDASUN ETA ZERBITZUEN GAINEKO ZAINZA, KONTROLA ETA IKUSKAPENA**

**I. KAPITULUA**

**Izaera orokorreko xedapenak**

**52. artikulua. Jarduketa administratiboak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, kontsumo arloko eskumenak dituztenek, ondasun eta zerbitzuen zaintza, kontrol eta ikuskapen lanak eginen dituzte, kontsumitzaile edo erabiltzaileen eskubideak bermatzearen.
2. Merkatuaren zaintza lanak egiten ahalko dira kontsumitzaile edo erabiltzaileei eskaintzen zaizkien edo haien eskura jartzen diren ondasun eta zerbitzu guztien gainean, bai eta horiek ekoitzi, banatu eta merkaturatzeko erabiltzen diren elementu, baldintza eta instalazioen gainean ere.
3. Kontsumo Ikuskatzailetzaren jarduketak Nafarroako lurraldeko edozein tokitan eginen dira. Ikuskatzailetzaren jarduketa batek ondorioak izan behar baditu Foru Komunitatetik kanpo, ikuskatzaileak lurralde horretako agintari eskudunen laguntza eskatzen ahalko du, beharrezkoa denean gertaerak argitzeko edo egiaztatzeko, horrek galarazi gabe ikuskapenaren xedeko pertsona denari zuzeneko errekerimenduak egiteko aukera.

**53. artikulua. Urteko jarduketa plana.**

1. Kontsumoaren arloko eskumena duen departamentuak merkatuaren zaintzarako urteko plan bat prestatuko du, zeinean jasoko baitira kontsumitzaile edo erabiltzaileen esku jarri diren ondasun eta zerbitzuen gaineko kontrol eta ikuskapen jarduketak, horrek galarazi gabe beste neurri batzuk ere, egokiak eta beharrezkoak badira.
2. Jarduketak planifikatu eta beteko dira printzipio hauek betez: legezotasuna, objektibotasuna, proportzionaltasuna, koordinazioa eta eraginkortasuna.
3. Ukitutako sektore enpresarial edo profesionalak eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen interes orokorrak hobetzeko, jarduera horien emaitzaren berri jartzen ahalko da jendaurrean.

#### **54. artikulua. Prebentzio printzipioa.**

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, kontsumo arloan eskumenak dituztenek, ohartarazpena egiten ahalko diete beren betebeharrak, kontsumitzaile edo erabiltzaileei eragiten dietenak, betetzen ez dituzten enpresaburu edo profesionali haien egoeraz, eta eskatzen ahalko diete zentzuzko epe batean bete ditzaten, foru lege honetan aurreikusitako gainerako neurriak galarazi gabe, zehapan espedienteak irekitzea barne.

#### **55. artikulua. Merkatu azterketak eta prospekzioak.**

1. Kontsumo arloko eskumena duten administrazioek zuzenean egin ditzakete ondasun eta zerbitzuei eta horiek saltzen eta ematen diren establezimenduei buruzko azterketak, kontrolak, saiakuntzak, analisiak eta egiaztapenak, kontsumitzaileen babesaren eraginkortasuna areagotuko duten administrazio jarduketaren estrategiak ezartzeko.

2. Merkatuaren azterketa eta prospekzio lanetan atzematen diren irregulartasunen berri eman beharko zaie berehala arduradunei, horiek zuzentzeko neurri egokiak har ditzaten, horrek galarazi gabe hortik erator daitezkeen jarduketa administratiiboak.

3. Administrazio publikoek hitzarmenak egiten ahalko dituzte unibertsitateekin, lanbide elkargoekin edo beste erakunde edo entitate publiko nahiz pribatu batzuekin, kontsumitzaile edo erabiltzaileek aukera gehiago izan dezaten beharrezkoak diren zerbitzu teknikoak eskuragarri izateko, horien bidez egiaztatzearen kontsumitzaile edo erabiltzaileen ondarean kalterik sortu den kontsumo harreman baten ondorioz.

## **II. KAPITULUA**

### **Kontsumoko ikuskatzailetza**

#### **56. artikulua. Ikuskatzaileak. Agintari izaera.**

1. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko kontsumoko ikuskapen lanak egiten dituztenek funtzionarioak izan beharko dute eta kontsumoko ikuskatzailearen akreditazioa izan.

2. Ikuskatzaileek ikuskatzaileak direla esanen dute, ikuskapen eginkizuna betetzen ari direnean, esateak ikuskapenaren helburua zapuzten ahal duen kasuetan izan ezik. Kasu horietan, idatziz jasoko dira hala jokatzeko arrazoiak, aktan edo administrazio espedienteetan.

Identifikazioa egiten ahalko da aktan jasoz kasuan kasuko identifikazio kodea, izen-deituren adierazpenaren ordezkoa.

3. Ikuskatzaileak agintaritzat joko dira ondorio guztietarako, bereziki zerbitzuan ari direla edo zerbitzuaren ondorioz haien aurka erresistentzia erakusten dutenen, desobedientziaz jokatzeko dutenen edo izatez edo hitzez eraso egiten dietenen administrazio eta zigor erantzukizunei dagokienez.

#### **57. artikulua. Ikuskatzaileen eginkizunak.**

1. Ikuskatzaileek hierarkia eta inpartzialtasun printzipioekin bat jardunen dute eginkizun hauek betetzeko:

a) Ondasunak merkaturatzean eta zerbitzuak ematean, bereziki kontsumitzaile eta kolektibo zaugarriari zuzendutakoak, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideei zuzenean edo zeharka eragin diezaiekeen araudia betetzen dela zaintzea, egiaztatzea eta

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

argitzea; eta, horretarako, bere jardueraren garapenean programatzen diren ikuskapen-kanpainak aztertu, prestatu eta gauzatzeari.

b) Merkatu sektoreei buruzko azterketan parte hartzea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak arriskuan jar ditzaketen ondasun eta zerbitzuak zein diren zehazteko, horiek izan daitezkeen zaintza eta kontrol jardueren lehentasunezko helburuak.

c) Txostenak egitea sektoreak kontsumitzaileen eskubideak babesteko araudira zenbateraino egokitzen diren azaltzeko, bai eta kontsumoaren arloan eskumena duten organoek edo indarreko araudiaren araberrako zehapen prozedura batek eskatutako txostenak ere.

d) Beren jarduketetan ari direla, enpresei jakinaraztea zein diren kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babestu eta defendatzearen arloko araudi indardunaren eskakizunak eta nola bete eta aplikatu behar den araudia.

2. Ikuskatzaileen jarduketak administrazio publikoen menpeko zerbitzu edo enpresetan bete behar direnean, horien organo eta agintariengandik independentzia funtzionalarekin arituko dira, eta eskatzen duten informazioa eman beharko zaie.

3. Ikuskatzaileek jarduketaren xede den gaian adituak diren teknikari, espezialista edo funtzionarioekin batera jarduten ahalko dute, inguruabarrek hala gomendatzen dutenean, eta haien presentzia dagokion aktan jasoko da.

### **58. artikulua. Ikuskatzaileen ahalmenak.**

1. Ikuskatzaileek, beren eginkizunak betetzen ari direla, foru lege honetan aitortzen zaizkien ahalmenak izanen dituzte, eta behar den proportzionaltasunarekin bete beharko dituzte, eta ikuskatutako jardueraren garapenean eta lagundu behar duten pertsonen jardueran beharrezkoa den neurrian soilik eraginez.

2. Horretarako, ikuskatzaileek honakoak egin ditzakete:

a) Kontsumoaren arloko arau-hausteekin lotutako informazio, datu edo agiri pertinente oro eskuratzea, edozein forma edo formatutakoa, edozein dela ere gordeta dagoen euskarria edo tokia, legez babestuak daudenean izan ezik, kasu horretan epailearen baimena beharko baitute.

b) Beren eginkizunerako beharrezkoak diren egiaztapenarako beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio industrial, fiskala, merkataritzakoa eta kontabilitatekoa eskatzea.

c) Ikuskapenak bertatik bertara egitea, bereziki alde zuzeneko gaitzitu gabe sartzea kontsumitzaile edo erabiltzaileentzat garrantzia duten jarduerak betetzen diren lokal eta tokietan, instalazioak aztertze, bertan egiten diren jarduerak egiaztatze, produktuak aztertu, immobilizatu edo konfiskatzeko, edo informazio, datu edo agirien kopia lortzeko, edozein dela ere gordetzen dituen euskarria.

d) Enpresaburuari edo profesionalari edo ahalorde orokorra nahiz espezifikoa duen haren ordezkariari eskatzea azalpenak eman ditzala ikuskapenaren xede diren egitate, informazio edo agiriei buruz, eta erantzunak grabatzea. Agerraldiaren akta egin beharko da, ikuskapenaren tokian bertan edo Kontsumoko Ikuskatzailearen bulegoetan.

e) Ondasunak erosi edo zerbitzuak kontratatzea arau-hausteak atzemateko eta frogak lortzeko, foru lege honen eta estatuko nahiz Europako araudiarekin bat.

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

- f) Kontsumitzailearentzako ondasun mota guztietako laginak hartzea, merkaturatzearen edozein fasetan. Produktuak merkaturatzeko metodoa urrutikoa baldin bada, ikuskatzaileek laginak hartzen ahalko dituzte eskaera anonimoen bidez.
  - g) Behin-behinekoz, berehalakoan eta modu proportzionatuan, foru lege honetan aurreikusitako kautelazko neurriak hartzea.
  - h) Kautelazko neurriak gauzatu eta betetzea, bai eta produktu industrialen segurtasunari buruzko informazio truke azkarrerako sistematik datozen ekintzak ere.
  - i) Bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa denean, laguntza edo elkarlana eskatzea beste edozein administrazio edo agintaritzari edo haien agenteei, zeinek eman beharko baitote, administrazio publikoen araubide juridikoaren gaineko araudi indardunean xedatutakoarekin bat. Ondorio horietarako, eskatzen ahalko dute erregistro publikoetan edo administrazioen datu baseetan dagoen edozein informazio, eta hura inongo kosturik gabe emanen zaie. Horretarako, beharrezkoak diren datuak eskatzen ahalko dira kontsulta eginez zerga administrazioaren datu baseei, merkataritzako erregistroari, notarioen protokoloari eta beste administrazio erregistro batzuei, aplikagarria den araudian ezarritako baldintzak betez.
  - j) Erregelamenduz aurreikusten den beste edozein.
3. Datu pertsonalak eskatzen ahalko dira soilik ezinbestekoak direnean Kontsumoko Ikuskatzailearen eginkizunak betetzeko.

### **59. artikulua. Ikuskatuaren betebeharrak.**

Ondasun edo zerbitzuak ekoitzi, inportatu, merkaturatu edo hornitzean edozein modutan esku hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek, haien lege ordezkariak edo establezimenduen arduradunak, betebeharrak izan behar dituzte:

- a) Ikuskapen bisita erraztea, baimena emanez kontrolatu daitezten hala salgai dauden ondasunak edo ematen diren zerbitzuak, nola kontsumitzaile edo erabiltzaileei eragiten dieten jarduerak betetzen diren lokal eta instalazioak, eta, orobat, bidezkoak diren egiaztapenak egin daitezela baimentzea.
- b) Informazio eta datu mota guztiak ematea instalazioei, ondasunei, zerbitzuei, merkataritzako transakzioei edo zerbitzuak emateko kontratuei buruz, eta baimena ematea Ikuskatzailetzako funtzionarioek zuzenean egiaztatzen.
- c) Egindako transakzio edo kontratazioak, aplikatutako prezio eta marjinak eta prezioen barruko kontzeptuak justifikatzeko gisa erabil daitezkeen dokumentazioa, liburuak eta erregistroak erakustea, edozein dela ere haien euskarria.
- d) Dokumentazio horren kopia edo erreprodukzioa ematea, ikuskatuaren kargura.
- e) Ondasun edo zerbitzuen laginak har daitezten eta haiekin bestelako kontrol edo saiakuntzak egin daitezten baimentzea, merkaturatze prozesuaren edozein fasetan.
- f) Kautelazko neurrien menpe dauden ondasun edo zerbitzuak modu egokian gordailutu eta kontserbatzea, edo lagina hartzearen xede izan direnak, bai eta ezarritako kautelazko neurriak betetzea ere, organo eskudunen jarraibideak betez beti.

### **60. artikulua. Hitzorduak.**

1. Kontsumoko Ikuskatzailetzako langileek hitzorduak ematen ahalko dituzte, enpresa, jarduera edo establezimenduen titularrak, haien lege ordezkariak edo haiekin lotura duen edozein pertsona ager daitezten ikuskatzaileek adierazitako tokian, ikuskapen lana



errazteko eta beharrezkoak diren dokumentazioa, informazioa edo datuak aurkezteko, datu pertsonalak dituztenak barne.

2. Hitzorduak ematen ahalko zaizkio, halaber, edozein kontsumitzaile edo erabiltzaile, baldin eta beharrezkoa bada ikuskapen lanerako.

3. Hitzorduetan adieraziko da agerraldiaren tokia, eguna, ordua eta xedea, ahalik eta gutxien trabatuz hitzordura deitutakoen betebeharrak, lanekoak nahiz profesionalak; hitzordura aholkulari identifikatuek lagunduta joaten ahalko dira.

### **61. artikulua. Ikuskapen jarduketan agiriak.**

1. Kontsumoko Ikuskatzailetzaren jarduna, bere eginkizunak betetzen ari dela, akta eta eginbideekin dokumentatuko da.

2. Aktak agiri publikoak dira, ikuskatzaileek eginak, non jasotzen baita kontsumitzaileen defentsarako araudia betetzen den zaindu eta egiaztatzeko ikuskapen lanaren emaitza; bertan adierazi beharko da enpresaburu edo profesionalaren identifikazioa, ikuskapenaren xede den establezimendua edo zerbitzua, helbidea eta guzti; eguna, ordua eta tokia; ikuskapenaren xedea; jarduten duen ikuskatzailea; egiaztatutako egitateak, egintzak eta negoziok; ikuskapenaren xede den pertsonak egin nahi dituen adierazpenak, bai eta ikuskatzailearen eta enpresaren ordezkariaren edo bisitan egondakoaren sinadurak ere, edo sinatzeko ukoa eta horretarako alegatu diren arrazoiak.

3. Ez da beharrezkoa izanen ikuskapenaren xede denak aktaren prestaketan parte hartzea ikuskapenak egiten direlarik urrutiko merkataritzan, telefono bidezkoan edo ez-presentzian, edo eskaera anonimoaren bidez, frogako erosketen bidez edo ikuskatzailearen identifikazioarekin bateragarria ez den beste edozein metodo erabiliz.

Kasu horietan, laginak ikuskatzailetzaren esku daudenean edo ikuskapenaren xede diren jarduketak bukatu dituenan, akta enpresaburu edo profesionalari helaraziko zaio, jarduketan berri ematearekin batera.

4. Eginbideak ikuskatzaileak idazten dituen agiri batzuk dira, eta bertan jasotzen du ikuskapenerako garrantzia duen edozein egitate, inguruabar edo adierazpen. Eginbidea baliozkoa izateko, jardun duen langilearen sinadura baizik ez da beharko agertzea beharrezkoa ez denean edo ezinezkoa denean, edo agertzeak zapuzten ahal duenean ikuskapena; eginbidean adierazi beharko da enpresaburu edo profesionalaren identifikazioa, ikuskapenaren xede den establezimendua edo zerbitzua, helbidea eta guzti, jardun duen ikuskatzailearen identifikazioa eta sinadura, jarduketaren arrazoiak, atzemandako egitateak eta inguruabarrak eta eginbidea betetzen den tokia, eguna eta ordua.

5. Ikuskatzaileek ikuskatuari helaraziko dizkiote jarduketa bitartean egindako agiriak, paperezko formatuan nahiz bitarteko elektronikoen bidez.

Ikuskapenean erabilitako bitarteko teknikoak direla-eta ezinezkoa denean bisitan bertan helaraztea egiten den agiria, gehienez ere hiru egun balioduneko epean emanen zaio ikuskatuari.

6. Nolanahi ere, bermatuko da enpresaburu edo profesionalaren eskubidea, egindako ikuskapen lanei dagokienez bidezkotzat jotzen duena adieraztekoa.

7. Legezko baldintzak beteta ematen diren ikuskapen aktak eta eginbideak ikuskatzaileek egiaztatutako egitateen froga dira, salbu eta kontrakoa frogatzen bada.

### **III. KAPITULUA**

#### **Laginak hartzea eta analisiak egitea**

#### **62. artikulua. Laginak hartzea.**

1. Kontsumoko Ikuskatzaileak, bere eginkizunak betetzen ari dela, laginak hartzen ahalko ditu edo beste edozein kontrol edo saiakuntza egin ondasan eta zerbitzuen gainean merkaturatze prozesuaren edozein fasetan, funtzionaltasunari, osaketari, etiketei, aurkezpenari, publizitateari, segurtasunari edo kontsumitzaile edo erabiltzaileei eragin diezaiekeen beste edozein alderdiri dagokionez, aplikagarria den araudiarekin bat datozen egiaztatzeko.

2. Xede berarekin, kontsumoko ikuskatzaileak ondasan edo zerbitzuak erosten ahalko ditu, frogatako erosketagisa, baita urrutiko salmentaren kasuan ere.

3. Administrazioak laginak hartzen baditu edo frogatako erosketak egiten baditu, enpresari ordainduko dio lagin edo froga gisa erabilitako ondasanen balioa, horiek hartzean. Hala ere, honako kasu hauetan ez da ordaindu beharko:

a) Laginak hartzen direnean kautelazko neurrien menpe dauden ondasunetatik, zeinen fabrikazioa, banaketa edo salmenta mugatu baitute neurri horiek.

b) Laginak hartzen direnean ikertutako produktuaren arduradunaren jabetzako instalazioetan edo haren ondasanen gainean.

4. Laginak hartzea formalizatuko da ikuskapen akta bat eginez ikuskapenaren xede den enpresaren edo establezimenduaren titularraren aurrean edo haren lege ordezkariaren edo arduradunaren aurrean, eta haietako inor ez badago bertan, edozein saltzaileren aurrean; aktan jaso egingen dira egintza behar bezala identifikatzeko behar diren datu eta inguruabar guztiak, bai eta laginen edukia eta identitatea ere.

Erregelamenduzko lagina hiru ale homogeneok osatuko dute, eta behar bestekoak, egin gogo diren zehaztapen analitikoaren arabera; laginak prestatu, zigilatu, etiketatu eta behar bezala eginbidetuko dira, bermatuta gera daitezen haien edukiaren osotasuna eta ale bakoitzaren trazabilitatea.

5. Laginen gordailua honela egingen da:

a) Egintza formalizatzen den establezimenduaren enpresa edo titularra baldin bada hartutako laginen fabrikatzailea, ontziratzailea edo markatzailea, berak ale bat gordeko du, gordailuan, aktaren kopia batekin batera, eta egoera onean gorde beharko du, aurrerago kontraesanezko froga gisa erabiltzeko, beharrezkoa balitz. Horrenbestez, laginaren ale hori manipulatzeko, desagertzeko, suntsitzeko edo hondatzea asmo txarrez egingo dela ulertuko da, kontrakoa frogatu ezean, eta kontrajartzeko analisiari uko egitea ekarriko du, halakorik balitz. Beste bi aleak Ikuskatzaileak gordeko ditu, eta haietako bat hasierako analisisia egin behar duen laborategira igorriko da.

b) Ikuskatutako establezimendu edo enpresaren titularra produktuaren banatzaile hutsa bada, berak gordeko du aktaren kopia bat, baina laginaren hiru aleak Ikuskatzaileak eramanen ditu, eta, kasu horretan, ale bat igorriko da hasierako analisisia egin behar duen laborategira, eta saiakuntzako txostenaren ondorioa baldin bada kasuko araudi indardunaren arau-haustea gertatu dela, administrazioaren zaintzapean dauden aleetako bat jarriko da fabrikatzaile, ontziratzaile edo markatzaile interesdunaren edo behar bezala baimenduta hura ordezkatzeko duen pertsonaren esku, eraman dezan,

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

kontraesanezko froga egin nahi izanez gero; hirugarren alea gordeko da froga erabakigarri gisa erabiltzeko, beharrezkoa balitz.

### **63. artikulua. Analisisiak.**

1. Analisisiak eginen dira artikulua honetan ezarritakoari jarraikiz, horrek galarazi gabe arau sektorial espezifikotetan araututakoa.
2. Laborategi eskudunetan eginen dira kontrol ofizialerako analisisiak.
3. Lehenbiziko lagina jaso duen laborategiak, hura eta erantsia duen dokumentazioa ikusirik, hasierako analisisa eginen du eta ahalik eta azkarren igorriko ditu analisiaren emaitzak eta txosten tekniko bat, analizatutako laginaren kalifikazioaz duen iritzia argi eta zehatz emanez.
4. Hasierako analisiaren emaitza ikusita indarreko xedapenen arau-hausteak izan direla ondorioztatzen bada, organo eskudunak erabaki dezake zehapen espedienteari hasiera ematea. Kasu horretan eta espedientearen xede den pertsonak emaitzak onartzen ez baditu, espedientea instruitzen ari denari eskatzen ahalko dio kontraesanezko analisi bat egiteko 15 eguneko epean espedientea irekitzeko ebazpena jakinarazten denetik hasita. Analisisaren emaitza eta txosten tekniko osagarria espedientea instruitzen duenari igorri beharko zaizkio hilabeteko epean, gehienez, proposatutako froga tramitera onartu dela jakinarazten denetik, eta epe hori iragaten bada analisisa egin gabe eta instrukzioaren egileari jakinarazi gabe, ulertuko da atzera egiten duela proposatutako froga erabiltzeko eskubidean, non eta espedientearen xede denak ez duen eskatzen epea luzatzea; izan ere, kasu horretan, hasierako epearen erdia adinako luzapena ematen ahalko zaio gehienez, inguruabarrak direla-eta komeni bada.
5. Hasierako eta kontraesanezko analisisen irizpenen artean desadostasunik badago, espedientea instruitzen duenak beste laborategi bat izendatuko du hirugarren analisisa egiteko, erabakigarria eta behin betikoa izanen dena.

### **64. artikulua. Analisisiak egintza bakar batean egitea.**

1. Hasierako egoeran kontserbatzen zailak diren ondasunak direnean, edo, oro har, produktu galkorrak direnean, presako arrazoiak daudenean kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasunerako sor daitezkeen arriskuengatik, salgaiaren garrantzi ekonomikoagatik, edo ezaugarri teknikoak direla-eta komeni denean, arloko hiru perituri dei egiten ahalko zaie, egintza bakar batean eta laborategi berean elkartzeko. Haietako bi administrazioak izendatuko ditu, eta hirugarrena interesdunak.
2. Kasu horretan, hasierako analisisa, kontraesanezkoa eta, beharrezkoa bada, erabakigarria jarraian eginen dira.

### **65. artikulua. Lagin bakar baten analisisa.**

1. Saiakuntzen emaitza akreditatu gelditzen ahalko da analisiaren emaitza bakar batekin, laborategi ofizial edo akreditatu batean ale bakar batek osatutako lagin batetik lortuta, kasu hauetan:
  - a) Laginak hartzeko arrazoia denean saiakuntza analitikoak egitea ziurtapenaren edo homologazioaren menpe dauden produktuen gainean, haien segurtasunaz edo gaitasun funtzionalaz erabakitzeko.

b) Produktu baten kantitate urriagatik edo erabilgarri dauden unitateen kopuru txikiagatik, haren balio ekonomiko handiagatik edo beste ezaugarri justifikatu batzuegatik, hiru lagin hartzea posible edo proportzioskoa ez denean, betiere arrazoi horiek aktan justifikatuta.

2. Kasu horietan, probak egin behar direla jakinaraziko zaie produktuaren arduradunei.

#### **66. artikulua. Analisiak egiteak dakartzan kostuak.**

1. Hasierako analisia egiteak sortutako gastuak Administrazioak ordainduko ditu.

2. Kontraesaneko analisia egiteak sortutako gastuak hura egitea eskatu zuenak ordainduko ditu.

3. Analisi erabakigarria egiteak sortutako gastuak enpresak ordainduko ditu, salbu eta analisiak zuzentzen badu hasierako analisiaren emaitza, kasu horretan Administrazioak ordainduko baitu.

4. Artikulu honetan adierazitako kontzeptuegatik enpresa interesdunek ordaindu beharreko zenbatekoak administrazio ebazpenean deklaratu dira.

### **IV. KAPITULUA** **Kautelazko neurriak**

#### **67. artikulua. Kautelazko neurriak hartzeko kasuak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan kontsumo arloko eskumena duen organoak ebazpen arrazoituaren bidez kautelazko neurriak hartuko ditu, atzemandako arriskua desagerrarazteko ezinbestekoak direnak, kasu hauetan:

a) Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasuna eta segurtasunerako arriskua egotearen arrazoizko zantzuak daudenean.

b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozialek kalte larria jasan dezaketenean.

2. Kautelazko neurriak, halaber, kontsumoko ikuskatzaileek har ditzakete, hartutako neurrien arrazoiak justifikatzen duen akta eginez.

#### **68. artikulua. Neurrien proportzionaltasuna.**

Kautelazko neurriak arriskuen larritasunaren proportziokoak izanen dira, eta beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontrolak egiteko, sortutako arriskuak deuseztatzeko edo, posible bada, neurria ekarri zuen gertaera desagertzeko behar den denboran baizik ez dira mantenduko.

#### **69. artikulua. Kautelazko neurri motak.**

Kautelazko neurri hauek hartzen ahalko dira:

a) Ondasun baten eskaintza, sustapena, merkaturatzea edo salmenta edo zerbitzu baten prestazioa bertan behera uztea edo debekatzea aldi baterako, zein diren ere horretarako erabiltzen diren bitartekoak, informazioaren gizartearenak barne.

b) Aldez aurreko baldintzak ezartzea ondasunak merkaturatzeko edo zerbitzuak emateko prozesuko edozein fasetan, atzemandako akatsak zuzendu daitezten.

c) Zenbait ondasun immobilizatzea edo konfiskatzea, horiek berariazko baimenik gabe erabiltzea debekatuta egon dadin.

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

- d) Merkatutik zenbait ondasun kentzea eta, kasua bada, kontsumitzaile eta erabiltzaileen esku daudenak berreskuratzea.
- e) Ondasuna baldintza egokietan suntsitzea.
- f) Establezimenduak edo instalazioak aldi baterako ixtea.
- g) Ukitzen ahal dituen pertsoneri arriskuaren berri emateko betebeharra eta, kasua bada, enpresak hartuko dituen neurrien berri ere bai, berehalakoan eta haien berri izan dutela ziurtatzeko bitarteko egokienak erabiliz.
- h) Arriskua ekidin edo desagerrarazteko beharrezkoa den beste edozein neurri, lege honek eskatzen dituen baldintzak betetzen dituen.

### **70. artikulua. Neurriak hartu ondoren bete beharreko prozedura.**

1. Neurriak kontsumoko ikuskatzailetzak hartuak badira, 15 egun balioduneko epean berretsi, aldatu edo kendu beharko dira, organo eskudunak prozedura hasteko ematen duen ebazpen baten bidez.  
Aipatutako epean prozedura hasteko ebazpena eman ez bada, edo ebazpenean ez badago jasota hartutako kautelazko neurriei buruzko berariazko erabakirik, neurriak ondorioz gabe geldituko dira.
2. Prozedurari hasiera ematen dion ebazpena jakinaraziko zaie interesdunei, eta 15 egun balioduneko epea emanen alegazioak edo frogak aurkezteko.
3. Organo eskudunak prozedura amaitzeko ebazpena emanen du sei hilabeteko gehieneko epean, prozedura hasteko ebazpenaren egunetik aurrera; ebazpen horretan hartu beharreko neurriak erabakiko ditu, horiek betetzeko epeak eta baldintzak barne.
4. Kalterik sor ez dadin, prozedura presaz tramitatzea erabakitzen ahalko da.
5. Ondasun edo zerbitzuak biltegitartzeko, lekuz aldatzeko, zuzentzeko, konpontzeko, egiaztatzeko edo suntsitzeko gastuak, prozeduraren xede diren behin-behineko eta behin betiko neurriak hartzeak eragindakoak, beren portaeratik sortu dituztenek ordainduko dituzte.
6. Hartzen den ebazpenak ez du galaraziko, beharrezkoa bada, zehapen prozedura bat irekitzea administrazio arau-haustea dakarten egitateak tartean badira.

## **V. TITULUA ZEHAPEN AHALMENA**

### **I. KAPITULUA Arau orokorrak**

#### **71. artikulua. Zehapen ahalmenaren esleipena.**

1. Nafarroako administrazio publikoei, arloan eskumena dutenei, dagokie kontsumoko arau-hauste gisa tipifikatutako jokabideak zehatzeko ahalmena, berariazko erregulazioa duten sektoreetan aritzen diren enpresaburu edo profesionaleri eragiten dietenak barne, horrek galarazi gabe eskatu beharreko erantzukizun zibilak, penalak edo bestelakoak, baldin badaude.
2. Nafarroako Gobernuan kontsumoaren arloan eskumena duen organoak zehatuko ditu kontsumitzaile edo erabiltzaileen defentsaren arloan Foru Komunitateko lurraldean egiten diren arau-haustek, edo Nafarroako kontsumitzaile edo erabiltzaileei zuzendutako eskaintzen, merkataritza komunikazioen edo beste edozein motatako

proposamenen ondoriozkoak, horiek egiten dituztenen nazionalitatea eta helbidea edozein delarik ere, eta haien establezimenduak non dauden kokaturik kontuan hartu gabe.

3. Ulertuko da arau-hausteak egin direla horiek sortzen dituzten egiteak edo ez-egiteak bete diren tokietako edozeinetan, eta, horrez gain, kontsumitzaile edo erabiltzaileen interesetarako kaltea edo arriskua agertzen den guztietan, salbu eta establezimenduen edo instalazioen edo langileen baldintzei dagozkien arau-hausteen kasuan.

4. Publizitatearen kasuan, baita urrutiko kontratazioaren eta merkataritza elektronikoaaren mota guztietan ere, ulertuko da arau-haustea egin dela kontsumitzaile edo erabiltzailearen helbidea dagoen tokian.

### **72. artikulua. Arau-haustea diren jarduketak edo ez-egiteak.**

1. Arau-haustea dakarren egitate bakoitza, dela jarduketa dela ez-egitea, bere aldetik zehatuko da, dagokion zehapena ezarri, salbu eta arau-hausteak gehiago direnean, hau da, egitate batek bi arau-hauste edo gehiago ekartzen dituenean edo arau-hauste bat beste bat egiteko nahitazko bitartekoa denean, kasu horretan arau-hauste astunenerako aurreikusitako zehapena aplikatuko baita.

2. Ulertzen da arau-haustea dakarren egitate bat beste batekiko independentea dela bat egin daitekeenean bestea egin gabe eta alderantziz. Kasu horretan, egitate adina zehapen ezarriko dira.

3. Aurretik prestatutako plan bati segituz edo aukera bera aprobetxatuz, egintza edo ez-egite asko egitea, foru lege honetan tipifikatutakoak, etengabeko administrazio arau-hauste bakartzat hartuko da, betiere agindu bera edo antzekoak urratzen badira.

### **73. artikulua. Egitate berberengatik zehapen bikoitza jartzeko debekua.**

1. Ezin izanen da zehapen bikoitza jarri egitate berberengatik, baldin eta subjektu eta oinarri bera badaude interes publiko berberak babesteagatik, horrek galarazi gabe batera izandako beste egintza edo arau-hauste batzuek sortutako gainerako erantzukizunak eskatzea.

2. Kasu horretan, organo eskudunak noiznahi ebatzi dezake administrazio erantzukizuna ez dela galdagarria, inguruabar horiek egiaztatuak gelditzen diren prozeduraren instrukzioaren edozein unetan, baina administrazio eskudunarekin beharrezkoak diren koordinazio jarduketak beteko ditu.

### **74. artikulua. Prozeduren konkurrentzia.**

1. Zehapen espediente bat behin hasirik, egitateak arau-hauste penala izan daitezkeela iritziz gero, Fiskaltzari jakinaraziko zaio, eta prozedura nahiz preskripzio eta iraingipen epeak bertan behera geldituko dira ebazpen judiziala eman eta kontsumo arloko eskumena duen administrazioari jakinarazi arte.

2. Era berean, organo eskudunak bertan behera utziko ditu prozeduraren ebazpena eta preskripzio eta iraingipen epeak baldin eta auzitegietan kausa penal bat instruitzen ari bada egitate berberengatik, harik eta ebazpen judiziala eman arte. Pertsonen osasuna edo segurtasuna babesteko hartutako neurri administratiboek agintaritza judizialak horiei buruzko erabakia eman arte mantenduko dira.

3. Edozein kasutan, zigor arloko ebazpen judizial irmoaren bidez frogatutzat emandako egitateak lotesleak dira administrazio organoentzat, tramitatzen dituzten zehapen prozedurei dagokienez.

4. Egitate berberengatik Europar Batasuneko organoetan prozedura bat betetzen ari baldin bada, prozeduraren ebazpena geroratu egingen da, eta prozedura bertan behera utziko, bai eta preskripzio eta iraungipen epeak ere. Etendura kenduko da organo horiek ebazpen irmoa eman ondoren.

5. Europar Batasuneko organoek zehapena jarri baldin badute, ebazteko eskumena duen organoak kontuan hartu beharko du hura ezarri behar duen zehapena mailakatzeko, eta konpentsatzen ahalko du, horrek galarazi gabe arau-haustea egin dela deklaratzeko.

#### **75. artikulua. Aurretiazko jarduketak.**

1. Prozedura hasi baino lehen, aurretiazko jarduketak egiten ahalko dira, zehaztu ahal izateko hura hasteko arrazoi den inguruabarrik ote dagoen. Bereziki, jarduketa horiek bilatuko dute ahalik eta zehatzen argitzea zer egintza diren prozedura hasteko arrazoi, nor diren erantzule izan daitezkeenak eta zein diren batzuen eta besteen inguruabar garrantzitsuak.

2. Aurretiazko jarduketak arlo horretako ikuskapen eginkizunak esleiturik dituzten organoek egingen dituzte, edo prozedura hasi edo ebazteko eskumena duen organoak erabakitzen duen administrazio pertsonak edo organoak.

#### **76. artikulua. Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.**

1. Arau-hauste oso astunek bost urtera preskribatuko dute, astunek hiru urtera eta arinek urtebetera; falta oso astunengatik ezarritako zehapenek bost urtera preskribatuko dute, falta astunengatik ezarritakoek hiru urtera, eta falta arinengatik ezarritakoek urtebetera.

2. Arau-hausteen preskripzio epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokabide arau-hauslea bukatzearekin batera hasiko da epea zenbatzen.

Interesduna jakitun delarik zehapen prozedura administratiboan hasten denean, preskripzio epea eten egingen da. Berriz hasiko da kontatzen baldin eta zehapen espedientea hilabetetik gora geldirik egoten bada ustezko arau-hausleari ezin egozteko moduko arrazoiengatik.

3. Zehapenen preskripzio epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena exekutagarria den egunaren biharamunetik edo ebazpenaren aurkako errekurtsora jartzeko epea bukatzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Preskripzioa eten egingen da baldin eta, interesduna jakinaren gainean egonda, exekuzio-prozedura hasten bada, baina arau-hausleari egotz ezin dakizkikeen arrazoiengatik exekuzio-prozedura hilabetetik gora geldirik badago, preskripzio-epea martxan jarriko da berriz.

Zehapena jartzen duen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsora jarri, eta presuntziozko ezespina gertatzen denean, isunaren preskripzio epea kontatzen hasiko da errekurtsora ebazteko lege ezarritako epea bukatu eta biharamunetik.

**77. artikulua. Prozedura iraungitzea.**

Zehapen prozedura hasteko ebazpena eman eta bederlatzi hilabetera, epe horretan prozedura amaitzen duen berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, iraungi egingen da, eta administrazio jarduleak ebazpena eman beharko du hala dela deklaratzeko eta jarduketak artxibatzeko agintzeko, horrek galarazi gabe prozedura berri bat irekitzea, zehatu beharreko egintza preskribatu ez bada.

Prozedura gelditu baldin bada interesdunari egozten ahal zaion arrazoi batengatik, ebazteko eta prozedura amaitzeko ebazpena jakinarazteko epearen kontaketa eten egingen da.

**II. KAPITULUA**  
**Arau-haustek**

**78. artikulua. Arau-hauste arinak.**

Honako hauek dira arau-hauste arinak:

1. Arau bidez enpresaburu edo profesionali kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasunaren edo segurtasunaren babeserako ezartzen zaizkien betebeharrak espezifikokoak urratzea.
2. Agintaritzaren eskudunek egoera espezifikokoetarako zehazki egiten dituzten aurretiazko errekerimenduak urratzea, zeinak eginak baitira kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasun edo segurtasunerako kaltegarriak izan daitezkeen kutsatzeak, inguruabarrak edo bestelako jokabide galgarriak ekiditeko helburuarekin.
3. Nahitaez bete beharreko arauak hautsi gabe ere, kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasun edo segurtasunerako arriskua edo egiazko kaltea ekar dezaketen egintzak edo ez-egiteak egitea, kasuan kasuko jarduerak eskatzen duen zentzuzko arretarik gabe egiten badira.
4. Ondasun edo zerbitzuak egin, banatu edo hornitzea haien osaketa, kopurua, pisua, neurria, kalitatea edo ezaugarriak bat ez datozenean indarreko xedapenekin edo administrazio baimenekin, edo ez direnean deklaraturakoen eta kasuan kasuko erregistroan jasotakoen berdinak, edo enpresaburuak edo profesionalak eskaintakoen berdinak; horrekin batera, oro har, engainua edo nahasbidea dakarren edozein egoera, edo ondasun edo zerbitzuaren egiazko izaera ezagutzea galarazten duena.
5. Uko egitea kontsumoko arbitraje sistemaren edo gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko beste edozein sistemaren menpe jartzeari, baldin eta enpresaburu edo profesionalak hari atxikita egotearen bereizgarriaren publizitatea egin badu.
6. Kontsumoko arbitraje sistemari edo kontsumo arloko gatazken bestelako konponbiderako edozein entitateri atxikita egotearen bereizgarria publizitatu, erakutsi edo erabiltzea baliozko atxikipenik izan gabe edo, izanda ere, atxikipena mugatua dela adierazten ez badu.
7. Konfiantza edo kalitate zigilu bat edo bereizgarri baliokide bat erakustea, edo konfiantza edo kalitate zigilu bat edo araututako bereizgarri baliokide bat zuzenean nahiz zeharka gogorarazten duten bereizgarriak edo aipamenak, beharrezkoa den baimena izan gabe.
8. Kontsumitzaile edo erabiltzaileak eskatu edo baimendu gabeko konponketa edo instalazio lanak edo antzekoak egitea berarentzat.



§2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

9. Ondasun edo zerbitzuak egin, banatu, hornitu edo eskaintzea legeek eta erregelamenduek ezarri edo arautzen dituzten informazio betebeharrak behar bezala bete gabe, nahitaezkoa den edozein datu edo aipamenei dagokionez eta informazio horretarako aurreikusirik dauden bitartekoetatik edozein erabiliz.

10. Bidegabeki erabiltzea markak, ezaugarriak, trokelak edo antzeko bereizgarriak, nahitaezkoak ez erabiltzea edo erabiltzea arauzko baldintzak betetzen ez dituztenak, horrek kontsumitzaileen interesei kaltea ekar diezaikekeen neurrian.

11. Ez izatea, ez eramatea edo gaizki eramatea nahitaez ezarritako dokumentazioa, liburuak edo erregistroak, kontsumitzaile edo erabiltzaileen interesen babesari eragiten diotenak.

12. Ondasun bat edozein esku-hartze edo eragiketa egiteko uzten denean, kontsumitzaile edo erabiltzaileei gordailu-agiri bat emateko betebeharra ez betetzea, bai eta nahitaezko baldintzak bete gabe ematea ere.

13. Kontsumitzaile edo erabiltzaileei ez ematea erabilera eta mantentze-lanen jarraibideak edo kasuan kasuko araudiak eskatzen duen beste edozein agiri, ondasun bat erabili, okupatu, mantendu eta kontserbatzeko edo zerbitzu batez gozatzeko.

14. Aurrekontuak egiteari uko egitea, nahitaezkoa denean edo kontsumitzaile edo erabiltzaileak hala eskatzen duenean, edo baldintzak edo prezioak inposatzea haiek egiteko, hori debekaturik dagoela, bai eta aurrekontuan aurreikusitako prezioak goratzea ere kontsumitzaile edo erabiltzailearen adostasunik gabe.

15. Kontsumitzaileei saldu edo haien esku jartzea erabilera enpresarial edo profesionalerako baizik ez diren ondasunak.

16. Langile kualifikatuak izateko betebeharra ez betetzea kontsumitzaile edo erabiltzaileei horrek kaltea ekartzen ahal dienean.

17. Ondasun edo zerbitzuak pilatzea eta merkatutik kentzea prezioak igoarazteko edo aurreikusen diren gorakaden zain, kontsumitzaile edo erabiltzaileei kalte eginez.

18. Ondasun edo zerbitzuen prezioen informazio eta publizitatearen gaineko arauak ez betetzea.

19. Eskatutako ondasunaren gutxieneko kopuru bat erosteko edo transakzioaren xede ez diren eta nahi ez diren ondasun edo zerbitzu osagarriak kontratatzeko baldintza ezartzea, berariazkoa nahiz esan gabekoa, edo benetan egin nahi den kontratazioa beste kontratu bat formalizatzearekin lotzea, ez bada salmenta unitate bat edo lotura funtzional bat bien artean, kasu horietan enpresak baliatzen duela bere nagusitasuna edo kontsumitzaile edo erabiltzailearen hautatze-askatasuna gutxituta dagoen egoera bat.

20. Egindako transakzioak edo emandako zerbitzuak frogatzen dituen ordainagiri, faktura edo ziurtagiririk ez ematea edo emateari uko egitea nahitaezkoa denean edo kontsumitzaile edo erabiltzaileak eskatzen duenean, edo formalizatutako kontratuen agiri bidezko justifikazioa ez ematea, bai eta halakoak emateagatik kobratzea edo prezioa handitzea.

21. Kontsumitzaile edo erabiltzaileei kobratzea edo kobratzen saiatzea iragarri edo agerian jarritako prezioak baino handiagoak, edo administrazioak baimendu edo ezarritakoak edo hari jakinarazitakoak baino handiagoak.

22. Kontsumitzaile edo erabiltzaileari ezkutetzea prezioaren zati bat, agerikoak ez diren ordainketa moduak edo prestazioak erabiliz, edo itxuraz hitzartutako prestazioen egiazko kalitatea edo kopuruak gutxituz.

§2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

23. Kontsumitzaile edo erabiltzaileari jasanaraztea prezioaren ordainketa gehigarria, foru lege honetan aurreikusitakoaren arabera justifikatu gabea, eta, oro har, prezioen gaineko arauak ez betetzea.
24. Erositako ondasunak emateko edo kontratatutako zerbitzua ematen hasteko erabakitako edo araz finkatutako epea edo epeak ez betetzea.
25. Kontsumitzaile edo erabiltzaileak ordaindutako diru kopuruak itzultzeko atzerapena, justifikatu gabekoa, kontratua suntsiarazten bada enpresaburu edo profesionalak ez dituelako bete legez aurreikusitako edo kontratuan ezarritako betebeharrak.
26. Legez onartutako eta eskaintako ordainketa moduak ez onartzea, bai eta fakturaztea ere zenbait ordainketa modu erabiltzeagatik.
27. Urrutiko kontratazioaren baldintzak eta betekizunak urratzea, jokaera hori ez denean astuna, foru lege honen 79.2 h) artikulua arabera.
28. Justifikaziorik gabe mugatzea edo eragoztekoa kontsumitzaileak edo erabiltzaileak kontratuei bukaera emateko duen eskubidea, hala zerbitzuak emateko kontratuen kasuan, nola ondasunak segidan edo jarraika hornitzeko kontratuen kasuan.
29. Eskaintzak, baldintzak edo adierazpenak idatziz ez formalizatzea, aplikagarria den araudiak hala eskatzen duenean.
30. Kontsumoaren arloko eskumena duten agintariek eskatzen duten informazioa eta dokumentazioa ez ematea; informazio ez-zehatza edo osatu gabea nahiz dokumentazio faltsua ematea.
31. Kontsumoaren arloko eskumena duten agintariek emandako hitzorduak edo egindako errekerimenduak ez betetzea.
32. Kontsumoko Ikuskatzailetzaren jarduketei aurka egin edo oztopoak jartzea, bai ikuskatuak bai haren ordezkariak, bai eta ikuskatzaileei lokal eta instalazioetan sartzearagoztekoa edo oztopatzea ere, ikuskapen eta kontrol bisitak egitera joaten direnean.
33. Kontsumitzaile edo erabiltzaileek kontsumo arloan dituzten eskubideak erabil ditzaten oztopatu, eragotzi edo zailtzea.
34. Kontsumitzaile edo erabiltzaileei ez ordaintzea dagozkien kalte-ordainak edo konpentsazioak.
35. Telekomunikazioetako sareen sarbiderako zerbitzuak hornitzen dituzten enpresek eta transakzio elektronikoetan erabiltzen diren ordainketa bitartekoen titularrek ez betetzea foru lege honetan, estatuko oinarritzko araudian edo lege sektorialetan ezarritako betebeharrak.
36. Moztea interes orokorreko oinarritzko zerbitzuen hornidura, segidakoa edo jarraikakoa, kontsumitzaileak, aldez aurretik, mozketaren arrazoiaren berri ematen dion jakinarazpen bat jaso duen benetan egiaztatuta gabe, edo mozketaren egitea erreklamazio bat aurkeztu ondoren, enpresak erantzunik eman gabe, salbu eta mozketak loturarik ez badu erreklamazioaren arrazoiarekin.
37. Kontsumitzaileari arreta emateko doako telefono zenbakirik ez izatea, edo helbide elektronikorik, nahitaezkoa denean, edo haren funtzionamendurako ezarritako baldintzak ez betetzea.
38. Kontsumitzaile batek planteatutako erreklamazioa osotara edo zati batean onartu izana ez betetzea, edo ez betetzea erreklamazioaren edukiaz erdietsitako edozein akordio, bai eta ez betetzea ere arbitraje-laudo bat edo edozein akordio edo ebazpen

lotesle, kontsumo arloko gatazken bestelako konponketarako edozein entitatetan gauzatu den prozedura amaitzen duena.

39. Ez betetzea posta helbideari eta posta elektronikoko helbideari edo telefono zenbakiari buruzko informazioa kontsumitzaile eta erabiltzaileen esku jartzeko betebeharra, horien bidez kezak eta erreklamazioak jarri ahal izateko, eta ez betetzea horien jasotze-agiria emateko eta arrazoiz eta zentzuz erantzuteko betebeharra, foru lege honen 24.4 b) artikuluan aurreikusitako epe eta moduan.

### **79. artikulua. Arau-hauste astunak.**

1. Arau-hauste astunak izanen dira aurreko artikuluan arintzat hartzen direnak, irizpide hauetako bat betetzen bada:

- a) Kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako kalte edo arrisku larria.
- b) Kontsumitzaileen interes ekonomikoen lesio larria.
- c) Enpresaburu edo profesionalak lortutako etekina edo kontsumitzaile edo erabiltzaileari egindako kaltea 10.000 eurokoa edo handiagoa denean.
- d) Arau-hauste orokortua, ukitutako hartzaileen kopuruari dagokionez.

2. Kasu guztietan, arau-hauste hauek astunak izanen dira:

- a) Debekatutako ondasun edo zerbitzuak egin, banatu, eskaini, saldu eta maileguan eman jendearentzat, edo debekatutako salmenta modalitateak dituztenak, bai eta baimendu gabeko osagaiak edo ontziak dituztenak ere, edo nahitazko baimenak edo kontsumitzaile edo erabiltzaileen babeserako ezarritako beste administrazio kontrol batzuk ez dituztenak.
- b) Giza kontsumora desbideratzea edo kontsumitzaileen esku jartzea horretarako gai ez diren ondasunak edo berariaz beste erabilera batzuk dituztenak.
- c) Kontsumitzaile eta erabiltzaileek izenpetzen dituzten kontratuetan abusuzko klausulak sartzea edo abusuzko jardunbideak izatea.
- d) Administrazioak hartutako neurriak ez betetzea, kautelazkoak barne, bereziki ondasun immobilizatuak edo erregelamenduz gordailututako laginak baimenik gabe manipulatzeko, lekuz aldatzea edo erabiltzea, bai eta prestasunik gabe aritzea ere immobilizatutako salgaiak zaintzeko betebeharrari dagokionez.
- e) Gatazkak konpontzeko entitate akreditatuei dagozkien informazio betebeharrak ez betetzea, azaroaren 2ko 7/2017 Legearen 40. artikulua baldintzetan; lege horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikoan sartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/11/EB Zuzentaraua, kontsumoaren arloan auziak konpontzeko bestelako sistemei buruzkoa.
- f) Kontsumitzeko modukoak diren ondasun edo zerbitzuak aldatu edo aizuntzea edo horiekiko iruzurra egitea, hari edozein substantzia edo elementu gehituz nahiz kenduz, haren osaera edo kalitatea aldatuz edo haren izaerari dagozkion baldintzak urratuz.
- g) Merkataritza-establezimenduetatik kanpo eginiko kontratuen alorrean ezarritako araubidea urratzea.
- h) Exekuzio-epetegi eta kopuru ordainduen itzulketari dagokienez urrutiko kontratuen araubideak enpresariei edo profesionalari ezartzen dizkien betebeharrak urratzea; kobratze-asmoz bidaltzea edo hornitzea kontsumitzaile edo erabiltzaileak eskatu ez dituen ondasun edo zerbitzuak; aurretiazko baimen esanbidezkoa nahiz kontsumitzaile edo erabiltzailea aurka ez egotera behartzen duten komunikazio-teknikak erabiltzea,

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

horretarako inguruabarrik ez dagoenean; halaber, atzera-egite eskubidearen erabilera ukatu edo oztopatzea.

i) Saldu ondoko berme eta zerbitzuen araubidea edo produktu iraunkorren konpontze-araubidea urratzea.

j) Kontsumitzaile edo erabiltzaileen alde indarreko legerian ezarritako abal, aseguru edo bestelako berme beharrezkoak ez eratzea.

3. Artikulu honek ezartzen duenaren arabera printzipioz astuntzat jotzekoak diren arau-hausteak arintzat joko dira baldin eta zehapen-prozedura hasi aurretik erantzuleak arduratsuki zuzentzen baditu arau-haustea osatzen duten okerrak, betiere beharrezkoa izanik zuzeneko kalterik egin ez izana, hark kopuru kobratuak bere gogoz itzuli izana, arau-haustearen ondorioak ekidin edo samurtze aldera lagundu izana edo antzeko esanahia duen beste edozein jokabide espontaneo erakutsi izana.

### **80. artikulua. Arau-hauste oso astunak.**

1. Hauek dira arau-hauste oso astunak:

a) Arin edo astunaren kalifikazioa izanda, enpresaburu edo profesionalari sortzen dioten etekina edo kontsumitzaile edo erabiltzaileari eragiten dioten kaltea 100.000 eurotik gorakoa denean.

b) Astun gisa deskribatutako jokabideak, kontsumitzaile edo erabiltzaileengan alarma edo mesfidantza sortzen duen nahasmendu soziala eragiten dutenak, edo sektore ekonomiko bati dagokionez kalte orokorra eragiten dietenak.

c) Foru lege honek ezarritako eginkizunak administrazio publikoen zerbitzuan betetzen dituzten langileen kontrako errepresaliak nahiz beste edozein motatako presioa.

2. Artikulu honek ezartzen duenaren arabera printzipioz oso astuntzat jotzekoak diren arau-hausteak astuntzat joko dira baldin eta zehapen-prozedura hasi aurretik erantzuleak arduratsuki zuzentzen baditu arau-haustea osatzen duten okerrak, betiere beharrezkoa izanik zuzeneko kalterik egin ez izana, hark kopuru kobratuak bere gogoz itzuli izana, arau-haustearen ondorioak ekidin edo samurtze aldera lagundu izana edo antzeko esanahia duen beste edozein jokabide espontaneo erakutsi izana.

## **III. KAPITULUA**

### **Zehapenak**

### **81. artikulua. Zehapenak.**

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteei ondoko zehapenak ezarriko zaizkie:

a) Arau-hauste arinetarako, 150 eurotik 10.000 eurora bitarteko isuna, maila hauekin:

–Gutxieneko maila, 150etik 3.000 eurora bitarte.

–Erdiko maila, 3.001etik 6.000 eurora bitarte.

–Gehienerako maila, 6.001etik 10.000 eurora bitarte.

b) Arau-hauste astunetarako, 10.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isuna, maila hauekin:

–Gutxieneko maila, 10.001etik 30.000 eurora bitarte.

–Erdiko maila, 30.001etik 60.000 eurora bitarte.

–Gehienerako maila, 60.001etik 100.000 eurora bitarte.

§2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

c) Arau-hauste oso astunetarako, 100.001 eurotik 1.000.000 eurora bitarteko isuna, maila hauekin:

–Gutxieneko maila, 100.001etik 300.000 eurora bitarte.

–Erdiko maila, 300.001etik 600.000 eurora bitarte.

–Gehieneko maila, 600.001etik 1.000.000 eurora bitarte.

2. Arau-hauste arinetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa handitzen ahalko da arau-haustearen xede diren ondasun eta zerbitzuen balioa edo publizitate kanpainaren edo merkataritzako komunikazioen kostua halako lau egiteraino, baldin eta arau-haustea bitarteko horien bidez egiten bada.

3. Arau-hauste astunetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa handitzen ahalko da arau-haustearen xede diren ondasun eta zerbitzuen balioa edo publizitate kanpainaren edo merkataritzako komunikazioen kostua halako sei egiteraino, baldin eta arau-haustea bitarteko horien bidez egiten bada.

4. Aurreikusitako gehieneko zenbatekoa handitzen ahalko da arau-haustearen xede diren ondasun eta zerbitzuen balioa edo publizitate kanpainaren edo merkataritzako komunikazioen kostua halako zortzi egiteraino, baldin eta arau-haustea bitarteko horien bidez egiten bada.

5. Dena den, artikuluko honen lehenengo apartatuan adierazitako tarteen aplikazioak arau-hauslearen ahalmen ekonomikoarekiko neurrigabea den zehapen bat ezartzea dakarrenean, zilegi izanen da, zehapena kalkulatzeko aldera, astuntasun-maila apalagoko kalifikaziorako ezarritako tartea erabiltzea.

**82. artikulua. Zehapenen mailakatea.**

1. Zehapenen zenbatekoa honako irizpide hauen arabera mailakatuko da:

a) Arau-haustearen xede den produktuaren salmenta bolumena edo zerbitzuen fakturazioarena.

b) Enpresaburu edo profesionalaren salmenta kopurua osotara.

c) Lortu den legez kontrako onuraren zenbatekoa.

d) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei eragindako kalte-galerak.

e) Ukitutakoen kopurua.

f) Doloa edo errua izatea.

g) Arau-haustean berrerori edo jarraitu eta errepikatu izana.

h) Ondasuna edo zerbitzua kontsumitzaile zaurgarriengan zuzenduta dagoenean.

i) Arau-hausleak merkatuan toki garrantzitsua izatea.

j) Administrazio publikoak aurretik egindako ohartarazpenak edo errekerimenduak egotea.

2. Hauek dira inguruabar aringarriak:

a) Prozedura irekitzeak eragin dituen irregulartasunak edo kalteak prestutasunez konpontzea edo zuzentzea, osotara nahiz partzialki.

b) Gatazkak auzibidetik kanpo konpontzeko sistemetako edozeinen menpe jartzea egitateak.

3. Hauek dira inguruabar astungarriak:

a) Kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragindako kalteak ez konpontzeko borondate agerikoa.

b) Kontsumitzaile edo erabiltzaile batekiko botere egoera batez baliatzea, edo hautatze askatasuna gutxituta duen batez, edozein dela ere arrazoia.

4. Zehapena aldatzen duten inguruabarrak ez dira kontuan hartu behar foru lege honek arau-hauste motan jaso baditu edo kontuan hartu baldin badira arau-haustearen astuntasuna kalifikatzeko.

5. Arau-hausleari behar adinako isuna ezarriko zaio, arauak urratzea harentzat ez dadin izan hautsitako arauak ez betetzea baino onuragarriagoa. Betiere proportzionaltasunaren printzipioari jarraituko zaio eta arau-haustea sortu duen egitatearen astuntasunaren arabera zehapena ezarriko da.

### **83. artikulua. Zehapenak murriztea borondatez ordainduta.**

1. Prozedura ebazteko eskumena duen organoak isunen zenbatekoaren % 50eko murrizketa ezarriko du isuna borondatez ordaintzen bada prozedura hasteko ebazpenean emandako epea bukatu aurretik.

2. Borondatezko ordainketak berekin ekarriko du atzera egitea edo uko egitea administrazio bidean zehapenaren kontra edozein egintza edo errekurso aurkezteari, eta ordainketa egiten den egunean bukatuko da prozedura, administrazioarekiko auzibiderako aukera zabalik utzita.

3. Prozedura borondatezko ordainketarekin bukatzen bada, horrek ez du eraginik izanen hondatutako egoera berrezartzeari edo arau-haustek eragindako kalte-galeren ordaina zehazteari dagokionez.

### **84. artikulua. Zehapenaren exekuzioa.**

Zehapen prozedura amaitzen duen ebazpena exekutiboa izanen da haren kontra administrazio bidean inolako errekurso arruntik aurkezterik ez dagoenean, eta ebazpenean hartzen ahalko dira behar diren kautelazko xedapenak haren eraginkortasuna bermatzeko exekutiboa ez den bitartean; xedapen horietako bat izan daiteke hartutako behin-behineko neurriak mantentzea, halakorik bada.

Ebazpena exekutiboa denean, kautelaz eteten ahalko da interesdunak administrazioari aditzera ematen badio administrazio bidean irmo den ebazpenaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkezteko asmoa duela. Kautelazko etenaldi hori bukatuko da:

a) Legez aurreikusitako epea iragan bada interesdunak administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri gabe.

b) Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri baldin badu:

Lehena.—Tramite berean ez bada eskatu aurkaratutako ebazpena kautelaz etetea.

Bigarrena.—Organo judizialak erabakia hartzen badu eskatutako kautelazko etenaldiaz, hartan aurreikusitako baldintzetan.

### **85. artikulua. Zehapen osagarriak.**

Zehapena ezartzen duen ebazpenak erabakitzen ahalko du neurri hauetako bat edo batzuk jartzea:

a) Arau-hausleari eskatzea arau-haustearen ondorioz aldatutako egoera jatorrizko egoerara itzul dezala, eta, hala badagokio, kontsumitzaileari edo erabiltzaileari

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

eragindako kalte eta galera frogatuen ordaina eman dezala. Kalte eta galera horiek zehapena ezartzeko eskumena duen organoak zehaztuko ditu.

b) Konfiskatzea eta, kasua bada, suntsitzea salgai aizundua, hondatua, faltsutua, iruzurrezkoa, identifikatu gabea edo kontsumitzailearentzat arriskua ekar dezakeena.

Arau-hauslearen kargura izanen dira aurreko paragrafoan hartutako neurriek dakartzaten gastuak, barne hartuta, besteak beste, garraioaren, banaketaren eta suntsiketaren ondoriozkoak.

c) Oso astuntzat hartutako arau-hausteen kasuan, enpresa, establezimendu edo industria arau-hauslea ixtea, edo haren jarduera bertan behera uztea, gehienez ere bost urtez.

d) Publizitatearen arloko arau-hausteen kasuan, arau-hausleari eskatzea zuzenketa komunikatu bat argitaratu dezala, zehapen ebazpenean zehazten diren baldintza berberetan edo antzekoetan.

e) Ezarritako zehapenen publizitatea, administrazio-bidean irmo bihurtu direnean, bai eta pertsona natural edo juridiko erantzuleen izen-abizenak, izena edo sozietate-izena, arau-hausteen izaera, bai eta dagokien produktu, jarduera edo zerbitzuarena ere, baldin eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen osasunerako edo segurtasunerako benetako arriskua edo kaltea badago, edo haien interes ekonomikoak larriki kaltetzen badira, antzeko arau-hausteetan berrerortzen badira edo arau-haustea nahita egin dela egiaztatzen bada.

Zehapenen publizitatea Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atariaren eta kontsumoaren arloko eskumena duen departamentuaren webgunearen bidez eginen da urtebetez, eta hedabideetan ere egiten ahalko da. Zehapena ezartzen duen ebazpenean zehaztuko da argitaratzeko bitartekoa edo bitartekoak. Argitalpenaren kostua zehapena jaso duenari eskatzen ahalko zaio.

## **IV. KAPITULUA** **Erantzukizuna**

### **86. artikulua. Subjektu erantzuleak.**

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzule izanen dira horien erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko batasunak eta entitateak, doloa edo errua tartean izanik, horietan parte hartu edo horiek egiten badituzte egitez nahiz ez-egitez.

2. Ondasun ontziratuetan, etiketatuetan edo osoko itxiturarekin itxitakoetan egindako arau-hausteen erantzule izanen da etiketan ageri den pertsona, sinadura edo sozietate-izena, enpresaburu edo profesional banatzailea barne. Salbuespentzat hartuko da egiaztatzen bada produktuaren edukitzaileak hura faltsutu edo gaizki kontserbatu duela, baldin eta kontserbatzeko baldintzak zehazturik badaude etiketan.

Erantzule solidarioa izanen da prestatzailea, fabrikatzailea edo ontziratzailea eta banatzailea, etiketan ageri ez dena, frogatzen bada egindako arau-haustearen berri zuela eta baimena eman zuela.

Etiketak faltsutu baldin badira, erantzukizuna izanen da faltsutzea egin duenarena eta faltsutzearen jakitun izanda ondasunak merkaturatzen dituztenena.

3. Solte saldutako edo etiketarik gabe ontziratutako ondasunetan egindako arau-hausteetan edo etiketan erantzulea identifikatzeko beharrezkoak diren datuak ez

## §2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

daudenean, indarreko araudian ezarritakoarekin bat, edukitzailea izanen da erantzulea, salbu eta horrek lehenagoko edukitzaile baten erantzukizuna identifikatzen ahal duenean ziurtasunez, banatzailea barne.

4. Zerbitzuak ematean egindako arau-hausteetan, kontsumitzaileak norekin kontratatu zuen zerbitzua, pertsona fisiko edo juridiko hori, edo legez beharturik dagoena.

5. Bide telematikoz egindako ondasun eta zerbitzuen publikitatean, eskaintzan eta kontratazioan egindako arau-hausteetan, iragarlea edo, halakorik izan ezean, orrialdearen titularra.

6. Ondasunekin adostasunik ez izatearekin lotutako arau-hausteetan, haien saltzaileak, eta, kasua bada, fabrikatzailea, aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzetan.

7. Arau-hauste bat pertsona juridiko bati egotzen zaionean, erantzuleztat hartzen ahalko dira haren zuzendaritza organoko kideak diren pertsona fisikoak, bai eta prestaketaz eta kontrolaz arduratzen diren teknikariak ere, sozietateen arloan indarra duen legeriarekin bat.

Pertsona juridikoen kasuan, modu frogagarrian egiaztatzen bada kideren batek uko egin diola edo kontrako botoa eman diola arau-hauste gisa tipifikatutako jarduketa egiteari, kide hori erantzukizunetik salbuetsirik egonen da.

8. Europar Batasuneko beste estatu batzuetako edo Europar Batasunekoak ez diren estatu batzuetako ondasunak merkaturatzean egindako arau-hausteetan, horien erantzulea izanen da produktua Espainiako merkatuan aurrenekoz sartzen edo zirkulazioan jartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

9. Kontsumoaren arloan indarra duen legerian aurreikusitako betebeharrak betetzea zenbait pertsonari batera dagokionean, edo arau-haustea zenbait pertsonari egotzen ahal bazaie eta ez bada posible zehaztea haietako bakoitzaren parte-hartzea, denak izanen dira egindako arau-hausteen eta ezartzen diren zehapenen erantzule solidarioak.

### **Lehen xedapen iragankorra. Araubide iragankorra.**

Foru lege hau garatzeko xedapenak eman bitartean, indarra izaten segituko dute bere arau-esparru materialean sartuta dauden gaien gaineko arauak, foru legearen kontra ez doazen heinean.

### **Bigarren xedapen iragankorra. Zehapen prozedurak.**

Foru lege hau ez da aplikatuko indarra hartu aurretik hasitako zehapeneko administrazio prozeduretan, salbu eta foru lege hau ustezko arau-hausleentzat onuragarriagoa denean.

### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoaren kontra dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta berariaz, honako hauek:

–7/2006 Foru Legea, ekainaren 20koa, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteari buruzkoa.

–172/1994 Foru Dekretua, irailaren 19koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesaren arloko arau-hausteetarako zehapen prozedura ezartzen duena.

–1988ko otsailaren 5eko Foru Agindua, Industria, Merkataritza eta Turismoko kontseilariak emana, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeentzako dirulaguntzak arautzen dituen..



§2.7.- 34/2022 Foru Legea, abenduaren 12koa

–Industria, Merkataritza, Turismo eta Laneko kontseilariaren 1992ko martxoaren 24ko Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita automozio-gasolina eta -gasolioak publikoari saltzeko establezimenduek eduki beharreko ikuskapen-liburuaren eta erreklamazio-orrien eredia.

**Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko garapena.**

Foru Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetako bigarrena. Zehapenen zenbatekoak eguneratzea.**

Foru Gobernuari dagokio isunetarako aurreikusitako zenbatekoak berrikusi eta eguneratzea; horretarako, kontuan hartuko da kontsumoko prezioen indizeen aldaketa.

**Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.



### **§3.- FORU DEKRETUAK**

### **§3.1.- 303/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa, etxean bertan ematen diren zerbitzuak arautzen dituen<sup>547</sup>**

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera Nafarroako Foru Komunitateak kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes arloan dituen eskumenak erabiliz, Foru Dekretu honek oreka bermatu nahi du kontsumitzaile eta erabiltzaileek eta horientzat hagitz garrantzitsua den honako jardueran profesionalki aritzen direnek elkarren artean izaten dituzten harremanetan; azken hauek kontsumitzaile eta erabiltzaileen etxebizitzaren eta bertako ekipamendu eta tresnen mantenimenduaz aritzen dira.

Hori horrela izanik, Foru Dekretu honek biltzen ditu Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorrean agertzen diren oinarri eta jarraibideak.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako uztailaren 19ko 26/1984 Legearen 22. artikuluari jarraikiz, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartek eta Sektoreetako Enpresari Elkartek kontsultatu dira.

Horrenbestez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak mila bederatzehun eta laurogeita hamazazpiko urriaren hogeian harturiko Erabakiari jarraikiz, DEKRETATU DUT:

#### **1. artikulua. Aplikazio esparrua.**

1.-Foru Dekretu hau aplikatuko zaie kontsumitzaile eta erabiltzaileei etxean bertan zerbitzuak ematen dizkieten pertsona fisiko edo juridiko guztiei, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorren 1. artikuluko 2 eta 3. idazatietan azaltzen den bezala, jardueraren onuradunarekin lan harremanik ez denean.

2.-Foru Dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honakoak izanen dira etxean bertan egiten diren zerbitzuak: etxebizitza eta lokalak oro har, bai eta beren instalazioak, erantsitako eraikinak, ekipamendu eta tresnak, nahiz jabetza amankomunekoak nahiz banakako jabetzakoak izan, mantendu eta zaharberritzeko zerbitzu guztiak.

3.-Halaber, etxean bertan egiten diren zerbitzutzat joko dira ez bakarrik kontsumitzailearen etxean bertan egiten direnak, baita kontsumitzailearen etxera joan arren zerbitzu emailearen tailerrean egiten direnak ere, edo zerbitzu emailearen tailerrean egiten direnak, beti ere, hori egin ondoren, zerbitzu emaileak objektu edo produktua bezeroaren etxe edo lokalean jartzen badu.

4.-Foru Dekretu honetatik kanpo geratzen dira etxean bertan entregatzeko zerbitzuak eta zerbitzuen salmentari dagokionez izaera subsidiarioa dutenak.

5.-Halaber, ez zaie aplikatuko dekretu hau etxeko zerbitzuei, kontsumitzailearen interesak berriazko arautegi baten bidez babesten direnean.

---

<sup>547</sup> Kontuan har bedi abenduaren 12ko 34/2022 Foru Legea, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duena, zeinaren xedapen indargabetzaile bakarrak esaten baitu indarrik gabe uzten direla "foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapenak".

## **2. artikulua. Kontsumitzailearendako argibideak.**

Zerbitzua egiten duen langileak argibide orri bat izan beharko du kontsumitzaile edo erabiltzaileari emateko halakoak eskatzen dionean, zeinetan zehaztuko baitira lan denboraren arabera ezar daitezkeen prezioak eta irteera gastuak, halakorik bada; horretaz gainera, eskaintako zerbitzuen prezioak azalduko ditu, bai eta premiazko kasuetan edo ohiko lanalditik kanpora erabiltzailearen eskariz egiten diren lanengatik ezarri beharreko errekarguak ere.

Era berean, erabiltzaileak eskaini zaion aurrekontua onartzen ez duenean, aurrekontua prestatzea kobratu ahalko dela adieraziko da.

Prezioen barnean era guztietako zerga edo kargak sartuko dira, aplikatzen den kontzeptua eta tasa adierazita. Hala egiten ez bada, prezioen gainean ezarri beharreko zerga edo kargak aipatuko dira, aplikatzekoa den kontzeptua eta tasa adierazita.

Zerbitzu emailearen establezimendu edo lokalean kontsumitzaile edo erabiltzailearen eskura eduki beharko dira artikulua honetan aipaturiko argibide orriak.

## **3. artikulua. Aurrekontua.**

1.-Zerbitzua egin baino lehen, zerbitzu emaileak bezeroari aurrekontu bat eman beharko dio sina dezan, Foru Dekretu honen 4.1. artikuluan azaldutakoaren arabera horri uko egin ezean.

2.-Aurrekontuan datu hauek jarri beharko dira:

a) Izena, deiturak edo sozietatearen izena, helbidea eta telefonoa, zerbitzu emailearen IFK edo IFZ, baimen eta/edo erregistro zenbakia jarduera motak hala eskatzen duenean eta, halakorik bada, erantzukizun zibileko aseguruaren estaldura.

b) Bezeroaren izena, deiturak eta helbidea, eta eskatutako zerbitzuaren deskribapena, azaltzen direlarik ezaugarriak, kalitateak eta amaierako emaitza eta zerbitzua egiteko tokiaren helbidea.

c) Erabiliko diren materialen kopurua, ezaugarriak eta horietako bakoitzaren prezioa, eta eskulanaren prezioa ordu edo eguneko edo urteko beste tarifa batzuen arabera, egin beharreko zerbitzu motan, bai eta irteera gastuak ere.

Alderdien arteko adostasunez lanen prezioa kalkulatzeko denean egin beharreko lanaren metro, azalera edo bolumenaren arabera, horien kopurua, ezaugarriak eta horietako bakoitzaren prezioa zehaztuko dira.

d) Zerbitzua hasi eta amaitzeko aurreikusita dagoen data, erabiltzaileak aurrekontuari adostasuna ematen dion egunetik hasita edo lanak egiteko tokia zerbitzu emailearen eskura jartzen den egunetik hasita.

e) Zerbitzuaren prezio osoa zergak barne, eta ordaintzeko modua.

f) Zerbitzuaren berme aldia eta horren baldintzak.

g) Aurrekontuan egindako eskaintzaren balioaldia, hogeita hamar egunetik beherakoa izan ez dena inolako kasutan.

h) Komenigarritzat jotzen den beste edozein aipamen, beti ere kontsumitzaile edo erabiltzaileen eskubide onartuei kalterik egiten ez badie; halakotzat jotzen da zerbitzuaren xedean izan daitezkeen aparteko inguruabarrei dagokiena.

i) Data eta zerbitzu emailearen sinadura edo zigilua, eta horien ondoko toki batean, bezeroak adostasuna emateko sinadurarentzat utzitako lauki bat, non espreski jarri beharko baita letra larriz, hots, agiriko gainerakoen neurri berekoak erabiliz, honako

### §3.1.- 303/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa

esaldi hau: "Aurrekontuaren prestatzea kobratu ahalko da, erabiltzeak ez badu onartzen eskaini zaion aurrekontua".

j) Data eta zerbitzu emailearen sinadura edo zigilua, eta horien ondoko toki batean, bezeroak adostasuna emateko sinadurarentzat utzitako lauki bat, non espreski jarri beharko baita letra larriz, hots, agiriko gainerakoan neurri berekoak erabiliz, honako esaldi hau: "Aurrekontua jaso da lanak egin baino lehen".

3.-Material erabiliez baliatzeko asmoa izanez gero, letra larriz, hots, agiriko gainerakoan neurri berekoak erabiliz honako esaldia jarri beharko da: "Material erabiliez baliatzeko baimena"; horrelakoetan ezinbestekoa izanen da bezeroaren sinadura, adostasuna emanez gero.

4.-Aurrekontuak bi ale izanen ditu bezeroak sinatuta adostasun gisa; horietako bat erabiltzaileari emanen zaio, eta bestea zerbitzu emaileak gorde beharko du, bermearen mugaegunetik hasita urtebeteko epean gutxienez ere.

5.-Aurrekontua egin ondoren agertzen diren matxurak edo akats ezkutuak jakinarazi egin beharko zaizkio bezeroari, idatziz eta ahalik eta lasterren, zerbitzuaren zenbatekoak duen gehikuntza eta horren arrazoiak azalduz. Agiria eta bezeroari emanen zaion kopia bat bi alderdiek sinatu beharko dituzte adostasun gisa. Halakorik ez bada, bezeroak ados ez dagoela azaldu beharko du, eta aipatu agiriaren kopia bat gorde, nahitaez.

6.-Aurrekontuan sartu nahi diren geroagoko aldaketak, edozein dela horien arrazoi edo izaera, idatziz aurkeztu beharko zaizkio bezeroari beste agiri batean, zein aurrekoaren formalitate berberekin beteko baita, bezeroak onartu edo atzera bota dezan.

7.-Kontsumitzaileak ez badu onartzen eskaini zaion aurrekontua, kobratu egin ahalko da horren prestateta, beti ere 3.2.i) artikuluan aurreikusitakoa bete bada; zenbatekoak ez du gaudituko ordu erdiko eskulanari eta irteera bati dagokion prezioa, ezarritako tarifaren arabera, nahiz eta bat baino gehiago behar izan prestatetarako.

#### **4. artikulua. Lanerako agindua.**

1.-Aurretiko aurrekontua prestatzeari uko egiten bazaio, espreski azaldu beharko da hori lanerako aginduaren agiri batean, esaldi honen bidez: "Uko egiten diot aurretiko aurrekontuari eta baimena ematen dut konponketa egiteko". Esaldi hori bezeroak berak eskuz idatzi beharko du eta bere sinadura ezarri.

2.-Zerbitzu emaileak eta bezeroak behar bezala sinaturiko aurrekontua badenean, horrek izanen du konponketarako aginduaren balioa.

3.-Lanerako aginduak esaldi hau izanen du kontsumitzailearendako argibideak bermatu ahal izateko: "Aurrekontuari uko egin zaio, aurretiko aurrekontua eskatzeko eskubidea badela eta uko egiteak ondorio juridiko eta ekonomikoak izan ditzakeela jakinik".

4.-Lanerako aginduan, artikulua honetako 1. idazatian aipaturikoaren arabera aurrekontuari egindako ukoaz gain, beste datu hauek ere jarri beharko dira:

a) Izena, deiturak edo sozietatearen izena, zerbitzu emailearen helbidea eta identifikazio fiskala eta, halakorik bada, erantzukizun zibileko aseguruaren estaldura.

b) Enpresa Erregistroko zenbakia, horretarako sortu erregistroan inskribatzea nahitaezkoa izanez gero.

c) Bezeroaren izena eta helbidea eta lana egiteko tokiaren helbidea, etxebizitza bera ez bada.

d) Eskatutako lanaren deskribapena.

### §3.1.- 303/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa

- e) Zerbitzua hasi eta amaitzeko aurreikusita dagoen data.
- f) Zerbitzuaren berme aldia eta horren baldintzak.

#### **5. artikulua. Fakturak.**

1.-Zerbitzua egin eta gero, zerbitzu emaileak kontsumitzaile edo erabiltzaileari faktura bat eman beharko dio, eta horretan datu hauek agertuko dira gutxienez ere:

- a) Fakturaren zenbaki korrelatiboa.
- b) Zerbitzu emailearen izena, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbaki edo kodea.
- c) Enpresa Erregistroko zenbakia, horretarako sortu erregistroan inskribatzea nahitaezkoa izanez gero.
- d) Bezeroaren izena eta helbidea.
- e) Egindako zerbitzuaren deskribapena.
- f) Prezio osoa, horren barnean materialak, eskulana, zergak eta irteera gastuak banaka zehazturik.
- g) Berme aldia eta horren baldintzak.
- h) Data eta zerbitzu emailearen eta bezeroaren sinadurak.
- i) Une bakoitzean indarra duten bermeen gaineko arauen edukiaren hitzez hitzeko transkribapena.

2.-Materialen aurrekontuko prezioek bat etorri beharko dute, gehienez ere, zerbitzua ematen duen enpresak aplikatzen dituen prezio publikoekin.

3.-Fakturako zenbatekoak bat etorri beharko du onetsita dagoen aurrekontuarekin; hasierako aurrekontuari egindako edozein aldaketa sartuko da.

4.-Fakturari eskulanari dagokion prezioaren zenbatekoak bat etorri beharko du lan denboragatik aplika daitezkeen prezioen balioarekin; lan denbora egiaz egindakoa izanen da, salbuespen izanik ordu laurdenetik beherakoa, orduan 15 minututara luzatuko baita, gehienez.

5.-Zerbitzuak irauten duen bitartean ordainketa partzialak eginen direla hitzartuz gero, horien egiaztatzea edo faktura luzatu eta eman beharko da, eta dagokion faktura agirian espreski azaldu beharko da hori.

6.-Onartu ez den aurrekontu bat kobratzeari ekiten bazaio, eman eta gero, ordainketa frogatzen duen faktura luzatuko da.

7.-Etxeko zerbitzuen emaileak kontsumitzaile edo erabiltzailearen eskura edukiko ditu zerbitzua emateko erabili materialen jatorria, izaera eta prezioa egiaztatzen dituzten frogagiriak.

8.-Ez dira fakturatzat hartuko obra edo zerbitzua egin duten langileek luzaturiko parteak edo emate-agiriak, halakorik bada, nahiz eta horietan erabiltzailearen sinadura azaldu lanei adostasuna emateko; salbuespena izanen da agiri horietan agertzea artikulua honen 1. puntuan azalduko datu guztiak.

#### **6. artikulua. Bermea.**

1.-Xedapen honek ukitzen dituen zerbitzuak bermatuta egonen dira hiru hilabeteko epean gutxienez, faktura luzatzen den egunetik hasita.

2.-Salbuespen gisa, zerbitzuaren emaitzek, duten izaera bereziarengatik, aurreko puntuan adierazi epean modu onean irautea zaila denean, egoera hori letra larriz azalduko da, argi ikus dadin bai aurrekontuan bai fakturan.

### §3.1.- 303/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa

3.-Zerbitzu baten emaitzak bere berme aldia hitzartutako egoeran amaitzen ez duenean, zerbitzu emaileak errepikatu egin beharko du beharrezkoa dena, eta berriz ere, bai eta egindakoa hondatzen den hurrengo aldietan ere, zerbitzuak epe berbereko bermea izanen du.

4.-Bermea osokoa izanen da beti, ordezeko piezek, irteerek, zerbitzua eskura izateak, eskulanak eta horrelakoek sortutako gastu guztiarako, eta bete beharko da justifikatu gabeko berandutzerik izan gabe eta bezeroari beste diru kopuru batzuk inolaz ere kobratu gabe.

5.-Ez dira bermearen barnean sartuko, hondamendien eraginez, ezinbesteko arrazoiez edo bermatutako ondasuna behar ez bezala erabiltzeagatik sortutako akatsak, hori zerbitzu emaileak egiaztatzen duenean.

6.-Establezimenduak eta zerbitzu emaileak kontsumitzaile edo erabiltzailearen eskura edukiko dute beren jarduera arautzen duen Foru Dekretuaren kopia bat.

### **7. artikulua. Erreklamazioak.**

1.- (Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuaren bidez indargabetuta).

2.- (Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuaren bidez indargabetuta).

3.- (Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuaren bidez indargabetuta).

4.- (Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuaren bidez indargabetuta).

5.- (Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuaren bidez indargabetuta).

6.-Erabiltzaileak dagozkion eskubide eta betebeharren berri zehatza izan dezan, tailerrek erabiltzailearen eskura izan beharko dute, kontsulta egin nahi duenerako, Foru Dekretu honen kopia bat, ongi irakurtzeko modukoa.

### **8. artikulua. Eskumenak.**

Arau honetan ezarritako ororen zaintza eta ikuskapena, kontsumitzailearen babeserako organo eskudunek eginen dute.

### **9. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.**

1.-Xedapen honetan agertzen diren aginduetako edozein ez betetzea kontsumitzailearen babes arloko arau-haustetzat joko da, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Babeserako uztailaren 19ko 26/84 Lege Orokorraren 34. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Horren berariazko tipifikazioa ekainaren 22ko 1945/83 Errege Dekretuko 3 eta 5.1. artikuluetan azaltzen da, hots, Kontsumitzailearen Babes arloko eta Nekazaritzako Elikagaien Produktzio arau-hauste eta zehapenak arautzen dituen Errege Dekretuan.

2.-Nolanahi ere, kontsumitzailearen babes arloko arau-haustetzat honakoak joko dira:

a) Etxean bertan zerbitzuak ematen direnean gertatzen bada eskatutako zerbitzuari dagokion emaitza lortu ahal izateko behar ez diren prestazioak kontratarazten direla. Besteak beste, eman beharrek zerbitzu zehatzarekin bat ez datozen aurrekontuak egitea,



### §3.1.- 303/1997 Foru Dekretua, urriaren 20koa

kontratatu denarekin bat ez datozen zerbitzuak ematea eta merkatuko ohiko prezioa bikoizten duten gehiegizko diru kopuruak kobratzea.

b) Modu eskasean edo arduragabekeriaz emandako zerbitzuak ez osatzea, zerbitzu emaileari horretarako eskaera egin -eskaera jaso duela ziurtatu ahal izateko bideren bat erabiliz- eta berehala. Salbuespena izanen da agiri bidez egiaztatzea osatze hori ezin egin duela.

c) Justifikatu gabeko berandutzea, alegia, aurrekontuan azaltzen diren datekin alderatuta zerbitzu baten hasiera edo amaieran gertatzen dena, horren erruduna zerbitzu emailea delarik. Halakorik bada, berandutzea justifikatu ahalko da, baldin eta agiri bidez frogatzen bada hirugarren bat izan dela erruduna.

d) Agiri, argibide, liburu edo erregistroei buruzko arauak ez betetzea, horiek guztiak nahitaez ezarriak izanik enpresa, instalazio edo zerbitzuak araubide eta funtzionamendu egokia izan dezan eta kontsumitzaile edo erabiltzailea babesteko berme gisa.

3.-Artikulu honek aipatzen dituen arau-hausteak arin, larri eta oso larritzat joko dira, uztailaren 19ko 26/84 Legearen 35. artikuluan eta ekainaren 22ko 1945/1983 Errege Dekretuko 6, 7 eta 8. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

4.-Dekretu honetan aipatzen diren arau-hausteak isunez zehatuko dira, uztailaren 19ko 26/84 Legearen 36. artikuluan ezarritako mailaketaren arabera.

#### *XEDAPEN GEHIGARRIA*

Foru Dekretu honek xedatutakoa alde batera utzi gabe, etxean bertan ematen diren zerbitzuen gaineko erreklamazioei kontsumoko arbitraje sistema aplikatuko zaie.

#### *AZKEN XEDAPENAK*

**Lehenengoa.-** Ahalmena eman zaio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari, Foru Dekretu honek xedatzen duena garatzeko xedapen osagarriak eman ditzan.

**Bigarrena.-** Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteren buruan hartuko du indarra.

I. ERASKINA

Erreklamazio orria

- a) Erreklamazio orri hau Administrazioak kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura jarri du, beren desadostasunak azaldu ahal ditzaten.
- b) Erabiltzaileak honakoak jarri beharko ditu: izena, deiturak eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen zenbakia, bai eta inprimakian agertzen diren gainerako datuak ere, zehatz-mehatz azalduz kexa sortarazi duten arrazoiak eta erreklamazioaren data.
- c) Zerbitzu emaileak bete beharko ditu Erreklamazio Orriaren berari buruz agertzen diren identifikazio datuak. Erabiltzaileak bere kexaren arrazoiak azaldu ondoren, Erreklamazio Orria zerbitzu emaileak sinatu ahal du, zeinek egokitzat jotzen dituen oharrak egin ditzakeen edukiari buruz, horretarako ezarritako tokian.
- d) Erabiltzaileak, bermea edo zerbitzu ematea bukatu eta hilabetea iragan baino lehen, Kontsumo Atalera igorriko du Erreklamazio Orriaren jatorrizkoa, zuria; kopia horia berak gordeko du eta kopia arrosa tailerreko arduradunari emanen dio.
- e) Erreklamazioaren jatorrizko orriarekin batera, erabiltzaileak igorriko ditu erreklamaturakoa ahalik eta hobekien baloratzeko baliagarriak diren froga edo agiri guztiak, batez ere fakturak, aurrekontuak eta ordezkagiriak.

Laukiko datuak (gorriz) zerbitzua ematen duen enpresa edo pertsonak beteko ditu.

(Zerbitzu emailearen izena edo sozietatearen izena eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) (Helbidea) (Herria) (Telefonoa)

ERREKLAMAZIO EGILEAK BETE BEHARREKOA

19....(e)ko..... aren..... (e)ko..... etan (ordua), (deklarazioaren data).....  
jaun/andrea, erreklamazio egilea) nazionalitate....., N.A.N. edo pasaporte.a.li..... zenbakikoa, helbidea..... (Kalea edo plaza, probintzia edo herria eta telefonoa).....,

Erreklamazioaren arrazoiak eta horren xedea:.....

(Interesatuaren sinadura)

Zerbitzu emailearen alegazioak:

(Zerbitzu emailearen sinadura eta zigilua)

NAFARROAKO GOBERNUA Erreklamazio egileak jatorrizkoa hona igorriko du:

Industri, Merkataritza, Kontsumo Atala

Turismo eta Lan Departamentua Blas de kalea, 1,

Fuente del Príncipe eraikina II, 4. solairua,

31005 IRUÑA

### **§3.2.- 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, aurretiazko borondateen erregistroa arautzen duena<sup>548</sup>**

Gaixoaren autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoan alorreko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legeak, bere 11. artikuluan, Aurretiazko Jarraibideei buruz hitz egin eta haien definizioa egiten du: pertsona batek aurretik bere borondatea adierazteko modua da, borondate hori adierazteko gauza ez den egoeraren bat iristen denean bete egin dadin bere nahia. Borondatea osasun zainketei eta tratamenduei buruzkoa da, baita, heriotzaren ondoren, bere gorputzeko organoen helburuei buruzkoa ere. Horretarako, bada, osasun zerbitzu bakoitzak behar den prozedura arautu behar du pertsona bakoitzaren aurretiazko jarraibideak bete daitezen ziurtatzeko. Jarraibide horiek, betiere, idatziz adieraziak egonen dira.

Nafarroan, bestalde, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak gaixoaren zenbait eskubide arautu zituen, hain zuzen ere aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa. Legearen 9. artikuluan esaten denez gaixoei eskubidea dute aurretiazko borondateen adierazpen-agiri bat egiteko, zenbait baldintzaren ondorioz haiek berek adierazi ezin dituen egoeran bere osasun laguntzaren ardua duen sendagileak edo profesional-taldeak kontuan har ditzan.

Laburbilduz, aurretiazko borondateen agiriak arautzea aurrerapauso garrantzitsua da pertsonaren autonomia errespetatzeko bidean, erabakitzeak aukera ematen baitio gaixoari gero batean egoera jakin batean egoten denean hartu nahi dituen, edo hartu nahi ez dituen, osasun jarduketei buruz. Elementu lagungarri edo erabakigarriak dituen tresna bat ere eskaintzen die arautze honek osasun laguntzari buruzko erabakiak hartu behar dituzten profesionaleri, errazagoa izanen baita jakitea zein den gaixoaren nahia, baldin eta, osasun laguntza eman behar zaion unean, horrelakorik nahi duen ala ez adierazteko moduan ez badago.

Foru dekretu honen bidez aipatu legeen garapena egiten da partez. Abian jarriko den tresnari esker herritarrek idatziz agertarazten ahal dute, aipatu lege arau-emailen arabera, zein diren beren aurretiazko nahiak. Aldi berean, lagungarria izanen da osasun arloko profesionalentzat, osasun laguntza ematen ari direnean bidea izanen baitute gaixoei dagozkien eskubide guztiak hobeki errespetatzeko, kasu honetan aurretik adierazitako borondateei dagokienez. Horrek ez du esan nahi, jakina, helburu berak lortze aldera beste neurri batzuek beren eragina izan ez dezaketarik.

Aurretiazko borondateen agiritan diren datuen ezaugarriak eta garrantzia ikusita, hartzen diren neurriak indarra duen legeriari lotuko zaizkio beti, gehien bat datuen isilpekotasuna, segurtasuna eta babesa bermatzearen.

Nafarroako Kontseiluak, 2003ko maiatzaren 26ko bilkuran, foru dekretu honen aldeko txostena eman du, edukia indarra duten legeei lotzen zaiela iritzita.

Hori horrela, Osasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hiruko ekainaren hamaseian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat, DEKRETATU DUT:

---

<sup>548</sup> Kontuan har bedi zer dioen martxoaren 24ko 3/2021 Lege Organikoak, Eutanasia arautzekoak.

### **1. artikulua. Xedea.**

Aurretiazko Borondateen Nafarroako Erregistroa sortzen da, Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiarik atxikia. Bertan inskribatuko dira, agiri-egileak eskaturik, aurretiazko borondateen agiriak, notario aurrean edo lekukoaren aurrean egin ala ez.

### **2. artikulua. Aurretiazko Borondateen Erregistroaren helburuak.**

Aurretiazko Borondateen Nafarroako Erregistroak helburu hauek ditu:

- a) Aurretiazko borondateen agiriak bildu eta gordetzea, herritarrek inskripzioa eskatuta.
- b) Eskatzen duten osasun-profesionalek aurretiazko borondateen agiri inskribatuak ikusi eta kontsultatu ahal izatea, eroso eta laster. Horri dagokionez, azaroaren 14ko 41/2002 Foru Legean, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritakoa beteko da.

### **3. artikulua. Inskripzioa egiteko prozedura.**

1. Aurretiazko Borondateen Nafarroako Erregistroan inskripzioa egiteko prozedura honela hasten da: agiriaren egileak eskaera egin behar dio, idatziz, Osasun Departamentuari, foru dekretu honetan aurreikusitakoari jarraikiz.

2. Aurretiazko borondateen agiria lekukoaren aurrean egin bada, erregistroan inskribatzeko eskaera-orriarekin batera jatorrizko dokumentua aurkeztu beharko da, eta harekin batera agiri-egilearen eta lekuko-lana egiten duten pertsona guztien nortasun agiriaren edo pasaportearen kopia konpultsatua.

3. Aurretiazko borondateen agiria aldeztu aurretik notario batek baimendua bada, kopia kautotu bat aurkeztuko da agiria erregistroan inskribatzeko eskaerarekin batera.

4. Aurretiazko Borondateen Nafarroako Erregistroan inskribatu gogo den agiriak, ezinbestean, datu hauek izanen ditu:

a) Agiri-egilearen izena, deiturak, NANa, helbidea eta telefonoa, baita lekukoaren ere, halakorik baldin badago. Halaber, notario aurrean egin bada, ordezkarien datuak eta agiria egin zuen notarioarenak.

b) Aurretiazko borondateen aitormena.

Aurretiazko borondateen agirian, inskribatzeko aurkezten den agirian, ohar bat jar liteke esanez agiri-egilea organo edo ehunen emailea dela, eta agiri-egileak nahi badu, zein duen donazioaren helburua.

### **4. artikulua. Inskripzioa.**

1. Aurretiazko Borondateen Nafarroako Erregistroan inskripzioa egiteko baimena ematea edo ukatzea Osasun Departamentuari dagokio. Aurretiazko borondateen agiria emateko ezarri diren tramite legalak ez betetzea da inskripzioa ukatzeko arrazoi bakarra. Ukatzuz gero, arrazoiak zein diren esanen da.

2. Erregistroko inskripzioa berehalakoa da baldin eta aurretiazko borondateen agiria notario bidez emana bada, betiere agiriaren egilea identifikatu ondoren.

3. Aurretiazko borondateen agiria lekukoaren aurrean egin bada, Erregistroaren arduradunak agiri-egilearen eta lekukoaren adina zein den kontrolatuko du eta begiratuko du agirian horien guztien sinadura dagoela, eta beharrezkoa balitz, bertan dela agiri-egilearen emantzipazioa frogatzen duen agiria.

### §3.2.- 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa

4. Aurretiazko Borondateen Erregistroan inskripzioa egiteak berarekin dakar aurretiazko borondateen agiria foru dekretu honen 5. artikulua aurreikusten duen fitxategi automatizatuaren sartzea.

5. Aurretiazko borondateen aitormenaren helburu diren sendagile edo profesional-taldeek ez dituzte kontuan hartuko legeen kontra dauden jarraibideak, ez eta praktika kliniko onaren kontrakoak edo unean uneko ezagupen zientifikoen kontrakoak edo egileak agiria egiteko unean aurreikusitako kasuarekin bat ez datozenak.

#### **5. artikulua. Fitxategi automatizatua.**

Aurretiazko Borondateen Agiriak izeneko fitxategi automatizatua sortu da. Fitxategi honen ezaugarriak foru dekretu honen 1. eranskinean ezarritakoak dira.

#### **6. artikulua. Aurretiazko Borondateen Erregistroan nola sartu.**

1. Pertsona hauek dute sarbidea Aurretiazko Borondateen Erregistroan agiria kontsultatzeko: agiria egin zuenak, erregistratutako agirian aipatzen diren ordezkariak, agiriaren egilearen ordezkari legalak, halakorik baldin badago, eta agiriaren egilearentzako osasun laguntzaren ardura duen sendagileak edo profesional-taldeko kide batek.

2. Lanpostuaren ezaugarriak direla-eta, Aurretiazko Borondateen Erregistroko agiriak ikusteko eskubidea duten pertsonak behartuak daude beti beren lanaren ondorioz dakizkiten datuak isilpean gordetzera.

#### **7. artikulua. Aurretiazko borondateak nola eguneratu edo aldatu.**

1. Aurretiazko borondateak osorik edo partez aldatzen ahal ditu, edonoiz, adierazi zituen pertsonak. Horretarako, lehenbizikoa agiria egiteko erabili zen prozedura bera erabiliko da. Partez aldatzen bada agiria, argi eta garbi adierazi beharko da zein den aldatu nahi den zatia, eta nola nahi den gelditzea.

2. Bestalde, aurretiazko borondateen agirian diren identifikazio datuak ere eguneratzen edo aldatzen ahal ditu, edonoiz, agiria egin zuen pertsonak. Horretarako, idatziz eskatu beharko zaio Erregistroaren arduradunari.

#### *XEDAPEN GEHIGARRIAK*

**Lehenbizikoa.-** Behar diren baliabide tekniko eta antolamenduzkoak izan ahala, Aurretiazko Borondateen Erregistroa sarrera bide telematikoen bitartez eginen da, betiere sistema teknikoren batek aspektuok ziurtatzen baditu: informazioa hartu behar duenaren identifikazioa, ematen den informazioa zuzena eta osoa dela, ematen den informazioa gorde egiten dela, informazioa eskatu dela eta noiz eskatu den erregistratua gelditzen dela, eta datuak isilpean gelditzen direla.

**Bigarrena.-** Osasun Departamentuak lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen ahal ditu Nafarroako Notarioen Elkargo Ofizialarekin, aurretiazko borondateen agiriak, notarioak baimenduak, modu telematikoan bidal daitezen errazteko, betiere agiriaren egileak adierazia badu Aurretiazko Borondateen Erregistroan sartu nahi duela eta notarioak horrela dela agertarazten badu.

**Hirugarrena.-** Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako prestatuntza-ekintzen barrenean, Osasun Departamentuak

§3.2.- 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa

zenbait gida eta jarduera berariazko eginen ditu aurretiazko borondateen agiria nola egiten den eta Aurretiazko Borondateen Nafarroako Erregistroan nola sartu azaltzeko.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenbizikoa.-** Arau honen ondorioz sortzen den fitxategi automatizatuaren ezaugarriak aldatzeko prozedura uztailaren 26ko 143/1994 Foru Dekretuan aurreikusitakoa da.

**Bigarrena.-** Ahalmena ematen zaio Osasun kontseilariari foru dekretu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak agindu ditzan.

**Hirugarrena.-** Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

1. ERANSKINA

Fitxategiaren izena: Aurretiazko Borondateen Agiriak

a) Fitxategiaren xedea eta aurreikusitako erabilerak.

Aurretiazko borondateen agiriak, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeari jarraikiz eginak, erregistratu eta artxibatzea. Artxibo hau gaixoaren osasun laguntzaz arduratzen diren profesionalak edo profesional-taldeek erabiliko dute, eritasunen baten ondorioz gaixoak erabakitzeko moduan ez dagoenean.

b) Ukitutako norbanakoak edo taldeak.

Aurretiazko borondateak adierazi eta erregistroan utzi nahi dituen edonor.

c) Datuak biltzeko prozedura:

Eskatzailearen borondatez, agiri-egileak Osasun Departamentuari idatziz eskatuta.

d) Fitxategiaren oinarrizko antolamendua eta bertan sartuko diren datu pertsonalak.

Identifikazio datuak:

-NAN/IFZ.

-Izen-deiturak.

-Helbidea.

-Telefonoa.

-Identifikazio pertsonalerako kodea (CIPNA).

Datu pertsonalak:

-Non eta noiz jaioa.

-Sexua.

-Egoera zibila.

-Familiaren datuak.

-Ordezkestaren identifikazio datuak.

e) Datu pertsonalen lagapena.

Aurretiazko borondateen agiria egin duten gaixoen ardura duten sendagileak eta osasun arloko profesional taldeak.

Beste Autonomia Erkidegoetako edo Estatu Administrazioari antzeko erregistroak.

Helburua estatistika eta ikerketa duten beste entitate batzuk, 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako baldintzetan.

Lagapena babesten duen araua:

Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea eta azaroaren 14ko 41/2002 Legea.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa.

Osasun Departamentuko Osasun Laguntzaren Zerbitzua.

g) Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eskubidea zein unitatetan erabili:

Osasun Departamentuko Osasun Laguntzaren Zerbitzuan.

h) Segurtasun neurriak: Altua.





### **§3.3.- 27/2021 Foru Dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez sortzen eta arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra<sup>549</sup>**

#### **ZIOEN ADIERAZPENA**

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren edo Foru Berriaren 106. Legean (Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko 21/2019 Foru Legean emandako idazketaren arabera) zera dago ezarrita: ezkontzaren pareko bizitza-elkarte afektiboan bizi diren bi adin nagusiko pertsonak edo adingabe emantzipatutako Konpilazio horretan aurreikusten diren efektuekin bikote egonkorra eratu nahi badute, hori egin ahal izanen dutela beren borondatea agiri publikoan adieraziz. Halaber, aipatutako 106. Legearen bigarren paragrafoan xedatuta dago bikote egonkorrak Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatu beharko duela erregistro hori eraentzen duen arauan aurreikusitako froga- eta publikotasun-efektuak izateko, bai eta beste lege-xedapen batzuetan ezarritako efektuak ere izateko.

Azkenik, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legearen azken xedapenetatik lehenbizikoan ezarrita dago hura argitaratzen denetik urtebeteko epean, Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra sortu beharko dela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikia, publikotasun-ondorioetarako.

Manu hori bete beharrez, bada, dekretu honen bitartez sortzen eta arautzen da Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra. Bikote egonkorra borondatez eta askatasunez eratzeko printzipioa osatzen da froga- eta publikotasun-ondorioetarako inskribatzeko aukerarekin. Inskripzioa, hain zuzen, berme bat da ez bakarrik bikotekideentzat, baizik eta baita hirugarrenentzat ere, eta deklaraziozko izaera soila badu ere, zinez garrantzitsua da trafikoko juridikoaren segurtasunerako.

Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra arautzen duen erregelamenduak hiru kapitulu dauzka.

Lehendabiziko kapituluak hiru atal dauzka. Lehendabiziko atalean, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren sorrera eta haren araubide juridikoa arautzen dira. Erregistro publikoa da, izaera administratibo dauka, eta hartan inskribatzen ahalko dira, boluntarioki, Nafarroako Foru Berriaren arabera eratutako bikote egonkorren egintzak, publikotasuna emateko eta haien froga modura. Bigarren atala Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa da. Hartan xedatzen da inskripzioak

---

549 Ikus 22/2021 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana, zeinaren bidez garatzen baita apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra sortzen duena (209. N.A.O., 2021eko irailaren 6koa).

### §3.3.- 27/2021 Foru Dekretua, apirilaren 14koa

euskari eta prozedura telematiko egokietan eginen direla. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean agertu behar duten datu guztiak biltzeko eta zalantzarik ez sortzeko moduko euskarriak erabiliko dira, eta berme juridiko egokiarekin, kontserbazio-segurtasunarekin eta haietan sartu eta ulertzeko erraztasunarekin. Orobat, ezartzen da neurriak hartu beharko direla, elkarrengarritasuna bermatzeko bikote egonkorren beste erregistro batzuekin. Hirugarren atalean jorratzen da Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarren inskripzioetako edukia (bikotearen eraketa, hitzarmen arautzaileak, bikote egonkorra azkentzea eta erregistroan baja ematea bikotea azkendu gabe). Inskripzioek eraginkortasun deklaratihoa izanen dute.

Bigarren kapituluari inskripzioak eta erregistratzeko prozedura arautzen dira. Kapitulu horrek lau atal dauzka. Lehendabiziko atalean jasotzen dira inskripzio eskaeren xedapen orokorrak, eta zehazten da zer datu eta dokumentazio aurkeztu behar diren eskaeretan. Halaber, aurreikusita dago lankidetzan aritzea notarioen bulegoekin horiek aurkezteko. Bestalde, xedatzen da erregistroa zer organo eskuduni atxikitzen zaion, organo horrek eskaerarako eredu normalizatuak sustatuko dituela, herritarrentzat errazagoa izan dadin eskaerak aurkezteko. Bigarren atalean zehazten da berariazko zer baldintza bete behar diren inskripzio eskaeren mota bakoitzean. Mota horiek dira, hain zuzen, bikotearen eraketaren berri ematekoa, bikoteak sinatu dituen hitzarmen arautzaileen gainekoa eta bikotea azkendu dela jakinaraztekoa. Hirugarren atalean inskripzio prozedura deskribatzen da. Prozedura amaitzeko, ebazpen bat eman beharko du hiru hilabeteko epean, erregistroa zer organo eskuduni atxikitzen zaion, organo horrek. Laugarren atalean jorratzen dira inskripzioen aldaketa, haien baja erregistroan eta ezzeptapena.

Azkenik, hirugarren atala erregistroaren publikotasunari eta ziurtagiriak emateari buruzkoa da. Hain zuzen, ziurtagiriok zer eduki eta indarraldi duten arautzen du. Erregistroaren publikotasunak honako hauei soilik eragingo die: bikote egonkorreko kideei, haien kausadunei, interes legitimoa frogatzen duten hirugarrenei, epaitegi eta justiziako auzitegiei eta, beren eskumenak erabiltzeko, administrazio publikoetako organoei. Erregistroko espedienteari dagokionez, bikote egonkorra osatzen duten kideek eta epaitegi eta auzitegiek soilik eskuratzen ahalko dute.

Hori horrela, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak proposatuta, Nafarroako Kontseiluari entzunda eta Nafarroako Gobernuak 2021eko apirilaren 14an egindako bileran hartutako erabakiarekin bat etorritik,

**DEKRETATZEN DUT:**

## **I. KAPITULUA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIKOTE EGONKORREN ERREGISTRO BAKARRA**

### **LEHEN ATALA**

#### **Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren sorrera eta araubide juridikoa**

##### **1. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren sorrera eta izaera.**

1. Sortzen da Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra, Nafarroako Foru Berriaren arabera eratu eta erregistro horretan inskribatzen diren bikote egonkorren egintzei publikotasuna emateko eta haien frogara modura.
2. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra publikoa da eta izaera administratiboa du, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera, eta justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuaren departamentuari atxikiko zaio.
3. Borondatezkoa da bikote egonkorra Erregistro Bakarrean inskribatzea. Hori hala izanik ere, bikote egonkorra inskribatu beharko du Erregistro Bakarrean erregelamendu honetan aurreikusitako publikotasun-ondorioetarako, bai eta beste lege xedapen batzuek ezarritako ondorioetarako ere.

##### **2. artikulua. Eginkizunak.**

Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrari dagokio eginkizun hauek gauzatzea:

- a) Bikote egonkorren inskripzio eskaeren tramitazioa eta ebazpena.
- b) Erregistroan utzitako agiriak artxibatzea eta zaintzea.
- c) Erregistroan inskribatzen diren egintzen publikotasuna eta frogara.
- d) Datu estatistikoak ematea, Nafarroako Estatistika Planeari sar daitezenez, eta txosten teknikoak egitea, erakunde publikoek hala eskatzen badute.

##### **3. artikulua. Egintza inskribagarriak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatuko dira:

- a) Agiri publiko baten bidez Nafarroako Foru Berriaren arabera eraturiko bikote egonkorra.
- b) Harremanaren alderdi pertsonalei, familiakoei eta ondarekoei eta bikote horretako kideen eskubideei eta beharkizunei dagozkien hitzarmenak.
- c) Inskribatutako bikote egonkorren azkentzea.
- d) Bikote egonkorra erregistroan baja ematea.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean egindako inskripzioak borondatezkoak eta doakoak izanen dira. Hori hala izanik ere, bikote egonkorreko edozein kide adierazi beharko dio Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrari inskribatutako bikotea azkendu dela.

## **BIGARREN ATALA**

### **Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarren antolaketa eta funtzionamendua**

#### **4. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarren egitura.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarren honako liburu hauek izanen dira:

a) Liburu nagusia, zeinetan sartuko baitira foru dekretu honetan araututako inskripzioak.  
b) Ordezko liburua, zeinetan agertuko baitira liburu nagusian inskribatutako kideak, deituraren araberrako hurrenkera alfabetikoan emanak. Kide bakoitzaren nortasun-agiria aipatu beharko da, eta adierazi liburu nagusian behar diren inskripzioak zein orrialdetan egin diren.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarren gordeko da bikote egonkor berari dagozkion inskripzioak egiteko aurkeztutako dokumentazioa. Dokumentazio hori erregistroko espedientean sartuko da eta liburu nagusian zenbaki bat emanen zaio, zeina bikote egonkorren eraketa inskribatzean emandako berbera izanen baita.

#### **5. artikulua. Erregistroaren kudeaketa.**

Inskripzioak euskarri eta prozedura telematiko egokietan eginen dira. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarren agertu behar duten datu guztiak biltzeko eta zalantzarik ez sortzeko moduko euskarriak erabiliko dira, eta berme juridiko egokiarekin, kontserbazio-segurtasunarekin eta haietan sartu eta ulertzeko erraztasunarekin.

#### **6. artikulua. Elkarreragingarritasuna bikote egonkorren beste erregistro batzuekin.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lankidetzeta eta elkarlanerako behar diren harremanak izanen ditu izatezko bikoteen, bikote egonkorren edo antzekoen erregistroak sortu dituzten beste administrazio publiko batzuekin, inskripzio bikoitzak saihestearren.

2. Horretaz gainera, behar diren neurriak hartuko ditu eta behar diren teknologiak erabiliko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra eta beste eskumen-esparru batzuetan dauden bikote egonkorren edo izatezko bikoteen beste erregistro batzuekin lotzeko. Xedea da informazioa elkarri trukatzeko komunikazio sare bat sortzea, erregistro horien xedeak betetzearren.

3. Edonola ere, erregistroen arteko elkarreragingarritasuna gauzatzean eta haien artean datuak komunikatzean, legedia betetzen dela eta datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren arloan exijitzekoak diren bermeak zaintzen direla bermatuko da.

## **HIRUGARREN ATALA**

### **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren edukia**

#### **7. artikulua. Inskripzioen edukia.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren idazpenek eduki hau izanen dute:

1.1. Eratutako bikote egonkorra.

-Bikotea eratu duten kideen izena eta deiturak.

-Bikotea eratu duten kide bakoitzaren jaioteguna eta jaioterria, eta haien nazionalitatea.

-Bikotea eratu duten kide bakoitzaren sexua.

-Bikotea eratu duten kide bakoitzaren egoera zibila.

-Bikotea noiz eratu den.

-Bikotearen bizileku komuna.

-Bikotekideen nortasuna egiaztatzen duten agiriak.

-Bikote egonkorrak eratzeko borondatea duela biltzen duen agiri publikoaren identifikazioa.

-Eskaera eta inskripzioa zein egunetan aurkeztu ziren.

-Hala behar denean, bikote egonkorra osatu aurretik bikotekideek zenbat denbora daramaten elkarrekin bizitzen.

-Bikote egonkorra inskribatzearen ondorioetarako, adierazgarria izan daitezkeen bestelako aipamenak.

1.2. Bikote egonkorraren alderdi pertsonalak, familiarrak eta ondarekoak arautzen dituzten hitzarmenak.

-Bikote egonkorraren inskripzio zenbakia.

-Inskripzioa batera eskatu duten bikote egonkorreko kideen identifikazioa.

-Hitzarmenak formalizatzeko agiri(ar)en identifikazioa.

-Eskaera eta inskripzioa zein egunetan aurkeztu ziren.

1.3. Bikote egonkorra azkentzea.

-Bikote egonkorraren inskripzio zenbakia.

-Inskripzioaren ondorioetarako, bikote egonkorra azkendu dela adierazi behar du(t)en kide(ar)en identifikazioa; hori oinarritzeko zergatiaren arabera.

-Zergatia.

-Azkentze data.

-Eskaera eta inskripzioa zein egunetan aurkeztu ziren.

1.4. Alderdi batek eskaturik eta bikote egonkorra azkendu gabe, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean baja emateko inskripzioak.

-Bikote egonkorraren inskripzio zenbakia.

-Inskripzioa batera eskatu duten bikote egonkorreko kideen identifikazioa.

-Eskaera eta inskripzioa zein egunetan aurkeztu ziren.

2. Inskripzio prozedurari bukaera ematen dion ebazpenaren bidez erabakiko balitz aurreko inskripzio horietako edozein ez egitea, dela ukatzeagatik, dela atzera egiteagatik, behar den idazpena eginen da Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean, zeinetan identifikatuko baitira eskatutako inskripzioa, ebazpenaren eguna eta zergatik ez den inskribatu.

3. Inskribatutako egintzak ukitzen dituzten ebazpen judizialak izanez gero, behar den idazpenean adieraziko dira ebazpen horien daturik adierazgarrienak.

#### **8. artikulua. Inskripzioen eraginkortasuna.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean egindako inskripzioek eraginkortasun deklaratihoa izanen dute.
2. Nafarroako Foru Berriaren arabera eratu diren bikote egonkorrek, behin haien existentzia egiaztatu ondoren, Nafarroako Foru Berriak haiei onartutako eskubide eta betebeharrak izanen dituzte, inskripzioa egina izan edo ez, eta, hala behar denean, aplikagarria zaien araudiko gainerako legeek onartutako eskubide eta betebeharrak, baldin eta horretarako exijitutako betebeharrak betetzen badituzte.

## **II. KAPITULUA INSKRIPZIOAK ETA ERREGISTROKO PROZEDURA**

### **LEHEN ATALA Inskripzio eskaeren xedapen orokorrak**

#### **9. artikulua. Inskripzio eskaeren beharkizun orokorrak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra organo eskudun bati atxikiko zaio eta hark sustatuko du eredu normalizatuak onestea, dela inskripzio eskaerenak eta, hala behar denean, harremanari dagozkion alderdi pertsonalak, familiakoak eta ondarekoak arautzeko hitzarmenenak eta bikotekideen eskubide eta beharkizunenak, herritarrei inskripzio eskaerak modu presentzialean zein telematikoa aurkeztea errazagoa gerta dakien.
2. Inskripzio eskaeretan bildu beharko dira bikote egonkorra osatzen duten bi kideen datu hauek:
  - a) Izen-deiturak.
  - b) NANaren, atzerritarraren nortasun txartelaren edo pasaportearen zenbakia.
  - c) Jaioteguna eta jaioterria.
  - d) Nazionalitatea edo nazionalitateak.
  - e) Sexua.
  - f) Egoera zibila.
  - g) Bikote egonkorra adierazi duen bizileku komuna.
  - h) Eskaera non eta noiz aurkeztu den.
  - i) Bikotea osatzen duten bi kideen sinadurak edo haietako batena, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera.

#### **10. artikulua. Inskripzio eskaera guztiekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

Inskripzio eskaera guztiei nahitaez gehitu behar zaie dokumentazio hau:

- a) Bikote egonkorra osatzen duten kideen nortasunaren edo, zenbait kasutan, eskatzailearenaren egiaztapena.
- b) Inskripzio mota bakoitzerako hurrengo artikuluetan xehakutzen diren agiriak.
- c) Bikotea osatzen duten kideen edo eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan adieraziko baitute:

-Egiazkoak direla eta aplikatu beharreko araudiarekin bat heldu direla eskaeran eta hari erantsitako dokumentazioan ageri diren datuak.

-Badakitela zein diren eskatzen den inskripzioetik eratorritako ondorioak.

### **11. artikulua. Atzerriko agirien betebeharrak.**

Atzerriko agiriak itzuli eta legezatu beharko dira arlo honetan aplikatzeko den legedi orokorreko xedapenen arabera.

## **BIGARREN ATALA**

### **Inskripzio eskaera bakoitzaren berariazko beharkizunak**

### **12. artikulua. Eratutako bikote egonkorra inskribatzea.**

1. Eratutako bikote egonkor bat Nafarroan inskribatzeko, bi bikotekideek behar bezala sinatutako inskripzio eskaera aurkeztuko da eta hari dokumentazio hau erantsiko zaio:

a) Agiri publikoa, zeinetan adieraziko baita bikote egonkorra eratzeko borondatea dagoela Nafarroako Foru Berriaren arabera. Agiri horretan agertuko dira bikotea osatzen duten kideak nor diren, bikotea eratzeko aski ahalmen dutela dioen adierazpena, eta ez daudela debeku egoeretako batean, ez eta denborazko baldintza edo iraupenaren mende ere.

b) Erroldatze ziurtagiria bizileku berean, Foru Komunitateko edozein udalerritan. Ziurtagiri hau ez da eskatuko, Nafarroako Foru Berriaren arabera eratu den bikote egonkorreko kideek erantzukizunpeko adierazpena egiten badute, bi bikotekideek nafar izaera zibila gordetzen dutela, Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo bizi badira ere.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, eskaerarekin batera egina, zeinetan esanen baita Nafarroako Foru Berriko 106. legeko betebeharrak betetzen direla eta bikotekideak ez daudela 107. legeko debekuen artean.

2. Notarioen bulegoek bikote egonkorraren inskripzio eskaera aurkez dezakete, baldin eta agiri publikoan adierazi badute Nafarroako Foru Berriaren arabera bikote egonkorra eratzeko borondatea dutela, eta, hala behar denean, bikote hori arautzeko hitzarmenak inskripzioa. Ondorio horietarako, foru dekretu honetan jasotako dokumentazio osoa bidali beharko dute behar diren inskripzioak egin daitezen eta, orobat, egiaztatuta eskaera hori egiten dela bikote egonkorra osatzen duten bi kideek berariaz hala eskaturik.

### **13. artikulua. Bikote egonkorraren hitzarmen arautzaileak inskribatzea.**

1. Nafarroako Foru Berriaren arabera eratu diren bikote egonkorrek noiznahi eska dezakete harreman pertsonalak, familiakoak eta ondarekoak arautzen dituzten hitzarmenak inskribatzea eta, gainera, haietan bikote egonkorra osatzen duten bi kideen eskubideak eta beharkizunak zehaztea.

2. Inskripzio eskaerarekin batera ondoko agiri hauek ere nahitaez aurkeztu beharko dira:

a) Bikote egonkorraren hitzarmen arautzaileak formalizatzeako agiria.

b) Bikote egonkorra osatzen duten bi kideen erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan adieraziko baitu, Nafarroako Foru Berriaren arabera, bikote egonkorra izateko lege betebehar guztiak dituztela hitzarmenak inskribatzeko eskaera egiten duten egunean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak zainduko du hitzarmen horien aginduzko arauak edo ordena publikokoak ez direla urratzen, baina ez du erranen ordenamendu juridikoaren gainerako arauak egokitzen zaizkienetz.

**14. artikulua. Bikote egonkorraren azkentzea inskribatzea.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatutako bikote egonkor bat azkendu dela jasota gera dadin, inskripzio eskaera aurkeztu beharko da, eta harekin batera, azkentzea egiaztatzen duten agiriak, foru dekretu honetan xedatutako moduan.

2. Eskaeran adierazi beharko da azkentzearen arrazoia, bat etorri Nafarroako Foru Berriaren 110. legean ezarritakoarekin.

3. Bikote egonkorraren azkentzea inskribatzeko eskaerari nahitaez erantsi beharko zaizkio agiri hauek, azkentzearen arrazoiaren arabera betiere:

a) Bikote egonkorra osatzen duten kideetako baten heriotzagatik: heriotza ziurtagiria edo heriotzaren deklarazio judiziala, bikotean bizirik gelditu den kideak edo hirugarren pertsona interesdun batek aurkeztua. Azkentze data heriotzaren edo heriotzaren deklarazioaren eguna izanen da; datu hori heriotza ziurtagirikoa edo heriotzaren deklarazio judizialekoa izanen da.

b) Bikote egonkorra osatzen duten kideen ezkontzagatik: ezkontzaren hitzez-hitzezko ziurtagiria. Azkentze data ziurtagiri horretan agertuko den ezkontza eguna izanen da.

c) Bikote egonkorra osatzen duten kideetako edozeinen ezkontzagatik: ezkontzaren hitzez-hitzezko ziurtagiria. Azkentze data ziurtagiri horretan agertuko den ezkontzarena izanen da.

d) Bikote egonkorra osatzen duten kideen borondateagatik:

-Bikote egonkorraren azkentzea formalizatu den agiri publikoa.

-Inskribatutako bikote egonkorra osatzen duten bi kideak Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean batera agertzearen gaineko akta. Genero indarkeriako egoeraren bat bada, bereizita ager daitezke erregistroan.

-Inskribatutako bikote egonkorra osatzen duten kideetako bat Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean agertzearen gaineko akta, aurretik bikoteko beste kideari agerraldi horren komunikazio fede-emailea eginez.

e) Bizikidetzeta amaitzeagatik, bizi-erkidegoaren egiazko haustura gertatuta: zuzenbidean onartutako edozein bitartekoren bidez, bizikidetzeta amaitu dela eta, horrenbestez, bizi-erkidegoa hautsi dela egiaztatzen du(t)en agiria(k).

**15. artikulua. Bikote egonkorraren azkentzea ofizioz inskribatzea.**

Bikote egonkorraren azkentzea ofizioz inskribatuko da, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak modu fede-emailean baldin badaki bikote egonkorreko kideetako bat honako inguruabarretako batean dagoela:

a) Heriotza edo heriotza deklarazioa.

b) Ezkontza.

c) Beste bikote egonkor bat eratzea.

d) Bikote egonkorrak irautearen ondorioetarako garrantzitsua izan daitekeen edozein zergati objektibo.



## **HIRUGARREN ATALA** **Inskribatzeko prozedura**

### **16. artikulua. Abiaraztea.**

Inskripzio eskaerak aurkeztuko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ageri diren tokietako edozeinetan, aurrez aurre edo telematikoki, salbu eta, foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera, norbera agertzea ezinbestekoa denean.

### **17. artikulua. Instrukzioa.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren ardura duen unitateak jaso eta egiaztatuko ditu aurkeztutako inskripzio eskaerak.

2. Aurkeztutako eskaerak akatsen bat baldin badu edo nahitaez aurkeztu beharreko agiriren bat ez bada aurkeztu, hoguei egun balioduneko epea emanen da akatsa zuzendu edo falta den dokumentazioa ekartzeko.

Ofizios edo alderdi batek eskaturik, epe horri beste hamar egun baliodun gehituko zaizkio, zailtasun bereziak daudenean okerra zuzentzeko edo eskatutako agiriak edo datuak ekartzeko.

Atzerritarrek dokumentazioa haien jatorrizko herrialdeetan eskatu behar badute, okerrak zuzentzeko epea gehienez ere hilabetez handitu daiteke.

3. Errekerimendua ez bada oso-osorik betetzen, usteko da bikote egonkorrak atzera egiten duela eskaeran eta eskaera artxibatuko da, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra atxikita dagoen organo eskudunak aldeztu aurretik ebazpena eman ondoren.

### **18. artikulua. Ebazpena.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra zer organo eskuduni atxikita dagoen, organo horrek eman eta jakinaraziko du ebazpena, eskaera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoa sartu eta hiru hilabeteko epean.

2. Beti arrazoitua izanen den ebazpenean erabakiko da eskatutako inskripzioa gauzatzea edo ukatzea eta, hala behar denean, erregistroan baja ematea. Halaber, eskaeran atzera eginez gero, eskaera artxibatzea erabakiko da.

3. Ebazpenaren epea igarotzen bada berariazko ebazpenik eman gabe, eskaera onartutzat joko da.

4. Bikote egonkorren inskripzio ebazpenean erregistroko zenbaki bat emanen zaio eta zenbaki hori berbera izanen da bikote horren gainean aurrerantzean eginen diren inskripzio desberdinetako bakoitzean.

5. Inskripzio bat egiteko, hura aldatzeko edo hartan baja emateko aldeko ebazpena eman ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko liburu nagusian idatziz jaso beharko da.

6. Ebazpenak bikote egonkorreko kideei jakinaraziko zaizkie eta haien kontrako errekursoak jar daitezke, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko apirilaren 11ko 11/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

**19. artikulua. Bikote egonkorreko kideek edo haietako batek beren borondatez bikotearen azkentzea inskribatzeko prozedurako berezitasunak.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatutako bikote egonkorrek eska dezakete bikotearen azkentzea inskribatzea, dela bikoteko bi kideek hala nahi dutelako, dela bikoteko kideetako batek hala nahi duelako. Horretarako, agiri publiko bat aurkeztu beharko dute non agertuko baita bikotea azkendu dela Nafarroako Foru Berriaren arabera edo Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean agertu beharko dute eta han berariaz adierazi bikote egonkor horri bukaera emateko erabakia hartu dutela eta hura azkendu nahi dutela.

2. Inskribatutako bikote egonkorra osatzen duten kideetako batek bakarrik eskatzen badu bikotearen azkentzea inskribatzea, azkentze egunaren ondorioetarako egiazta dezake bikote egonkorreko beste kideari erabakia adierazi diola, modu fede-emailean eta zuzenbidean onartutako edozein bitarteko erabiliz.

3. Azkentzearen inskripzioa aurkezten duen kidea genero indarkeriaren biktima bada, Erregistroak izendatutako bikotekideari dagokio, azkentze egunaren ondorioetarako, bikoteko beste kideari alde aurretik eta modu fede-emailean adieraztea bikotea azkendu nahi dela eta horren agertze akta egitea, hala eskatuz gero eta eskaerarekin batera egoera hori egiaztatuz gero ondoko bitarteko hauetako bat erabiliz:

a) Babes agindua, eskaera egiten denean indarrean dagoena.

b) Genero indarkeriako egintzengatiko zigor-epaia, zeinetan erabakitzen baitira biktima babesteko neurriak, hots, eskaera egiten den unean indarrean daudenak.

c) Babes agindurik edo zigor-epairik izan ezean, genero indarkeriaren egoera egiaztatzeko aski izanen da Fiskaltzaren txostena, zeinetan adieraziko baita genero indarkeria jasaten ari den zantzuak dituela eskatzaileak, babes agindua ematen den bitartean.

d) Egoera hori egiaztatzen duten bestelako agiri publikoak.

4. Azkentzea agiri publiko batean gauzatzen bada, agiri horretan adierazi beharko da nork osatzen duen bikote egonkorra, haien gaitasuna, bikote egonkorra bi kideek azkendu nahi dutela edo bikote horretako kide batek hala egin nahi duela. Bigarren kasu honetan beste alderdiari modu fede-emailean adierazi beharko zaio bikotea azkendu nahi dela.

5. Azkentzea erregistroan agertuz gauzatzen bada, ondorio horietarako, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak bere langileen artetik bat izendatuko du agertze akta egin dezan.

6. Agertze aktan jasoko dira bikote egonkorreko kideen datu hauek, bai eta eduki hauek ere:

a) Bikote egonkorreko kideen izena eta deiturak.

b) NANaren, atzerritarraren nortasun txartelaren edo pasaportearen zenbakia.

c) Nazionalitatea edo nazionalitateak.

d) Sexua.

e) Egoera zibila.

f) Bikote egonkorrerako ezarritako bizilekua.

g) Bikote egonkorren inskripzio zenbakia, bikote egonkorren eraketa eta inskripzio egunak eta, hala behar denean, hitzarmen arautzaileak izatea edo ez.

§3.3.- 27/2021 Foru Dekretua, apirilaren 14koa

h) Berariaz adieraztea bikotea azkendu dela, ondorio horietarako Nafarroako Foru Berrian ezarritakoaren arabera.

i) Hala behar denean, beste alderdiari modu fede-emailean komunikatzea beste alderdiak erabaki duela bikote egonkorra azkentzea bikoteko kide horrek berak edo akta egiten duen Erregistroko langileak, genero indarkeriako biktima baldin bada alderdietako bat.

j) Agertze eguna.

k) Azkentzearen eguna, halakorik bada.

l) Eskatzailearen edo eskatzaileen sinadura(k) eta Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak akta egiteko izendatutakoarena.

7. Behin akta eginik, akta irakurri eta sinatuko du(te) bikote egonkorren azkentzea inskribatzea eskatu duen kideak edo kideek. Hala behar denean, akta notarioari igorriko zaio; bikote hori eratzeko agiri publikoa formalizatu zuenari, alegia.

8. Hala behar denean, bikote egonkorren azkentzea inskribatzeko ebazpena igorriko zaio notarioari -hots, bikote hori eratzeko agiri publikoa formalizatu zuenari- eta bikote egonkor horretako kideei, legezko ondorioak izan ditzan.

**20. artikulua. Bikote egonkorren azkentzea ofizioz inskribatzeko prozeduraren berezitasunak.**

1. Bikote egonkorren azkentzea ofizioz inskribatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak, foru dekretu honetako 15. artikuluan ezarritako kasuetan. Aldez aurretik jakinaraziko die bikote hori osatzen duten kideari edo kideei, kasuan kasu, alegazioak egin ditzaten.

2. Alegazioak aztertu ondoren edo alegaziorik ez badago, bikote egonkorren azkentzea inskribatzearen gaineko ebazpena emanen da, atal honetan ezarritako prozeduraren arabera.

3. Hala behar denean, bikote egonkorren azkentzea inskribatzeko ebazpena igorriko zaio notarioari -hots, bikote hori eratzeko agiri publikoa formalizatu zuenari- eta bikote egonkor horretako kideei, legezko ondorioak izan ditzan.

**LAUGARREN ATALA**

**Inskripzioen aldaketa, baja eta ezereztea**

**21. artikulua. Inskripzioaren datuak aldatzea.**

1. Bikote egonkor baten erregistro inskripzioetan dauden datuak alda daitezke ofizioz edo alderdi batek eskaturik, akatsak izateagatik edo Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean bikote egonkorra inskribatzearen ondorioetarako garrantzitsua den edozein inguruabar aldatzeagatik.

2. Ondorio horietarako, inskribatutako bikote egonkorra osatzen duten kideek Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrari aditzera emanen diote bikote horri dagozkion inskripzioetarako ekarritako datuetan izandako aldaketak eta, hala behar denean, datu horietan dagoen akatsa edo egin nahi den aldaketa egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak ofizioz eginen ditu bikote egonkorreko kideetako edozeini buruzko datuak aldatu direla modu fede-emailean frogatzen duenean eta Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren

### §3.3.- 27/2021 Foru Dekretua, apirilaren 14koa

Erregistro Bakarrean bikote horren inskripzioen ondorioetarako garrantzitsuak direnean datu horiek.

4. Datu eta/edo agiri berri horiek ezaguturik, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak jakinaraziko dizkie bikote horretako kideari edo kideei, alegazioak egin ditzaten.

5. Behin datu eta/edo agiri berriak aztertutik eta, hala behar denean, alegazioak, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak ebatziko du aldatzeaz edo aldatu gabe uzteaz bikote egonkorren inskripzioak, kapitulu honetako hirugarren atalean ezarritako prozeduraren arabera.

6. Behar den ebazpena eman ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak bikote egonkorreko kideei jakinaraziko die erabakia, legezko ondorioak izan ditzan.

#### **22. artikulua. Bikote egonkorrari baja ematea erregistroan.**

1. Inskribatutako bikote egonkorrek Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean egindako inskripzioan baja eman dezakete, inskripzio hori azkendu ez bada ere.

2. Inskribatutako bikote egonkorrari erregistroan baja emateko eskaerak bikoteko bi kideek sinatutako eskabidearen bidez egingen dira.

3. Inskripzio eskaerarekin batera, nahitaez erantsi behar da erantzukizunpeko adierazpen bat, bikotea osatzen duten bi kideek batera eta berariaz egina. Adierazpen horretan esanen dute:

a) Bikote egonkorra ez dela azkendu eta bikote egonkorra izateko legezko beharkizun guztiak betetzen dituztela, Nafarroako Foru Berriaren arabera.

b) Hori hala izanik ere, bikote egonkorreko kideek erabaki dutela bikotea inskribaturik ez jarraitzea Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean.

c) Egiazkoak direla eta aplikatu beharreko araudiarekin bat heldu direla eskaeran eta hari erantsitako dokumentazioan ageri diren datuak.

d) Badakitela zein diren bikote egonkorrari Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean baja ematearen ondorioak.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak erregistroan baja emateko eskaeraren gainean ebatziko du, kapitulu honetako hirugarren atalean ezarritako prozeduraren arabera.

5. Behar den ebazpena eman ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak bikote egonkorra osatzen duten kideei jakinaraziko die, legezko ondorioak izan ditzan.

#### **23. artikulua. Bikote egonkorren inskripzioa ezereztea.**

1. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak noiznahi eta ofizios espediente ireki dezake eta hartan inskripzioak ezereztu, baldin eta kasu faltsuak badira edo legezko beharkizunak betetzen ez badira.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak, faltsutasuna edo ez-betetzea ezagutu eta egiaztatu ondoren, jakinaraziko die bikotea osatzen duten kideei, alegazioak aurkez ditzaten.

3. Behin egintzak eta, hala behar denean, alegazioak aztertutik, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak bikote egonkorren inskripzioak ezereztearen edo ez ezereztearen gaineko ebazpena emanen du, kapitulu honetako hirugarren atalean ezarritako prozeduraren arabera.

4. Behar den ebazpena eman ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak jakinaraziko die, hala behar denean, bikote hori eratzeko agiri publikoa formalizatu zuen notarioari eta bikote egonkor hori osatzen zuten kideei, legezko ondorioak izan ditzan.

5. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak automatikoki ezereztuko ditu inskribatutako bikote egonkor bati dagozkion erregistro inskripzioak, erregistroari ofizialki jakinarazten zaionean edozein ebazpen irmo, dela administrazioak, dela epaileek hartua, inskribatutako egintza(k) baliogabe deklaritzen dituen; ezereztea jakinaraziko zaio, hala behar denean, bikote hori eratzeko agiri publikoa formalizatu zuen notarioari, bai eta bikote egonkor hori osatzen zuten kideei ere, legezko ondorioak izan ditzan.

### **III. KAPITULUA**

#### **ERREGISTROAREN PUBLIKOTASUNA ETA ZIURTAGIRIAK EMATEA**

##### **24. artikulua. Datu pertsonalen araudiaren mende jartzea.**

Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko datu pertsonalak bildu, landu eta gordeko dira, unean-unean indarra duen gaiari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

##### **25. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren publikotasuna.**

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarreko datuak soilik emanen zaizkie bikote egonkorreko kideei, haien kausadunei, legezko interesa egiaztatzen duten hirugarrenei, Justiziako epaitegi eta auzitegiei eta administrazio publikoetako organoei beren eskumenak erabil ditzaten.

2. Inskripzioen edukia egiaztatuko da organo eskudunak emandako ziurtagiriaren eta ohar soilaren bidez, eta Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren arduradunak egin eta sinatuko ditu ziurtagiri eta ohar horiek.

3. Erregistroko publikotasun-egintzetan, kasuan kasu, datu hauek bilduko dira:

a) Bikote egonkorren existentziaren publikotasuna: bikotea existitzen dela esatea eta noiz inskribatu zen, bikoteko bi kideen identifikazio-datuak, harreman pertsonalak, familiakoak eta ondarekoak arautzen dituzten hitzarmenak dauden edo ez, eta inskripzioen aldaketak, bajak eta ezerezteak noiz inskribatu ziren.

b) Bikote egonkorren azkentzearen publikotasuna: bikote egonkorren inskripzio eguna; bikoteko bi kideen identifikazio-datuak; harreman pertsonalak, familiakoak eta ondarekoak arautzen dituzten hitzarmenak dauden edo ez adieraztea, ezereztearen zergatia eta eguna, eta ezereztearen inskripzioaren eguna.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren publikotasun-egintzek hiru hilabeteko balioa izanen dute, egiten direnetik hasita.

§3.3.- 27/2021 Foru Dekretua, apirilaren 14koa

5. Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrak publikotasunaren gainean dituen eskumenen erabilerak, hartara, bermatu behar du datu pertsonalak babestearen eta informazioaren segurtasunaren arloan exijitu daitezkeen bermeak eta legeak beteko direla.

**26. artikulua. Erregistro espedientean sartzea.**

Bikote egonkorren erregistro espedienteko agirietan sar daitezke:

- a) Bikote egonkorra osatzen duten kideak.
- b) Epaitegiak eta auzitegiak.

**Lehenengo Xedapen Gehigarria. Hitzarmenak Nafarroako Notarioen Elkargoarekin.**

Nafarroako Gobernuak lankidetzaz-hitzarmen bat sinatuko du Nafarroako Notarioen Elkargoarekin, elkargoko kideek Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean bikote egonkorrekin zerikusia duten erregistro inskripzioak eskatzen dituztenean, telematikoki igor ditzaten agiri publiko notarialak, bikote egonkorrek eratu, arautu edo, hala behar denean, ezereztekoak.

**Bigarren Xedapen Gehigarria. Eraketaren agiri publikoa eta hitzarmen arautzaileak.**

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarraren esparruan berean sustatuko du eta, hala behar denean, lankidetzaz-hitzarmenak sinatuko ditu, herritar guztien eskura egon daitezzen bikote egonkorren eraketa jasotzen duen agiri publikoa eta hura arautzen duten hitzarmenak.

**Azken Xedapenetako Lehena. Erregelamendu bidezko garapena.**

Justiziaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. Indarra hartzea.**

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2021eko apirilaren 14an.-Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués.-Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria, Eduardo Santos Itoiz.

## **§4.- ERANSKINAK**

### **§4.1.- 19/1975 Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioko lege batzuk aldatzen dituenak**

Zuzenbide Zibila Konpilatzeko Batzordearen ekimenez, Nafarroako Foru Diputazioak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioko lege batzuk aldatzea proposatu du, emakume ezkonduaren gaitasun juridikoari eta ezkontideen eskubide eta betebeharreri buruzko maiatzaren biko hamalau/mila bederatzehun eta hirurogeita hamabosteko Legearen bitartez Kode Zibilean berriki eginiko aldaketaren ildoari jarraitzeko. Bestalde, Konpilazio hartako azken xedapenetatik lehenak jasotzen dituen aginduak bete dira. Horrela, bada, proposaturiko aldaketa berretsi beharra dago, presako eta behar den mailako arau baten bidez, zeinak egokia izan beharko baitu zuzenbide orokorrean izandako aldaketak sorturiko ziurgabetasun juridikoko egoera gainditzeko.

Hori horrela, Ministroen Kontseiluak mila bederatzehun eta hirurogeita hamabosteko abenduaren bostean eginiko bileran proposatuta, Gorteen Lege Eratzaileko hamahirugarren artikulua ematen duen baimena erabiliz (Lege Funtsezkoen testuategina, mila bederatzehun eta hirurogeita zazpiko apirilaren hogeiko Dekretuz onetsia), eta aipaturiko Legeko hamabigarren artikuluko lehen idatz-zatiak adierazten duen Batzordeari entzun ondoren,

#### **XEDATZEN DUT:**

Lehen artikulua.- Jarraian transkribatzen diren legeen testua Nafarroako Zuzenbide Zibilean indardun dela aitortzen da, martxoaren bateko bat/mila bederatzehun eta hirurogeita hamahiru Legeak onesitakoaren ordez.

Bigarren artikulua.- Lege-dekretu honek indarra hartuko du Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan, eta horren berri berehala emanen zaie Gorteei.

Hala xedatu dut, mila bederatzehun eta hirurogeita hamabosteko abenduaren hogeita seian Madrilen emandako Lege-dekretu honen bitartez.

Juan Carlos

Gobernuko Lehendakaria

Carlos Arias Navarro

### **ZIOEN AZALPENAK**

Nafarroako zuzenbide historikoa –zehatz jasoak Foru Zuzenbide Pribatuaren Konpilazioan– emakume ezkonduaren gaitasuna aitortzearen aldekoa izan da betidanik, beste ordenamendu murriztaileago batzuekin alderatuta. Konpilazioko berrogeita hamazazpigarren legeak jadanik zenbait salbuespen egiten zituen senarraren lizentzia eskatzeari zegokionez, baina doktrinako eta legegintzako joerarik berriek, hain zuzen Kode Zibilean ere ildo horretako aldaketa egitera bultzatu dutenek, ez dute Nafarroako



#### §4.1.- 19/1975 Lege-dekretua, abenduaren 26koa

Zuzenbidea sorgortu behar, zeren eta Zuzenbide orokorraren erreforma ezin baita besterik gabe aplikatu Nafarroan. Hortik dator bertako zuzenbide historikoaren ildoari eusteko asmoa, eta horren lege batzuk aldatzekoa, Konpilazioko azken xedapenetatik lehenak ezarritako prozeduraren bitartez.

Sexuen berdintasunari buruzko esakune lausoen bidetik jo beharrean (horren ondorio juridikoak ezegokiak izan litezke kasu askotan, eta are aurreikustezinak), senarraren lizentzia bertan behera utzi da. Dena den, ezkonsarian eta erresetan eragiten duten egintzetan senarraren baimena izan beharrari eutsi zaio, eta, era berean, nork bere aldetik egindako egintzen bidez ezkontide-sozietateko ondasunak obligarazi edo xedatu ahal izateko bi ezkontideek elkarri baimena eman beharrari eutsi zaio.

Horrela, bada, aldaketa taxutu da familia legitimoak –zeina, formalki, ezkontza deseginezinean eta etxearen batasunean oinarriturik baitago– duen berezko izaerarekiko harmonia gordez eta autonomia pribatuaren gailentasuna betiere errespetatuz. Aipatu autonomia nagusi da Nafarroako foru zuzenbidean, “paramiento fuero vienze” oinarritzko printzipioaren arabera.

“Foruaren Hobetze” –espresio tradizionala erabiltzearen– honen bidez, Nafarroako zuzenbidea, bidegabeko tokikeriarik gabe, berriro ere bat dator bere historiarekin eta orainaren eskakizunekin.

Ukaezina da erreforma hau egitea premiazkoa dela; funtsari dagozkion arrazoietatik beretatik ondorioztatzen da jadanik, baina bereziki komenigarri gertatzen da zuzenbide orokorra aldatu izana praktikan eragiten ari den nahasmen edo ziurgabetasunaren ondorioz; izan ere, aldaketa horren eragina lehen aipaturikoa den arren, arauak aplikatzerakoan zalantzak sortzen ditu, hala eta guztiz ere. Hori guztia dela-eta, arazoa berehala guztiz argitua uztea komeni da.



**§4.2.- 38/1978 Errege Lege-dekretua, abenduaren 5koa,  
Nafarroako Foru Diputazio txit garaiarekin ados Nafarroako  
Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazioa 50. legea  
aldatzen duena**

Azaroaren hamaseiko hogeita hamahiru/mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortzi Errege Lege-dekretuak ezarri zuen espainiar guztiak adin nagusiko izanen direla hemezortzi urte betetzean. Gure ordenamendu juridikoko arauak horren arabera aldatu ziren, eta aipaturiko Errege Lege-dekretuko bigarren xedapen gehigarriak ezartzen zuen Nafarroako Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazioa dagokion esparruan egokitzeke xedez martxoaren bateko bat/mila bederatziehun eta hirurogeita hamahiruko Legeko azken xedapenetatik lehenak ezarritakoaren arabera jokatu zela.

Aipaturiko azken xedapenak adierazitako aginduak bete dira, Nafarroako Foru Diputazio txit garaiak joan den azaroaren hiruan horri buruzko erabakia hartu eta Nafarroako Foru Administrazio Kontseiluak abenduaren biam berretsiko ondoren. Horrela, bada, guztiz presakoa da aldagaketa formal hori egitea, Konpilazioa jadanik ezarritako adin-nagusitasunari egokitzeke.

Hori horrela, eta Ministroen Kontseiluak mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortziko abenduaren lauan eginiko bileran gaia aztertu ondoren, Gorteen Lege Eratzaileko hamahirugarren artikulua ematen didan baimena erabiliz eta Erreforma Politikorako martxoaren lauko bat/mila bederatziehun eta hirurogeita hamazazpi Legeko bigarren xedapen iragankorreko lehen zenbakiak aipatzen duen Gorteetako Batzordeari entzun ondoren:

**XEDATZEN DUT:**

Lehen artikulua.- Nafarroako Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazioko berrogeita hamargarren legeko lehen lerroaldeko testua, jarraian transkribatua, Nafarroako Zuzenbide Zibilean indardun dela aitortzen da, martxoaren bateko bat/mila bederatziehun eta hirurogeita hamahiru Legearen bitartez onetsitakoaren ordez.

Bigarren artikulua.- Errege Lege-dekretu honek indarra hartuko du Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan, eta horren berri berehala emanen zaie Gorteei.

Madriken emana, mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortziko abenduaren bostean

Juan Carlos

Gobernuko Lehendakaria  
Adolfo Suárez González

## **§4.3.- 5/1987 Foru Legea, apirilaren 1ekoa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatzen duena**

### **Zioen azalpena**

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria martxoaren 1eko 1/1973 Legeak onetsi zuen, eta tradizioa eta praktikan betetzen ziren bertako ohitura, foru eta legeak kontuan izanik une hartan Nafarroan indarra zuen Zuzenbide Zibila jaso zuen.

Konpilazio horretan aldaketak egin zituzten 1975eko abenduaren 26ko eta 1978ko abenduaren 5eko Errege Lege-dekretuek. Horien xedea zen Kode Zibilean emakume ezkonduaren ahalmenari eta adin-nagusitasunari –hurrenez hurren– dagokienez eginiko aldaketen printzipioei egokitzea Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila. Hala eta guztiz ere, gaur egun, Konpilazioko agindu-multzo ugari bat –bereziki, Familia Zuzenbidea osatzen dutenak– haien araubidearen xede den errealitate sozialari egokitu gabekoak izateaz gain, batzuetan kontraesanean daude Konstituzioko I. Tituluan jasotako zenbait printzipioekin, eta, beraz, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 6. artikulua urratzen dute. Artikulu horrek dioenez, “nafarrek gainerako espainiarrek dituzten oinarritzko eskubide, askatasun eta betebeharrak dituzte”.

Horregatik, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazio indarduna aldatu beharra dago, aipaturiko konstituzio-printzipioetara eta, azken batean, Nafarroako gaur egungo errealitate sozialera egokitzeko, artikulua hartan xedatuari jarraikiz.

Horixe du helburu nagusi foru lege honek. Aipaturiko lege organikoko 48.1 artikulua Nafarroari Foru Zuzenbide Zibilaren alorrean aitortzen dion eskumen osoaren esparruan eta artikulua horretako 2. idatz-zatiak ezarritakoaren babesean ematen da foru lege hau. Idatz-zati horrek dio indarra duen Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Nafarroako Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garapena foru lege bidez eginen dela behar izanez gero.

Nahiz eta foru lege honek egiten dituen aldaketa batzuk Konpilazioaren aplikazio praktikoari eta doktrinak zein jurisprudentziak hari buruz egiten duten interpretazioari zor zaizkion arrazoi tekniko-juridiko batzuen ondoriozkoak izan, aldaketa horietako gehienek xede daukate Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilean orain arte izan diren bereizkeriak (sexuan, jaiotzean edo egoera zibilean oinarrituak) kentzea. Halaber, adierazi beharrekoa da ezen Nafarroako Foru Araubidea Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa indarrean sartzeak indargabetu egin zituela Konpilazioan bere aldaketa- eta berrikuspen-araubidea ezartzen zuten azken xedapenak. Horregatik, xedapen horiek formalki kentzera dator orain foru lege hau.

Azken batean, foru lege hau argitu duten printzipioak izan dira Konstituzioan aldarrikaturiko printzipioekiko errespetua eta, horiekin bateragarria den heinean,

Nafarroako tradizio juridikoarekiko leialtasuna. Horrela, bada, tradizioa eta aurrerapena dira, atzo bezala gaur ere, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila bideratzen duten ildoak.

### **Testu artikuluduna**

**1. artikulua.** Jarraian zehazten diren Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioko legeen testua honako hau izanen da:

(...)

**2. artikulua.** Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioko II. Liburuko X. Tituluko I. eta IV: Kapituluetakoa idazpuruak aldatu dira. Testu hau izanen dute:

(...)

**3. artikulua.** Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioko Azken Xedapenak kentzen dira.

**4. artikulua.** Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioari honako testua izanen duen Xedapen Gehigarri bat eransten zaio:

(...)

*Xedapen iragankorrak*

#### ***Lehenagoko egintzak***

**Lehena.-** Foru lege honen bidez egindako aldaketak hark indarra hartu aurretik sorturiko harreman juridikoei aplikatu ahalko zaizkie. Hala ere, lehenagoko legediaren arabera eginak diren eta balio nahiz eraginkortasun osoa daukaten egintza eta kontratuak ezin izanen dira Foru Lege honetako xedapenen babesean ezin kasutan inpugnatu.

#### ***Oinordetzak***

**Bigarrena.-** Foru Lege honek indarra hartu aurretik irekitako oinordetzak lehenagoko zuzenbideak arautuko ditu, eta gero irekiak, legedia berriak.

#### ***Erreserba tronkala***

**Hirugarrena.** 1973ko martxoaren 1a baino lehenago hildako kausatzaileen legezko oinordetzari dagokionez, betiere Kode Zibileko xedapenei jarraikiz jaraunseak izendatzeko auto irmoa izan bada, erreserba tronkala izanen da, jarraian adierazten den moduan:

1) Norbaitek legezko oinordetzaz ondorengo batengandik jaraunsten baditu ondorengo horrek beste lerro bateko aurreko batengandik irabaziz eskuraturiko ondasunak, horiek erreserbatu beharko ditu lehengoratzera eginen dutenak hiltzen direnean bizirik irauten duten laugarren gradurainoko ahaide tronkal hurbileneoak direnentzat, ezertan kaltetu gabe erreserba-egilearen alargunaren fideltasun-gozamena. Ondorio horietarako, ahaide tronkaltzat joko dira erreserba-egileari ondasunak helarazi zizkion ondorengoari jaraunstera deituak direnak, 307. Legearen arabera.

2) Erreserba-egileak askatasun osoz xeda dezake erreserba-ondasunen gain erreserba-hartzaileen artean; ez badu hala jokatzeko, ondasun tronkalen gaineko legezko

#### §4.3.- 5/1987 Foru Legea, apirilaren 1ekoa

oinordetzarako ezarritakoari jarraikiz egokituko zaizkie ondasunak erreserba-hartzaileei.

3) Erreserba-hartzaile horiek eta bigarrenez ezkondukoak egin beharreko erreserbara 274. Legean ezarritakoaren arabera deituak direnek osatzen baldin badute erreserba-hartzaileen multzoa, aurreko ezkontzako seme-alaben eta ondorengo eskubideak lehentasuna izanen du ahaide tronkalenaren gain; azken horiek jarauntsiko dute besteak ez daudenean bakarrik.

4) Erreserba honi aplikatuko zaio bigarrenez ezkondukoak egin beharreko erreserbarako 275, 276, 277 eta 278. Legeek ezarritakoa. Erreserba-egileak erreserba-ondasunen gain egiten dituen besterentze- edo karga-egintzek erabateko balioa eta behin betiko eraginkortasuna izan dezaten, beharrezkoa izanen da besterentzea egin edo karga ezartzean erreserba-hartzaile diren ahaide tronkal guztiak ados egotea.

Nik, Nafarroako Foru Araubidea Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 22. artikulua xedatua betez, Erregearen izenean Foru Lege hau aldarrikatzen dut, Nafarroako Aldizkari Ofizialean berehala argitara dadila eta Estatuko Aldizkari Ofizialera bidal dadila agintzen dut, eta herritar nahiz agintariei bete eta betearaz dezaten agintzen diet.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita zazpiko apirilaren batean

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA,  
Gabriel Urralburu Tainta

## **§4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzekoa<sup>550</sup>.**

### **Atarikoia**

I.–Foru Berria eguneratzea, hura Nafarroako errealitate sozialera irekiz eta hurbilduz, du foru lege honek helburu.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria testu oso bat da, eta barne hartzen dituen xedapenak tradizionalki zuzenbide zibila edo pribatua osatu duten gai guztiei buruzkoak dira: pertsona, familia, oinordetzak, jabetza eta kontratuak.

Osoa izateko duen helburua agerikoa izan da 1973an sortu zenetik.

Apirilaren 1eko 5/1987 Foru Legea aldarrikatu zenetik, zeinak Konstituzioaren araubidera egokitzearen testua aldatu baitzion, jada 32 urte igaro dira, esanda utzi zen arren erreforma hura mugatua eta presazkoa zela, eta beharrezkoa zela azterlan sakon bat egin eta testua osorik egokitzea (maiatzaren 11ko 11/1988 Foru Agindua).

Urte hauetan guztietan zehar Nafarroako gizarteak aldaketa sakonak izan ditu pertsonaren, familiaren eta ekonomiaren arloetan, baina horrek ez du isla egokia izan bertako zuzenbide pribatuan, eta, ondorioz, gizartearen errealitatea eta haren erakundearen araubidea elkarrengandik urrunduz joan dira.

Egun, nafar asko halako egoera juridikoei aurre egin beharrean suertatzen dira beren esparru pribatuan, batez ere familiarenean, non Foru Berriaren testuan behar bezalako konponbiderik aurkitzen ez duten; izan ere, Foru Berriak ardatz gisa darabilen bizi-ereduan gaur egun pertsona gehienek ez dute beren tokia aurkitzen eta, ondorioz, eredu horren aplikazio-eremutik at gelditzen dira.

Nafarroako Parlamentua ohartua da zuzenbidearen eremu honetan konponbideak bilatzeko beharraz; halere, urte hauetan hautatu du auziari modu puntualean ekitea, lege berezien teknikaren bidez. Horiek, baina, ez dute lortu zuzenbide zibila bere gizarteari guztiz, artez eta asegarritasunez hurbilaraztea. Eta hala, aldarrikatu zen azkenekoan, zeina baita martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legea, adingabeko seme-alaben zaintzari buruzkoa, nolabait aitortu zuen helburu hori lortzeko modua Foru Berriaren erreforma zela, hura baita “horrelako aldaketa baten esparru naturala, gainerako instituzioekin integratuta sistema koherente bat osatu behar baitu”.

Beraz, Forua Nafarroako gizarteari hurbiltzeko, beharrezkoa da bestelako bizi-ereduei ireki dakien; horietan, orain arte erakunde juridiko izan den Etxea eta haren printzipioak, askatasun zibilaren luze-zabalaren oinarri izan baita Nafarroako ordenamendu juridikoan, protagonismoa utzi behar dio askatasun horren titular den Pertsonari, eta

---

<sup>550</sup> Hemen jasotakoak 21/2019 Foru Legearen Atarikoia eta xedapenak bakarrik dira.

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

modua eman behar dio, askatasun horren egikaritzean, bestelako bizi-hautuak egiteko, isla eta erantzun juridikoa ere bai izanen dutenak.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusibo historikoa du foru-zuzenbide zibilaren arloan eta, beraz, hura mantendu, aldatu eta garatzekoa, baita zuzenbide substantibo horretatik eratorritako prozesu-arauak tankeratzekoa ere, hala xedaturik dagoenez Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian eta 149.1.6 eta 8. artikuluetan, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 48. 48.1 eta 2 artikuluan.

Foru lege hau ematen da eskumen hori egikaritzuz, Konpilazioa edo Foru Berria eguneratze aldera, xede horrekin bertako erakundeak aldatuz eta garatuz eta ondorio gisa arautuz zuzenean eta substantzialki haiekin lotuta daudenak eta Foru Berriaren testuan jada jasota daudenetatik nahitaez eratorriak direnak, betiere jarraituz Nafarroako foru-zuzenbidea gidatzen duten printzipio bereizgarriei.

Eguneratze honen helburua da pertsona guztiak babestea haien banakotasunean eta haien familiarterko, bizikidetzako eta ondarezko harreman pribatuetan, oinarri hartuta haien askatasun zibila errespetatzea -eta arreta berezia jarrita adingabetasunari, desgaitasunari, mendekotasunari, adin-nagusitasunari edo hala behar duen beste edozein bizi-egoerari-, eta Foru Berriaren ardatza izatera igaro da. Foru Berriak lehen zituen 596 legeak mantentzen ditu, baina, orain, banatuta, atariko liburu batean eta lau liburutan.

#### II.-Atariko liburu.

1. Eguneratze-asmoari lehenbiziko legetik ekiten zaio, zeinak islatzen baitu, Konpilazio kontzeptua mantenduta, Nafarroako gizarte-errealitateara egokitu dela, eta aurreikusten baitu eguneraturik txertatzea haren testuan, kokagune naturala delakoan, jadanik lege berezien bidez araututako zenbait erakunde.

Modu korrelatiboan, Nafarroako tradizio juridikoaren arau- eta integrazte-eraginkortasunari eusten zaio, jatorri gisa legeak berak aipatutako testu historikoak dituzten erakundeetan. Multzo horretatik zuzenbide historikoko zenbait arau kendu dira; zehazki, toki-foruak eta Foru Murriztua. Ezin ukatuzkoa da arau horiek iragan historikoan Nafarroako tradizio juridikoan izan duten eragina. Alabaina, iturrien interpretazioak ezinbestez izan behar duen berme juridikoak oinarria ematen du ez daitezen hertsiki halakotzat zerrendatuak izan, ezen toki-foruei testu-kritika muntadunak egin izan zaizkie, zenbait kasutan aizunduak izan direla demostratu dutenak; eta, Foru Murriztuari dagokionez, kontua da ez zela aldarrikatua izatera iritsi.

Nafarroako zuzenbidearen iturriek beren lehentasun-hurrenkerari eusten diote, eta ohiturak lehen iturri gisa dirau, nafar identitatearen sinbolo gisa eta bertako ordenamendu juridikoaren barne-koherentziaren agerpen gisa, zeinaren ezaugarri baitira Konpilazioko legeek duten hautazkotasun-izaera, askatasun zibilarekiko begirunea eta “paramiento”aren gailentasuna.

Nahiz eta Nafarroaren eskumena babestearen helburua gaur den egunean jadanik ez izan ohitura lehen iturri izatearen zergatiaren parte, ohiturak ez dio utzi arau-sorburu eta erakunde-erreformarako metodo izateari, betiere erantzuten baldin badio ikusmolde



#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

dinamizatzaile eta unean uneko errealitate sozialaren arabera bati, eta ezertan ukitu gabe, gainera, izan behar dituen mugapenak.

Mugapenak direla-eta, baina “paramiento”arenak direnez bezainbatean, 7. legeak “ordena publiko”aren kontzeptualizazio ireki bati abegi egiten dio, halako moldez non aintzat hartzen baititu pertsona guztien, eta ez soilik herritarren, oinarritzko eskubide eta askatasunak, nazioarteko testuei jarraituz.

2. Nafarroako forudunaren izaerari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5.3 artikulua araberako terminologiarekin bat, beste testu eta erregulazio bat eskaini zaizkio II. tituluari; abiapuntua da Estatuak eskumen eskusiboa duela auzotasun zibilaren arloan, eta jasotzen du Konstituzioaren doktrinan bildutako “ordenamenduen arteko parekotasun” printzipioa.

3. Izen berri batekin, “Eskubideen egikaritzea eta borondate-deklarazioak”, III. tituluak bere edukia deskribatzen du bere ordena sistematikoaren aldaketa baten bidez. Horren barrenean, nabarmentzekoa da “deuseztasun, deuseztagarritasun eta hutsalketaren” eta “borondate akatsen” arteko desberdintzapena: 19. legean gaitasunaren ikuspuntutik tratatu da; 20. legean, borondatea balio gabetzen duen akatsaren ikuspuntutik; 21. legean, horiei erantsi zaie modalitate bat, zaurgarritasun edo mendekotasun egoeran daudenak babestera bideratua -bidegabeko eragina eta eraginaren abusua-, populazioaren zahartzearen ondorioz gizartean presentzia handia duena, baina kasu horietara soilik mugatzen ez dena aplikatzen ahal baita mendekotasun faktikoa dagoen beste edozein egoerari.

4. IV. tituluak, konpilatzaileek taxutu zuten horretan, mugatzen da, erregulazio osoan, preskripzio azkentuazailerak; hortaz, eskuratu-preskripzio arautzeko kokaleku sistematikoa, orain ere, hirugarren liburua da, nahiz eta iraungitzea ere hartzen duen (lehen 26. legean aipatu besterik ez zen egiten), eta igaro den titulua horren II. kapituluari osatzen, zeinak 38.etik 41.era bitarteko legeak jasotzen dituen.

Preskripzio epeak oro har hirura murriztu dira: 1, 5, eta 10 urte. Horrekin, heldu egiten zaio Europako herrialdeetan eta beste zuzenbide berezi batzuetan jada ezarritako joera bateratzaileari, nahiz eta, salbuespenez, 4 urtekoa izaten jarraituko duen deuseztagarritasunari eta hutsalketari dagokienak, eta 20 urtekoa, akzio hipotekarioari dagokionak. Horrekin batera, 30 urteko gehieneko preskripzio-epea ezartzen da, kontuan hartu gabe gerta litezkeen geldiarazte- edo etete-gorabeherak. Deusetan ukatu gabe, gainera, esanbidez arautzea akzio gehienek “dies a quo” eguna, printzipio orokor gisa ezartzen da ezagugarritasuna. Preskripzioari uko egiteari dagokionez, aukera gisa egituratu da, baina hala ere ezarri da garaiz aurretik uko egitearen deuseztasuna, eta hirugarrenen eskubideak zaintzen dira. Xeheki arautzen dira preskripzioa geldiarazteko eta eteteko arrazoiak, eta jasotzen dira jurisprudentzia finkatuak preskribaez in deklaraturako akzioak.

Iraungitzeari dagokionez, hori arautzen duten lege berrietan zerrendatzen dira Foru Berrian zehar aurreikusitako iraungitze-epe desberdinak, eta jasotzen da auzitegiek ofizioz hautematea, baita etetea ere.

III.–Lehenbiziko liburua.

Lehenbiziko liburua deitzen da eta jasotzen ditu bertan arautzen diren instituzio guztiak, orain emandako ordenan: “Pertsonak, familia eta Etxe Nafarra”. Antolaketa berrian, liburuak hamaika titulu ditu.

1. I. titulua orain hiru kapitulutan banatzen da, bereiz arautzeko Foru Berriak aitortutako pertsona juridikoak, familian desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen ondare bereziki babestuen figura berria, eta nortasunik gabeko enteak.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldarrikatu ondoren, Konpilazioak orain arte jasotzen zuen pertsonifikazio juridiko publikoen zerrenda ez zegoen denbora gehiagoz mantentzeko beharrik, kasuko administrazio-legeetan jaso baita haien araubidea. Hura ezabatzearekin, lege bakar bat baizik ez da beharrezkoa gertatzen, zerrendatzearren zein diren Konpilazioak berak nortasun juridikoa aitortzen dienak.

Fundazioek erregulazio berria eskuratzen dute, jomugatzat hartzen duena Konstituzioaren 34. artikuluan ezarritakora bete-betean egokitzea. Hartara, Foru Berria zuzenbide pribatuaren konpilazio bat denez, eta interes orokorreko fundazioek zuzenbide publikoaren arlokoa den alderdi garrantzitsu bat dutenez, egokiagoa da horiek lege berezi batean arautzea. Horrela, argi uzten da fundazio izan daitezkeela interes orokorreko helburuei atxikiriko ondareak soilik, konstituzionalki xedatzen den bezala; eta, beren nortasun juridikoa eskuratzeko, galdakizun modura ezartzen da, etorkizuneko lege bereziak arautuko dituen baldintzak betetzeaz gain, ezinbestez publikotasuna eman dakien, haiek fundazioen erregistroan inskribatuz.

Horrekin batera, eta ahal den neurrian mantentzearren orain arte Foru Berriaren 44. legean eta hurrengoetan araututako erakundearen muina, mugatzen da ondare pribatu bat helburu altruistak bai baina interes amankomun edo orokorrekotzat jo ezin izanen liratekeenetara atxikitzeko aukera. Horrekin, asmoa da, orobat, desberdintzea Foru Berrian araututako erakundea ondare-sozietateetatik edo irabazi-asmoa duten beste entitate batzuetatik; horretarako, haren helburuak zedarritu egiten dira, horiek egokituz egungo gizarte pluralean indarrean dauden balio eta printzipio humanistikoetara, zeinak mamitzen baitira interes sozial, humanitario, kultural edo izaera solidarioko beste edozeinetan.

Foru Berrian ondare bananduak arautzen dira, eta, egun, beharrezkoa da desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen beharriaz arautzea; horiek oinarri hartuta, aparteko kapitulu batean arautu dira “ondare babestuak” deitutakoak, Nafarroan familiaren araubideak duen taxuera bereziaren arabera. Horregatik, eta ukatu gabe etorkizun batean Nafarroako Parlamentuak onets ditzakeela desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen ondarea babesteko neurriak, pertsonen gaitasunaren erregulazioaren barrenean (orain arte adinari dagokionez soilik jaso du gai hori Foruak), orain jasotzen da ondarearen babesa familiaren eremuan, eta zentzurik zabalenean; hau da, ez bakarrik 50. legean taxutu den moduan, baizik eta Etxearen eremuaren barruan ere, non beste familia-erakunde batzuk baitaude, hala nola erkidegoak eta harrerak. Kontua da, beraz, familiaren babesa berariaz arautzea,

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

mendekotasun edo desgaitasunen bat aitortua izateagatik babes horren beharra duten kideentzat, halako moduan taxutuz non erabat errespetatuko baita nafar printzipio orokor den borondatearen autonomia.

Familia-erkidegoko edo -taldeko pertsona horien babeserako araubidea osatzen da 204. legean sartuz haien ezinbesteko beharrak asetzeko ondasunen eskuera dohainik izateko aukera, alarguntza-gozamena horrela eraturako ondareetatik kanpo uzteko kausa bat sartuz, eta oinordetza-fiduzian horren aurreikuspena sartuz kausatzaileak fiduziarioari emandako arduretako bat gisa. Eratzen da, azkenik, biztantzeko legezko eskubide bat, borondate pribatuarekiko subsidiarioa, 425. lege berrian.

Nortasunik gabeko taldeek, zeinak orain arte 49. legean jasotzen baitziren, titulu honetako III. kapitulua eta orain 46. legea osatzen dute; aldiz, Etxearen araudi osoa, 48. eta 75. legeak, aparteko titulu bat osatzera igaro da, liburu honetako azkena, horri lotutako erakunde guztiekin batera.

2. Foru Berriak, orain arte, soilik adinari dagokionez arautu du pertsonen gaitasuna, eta, hortaz, Kode Zibila modu osagarrian aplikatu da gaitasuna aldatzeari eta horretatik eratorritako erakundeei dagokien guztian. Horrekin batera, eta araudi haren barranean, Foruak berariazko erregela batzuk soilik ezarri ditu puber-ak egintza batzuetarako duen gaitasunari dagokionez, zeinetarako Foruaren testuak berak aitortu dion gaitasuna. Guraso-ahalaren eremuan, jada arautzen zen adingabe emantzipatuaren gaitasuna, nahiz eta ez jaso horri bide ematen zioten arrazoiak. Pertsona indibidualaren gaitasunaren kapitulua ixten zuten arauak ziren ordezkari zari zegozkionak.

Horrela Foruaren egungo erregulazioa mantenduta, eta ukatu gabe etorkizuneko legeria berezi batek osorik arautu lezakeela gaitasuna, eta jaso gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen laguntzarako figura guztiak, oraingo II. tituluaren egiten den garapena da pertsonen gaitasunaren erregulazio zehatza, adinaren arabera; adingabearen gaitasuna ezarri da nazioarteko araudiarekiko eta legeria organikoarekiko modu koherentean eta errespetuzkoan, baina oinarriztat harturik 14 urtetik gorakoentzat eta emantzipatuentzat Nafarroako zuzenbidean jasotako berezitasunen begirunea eta mantentzea.

Foruak ordezkari zari-ahalordea ere arautu duenez, horren barranean sartu da “prebentziozko ahalorde” deitutakoa.

3. Famili-egitatearen heterogeneotasunaren aitortza, errealitate sozial plural eta pertsonen oinarrizko eskubideen eta askatasun indibidualen adierazpen gisa ere, Nafarroako ordenamendu zibilean tankeratzen da, batetik, familia-erakundearen babesaren adierazpen gisa, eta bestetik, familia bere jatorriarengatik ez diskriminatzearen printzipioa oinarri hartuta (Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua); horiek zuzenbide zibil propioari lotzen ahal zaizkio bai askatasun zibilaren printzipiotik eta bai familia-harreman orokorraren eta, zehazki, Etxeari lotua den erregulazio tradizioaletik ere.

Ondorioz, 50. legea jasotzen duen III. tituluaren ezartzen dira bai familia-erakundearen babesa eta bai haren jatorriarengatik diskriminaziorik eza, familia-talde osoari zuzendutako legeen printzipio orokor eta gidari gisa, familiako kideen arteko harremanak eta bizikidetzak diziplinatzen dituztenak. Horri buruz, desberdinu egiten

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

dira familiaren jatorria diren banakako ereduetakoko bakoitzea, hala nola bikote ezkondua eta bikote egonkorra, arautu eta diziplinatzen duten legeetatik, baita berariaz arautu gabekoak direnen kasuan ere, hala nola bikote egonkorrik osatu ez duten more uxorio bizikidetzeta-harremanak, familia berrosatuak eta familia gurasobakarrak.

4. Seme-alabatasunari dagokionez, Foru Berria duela gutxi aldatu zen 9/2018 Foru Legearen bidez. Orain osoko eguneratzea egin denez, beharrezkoa izan da, lehenbizi, sistematikoki berrantolatzea haren arauketa-legeak, halako moldez non titulu osoa, orain IV.a, hiru kapituluz osatuta egotera igaro baita, gai hauei buruzkoak, hurrenez hurren: xedapen orokorrak, seme-alabatasun naturala eta adopzio bidezko seme-alabatasuna. Gainera, berariazko izaera substantiboarekin eta seme-alabatasun naturalaren barrenean, bi aldaketa sartzen dira, aipatutako 9/2018 Foru Legearen testuari dagozkionak, saiheste aldera berdintasunaren printzipio konstituzionalaren edozein urraketa. Alde batetik, gehitzen da ama adingabeari edo gaitasuna judizialki aldatua duenari defendatzaile judizial batek laguntzearen zuhurtasun-neurria, bermatzekoa haren errefusa inguruabar egokiz inguratua dagoela, inolako presiorik gabe; berme hori halaber ahalbidetzen da Fiskaltzari xede horretarako legitimazioa aitortzearen bidez. Bestetik, ikusi da Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua urraketa bat egon litekeela; izan ere, mugatu zen amak ezkontzako seme-alabatasuna aurkaratzeko duen legitimazioa adingabearen ordezkari gisa eta haren interesaren alde joka dezakeen kasuetara; eta, halatan, senarrak bere aitatasuna aurkaratu badezake ere, bere interesaren alde eta horrek adingabeari kalte egin arren, kontua da emakume ezkonduak, 9/2018 Foru Legeak ekarritako erregulazioarekin, aitatasun hori seme edo alabaren interesetan bakarrik aurkaratu zezakeela. Horregatik, orain erantsi da amak izan dezala halaber aukera senarraren aitatasuna bere izenean eta eskubidez aurkaratzeko.

Konpilazioak orain arte ez du adopzioaren gaineko erregulazio oso bat izan. Mugatu da ezartzera erregela zehatz bat adingabeak adopzioa baimentzeko duen gaitasunari buruz, eta jarraitzen du formalitateak aipatzen (eskritura publikoaren bitarteko eraketa) eta modalitateak (osoa eta sinplea), zeinak aplikaezin bihurtu baitziren gai hau legeria erkidean 1987an erreformatu zenetik. Gainera, umeordetza arautu du; figura hori desagertu egin da bere horretan, zeren xurgatuta geratu baita adingabeen harreraren formetan, nahiz eta bataren eta bestearen zertzeladak ez izan osotara berdinak. Bestalde, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak, nahiz eta batez ere adopzioaren alderdi administratiboak arautzen dituen, halaber ekin die, zuzenbide zibilaren arloko eskumena egikaritzuz, egokitasuna edo desegokitasuna baloratzeko erabiltzen diren irizpideetatik haragoko gaitasun-baldintza pertsonalei buruzko zenbait gairi, zeinak foru legeriari dagozkion zenbait berezitasunen agerpen izan baitira, Nafarroako Parlamentuak hainbat aldiz aztertutako (adibidez, gehieneko adin-diferentziak) eta gaur den egunean araudi erkidetik desberdintzen direnak. Hala, nahitaezkoa gertatzen da adopzioari buruzko nafar araudia harmonizatzea, eta, horretarako, beharrezkotzat jotzen da Konpilazioan honakoen gaineko arauak jasotzea: gaitasuna, eratzeko baldintzak, efektuak eta azkentzea. Gainerako gaiak, administrazio-izaerakoak, foru lege bereziaren eskuetan uzten dira, eta hori ere aldatu egin beharko da osotasunean garatzeko eta, beraz, testu

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

erkiderako igorpena egitearen ondoriozko alderdi tekniko jakin batzuk txukundu ahal izateko, eta testu horren akats batzuk, praktikan jadanik agerian geratuak, arintzeko.

5. V. titulua orain arte guraso-ahala deitu denari buruzkoa da; hemendik aurrera, guraso-erantzukizuna deituko zaio, eta Foru Berria berriaz eta osoa izateko asmoz araututako erakunde hori adierazten du. Terminologia berriak hizkuntza-parekotasuna du oinarri; bat dator Europako zuzenbidean erabiltzen denarekin, eta ez die eragiten foru-araudiaren taxuera eta edukia, zeinak arlo honetan berezitasun handiak izan baititu.

Foruak, hasieratik, helburu izan du osorik arautua egotea eta beste legetara igorpenik ez egitea, eta, hala, erregulazio berria haren eduki osoaren garapen erabatekoa da. Eduki hori zenbait betebeharrak eta ahalmenez dago osatua, substantibitate propioa dutenak; horrek ekarri du mugatzea “titulartasun” eta “egikaritze” kontzeptuak, bai erakunde osoari dagokionez eta bai betebeharrak eta ahalmen horietako bakoitzari dagokionez, eta, ondorioz, honako kasuen erregulazio berria ere ekarri du: etetea, gabetzea, azkentzea eta berreskuratzea. Horrekin batera, gehiago zehaztu dira orain arte guraso-ahal luzatua eta birgaitua deitutakoak.

Horren ondorioz, orain 14 lege daude lehen 5 zeuden tokian; horiek jada biltzen zuten erakunde horren erregulazio osoa, baina eguneratu beharra zegoen, aurreikuste aldera bizikidetzarik ez dagoeneko edo familian krisiak daudeneko kasuak, horiek baitira auzi gehien sortzen dituztenak eta irtenbide praktikoko hobeak behar dituztenak. Irtenbide horiek ematen dira ituna oinarri hartuta, funtsezko printzipioa, zeinak modu berezian gobernatu duen arlo hau, Foruak garrantzi berezia eman baitie titularren arteko itunei, askatasun zibilaren printzipioa ardatz hartuta.

Ahalmen eta betebeharrak horien garapenak ahalbidetzen du zerikusidunak diren eta erakunde horretan sartuta dauden erakundearen araubetza, hala nola zaintza eta jagoletza, jada nafar legegileak foru lege berezi baten bidez arautua zeinak bere garaian aurreikusi zuen, hain zuen ere, Foruaren testuan sartua izatea, haren familia-zuzenbidearen osoko erreforma baten kariatz; adingabeek gurasoekin eta beste senitarteko batzuekin egonaldiak eta kontaktuak izatea -orain arte, hori seme-alabatasunaren sailean eta Haurrentzako babesari buruzko Foru Legean jasotzen zen-; eta zenbait betebeharren araubidea, hala nola elikatze, biztantze, hezkuntza, eta laguntza material eta emozionalerako betebeharrak, horiek adingabeen oinarriko beharrezkoak gurtzeko erantzuteko moduko gisa harturik. Horrek ezinbestez bideratzen du aurreikusteren nori esleitu behar zaion familiaren etxebizitzaren erabilera eta zein izanen diren haren gastu arrunt nahiz berezietarako ekarpenaren nondik norakoak. Eta dena inolako desberdintzerik egin gabe ea jatorria ezkontzako den edo ezkontzaz kanpokoa, ea noizbait bizikidetzarik izan den edo ez, edo ea baterako gurasotasunaren araubideari dagokion edo guraso bakarrekoari.

Beraz, araudi berriak garbi bultzatzen du lehen aukera gisa gurasoen arteko gurasotasun-ituna, familiarren harremanak arautzeko eta auziratzea saihesteko; horrekin batera, garbi gidatzen du helburu hori errazten duen bitartekaritza ere, subsidiarioko diskrezionalitate judizial handia eskainita, hartara, “favor filii” funtsezko printzipiotik abiatuta, kasu zehatz bakoitzean hartze aldera itunik izan ezean beharrezkoak diren neurriak, testu zibil erkidearen hutsuneak edo zurruntasunak gainditzekoak, ageri-agerian gelditu baitira

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

azkenaldi honetan pilatu diren egoera eta inguruabar berezien aniztasun zabalean, bai eta gurasotasun-koordinazioa errazte aldera ere. Hau da: askatasun zibila, ituna eta irizpide malguen bitartezko diskrezionalitate judiziala, baliabide egokiz hornitua, halaber izan dira nafar zuzenbideak propioak dituen printzipio gidariak, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen gaineko arauketaren zuzendaritza izan dutenak.

6. Erregulazio berria eman zaio orain VI. titulua osatzen duen ezkon-araubide ekonomikoari, zeina Konpilazioak osotasunez jasotzen zuen. Orain egituratu den moduan, hasten da “ezkon-araubide ekonomiko primario” deitzen den horretatik; horrek biltzen dituen legeak orain arte ezkontideen gaitasunei eskainitako eremuan zeuden, baina konkista-sozietateari bakarrik aplikatu zekizkiokeen, eta, orain, igarotzen dira araubide guztien printzipio amankomun izatera, ezkontzak dirauen bitartean.

Hala, lehen kapituluaren bildutako arauak dira ezkontzaren ondasun-araubideari aplikatzekoak diren guztiak, zer araubide itundu edo ezarri den kontuan hartu gabe, eta, besteak beste eta esanguratsuen artean, ezkontzaren kargei edo gastuei eta familia-etxebizitzaren babes bereziari aplikatzekoak direnak.

Ondoren, arautzen dira ezkontzako itunak eta, jarraian, egungo Konpilazioan jasotako araubide bakoitza; horien testuak jaso egiten ditu doktrina zabal batek aldezturiko zehaztasun tekniko eta sistematikoak, eta horiei erantsi zaizkie jada finkatuak dauden jurisprudentzia bitartezko zenbait soluzio.

Azkenik, hiru arau lantzen dira, araubide guztietarako amankomunak direnak eta ezkontzaren indarraldia bukatu ondoren aplikatzekoak. Haren araubide osoaren garapen beharrezko bat dira, haren printzipio berezien arabera, eta xedetzat dituzte ezkontzak desgite-unean dituen kargak eta familiaren etxebizitza. Gai horiek orain arte ezkontza indarrean zen bitarteko bakarrik zeuden arautuak, baina haien ezkontzaosteko erregulazioak Foruaren eguneratzearen parte izan behar du, ezkontza hautsi ondoren errealitate sozialean sortzen diren zenbait gai konpontzea ahalbidetzen den neurrian. Hala, eta gidatatzat hartuta foru-zuzenbidearen berezitasun horiek, seme-alaben babesa, zeina gaudituztat jo diren beste erakunde batzuen bidez tankeratu baita orain arte Foruan, oraingoan egin da arreta berezia jarriz adinez nagusiak izan baina une horretan ekonomikoki oraindik gurasoen mendeko diren seme-alabengan, babes hori ahalik eta gehien hurbilduz, kasuko interesen haztapan egokia eginda, seme-alaba adingabeei eskainitakoari. Eta, era berean, bistakoa da zaila dela Nafarroako araubidean txertatzea betebeharduaren heriotzaren kasurako Kode Zibilak duen konpentsazio-pentsioaren diziplina, baina hori ere ezkontzaren ondorio ekonomikoa da, eguneratze-ekimen horretan nahitaez arautu beharrekoa; hori dela-eta, hemen “desorekagatik konpentsazio” deiturikoa arautu da, abegi eginez araubide amankomun kontzeptualki gaudituztat bat errealitate sozialera egokitu duten doktrina- eta jurisprudentzia-irizpideei eta aintzat hartuz nafar oinordetza-araubide berezia.

7. Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea izan zen Foru Zuzenbide Zibileko lehenbiziko erregulazio garaikidea, bikote-bizikidetzaren egonkorra bezalako errealitate sozial bat ezkontza-ereduaz bestelako familia-eredu gisa taxutu zuena. Aipatutako foru lege hori egin zen foru-zuzenbide zibilaren arloko eskumen esklusiboaren babespean. Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

emandako 93/2013 Epaiak, apirilaren 23koak, ebatzi zuen foru lege horren artikuluen zati bat Konstituzioaren kontrakoa zela. Ezin zitzaion ez ikusiarena egin bikote egonkorren gaian zegoen segurtasun-falta juridikoari, ez eta ordenamendu juridikoak horrelako egitateei lotu ohi dizkien efektu juridikoen ezari ere, arau-hutsunea partziala izanagatik ere. Segurtasun-falta juridiko horrek ez du arauaren hartzailea bakarrik ukitzen; dagokien lanbide eremuetan erakundeak lantzen duten eragile juridiko ezberdinak ere ukituta gertatzen dira.

Beharrezkoa izan da, beraz, Nafarroan bikote egonkorren errealitate sozialari egokituriko araubide berri bat eskaintzea, doktrina konstituzionala uztartuko duena foruzuzenbide zibileko berariazko araubide juridiko eta estatutu baten taxuketarekin, eta segurtasun juridikoa emanen diena beren askatasun indibiduala erabiliz ezkontzakoaz bestelakoa eta -horrenbestez- apartekoa den elkarbizitza- eta familia-eredu baten alde borondatezko hautua egiten dutenei.

Hala, bikote egonkorrentzat berariazko estatutu juridiko bat tankeratzea da, besterik gabe, pertsonaren eta familiaren nafar zuzenbidearen garapenaren beste egikaritze bat, non ez baita arrotza pertsonen eta familien arteko bizikidetzeta eta lankidetzeta moduen tradiziozko erregulazioa, hala nola 129. legeko egitatezko erkidegoak; hortaz, konstituzionalki egiaztatu denez bikote ezkondua eta bikote egonkorra errealitate desberdin ez-baliokideak direla, nafar legegilea konstituzionalki gaituta dago gizarte- eta familia-errealitate horri estatutu juridiko propio bat emateko, doktrina konstituzionalak lehenago aipatu den epaian jada adierazi zuen bezala.

Horrela, bikote egonkorren buruzko nafar eredu arautzaileak, Konpilazioan I. liburu honetako VII. titulu moduan erantsitakoak, premisatzat arreta eskaini behar die bikote egonkorren heterogeneotasun eta askotarikotasunari, eta haren kideek, beren askatasun indibidualaren egikaritze librearen bitartez, beren bizikidetzeta-harremanari eman nahi dizkioten efektu juridikoak -batez ere ondarearen eta oinordetzaren arloan- bestelakoak izatearen errealitate soziologikoari. Efektu horiek, gainera, ezberdinak izan ohi dira osatzera doazen familia-nukleoa primarioa edo berreratua izatearen arabera, haien bizibilbidearen arabera eta, azken finean, haien askatasun indibidualek, usteek, sinesmenek, eta nortasun-garapenak osatzen duten esparru intimoagoaren arabera. Eskubide konstituzional horiek legegileak ezin ditu alboratu eta ez dituzte alboratu behar, eta isla izan behar dute estatutu juridiko horren izaera nagusiki hautazko eta ez-aginduzkoan. Horrek ez du eragozten, alabaina, araubidean gutxieneko eduki bat ezartzea, betiere ordena publiko konstituzionalaren agerri gisa ulertua, bai eta zenbait eskubide eta askatasun indibidualen adierazpen gisa ere, hala nola duintasuna, berdintasuna (14. artikulua) eta familiaren babes konstituzionala (39.1 artikulua). Edozein kasutan ere, jotzen da eduki hori borondatez onartzen dutela horren jakinaren gainean egonik familia-eredu hau aukeratzen dutenek.

8. VIII. tituluak ezartzen dituen arauak orain arte Konpilazioan jasotzen ziren, erkidego-araubidean oinarritutako ezkontza-sozietate segidakoen ondasunen likidazioari dagokionez. Arau-multzo hori eguneratze honen izaeraren ildotik eguneratzearen eta, batez ere, seme-alaba batzuen eta besteen arteko diskriminazioa ekiditearren, arau horiei gehitu zaizkie bikote egonkorren kasuak, bai aurrekoa bai ondorengoa, zeinak

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

aplikatzekoak izanen diren edozein erkidego-araubidetan; kasu guztietan kendu da irabazietan heren batean parte hartzearen zehapena.

9. IX. tituluak jasotzen du Foru Berrian sartu den erakunde- eta bizikidetz-egoera berri bat, elkarlaguntza-harremanak, eta hasiera bateko oinarrizko arauketa gisa egiten du. Foruaren testuan jadanik araututa agertzen ziren erkidegoko eta pertsonen harrerako egoerak, ahaidetasun loturarik egon nahiz ez egon. Bestetik, abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legearen bidez arautu zen adinekoen familia-harrera, nahiz eta horren printzipioak beste hartan aurreikusitako erkidego-harremanen desberdinak izan. Horrela, figura horrek ahalbidetzen du adinekoei erakunde geriatrikoez eta bakardade-egoerez bestelako eredu alternatibo bat eskaintzea, biztanleriaren zahartze progresiboa dela-eta egun dagoen errealitate sozialari emandako erantzun gisa. Halatan, arlo hori arautzeari heltzen zaio orain Foruan jasota dauden bizikidetz-aharremanen garapen bezala, oinarri praktikoa gisa hartuta hori lagungarri dela adinekoen beharrezanek irudikatzen duten errealitate sozialari begira, zeinetan partekatzen ahal duten arreta baterako beharrezanek baitaude, eta printzipio gisa heldurik borondatez-kotasunari eta ituntzeko askatasunari, Nafarroako zuzenbidearen ezaugarri direnak.

10. Orain arte “propter nuptias dohaintzak” deitutakoak X. titulura igaro dira, izen honekin: “dohaintzak, familiarako eta familia-ondarearen batasunerako eta jarraitutasunerako”. Izan ere, haien edukia egokitu egin da, dauden familia-egoera desberdinetara ez ezik, baita gaur egun bestelakotu egin den familia-ekonomiara ere, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arlokoa izatetik enpresa-arlorra hedatu baita.

Horrela, oraingo erregulazioan zenbait figuraren arteko nahaste-borrastea dagoenez, eta lauso agertzen direnez haien arteko bereizketak, desberdindu egin dira, hasteko, familia berria eratzeagatik dohaintzak eta familia-enpresaren jardura edo ondareari jarraitutasuna emateko dohaintzak. Era berean, desberdindu egin dira ezkontideek edo bikotekideek beren artean egindako dohaintzak eta, horien barrenean, bizikidetz-aharremanegatik egindakoak eta bizikidetzak dirauen bitartean -are bukatu ondoren ere-ondare-oreka bati eustearren egindakoak. Halatan, onartu egin dira jurisprudentzian eta doktrinan egindako interpretazioak eta bereizketak.

Horrekin bat etorritz, unea egokitu da bizikidetzaren eta familia-taldea osatzearen hasierara, talde horren jatorria kontuan hartu gabe, 50. legean familia dela-eta jasotzen den kontzeptualizazio berriaren ildo beretik.

11. Jada adierazi den bezala, titulu bakar batean, XI.lean, bateratu dira Etxea eta hari lotutako erakundeak. Hasteko, Etxeari buruz eman den kontzeptuan argitu egin da orain arte ikuspuntu tekniko-juridikotik erraz ulertzen ez zena, eta Etxearen berariazko gisa ezarri dira orain arte familiaren ondasunen araubide orokorrari lotzen zitzaizkion printzipioak. Atal honetara ekarri dira, halaber, orain arte Etxeari zegozkion “propter nuptias” dohaintzen berezitasunak; orain ordenatzen ahal dira haien batasuna eta jarraitutasuna mantentzeko, haien kontzeptuazio berriaren arabera.

Sistematika honekin bat etorritz, titulu honen kapituluek jasotzen dute honakoen araudia: konkisten familia-sozietatea, familia-erkidegoak, etxe-harrera eta zuzkidurak. Horien teknika hobetu egin da jurisprudentziako irtenbideak egokitzeko, eta edukia ere egokitu



#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

da egungo familia-errealitatera, zeina baita, era berean, ezartzen duena ezkonsaria eta erresak kentzeko beharra, ez bakarrik zaharkituak gelditu direlako, baizik eta, batez ere, horien araudiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna urratzen zuelako, xedatzen baitzuen senarrari zegokiola ondasun horien gaineko administrazioa eta baimenak ematea.

Titulua Ahaide Nagusien erakundeak ixten du, zeina mantentzen baita, borondatezko gisa eta interesdun guztien adostasunez, hertsiki ondare-izaerakoak diren afera xedagarrietarako; hortaz, guraso-erantzukizunaren arlotik kanpo uzten da. Hala ere, gorde dira oinordetza-fiduziaren kasuak (281. legea), bai eta eskualdatze-eskubidea eraginkorra den besteak ere (180. legea), beharrezkoa baita Ahaide Nagusiek parte hartzea horietan.

#### IV.–Bigarren liburua.

1. Foru Berriak Kode Zibilera egiten zituen igorpen estatiko askotarikoak kentzeko asmoz, osorik arautzen dira oinordeko izateko gaitasuna (152. eta 153. legeak), ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasunaren arrazoiak (154. legea), eskergabekeria (163. legea) eta jaraungabetzea (270. legea).

2. Testamentuen arloan, testamentua egiteko gaitasuna ere arautu da; kendu egin da Kode Zibilerako igorpena, eta ondu den testuak, 22. legearen idazketa berriarekin bat etorritz terminoak eguneratzeaz gain, araubidea taxutzen du judizialki aldatutako gaitasuna duen pertsonaren gaur egungo errealitatearekin bat etorritz, bai eta pertsona horrek testamentua egin ahal izatearekin ere, baldin eta egiteko unean ulertzeko eta nahi izateko behar adinako gaitasuna badu, ezertan eragotzi gabe pertsona horretaz judizialki xedatutakoa. Urritasun sentzoriala duten pertsonen intimitatearekiko errespetua ere aurreikusi da.

Era berean, lekukoen erregulazio osoa egin da; bertan behera utzi dira igorpenak, zehaztu da lekukoen beharra eta testamentu bakoitzean zenbat behar diren, kendu da derrigortasuna notario aurreko testamentu irekian, eta esplizituki ezarri dira haren baldintzak, foru-berezitasun guztiak mantenduta, auzotasunaren beharra izan ezik, ez baita beharrezkotzat jotzen.

Arlo honetan arautu gabe gelditu diren gauza guztietarako, formula gisa hartu da zuzenbide erkidean araututako testamentu guztietara igorpen dinamikoak egitea, holografoa izan ezik, zeina berariaz arautzen baita notariotza-legeria beteta eta horren gainean Foruak berak jasotzen dituen berezitasun zehatzak ahaztu gabe.

Ermandadeko testamentua sakon aztertu da haren eragingabetasunari eta errebokatzeari dagokienez. Lehenaz denaz bezainbatean, hausturan oinarrituriko arrazoi espezifikoak jaso dira ezkontideek edo bikote egonkorreko kideek egindakoen kasuetarako, eta eragingabetasuna haien xedapen guztietara hedatu da, segurtasun juridiko handiagoaren mesedetan, doktrinak jada aldeztu zuenarekin bat. Horrekin batera, kausa-bereizketa egin da ezkonduen eta bikoteen artean; edozein kasutan ere galdatzen da konstantzia fede-emailea, segurtasun handiagoa izateko, eta jasotzen dira orain arte zalantzarriak ziren kasu batzuk; hots, ezkondu aurretik egiten duten pertsonena, eta bikote egonkorra izan eta ondoren ezkontzen direnena. Berariaz jaso da testamentugilekideetako batek

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

testamentua egiteko gaitasuna galtzen dueneko kasua ere, deklaratura, alde batetik, horren errebokaezintasuna, deusetan ukatu gabe testamentuak berak beste aurreikuspen bat ezar dezakeela, eta, horrekin, ermandadeko testamentugileak bultzatuta aintzat har dezaten berariaz egoera hori, gertatzen den ohikotasun berarekin, heriotzaren kasurako; eta ahalbidetuta, bestalde, korrespektiboak ez diren xedapenak edo oinordeko izan ezin diren pertsonen alde egindakoak errebokatzea.

3. Fideltasun-gozamena orain alarguntza-gozamena deitzen da, araudi berrira egokitzeo eta Nafarroako zuzenbidean zuen aurreko izena berreskuratzeko.

Bikote egonkorretara ere hedatu da, lehenbiziko liburuko VII. tituluaren haientzat ezarritako estatutu juridikoaren arabera eta hura zorrozki betez, halako moldez non kapitulu honetan jasotako legeak bizirik dirauen bizikideari aplikatuko baitzaizkio espresuki eta borondatez xedatu denean hori, eta kasu horretan soilik.

Baztertze-arrazoiak aldatu dira, errealitate sozialera haiek egokitzeo, eta honako hauek jasotzen dira halako arrazoitzat: banantze egoera, kausatzailearen eta ondorengo ahaideen kontrako atentatu larriak, familia-harremanen aurkako delituak eta guraso-erantzukizuna kentzeko arrazoiak.

Kommutaziorako aukera sartzen da familia-enpresa denean, eta berariaz uzten dira horretatik kanpo bereziki babestutako ondare bat osatzen duten ondasunak. Inbentarioari dagokionez, horretarako galdakizunak malgutu dira, hala formari nola epeari dagokionak, eta argitu da kausatzailearen heriotzarengatik jadanik lortu den eskubidearen egikaritzea ahalbidetzen duela; mugatu da zein kasutan formalizatu behar den, eta bermatu da jabe soilak presentzia izatea egintza horretan.

Jabe soilaren betebeharren arloan, erantsi da desorekagatik eman beharreko konpentsazioaren ordainketari dagokiona, erakunde horren araubidearekin bat etorritik eta betebeharraren iraupenaren kasuetarako, 105. lege berrian xedatutakoaren ildotik.

4. Seniparte nafarrak bere betidaniko taxuketari eusten dio; hots, erakunde formal huts gisa dirau, ondare-edukirik gabe. Eta, nahiz eta ezabatu orain arte 267. legean jasotako espresioa, horren adierazpena erraztearren, aintzat harturik haren terminologiaren zaharkitua eta, are, nahasmena sor lezakeela, ez zaio bizkarrik ematen testuan hartaz literalki oroitzeari, identitate-ikur bezala, tradizioz adierazi izan den bere horretan. Senipartearen mantentzearen ondorioz, beharrezkoa da argitzea zein diren preterizio kasuak eta horren ondorioak, bai eta instituzioaren formalitatea malgutzea ere notarioaren esku-hartzerik gabe egindako testamentuetarako, behar diren legeak aldatuta.

5. Lehenago aurreratu denez, Foru Berriak seme-alaben babesa taxutu du xedatze-askatasunaren muga gisa, lehenbiziko ezkontzako seme-alabei zedarritua. Erakunde hori, zeinaren arnasa eta pilpira Foru Berriaren luze-zabalean nabari baitira, doktrinak askotan kritikatu izan zen, errealitate sozialei egokitu gabe egoteagatik eta, are, desgaituaren ondare-tutoretza eragozteagatik; konstituzio-kontrakotasun erantzukiak ere egin zitzaizkion, bai eta auzitegien doktrinaren ondoriozko ñabardurak ere, nahiz eta ez gatazkarik gabe.

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

Seme-alaben eta ondorengo babesaren premia handiagoko kasu eta uneetarako pentsatu da orain, zeinetan behar bezalako interes-haztapena eginez justifikatuko baitira ezarri beharreko betebeharrak eta xedatze-askatasunari ipini beharreko mugapen juridikoak.

Hala egin da, adierazitakoaren arabera, adin nagusiko izan bai baina oraindik gurasoengandik beregain bizitzeko modurik lortu ez duten seme-alaben kasuan, haien gastuetarako ekarpena egiteari eta familiaren etxebizitzaren erabileran irauteari dagokionez, aukera hori lortzeko behar den denbora neurritsuan.

Premia egoera halaber da oinordetzaren arloan kapitulu berri bat sarrarazi duen arrazoia, xedatze-askatasunaren mugapenen barrenean, oinarrizko beharrianak dituzten seme-alabei eta ondorengo ahaideei babesa emateko. Eta horrela, legez aitortzen zaie mantenu-eskubidea laguntza hori ematera behartua zegoen gurasoa hil ondoren hori erreklamatzeko legezko egoeran daudenei, guztiak barne harturik; alegia, bai ezkontza barrenekoak bai ezkontzaz kanpokoak, bai eta geroagoko edozein bikoterekin izandakoak ere, eta are, denen jatorria bikote-harreman bakar bat denean ere; hala, aplikatuko da bikote-harreman berriak gorabehera eta edozein diskriminazio ekidinez. Foruak aurreikusi eta mantendu egiten duenez alarguntza-gozamena duenak ordaindu behar duela mantenua, orain araututako erakundea aplikatuko da betebeharrak hori duen gurasoaren alargunak gozamenari uko egin edo hori beste arrazoi batengatik azkentzearen kasuetan bakarrik, zeinetan bikote egonkorak ez duen gozamen itundurik, bai eta gozamena horiek estaltzeko nahikoa ez denean ere. Kasu horietan guztietan, gurasoaren legezko betebeharrak hori haren borondatezko oinordekoen eskuetara pasatzen da, haiek izan daitezten, lehentasunezko beste legezko betebeharrekin ez badago (ezkontidea edo ondorengoak), bere gain hartuko dutenak mantenua ordaintzea guraso zendua behartua zegoen edukiarekin; betiere, jasotako ondare-esleipenaren mugen barrenean eta horren kargura.

6. Orain arte “bigarrenez ezkontutakoaren erreserba” deitutakoren asmoa da babestea bere ondasunez beste gurasoaren mesedetan xedatzen duen gurasoaren borondatea, bai eta horrekin izan dituen seme-alabak babestea ere. Horrela, instituzioa mantentzen da, nahiz eta, seme-alaben arteko edozein diskriminazio eragozteko, horren aplikazioa bikoteetara hedatu den, eta erreserbatze-betebeharraren sorrera-unea parekatu ezkonduen eta bikote egonkoraren artean. Horretarako, tituluaren izena aldatu da; orain da “seme-alaben aldeko erreserba”, eta testua egokitu da aipatutako kasu guztietara.

7. Legezko oinordetza aldatu egin da, oinordetza-hurrenkerari dagokionez; izan ere, orain arte indarrean zena ez zetorren bat sentsibilitate eta borondate sozial errealekin, eta, halaber, ez zen berdintasuneko eta segurtasun juridikoko arrazoi ondoriorikoa; horrek, bere aldetik, ekarri du anai-arreba guztiak parekatuak izatea, kontuan hartu gabe haien lotura bikoitza edo bakuna den.

8. Jarauntsia eskatzeko akzioa, preskripzio epeari dagokionez, orain arte 30 urtekoa baitzen, harmonizatu da eskuratzeko-preskripzioaren araudi berriarekin. Hain zuzen ere, nahiz eta atariko liburu IV. titulu jarraitutako ildo laburtzaile eta bateratzailearen arabera 10 urteko epe bat ezarri beharko zen, aipatutako harmonizazioa aukeratu da, zeinak baitakar preskribatuko dela bateraezintasuna daukan usukapioaren ondorioz

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

bakarrik; horrekin erdibideko egoerak saihesten dira, zeinetan gauza “res nullius” bihurtuko baitzen, eta behar den segurtasun juridikoa ematen da.

V.–Hirugarren liburua.

Oraingo hirugarren liburuak hartzen du orain arte horren I. titulutik VII.era artekoen edukia zena, eta gainerakoa laugarren liburu berria osatzera igaro da; hala, sistematikoki berezi dira ondasunei buruzko zuzenbidea eta betebeharrak, estipulazio eta kontratuei buruzko zuzenbidea.

1. Foruaren testuan mantendu egin da ondasunen sailkapena, legegintza-eskumenaren adierazpen gisa, gero horren arauzko garapena ahalbidetzeko, Konpilazioan ez ezik, izaera pribatu nahiz publikoko beste arau batzuetan ere. Baina idazketa egokitu da izaera administratiboko arauetara (Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea eta Ondasunen gaineko Erregelamendua), halako moldez non, ondasunak publiko gisa sailkatuz gero, ukatu gabe auresuposatzen dela horiek, auzotar guztienak izateaz gain, administrazio publikoenak ere badirela, egiten baita helburuaren araberako sailkapen bat, hau da, batetik jabari publikokoak, (horien barrenean daude herri-ondasunak), eta bestetik ondare-ondasunak. Kontzeptu horien edukia osatu behar da aipatutako legeria administratiborako igorpenaren bidez. Bestalde, kendu egin direnez orain arte 42. eta 43. legeetan jasotzen ziren enteak, titularrari egindako erreferentzia ezin da besterik izan administrazio publikoak baizik, legeria administratiboan taxututa dauden moduan (Foru Komunitateko Administrazioaren Foru Legea).

2. Preskripzio azkentzailearen epeak murriztearekin batera, usukapioarenak ere aldatu dira. Horri buruz, 35. legearen idazketa berriak berarekin dakar preskripzio azkentzailearen epeei buruzko harmonizazio baten beharrik ez egotea, zeren eta eskuratze-preskripzioa Foruan berariaz arautzen baita usukapioari eta zortasunen eskuratze-preskripzioari dagokienez bakarrik, eta azken horrek usukapioaren epeetarako igorpena egiten du. Hau da, Foruak berak diseinatutako elkarmendekotasunak, akzio errealean preskripzio azkentzailearen epearen eta usukapio epeen arteko horrek, atea zabalik uzten du eskuratze-preskripzioaren edo usukapioaren edozein epe ezartzeko, preskripzio azkentzailearen araudia aldatu beharrik izan gabe. Horregatik, aldaketa ardaztu da epeen murriztapenean eta horien etenaldiari eta uko egiteari dagokienaren harmonizazioan; eta, horretarako, beste zuzenbide zibil berezi eta europar batzuek jarraitutako bidetik, usukapitzeko epeak murriztu dira eta ezabatu egin dira inguruabar baten araberako epe desberdinak, zeina baita bizilekua Nafarroan izan edo ez izatea, gaur egun galdu egin baitu lehen izan zezakeen garrantzia, eztabaidaezinak baitira mugikortasun geografikoak izan duen gorakada eta komunikazioen garapena.

3. Gauza amankomunaren zatiketa eta adjudikaziorako prozedura judizialari buruzko egungo erregelazioak arazo praktikoko gehiegi sortu ditu bere fase exekutiboan. Sesta ematearen figura, Bilduma Pribatuari egindako oharretan ageri den bezala, hartu zen Nafarroako udalerriek berezkoak zituzten administrazio-kontrataziorako arau batzuei zegokiena zuzenbide pribatura hedatu zuen ohituratik. Hala, proposatutako araudi berriak desberdintzen ditu, erkidego kasuei dagokienez, gauza bakar zatiezinen gainekoak eta, bestetik, zenbait ondasunen gainekoak, eta hurrengo izapideak antolatzen

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

ditu; horien artean funtsezko izapidea zera da, enkantean adjudikaziorako eskaintza egite aldera jada tasazio-balioa eskaini duten jabekideen agerraldi judiziala. Izapide horien bidez ezin adjudikatu izateak ahalbidetzen du, bere aldetik, jotzea PZLk araututako enkante judizialera edo Foru Berriko 574. legeko enkante pribatura. Hori ere birmoldatu egiten da.

4. Erkidego berezien arloan, amankomuneko erkidegotik hasita, beharrezko gertatzen da esplizituki bereiztea ondasun publikoen gaineko erkidegoa, zeina baita auzotar guztiena, eta pribatuak, eta, hala, aldarrikatzen da lehenaren zatiezintasuna eta xedaezintasuna, eta horrekin batera, toki entitatearen aldeko erreskate-aukera aitortzen da.

Erkidego publiko zein pribatuak izateko aukera hori da aldi berean oinarritzen duena Foru Berriaren araudian bazkalekuak mantentzea; horien oinarritzko ezaugarriak izaera zibilekoak dira, berdin delarik horiek eremu administratiboan arautzea eta, hala dagokionean, mota horretako arauak aplikatzea. Era berean, luditzearen oinarria interes soziala eta denen onura besterik ez denez, pentsatu da kargarik gabeko herri-lurra berreskuratze hutsa nahikoa dela bidezkoa izateko, eta, hori hala izanik, zuzentasunezko konpentsazio egokia jada ordaintzen da aprobetxamendu soilaren balioaren kalte-ordainarekin, eta, hala, “lortutako onura”ren parametroa, orain arte nahitaezkoa, baztertu egin behar da kalte-ordainetarako parametro gisa, kasua entitate publiko bati eta herri-ondasun bati buruzkoa denean, legeria publikoan jasotako kasu guztien ildotik. Herri-lurra berreskuratzearen ideia horrekin bat, kasu hauetan atzera-eskuratzea ezartzen da toki entitatearen alde baino ez.

“Fazeria” eta “fazeria-erkidego”-en erregulazioa ere mantendu da Foruan, finka pribatuaren gain egokitzen den heinean eta ukatu gabe dagoen eta administrazio eremuan garatu behar den araudia, finka publikoen gain egokitzen denerako. Dena den, eta jada azaldutakoaren ildotik, alegia, ahalbidetzea toki entitateek herri-ondasunen gaineko ahalmen guztiak izan ditzaten auzotar guztien mesedetan, bi erakundeetara hedatzen da bazkalekuetarako aurreikusitako atzera-eskuratzearen eta luditzearen araubide bera.

Horrekin batera, Foruan positibizatzen da, iralekuei dagokienez, aprobetxamendu soilaren presuntzioa, orokortasunez eta finkaren izendapena edo destinoa gorabehera, ezertan ukatu gabe titulartasun pribatiboaren proba, orain arte jurisprudentziak ezarri duen bezala. Hala, itxiturari, atzera-eskuratzeari eta luditzeari dagozkien legeak aplikatzekoak izanzen dira, inoren gauzaren gaineko eskubide gisa partikularren arteko aprobetxamendurako eskubide-possibilitateari ez ezik, herri-lurren aprobetxamenduei ere, azken horiei buruz administrazio legeriak ezarritakoa gorabehera, bazkalekuekin gertatzen den bezala.

Ondare-instituzioaren oinarritzko eta funtsezko arau gisa mantentzen da “kontzejuaren jabari”ari buruzko legea, kasuko ibarretako administrazio-ordenantzek ezarritakoa gorabehera, eta, horren osagarri, herri-lurren araubideak xedatutakoa, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 10. xedapen gehigarriak ezartzen duen bezala. Eta, azkenik, “kanpoko auzotasuna” mantentzen da eskubide errealei dagokien figura tipiko gisa, nahiz eta, titulartasun eta eskualdagarritasunari buruz testuak jasotzen duen erregulaziotik harago eta aplikatzekoak diren beste figura batzuetara igorpenak egiten dituzten gainerako arauetatik harago, ahalbidetzen den herri-ondasunen administrazio-

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

araubidera jotzea, azken finean izaera horretako lurren gaineko aprobetxamendu bat dela kontuan hartu behar baita. Gainera, eta aplikatze horretan, luditze-araubidea bateratu egiten da bazkalekuekin.

5. Gozamenaren arloan, beharrezkoa zen alderdien eskubide eta betebeharren sistematizazioa, eta hala egin da 414. eta 415. legeetan, bildurik gainerako arauetan sakabanatuak zeuden guztiak.

Lehenago esanda utzi denez, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak babesteko neurrietako bat izan da biztantzeko eskubide bat arautzea. Nafarroan, biztantzeko-araubidea inoren gauzaren gaineko eskubide erreala da, erabileraz nahiz gozamenaz bestelakoa, eta bere titularrari ahalmena ematen dio etxebizitza bat osorik okupatzeko, berarentzat eta berarekin bizi direnentzat (ez dute senitarteko izan beharrik) eskusiboki, bai eta etxebizitza osoa edo horren parte bat alokatzeko ere. Beraz, eskubide hori harago doa bere titularrari aterpe edo bizileku baterako giza premia zuzenean asetzeko modua ematek. Foruak halaber adierazten duenez horren eraketa borondatezko nahiz legezko xedapen baten bidez egin daitekeela, horrek ahalbidetzen du legezko halako biztantzeko-araubide bat ezartzea zeinak mugatu egiten baitu Konpilazioak eskubide honi gainontzean eta borondatezko xedapen berariazkorik ezean ematen dion taxuera. Horrela, legeak eratzten da eskubide hori, zeinak bermatzen baitu eskusiboki desgaitasuna izan eta, kausatzailearekin elkarbizitzan egonik, haren aurreko edo ondorengo ahaideak diren pertsonen etxebizitza, baldin eta, betiere, kausatzaileak ez badu beste modu batean xedatu premia horren asetzea, eta salbu utzirik berariazko baztertzea. Hori dela eta, mugatu egiten da eskubidearen titularrak duen errentamendurako aukera. Horrekin batera, Nafarroan ezkontideak etxebizitzaren gain halako eskubideak dituzenez zeinak eratoritzen baitira oraingo 99. legeak aipatutako adjudikazio eta erabileratik, bai eta alarguntza-gozamenetik ere (azken hori bikote egonkorreko kideari ere egokitzen ahal zaio, hala xedatu bada borondatez), eskubide horiek hemen eratzten denarekin batera existitu beharko dute. Gainerakoan, eta borondatezko bestelako aurreikuspenik ezean, 423. legeak ezarritako araubidea aplikatuko litzateke; hau da, doakoa eta biziartekoa da eta ezin da luditut titularraren borondatearen aurka.

6. Berariaz arautzen da alderantzizko akzesioa; hain zuzen ere, halakorik eza aurpegiaratu izan baitio legegileari doktrinaren sektore batek, hura bai baitzegoen jasota Bilduma Pribatuan. Hala, eta akzesioaren eragina azalera- eta gaineraikuntza-araubideekiko leundu zen bezalaxe, orain aurreikusten da “superficie solo cedit” printzipioa samurtzeko aukera, demostratzen denean gehiegizkoa dela, eraikitzaileak fede onez diharduela eta eraikuntzaren balio ekonomikoa handiagoa dela; oinarri horien gainean erantsi da horren erregulazioa.

7. Atzera-eskuratzeei dagokienez, ikusirik ez dagoela aurreikusia lehenetsun bertikalik administrazio arauetan eta zuzenbide zibil erkidean araututako atzera-eskuratzeetan, ezta lehenetsun horizontalik ere horietan guztietan, argitu da, lehenari dagokienez, ez dela Foruan jasotako ordena aplikatu behar dena, baizik haren arau erregulatzaileek ezarritakoa. Horrekin batera, lehenetsun horizontalari dagokienez, proportzionaltasunaren erregelari heltzen zaio, baina araubide berezirik ez duten atzera-

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

eskurazteentzat bakarrik (grazia bidezkoa, kanpoko auzotasuna, bazkalekuak eta iralekuak); izan ere, foru-jentilizioak eta zuzenbide erkidean araututakoek lehentasun-erregela propioak dituzte.

Grazia bidezko atzera-eskuratzean, dies a quoa ezartzen da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bere epaietan ezarritakoari jarraikiz. Eta jentilizioan, epea luzatzen da jakinarazpenik ez dagoen kasuetarako, atzera-eskuratzaileari segurtasun handiagoa emateko orain arte eskatzen jotzen zen epe horren aurrean.

Aukera-eskubidearen epeari dagokion testua ere argitu eta harmonizatu egin da; mantendu dira Foruan jasotako hamar urteak, ematen zaion izaera errearen ildotik eta beharrik izan gabe inskripzioarako beste epe bat ezartzeko, baina segurtasun juridiko handiagoa emanez luzapenei dagokienez, Hipoteka Erregelamenduan ezarritako irizpidea hartuta. Horrekin batera, ezartzen dira horren erabilera argitzen duten arauak.

#### VI.–Laugarren liburua.

Hirugarren liburuko VII.etik XV.era bitarteko tituluak laugarren liburu berria osatzera igaro dira, zeina, bere aldetik, hiru tituluk osatzen duten: I.a, betebeharrei buruzko orokorra; II.a, estipulazioei buruzkoa; eta III.a, kontratuei buruzkoa. Azken hori zortzi kapitulutik banatzen da, honako hauei buruzkoak, hurrenez hurren: mailegu-kontratuak, zentsuak (biziarteko zentsua ezarri da kontsignatarioaren ordeztan), zaintza eta gordailutzea, mandatua eta negozioen kudeaketa, salerosketa, atzera-eskuratze itunarekin egindako salmenta, trukea eta gauzen errentamendua.

1. Betebeharrei dagokienez, berrantolaketa sistematiko orokor bat egin da, eta horrek modua ematen du hobeki identifikatu eta definitzeko orain arte lege berean jasotako zeuden erakundeak. I. titulu honi hasiera ematen dion iturri-zerrendan, sinplifikatu egiten da zerrenda hori 488. legean, iturriak borondatera eta legera murrizten baitira, nahiz eta, hala ere, aipatzen diren orain arte agertzen ez ziren beste batzuk: egitate kaltegarria eta kausarik gabe aberastea. Era berean, manu horretan jasotzen dira orain arte borondate-deklarazioez aritzean aipatzen ziren hitzarmen-elementuak. Lege hori itxuratzen amaitzen da bertan sartuz interpretazioari dagozkion arauak eta bertatik atereaz kontratuz kanpoko erantzukizuna, modu autonomoan arautze aldera.

Betebeharrak betetzearen eta azkentzearen arloan ere egin da antolaketa hori; haren edukitik erauzi dira bestelakoak diren kontuak, hala nola ez-betetzea. Betetzeari dagokionez, Nafarroako zuzenbidean jasotako bi instituzio garatu dira, hura aplikatu dadin sustatzeko, oso erabilgarriak baitira krisi garaian: ordainketa partziala eta nahitaezko ematea. Garapen horrek, baldintza substantiboaren zehaztapena ekartzeaz gain, zuzenbide horren aplikazioarako beharrezkoa den espezialitate prozesala ere barne hartu du (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 135/2006 eta 47/2004 epaiak, eta Konstituzio Auzitegiaren 2011ko ekainaren 19ko epaia), eta betearazpen-prozedurarako ezarri ditu zordunak kontra egiteko kausa bana.

Erakunde ezberdinak indibidualizatzearen helburu sistematiko horrekin, kapitulu berri beregainak erantsi dira, tratatze aldera, batetik, orain arte betetzea, azkentzea eta ez-betetzea bezalako beste gai batzuekin batera arautzen zen betebeharrak, eta, beste alde batetik, azken instituzio hori eta loturikoa den erruzko erantzukizuna, nahiz

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

eta kausarik gabeko aberasteari eskaintako atalean mantendu den, halere, “causa data, causa non secuta” deitutako figuran oinarritutako suntsiarazpena.

Kaltearen ondoriozko hutsaltzean, uko egitearen baliozkotasunerako baldintza gehigarriak sartu dira; hain zuzen, dituen ondorio juridikoei buruzko informazio zehatz eta xehea, asmotan hartuz estilo klausulak saihestea, zeinak hain ohikoak baitira, batez ere, uko egitea aldi berean egiten denean kontratuarekin eta horren parte denean klausula estereotipatu baten bidez.

Jada esan bezala, kontratuz kanpoko erantzukizuna aparteko kapitulu bat osatzera igaro da, lege bakarrekoa, eta horretan bildu da aurreko 488.2 legearen edukia. Araubide horretan sartzen da, zabarkeriaren titulu subjektiboarekin batera, jarduera arriskutsua; solidaritate inpropioa aurreikusten da; eta aipatzen da, “ondare”arekin eta “pertsona”rekin batera, hirugarrenaren “interesa”, barne hartze aldera mota guztietako kalte pertsonalak, morala ere. Gainera, eta preskripzioari dagokionez, haren “dies a quo”a arautzen da.

Kausarik gabeko aberastea ere aparteko kapitulu bat osatzera igaro da; lege bat du eta haren testua argitu da, kausa orokor bat jasotzeko, barne hartuko dituen bai zeharkako eskualdatzeak eta bai zeharkako aberastea, eta kausarik gabeko eskuratze eta atxikitzea sistematizatzen da, itzultze-betebeharrarekin batera doazen ondorioak gehituta, doktrina jurisprudentziala denboran zehar ezarri dituen bezala.

Titulu hau ixten du betebeharren lagatzeari buruzko kapituluak. Azken urteetako krisi larriak ekarri du diru kopuruen erreklamazio asko aurkeztea, eta horrek pareko gorakada ekarri du aurkezturiko demanda judizialean, zeinetatik eratorri baita, geroago, ordaindu gabeko kredituetako batzuen salmenta. Egoera horrek eraman du, bai zuzenbide erkidearen eremuan eta bai Nafarroan, ordura arte erabilgarritasun demostraturik izan ez zuten zenbait figura juridikori heltzera, hala nola, batetik, Kode Zibileko 1535 artikulua, auzipeko kredituetara mugaturiko xededuna, eta, bestetik, hemen, Nafarroan, Foruaren 511.etik 514.era bitarteko legeak, zeinek aplikazio-eremu zabalagoa baitute, kredituak orokortasunez jorratzen dituztenez gero. Hori dela eta, Nafarroako zuzenbidean aurreikusitako instituzio horien garapenak, oso erabilgarriak baitira aplikazio praktikoan, behar du haien baldintzen definizio hobea, bai eta gutxieneko egokitzapen prozesal bat ere, beharrezkoa eta berezitasun substantibotik eratorria. Horretarako, kontuan hartu da praktika judiziala, esan nahi baita galdatzen dela zordunak zorrozki jakitea zein den lagapenaren prezioa, bere eskubidea erabiltzeko aukera izan dezan, bai eta gehiegizko eskaera ere, kasuko betearazpen-prozedurari kontra egiteko kausatzat hartua.

2. IV. liburu “berri”ko II. titulua estipulazioei buruzkoa da, eta hor landu da, batez ere, legean estipulazio penalarri eskaintako araubide berri bat; kendu dira Nafarroako araudian zorrozetasun handienekoak ziren bi berezitasunak, kritika doktrinal asko jasotakoak: epaile-moderazioaren ezintasuna, eta zorduna askatzearen ezintasuna, betebeharr nagusitik libre utz lezakeen kausaren bat egon arren. Gainera, esplizituki bereizten dira jada haren testutik ondorioztatzen ziren klausula penal ezberdinak, zigortzailea, likidaziokoa eta fakultatiboa, zeinak, gaur egun, doktrinak eta



#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

jurisprudentziak aitortzen dituen, nahiz eta abiapuntutzat hartzen den, orain arte bezala, klausula zigortzailea; hala, beste bietarako beharrezkoa da berariazko ituna.

3. Eta azkenik, III. titulua Konpilazioan araututako kontratuei buruzkoa da; bakoitzak aparteko kapitulu bat betetzen du.

Zerrendari hasiera ematen dio maileguaren eta komodatuaren erregulazioaren aldaketa puntualak. Berrikuntza nagusienak dira mailegua ukitzen dutenak, bai ordainketako bai luzamenduko interes ez-zilegi edo abusuzkoen itunaren eragingabetasun partziala gehitu baita, areagotzearen kontratatzaile ahula babesteko eginkizuna, Europako zuzenbidearen bideratze berriaren arabera, bai eta adingabeei eta jarduteko gaitasun judizialki aldatua duten pertsonen egiten zaizkien maileguen berrikuspene eta egokitzapene ere, babeste-helburu berarekin.

Zentsuak II. kapituluaren edukia izatera igaro dira. Foruan orain arte araututako zentsu bakarra zainpeketa-zentsua deitutakoa zen, baina gaur egun ez du batere erabilgarritasun praktikorik. Hala ere, zentsuaren figurak aplikazio erabilgarri bat izaten jarrai dezake “biziarteko” izenez ezagutzen den modalitatean, eta horregatik egokitu da orain arte araututakoa, bitarteko juridiko bat izan dadin bizitzako edo maila pertsonaleko arazoak konpontzeko, are familiaren eta jaraunspenaren arlokoak ere. Horretarantz jotzen dute araudi hori osatzen duten arau konkretuek, eta hori da, halaber, eguneratzearen oinarria.

Zaintza eta gordailutze-kontratuak III. kapitulan berrantolatu dira, haien edukia mantenduta; mandatu eta negozioen kudeaketa IV. kapitulua osatzera igaro dira eta horiek ere gorde dute beren edukia.

V. kapitulua salerosketari buruzkoa da, eta bertan aldaketa, integratze eta ezabatze tekniko puntualak egin dira; izan ere, doktrinak salatuta zeuzkan zenbait zuzentasun falta edo hutsune. Partikularren arteko enkantearen berrantolaketa egokia egin da. VI.lean jaso da atzera-eskuratze itunarekin egindako salmenta; aldatu den gauza bakarra preskripzioaren araubide berriaren ondoriozko epea da, eta VII.lean eduki berarekin mantendu da trukea.

Bukatzeko, titulua ixten duen gauzen errentamenduan, halaber zehaztasun tekniko jakin batzuk bakarrik egin dira, doktrinak adierazitakoak, beharrezkoak baitira argiagoa egiteko haren testua eta araubide horrek Nafarroan jasotako errentamendu-lege bereziekin duen harremana.

[...]

#### **Lehen xedapen gehigarria. Hizkera inklusiboa.**

Gaztelaniazko bertsioan, Konpilazioaren testuak harreman juridikoetako subjektu ezberdinak aipatzean genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan, ulertu behar da ekonomia linguistikoagatik jokatzeko duela horrela, orokorra baita zailtasun tekniko, eta ezinezkoa baita kasu guztiak genero femeninora eta maskulinora egokitzea. Ulertu behar da, halaber, izen horiek orokortasunez dagozkiela testuan jasotzen diren posizio juridikoei, berdin delarik emakumezkoek nahiz gizonezkoek betetakoak izatea posizio horiek, efektu juridikoak berberak izaki.

#### §4.4.- 21/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa

Foru lege hau argitaratzen denetik urtebeteko epean, Gobernuak genero-inpaktuari buruzko txosten bat egin beharko du, hizkera inklusiboari buruzko proposamen bat barne hartuko duena.

#### **Bigarren xedapen gehigarria. Gehiengo osoko foru legea.**

Foru lege hau gehiengo osoko legea da, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikulua arabera.

#### **Lehen xedapen iragankorra. Epeak.**

Dena delako kasua jaiorarazten duen egitatea foru lege honek indarra hartu baino lehenagokoa den kasu guztietan, lege honek arautzen eta aldatzen dituen akzioen epeak zenbatzen hasiko dira, berriak badira edo aurrekoak baino laburragoak badira, edo iraunen dute, luzeagoak badira, foru legeak indarra hartu eta biharamunetik, eta epe osoa ezin izanen da inola ere izan lehenagoko legeriak aurreikusitakoa baino luzeagoa.

Preskripzio eskuratzailaren epe berriak foru lege honen indarraldia hasi ondoren sortutako egoera juridikoei aplikatuko zaizkie.

#### **Bigarren xedapen iragankorra. Umeordetza.**

Orain arte indarrean egon den Konpilazioaren 73. lekeko testuan ezarritakoaren arabera umeordeak diren pertsonen Konpilazioaren indarraldian eskuratu dituzten eskubideei utsiko diete.

#### **Hirugarren xedapen iragankorra. Adopzioa.**

Foru lege honek indarra hartu baino lehenago hasitako espedienteetatik oraindik izapidetze-fasean daudenek izapidetuak izaten segituko dute hasiera eman zitzaizkion indardun zen legeriari jarraituz.

#### **Laugarren xedapen iragankorra. Bikote egonkorrak.**

Foru lege honek indarra hartu aurreko dokumentu publikoan eratu ez ziren bikote egonkorrek, bikote egonkorren edozein udal-erregistroan inskribatuta egon zein ez, dokumentu publiko bidez adierazi beharko dute bikote egonkorra eratu nahia, Konpilazioan xedatutakoa aplikatzeko; halaber, erregistro bakarrean izena eman beharko dute, erregistro hori eraentzen duen arauan ezarritako frogatzaile- eta publikitate-ondorioetarako eta beste lege-xedapen batzuek ezartzen dituztenetarako. Aurreko dokumentu publikoan eraturako bikote egonkorrek ere inskribatu beharko dute ondorio horietarako.

Bi kasuetan, bikotekideek bizikidetzako aurreko denbora ere adierazi ahal izanen dute, eta hori Konpilazioan ezarritako ondorioetarako zenbatuko da.

#### **Bosgarren xedapen iragankorra. Elkarri laguntzeko erkidegoak.**

Elkarri laguntzeko harreman bat foru lege honek indarra hartu aurretik idatziz hitzartu duten pertsonen zilegi izanen dute aurreko bizikidetzatza-aldia zenbatzea, lege ezartzen diren ondorioetarako.

**Seigarren xedapen iragankorra. Propter nuptias dohaintzak.**

Orain arte indarrean egon diren Konpilazioaren legeetan ezarritakoaren arabera egindako “propter nuptias” dohaintzek beren efektu guztiak sortuko dituzte haien testuan xedatutakoaren arabera, ezertan eragotzi gabe indarreko 125. eta 126. legeetan eragingabetasunari eta errebokatzeari buruz jasotako arauak aplikatzea.

**Zazpigarren xedapen iragankorra. Familiaerkidegoak. Etxeharrera eta zuzkidurak.**

Aurreko araudiak arautuko ditu horren indarraldian sortutako eskubideak, ezertan eragotzi gabe araudi berria lehendik dauden egoerei aplikatzea, egoera horien eskubideak orain aitortzen badira lehen aldiz eta betiere eskuratu den beste eskubide bat kaltetzen ez badute.

**Zortzigarren xedapen iragankorra. Testamentuak.**

Baliozkoak izanen dira foru lege honek indarra hartu baino lehen egin diren testamentuak, halakoak non Konpilazioaren orain arteko testu indardunean ezarritako baldintzak bete ez baina araudi berriaren arabekoak baitira, baldin eta ebazpen judizial irmoz deuseztatu ez badira.

Unera arte indarrean egon den legerian ezarritakoaren arabera egindako ermandadeko testamentuak 200., 201. eta 202. lege berrietan xedatutakoaren menpe egonen dira aurrerantzean, haien eragingabetasunari eta errebokatzeari dagokienez.

**Bederatzigarren xedapen iragankorra. Oinordetzako arau orokorrak.**

Foru lege honen bidez Konpilazioaren oinordetza-arauetan eginiko aldaketak aplikatuko zaizkie foru lege honek indarra hartu ondoren irekitzen diren oinordetzei.

**Hamargarren xedapen iragankorra. Alarguntza gozamenaren inbentarioa.**

Aurreko xedapenean ezarritakoa gorabehera, Konpilazioaren 257. lege berriak inbentarioa egiteko epeari buruz xedatzen duena aplikatu egingen zaie foru lege honek indarra hartu baino lehen irekitako oinordetzei.

**Hamaikagarren xedapen iragankorra. Legezko oinordetza.**

Foru lege honek indarra hartu baino lehen zendutako kausatzaileen legezko oinordetzari dagokionez, une horretara arte indarrean zegoen legeriak xedatutakoari helduko zaio.

**Hamabigarren xedapen iragankorra. Zentsuak.**

Foru lege honek indarra hartzean indarrean zeuden zainpeko-zentsuak unera arte indarrean egon diren Konpilazioaren 542. legetik 545. legera bitartekoek arautuko dituzte aurrerantzean ere.

**Lehen xedapen indargabetzailea.**

Indarrrik gabe gelditzen da Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 74. f) artikulua.

**Bigarren xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe gelditzen da Semealaben Jagoletza Gurasoen Bizikidetzeta hausten den kasuetarako arautzen duen martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legea.

**Hirugarren xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe uzten dira Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen 1., 2., 3., 4., 5. eta 8. artikulua, bai eta haren gainerako xedapenak ere, foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten heinean.

**Laugarren xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe gelditzen da Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioaren edo Foru Berriaren testu berrian ezarritakoari kontra egiten dion edo hori ezeztatzen duen beste edozein xedapen.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa. Bikote egonkorren erregistro bakarra.**

Foru lege hau argitaratzen denetik urtebeteko epean, bikote egonkorren erregistro bakarra sortu beharko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikia, publizitate-ondorioetarako.

**Azken xedapenetako bigarrena. Foru lege berezien aldarrikapena.**

Foru lege hau argitaratu ondoren, beharrezkoa izanen da legegintzarako ekimena, honako hauei buruzko foru legeak aldarrika daitezten: fundazioak, pertsonen gaitasuna eta haiei laguntzeko neurriak, eta elkarri laguntzeko erkidegoak; baita Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea alda dadin ere. Helburua haien araudia garatu eta Konpilazioaren testura egokitzea da foru lege honek emandako testuaren arabera.

**Azken xedapenetako hirugarrena. Legegintzako igorpena.**

Foru lege hau argitaratzen denetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari foru lege proiektu bat igorri beharko dio, zeinaren bidez araugorputz bakarrean bilduko baitira, testu bategin modura, foru lege honen bitartez egindako aldaketen ondoren Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berrian dauden lege-xedapen indardunak.

**Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua denetik sei hilabetera hartuko du indarra.

## **§4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa<sup>551</sup>.**

### **Hitzaurrea**

#### **I**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 2006ko abenduaren 13an, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa onetsi zuen. Espainiako Estatuak 2007ko abenduaren 3an berretsi zuen konbentzio hori, eta 2008ko maiatzaren 3an hartu zuen indarra. Konbentzioak ekarri zuen desgaitasuna dutenen eskubideei begiratzeko eredu soziala finkatzea, eta, horrekin batera, desgaitasuna dutenak botere publikoek bermatu beharreko eskubideak dituzten pertsonatzat hartzea, eskubide horiek egiazki eta osotara egikaritzeko aukera izan dezaten, gainerako pertsonen baldintza berberetan.

Konbentzio horrek desgaitasunaren eredu asistentziala alde batera uztea ekarri zuen, hortik aurrera gaiari giza eskubideetan oinarrituta heltzeko: desgaitasuna dutenei eskubidedun subjektuen izaera integrala eman zien, eta ezarri ezen haien eskaerei eta beharrei erantzun behar zaiela, gainerako herritar guztien aukera berdinak izan ditzaten.

Bestetik, Nazio Batuen Konbentzioaren helburuak betetze aldera, Europar Batasunak Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia (2010-2020 eta 2021-2030) landu zuen, xede honekin hain zuzen: desgaitasuna duten guztiek modua izan dezatela beren eskubideez baliatzeko eta Europako ekonomian eta gizartean parte hartzearen onura guztiak jasotzeko. Estrategia horrek lehentasunezko zortzi jarduketa-eremu zehazten ditu, foru lege honen xede ere badirenak.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ere badu estrategia propio bat, Nafarroako 2019-2025 Desgaitasun Planean jasoa.

Bertan, Konbentzioaren eredu soziala hartzen da. Eredu horren arabera, desgaitasunarekin zerikusia duen hori ez da hartzen gizabanakoaren gabezien arazotzat, baizik eta gainerako pertsonen baldintza berberetan gizarteratzea eragozten dioten oztopo sozialtzat.

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean, aho batez onetsi zuen apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzkoa. Arau horrek oztopo arkitektonikoen ezabaketaren kontzeptu klasikoa gainditu, eta eredu berri baten alde egin zuen, xede honekin: bermatzea pertsonen garapen erabatekoa eta librea, bai eta irisgarritasuna ere pertsona ororentzat, ingurune fisikoan, komunikazioan eta zerbitzuetan, bereziki irisgarritasun behar handiagoak

---

<sup>551</sup> Hemen jasotzen da, bakarrik, arau honen Hitzaurrea, I. Titulua –xedapen orokorrak–, eta 3. xed. geh. –Egokitzapen terminologikoak–. Azk. xed.-etako lehenak Konpilazioan eginiko aldaketak, bai eta azk. xed.-etako 2.ak 17/2010 FLaan eginikoak ere, jada jasoak daude bakoitzaren testuan.

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

dituztenentzat, hala nola desgaitasunen bat duten pertsonentzat, adinekoentzat edo aldi baterako bada ere ingurunearekin harremana izateko zailtasunak dituztenentzat.

5/2010 Foru Legeak indarra hartu ondoren, Espainiako estatuak abuztuaren 1eko 26/2011 Legea aldarrikatu zuen, estatuko araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora egokitzeko. Horrela, bada, lege horren azken xedapenetako bigarrenean aginduenez, testu bategin bat egin eta onetsi beharra zegoen, horren bidez honako lege hauek erregularizatu, argitu eta bateratzeko: apirilaren 7ko 13/1982 Legea, Desgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzeari buruzkoa; abenduaren 2ko 51/2003 Legea, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa; eta abenduaren 26ko 49/2007 Legea, Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteei eta zigorrei buruzkoa. Lege horiek bateratzeko lanaren erreferentea Nazioarteko Konbentzioa izan zen, eta emaitza, berriz, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duena. Haren bidez, berariaz indargabetu ziren aipatutako hiru legeak, eta konponbidea eman zitzaion dekretua argitaratu arte egondako arau-sakabanaketari.

Legegintzako errege dekretu hori berriki aldatu du martxoaren 31ko 6/2022 Legeak. Horren bidez, irisgarritasun kognitiboa eta hura exijitzeko eta aplikatzeko baldintzak ezartzen eta arautzen dira.

Bestalde, abenduaren 14ko 39/2006 Legea onesteak Estatuan arauzko pauso garrantzitsu bat ematea ekarri zuen. Lege hori autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa da, eta honela definitzen du mendekotasuna: adinarekin, gaixotasunarekin edo desgaitasunarekin zerikusia duten eta autonomia fisikoa, mentala, intelektuala edo sensoriala ez izatearekin edo galdu izanarekin lotuta dauden arrazoiengatik eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko beste pertsona baten edo batzuen laguntza edo laguntza handia behar dutenen egoera iraunkorra, edo, desgaitasun intelektuala edo osasun mentaleko arazoak dituztenen kasuan, beren autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar dituztenena.

## II

Aurreko guztiaren ondorioa da irisgarritasun unibertsala legeen bidez arautzen segitu beharra duela Nafarroak, bat etorritik Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta araudi eta estrategia berriekin, helburua izanik aurrera egiten segitzea gizarte inklusiboagoa eta irisgarriagoa lortzeko bidean, pertsonen autonomia bermatzeko, diskriminazioa saihesteko eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bultzatzeko, batez ere desgaitasuna dutenena, adinekoena eta aldi baterako bada ere ingurunearekin harremanak izateko zailtasunak dituztenena.

Irisgarritasuna beharrezkoa dela ulertu behar da: ez desgaitasuna dutenentzat bakarrik, baizik eta bizitzaren hainbat etapatan haren onurak jaso ditzaketen guztientzat.

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

Horrekin batera, beharrezkoa da maila desberdineko arau sektorialetan sakabanatuta dauden arauak batzea, horietan guztietan desgaitasuna duten pertsonentzat funtsezkoak diren eta Konbentzioak jorratu dituen beste alderdi batzuk arautzen baitira.

Irisgarritasun unibertsalaren zeharkakotasuna bermatzeko helburua lortu da, Nafarroako Gobernuako departamentu guztien eta pertsonen bizi-kalitatea efizientziaz hobetzeko esku hartzen duten botere publiko guztien ekintza koordinatuaren bidez lortu ere. Hori horrela izanik, orain bidezkoa da foru lege bat garatzea, xedetzat honako hauen sustapena izanen duena: pertsonen autonomia, inklusioa eta gizarteko arlo guztietan parte hartzea (bereziki hauetan: osasuna, eskubide eta zerbitzu sozialak, hezkuntza, enplegua eta lana, etxebizitza, kultura, turismoa, kirola eta aisialdiko jarduerak). Hori guztia arau berrienekin bat. Gainera, desgaitasunen bat edo bestelako mugaren bat duten pertsonen kopurua nabarmen ugartuko da biztanleria zahartu ahala. Estimazioen arabera, 2050. urtean, Nafarroako sei pertsonatik batek 65 urte baino gehiago izanen ditu. Halaber, Errealitate Sozialaren Behatokiak dioenez, mendekotasun-tasa %65,8koa izanen da 2035. urterako.

Erabakiak libreki hartu ahal izateko eskubidea pertsonen autonomia eta gizartean duten parte-hartzea sustatzeko oinarria da; beraz, gaitasun juridikoa baldintza berberetan aitortzea hartu beharko da abiapuntutzat. Bestalde, ez dira eskubideak inola ere mugatu behar, eta, horretarako, informazioa eta baimenak formatu egokietan eman beharko dira, baldintza pertsonalen arabera, eta diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinuaren erregelak betez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten. Ildo horretatik, honako hauek arautzen dira foru lege honen bidez: batetik, gaitasun juridikoa egikaritzeko babesa eta laguntza; bestetik, osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, enplegua, etxebizitza, kultura eta aisialdiko jarduerak inklusiboak izatearen eta desgaitasuna duten pertsonen beharretara egokituak egotearen inguruko oinarritzko printzipioak; eta, azkenik, komunikazioaren eta informazioaren irisgarritasuna, bereziki ingurune, prozesu, produktu, ondasun eta zerbitzuena, bat etorri nazioarteko, Europako eta estatuko araudi berrienarekin.

Finean, desgaitasuna dutenek eskubidea dute bizimodu independentea izateko eta bizitzaren esparru guztietan bete-betean parte hartzeko, eta eskubide horrek lotura estua du botere publikoen betebeharrak batzuekin, alegia, pertsona guztientzako aukeraberdintasuna bermatzearen irisgarritasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko oinarritzko baldintza batzuk ezartzearekin. Oinarritzko baldintza horiek arautzea Estatuaren eskumena da, ezertan eragotzi gabe autonomia erkidegoek eta toki entitateek dituzten eskumenak, oinarritzko irisgarritasun-baldintza horiek hobetu edo areagotu baititzakete.

### III

Hala ezartzen baitu bere 44. artikuluan abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezari eta Hobetzeari buruzkoak, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eksklusiboa du arlo hauetan: lurralde-antolamendua, hirigintza eta etxebizitza; herri-lanak (Estatuaren interes orokorreko izatearen kalifikazio juridikorik ez badute edo horiek egiteak eraginik ez badu Estatuko beste lurralde batzuetan); kultura; ondare historikoa, artistikoa, monumentala, arkitektonikoa,

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

arkeologikoa eta zientifikoa; artxiboak, liburutegiak, museoak, hemerrotekak eta kultur gordailutzerako gainerako zentroak, Estatuaren titulartasunekoak ez badira; turismoaren sustapena eta antolamendua; kirolaren eta aisialdiaren erabilera egokiaren sustapena; ikuskizunak; gizarte-laguntza; garapen komunitarioa, berdintasun politikak, haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika; barne azokak eta merkatuak; adingabeen babes eta tutoretzarako eta gizarteratzeko erakunde eta establezimendu publikoak.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 47. artikuluari jarraikiz, Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntza arautu eta administratzeko, haren hedapen osoan, maila eta gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, betiere eragotzi gabe arlo honetan konstituzio aginduetan, agindu horiek garatzen dituzten lege organikoetan eta Estatuak titulu akademiko eta profesionalak lortzeko, luzatzeko eta homologatzeko dituen eskumenetan ezarritakoa, eta Estatuak haiek bete eta bermatzeko egiten dituen goi mailako ikuskapenak.

Beste alde batetik, legearen 49. artikulua arabera, Nafarroak eskumen eskusiboa du beren ibilbidea osoki foru lurraldean duten trenbide, errepide eta bideetan; baita, neurri berean, bitarteko horietaz baliatuz egiten den garraioan ere. Hurrengo artikulua, 50.ak, hain zuzen, eskumen eskusiboa ematen dio Nafarroari naturagune babestuen arloan.

Barne-osasunaren eta higienearen arloetan, berriz, Foru Hobetzeari buruzko Legearen 53. artikulua Nafarroari esleitzen dizkio gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak, eta, gainera, Estatuak oinarritzeko legegia lege bidez garatu eta betearaztekoa.

Lege beraren 58.1.b) artikuluan, Nafarroari esleitzen zaio Estatuaren lan arloko legegia betearaztea, eta haren esku uzten ditu, lan-harremanei dagokienez, Estatuak gaur egun dituen betearazte ahalmen, eskumen eta zerbitzuak, Estatuaren goi mailako ikuskapena eragotzi gabe.

Foru Hobetzeari buruzko Legearen 55.1 artikulua Nafarroako Foru Komunitateari esleitzen dio irratia eta telebistaren araubidea lege bidez garatzeko eskumena, baita hura betearaztekoa ere, irradi eta telebistaren estatutu juridikoa arautzen duen legean ezartzen den moduan eta kasuetan.

Toki administrazioaren arloari dagokionez, legearen 46. artikuluan xedatzen da ezen Nafarroari dagozkiola bere zuzenbide historikoa dela-eta gaur egun dituen ahalmen eta eskumenak, bai eta aurrekoekin bateragarri izan eta autonomia erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak ere, udalen autonomiaren aitortpena eragotzi gabe betiere.

Beste alde batetik, lege beraren 58.2 artikuluaekin bat, Foru Komunitateari dagokio, halaber, nazioarteko tratatu eta hitzarmenak bere lurraldean betearaztea, Nafarroaren eskumeneko gaiak ukitzen dituztenean.

Horrela, bada, Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen horiek guztiak betetzean sartzen dira Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateko, haien eskubideak bermatzeko eta irisgarritasun unibertsalean aurrera egiteko baldintzak ezartzeko beharrezkoak diren ekintza publikoak, zeharkako izaera baitute.

Foru lege hau aldarrikatuta, Nafarroari arau-esparru berekia eman nahi zaio desgaitasunari arreta ematearen arloan, genero-ikuspegiarekin, betiere gogoan hartuta



#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

nazioarteko, Europako eta Estatuko jarraibideak eta bizi itxaropenaren luzapena eta populazioaren zahartzea ekarriko dituen eszenatoki demografikoa.

#### IV

Foru lege honek honako egitura du: hamar titulu, hamahiru xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hamahiru azken xedapen.

I. titulua I. kapituluan, foru legearen xedea eta oinarrizko printzipioak ezartzen dira, bai eta legearen edukia ulertzen laguntzen duten zenbait definizio ere. II. kapituluan, berriz, foru legearen aplikazio-eremuak arautzen dira. Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean aurreikusitakoez gain, aplikazio-eremu berriak gehitu dira, hala nola osasun-sistema, gizarte-babesa eta gizarte-zerbitzuak eta garpenerako lankidetzak.

Desgaitasuna duten pertsonen definizioari dagokionez, ikuspegi biomedikoan oinarritutako kontzeptua gaintzen da, eta kontzeptu sozialari erreparatzen zaio, horrek esku-hartze sozialak eskatzen baititu gainerako eremuetan. Horrek ez du galarazten azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako prestazioen ondorioetarako arau horrek jasotzen duen kontzeptua edo une bakoitzean indarrean dagoena.

Konbentzioaren arabera, desgaitasuna ezin da urritasunen ikuspegitik bakarrik definitu, baizik eta urritasun horien eta urritasun horiek dituzten pertsonen gizartean bete-betean, egiaz eta gainerakoen baldintza berberetan parte-hartzea eragozten dieten oztopoen arteko interakzioaren ondorio gisa.

II. titulua diskriminaziorik ezari eta autonomiari buruzkoa da, eta pertsonen autonomiarekiko errespetua eta berdintasunerako eta bizimodu independenterako eskubidea aitortzen ditu. I. kapituluan, neurri batzuk garatzen ditu berdintasun formala bermatzeko, diskriminazio oro saihestuta, bai eta benetako berdintasuna ere, ekintza positiboko neurrien bidez. Konbentzioak bezala, desgaitasuna duten emakumei eta neskei buruzko neurriak eta kontzientziarioak nabarmentzen ditu.

Diskriminazio intersektionalaren definizioa jaso da, kontuan har dadin desgaitasuna duten emakumeek sexuan oinarrituta jasaten duten diskriminazioa, haien zaugarritasuna areagotu eta diskriminazioa biderkatzen baitu.

Zehazki, kapitulu horretan eta beste batzuetan, balioen aldaketa bultzatzen da, eta genero-ikuspegia erabiltzen da Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako tresna gisa; eta, lege horretan finkatutako helburuak erdiesteko, nabarmentzekoa da, halaber, Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea, 8. artikuluan eta beste batzuetan aurreikusitakoari dagokionez duen garrantziagatik.

II. kapituluan, desgaitasunarekin lotutako politiken ikuspegi prebentiboa bermatzeko arau nagusiak jorratzen ditu, eta III. kapituluan, berriz, desgaitasuna duten pertsonen bizitza independentearen sustapena. Horretarako funtsezkoak diren gaiak jorratzen ditu, hala nola desinstituzionalizazioa (desgaitasuna duten pertsona askori sentiarazten

dielako beren bizitzan askatasun- eta kontrol-falta dutela), laguntza pertsonala, esku hartzeko ibilbideak edo telelaguntza.

IV. kapituluan eta azken xedapenetako lehenean, Foru Hobetzeari buruzko Legearen 48.1 artikulua babesean, foru ordenamendua Konbentzioaren 12. artikulura egokitzen da, eta oinarrizko printzipioak ezartzen dira eta laguntzak emateko sistema berri bat sustatzen da, desgaitasuna dutenek gaitasun juridikoa egikaritzen dutela bermatuko duena, hura ukatu beharrean. Aipatutako xedapenean, gure Foru Zuzenbide Zibilararen arauak eta aipamenak (Foru Berria jasoak) osatzen eta aldatzen dira, aintzat hartuta ekainaren 2ko 8/2021 Legearen ondorioz araubide erkidean eta prozesalean izandako aldaketak. Lege horren bidez, legedia zibila eta prozesala aldatu zen, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko.

V. kapituluan xedatzenenez, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako toki entitateek nahitaezko txostenak eman beharko dituzte irisgarritasunaren eta desgaitasunaren inaktuari buruz foru lege proiektuak eta erregelamenduzko xedapenak onesteko prozeduretan. Horrez gain, kapitulu horretan Konbentzioaren 32. artikulua garatzen da nazioarteko lankidetzari dagokionez.

III. tituluan, alde batetik, desgaitasuna dutenek beren osasuna babesteko duten eskubidearen bermeak jasotzen dira, alderdi zehatzak, pertsona horien osasuna zaintzeko berriazko neurriak jasotzen dituztenak, kolektibo horri osasun-informazioa ematearekin lotutako gaiak edo Nafarroako osasun-sistemako estrategiak pertsona horientzat eta osasun mentaleko arazoak dituztenentzat.

Bigarren kapituluan, gizarte-zerbitzuen esparruko espezifikotasunak garatzen dira, banean sartuta pertsonarengan zentratutako prestazioaren oinarrizko printzipioak, eta mota jakin bateko desgaitasuna duten edo inguruabar jakin batzuetan (esaterako, neurri judizialen ondoriozkoetan) dauden pertsonen zahartzeari arreta emateko zainketari, kalitateari eta araubide bereziei lotutako arlo guztien sustapena.

III. kapituluaren arreta soziosanitarioa bermatzeko funtsezko gaiei buruzkoa da.

IV. tituluan hezkuntza inklusiboa definitzen eta garatzen da, abiapuntutzat hartuta horren oinarrizkoak gizarteak berak jarritakoak direla. Izan ere, baliteke gizarteak hezkuntzari buruzko ikuspegi baldintzatua edukitzea, halako moldez non joko baimilzateke hezkuntzaren helburu nagusia eta ia bakarra dela trebetasunak eskuratzea lehia handiagokoak eta individualistagoak diren lan-merkatu eta gizarte-bizitza baterako, kontuan hartu gabe hezkuntzak helburu izan behar duela prestakuntza ematea, lanabes emozional eta sozialak direnak ere erabiliz aurre egin ahal izateko pertsonen suertatzen zaizkien zirkunstantzia desberdinei, jende guztiak jarrera kritiko eta solidarioagoko gizarte batean parte har dezan, non dibertsitatea ondasun eta aberastasun gisa ulertuko baita gizarte osoarentzat.

I. kapituluan definitzen da zertan datzan hezkuntza inklusiboa unibertsiteatez kanpoko hezkuntzaren esparruan, eta eskubide gisa egituratzen da, Konbentzioaren 24. artikuluan eskatzen diren funtsezko oinarriekin. Era berean, inklusibitateko kultura eta estrategia arautzen dira, bai eta praktika inklusibo nagusiak ere, eta beste alderdi nagusi batzuk

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

garatzen dira: ikaskuntzen diseinu unibertsala, espazioen irisgarritasuna eta beharrezko prestakuntza.

II. kapituluan, unibertsitatearen eremuan hezkuntza inklusiboa bermatzeko gutxienekoak jasotzen dira.

V. tituluak, Konbentzioaren 27. artikulua garatuz, honako hauek arautzen ditu: desgaitasuna dutenek enpleguan izan dezaketen diskriminazioaren aurkako babesa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen lan-zerbitzuetan berdintasunez sartzeko arauak, kolektibo horrentzako prestakuntzari buruzko aurreikuspen espezifikoak, kolektibo horrentzako enplegua sustatzeari buruzkoak, gerora etorritako desgaitasunaren kasuan enplegua lortzeari buruzkoak, eta sentsibilizazioari, plangintzari, koordinazioari eta kontrolari buruzkoak.

VI. tituluak, Konbentzioaren 30. artikulua garatu eta babesten da, desgaitasuna dutenek honako arlo hauetan duten parte-hartzeari dagokionez: bizitza kulturala, aisialdiko jarduerak eta aisia, turismoa barne, eta kirola; bilatzen da parte-hartze hori berdintasunez gauza dadila, bai eta arlo horietan desgaitasuna dutenen ahalmena sustatzea, eta horrez gain, prestakuntza, sentsibilizazioa eta sustapena.

VII. tituluak (berariazko xedapenak), irisgarritasuna arautzen da 4. artikuluan aurreikusitako esparru guztietan.

Konbentzioaren atarikoak garbi aitortzen du ezen, desgaitasuna dutenek bizimodu independentea izateko eta bizitzaren esparru guztietan bete-betean parte hartzeko, oso garrantzitsua dela arlo hauetarako irisgarritasuna: ingurune fisikoa, soziala, ekonomikoa eta kulturala, osasuna, hezkuntza, informazioa eta komunikazioak. Izan ere, irisgarritasunik ez izatea traba da eskubide eta askatasun horietaz baliatzeko.

Irisgarritasun unibertsala hau da, finean: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoez eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Printzipio horrek "diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuaren" estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanen egin beharreko arrazoizko egokitzapenatarako.

Desgaitasunari buruzko Europako Estrategiak (2010-2020) adierazten du, halaber, komeni dela irisgarritasuna arautzea beste esparru batzuetan, besteak beste, komunikazioan eta informazioan, eta ondasun eta zerbitzuetan, esparru horiek eragin handia dutelako, bai desgaitasuna duten pertsonen autonomian, bai zerbitzuen gainerako erabiltzaileen baldintza berberetan parte hartzeko aukerari dagokionez. Azken urteotan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek izan duten bilakaera handia dela-eta, horiek kontuan hartzen dituen arau erregulazio berria behar da, gaur egun etengabe presente daudelako gure eguneroko bizimoduan eta frogaturik dagoelako funtsezkoak direla lege honek biltzen dituen helburuak lortzeko; baina, aldi berean, traba bihurtzen dira biztanleria osoa haietaz baliatzeko modurik izatea lortu ezean.

Alde horretatik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentaraua argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean,

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

2016ko abenduaren 2koan. Zuzentarau hori sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa da. Amaituta dago zuzentarau horren transposizio-epea. Zuzentarau hori estatuko legedian txertatzeko, irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretua eman zen, sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoa. Hori horrela, errege dekretu horrek ordeztu eta hobetu egin zituen ordura arte 1494/2007 Errege Dekretuaren bidez administrazio publikoen atariei eskatzen zitzaizkien baldintzak. Nafarroari dagokionez, ekainaren 12ko 69/2019 Foru Dekretua eman zen, zeinaren bidez, irisgarritasun politika onetsi baitzen webguneetarako eta gailu mugikorren aplikazioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta foru sektore publiko instituzionalean. Horrela, bada, Europako EN 301 549 V1.1.2 (2015-04) arauan (Espainiako katalogora UNE-EN 301549 V1.1.2:2015 arau gisa egokitua) ezarritako irisgarritasun bermatuko mailaren baliokideari darraio gaur egungo Europako UNE-EN 301549:2020 araua (IKT produktuei eta zerbitzuei eskatzen zaizkien irisgarritasun-baldintzak).

Hauxe da zuzentarauaren abiapuntua: gizarte digital baterantz egiten den aldaketaren joerak informazioa eta zerbitzuak eskuratzeko bide berriak eskaintzen dizkie erabiltzaileei, eta sektore publikoko erakundeen webguneak eta gailu mugikorretarako aplikazioak erabilerrazagoak izatea da haren xedea, irisgarritasuneko betebeharrak konunetan oinarritzen direlako eta elkarreragingarritasuna sustatzen dutelako. Horrela, herritarrek sektore publikoko zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago izanen dituzte webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen bidez, beren eguneroko bizimodua erraztuko duten zerbitzuak eta informazioa lortuko dituzte, bai eta Europar Batasun osoan beren eskubideak baliatzeko modua ere.

Era berean, Irisgarritasun Unibertsalaren UNE170001-1 eta 2 arauaren erreferentzia mantentzen da foru legearen erregelamenduzko garapenerako, eta beste betebeharrak gehitzen da, hots, Nafarroako administrazio publikoek neurriak hartu beharko dituztela beren webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasuna handitzen joateko pixkanaka, bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/2102 (EB) Zuzentaruaren, hau da, sektore publikoko erakundeen webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruzkoan, aurreikusitakoarekin.

Foru Komunitateko Administrazioari eta Nafarroako toki entitateei esleitutako eskumenak eragotzi gabe, foru legeak berariaz aipatzen du Nafarroan aplikatzekoak direla irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan Estatuko oinarritzko araudian ezarritako baldintza oinarritzkoak.

Nafarroako administrazio publikoek irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak betetzeko eta kontrolatzeko dituzten betebeharrak zenbait neurriekin indartzen dira: diskriminazioaren kontrako neurriak, ekintza positiboko neurriak eta sustapen, bultzada eta partaidetzarako neurriak, irisgarritasun unibertsala lortzeko bidean zuzeneko eragina dutenak, bai eta, azken batean, bizimodu independentea lortzekoan; hori guztia, eragotzi gabe beste aplikazio-eremu batzuetan erregelamenduzko garapena egitea, beharrezkotzat jotzen bada.

VIII. tituluaren lehen kapituluaren honako hauek arautzen dira: Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateko jarduketa publikoen plangintza (aldez aurretik diagnostiko bat eginda) eta ebaluazioa; gai horri buruzko informazioarekin, hedapenarekin eta azterlanekin zerikusia duen guztia; eta ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legean aurreikusitako prestakuntza zabaltzeko aurreikuspenak.

II. kapituluaren parte-hartzea arautzen da, barnean sartuta, lehenik eta behin, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseiluaren bidez gauzatzen dena, eta horrekin batera, Irisgarritasun Unibertsala eta Pertsona Ororentzako Aukera-berdintasuna Sustatzeko Kontseiluaren bidez egiten dena; azken horren xedea da irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna sustatzea pertsona guztientzat, ez bakarrik desgaitasuna dutenentzat. Legearen artikuluko guztietan islatzen da hedapen hori, kontuan hartu baitira, batetik, populazioaren zahartzea, eta, bestetik, pertsona guztien irisgarritasun beharrianak. Nolanahi ere, ezin zen bestela izan, zenbait eskubide desgaitasuna aitorturik dutenei baizik ez zaizkie aitortzen, jarraikiz Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoari.

Era berean, aurreikusten da desgaitasuna eta nahasmendu mentala dutenek ordezkari izan behar dutela Pertsonarengan zentratutako arretari sostengua emateko Sarearen Batzordean (abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuaren bidez ezarria); mekanismoak ere aurreikusten dira desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeek ordezkari ez duten eremuetan parte hartzen dutela bermatzeko; horrez gain, ikusten da beharrezkoa dela desgaitasuna duten haurrak edo nerabeak haurren partaidetzarako organoan sartzea (arau honen seigarren xedapen gehigarrian dago jasota) edo sektore horrek Nafarroako Gizarte Arretaren Etika Batzordearekin duen harremana bermatzea.

IX. tituluaren irisgarritasun unibertsalaren arloko arbitrajea eta bitartekaritza aurreikusten dira.

X. tituluaren ezartzen da ezen Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginean –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan– aurreikusitako zehapen araubide bera aplikatuko dela Nafarroan, legegintzako errege dekretu horretan ezarritako moduan.

Lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, Nafarroako Gobernuak jarduketa plan bat aurkeztu beharko dio Nafarroako Parlamentuari, irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona oroarentzako diseinurako eskubideari dagokionez dauden gabeziak zuzentzeko xedea izan behar duena.

Bigarren xedapen gehigarrian, berriz, jasotzen da Nafarroako toki entitateek irisgarritasunaren arloko jarduketa plan integral bat onetsi beharko dutela.

Hirugarren xedapen gehigarrian, terminologiaren aldetik egindako egokitzapenak jasotzen dira, aldaketaren xede ez diren hainbat arauditan Konbentziora egokitu gabe zeuden erreferentziei dagokienez.

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

Laugarren xedapen gehigarriak aurreikusten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak progresibitate-irizpideen arabera tributu-neurriak hartuko dituela desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat.

Bosgarrenean, gerora etorritako desgaitasunaren kasuetan enpleguari eusteko aurreikuspenak jasotzen dira, beste administrazio batzuen menpe dauden neurrian.

Seigarren xedapen gehigarrian, enplegu-zentro berezien kalifikazioa eta inskripzioa arautzen dira, eta azken xedapenetako seigarrenean, berriz, kontratu publikoei buruzko foru legedia aldatzen da, gizarte-ekimeneko kontratuei lehentasuna emateko kontratuen erreserban.

Zazpigarren xedapen gehigarriak ezartzen ditu desgaitasuna duten pertsonentzat zentro okupazionaletan behar beste plaza izateko printzipioak, horietarako sarbidea eta zentroek emanen dituzten programak.

Zortzigarren xedapen gehigarriak aurreikusten du desgaitasuna duten haur eta nerabeak Nafarroako Haurren eta Nerabeen Kontseilura batzea.

Bederatzigarrenean, errenta haztatzeko arau bat ezartzen da, pertsona edo familia batentzat desgaitasuna izateak dakarren gastu handiagoari erantzuteko, dirulaguntzak errentaren arabera eskuratzen direnean edo laguntza horien zenbatekoa errentaren arabera denean.

Hamargarrenean zentro okupazionaletako sariak edo konpentsazioak jorratzen dira, eta hamaikagarrenean bertsio ofizial elebidunen irakurketa errazeko dokumentazioa, euskarari buruzko araudiaren arabera.

Lehen xedapen iragankorrek dio 5/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenek indarra izaten segituko dutela foru lege honen erregelamenduzko garapenek indarra hartu arte.

Bigarren xedapen iragankorrek Aukera Berdintasunerako Arbitraje Batzordeen eginkizunen zati bat benetan garatzea aurreikusten du, horiek martxan jartzen ez diren bitartean.

Xedapen indargabetzaile bakarrak berariaz indargabetzen du Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea. Bestalde, hauek ere indargabetzen ditu: 57/1990 Foru Dekretua, martxoaren 15koa, Garraioetako oztopo fisiko zein sensorialak kentzeko arautegia onesten duena, eta 154/1989 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea garatu eta aplikatzeko erregelamendua onesten duena. Izan ere, gauditurik gelditu dira estatu mailan irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak ezartzen dituzten geroagoko beste arau batzuk direla-eta.

Azken xedapenetako bigarrenak Konbentziora egokitzen ditu Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen manu batzuk.

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

Azken xedapenetako hirugarrenak beste xedapen gehigarri bat sartzen du mendekotasun egoera aitortzeko prozeduraren erregulazioan, sinplifikazioa sustatzeko desgaitasuna zein mendekotasuna baloratu behar direnean.

Azken xedapenetako laugarrenak zenbait aldaketa egiten dizkio Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeari, zertarako eta Konbentzioaren 12. artikulura eta 8/2021 Legea egokitzeko, eta beste helburu batzuk ere erdiesteko, besteak beste, aurrerapausoak ematea zentro soziosanitarioetan erabiltzen diren euskailuak murrizteko eta ezabatzeke.

Azken xedapenetako bosgarrenak klausula sozialak sartzen ditu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean, helburu sozialak lortzeko ere baliatu dadin horien erabilera estrategikoa.

Azken xedapenetako seigarrenak aurreikusten du Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzea, irabazi asmorik gabeko enplegu-zentro bereziek, ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziek eta laneratze-enpresek kontratu publikoak adjudikatzeke prozeduretan parte hartzeari dagokionez.

Azken xedapenetako zazpigarrenak aldatu egiten du Gizarteratzerako eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea, eta zortzigarrenak, aldiz, Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea.

Azken xedapenetako bederatzigarrenak aurreikusten du erregelamenduz garatuko direla bertan aipatzen diren artikulua, eta azken xedapenetako hamargarrenak entitate laguntzailezat jotzen ditu desgaitasun-alorreko gizarte-erakundeak.

Azken xedapenetako hamaikagarrenak artikuluen izaera identifikatzen du, Nafarroako arlo bakoitzean dituen eskumenen arabera. Azken xedapenetako hamabigarrenak Nafarroako Gobernuari baimena ematen dio foru lege hau aplikatu, garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman eta behar diren neurriak har ditzan. Azken xedapenetako hamahirugarrenak legea indarrean sartzea arautzen du.

V

Foru lege hau prestatzeko lanetan honakoek hartu dute parte, kontsulta egin baitzaie: Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak, Desgaitasuna duten Pertsonak ordezkatzeko Entitateen Nafarroako Batzordea (CERMIN), Toki Araubidearen Foru Batzordea, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF), Nafarroako Adingabearen Kontseilua, Nafarroako Adinekoen Kontseilua, Nafarroako Desgaitasunaren Kontseilua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Desgaitasunen bat duten Pertsonentzako Aukeraberdintasuna Sustatzeko Kontseilua, Foru Zuzenbide Zibilaren Aholku Kontseilua, Kontratazio Publikorako Batzordea, Nafarroako Kirolaren Kontseilua, Nafarroako Kultura Kontseilua eta Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua.

**I. TITULUA  
XEDAPEN OROKORRAK**

**I. KAPITULUA  
Foru legearen xedea, printzipioak eta definizioak**

**1. artikulua. Xedea.**

1. Foru lege honen xedea da, batetik, Nafarroan desgaitasuna dutenen eskubideak bermatzea eta jarduketa batzuk ezartzea haiei arreta emateko, eta, bestetik, irisgarritasun unibertsalerako baldintzak finkatzea, beharrezkoak baitira desgaitasunen bat dutenen eta haien familien aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitateko inklusioa, parte-hartzea eta bizimodu independentea bermatzeko.

Hori guztia eragotzi gabe garapen-bidean dauden herrialdeetan desgaitasuna duten pertsonen arreta eta irisgarritasuna hobetzea sustatzea, 26. artikuluekin bat.

2. Foru lege honetan edo Estatuko legedian –Konstituzioko eskubideak erabiltzean eta betebeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarriko baldintzak arautzen dituen horretan– aipatzen diren prestazioen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira Estatuko legedian ezarritakoak, eta foru lege honetan aitortutako gainerako eskubideen ondorioetarako, berriz, desgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira aurreikusitakoaren arabera iraunkorrak izanen diren urritasun fisikoak, mentalak, intelektualak edo sentorialak dituztenak, hainbat oztoporekin topo egiten dutenez ezin dutenak gizartean bete-betean eta egiaz parte hartu, besteak dituzten baldintza berberetan.

**2. artikulua. Printzipioak.**

Foru lege honek printzipio hauek ditu oinarri:

a) Pertsonari datzekion duintasunaren, autonomia pertsonalaren eta erabakiak hartzeko askatasunaren errespetua:

Pertsona guztiei datzekien duintasuna eta balioa aitortzeak berekin dakar haien eskubide berdinak eta besterenezinak ere aitortzea, eta askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarri dira horiek.

Autodeterminazioa posible izan dadin, beharrezkoak dira autonomia pertsonala eta, horrekin lotuta, pertsonentzat esanguratsuak diren jardueretan askatasunez erabaki ahal izatea, norberaren identitatea garatzen baita norberaren bizitzaren eragile kausal nagusi gisa, pertsona bera izanik hautuak egin edo erabakiak hartzen dituen, bere kabuz edo behar dituen laguntzekin, bere bizi-kalitatea mantentzeko edo hobetzeko bere bizi-proiektuaren arabera.

b) Bizimodu independentea: horrek esan nahi du desgaitasuna dutenek behar diren baliabide guztiak izan behar dituztela aukerak egin eta beren bizitzak kontrolatu ahal izateko, eta eragiten dieten erabaki guztiak hartzeko, eta komunitatearen bizitzan aktiboki parte har dezaten, pertsonaren garapen askerako eskubidearekin bat etorritik.



§4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

c) Diskriminaziorik eza: modalitate guztiak barne, bat etorritz giza eskubideen nazioarteko tratatuekin eta hurrengo artikuluan ezarritakoarekin.

d) Desgaitasuna duten pertsonen desberdintasuna errespetatzea eta onartzea, giza dibertsitatearen eta gizatasunaren zati den aldetik, eta desgaitasuna bera ere identitatearen zati den aldetik, ezin baita desgaitasuna arrazoi legitimotzat hartu giza eskubideak ukatu edo murrizteko; orobat, desgaitasuna duten pertsonen artean dagoen aniztasuna ere errespetatzea eta onartzea, eta horretarako, beharrezkoa da indibidualizatzea.

e) Aukera-berdintasuna, berdintasun inklusiboaren eredu gisa. Lau dimentsio dauzka:

–Bidezko birbanaketa, desabantaila sozioekonomikoei aurre egiteko.

–Aitorza, estigmari, estereotipoei, aurreiritziei eta indarkeriari aurre egiteko.

–Parte-hartzea, pertsonen izaera soziala berresteko.

–Egokitzapena, desberdintasunari tokia egiteko, aurreko apartatuarekin bat.

f) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, sexuak eragindako zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazio oro desagertzea ekarriko duena, eta balioak aldatzea eragin eta bizitzaren eremu guztietan berdintasun sustantiboa lortzeko bermea ere ekarriko duena.

g) Normalizazioa, desgaitasuna dutenek eskura izan ditzaten beren gizarteko bizimoduak eta eguneroko jarduerak, horrek eskatzen dituen doikuntzekin.

h) Irisgarritasun unibertsala, aurretiazko baldintza gisa desgaitasuna dutenak beren eskubideez eta askatasunez baliatzeko, modu independentean bizitzeko eta gizartean bete-betean parte hartzeko, erabakiak hartzeko eta botere kotak baldintza berberetan erdiesteko.

i) Diseinu unibertsala edo desgaitasuna dutenentzako eta pertsona ororentzako diseinua, ahalik eta neurri handienean aplikatu beharrezkoa ondasun, produktu, instalazio, teknologia eta zerbitzu berri guztiei, bermatuta gera dadin pertsona guzti-guztiek erabat, berdintasunez eta mugarik gabe eskuratzen ahal dituztela, halako moduz non aintzat hartuko baita pertsona horien berezko duintasuna eta aniztasuna.

j) Parte-hartze eta inklusio sozial osoak eta egiazkoak, desgaitasuna dutenek aurki ditzaketen oztopoak ezabatuz, izan jarrerari lotutako oztopoak, izan oztopo fisiko, juridiko, ekonomiko, sozial edo komunikaziokoak.

k) Elkarrizketa zibila; horrek eskatzen du kontsultak egitea, horretarako informazio nahikoa eta egokia emanez, eta desgaitasuna dutenen lankidetzak aktiboa ahalbidetzen duten bideak erabiltzea, hurrengo artikularen o) apartatuan jasotzen den moduan, erabakiak hartzeko prozesuetako azken emaitzan lagundu ahal izan dezaten.

l) Desgaitasuna dutenen nortasunaren garapena errespetatzea, eta, bereziki, desgaitasuna duten haurrek beren identitatea zaintzeko eta beren interes gorenari erantzuteko duten eskubidea, neurriak pertsona bakoitzaren bizi-ziklora egokituz.

m) Irisgarritasun unibertsalaren eta artikuluko honetako gainerako printzipioen zeharkakotasuna Foru Komunitateko Administrazioaren politika guztietan.

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

n) Prebentziozko ikuspegia politika publikoetan, desgaitasuna duten pertsonak ukitzen dituzten arazoei aurrea hartzeko eta arazo horien kausetan esku hartzeko.

ñ) Lurralde kohesioa, landa ingurunearen eta hiri eremuaren artean egon daitezkeen desberdintasunen ondorioz zerbitzuak, azpiegiturak eta baliabideak eskuratzeko dauden zailtasunak zuzentzeko.

o) Erantzunkidetasuna: aintzat hartuta desgaitasuna dutenen eskubideak eta zainketak bermatzea gizarte osoaren zeregina dela, ez bakarrik botere publikoena, familia eta horretan diharduten erakundeena, eta gizonen eta emakumeen zeregina dela, neurri berean.

p) Edozein motatako desgaitasuna duten pertsonen enplegua lor dezaten sustatzea.

### **3. artikulua. Definizioak.**

Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira honako hauek:

a) Irigarritasun unibertsala: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, lanabesek eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izan daitezen, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz erabiltzekoak, betiere. Printzipio horrek "diseinu unibertsalaren edo ororentzako diseinuaren" estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanen egin beharreko arrazoizko egokitzapenetarako.

b) Diseinu unibertsala edo ororentzako diseinua: jarduera honen bidez, inguruneak, prozesuak, ondasunak, produktuak, zerbitzuak, objektuak, tresnak, lanabesak, programak, gailuak eta antzeko elementuak jatorritik pentsatu eta diseinatzen dira pertsona orok erabiltzeko modukoak izan daitezen, ahalik eta hedadura handienarekin, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik egin beharrik gabe. "Diseinu unibertsalak edo ororentzako diseinuak" ez ditu baztertuko desgaitasuna dutenen talde partikularrentzako laguntza produktuak, halakorik behar badute.

c) Gizarte-inklusioa: prozesu honen bidez, gizarteak balio konpartituak sustatzen ditu guztien ongia eta kohesio soziala lortzeko, horrela desgaitasuna duten guztiek behar diren baliabideak eta aukerak izan ditzaten, bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean, hezkuntzan, lanean eta kultur arloan bete-betean parte hartzeko eta gainerakoen bizi-baldintza berdinak izateko.

d) Aukera-berdintasuna: desgaitasunak eragindako inolako diskriminaziorik, zuzeneko nahiz zeharkakorik, ez egotea da, barne harturik edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, helburutzat edo emaitzatzat duena desgaitasuna duten pertsonen arlo politikoan, ekonomikoan, hezkuntzakoan, sozialean, lanekoan, kulturean edo bestelako arlo batean trabak jartzea edo haien indarrak gabe uztea giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak baldintza berberetan aitortu, gozatu edo erabiltzeko modua.

e) Zuzeneko diskriminazioa: desgaitasuna duen pertsona batek bizi duen egoera da, bere desgaitasuna dela-eta beste pertsona batek baino tratatu okerragoa jasotzen duenean antzekoa den egoera batean.

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

f) Zeharkako diskriminazioa: zeharkako diskriminazioa dagoela ulertuko da baldin eta lege edo erregelamendu mailako xedapen batek, hitzarmen edo kontratu bidezko klausula batek, banakako itun batek, alde bakarreko erabaki batek edo irizpide edo jardunbide batek, edo itxuraz neutroa den ingurune, produktu edo zerbitzu batek, desgaitasuna dela-eta desabantaila eragiten ahal badio pertsona bati beste batzuen aldean, objektiboki helburu legitimo bat ez duenean eta helburu hori lortzeko baliabideak egokiak eta beharrezkoak ez direnean.

g) Asoziazio-diskriminazioa: honelako diskriminazioa gertatzen da pertsona batek edo bera kide duen taldeak tratu diskriminatzailea jasotzen duenean beste batekin duen loturagatik, tratu hori desgaitasunak eragindakoa denean.

h) Jazarpena: pertsona baten desgaitasunarekin lotutako eta haren gogoz kontrako jokabide oro, duintasunaren aurka egitea edo giro beldur-eragilea, etsaitasunezkoa, apalgarria, umiliagarria edo iraingarria sortzeko asmoa duena edo ondorio hori eragiten duena.

i) Diskriminazio anizkoitza: pertsona batek bi arrazoirengatik edo gehiagorengatik jasaten badu diskriminazioa, eta horrek konplexua edo larriagoa bihurtzen badu diskriminazioa.

j) Diskriminazio interseksionala: kasu honetan, hainbat arrazoik jarduten dute aldi berean, elkarri eraginez, eta bereizezinak dira; hori horrela, ukitutako pertsonak desabantaila eta diskriminazio mota berezien eraginean jartzen dituzte.

k) Genero-ikuspegia: emakumeen eta gizonen desberdinkeria ikusarazteko eta horiei aurre egiteko beharrezkoa den azterketa- eta lan-metodologia, haien egoera eta posizio desberdinak aitortzen baititu.

Foru lege honen esparruan, genero-ikuspegia behar da desgaitasunari buruzko politketan, eta desgaitasun-ikuspegia genero-berdintasuneko politketan.

l) Ekintza positiboko neurriak: berariazko neurriak dira, bideratuta daudenak desgaitasunak eragiten dituen desabantailak saihestu edo konpentsatzera, edo desgaitasuna dutenen egiazko berdintasuna eta bizitza politiko, ekonomiko eta sozialean, hezkuntzan, lanean eta kultur arloan bete-betean parte hartzea bizkortu edo lortzera, desgaitasun mota eta maila desberdinak aintzat harturik.

m) Bizimodu independentea: egoera honetan dago desgaitasuna izanik bere bizitzaren gainean erabakitzeke ahalmena eta eskubidea egikaritzen dituen pertsona, parte-hartze aktiboa duena bere komunitatearen bizitzan, nortasuna libreki garatzeko eskubidearekin bat; modua dauka non eta norekin bizi nahi duen hautatzeko, gainerakoen baldintza berberetan, bizimodu zehatz baten arabera bizitzeko beharrik gabe.

n) Normalizazioa: printzipio honen arabera, desgaitasuna dutenek berdintasun baldintzetan bizitzeko aukera izan behar dute, bai eta beste edozein pertsonak eskura dituen leku, esparru, ondasun eta zerbitzu berberak eskuratzeko ere.

ñ) Arrazoizko egokitzapenak: giro fisikoa, soziala eta jarreraren ingurukoa desgaitasuna dutenen behar berariazkoetara egokitzeko behar diren aldaketak eta egokitzapenak dira,

#### §4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

modu eraginkor eta praktikoan eta neurriz gaineko edo bidegabeko karga ekarri gabe, desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasuna edo partaidetza errazten dutenean eta eskubide guztiak baliatu edo egikaritzea bermatzen, gainerako herritarren baldintza berberetan.

o) Elkarriketa zibila: printzipio honen bitartez, desgaitasuna dutenak eta haien familiak ordezkatzan dituzten erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezartzen dutenari jarraituz, desgaitasuna dutenen alorrean garatzen diren politika ofizialak prestatzen, gauzatzen, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiten; betiere desgaitasuna duten haurren eskubide hau bermatu behar dute: beren iritzia libreki adieraztekoa beraiengan eragina duten gai guztiei buruz, bai eta, eskubide hori erabiltzeko, beren desgaitasunerako eta adinerako egokia den asistentzia jasotzeko ere.

p) Desgaitasunaren arloko politiken zeharkakotasuna: printzipio honen arabera, administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez dira mugatzen desgaitasuna dutenentzako soilik pentsatutako plan, programa eta ekintza berariazkoetara; aitzitik, barnean hartzen dituzte izaera orokorreko politikak eta ekintza-ildoak ere, jarduera publikoaren edozein esparrutakoak, betiere desgaitasuna dutenen beharrezan eta eskaerak aintzat harturik.

q) Desgaitasuna: egoera bat da, bi faktore hauen arteko interakziotik sortzen dena: batetik, aurreikusitakoaren arabera iraunkorrak izanzen diren urritasun fisikoak, organikoak, sentsorialak, intelektualak, garapenekoak edo mentalak dituzten pertsonak, eta, bestetik, edozein motatako oztopoak, eragozpen edo traba direnak pertsona horiek gizartean bete-betean eta egiaz eta gainerakoen baldintza berberetan parte hartzeko.

r) Irisgarritasunaren arloko jarduketa plana: plan horren bidez zehazten da zer jarduketa egin behar diren planaren aplikazio-eremuan lor daitezen foru lege honetan eta kasuan kasuko garapen araudian ezarritako irisgarritasun unibertsaleko baldintzak, eta jarduketa horiek planifikatzen dira, orobat.

s) Osasuna: erabateko ongizate fisiko, mental eta soziala, eta ez soilik gaixotasunik ez izatea.

t) Irakurketa erraza: hizkuntza erraz eta argiarekin laburtu eta egindako edukiak, desgaitasun kognitiboa edo desgaitasun intelektuala duten pertsonak uler ditzaten. Eduki juridikoa duten egintzei buruzkoak direnean, inola ere ez dituzte ordezkatu edo aldatuko jatorrizko dokumentuaren edukia eta ondorio juridikoak.

u) Zahartze aktiboa: ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala bizitza guztian zehar izateko aukerak ahalik eta gehiena aprobetxatzeko prozesua da, helburu duena bizi-kalitatea, produktibitatea eta bizi-itxaropena adin zaharrera hedatzea desgaitasun-prebalentzia minimoarekin.

(...)

#### **Hirugarren xedapen gehigarria. Egokitzapen terminologikoak.**

1. Foru araudian "desgaituak", "minusbaliatuak" edo "urrituak" aipatzen direnean, "desgaitasuna duten pertsonak" aipatzen direla ulertuko da, eta foru araudian "ezgaituak"

§4.5.- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa

edo "judizialki aldatutako gaitasuna duten pertsonak" aipatzen direnean, "beren gaitasunaz baliatzeko laguntza behar duten pertsonak" aipatzen direla ulertuko da.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzako tutoretzapeko zentroi edo zerbitzuei buruzko aipamen guztiak intentsitate handiko laguntzak dituzten zentro edo zerbitzuei buruzkoak direla ulertuko da, eta gizarte-zerbitzuen zati bat identifikatzeko egiten diren "gaixotasun mentalen" aipamen guztiak "nahasmendu mentalari" edo "osasun mentaleko nahasmenduari" egiten zaizkiola ulertuko da.

3. Desgaitasuna duten pertsonak edo haiek ordezkatzeko dituzten entitateek haiei buruzko terminologia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egindako dokumentazioan jasota dagoena, berrikusteko proposatzen ahalko diote gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen departamentuari, hark berrikus dezan eta dagokion egokitzapen terminologikoa proposa diezaien bere unitate edo erakundeei edo beste departamentu batzuei.